


Uztapide

Berriz plazara I



47238-E

B0-4180-I



# **Berriz plazara**

## **I**

Manuel Olaizola Urbietta  
Uztapide

# Berriz plazara I



AUSPOA



SENDOA



EUSKALTZAINDIA  
AZKUE BIBLIOTEKA

© Sendoa

L.G.: NA. 1.704-2001

ISBN: 84-95378-39-6

Sendoa

Ugaldetxo

20180 Oiartzun

Tels. 943 493 551 /2/3

Fax 943 493 548

[www.sendoa.com](http://www.sendoa.com)

[editorial@sendoa.com](mailto:editorial@sendoa.com)

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L.

# Itzaurrea

**M**anuel Olaizola, *Uztapide* bertso-laria, mundu ontatik joan zitzai-gula aurki beteko dira emezortzi urte, arek bere azken arnasa 1983-ko ekainaren 8-an eman zuan ezkerro. Ala ere, gure bertsozale jendearen gogoan bizi-bizirik dago gaur ere ura. Ori esateko naikoa da lagunarteetan aren izena zenbat aldiz aitatzen dan kontuan artzea.

Ni bertso-mundu zabal ori aztertzen asi nintzan aspaldi artan ere, 1954-anedo, emezortzi urte ziran Txirrita zaarra il zanetik; eta aren izena, bertsoak eta gertaerak, zutik eta bero-bero irauten zuten artean ere gure erriaren gogoan eta mingaiñean.

Ernaniar bertsolari aundi ura atzendu etzedin lan-puskaren bat egin genduan orduan; zestoarrarekin ere berdin gerta dedin, aalegindu giñan, bera bizi zala; eta itzali ondoan ere ekar dezagun gure ondar-aletxo.

Zer ote zan Txirritak euskal jendeari utzitako ondarea? Bere bertsoak, leen-le-enik, batzuk aotik aora kantatuak eta besteak paperetan zabalduak. Azken auk iraungo zutela ongi asko zekian berak ere. Denborak etzituala eramango, aizeak kea bezela, alegia. Orretxegatik esan zuan bertso batean: "nere aitame-nak izango dira beste larogei urtian".

Baiña ondarea eta altxor aundia izan dira, baita ere, eta ziur aski berak orrelakorik uste gabe, aren ateraldi zorrotzak eta gertaera zelebreak. Auek biltze-ko jende bertsozale jator ori izan genduan iturri oparoa; eta, batez ere, aren illoba Jose Ramon Erauskin Lujanbio, bere osaba Jose Manuelekin, Altzako Gazteluene baserrian, amasei urte bizi izan zana. Gai oiekin Txirritaren biografia mardul bat osatu aal izan genduan.

Uztapideren ondare eta altxorra ere bertsoak izan dira, batik-bat: bai plazetan, sagardotegietan eta lagunarteetan kantatuak –oietako asko magnetofonoz jaso eta bilduak–, eta bai berak papere-ra ixuri edo idatziak ere. Eta zer esanik ez aren bizitza, baiña berak kontatua, autobiografia luze bat, alegia, prosa bizi, bero eta jatorrez osatua, iñongo bertsolarik ordura arte egin etzuan lana, alegia.

Ondare aberats ori zenbait liburutan sakabanatuta dago, ordea, onako izenburu auekin: *Noizbait* (1964), *Lengo egunak gogoan* (1975) eta *Sasoia joan da gero* (1976); eta lau tomo osatzen dituzte. Baiña liburu oiek agortuta daudela urte batzuk badira. Gaur egunean oien billa orain iñor asiko balitz, alperrikako lana artuko luke bere gain.

Ala, danak batera biltzeko premia aspaldi samarretik zegoan. Ea, bada, gaurko ontan utsune ori betetzen degun

Baiña aitatuko liburu oietaz gaiñera, *Osasuna joan da gero* izeneko bertso-bildumatxo bat ere arkituko du gaurko tomo auetan irakurleak. Uztapidek, izan ere, bere liburu oiek plazaratu ondoren, beste bertso-sail batzuk ere moldatu eta papereratu izan zituan, sarritan konpromisoz ortaratu bazan ere, eta oiek ortxe bildu ditugu.

Uztapide asko ezagutu eta alkarrekin arreman estuak izan zituzten zenbait bertsolari eta bertsozaleri ere eskatu diegu aren gertaerak eta aotik aorako bertso eta ateraldiak idatziko ote zituzten; edo-ta magnetofonoari kontatuko zizkieten. Baita adiskide oiek beren buruari eragin eta aren amaikatxo bat bertso eta kontu zaar papereratu edo grabatu ere. Salbatu, alegia, era batera edo bestera.

Ala, lantegi ortan alkarren berri izan ez badute ere, gure Manuel Olaizola edo Uztapide aundiaren biografi-moduko bat osatu digute danon artean, guk *Lagunen oroitzapenak* izenburuarekin berezi nai izan deguna.

Tomo auen beste zati batek *Aldizkari eta abarretan* du izenburua. Uztapideren aitamenak, izan ere, argitalpen askotan egin izan dira; eta aren bertsoak eta ateraldiak azaldu ere bai. Sakabanatutako puska oiek ortxe bildu ditugu.

Azkenik, gure Manuel Olaizola gizon eta bertsolari bezela ain maitatua eta mirestua izan zan ezkerro, bertsolari eta bertso-jartzaille askok bertsoak bein baiño geiagotan eskeiñi izan zizkieten, bai bizi zala eta bai il da gero ere. Sail oiek andik eta emendik jasotzen saiatu gera aalegiñean, naiz eta bat edo beste kan-

poan utziak izango ditugun bildurrez gauden; eta *Lagunen aitortenak* izenburuaren azpian bildu ditugu.

Gure Uztapide zanaren leengo liburu zaarrak, beraz, eta geroztik jaso eta bildu ditugun beste gai batzuk, onako bi tomo auek osatzen eta ornitzen dituzten zatiak izango dira.

Zati oien berri eman dezagun, beraz, orain urrengo lerro auetan: bakoitza noiz eta nola egin eta moldatua izan dan, alegia.

Batere dudarik gabe, orrialde oietan esaten diranak Uztapideren nortasun eta maisutasuna zer eta nolakoak izan ziran ederki asko adierazi edo argituko digute, eta azalpen oiek irakurleak atsegiñez artuko ditualakoan gaude.

### Noizbait

*Noizbait* izeneko liburu au, txikia baiña Uztapideren leenengoa, 1964 urtean eman genduan argitara, *Auspoa*- saillaren 42 zenbakian.

Batetik, Uztapideren bertso-mordoska bat gure liburu-sail orrentzat aintzagarri eta mesedegarri izango zala ez genduan dudarik egiten. Bestetik, berriz, *Auspoa*-ri akats bat billatzen ziotenak baziran garai artan, eta bat baiño geiago gaiñera, beste oker askoren artean noski: garai bateko idazki zaarretatik geigixto zuala, eta berrietatik gutxitxo. Esankizun ori ixil arazteko, asko lagunduko zuan, batere zalantzarik gabe, Manuel Olaizolaren izenak.

Nola edo ala eta andik eta emendik, eta adiskide batzuen borondate onari esker, aren bertso-mordo bat bildu eta osatu nuan; eta, ondoren, etxera joan nintzaion, Oiartzungo Laguntzarrene baserrira, alegia.

Esan bearrik ez dago oso arrera ona egin zidatela. Barrura pasa, ango sukaldean patxara ederrean exeri eta bi edo iru arratsaldetan, alkarren artean bertso guziak irakurri genituan, kopiatzerakotan uste gabean erantsitako okerrak eta gaiñerakoak zuzenduz.

Eginkizun ortan ari-ari giñala, Basarri, Zepai, Loidi-saletxe, Lasarte, Jose Lizaso, Xalbador, Lazkao-Txiki, Azpillaga, Agirre, Lazkano, Lopategi eta beste zenbait bertsolariaren bertsoak pasatzerakotan, Uztapidek onela esaten zuan, sarri samar gaiñera:

–Ederra bertsoa!

Baiña berarenak ere irakurtzen genituan bikain askoak, txapela erazteko modukoak, eta bein baiño geiagotan gaiñera, baiña oiengatik etzuan itz erditxo bat ere esaten. Orregatik, ni, andik aurrera, beraren bertso zoragarri bat berrituta-koan, geldialditxo bat egiten asi nintzan, baiña alper-alperrik: arek etzuan tutik ere esaten. Entzun izan ez balitu bezela, alegia.

Ala, urrena aren bertso borobil oietako bat azaldu zanean, nik begiak altxa, berari begira jarri eta onela galdetu nion:

– Eta ori ez al zan ederra?

Berak irripar egin zuan eta onela erantzun zidan:

–Ori? Pasa-modukoa!

Andik aurrera, beraren bertso dotore oietako bat egokitzen zanean, nik irakurketa gelditu eta onela esaten nuan, aopetik eta nerekkiko itzegingo banu bezela:

–Orixe ere pasa-modukoa izango zan, bai!

Berak irripar egiten zidan eta segi aurrera gure zeregin artan.

Noizbait bear eta egiteko ori bukatu genduanean, beste buruaste baten txanda etorri zan, bera ere ez oso erreza eta atsegingarria: liburuarekin ondo ezkonduko litzaken izenburu bat billatzea.

Gustokorik etzitzaigun iñondik ere bururatzen, gure aalegin guziak egiñagatik, eta zulo sakon eta beltz batean erorita bezela geunden: irtenbiderik ezin iñola ere arkitu. Baiña orduan berak onela esan zidan:

–Orain ukuillura joan beariko det, gure bei-parea gobernatzera. Zu orain emen gelditu zaite, eta itxogin zazu pixka batean. Berealaxe etorriko naiz. Baiña ea, bitartean, zuri edo neri zerbait goratzen zaigun.

Ni bakar-bakarrik gelditu nintzan Laguntzarreneko sukalde epel eta goxo artan. Baiña nere buruari aal nuan aiñean eragiñagatik, andik etzan ezertxo ere aintzat artzekorik ateratzen.

Denbora puxka batera, amar bat minutura geienez, Uztapide ostera antxe sartu zan sukaldean, baiña begiak argi-argi zituala. Nik, diz-diz ura ikusi nuan orduko, onela esan nion nere buruari: "Izenburua badegu!"

Gure Manuel ura, izan ere, serio samar eta kopet-illun ibiltzen zan toki guzietan, beti ez bada, geienetan beintzat. Umore onez edo txarrez ote zegoan etzenion bereala antzemango. Baiña noiz-beinka begitartea argi-argi jartzen zitzaien bat-batean, eta orduan egon seguru ateraldi egokiren bat edo zelebrekeriren bat mingaiñaren puntan zeukala.

Aldi artan ere orrelaxe gertatu zan. Irriparrez onela esan zidan:

–Ara, bada: beiekin ari nintzala, zerbait bururatu zait.

–Obe! Obe! Eta zer dan jakin al liteke?

–Bai, noski. Zera jarri zaiozu: *Noizbait!*

–*Noizbait?*

–Bai, orixe. Aspaldi ontan adiskide asko or ari zaizkit bertso-libururen bat noiz egin bear dedan galdezka; eta orra, beraz, *noizbait* egiña, berak nai ordurako izango ez bada ere.

Neri ere etzitzaidan batere izenburu aldrebasa iruditu, eta orixe ipiñi genion.

Guk pentsatzen genduan bezelaxe, Euskal Erriko bertsozale jendeak oso arrera ona egin zion argitalpen orri.

Eta, ortaz gaiñera, andik laster, 1965-eko Urteberri egunean, bertsolarien bigarren txapela irabazi zuan gure Manuelek. Gertakizun orixe ere mesedegarri izan zan, noski, *Noizbait* bertso-liburu berri orrentzat.

### *Lengo egunak gogoan*

*Lengo egunak gogoan* izenburua duten bi tomoak 1974-an kaleratu genituan.

Bi urte igaroak ziran Uztapide gaixotu zan egunetik, 1972-ko Apirillaren 30-ean Donostiako *Anoeta* pelota-lekuan bat-batean ondoeza eginda.

Leenengo larritasun artatik naiko ondo atera bazan ere, gure Manuel gizarajoa antxe zegoan bere betiko txokotan, Laguntzarrene baserriko barrunbean alegia, ala bearrez bai bera eta bai bere erriz erriko kantu-lan oparo, dotore eta gustagarria erabat eta betirako baztertuta.

Zeregin aundirik ez baitzeukan, ardi batzuk ekarri zituan, aiek zaintzen denbora errezero pasako zualakoan. Goizean belardi batera ateratzen zituan, eta

illuntzean bordatxora bildu. Bein itz auek esan zizkidan:

–Bai; mutikotan jaiotetxearen inguruan artzantzan ibiltzen nintzan; eta orain zaartzaroa ere artzantzan pasako det.

Neri, berriz, gizon ura era artan ikusirik, denbora nola pasa etzekiala, alegia, bein baiño geiagotan beste zerbait etortzen zitzaidan burura. Ona zer esan nuan *Erri-kontakizunak* izeneko itzaldian, Donostian, E. U. T. G.-ko areto nagusian, 1992-III-27-an:

“Erriko jendearekin itz asperturik egin badezute, bazkari edo apalondo batean-edo, aien garria bukaerarik ez duana dala oartuko ziñaten noski. Baiña bat edo bat beti izaten da gailen agertzen dana. Uztapide zana, adibidez. Ura kontu kontari asten zanean, maai guzia ixildu egiten zan ari entzutearren. Bitartean, nik nereko onela esaten nuan:

–Au ere erri-literatura da; aozkoa noski, baiña literatura jatorra. Kontakizun auek papereratu balira, liburu ederrik osatuko litzake”.

Ordurako ere beste saio batzuk egin da geunden kontakizun oiek papereratzten; aozko literatura literatur idatzia biurtu bearrez alegia: Mikaela Elizegi eta bion artean moldatutako *Txirritaren bizitza*, Pello Errotaren *bizitza bere alabak kontatua*, eta bai Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* ere.

Eta beste bi prestatzen ari nintzan bolara artan. Bata, Iñaki Alkain eta bion artean moldatua, *Gerrateko ibillerak* izeneko, naiz eta 1981 urtera arte argira aterako etzan. Bestea, berriz, Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin Lujanbio zarenaren *Aien garaia* izeneko, 1975 urtean, *Lengo egunak gogoan* tomo auen sail be-rean plazaratuko zana.

Biak ere irakurri zituan Uztapidek, inprentara bialdu baiño leenago, makinaz idatzitako kopia bat eraman nionez;

eta asko gustatu omen zitzaizkion. Esan beintzat ala egin zidan, eta benetan ari zalakoan nago.

Ala, Joakin Berasategi adiskidearekin ari-mutur guziak aurretik ondo lotu ondoren, zera eskatu genion Manuel zaarri: berak bere bizitza idatziko ote zuan; lan ori liburu aundi eta dotoretan agertuko zala; batere dudarik gabe, erruz salduko zala; eta ortik irabazbide polit bat izango zuala...

Orrelakoetan oi danez, gizon ura ortaratzearren, bururatu zitzaizkigun arrazoi guziak erabili genituan, noski.

Gure poza etzan txikia izan, Uztapide aundia gure esanera jarri zanean. Berealaxe, zalantzetan batere denborarik galdu gabe, oso arreman berezietan asi giñan, autobiografia ori leenbaileen osatu eta argitaratu aal izateko.

Ona zer esan nuan leen aitaturako itzaldi ortan:

"Ostegunero joaten nintzan Oiartzungo Laguntzarrenera, Uztapideren etxera alegia. Leengo lana, arek idatzia nik irakurtzea izaten genduan, dana ondo ulertzen nuan eta sentidua ondo ematen nion ikustearren. Illun-uneak berari galdetuz argitu ere bai. Ondoren galdezka asten nintzan:

-Urrena nora joan ziñaten? Izarraitz mendira ikazkintzara? Zer lan-klase da ori? Nola egiten da? Zeintzuk ziñaten? Zenbat denbora pasa zenuden?

Bera kontu kontari asten zan. Leen esan bezela, kontalari bikaiña zan. Bitartean, nik paper batean apunte batzuk artzen nituan. Atal batentzat aiña jaulkitakoan, idatzitako apunteak ordenatu eta txukun jartzen nituan beste paper batean. *Sinopsis* bat egin alegia, ta berari uzten nion, onela esanez:

-Emen esaten diranak datorren ostegunerako idatzi egin bear dituzu orain. Eta kontatu bezela papereratu ere, txetasun guziekin".

Orrelaxe jardun giñan biak denbora-puska batean, etenik egin gabe alegia, bi tomo oiek osatu eta moldiztegirako presatatu genituan arte.

Bertsolariak edo bertso-jartzailleak bein baiño geiagotan eskeiñi izan dizkigute autobiografi-moduko batzuk. Edota beren bizitzaren zati bat kontatzen digute. Bertsotan, ordea, eta labur antxean. Baiña patxaraz idatzitako autobiografi luze eta oparo bat, eta prosaz moldatua gaiñera, aurrena Uztapiderena izan dala esatera ausartuko nintzake.

Baiña gure Manuelek gure begien aurrean zabaltzen duan prosa jator, bizi eta aberats orrekin ez degu batere arritu bear. Bertsolari guzi-guziak, izan ere, emengoak eta atzerrikoak, bertsoan egingo badute, bai bat-batean eta bai paperean moldatuz, beren izkuntza oso ondo ezagutu bear dute. Bertsoaren doaia beren barruan dute, baiña aurretik itzarena izan dutelako. Manuel Lasartek Uztapideri eskeiñitako bertso-sail batean esaten duana:

ortarako doaia  
biok bagendula,  
nundik sortu zitzaigun  
ez genekigula.

Gai oni buruz onela esan nuan La Palma de Gran Canaria-n, 1998-X-9-an, emandako itzalditxo batean:

"...*el improvisador en verso, y también el versificador, aunque no llegue a repentizar su arte, y el mero aficionado a la poesía popular, son individuos dotados de un conocimiento poco común de su lengua materna, de un oído finísimo para su idioma, y de gran gusto y sentido literarios. Es algo innato. Pero esa semilla se desarrollará después si encuentra tierra y ambiente convenientes.*

*Ese sentido literario da sus frutos: en verso, en la poesía popular, improvisada o no, que es género*



frecuentemente recopilado; y en prosa, no sólo en cuentos y leyendas que se narran repetidamente, sino también en relatos, generalmente de la propia vida, que son pocas veces recogidos, quizás por ser labor más difícil.

*Ese don y oído para el idioma, y ese temperamento literario, son la raíz de la versificación e improvisación en verso. Pero pueden asimismo encauzarse hacia la prosa, hacia lo narrativo. Apenas hay un hombre a quien a lo largo de su vida no le haya acaecido algo que merezca contarse. Lo que sucede es que no todos valen para ello”.*

Uztapiderenaren ondotik gisa ortako makiña bat liburuarekin aberastu da gure erri-literatura, kate luze bat, alegia, dantza-soka edo aurreku bat balitz bezela; eta, besterik gabe, esaten ari geranaren proba edo erakusbide garbia ortxe du irakurleak.

Uztapideren autobiografia bukatutzat emandakoan, beste oztopo edo zailtasun bati aurpegi eman bear izan genion, *Noizbait* izeneko liburuarekin gertatu zitzaigun bezelaxe: ume jaio berri guziak izena bear dutela.

Asi giñan, beraz, zerbait ere asmatu bearrez; baiña gu bion buruak agorraldi gogorra eta zekena zuten. Egun batzuk ere pasa genituan illuntasun edo zalantza ortatik atera eziñik. Bere ukuilluko beiak gobernatzera joan eta etzan Uztapide begi argiekin itzultzen.

Baiña, alakoren batean, Xenpelar zaren bertsoetan guri komeni zitzaigun esaeraren bat bai ote zan iduripena jarri zitzaidan neri. Etxera itzuli, aren liburua eskuetan artu eta ekin nion bertsoak berriro eta arretaz irakurtzeari. Orrialdeak pasa eta pasa ari nintzala, 1867 urteko sail batera iritxi nintzan, leenengo bertsoa onela asten dana: “Bajatu gera graduan”. Eta urrena, bigarren lerroan, nere begiak onako esaldi onekin topo egin zuten: “lengo egunak goguan”.

Uztapideren liburuarentzat bete-beteko izenburua izango zala iruditu zitzaidan neri esaldi ori. Eta berari ere, urrena arengana joan eta esan nionean, oso gustokoa egin zitzaion.

Orra, beraz, XX mendeko liburu bat XIX mendeko liburu baten itzekin baitaiatua; gure garaiko bertsolari bati orain eun urteko beste bertsolari batek eskua nola luzatu zion, laguntza egiñez.

Urrena, berriz, liburu berriaren itzaurrea Juan Mari Lekuona adiskideari eskatu genion; eta bai berak idatzi ere, beti bezin txukun eta dotore. Ederki asko adierazten du Uztapideren idazlan orren merituak zein diran. Orregatik, neri une ontan dagokidan egin bearra ez danez, ez daukat lan ortan zertan asi, alderdi bat edo beste geixeago nabarmentzeko izan ezik.

Uztapideren liburu au, esan bezela bi tomotan banatua, bertsozale jendearentzat naiko ustegabekoa izan zan.

Ona nola esaten zuan liburuaren itzaurrean leen aitaturako Juan Mari Lekuonak:

“...liburu au, alderdi askotatik begiratuta, arrigarria izango dalakoan nago. Eta lendabizi, dakarren egituragatik: ez da bertsoan egiña, itz-lauz baizik. Ele-berriekin dator eta ez bertso berriekin. Inork pentsatu ere gabea zan Uztapidek, kontu esaleen maillan, orrelako liburu mardul eta aberatsa egingo zigunik”.

Jose Mari Aranaldek, berriz, onela zion, gure Manuelen urrengo liburuarentzat, *Sasoia joan da gero* izenekoarentzat alegia, idatzi zuan itzaurrean:

“Leengo liburua ez-ustekoa izan zen. Uztapidek liburua egin zuela otsa zabaldu zanean, mundu guziak bertsozkoa zela pentsatu zuen, eta itz-lauzkoa etorri zen”.

*Lengo egunak gogoan* izeneko bi tomo oiei oso arrera ona egin zien Euskal Erriak, bertsozale jendeak batez ere. Ala

izango zutelakoan geunden, eta bai guk uste bezela gertatu ere.

Baiña bakoitzak berea aitortu bear baldin badu, nik zera esan bearco det: nere libururen bat, edo-ta nik parte artutako libururen bat, moldiztegitik atera, plazaratu eta eskuetan artutakoan, ez detala bera irakurtzen denborarik asko pasatzen, une artan aren esanak ia-ia buzur ikasiak izaten ditut eta. Are geiago: liburua irikitzeke ere zalantzan egoten naiz, nere begiak oker edo errataren batekin topo egingo duten bildurrez, bein baiño geiagotan alaxe gertatu zait eta. Beste egille askok ere kezka ori bera izango dutelakoan nago.

Uztapideren *Lengo egunak gogoan* tomo auekin ere berdin-berdin egin nuan. Agertu ziran egunean apalean jarrir nituan, eta arrezkeroztik oso gutxitan artu eta zabaldu izan ditut. Orain egokitu zait ori egin bearra, bigarren argitalpen au prestatzeko alegia, ogei ta bost urteren buruan.

Baiña orain, epe luzetxo ori tartean izanik, idazki berri-berria banu bezela irakurri ditut. Besteren batek prestatutako liburuak zirala iruditzen zitzaizkidan. Uztapide zanaren ustegabeko prosa bikain eta jator orrekin gozamen aundi bat artu det nik orain, garai artako irakurleak artu zutenaren antzekoa.

Baiña ez nuan pentsatzen aren libururirik irakurtzen ari nintzanik, beraren itz-jarioa entzuten nuala baizik. Nere iduripenean gure Manuel ber-bera garbi-garbi ikusten nuan, bazkalondo lasai eta atsegingarri aietako batean kontu-kontari ari zala.

Erri-gizon auei, prosa-libururen bat egitera prestatzen diranean, danei kontseju bera ematen diet beti, idazten asi aurretik: beren etxeko sukaldean edo erriko tabernaren batean lagunen artean

izketan ariko balira bezelaxe gauzak papperatzeko; naturalidadea galdu ezkerro, beren lanak ezer gutxi balioko duala, eta abar.

Gure Uztapideri ere gauza ber-bera predikatuko nion, noski; eta bai berak uxen, txintxo eta apal nere sermoitxoia bere belarri aundi aiekin jaso eta esannaiaz jabetu ere.

Nere iritzirako, izan ere, eta nere esana ez dezala iñork gaizki artu, alkarrengandik urrutitxoegi darabilzkigu itzegiten degun euskera eta idazten deguna. Batetik bestera tarte geiegi jarrita daukagu. Batere dudarik gabe, mundu zabal ontako beste izkuntzarik geien-geienak izan oi duten baiño askozaz ere aundia-  
goa.

Gure Manuelek, berriz, biak bat egitera irixten dala esango nuke bere prosa ortan. Itzegiten zuan bezelaxe idatzita dago, izan ere, bere liburu ori. Zenbait aldiz, itzak eta gauzak errepikatuz eta abar, mingaiñeratu ere orrelaxe egiten zaizkigu danoi eta.

Ala, Uztapideren idazkerarentzat pentsatua eta idatzia dala ematen du, lengo batean, alakorik batere uste gabe, irakurri nuana: Julio Cejador zanak *La vida del Lazarillo de Tormes* liburuari (*Clásicos Castellanos 25, Espasa-Calpe, Madrid, 1914*) erantsi zion itzaurrean esaten duana:

*"No conozco sentencia de más monta y alcance en el arte que aquella de Maese Pedro: "Llaneza, muchacho, no te encumbres, que toda afectación es mala" (Quij., 2, 26). Prosa más llana y sin afectación no se había escrito en castellano hasta que se escribió el Lazarillo. Hallaréis trozos tomados del natural en el Arcipreste de Talavera y en la Celestina; pero entre otros amanerados, campanudos, propios del escritor renacentista, que teniendo ante los ojos el período latino y creyendo además que el arte de escribir es cierta manera de expresarse más levanta-*

*tada y rimbombante que la usada entre vecinos en casa o en la plaza, soplabá su péñola, estufaba su período, ahuecaba su voz para no escribir como se hablaba. El autor de Lazarillo escribía como hablaba y esta novedad y esta verdad encantó a los lectores, como encantan siempre y traen cogidos de pies y manos a los lectores la verdad y la novedad en cualquier obra de arte”.*

Ni, leen ere esan dedan bezela, erri-prosa ori aurrera atera nairik aalegin batzuk egiña nintzan. Baiña jendea artaratzten etzegoan batere erreza. Ezezko legor eta zorrotz bat bein baiño geiagotan entzun izan nuan aien aotik.

Zergatik ote? Nere iritzirako, geien-geienak parregarri geldituko zirala uste zutelako. Sarritan pentsatu izan det bildur ori Uztapideren liburu onek batik-bat uxatu duala.

Alde batetik, euskera-mota ori bere-na zutela ikusi zuten, eta berak ere papereratu zezatekela; eta bestetik, berriz, lotsagarri gelditu bearrean txalo beroak jasoko zituztela. Ala, erabat aldatu ziran, danak ez bada, aietako asko beintzat, leengo egoera batekoz bestera biurtzeraiño. Berak dira orain nere billa datozenak eta nere atea jotzen asi diranak.

Ala, lerro auek apirillean idazten ari naiz eta joan dan illabetean, 2001-ko Martxoan alegia, olako iru erri-idazle azaldu zitzaizkidan, bakoitza bere esku-idatzia-rekin. Orregatik, ezezkoa ematen asi berako det laster, nere gogoaren aurka izango bada ere, danen sekretariotza egitea eziñezkoa zaidalako, orain artean bezela egunak ogei ta lau ordukoa izaten jarraitzen badu beintzat.

Ez nuke nai Manuelen beste alderdi on eta gogoangarri bati buruz zerbait esan gabe utzi: aren biotz aundi, bigun eta maitekorra. Maitasuna dariote emengo orrialdeak etxeoentzat, adiskideentzat, errientzat, izadiarentzat, gure eus-

kal lurrarentzat... Erririk erri ibili zane-ko oroipenak ao-sapaian miliskatzen eta urtzen dan goxoki baten antzekoak zitzazkion, kanturako mututu eta ala berrez etxeko bakardadean bizi zan Uztapide zaarrari. Ortik, noski, orrialde auetan arkitzen ditugun gizaki askoren erretratu zoragarriak.

Umeentzat ere alakoxea zan ura. Arratsalde batean, beraren andrearen jaiotetxeko *Bide-alde* ostatuan sartu giñan. Illobatxo bat bereala urreratu zitzaion, eta belaunetan exeri. Aren festak, osaba zaarrarekin! Au ere gustora. Manuelek maai gaiñean antxe zeukan kafesne bat, atera berria; eta mutikoa berealaxe ekin zion kutxarilla artu eta azukrea urtzeari. Baiña bi edo iru minutu bazeramazkian ortan eta etzeukan gelditzeko itxura aundirik. Bitartean, gure Uztapide kopetillun ura parrez. Alakoren batean, onela esan zion bere belaun gaiñekoari:

–Ori eraginda dago!

Baiña arek segi. Eta nik nere artean onela esaten nuan: “Nork gozaten du emen geiena?”.

Biotz on eta zabal ori bera da, bada, liburu ontako orrialdeetan agertzen dana. Maitasuna eta dirua ezin izkutatu ditezkeela esan zuanak bazekian zerbait.

### *Sasoia joan da gero*

Prosazko liburu mardul bat idatzi eta kaleratuz Euskal Erri osoari eta batez ere bertozale jendeari ez-ustekoa eman zion ezkerero, bere burua beartuta bezela ikusi zuan Uztapidek, beste emaitza bat Euskal Erriari eskeintzeko; beste liburu bat, alegia, urrengo au bertsoan, ordea.

Iritzi ortakoak giñan leenengo liburu egiten zerbait lagundu edo eskua lu-

zatu genionak ere. Baiña nik gairen bat billatu nai nuan aurretik, bertso gintzan asi baiño leen, bigarrenko liburu ori batasunaz ornitzeko. Etzedilla, alegia, bertso-sail pilla utsa izan. Etzitzaidan, ordea, buruari eragiñagatik, olakorik ezer ere gogoratzen; Uztapideren izakerari ondo etorriko zitzaion zer bait, alegia.

Zalantza ortan giñala, Madrillera joan bearra gertatu zitzaidan. Baiña "biaje batez bi mandatu ez da pekatu" dio esatera zaarrak; edo, Leitza aldean diotenez, "bidenabarrekoek doble balio dute". Nik ere orixe egin nuan aldi artan: iriburu aundi ori bisitatu eta Peña Lara tontorrera igo.

Maldan gora izerditan ninjoala, orduan bat-batean burutazioa piztu zitzaidan: urtearen buruan nekazaritzak dituen lanak zer ziran eta gure Euskal Erri ontan gizaldietan zear nola egin izan diran bertsoan adieraz zezala gure bertsolari aundi onek.

Orixen zedilla gaia, eta Erromako Virgilioren *Las Géorgicas* izenekoaren antzeko edo moduko poema eder bat izango genduan euskeraz.

Andik etorritakoan, Oiartzungo Laguntzarrenera urrena joan nintzanean, nere burutazio orren berri eman nion Uztapideri. Baiña berak, batere zalantzetan ibili gabe, ezeko borobil batekin erantzun zidan: bazituala bertso-sail batzuk jarri eta moldatuta; alperrikako lana izango zituala oiek, bide berria artzezkeroz; eta leengo zaarrari jarraitu nai zio-la, bere egin bear ori leenbaileen bukatzeko. Nik eskeintzen nion bidea ez dakit onerako edo kalterako izango zuan; baiña nere asmoak aizkorakada batekin bezela moztu zituan berak.

Andik aurrera ere, leen egiten nuan bezela, astero edo amabostean bein aren

etxera joaten nintzan aren etxera, eta berak bertso-sail berri batzuk beti ematen zizkidan, makinaz pasa eta bere eginkizun ori al dan azkarren osatzeko.

Ni, egia aitortuko badet, arritu egiten nintzan orren aguro nola moldatzen zitu. Orixen izan zan bolara batean gure jokabidea, liburua betetzeko naikoa zala esan nion artean. Etzan asarre gure gizona, ori entzun zuanean.

Aur jaio berriari izena billatu bearra etorri zan orduan; baiña tajuzkorik edo itxurazkorik ezin genduan iñola ere arkitu. Aren eta nere buruak agorraldia zuten berriro ere. Batean, ordea, onela esaten asi zitzaidan:

–Jarri bear nituala eta jarri ditut, bada, bertso-sail oiek. Baiña langintza ortarako burua moteldu eta astundu zaidanean. Orain urte batzuk askoz obeak moldatuko nituan. Garai artan, ordea, denborarik ez, sasoirik onena orduantxe banuan ere.

Nik orduan, zer esaten nuan geiegi pentsatu gabe, onela erantzun nion:

–Sasoia joan da gero egindako lana, beraz.

Eta berak:

–Orixen ber-bera, bai! Eta jarri zaiozu izenburu ori: *Sasoia joan da gero*.

Alde batetik, bai, nere gustoko izan zan, izenburu orrek gatza eta piperra bazeukan eta. Baiña bestetik ez, liburuaren aurkakoa izango ote zan irudipena eta usaia berealaxe artu nizekion-eta. Liburua goraldtu bearrean, beraren balioa gutxiagotu egingo zuala, alegia. Egun artan tratalari eskasa agertu zitzaigula, alegia, gure Manuel: bere txekorra famatu bearrean, aren akatsak berak erakutsi.

Eta gertatu ere, nik bildur nuana egin zan. Eldulekua ortxe arkitu baitzuten li-

buru orri buruz zerbait esan nai zutenak edo bear zutenak. Itz-aurrelariak berak ere, Jose Mari Aranalde adiskideak alegia, onela idatzi zuan:

“Dakizunez, irakurle, *Sasoia joan da gero* jarri dio izena liburuari gure Uztapidek. Berak dionez, “gorputzean indarra ondo dagoenean, burua ere obeki egoten da”; eta garai bateko sasoi ederra joanda dagoela entzungo diozu bein baino geiagotan liburuan zear. “Bat ori –dio berak–. Bestea, ori baino ere txarragoa: gaitxo txarra pasata nago orain dala iru urte. Perlesia pasa nuen burutik, eta burua ark oso moteldu zidan lenaz gañera”. Beraz, “sasoia joan da gero” emandako fruitua dugu gure Uztapideren au”.

Irakurleari gaur eskeintzen dizkiogun bi tomo auetako bigarrenean ere badago ortatik geiago. Imanol Lazkano bertsolariak jaulkitzen dituanak, adibidez.

Ori egia ez danik nik ez nuke iñola ere esango. Baiña egi osoa ez dala, bai. Liburu onek badu beste sustrai oker bat, nere iritzirako beintzat: presaka eta azkarregi egin zala. Azkarregi gaiak aukeratu eta bai bertsoak moldatu ere. Joanaldi bakoitzean –eta ori, leen esan bezela, astero edo amabostero egiten nuan– ia dozen erdiren bat sail besapean nituala itzultzen nintzan etxera. Beartuta bezela artutako langintza zuanez, zama astun ortatik alik-eta azkarren libratu nai zuan bere burua gure Uztapide zaarrak.

Bi jokabide oso ezberdiñak ikusi nituan nik garai artan bertso gintzarako: bata, gure Manuelena, presakakoa, leenbaileen bukatu bearrekoa. Eta bestea Xalbadorrena, patxarazkoa, burutsua, bertso bakoitza bein eta berriro buruan ausnartzen, lantzen eta txukuntzen zuana, perla bat bezin dizdiratsu biurtu artean.

Etxekoak zerbait esan eta erantzunik

bueltatzen etzuala ibili omen zan ura illabete batzuetan. Ala, Leonnie beraren andrearen aotik keja au entzun bear izan nuan egun batean: “Gizonik gabe utzi nauzu”.

Zestoarrak, beraz, bertsolaritza leengo bide zaarrari jarraitzen zion. Arena aozko eta bat-bateko bertsoa zan orduan ere, jendearen aurrekoa bezelakoxea, alegia, naiz eta bertsoak, mikrofono bati zuzendu bearrean, paper zuri bati jaulkitzen zizkion. Plazetan ari zala, bertsoak aren burura leenengo azalpena egiten zuten bezela eztarriaren atea zabaldu eta entzuleen belarrietaraiño bialtzen zituan antzera, orain lumaren bitartez irakurleen begietaraiño iritxi erazten zituan. Orixe zan alde bakarra. Baiña bertsoa egosten pasatzen zuan denbora berdintsua izango zan batean eta bestean.

Urepeldarraren bertso gintza, berriz, oso bestelakoa ikusten nuan. Arena, munduko olerkaririk geientsuenak erabiltzen dutena zan: bertso eta sail bakoitza ausnarrean bein eta berriro pasa eta landu, leen esan degunez, urrezko bitxia biurtu artean.

Batena, beraz, bertso gintza naturala, baserritarra, antziñako aozko kultura zaarren tradiziokoa; bestearena, berriz, landua, eskolatua, geroztikako kultura idatziaren lan-moduak ikasia, gure betiko bertso-eskolari uko egiten ez bazion ere.

Bertsoak jartzeko Xalbadorren antzera jokutzen zuten beste bi bertsolari, aspaldi samarrekoetan beintzat, Bilintx eta Pedro Maria Otaño izango dira. Eta Uztapideren lan-modua zutenak, berriz, pilla bat aitatu diteke: Txirrita, Pello Errota, Udarregi eta abar eta abar. Aiek bazekiten luma eta paperarekin molda-

tzen zan bertsoak eta bat-batean kantatzen zanak oso egosketa ezberdiña eskatzen zutela. Auek ez, ordea.

Gizona ez da bein ere bera bakarrik epaitu bear; bere inguruko giroarekin eta bere barrengo asmoekin baizik. Orrela egitera, Xalbador eta Uztapideren emaitzak zeruak gure erriari egindako opariak bezelaxe ikusiko ditugu.

Bearbada geiegi luzatu naiz, baiña onekin zera esan nai nuke: Uztapidek, lantegi onek eskatzen duan denbora guzia artuz, bere bertso-liburu au astiro eta patxaraz egin izan balu, eta komeni etzan edo mesederik egiten ez dion izenburu ori jarri izan ez balio, iñork etzuala ortan izbiderik aurkituko. Liburu ori, gure Manuelen itzez esateko, pasa-modukoagoa irudituko zitzaiola irakurlerik txorrotxenari ere.

### *Osasuna joan da gero*

Izenburu onekin oso zati laburra dator urrengoa. Prosaz eta bertsoz bi liburu mardul eskeiñiagatik, artean ere izaten zituan Uztapidek eskeak eta konpromisoak andik eta emendik. Jendea ateondora urbiltzen zitzaion, alegia, au zala edo bestea zala eta bertsoaren batzuk jarriko ote zituan eskatuz. Eta arek, ezetz ez esatearren, ixil-ixilik luma eta papera artu, sukaldeko maaian eseri eta moldatu egiten zituan.

*Sasoia joan da gero* liburuarekin bezelaxe gertatu zitzaion, beraz: konpromisozko langintza izan zuala bertso oiek ere jartzea.

Uztapidek bere liburuetan bein baiño geiagotan erabiltzen duan esaera auxa da: "erria serbitu". Eta alaxe da: erriaren serbitzaritzat zeukan arek bere burua; eginkizun ori aal dan ondoen bete nai-

rik ibili zan plazarik plaza urte-mordo aundian; eta azken urteetako bere bertso-saillak ere orretxegatik jarri eta pape-reratu zituan.

Baiña frutu mardulik eman dezan, ez da arbolik beartu bear. Ez-ta gizonaren burua ere. Udaberrian lorea azaltzen daretik udazkenean frutua bildu arte, denbora bear da. Nekazariak badaki, bai, bear dan pazientzia artzen. Ortaz gaiñera, arbol bakoitzak berari dagokion fruta-mota eman bear du; ez besterik.

### **Lagunen aitorpenak**

Uztapideren beste alderdi bat, iñork ere ukatuko ez duana, zera da: oso gizon maitatua zala. Berak biotz maitekorra zuan eta esaera zaarrarena gertatzen zan: zer ereiten dezun, uraxe jasoko dezu. Ori erakusten digute bertsolariak eta bertso-jartzailleak ari buruz eta ura goralduz moldatu izan dituzten saillak.

Lagunari zioten maitasunak eragindako bertso-gintza ortan Basarri asi zan, 1959 urtean. Ondoren, berriz: Jesus Mari Etxezarreta, *Izazpi* izenordea erabiltzen duana, 1963; Balendin Enbeita, 1963; Martzelino Manterola 1972; Basarri berriz ere, 1972 eta 1973; Manuel Lasarte, ez dakigu zein urtetan; Jesus Maria Etxezarreta berriz, 1972; Xalbador, 1974; Segundo Kalonje, 1975; Manuel Lasarte berriz ere, 1975; Mikel Arozamena, 1976; Patxi Larrañaga edo *Patxi Barbero*, 1981; Jose Mari Lertxundi, 1983; Xanti Zabala, *Lexo*, 1983; *Adixkidea* izenordez firmatzen duan Bidasoaz arunzko bat, 1983-an, Uztapideren il-berria entzundakoan; Martzelino Manterola berriz ere, 1983; Pablo Zubiarrain, *Ernani-Txikia*, 1985; Teodoro Mujika, 1996; Nikolas Zendoia, 1997; Jose Aierbe, Loiola, Donostia; osteria Ma-

nuel Lasarte, 1999; eta Txomin Garmendia.

Askotxo diran arren, bildurrez nago bertso-sail bat edo beste aaztu eta aitatu gabe utzi ote dedan; liburu auetara ekarri gabe, alegia. Orrela balitz, barkazioa eskatzen det, nere oker ori borondate txarrez egindakoa ez da eta.

### Aldizkari eta abarretan

Leen esan degun bezela, bi tomo auen beste zati bat, ez luzea, baiña bai jakin-garria, aldizkari eta gaiñontzeko argitalpenetatik bildua da.

Uztapideren nortasuna eta itzala alakoak izanik, euskal aldizkariak-eta maiz samar artu izan dituzte aren bertsoak eta ateraldiak beren orrialdeak betetzeko eta ondartzeko.

Aberastasun edo altxor ori ortxe zegoala jakinaren gaiñean geunden; baiña sakabanatuta eta galduta, artzairik gabeko artaldearen ardiak bezela, esate baterako.

Bitxi oiek nork bildu, ordea? Lan astun eta aspergarri ori egingo zuanik non billatu? Zeregin ortarako bear dan ainbat pazientziaz ornitutako gizonak ez baitira non-nai arkitzen.

Zorion ori guretzat izan da, bada: Nikolas Aldai adiskidea. Onek garai bateko aldizkari eta argitalpen guziak, edo geien-geienak beintzat, aztertu ditu: *Bertsolari-guduak 1935-1936*; *Euzko Deya*, *Anaitasuna*, *Olerti*, *Jesusen Biotzaren Deia*, *Beasain 1963*, *Lartaun 1963*, *Boga-boga*, *Príncipe de Viana*, *Zeruko Argia*, *Deia*, *Egan*, *Eguna*...

Oietatik Uztapideren bertsoak-eta atera ditu. Bestela galtzera zijoazenak, orra lagun onen lanaren bidez betirako

salbatu... Era ortan bildutako bertsoen artean, ortxe daude Uztapidek, Basarrik, Mattinek eta Xalbadorrek 1958-eko Maiatzan Parisen kantatuak.

Biotz-biotzez eskerrik asko, beraz, Nikolas Aldai adiskideari.

### Lagunen oroitzapenak

Beste zati au guztiz berria da. Uztapide zana asko tratatu eta ondotox eza-gutu zuten bertsoariei eta bertsozaleei mesede bat eskatu genien: beren buruari eragin eta gure Manuelen oroitzapenak papereratzeko edo magnetofonoaren aurrean esateko, batedobat ortarako joango zitzaiela eta. Aren bat-bateko bertsoak, ateraldiak, gertaerak, ibillerak eta abar bear genituala. Ez da iñor ere izan ezezkorik eman digunik.

Baiña emen ere bildurrez gaude. An eta emen izango baitira, eta bat eta bi baiño geiago gaiñera, Uztapideri buruz zerbait edo asko dakitenak eta gure eskaria zuzendu ez diegunak.

Izen ospetsu asko arkituko ditu irakurleak, beren barruko kutxatik Uztapideri buruzko oroitzapenak atera dituzten oietan: Uztapideren illoba, au ere Manuel Olaizola, Zestoa; Jose Lizaso, Jose Agirre *Oranda* eta Imanol Lazkano, irurak Azpeitikoak; Sebastian Salaberria, Ernani; Jose Luis Lekuona, *Lexoti*, Oiartzun; Jon Azpillaga, Mutriku; Roman Maiz *Okelar*, Mutriku; Juan Ibarzabal *Buztarri*, Markina; Julian Albizu, Arriaran; Jose Mari Lertxundi, Aia; Txomin Garmendia, Berrobi; Jose Intxausti, Segura; Kasiano Iburguren, Lizartzako itxua; Kosme Lizaso, Oiartzun; Patxi eta Rufino Iraola anaiak, Zaldibi; Nikolas Zendoia, Aia-Zarautz; Juan Mari Narbaitza, Eibar; Jesus Mari Etxezarreta,

Deba; Sabino Auzmendi, Ataun; Jose Mari Iriondo, Urrestilla-Zarautz; Florentino Goiburu, Idiazabal; Agustin Agirre; Antonio Barandiaran, Olaberria; Xabier Unanue, Zestoako alkatea...

Izen-zerrenda luzea, eta erri-zerrenda era ez motzagoa. Orrek, besterik gabe. zera adierazten du: Zestoako bertsolariaren ibillerak Euskal Erri osoa betetzen eta besarkatzen zutela. Aren joan-etorriak mapa batean markatuko bagenituzke, sare estu batekin bezela estaliko genduke gure lurra.

Baiña izen baten utsunea ez al du irakurleak sumatu? Bai, noski; Manuel Lasarte bertsolariarena, Uztapideren kantu-lagunik leialena bera, Basarri zanarekin batera. Lasartek ez al zuan, bada, zer kontaturik izango Uztapideri buruz? Bai, eta asko gaiñera. Baiña bere testigantza leendik emana du, gozo eta dotore gaiñera, bere *Uztapide gogoan* liburuan, *Auspoa*-ren 261 zenbakian, 1999 urtean. An esaten dituanak berriro liburu ontan jarzterik etzegoan, noski; baiña badaki irakurleak nun dituan.

Oroitzapen oiek, bakoitzak idatzi edo esan duan bezelaxe aurkituko ditu emen irakurleak, norberak naiago izan duan idazkera errespetatuz, orrelaxe bear dua-la dudarik ere ez da eta. Gure iritzia orixe da, beintzat.

Ezagutu zutenen testigantzak eskatzea eta biltzea ez da guretzat jokabide berria. Berdin egin degu, gure *Auspoa* saillean orain arte argitaratu ditugun bertsolari-liburuetan. Bertsoak argitara eman ez-ezik, aurretik beren bizitzak eskeiñi ere bai; eta ortarako iturri bat, eta ez murriztena, jendearen oroipena izan degu.

Biografia oietako batzuk naiko luzeak dira, eta labor samarrak beste batzuk.

Aldi batzuetan, izan ere, oso berri-emale legorrak egokitu zaizkigu. Ortarako asko esan nai du, noski, irakurleak berak pentsa dezakenez, bertsolaria noizkoa dan. Zenbat eta antziñagokoa izan, orduan eta urriagoak eta eskasagoak ari buruz iñoren aotik jaso aal izan ditugun argibideak.

Alderdi ortatik suerte aundia izan dutenak, garai bateko bertsolarietan, Txirrita, Pello Errota eta Mattin izan dira, irurak ere beren berriak urteen buruan emango zituan iturri oparo bana utzi zutelako, berak olakorik ezer pentsatzen ez bazuten ere.

Txirritak bere illoba zana, beraren arrebaren semea, Jose Ramon Erauskin Lujanbio; Pello Errotak, bere alaba Mikela zana; eta Mattinek, bere alarguna dan Mayi Treku.

Beste arrazoi bat ere oso kontuan artu bearrekoa dala uste det; orain urte batzuk, Udarregiren liburuaren aurkezpenean esaten nuana:

"Bertsolariak, izan ere, bi taldetan berezi dituzke; batean beren bizitza ere literatur-gai bihurtu dutenak: Fernando Amezketarra, Pello Errota, Txirrita, Oiarzungo Kaskazuri, Uztapide bere autobiografiarekin, Mattin bere alargunak idatzi zuan liburuaren bidez, eta bai Lazkao-Txiki ere bere gertaera eta txistekin".

Era ontako bertsolariak biografia luze txoa, mamitsua eta jakingarria izatea, edo idatzi aal izatea, ez da iñola ere arritzekoa.

Beste bertsolari batzuk, berriz, gizon serio eta xuxenak izan ziran; beren bidean txintxo eta apal ibilitakoak. Leengo zaarretan, adibidez, Altzoko Manuel Antonio Imaz edo Juan Jose Sarasola *Lexo*, biak ere bertsolari oparoak. Orrelako gizonak, dakigunez, ez dute gero-rako zer kontaturik asko uzten, besteren aotik beintzat.



Guk ezagutu ditugunetan, kaso berezia izan da Basarri. Autobiografia bat edo oroipen-liburu mamitsu eta mardul bat idazteko gaia bazuan onek, eta bai aalmena ere, eta orixe egin zezan bein edo bitan eskatu genion. Ètzuan egin, ordea. Zergatik ote? Bere eguneroko idazlana bialdu bear zualako egunkarira. Ori zer kate astuna dan, probatu duanak jakingo du. Lerro oiek idazteko bear dan denbora bat da, izan ere. Eta bestea, artarako gaia aurkitzea.

Batean, gogoan det, garai artan Debako Lasao baserrian bizi zan Zubeltzu bertsolariarengana nijoala, arunzkoan Zarautzen gelditu eta Basarriarengana joan nintzan, arentzat zerbait ere banuan eta.

Izketalditxo bat egin genduan; eta norako bidean nintzala adierazi nionean, pozaren pozez ia-ia txaloak jo zizkidan, denbora berean onelatsu esaten zidala:

–Zubeltzu? Aspaldian ez det ikusi, baiña asko ezagutzen det. Makiña bat aldiz berarekin kantatu ere bai. Orra, bada: urrengo egun baterako gaia eman didazu, egunkariko nere txoko ori betetzeko.

Eta ala egin zuan, urrengo egun batean Zubeltzuri buruzko idazlan bat agertuz.

Baiña orrek zera esan nai du: bere eguneroko artikulua orren mende bizi izan zala ura; eta etziola orrek beste zeregiñetarako astirik edo umorerik uzten.

Gauzak orrela izanik, zelebrekeri bat gertatu da gure artean: prosaz geiena idatzi duan bertsolaria bera dala –urrena, berriz, Txomin Garmendia izango da–; baiña aren prosa irakurtzeko libururik ez dagoala, bat izan ezik: *Bertsolaritzari buruz*, *Auspoa* 178, 1984. Eta ori, li-

burua gerok prestatu gendualako, aren artikulua egunkari eta aldizkarietatik bilduta.

Baiña goazen berriro leengo bidera. Uztapiderekin orain egin degun bezelatsu egin genduan orain urte batzuk beraren bi bertso-lagunekin ere: Xalbador eta Lazkao-Txikirekin: auek ezagutu zutenei beren gertaerak, ateraldiak eta aotik aorako bertsoak paperera ixur zitzaten eskatu, alegia. Eta ez ginduzten esku utsik eta “or konpon!” batekin ateondotik bialdu. Era ortan jasotako gaiekin osatu genduan Xalbadarren *Herria gogoan* (1981) liburu txikia; eta bai Lazkao-Txikiren *Irriz eta malkoz* bi tomo mardulen zati aundi bat ere.

Oraingo ontan, ordea, bi laguntzaille prestu izan ditugu: Jose Mari Iriondo eta Nikolas Aldai. Iñoren oroitzapenak magnetofonoz grabatu bear izan diranean, berak egin dute lan ori, eta baita ere bildutakoak zintatik paperera pasa ere, nere lana asko erreztuz. Milla esker, biotz-biotzetik, nere adiskide oiei.

## Bukaera

Uztapideren beste liburu asko egin ditezkelako dudarik ez da. Magnetofonoren bidez jasotako aren bertsoekin, batez ere, gai ugaria dago. Baiña gaurkoz naikoa izango dala derizkiogu.

Denborak edo urteak dana irensten dutela ez dago ukatzerik. Gizon ospetsuen egintza miresgarri guziak, eta bai aien ospe eta aitamenak, ondorik gabeko putzu edo zulo illun eta sakon ortan erori eta aaztutzen dira. Baiña ongi dago galtze edo ondamen ori aalik eta beranduena gerta dedin saiatzea. Gure aurrekoen oroipenak gorde, alegia, bai guretzat eta bai gure ondorengozat ere.

Tradiziorik gabeko erria, izan ere, oroimenik gabeko gizaki bat bezelakoxea degu. Onek leengo utsegiteak berri-tu egingo ditu, eta gizaki osoa izatera ere ez da iritxiko. Erri ori ere bere bidea ezin billaturik ibiliko da; eta oiñarririk gabeko etxe bat bezela izango.

Orregatik, Uztapide zanak eta beste garai bateko bertsolariak utzitako ondareari eusten aalegindu gaitezen. Baiña orrekin ez pentsa guk aiei batere mesederik egiten diegunik, gu geroni baizik, geren buruak jantzi eta ornituko ditugu eta.

A. Z.

**Lengo egunak gogoan**

# Atari gisa

**M**ANUEL Olaizolaren, "Uztapide-ren", liburu au, alderdi askotatik begiratuta, arrigarria izango dalakoan nago. Eta lendabizi, dakarren egituragatik: ez da bertsoan egiña, itz-lauz baizik. Ele-berriekin dator eta ez bertso berriekin. Inork pentsatu ere gabea zan Uztapidek, kontu esaleen maillan, orrelako liburu mar-dul eta aberatsa egingo zigunik.

"Lengo egunak gogoan", izan ere, li-buru aberatsa da, aldatzen ari zaizkigun euskal lurrari, giza legeari eta izkuntzari dagozkienetan arrobi jatorra. Liburu sa-kona da, erri jakinduria zaarrez eta kultu-ra gai zuurrez betea. Liburu atsegiña, orrialde guzietan eta pasarte askotan uste gabeko apainkizunez josia: bertsoak, ipuiak, konparaketak, esaera biribillak. Itz-batean, literatura errikoia ren gordairu ede-rra. Eta mami ori guzia Manuel Uztapide-ren nortasunean bat egin eta oratua, apar-teko etorri batekin –ez da makala izketan!–, bere kondaira dardaratia ematen digula.

Urte auetako euskal liburu saillean ger-takizun berri bat sortu eta indartzen ari zaigula gauza nabaria da. Joera berri bat asi da: aoz aozko literatura maillan oroitza-penak eta kondairak argitaratzea. Or dau-de lekuko, testigantza irmo dagitenak, S. Salaberriaren "Neronek tirako nizkin". J. R. Zubillagaren "Lardasketa", M. Ugarteren

"On egiñaren obaria" eta abar. Neronek ere bildu izan nuan –orain zati bat beste-rik nerekin ez detan arren–, "El crimen de Goizueta" orduko periodikuetan esan zi-tzaiona, au da, Urumea errekan il zan guar-daren gertakizun latza eta onek ekarri zi-tuan ondorenak, Oiartzungo Okillegiko J. Zugarramurdiri artuak. Argitaratu diran ele-berri gutxi auetan eta erriaren oroitza-penean bizi diran beste askotan –onik uga-ri betiko galdu bazaizkigu ere!–, erri lite-raturaren sail interesgarria arkitzen degu, gure iztun trebeen zer kontatua, alegia.

Kontaera auek geienean –ipui zaarrak eta ipui parregarriak salbo–, ez ditugu arre-taz bildu, tajutu eta argitaratu. Baiñan or-dago sortzen ari zaigun joera berria. Eta ele-berri oieri liburu mailla eta merezi du-ten aitormena eman diena Antonio Zava-la degu. Bertso biltzailleak ondo daki ber-tso saioa inguru giro batean egiten dala; bertso lorea lurgune batean errotzen dala. Eta bein baiño geiagotan gertatzen dana da, giroari dagokion kontaera, literatura aldetik, bertsoa bera bezain eder izatea. Eta aberastasun au ikusirik nik uste, "Aus-poa", bertsolaritzaren altxorra degun bil-duma, asi zan kondaira jator, bizi eta bikain auek argitaratzen.

Eta ez argitaratzen bakarrik; bulko egi-ten ere bai, kontatzaille apartak diran aiek beren kondairak idatzi ditzaten, idazle erri-

koi eta ezoitu diranei aolku onak, teknika eta arnas indarra eskeintzen diela. Eta era ontan sortuak ditugu leen aitaturako S. Salaberriaren ele-berria, eta "Txirritaren bizitza", pasadizuen erdiak bere illoba J. R. Erauskinek kontatuak, eta "Pello Errotaren bizitza", bere alaba Mikelak osatua, eta abar.

Giro onen araberan, Uztapidek -bere bizitzaren luze eta zabal eta sakonak agertzaz-, liburu bikain au egin digu. Kanturako mututu zan ezkeroztik, Endoiako eper goiztiarra, bere isil lekutik Euskalerrri osoari zerbait eskeñi naian zegon. Eta gogo onek eragiñik, bere barruan zeraman munduaren berri eman digu, gure artetik ezkututzen ari zaigun mundu baten berri. Ezin bestean isildu zanaren emaitza degu berea: ordu askotako lana, asmo apalez eskeiñia eta erritasunaren aitormen beroa.

Erriak orain arte Manuel Uztapide plazagizona bezela geienbat ezagutzen du; eta susmoz antza ematen dio beraren gogo bizitzari. Erriak orain arte beraren bertsoak ezagutzen ditu; ez, ordea, zertzuk osatzen dituzten Manuelen pentsamoldeak, oroitzapen miñak eta bizikizunak. Esan dezakegu erriak orain arte bertso loreak ezagutzen zituala, eta orain, berriz, Uztapide zain eta guzi artua ezagutuko duala: bertso loreak ezezik, oiek zaiñetan daramaten lur gizena eta guzi.

## I

Liburu onen lenengo zatia "Donostiko Txapelketa Nagusian" bukatzen dala esango nuke nik. Jaioterriaren inguru giroan osatzen da, baillara baten mugabarruan. Manuelen sorrera, eziketa eta gizarteratzea azaltzen zaizkigu. Eta, jakiña, bertsolariaren asierako lanak eta trebatzeak; gerora

erriak, Endoiako gaztearen doaiez jabeturik, plazarako eskean eta deiez asten zaizkion arte. Epe onek 1936'go Txapelketa Nagusian du bere goiena, Manuel Uztapide, (aurreko urtean epai maikoen iritziz eta erabakiz Basarri txapeldun atera zan bezela), Txirritaren pare epai maikoen eta entzuleen iritziz atera zanean. Erriak bazuan beste bertsolari gaztea, bazuan bertso alorrean itxaropen argia.

Lenengo zati ontan Uztapide bertsolariaren giza oiñarriak agertzen zaizkigu: bizi moldeak, pentsakerak, ederti bide errikoiak. Aurtzaroan eta gaztetxo dalarik. Endoiako giroa dagerkigu, Manuelen nortasunaren giza arrasto azpikoena. Etxea eta etxe-inguruak, lurra eta urte-giroak, eta auek uzten dituzten barruko erakuntza eta joerak aditzera ematen dizkigu. Gero etxe-koen aitamena, aspaldiko giza legean oitua diranena: "gu olaxe aziak gera; base-rriko legera".

Eskolak, berriz, ez dio uzten zantzu eta arrasto sakonik, gauza bearrezkoenen manejua baizik. Eta jakingarria dana, bertsolariartzaren bidean, ain langintza zaillean, bertso paperak izan ziran gogo sortu eta lenengo ezikera eman ziotenak, "burua dena bertsoz beteaz", berak esango digun bezela. Eta benetan apagarri artzantzak uzten dion izadiaganako minberatasun sakona, agian bere doairik ederrenetakoa, geroko bertso lanei begiratura. Guzi au, mundu baten goraintzia degu, Manuelek, kontaldirik egokienetan, artez eta maitasunez egiña.

Mutil gazte egiten danean, morrontzak eta basoko lanak, ikazkintzak eta zerrako lanak, gizarte zabalagoko batera eramango dute, gizarte aberatsago batera. Bide ortan, era askotako gizon-modu erriko eta baliodunekin topo egingo du: bertsolariekin, kontu esaleekin, gizon zelebreekin,

bere lagunik miñenekin, lantegiko lagunekin. Nabari dira gauzei buruz gizon nekatuak dituan ikusmoldeak eta nekazari giroko jaiak eta billerak. Eta batez ere jakingarri bertsolaritzaren istoriarako Uztapideren asierak kantu langintzan: Zubeltzu eta Kortatxoren eskutik, Donostiko Txapelketa Nagusiak beraren ezaguera bertsozaleei ematen dien arte. Egun aundia Donostiko ura Manuel Uztapiderentzat: "bertsoekin izan dedan pozik aundiena" eta giltzarri bezela dan eguna ura, bertsolariaren bizitzari begiratuta. Eta, bestalde, itxaropen eguna erriarentzat: Endoiako mutil gazteak, mundu zaarra sasoiko landarean ekarriaz, susmoz ikus arazi zuan zabela zegoala bertsolaritzaren etorkizuna.

Uztapidek, bertsolari eta idazle bezela, urtealdi ontan izankera eta antziduri jakinak artuko ditu. Euskera utsa egiten dan gizarte maillan bizi da. Eta bere inguruko kulturari bagagozkio, antziñateko bizitzan ditu erroak: artzantzan eta nekazalgoan. Manuelek, beraz, bereganatuko ditu erriak bere oroitzapenean gordetzen dituan aberastasunak; ikasiko ditu antziñak biribildutako esaerak, bertsogintzaren teknika eta ipui zaarrak kontatzeko molde jakinak.

Ondare bezela jasoko ditu bertsolari zaarren ateraldiak, bertso paperak, kontu esaleen gertaera moduak, billeretako pesa giroa, itz jokoan trebaketa, jakingarri bezela aotan dabiltzan gertakizunak. Eta gero, naiz bertsotan dala, naiz itz lauz ari dala, auek ditugu berak azalduko dizkigun perla ederrak. Guziona dan eta inoren ez dan izkuntza bizia derabil. Sentibera du baserri giroaren oroi-miña. Eta, agian gauzarik baliotsuena, egiten dituan pertsonen argazki eta idaz-pintaketa gogoangarriak. Auek eta beste amaika edergaillu arki daitezke aitatutako lenengo zatian.

## II

Gero eten bat dator Manuel Uztapideren eta orduko euskaldunen bizitzan: gerra zibilla. Amets gaizto bat bezela etorri ere. Eta onen ondoren, liburuaren bigarren zatia esango nukeana: bertsolariaren ibillerak, bere zorionaldi eta eramankizunak.

Asiera batean bertsolari gaztea azaltzen zaigu, agian oraindik bertsolari manejuak ondo ikasi gabea, euskaldun guziena egin gabea, frutu beteenak ematekoa. Bañan dei batek ori guzia betetzera eramango balu bezela, Uztapideren ibilbide jakingarria asten da, erriz erri, bertsozaleen serbitzuan, berak eta bertsolaritzak aurrerapide bereizia egiten dutela.

Manuelek bere jaioterriaren eta erri inguruaren itxituratik salto egiñik, Euskalerri osoaren zabalagoko barruti batera egiten du ertena. Baserriari loturik eta atxikirik dagoen jendearekin jarraitzen badu ere bere artu-emanetan, jende au, ordea, gure errietako giza mailla guzietakoa da: naiz kulturaduna, naiz enpresako gizona; teknikoa bezela langillea, naiz salerosketan bizibide duana. Beraz, goragoko mailla batekoak izango ditu asko eta asko entzuleen artean, eta goragokoak era berean kantu lanerako entzule auen eskakizunak.

Entzule oiek eskatu ezezik lagundu ere egingo diote bertsolariari. Uztapidek, bertsozaleak osatzen duten mundu zabalxeago ontan, arkituko ditu literatura gaiak eta bertsotarako lanabes berriak: tokian tokiko bertso zaarrak, kontu jakingarriak, ateraldiak eta gertaera modukoak an eta emen entretenigarri erriak aotan derabilzkianak. Guzi oiek Manuelen oroitzapena aberasten dute. "Izketaldi ederrak egiten bazekiten aiek" esango digu liburuan; edo ta beste au: "amaika txiste eta ipui kontatuak"

dio Amezketako berrietan, Alegiko txistularien aitamena egiten duanean.

Bertsolari ezagunak EuskalERRI osoarekin artuemanetan bizi bearra daukala-ta, beste gauza eder bat arkitzen degu, bertsolaritza buruz, Manuelen idazlan ontan: bertsozaleak osatzen duten familia. Agian familia baiño zertxobait zabalagoko taldea esan daiteke; bera bait degu bertsolariak sortzen dituan mintegia, ezitzen dituan eskola, indartzen dituan giro ona eta laguntzen dakian lagunartea. Eta modu ontan Uztapide, an eta emen, erritar bezela gertatu oi da; eta zenbait bizitegietan, etxeko bezela.

Iñor balego bertsozaleei buruz azterketa bat egin nai duanik, amaika gauza jakingarri arki ditzake liburu ontan. Alde ontatik begiratuta, ez da beste liburu bat izango entzuleen berri Uztapidek bezela emango digunik. Bertsozaleak, taldean artuta, zenbait tokitan amorratuak dira; beste zenbaitetan aurrekoengandik ondo ikasiak. Eta banaka artzen baditugu, berriz, kanta saio auek gogozkoen artzen dituztenak tokian tokiko bertsolari ezezagunak berak dira, eta, oiekin batera, lekuan lekuan indarrean datozten bertsolari gazteak. Interesgarria gaurko bertsolari geienekin lenengo aldiz Manuelek egiten duan topadizua. Mundu gizakoi baten berri ematen zaigu; bertsoen eguzki irripan, plazan eta aretoan bezela, leku bildu eta une gozoetan ere bai, batzar eta saio jatorrak egiten dirala.

Argi nabari da Uztapidek bertsolaritza alde egin duan lana eta, bide bazter, bere garaiko bertsolariak egin dutena. Erriz erri asi aurretik, ikasten du sagardotegiko giroa, eta Beterriko bertsolarien eskarmentua eta oien manejuak. Eta gero bide berriak zabaltzen ibillia degu, lendabizi Zepairekin, ondoren Basarriekin eta az-

ken aldian Manuel Lasarterekin. Ez da txantxetako azaltzen dan lana: batetik, bertso oitura sartu galdurik zegoen errietan; bestetik, oiturari etengabe eutsi urte-buruan galdu ez zanetan. Itz batean, agirian jarri bertsolaritza dala erri-gogoaren agerpenik baliotsuenetako bat.

Liburu onek, bestalde, asko lagunduko du bertsolaritza azken urte auetan geienbat aurrera eragin dion alderdia obeto ezagutu dezagun: txapelketen giroa. Txapelketak jaialdia ekarri du; eta jaialdiak, bertsoen egitura berria saioak egiteko eran. Eta ez derizkiot Uztapideren meriturik aundiena, -oso aundia bada ere-, txapelketa guzietan eskuartu izanari, eta azkeneko irutan txapeldun izanari; ez eta ere jaialdietan zutabe sendoa izanari. Nerretzat arrigarriena da iñork gutxik bezela bereganatu izana txapelketen eta jaialdien inguru etorri diran joera berriak: mugaz aruntzkoak ekarritakoak eta emengo gazteen saiakerak ezarri dituzten joera berriak.

Uztapidek erriaren bitzitza izan du bere eskola eta bere liburua. Eta begi zorrotzez ikusi eta arretaz entzun dituanak ondo aukeratu ditu, gogoan artu eta arrigarriri erabilii bertso saioetan. Ez da aaztu bear, azkeneko urte auetan, gerra zibilla aurretiko bertsolarietatik, bera bakarra izan dala aurrerari ibilli dana zailtasun eta eskakizun aundiko giro batean. Eta aitortu bearra dago Manuel Uztapidek, talde eder baten buru bezela, bertsoegintzan egin duan aldaketa eta aurrerapidea.

Ao-literatura maillako beste zenbait azterketa interesgarri ere egin daiteke liburuaren bigarren zati au oiñarri artuta. Ikerketa polita egiteko gai derizkiot emen Uztapidek agertzen digunari. Or daude gure bertsolaritza baldintzatu duten lege eta oiturak, batez ere azken aldi ontan; or gure erri maillako olerkarien sikolojia; or

bertso pusketen bilduma ezezaguna; or bertsolari izateak berekin dituan eraman-kizun eta zailtasunak, –askotan ibillera zelebreak ere bai!–; or aldian aldian Manuel berak gauza auei buruz duan iritzi bereizia. Eta batez ere unkiagarria da egilleak bertsolari lagunentzat egiten duan oroitzapena; jakingarria, egiten duan bertsolaritza azterketa, eta benetan gogoangarria bertso-festari buruz idazten digun aldian aldiko gazeta luzea.

### III

Azkenik, bertsolaria isiltzearekin, Uztapideren baitan irugarren aroa asten da: idazlearena. Kantuzko frutuetan ain eman- kor izan zan landare mardul arek, bakar- dadearen eta isiltasunaren luberrira aldatu zanean, –entzuleekin zuzeneko artu-emanik gabe eta mutu–, sekulan bai- ño eskeintza ederragoa ematen asi zaigu- la esango nuke: eskuartean dezun liburua.

Erriak aaztu ezin duan eta ain berea duan Uztapideren oroitzapenak dakar- zki, bertsolari baten mundu jakingarria. Eus- kera ederrean, erri izkuntza bizian, erriak erabiltzen dituan esaera moldetan. Euske- raz pentsatua du mamia, eta euskeraz ema- na. Esaera laburrak ditu, eskolakeriaren aundi usterik gabekoak, gauzak argi eta zeatz aditzera emanaz. Gizaldiz gizaldi da- torkigun izketa da, –landua, moldatua–, Uztapidek erabiltzen diguna; berak “or” arkitu duan mintzo bizia.

“Lengo egunak gogoan” aitormen bat da, kantu bat. Gal-zorian dagoen mundu baten aitormen premiatsua, leen izana ge- rora ere aaztu ez dedin. Eta mundu bate- na ezezik izkuntza baten aitormena ere bada. Lagundu nai sutsu baten aitormen eraginkorra: “euskeragatik zerbait egin nai

/ iñola al baldin balitza” (eskeintzako ber- tsoan); lenago bertsoekin euskerari lagun- du zion bezela, orain idatziaz lagun nai dio gure izkuntzari. Ontaz gaiñera, biotz oneko jendeen aitormena da, naiz kantari zebillen garaian, naiz isilik egotea etorri zaionean lagundu diotenen aitormen egia- tia.

Kontaera au ez da, ez iñoizko ez iñun- go ez diren oietako ipui bat. Euskalerriko gizon jakiñak aitatzen ditu, giro jakiñak, gertaera jakiñak. Bere lurra maitasunez azaltzen digu; berdin oiturak, berdin ikusmoldeak. Erri maillako korografia ba- ten antzera, or uzten digu erriaren estrato bat nola zan agiri zeatza. Jendeki ezberdi- ñen pintura arrigarriak ere uzten dizkigu, marrazki gutxi eta sendoekin giza-iduri eta giza-antza bortitzak ematen dizkigula. Argazki bipilen artean, gogoangarri nerez- zat: amona, Orioko “Begi-Ekela”, Astea- suko “Aranburu-berri”, Bizkaiko Pruden- tzio Abarrategi, Txatarro, Txankarta, Zu- beltzu, aitagarreba, Pedro Errero, Arrola eta beste dozenaka. Literatura ikasiaren trebaketa apartekorik gabe, baiñan berez- ko talentu argiarekin, kontakizun ederra Uztapidek eskeintzen diguna.

Bearrezkoa derizkiot orrelako lanak egi- teari. Mundu mugatua badakarte ere, –ga- rai eta giza mailla jakin bateko bizitza–, ala ere, esateko era aparta dute, kontu esale- en teknika zaarra. Orregatik ongarri zaigu benetan kontaera oiek gure literaturan uga- ritzea, orrela euskal kontugintzak eta ele- berriak gure jeinu moldea ar dezan, eta itz- -lauak, gero eta geiago, kera sustraizko bat berekin izan dezan. Kultura errikoieren gu- reganatzek bearrezkoa dirudi euskaldu- nak gaurkoratzeko ibilbidean. Ala egiten ari dirala esan daiteke beste arte gaietan, eta ala egitea ondo legoke literaturan. Le- ena, literaturazko sorkari berri billa dabil-



tzanentzat, ez da, naitaez, debeku; apio bat baizik. Uztapidek eta bera bezelako kontu esaleak zerbait erakutsi dezaigukete kontraera zaarren erakuntzaz, idazle ikasiek, beren aldetik, sorketa aurrerakoiak eta errotuak egin ditzaten.

Manuel Uztapidek lan ona egin digu guri. Bertsolari bezela bat-bateko jardunetan, aotik aorakoetan, maisu bezela geldituko bada, itz-lauz ere eredugarri degula esatean ez det uste oker nabillenik. Dana dala, Manuelek ondo irabazia du literatura zaleen, bertso eta erri kultura zaleen esker beroa. Liburu bakana eskeiñi digu, bere saillean gutxi idatzi diran oietakoa; liburu luzea eta sakona; indarrez, egiatasunez eta bizitasunez idatzia. Gure aoz-aozko literatura maillan, gizon batek bakarrak egin dituanetan, arrigarrietakoa da, –eta aundiena daiteke–, Manuelek egin digun “liburu baten eskeintza”.

Idazlan onekin, ikusten danez, bilduma berri bat astera doa. Antonio Zavalarekin zorretan gaude aspaldian, bertsoak bildu, aztertu eta argitaratzen egin duan lana dala-ta. Lengoaz gain, badegu orain zertaz eskertu berria: aldian aldiko eta tokian tokiko gertakizunen kontraerak bildu ditu, kontu esaleei idazle izatera eragin die, eta aoz-aozko literaturan, asmoz eta bulkoz, liburu sail berri bati asiera eman dio.

Olerkaritzak bertsolaritzatik etekin ederra izan duan eran, –gogoan ditzagun Orixeren, S. Mitxelenaren eta Arestiren zenbait urrats–, bilduma au eta onen antzekoak osatzen eta aztertzen eta baliotzatzen diran araberan, orrelako kontatze lanetan gure ele-berriak ere arkituko al du, gaurko billaketa aurreratu batean, erri eskolak dakarren kontatzeko jeinu igaro eziña.

*Juan Mari Lekuona*

# Eskeintza

Ixillik ezin egon naiz eta  
nolabait bear det mintza,  
barka zazute premirik gabe  
ateratzen badet itza;  
euskeragatik zerbait egin nai  
iñola al baldin balitza,  
Euskalerriai egiten diot  
liburu baten eskeintza.

Manuel Olaizola  
*Uztapide*

# Uztapide etxeko berri

**I**TXAS-BISTA ederra da; udarako toki ona. Gain baten dago. Atari-jira ederra du; patxara ederrekoa. Kamioa ere badu; eleiza ere bai; atarian eskola emateko tokia ere bai; apaiz-etxea ere bai; telefonoa ere bai, Uztapiden bertan.

Ori, gu an giñan arte bazan. Andik onera etorri ta palta aundia iduritu zitzaidan. Basarrik ere esan izan zidan:

-I, lenago mendian intzala ta orain okerago aiz neretzako.

Emen, Ergoien, etzan, ba, telefonorik, eta kalera joan bear. Orduan, berriz, Basarriekin asko ibiltzen nintzan bertsoan.

Uztapidek, mendian izateko, terreno ordekak eta onak ditu. Soroak, danak goldean-da errez egiteko modukoak, alde batera bezela bestera botatzeko moduan. Gurdi bat zimaur ateratzeko ere etzuan gurdiak kontu egin bearrik. Orrek esan nai du terreno onak dirala.

Ogei edo ogei ta pare bat buru ganadu egongo dira orain ere. Oso basarri ona da. Mendian egotea, orixe bakarrik. Urruti dago ura. Baña orain bertako semeak ere badu kotxea; ta orain, kalerako bueltak, geienak kotxean egingo dituzte.

Egurra ta garoa ere egoki ziran: etxetik bertan. Garoa, bi ganadu-pare uztartu ta

zortzi gurdi ekarri izan giñuzen arratsalde batean. Etxearen gañeko aldean bertan garo-sailla; bi auntzekin ekarri leizke, konparazio baterako.

Egurra ere olaxe, era berean, oso egoki. Ez genduan egurretara joateko kezkarik izaten, zenbait lekutan bezela. "Gurdi bat egur bear da, ba!" esango zuten emakumeak, eta ganaduak uztartu ta etzenduan lagun bearrik andik gurdi egurra ekartzeko. Bakarrik lasai joaten al ziñan. An egongo zan pago-egurra neguan botatakoa; kargatzeko ere etzenduan gurdiari eutsi bearrik, eta kargatu ta etxera.

Soroak eta barrutiak, danak muga baten barruan ziran; eremu aundiak alare.

Orain aldatuta dago. Len pagoa zan tokian, orain piñua dago. Pagoak bota ziran an ere. Gaur muestratarako aña baldin bada, ostoa nolakoa dan ikusteko. Zorioneko dirua! Izan ere, ango pagadi eder aiek botatzea lastima zan. Ango itzal ederrak! Ango goroldio eder ura! Traje ederrenarekin joaten baldin baziñan ere, zikintzeko bildurragatik etzan zindezkean an lasai.

Pagadi ura ezagutzen zuten eibartarrak ere; perretxikoak biltzera etortzen baitziran. Eibartar batek baño geiagok esan izan dit neri:

-Pagadi ura bota duanak etzeukak salbaziorik!

Orain piñua an ere. Pagoak bota eta piñua sartu zan, eta pagoak bezelako usairik ez du izaten piñuak.

Perretxiko-tokia ere bazan ura ederra. Bein baño geiagotan amak bialdu izan giñuzen goizean, "Tira, gosaltzeko perretxikoak ekarri!" esanda. Ta, joan ezkerro, seguru ekarriko giñuzen.

Batere euria egin berria bazan, an ateratzen ziran perretxikoak! Kiloeko ogei duroan, orain saltzen diran bezela, saldu izan baziran... Orain, merkeenak ere orrela saltzen dira; ogei durotik bera ez da orain perretxikorik. Lenengo aldetik biltzen diranak, berriz, berrogei duro edo milla erre-al.

Guk sekula gibelurdiñik ederrenik ere ez genduan zuzter da guzi biltzen. Danak, zuzterrak kendu ta otarra kertendun baten jarri, ta txarra utzi bertan. Alare nainkoa izaten zan an. Ziza gorriak eta kuleto-arrautzak bakarrik biltzen ziran an zuzterrarekin. Gañontzekoak, danak gabe. Aukerakoak jaso ta pixka bat zartzera egingdakoak utzi bertan. An kuletoak esaten zaioten oiek, emen, Oiartzunen, onto-arrautzak dira.

An, udaran, leioa zabalik zala lo egiten nuan nik. Galeperrak asiko ziran kantari: *poxpolin* ta *poxpolin*! Ura alegrantzia izaten zan ango!

Nik:

–Egon adi eguna zabaldu arte, ta egin-gu dizkiagu kontuak!

Uda-partean asko izaten zan an galeperra; ta, eguna argitzen zuanean, txakurra askatu, eskopeta artu ta laister joango nintzan. Da, bat kantari ari zana ta beste bi edo iru ixilik zeudenak, berealaxe egingo nuan iru edo lauuko txorta. Eiztaria danarentzat bai al dakizu ori zer grazi dan?

Udaran, alderdi onak zeuzkan Uztapidek. Baña, neguan, al zuana salbatuko zan da ezin zuana antxe izurratuko zan. Neguan toki gogorra zan ura!

Noiznai elurra egingo zuan, da elurtea tristea da an. Zenbat eta mendiagoan eta tristeagoa izaten da elurra. Alturan, lañoa ere sartzen da lurreraño, ta illunabar aldean, txantxangorria gizonagana biltzen asten danean, *ixtilla txat! txat!* tellatutik bera... Orduan ez da ura paraje alaia.

Pasa egin bear izaten da ura, gero udara ikusiko bada. Batanez beste, onak eta txarrak, danak pasa bear. Gure anaia zarrak, neguko denboran-ta, ola esan oi zion aitari:

–Basarri au salduta, norabait or bera joan bearko degu!

Gure aitaren erantzuna au izaten zan:

–Basarrian lana egin bear badek, ez saldu; au baño basarri erosoagorik ez dek builatuko ta!

# Uztapideko familia

**A**MONA zarra ezagutu genduan asko. Gu sasoirik onenera etorrira ere, bizi zan ura artean.

Gure etxean argi-indarra, nik ogei ta lau urte nituanean sartu zan, da ura etzan piatzen sorginkeri oiekin. Kuartoko argia ere beste batek pixtu bear: gure arrebak edo amak edo batedobatek beintzat.

Arditan izan da bustita etortzen bagin-ano, ark edukiko zuan gure kontua: oñetakoak eta erropak pronto eukiko zituan gaixoak. Kantu bat bazuan beti guri kantatu oi ziguna, arditatik etortzen giñanean:

Gure lendabiziko  
artzaitxo pobriak,  
eguzki aldetikan  
berriz erregiak,  
aiek ziran lenengo  
bisitzatzalliak.

Gabon-kantak izango ziran oiek noiz-baiten, eta ark pixkaren bat gogoan euki-ko zituan artean, da uraxen kantatu oi zigun guri.

Maite giñuzen amonak! Gu bereak izan baginuzen ere, ez giñuzen maiteago izango! Bereak ere bazituan mordoska bat, maikatu nai izan ezkeru. Amabi bazituan, bein-

tzat, bereak ere: sei seme ta sei alaba. Guk ere ezagutu giñuzen. Baña maitetasunik etzitzaion palta ala ere ari.

Gure amona ori larogei ta zazpi urterekin il zan, mundu onetan bere gora-berak ikusita.

Emeretzi urterekin ezkondu zan, berak esan izan zigunez. Beliosoro-goikoa base-rikkoa zan berez, eta ezkontzaz etorri zan Uztapidera.

Andik urte gutxira zorioneko gerra zibil atera omen zan, eta gizona gerrara joan da bi alaba ta semearekin gelditu omen zan. Zarren biak alabak zituan, eta iruga-rrena, semea, gure aita izango zana.

Gure aita besoetan da bi alaba zarragoak bere ondoren zituala, etxetik atera omen zuten gudariak edo soldaduak, eta bide-puska batean eramane omen zuten: gizona nun zuan esateko, bestela etziotela etxera joaten utziko!

Gizona etxean gordeta zegoala uste zuten soldaduak; eta ordurako, gudariak edo soldaduak atariko atea jo zutenean, etxearen azpiko aldeko leiotik salto egin da joana zan gure aitona.

An dago orain ere arek salto egin zuan leioa. Bost bat metro altura idukiko ditu, eta andik salto egin da joan zan gure aitona.

Etxeari su eman ere egin zioten bi edo iru aldiz, baña atzera berak itzali omen zuten.

Orrela ibili ondoren, etsi omen zuten etziotela ezer ateraziko gure amonari, eta utzi omen zioten bere etxera joaten.

Aitona beltza edo liberal izenekoa omen zan, eta bere lagunak Getarian omen zeduzkan. An presentatu omen zan, eta arma artu omen zuan.

Aren billa etxera joan ziranak, berriz, karlistak omen ziran.

Gure aitonak bi illabete bere borondatez gudari pasa zitualako, sei seme gudaritzatik libratu zituan; gerra irabazi baitzuten beltzak.

Orduan ere anaiak alkarren kontra gerran!

Gure amonak anai bat bazuan karlista aldetik ibilia; eta senarra, berriz, liberala.

Eta pentsatu orduan ere zenbat diru zan langilleen artean: emen iñun lanik ez ta Napparroara joan omen zan basora, illeko bost ogerleko edo durotan, gure amonaren anaia ori. Bein baño geiagotan aditu nion berari, gure amonaren anaia, gauza ori.

Guk, alako gauzarik batere pentsatu gabe, esan izan genduan:

–Naiago nuke biar bertan gerra aterako balitz!

Eta gure amonak etzuan ondo entzuten gauza ori:

–Ez dakizute, gizarajoak, gerra zeñen gauza txarra dan! Nik bezela ikusita bazendukate, etzenduteke orrelakorik esan-go! –erantzun izan zigun.

Arek gerrari bildur gogorra zion.

Gero alargun gelditu zan, gizona ilda, amabi seme-alabarekin, ortxe berrogei ta amar bat urtetik gorako aundirik gabe; eta aien ardura ere berak iduki bear.

Guk ez genduan aitona ezagutzeko zoririk izan.

Gizona il zitzaion, baña bestela etzuan sendian edo pamelian oso suerte txarra iduki.

–Ogei seme-alaba azi ditugu –esan izan zuan–. Nik amabi eta erreñak zortzi. (Gure ama da atzeneko au). Eta etxe onetatik ez da atera nere gizonaren gorputza besterik irurogei urte onetan. Irurogei urte dira ni ezkontzaz etxe onetara etorri nintzala oraintxe!

Berak sei seme ta sei alaba zituan, eta gu ere beste lau seme eta lau alaba giñan. Beraz, amabi seme-alabarekin alargunduta gelditu zanak, zerbait esango zukean.

Danak etziran izango gazteak, baña semerik gazteenak, beintzat, justuan ezagutu zuala esan izan zuan bere aita.

Dana dala, mundu-aldi ederra igaro zuan ala ere gure amonak. Larrogei ta zazpi urte ez dituzte arrapatzen danak, ustez ondo kontu eginda ere.

Len esan bezela, larrogei ta zazpi urte bazituan il zanean. Ala ere etzan aspertu bizitzen. Gure arreba zarrenari ala esan omen zion, il bear zuan aurrean:

–Nere lagunak, geienak joanak ditun; baña oraindik ere etzeukanat, ba, iltzeko gogo aundirik, onoko mutil auek ementxe utzita!

Ura iltzen da guk orduantxe sasoi ederra. Orain joan da gure orduko sasoi ere. Mundu au olaxe da, ta olaxe segiko du onezkero.

Aita, bear zan bezelako gizona zan. Bro-ma bear zanean, bro-ma; ta, serio bear zanean, serio.

Beñere etzigun berandu etorri giñalako ezer esan, baña ixil samarrik bai ibilli, eta erraza izaten zan ark zer nai zuan an-

tza ematen. Ura piska bat aztu arte, ez egin bear berriz.

Beti errespeto aundia izaten genion guk. Ura "madarikatua!" esanaz asteen zanean aurrean zituan ganaduai-edo, etzan giro izaten. Etzuan maldizio aundirik esango, baña txiki oietatik bai ugari. Arraioa ta puñeta ta orrelakoak nai aña.

Ogei urterekin, nik ez nuan bertsoan da orrela aitaren aurrean egiteko ausardirik.

Gizon aundia zan: metro bat eta irurogei ta amabost bat zentimetro izango zan. Sasioan larogei kilo pisatzen zituala esan oi zuan. Guk ezagutu genduaneko, piska bat bajatzea egiña zan.

Ama, berriz, on utsa zan. Ark ere errietan egin oi zuan, baña etzuan miñik ematen aren errietak. Berak titia emandako umeai nola kalte egingo zien, ba? Kontseju onak ematen, bai, saiatu oi zan ura, guk askotan ez genion kaso geiegirik egingo baña. Aitari bezelako bildurrik ez genion izaten ari. Ama zala beti gogoan. Errespetoa bai beste danai baño geiago.

Emakume aundia zan. Larogei ta amar bat kilo izango zan gutxienez. Zortzi seme-alaba azi giñuzen da etzuan gutxi egin.

Guk gurasoekin ez degu deskontenturik izan. Guk, aien tokian izan bagiña, geienaz ere ainbeste egingo genduan. Ez giñan nai bezela aziak izango, baña denbora artan badakigu etzala errez. Oraingo modurik etzan orduan izaten.

Aitaren anaiak, iru Ameriketara joan ziran. Iru gazteenak, segirakoak, mutillak ziran, da aietxek irurak Arjentinara joan ziran. Baña an ere aspertu egiten da bat. Atzera etorri ta emen ezkondu egin zan irutatik zarrena.

Bestea, bigarrena iru aldiz joan da etorri ibilli zan, da ura atzera etxean geratu zan.

An bei jeizten aritu ziran aiek *tamboan*. Beiak nagusi batenak, eta jeizten zan esnea erdira.

Irugarren anaia, berriz, berrogei urtean etorri gabe egon zan, baña akordatu zitzaion ari ere; noizbaiten etorri zan da emen ibilli zan ura ere. Beste lagun bat eta biak, Arruakoa bestea, atzera joan ziran; eta an bukatu zan, oso zartu gabe. Irurogei ta zortzi urterekin il zan.

Bi anaia gazteen auek solteroak ziran. Batek etxean lan asko egin zuan. Ura ere il zan, irurogei ta amar urterekin. Onak larogei urte zituan orain, bizi izan balitz; eta besteak, Amerikan il zanak, berriz, irurogei ta amazpi. Ura gazteagoa zan, baña danak bukatu ziran gure aitaren senideak.

Gero, beste senide-taldea gu; zortzi bañan gu ere. Bat illa; besteak, danak bizi gera oraindik. Ni naiz zazprietatik erdikoa, ta nik ere irurogei ta lau urte baditut. Batanaz beste, danak nik aña urrean izango dute. Lau arrebak gazterik ezkondu ziran, da pameli aundiak dituzte. Anaiak ere bai: bederatzi baditu.

Beste bi anai emen gelditu giñan, Oiarzunen, eta gu alkarrekin bizi gera. Nik andrea ta seme bat dauzkat, eta bestea illa degu.

Anaia, berriz, mutilzar dago. Etxe bakoitzean edo baserri bakoitzean mutilzar bat bear zitekeala aspaldiko esaera da; eta, gure au baño txarragorik ez balitz, bi ere artuko nituzke nik. Onen bearra badegu guk. Fabrikako lanak egin da gero, etxeak. Ni aspaldian ez naiz asko gauza, ta onek berdin egiten ditu.

Beñere pazientzitik aterata ez det ikusi oraindik. Beti txistutan edo kantuan bere lanak egingo ditu. Irurogei urte onetan berarekin nabil ni, eta oraindik ez diot birarorik txikienik ere aditu. Arraioa ere orain-

dik ez du esan nere bistan. Ori apuntatu li-tekeala uste det.

Nik ez dakit sufrituko duan edo ez duan orrelakoa izaten. Baña asko sufrituko balu, ez det uste izango litzakeanik dan bezelakoa. Nik uste det sortu egin dala ori orrelakoxea. Indarrean ez dago ori egiterik. Egun baten edo bian egingo du; baña, bes-telako jenioa baldin badu, berealaxe eroriko da.

Beste anaia Zestuan bizi da. Ura basarrian gelditu zan, gu onera etorri giñanean. Orain arreba gazteena dago Uztapide basarrian; eta anaia Zestuan tabernarekin, bere pameliarekin. Anaia ura ere estimatua genduan; alkar maiteak giñan gogotik.

Eizean ibilli oi giñan. Iru anaiak genduan afizioa. Birek iruen lanak egingo giñuzen guk, irugarren ura eizera joatearren. Zenbait etxetatik ez da erraza izaten eizera joatea ere; baña gurean etxeko anaia bera zan amorratuena ta errez joaten giñan. Etzan gurean errietarik izango eizera joan giñalako. Etxera etorritakoan, lana egin bear; baña udazkenean pare bat illabete, Azaroa ta Abendua geienak, eizean pasatzen giñuzen, batere ollagorrik bazan beintzat.

Txakurrak ere onak izaten giñuzen. Ibilli egin bear txakur onak eukitzeko, ta gu asko ibiltzen, berriz.

Zenbat iltzen genduan, berriz, ez noa esatera. Eiztariak gezurti-pama aundia daukagu, ta egia esanda etzenduteke sinistuko ta ohea da ixilik egotea.

Gu ain ondo bizi etxean da andik ateratzea asko kosta zitzaigun guri. Baña etzegoan beste erremediorik, eta atera egin bear. Etxean illobak gu aña aundi egin ziran, da aiek bultza egiten zuten. Etxetik alde egiteko esandakoan, oso arteera txarra egiten da, ta pentsatu genduan alde

egin bearke genduala, iñork agindu baño len.

Orrela etxetik alde egiten danean, lan ona egiten da berriz joateko ere. Ta orain gu aruntz joateko beti pozak egoten gera. Ta berak ere alaxe egoten dirala sinistuta egoten naiz.

Goñata ere lengusua degu. Ark ere joatea nai izaten du. Gu ezin joan izaten gera oso maiz.

Anaia lengusuarekin ezkondu zan, ba, ta bederatzi seme-alaba badituzte. Batzuek ezkonduak; etxean semea. Ark baditu lau seme-alaba, ta ez dago etxeko abizena galdu bildurrik.

Gu onera etorri giñanean, bost seme-alabarekin gelditu ziran gure anaia-ta. Gero, bi alditan bixkiak izan zituzten, da orrela iritxi ziran bederatzira.

Lau arrebak ere, bi Endoian da beste bi Lasturren, an bizi dira. Aiek ere pamili aundiak dituzte. Danak basarrian dira.

Pamili aundia azteko, basarria dala onena esango nuke neuk. Kanean ume ba-koitzak zaitzalle bat bear izaten du; ta basarrian, berriz, etxe-jiran zelai zabalen bat izango da leku geienetan, da ara bialdu. Ta, bat edo beste piska bat gogortuak badira, ondo manejatuko dira aiek.

Tripa betetzeko, berriz, beti izaten da zerbait, eltzekai ona beintzat: babarrun gorria edo taloa ta esnea. Txerri pare bat gailantak bota neguan da olaxe.

Gu olaxe aziak gera. Orain basarriko bizimodua ere ederki ganbiatuta dago, baña garai baten basarrian etxeko janarekin pasa egiten zan. Orain ainbeste gauza etzan kaletik ekartzen orduan. Orain basarritarrak kalekoak bezela jarriak daude.

Orain ez da talorik eta esnerik jaten, probatzeko ainbeste baizik. Nik ura ere ez.



Nik ainbat gaztetan janak izan baziran, etzutela orain gogorik edukiko esaten diotet nik, probatzeko ere.

Guk etxetik lan asko egiten genduan basoan, da sekulan ez genduan jatekorik ordaindu. Etxean gosaldu eta apaldu beti, bazkaldu mendian egiten bagenduan. Olaxe izaten giñan gu bi anaiak; bestea, orain nerekin dagoan auxe. Sekula ez genduan izan dirua entregatu bearrik guk etxera; ala ere ez genduan pilla aundirik sobratu.

Urrengo, etxean giñanean, lagundu ere egiten genduan. Ez giñan lana egiteko bil-durak egongo. Olaxe gu anaiak arregla-tzen giñan alkarrekin. Batek zerbait palta badu, diru piska bat-edo, ta besteak baldin badu, ez degu guk alkar serbitzeko papelak firmatu bearrik izan. Lenbizi etxe-koak, eta, aiek arreglatu eziñekoa baldin

bada, orduan joango giñan besteren ba-tengana.

Lau arrebak, berriz, gazterik ezkondu ziran, da aiekin ez genduan guk anaiak alkarrekin ainbeste tratu eduki. Orrekin ez det esan nai aieri ez geniela nai. Maite giñuzen aiek ere, baña geiena pasa zuanak ere, etzituan ogei ta iru urte pasa izango etxean. Gazteen biak egun batean ezkondu ziran, da bitan gazteenak ogei urte zituan; orregatik, ez genduan eduki anaiak alkarrekin ainbat denbora pasatzeko suerterik.

Anaia gazteena ogei ta iru urterekin ilzan, da ark etzuan mundu onetan asko gozatzeko suerterik eduki. Urteak pasa ditugunak ere ez gera kontentu. Oraindik ere gutxi dala uste degu, ta ez da errez guri gustoa egiten. Jaungoikoak nai duana izan dedilla!

# Eskolan

**E**SKOLARA umetan, beste danak bezela, gu ere joaten giñan.

Ogei bat basarri giñan ballaran: bost edo orrela Zestuako partekoak, eta beste gañerakoak Debakoak. Maistra Debako partean egoten zan. Kobratu ere Debatik egiten zuan, da Debako etxe oietan danetan egoten zan txandan. Iru illabetetik iru illabetera aldatzen zan. Batean basarri batera ta bestean bestera joan bear izaten genduan guk eskolara.

Guk eskolan zer ikasten genduan gal-detuko luke zenbaitek, eta eze asko ez, baña dotrina beintzat bai. Ori, aurrenetik asi ta atzeneraño dana, ta bearko gañera orduan Arruan zegoan bikarioarekin. Beste-la alperrik joango giñan arengana Pazko-ako denboran txarteletara, orduan txartelak izaten ziran da. Dotrina ondo etzekianak etzuan izango txartelik.

Irakurtzen ere ikasi genduan frenorik gabeko automobillak bezela: ez puntu ta ez koma. Dana segiran. Guk ez genduan iñon kerarik egiten. Lana ugari ateratzen da orrela.

Eskribitzen ere jarduten genduan, ortografia auzoan. Baña ni orrekin serbitzen naiz orain ere. Zer nai dezute, ba? Orain irurogei urteko kontuak esaten ari naiz, ta orduan etzan oraingo konturik. Orain, ogei

urte arte eskolan ibiltzen dira, ta alare ez dute oiek ere naikoa ikasten.

Kontu ateratzen ere asi giñan, baña ez genduan izan denborarik. Lau reglak ikasi giñuzeneko, beste lan batzuetan asi bear izan genduan.

Manuskritua beste libro bat bazan. An irakurtzen asi giñanean, bai erronka ederra:

–Ni manuskrituan asi nauk! –beste lagunai.

–I, bai: ik or ere laister irakurriko dek!

–Ez, motell! Ez dek erraza! Au ikasi orduko denbora pranko joango dek!

Ura ikasi baño lenago, etxean zai jarriak beste lan batzuekin.

Eskolako liburuak ere erderazkoak izaten giñuzen. Aiek ere aldrebek. Guk txinoa izanda bezelaxe konprenditzen giñuzen. Irakurtzen ikasi egiten genduan, da zer irakurtzen dan ez jakitea ere gauza tristea da, baña orduan erderaz ikasi nai izaten zan. Baña erderazko liburuak irakurriarekin, noizko ikasten asi ere? Pazientzi ederra bear izaten genduan. Eskerrak guk ez genekigula zertan ari giñan ere. Maistrak berak etzuan jakingo guri esplikatzekiegi, ta ibilli zerbait.

Dotrina, uraxe euskerazkoa. Ura sikiera konprenditzen genduan. Jakiten zan zer

irakurtzen ari giñan; da uraxe ikasi genduan bai ondo, ta komunioa egin genduan. Nik, sei urte nituaneko egin nuan. Besteak ere alako moduan ibiltzen zirala uste det. Orduan, komunio txikia esaten zaion ori egin da pakea izaten zan. Komunio aundia egiten gero asi ziran, amabi urterekin da orrela.

Jolasak ere bagiñuzen: *erre-katian* da orrelakoak. Bi edo iru jarri *erretzen*. Ikutu egin bear izaten zitzairen, bildu arbola batera edo orrela, ta an jarri soka luzean.

Libratzea ere izaten zan: *erre* gabe zeudenak, danak an ibilliko ziran bueltan; sokari ikutu ezker, libre izaten zan soka dana. Soka umeakin egiten zan, eskua bat besteari emanda.

Pelotan ere ibiltzen giñan zelaiean. *Ziarrera* esaten genion. Erdian arraia egin da arraia pasa bear izaten zan. Guk ez genduan frontoi bearrik izaten. Orain fubolean ibiltzen da ala. Orduan ez genduan guk baloirik ezagutzen.

Arruara jetxitzen giñan, bai guk poz ederra! An bazegoan, ba, frontoia! Ez giñan bereala aspertuko, guk ura libre arrapatzen bagenduan. Antxe bai gozatuko giñala! Etzan izugarria izango frontoia ere; baña, gu an zelaiean *ziarrera* oituta, beste grazi bat izaten zan, frontoia txarra izanda ere. Guretzat etzan frontoi txarrik orduan.

*Tikili-takuluak* ere izaten giñuzen, ba, ta aiek ziran onak! Intxusari muna atera ta trapoarekin takoak egin. Zeñek baño zeñek obeak eukitzen giñuzen takoak. Gogortu ta luzaro ibillitakoak obeak izaten ziran. Tira ta atzera billatu egin bear, al bazan beintzat. Tako onak eukiko giñuzen pare bat edo iru bat, eta soldadua gerrarako baño obeto preparatuta egoten giñan gu.

Gure lagun batek beti *tikili-takuluak* onak izaten zituan. Eskolatik etxera gendozela, batean, basarri baten ondoan ollo-mordo aundia zegoan, da ura beti ixilik ibilli oi zan, gure lagun ori, alegia. Beti egingo zuan zerbait azioa, ta tiratzen du ollo-pilla ortara; sartzen dio bati ipurdiko luma tartean takoa ta aren karraxiak olloak! Ura mogitu zanean, baita besteak ere danak. Guk jarri genduan an eskandaloa.

Bai; guk ere andik aldegin bear izan genduan aguro. Etxeko andrea bestela etzan aterako gozoa; etzan ondradu oieta-koa ere. Arrazoi pixka bat ere bazuan orduan. Etxe-buelta itxia izaten zuan; kurioso eukiko zuan ark. Gu urrengo egunetan antxe pasako giñan beldurrak, baña etzizgun beñere ezer esan, da gu konforme gelditu giñan.

Burrukan ere ibilli oi giñan, da benetan gañera. Irutik bira izaten zan gure burruka, erdian arraia eginda. "Bat, bi, iru!" ta eldu orduan. Anka arrapatzen bazan, suertea izaten zan. Berdin samarrak baziran, beintzat, derrepente botako zuan ark. Anka arrapatzen ez bazan, gerritik edo orrela, ta burruka berdiñagoa izan oi zan orduan. Pena izaten zuan azpira joaten zanak.

Txori-kabiak billatzen ere ibiltzen giñan, da billatu ere bai. Gu umeak giñanean, an baso aundiak ziran, da txori asko izaten zan. Nik billatutakoa beste batek billatzen bazuan, ori izaten zan txarra. Begiratzera ginjoazenean ere, zer kontua eukitzen genduan! Iñork ikusi gabe ta ezkutuan ibilli bear.

Umea olakoxe ilusioakin bizitzen da. Umetako gauzak akordatuta ere, parrez egoten naiz askotan.

Arbola luzeak ere izaten ziran batzutan, da aietan beleak eta zapelaitzak eta orrela egiten zituzten. Igo egin bear ara. Ni ez nintzan oso motela. Luzean da naia-

go. Baña, an gora joandakoan, kabia zarra igual izaten zan. Orduantxe izurratu.

Amorraiak arrapatzen ere ibiltzen giñan. Gure etxea goiko gañean dago; baña, bero aundia egiten bazuan, jeixten giñan bera ta agortu egiten genduan erreka. Lana egin bear izaten da. Lau bat lagun jarri, ta txandan baldeak artu ta putzuak ustu. Erreka soilla, berriz, bera joaten zan gizona añean, ta an etzegoan lana egin bearrik.

Txakurra bazan gure auzoan, agortu-tako tokian aguro arrapatzen zituana amorraiak. Gu, agortu ta aurrera joaten giñan, baldin bazan artuta. Baña ura zai egoten zan, ea atzera gelditzen ote zan. Beti gero ere bateonbat azaltzen da arri tartetik-edo, ta ura zai egongo zan, ta artu ortzetan ta jabeari ekarriko zion ark.

Putzu aundienak ustu ta guk zer erreka-sallak pasatzen giñuzen! Orretarako, korriente aundia ezta bear izaten baña. Ur asko balijoa, putzua ustu baño geiago bete egingo litzake. Jakiten genduan guk noiz joan ara: udaran, urak baju zeudenean.

Etzan amorrarik galtzen. Txikiak bizi-rik gelditzen ziran, da segituan etortzen zan ura. Ta guk arrapatzen giñuzenak ere, berriz, etziran galtzen.

Erreka agortzea ez da libre izango, baña guk egiten genduan ura ere. Sekula ez giñuzen iñork arrapatu, ta ortantxe segitzen genduan guk.

Arrika ere afizio gogorra genduan. Batzuk alde batetik eta besteak bestetik jarri, ta ia, motell! An izaten zan gerra! Baten-batek buruan zuloren bat ez bazuan, kontentu. Askotan artu ederrak eta segi! Be-

launean edo ankan-edo izan ezkerro, ondo; iñork etzuan jakiten. Ixilik jendea. Ikusten ez bazan, jai zegoan.

Gure auzoan, batek arrikarako afizio ikaragarria zuan. Ni baño urte bat gazteago zan ura. Ainbesteko gogoa zuan ark arrika, landareak-eta zuritu egiten beti. Ta aitak zer pentsatu zuan? Alpapa bota berria zeukaten saillara bat, eta bildu antxe arria; gurdia bete, soro-baztar batera eraman da antxe ustu, okerrik egingo etzuan batean, da:

-Ia, motell, ba, oraintxe! Egun bateko lana badaukak eta egin zak!

Bai zera! Okerra egiteko tokia bear zuan ark. Ikusi zuanean besoa nekatu ta etzuala okerrik egiten, ezta golperik ere. Gurdi arria ia dana an gelditu zan osorik.

Arto-lastoakin ere egiten giñuzen armak. Aiek ziran onak, berriz, alkarri begiak ateratzeko! Puntan arri koskor bat jarri ta ia, motell! Ark badakizu zer indar ematen dion arriari? Eskopeta baten pare bada ura. Luzea izaten da ura, ta besoari luzatu gogorra ematen dio ark. Besoak zenbat eta luzeago, ta orduan da indar geiago.

Guardasol-ballenakin ere egiten giñuzen armamentuak. Ballena bat jarri doblatuta ta punta bietan lotu lokarriak, arkua egiten duala. Ta, dan bezela luzean, beste ballena ondo zorrozuta jarri, arkudun ari erantsi lokarritik eta, ark egiten zuan muellearekin, sartuko zitekean ura egurrean ere. Ura erropaz gañetik sartu egingo zan; da gorrian, berriz, begia arrapatu ezkerro, akabo. Ez akordatzen guri orduan min artzeko arriskurik zegoanik. Umea olaxe izaten da.

# Bertsotarako afizioa

**N**ERE bertsotarako afizioa zertatik etorria zan esan bear dizutet.

Orioko *Begi-Exkela* etortzen zan kanta-papelak saltzera, ta guk erosi egiten genizkan. Arruan meza ondorenean izaten zan. Asten zan kantatzen, da papela dana kantatu arte etzuan batere saltzen. Baze-kian ark berak ere ondo kantatzen zuala; ta, papela oraintxe dana pasatzen zuan orduan, asiko zan partitzen, da aitaren egi-teko denboran mordoa saltzen zuan.

Gero gu ere asten giñan, ba, kantatzen, da ezin ark bezela kantatu, ta guk esaten genduan orduan:

–Arraioa! Orioko Exkelak sartu ziguk ziri ederra!

Baña, berriz ere etortzen zanean, ez genion guk erosi gabe utziko.

Orioko tenorra zan ura, ta ark bezelako grazia zuanikan, ez nuan nik sekula ikusi kantatzen. Aren doñua aparta zan. Batere indarrrik egin gabe boza altxatzen zuan. Ark, zenbaitek bezela, etzuan lepoko zañak tiratu bearrik. Arruako plazan kantatzen asten bazan, lotan zeudenak ere esnatuko zituan ark.

Bixta txikia zuan. Papela irakurtzeko, oso urrera begiratu bear izaten zion. Amar bat zentimetro edo ola izaten zan tartea. Baña begietan palta zuana, bozan bazeukan sobre.

Gorputzez gizon aundia zan, altua, arpegi luze samarra, buru makur piska batekin. Metro bat eta irurogei ta amar zentimetro edo larogei izango zan. Ura gizon ederra zan.

Gu beti ura etortzeko pozak egoten giñan. Ari kanta-papela erosi ta ardizaira joaten bagiñan, goizean artutako papela eguardirako buruz dana ikasiko genduan; da, arratsaldean, papela etxean utzita ere kantatuko genduan.

Bertsotarako nere asiera ortitxik izan zan batik-bat. Beintzat, nik zortzi urte nituanean ikasitako bertsoak, gogoan dauzkat oraindik. Pentsatu besterik ez dago: zortzi urterekin asi ta amaseirekin-edo tabernara joaten asi giñanerako, burua dana bertsoz betea gendukan guk. Eta orduan, bertso zarra batzuetan da berria ere igual tartean bakarren bat, olaxe asi giñan bertsoan.

Auetxek dira nik lenbizi ikasitako bertsoak:

Mutillak egon arren  
burlaz ta erronkaz,  
gaubaz ixillik dabiltz  
korritutzen anka,  
txakur asko ipintzen  
dituztela zaunkaz;  
ibillera txar asko  
andregaien paltaz.

Kontzezion izena  
nik dadukat legez,  
munduan korritua,  
euskalduna nerez;  
ez nau engañatuko  
edozeñek errez,  
beintzat len izan dedan  
bezelakuak ez.

Migel Inaziyo da  
pretendiente au,  
gezurrakin lotsetan  
erabillitu nau;  
ustez balio ditut  
ark bezelako lau,  
ostikuaz joko det  
toriatzen banau.

Senar eskasarekin  
bizitza tristia,  
ona datorren arte  
obe da uztia:  
eder galanta nago  
sasoiko gaztia,  
egokituko al zait  
bat edo bestia.

Auetxek dira lenbizi nik ikasi nituan  
bertsoak. Orioko Exkelari erosi nizkion.  
Zortzi urte geienaz eukiko nituan artean.

Oraindik ere gogoan daukat gizon aren  
postura. Traje arizko batekin-da kurioso  
ibiltzen zan ura; ongi jantzia. Elizako kan-  
torea izan bear zuan. An ere kantatuko  
zuan ark beste askok añean, elizan alegia.

Onoko auek ere ari erosiak dira. Estro-  
pada-bertsoak urtero ekarriko zituan ark:

Onen izketa gure artean  
dago ederki jasua,  
ez al zaizute akordatutzen  
lenagoko erasua?

Iru urte da artu zutela  
izugarritzko mazua,  
negarrez egon ziran orduan,  
etzuten egun gozua.

Erri txiki au menderatzeko  
Jose-Maritarren griña,  
Orion dauden arraunlariak  
badira oientzat diña;  
gaizki esaka jardun dirade  
guretzako alegiña,  
lengo ipurdikua sendatzen  
badadukat zer egiña.

Gizon oiekin gu jokatzeko  
jarri giñan beriala,  
beldurtu ez bazian uste det  
nik etorriko zirala;  
Zumaiaitikan esan digute  
txalupa igualak dirala,  
ori sinisteko ez pentsatu  
orren txoruak gerala.

Orduan zer izan nuan orain  
nago adierazteko:  
tostan ezin ondo kabituta  
arraun-lanian asteko;  
gizon petral batek esan zuen  
zerrakiñ anak mozteko,  
ez al zan iñor orri orduan  
bizkar-egurra austeko? (1)

Estropadak orduan, oraingo aldean,  
afan aundia izaten zuten. Irabazten zua-  
nak seguru jarriko zizkan bertsoak baten-  
bati. Ta ura izaten zan orduko bertso-sal-  
tzallea, Begi-Exkela alegia.

Atzanean, beste danak egiten dutena  
ark ere egingo zuan. Ezkutatu zan bein-  
tzat emendik, eta orain ez da ez Begi-Ex-  
kelik eta ez bertso-saltzallerik. Akabo aren  
doñu ederrak eta bertsoak.

Bestea, Asteasuko Aranburu-berri, kan-  
ta-papelak saltzen ibiltzen zana.

Ura gizon lodia zan. Brusa beltza ibiltzen zuan ark soñean, da lepoan pañuelo zuria. Eun bat kilo igual izango zan ura; gizon patxarazkoa.

Ark bertsoak berdeak izaten zituan. Guk uraxe nai. Bestela erosiko ez bagiñuzen ere, berdeak baldin baziran segituan erosiko giñuzen, da bai ikasi ere.

Baten, Zestuara perira etorri zan kanta-papelak saltzera. Asi zan kantatzen, da orduan ere berdeak ark. Berealaxe mikeleteak arrimatu zitzaizkan, ta ez kantatzeko. Ta ark baietz, ia zergatik ez, ba. Ta mikeleteak orduan:

–Bertsoak formalidade piska batekin jarri ta etorri beste batean! Orduan utziko dizugu! Oiek ez dira ametitzeko modukoak!

Bai; laister pentsatu zuan ark zer egin: plazan silla baten gañean txutik jarrita ari zan lenago, eta artzen du bere silla ta an dijoa tabernara, ta asten da an kantatzen.

Bazuan zeñek entzuna! Ango jendearen emana! Boza ederra zuan ark ere; ez Orioko Exkelak bezin ona, baña bai boza ederra. Ta asi zan tabernan kantatzen, ta bazuan zeñek erosia. Ango tira bearra ta ango bultza bearra!

Mikeleteak mesede ederra egin zioten ari, kalte egiten ziotelakoan. Bestela erosiko etzutenak, orduan erosi egiten zuten papela. Mikeleteak kantatzea galerazia zala jakitea naikoa zan papela erosteko. Amar zentimo izaten zan papel bakoitza, baña ark diru-mordoa bildu orduan ere. Olaxe manejatzen zan ura.

Gauza galeraziak beste grazi bat izaten du. Ori zinea bezela izaten da: emezortzi urtetik gorakoentzat esaten badezu, izango du estimazioa; ikusiko dezu nola salduko dituzun sarrerak.

Nik ere, egia esan, naiago izaten nuan berdea. Gaztea txoroa izaten da, ta gu ere bai orduan. Orain ere obe genduke ala ba-geunde. Orain txoro-usaiak ederki alde- ginda daude.

Arozpideko mutilzarra zan arentzako kontrario polita. Batean egin zuten saioa Aranburu-berrik eta Arozpidek. Zestuan ferian bildu ziran biak, eta an ziran angoak! Aranburu-berrik etzuan ezagutzen bestea, eta Arozpidek bota egiten zion beti bertsoa, ta asi zan, ba, As-teasu ere.

Arozpidek:

Aterata daduzkat  
bertsotako planak,  
laister egingo ditut  
Asteasun lanak;  
gu baño ume eskasagorik  
ez du egin amak,  
andre bana mantentzeko  
kapaz ez geranak.

Asteasuk:

Aizazu, Arozpide,  
zure izaera  
kalkulatuta daukat  
gutxi gora-bera;  
beriala ementxen det  
esateko era:  
oriñelak garbitzeko  
aproposa zera.

Arozpidek:

Gaur ez dago gu emen  
lotutzeko katik,  
danak berdiñak gera,  
bat ez da apartik;  
gonbita agintzen dute  
kantatziagatik,  
gaur ez gaude ertenik  
taberna onetatik.

Asteasuk:

Arozpidekin lenbizi  
gaur naiz alkartuta,  
gauza onik ez dago  
oni barkatuta;  
gizon au arkitzen da  
oso kargatuta,  
laister ikusiko da  
zutik lo artuta.

Olaxe egiten zituzten egundoko saioak. Biak mutilzarrak ziran, da atzenerako ondo arreglatzen ziran. Gaizki esan bai, baña etziran aserraten.

Arozpide orrek bertso batzuek bazituan askotan kantatzen zituanak. Guk buruz ikasita eukitzen giñuzen, da aietxek kantatzen zizkan ark; karretea bezelaxe errez kantatu ere, eta amorrazi egiten zion Asteasuri. Lau puntuko motxean kantatzen zuan ark beti, ta erreztasun aundia zeukan, nola betiko bertsoak ziran. Artan eukitzen zuan laiñeza.

Asteasu bera ere etzan edozein moduz lotsatzeko moduko gizona, baña ark amorrazi egiten zion, ordea.

Nik ere bein egin nuan gutxi edo geiago Asteasurekin bertsoan. Artean gaztea nintzan, da ez nuke esan nai onekin ark bezela egiten nuala. Amasei urte geienaz idukiko nituan; da, nai izan balu, errez egingo zituan nere lanak, baña neretzako moduan egin bear.

Ni ezin atrebitu izaten nintzan bestela, eta lagunak asteko ta asteko. Asi nintzan, ba, ta bildurrak lenengo; baña egin nuan saioa, ta kontentu. Zer kantatu genduan ez daukat gogoan orain. Guk, beintzat, Asteasurekin bertsoak kantatu giñuzela-ta, ez giñan ustez txikiak izango. Orduan kantatu giñuzenari eskerrak; bestela orain etze-goan kantatzerik.

Emendik ezkutatu zan. Orain Jaunak eman deiola betiko deskantsua!

Bizkaiko Prudentzio Abarrategi, au ere kanta-papel saltzen ibiltzen zan.

Au bertso motza zan, da onek ere boza ederra zuan. Jeneralean, papel saltzen zebiltzanak, geienak eztarri onekoak izaten ziran; bestela ez baitu balio.

Kantu txarrak ere onen plantan kantatu bear dira. Boza ona daukanak, askok egiten du ori. Engañatuko zaitu: bertso ontzat erosiko dizkazu, ta gero asi zu kantatzen eta txarrak igual aterako zaizkizu. Baña etzan tranpa aundia izaten: amar zentimo izaten zan guzia ere.

Besoak, biak motzak zituan bizkaitar onek; esku-muturretik moztuak.

Jaten ez nuan beiñere ikusi; ez dakit nola manejatzen zan: baña dirua ederki kontatzen zuan. Brusaren patrikaran ibiltzen zituan sosak; esku-mutur batekin aterako zituan andikan; zabala zuan, ba, esku-muturra, ta gañean aterako zituan, da beste esku-muturrarekin botako zituan zure eskura pezetaren ganbioak. Olaxe manejatzen zan ura.

Brusa urdiña ibiltzen zuan ark, eta luzea gañera. Onek etzuan kanta berderik saltzen. Au libre izaten zan mikeleteakgatik. Onek plazan trankil kantatzeko modukoak izaten zituan. Etzan bildurrak ibiliko ura ta ezkutuka. Plazaren erdi-erdian jarriko zan. Boza ederrarekin kantatu ere egingo zituan, da asko saltzen zituan.

Gizon bikaña zan ura ere. Metro bat eta larogei zentimetro urrean izango zan luzean, da pisuan ere eun kilorako etzuan asko paltako.

Eskuetan pallo aundia zuan. Nik ez dakit berez alakoak izango zituan; edo, bestela, miñen bat artuko zuan. Nik ez nion sekula galdetu orrenbeste berari. Galdetzeko



etzan oso gauza egokia ere, ta ortan gelditu giñan.

Gero, gerra-denboran, berriz, palta izan zan. Frantzia aldean-edo ibillia izan bear zuan. Nik ez nuan luzaro emen ikusi, ta an zebillela aditzen genduan.

Gero Errenterin ikusi nuan, aztu ta geroko batean. Piska bat zartzera egiña zegoan ordurako. Urte asko ziran nik ikusi ez nuala, ta ez da arritzekoa neri zartua iduritzea, onera Oiartzunera etorri ta geroko kontuak dira-ta. Emen ez dakit senideren bat edo zer eukiko zuan Errenterin. Nik ala pentsatu nuan.

Ura zarra da onezkero, bizi baldin bada. Ez det geroztik ikusi ta ez dakit zertan dan.

Bertsotarako gure asiera oietatitxik izan zan. Aitak perira joan da ekarriko zituan papelak, eta guri emango zizkigun. Ta guk artu ta bai ikasi ere aguro. Etzan pakerik izaten dana ikasi arte. Buruan artu ere bai orduan. Gaur ez degu balio ortarako ere.

(1) Bertso auek, ziur aski, Gazteluk jarriak dira, 1919 urtean. Ikus: *Auspoa* 61, 109 orrialdean asten dan saillean, 11, 13, 7 eta 12-garren bertsoak.

# Zurbano

**O**RTAN gaudela, gurasoak, eskolan da erderaz ere piska bat geiago ikasi bearko zala-ta, amairu urte nitualarik, Bitoria ondoko erri batera bialdu giñuzten nere anai bat eta biok, Zurbanora, udaran lana egitekotan da neguan eskolan. Udara luze samarra zan, baña pasa egin bear. An zerbait geiago ikasi genduan.

Sekula iñora atera gabeak giñan gu, Zurbanora joan giñanean. Arruara ta Zestuara bestetara ez giñan joan. Andik ateratzen asi ezkerro, begiak argi izaten giñuzen guk.

Treanean ere sekulan ez giñan sartu, ta ura ere nobedadea. Baña sartu giñan, beintzat, aita ta bi anaiok, eta etzan itzik entzuten; alkarri begiratu ta ixilik. Arruan sartu giñan treanean ta Elgoibar aldean edo orrela lenengo izketan asi giñaneko. Konfiantzan sartu giñan gero, ta andik aurrera or nunbait.

Eskoriaza alde orretan asten da trenea jo alde batera ta jo bestera, ta ez degula aurrera egingo.

Alako baten Gatzagaraño joan gera; ta an, berriz, elurra. Etzan orduantxe ere udaberria oso ona. Ama Birjiña Martxoko eguna zan da elurra mardul egiten zuan. Dana zuritu zuan.

Bitoria aldeko ordeka aietara azaldu giñanean, zuri-zuri dana berdin zegoan. Guk beñere ez genduan alako ordeka-saillik ikusi, ta:

–Ikusten al dituk zer ordeka-saillak dauden emen? –esaten nion nere anaiari.

Ta:

–Bai, motell! Ikusgarriak dituk, ba! Ez nian uste onelakorik ikusi bear genduanik!

–Ez nik ere, motell! Emen lan-toki ederak izango dizkiagu beintzat!

Artan goazela, Bitorira allegatu gera. An bazkaria egin genduan, da piska bat ikusi genduan Bitoria. Ta andik Zurbanora joan giñan.

Urrengo eguna igandea zan. Aitak an pasa zuan egun ura, ta arratsaldeko treanean aldegin zuan. Guk begiak ederki busti, aitak aldegin zuanean.

Ango alkatearen etxean egon giñan. Alkateak andrea euskalduna zuan. Lenengo bi egunak antxe pasa giñuzen; da, aitak aldegin zuanean, morroi-tokira joan giñan.

Anaiak, alkatearen semearen etxean zuan gero ere morroi-tokia, ta nik beste etxe batean.

Alkatearen etxean gaudela, erderaz ikasten asi giñan: “*¡Ya lo creo!*”, ta “*¡Qué barbaridad!*” ta orrelakoak. Belarriak zai egoten ziran an.

Zurbano erri polita zan. An berriz ere juntatzen giñan jaietan-da anaiarekin, da berealaxen oitu giñan.

Len esan degun bezela, ordeka ederrak ziran. Etxeak banaka. Emen bezela, etzan tokirik arrapatu ezinda iñor ibiltzen an.

Erderaz, berriz, ez genekigun itzik, ara allegatu giñanean. Joan berria nintzan artean da joan giñan, ba, langa bat jartzera nagusia ta biok, eta ez dakit propio-edo; beintzat, palankarik ez genduan eraman, da nagusi orrek esan zidan:

–*j Vete a casa y que te den la barra de hierro!*

Ni orduan bai zintzo joan nintzala etxera. Berrogei ta amar aldiz esango nuan nik bidean; da etxean, berriz, nagusiaren arreba atera zan atarira, ta:

–*j Que te den la barra de hierro!*

Parra piska bat egin zuan, baña nik nagusiak esandakoa egin nuan beintzat. Etzuten burlarik egiten. Gu okerragoak igual izango giñake. Saiatu egiten ziran erakusten.

Basarria zan an ere, eta lan-paltarik etzan izaten. Jorran-da, gerrietako otx aundirik gabe jarduten genduan. An ere ganadu gutxi izaten zan. An iru bat bei, idiak eta beste iru beor, ta aiek. Zaitzalle bat izaten zan errian, eta larrean ibiltzen ziran. Goizean askatu ta bialdu, eta arratsera arte etzuten aiek lanik ematen.

Len esan dedana, ordea, jorran izaten zan an lana eten gabekoa. Asi patata ta erremolatxa, ta baba, garragarra, oloa, garia, illarrak, zenteno... Beste klase batzuk ere izaten ziran: *yero* ta *rica*, ta zeñek daki zenbat klase.

Oiek danak jorratzerako, denbora bear izaten zan; gero aiek trillatzen, berriz. Lenengo, ebaki. Ebaki ta lotu egiteko makina bazan, orain dala berrogei ta amar urteko ere, idiakin ibiltzen zana. Urrena,

pillatan jartzen giñuzen; da gero, illunabarreko preskuran atarira ekarri. Goizean, eguzkiak berotzerako, larraiñean zabaldu; ta, eguzkiak berotzen zuanean, beorak artu ta lotu; trilloak erantsi arrastaka.

Trillo oiek ate baten posturakoak ziran, olakin egiñak. Batzuek, zerrak izaten zituzten azpian; eta beste batzuek, berriz, arriakin. Lastoa txikitzeke ziran aiek.

Olaxe jotzen giñuzen gariak, oloak, garrarrak eta abar. Garbitu, berriz, aizearekin larraiñean bertan, artu ta aizeari emanaz. An beti ipar-aizea izaten zan. Lastoa zegoan arte, egurrezko sardangoak izaten giñuzen, lau ta bost ankakoak. Eta, lastoa gutxitzen ari zan bezela, palak; egurrezkoak aiek ere.

Olaxe, garbitu, berriz. Illabeteko lana izaten zan an gutxienez trilloan, jai ta aste. Jairik etzan egiten kosetxa erretiratu arte. Orain makina onak badituzte; kosetxadorak deitzen diete. Orain azkarrago egingo dituzte.

Goldean ere ni ibiltzen nintzan. Nagusia –Baldomero zuan izena– eiztarria zan; da, lenengo arrasto bat edo bi eginda, ni martxan jarri ta bera eizera joaten zan. Ta ni antxe, nere amairu urterekin.

Erramolatxa asko egiten zan; azukre-erramolatxa, batibat; baita ganaduentzat ere. Azukre egiten zan fabrika urrean zan, ta ondo baliatzen ziran.

Guretza etzan izaten erreza jorratzen; lan txarra. Ta atera ta entregatzen, berriz, jela izaten zan da otxak gorriak ikusten giñuzen. Lur da guzi ateratzen zan. Bi gurditan eramaten zan kamiora. An biak batera bota bear, da lur busti ura dana urrengo goizean jelatuta egoten zan. An ikusten ziran gorriak batetik bestera pasatzen, estaziora eramateko.

Gero estaziora eraman da an pisatu. Bere lur da guzi izaten zan, da erramola-txa-jabeak garbiena botatzen zuan; da fabrikak, berriz, zikiñena. Zesto aundi bat bete zan. Ala, ura pisatu. Ark euneko zenbat galtzen zuan, andik kontuak ateratzen ziran, da kito.

Ostegunetan egiten zan peria, ta Bitorira joaten giñan askotan, zerbait saltzera, nagusiarekin. Idiak eta gurdia artu, ta garia, baba, oloa edo zerbait izango zan. An amaiketako piska bat ere izaten zan. Orduan nagusia ta biok bapo.

Nagusia ere gaztea nuan. Ogei ta bat urte zituan, eta beti lagunak bezela izaten giñan. Nagusia zanik ez nuan beñere pentsatu. Beti berarekin jostatzen. Alaxe ibiltzen giñan.

Egurra ere urrutitik ekarri bear izaten genduan. *El Puerto* deitzen zioten berak. Urbarari segitzen dion mendi orixe da. Puntaraño ez giñan joaten; beti alde ontako maldatikan ekartzen genduan. Pagadi bikañak ziran an, da pagoa ekartzen. Goizeko irurak aldean jaiki ta erri guzia batean joaten giñan. Egurra, bakoitzari onenbesteko bat partitu egiten zitzaion, erriaren egurra baitzan.

Patata, beste kosetxa bat ugaria izaten zan an, lurrera bota ezkeru egiten zana. Goldearekin ereiten genduan. Azia bota golde-arrastoan, ta beste arrastoarekin tapatu ta jorratu. Orixe bai, bi aldiz: lenda-bizikoan, pasara bat nola edo ala; bigarreanean, ondo bete jira danean lurrarekin. Urrengo, ateratzera, ta patata bikaña izango zan an; txikirik ez.

Neguan sartu gera. Eskolara joan bear da asi giñan, ba. Lotsatu egiten giñan lenengo aldetik, baña oitu egin bear. Gu baño mutil txikiagoak, guk baño geiago zekite-nak bazeuden an. Baña len ez genduan ikasi ta... asi giñan, ba. Berealaxe oitu giñan,

da ikasi ere, denbora gutxian egiteko de-zente egin genduan.

Bost illabete giñuzen eskolarako izen-datuak, eta lau geienaz ere egingo giñuzen. Basarria zan, da basarrian lana zenbat egin, ainbeste izaten da. Ta noiznai, au dala ta ori dala, eguna galdu bear izaten genduan. Aitzaki gutxi asko izaten zan. Gu orduan joan ere egingo giñakean. Lenbizi lotsatu egiten giñala, baña gero etzegoan lotsatu beldurrik. Bertarako egin berealaxe.

Eskolan asi giñanean, kaniketan-da, txapetan-da, boletan-da, ibiltzen giñan. Bertakoak, bola-tokiak berak egiten zituzten, da etzan errez izaten aiei irabazten. Baña guk ere bagiñuzen geren manejuak, eta an ibiltzen giñan beintzat, batean irabazi ta bestean galdu.

Beste joku bat ere bazan an. *Al calderón* esaten zioten berak; eta, eskolara joaten giñanean, artantxe ibiltzen giñan. Metro bat luze inguruko makilla bat eskuan artu, ta amabost bat zentimetroko egur bat, punta biak zorrotzak zituana, lurrean jarri. Eskuko makilla arekin jo punta zorrotz artan, da bote aundia egiten zuan. Eman bestea aldean, da an joaten zan tximista bezela. Ta geiena botatzen zuanak, irabazi.

Beste batean, berriz, aserretu egin nintzan batekin. Pluma-punta arrapatu zidan; biok alkarren ondoan egoten giñan eskolan, da nik ezagutu egin nion. Eskatu ere bai. Etzidan ematen da eskolan bertan eldu nion, baña maisuak etzigun utzi nai genduanik egiten.

Mutil ark atzeneko eguna zuan an, eskola artan, da nik ura aprobetxatu nai nuan. Alako baten, apaiza etorri zan dotrina ematera; bai egoki etorri ere.

Berekin batean atera egin zuan eskolatik maisuak. Bazekian ark guk zer pre-paratuko genduan, ta seguratu bere uste-

tan. Gu apaizarekin geratu giñan. Mutilla bere ustetan libre zan, da leiotik burla egiten zidan.

Ni ez nengoan ederki ala, ta, alako baten, apaizari eskolatik irtetzeko libertadea eskatu nion. Pixa egiteko aitzakian atera nintzan eskolatik, eta an arrapatu nuan. Gozatu nuan ederki, etxera joateko moduan!

Uraxe izan zan gure despedida. Geiago ez det ikusi mutil ura. Eskoriazakoa zan, da etxera joan zan.

Olaxe, erderaz-eta piska bat ikasi genduan. Andik etorri giñanean, etxean etzan guk aña zekianik, eta kontentu.

Orduan etzan euskeraz aztutzeko beldurrik gure baserrietan. Oraingo gazteak, berriz, erderaz naiago dute, euskeraz baño. Orain ez dago Bitorira joan bearrik erderaz ikastera; ta euskeraz ikastera, berriz, alperrik izango da. Bertan saiatu beariko degu. Oraindik ere ez dago guretako baserrietan, piska bat saiatu ezkeru, ikasi eziñik.

Bi anaia an giñan, da etxean morroiarekin da al zan bezela pasa bear. Bi mutil koskortuak, amalau urte ta amabost giñuzen-da, etxean palta galanta egiten genduala egon giñan gu an. Etorri ta asi giñan lanean, ta etxean bai deskantsu ederra.

# Berriz Uztapiden

**B**ESTE anai ori, Jose Mari, ni baño zarragoa zan, da guk arditan-da afizio aundia genduan. Uda-partean Agiro mendira eramaten giñuzen ardiak, eta ara ere joan bear izaten zan; da etxean ere ganadu-mordoa, berriz.

Goizean, arditara joateko, aitak deitu bear izaten zigun iruretan. Seirak aldea izaten zan gu etxera etorri orduko, eta kafesne-zopak ederrak izaten ziran orduan.

Makilla baten bi puntetan artu marmittak, bi marmita, ta martxa.

Baten, txabolatik bera oso bide labaña izaten zan; da, euria egin berria, intza zegoan. Gure anaia ori, *banba!*, lurrera. Marmittak joan ziran lurrera ta tapak atera. Bi marmittak ustü. Baten esne piska bat gelditu zan; pare bat litro. Ta balantza egiten zuten; marmita utsak balantza aundia egiten dute. Ta, balantz ez egiteko, brusa sartu marmita uts artan da ederki etxera etorri giñan; baña marmittak utsak. Guk esnea ekarri zai zegoana, etzegoan leku txarrean. Eskerrak aitak bazekiala bide artako berri.

Goizean joan da ardiak bildu ta jetzi. Txakurrik gabe lan aundia izaten zan. Ardiak biltzen garo tartean barrena ibili bear, da zenbait girotan ez da atsegin izaten. Leporañoko garoan sartu ta, andik ateratzeko, prakak ederki bustiak izaten ziran.

Gaur zakurrarekin batere ez da kostatzen, naiz garo tartean izan. Gure aitak etzuan zakurrik ikusi nai izaten ardien inguruan. Orduko gure ardiak izutu egiten ziran. Gañera, etzuan balio. Eiz-txakur bat edo orrela arrimatzen bazan iñoiz, beren buruak galdu bearrean asiko ziran, da noiz arrapatu aiek urrengo?

Gero zakurrarekin oitu ziran, ba, ta orduan bai. Anaiak, guk aldegin da gero, jarri zituan zakurra ta mandoa, ta errez ibiltzen zan. Orduan mandoaren gañean jarri ta zakurra aurrean; bera txabolara joan orduko, ardiak ekarrizten omen zizkan, ta kontatu. Ta, danak ez baziran, agindu berriz joateko, da joango omen zan. Bera ardiak jezten asiko omen zan; da, anaiak erdiak jetzi orduko, osatuko omen zituan danak. Berak askotan esan oi zuan:

–Guk zenbat ibilli alperrik egin degun, Jaungoikoak bakarrik zekik!

Nik esaten nion:

–Bai, beste lanetan ere, abildadeak joandakoan ikasitzen dik gizonak.

–Bai, zerbait badek. Beintzat, ni sasoi onenean baño errezago egiten diat arditakoa orain. Gañera, orduan, badakik, ardi txarra izaten uan, sorakaia bazan, da orain etziok sorakairik. Atariko txabola aurrean badakik or nola langa dagoan. Orrek etzeu-

kak mailla bat, eta ez ditek sartzea pentsatzen. Zakurrarekin lezitatuta zeudek.

Gu ardiak, onen-onenak, saldu egin izan giñuzen, sorora sartzen zirala ta beste gabe. Alako ardia asiko da orruz; da, jaten ari diranak eta ez diranak, danak endreatzen ditu, ta saldu egin bear, danak bera bezela jarri gabe. Ori, zakurrik etzan denboran.

Ardiak antzutu egiten giñuzen ortxe Santiago Santa Ana inguru orretan. Gure poza orduan! Goizean deskantsu ederra! Naikoa loa!

Guk ardiak ibiltzen giñuzen Agiro mendi ori, mendi arritsua da, baña ganadu-toki ona. Goi aldea, beintzat, oso arritsua, baña larrea oso piña.

An bildotsak-eta asko galtzen ziran. Be-roarekin-eta kejavu ta itzal billa-ta asiko ziran, da olaxe engañatzen ziran. Ogei bildots utzi ta zortzitarario bajatu izan ziran. Ori aundienekoa, baña galtzeko asko bear izaten zan. An ardiak ere galdu izan ziran iñoiz. Arri-zuloetara eroritzen ziran.

Billa egun erdi bat-edo egingo genduan; da, orduan billatzen ez bagenduan, ark ala bear izaten zuan. Billatuta ere, iñoiz utzi genduan.

Batean, bildots bat billatu genduan. Zuloa luzea zan da ezin atera. Igande-eguardarte baten joan giñan, soka-pilla artuta. Gu gazteak giñan artean, da aita sartu zan zulora, soka gerritik lotu ta bide luzean. Goian ere bagiñan beste sei bat lagun, da joan zan bide puska batean. An koska bat omen zegoan, da berago zulo estua. An ezin sartu aita; beste soka batekin bota omen zuan an bera parola piztua, ta ezereen arrastorik ez. Atzera gora etorri zan aita, ta an gelditu zan gure bildotsa.

Andik amabost egunera ere, aren orru-otsa an entzuten zan. Gu, mutil kosko-

rrak, joan giñan ara, ta etzan alaia, baña artean bizi zan. Guk ia negar egiñean aldegin genduan, eta ez giñan geiago joan ara.

Auzoko txabolan eukitzen giñuzen ardiak. Gure txabola baño ohea zan ardiak ibiltzeko, gurean ere txabola-aukera bazan baña. Zortzi baziran beintzat. Agiron bat bakarra zan, baña etxe ondoko barrutian bi: goikoa ta bekoa. Ta atarian iru: *Atariko txabola* esaten zitzaiona, ta *Gaztaña-tokia* ta *Ikullu-berria* bestea. Gero neguan bera eramaten giñuzen, ta orduan *Txortxin-txabolan* edo bestela *Masti aldeko txabolan*. Aukera egoten zan.

Azkeneko ori lenago maastia izana zan. Arruako bikarioak omen zuan an maastia, ta esan oi zan imia bat urre gastatu zuala an maastia egiten. Oraindik ere ezagun dira paretak eta an zerbait orrelakoa izan dala. Gure aitonak jan omen zituan ango atzeneko maatsak.

Andik joaten ziran Ekain aldera gure ardiak gaztaña denboran. An gaztaña asko zan. Orain famatu eginda dago Ekain au. Berebiziko artzulua billatu dute. An guk ardiak ibiltzen giñuzenean, etzan orrelakorik. Sasiakin tapatuta edo ez dakit zer egongo zan. Guk ardiak artu ta laste aldegin oi genduan andik.

Beste amalau-amabost azienda etxekokak izaten giñuzen, da aiek ere eskatu egiten zuten. Ematen ez bazitzaien, marrua-ots ederra laste. Orduan etzan, orain bezela, gurdiarekin ekartzen, bizkarka bai-zik, eta nekatu egiten da bizkarra ere.

Nik amasei urte nituanean, etxean obra egin bear zala ta asi giñan preparatzen. Orain bezela etzan izaten ormigoirik; eta egurra eta arria eta karea.

Ortarako, karobia erre bear lenengo, eta arria ekarri. Gero, egurra eta otea prepa-

ratu, karobia erretzeko. Denbora etortzen zanean, eguraldia ere ona nai izaten zan. Al bazan, otea erre nai izaten zan. Egurra sobratzea naiago.

Ta ola, eguraldiak itxura ona zeukan batean, emango zitzaion su. Ia, mutillak! Batzuek ote billa, eta besteak karobi-atakan otea sartu ta autsa atera. Txurruta pis-ka bat ere izaten zan, eta irrintziak ere bai ederrak. Gero, otea ekartzen zebiltzanak ere, illunabarrean karobi aldera etorriko ziran da apaldu.

Ta kuadrilla bi puska egin da erdiak oera joango ziran deskantsatzera. Beste erdiak, karobian gau erdira arte. Orduan, oian ziranak jaiki. Ardan-zopa jaten zan. Orduan, len karobian jardun ziranak, oira joango ziran; ta len oian ziranak elduko zioten lanari. Orrelaxe izaten zan karobi erretzea. Egurra ere asi giñan botatzen. Eskerrak egurra etxean gendukan. Aukera zegoan egurretik. Bat orretarako, ta beste onetarako; zerratzeko bai batzuk; ola egiteko besteak; lata besteak; ate-markoak, leio-markoak eta soliboak. Orrela gauza asko, egurra landu besterik etzutenak: posteak eta prontalak, kaballeteak, kapi-rioak...

Zerran orduan asi nintzan lenengo: la-tak-eta ebaki; artatik egin giñan opizioa-ren jabe.

Arriak ere atera bear ziran, eta etzan kpresore eta orrelakorik. Palanketakin arria ateratzen erraza zan, metro erdi ba-teko zuloa egin ezkerro. Beta ederra nunai bazeukan; eta, zulo koskorra egin ezkerro, tira egiten genduan tiroa. Arria betatik errez libratzen zan.

Andik urrengo udaran, asi giñan, ba, obran. Lurra ta karearekin, morteroa; arria bazan; paretak berealaxe gora bazijoazen.

Guk, berriz, piontzan naikoa lana iza-ten genduan. Beien eta ardien lanak argi-ñak jeikitzerako egin bear, da zai egoten giñan gu lanari eltzeko, beiak uztartuta.

Arria edo egurra, palta zana, ekarri; bes-te batzuek morteroa egin ta jaso. Bizkarre-ko otz aundirik gabe izaten giñan illunaba-rrean. Berriz ere ardiak eta beiak an egoten ziran zai, argiñak lanari utzitzerako. An bes-te saio bat egiten genduan. Ura bizkarreko miña sendatzeko ondo zetorren.

Tellatua ari zan arrimatzen; obra aurre-ratua. Arriskua gero ta geiago: egurrak-eta aundiak jaso bear izaten ziran, da pultso samarrean da ola. Askotan puska aundiak ere bai, ta komeriak izaten ziran an.

Azkenean eman genion tellatua, ta gero trapalea, tella-aparia. Ark aztuko zituan lengo nekeak danak. Bapo apaldu eta kon-tu mordo bat alkarri esan, da antxe buka-tu zan gure obra.

Andik urrengo neguan asi giñan, ba, zerran. Baso bat bazegoan gure auzoan, da geren kontura artu alde bat eta zerratu. Baso erosoan zan ura. Lo etxean, oian, egi-ten genduan. Pago aundiak eta zatarrak ziran, bai, baña ebaki giñuzen beintzat.

Iru mutil giñan an baso artan ibilli gi-ñanak, eta irurak gaixo gaude gaur. Aiek biak ere, nik bezelaxe, biotzetik sufritzen dute. Batek irurogei ta amairu urte badi-tu, ta besteak irurogei ta zortzi bai. Biak jubilatua dira. Bat kaminero sartu zan gero; bestea baserrian aritzen da, gu be-zelaxe.



# Olaberri

**E**MEZORTZI urte nituan da morroi joan nintzan baserri batera: Olaberri.

Igande-goiz baten Arruara mezetara joan nintzan, eta antxe Olaberriko nagusia ere, ta izketan asi giñan.

-Morroia kuñadua daukagu ta orain-txe gabe geratu bear diagu -esan zidan.

-Morroirik gabe zuen etxean ez da, ba, atsegin izango.

-Ez! Derrior nunbaitetik bear diagu, eta etzekiat nundik asi.

-Morroiak orain ez dira nolainai billatzen, lotua gelditzen da morroia ere ta.

-Bai; oraingo mutillak, jaian-da ere, libre nai izaten ditek; eta gurean, berriz, ganadu-pilla galanta ziok, eta an etziok jairik. Ik ere sasoi ederra daukak, ba! Ez al dek pentsatzen orrelakorik?

-Ez dakit, ba! Gure etxean pasa ere egingo lirake ni gabe ere; ta, konpondu ez-kero, Joxe Manuel, joan ere igual egingo nintzake.

-Konpondu? Zenbat bear deken esan zak beintzat, eta ikusiko diagu.

-Ez dakit, ba, nik: milla pezeta nai nituzke, ta mirabeak bear dituan erropak.

-Motell, ez dek, ba, ori ere beste munduko gauza, eta probatu egin bearko diagu!

Oso errez konpondu giñan. Urtea etzan izango pasatzen ain erreza; baña, dana dala, tratua egiña zegoan.

Amaiketako piska bat egin genduan alkarrekin, da etxera joan giñan. Asteartean joateko esan zidan, eta bai joan ere. Segapikatzen bai al nekian da galdera batzuek egin zizkidan. Nik baietz erantzun nion, ez nengoan artean asko oitua baña, gurean aita aritzen zan da. Ikusten nituan nik ango belar-eremuak eta "Ikasteko ere ez dek egongo or bertan leku txarra!" nere artean. Gure etxetik bistan zegoan, ba. Olaberri.

Olaberri baserri ona zan len, ni an izan nintzanean; da orain ohea, berriz,

Ez da malda aundirik; ganaduaekin nunai ibiltzeko modukoa, uztartuta alegia, garo-sailletan da danean. Etxe-buelta ederra ta lasaia, ganadu gazteak-eta lasai asakatutzeko modukoa. Ezta, zenbait lekutan bezela, beldurrak ibilli bearrik.

Baso-kontuan, berriz, oso aberatsa: lizarra ta olakoa, dana bertan sortzen zan; da makala ta panpano ta orrelakoak, berriz, lurrean jartzea palta izaten zan; ango erreka-aldeetan sua bezin aguro etorriko ziran.

Zituan terreno guztietan, etzan arri bat bakarrik agiri; dana lurra. Ainbeste aun-

diko eremuak, danak ala arririk gabe izatea, zailla da. Segarekin etzan an arria arrapatu bildurrik; atxurrarekin ere ez. Lan-leku konfiantzazkoa zan ura. Zenbait lekutan, lanean asi orduko, badituzu kontrarioak; an etzan orrelakorik.

Esan bezela, joan nintzan, ba, esandako egunean. Baul batean artu erropak eta banijoa goizean jeikita. Baula uste baño astunago, ia ordu beteko bidea bazan-dagure etxetik aruntz. Etzan, ba, traje eder asko izango, baño zerbait narruak estaltzeko aña eraman egin bear.

Iritxi naiz, ba, etxe orretara, ta jaupatekoa egin nuan. Etxeko andre zarra atera zan ateondora, ta:

–Egun on Jaungoikoak dizula! –esan nion.

–Bai zuri ere –erantzun zidan.

Etxearen sarreran, be-barruan azkoitiarrak esan oi duten bezela, mai bat zegoan, da nere baul aren gañean utzi nuanean, “Au deskantsua!” nere artean.

Etxeko andre zarra, alarguna, nagusiaren ama zan. Bi aur txikiak bazituan gazteak, eta aieri kontu egiñez gosaria prepatzen ari zan, da ari galdera egin nion:

–Zertan asiko ote naiz, ba?

–Gosaltzeko deitu diet eta berealaxe etorriko dira. Ortxe ari dira gari ebakitzen! –erantzun zidan.

Esan bezela etorri ziran. Gosaldu genduan, ba, ta gari ebakitzera. Orain makina edo, gutxienez ere, segarekin; orduan itaierekin ebakitzen ziran. Amabost bat eguneko lana izaten zan gutxienez, eta ebakitakoan kontentu izaten giñan.

Gizon-taldea jarri saillean, da “jaup!” alde batetik; besteak ere “jaup!” beste aldetik. Iñork etzuan nekatuta zegoanik aitortu nai izaten, da danak, bakoitzak berea

gogoan, segi! Itzik ere ez! Eta beste batzuk lotzen atzetik. Ebakitzeko gauza etziranak ere, lotu egiten zuten. Iñoiz ebakitzeari utzi, lotzen asteko. Orduan izaten zan poza: ebakitzen bukatu egin zirala edo beste edozer gauza. Lotzen, deskantsatu egiten zan.

Gero, berriz, jaso egin bear izaten ziran. Egualdi onak baziran, segiran larrainñera ekarri ta an pillatu. Txarrak baziran, bertan meta xorroak egin, da orrela luzapena izaten zan beintzat. Al zan bezela, jotzeko preparatu bear.

Guk ere ekarri giñuzen, ba, larrainñera; orduantxe abixatu auzokoai, ta etortzen ziran auzo-jira dana. Ta an izaten ziran angoak!

Berrogei bat lagun juntatzen giñan; da, jo ta garbitu, danak egun erdi baten egiten ziran. Batzuk makinari garia sartu; besteak lastoa etxera eraman, besteak garia. Danak etxean jartzen ziran, jotzen ziran egun berean. Da bazkaria edo aparria, zer tokatzen zan, ematen zitzaien, da ez nolanaikoa ere. Batek ona ematen bazuan, besteak ohea. Olaberrin etzan izango beste lekutan baño txarragoa. Apaldu genduan, ba, an ere, eta gero ziran gerokoak!

An zan gure Zubeltzu bertsolaria ere, ta nola ixilik egon? Batetik emezortzi urte, ta bestetik ondo jan da edan egiñak. Antxe lenengo aldiz Zubeltzu zarrarekin bertotan egin nuan. Lotsatutzen nintzan piska bat, baño barrena berotu ezker asko aztutzen da ori ere. Guk egin genduan beintzat saio ederra, eta goiz aldera erretira. Orduan Zubeltzurekin ezagun egin nintzan, eta andik aurrera etzan ezereen kezkarik izaten.

Gau artako bi bertso gogoan dauzkat oraindak. Gutxi gora-bera onelatsu izan bear zuten:

Zubeltzuk:

Izketan asi bear genduke  
gizon jatorren moduan,  
bildurrik gabe esango dizut  
nik daukatena goguan:  
gazte maitea, zuk badakizu  
ni zer sasoiko nagan,  
laister ikusiko det gaztiak  
bertsotan balio duan.

Nere erantzuna:

Aita bezela maitatzen zaitut  
bada nik, Zubeltzu zarra,  
ikusitzen det badaukazula  
bertsotarako indarra;  
gorputz bikaña daukazu eta  
etzaizu palta giarra,  
bertsotarako izango det nik,  
zubeltzu, zure biarra.

Ura sasoi ederrean zegoan. Ogei ta amalau bat urte zituan orduan; ta ni, berriz, emezortzi urtekoa. Nik baño amasei bat urte geiago baditu. Aurten larogei beteko ditu. Aspalditxoan ez det ikusi.

Garai artan gizon ederra zan, musu gorriakin. Eta larogei ta amar bat kilo izango zan gutxienez. Gizon atsegiña. Arekin etzegoan sesio-bildurrik. Gizon bikaña zan ura sasoi artan. Gizon onik baldin bada, bat ura. Arekin iñoiz jarri ta denbora errez pasa izan genduan.

Mutilzar gelditu zan. Batean Itziarren topo egin det eta:

–Zer gizon-tamaña, Zubeltzu? –esan nion.

Eta aren erantzuna:

–Andik bera beintzat!

–Gizonetik bera zer pasatzen da, ba?

–Len ere, geiena izan naizenean, ez naiz allegatu gizonera, ta orain asko palta det len aña izateko ere! –esanda utzi niñun.

Berrogei lagun bazirala esan det lena-go egun artan gari jotzen, eta aiek danak ordaindu egin bear; egun askotan joan bear. Al zan bezela ganadu-jatekoak egin-da, joan egiten giñan; da gaua ere galdu eta urrengo egunean jaiki egin bear.

Orrek galtzen du gizona. Parranda ederki sendatuko litzake, biaramon-goizean lo egingo balitzake. Baña morroi dagoanak ez dauka orrelako aukerarik, eta etsi-etsian jaiki ta eldu egin bear lanari. Orrelaxe jotzen ziran gure gariak.

Belar ebakitzeak ere lan aundiak izaten ziran. Larogei bat gurdi belar bai ontzekoak; beste ogeitaka ganaduari berdetan eman egin bear. Eskerrak ontzekoak jaietan da abar ebakitzen giñuzela.

Sagardo ederrak izaten ziran an, da jendea etorri egiten zan sagardoa edateko aitzakian, eta ebaki-aldi aundiak egiten giñuzen. Sega eman da zelaira alakoak, eta gustora jarduten ziran. Dozena erdi bat segari askotan izaten ziran an jaian.

Orduan ebaki, ta astelenean zabaldu ta beste lanak. Berealaxe egingo genduan sartzeko modua, ta urrengo jairako ebakitzeko pronto berriz ere.

*Arraio-luzia* esaten genion gizon bat, ura askotan etortzen zan. Azpeitiko Arraio baserrian jaioa izan bear zuan ark. Etxearen izenetik zetorkion bere izena. Gizon ederra ta bikaña zan, da patxarazkoa. Pozak egoten giñan beti ura etortzeko, kontu-esatalle ederra zan da; bai segan ere.

Berak esan oi zuan nun da nola ikasi zuan belarra ebakitzen; Zelatunen ikasi omen zuan. Urtero joan bear izaten omen zuten Zelatunera belar ebakitzera. Aren ugazaita joaten omen zan aurreko urteetan.

Berak ogei urte-edo bai omen zeuzkan, da sasoi, dudarik gabe, ederra eukiko zuan ark. Jai baten etorri omen zan Zela-

tundik belar ebateko abixoa, ta ugazaitak artu. Meza nagusian omen zan gure Arraio ori, ta etorri zanean esan omen zion:

–Ire gustoko abixoa etorri dek, ba, gaur gure etxera!

–Bai zera!

–Bai!

–Zer abixo da, ba?

–Zelatunera belar ebakitzera joateko abixoa! Ebakiko al dek ik belarrik an?

–Lurrak emate'ubana bada bai! –esan omen zion seme-ordekoak.

Ala, arratsaldean billerara joateari utzi ta bi sega ustez ederki preparatu omen zituan; da garaiz joan omen zan oiera ta ederki deskantsatu. Jaiki ere bai; ez deitu bearrik. Eta bi sega oiek kirtenetan mar-txako moduan jarri ta atera omen zan.

Lenengo, Erdoiztan deitu bear omen zuan. Etxera arrimatu zanean, egin omen zuan jaupateko bat, eta sartzeko barrura.

Sartu omen zan, da beia ume egiten ari omen zan. Bereala egin omen zituzten aren lanak, eta aurrera. An aita-semeak atera omen ziran. Atzenerako, danera sei osatu omen ziran.

Erdoiztatik Zelatuna ere joan egin bear da; ta, beintzat, sei segariak eguna argit-zeko zai Zelatungo zelaian.

Asi omen ziran eguna argitu zuanean, eta ederki goizean; intza zegoan arte, ondo. Baña eguzkiak asi omen zuan berotzen, eta ez dutela ebakiko gure Arraioren sega oiek, ez batek eta ez besteak, belarrik; asi omen ziran belarraren gañetik pasatzen.

Baña gusto ematen omen zuan oiek, Erdoiztako oiek biak, nola ari ziran. Gizon txikiak omen ziran, baña ederki ebakitzen omen zuten; mailla koskorra artu ta kurioso.

Alako baten, ango aitak esan omen zion:

–Aizu, Arraio: asarretuko ez baziña, gauza bat esango nizuke nik zuri.

–Asarretu? Ez, muturrean jotzen ez banazu!

–Sega orrekin ez dezu emen belarrik ebakiko, beste modu batera pikatzen ez badezu. Ta or, txabola-atarian, nere malluak ortxe daude. Zuk zerorrek ere mallu onak eukiko dituzu, baña pikatu zazu nereakin.

Eta pikatu, ark esan bezela, aren malluakin, eta orduantxe asi piska bat belar ebakitzen. Aste guzirik joanak omen ziran ara; ta, aien esanak egiñez, bere ustez iñon zan belar-ebakitzalle onena Arraio ori.

–Ala ere –esaten zigun guri–, ebaki ezinda antxe gertatu nintzan. Baña, astearen atzenerako, seitatik onena neu, aien esanak egin nitualako. Zuek ere, nere esanak egiten badituzute, ondo ikasiko dezute.

Larunbatean Zelatunen kamustutako segak, jai-goizean ederki ebakitzen omen zuan. Ortik pentsatu belarretik belarrera zer alde dagoan. Beko belarra erreza izaten da goikoaren aldean. Ark beko belar makala ederki ebakitzen, eta ari ugazaitak asmatu, “Ebakiko al dek ango belarra ik?” esan zionean. “Lurrak emate'ubana bada, bai!” bere Azpeitiko izketa arekin. Gero segari ederra zan ura.

Olaberrin belar samurra zan, da guk ere egiten genduan an, ez ark bezela baña.

Beti orrelaxe, izketan egokia zan ura, ta aundia ta ederra. Arruako Agoten bizitzen zan. Ura berez Azpeitiko Arraioko semea zan; ezkontzez etorria orrera. Agote Olaberriren auzoa da. Auzo-lanera etortzen zan ura ere, beste asko bezela. Auzoko jendearekin ebaki oi giñuzen belar danak.

Ganadu gobernatzan ere naikoa lana izaten zan guretzat, etxekeontzat. Nagusia ta ni, betiko langilleak.

Etxeko andre gaztea Zumaiaraño esne-arekin joaten zan. Andik etorri orduko-ta, nekatuta. Ala ere etzan geldi egongo. Bi aur zituan, da aiek ama zarrak zaitzen zituan. Ari eskerrak, etxeko andre gaztea lanerako libre izaten zan. Bein kaleko jira egiten zuanean, gurekin lanera.

Ogei edo ogei ta bi ganadu izaten ziran, da aiek etziran gezurrarekin engañatzen. Ekarki egin bear jaten.

Arto jorratzeko ere auzoari abixatu ta etorriko ziran ogei bat lagun, da orduan geienak jorratuko giñuzen. Egiten etziranak, guk piskabana jorratuko giñuzen. Bigarren jorrarik, berriz, ez genien ia bein ere ematen.

Garoak ebaki ortan ere lana izaten zan, da garaiz asitzen giñan. Guk, nagusia ta biok, goizean ganaduak gobernatuta joaten bagiñan, katillu bana kafe-esne artuko genduan; gero sagardoa launa edo bosna baso bi librako ogiarekin, ta ederki ase.

Eguna argitu orduko an izaten giñan gu garo-koskan; bederatzia alderako bi edo iru gurdi bota egiten giñuzen, eta orduan gosaltzera.

Nik ere emezortzi urte nituan, da nagusia ere etzan atzera begira egongo zan oietakoa. Ta, goizean saio ori eginda, etxera etorri, lenbizi gosaldtu, ta gero ganadujatekoak egin. Ori bat, jakiñeko lana izaten zan.

Arratsaldean, goizean ebakitako garoak an egoten ziran, eta aiek ekarki bear.

Berriz ere goizean, eguna argitzerako, an garo-koskan izaten giñan, da an gogor jotzen genduan nagusiak eta biok.

Meta egiten ere denbora bear izaten zan. Ura, tarte bat arrapatzen genduan egin-egin bear izaten zan. Garo-ebakitzallean piska bat gutxitzen ziran egin egiten giñuzen, da ordurako ebakitzen ziran geie-

nak. Orduan gelditzen ziranak, aizeak jotzen etzuan lekuan izaten ziran, da aiek noiznai neguan, beste lanik etzan tarte baten, egiten ziran, denbora pasa.

Babarrunak biltzen ere lana izaten zan. Ura geok egiten genduan. Lan ona izaten da. Beste lanetan nekatuta zegoanean, bat deskantsatu egiten zan artan. Pozak egoten giñan noiz etorriko ote zan babarrun biltzen lana.

Artoak ere bai. Aiek sartu bear izaten ziran. Egualdi ederren zai egoten giñan ortarako. Egualdi ederra egiten zuanean, asiko giñan goizean, da sartu al zan guzia. Egualdi txarra zanean, burua autsi ta zuritutzen lan ederra egoten zan etxean. Maluta tartean anak gordeta, kazkabar-otsa tellatuan-da, orduan arbi-ostoa egiten baño giroago izan oi da arto zuritzen.

Arto zuritzeak ere egin izan ziran. Guk geok zuritzen giñuzen gureak, baño joaten giñan auzora batzutan, da gustora gañera.

Arto-pillaren bueltan jarriko giñan, da antxe zuritu ta zuritu. Arto asko ta lagun gutxi baziran, triste; artoak mende samar baziran, orduan izaten zan poza.

Artoak bukatutakoan, maluta-pillan burruka-aldi bat egin da bapo. Azpira joanda ere, min artu bildurrik etzan izaten, da ia, mutillak!

Gaba geiena galduko genduan, da urrengo goizean kontuak. Eskerrak geieanean larunbat-gabean izaten zan arta-zuritzea, ta jaia ondo etortzen zan deskantsatzeko.

Sagar biltzen ere lana izaten zan. Sagarra pranko izaten zan an. Danak etxean jo ta estututzen giñuzen. Tolarea ere etxean genduan, da etzegoan iñora joan bearrik. Beste lanik galdu gabe, gabean etxera erretiraten giñanean, jo ta jo jarriko genduan. Andik aurrerako lanak, etxera jatordura

etortzen giñanean estutu bat eman, sagardo sartu barrikan da orrelako lanak.

Sagardo onak egiten giñuzen. Gañera, gero bai ederki aprobetxatu ere egiten giñan. Urte guzian, etxe koentzat eta kanpo koentzat sagardo. Beti jendea izaten zan an lanerako. Astean bezela jaian, etenik gabeko jendea izaten zan an. Ara joaten zana sagardorik edan gabe milagroa izango zan gelditzea. Danentzat izaten zan sagardo.

Ni jaian mezetara Arrua-bera joaten nintzan. Atzera zintzo etorri bear izaten nuan janariak egitera. Arratsaldean libratzen banintzan, ondo. Ta, gari ebaten edo belar-lanean edo orrela ari bagiñan, etzan izaten jai-arratsaldean ere iñora ateratzerik.

Nagusia ta etxe koandrea, biak esker onekoak ziran. Aien ondoan lan egiteak etzuan ainbeste pena ematen.

Orrelaxe, urte bat pasa samartu nuan da besterako ia gelditu nai nuan, da baietz esan nien; ia zenbat bear nuan, ba, ta ogei duro geiago. Len milla pezeta nuan, da bigarren urterako milla ta eun pezeta. Etzidaten itzik atera; tratua egiña zegoala ta aurrera. Ta lengo lanak berak izango zira-la berriz ere banekian.

Lanik nagusiak etzuan bein ere agintzen, baña berak gogor egiten zuan, da ederrena ura izaten da morroiari lana eragiteko: berak galanki egitea.

Berak noiz edo noiz feriren batera-edo joan bear bazuan ere, ganadu-lanak egiteko enkargua emango zidan, da aiek egin-dakoan nik ikusiko nuan. Aiek egin gabe etzegoan zer egiñik.

Ganaduak gobernatzen ez badira, segituan dator galera. Arrazoa zuan orretan. Basarrian, orain ere, ganadua da lenengo zaitu bear dana.

Jaian lengo lagunetara joaten nintzan. Ordu beteko bidea bazan, baña nik ara joan gabe ezin etsi, ta joan egiten nintzan. Baña

ni etxera orduko, lagunak an utzita, berandu izaten zan.

Goizean goiz jaikitzen zan nagusia, ta nik ere mogitu egin bear arekin batean. Ta beiak jeiztera lenengo mogimentua. Lo gutxi eginda egiteko, lan ederra. Loak artu ta, *danba!*, beiak ostikoz baldea jo ta artxek esnatu. Beiak jeiztea ta sega jotzea, lo-paltan egiteko lanik txarrenak.

Sega jotzen ere larri ibilli izan nintzan iñoiz. Martxan ari nintzala, loak artu ta sega dana ondatu. Susto baten esnatu ta "ez diat berriz lo artu bear!", da asi benetan; da berriz ere, batere uste gabe, loak artu. Ederki kostata pikatu izan nuan sega, ta gaizki gañera.

Nagusiak etzuan segarik pikatzen. Aita bizi zan arte, beti aitak pikatu, ta ikasi bear zuan garaian ikasi ez.

Orixe pasatzen da askotan, gazteari ez bazaio tokirik ematen. Zarrak asko izaten dira, dana berak egin bear dutela pentsatzen dutenak; eta gero, bera bukatzen danean, iñor ere ez dakianik.

Ura ere, ainbeste aundiko basarria ta nagusia batere sega pikatzen etzekiana. Ta morroia egun bi edo iru gaixo jartzea ere ez da, ba, milagro aundia. Ez det uste egunik oian pasatu nuanik, eta ari eskerrak.

Ikatza egiten ere probatu giñan. Ni ere artean ikazkin txarra nintzan, da nagusia ere asko etzekiana. Txondor bat bazegoan an, noizbait kargatua, ta ari su eman bear zitziola pentsatu zuan, neguan beste lan aundirik etzegoan batean; baita eman ere.

Eman diogu su illunabarrean; apalondan buelta bat egin genion da oera joan gera. Urrengo gu esnatu giñaneko, ango suak! Erreka-aldean etzan illunik. Erreka-aldeak argitzeko ez da ikazkin txarra bezelakorik. Guk al genduan bezela tapatu, ta bai umildu ere ederki.

Txondor txikia zan, da urrengo egunean atera ta zakuak bete. Arekin bukatu giñuzen ikazkintzak, baña ondo baliatzen ziran ikatzarekin. Esnearekin Zumaiara joan bear izaten zuten da zakuak txikiak bete bear, da diru egiten zuan ango ikatzak.

Neguan goldean ere egiten genduan. An, orain sagardiak dauden mendian, otadiak ziran galantak; gizona baño altuago oteak. An patata egiten genduan. Lurra piska bat usteltzen zanean, sagarra aldatu. Nik aldegin da gero jarri zituzten sagardiak.

Len ere baziran an sagarrak etxe artan; baña, berririk ez bada jartzen, berealaxe galdu egiten dira zarrak. Jarri egin bear berririk, orain toki askotan pasatzen dana pasa ez dedin.

Jaian, etorri berrian, Ziolarra, len izaten nintzan lekura, joaten nintzan; baña gero asi nintzan beste toki batera joaten; Santuaranera. An izaten zan Zubeltzu ere, ta biok bertotan egiten genduan.

Ura asiko zan aurrena, ta ni ere, tabernan izan ezkerero, noiznai pronto izaten nintzan. An juntatzen giñanean Zubeltzu eta ni, etzan izaten pakerik. Derrior egin bear bertso-saioren bat. Saio gogorak egiten giñuzen.

Asiko giñan da beti lagunak ere izaten ziran, da guk uraxe bear. Ainbeste aldiz egiten giñuzen saioak; eta batean, beintzat, onela kantatu zidan:

Nere lagunik maitatuenak  
emen ditut inguruan,  
irakurriko dizutet laste  
zer daukaten liburuan;  
bear bezelako aukerarikan  
nola ez detan buruan,  
alare zerbait egingo al det  
lagun onen anparuan.

Ta nere erantzuna:

Lagun maitia, kantatzen dezu  
gaur ere bertso ederrik,  
saiatuko naiz nere aldetik  
bañan alare alperrik;  
naita ere zuk ez dezu egingo  
nik bezelako okerrik,  
Zubeltzu zarrak oraindik ez du  
nere anparo bearrik.

Olaxe izaten ziran gure ango tertuliak. Arekin denbora errez pasa izan nuan nik; zenbaitekin ezta ezergatik ere. Asiko zan orko kontua ta emengo kontua. Gauza sustraitik esplikatzea gustatzen zitzaion ari, ta denbora asko bear izaten da gauza gutxi esateko ere, ala asi ezkerero.

An Zubeltzuri zer entzun nion gogoan daukat oraindik. Bertso-kontua aitatu ta ark:

-Ik bertsoarako gogoak badaukak orain.

Nik:

-Bai!.

-Laister aldegingo dik, ba! Nik ere utzi samartu diat!

-Zer ba?

-Irabazirik ez duan lana dekelako!

-Irabazirik bear al du, ba, bertotan ibiltzeko?

-Bai! Irabazirik gabe ibilli egin leitxekek, baña azken txarra zioz ortik. Gaztetan afizioz ere aritzen dek bat; baña, bere edade batera ezkerero, gogoak ere aldegiten dik, irabazirik ez dan tokian. Biaramonean ere jan egin bear dik, eta ia nundik jango deken, kantuan ari aizen egun artan irabazten ez badek!

-Arrazoa daukazu, bai! -esan nion, baña ni beti nerean gelditzen nintzan.

Nik bertso batzuk kantatzea ez neukan lantzat; neretzat jaia bezela zan ura. Baña arrazoa zeukan Zubeltzuk: ezer ez dan tokian, gizonak endrero gutxi artu oi du.

Garai artan etzan bertsotan ia iñor ibilli ere egiten. Zubeltzu Prantzes-Txikiarekin ikusi nuan bein Arruan, da beste bein Txapelekin ere bai; Orioko Begi-Ekkelarekin ere baita. Olaxe, bost duroko bat ematen bazieten, asko izango zan. Gero gabe-an goizerartekoa.

Oraindik gogoan dauzkat orduko Zubeltzuren eta Prantzes-Txikiaren bertsoak. Zubeltzuk lenengo:

Adan da Ebak egin bazuten  
lendabiziko pekatu,  
Jesemaniko baratzen bertan  
ori guzia gertatu;  
fruta bat zegon debekatua  
t'artatik zuten probatu,  
baña damutu zitzaien gero,  
Jaunak zioten barkatu.

Ta Prantzes-Txikiak:

Pekatu nola egiña zuten  
zuk esan dezu lenago,  
Jaunak barkatuko ziotela  
oso seguru ez nago;  
nai zituztenak egin munduan  
da ibilli zirala ondrado,  
aiek zeruan baldin badira  
inpernurikan ez dago.

Olaxe jarduten ziran aiek. Beste batean, berriz, Itziarren juntatu ta ala esan zion Prantzes-Txikiak Zubeltzuri bertso batean:

-Zu itzai ona zera, baña ajiatuta daukazu idi ezkerria; lanean asitakoan izaten du ark eztula eta puzkerria.

Zubeltzu itzaia zan, ba, eta itzantzan ibiltzen zan.

Olaberrikoak eiztariak ziran. Erbitan ibilli oi ziran, astia zutenean. Mutilzar bat ere bazan nagusiaren anaia. Ura ibiltzen zan. Txakurrak bazituan, da nagusia ere

eramaten zuan batzutan. Astean etzuan asti aundirikan izaten; baña, jaian bada ere libratzen bazan, an joango zan da erbiak iltzen zituzten.

Mutilzar ura Agoten aritzen zan lanean. Agoten iraulika fabrika bat zan. Ura txoper ibiltzen zan. Gari jotzen ere ibilli oi zan etxez etxe. Makina berak zuan. Gari asko jotzen zuten. Illabete baño geiago pasako zuten ortan. Egunean bi etxe gutxieneko, irurogei etxetik gora pasako ziran.

Gero ezkondu egin zan ura ere, eta eztaiak arrapatu giñuzen guk. Familirik etzuan izan. Zartuta ezkondu ere, ta andrea ere zarra zuan. Etzuten familia azten lanik izan.

Zutik lo egin izan det, ba, nik bidexiur txar samarrear ere, gari jotzen ibillita, oso loak beartuta, antxe morroi nengoala. Beste bat nuan aurean; ni atzetik. Lo ederki egiten nuan nik. Bidexiurra ez eder-ederra ere, eta an erortzeko arriskua zegoalata, benetan jartzen nintzan ez niñula geiago artuko loak-eta. Baña alperrik izaten da alakoan. Eskerrak aurean beste lagun bat nuala. Aren anka-otsa aditzen nuan nik eta aren ondoren ederki joaten nintzan.

Bigarren urtea ere olaxe pasa nuan, da irugarrenerako ez nintzan gelditu. Basorako gogoa neukan, da esan zidaten, baña nere basorako amets orrekin ez nintzan gelditu.

Despeida tristea izaten da; ta, aiek portatu ziran bezela portatuta, begiak piska bat busti ziran. Baña neri bakarrik ez; besteai ere bai. Baña pentsatuta neukan da egin nuan; baña ondo partitu giñan.

Urtea egindakoan, urte-zortzia esaten zaiona pasa bear izaten da, eta ni gari ebakitzek arrapatu niñun justu-justu, ta egin giñuzen aiek ere, ta gustora gañera. Bi ur-



tetan iru urtetako gariak ebakitzen parte  
izan nuan.

Olaxe, etorri zan eguna aldegin bearre-  
koa; beste morroia ere etorria zegoan, eta  
suerte ona izan zezatela esan nien. Atzera,  
ekarritako baul zarra artu bizkarrean ta  
aio, jaunak!

Aitak joaterako esan zidan nagusiari di-  
rurik ez eskatzeko, eta ez nion eskatu ere.  
Aitak ogei duro eman zizkidan joateko, eta  
arekin pasa nuan urtea. Eta bigarren urte-  
an ogei ta amar duro kendu nizkan. Uraxe  
izan zan nik bi urtean gastatu nuan dirua.

Ura baño geiago gastatuko ez balitz,  
gaur ere aurreratuko litzake piska bat.  
Baña gaur ez dago diru arekin goizeko me-  
zetara joaterik.

Ura gure aitak asmatu zuan manejua  
zan, nagusiari bezin errez ez niola ari be-  
rari eskatuko ta zintzo ibiltzeagatik. Ala  
ibilli ere. Bearko ibilli!

Bi urte pasa nituanean, Bankoan jarri  
bearko zirala, ba, ta Zestuara joan giñan  
aita ta biak, eta an jarri giñuzen bi milla pe-  
zeta. Etzan orduan ogei urteko mutillik bi  
milla pezetaren jabe asko izaten.

# Ataungo Markes-basoa

**O**GEI ta bat urte nituala, Ataunen, Markes-basoan, uda bat pasa nuan: sei illabete. Toki ederra zan; arkaitzik gabe, ta aldapa aundirik ere ez.

Ataungo Kasetatik gora, Lizarrusti aldera goazela eskubitara, antxe joaten giñan. Bide txar bat da; ta txabola, berriz, andik ordu erdiren batera, gora joanda.

Antxe garozko txabola luze bat. Illurria esaten zioten. Illurre-ondokoak badira belar batzuk oso ezagunak, eta an aren ondoan asko zeuden, ta ortik zetorren izena izango zala pentsatu izan nuan nik.

Ordeka ederra zan txabola-aldea. Gaztaña galantak ere baziran. Iru mutillek besoakin bueltan, zutik zegoan tokian, ez genduan arrapatzen aietako bat, eta geiago ere baziran berdintsuak.

Gero, udararen erdi aldean, beste txabola berri bat egin genduan. Lanean eremu aundiak pasatzen ziran, da urruti jartzen zan lengo txabolatik. Lanean nekatutako gizonak etzan-tokia urrean bear du. Pau-soak ondo kontatuta izaten ziran txabola-abitutakoan.

Bederatzi lagun giñan: nagusia ta beste zortzi. Joan da txabolan sartu giñan. Pareta bakarrrik zituan txabola. Zazpi len joanak ziran, da oiek nola edo ala txapa batzuekin tapatuta zeukaten beren para.

Ta ni zortzigarrenarentzako txaparik etzegoan, da garoa tapa. Ta nik korajea palta ta ez eskatzen, ta iñork ekarri ez. Aste bete ala pasa nuan.

Andik astebetera beste bat etorri zan; beteranoa ura. Ark laste ekarri-azi zituan txapak beretzako ta neretzako, bientzat. Biok alkarrekin egiten genduan lo. Andik aurrera estimatua nuan nik ura.

Ark bazituan ordurako ere berrogei ta zazpi urte. Bizi baldin bada, larogei ta amar urte baditu. Oraiñengo ikusi nuanean, itxutu samartuta zegoan. Aizarnazabalko Errezabalkoa zan ura, ta bere etxean ikusi nuan. Sakabia soñu-jotzallearen omenajea zan Aiako Altzolan, ta araxe nijoala ikusi ere egin nuan. Ongi-etorri ederra egin zidan, da salda artzen-da antxe egon giñan. Orduko kontuak berritu giñuzen.

Esan bezela, bederatzi lagun giñan gu an orduan; ta, ni joan nintzanerako, egurrak bota zituzten, udara aurreratu artekoak. Egurra ez da noiznai botatzekoa izaten. Udaran ostoa daukanean, da batez ere atera berrian, kontu aundia bear izaten da.

Gu joan da segituan, zerran asi giñan. Trabesak egiten giñuzen. Nik Arruako Itxaiz nuan zerrari laguna. Biok egiten genduan zerran; beste bi, guretzat egurra landu, ta lau laguneko zerra-eskua. Besteak ere beste laurekin beste zerra-eskua. Ta na-

gusiak beste aieri laguntzen zien, ta ia, mutillak!

Bederatzi lagun da danak lanean. San Juanetan ere eguna argitu-zai egoten giñan zerra-tokian. "Etziok illuna etorririk!" geure artean. Bota bat, jaso bestea, egun guziko lana. Ura lan aspergarria! Ez dira egunak motzak joaten.

Besteak baño gutxiago etzan ebaki nai izaten. Illuntzean apuntatu egiten ziran ebakitako trabesak. An besteak aña trabes nai, ta egonda etzan izaten. Aspertu ta noiz edo noiz egurra biltzen egun erdi bat tokatzen bazitzaigun, kontentu. Baña gutxitan tokatuko zitzaigun guri olakorik.

Zerra jartzen ondo zekian nagusiak, eta ari eskerrak. Aren zerrarekin egurra errez ebakitzen zan. Segak barea bezela ebakitzen zuan, eta bildurrik gabe asten giñan egurra ebaten.

Gosaiarekin etortzen zanean, jeneralean guk gosaldtu bitartean zorroztko zuan, da entraman ondo al zegoan ere galdetuko zuan. Gutxitxo zeukala esaten bazenion, emango zion ikutu bat, eta milagroa izango zan ark gaizki jartzea,

Joango zan atzera bere taller aldera, ta milagroaz guk deituko genion berriz beste ogei ta lau orduan. Berriz ere antxe etorriko zan ura, gosaria esku batean ta limazorroa bestean. Gizon serioa zan ura, ta gu ere alaxe ibiltzen giñan arekin.

Ernaniko Florentino zan nagusia. Euriarekin etzan bildurtzen ura lanean. Uudara bustia zan, berriz; ta, mutillak lanik egiten ez badute, egunak eguna alkarren urrean izaten du, ta udara artan, berriz, etzan egualdi onik. Baña egin-egin bear noizbait.

Egualdi bustiagatik, etzan ura jatordua egitera ere txabolara mogituko. Pago azpian antxe bederatzi lagun jaten. Baña ala-

re tartera etzan bajatzen. Guk kendu baño geiago ugaldtu; guk jan ala, euriarekin bete. Babak uretan biltzen giñuzenean, utzi ta siestara.

Pago-sustrairen baten gañean burua; guardasola zabaldu ta tapatu; ta matrail-ezurrak gogortu ta lerdea dariola, otzak aguantatu ezinda. Atzera zerrari eldu bear; antxe lanean piska bat berotu ta orduantxe bizi.

Egualdi ederra noizbait etorriko zan, da orduantxe bai poza! Egualdi onarekin lana egitea ez da ezer. Aurreko egunetan bustitako erropak ere orduan legortuko ziran, eta etzan iñork agindu bearrik izaten.

Guk edukitzen genduan aien kezka. Arropak zikindutakoan, basarriko artzai bat izaten zan an, da ark eramaten zituan; baita garbituta ekarri ere.

Berrogeitamar bat trabes ebakitzea izaten zan eguneko errezioa. Ura egin ezkerro, konforme izaten giñan. Orretara irixitzen ez bagiñan, beti izaten zan alako kezka bat.

Joan berri artan, egurra berdea zegoan artean, errez ebaki ere egiten zan. Baña gero, egurra igartutzen asten zanean, nainkoa lan izaten zan. Mendiaren puntan trabes bakarreko asko, ta etziran bereala osatzen berrogei ere egunear.

Bi zerra-toki egin bear, da etzan denbora asko bear izaten zerra-tokia egiten. Egurrak al ziran ariñenak aukeratuta edukitzen giñuzen. Altzak zuritu ta plantxak egiten giñuzen; da, bat bukatzen genduan, egurrak artu danak bizkarrean da segituan aldatutzen genduan. Ori mendipuntan izaten zan.

Bein bera ezkerro, ori baño egur geiago biltzen zan. Astebete igual zerra-toki baten. Orduan deskantsu izaten zan. Goizean asitatu, eguna argitzen zuan, da bat bada

ere ebaki egiten zan beti. Eguna luzea izaten zan; da, eguna dana joan orduko. ebaki egiten genduan mordoa, nai etzala ere.

Jai baten, nagusia palta genduan, da an geunden mutillak txabolan. Ardoa ere, zarragia libre izaten zan nagusia palta zanean, da gu ere dezente moldatuta.

Ortan gaudela, or sartzen zaigu Zepai, baso artan ari baitzan ura ere. Granuja-arpegi ederra zuan orduan. Sasoia ere bai: ogei ta iru urte. Orduan danerako balio izaten du gizonak.

Beste lagun bat eta biak etorri ziran. Beste kuadrilla baten ari ziran aiek, baña gure txabolara etorri ziran beintzat. Nik ez nuan artean ezagutzen Zepai. Gure kuadrillan baziran, bai, ura ezagutzen zutenak.

Gure taldeko batek or bota dio bertsoa, ta bai besteak erantzun ere. Ta gure lagun ori ixildu egin zan, da nik asi bear orduan, da saio bat egin genduan.

Gero, errira joango ote giñan, ba, ta gu ere noranairako moduan geunden. Orduan-da jetxi giñan, ba, gu ere Ataungo Kasetara. An meriendatu ta gero ederki; andik aurrera etzan bertso-paltarik izango. Ala kantatu zidan neri ark, gutxi gorabera:

Nere gustora asiko naiz ni,  
ez nua derriorrian;  
saio koskor bat egingo degu  
ta patxara ederrian;  
nere barrena barrundatzen det  
sekulako indarrian,  
dozen erdi bat kanta ditzagun  
lengo oitura zarrian.

Nere erantzuna:

Zuk bota dezu zuria eta  
neria're badijua,

lotan daudenak esnatutzeko  
ederra dezu ujua;  
gorputza dezu indarrian ta  
sasoia ere majua,  
zuk asi biar baldin badezu  
ni're aстера nijua.

Zepaik ostera:

Beraz zu ere asiya zera  
bertsuari erantzuten,  
ia ba Zepai gizon bezela  
errespetatzen dezuten;  
nik e goguan detan guziya  
esplikatu nai nizuten,  
baldin benetan asitzen banaiz  
ia damutzen zaizuten.

Ta nik:

Baldin benetan asitzen bada,  
Zepai onek ala diyo,  
baña apenas egingo dezun  
uste dezun baño geiyo;  
gizonak ez du ibilli biar  
orrenbeste desapiyo,  
otsak ederrak joko dituzu  
baña enaiz oso piyo.

Olaxe kantatzen giñuzen guk bertsoak:  
baten ondoren bestea, egun guzian aritzeko  
kapaz giñan gu orduan. Asi giñan an  
ere ta gau guzian ez giñan ixildu.

Zepai ordurako piska bat plazan-da ibillita zegoan Txapelekin ta noiz edo noiz Txirritarekin, da ni bein ere plazaratu gabea. Baña orduan ez genion guk begiratzten plazan ibillita zegoan ala etzegoan. Ala, gau guziko saioa, ta goiz aldera txabolara joan giñan.

Urrengo eguna etzan izango motza. Eskerrak orain baño sasoi ohea genduala, ta orduan olakoak egin giñuzen obe; bestela orain etzegoan egiterik.

Zepaik-eta andik aldegin zuten. Ez giñan geiago juntatu, ta ortan bukatu ziran gure bertsoak. Bestela, uda guziko pesta izango zan.

Zepairen orduko esaera bat gogoan det oraindik. Nik ola, euria zanean-da, tarteran guk jan baño geiago ugaldtu egiten zala esan nion, da arek:

–Bai; pago azpian baldin bada, beintzat, ostoa ta karakol txikia ta dana etorriko dek platerara.

Trabesak mandoakin kamiora ateratzen zituzten, Lazaro-edo deitzen zioten mandazai aietako bati. Mutilzarra zan. Mutil zintzoa. Enkargurik egin bearrik bazan, kartaren bat edo orrelakorik bazan, aurreneko izango zan ura.

Bestea, Aranoko alkatea. Orain Ernanin bizi dira aren semeak. Transporte daukate; kamion bikañak badituzte. Mandoak baño obe izango dira aiek. Autobusarekin estaziotik errira aietako anaia bat ikusi izan det, eta olaxe. Aita mandoakin asi zalako, bearbada semeak kamionak izango dituzte.

Bestea, Pello-edo; Etxola-berrikoa, ura. Taberna-ta izan bear dute. Pazientzi ederreko gizona zan. Mutil bat ere bazuan, Ernaniko Zugaztikoa. Beso bat ere antxe zebillela autsi zuan; da, mutillak berak baño lenago kargatzen bazituan mandoak, aserretu egingo zan. Beso autsia zualako ere izango zan; baño, ura gora begira jartzen zanean, etzan giro izaten. Bedeinkazio ederre botatzen zituan!

Bein giro txarrean zebillen. Bide berria segituan artzen du alakoan mandoak; ta, beko estratatik joan bearrean, gañeko aldeko bidexiurretik abitu ziran. Kargak azpian da mandoa gañean, *banba!* erori zan lenbizi zijoana. Arrimatu zan arengana gure Pello. Urrengo zijoan mandoa, *ban-*

*ba!*, berriz, bestearen gañera, ta an odolik zuana berotu egiten zan. Bi mando alkarrren gañean beren kargakin, da zertan asi, lenengo pentsatu bear zan an. Loia bai gizonen gerrirañokoa, ta mandoa an askatu ta kargatu berriz, aiei martxa emateko. Askotan pentsatu izan nuan, gure ofizioa baño txarrago uraxe izango zala.

Etzan erraza, baño Etxarri-Aranatzera pestetan joan giñan lau mutil; bi egun an pasa giñuzen, ta okela-jan ederrak egin ere bai.

Bigarren egunean, egur batzuk bazeuden an plazan. Aiek onenbeste denboran ebakitzen zituanak, bazeukan premia. Gure lagunak bazeuden aizkoran poliki egiten zutenak. Beintzat, ebaki giñuzen ango egurrak, eta txabolara atzera.

Egun bat edo beste orrela pestan pasatzen bagiñuzen, ondorenean etsi-etsian jarduten genduan lanean. Orain aña malezi etzan izaten orduan, lanari iges egiteko. Gu lanerako pronto izaten giñan.

Ataungo Aian ere pestetan izan giñan. Eguna bakarrik ez genduan pasa; gaua ere geiena an pasa genduan, da goizean txokolata artuta joan giñan txabolara.

Urrengo egunean izango zan zerra gaizki edo zerbaiten aitzakia; baño nagusia etzan asko engañatuko, ta guk, berriz, geok pasa bear gurea. Arratsaldeko siesta arrapatu ezkeru, seguru giñan. Arbola bota ta zotz-pilla galantak izaten ziran an; zotz aien gañean egongo giñan puska baten eta aurrera. Jaiki ta zerrari eldu bear.

Jaietan ibilli egiten giñan basoan, pagoren bat botako genduan, da ura dana txikitu ta konforme. Aukera egoten zan an; da gu, berriz, olakoa egiteko beti pozak.

Jaian baita tope-ziriak ekarri ta egin. Igartu egin bear izaten ziran, da aurrez eginda euki bear.

Beste batzuetan, berriz, eizean. Baso aundi aietan zozoa ta olakoa asko izaten zan, da katagorriak eta danak, eta arrapazten giñuzen aiek ere.

Beste batzuetan, berriz, perretxikoak biltzen. Aiek ere izaten ziran. Baso aundi oietan aukera egoten da orrelakotik ere.

Lagun bat eskopetarekin bagenduan, da basaurdeak ere izaten ziran an. Baso aundiak ziran eta gaztaña ere dezente zan. Batean, gogoan daukat oraindik ere, kartutxoak ere perdigoiak, da perdigoien muga ebaki kutxilloarekin da basaurde-

-arrastoan nola ibilli giñan; baña ez genduan billatu.

Udazkena etorri zan, da etxerako gogoa ere asi zan. Bein etxea akordatzen asi ezker, basoan egunak luzeak joaten dira. Santu Guzien eguna zan, da erropa txarrak bildu ta etxerakoari eman genion. Bein udara pasa ezker, deskantsatzeko gogoa ere egiten da. Kasetara jetxi ta artu genduan autobusa, ta Beasaiñen trena; ta Zumarragan ganbiatu ta Iraetara; andik etxera ta orduantxe kontentu: "Kaixo, mutillak! Emen gaituk!".

# Berriro artzanzan

**S**OLDADUZKATIK libre atera nintzan. Marinarakoak giñan, da orduan asko libratzen ziran, gu giñan garaian, Marinaran.

Gu Zumaian sorteatu giñan. Irureunen bat bagiñan, da ogei ta bost eskatu zituzten; andik gorakoak, danak libre. Batenbat inutilla zala edo besteren bat Frantziara joan zala-edo, ogei ta amar bat arrapatu bazituzten naikoa izango zan. Nik larogei ta amalaugarrena neukan numeroa; ez nuan bildurrik arrapatzeko.

Ataundik, basotik, Santu Guzienetan etorri nintzan, da orduantxe garai ederra eizerako. Azaroa ta Abendua izaten ziran ollagorretarako illak, eta ederki.

Gure etxean txakurra berria erosita zeukaten. Ni artean eizean asko ibilli gabe, ta bildur nintzan ez ote nuan botako ollagorrik.

–Txakurra berria? Nundik ekarri dek txakur au? –galdetu nion anaia zarrari.

–Koañaduari erosi zioat.

–Alper-planta ederra bazeukak onek.

–Gaztea dek oraindik, eta makal samarra zio, baña pizkortuko dek, bai, ori.

Zazpi illabete besterik etzeuzkan artean.

Ni Olaberrian morroi egon nintzanean, galeperrak-eta ederki botatzen nituan ai-

dera. Nere nagusia ta bere anaia eiztariak ziran, ba. Aien eskopeta artuta, bazkalondoan, besteak siestara joaten ziranean, ni eizera joaten nintzan. Baña ez neukan konfiantza aundirik.

Asi giñan beintzat geure txakur makal orrekin, da eskopeta berria ere erosi nuan. Itziarren bazeuden orduan saltzeko. Joan da ekarri andik eskopeta ta kartutxoak.

Asten gera eizean. Berealaxe, ollagorrak billatzen asi zan txakurra. Ta batetik gaztea zan; da bestetik, berriz, ezjakiña. Aidean bialdu egiten zituan lenengo aldetik. Ni bati *danba!* ta besteari *danba!* nenbillela, bat bota det orregatik. Ordurako iru banituan tiroka ibilliak.

Botata ikusten dutenean, illa aoan artuta gozatzen dira txakurrak. Ura ere bereala asi zan ollagorreakin gelditzen, da txakur ona izan zan gero. Etzan asko ibiltzen zan oietakoa, baña bai sudur onekoa. Gero makiña bat ollagor il genduan guk txakur arekin.

Pasa zan, ba, eizeko bolara ori; lanean asi bear, da basoan asi giñan. Ataunen ibilitako lagunak an zeuden gure aldean, da ederki deskantsatuta gañera, ni eizean nenbilen bitartean.

Sei lagun juntatu giñan, da etxetik egiten genduan, bertan etxe-jiran ziran baso-

ak-eta. Oian lo egiñaz, ederki ezurrak. Txillar gañean baño obeto deskantsatzen ziran. Biaramonean lanerako ere alde pixka bat izaten da.

Negua olaxe pasa genduan basoan. Udaberria etorri zan, da gurean beste anaia Irunera joan zan; orain nerekin dagoan au ta lenago artzaia zana. Ta nik etxean geratu bear ko nuala-ta, ni artzai.

Maiatza etorri zan, da mendira joan bear ardiakin. Bai pozik! Jai batean preparatu ditugu, joaleak erantsita, ardiak. An goaz mendira, mantak-eta artuta; oia ere baita. Bear izaten zan. Astoan artu gure trasteak; igo degu, ba, gure txabola alde orretara, ta astelenean asi egin bear, ardiak bildu ta jetzi, martxan.

–Ik etsiko al dek emen? –anaiak–. Onera gero jaian ere etorri egin bear dik!

–Bai; etorriko nauk ni onera.

Pentsatua neukan ordurako nora joango nintzan jai-arratsaldean: Zelai-txikira. An billera egiten zan; da ardiak jetzi, afari-merienda egin da aide arkaitz-tarteak barrena! An ibilliko nintzan illundu arte.

Gero ontzak asiko ziran *u! u! u!* egiñaz. Orduan atzera txabolara. Joandako arkaitz-tarte artan pasa bear izaten nuan. Joan, argitan egiten nintzan; baño bueltan illunduta etorri bear. Baña gustorako bidean ezta aldaparik eta arkaitzik.

Txabola an egoten zan lengo lekuan. Aundia, ardiak sartzeko; eta txikia, neronek lo egiteko. Ura, kamaña egiteko aña toki; ta, euria zanean, jatordua egiteko ain beste.

Tokia ederra zan: txabola-jira, ordeka. Pago aundiak zituan aurrean eta buelta danean. Azpiko aldetik ere bai pagotegi bikaña. Geok bota giñuzen atzenezan aiek ere, andik urte batzuetara.

Ardiak abaroa egiteko leku ederra bazan an. Bero aundia bazan, *bee!* ardiak eta *bee!* bildotsak, eta pago azpira an etorriko ziran. Zugaitzik ez dan lekuan, ardiak erre egiten dira. Txabolan ere egiten dute abaroa, besterik ezean. Baña ez da pagotegi ederra bezelakorik.

Abaroa zer dan galdetuko dute batenbatzuk. Ardiak beroak jotakoan egiten duan atsedeen-aldi ori izaten da abaroa, ta itzalean ederki egiten da ori. Garaiako pagotegi artan ederki egiten zuten. Nik ardiak edukitzen nituan tokiak Garaia zuan izena.

Eguna etxean lanean pasatzen genduan. Eguzkia bera asten zanean, arditara. Bien bitartean, artoa jorratu, edo belarra ebaki, edo belarrak, ebaki ta gero ere, izaten du lana pranko: buelta eman da etxera ekarri. Giro onak badira, alare gaitz erdi.

Berandutu gabe bialduko niñuten, bai, arditara. Itzala onelako lekutara iritxitzen zanean, ale! Ez genduan guk reloju bearrik izaten zer ordu zan igarritzeko, eguzkia agiri bazan beintzat. Meriendatu ta astoa artuko genduan da arditara.

Ardiak lan asko ematen zuten txakurrik gabe, juntatzen ere. Baña egunean bitan jeizten ziran arte, nunbait or izaten ziran. Bilduko nituan beintzat, eta jetzi ere bai. Orduantxe deskantsua.

Marmita garbitu ta beste txabolaren ondoan zan iturria. An neskaxa gazte bat izaten zan ardiak jeizten. Beti errezago joaten nintzan ara. Bestean ere neskaxa izaten zan. Iru txabola zeuden, da bi neska ta ni ibilli giñan uda artan an arditan.

Ala, iturriko buelta egingo nuan, da neskaxak etxera joaten ziran da ni txabolara. Sua egingo nuan, afaria jarri ta jan patxara ederrean.



An etzan zinera joaterik, eta jarri izarrai begira ta antxe egoten nintzan luzaro, begirik kendu ezinda. Itzegin ere egiten nuan batzuetan izarrakin. Aspertutzen nintzan etzango nintzan; errezo batzuk egin-go nituan da lo.

Orduan gaba ere ez da izaten luzea, pakea baldin bazan. Iñoiz gabeen jaiki ere egin bear izaten nuan. Ardiak txabolaren gañeko aldetik joale-otsa ateratzen zuten, da "Ardi oiek toki txarrera ziaztik!". Jaiki ta jiratu egin bear.

Ardia ez da egualdi ederrakin bereala etzan ere egiten. Udaran egunez ere ezta beti giro izaten jaten. Gabeko intz pizar ori aprobetxatu nai izaten dute ardiak.

Gabeen jaikitzen ez banintzan, goizean biraje luzean joan bear izaten zan; ta, jaiki ezker, kera eman piska bat, eta txabolaren gañeko aldean bertan etzango ziran. Goizean jaiki ta ardiak bertan. Etzan batere bllatu eziñik ibilli bearrik izaten.

Trumoia ta tximista asita, iñoiz beldur ederrak pasa izan ditugu mendian. Askoz bildurgarriagoa da trumoia, toki soillean baño, arkaitz-tarteetan. Ateratzen du soñu bat, uste-eze mundua lertu balitz bezelakoxe otsa.

Ardiak ere ez dute orduan iñork agindu bearrik txabolara etortzeko. Ango txintxarri-otsa ta angos desdixta! An izaten zan *tikili-takala, tikili-takala! Beee!* eta *booo!* asiko ziran, da euria asi baño lenago etorritzen ziran txabolara, angos danbarrada aiekin bildurtuta. Arkaitz-tarte aietan, izan ere, arritzeko modukoxea da trumoia.

Ardiak, gureak eta besterenak, danak sartzan ziran gure txabolan. Beste bi txabola aiek gurea baño berago zeuden. Ardiak gora erteten du gaberako, ta gure txabola-aldea ardiz ondo osatuta izaten zan

gaberako. Ta, euria asi ezker, danak urreneko txabolara.

Ni antxe, manta azpian burua sartuta, ateratzeko bildurrak. Errezoak ere beñere baño zintzoago egiten ziran orduan.

Egualdi onarekin, ura zan baño toki zoragariagorik etzan iñon izango. Ango txabola-jira ura aparta zan. Egualdi txarrarekin, berriz, bildurgarria.

Ala, goizean beintzat jaikiko nintzan kamañatik, eta an egongo ziran gabeen trumoi-otsakin sartutako ardiak danak, etxeko ta kanpoko. Eguna argitu-zai antxe ni, nereak etziranak bialtzeko. Danak apartatu, etxekoak txabolan utzi ta jetzi. Astoan artu marmitak eta etxera. Etxera etorri ordurako, anaia zarrak:

-Bartarratsean ez dek gaur-giro ederra izan!

-Ez, motell! -nik-. Azken juizioa zala uste nian! Oraindik olako danbarratekorik ez uan izango, mundua sortu zan ezker!

-Ik gaur lenengo adituko ituan olako trumoi-otsak! Ni aspaldi adituta natxiok! Bazekiat nik orrelako arkaitz-tarteetan zer burrundara ateratzen duan trumoiak!

-Ik nun aditu dituk orrelako soñuak?

-Antxe, ire bartarratseko leku ortantxe, bildurtuta egonda natxiok, motell!

Urrengo, egualdi ederra egiten zuan, da gu orduantxe kontentu ta lasai. Arratsaldean, eguzkia piska bat bajatzen zuanean, astoa artu ta aide mendira!

Gero, Santiago ta Santa Ana inguruan asiko giñan biltzaldiak<sup>(1)</sup> bakantzen, eta orduan goizean joaten giñan.

Ardiak billatzen gaiztoak izaten dira. Gabeen juntatzen ez badira, goizean zeñek bildu? Txakurrik ere ez genduan izaten orduan. Bein biltzaldiak gutxitu ezker, bereala antzutu egiten ziran. Orduan pakea.

Berandu arte jetzitzen giñuzen, da aariarekin ere, era berean, berandu asten giñan; San Migelak aldera edo orrela. Agoztuaren atzenean lotu aaria, eta etxean eukiko genduan gobernatzen. Oraintxe arkerak asten al ziran San Migel inguru orretan-edo, artu aaria berriz eta asiko giñan arditara joaten.

Etxean eman bear izaten zan nobedadea. Anaia zarrak beti galdetuko zidan:

–Zenbat ardi ituan arkerak?

Edo:

–Zein ituan?

Eta:

–Gaur iru baziran: bat, *Ille-loria*; bestea, *Begi-larria*; bestea, *Buru-aundia*.

Biamonean, berriz, lau izango ziran, ta:

–Bat, *Mutur-beltz* zarra; bestea, *Musugorri* txikia; *Mutur-beltz* zarraren lenengo umea, eta *Buru-aundiaren* bigarren umea.

Olaxe, ardiak danak bataiatuta egoten dira, ta derrior bear dituzte beren izenak, artzai bat baño geiago badira beintzat. Bestela, nola enteratu zein ardik duan nobedadea?

Bat *Buru-arroa* bada, bestea *Mutur-luzia*, ta *Sorakaia*, ta *Izua*. Olaxe, artalde danak izango dituzte beren izenak. Badira emakumeen izenak jartzen dizkietenak: Marta, Katalina, Madalena...

Orrela, illabete bat-edo pasako genduan aariarekin. Eta egualdiak ere onenak ematen zituan, eta Santu Guzienak aldean-edo bera jetxiko giñan.

Beste gertaera bat bada or pasia bide ortan. Urrengo urterako garoa juntatu bear izaten zan urte onetan. San Nikolasak aldean izaten giñan gu ardo garoa juntatzen.

Bagoaz, goizean jaikita, Garaia ortara. Gurea baño lenago, beste txabola bat ba-

zegoan. Arrimatu gera orrera, ta artaldea antxe barruan. Anaia gazteena atean utzi, bazkaria emanda kopa-otarra batean, da sartu gera geok barrura.

Asi gera bizkarrean begiratzen. Ardiak izu samarrak ziran, ba, aiek. Bizkar ederrak zeuzkaten, Gu an genbiltzan maixian, da alako baten pentsatu dute ertetzea. Gure anaia bota dute bere bazkari ta guzi. An ziaztik danak kanpora!

Ardiak joan ziran kanpora, ta gu an babarrunak biltzen. Alde batera parra egiten genduan, baño etzan broma. Jaso ditugu beintzat urdai koskorren bat eta sagarrak. Erretzeko edo ola izango ziran. Joan gera txabola aldera, ta babarruna ta urdaia-ta piska bat garbitu egin bear.

Noizbaiten preparatu gera beintzat lanerako ta asi gera lanean. Illuntzerako garoak danak ebaki ta juntatu giñuzen. Ez da arritzekoa, ala bazkaldu ezkerero...

Esan bezela, ardiak jarri ziran bera begira, eta Santu Guzienetan artu ta etxera. Andik aurrera beian obeto ibiltzen dira ardiak. Bein egualdiak txartu ezkerero, mendira joateko ere ezta gusto aundirik izaten. Etxe aldean, berriz, nai bezela manejatzen dira.

Aaria ibiltzeko ere bertan. Atariko txabolaraz ardiak juntatu ta dana bertan. Ardean ere izaten dira aariaren bearrekoak ardiren batzuk; bueltatu egin dirala, edo bildotsa azten egon danen bat, edo bildotsak berak. Beti izaten da aariarekin segitu bearra. Bein arkerak oso gutxitzen diranean, aaria bertara bialdu izan genduan.

Orduan aita ere asten zan buelta batzuek ematen arditara, afizio ikaragarria zuan, ba, ark ere. Eta andik atzera errez, akordatu gabe, egiten zan arditakoa.

Ta gu, berriz ere ollagorretarako libre giñan...

(1) Jetzialdiak.

# Beliosoro-errekako basoan

**O**GEI ta iru urte banituan, da atzera Irunen egon zan anaia etxeratu zan, da libre giñan etxetik. Nora joango ta berriz ere basora.

*Txatarro-kojua* esaten zioten bat genduan nagusia. Aretxen basoa zan, da obrarako egurra preparatzen genduan. Ariztia zan, da Zestuako *Hotel Maletas* egin bear zan. Egurra bastante urruti zegoan: Beliosoro-errekan. Lau bat milla metro egongo ziran *hoteletik* basora.

Asi giñan baso orretan. Zazpi bat lagun bagiñan, da batzuek bota ta moztu, besteak landu, besteak zerratu. Olaxe preparatzen zan obrarako egurra.

Gero, eraman, berriz, idiakin egiten zuten. Txatarroren bere etxeok bi idi-pare; ta *Itxaiz-Zarra*, berriz, demonioak baño gogorragoko gizona, beste idi-pare batekin.

Onek idi gorri txiki batzuek zituan; ez bigunak ere. Aundienak atrebitzen etziran kargari erantsiko zizkan arek; eta, arek mogitzen ez bazuan, beste batek ere zerbait izango zuan.

Puntaz bera botatzen ziran zugaitzak, eta terreno aldapa zan; da, soildutakoan, zuzen beko errekan sartzen ziran. Jakiña, punta metro bat-edo sartutzen zan, da materialetarako balio etzuana. Bear baño luzeago botatzen ziran; da, errekan sartzen zan punta ura, moztu.

Baña berriz ere zugaitzak berak karga aundia izaten du. Punta sartu ez, baño estutu egin oi da. Ta *Itxaiz-Zarrak* lotuko zizkan ari idiak, eta ia, mutillak! "Aida, irixa!" bere *Itziarko* izketa arekin, da etzan geldituko, ura atera arte.

Olaxe, Txatarrok berak idi aundiagoak eduki oi zituan, da pare bat Txatarroren bere koñaduak ibilli oi zuan, da bestea morroi batek. Aiek animala aundiak ibilli izan zituzten.


Baña *Itxaizek* aiek aña aundiko karga artuko zuan, da eraman gañera. Egundo etsirik artu gabeko ganaduak ziran aiek. Ibiltzen jakin egin bear izaten da, da arek bazekian.

Guk naikoa lana izaten genduan aieri egurra preparatzen.

Gero, obra artarako lodi samarrak ziranak-eta, zerratu egin giñuzen. Tabloia egiten genduan aiekin, eta orrela eraman zituzten. Itzaiak libratu ziran, eta guk ere berealaxe ebaki giñuzen ango egurrak.

Gero, arkume bat edo bi jan bearko giñuzela, ta baita jan ere. Itzaiak eta baso-mutillak danak juntatu giñan, da an artu genduan egundoko betekada. Erreka-zuloko busti-aldiak eta otz-beroak, antxe aztu ziran danak.

Txatarro ori tratantea zan; ganadu-tratuan ibilli oi zan, da gure auzoan bizitzen zan. Arek zenbat ganadu ekarri ote zuan



Donostira? Batere trataturik egin gabe, nota bat eramatekotan, pisu-kontua bere gain.

Gure aitak ere ia beti alaxe eman izan zizkan, ta ez det uste tranpa aundirik egingo zuanik. Bere pisuko txartela eramango zuan, da erraldeko onenbeste. Buruz kontuak aterako zituzten, da pagatu ta aurre-ra.

Gizon txikia zan, baña piña. Beti etzan jenio ederrekoa. Gizonak, danak izaten degu zerbait. Ez da arritzekoa, arek ibiltzen zuan aña tratu ta goraberakin, traturen batek gaizki erten ziola-edo. Ark edukitzen zuan aña morroi ta neskamerekin,

buru-auste izugarriak euki bear zituan derrior. Iru edo lau morroi ta beste neskame bat beti edukitzen zituan arek, eta ganadu-jendea ere bai bikaña.

Ango idia eta ango beia! Ta beitarako zezena ere bai, beti aundia. Madrida ere joan oi zan premioetara beitarako zezenarekin. Gobernatu egingo zituan arek ganaduak. Orduan gu ez giñan atrebitzen pentsurik ematen, baña arek gurdika ekartzen zuan pentsua. Jaten duten tokian ezagun izaten dira beti.

Ango basoak egin giñuzen eta etxean gelditu giñan.

# Zestuako Legoian

**E**TXEAN lana bazegoan, ta jana ere bai, baña dirurik ez. Guk piska bat nai dirua ere, eta aitak esan zidan:

–Zestuako Legoian morroia palta omen dek. Nai baldin badek joan, artuko aute aiek.

–Zer egin du ango lengo morroiak?

Olazabalko Pakundo zan, ba, an lenago, ta ura Legazpin lana eskatuta egon. Da andik abisoa etorri ta ara joan zan, Patrizio Etxeberriarengana. Arrezkero an segitzen du arek. Nere kintakoa da ura, eta urrengo urtean erretiroa artuko du, ezeren okerrik ez badu.

Ni an morroia palta zala jakin nuanean, bertara joan nintzan, ia zerbait egiten nuan. Da, Legoia ortara nijoala, bidean arrapatu nuan etxeko nagusia, ote txikia ebaten jardun ta etxera zijoala.

–Egun on Jaungoikoak dizula!

Ta:

–Bai zuri ere! –erantzun zidan.

Da egualdi ederra zegoala ta olako batzuk esan giñuzen; eta berealaxe, ni aien etxera nijoala, morroia palta zutela jakinda.

–Bai –esan zidan–. Len gendukanak alde egin digu, ta derrior bear degu batenbat. Artuko zaitugu, konpontzen bageara beintzat.

Eta zenbat bear nuan-edo galdera egin zidan. Nik kalkulatuta neukan lengo ango morroia nere modu samarreko mutilla zala, ta edade berekoak giñan gañera. Ta lengo morroiak zeukan soldatarekin konforme nintzala esan nion.

Illeko ogei ta bat duro zeukala esan zidan, da neri ere ainbeste emateko konforme zegoala. Alaxe biok tratua egin genduan.

San Antonio baño iru bat egun lenago giñan, da San Antonio egunean joatekotan gelditu nintzan, da alaxe joan ere.

Nagusia bera Urkiolan zan egun artan, da aiek zetozen treña deskarrilatu egin zan. Asko ziran erituak, ildakorik etzuan izan bear baña. Antxe jardun zigun kontatzen nagusiak, etxera etorri zanean, zein eritu ziran.

San Antonio eguna zan, baña artean ere berde-onduar artoak ereiteko zeuden. Antxe jardun genduan arto-lurra preparatzen urrengo egun baten ereiteko.

Legoiak terreno baldar samarrak ziztuan. Soroak aldapak, bat ez bestek. Soro bat erribera ederra errekaren ondoan. Ura kendu ezker, danak maldak ziran. Mendiak ere arkaitztsuak. Ote txikia asko zan. Iñaurkiña, nai aña. Garoa ere aukeran. An, ebaki ezker, bazan naikoa azpitarako.

Nagusia segari ona zan; da nik ere, berriz, ogei ta iru urte, ta ez dira txarrak naiz segarako ta edozertarako ere. Aixa ebakitzten giñuzen guk ango ote txikiak eta belarrak; garoak ere bai.

Belarrak, giro onen zai geundela, zartu egiten ziran. Nausia bildur izaten zan, euriak ebakitako belarra arrapatuko ote zuan. Eta zer ebakita galduko ziran! Ebaki baño lenago, zutik galtzen ziran.

Denbora pasata ebakitzen dan belarra, beti eskasa izaten da. Alperrik ondo sekatuko dezur ura. Belar aula eguzkiak jaten du, zutik dagoan tokian. Legortu errezak izaten ziran an belarrak. Jakiña, zutik zeudela legortuta egoten ziran da.

Pameli txikia zegoan: nagusia, etxeko andrea ta alaba bakarra. Iru lagun danak ere. Alabak ogei ta sei urte zeuzkan. Aita ta ama il ziran. Alaba kalean bizi da. Pamilia ederra azi du. Bi seme ta bi alaba ederrak ditu. Egingo dirana, egiñak. Ez dakit batenbat ezkondata bada ere, baño onenean dirala bai.

Aietako seme bat, Pedro Maria Otañoren omenajea egin zanean, Zizurkillen ikusi nuan. Eta:

–Zu emen al zera?

–Bai; Erriotik barrena etorri naiz oñez.

–Zestuatik Zizurkilla etorri egin bear da! –erantzun nion neronek–. Esan errez egiten da ori! Nik baño anka obeak edukiko dituzu, ta bearra!

Bertsotan ederki egiten du arek. Orrela, denborarekin jartzeko beintzat, oso ona da.

Goizean goiz jaikitzen asi nintzan ni, Legoiara joan nintzanean; baño etzuan baliu. Berak baño lenago ia zertan jaikitzen nintzan esan zidan etxeko andreak. Lasai egoteko aiek jaiki arte! Deituko zidatela berak jaikitzen ziranean.

Ongi aditu nuan nik ori. Antxe, leioa zabalik nuela, egiten nuan lo; eta, elbiak kuartora sartzen asten ziranean, itxi leioa ta antxe ederki egoten nintzan ni.

Gero, berak jaikitzen ziranean, sukaldean goia eskoba-kertenarekin *kas! kas! kas!* jotzen zuten, da orduan jaiki. Ta kafea artu ta lasai asiko giñan lanean.

Nik, nagusiak eta biok egiten giñuzen lanak, bakarrik errez egingo nituzkean. Baña gutxi eginda ere, errez pasa. Lanean ez giñan beñere presaka ibiltzen.

Txekor aundi bat azi genduan, da Azkoitiko Kooperatibara saldu zuan nagusiak. Eta ain zan bildurtia nagusia bera ganadurekin, ta guk, etxeko andreak eta biok, bera palta zala, lotu ta auzoko atariraño eraman genduan, da ederki: asto zarrara baño mantsoago. Nik nere artean:

–Etzeukak onek geiago lotu bearrik urrengo Azkoitira eramaterakoan!

Da or asi zaigu urrengo egunean nagusia, txala berriz ibilli bear zala; ta guk, len ibillita zegoala; etzeukala berriz ibilli bearrik. Etzan ura gurekin piatzen, ta ez txalarekin ere.

Lotu berriz, da ez genduan ikullutik kanpora atera lenengo egunean. Zimauro-pillaren gañean piska bat ibilli ta atzera katera. Bigarreanean atariraño atera genduan; metak egiten ziran zabal bat bazeogan, da an piska bat ibilli ta etxera.

Lau egunetan ibilli ta alare ez giñan iritxi, lenengo egunean etxeko andreak eta biok eraman genduan lekuraño.

Etorri zan Azkoitiko Kooperatibatik eramateko abisoa, ta Zestuako estaziora eraman genduan. Nik aurretik soka bat, eta arek bestea besotik atzera lotuta. Ta, an bagoian sartu genduan, nik uste nuan libre izango nintzala. Bai zera! Ez pentsatzeko etxera etortzerik!

Trena etorri zan, da bagoia erantsi zioten trenari, ta Azkoitira. An gelditu zan gure txekorra. Artu genduan andik eta mataderara eraman genduan. Estaziotik urrean zan ura ere; ta, an buruan jo zutenean, etzan asarre gure nagusia; ta ni ere kontentu.

Atzenean, beintzat, txekorra pisatu degu, ta berrogei ta amaika erralde. Orain berrogei urteko kontuak esaten ari naiz, da orduan etzan orain bezelako txekorrik azten.

Guk ederki bazkaldu genduan; baita kapeak eta zerbezak artu ere; eta, urrengo trena etorri zanean, Zestuara. Ortxe akabatu zan gure txekorraren pesta.

Arbi-jorrako garaia zan, da urrengo egunean nola arbi-jorran jardun genduan gogoan daukat oraindik. Egun bat galdu ta ere, jorrarako jende ona izaten giñan, danak joaten baigiñan. Ama-alabak ere joaten ziran, da lau lagun izaten giñan. Berealaxe jorratzen giñuzen.

Urte artan etzan arbi-jorra ederra. Arbiak erein ta andik egun batzuetara trumonada ikaragarria bota zuan. Len esan dedan bezela, soro aldapak ziran, da lurrak ondatuta utzi zituan; arria egin bai-

tzuan, aundia gañera. Ollo-arrautzaren pareko arriak baziran, da gauza guziak txikituta. Alako toki aldapan, berriz, soroaren goienetik barrenerañoko arrastoak egin zituan. Bi edo iru urteko izurratuta utzi zuan soroa.

Garoak ere oso eroso giñuzen. Etxetik gora danak. Ebaki-aldi bat egingo genduan, da joango giñan gero; artu beiak eta gurdia arbasta batekin, eta nai zan aña aundiko jornara ekarriko genduan. Arbastata ere garoarekin, gurdiari atzetik arrastaka alegia. Berealaxe egin oi genduan ango garo-lana.

Gabonak arteko konponduak giñan, da etxera joan nintzan, baña atzera etortzeko. Oitura zan bezela, bakallaua emanda bialdu niñuten. Eguberrietan egun-pare bat pasa ta atzera etortzekotan. Artean ere lana bazegoala ta, egun batzuek pasatzera, berriz etorri nintzan.

Soroaren barreneko pareta eroria zan. Ura jaso ta orrelakoxe lan batzuek egin giñuzen, eta andik aurrera pasako zirala ni gabe.

Eramandako puskek artuta, etxera joan nintzan, andik ere ondo partituta eta berriz ikusteko pozak.

# 1933-ko udara

**O**GEI ta lau urte. Au dek sasoia! Ikazkintza Izarraitzen zeukala emateko Azkoitiko Olanok, eta joan gera igandearratsalde batean Izarraitz ortara.

Ikusi giñuzen egurrak eta tokia. Egualdi ederra zegoan; tokia ere bai. Zotala ederra, eta bearreko gauza izaten da ura ere ikatza egiteko. An zegoan bezelako egurrarekin gañera, geiago. Egur zatarra baitzegoan. Pago-enbor aundiak zeuden, eta ondo tapatu bear izaten dute aiek, egosiko badira.

Nik ez nuan artean entenitzen ikazkintzan, baña *Txankarta* an nuan beste laguna. Teknikoa zan ura ikazkintzan. Ari galdetu bear nik:

–Zer lan-modu iduritzen zak, ba, emen, Txankarta?

–Egurra ez dek oso ona: baña tokia oso ona dek, eta zotala ere bai.

Emen. Oirtzunen, *zatola* esaten zaio. Guk biak entenitzen ditugu.

Lurra ere oso ona zegoala esaten zidan gure Txankartak. Nik, orduan, ia lurra ere oso inportantea al zan ikatza egiteko. Baietz esaten zidan; lur txarrak su eragiten ziola ikatzari.

Ala, basoak ikusi genituan. Uda guziko lana bazegoala eta konforme zan gure

Txankarta: toki bateko lana ona izaten zala; leku aldatzen ere, beti egun batzuek galdu egiten zirala, ta abar.

Prezioa jakin bear da joan gera Azkoitira. An bizi zan gure Olano ori, ta billatu degu beintzat. An asi gera tratuan, da etzan lenengo itzetan egiña tratu ori. Baño erabaki genduan beintzat, eta Azkoitin buelta bat eman genduan.

Sekula oraindik ez det orduan Azkoitian ikusi nuan baño baso ardo aundiagorik ikusi. Zein tabernatan zan, orain ez daukat gogoan; baña sei bat lagun juntatu giñan, da danak anditxik edaten genduan txandan. Nik ez dakit zenbat kabituko zuan, baña litro bat baño geiago beintzat. Kristala, berriz, lau baso egiteko aña bai. Arekin, aserretu ta muturrean jo ezker, etzan kolpe gozoa izango.

Ala, illundu zuan da Zestuara etorri giñan trenean sartuta, geure kezkarekin, uda guziko lana artuta; ta beste lagunak zer esango ote zuten-da baziran buru-auste batzuek.

Ala, beintzat, beste lagunai esan diegu; ta, guretzat ona bazan tratua, aientzat ere etzala txarra izango, ta orrela.

Beste baso bat ere artu genduan ikatza egiteko. Zestuako Palazion ura. Neguan lana egiteko modukoa zan; terreno ona,



bajua. An egurra txikituta utzi, ta udarako Izarraitza joan giñan, berriz ere negurako etorriko giñala orrera pentsatuta, Palazio-ko baso orretara.

Lau mutil giñan kuadrillan: Txankarta ta ni, ikusten izan giñanak; eta beste bi: bat Jeronimo, ta bestea Agustin.

Joan gera Izarraitz orretara, ta egurrari ikusi bat eman genion. Tratua egiña zego-ala ta asi egin bear lanean. Etzuten aitzakirik eman tratuagatik.

Lenengo egunean, lo egiteko tokia pre- paratu: kamaña egin da orrelako lanak. Ardi-txabola bat libre arrapatu genduan, da antxe erretiratu giñan.

Bigarren egunera ezker, asi giñan egur txikitzen, da ederki. Alako toki zoragarria zan ura. Lenbizi, gañera, toki onenetik asi ere egiten da geienean, da orduan ere ala gertatu zan.

Toki zabal-zabala zan, da alde ederra dago alako tokia izan edo, egurrari puska kendu orduko, bildurak goitik bera buel- taka joango ote dan. An enbor aundia txi- kitu ta bertan gelditzen zan; jiran dana, txerri zarra bere umeakin bezelaxe. Puska txiki asko kentzen zaio; erdian aundia an- txe gelditzen da, ama balitz bezela.

Gero, txondorra kargatzerakoan, aundi- diak lurraren gañean ondoko illaran sar- tzen dira, ta beste koskorakin gaña ber- dindu. Olaxe kargatzen da txondorra.

Bost edo sei txondorren egurra txikitu genduan, kargatzen asi giñan.

Beste mutil gazte bat ekarri genduan orduan, Inazio Potzualdekoa. Ori Txan- kartak ekarri zuan, guri ezer ere esan gabe.

–Mutilla badegu, ba, etortzekoa –esan zuan gure Txankarta orrek.

Nik erantzun nion orduan:

–Zein mutil dek, ba? On samarra ba- dek, guk danok irabazten ditugunakin ez diagu pagatuko.

–Azalduko dek biar zein dan, da ikusi- ko dek orduan –esan zuan gure Txankar- tak.

Astelenean zan ori, ta asteartean or azaltzen da gure Inazio Txikia. Egun onak eman zizkigun, da guk erantzun genion. Potzualdetik Izarraitzera biajea dago, ta ordu-pare bat bearko zituan beintzat; eta gosaltzen ari giñan, ura etorri zanean.

Danen ezaguna zan, da etzan izan no- bedaderik gure kuadrillan. Gure auzokoa zan. Gosaldu ta asi zan egur biltzen. Gu txondorra kargatzen ari giñan.

Lanean gogor asi zan. Nik geiegi egiten asi ote zan pentsatu nuan. Lenbiziko egu- nean beti izaten da, ba, kezka piska bat. Eta ainbeste lan egin bearrik etzegoala esango ote nion, da ez; bera jarri zan ta- mañan egiten zuala. Beti egiten zuan berea, ta ez dago zer esanik.

Lan asko zegoan arentzako modukoa: ura ekarri, arrantxua egin, da orrelakoak. Txikia zan, baña emeretzki urte bazituan, da etzeukan nonairako bildurrik.

Olano gure nagusia etortzen zan aldian bein zatokada ardo aundiarekin.

–Zer moduz ari zerate, mutillak?

–Gustora –guk erantzun oi genion–, lan-toki ederra dago-ta! Zu etorri maiz sa- mar olakoxe zatokada ardoarekin, da arre- glatuko gera.

Gizon aundia zan Olano, ta serioa, guk ez genduan errieta egiteko bildurrik baña. Gure kontura baigenduan lana; ta, egiten bagenduan, irabazten genduan; ez bagen- duan, ez.

Txankarta ta Agustin Usarrua, aiek zi- ran ikazkin zarrak, ta bi eratara nai izaten

zuten: batek bajua, Txankartak; eta Agustín Usarruak, berriz, altua. Txondor kargatzen asten giñanean, seguru disputa izaten genduan.

Bajua kargatzen bagenduan, Agustiñek esango zuan:

–Betegarria pranko bear ko dik, zera, Juan Kruz!

Juan Kruz Txankarta zan. Ta, altu samarra kargatzen bagenduan, berriz, gure Txankarta orrek:

–Zeñek tapatu bear dik au? Aizea atezaren badu, a zer garrak, Agustín!

Beti olaxe jarduten zuten. Gu, berriz, Jeronimo ta ni, ixilik egoten giñan, ikazkin berriak baigiñan. Guk, egurra arrimatu txondor aldera, ta, zutik jarri eziñekorik bazan, uraxe jasotzen lagundu, ta orrelakoxe lanak.

Beti ondo konpondu oi giñan. Zerbait alkarri esaten bagenion ere, urrengo, zelebrekeria aterako zuan batenbatek. Txankarta izaten zan geienetan. Disparateren bat esango zuan, eta besteak parra egin da bapo.

Iturria ere urruti izaten zan. Izarraitzek ur gutxi du. Gu batzuetan Esku-iturrira eta bestean Santza-kortako iturrira joaten giñan.

Inazio Txikiak denbora piska bat bear izaten zuan oietatik bueltan etortzerako. Ezta arritzekoa ere, mutil gaztea, gigazajoa, nekatua egon ere egiten zan da.

Batean, arkume aundi bat artuta etorri zitzaigun, uretara joanda, Paaluz artzaiak eman ziola ta. Artzai ori Aiakoa izan bear zuan, baña udaran or egoten zan.

Guk, pentsatu zer poza artuko genduan. Gure angu mantenua baba edo babarruna izaten zan, urdai-koskorren bat sartuta. Eguardian da illunabarrean, ori.

Ta goizean, zopa egin da urdaia prejitu; aren koipea sartu zopari eta olioaren tokia betetzen genduan. Gañerako jakia berarekin, urdaiarekin, eta ola jaten genduan.

–Txankarta –esan nion nik piska bat tentatzeagatik–, pare bat eguneko jakia badiaugu oraintxe orreatatik!

Erantzun zidan:

–*¡La ostra!* Jaungoikoak jakingo dik ori noiz illa dan, da nik ez diat jango!

–Nai ez badek, etzak jan! Ez dek sobratuko!

Gero jan zuan, bai, arek ere. Asteko, ardia egiteko, buztana moztu ta odol-ustu egin izan bear zitzaion. Dana dala, guk jan genduan beintzat, bai, ta iñori etzizun kalterik egin.

Ala, ari giñan txondor kargatzea aurreratzen. Lenengo, ederrenak; eta gero kaskarragoak ere egin-egiten dira. Txondor-plazak ere, ederrenak lenengo asi giñan tokian ziran, da gero egin-egin bear izaten ziran. Erdia bada ere lengo txondor-plaza zarra izan ezker, gaitz erdi.

Iruria zegoan tokian pozak jarduten giñan. Iruria aparte, bazter batean, utzi; ta gero, txondorra tapatzerakoan, ura puntan jarri; ta, txondorra egosterakoan, bustia bada ere, ez da lokatarik egingo aren puntan.

Ankakin asko ibilli bear izaten da txondorren gañean. Betegarria dala-edo, mazo aundiarekin ere jardun bear izaten zan bein baño geiagotan, gerriak ederki okertuta.

Santza-korta partekoak kargatu giñuzen, eta Trikuangoak gelditzen ziran.

Ala, gure Olano ori etorri zaigu, eta ikatzak ezin zituala saldu ta utzi egin bear ko zirala egosi gabe, ta olako kontuak.

Eta guk, berriz, egosi egin bear giñuzela, nai bazuan almazenean sartzeko. Dis-

puta asko ibilli genduan, baña azkenean arek arrazoi. Guk ere bagenduan ustez arrazoi; baña, askotan pasatzen dana, langilleak pagatu bear atzenean. Eta an gelditu ziran gure txondorrek eta gure egurak.

Uztaillaren asiera zan, da or akordatu zaio gari ebakitzen asi bear genduala gure Txankartari. Orduantxe zeuden gariak beian elduta, ta goian geroxeago, danak segiran. Da bai asi ere.

Astea pasa genduan basoan; da jaian, beti bezela, etorri gera etxera, ta Arruako Larretxe-berrian gariak ebakitzeko emango zituzkiela. Jai-arratsaldean joan gera Txankarta ta biok, eta artu ditugu ango gariak ebakitzeko.

Jai-arratsaldean Ziolarren bildu giñan Jeronimo ta Agustiñekin. Billera egiten zan lekua baitzan Ziolar. Esan genien an lagunai.

Astelenean joan gera Larretxe-berri orretara, ta eraso diogu itaiakin. Lantegi ederra! Len txarra baldin bazan basoa, orra ortik onerako lana bestea! Jo ditugu Kristorenak, eta bi egunean ebaki orregatik. Astelena ta asteartea ziran, eta gerrietako otzak kendu giñuzen.

Astearte-arratsaldean garaiz ebaki giñuzen; merienda eman ziguten, ta esandako diruak ere bai. Ta etxera etorri giñan, pasara ederra artuta.

Biamonean, asteazkena. Birentzako lana San Migel Artadin gendukan, ta beste bi Aitola-berrira joan bear genduan arto-jorrara. Agustin Usarrua ta ni joateko arto-jorrara, ta Txankarta Juan Kruz eta Murgiko Jeronimo joango ziralta San Migel Artadira gari ebakitzera.

Aiek biak lau egun pasata etorri ziran; gu biak, berriz, bi egun egin Aitola-berrin, eta andik Azkoitiko Egurtzara joan giñan

gari ebakitzera, baña piska bat deskantsatuta. Gari ebakitzen jardundakoan, bi egun arto-jorran onak dira

Asi gera Egurtza ortan, ba. Manuel Gorria esaten zioten nagusiari. Bere seme zarrenak emezortzi bat urte ingurua eukiko zituan. Ta Agustin da ni, lau lagun danak. Manuel Gorria, rubioa zalako esaten zioten.

Asi giñan, ba, gari ebakitzen. Loiola parean goian dago Egurtza ori, ta soro sakon bat ederra etxearen gañeko aldean gari zegoana. Lau gizon antxe: i ere bai ta ni ere bai, ixilik jendea!

Bazkaldu ta siesta piska bat egin genduan, da berriz ere asi egin bear. Ostirala ta larunbata pasa giñuzen, eta gariak danak ebaki. Lotzen ere jardun genduan piska bat; eta, illundu zuanean, apaldu ta oera al zan azkarrena, goizean ere goiz jeiki bear genduala-ta.

Eguneko amabi pezeta izaten zan, da bi eguneko ogei ta lau; ta bost duro eman zizkigun bakoitzari. Gauza aundia zan ura orduan. Aurten dira berrogei urte, ta etziran oraingo kontuak.

Goizean jaiki Egurtzan, laurak inguruan, eta Madariagara joan giñan bi orduko bidean. An meza entzun seiretan, eta andik Uztapidera beste bi ordu, ta gosaltzera etxera etorri nintzan. Ederki irabazitako ogia jaten genduala uste det.

Jaian piska bat deskantsatu, ta berriz ere, astelen-goizean, Larretxe-zarrera joan giñan gari ebakitzera. Arruan dago ori, Larretxe-berriko auzoa. Lau lagunak juntatu giñan berriz ere. San Migeltik etorri ziran an ziran biak, eta laurok Larretxe-zarrera joan giñan.

An gogor jo genduan, baña danak ebaki ziran. Auzo-langilleak ere baziran an, da aiek ere onak izaten dira. Arratsaldeti-

kan etorritako langilleak deskantsatuta egoten dira, ta berak egin ta besteari eragin egiten dute. Armoni ederrean apaldu ta oera joan giñan.

Asteartea zan urrengo eguna. Lasaoko Agerren pasa genduan Txankartak eta nik, eta Agustin da Jeronimo Urki-aundin. Guk danak ebaki giñuzen.

An ere lagun ona bagenduan. Gero ere nere laguna zan ura: Gallaiko Jose Mari. Donostin bodegoia euki zuan gero arek, Santa Mariako eleizaren ondoan dagoan 31 de Agosto kalean. Aretxen alargunak dauka orain ere bodegoia. Semea ezkon-duta dauka, ta bera urte batzuek badira il zala. Nik Donostian iñor lagunik banuan, uraxe bat. Baña Jaungoikoak beregana eram zuan. Aretxek lagundu zigun.

Agerren gariak dana urak pasiak zeuden(1). Lasaoko erreka aren ondoan zan gari-soroa, erribera ederra, ta dana gañetik ura pasia. Etzegoan ederki ebakitzeko. Danak ebaki ta lotzen ere piska bat jardun genduan. Ta garaiz apaldu ta etxera bialdu giñuzen.

Gu Zestuako bañu-etxe aldean bera, ta Hotel Arocena-n apaltzen ari ziran. Pianoa jotzen ari zan batenbat. Ala dio gure Txankartak:

–*¡La ostra!* Onako auek guk baño gerri bigunagoak eukiko dizkitek!

Nere erantzuna:

–Bai, motell! Mundu onetan igualda-dea bear litzakeala esaten dutenak ere badituk, baña etziok urrean!

Gu, abarka zarrak *tirris-tarras tirris-tarras* giñuzela, anka lurrari kendu ezinda, ta aiek apaltzen piano-otsa entzunez.

Guk aurrera jarraitu genduan. Agerretik Uztapidera ere ez dago urrean. Ordu ta erdi bat bear dira, ta gizon nekatua ez da akordatu gabe joaten.

Urrango eguna Txankartan pasa genduan. Gure auzoan dago etxe ori, ta sosegu ederrean etxeratu giñan.

Urki-aundiko lanak eginda Agustin da Jeronimo ere etxeratu ziran. Agustin Txankartara etorri zan; da Jeronimo, berriz, etxean ere eldu zirala ta bertan asi zan ura.

Gu, asteazken-goiza zan da an giñan, Txankartako soroan goiz aski, Agustin da ni. Etxeko bi anaiak ere atera ziran: Juan Kruz ta Patxi, etxeko gizona.

Asi giñan gari ebaten, da ixilik, bota batek eta bota besteak. Etxeko bi anaiak ere gari-ebatille ederrak ziran. Aiek jo egiten zuten, etxerako ari baitziran. Gu ere nekatuta geunden; baña, piska bat berotu giñanean, ezurak bigundu ziran.

Saio bat egin genduan, da gosaltzera joateko. Joan etxera ta gosaldtu. Ta itzegin ere jatorduko denboran egin bear. Lanean ari dala, gizon nekatuak, benetan ari bada, ez du izketarako gogo aundirik.

Asi gera berriz ere, gosalduta. Patxi ori gizon aundia zan, da garia ondo ebakitzen zuan arek. Ura nere ondoan. Gu aurreko egunetan ere nekatuta geunden; da ura, berriz, deskantsatuta. *Rasta-rasta* asi zan, da nere artean:

–Ez dek bentaja aundirik kenduko!

Ta jotzen nituan nik ere egiñalak. Ta, ala, amarretako piska bat egin bear zala. Jarrri gera soro-baztarrean eserita, ta:

–Eguardirako pasako al degu orain artuta daukagun sail au? –nik galdetu nuan.

Eta Patxik erantzun zidan:

–Gaizki ibilli bear du!

Soroaren lautik bat bezela ematen zuan; da, ura eguardirako ebaki ezkerro, bi egunetan soroa ebakiko ote genduan, ba? Gosaldtu ta jaiki gera; ta eguardirako sailla ebaki genduan, da illuntzerako bestea.

Eguna pasa degu ta erdia ebaki genduan. Biaramonean soroa dana ebakiko gendua-la ta poztu giñan.

Urrengo egunean asi gera, ta beste biri ere abisatu zien, mutil koskorra bialduta. An ari zan gari tarteko babak ateratzen, da Patxik esan zion:

–Nikolas, joan Larretxenera ta Ziolarra, ta esan arratsaldean gari ebatera etortzeko.

Abitu zan Nikolas ori, baña gogo txarrean. Patxi begira egon zitzaion piska batean, da:

–Nikolas –esan zion besoarekin kiñu bat eginda–: bota beti piska bat aurrera!

Pausoa, alegia, botatzeko.

Arratsaldean etorri ziran Larretxenek Inazio Mari ta Ziolarro Manuel, da asi ziran aiek ere, ta lagun berriak onak izaten dira. Jo aiek eta jo guk, bota genduan arratsaldekoa egiterako. Gustora etzan giñan gañeko aldeko zelaian, bai orixe!

Arratsaldekoa egiten ari gera, ta galeperra *poxpolin* da *poxpolin*! An gañeko aldeko zelaian ari zan. Etzidan onik egiten neri, ta mutil koskorrari esan nion:

–Ekarri zak eskopeta ta kartutxo bat, galeper ori il bear diat eta!

Ekarri zuan, artzen det eskopeta ori ta antxe il nuan gure galeperra.

Arratsaldekoa egin genduan, lotzen asi giñan da ura deskantsua! Ari esaten zaio deskantsua! Andik illuntzera artean, lotzen jardun giñan. Garia lotzen, gari-koa(2) artu ta jaiki egiten da, ta gerria ederki deskantsatzen da.

Illuna urreratu zuanean, utzi ta etxera joan giñan apalduta, urrean neukan da. Premia ere banuan.

Biaramonean, Agustin Usarrua, etxe-koak ebaki bear zituala ta etxera joan zan;

da Juan Kruz da ni Txatarro Kojuagana joan giñan.

An soro aldapa samarrak ziran; da danak, gariak buruz bera bota, eta ipurdiz gora jardun bearreko tokia zan. Gerriko miñez oso gaizki jardun nintzan egun guzian. Amabi pezeta irabazten genituan, da arratsaldean ordu beteren bat paltako zan lanari uzteko; baña egun artako irabaziak, bazterreko zelaian etzateagatik, danak utziko nituzkean.

Uzteko ordua etorri zan, da pozik utzi genion da apaldu. Ta nik ere etxe-koak ebaki bear nituala. Ostirala zan ori, ta larunbatean ta jaian piska bat deskantsatu ta astelenean asi giñan etxean, baña segarekin. Guk etxe-koak segarekin ebakitzen giñuzen.

Aste ura pasa genduan. Guk etxe-koak egun batean ebakiko giñuzen. Da lotu egingo zituztela, ta auzoan, Baltxola-berrin, bazegoala lana: gariak ebaki ta artok jorratu. Olaxe pasa genduan astea; ta, ango lanak egin giñuzenean, atzera Izarraitzera joan giñan.

Jaian, Ziolarra juntatu giñan; an itzezin giñuzen itzegitekoak, eta berriz ere Izarraitzera.

An zeuden Trikuango egurrak. Artean txikitze-ko zeuden, da antxe asi giñan. Bost lagun juntatu giñan atzera. Trikuanean toki ederra zan. Alde guziak altuago zituan mendi-zulo bat zan, da etzegoan egurrak iñora iges egin bildurrik. Lasai aritzen giñan egur txikitzen. Ala, astea pasa genduan egur txikitzen.

Joan dira jaian Arruara mezetara Txankarta ta Potzualdeko Inazio Txikia, ta asarratu dira alkarrekin. Kontua pagatuta despatxatu egin zuan Inazio Txikia.

Astelenean oso serio joan zan basora gure Txankarta. Zer ote zuan da orixe. Berak konposioa egin zigun.

–Eorrek ekarri uan, eorrek atzera bialdu dek –nik esan nion–. Ez daukak iñorgatik zer esanik.

Guk zerbait esango ote nion bildurrak etorri zan Txankarta. Ez genion ezer ere esan. Uretara ere geok joan bear; baña arzten genduan astia, ta aurrera.

Bostetik laura jetxi giñan lagunak, baña bereala txikitu giñuzen Trikuango egurrak, eta ikatzak etzegoala egosterik esan zigun Olanok.

Eta Palazion an zeuden len txikitutako egurrak. Ara joan bear ko zala ta prepara tu giñan.

Bañan bat gaixotu: Agustin Usarrua. Ta gaixotu bakarrik ez: il gañera! Zer zuan berri rik gabe joan zitzaigun mutilla, ta sa-soirik oneneko gañera, ogei ta amalau urtekoa.

Pena aundia izan genduan. Manta baten azpian egiten genduan lo. Egun bate tik bestera, ogia baño obeagoko mutilla joan zan mundu ontatik, eta zeruan gerta dedilla.

Lautik irura jetxi giñan, da Palaziora iru joan giñan da asi. Txondor-plazak egiten asi giñan. An lenago egurra juntatuta gendukan. Guk txikitu-ala, danak bide zear baten aurrera eraman, da goitik bera beko erreka-zulora botatzen zituan etxeko nagusiak. Gero txondor-plazak egin da kargatu beste lanik ez gendukan, eta kargatu giñuzen. Berealaxe tapatu ta sua atera genduan.

Txabola ere egoki gendukan txondor rak zaitzeko. Ta danak bertan.

Erreka ere bai. Amorraiak ere bazeuden; da gu, Jeronimo ta ni, Txankartak siesta egin bitartean, erre kara joaten giñan, da baita amorraiak arrapatu ere. Eta apaltzeko askotan izaten giñuzen amorraiak.

Ala, ikatzak egosi giñuzen ta txondor rak garbitu; ta ikatzak ateratzen asi giñan. Txondor txikiren bat bazegoan artean ere egostekoa; baña, goizean ikatzak aterata, arratsalde arte alperrik egon bear genduan. Da Artzabaletan-edo belarrak ebakitzeko zeudela, ta osaba neukan an.

Nik, joan nintzan ara ta egin nuan tratu: ogei ta iru duro prezioa. Belarrak, danak ebaki bear ontzeko zeudenak.

Joan da asi giñan. Goizean ikatza atera, Jeronimo utzi arratsaldean zakuak betetzeko, ta aide joaten giñan Juan Kruz ta ni Artzabaletara, ta belarrak ebaki. Ta an ere gogor; belar-malla artu ta entregatu. Zail samarra zan an belarra, ta egiñalak egiten giñuzen.

Otordua berak ematen ziguten. Eguardarte batean egarritu egin nintzan an ari nintzala, ta ura ekarri bear ko genduala. Ta Txankartak esan zidan atzera, denbora bear zuala joaten ere alegia, parra eginda. Baña ni joan nintzan.

Azpiko aldean an zegoan Zestuako depositoa, ta ara joan ta ekarri nuan ura, freskoa ta ederra. Bertan egin nuan trago aundi bat, eta:

–Edan zak, Juan Kruz, ik ere!

Eta eman nion beste lagunari ere, ta askoz obeto lanerako ere.

–On egin al dik urak?

–Bai; etzidak kalterik egin, ur-zale aundia ez nauk ni baña –esan zidan Juan Kruzek.

Illunabar batean joan gera, belar ebakitzten jardunda, txabolara; ta an zegoan, guri aparia emateko zai, Jeronimo gizarajoa. Lana egin ezin-ala ark ere zakuak betetzen da abar, ta patatak ur gañean arin samar zebiltzan. Atera ditu patata oiek platerara. Ala dio Juan Kruzek:

–Jaungoikoari etzioagu, ba, gauza aundirik eskatzen: patata naikoa!

Salda mee samarra zan, bañan enpatxoan bildur gutxiago. Jan giñuzen; beste zerbait gañetik jango genduan, da kamañara.

Ala segitu genion Artzabaletako belar oiek ebaki arte.

Beste batzuek etxera karriatzen zebiltzan. Arruako Armendi zan etxera eramaten zebillena. Ebaki ezker, bereala legortutzen ziran an belarrak. Eguzki-bista zan, da aldapa izugarria. Bildurra ematen zuan ibiltzeak ere. Baña ebaki giñuzen, eta kobratu ere bai. Ta erretiratu giñan atzera txabolara.

An egosi gabe zegoan txondor ura ere sutu genduan, da gure Txankarta gaixotu egin zan. Erlekistanak atera zitzaizkan, eta etxera joan zan. Iru edo lau egun pasa zituan etxean, da etorri zan atzera.

Ikatza atera ta zakuak bete bear ziran, da bildur nintzan ni arekin. Lenago beti ura izaten zan zaku-betetzallea, baña plan-ta txarra ekarri zuan.

Nik beteko nituala esan nion zakuak, eta ezetz esan zidan. Bera probatuko zala esan zidan; eta, ezin bazuan, utziko zidala neri.

Asi zan. Bi galbaikadarekin betetzen genduan. Zaku aundia izaten zan. Arek zeukan plantarekin, iñork etzuan esango zakuak beteko zituanik. Baña ura lanerako jaioa zan, ta ederki bete zituan. Egun artan ere, nik zakuari eutsi ta ark bete.

Beti broman ola ibiltzen giñan, da nik galdetu ere egin nion ia ipurdiak galdu egin al zitzaizkan nunbaiten. Ta:

–Eorri erlekistanak etortzen bazaizkik, igarriko diok, *¡la ostra!*

Ori zuan bere esaera guzia: *la ostra.*

Lenbiziko eguna txarrena, eta bereala gogortu zan atzera.

Bukatu ziran ango ikatzak; eta, apari eder bat egiñaz, kontuak egin giñuzen, eta erretira egin genduan geure etxeetara.

Baña beste lata bat bagendukan Olanorekin, da juntatu giñan jai-goiz batean Zestuan, Joakin Txikieneko tabernan. Kontuak egiten asi giñan, da arek piska bat gerorako utzi nai zuan dirua; ta guk segituan kobratu nai, ta disputa gogorak ibilli giñuzen ortan. Baña dirua aren eskuetan zegoan, da ezin kendu.

Urrengo urtean ematekotan utzi piska bat, eta kontuak egin giñuzen ikatzak ego-sitakoan kobratzekotan; da guk pentsatuta gendukan batere ez joatea, kobratu ba-giñuz.

Aurten kargatutako txondorak urrengo urtean egosteko txarrak izango zirala bistan zegoan. Negu guzia pasa euritan da elurretan, da aieri zeñek su artu erazi?

Makiña bat pentsamentu egin giñuzen, baña atzenean ere joan egin giñan urrengo urtean ikatzak egostera.

(1) Garagarrillean ujolde edo uraldi aundia izana zan.

(2) Azaua, beste toki batzuetan.

# 1934-ko urtea

**O**GEI Ta bost urte neuzkan, da Itzarraitzen etzegoan lan-girorik, negua zalako. Mendi altua zan, da udara etorri bear, an lanik egingo bazan. Bitartean zerran asi giñan.

Zestuako Baion, Txankarta, nere koñado bat eta ni, irurok aritzarekin tabloia egiten genduan. Bota ta moztu egin giñuzen, bildu ere bai, eta zerran asi giñan.

Baion bertan jatordu danak egiten giñuzen, eta lo ere bai. Eltzea ere aiek egositzen ziguten. Konfiantza aundiko pamelia zan.

Nagusia eiztaria zan. Zestuan perian juntatzen giñanean, eiz-kontuak esan bear izaten giñuzen. Ura Ernio aldera joaten zan, da, gu, berriz, Agirora edo Izarraitza joaten giñan.

la ollagor asko al zan aien alde ortan, da:

–Ezta, ba, aurten iñoiz bezela.

Eta:

–Gure alde ontan ere ez da, ba, aurten askorik.

Ola izaten ziran gure kontuak.

Etxeko andrea emakume ona zan. Ez dakit bizi dan edo zer egiten duan. Nagusia badakit il zala.

An oian lo egiten genduan, da ederki. Lan-tokia bertan.

Guk, kuñado biak, zerran egiten genduan, da Txankartak egurra landu, zerra zorroztu ta orrela.

Gustora ari giñan lanean, baña orain baño lenagoko esaera da pobreen pozak motzak izaten dirala, ta ez da gezur aundia.

Nere kuñadoa zerra-tokiaren gañean zerra-txakurrakin egurra josten ari zala, aizkorarekin jotzen du zerra-txakurra, ta saltatu ta txorkatillan(1) punta sartu zitzaidan.

Piska batean, kura eginda, lanean jardun nuan; baña miña gero baño gero aundiagoa. Al nuan bezela, Baiora etorri nintzan; lau ankan etorri ere. Oian sartu nintzan, eta etxera abisatu etortzeko abere batekin, ni etxera eramateko.

Akaiñen bazan mando txiki bat, inpernuko etsaiak baño gogorragoa, ta uraxe ekarri zidaten. Jarri nintzan gañean da laister nintzan etxean. Akain ori gure auzoa zan, da gure osabak bizi ziran gañera.

Etxera joan da oian sartu nintzan. Irugarren egunerako atzera anken gañean jarri nintzan, eta atzera basora joan nintzan. Nere lagunak etzuten uste alain aguro joango nintzanik, baña bereala moldatu nintzan.

Asi egin giñan berriz ere, eta laste egin giñuzen ango lanak.



Eta Palazion gendukan urrengo lana. An beti izaten zan zerra-lana. Baso ikaragarriak ziran an.

Asi giñan, da ederki. Nagusiak toki batera berak biltzen zituan egurrak, eta zerra-toki baten beti ugariago egiten da lana.

Egur aundi samarrak ere baziran an, da Txankartak ere laguntzen zigun. Da, ala, arpana etzeukan gustora gure Txankartak, eta asarre zebillen; eta or esaten digu besteren bati esan bear ko geniola zerra zorrozteko.

Ezetz gure kuñadoak: arek ezin bazuan asmatu zorrozten, guk egingo genduala prueba. Baña etzan izan orrelako lanik. Pazientzia artzeko ta lasai zorrozteko esaten genion guk. Berealaxe atzera arpana ondo jarri zan, da *tarra-tarra* segi besterik ez gendukan orduan, ezeren kezkarik gabe.

Tokia ere ederra zan ura: zabal-zabala. Alako tokian lana egitea gustoa da; ezeren kezkarik ez egurrari noranaira buelta emateko ta landutzeko.

Sagardo enbotellatuak ere ekartzen zituzten aiek, eta ondo konpontzen giñan. Egurrak, danak zerra-tokiaren ondora ekartzen zituzten, da zer eskatuko genduan geiago? Alako lekuan, lanak uste baño lenago bukatzen dira. An ere bai, ta bukatu giñuzen; apari bikaña egin genduan, kontuak ere bai, ta etxera etorri giñan.

Udaberria zan eta Izarraitzera begira jarri giñan. Ostoa zabaldu zan; etzegoan otz-bildurrik, eta lengo iru lagunak juntatu giñan: Txankarta, Jeronimo ta ni.

Len bost giñan txondorrak kargatzen, baña irura jetxi giñan: bat asarretu ta bialdu zuan Txankartak; bestea, berriz, il egin zan, ta iru bakarrak egosteko.

Juntatu giñan Ziolarra, orduan itzegin genduan da asteartean joatekotan gelditu giñan; eta baita joan ere.

Artu astoan erremintak eta mantak kamaña egiteko; traste danak artu ta joan gera Izarraitz orretara. Egualdi ederra zan. Gogoan daukat oraindik zer pozik joan giñan. Udaberrian mendia alaia izaten da.

Iritxi gera joan bear genduan toki orretara, ta astoak deskargatu ditugu. An aurreko urteko lanak ikusi giñuzen, eta txabola egiten asi giñan. Zotalarekin egin bear genduan.

Aurreko urtean ardi-txabolan egon giñan; baña urruti jartzen zala ura ikatza egosteko ta txondorrak danak ikusten ziran toki batean egin genduan txabola. Andik ederki egiten genduan txondorren guardia.

Esan bezela, gure egurrak bota ditugu, txabolak bear zituanak, eta zotala ere bai. Illuntzerako, etxe berria egin da pronto lo egiteko. An etzanda edozeñek etzuan lo egiten asmatuko, baña guk bai. Kamaña ederra ere egin genduan, da bapo lo egin genduan.

Biaramon-goizean asi giñan txondorra tapatzen. Gure Txankarta etzan bereala lurra jasotzen aspertuko txondorren gañera, ta ondo tapatuko giñuzen su ematerako. Guk atxurtu ta txetu, ta arek jaso otarra betean. Lurra botatzen genion guk txondorri! Lur ederrak ziran, izan ere.

Bi tapatu giñuzen segiran, ta orduan su eman. Zotala, nai aña aundikoa ateratzen zan an. Lenbizi ura bota ta gero lurra, eta aize-bildur aundirik etzan izaten.

Bi txondor sutu giñuzen, da betegarritarako egurra txikitu ta pronto jarri, ta etzegoan bildurrik. Mende artzen giñuzen guk txondorrak.

Beñere ez genduan izan gabeen betegaria ematen lanik. Illunabarrean ondo seguratu giñuzen. Da gabeen, batek

buelaren bat egiten bagenien, besteak la-sai lo egiteko moduan izango giñan.

Aizeari bildur gogorra zion Txankar-tak. Batean akordatzen naiz: Putre-aitza esaten zioten puntu bat bazan an, gure pa-rean goian, arkaitz-tontor bat. An pago ba-tzuek baziran; da an, pago-puntan, aizeak soñu piska bat ateratzen zuan da kejatu zan gure gizona. Asi zan kamañatik jaiki ta etzan. Beste gorri oietatik ere bota zituala uste det; *la ostra* baño aundiagoak izango ziran an batenbatzuk.

Ala, Jeronimok itza atera zion: ia zertan zebillen besteari loa galerazitzen; berak egin ez ta besteari utzi ez.

Esan bazion esan! Giro zan, ba, gure Txankartarekin:

-Ni estuegia izango nauk, baña i la-saiegia! Gure ikatz-galbaia baño ere la-saiaigo aiz!

Bere atera-aldia egin zuan; baña, Jeronimok ura esan zionean, etzan zan; da, aizeak goiko mendi-puntan purrustada bat egiñagatik, atzera aplakatu zan, da gero lo egin genduan.

Udaran, garai ortan, zailla da aizea indartzen. Gure Txankartak, len esan dedana, bildur ikaragarria zion aizeari: ardiak otsoari bezela.

Alako zerbait alkarri esan arren, ez giñan aserraten. Urrengo egunean, atzera broma ederrean pasako genduan eguna. Guk Txankarta asko maite genduan. Zerbait gauza parragarria aterako zuan, da parra egin da aurrera.

Ala, lenbizi su eman genien txondorrak ari ziran bajatzen, da beste bi edo iru sutu giñuzen; baña bildur giñan aurreko urtean kargatutako txondorrakin, eta ala ger-tatu ere.

Ikatza ateratzen asi giñan, ta lenengo aldetik ondo. Baña, txondorren barrura

sartzen asi giñanean, asi ziran ilintxak azal-tzen; da antxe len txondorra kargatu ezin-da ta gero deskargatu ezinda. Bein baño geiagotan esku-agaiarekin sartu azpira ta ilintxak atera ezinda ibilli giñan. Gauza pe-nagarria da txondorrean egurra sartu ta egurra atera ibilli bearra. An alaxe ibilli gi-ñan.

Ilintxakin ikatza seguru esan oi da bi-garren su-aldian; baña lenbizikoan egiten bada, obe. Gure Olanori belarriak ederki berotuko genizkan, da aurrera.

Itzaiak ere etorri ziran: Aitola ta Onda-rrua. Andik Madariagara eramaten zuten ikatza. Aiek zintzo: guk egin ala, beti ken-tzen ziguten.

Zakuak berri-berriak ziran, eta erreza-goak izan oi dira betetzen; da galdu bil-durrik ez. Zaku zarra beti, dabillela, lasai-tu egiten da, ta betetzen zailla izaten da.

Jaian, irutatik bat libratzen giñan. Jeronimo Lasturrera joaten zan, bera libre za-nean; eta Txankarta ta ni, berriz, Arruara.

Goizean txondorrak maniatu ta libre izaten giñan. Nik egin izan det: andik Uz-tapidera ordu ta erdiko bidea zegoan; erdi bidean Agiro, eta an gure anaia zarra ardiak jezten ari zan txabola batean. Ta:

-Beste marmitarik bai al dek? -galdetu nion nik ari.

-Zertarako dek marmita?

-Ardiak jezteko!

-Or zioik leioan beste marmita.

Ta artu ta ardiak jezten lagundu, ta Arruara zazpiretako mezetara joan giñan anaia ta biok.

Beste ordu bateko bidea bazegoan Uz-tapidetik Arruara ere. Ortik pentsatu ni zer ordutan jaikiko nintzan, Arruara zazpire-tako mezetara joateko. Garbitzen ere lana izaten da; ta, mezetara joango bagiñan, pis-ka bat bada ere garbitu egin bear.

Meza entzun da illea moztu; amaiketa-ko piska bat eginda, atzera etxera etorri ta bazkaldu; ta, siesta arrapatzen bagenduan, gustora izaten giñan gu.

Atzera illunabarrerako Izarraitzera. An lo egin da goizean ikatza ateratzeko pronto egoten giñan.

Gu goizean ordubitarako jaikitzen giñan, da zortzirak alderako gose ederra izaten genduan. Orduan ikatza ateratzeari utzi ta gosaldtu.

Mendian gelditzen ziran biak, berriz, jaietan alegia, goizean txondorrek maniatu ta gosaldtu. Bizarra kendu, arkaitzen baten gañean ixpillua jarrita. Txabolan lasai egongo giñan eguardira arte; bazkaldu ta siesta ederra. Uraxe izaten zan basoko jai.

Txondorrek maniatu berriz ere, ondo gañera, gaberako. Apaldu ta etzaterako amarrak izaten ziran. Goizean ordubiak edo irurak luzeenez jaiki, ta ortik kontuak atera zenbat ordu egiten genituan guk lo. Bitartean ere, batenbatek buelta egin bear txondorretara.

*Ipartargia* esaten genion txondor bat ere bagenduan. Gabeen jaiki ta beti argi egoten zan ura. Enbor aundi bat zuan arek gañeko aldeko egalean. Jaso ezin da etzanda utzi genduan enbor aundia. Egiñalak egin giñuzen, baña ezin jaso bost gizonen eta bertan utzi genduan; da arri aundi batekin azalak egin.

Ta beste alderdiak baño ertenago gelditu zan alderdi ura. Ez genduan berdintzeko ainbat egur, ta ilintxa geldituko ote zan bildur giñan. Bein egaletara sua urreratu zanean, beti argi egoten zan ura. Danetan txondorrik onena uraxe izan genduan. Txabolatik begiratu ta beti sua. Joan da tapatuko genduan.

Egosi genduan eta ni joan nintzan aren gañera lenbizi, ikatza ateratzera, ta arritu-

ta ango ikatz ederrarekin. Asi ta bukatu alakoxe txondorra izan zan ura. Azpira sartu zitzaion arri aretxek egin zuan ori dana. Edozeñek esango zukean txondor ura ikusita:

–Au dek txondor kargatzea, au!

Ilintxak-eta berriz kargatu giñuzen; ni gelditu nintzan aien kargu-artzalle, ta beste biak Trikuan ortara joan ziran. Aiek an ardi-txabola baten gelditu ziran, ta ni lengo zotalezko txabolan.

An txondor-kargan egiten zuten egunez, eta gero sutu zituzten txondorrek. Eta neregana goizean etortzen ziran ikatza ateratzera. Iruren artean, alkarri lagunduta, berealaxe ateratzen genduan ikatz-pilla aundia.

Batean, etxeko andre bat etorri zitzaion ikatzaren billa. Ikatza ateratzen ari giñan, da gu ateratzen ari giñan lekutik bertatik asi zan ikatza jasotzen. Ez jasotzeko andik esan genion; bestela, astoaren gañean su artuko ziola. Etzion kasorik egin gure esanari: berea egin zuan, da zakua bete ta abiatu zan.

Guk bistan genduan arek joan bear zuan bidea. Begiratzen genduan beti ere alde artara. Ta or asten zaio kea dariola astoaren gañeko zakua. Ez dakit nola mol-datuko zan gero itzaltzeko.

Trikuanen an ari ziran gure Txankarta ta Jeronimo. Gau batean, biak txondorretara zijoazela, or erori da gure Txankarta bidexiur batean; min artu du, ta gero lorik ez berak egin eta ez besteri utzi. Antsiaz asi omen zan, ba; ta Jeronimo errietan asi zan arte ixildu ez. Eskuan zuan parola ere puskatu zuan, da zertan ari zan ala esan omen zion Jeronimok:

–Txotxo arraixo ori! Berak lorik egin ez ta besteri utzi ez!

Eta arek, etzuala sinisten Txankartak miñik artu zuanik; baña berak ere etzuala

geiago sinistuko besterenik, esan omen zion.

Goizean Jeronimo etorri zan, beti beze-la, ikatz ateratzera, eta biok asi giñan. Alako batean or azaltzen da Txankarta ere, eta geiago etzuan aitatu arek besoko miñik.

Santza-kortako pizarrak bukatu giñuzen, eta ni ere bildu nintzan Trikuan alde-  
ra, ta irurok batean. Andik aurrera lanak gutxitu ziran. Andik bereala asi giñan ikatza ateratzen Trikuanen ere.

Eta an beste pesta bazan: txondorrik aundien-aundiena bizkarka goiko bidera atera bear. Alde guziak altuago zituan mendi-zulo bat zan ura; ta txondorrak, ber-  
riz, irurogei bat gurdi bazituan; irureun da irurogei bat zaku. Ta aiek danak goiko bidera ateratzen lan ederra zegoan. Asi giñan beintzat.

Iru lagunek bost zaku biaje bakoitzean eramaten genituan; batek beste biak kargatu bina zakurekin, eta berak artu bat azkenean, ta bost zaku. Ala ere askotan igo bear. Etzan biaje aundia, baña irurogei bat metro izango ziran.

Antxe ari giñala, komeri polita ikusi genduan batean putre batekin. Ardi bat zegoan gure txabola atzean txabal batean ilda, ta an zebillen aurreko egunetan ere putre zar ori. Arek usaia aditu egiten, da batean arkaitz baten gañean jarri ta beste-an beste arkaitz baten gañean.

Egun baten, uraren billa nijoala, antxe gure putre ori: ardi zarra jatera jetxi ta ezin altxa, ta an ziran komeriak. Ordeka zan an, da egoak luzeak. Ni ikusi niñunean, izutu ta ematen dio igesiari. Egoak zabaldu zituanean, bildurtu ere egin nintzan; baña oñez joan zan piska baten, aldapa arrapatu zuan arte, ta orduan asi zan egan.

Ez nuan pentsatuko putrea ainbeste aundi zanikan, urrera ikusi ez banuan. Ura,

egoak zabaldua jartzen zanean, itxusia zan. Gu urrengo akordatu giñaneko, palta zan gure ardi zarra.

Larraskandako Migel Txiki zana batean ari omen zan ikazkintzan, alde guziak altuago zituan mendi-zulo batean, eta ardi zarra an ere illa. Jetxi da putrea mendi-zulo orretara; gero jaiki egin bear, da ezin zoko artan.

Asten omen da Migel Txiki ori adaki lodi samar bat artuta *dinbi* ta *danba* putre ori jotzen, da gero baño gero arroago egiten omen zan. Bildurtu ere egin izan bear zuan, berari asiko ote zitzaion.

Dana egurra txikitua mendi-zulo orretan, da asi omen zan berari botatzen berdinga lodiak, eta orduantxe errenditu putrea. Dana bururaño tapatu omen zuan.

Migel Txiki ori gure denborako gizona zan. Semeak, ni baño piska bat zartxeago. Gure atarian askotan ikusi nuan pasatzen Migel Txiki bera ere Zestuara perira ta orrela.

Ez dakit Azkoitian edo Elgoibarren egongo dan baserri ori. Asko atari-jira ederragorik ez da egongo beste baserri baten ere, antxe dagoan baño.

Beste gertaera bat ere badakit Lasturren pasia, putrea zalakoan Sakone zanari pasia.

Ardia zanga-zulo baten ilda omen zegoan; da Sakone, ura larrutzen. Anjel Olano, ura ere zana, joan omen zan Sakone ardia larrutzen ari zan ingurura eskopetarekin.

Aizeak jersey zarra ibiltzen omen zion Sakoneri, ta Anjel Olanok an ardia zala jakin, aurreko egunean ikusita. An elastikoa ikusi zuanean putreen kolorekoa, or tira dio tiroa *daunba!*, putrea zalakoan.

Tiroaren otsa aditu zuanean, burua altxatu omen zuan Sakonek. Orduan omen

ziran an komeriak! Olanok beragana joan edo iges egin jakin ez; atzenean beintzat beragana joan omen zan, ta:

–Gogorra egin diat! Miñik eman al diat?

–Ez diat min gogorrik –Sakonek atzera–. Jerseiak artu dik tiroa.

Olano orduantxe deskantsatu. Ez omen zan asarre. Ura brindatua bezela egongo zan. Etzeukan arek aize otzaren bildurrik.

Oiek, gure aita baño piska bat zarrago ziran gizon oiek. Anjel Olano ezagutu nuan nik. Sakonen ez da gure denboran pamelik izan; baño etxe-paretak zutik zeuden gu mutil koskorrak giñanean ere, eta gure aitak ezagutu zuan ango pamelia.

Etxe oiek biak Lasturren daude: Olano eta Sakone. Orain arreba bat Anjel Olanoren semearekin ezkondata daukat antxe, Olanon bertan.

Oraingoan Izarraitztik aldegin-aldi aundia egin det; baño atzera bilduko naiz lengo tokira.

Ikatzak egosi giñuzen lenbiziko aldia; bigarrenean ilintxa-ta nasian izaten da, ta kargatu giñuzen berriz ere txondorak; eta berealaxe bukaera zan gure ikazkintzarena.

Ilintxa batzuek tartean baldin baditu, azkar egositzen da. Egun gutxi barru bukatu ziran ango lanak. Baña zakuak palta ateratako ikatza sartzeko, eta etxera etorri giñan egun baten edo bian.

Zakuak etorri ziranean, joan giñan astoak artuta. Ikatzarekin zakuak bete eta goiko bidera atera giñuzen eguadirako, ta ura zan deskantsua!

Bazkaldu genduan, ta Txankartak eta nik goiko Erloko gurutzera joan bear gen-

duala; eta Jeronimok, arek etzuala pausorik emango; len ere naikoa nekatu zala ura, ta arek naikoa zuala lengoarekin.

Gu, esan bezela, joan giñan Erloko gurutzera. Ordu erdiren bateko bidea bazeogan, baño igo genduan, zatokada ardoarekin gañera.

Gurutzearen oñetan jarrita, aita gure bana errezatu ta Azkoiti ta Azpeiti aldera begira egon giñan piska bat.

Atzera Trikuan aldera etorri giñan, eta gure Jeronimo an zegoan ederki deskantsatuta. Ta astoak kargatu gure manta eta erremintakin; eta, etxe aldera abitu giñanean, ez giñan asarre...

Beste lauak il dira, ta ni bakarrik bizi naiz oraintxe.

Agustin, an ari giñala il zan.

Jeronimok, berriz, igeltsero ikasi zuan, da etzuan arek ere suerterik izan: Eibarren etxe bat egiten ari zirala, aldamio batetik erori ta gazterik il zan.

Inazio Txikia, berriz, ezkondu zan da emen egon zan, Oiartzunen, Beiner-edo suizo batekin maizter; eta orrera, Lezo aldera, joan zan bizitzera. Pameli aundia zuan arek; emen egon zanerako ere lau edo bost bazituan. Or aditzen det il dala gure Inazio Txikia.

Ta Txankarta, berriz, orain dala urte bat edo bi il zan, da orain ni bakarrik gelditzen naiz.

Bi ni baño zarrago ta bi ni baño gazteago ziran; ni, danen erdikoa. Zeruan gorde dezatela neretzako tokia!

(1) Txurmio, beste zenbait tokitan.

# 1935-eko urtea

**O**LANON pago banaka batzuek ziran, da aiek tabloi egin bear zirala; ta Txankarta, Itxaiz Lorentxo ta gu, bi anaiak, asi giñan. Orain nerekin bizi dan anaia au, Naxario, orduantxe asi lendabiziko zerran.

Pagoak ere aundiak ziran, baña oso ondo asi giñan zerran: Itxaiz Lorentxo, gañetik; gu, anaia biok, azpitik; eta Txankartak trongoa landu. Pago galantak baziran an, baña azkar zatitzen giñuzen. Zerra ondo jarri ere egiten zuan Itxaizek, eta antxe baño gustorago ez det askotan jardun zerratan.

An Olanon, kuñadoa gendukan, da idiakin zerra-toki aldera ekartzen zituan, egur aundiak ziranean.

Baña denbora gutxiko lana zan an, da berealaxe bukatu giñuzen ango lanak. Olano au Lasturren dago.

Gu lau lagun bezela, beste iru ari ziran an, beste leku batean, zerran; eta, alkarri prezioa bajatzen ibilli gabe, obe genduala danok batean lana egin pentsatu genduan. Alaxe asi ere egin giñan, da Azkoitiko Kortatxora joan giñan, gu lau ta aiek iru, zazpi lagun, bi kuadrilla eginda.

An eun pago ziran aukerakoak botatzeko, eta pagotegi bikaña zan. Banan-banako pagoak ziran danak, eta asi giñan botatzen.

Pago banaka batzuek bota giñuzenean, zerra-tokia egin genduan guk, eta zerran asi giñan. Itxaizekin bagenduan konfiantza, ta zerra egunean baño egunean ederkiago, ta antxe gustora zerran.

Antzorreiko anaia zarrenak trongoa lantzen zigun; Itxaiz ta gu, bi anaiak, zerran. Beste kuadrillan zebiltzanak, Antzorreikoak bi anaia, Jose ta Migel, ta Indo-iturriko Anjel ziran. Bi etxe oiek Lasturren daude: Antzorrei ta Indo-iturri. Txankarta, berriz, gure auzoan da. Itxaiz Arruan bizi zan. Orain ere an bizi da ura; ni baño lau urte zarrago da ura.

Kortatxoko basoa, berriz, Azkoitiko Urruzolak eresia zan. Elurtea ere egin zigun an ari giñala, baña etzigun bildurrik ematen. Etxeko leiotik begiratzen genduan guk. Antxe, mus-aldi bat egiñaz, bapo pasa elurtea ere. Otordu danak ere Kortatxon bertan egiten giñuzen.

Pagoak, danak soka erantsita biltzen giñuzen. Bide bat zegoan pagotegiaren beko barrenean, da an errenditu bear ondo izateko. Baña danakin ez genduan nai genduanik egin: bi pago-gerri joan ziran beko soro-bazterrera. Okerrik egin gabe joan ziranean, alare gaitz erdi.

Antzorreiko Migel ta gure Naxario eskapada ederra egiñak ziran. Sokak eskutik iges egin da trongoa bien erdian pasa.

Trongoen atzetik zetorren sokak pasa zuan txistua ez omen zan gozoa. Orrelako asko egin bear izaten da basoan, danak kontatuko balira.

Gero jaian, bertan gelditu ta erremeditu genduan ango okerra. Beko soro-bazterrean an zeuden gure bi pagoak, eta Migel Antzorrei ta gu, gi anaiak, gelditu giñan jairako bertan. Zerra-tokia egin da pagoak zerratu giñuzen eguardirako, ta pakea.

Bazkaldu ta arratsaldean Polpoleko iturrira joan giñan. Polpoleko iturri ori Bergarako eta Azkoitiko mugan dago, eta Kortatxo ere Azkoitian dan basarririk altuenetako bat da.

Gero gaberako Urrategira jetxi giñan. An billera egiten zan, da taberna ere bazegoan. Etxeko semeak pilarmonika jo, ta Oitako mutillak panderoa. Ikaragarri ederki jotzen zuten, da antxe nai zuanak dantzan egiten zuan; da nai zuanak, apaldu. Guk, beintzat, apaldu genduan, da gabean garraiz joan giñan lotara.

Etxera joan ziranak ere, biaramon-goizean goizeko trenean etorri ziran, da berriz ere osatu giñan kuadrilla.

Pagoak bota zituzten danak, eta Oita esaten zioten basarri bat bazegoan an beraxeagoan. Ara joango al giñan, da baietz. An ere zerra-lana zegoan, ta joan giñan.

Lorentxo ta gu, bi anaiak, joan giñan ara. Bereala ebaki giñuzen. Makalak ziran an ola egiteko, eta beste txutxeri batzuk ere bai.

Aiek ebaki giñuzenean, atzera Kortatxora joan giñan. An eraso genion berriz ere, ta berealaxe danak zerran asi giñan, da laste izan zan ango egurren atzena.

Kortatxo, Urrategitik gora dago. Luxia aizkolariaren etxea ere ara bidean pasatzen da, Urrategitik Kortatxora bitartean. Kortatxon, berriz, etxeko andrea gure lengusua zan.

Ango egurrak ebaki giñuzenean, Eskapaioira aldatu giñan. Erramintak artu ta Azkoitira etorri; Urolako trenean sartu giñan ta Zestuara etorri, ta andik etxera. Biaramon-goizean Eskapaioira joan giñan, da an ere zerra-lana zegoan.

Pago txikia zan an, da sei lagun zerran da bat egurra lantzen: Jose Antzorrei. Pago txikia ta gogorra zan. Gu, Itxaiz ta gu bi anaiak, esku bat; eta beste eskua, Indo-iturri, Migel Antzorrei ta Txankarta ziran. Txondor-plaza batera ekartzen zituzten egurrak danak.

Eskapaio etxe utsa zan orduan, bañanik pameli ederra ezagutu nuan an ere. Orain Elgoibarren bizi dira Eskapaioeko semeak, bi beintzat. Etxe kaskarra zan da etzuten edukiko andik aldegindako penarik. Ikusten da ordurako ere jendea baseiritik igesi asita zegoala.

Orduan Kortatxo bertsolariak zeukan erosia Eskapaio. Gero, berak ere dana utzita alde egin zuan. Kortatxo ta Eskapaio, danak an gelditu ziran; da bera, Azpeitia-ko estazioaren ondoan lurra erosi, etxe berria egin ta antxe bizitzen jarri zan. Orain illa da ura ere. Ni baño lau edo bost urte zarrago zan ura.

Milla bederatzireun da ogei ta aribostean izan zan bertsolarien txapelketa bat, eta ortxe zan orduan ura. Ez dakit gogoratzen zeraten Kortatxo izenarekin; binakako saioa Basarriekin tokatu zitzaion gañera. Donostiko Kursalean, Ilbeltzaren ogeian zan.

Urte artan etzuan saritua izan bear, baño geiago ere baziran orduan saririk gabe geldituak. Ogei ta bat bertsolari baziran, da danentzat sari aundiak partitzen etzan izango erraz.

Uste gabe basotik alde eginda ibilli naiz, da ia atzera biltzen naizen.

Esan bezela, egurrak danak toki batera bildu ta egun guzia lanean gogor pasatzen genduan. An etzegoan oporrik. Bi zerratakiak alkarren ondoan, batak besteak zer egiten genduan ederki ikusten zan an.

Trongo-lantzalleak ere etzuan geldi egon bearrik, ederki bustita izerdiarekin. Guk azala, batzuetan geok kendu bear iza-ten genion.

Ik ere bai eta nik ere bai, an etzan nola denbora pasako ibiltzen jendea. Zeñek baño zeñek lan geiago egingo zuan.

Ura ekartzeko ere denborarik artu ezinda. Egur bat jaso bitartean-edo, biek egurra jaso ta irugarrenak joan bear izaten zuan uretara. Ala saiatu ezker lanean, asko egingo litzake orain ere.

Porteak ere txikiak izaten ziran orduan basoan. Baso-mutilla ugari ta porte txikiak. Metro kubikoa zazpi bat duro izaten zan. Etzegoan egon bearrik, artan jornal onak aterako baziran.

Ango lanak ere bereala egin giñuzen, eta laste giñan beste leku baterako moduan.

Eskapaio etxe alde koskorra zan. Ango atariko ate aldean eta ikulluko ate aldean etzan zabalune aundirik. Guk ganbarako belar ondu pillan egiten genduan lo. Etxea utsik zegoan da libertade ederra eukitzen genduan.

Au Debako partean dago, Eskapaio alegia. Debako urrutieneko basarria da. Zestudara askoz urrerago dago, Debara baño. Zestuatik ibiltzen zuten tratu guzia. Kale- ra joateko, beti Zestudara. Kontribuzioa pagatu edo beste orrelako eginkizunen bat zanean, Debara joango ziran; beste osteruntzean, ezta pentsatu ere errira joaterik.

Andik Agitara joan giñan. Aldaera egokia genduan. Auzorik urrena bezela zan eta errez aldatu giñan. Erremintak eta man-

tak-eta, bide luzean joateko, endredoa nai-koa izaten dute. Baso au ez daukat gogoa- an Palaziokoa zan edo Agitakoa zan; Agitako etxearen ondoan zala bai, badakit.

An pago aundiak ziran, da Nazario ta biok asi giñan an zerran. Lorentxo ere aspertua zegoan zerran, da motiboa ere bazuan aspertzeko. Amaika uda-aldi pasia egon bear zuan ordurako gain-zerran, da badala uste det zerbait.

Arek, alare, zerrari eltzen zionean, aparteko grazia zuan. Gizon aundia zan, izan ere, eta egokia zerra-lanean. Egurra lantzen asi zan Agitan, da zerran ere laguntzen zigun, egurra aurreratzen zigunean.

Besteak len bezela ari ziran: Antzorrei-ko bi anaiak, Indo-iturri ta Txankarta. Antzorreiko zarrena, Jose, trongo lantzen, ta beste irurak zerran.

An etzan lan askorik. Aste-paren bateko lana, eta bereala egin giñuzen.

An ere etxea utsik zegoan; Agitan bizi-lagunak alde egiñak ziran. Ango nagusi zarra beso motza zan. Ura an bukatu zan. Etxeko andre zarra ez dakit an il zan edo ez. Baña gazteak Arruara joan ziran bizi-tzera, ango semea ta erreña, ta pamelia an azi zuten: bi seme ta alaba bat. Zarrak an ere illak dira; orain seme-alabak bizi dira.

Agitako aitona beso motz ura ikusi izan genduan, ba, esku batekin laian. Esku bakarra zuan eta iru ankako laiarekin jardun oi zuan. Arek beso baten indar geiago zuan, beste zenbaitek bietan baño. Gizon aundia zan ura.

Basarri au ere Debako partean dago, Urruti au ere; Zestuatik urrerago askoz ere. Esan det len ere Eskapaioaren auzoa dala, eta orrekin dana esana dago. Auek ere Zestuatik ibiltzen zituzten beren tratuak. Basarri au Olazabalko etxe zarrekoak erosi zuten, da orain dana piñu sartuta dago.



Pare bat aste-edo egin giñuzen zerran an ere, eta ango lanak ere egin genituan, da urrengo saltua Ondarbasora egin genduan.

An ere zerra-lana zegoan, eta pago aundiak gañera. Asi giñan an ere, zerra-tokiak eginda. Tabloia ere gora atera bearra zegoan. Bide aldapa baten azpiko aldean ziran zerra-tokiak; eta, an bera bota ezkerro, beko errekarano joango zitezkean tabloiak. Tratua egiten danean, itzegiten da ori alako tokian jeneralean.

Baña Ondarbasoko pameliak etzuan alakorik merezi. Ez genion egin ere egingo an bera tabloiak bota ta orrelakorik. Orixe baño obeto konpontzen giñan aiekin. Eltzea ere berak egositzen ziguten, eta guk ez genduan batere endredorikan izaten. Lo ere oian egiten genduan. Ondo jardun giñan an.

Lengo zazpi lagunak an ere osatu giñan, da egun askoko lanik etzan an. Astebete bat edo geixeago izango zan, baño etzan lan aundirik, eta andik Anatxabanera joan bear genduan. Ondarbasoko pamelia despeditu genduan, da an artu erremintak eta mantak, eta martxa egin genduan.

Au, Ondarbaso au, Zestuako partean dago, Izarraitz mendiaren ondoan. Antxe basarri bakar samar bat zan. Oso ona ere etzan, da erre egin zan gañera, gu onera etorri ta gero. Ez dakit berriz etxerik egin zuten edo ez; baño, beste bi basarrirekin bat eginda, kooperatiba-moduan lanean asiak zirala aditu nuan.

Ondarbasotik Anatxabanerano aldatu giñan urrengo saltoan. Etzan aldaera ederra izan neretzat. Aizkoraz kargatuta joan nintzan, da oraindik ere min artzen detela iduritzen zait.

Bi orduko bidea urrean egongo da Ondarbasotik Anatxabanera, eta joan egin bear da. Etzan nik nai baño lenago azaldu Ana-

txabango basoa. Noizbaiten iritxi giñan orregatik; eta, nere aizkorak lurrean utzi nituanean, ez nintzan asarre. Ura deskantsua!

Nik nerea sentitzen nuan, da besteak etziran asko obekiago joango. Danentzat bazan an naiko karga.

Basoko aldaera txarra izaten da. Bildurrik aundiena beti aldaerari izaten nion. Bein lanean martxan asitakoan, ongi jardun oi da.

Ta an ere asi giñan, ba. Txabola egin ta kamaña ta oiek izaten dira lenengo eguneko lanak. Eta beti bezela egin giñuzen, da urrengo egunerako martxan jarri giñan. An ere betiko zazpi lagunak asi giñan.

An aritza zan, da onenakin tabloia egiten genduan; da adartsuakin, trabesa. Gu, Antzorreiko bi anaiak eta ni, asi giñan: Antzorreiko gaztea, Migel, nerekin, ura zerraren gañetik eta ni azpitik; eta Antzorreiko zarra, Jose, trongo lantzen. Beste zerra-eskua, berriz: Indo-iturri, gañetik; Txankarta eta nere anaia, azpitik; eta Itxaz Lorentxo, trongo lantzen.

Ura baso aundia zan, da jaietan etxera etortzen giñan. Goizean Zestuan meza entzun seiretakoa, gosalduta bakoitza bere etxeetara joaten giñan. Arratsaldean Ziolarra, eta an goiz aldera arte egon. Da goizean gorputz ederra izaten genduan guk Anatxabanera joateko...

Guk alare gaitz erdi, beste batzuek Ziolarrik etxera ordu beteko bidea bazeukaten da. Indo-iturritik, beintzat, bai. Ta atzera Ziolarri atarian pasa bear, Anatxabanera joango bazan biaramon-goizean.

Jaian basotik aldegiñarekin geure buruak asko ondatzen giñuzen; baño gaztea orrelakoxea izaten da, ta gero ere orrelakoxea izango da. Geuk jaian egindako okerra, geuk pagatu bear astelenean; baño etzegoan ifiori aitzakirik eman bearrik.

Arratsaldean beltz samar aritzen giñan lanean, da astearterako atzera lanean larunbatean bezela jartzen giñan. Asteak zuan egunik txarrena pasatu genduala ta pozak jartzen giñan, astelena pasatzen zanean. Parrandak, pena ta poza, biak ditu.

Astelenean egunez lanerako gaizki egoten da, baña gabean lotarako ondo; ta poz ederra bai orduan, gaba allegatzen danean.

Batean, Lorentxo ta Migel Antzorrei Aizarnako Ezenarrora joan ziran, zerra-lan piskaren bat zeukala ta. Lorentxoren anaia zegoan ezkontuta Ezenarron.

Aiek an ziran bitartean, nolabait ere moldatu bear, da Antzorrei Jose eta Txan-karta asi ziran trongo lantzen; eta gu, bi anaiak, azpitik eta Indo-iturri gañetik.

Len bakarka oituta azpitik eta laguna ondoan arrapatu nuanean, ezer etzan iduritzen zerratan egitea. Gure Indo-iturri ori asten da irrintzika, ta Anatxabango erreka aldeko ontzak esnatuak izango zituala uste det.

Bi egun pasa giñuzen ala, ta makiña bat arrastara tira genduan, ta bai makiña bat egur ebaki ere. Atzera etorri ziran Lorentxo ta Migel, Ezenarroko zerra-lanak egin-da, eta len bezela asi giñan.

Gure anaia Nazario andik laste reumak arrapatu zuan, eta miñak asi zitzaizkan; da ezin aguantatu ta etxera erretiratu zan. Sei lagun gelditu giñan. Irunaka jarri giñan, eta ala segitu genion, bukatu zan artean.

Beste egun batean, Ezenarrora joan giñan gari ebatera. An artu genduan, berriz, paliza! Len basoan nekatuta; ta beste lan ura ortik onerakoa! Gerrietatik txikituta gelditu giñan.

Urrengo egunean, tope-ziria jasotzera lurrera makurtu nai ta belaunakin egin bear jokua. Arrezkero ez nintzan iñon jar-

dungo gari ebakitzen itaiarekin. Ondorengo egunetarako ederki jarri giñan gu zerrretarako. Piskabanaka-piskabanaka atzera zerran ari giñala sendatu bear.

Lagunak oso onak nituan Antzorreiko bi anaiak. Lana errez egiten genduan guk. Alkarri lagundu ere bai. Alkarri piska bat lagundu edo piska bat kontra egin zer alde dagoan, ezin diteke sinistu ere egin. Egur bat zerra-toki aldera ekarri bear danean ere, egur lantzen ari danak bizkarrera jasotzen piska bat laguntzen baldin badu, mentaja ederra izaten da. Guk beti orrenbeste ta geiago ere egin izan genion alkarri.

Gu bertsoan igual aritzen giñan, zerran ari giñala. Afizio aundia zuten Antzorreiko bi anaiak, bai Josek eta bai Migelek, bertsoarako.

Gerran ibilli giñanean ere, Joserekin askotan egin genduan Valladolid-en bertsoan. Ura izaten zan nere bertso-tako laguna. Jose Antzorrei ta Anjel Indo-iturri, biak nere kintakoak ziran, ta alkarrekin joan giñan Valladolid-era irurok.

Nagusia, Alberdiñeko Jabier genduan; ez nolanaiko gizona. Aren itzak ongi pentsatutakoak izaten ziran. Tabloi-kastilloak egitera etortzen zan batzuetan. Beti zotkada ardo aundiarekin etorriko zan ura. Sekulan etzigun itzik esan: ez lan bat gaizki zegoanik eta ez "onela eginda ohea izango litzake au". Orrelakorik etzigun sekulan esan. Beti pozak egoten giñan gu gizon ura basora etortzeko. Alakoxe gizon gustosoan zan ura.

Gero nik ere baso koxkor batzuek erosi izan nituan; eta, Zestuan perian-da juntatzen giñanean, arek botillakada bat ardo atera ta ondoan jarriko zan, da kontsejuak ematen saiatu oi zan beti. Arek, zekiana erakusteko, etzuan eskusarik.

Amorraiak ere baziran Anatxabango errekan. Antzorreiko Migel zan oso artista amorraiak arrapatzen; eta guk, Jose eta biok, zerran egin da Migel libratzen genduan, ba; ta noiznai meriendatzeko amorroiak izaten giñuzen.

Ango lanak ere egin giñuzen, eta gure orduko lagunak, bat ez besteak, danak bizi dira. Txankarta bakarrik da illa.

Etxera etorri giñan andik, eta piska bat deskantsatzearen premia ere bagendukala eta etxean jardun genduan uda azken artan.

Garoak ebaki ta artoak bildu, ta babarrunak eta sagarrak. Etxean ere beti izaten da lana gogoia daukanarentzat.

Orretan bukatu zan gure milla bedera-tzireun da ogei ta amabosteko urtea.

# Lasturko San Nikolasetan

**K**ORTATXOREKIN tabernan askotan jarduten genduan bertsotan; batez ere Ziolarren, zenbat aldiz egin ote genduan? Antxe izaten zan gure billera; beti jaiari araxen biltzen giñan, eta gu, apaldu ta an jartzan giñanean, ixilik zeñek iduki? Ezta mingañoak lotuta ere.

Tabernan bertsotan ari danean, kezkarik gabe egiten da. Askotan ondoena alaxoxean ateratzen dira gauzak. Guk zenbat bertso eder alperrik galdu degun, Jaungoikoak bakarrik daki. Bertso bat ona aterako zaizu nundik dan ez dakizula, ta ura ez du iñork jasoko, eta antxe alperrik galdu esaten zaio orri.

Plazan ere bertsotan, Kortatxorekin Lasturren egin nuan lenbizi. Bildurrak nintzan asteko. San Nikolasak ziran, ango pestak.

Meza nagusitara joan nintzan, ta nik ez nuan pentsatzen danak neri begira etzeudenikan. Oso gaizki pentsatzen nuan; len bezelaxe begiratzen zidaten neri, baña alperrik izaten da. Bein ori pentsatzea naikoa da; batek ez du burutik nai orduko kendo beintzat.

Meza nagusia bukatu zan, da Debatik-eta jendea etorri egiten da pesta-aize orrekin, ta jende asko zegoan mezetatik ertenda.

Amaiketako piska bat egin genduan, da noiznai asteko onenean giñan gu. Kortatxo len ere zerbait jardunda egongo zan, eta ura asiko zala lenbizi; ala egin genduan tratua ta ala asi ere.

Kortatxok:

Ai, Uztapide biotzekua,  
asi gaitezen izketan,  
oso bikote parregarria  
ez gaude nere ustetan;  
batere ez dezu motiborikan  
ola egoteko kezketan,  
bildurrik gabe kantatu zazu  
San Nikolasko pestetan.

Uztapidek:

Egun on eta ongi etorri,  
Kortatxo nere laguna,  
estimatzeko modukua da  
zuk dezun mingain laguna;  
bildurrik gabe kantatzia da  
guk egin biar deguna,  
nik nai baño len ez da pasako  
Lasturko pesta-eguna.

Kortatxok:

Dudarik gabe zuk nai baño len  
ez dala juango egunik,

emengo lanak errez egingo  
ditugula uste det nik;  
etzazu uste egingo eztan  
lanik emango digunik,  
eta ez pentsa bildurra zertan  
idukirikan degunik.

#### Uztapidek:

Lan berria zan eta bildurra  
aundia nun aurrenien,  
eta alako gauza triste bat  
senti nuan barrenian;  
asmatu ezin da gelditu leike  
gizona bearrenian,  
asteko nuan bildur geiena,  
pasa naiz okerrenian.

Zerbait orrela izan zan gure bertsoetia.  
Kortatxok etzuan nik aña bildur idukiko;  
baña batere bildur edo kezkarik gabe bertsolari oso ona ezin izan leikela pentsatu izan det nik. Nere ura geiegikoa izango zan, baña asmatu zazu, ba, tamaña.

San Nikolasetan Lasturren zer pesta egiten ziran galdetuko luke zenbaitek. Pestak iñon baño ederragoak, eta esango dizut zergatik ere.

An ballara aundi bat osatzen da pestak egiteko. Asi Lastur-goia, Lastur-beia, Arbizkua-aundia, Arbizkua-txikia, Larraskandak bi etxe, Elorrotsu ta Otolá; gu ere, Endoiakoak, lau etxe, partean izaten giñan batzuetan: Ziolar ta Txortxi, Akain da Uztapide.

Etxe batean zezenak egongo ziran; beste batean aizkolaria; beste batean arri-jasotzallea; beste batean korrikaria; beste batean dantzari ederra aureskua ateratzeko; ta bestean bertsolaria. Kortatxo ta ni an giñan bitartean, etzan gure paltarik izaten.

Ziaran-zar ere Lasturkoa zan, arri-jasotzalle ederra; Soarte ere bai; ta lenago, berriz, Agerre ere Lasturkoa zan. Lopetegi

Azpeitikoa zan, baña beste Agerre bat bazan Lasturko Agerrekoa, Arteondorekin jotakua. Biak berdín egin izan bear zuten.

Korrikalariak ere izan dira Lasturren: Artajalái, Albitzuri, Ziaran-zar arri-jasotzallearen anaia, Ariztondoko Otolá ta Zelailuze; eta danak etzaizkit akordatu ere egingo.

Aizkolariak ere, bertako pasara egiteko aña beti izan dira. Aranetako Mateo bat eta Elorrotsuko il zan ura ikusi nituan batean batalla ederra egiten. Eta, atzeneko izan nintzanean, berriz, Aitolá-zarreko bi anaiak Otoláko bi anaien kontra oso joko estua jokatu zuten.

Orrelaxe, bakoitzak al duana egiten duan, da danak duan, debalde; eta gastu gutxirekin pesta ederrak Lasturren beti.

Orain bertsolariak onen-onenak nai izaten dituzte, eta oiek pagatu egin bear. Zezenak ere batzuek on samarrak izaten dira, eta oiek pagatu egin bear. Jotzera egiten duan edo ez probatzeko ere eramaten dituzte; aiek ez dira pagatzen.

Ezta bertsolariak ere, Kortatxo eta ni izaten giñanean; bat Paloneko tabernako balkoitik eta bestea eskoláko eskallaretatik kantatzen genduanen.

Eta gero zezenak toriatu ere bai. Urte baten, beintzat, gogoratzen naiz, bertotan egin da gero zezenak toriatzen ibilli giñala. An edozein izaten da torero. Zezenak ere adar-bolákin, eta ez da adarra sartu-bildurrik izaten.

An egiten dana da bakoitzak al duana egin, danak borondate onarekin. Ori dagoan tokian, pestak bezela edozer gauza egingo da.

Or ikusten dezu Lasturren egiten dirala San Nikolasetan korrikariak, aizkolariak, arri-jasotzalleak, bertsolariak, aureskua ta zezenak. Oiek danak egin orduko, arratsaldea joan egiten da.

Goizean meza nagusia. Orduan ere beti izaten dira bertsolariak, zezenen bat edo bi eta arri-jasotzallaren bat. Eta gero, pilarmonika nai dutenak, dantzan egin. Ortan ere, pilarmonika jotzen ere, Sakabia ere angoa da; San Nikolasetan, beintzat, Las-turrerako egiten da.

An bertsolariak baldin badira, basarritarrak an geldituko dira bazkaltzen, Las-turko tabernan. San Nikolas egunean etxean bazkalduko dute. Len gonbiatuak izaten ziran egun ortan. Orain oitura ori asko galdu da. Baño orain ere egun ori etxerako izango da. Bertsolariak andik urrengo egunean izaten dira; basarritarrak ere orduan gelditzen dira bazkaltzen.

Gazteak, berriz, apaltzen. Neska ta mutil danak an geldituko dira. Mutillak gonbiratzen dituzte neskak. Onezkero, batekoz bestera jarri da gauza: neskak asiko

ziran mutillak gonbiratzen. Orain berak dira jaun da jabe. Irabazi ere, berriz, gaur gizon batek baño geiago egiten dute, ta zenek burutu oiekin?

Korrida ari dan denboran, bandeja pasa izan dute, zezen bat-edo palta dala, ta dirua bildu ere egiten da piska bat. Alako pesta ederra egin da gañera dirua boltsillotik ateratzea ere tristea da. Baña ala gertatu oi da askotan: pestak egiten aurrena dabillanak geiena galdu.

Gazteak komixio bat jarritzen dute, eta aiek egiten dituzte pestak. Jakiten dute nun zer mutil dauden eta aiek zer egin lezaketen: bakoitzak zer alderdi daukan.

Kortatxori ta neri ere komixioko gazteak esan oi ziguten; baña an danak ezagunak ziran da askoz okerrago bertsoan egiteko. Guretzat, zenbat eta arpegi ezagun geiago izan, orduan da okerrago.

# Urrategi

**B**ATEAN, Anatxabanen ari giñala, Azkoitiko Urrategin zerbait ere pesta zan, da Kortatxok eta biok ara bertsozara joateko deia genduan. Urruti zegoan Anatxabandik, eta larunbatean atera nintzan, Urrategira joateko.

Gabean lo egiterako Uztapidera etorri, ta an deskantsatu. Igande-goizean atera Uztapidetik, eta Madariagara seiretako mezetara. Bi ordu bear ziran bidean, eta laurretarako aterako nintzan etxetik.

An meza entzun da gosaldu. Kortatxo an izaten zan igandero mezetan. Apetitua ere ederra egongo zan; orain baño obea. Orduan txuleta ez genduan utsik eskatzen; arrautz-pare batekin edo orrela. Ta, txuleta aundi samarra bazan ere, ez guregana etorri aurrean ezer bai ote zegoan sobrean, ederki garbituta egongo ziran da.

Gure arrantxua egin da erten degu, ba, Urrategira, ta an ere beste ordu bete baño geiago bearko zuan, ba. Beintzat, iritxi gera Urrategi ortara. Bertsoan egiteko, artean ere ez gendukan animo geiegirik, eta saldaren bat edo amarretakoa zerbait ere eginda indartu giñan.

Artean bertsoan oso gutxitan egiña nintzan ni. Bakarren batean, Lasturren edo olaxe, Kortatxorekin jardun genduan; baña plazan artean ez genduan eskarmenturik.

Eguardia etorri zan. egin genduan gure egiteko ori ta deskantsatu giñan.

Gutxi gora-bera, onelatsu izan ziran gure bertso batzuek Urrategin.

Uztapidek:

Etorritzeko esan ziraten onuntza bertso-lanera, neri juatia gustatzen berriz deitzen dan leku danera; sei ordu egin ditut gutxinaz Anatxabandik onera, nai ordurako ez naiz bildua Kortatxon aldamenara.

Kortatxok

Urrategiko deia nik ere idukia det goguan, bein jakin nuen momentutikan etorri asmoz nenguan; iñoiz Kortatxon pentsamentuan pakerikan etzeguan, orain kunplitu ta gelditzen naiz patxara ederraguan.

Uztapidek:

Guk egiñalak egingo'itugu ballara onekin kunplitzen, gauz ori lortu ezin danian ez degu gutxi supritzen;

entzule onak atentziua  
dakizute idukitzen,  
nai dan guzian orrelakuak  
ez dirade egokitzen.

#### Kortatxok:

Bertsuarekin amets egiñaz  
ibilli gera gau ta egun,  
juan ezkeru saiatu gabe  
ez naiz geldituko inñun;  
uste ez dala gerta liteke  
bat memoritikan illun,  
Urrategin lenbiziko aldiz  
ia portatutzen degun.

Gero bazkaldu eta arratsaldean beste  
saioa egin, eta andikan libre giñala esan zi-  
guten. Arratsaldean, bertsoan ere lasaia  
jardun genduan, eta obekiago egin ere bai.  
Goiza beti izan da neretzat tristea bertso-  
tarako.

An gaba ere aurrera zijoan da abitu bear  
etxera. Kortatxori lagundu bear nion len-  
bizi, eta etorri gera Azkoitiko Egurbidera  
ta jo ditugu an ateak. Kortatxok bazuan an  
amistade piskaren bat neskatxaren bate-  
kin, da sartu gera. Ta iru neskatxa an, bata  
baño bestea ederragoak.

Kontuak esaten asi giñan; kafea ere be-  
rotu ziguten, eta or jo digute gabeko ama-  
biak, akordatu baño len. Etxera abitu be-  
ariko genduala ta despeditu giñan neskatxa  
oiekin.

Abitu gera Izarraitzko bide gorria ar-  
tuta, eta Marikutzko putzura arte ez det  
uste itzik egin genduanik. Ordu bete baño  
geiagoko bidea zan, da pentsatu gu nola  
etorriko giñan, ala gobernatuta itzik ez egi-  
teko. Denbora bateko sutako lagatza baño  
aldapaago zan bide ura. Etorri bearko ixi-  
lik!

Marikutzko putzura igo genduan, an  
piska batean itxogin genduan; baño Ana-

txaban gogoan neukan eta mogitu egin  
bear, ta Kortatxorekin partitu nintzan bide-  
-kurutzean. Etzan luzaro egon bearrik par-  
tieran ere. Artean ere beste ordu beteko bi-  
dea bazegoan gure etxera.

Andik etxera nentorrela, Arrate sako-  
nean ari ziran Albitzuriko Jose Mari ta Ze-  
lailuzeko Jeronimo ikazkintzan, eta ikatz  
ateratzen ari ziran.

–Kaixo, mutillak! Egun ona Jaungoiko-  
ak dizuela! –esan nioten nik.

–Bai zuri ere! –aiek erantzuna–. Ana-  
txaban etziok urrean...

–Ez, motell! Naiago nitek euria egingo  
balu, zerbait baño! –esan da aurrera.

Artean ere beste ordu erdi bat baneu-  
kan. Etxera allegatu naiz, ba, alako batean.  
Eguna argitzen asia zan, da euri-bruma as-  
ten zuan.

Oiaren gañean etzan nintzan, baño  
Anatxaban gogoan neukan, da ala ez nuan  
lorik egiten. Da laneko arropak jantzi ni-  
tuan eta martxa egin nuan.

Nere beste lagunak ere an ziran, ba,  
bezperan Urrategin: Antzorreiko bi anaiak  
eta Indo-iturri; baño aiek jaiari Lasaora eto-  
rriak ziran Urrategitik. An ederki deskan-  
tsatu ta goizean bertatik bertara basora  
joan ziran aiek.

Nik, berriz, bi ordu ta erdi baneuzkan  
etxetik basora; baño danak pasa eta antxe  
presentatu nintzan ni ere.

Orduantxe ari ziran zerra-tokia egiten  
batzuek, eta beste bat gosaria preparatzen.  
Orrelaxen, “Kaixo, motillak!” nik; eta  
“Ongi etorri!” erantzun zuten aiek.

Etzan inoiz aña itzegein bearrik. Egun  
artan eguardia arrapatu genduan eta bale!  
Bazkaldu eta siesta egin, eta berriz pa-  
rranda egiteko moduan. Baña astea an pa-  
satzeko etsian egoten giñan.



# Arozpide

**A**ROZPIDEKO iru anaiak, Juan Mari, Isidro ta Jose Joakin bertsolariak ziran, da Isidro ere etzan izketan makala.

Juan Mari ezkondu zan, da bi alaba bazituan. Bat etxera ezkondu zan, da Azkoitiko aguazil edo merio sartu zan aren gizona, ta il zala aditu nuan. Bestea, berriz, Andutzko Saletxera ezkondu zan alaba gaztea, ta orain Soasun bizi da. Bi basarri auek Itziarren daude. Onek ere gizona illa izan bear du, ta pameli aundia du.

Beste bi anaiak, berriz, mutilzarrak ziran, Jose Joakin da Isidro. Aiek morroi edo orrela ibilli izan ziran. Jose Joakin ori or, Azkoiti alde orretan-edo, oso ezkutatuta zebillen, da Isidrori galdetu omen zioten:

–Zer dio Jose Joakin orrek, edo nun dabil? Aspaldian ez da onera azaldu!

–Or Azkoiti alde orretan da.

–Orain ere majoa egongo da ura?

–Bai! Nik ez det olako landare-klaserik ikusi oraindik! Zenbat lekutara aldatzen dan ori, ta beiñere ez da igartu oraindik!

Gizena egoten zan, ba. Jose Joakin da Juan Mari beti gizenak egoten ziran; da Isidro, berriz, plakua.

Juan Mari ori basarri kaskar batean bizi zan. Atxuritxo zuan izena, ta siñale txarra. Atxuri beste bat zegoan an goraxeagoan.

Ura ohea zan. Atzeneko “txo” orrek asko itxusten dio izena ere, eta ala zan ura: basarri eskasa.

Orain utsik egongo da ura. Atzeneko bizi-lagunak aiek izango ziran an. Juan Mari bera, berriz, aspaldi il zan. Aiek gure aurreko gizaldikoak ziran, gizon oiek, eta gu ere zartu giñan da pentsatu besterik ez dago.

*Atxuritxoko errementaria* esan oi zioten Juan Mari orri, eta noiz edo noiz errementaritzan jarduna izango zan ura.

Bertsolari egokia izan bear zuan arek. Nik bein ikusi nuan bertsoan ura, mutil koskor txikia nintzala, Lasturren Zubeltzurekin, eta nik ezin nezake esan nolakoa zan.

Aren bertso bat gogoan daukat oraindik. Anaia Jose Joakin da biak neska bati laguntzeko asmoan joan omen ziran. Atzenan, beintzat, Juan Mari joan omen zan neskarekin, eta orduan kantatua. Nik bi ikasi nituan: bat, Jose Joakiñek kantatua lenengo; ta gero, Juan Marik kantatua; baña Jose Joakiñena aztu zait, eta Juan Marirena nik onelaxe ikasi nuan:

Aizu, esango dizut  
lenengo arrantzan:  
zu're juan ziñan baña  
beste bat e an zan;

aspaldian nebillen  
naikua balantzan,  
ez egoteko esan dit  
aren esperantzan.

Atxurixoko Juan Mari ori Santa Agedaren eskera atera omen zan batean kuadrillaren batekin. Gaba aurreratu ezkeron iritxi omen ziran Ziaren-zarrera; bi bizitza dira, eta denbora bateko karga-jasotzallearen etxean Patxiko zuan aitak izena. Luzaro ari omen ziran kantari eta iñor ez jaitkitzen, eta kuadrillakoren batek esan omen zuan:

–Alperrik ariko gaituk, garaia ere txarra dek orain da!

Ta Juan Marik orduan onela koplatu omen zuan:

Etixian bada Patxiko,  
oraindik ez det etsiko;  
limosnarekin oraintxe laste  
ez ote zaigu jetxiko?

Ori kantatu zuanean, bereala piztu omen zuan argia goian, eta bai limosnarekin etorri ere.

Jose Joakin, berriz, beti katarroarekin egon oi zan. Bertsoa bota ta “Katarro txarrixonek izurratzen nau!” esan oi zuan, ez tarriari elduta. Batean nik esan nion:

–Zuk beti badezu katarroa!

–Bai! –erantzun zidan–. Aundia ez da, baña luzea tisiko bezela!

Ura apizio aundikoa zan. Bertso jakin samarrak izaten zituan baña.

Bestea zan bertsolaria, Juan Mari. Txiritarekin ere jardun izan omen zan ura, ta ala esan omen zion Txiritak: etzuala uste alako bertsolaririk Gipuzkoan zegoanik.

Jose Joakiñek onoko au askotan kantatu zuan:

Gizonak ez du bear  
orrelaiñ astua,  
denbora pasatu ta  
aurrera kastua;  
nik zuzen eamango det  
nere arrastua,  
oberik botatz’ ez badezu  
nik daukat ostua.

Ostua ta txapela ta oiek Azkoitiko eserak dira, ta ura ere Azkoitikoa zan; urrutiz zegoan Azkoititik Arozpide, baña Azkoitiko partean.

Isidro, berriz, artzantzan ibilli oi zan; da batean, Ugarte-berrin artzai zebillela, Itziarko Soasu-aundian egoten ziran ardiakin; da Ugarte-berriko nagusia, Faustino, illea piska bat artu naian-edo, Soasu-aundian neskazar bat egon bear zuan aberats-otsekoa, ta ala esan omen zion Faustino Isidrori:

–Au berau ez dek atrebituko ta guk esan bearko zioagu Soasuko neskazarrari–edo!

Isidroren erantzuna:

–Egon zaitez, beintzat, piska baten, akaso bera etorriko da ta!

Ona zegoan ura albotik illea artzeko! Izketan orrelakoxe egokia zan ura.

Oien anai osoa etzuan izan bear, baña nik beste bat ezagutu nuan Arozpiden, Erramon izenarekin; oien anaia erdia edo ez dakit; aita batenak eta ama birenak edo orrela ziran.

Zortzi seme zituan Erramon orrek, bata baño bestea bikañagoa, eta alabarik bat ere ez.

Apustua jokatu zuten; ez dakit Azkoitiko Aizpurukoa edo zein izango zuten kontrarioa. Besteak ere aita sei semerekin edo orrela izan bear zuten. Bi pameliak bei bana etxetik izatekotan da proban jokatu ere. Arozpidek irabazi zuana badakit. Bi

gizon geiagoren laguntza zer dala uste dezute? Orduan Arozpiden ziran bezelako gizonak gañera.

Arozpide beti izan da istoriako etxea. Guk ez genduan ezagutu, baña Arozpiden izan bear zuan gizona, Erramon da oien osaba edo ez dakit zer izango zan, baña aizkoran da korrika kontrariorik etzuana.

Orrek egin omen zuan: len ere bere lagunak danak dirua jokatu ta atzean Arozpide ori. Ta aldegin omen zuten plazatik, begira egon ezinda, galdu zutela etsita. An omen zeuden triste, ta besteak segi lanean eta jokua irabazi.

Ta, aizkorak bizkarrean zituala, an presentatu omen zan bere lagunetara; ta orduan esan omen zien bere lagunai, aizkoran ari zan bitartean ez etsitzeko, bera ere esperantzan ari zala artean da. Guk ez gen-

duan ezagutu; aita zanari aditutako istoriak dira auek.

Arozpide etxe koskorra da; malda aundiak ditu. Ango soroan otarra batek iges egiten badu, kostako zaizu berriz ekartzea. Artalde bikaña izaten zan an beti, eta ardi-toki ona etxetik atera ta bertan; pausorik egin bearrik ez. Ardiak nunai, uda-partean beintzat, jana aukeran. Etxearen gañeko aldean ardi-txabola, ta arditakoa egiten erraza.

Zestuako Baltzolan negua pasatzen egon oi ziran denbora baten Arozpideko ardiak, eta ondo begiratuta pasa oi ziran gure atarian; ango ardiak antxe pasatzen ziran, bai bera ta bai gora.

Gaur ez dago egongo orduko konturik. An ere piñua ugari bada, ta ardi-tokia ez da len bezelakoa egongo. Arozpidetik gorako kasko aiek danak piñuz ornituak dira.

# Iturzaeta

**I**TURZAETA beste bertsolaria ezagutu genduan. Ura, bizia geiena lanean da errezatzen pasia izan bear zuan, bertsotan ari ez bazan beintzat. Ura, gizarajoa, bideren bat edo luberriren bat, beti zerbait orrelakoa egiten ari ez bazan, ura etzegoan ondo.

Gure amaren lengusua zan ura. Gizon atsegiña zan. Askotan etorri oi zan Zestua perira, ta jaian mezetara ere bai iñoiz.

Batean, Prantzes-Txikia ta biak an juntatu omen ziran, da Iturzaeta mezetan izanda eta bestea an omen zebillen. Baltzola-zarra edo erdi ipurdiko bertsolari bat bazan Zestuan, da Prantzes-Txikiak eta Baltzolak biak bertsotan egin omen zuten, eta ala esan omen zuan Prantzesak:

–Banoa oraintxe paraje auetatik!

Ta Iturzaetak:

–Nai badezu geroxeagoan da nai badezu berealatik! Ez dio inporta zu emendik joanagatik!

Azpeitiko Odria ballaran bizitzen zan Iturzaeta, Gorostieta izeneko basarri batean. Basarria ez dakit nolakoa zan. Artalde a idukitzen zutela badakit.

Batean, Basarri ta ni Azpeitiko plazan bertso-saio bat egitera joanak giñan, da an zan Iturzaeta ori ere. Arek gaiak jarriko zizkigula badakit nola arrimatu zitzaigun.

Bai jarri ere: bati misiolaria ta besteari pekataria jarri ere egin zizkigun. Ortik aurera ez daukat gogoan zer jarri zizkigun.

Iturzaeta ori Azpeitiko Elizalde basarrian jaioa izango zan. Anaia bat bazuan *Elizalde-Aundia* esaten ziotena. Beti trozotan-da ibilli izan zan.

Ura, batean, bai omen zijoan Donostitik Azpeitiara, gure Elizalde-Aundi ori. Zumaiaiko estazioan jende asko sartu omen zan trenera, ta batek galdetu omen zuan:

–Zer da Zumaian onenbeste jende trenera etortzeko?

Ta:

–Probia! –esan omen zuan batek. Eta besteak:

–Probia obeto izango dek, bai, Zumaian ere!

Eta Elizalde-Aundiak segituan:

–Emen probia obeto izaten al da? Azpeitian batekoz bestera: an aberatsa obeto!

Elizalde bera ere aundia zala, baña semea aundiagoa. Azpeitiko Erdi-kalean tabernarekin egon zan; eun da larogei kilo izan bear zuan, da ala ere berreun kilo egin nai omen zuan.

Gazterik il zan; ez dakit gantzak alkar jota edo nola bukatu zan; baña atzenean ere etzan goseak illa izango.

Ni ara joaten nintzanean, ollasko otzarekin ase ta mai-punta baten jarri ta lo egin oi zuan; mostradorean egon izan zan beste batzuetan. Jendea segiran etorri ezkeron, ondo; baña, bestela, loarekin gaizki ibilli bear arek.

Korrika ere jokatu zuan Azpeitiko plazan beste tabernari batekin. Azpeitiko Kojuaneko tabernaria zan bestea. Ura ere eun kilotik-eta gora izango zan. Galtza motzakin jokatu balira, jende geiago joango zan ikustera; baña apenas izango zan joko aundirik. Elizaldeek galdu zuala aditu nuan nik.

Iturzaeta orrekin bertsoan egin izan nuan nik. Ez dadukat gauza aundirik go-goan, baña batean onelatsu izan bear zuan berak bota zidana.

Iturzaetak:

Nere barrenan senti dedana  
esango det beriala;  
au, badakizu, ixildu eziñak  
esan arazten diala:  
ez al dakizu zure ama ta ni  
lengusu egiten gerala?  
Orrek esan nai du aurrekoak  
anai-arrebak zirala.

Uztapidek:

Zuk diozunez, nere amakin  
lengusu egiten zerade;  
kontu orretan zu ta ni ere  
txit aide urrak gerade;  
mundu onetan ezjakiñian  
asko egoten dirade,  
bere egizko iturburua  
nun dan enteratu gabe.

Iturzaetak:

Nik uste nuen bazekizula  
Iturzaetaren berri,  
beñere olako albisterikan  
ez al dizute ekarri?  
Gaurko egunian ezaguerak  
eman dizkagu alkarri,  
urrengo baten nere ondora  
beldurrik gabe etorri.

Uztapidek:

Orain artian zure berririk  
iñork etziran ematen,  
neronek ezer ez nekiela  
zu asi zera esaten;  
lagun onaren bildurrikan nik  
sekulan ez det izaten,  
au esaten det ez dakitenak  
seguru jakin dezaten.

Beste baten, berriz, bertso au kantatu  
nion nik:

Parentelakin ez naiz izandu  
gaizki portau zalekua,  
jan eta edan ondo egiñaz  
eztegu igualekua;  
iñoiz edo bein juaten bazera  
ni bizi naizen lekua,  
ardi gizen bat badaukagu ta  
kenduko diot lepua.

Gutxi gora-bera orrelatsu izan ziran  
gure bertso oiek, eta ura orrelakoxe gizo-  
na zan. Ildakoan asko ondutzen omen  
dira; baña, bizirik zan arte ere, ona zan  
ura.

# Santa Agedaren eskean

**S**ANTA Agedaren eskean ere ibilli giñan batean Kortatxo eta ni, biok. Urrustilgo Arsuaga duntziñeroa, orduan Lasarten bizi zana; Itxaiz Arruakoa danborrarekin; Madariagakoak beste bi pilarmonika-jotzalle: bat Madariaga-zarrekoa eta bestea Izagirrekoa. Beste amabi-amairu gazte baziran atzetik jarraitzen zigutenak. Eta zenbat lotsa eman ote genduan guk egun artan? Mutillak, danak galtza zuriak jantziak eta brusa zuriak.

Gure etxetik Arrua aldera asi giñan. Madariagako bi pilarmonika-jotzalle ta Kortatxo etorri ziran gure etxera, ta beste gazte batzuek ere bai. Endoia-gaña artu ta Arruara jetxi giñan.

Kortatxok eta biok txandan koplutzen genduan: ate baten batek eta bestean besteak. Ala, Itxaizen etxera allegatu giñan, eta an neri tokatu zitzaidan koplaztea. Limosnarekin etorri ziranean, atera ziran tanborreroa ta duntziñeroa. Len ez det esan, baña orain gogoratzen naiz: bi panderista ere bagiñuzen kuadrillan.

Eta, batez ere duntziña asi zanean, nik ez nekian nun nengoan ere. Alakoa zan ura duntziñeroa ere. Ate-ondokoa arek jotzen zuan bezela beste bati ere kostako zitzaion jotzea. Bi atetan koplatu genduan. Alakarren ondoan ziran bi etxeak.

Eta, an goitik abitu giñanean, jo zuten bidekoa, martxa, duntziña ta danborrak. Zoragarria zan ura! Ni orduantxe ezeren bildurrik gabe jarri nintzan. Ez pilarmonika-jotzalleak txarrak ziralako; Madariagako aiek oso onak ziran; baña ate-ondoan eta bideko martxa jotzen utzi egin bear zaio duntziña ta danborrari.

Joan gera Iñaberrietan barrena San Llorentetik Beduara, ta an urean pasa; irrioa zegoan da zubirik ez. Irrio artan Eskazabalen pasa giñan emeretzi lagun, danak kabarra edo olako batean, ta ez dakit nola ez giñan uretara erori. Orduantxe berriz piztu giñan gu.

San Migel Artadi artu ta Zumaiara. An bazkaldu egin bear zan, da bat bialdu genduan aurrera bazkaria enkargatzera; ta besteak zubi bien bitarteko etxeak koplatu bear bagiñuzen.

Guardiazibillak ere antxe zeuden bitarte artantxe, eta guk danak koplatu bagiñuzen. Etzan guri limosna eman bear etzizunik egun artan; danak diruarekin etortzen ziran orduan; entenitzen zutenak eta etzutenak.

Zubi bitarte ori pasa genduan, bazkaltzera joan giñan. Bidekoa joaz erria dana esnatu genduan, da geok bazkaldu.

Urrengo, andik atera giñanean, nora abitu pentsatzen etzan errez. Ango ume kos-

korra eta ango atsoa! Ta gizonak ere bai. Nik uste det Zumaiako erria dana antxe zala. Bagenduan zeñek lagundurik eta zeñek etxeak erakutsirik, gu an, emeretzi gizon galtza zuriak jantzita, ikusi giñuztenean.

Bi pilarmonika ta bi panderixta, duntziña ta danborra, eskandalo ikaragarria ateratzen genduan guk. Portal batean sartzen giñan, da bi mutil, gu koplatzen ari giñan bitartean, goiko pisuak pasatzen ibiltzen ziran, goiko tellatuaren ondoraño. Guk beian portalean edo bebarruan koplatu, onelaxe:

Gazte batzuek lagun artuta  
atera gera eskera,  
lengo oituran ospatutzeko  
Santa Agedaren bezpera.

Oitura onek jarraitutzen du  
oso denbora luzian,  
gure aita ta aitonak ere  
onela ibiltzen zian.

Urrengo etxe artatik ateratzen giñanean, zeñek alkar billatu? Jende tartean galdu egiten giñan, Baña ala ibilli obe da, bai, Santa Agedaren eskean, ateak itxi ta nor-

bera gordetzen dan tokian baño. Urte artan ondo atera giñan; gustora.

Gero illundu zigun, Zumaia pasa genduaneko, ta orduan ziran komeriak. Lengo Zumaiako jende ura palta; ta, gañera, basarririk basarri asi bear, da kuadrilla bi puska eginda.

Nik suertea izan nuan: kamioz kamio baztarreko etxeak koplatuta etorri giñan Arrua errekarano. Kortatxo, berriz, Endañeta ballara ori artuta, Marduetxe-berritik Olaberrian barrena, Presa-aldeetik Txarrantxolara, eta andik Ziolarra.

Gu, aiek etorri ziranerako, an geunden Ziolarren. An baratzuri-zopa jan bat egin genduan; da, gu urrengo akordatu giñanerako, eguna zabaldu zuan. Bakoitzak al zuan bezela etxera, ta urrengo jaiian Santa Ageda eskeko jana.

Orduan beste berritu bat emango genion eskeko ibilli-aldi orri, eta bazkaldu ederki. Lengo soñu-jotzalleak eta danak juntatuko giñan, eta Kortatxo eta biok beste bertso-saio bat egingo genduan.

Gaba aurreratzen zanean, "Urrengo urtera arte!" esan alkarri eta ortan bukatukozan gure puntzioa.

# Tolosako txapelketa

**M**illa bederatzireun da ogei ta amabostean zan Tolosan bertsolarien konkurtsu edo eliminatoria bat izan zana. Ni ere apuntatuta nengoan Azpeitira joateko, eta nere kezkek banituan nik ere; eta joan bear nuala pentsatu nuan Tolosara, ta baita joan ere.

Abendua izango zan, ta igandea(1). Etxean bazkaldu ta jetxi nintzan Zestuara; an Urolako trenan artu ta Azpeitira joan nintzan.

An, Tolosara pelota-partidora joan bear zutenak bazeuden korredore batzuek; eta, ola, aiek tokia bazeukatela tasisean da pis-ka baten itxogiteko.

Aiek preparatu bitartean kape bat artu nuan, eta noizbaiten azaldu ziran aiek ere. Abitu giñan, da baita iritxi ere Tolosara.

Aiek "Goazen prontoira!" esan zidaten neri korredore aiek, baña etzegoan orduan Tolosako prontoian ni eramateko partidorik. Nik bertsolariak ikusi bear nituan derrior, da baita joan ere.

Bertsolariak batzokian ziran. Sarrera nunbaitetik lortu nuan da sartu nintzan batzoki ortara; eta alako batean bildu ziran bertsolariak ere.

Ala, lenengo, ongi-etorria edo agur bana berak nai zuten bezela kantatzea libre zuten. Bina izango zan. Aiek etxean pentsatuta eraman zitezkean. Danak illaran ederki kantatu zuten.

Bederatzi bertsolari ziran: Txirrita ta Saiburu, Txirritaren lengusua; Ibarrako Ezeiza, Irurako Moxua ta Andoaingo Etxeberria: oiek bost eta lau Asteasukoak: Ondartza Bautista, Pantxo zarra, Ugartemendia eta Txapartegi.

Gero gaia obligatua zan, da Gabon edo Olentzeroetako oiturak esan bear zituzten. Aurreko urtean, Donostian, euskera edo euskal gaia eman izan bear zuten, da batzuek ura gogoan eta etxean pentsatutako bertsoaren batzuek igual eramango zituzten.

Irurako Moxua, beintzat, nabarmendu zan. Arek etzuan Gabonik eta Olentzerorik aitatu; Sabino Arana Goirirekin asi zan eta ortan bukatu zan aren saioa. Baña arek ainbat txalo irabazi zuanik, egun artan etzan izan besterik; arek ainbat parra eragin zuanik ere ez. Arek baño obekiago gaia erabili zutenak izango ziran, baña uraxe grazian erori zana an.

Beste batzuek baziran: Lujanbio bat, konparazio baterako. Onela kantatu zuan:



Gabonetako oitura zer dan emango det aditzera; ni ez nijua sentitzen dedan gauzarikan ixiltzera, al baldin bada jarri diraten gaiari zuzen eltzera. Basarrietan zer egin oi dan gogoratutzen al zera? Kapoi paria nausiteira ta bakallagua etxera.

Beste bertsorik egun artakorik ez det gogoan ola esateko.

Gero, opizioak emanda eta puntuak edo asierak bestek emanda ere bai. Gero atzenean agurra, eta ala bukatu zan egun artako bertso-saioa.

Orduan etziran ondo probatzen bertsolariak, nere ustez. Momentuan bertsoa kantatzen oso ona etzanak ere, asieran bi bertso ta akaberan beste bat edo bi etxean pentsatutakoak kantatu zitazkean; beste dozen erdi bat bertso izaten ziran danak ere, eta etzan orain aña prueba egiten orduan bertsolariakin.

Juradukoak, don Manuel Lekuona, Ariztimuño apaiza, Joseba Zubimendi, Olaizola, Txomin Olano ta Basarri edo olako batzuek izango ziran; jeneralean oiek ibiltzen ziran orduan.

Danen gustora etzan juzkatuko an ere, baña lenengoa Txirrita zarrari eman zioten; bigarrena ta irugarrena berdin, Lujanbio Txirritaren lengusua eta Andoaingo Etxeberriari; laugarrena, berriz, Ibarrako Ezeizari, Orrelaxen banatu zituzten ango sariak.

Asteasutarrak premiorik gabe gelditu ziran. Batzuek jardun ziran zerbait esaten, baña alperrik; juradua ortarako jartzen da eta etzuan balio izan jendearen jardunak.

Premiorik etzutenari eman zioten zerbait gastuak egiteko; amar pezeta edo iru duro edo orrelako uskeriren bat izango zan orduan. Lenbiziko premia ere geienaz eun pezetako bat, da ortik pentsatu atzenekoak zenbat izango zuan. Orduan etzan dirua orain bezela izaten.

Dana dala, nik apari ederra egin nuan, eta bertsolariak zer moduz egin zuten, esamina sarri egiten nuan. Nik uste baño obeak ziran bertsolariak. Artean ez nituan ezagutzen. Bat bakarrik, Batixta Kortajarena, zan nik ikusitakoa. Beste zortzirak egun artan ezagutu nituan.

Tolosan ere lenbiziko aldiz orduantxe iritxi nintzan. Ortik pentsatu mundua dexente korritua nengoala ni ordurako ere... Guk bertsoan egitea etzan arritzekoa ere, ainbeste ikusi ta gero...

An baziran beintzat ni ezagutzen niñuten lagunak, eta bildu nintzan aietara ta gaba aiekin pasa nuan berandutu arte.

–Ikusiko diagu ik zer egiten deken Azpeitin! –esaten zidan aietako batek.

–Nik zer egingo diat, ba? Ezer ere ez! Ni baño bertsolari obeak bazeudek emen makiña bat! –esan nion neronek atzera, ta orrelaxe gure kontuak.

Gaba aurreratzen ari zan da Tolosara eraman nituan lagunen billa asi nintzan. Berealaxe billatu nituan, eta Azpeitira etorri giñan.

Trenik etzegoan orduan, da eraman genduan automobilla bera alkilatu ta Zestuarño etorri nintzan. Zestuan danak itxiak zeuden tabernak, eta Uztapidera joan bear derrior.

Makiña bat pentsamentu egin nuan Zestuatik etxera. Tolosako bertsoai zenbat buelta eman ote nioten nik? Oiera joan nintzan, baña etzan logalerik etortzen. Oian bueltaka gaba pasa nuan, eta goizean bes-

teakin batean jaiki ta lanera. Anai zarrak galdetu zidan:

-Zer moduzko bertsolariak ikusi dituk, ba, atzo Tolosa alde orretan?

Eta nik atzera:

-Onak, motell! Bertsolari onak bazeudek! Nik ez nuan uste Txirrita ta olakoxe batzuek besterik izango zanik, eta bede-

ratzi baituan, da bertsolari dezenteak danak!

Iru bat egun edo orrela egongo ziran Azpeitiko konkurtso edo eliminatoria ortara, ta neri naikoa zer pentsatua jarri zidaten Tolosako bertsolariak.

(1) 1935-XII-29.

# Azpeitiko txapelketa

**E**TORRI zan, ba, Azpeitirako egun ori ere, ta joan egin bear, izena emana nengoan da.

Izena emateko, Zarautza joan nintzan, Basarriren tabernara. Azken Portuko taberna zeukaten Basarrik edo bere aitak, da araxe joan nintzan. Basarri ori, mutil ederra ta bikaña, antxe zegoan; etxean billatu nuan.

Deitu nion, ba, an bazter batera, eta esan nion zer pentsamentu neukan. Da baietz esan zidan, gauza orri indar eman bear zitzaiola, eta:

–I ez aiz izango utsena, nik aditu izan dedanez!

Itz auetxekin esan ere egin zidan.

Peria-eguna zan Zarautzen, eta bertan apaldu nuan, Azken-Portun; eta atzeneko trenean etxera joan nintzan.

Azpeitiara joateko egun ortan, Zestua-ra jetxi nintzan, ta an meza entzun. Ez dakit zan Eguberri bigarrena edo Urteberri(1); oietako egun bat zan.

Gosaldu ondo lenengo, ta preparatu egin bear zan, da lagun bat ere banuan gure auzokoa: Txortxiko Santi zan lagun ori. Gosaltzen litro bat edan genduan, da gutxitxo ote zan; nere lagunak etzuan asko edan, baña beste litro erdi bat eskatu genduan, da edan ere bai. Ta:

–Oraintxe nago ni bertsoan egiteko moduan! –esan nion nere lagunari.

Eguardi aurretxoan bazegoan tren bat Urolakoa, eta antxe sartu ta joan giñan Azpeitiara. Gure lagunak, an ziran batzuek, billatu giñuzen, eta an ibilli giñan kalean.

Gero, Etxezuriko tabernara joan giñan; an gendukan, ba, bazkaria. An zeuden juradukoak eta danak; bertsolariak ere bai palta ziranak. Osatu giñan guziak eta bazkaltzen asi giñan, da jendea serio samar. Alkar ezagutzen ez genduanak giñan bertsolariak ere asko, ta piska bat konfiantza artu arte.

Bazkaria aurreratzen ari zan eta jendea asi zan bertso eske; ta or asten da Zepai ori bertsoan. Arek ni ezagutzen nindun, eta neri bota zidan lenbizikoa. Eta nik ere bota egin bear, da asi nintzan, ba, ni ere. Biok egin genduan lenbiziko saioa.

Geiago ere bazeuden an ixilik egoten errezak etziranak, eta utzi genien txanda. Beste geiago ere jardun ziran.

Gero kapeak artu, bapo jarri giñan da joan giñan kantatu bear genduan tokira. Zineren baten izango zala uste det bertsoan egin bearra, ta amaika bertsolari bagiñan: Zepai, Txapel, Bidaniko Muñoa, Errezilko Loidisaletxe, Azpeitiko Orkazarre, Azkoitiko Katuaingo Txatua, Azkoitiko Garate Mocarako basarriko aitona,

Zarautzko Nekazabal, Itziarko Uranga, Itziarko Kortatxo ta ni Arruakoa, Uztapide,

Bertsolaririk iñon egongo zanik ez genduan uste, ta Azpeiti-Azkoiti buelta onetan perretxikoak bezela sortu ziran; Errezillen da Itziarren ere bai. Batere bertsolaririk izango etzan tokian, amaika bertsolari azaldu ziran, eta poz ematen zuan. Alkar aizatu egiten genduan guk.

Eta geienak gazteak gañera. Garate zan zar samarra. Urrengo, Txapel; berrogei ta bi urte zeuzkan orduan Txapelek. Ogei ta amar urtetik gorakorik baldin bazan ere, Bidaniko Muñoa izango zan. Beste danak ogeitik ogei ta amar bitarte ortan ibilliko giñan.

Juradua edo epai-maikoak Tolosan ziranak berak ziran, eta asi giñan, ba, bertsotan. Asiera agurra zan, beti bezela, ta danak kantatu genduan. Gutxi gora-bera, bakoitzak bere agurra pentsatuta edukiko genduan, da lenengo buelta ondo.

Gero, opizioak emanda, binaka bertsolariak. Ni Kortatxorekin gertatu nintzan. Danakin ez naiz gogoratzen orain zein zeñekin gertatu giñan, baña gogor egin genduan. Iñor etzan gero egitekotan gelditu.

Guk, Kortatxok eta biok, ura uztargillea eta ni itzaia giñuzen opizioak, eta go-goan daukat oraindik bertso batzuk, guk botiak

Uztapidek:

Nere oraingo iriak ziran  
pizkor ikaragarriak,  
aundi-txikian berdin samarrak  
ta biak gorri-gorriak;  
juan dan neguan Bitoriatik  
periatik ekarriak,  
da iri oiek ondatu ditu  
Kortatxoren uztarriak.

Kortatxok:

Uztarriaren kejak ematen  
ari zerade alperrik,  
lenago ere ondatu izan  
dezu zuk iri ederrik;  
tripatik daude ariñ antzian,  
or ez da beste okerrik;  
jaten ez duan iriak ez du  
izaten lanen bearrik.

Uztapidek:

Iri biziak dirade oso,  
Pirineosko arraza;  
uztarri ori ondo jarritzen  
ez dago orain erraza;  
eten gabeko ao zabalka  
ta ezin artu arnasa,  
buruko miñez jarri ziran ta  
geiago etzaie pasa.

Kortatxok:

Uztarriari paltak billatzen  
ibilli zaitez poliki,  
iri oiek zer janda dabiltzan  
jendiak baldin baleki;  
debildadiak ematen dizten  
buruko miñak izaki;  
besterik eziñ asmatu du ta  
uztargillien aitzaki.

Kortatxok eta nik olaxe egin genduan opizioak emanda, eta besteak etzuten gutxiago egingo. Buelta ori egin genduan, da gero puntutan beste saio bat; atzenean agurra danak bueltan bota genduan, da epai-maikoak bazuten lana gu juzgatzen.

Kortatxok, puntua jarri zioten batean, beti bezela lau puntuko txikian jartzen zuten asiera ta bostean bukatu zuan, da nik esan nion:

–Oraingo orrek bost puntu bazetian,  
Kortatxo!

–Etziok inporta! Zenbat eta puntu gei-ago kantatu, orduan da gei-ago emango ditel!

Orixe esanda utzi nindun.

Bukatu zan beintzat gure zein-gei-ago-ka ori. Juraduak edo epai-maikoak an ari ziran puntuazioa sumatzen; alako baten, atentzioa eukitzeko, eta Zepai zala aurrena. Sekulako txalo-zaparrada jo zioten Zepai orri. Ta bigarren, Txapel. Ta irugarren zein esango ote zuten da nere izena deitu zuten.

Orduantxe ez nintzan asarre! Gizon dezentea nintzan! Bost durokoren bat izango zan guzia ere ango premioa, baña etzegoan bost duroengatik saltzeko nere puestoa.

Laugarrena, berriz, Bidaniko Muñoari eman zioten, eta orrelaxe banatu zituzten ango premioak. Premiorik etzutenai ere bina edo iruna duro eman zizkaten, eta jendea ixilik gelditu zan.

Gero, andikan Euzko Etxera edo batzokira joan giñan, zerbait artzeko aitzakian-edo. Nik beintzat nere poza ezin diximulatu nuan, da an bertso batzuek kantatu giñuzen, premioa irabazi genduanak batez ere. Eskatu egin zizkiguten, da guk pozik. Orduan ez genduan bitan esan bearrik.

Gero, Txapelek bederatzi puntuko bertso batzuek kantatu zituan. Zarrak izango ziran, baña ez dio inporta, ederrak ziran da.

Gero, estazio aldera abiatu giñan: nik eraman nuan laguna eta gei-ago ere bai, an bertan lagun egiñak; Zubimendi Joseba eta juraduko batzuek ere baziran, eta trenera; Urolako trena artu bear. Orduan etzan orain ainbat automobil izaten, da juradukoak ere trenean ibiltzen ziran. Azpeitian sartu giñan trenean, eta Zestuarano epai-maiko jende orrekin etorri giñan.

Donostira ere joan bear ko nuala esan zidaten, eta zai egoteko. Nik ez nuan uste Donostira joango nintzanik, baña badaezbada ere gogoan eduki nuan.

Zestuan jetxi giñan trenetik, lagunak agurtuta. An ibillaldi bat egin genduan, da zeñek gontsejuak eman paltarik ez genduan, Donostira joateko ere.

Ala, etxera etorri giñan, Zestuan apaldu ta bertso-saio bat egin ondoren. Egun artan ni ixilik nola etorri, ba? Kortatxo ta Itziarko Uranga ere an ziran biak, eta lenbiziko bertso batzuek kantatu ta gero erre-tira egin zuten. Bakoitzak bere bidean etxe aldera jo genduan; nik, goizean eraman nuan lagunarekin.

Lagun ona nuan gañera uraxe! Ari gauzarik geienak esan bear izaten nizkan. Danak ez nizkan esango; baña nik esaten ez nizkionak, ez nizkan besteri esango. Konpianza aundia genduan alkarrekin. Txortxiko Santi zan lagun ori. Zestuatik etxera bidean ala esaten zidan:

–Ik Donostira joan bear badek, nik ere joan bear diat!

–Nik joan bearrik badet, bai, alkarrekin joango gaituk! Pozik ala ere.

Gure atariraño allegatu giñan, alkar agurtu genduan da oiera joan nintzan ni. Arek bazeukan artean ere amar minutuko bidea. Gauzak makiña bat aldiz pasa nituan buruan gau artan. Nekatuta nengoan, baña ezin lorik egin. Pasa zan beintzat gau ori ere.

Gero beste eliminatoria Elizondon zegoan, eta an ere amar bertsolari juntatu omen ziran. Nik ez nuan ura ikusi, Elizondokoa alegia; erretratoan, bai, ikusi nituan, baña orain ez dauzkat gogoan danen izenak.

Onera etorri ziranak, bai, Donostira: Dargaitz, Harriet eta Iriarte, oiek ziran Do-

nostira etorriak. Mutuberria ere etortzekoa zan, baña etzan etorri. Ez dakit zer pasa zitzaion. Sunbillako Simon Ibarra ere an izan bear zuan, Elizondon.

Iru eliminatoriak egin ziran da Donostirako zai jarri giñan. Etziran egunak motzak joan. Illaren emeretzian ospatu zan txapelketa.

Alako baten etorri zan, ba, Donostira joateko abisoa. Alde batera poz artu nuan,

baño bestera joan egin bear. Anaia zarrarekin egiten nituan nere komentarioak:

–Txapel edo Zepai, bitatik bat atzera utziko banukean... –esaten nion nik ari.

Ta anaia zarraren erantzuna:

–Bidaniko Muñoak eori atzera utziko auanik ez beintzat pentsatu, badaezbada ere!

(1) 1936-ko Urteberri-eguna.

# Donostiko txapelketa nagusia

**M**ILLA bederatzireun da ogei ta amabostean asi giñan eliminatoriak, baña ogei ta amaseian bukatzeko. Ilbeltzaren emeretzian, San Sebastian bezperan, ospatu zan txapelketa nagusia, Donostiko *Victoria Eugenia* antzokian edo teatroan.

Guk kotxea enkargatua gendukan Azpeitiko tasisa bat, eta Zestuara seiretako mezetara jetxi giñan. Iru Endoiakoak eta beste iru Lasakoak giñan kotxe ortan joatekoak. Gu, Endoiakoak, Txortxiko Santi, Lazaroneko Jose Antonio ta ni giñan; ta Lasakoak, berriz, Trukumango Donato ta Mixpiretakoak bi anaia. Sei mutil preparatu giñan.

Zestuan meza entzun, da etorri zan Azpeitiko tasista ere. Artean goiza zan, zazpirak geienez ere; ta Donostian gosalduko genduala ta joan egin giñan Donostira.

31 de Agosto kalean bada *bodegón* bat. Azpeitiko Gallaikoak ziran an orduan, da gaur ere bai. Azkune dute abizena edo apellidua. Santa Mariako eleizatik bertan dago. Araxe joan giñan gosaltzera.

Nik artean Donostiko berri gutxi edo batere ez nekian. Pare bat edo iru bat aldiz izango nintzan geienez ere.

Beintzat, gosaltzeko apetitu ederra gendukan, eta txuleturen bati aizeak aterako

genizkan. Nagusiak ere ezagunak ziran, da bapo gobernatu giñan. Gero, kontuak egin da berriz ere joango giñala, eta aldegin genduan.

Amarrak alderako Euzko Etxera juntatzekoak giñan, eta ara arrimatu giñan. Bertsolariak, geienak ara bildu izango ziran, eta andik *Victoria Eugenia*-ra joan giñan.

An ezagutu giñuzen mugaz arunzkoak ere: Dargaitz, Harriet eta Iriarte. Mutuberria zan bestea etortzekoa, ta etzan etorri; ez dakit zer pasa zitzaion. Oiek Elizondon ontzat emanak ziran. Tolosatik, berriz, Txirrita, bere lengusua Saiburua ta Andoaingo Etxeberria. Gu, berriz, Zepai, Txapel da nik osatzen genduan irukoa. An juntatu giñan bederatzi bertsolari, *Victoria Eugenia*-n.

Juradua edo epai-maikoak ere bai. Tolosan da Azpeitin ziranak berak ziran Donostian ere: Ariztimuño ta Lekuona apaizak, Olaizola, Zubimendi Joseba, Txomin Olano ta Basarri edo olakoxe batzuk.

Asi giñan, ba, kantari, beti bezela lenbiziko agurra egiten.

Erdi-erdian nengoan; bostgarren edo orrelaxe. Bertsotan asterako, esan zuten txalorik ez jotzeko, bestela luzatu egingo zala txapelketa; ta lenbizitik jendeak ixiltasuna gorde zuan, baña nere txanda etorri zan da egundoko txalo-zaparrada izan zan.

Ni nintzanik ere etzekiten an zegoan jendeak, eta lanik zailena egin nuan: publikoa neregianatu. Andik aurrerakoa erraza izan zan. Berria nintzan eta, esaten dan bezela, nobedadea.

Etzan besteak nik baño gutxiago egin zutelako, baizik jendea nere alde jarri zan, da ni baño geiago ziran an entzuten zeudenak. Nerekin bakarrik ez det ikusi nik ori; geiagorekin ere gertatu izan da orrenbeste.

Txirritak gerraren gaian eman zuan bertso bat, eta arek ere jendea asko mogitu zuan. Au, bertso au, ez dakienik ez da asko izango, baña jarri egingo det:

Zenbat errezo egin detan nik  
nere denboran elizan,  
ta ala ere kontentuz nago  
nola pakian gabiltzan;  
ni naizen baño kobardiagorik  
iñor ez liteke izan,  
semiak gerrâ ez juatiarren  
mutilzar gelditu nitzan.

Iriartek onela kantatu zuan agurra:

Ni ere ager bear naiz  
bertsolari berria,  
barkatu bear nuzue,  
ez naiz arrigarria;  
gazte-gaztetandik maite dut  
neronek Euskalerra,  
guztiok maite dezagun  
gure aberria.

Zepaik ere sasoi gogorra zeukan orduan, eta arek ere bota zituan bereak. Opi-zioak emanda Txirrita ta biak jarri zituztenean, ederki jardun ziran: bat uztargillea eta bestea itzaia.

Guk ez genduan suerte aundirik izan. Bi-bitako orretan Txirritak eta Zepaik egin

zuten lenbizi; gero, Txapel eta Andoaingo Etxeberriak; eta irugarren bikotea Dargaitz eta Iriarte. Gu iru gelditu giñan azkenerako: Harriet, Lujanbio eta ni.

Iru ez da numero ona bertsoan egiteko, batetik; eta, bestetik, Harrieti ez genion ongi konprenitzen guk orduan. Arrezkero bai; jardun asko egin degu ango bertsolariakin, eta orain dana konprenitzen diegu.

Dana dala, beintzat, egin genduan saio ori ere: bat sagardozealea, bestea ardozealea, ta bestea oiek biak saltzen. Saltzen zegoanak pamatuko zituan edariak; eta edaten zutenak, berriz, ain onak ere etzirala ta olaxe.

Puntuak jarrita ere egin genduan beste saio bat. Baditut gogoan bertso batzuek oietatik ere.

Basarrik:

Zer modutan zabilta,  
kaixo, Uztapide?

Uztapidek:

Bein etorri bear da  
etorri naiz ni're;  
Donosti ontan badet  
amaika adixkide,  
argatik jartzen dute  
oinbeste izbide.

Basarrik:

Gustatutzen al zaizu  
zuri bixiua?

Txirritak:

Gaur jan bat egiteko  
badet desiua;  
asko gustatutzen zait  
arrai-klasi ua,  
ardo zarra eran da  
a zer pasiuua!



Basarrik:

Zer iruditu zaizu  
orrek esan duna?

Zepaik:

Ez nuen uste zanik  
olako jatuna;  
naiz dala bixiua,  
berdin da atuna,  
bera nabarmendu da  
asko bear duna.

Basarrik:

Aizazu, Lujanbio,  
zer moduz zabilta?

Lujanbiok:

Besua elbarrituta  
aldrebes gabilta;  
ala ere kunplitu nai  
emandako itza,  
erraza zala uste ta  
gertatu da gaitza.

Saiburu zana egun artan besoa lotuta  
zegoan; pañuelo aundi batekin lepora lo-  
tua zeukan, eta ederki etorri zitzaion pun-  
tua.

Zepaik, berriz, Txirritaren ondoren se-  
giran bota zuan bertso au. Buelta Txirritak  
bukatzen zuan, eta Zepaik asi. Ortaz, beti  
Zepai Txirritaren ondoren zegoan, eta one-  
ri ere ederki etorri zitzaion:

Bera nabarmendu da  
asko bear duna.

Danak egin zuten an bakoitzak berea.  
Batek egun obexeagoa izango zuan, beste-  
ak baño; baño bertsoan tajuz egin etzua-  
nikan, ifñor ere ez.

Len esan dedana, mugaz aruntzkoakin  
jende asko erdi konprendituan gelditzen  
giñan; baño ori etzan aien kulpa, guk ez  
ulertzea.

Agur egiteko bertso bana edo bina bota  
genduan, da ortan bukatu zan gure txap-  
elketa.

Bazkalondoan emango zutela klasipi-  
kazioaren berri, ta fotografiak atera giñu-  
zen *Victoria Eugenia*-ko atarian; lenengo,  
danak batean; eta gero, neri bakarrik; eta  
nik, ederra nintzalako ote zan neri bakarrik  
erretratua ateratzea... Erretratistak etzuan  
ezer esan, da ortan pasa zan.

Andikan Euzko Etxera joan giñan baz-  
kaltzera, ta bai bazkaldu ere lasai. Estua-  
suna goizean pasa ta ederki geunden or-  
duan bazkaltzeko ere.

Erdi bazkaldu zaneko, asi ziran mu-  
gaz aruntzko oiek batean beren artean da  
bestean Txirritari, ta jaten etzutela utzi-  
ko. Basarrik bota ere egin zien bertsoa ba-  
tean; dana ez daukat gogoan, baño erdia  
bai:

Gaur emen jan diraden jankaiak  
etziraden aldrebesak,  
baztandar auek ixiltzen beintzat  
etzeudek oso errezak.

Basarrik:

Oraintxe aspertu naiz  
ni orrelako gaiz,  
eta ixildutzia  
obe degu garaiz;  
len ere olakuak  
entzun ditut nik maiz,  
Basarri deitu baño  
kalian bizi naiz.

Au, bertso au, Txirritari bota zion Ba-  
sarrik. Txirritak bertso batean Basarri edo

orrela esan zuan, eta orduan bota zuan Ba-sarrrik au:

Oraintxe aspertu naiz  
ni orrelako gaiz...

Auek bazkari-denboran botatako berts-  
soak ziran. Gero kapea artu genduan, da  
irunaka jarri giñuzten bertsotan, batzokia-  
ren iru eskiñatan: Elizondokoak eskiña ba-  
tean, Tolosakoak bestean eta Azpeitikoak  
bestean. Guk laugarrena ere an genduan  
Bidaniko Muñoa.

Gu an bertsotan ari giñala, beste alde-  
an epai-maikoak klasifikazioa egiten ari-  
ki, ta Txortxiko Santik esan zidan nik bi-  
garren premia nuala.

Nik, ura entzun nuanean, berealaxe utzi  
nion bertsotan egiteari, eta jarri nintzan  
pentsatzen: "Nik ez diat irabazi premia.  
Neri goizean txaloak jo dizkidaten aiek di-  
tuk irabazi dutenak".

Lenbizi ez nuan sinistu ere egin, baña  
gero zorionak ematen-da asi ziran da ia  
etzegoan dudarik. Nik nere denboran izan  
dedan pozik aundiena bertsoakin, or-  
duantxe izan nuan.

Gero, juraduko batek esan zidan ia kon-  
tentu gelditu al nintzan premioarekin.  
Baietz esan nion. Kontentu geldituko ez  
nintzan, ba, bigarren premioarekin?

-Ba, lenbizikoa irabazi dezu -esan zi-  
dan-. Baña Txirrita gizarajoa zarra dago, ta  
urrengo urtean etortzeko ere zuk itxura  
geiago daukazu. Ori urte askoan ezin lite-  
ke etorri, ta aurten orri ematea pentsatu  
degu.

-Ni ondo naiz! Ez nuan pentsatzen pre-  
mioan sartzerik ere!

Bost premio zeuden da ni gabe parti-  
tuko zirala uste nuan. Bigarrena eman zi-  
daten da zoratuta gelditu nintzan.

Txirritari eman zioten lenbizikoa, Ze-  
pairi irugarrena, laugarrena Dargaitzi ta  
bostgarrena Iriarteri. Orrelaxe partitu zi-  
ran ango premioak.

Txirritak berrogei duro jaso zituan: ogei  
ta amar duro premia, eta amar duro berts-  
solaririk zarrena zalako; nik, ogei duro; Ze-  
paik, amabost duro; Dargaitzek, amar duro;  
ta Iriartek, beste amar duro: bost premia ta  
beste bost bertsolaririk gazteena zalako. Pre-  
miorik etzutenari ere eman zioten beren es-  
kupekoa, aundia etzan izango baña.

Esan bezela, nik neronek ere bigarren  
premia eun pezeta nituan, eta ortik pents-  
atu zazu zenbat diru zegoan orduan berts-  
toetatik. Guri orduan etzigun ajola dirua-  
gatik; etzitzaigun guri akordatzen dirurik.

Bazkalondoko saioa egin genduan, da  
arratsaldean Kursalen kantatzeko eskatu  
ziguten mesedez premioak jaso giñuzenak,  
eta jaso etzutenak ere bai, nai baldin ba-  
zuten, gero.

Danak joan giñan. Bederatzi bertsolarik  
an kantatu genduan arratsaldean berriz  
Kursalean. Ango bertso-saioa egin gen-  
duanean, despeditu giñan mugaz arunz-  
koakin; Tolosakoakin ere bai.

Ta Donosti piska bat ikusi gear gen-  
duala; ta, aitzaki orrekin, gure ezagunak  
Donostin bizi ziranak ere baziran, da aie-  
kin juntatu giñan; buelta bat eman gen-  
duan Donostian.

Arratsaldea motza egoten da urte-garai  
ortan, da goizeko lekuan juntatzekotan gi-  
ñan gabeen ere. Ala, Gallaitar oietara joan  
giñan, da ederki apaldu genduan, da ka-  
peak artu ere bai.

Bertso bat edo bi eskatu zizkidaten  
etxeakoak, eta orduan beste ezer baño uga-  
riago neuzkan nik bertsoak eta egin genien  
gustoa. Bat edo bi eskatu, ta dozena bat  
edo bi bota. Ederki osatu giñuzen bertsoz.

Ango nagusiak ere atera zuan beste kape bana, eta uraxe artu eta despeditu giñuzen etxekoak, eta Zestudara joan giñan.

Goizean etorri giñanak danak juntatu giñan, da nere lagunak ere gustora, eta ni pozik aundiena nuana. Sei mutil da txoperra azpeitiarra, an allegatu giñan gure errira, ta an zai zeuden zorionak emateko.

An ziran, berriz, ortik onerakoak! Bizkarrean ere ibilli niñuten. An etzuten uste nik eze egingo nuanik, eta arrituta gelditu ziran aiek, ni bezelaxe. Jakin zuten, gu joan giñanerako, ni zenbatgarren nintzan. Zepai ta Txapel *Guipuzcoana*-n, autobusean, joan da aieri galdetu omen zieten, da aiek esan

eta preparatuta zeukaten izugarria, gu joan giñanerako.

An ere busti giñan berriz, ta egun artan ez genduan legorrik ibilli.

Gaba ere aurrera zijoan, eta bertso bi edo irurekin despedida eman genion.

Trukumango Donato ta Mixpiretako bi anaiakin an partitu bear genduan, da eskerrak eman genizken Donostira lagundu zutelako, ta beste bat arte, ondo izateko ta...

Ta gu, Endoiako iru lagunak, Lazaroneko Jose Antonio, Txortxiko Santi ta ni, gelditu giñan. Irurok joan giñan etxera. Ementxe bukatu zan San Sebastian bezpera.

# Txirritaren pesta

**T**XIRRITAREN omenajea Errenterin egin zan, milla bederatzireun da ogei ta amaseigarrenean. Ortxe Epaila edo orrelaxe izango zan.<sup>(1)</sup>

Ni ere or nintzan, ta beste bederatz ber-tsolari ere bai: bere lengusua Saiburu, Tel-lei-Txiki, Juan Jose Sarasola edo Lexo, Ur-nietako Alkain aita-semeak, Azpeitiko Txapel, Errenteriko Zabaleta bi anaiak, eta Basarri; eta bera gogorrena, Txirrita, iru-rogei ta amasei urterekin. Amar bertsola-rik egin genduan saioa.

Orretarako, goizean mezarekin asita izango zan dudarik gabe omenaje ori. Baña ni ez nintzan allegatu mezetara. Aita neukan gaixo, eta operatuta, gañera; prostata edo orrela zeukan, ta ura zaitzen egoten nintzan ni orduan. Eguardiko bertso-saioa egiteko justuan allegatu nintzan ni.

Txirrita ixilik zala, beste bertsolariak jardun genduan bertsoan. Urnietako Alkain aita-semeak alkarri bertsoak botatzen jarri zituzten. Saio polita egin zuten oso. Guk ere egiñalak egin giñuzen Txirrita zarra poztutzen, bakoitzak al zuan eran.

Guk ez genduan uste orduan Txirrita-ren urteak olain urrean zeudenik. Ari zarra orduan esaten genionak, orain geok aren edadea edo adiña gañean, eta orain dira emen kontuak.

Orduan an ziran bertsolarietatik, bi bakkarik bizi gera: Basarri ta ni. Besterik ez da iñor ere bizi. Alkain semea gure aldean gaztea zan, baña ura ere joan zan mundu onetatik. Zeruan gerta dedilla. Jaungoiko-ari eskerrak eman geniozke, onenbestean geranean ere.

Txirritak artean ere umore ona zuan. Errenteriko euzko gaztediak egiten zion omenaje ori, ta omenajeko señailea makilla eder bat zan. Guk bertso-saioa egin ondo-ren, makilla ori eman zioten Txirritari eskura euzko gaztedikoak, eta esan zioten makilla ari bi bertso botatzeko, eta baita bota ere:

Eskerrik asko, gazte maiteak,  
makilla ederra da ori,  
gizon bat zegon errenka eta  
zuek eskeiñi berari;  
begiratu bat egin orduko  
ni naiz kontura erori:  
erromatarrak apurtutako  
lizar-makilla diruri

Irurogei ta amasei urte,  
garaia det umiltzeko,  
gauza aundiren bearrik ez det  
goitik bera amiltzeko;  
bi bastoi abek aski nitun nik  
munduz mundu ibiltzeko,  
irugarren au andregaiari  
arkakusuak iltzeko.

Txirrita bi bastoiekin ibiltzen zan beti, ta orduan ere ala etorri zan. Reumak oso menderatuta zeukan, eta orregatik bota zuan bertsoa:

bi bastoi abek aski nitun nik  
munduz mundu ibiltzeko.

Azkoitiko Aldazabal tabernaria ere ortxe zan Erreterin, eta a zer pareja egiten zuten Txirritak eta biak! Alkarren ondoan jarri ziran, eta oraindik ez det bi gizon aundiagorik alkarren ondoan ikusi.

Bein Txirritak, Goizuetan, eun da berrogei ta amairu kilo ta erdi pisatu omen zituan. Saiburu bere lengusua ta biak bertso tara joanda omen zeuden an, da bi mutil gazte sartu omen ziran aiek gosaltzen ari ziran tokira. Ta onela mintzatu omen ziran bi mutil gazte aiek:

–Txirrita ere gizon aundia dek, baña bere lengusua ere ez dek asko txikiago!

Saibururen erantzuna orduan:

–Ori, ni baño bost arrua geiago ortxe nunbait ibilliko da.

–Bai zera! Bost arrua geiago? Ez da orrelako Txirritarik!

Bost arrua irurogei ta bi kilo ta erdi da, ta ez sinisten aiek orrenbeste izango zanik. Saiburuk esan omen zien orduan:

–Zuek biok ere mutil gazte ederrak zaudete, baña zuek biok aña ere izango da au!

–Ezetz egingo genduke apustu txiki bat!

Pitxar ardo bat jokatu omen zuten, da bi mutil aiek jarri omen ziran baskularen gañean, da eun da berrogei ta amar kilo pisatu omen zuten. Eta jarri omen da Txirrita, eta *danga!*, jo-azi omen zion goia.

Eta, inporta ez bazion, ikusi egin nai omen zuten zenbat kilo zan. Etziola, ba, inportik; ala, pisatu omen zan da eun da

berrogei ta amairu kilo ta erdi omen zan. Gabonak aldean orren pisuko bat ez litzake gaizki etorriko zenbait pamelitan...

Beste len esan dedan Aldazabal ori ere aren modutsukoa zan, ba. Biak pareja ederra egiten zuten. Txirrita txamarra beltzarekin; eta Aldazabal, berriz, bruxa urdiñarekin jantzita zeuden.

Azkoitian lanean ibillita-edo, noizbaiten orren tabernan apopilo egongo zan Txirrita. Kontu asko zuten biak alkarrekin.

Bazkalondoan beste saio bat egin genduan bertsoan. Gozatu genduan Txirrita ta beste an ziran jendea. Onela jardun genduan Txirritak eta biok.

Uztapidek:

Zure bertsua beti izaten da  
garbia eta klarua,  
estimatzeko modukua da  
zuk daukazun zartzarua;  
zu bezelako aita batekin  
gaztientzat anparua,  
ankak piska bat makaldu arren  
argi daukazu burua.

Txirritak:

Nere arteko pasadizua  
esaten biet abitu,  
zuri ez dizu kalte egingo  
eta mesedez aditu:  
reuma gaiztuak arrapatuta  
elbarri nintzan gelditu,  
neri gaitz ori eman ziranak  
zuretzat ere baditu.

Orrelakoxe saioa egin genduan ta gus-tora gelditu zan gure Txirrita.

Arratsaldean pelota-partidua bertan jokatu zan, Erreteriko batzokian. Pesta guzia antxe egin zan, da bazkaria ere bai. Toki zoragarria zan ura. Partidua, pasaitarrak

alde batetik, eta bestetik ez naiz akordatzzen zein ziran. Soñu-jotzalle ederra ere bazan, da egun ederra pasa genduan.

Ni garaiz Donostira etorri nintzan atzera. Aita an neukan zai, ta ni ere kezketan

nengoan. Aita nola egongo zan ez nekian, ta erretira ederra egin nuan. Ortantxe bukatu zan gure Txirritaren pesta.

(1) 1936-III-22.

# Lengo bertsolari zarren ateraldiak

**B**EIN batean, Prantzes-Txikia ta beste lagun bat Goizuetara joan omen ziran bertsotara; da erriarekin tratua egin omen zuten bertsoak dana dirutan pagatzekotan, da jaten egiten zituzten gastuak ordainduko zituztela aparte berak.

Bi egun pasa omen dituzte lasa jan da edan egiñez. Erriari, tratua egin bezela, ko-bratu ere bai, eta ongi partitu omen ziran erriko gizonakin, berriz ere bertsolaririk bear baldin bazuten jakingo zutela alkarren berri eta "beste bat arte!" esanda.

Eta, berriz ere lengo ostatura joanda, apaldu omen zuten ederki, eta bertso-saio bat edo bi etziran paltako, ala gobernatu ezkeru. Aspertu ziranean, lotara joan omen ziran.

Naikoa loa egin zutenean, jeiki ta gosari txikia egin omen zuten, eta erriko gizonakin egingo zituztela kontuak esan omen zioten bertsolari oiek ostalariari, eta baietz sano besteak:

Len ere orrenbeste egiten oituak zirala erriko gizonakin, ta berriz ere arreglatuko zirala, ta joateko kezkarik gabe.

Besteak uraxe nai, berriz.

Artu autobusa eta laste omen ziran Ernanin. Ura ere pagatu gabe, nola edo ala eskapo egin omen zuten, eta beintzat aiek ere itzegiten jardunak.

Txoperrak ere, eta gero ostalariak ere, kontua pasa omen zuten aiuntamentura, eta ezetz: aiek dana dirutan pagatu ziotela, eta berriz ez pagatzeko asmorik.

Or gelditzen dira kokotzetik, emen Oiartzunen esaten dan bezela. Bertsolariak joanak eta aiuntamentutik diru-esperantzarik ez, or nora jo etzekitela. Goizuetako ostalariak amorrazio ederrarekin, "nik arrapatuko banitu!" bere artean pentsatuaz.

Baña nun bizi zan ere jakin ez Prantzes-Txikia beintzat. Arek etzuan bizitzeko leku jakiñik.

Artan gelditu omen zan ura, Goizuetako ostalaria, bere paketearekin.

Txirrita, berriz, joan omen zan Billabonara batean bertsotara bere lagun batekin.

Ura, gizarajoa, ibilpide txarrarekin eza-gutu genduan guk, baña ona ere izan omen zuan arek, salto motxean amar oin egiten zituanean. Saiburu bere lengusuak esan izan zuan, bazuala sasoa amar oin errez egiten zituana; baña betiko ez izan sasoa ere; eta, guk ezagutu genduanean, oso galdua zuan.

Billabonan *Iskiña* bada taberna bat, eta antxe lo egitera joateko. Piska bat lagun-tzen ibilli omen zitzaion beste bertsolari laguna.

Eta, goizean esnatu zanean, poltsa palta. Kejatu omen zan gure Txirritari ori, ta esan omen zion bere pasadizoa Iskiñako mutillari, eta:

–Atzo oiera joan ziñanean, zurekin al zendun?

–Bai; oiera abitu nintzanean beintzat bai!

–Orduan zuri bertsolari lagunak kendu dizun juzkua edukiko dezu poltsa?

–Nik bai!

–Or ez da besterik iñor izan, zuek lo egin dezuten kuartuan! Ba, arek eraman badu, nik ekarriko det poltsa! –esan omen zion Iskiñako mutillak.

Eta artu omen zuan bizikleta eta joan omen zan ura egoten zan lekura, eta anxe:

–Jaungoikoak dizula egun on!

Da:

–Bai zuri ere! –erantzun omen zion bertsolariak.

–Txirritaren poltsarik ikusi al dezu?

Ta:

–Nik ez det ikusi! Non ikusiko nuan, ba, nik Txirritaren poltsa?

–Egia esan! Bestela, gaizki ibilliko zera! –esan omen zion Iskiñako mutillak, oso serio jarrita.

Ta berealaxe bildurtu omen zan bertsolari ori, ta baietz, arek zeukala, baña eskallaretan billatu zuala esan omen zion; arek etziola Txirritari kendu.

–Ekatzu neri ta nik entregatuko diot berari! –esan omen zion Iskiñako mutillak.

Orduan atera ta eman omen zion. Pañuelo baten muturrean korapillo eginda, an omen zeukan Billabonan irabaziak eta etxetik eraman zituanak. Eta ala esan omen zion:

–Diruak arenak baldin badira, pañueloa ere arena izango da!

Artu bere poltsa ta Txirritari entregatu omen zion. Arek bai poza ederra noski. Arek korrika ibiltzeko etzuan balio, ta ura-gatik libre zan.

Andik laster Xenpelarren omenajea omen zan Errenterin, da besteak danak bildu omen ziran, da bi bertsolari palta: Prantzés-Txikia eta bere laguna. Danak jakiñean omen zeuden Goizuetan pasia, ta Billabonan zer pasa zan ere bai, jakiñean.

Asi omen ziran beste bertsolariak; eta, alako baten, or azaltzen omen dira bi bertsolari oiek antzoki edo teatroko atean; eta Asteasuko Ibarrazpi amerikanoa ere an omen zan, eta arek kantatu omen zuan:

Nai ez dedala obligatzen naiz  
gaur itzegiten astia:  
bitatikan bat lapurra da ta  
aren laguna bestia;  
apenas asko apuratzé'ian  
tabernan zorrak uzitia,  
Goizuetako ostalariak  
oso kontentu ezta.

Ta urrena Saiburuk:

Zenbait gizonen mundu onetan  
sortutzen dituzten gerrak,  
ni ixillikan neguan baña  
daude deklaratu bêrrak;  
langillien bizkarretikan  
mantentzen dira alperrak,  
apenas oso kontentu diran  
Goizuetako txoperrak.

Bertso oiek aditu zituztenean, ez omen zan joateko esan bearrik; berak aldegin omen zuten. Bestela, Txirritari ere itzegingo zukeana egongo zan an. Etzan Billabonako aztuta egongo ura ere.



Beste baten, Prantzes-Txikia azaldu  
omen zan Oiartzungo pestetan eundala-  
ko makilla dotore batekin, da berealaxe  
Saiburuk ari ere asmatu omen zion ber-  
tsoa:

Esku-lekua letoia du ta  
isikia du eria,  
goiko puntatik zapata eta  
erdi-erdian subia;  
mundu guziak badaki ori  
ez dala izango beria,  
entregatzera saia liteke  
badaki zein dan jabia.

Beste batean, berriz, Erreterin bai  
omen zan Txintxua esaten zioten bertsola-  
ri bat. Nik ez nuan ezagutu, baña bere  
anaia bai. Orain dala amabi urte ezagutu  
nuan, Pasai San Juana bertsotara joanda.  
Arek bere anaiaren kontuak esaten jardun  
zigun.

Batean Lezora joan omen zan, eta San-  
ta Kruzak. Pello Errota ere an ikusi izan  
bear zuan, ta andik bueltakoan etorriko  
zala Erreterira; eta, bere bisitatxoa Lezo-  
ra eginda, an omen zebillen Txintxua zai  
samar; eta alako batean or ikusten omen du  
Pello Errota, eta berealaxe bertsoa:

Lezon izandu gera  
emazte ta senar,  
gu baño eskasaguak  
baziraden amar;  
Pello ere an zebillen  
txaleko ta txamar,  
naiz besterenak izan  
kurioso samar.

Ta urrena:

Ematen dizkidazu  
milla estuasun,

ez dakit zuk neretzat  
zer arraio dezun;  
batian Billabonan,  
bitan Asteasun,  
badakit neregatik  
zer esan dituzun.

Orrelaxe, zai egongo zan ura prepara-  
tuta. Pello bera ere orrelakoan etzuan, ba,  
izan bear nolanai lotsatzen zan oietakoa.  
Arek ere bereak esanda utziko zuan, baña  
nik ez dakit arenik.

Txintxua izena, baña oso gizatxarra zala  
esan zigun bere anaiak, bertsotan asten za-  
nean.

Erreterin bertsolari asko zan denbora  
batean. Tellei-Txiki bera ere etzan ortik  
onerako bertsolaria. Bein batean Zepaik  
bota zion tilderen bat, eta erantzun zion  
atzera:

Dotore asi zerade baño  
egingo'ituzu naikuak;  
nere zarrian egingo ditut  
gaur ere zurekikuak;  
orain daukaten osasunian  
laguntzen badit Jainkuak,  
Telleri-Txiki ez du autsiko  
Billabonatik goikuak.

Beste au nik kantatua da Oiartzunen:

Aditu bear dezu  
gaztien esana,  
zu ere nola zeran  
lenago izana:  
osasun ona degu  
Jainkuak emana,  
bai al dezu guretzat  
alabatxo bana?

Zepai ta biok etorri giñan orduan. Sa-  
soi ederra genduan, da bientzat alaba bana

eskatu nion. Baña arek bat ere izaki ez, eta erantzun ederra eman zidan; pamelirik etzuten, ba, eta onelaxe erantzun zidan:

Aur txiki batzun billa  
gazterik asiak,  
mundu ontan danentzat  
daude desgraziak;  
asko tristetzen gaitu  
pameli eskasiak,  
ori ez du izaten  
nai duen guziak.

Urte artan, San Estebanetan, Saiburu zana, Tellei-Txiki ta ni giñan Oiartzunen. Baña Tellei-Txiki ezin zeikela etorri aste-egunean; *Lanera*-ko enkargatua izaten zan ura, eta San Esteban egunean nere aitagiarrak kantatu zuan.

Iganderako etorri zan Tellei-Txiki, eta gaia jarri ta nerekin tokatu zan: ni morroia eta ura nagusia. Onela kantatu zidan Tellei-Txikik:

Zure mantenu eta soldata,  
egiten degun gastua!  
Nik ez dakit zer pasatzen zaizun,  
beti kopeta beztua.  
Aurten kosetxa ona gendun da  
barrena neukan poztua;  
beste pallorik etzait arkitzen:  
morroia daukat gaiztua.

Uztapidek:

Urteko milla pezeta nion  
nagusi oni eskatu,  
nik orrenbeste biar zala ta  
orrek geiegi juzkatu;  
da atzenian pagatu gabe  
bialdutzeko prestatu,  
zuk artu dezun erabakia  
etzait askorik gustatu.

Onelaxe ziran gure bertsolari zarren kontuak: eta guk ere zerbait erantzun egin bear ta egundoko saioak egiten giñuzen gazteak zarrakin.

# Gerraren asiera

**M**ILLA bederatzireun da ogei ta ama-seigarren urtean zorigaiztoko gerra zibil atera zan, Uztzaillaren emezortzian, eta etxean arrapatu giñuzen.

Beti ere aditzen genduan batean Irun artu zutela, bestean Andazarrateraño etorri zirala. Gu etxetik ez giñan ateratzen da bestek esaten zuana jakiten genduan, da askotan gezurra.

Alako baten, Donostitik eta oietatik asi zan jendea etortzen, parienteak-eta an zizutzenak, eta aiek esaten zuten zer ikusi zuten. Bitartean, guk aguanta etxean.

Illabete pasa zan eta or aditzen degu Donosti ere artu zutela, ta aurrean zijoan jende orrekin bete zan erria. Plazara saltzera zijoanari gauzak rekisatzen asi ziran, eta gauza onik ez, gerrak ekartzen dituan gauzak.

Gure etxetik kamioa Arruako estazio aldean ikusten da, ta ematen zuan su artu zuala, gau batean. Ango automobillen joan bearra Bilbao alde orretara!

Orain noiznai izaten da automobilla kamioan, baña orduan etzan ala izaten, da gu arrituta gelditu giñan. Gau guzian ez genduan lorik egin.

Bakoitzak bere automobilla artu ta igesi zijoan jendea. Jabeak ez bazuan ibiltzen,

zegoan tokitik artu ta eraman egiten zuan edozeñek, eta segituan ler eragin.

Da, bestea ori egiten utzi baño len, baziran makiña bat, beren kotxeakin joan, da gero uste baño luzeago atera gauza; eta gerra guzian ibilli ta berak ere kotxea puskatu ta gaizki ibilli ziranak. Baña iñork ez du asmatzen gauza nola joango dan, ikusi arte.

Bereala, egun baten Beasain artzen bazuten, bestean Zumarraga. Kostatik ere berdin: batean Orio artzen bazuten, bestean Aia eta urrengo Zarautz. Orrelaxe zijoan gauza eta berealaxe emen zirala.

Zeozter pentsatu bearko genduala, ba, guk ere, ta juntatu gera ballara guziko mutillak, Ziolar-edo esaten genion taberna batera, ta orduantxe zala garaia zerbait pentsatzeko.

Beste bi mutil bazeuden an, gure arreba baten etxean; donostiarrak ziran oiek, eta aieri ere galdetu genien. Aiek, nazionalak ara allegatzen ziranean, etxera etorriko zirala esan ziguten.

Guk ere pentsatu genduan orduantxe geundela gu entregatzeko garairik onenean; bein etxetik irten ezkerro, arrazoiak ere piska bat galdu egiten zirala. Eta, orduan zeramakian martxan, berriz, berealaxen zirala Bilbaon, eta bertan gelditzea erabaki genduan, da alaxe gelditu ere.

Endoia guziko mutillak bertan gelditu giñan. Amasei pameli zituan ballara orrek, eta danak bat bagiña bezela konpontzen giñan gu, ango jendea.

Poliki-poliki ari ziran nazionalak urretzen, da etzegoan frenatzeko itxurarik. Or sartu dira gure errira ere, eta gure ballarara ere bai. Gaberako, mendi-kasko baten gelditu ziran.

Gure arrebarekin zeuden bi donostiar oiek, joan egin ziran mendi-kaskoan zeuden rekete aiekin itzegitera. Etzegoala ezere bildurrik eta aiek beintzat bazetozela Donostira esan zuten, biaramonean. Pape-lak zuzendu eta atzera etxera etorri ziran.

Gu, berriz, an basarran gelditu giñan. Gerra pasa zan gure parean, da an guri pakea ederra gelditu zitzaigun.

Baña Eibar da oietan gogor egin zioten, da alto. Frenteak or luzaro egon ziran, da Kalamua ta oiek frente txarrak izan ziran.

Gero kintak jasotzen asi ziran, da orduan ziran komeriak. Gu oso urrean ez geunden, baña ala ere bildurra ematen zuan. Milla bederatzireun da ogei ta amaseigarrena zan da ni ogei ta amarrekoa nintzan, eta ala ere marineroak giñanari eskerrak. Marinakoak nekez eraman zitutzen, da ala denbora askoan emen egon giñan gu.

Arratsalde batean, periara nijoala Zestuara Palazio parean bera, Jose Palazio an-

txe, ta ia periara al nijoan galdetu zidan, da baietz erantzun nion. Zepai ta Txapel kartzelan sartuak izan bear zutela ta jakifiaren gañean jartzen ninduala.

Joan nintzan periara, baña illuntzean atzera goiz etorri nintzan etxera. Geiago ez nintzan errira etorri, munta pagatzera arte. Meza Arruan entzuten nuan, eta bestela etxean.

Or etorri zait bosteun pezetako munta, ta orduantxe joan nintzan Zestuara, munta pagatzera. An Bankoan zegoanak galdetu zidan ia neri ere bota al zidaten; baietz esan nion, da:

–Pagatzeko asmoan al zera? –esan zidan.

–Pagatu egin bearke, kobratzeko asmoan botia izango da ta!

–Nai dezuna egin! Batzuek ez dute lenengo aldian pagatzen, eta bigarrena aundiagoa izaten da askotan. Emen dirua bear da, eta nunbaitetik atera egin bear.

Pagatu nion bosteun pezetakoarekin, erreziboa eman zidan, da kito. Orduan eun duro ez giñuzen guk errez irabazten, eta pena aundia eman zidaten.

Ori Gabon ingurua zan, da negua etxean pasa genduan. Da aspertu egin giñan beti gerrara deitzeko zai egoten, da Zerbezerira lanean joan giñan Maietz alde orretantxe.

# Donostiko Konportan

**M**ILLA bederatzireun da ogei ta amazazpian, Donostiko Zerbezerian asi nintzan lanean, *Cervezas El León* esaten zaion fabrika ortan.

Lenbizi Zepai sartu zan or, fabrika ortan. Anaia or zebillen Zepaik, eta aren bidez sartu zan; da, itxura danez, gustora zebillen. Neri ere abisoa pasa zidan: joan nai banuan, lana iritxiko nuala; an orduan bazeagoala eta laste joateko, astea pentsatzen banuan.

Andik urrengo ostegunean, trena artu ta joan egin nintzan. Zepai anaiaren etxean zegoan jaten, da araxe joan nintzan lenengo. Taberna zan etxe ori, *Konporta* esaten zitzaiona.

An sartu nintzan, taberna artan, da Zepai ta anaia, biak lanean ziran; Zepairen anaiaren andrea billatu nuan etxean. Esan nion zer asmorekin joan nintzan, eta segituan preparatu zan etxeko andre ori: berak lagunduko zidala.

Illoba bat bazeukan neskame, eta ura utzi zuan taberna-zai. Ta andre ori ta biok joan giñan, eta enkargatua, Martzelino, billatu genduan antxe, enbotelladoran-edo lanean ari ziranai kargu egiten.

Ari ere esan genion, ba, zer asmo eraman nuan, eta egongo zala nagusiarekin esan zidan; berak etzuala agintzen; baña

ezagun egiten nintzala; gañera, langilleak palta zirala.

Ala, piska bat erakutsi zigun enbotelladora-alde ura; eta lanerako abisoaren esperantzan agurtu genduan gure Martzelino ori, ta atzera Konportara etorri giñan etxeko andrea eta biok.

Gero, etxeko nagusia eta Zepai ere etorri ziran lanetik, bi anaiak, eta gaba an pasa genduan. Zepairen anaia ere ez nuan aspaldi artan ikusi eta denbora errez pasa genduan. Gaba motza edo ez dakit zer pasatzen zan; guri akordatu gabe joan zitzagun beintzat. Apaldu ta bertsotan asi giñan, eta gu akordatu ordurako pasa zan gaba.

Goizean trena artu eta Zestuara joan nintzan, eta andik etxera.

Ostegunean nintzan or lana eskatzen; ostiralean Martzelinok nagusiari esan, da abisatzeko segituan; eta larunbatean abisoa artuta nengoan, nai nuanean lanera etortzeko.

Igandea ta astelena etxean pasa ta asteartean joan nintzan lanera. Goiza bidean galdu nuan, eta arratsaldean lanera.

Enbotelladoran jarri ninduten lanean. Lan erreza ta garbia zan angoa, ta gustora an jarri nindutenean. Botellak garbitu ta bete ta txapak jarri egiten zuan makina

arek. Nik, botellak kajatan etortzen ziran, da aiek garbitzeko makinari jartzen bi lagun bear izaten ziran, da nik aieri kajak bota ta kendu; beteak bota ta utsak kendu. Ortantxe asi nintzan lenbizi.

Enbotelladoran zan lanik gaiztoena uraxe zan, baña nik ez nuan estimatzen batere. Kajak, etxeoak eta kanpokoak, danak etortzen dira, eta aiek berezi bear ondo izateko, eta nik ederki egiten nituan, berriz.

Jaten, berriz, Zepairen anaiarekin gel-ditu nintzan. Arek geiago ere bazeuzkan, orduan an jaten zutenak; amar bat apopilo-edo bazituan. Bat bere anaia Zepai, eta biok kuarto baten egiten genduan lo. Bat berandu etorri zalako, besteak ez genion beñere errietarik egingo; beti biok batera atera ta biok batean etxeratu egiten giñan gu.

Jaietan ere alkarrekin ibiltzen giñan. Goizean zortziretako mezetara Antiguako elizara, ta etxera etorri. Gosaldu ta *Tiro de Pichón*-eko tabernara joango giñan; an botella bat sagardo edan. Andik *Buena Vista*-ra; an beste bat edango genduan.

*Leku Eder* edo *Toki Eder*-edo bazan beste taberna bat beraxeago. Anaiak ziran nagusiak *Buena Vista*-n da *Leku Eder*-en. Antxe beste botella bat edango genduan Zepaik eta biok, eta etxera bazkaltzera, txitxi baño kontentuenago, bazkaltzeko gogo ederrarekin gañera.

Ango buelta bada, bai, Donostiko Parte Zarrean buelta egitea añakoa. Konportara etorri, bazkaldu ta siesta ederra egin, da arratsaldean berriz ere araxe joango giñan.

Arratsaldean lagunak geiago ere izaten giñuzen; soñua ere izaten zan arratsaldean *Buena Vista*-n da, nai zuanak dantzan egiteko; ta gero ederki meriendatu. Ango

neskameakin ere ondo konpontzen giñan, ta etxeko andrearekin eta nagusiarekin ere bai. Etxe artan konfiantza aundia genduan.

Gero bertso-saioa ere etzan paltatzen, Zepai ta ni an bagiñan. Etxekoak, berriz, zaleenak ziran, eta an derrior egin bearra zegoan. Besterik ez bazan, gañontzekoak tabernatik ateratzen ziranean, etxeoentzat kantatu bear izaten zan an. Kaperen bat edo zerbezaren bat aterako zuan orduan etxeko andreak, eta guk artu ta etxera etorriko giñan.

Jaia or pasatzen bagenduan, astelenean gorputz-aldi ona edukitzen genduan lanerako. Astelen piska bat idukita ere, lan-toki gutxi izango ziran gurea bezelakoak. Sei botella zerbeza beti bagiñuzen errezioa ere; eta, ordu bete *extraordinario* pasatzen bagenduan, zortzi botella. Eta, egarri aundia bagenduan, berriz, Aralarko puntan baño errezago zan an zerbeza bereganatzen, beti eskuan ibilli bearreko gauza zan da.

Lan-toki ona zan gurea. Gu ari giñan tokian beintzat, etzan nekerik batere. Baziran neke geiago zegoan tokiak ere: barrikatan-da ari ziranak eta kamion-kargan egin bear zutenak eta.

Irabaziak justuak edo eskasak, egia esateko. Amar pezetara ez giñan iritxi geiena irabazi genduan ere, ta orduan ere etzegoan gauza aundirik egiterik amar pezetakin. Udaran, orduak sartu ta alaxe, astean ogei duro irabazten bagiñuzen, asko izaten zan. Aiek bukatzen ziranean, ezer ez; astean dozena bat duro izaten baziran, asko.

Ta larunbat-eguardian, fabrikatik atera ta etxeko andreari asteko janak pagatuta, etzan sobre aundirik izaten. Eguneke lau pezeta, zazpi egunekoa ogei ta zortzi pezeta asteko jana pagatuta, *sábado inglés* egiteko ederki jartzen giñan gu.

Orduan ere Antiguatik Donostira bi txakur aundi kobratzen zituan tranbe zar arek, eta bueltan etortzea beste bi; ta oñez ezin ibilliko ziñan, ba, gutxi irabazten zendualako.

Bertsolariak ere baziran orduan Antiguau: Oriamendiko Lino Kalonje ta Juan Jose Sarasola, *Lexo* esaten ziotena; bertsolari onak gañera.

Guk, ara joan giñanean, ez genduan uste gu baño bertsolari oberik iñon zegoanik; eta, ni aruntz joan da andik urrengo jaian, an bat egin genduan Linorekin da Juan Joserekin, da toki ederrean! Lezio ederra eman ziguten!

Gu, gure konkurtso artantxe-ta piska bat aurreratu giñalakoan; baño ezer ez giñala orduantxe konturatu nintzan ni. Aiek eskarmentu aundia zeukaten gizon aiek, gure aldean.

Lenbiziko aldian bertsolariak onak iduritu ere egiten dira; baño aiek bigarreanean ere onak ziran, edo gu txarrak,

Guk egunero egiten genduan bertsotan Linorekin; sagardotegia zeukan da propio joaten giñan araxe. Berealaxe ikasi giñuzen aren manejoak ere. Ara joan da andik bi illabeterako bera bezela jarri giñan.

Jai-goiz baten Juan Jose Sarasola ta Lino juntatu ziran. Beti alkar toriatu bear izaten zuten aiek, eta Linok zerbait gauza zaila jarri zion Juan Joxe Lexori. Lexok kixkia-ekin arbi-azia jasotzen baño errezago zala esan zion, Linok esan zion gauza zail ori; eta Linok atzera:

Berealaxe esango dizut  
azi txiki oien lana:  
galtzairu-autsa bota zaiozu  
ta gero eman imana.  
Gauza erreztu litekiala  
ez al zaude antz emana?

Gauz orren berri ez badakizu  
sinistu nere esana.

Orrelaxe jarduten ziran: beti alukerian  
alkarri; alkar toriatzen alegia.

Beste bat Antonio Berridi zan. Bertsolari  
ona ori. Donostian bizitzen zan; baño gu  
nun giñan, ura an izaten zan. Antiguara  
etorri gabe ezin jaian egon.

Gizon ona zan ura ere, eta bertsolari  
txukuna. Amaika saio egin genduan arekin  
ere. Ondo itzegiña zan ura. Etzenduan are-  
kin disputa aundirik izango. Ura poliki bizi  
zan gizona izango zan. Guri, beintzat, beti  
eman egin oi zigun kape bat bada ere. Se-  
sio-bildurrik etzegoan arekin. Gaur ikusi ta  
biar ikusteko gogoarekin gelditzen ziñan  
beti.

Bestea, Oriamendiko Jose Martin. Li-  
noren anaia izan bear zuan. Bertsolari ona,  
ta bein batean Galarretako Beltzari bota  
izan bear zion bertsoa:

Galarretako Beltziña,  
kanpuan askotan etziña;  
zartu ezkeru seguru dezu  
iñork ikusi eziña;  
obe zenduke konfesatu ta  
lenbailen ilko baziña.

Kalonjetarrak kastatik dira bertsolariak.  
Orain ere bada Jose Martinen semea, *Zeruko Argia*-ra bertso ederrak bialtzen dituana; Kalonje abizenarekin etortzen dira.

Konportan sagardoa egoten zan saltze-  
ko, ta an jendea asko ibiltzen zan neguan.  
Ikusi izan genduan an irurogei baso sa-  
gardoko erronda-ta ateratzen. Bola-tokian  
zeudenak ta danai partitu egiten zitzaioten.

Barrikaren ondoan ixtria egiña izaten  
zan. Lenbizi etortzen danak, baso bat ate-  
rako du; bigarren etortzen danak, bi baso;

an sartzen danak, sagardotegian daude-  
nak danak konbidatu bear izaten ditu.

Badira batzuek oso argiak: aurrena joan  
sagardotegira, ta barrikaren urrean jarri; ta  
an sartzen diran danenak edan eta ala ere  
ez dira betetzen.

Sagardo on samarra egokitzen bazan,  
laster enteratuko ziran urrutitxokoak ere.  
An etorriko ziran urrengo egunean. Pare  
bat milla litroko kupela izanagatik, laister  
ustuko zan.

Sagardotegia gauza ederra zan; oitura  
ederra. Ango bola-tokia ta ango tokako to-  
kia! Ango bata bestea gonbidatze ori ta  
ango sanidadea!

Askotan txorkatilletarañoko putzua  
eginda barrikaren aurrean. An sagardoa  
saltzen zegoanak ere, oñetako onak ez ba-  
zitian, anak etzitian legorrak izango.

Boletan-da ederki entretenitzen ziranak  
baziran. Tokan ere bai. Antiguako Xarpa-  
tarrak eta Potxolo, Añorgako Alkain bat,  
Anton Beltz eta oiek, ogia jaten baño nai-  
ango izaten zuten. Bolan da tokan egun gu-  
zia pasatzeko kapaz ziran aiek.

Trabesak ere izaten ziran. Bolan ari ba-  
ziran, "Iruan par lau baietz!" batek esan-  
go zuan; da besteak: "Ezetz! Badijoa!".  
Igual duro bat jokatu. Orduan etziran du-  
roak orain bezin ugari izaten.

Tokan baziran, berriz, sei fitxa izaten  
ziran da artan ere: "Seitatik bi baietz! Iru  
baietz", ta orrelaxe jokatu zuten dirua.

Berak bolariak ez diranak ere, izaten  
dira jokutzen amorratuak. Beste bat bola  
edo tokako fitxak tiratzen ari baldin bada,  
arekin jokatu du dirua: onenbeste baietz  
edo onenbeste ezetz. Jokatzeko gogoa dau-  
kanak, beti asmatuko du nola jokatu.

Antiguan zortzi sagardotegi ezagutu  
giñuzen. Gu an lanean ibilli giñanean, ba-  
ziran zortzi sagardotegi. Gu jaian, beran-

du samar jaikitzen giñanean, etxean go-  
saldu ta meza nagusira joango giñan. Eta  
orduan ederki kontatzen ziran aiek; dane-  
tan baso bana bada ere edan bear izaten  
genduan guk.

Orduan ainbeste sagardo eder ez da  
geiago ikusiko. Sagarrak ere gutxitu dira,  
ta bear baño lenago ari dira galtzen ere,  
jendeak ez diote kaso aundirik ere egiten  
da.

Ganadu-jatekoa ere terreno gutxian  
asko nai izaten da; eta, sagarra dan tokian,  
berriz, ez da orrela izaten. Gutxi ta aula  
izaten da sagar-arbolaren azpian.

Garai bateko gizonak bizi balira, negar  
egingo luteke oraingo mundu oneri begi-  
ratuta.

Elkoorko Luis Aundia, Jose Urresti eta  
Eperreneko Prantzisko, eun da ogei bat ki-  
loko gizonak, aiek jakiten zuten bazkari  
ona nun zegoan Donostian. Aiek jai-eguar-  
dian beti Donosti aldera joaten ziran, eta  
illunabarrean atzera gora etorriko ziran.

Ortxe Ibaeta aldeko gizonak ziran aiek;  
eta, ederki gobernatuta, umore ederrean  
Konporta aldera bilduko ziran.

Batean, Ernaniira joan omen ziran en-  
botellatzera, eta bi ernanitar da Jose Urres-  
ti eta Elkoorko Luis asi omen ziran enbo-  
telltatzen. Edan egiten omen zuten da  
gosaria ere ona omen zan, da bapo jarri  
danak ere.

Baña ernanitar oiek erretira egin omen  
zuten amaikak alde ortan-edo, ta beste bi-  
kotea etorri omen zan; da segi igaratar edo  
ibaetar oiek sagardoa enbotellatu ta sa-  
gardo edan.

Ari omen ziran gogor, da ernanitarak  
ere asi omen ziran, da bapo jardun omen  
ziran puska batean. Bazkaria ere izango  
zan an gure etxean ainbatekoa; ta arratsal-  
dean, bostak alde orretan, asi omen ziran



bigarren bikotea ere piskaren bat kolokatzan, eta bereala omen ziran irauan ezin da erretira egin bearrean.

Eta irugarren bikotea etorri omen zan, da ibaetatar oiek an ari omen ziran sagardoa enbotellatu ta sagardoa edan. Illunabarrean kamiona eraman omen zioten, sagardo-kajaz kargatu ta Antigua deskargatzeko, eta ez omen zuten ezagun baraurik zeuden ala edanda zeuden. Laste usua izan bear zuten kamiona.

Nik ezagututako gizonak dira oiek: Elkoorko Luis; *Aundia* esaten genion; eun da ogei ta amar kilo izango zan ura; ta Urrestiko Jose ere eun bat kilo bai. Ibaeta ballera ortxe da, Igara edo *Central Lechera*-tik bertan. Orkoxe gizonak ziran oiek.

Gizon oiek, gaur sagarrak daramakian martxa ikusiko baluteke, negar egingo luteke. Elkoorko Luis Aundiak eun baso dobleak ederki edaten omen zituan. Edan da egon egiten zan ura. Alakoxeak edan bear du sagardoa, ta ardoa ere bai.

Etziñan arekin bereala aserretuko. Etzan aserretzen etzan oietako ere izango. Nik aditu izan det, Urrestin sagardoa zegoala, bein kaleko gazteren batzuk toriatzen asi omen zitzazkan, eta ez omen zan bereala aserretu; baña, bein arek jaiki ta atalaioa artu zuanean, ez omen zan erronda egin bearrik. Nai baño lenago apenas atera ziran Urresti aldetik.

Gizonik onena jartzen da txarrena, bein aserretutakoan. Motiboa ere izango zuan arek aserretzeko, ta arrazoi guziak berak izango zituan arek.

Gizon aiek etziran bete-bete egin da maian lo egiten zuten oietakoak. Jan da edan egin da izketaldi ederrak egiten bazekiten. Gurekin ere txuleta-jan ederrak

egin izan zituzten. Beti pozik gelditu izan giñan gu.

Sagardo-demboran konpromiso asko izaten zan. Udara pasatzen zan ordurako ta *sábado inglés* egiten asten giñan. Larunbat-eguardian lanetik atera, bazkaldu ta siesta egingo genduan; da, gu siestatik jaiki orduko, kotxeren bat izango zan atarian:

–Onelako tokitan barrikotea daukagu, ta joango baziñateke...

Guk uraxe nai, berriz. Segituan preparatuko giñan da joan beintzat, etorriko ez bagiñan ere. Ala ere larunbata ohea da parranda egiteko; jaietan badago denbora astelenerako sendatzeko, lanera joateko.

Baña jaietan ere berriz etorriko zan bes-teren bat, eta orduantxe galdu. Bodegaren batean sartuko giñan; eta, edatea ezer ez dala, ango zigarro-keak danak guk tragatzen giñuzen; kantuan ari danak bestela baño ere geiago.

Gero, Zepaik alako boza zeukan da ura asten zan altutik kantatzen; ni ere bai, arek bezela egin naian, eta eztarri dana urratuta gelditzen nintzan illuntzerako.

Eguna joan orduko aspertzen giñan: da, Donostin bagiñan, Erreterira edo Oiar-tzuna joango giñan, da gaba pasatzeko badakizu zer planta artuko genduan. Odolkia bezelaxe bete eta etxera etorriko giñan.

Konportako eskallarak izketan balekitez, itzegingo luteke. Jornara ederrak pasiak dirala an esango luteke.

Iru Erregeen eguna zan, da bisigu jateragon biratuta geunden Lino Kalonjek bertsolari danak, an inguruan zeudenak: Zepai, Juan Jose Sarasola, Berridi, ni ta oiartzuar bat bazan soldadua-edo, bertso-tan jardun oi zuana; Donostian izaten zan ura ere.

Goiz artan, Zepai ta biok eizera joan giñan. Elurra zegoan Donostin bertaraño, ta bezperan ekarri giñuzen kartutxoak eta bota berriak, eta pronto jarri giñan.

Orduan etziran kartutxoak nunai billatzen, baña Erreran billatu giñuzen dana erdoitutako batzuek. Gerra zebillen, ba, ta orregatik ez dakit aiek lur azpian edo orrelakoren bat edukiko zituzten. Dana dala, gureztat etzan orduan kartutxo txarrik; iza-tea zan ditxa.

Eguna etzuan nai baño lenago argitu. Eguna piska bat argitu zuanean erten genduan etxetik, nagusiaren illoba bat lagun artuta. Tomas zuan izena arek; mutil gazte bat, amazazpi edo emezortzi urte ingurua idukiko zituan. Ondo preparatuta erten genduan beintzat guk, badaezpada ere, eiza ibiltzeko mutillarekin. Da asi giñan tiroka.

Zozo ta birigarro ta olakoak asi ziran lenengo azaltzen; tira ta joan igual egiten ziran batzuetan, da guk danak bota nai. Aspaldi artan gutxi ibillita geundenik eta tiroan atzeratuta egongo giñanik ere etziztaigun guri akordatzen; eta, alkarrengana inguratu giñan batean, Zepai orri:

-Tiro auek ez ditek indarrik edukiko!

-Zer ba? -esan zidan Zepaik, eta:

-Etzekiat, ba! Sagar-arbolan geldi dagoan zozoari tira zioat tiroa eta joan egin zidatek; eta nik, geldi dagoana bada ere, bota bear nitek!

Eta Zepaik, ori aditu zuanean, aurreko aldean zeukan piko zar bati, *danba! danba!*, tira zizkion bi tiro, ta:

-Ia: jarri zak or ipurdia! Ikusiko dek nolako gustoa emango diken!

Piko zarra dana azala kenduta utzi zuan. Berriz ere segi aurrera; ta, tiro batzuek tiratzen ari giñan bezela, jarri giñan utsik egiten ez genduala, eta ez genduan

alperrik eraman eiza ibiltzeko mutilla ere.

Zozo ta birigarro. izugarrizko txorta egin genduan, da an etzan klaserik etzan izango. Iru ollagor ere baziran. Eta ango egabera eta ango istingor! Ederki kargatuta etorri zan gurekin joan zan mutilla.

Errotaberrin, orain jan-etxea dagoan orretan, orduan sagardoa izaten zan, da antxe sagardoa edan da Igaran barrena Konportara etorri giñan.

Zer da ta gure *colgadura* ori bistan jarri bearra zegoan. Jarri degu, ba, tabernan bertan isikita, eta an zegoan jendeak bereala zabaldu zuan Antiguan barrena Donostiraño zer ikusi zuten Konportan. Ez da alako propagandarik jendea tabernara ekartzeko. Ango jendearen emana! Etzan alako txorta asko ikusi Antiguan da Donostian ere.

Baña, pobrearen pozak oi duana, motxa zan ura ere, eta or aditzen degu gure kinta gerrara deitu zutela. Bereala izparringia edo periodikua bildu genduan, eta antxen jartzen zuan eta etzegoan ezetz esaterik. Makiña bat pentsamentu egin nuan, baña atzanean joatea erabaki nuan.

Iru Erregeen eguna ez da berez siesta egiteko garaia; baña gabean zer gendukan bagenekigun eta siestara joan giñan bazkalondoan Zepai eta biok. Bai lo-aldi ederra egin ere. Bezpera-gabean ere ez giñan geiegi egiñak izango, ta alakoan ederki etortzen da lo piska bat.

Esnatu gera, ba, eta batenbat bertsoan ari zan gure taberna ortan, da berealaxe ezagutu genduan bozan: Saikolako Pello.

Ura somatu genduanean, piska baten egon giñan; baña joateko modurik etzeukan, da an ari zan kantatu eta kantatu. Guk, berriz, bisigu jatera joan bear genduan eta jaiki egin giñan.

-Jaungoikoak dizula illunabar on!

Da:

–Bai zuri ere –erantzun zuan; da asi zan bat galdetu ta bestea galdetu. Esateko gogo aundirik etziran gauzak ere galdetzen zitzuan batzuek; eta, izketaldi bat egin ondoren, guk joan egin bear genduala.

Nora joan bear genduan ere jakin nai zuan, eta esan bear izan genion. Kanta-papel bana erregalatu zigun, eta an joan giñan Linoren sagardotegira; eta Saikolako Pello ere bai gurekin.

Or juntatu gera egundoko bertsolari-kuadrilla. Danai naikoa bisigua eman zigun, da etzan an bertso-paltarik: Juan Jose Sarasola, Antonio Berridi, Oiartzungo soldadua, Zepai ta ni giñan len esandakoak; eta Pello Saikola, ta Azkoitiko *Bixko* esaten genion guk, ura ere or tokatu zan. Da aieri exeritzeko esan zien; tenedore bana geiago jarri ezkerro, dana egiña zegoala.

Jan genduan bapo bisigutik eta asi giñan bertsoan. Gu zeñek ixildu? Ordurako sagardotik ere ederki berdinduta jarriak egongo giñan, da txanda arrapatzea izaten zan lanik zaillena; kantatzeak etzigun kezkarik ematen.

Pello Saikola izango zan geiena kantatua, eta Zepairi ere gustatzen zitzaion alakoak piska bat toriatzea, ta bazan an zeñek kantatua. Danak egin zuten an bakoitzak bere partea.

Atzenean Linorekin eta nerekin ikusi nai izaten zuten pesta, eta arrats artan ere erregutu zuten batenbatzuek; eta, lenak ezer etzirala, guk egin genduan beste saioa ikaragarria, eta guk azkena eman genion arrats artako pestari.

An ziranak danak agurtu ta Zepai ta ni Konportara etorri giñan. Ordurako gaba aurreratua izango zan, eta urrengo egunean ere lana egin bear ko zala ta oiera joan giñan.

Eguna ederki dibertituta pasa genduan: goizean asi eizean eta gabeen bisigu jaten, ederki pasa genduan; baña gerrarako deia akordatzen zitzaidan sarri, eta len berandu etorri ta ezin loak artu, ura komeria!

Noizbaiten ere egin genduan beintzat lo; ta ala, goizean jaikita, kapea artu ta bokadillo ederra an egongo zan pronto gosaltzeko. Ura artu eskuan da joango giñan fabrikara; an bi botilla zerbeza izaten giñuzen errezioa, oraingo *especial* auen aundierakoak; aiekin gosalduko genduan ederki eta, zortzirak jotzen zutenean, asiko giñan lanean.

An lana egitea etzan ezer; lan ariña izaten zan batetik; eta bestetik, berriz, egarririk ez alako astelenetan. Gauza estimatuak dira oiek biak ere; bai lan ariña ta bai egarri-bildurrik eza.

Biaramongean or entzuten degu Pello Saikolak iztarra autsi zuala. Bizikletan etorri zan da atzera aruntz ere ala abitua izango zan. Kamionen bat jota-edo bidean autsia izan bear zuan.

Etzan arritzekoa egun artan orrenbeste pasatzea: ederki gobernatuak giñan danok ere, eta gero bizikletan zuzen joatea gauza zailla.

Ilbeltza bazijoan aurrera eta gerrarako deia ere etzitzaigun aztutzen; eta or etorri zan, berriz, Ilbeltzaren atzen alde orretan, Otsaillaren aurrenean presentatzeko Donostiko *Caja Recluta-n*; eta alaxe presentatu ere. An esplikazioren bat eman ziguten, da atzera etxera.

Orrelaxe, Otsaillaren zazpira arte ibilli giñan, egunero presentatuaz; soldaduskan egunero piska bat gastatu bear giñuzen diruak gastatzen egun gutxian.

Gu, ala ere, bertan bizi giñan; Mondragoetik eta Bergaratik etortzen ziranak ere

etorri egiten ziran, da aste bete orrelaxe pasa genduan. Fabrikatik despeditu giñan, da irabazi ez da gastuan zortzi egun edo aste bete.

Ez genduan bestela jai egingo guk, eta orduantxe egin genduan, Donostian pasiatuaz. Etxean despeditu gerrara joan bear bagendu bezela, eta atzera illunabarrean etxera.

Baña etorri zan illaren seia, eta orduantxe esan ziguten, biaramonean, au da, illaren zazpian, maleta ta guzi etortzeko, martxa genduala ta.

Goizean etxean despeditu. Agur egin genien etxekoai. Suerte ona izateko esan ziguten aiek, eta aguro etortzeko. Fabrikan ere sartu-atera bat egin genduan, eta aiek ere agurtu genituan. Suerte ona izateko, eta geren maletak artu ta *Caja Recluta*-ra presentatu giñan. An Valladolid-erako des-tinua eman ziguten, eta Norteko estaziora joan giñan. Sarjentoren bat edo bi bagiñuzen laguntzeko.

Emen bukatuko det orain au, nola Zer-bezeriko istoria dan; gero esango ditut ger-rako kontuak.

# Gerra

**G**U gerrara joan giñan milla bedera-tzireun da ogei ta emezortzian, Otsaillaren zazpian.

Valladolid-era joan giñan eun da irurogei bat euskaldun, da ara gabean allegatu giñan.

Estazioan bertan bi puska egin giñuzten: batzuek zapadoretara ta besteak kaballerira. Gu kaballerira tokatu giñan, da danak ia destinoarekin jarri giñan. Kinta bat eta erdi giñan Marinakoak gu: milla ta bederatzireun da ogei ta amarrekoak kinta osoa, eta amaikakoen erdia. Azkeneko auek etziran destinatu.

Nere destinoa teniente baten asistente zan; da beste batzuek, berriz, zaldi gobernatzen da orrelaxen.

Gu goizean kalera joaten giñan: tenienteak pamelia bazuan, andrea ta bi seme, eta ogia eraman koartetik etxeko andrearentzat eta orrelako lan batzuek egitera. Lagunak ere izaten nituan eta eguardira artekoa kalean pasatzen genduan.

Ederki gobernatzen giñan. Plazara joan da zerbait artuko genduan. An ardoa aterako genduan, eta ardoa edan-erreza izaten zan an; da bein baño geiagotan bai, bi lagun izango giñan da bi litro ardo edan-da joaten giñan koartelera.

Gero, tenientearen botak garbitu bear izaten giñuzen; gero, arratsaldean, estruzioak ikasi. Olaxe, bost illabete ortxe Valladolid-en egin giñuzen.

*Bombilla* esaten zioten kantina bat bazan koartetik urrean, da ara joaten giñan, libre giñan guzian. An gure arrantxua egin da batzuetan bertsotan ere egiten genduan, gerrak kezka aundirik ematen ez bazigun. Bein kantinara ezkerro, gerrarekin aztu igual egiten giñan gu, ta orri eskerrak.

Ogei ta amaikako kinta erdia ere an zan gurekin; ura eraman zuten lenbizi frontera, eta andik asi giñan bakantzen. Urrengo, guretatik batzuek automobilismora, ta bakantzen asi giñan.

Gure txanda ere laste etorriko zala ta orretxen bildurra edukitzen genduan. Ain ondo geunden or, tiro-bildurrik ez ta!

Alako batean etorri zan, ba, gure txanda ere, bost illabete pasa ta gero, ta ortikan Guadalajara-ra joan giñan. Ogei mutil *battallón de trabajadores* batera joan giñan, eskolta egitera.

Ementxe Azpeitiko ta Orioko ta Donostikoak, berriz, asko mutillak zeuden battaloi artan. *Número 13* zan batallonia. Mutil oiek ikusi ta pena artzen genduan lenbizitikan, baña gerrak danetara jartzen du gizona, ta gu ere oitu giñan.

Injenieroa ere bazegoan batalloi artan, da apaiza ere bai. Kamio berriak egiten-da jarduten genduan. Gu, askotan, injenieroa-ri erakusten nola lana egin bear zan. Toki ederrean zegoan, guk erakutsi-zai zegoan injenieroa, bide berriak egiten. Bizkaitarrak ziran oiek biak, injenieroa eta apaiza.

Apaizak ere ederki ikasi zuan pika-txoian, baña gero kartero sartu zan. Beti, eskola piska bat duana intxufatu egiten da an ere.

Beroa, berriz, ikaragarria egiten zuan an. Exerita jarri ta galtzak belaun gañean etzegoan sufritzerik. Galtza kakiak eskua-kin artu ta jaso egin bear gora belaun kontratik.

Autsa, berriz, ango pixta berri aietan, urrutira begiratu ta, tropa zijoanean, etzan aurrekoak besterik ikusten; atzean zijoazenak, dana autsak tapatuta joaten ziran.

An formatuta joan bear, da guk geok, eskoltakoak, aurrean izan edo atzean izan, alde ederra egoten zan. Erdiak aurrean ta beste erdiak atzean joaten giñan; da, atzean egokitzen baziñan, auts-pilla ederra jan-go zenduan.

Urak ere oso txarrak ziran toki batzuetan. Edateko bai ederrak, presko-preskoak; baña zenbait lekutan edaten bazenduan, laste akordatuko ziñan. Galtzak bizkarrean artzen al ziñuzen. Errian zeudenak edateko modukoak ziran edo ez-ziran, eskribituta egoten ziran. An, erritik kanpoan ere, nunai badira ur ederrak, baña kontu aundia bear da edaten.

Aiek, eizerako dira toki ederrak. Eperra ta erbia ta konejoa bada an ugari. Nik, serbizadorik ez nuanean, beti eizik zegoan edo ez ikustera joan bear izaten nuan.

Goiz baten joan nintzan. Makaldi bat zegoan oso ederra, ta dana konejo-zuloa zegoan an; beste aldetik dana soroa zego-

an, da erdian kamioa. Goizean, eguna argitzen asi zuanean, jarri nintzan an kamioan, soroen da makaldi orren erdian, da an pasa ziran konejoak arrituta utzi niñuten. Soroetatik makaldira danak. An bai, eun konejo ikusiko nituan nik.

Gero, soroetatik gora, berriz, ametz kas-kar da arte ta orrelakoa zegoan beste sail-lara bat mendia, eta ara joan bear nuala pentsatu nuan, eta baita joan ere.

An, berriz, zazpi erbi altxatu nituan ordu-laurden bat baño lenago, ta beste ez dakit zenbat eper.

Mendiak sakon piska bat zeukan; da, ara allegatu nintzanean, altxatu zan an epe-rra! Berrogei ta amar izango ziran an bix-tan, da nere artean pentsatzen egon nin-tzan: "Zeñi tirako nioke orain, eskopeta baneuka?".

Espinosa de Henares zan erri ori. Neri bestetarako etzidan inbiririk ematen erri arek; baña eizerako bai. Bestela erri po-break ziran aiek. Erri guzian bi bei zeuden: ta, guri arrantxorik sobratzen bazitzaigun, izaten zuan an estimazioa.

San Pedro ondorenean joan giñan gu ara, eta beroari aguantatu ezinda an izaten ziran komeriak!

Beste erri batera aldatu giñan gero. Cogolludo zan ura. An ere kamio egiten ibilli giñan. Amar kilometro joan eta amar kilo-metro etorri, ogei danetara, egunean egiten giñuzen. Nekatuta egoten ziran mutillak.

Guk joan da etorri besterik ez genduan izaten, da ala ere naikoa lanak izaten giñuzen; baña aiek, piska bat bada ere, lana egin bear. Mutil gogor askoak, bein illundu ezkeru bixtarik etzutenak baziran.

An etzegoan ala segitzerik, egunean orrenbeste kilometro egiñez, eta berriz ere aldatu egin bear izan genduan. Oraingo erri au Veguillas zan.

Aldatu baño len, anaia ospitalean zegoala operatuta ta bixitatzera etortzeko telegrama joan zitzaidan; da eman zidaten bost eguneko permisoa, eta atera nintzan andik.

Jadraque-ra arte ez neukan trenik, eta bezperan atera nintzan, goizean trena artzeko. Illunabarrean iritxi nintzan Jadraque ortara. Erri polita zan ori, ta tabernak ere bazeuden politak.

Aietako batean oia eskatu nuan, da aiek etzutela oirik eta an aguazillak billatuko zidala oia esan zidan. Bi tokitan galdetu genduan, eta ezetz esan ziguten, bazituztela aiek lagunak. Eta irugarrenean, aurrea pasatzeko.

Bi koltxoi lurrean bota eta komedore moduko baten etzan nintzan. Aspaldi artan ez nuan olako oi ederrean lorik egin; eta goizean, berak deituta, kapea eman da bialdu nindun trenera.

Ia zenbat zor nion esateko, ta batere etzuala bear esan zidan; aren gizona ere nonbaiten ibilliko zala, eta ari ere batenbategen eman bearko ziola.

Ia gizona gerran al zuan, ba, esan nion, eta baietz esan zidan. An italianoak galdut bear izan zituzten izugarritzko terrenoak, eta orduan aurrera joana izan bear zuan aren gizonak ere.

Nik emakume ura ala ikusi nuanean, eta arek esaten zituan gauzak aditu, biotza samurtu egin zitzaidan, eta andik estazio-ara begiak ederki bustita joan nintzan.

Treanean sartu nintzan, eta etxe aldera gentozela eta gustora etorri giñan. Zaragoza ondoan Casetas-edo badago, eta antxe kanbiatu trena; an artu genduan onerakoa, eta berealaxe emen nintzan etxean.

Anaia Zestuako balnearioan zegoan. Bixita egin nion da nik uste baño obeto zegoan; etzan grabedaderik eta ospital ona

izan bear zuan, berriz, Zestuako balnearioa.

An ere gertakizun polita pasa zitzaidan neri. Anaia zaitzen zegoan enfermerak galdetu zidan ia anaiaren aita al nintzan. Ezetz esan nion; arek ogei ta zortzi urte zeuzkala, ta nik ogei ta amar; aren anaia nintzala ni, ta oso bixta txarra zeukala. Ta dana lotsatu zan neskatxa; barkatzeko esan zidan.

Bost egun ederki pasa nituan emen, baña gero joan egin bear. Lenbizi Zaragozaraño. Goizean erten da arratsalde erdi alderako iritxi giñan, da etzegoala aurrera joateko kominaziorik. An lo egin genduan.

Urrengo eguardira arte etzegoan berriz trenik Guadalajara aldera. Uraxe artu ta joan nintzan Ariza deitzen zaion estazio batera. Ta an alto ta jetxi giñan trenetik, eta besterik etzala etorriko.

Permisoarekin etxean izandako kua-drilla juntatu giñan, bañan trenaren arrastorik ez. Illundu zuan da trena paltatuta. Gu baño aundiagoak ere bazeuden an, tenienteak-eta. Baña alako baten ambulanziko tren bat etorri zan. Antxe sartu ta joan giñan Los Arcos-edo beste erri batera.

An etsi genduan ez giñala joango Cogolludo-raño. Bertan gelditu giñan bigarren gaba: bat Zaragozan da bestea Los Arcos-en.

Gabean berandu allegatu giñan ara, ta iñora joateko garaia etzan orduan. Estazioan bertan, al zuanak al zuan bezela, lokuluxkaren bat egingo genduan; da, eguna argitu zuanean, etzan iñork agindu bearrik jeikitzeke.

Estaziotik errira joan giñan, da or ikusten det gure jana eramaten zuan kamiona intendentzian. Nere artean: "Onekintxe joango nauk ni ederki!". Esan nion txoperri, eta baietz, eramango niñula. Lasta joan bear zuan galdetu nion, da andik ordu batera.

Ba, nere artean: "Bizarra moztu bear diat". Luzatua neukan, ba, ura ere. Bizartegia ere an bertan zegoan, ba, da sartu naiz bizartegi ortan. Berealaxen kendu zidan; da joan nintzan intendentzi ortara, ta nere kamiona palta. Orduan bai amorratio ederra artu nuala!

Trenik ez neukan berriz arratsaldera arte, ta pazientzia eskatu Jaungoikoari, eta arratsaldeko trena artu ta joan giñan Jdraque-raño. Ta an, estaziotik errira netorrela, etsi ta gero, anbulantziko kotxe batekin topo egin da arixe alto eman.

Gelditu zan da antxe sartu. Arek ere errieta egin zidan: anbulantzia etzala ala gelditzen esan zidan. Apaiz bat eta txoperra zetozen, da ni ere ospitalean egon nintzala ta barkatzeko esan nion. Aretxek entregatu ninduan Cogolludo-ra.

Bi gau bidean pasa ta iru egun, da ederki damutu permisoarekin etorria. Ara iritxi nintzanean, etxera etorri nintzanean baño poz aundiagorekin gelditu nintzan. Bost egun etxean pasa ta egun baten joango nintzalakoan, iru pasa bidean ere.

Eskerrak sarjentoa ero-aldiarekin arrapatu nuan. Ia emengo neskatxakin asko jostatu al nintzan da orrelako batzuek galdetu zizkidan. Da kozineroari, neri apariona emateko esan zion.

Nere lengo lagunak arrapatu nituanean, kontentu nintzan ni. Orduan orrelakoxe kominazioak izaten ziran.

Len esan bezela, Cogolludo-tik Veguillas-era aldatu giñan. Andik bai ederki. Goizean jeiki ta lan-tokia bertan. An ederki ari giñan.

Tabernaria ere Azkoitiko Urrategikoa nagusia, eta Elgoibarkoa etxeko andrea. Aurrik etzuten, da biak antxe tabernarekin bizi ziran.

Len kamio ebakitzen ari omen zan gizona, eta gerrarekin ezin lanik egin artan,

da al zan bezela bizi. An etzegoan Donostiko Parte Zarrean bezelako despatxorik tabernan; baño "danen dantxo, nere gizontxo" lenagoko andrearena.

An gu gustora geunden beintzat. Radioa ere bazegoan etxe artan ordurako, eta Errenteriko txistulariak-eta ederki aditzen giñuzen. Eta tiro-bildurrik ez, da ura bearena.

Baña beti, bat gustora dagoanean, izaten da zerbaiten aldaketa, eta artu genduan ordena, ba, martxa genduala ta preparatzeko mailetak; eta bai preparatu ere.

Andik Segovia ondoko erri batera joan giñan. Hontoria de Jarrillos zan erriaren izena.

An bazeuden basauntzak eta *corzos* eta *gamos*. Erregeen lengo palazioa ta erdi-erdian eskoltaren koartela, ta dana paretaz itxia zegoan. Kilometroak asko zan ura. Iru metro ta erdiko paretan zeukan buelta guzian.

Gu ezkurra biltzeko aitzakian sartzen giñan ara. Ez genduan ezkurrik biltzen; baño, bein barrena sartu ezker, etzigun inporta izaten. Erdi-erdian kamioa pasatzen zitzaion, eta an etxe koskor bat zegoan goardarena; ari eskatu bear izaten zitzaion baimena ezkurra biltzeko. Beti ematen zuan baimena, soldaduentzat beintzat.

An berrogeiko taldeak-eta ikusten ziran basauntzak; eta nunai garitak beren petrilederrarekin exeritzeko, eta an jarriko zan errege. Ta erri bateko gizonak artu berekin, da aurrean artu basauntzak eta araxe, garitaren ondora, ekarriko zituzten. *Danba!* ta *danba!* tira, ta bota sei edo zazpi basauntz, eta naikoa zala ta utzi egin bear. Bestela egin zeizkean an izugarritziko ilketak.

Gero, biaramonean, periodikoak ekarriko zuan errege il zituala onenbeste ba-



sauntz. "Ura bai eiztarial!" esango zuten arango berri zekitenak, eta eun ardiko artalde baten ardiak iltzea bezelaxe da an bsauntzak iltzea.

Frentea geldi zegoan an ere. Pakea ederra. Trintxerak egiten giñuzen, ametralladora-kabiak eta olakoak.

Zepairen anaia ere antxe billatu genduan, Konportakoa, eta tertuli batzuek egin giñuzen.

Batean, erri artako gizon batekin disputa bat atera genduan: arek zeukan bei-para, guk, amabi euskaldunek, tiratu baietz; gurdia jarri, soka erantsi gurdiari ta tiraka. Ta arek ezetz tiratu. Andik urren-go jaijan jokatzeko, ta baita jokatu ere.

Baldin bazenekizu, irakurle, gure ofizialak-eta nola mintzatzen ziran gure alde, gauza aundi bat jokatuta bezelaxe... Ta arrua bat ardo besterik ez genduan jokatzen.

Erantsi genizkan sokak gurdiari atzeko puntatik. Iru arrai egin giñuzen frontoian, eta erdikoan jarri gurdia; eta beste bi arrai, bat aren aldetik eta bestea gure aldetik, eta zai geunden gu asteko.

Ta "bat!" esan zigutenean, beiak mogitu ziranerako, guk tira ta ipurdiak zabaldu genizken, da andik aurrera nai genduan. Bein ipurdiak zabaldu ezker, ez du ganaduak indarrik. Diskuidatu balitz, iru kilometro zeuden andik Segovia-ra, ta arañoxe eramango genduan.

Gero, ofizialak erri artan zan bei-para-rik onenari jokatu nai izaten zioten sei mutillekin, eta etziran atrebitzen.

Gizon koskor arek atera zuan bere arrua ardoa, ta guk edan. Amabi lagunentzat litro bana ardo, baña geiago ere inguratu ziran edaten laguntzeko. Amabi euskaldun giñan: sei Gipuzkoakoak eta sei bizkaitarrak.

Bei politikak ekarri zituan: ortxe berrogeina erralde ingurua izango ziran. Illea galanta zeukaten. Erraperik etzuten ageri, baña an alakoxeak bear ziran. Gabon-aurrea zan eta antxe larrean ibiltzen ziran aiek, eta *24 bajo cero* egiten zuan otza.

Gabonetarako asi giñan preparatzen, bi arkume erosita, euskaldun kuadrilla bat, eta pozak geunden gu. Eta asi zan jendea esaten martxa egin bear ko ote genduan, eta ez al zala izango Gabon-egunean orre-gaŕikan orrelakorik!

*Zapla!*, egun ortantxe tokatu zan gure aldaera. Eguardian lanetik etorri giñan, eta bazkaldu ta martxa egin bear zala. Nora jakin ez, baña gure arkumeak an gelditzen ziran, Hontoria de Juarrillos ortan.

Preparatu giñan beintzat gure maletak eta mantak artuta, eta Segovia-ra. An trenean sartu gera, ta nora joan bear genduan arrastorik ez. Abitu gera noizbaiten; urren-go Medina del Campo-n gelditu giñan apaltzeko, ta trenetik jetxi gera. Atzera lengo bagoira joan bear genduan.

Aparia artu estazioan eta joan gera bagoira aiar bat eta ni; batek iru sagar plateran eta besteak ardoa, iru lagunen errezioa. Gallego bat genduan irugarrena, babarrun zuriakin-eta.

Ura ez dakit galdu egin zan edo iges egin zigun; etzan beintzat guregana azaldu, ta gu or gelditu gera: iru sagar Gabon-aparia egiteko, ta irugarrena erdian ebaki ta sagar ta erdina janda. Plateratik trago bana ardo edan genduan, da bapo.

Gure gallegoak naikoa babarrun zuria jan izango zuan. Apari ederra egin genduan beintzat, eta ez genduan otzaren bildurrik...

Eta trenean segi aurrera berriz ere. Noizbaiten iritxi gera Ávila-ra. Antxe jetxi egin bear zala, ta an zakurra ilko zukean otzak.

Kalean abitu gera ta kaballeriak baño ere anka-ots aundiagoa ateratzen genduan; anketan egurrezko txokluak genduzkan, ba. Otzari gogor egiteko zerbait egin bear. Ávila-ko kalean gu abitu giñanean, bagenduan zeñek begiratu.

Gero, garaje aundi batera iritxi gera, ta an lo egin bear zala. Jendea erretiratzeko, etzateko alegia, esan da joan ziran sarjento txar bat edo bi. An zein erretiratu? Ormigoia zegoan ondoa, ta etzan an bi mantarekin lo egingo zuanik. Gau artan jendeak etzuan lo asko egin.

Nik bi ordu ta erdi goardian egin nitan, da aiek izan ziran gau artakorik one-nak. Ortik pentsatu zer gaba pasatuko genduan.

Goizean azaldu ziran sarjento oiek, eta jendea jeiki-aziteko esan ziguten. Beñere ez genduan izan lan errezagorik. Danak jeikita zeuden, eta berriz ere estaziora joan giñan.

An zegoan, gaztañak egositako ura zirudiel, kape izenekoa; ura artu genduan, eta an etorri ziran kamionak, gu eramateko.

Ogei ta amar bat kamioi izango ziran. Danak igo genduan, da martxa. Ávila-tik gora, arkaitz-tarte baten joan giñan. Lantzurdea egiten zuan. Buruko tximak danak gogortu.

Alako batean, len gora bezela, bera asi giñan, da erri bat. Cebreros edo olakoxe izen bat zeukan. Da asi zan eguzkia bistatzen, da gure buruko lantzurdeak urtutzen, da ez giñan asarre. Nik esaten nuan:

–Otzak iltzea baño, obe izango dek tiroka iltzea ere!

An ordeka ederra zegoan, da danak illaran kamionak gelditu ziran, kamioan baztertuta. Arrantxoia eman ziguten, kon-tserbako arraia. Uraxe janez gozatu giñan

eguzkitan, da Eguarri zanikan asko etzan akordatzen orduan.

Berriz ere kamionetara igo eta Boadilla del Monte esaten zioten erri batera joan giñan, Madritik emezortzi kilometrora.

Goiz aldera goardia tokatu zitzaidan neri, eta tiro-otsa noiznai bazan an. Baña kapote bearrik ez goardia egiteko. Udar bezelako egualdia; batere otzik ez an.

Boadilla del Monte edo or egun gutxi egin genduan. Berriz ere Brunete-ra aldatu giñan. Antxe *antitanque* edo oietako zanga bat ebaten asi giñan, da antxe izan giñuzen baja batzuek.

Sukaldean sartu kañonazo bat; sukaldearen goiko gallurra jo ta lertu kañonazoa. Ta antxe dozen erdiren bat baja: bat illa, beste bat anka moztua ta orrela. Guk ez genduan beste osteruntzean tiro-bildurrik izaten.

Gero ere zanga ebaten segi genion guk, eta bi kilometro ingurua egongo ziran gu geunden lekutik beste frentera, baña etzuten beñere tirorik tiratzen.

An, tiroka baño, bestela geiago gaixotu egiten giñan. Ura zegoan oso txarra; ta, ura edan ezker, seguru zan gaixotzea. Goizean sano-sano joan lanera, eta eguardirako berrogei gradu ta olaxe kalentura. Nik ez nuan urik edan, an nengoan bitartean.

Kristau asko zegoan an illa; malma edo belar-klase ortatik kantidadea zegoan an, eta oiek emen kanposantuan izaten dira.

Andik ere beste leku batera aldatu giñan: Valdetablas. Oraingo au granja aundi bat zan, da ardiak eta orrelakoak zeuden an. Ilbeltzaren azkena edo Otsaillaren aurrena izango zan, da an ardiak aña aundi-ko arkumeak zeuden. Aiek Abenduan jaiotako arkumeak ziran. Berriz ardiak arkerak zeuden.

Labrantza egiteko ere, iru zaldi-pare ta bei-pare bat bazeuden, eta antxe ibiltzen ziran goldean danak, egualdi ederra zanean.

An piska bat atzeratuta geunden fren-tetik, eta gau baten abisoa etorri zitzaigun soldadu pare bat joateko, badaezpada ere. Atakeren baten esperantza edo ez dakit zer izango zan.

Apaldu genduan granja ortan, da kabo andaluz bat eta ni biak tokatu giñan joatea. Abitu gera eta *ta-ra-ta-ta-ta-ta-ta* asi da ametralladora, ta gure andaluz orrek:

– ¡Ya etá líaa! ¡Ya etá líaa!

Bertan etzan giñan. Tiro-saio bat egin zuten eta ixildu ziran, eta orduan joan giñan aurrera.

An beste batalloia zegoan, eta oriotar bat, gurekin Valladolid-era etorria ere, antxe zegoan, kabo gañera, sukaldean: Gaztañazpi. Oraindik ere bizi da.

An presentatu gera ta eraman giñuzen arek an frentean aurrera. An egon giñan eskutxan-edo, ta etzan ezer pasatu; eta goizean atzera lengo tokira etorri giñan.

An ere eiza kantidadea zegoan: konejoa. Aiatar bat eta ni biok joaten giñan mendira; batek pikatxoia eta besteak pala, eta iru edo lau konejo joan-aldiero ekartzen giñuzen.

Artilleria ere bazegoan an, granja artan, da bateri artakoak joan da gerrillan jarriko ziran; konejoa ateratzen zanean, artzen zuten segika; batek besteari entregatzen zion, eta arrapatu arte, Ogei ta amar konejo-eta arrapatzen zituzten arratsalde baten.

Ango eiza aitona zar batek edukitzen zuan artuta larogei ta amar duroan, da antxe ibiltzen zan eizean, mutil koskor bat artu ta zaldiarekin.

Arratsalde baten joan giñan aiarra eta biok, eta antxe zebillen aitona zar ori. Ta

bederatzi konejo ta lau erbi; ta bi erbi aundienak erosi genizkan, eta amar pezeta bakkarik kostu ziran.

Sukaldera ekarri ta utzi genituan. Kozi-neroak bizkaitarrak ziran, eta aiek maniatu eta ederki. Ardo zarra bapo edan da ederki berdinduta kamañara, otz-bildurrik gabe.

Aitonak erbia eta konejoa edukitzen zuan artuta; beste eper da uso eta oiek nagusiarentzat izaten ziran.

Usoa ere erruz zegoan an. Ilbeltzaren atzena edo Otsaillaren aurrena izango zan, da antxe geratuta egoten ziran usoak. Arte-ezkurra kantidadea egoten zan an, da ez da orrelako jatekorik besterik usoarentzat.

Andik Toledora joan giñan, eta an seminarioan jarri giñan; lana, berriz, kamioa egin. Frenteak geldu zeuden. An ere etzegoan tiro-bildurrik, len atake gogorrek izan baziran ere.

Moscardó Alkazarrean egon zanean, izan izango ziran an naikoa lanak. Ederki zulatuta zegoan ura. An bertaraño sartuta ibillita zeuden *ezkerrak* esaten dan oiek.

Moscardó-k semea prisionero zeukan, da radio txarren baten bidez-edo itzegin egiten zuten. Eta semeak ala esaten omen zion aitari: entregatzeko; bestela, il egin bear zutela bera.

Aitak erantzuna: etzeukala arek entregatzerik; kodigo militarrek etzuala ori agintzen; atzeneko odol-tantora arte eutsitzea agintzen zuala, eta berak ala egin bear zuala; eta, iltzen bazuten ere, Españarengatik izango zala, ta aien eginkizuna orixen zala.

Aitak etzuan pentsatu entregatzerik. Andik laste, nazionalak artu zuten Alkazar. Orduantxe larri ziran an barrenan ziranak ere.

Lau edo bost kaballeri zeuzkaten jateko-edo, eta besteak danak janak zituzten.

Ogia ere txarra zuten oso. Motozikleta-motor batekin igotzen zuten garia, eta erre ere alako moduan. Guk ekusi genduan an jaten zuten ogia: txusko txiki bat, beltza eta txarra.

Bi aur jaio ere egin ziran an. Il ere bai. Lenbizitik pikaderoa izandako tokian enterratzen zituzten. Gero ura ere gorriak artu zioten, eta berak lo egiten zuten tokian metro bat edo ola zegoan paretara, ta antxe atzenean: zutik jarri gorputzak eta tabika-moduan egin, da antxe enterratzen zituzten.

Ori ta olako asko esan zigun guri ura erakusten ibilli zanak, baña danak ez dauzkat orain gogoan.

Atzenean, tellatutik bera sartu omen ziran, tabako-paketeak botiaz eta txokolatea ta orrelako gauzak. Moscardó-ren lagunak ziran oiek.

Moscardó-k gure batalloiarri zer esan zion, oraindik gogoan daukat. Ia nongoak ziran galdetu zien lenbizi. Ta geienak Donostikoak eta Bilbaokoak. Ala esan zien orduan Moscardó-k:

Soldadu onak zirala, euskaldunak baziran. Berari jipoirik aundienak emandakoak, aiek zirala. "Baña gure alde izan baziñaten ere, alaxe egingo zenduten zuek. Eta bere tokian gogor egiten duan soldadua, ona da. Orain gurekin zerate, eta ia len bezelaxe portatzen zeraten".

Ala esanda utzi zituan Moscardó-k. Andik laste batalloia despeditu genduan. Amairu soldadu, eunen bat soldadutatik, berezi giñuzten. Ez dakit zergatik izango zan, baña infanterira bota giñuzten eta pena aundia izan genduan. Ango langilleakin lagun egiñak giñan, da orduantxe aldegin egin bear andik.

Trena artu ta Placencia de Empalmes-era etorri giñan, eta andik Salamankara

beste merkantzia baten. Esnatu gera eta bagoi idikia, tapatu gabea, ta an mantaren gañean izotza aundia eginda. Besteak danak aldegiñak ziran trenetik, eta gu, Ariztimuño Segurakoa ta ni biok, estazioaren bazter batean, an akordatu giñan.

Jaiki ta estaziora etorri giñan, da an zeuden beste gure lagunak. An egon giñan pisika batean. Berriz ere trena bear guk, andik Valladolid-era etortzeko. Etzan agiri eta guk aldegin egin genduan estaziotik. An bertan bazegoan taberna bat, eta araxe joanda gosalduta egin genduan bapo.

Ardoa ere ondotoxo edan genduan, eta gero ziran an kontuak. Gu ekartzera zetorren sarjentoa ere jarri zan ederki, ta or pentsatu degu Ariztimuñok eta nik biok etxera iges egin bear diogula sarjentoari, ondo moldatuta ikusi degunean.

Noizbaiten etorri da, ba, trena, ta sartu gera Salamankan trenera. Eguardia izango zan andik atera giñaneko; ta gu, badaezpada ere, sarjentoa etzijoan kotxean sartu giñan Ariztimuño ta ni. Valladolid-en jetxi bear genduala bagenekigun.

Ara iritxi giñanean, jetxi ziran besteak, eta sarjentoa ere bai. Eta trenera begiratu eta begiratu egiten zuan sarjento orrek. Guk gure billa zebillela uste genduan, da arek maleta izan galdua, ta aren billa ibilli ura.

Etzan guk nai baño len atera tren ori estaziotik, baña noizbaiten abitu zan, eta zearo illunduta zegoan ordurako.

Ederki kostata egiten ziran orduan biajeak: bi egun da bi gau egin giñuzen Tole-dotik etxera, eta bost egun pasatzeko etxean.

Atzera noiz joan ondo erabakiak geunden Ariztimuño ta biok. Emen bost egun aguro joan ziran, ta berriz ere aruntz joan bear.

Alkarrekin itzegiñak giñan Zumarragan zein trenetan joan bear genduan. Ni Urolako trena artuta joan nintzan Zumarragara, ta an aldatu nintzan Norteko trenera, eta an zetorren gure Ariztimuño ori.

Joan gera Valladolid-era, eta orduantxe eguna argitu. Ango berri bagenekigun guk biok len ere; an bost illabeteen asistente egonak giñan biok, bai Ariztimulo ta bai ni.

Gosaldu egin bear genduala pentsatu genduan, da baita alaxe egin ere. Ta presentatu giñan, ba, ustez animatuta. Ofizian, gurekin batean Donostitik joandako bat zegoan. Pasadizoa esan genion, eta pasatzeko esan zigun *compañía de transeúntes*-era.

Ortarako, Seminarioan zegoan zapa-doreen koartela. Gu len kaballeriko koartelean egonak giñan, baña orduan zapa-doreetarako tokatzen giñan. Len esan degun konpañi aretara joan gera.

An kabo furriel bat zegoan, angok kargua zeukana, noiz edo noiz teniente bat etortzen bazan; eta kabo furriel orrek orjarridigu konpañira ogia ekartzeko kargua. Ta intendentzian azpeitiarrak bi anaia, Arrue korrikalariaren anaia, eta aiek ogi biribillak ematen zizkiguten guretzat, aparte beintzat, eta primeran.

An gaudela, gerra bukatu zala; ta, eundalako jinasiak egiñez, aeroplanoak an zebiltzan Valladolid-eko *Plaza Mayor*-en porean.

Guk bai poz ederra! Bukatzea nai genduan guk nola edo ala. Ura aditu genduan, guk zelebratu genduan ederki. *Tunela* esaten zioten taberna bat bazan an, Valladolid-en, eta ara joan da bisigu-jan ederra egin genduan.

Gerra bukatu zan, baña beste gauza bat bagendukan burura maiz etortzen zana: geure lagunak palta. Baña alako baten eto-

rri zitzaizkigun gure paseak; gure lagunak Salamankan zeuden, ta joan giñan aietara.

Gure lagun oiek eundalako kezkak bazituzten. Ogei ta bost egun pasatu: bost etxean eta beste ogei Valladolid-en, eta ez genekigula asko zer egin genduan.

Intendentzirako kamiona kargatu ta deskargatu egiteko boluntarioak eskatu zituzten, da arakoxe izena eman genduan, da antxe ibiltzen giñan. Batzuetan kajakara arrautzak galantak ere etortzen ziran; besteetan, berriz, alanbre arantzadunak igual. Estazioan bagoietatik kamiona kargatu ta intendentzian deskargatu, orixe izaten zan gure lana.

Artan genbiltzala, etorri zan, ba, deklarazioak emateko abisoa; ia palta izan giñan denbora artan nun egon giñan.

Ariztimuño ori zan lenengo esan bear zuana; eta arek, etxean izan giñala. Valladolid-en lo pasa giñala, ta Vitori alde ortan-edo esnatu giñala; ta bein ara joan giñan kasoan, aspaldian etxean izan gabe geundela eta andik etxea urreen gendukala, eta joan egin giñala etxera. Ta etxean erropak garbitu ta egoteko esaten zigutela. Antxe pasa giñuzela bost egun, eta beste ogei pasesen zai Valladolid-en.

Oiek danak esan zituan gure Ariztimuñok. Guardiazibilletako teniente zan jueza, ta arek uraxe zala suertea esan zigun; biajea motza egingo zitzaigula, lo joan bagiñan; arek etzuala olako suerterik izaten, biajera joaten zanean.

Zana zala, beintzat guk esandakoak jarri zituan papelean, da artan pasa zan ura.

Kintak asi ziran lizentziatzen, da gu ere jarri giñan zai. Guretzat lizentziarik etzala edo sokorrorik etzala, beti luza egiten zuten. Beste konpañietatik gu baño kinta bat gazteagoak era bazijoazen, eta guk ez genduan aldegitoko modurik.

Alferez bat bazegoan an lizentziak ematen zituana, eta presentatu gera arengana: gu baño kinta gazteagoak bazijoazela ta gu an, zergatik zan ori.

Izenak galdetu zizkigun, eta guretzat lizentziak an zeudela, baña biderako sokorrerik etzegoala.

Guk, ez genduala sokorro bearrik; gu etorriko giñala ta emateko lizentziak. Ekipajea entregatzeko esan zigun, eta eman-go zizkigula lizentziak.

Baita aguro entregatu ere! Eta an artu lizentziak eta kaixo, motell!

Orduantxe libratu giñan gure denboran izan degun loturarik txarrenetik.

An joan giñan *Bar La Viña*-ra, eta an zeuden gure lagunak, len ere antxe egoten giñan egunero alkarrekin da. Bizkaitarrak ziran ago nagusiak.

Nik len esan dedan gu baño kinta bat gazteagoak zirala, an zeuden Azkoitiko Aizterri baserriko Markos, beste bat Irungoa, Gabriel Ugartemendia, ta beste bat bergaratarra. Iru oiek an zeuden *Bar la Viña* ortan, da gu sartu giñan, triste-itxura egi-

ñaz, maletak kanpoko pasilloan utzita. Ta:

–Ez al dizute zueri eman lizentziarik?

Eta:

–Guri ez!

Orrela piska bat illea artzen jardun gendien, baño ezin disimulatu genezakean poza gendukan. Bereala igarri ziguten.

Ordu biak alde orretan arratsaldean atera giñan koarteleetik, eta illunabarrean gendukan trenan eta etzan motza joan. Etorri zan, ba, trenan, ta orduantxe gustora sartu giñan trenean! Zenbat eta onuntzago, eta orduan poz aundiagoa!

Eta Zumarragan, partitzerako, bazkari bat egin bear genduala bost euskaldunek; baña Irungo ori, Zumarragara iritxi zaneke, oztu zan, da etxera joan bearko zuala, eta beste laurak jetxi giñan.

Ariztimuñok, berriz, bera ibiltzen zan tallarreko kamiona ikusi zuan, eta ura ere joan zan etxera.

Bergaratarrak, azkoitiarra ta ni gelditu giñan Zumarragan. Bazkaldu ta partitu giñan, da antxe bukatu zan gure gerra.

# Gerratik etorri berria

**M**ILLA bederatzireun da ogei ta emeretxian gerratik etorri ta egun batzuek pasa nituan etxean, ta berriz ere Donostira joan nintzan lanera, lengo tokira, *Cervezas El León* edo orrera.

Zepai nere lengo lagun zarra an ari zan. Joan nintzanean an utzi nuan, eta etorri nintzanean ere an zegoan.

–Zepai, zer moduz abil, ba?

–Ondo! Askok nai baño obeto! Ta eori sano etorri al aiz?

–Ustez ez diagu gaitz aundirik ekarri, Jaungoikoari eskerrak; eta orain lanerako amorratzen etorri gaituk. Bai al dezute guretzat lanik emen?

–Bai; ori ziok emen ugariena! Lanez osatuko aizela uste diat emen! Apaizak eta guardia zibillak ere ez dituk asi oraindik; eta ortik pentsatu zak, ba, ez dala oso ona izango; bestela, asiko ituan oiek ere.

Etzan ura apaizen kontrarioa, baño olakoxe zelebrequeriak esan bear izaten zituan arek beti.

Asi giñan beintzat lanean, da bereala asi ziran bertso tarako deiak, Zepai ta ni biok etxe batean nola egoten giñan, Zepairen anaiarekin jarri nintzan, ba, ni ere apopilo.

Lenbizi Tolosarako izan genduan deia. San Juan pestak izango ziran. Tolosako ze-

zen-plaza dana betea zegoan jendez. Elgoibarko Gelatxo zana zan soñu jotzen, bere koñadua panderoarekin laguntzen, eta Gelatxoren andrea, berriz, beste batekin dantzan.

Aiek egin zuten beren egitekoa, ta etorri zan gure txanda, eta ala kantatu zion Zepaik Gelatxoren andreari, lenbiziko agurra egin ondoren. Andre orrek dantzan oso ederki egiten zuan, ta begira nola kantatu zion:

Gure Gelatxon andre orretxek dantzan egin du egoki, nik zerbait baño naiago nuke orrek bezela baneki; plaza batian ikusi eta orrek egiten du toki; ortan bakarrik ez da pizkorra, zokor jotzen e badaki.

“Dantzan obeto daki arto-jorran baño” kantuak esaten du; baño Zepaik zokor jotzen ere bazekiala esan zuan. Beti orrelako zelebrequeriren bat aterako zuan arek.

Ni, berriz, beñere egon naizen motele-nangoan orduan bertso tan. Gerratik etorri berria nintzan, da an egin genduan geldi-aldi orrekin oso atzeratua gelditu nintzan.

Nolabait ere egin genduan beintzat angu pasadizoa, eta txalo-zaparrada ede-

rrak aditu ere bai. Batez ere Zepaik zokor jotze kontu ori esan zuanean, eskuak puskatu bear zituan jendeak txaloka. Orduan gerra bukatu berria zan da aspaldian entzun gabe zeuden, ba.

Andik erretiratu giñan da ederki, biaramonean lanera joateko bildurrik ez genduan da. Guk Zerbezeriko lana ez genduan aintzat artzen. Da berriz ere nundik deia etorriko ote zan zai egoten giñan.

Urte artantxe, berriz ere Santiago egunerako artu genduan abisoa Motrikurako, ta arratsaldean Zubietarako.

Joan giñan, ba, Motrikura goizean. An bertso-saioa egin da libratu giñan, da baita arratsalderako Zubietara etorri ere.

Ura zegoan ona bertsoarako! *Columna Sagardía* an zegoan, ba, deskantsatzen-edo. Gerra bukatu berria, ta aiek ere egun batzuek gustora pasatzen deskantsuan, eta ortxe tokatu. Nik naiago nuan kantatu baño ez kantatu; baño orduan etzegoan beste erremediorik. Kantatu egin bear da Zepairi esan nion:

–Al dan bezela kunplitu eta alde egin bear diagu emendik!

Eta:

–Bai; ura izango dek onena: emendik alde egitea al dan azkarrena.

Soldadua beti ere ez da arropa-klase ona; eta orduan, berriz, ezergatik ajola etziotela zebiltzan, eta ni sesio-bildur nintzan.

Asi gera bertsoan. Agurtu giñuzen lenengo bertso bana edo binatan, eta gure gaia bat jakiña izaten zan: biok mutilzar geunden da neska-kontua. Orduan ere onena uraxe izango zala ta nik asiera eman nion:

Gure Zepai au dotore dabil berez baita ortakua, neska gazte bat tokatu zaio Zubietan bertakua;

nik ez dakit zer neskatx-klase dan baño itxuraz bapua, gaurko onetan nai ez duela egin bear du tratua.

Ta Zepaik:

Nik andregaia egin dedala Zubietako partian, ori esaten ai dana bera etzebillen apartian; neskatxa onak badira emen, txarrak ere bai tartian, Zepaik andreerik ez du artuko ogia zuritu artian.

Iñork etzigun kasorik egin, baño gu garaiz erretiratu giñan. Bi erritako lanak egin da Lasarteko Bulanoren tabernara etorri giñan. An botilla bat sagardo edan genduan, eta andik Konportara oñez etorri giñan.

Artean gerrak egin zituan kalteak berriak ziran; eta, jendea minberatuta dagoanean, gauza gutxi bear izaten da erida berritzeko ere.

Naparroako Aranon ere izan giñan urte artan bertsoan. An gerran ibilli ziranak, danak bazkari bat egin zuten gerra bukatu ondoren. An lengo kontuai berritu bat eman da deskantsatu egiten da gizona.

Pelota-partiduak eta pesta ederra egin zan. Bengoetxea zarra zan an pelotaria orduan, Bengoetxea bigarrenaren aita; alkatere ez dakit bera ez ote zan egongo. Aspaldiko kontuak dira ta danak ez dauzkat gogoan ere.

Bengoetxea bigarrena gurekin zerbezerian ibiltzen zan orduan. *Bar Esperanza*-n jaten zuan, izeba baitzuan ango etxeko andrea. Orduan ibiltzen zan pelotan ikasten.

Uztailaren emezortzian amaiketako eman ziguten fabrikan, eta an giñan gu ere.



Fabrikaren atzean jardin eder bat zan, da antxe maiak jarri ta *aperitivo* oietatik bazan an aukera, eta bai edaritik ere.

Eta bertsotan asi giñan. Nagusiak nai zuten kantatzea; euskeraz guk bezela bazekiten berak. Guk saio bat egin ondoren, geiago ere bazeudela bertsolariak an, da eman genien aukera asteko.

Geiago ez genduan bertsotan egin bearrrik izan. Bazan an zeñek kantatua; geiago ere bazeudela bertsolariak an. Eman genien aukera asteko, ta geiago ez genduan bertsotan egin bearrrik izan. Bazan an zeñek kantatua geiago ere. Bazeuden an bertsolari dezenteak. Murgil bi anaiak eta beste geiago ere bai, jarduten ziranak.

Egun artan, nagusiak kamionak danak fabrikatik ateratzeko libertadea eman ziguten, eta an joan giñan danak Igeldo aldera. Egun artan ezagun zan gu nun giñan: danak izketan da iñor ez entzuten.

*Buena Vista*-ra joan giñan, da guk bulla aundi samarra edukiko genduan itzegiten, da Murgil bi anaiak bertsotan ariko ziran. Itxura danez, guk bear zan atentziorik ez; aiek bertsotan baño altuago ariko giñan gu izketan. Da alako batean "Ixo -esan zuan Murgil anai zarrak-, emen bertsoak dijoaz da!".

Bein edan ezkerro, errespetorik ere ez da izaten. Piska bat ixilduko giñan berak esan zigunean, baño egun artakoa barkatu bearra zegoan guri.

Urte artan Oiartzunera ere etorri giñan bertsotara. Lau gizon joan ziran Zerbezerrira gure billa. Laurak illak dira orain. Bat, nere aitagiarraba; Zuloagako errotako Andres; Gurutzeko Nikolas eta Ibañez. Danak illak dira, irurogei urte baño len bat ez besteak danak. Ibañez ori, irurogei urte arrapatu zituana.

Guk ere aitzakiak izaten ditugu, baño geiago ere orrelaxe joaten dira mundu onetatik.

Urte artan an giñan bertsolariak ere danak il ziran, ni ez besteak. Orrelaxe dijoa mundu onetako martxa.

Len ere esan nuan urte artan zein bertsolari izan giñan Oiartzunen: lenbiziko egunean, gure aitagiarraba, Saiburu, Zepai ta ni; bigarreanean, Tellei-Txiki gure aitagiarrabaren tokian; beste danak lenbizikotan bezela. Orrelaxe kantatu genduan.

Oiartzunen beñere ez da bazkaria emateko oiturarik bertsolariak. Bestela dirutan arreglatu oi dira. Lenbiziko joan-aldia nuan, ba, eta batenbatek esan zidan neri gauza orren berri, eta nik orrela kantatu nuan:

Esan zenduten eguardirako  
etorritzeko al zala,  
amabik inguru ortan edo  
saio bat izango zala;  
orain bezela jakin banu nik  
emen bazkairik etzala,  
ez pentsatu ni nere etxetik  
gaur aterako nintzala.

Beste iru bertsolariak kontra egin zidaten, nik ori esan nuanean. Bazkari-kontu ori nik ere beste batek esana nuan, baño arek arria tira ta eskua gorde egin zuan. Zepaik onela erantzun zidan:

Uztapide au onelakoxe  
gizon argia da berez,  
ustez jokua seguru zuen,  
etorritzian ezerez;  
urrengo baten ere onekin  
ixillik egon meserez,  
onlakuari ez leike esan  
bazkairik dagon edo ez.

Irurak bazuten zerbait esateko neretzat. Saiburu eta gure aitagarreba ere gogor ari ziran, eta onelaxe bota nien:

Gaur Oiartzungo plaza onetan  
bagerade lau kantore,  
bat menderatzen dezutenian  
aitzen zerate dotore;  
irurak nere kontra ai dira,  
bat ez da nere fabore,  
baña burua azalduko det  
sator-zulotik bada're.

Orrelaxe egin genduan gure jardun-al-dia. Nik, orain bota berriak baño segurua-go idukitzen ditut gogoan lengo bertsoak. Oiek, gutxi gora-bera, orrelatsu ziran.

Bertso osoa gogoan edukiko duanik ez da, baña alde aundirik gabe bai. Oiartzungo lanak egin da etxera joan giñan.

Lau illabete besterik ez nuan egin Zer-bezerian, eta asko ez giñan ibilliko bertso-tan ere; lau illabete bigarren asi-aldian, ale-gia, gerrarik etorrita egin nitanak.

Beste bat gogoan daukat, bai, Oiartzungo Uzpu edo mendi baten nola egin genduan ikaragarria. Orduan Saiburu ta biak giñan; Zepai illobaren meza berrira joana zan orduan. Ori ere urte ortan zan.

Goizean kamiona kargatu janakin eta edariakin Ugaldetxon. Bazan an sagardoa ta zerbeza ta ardo! An etzan edan-klaserik etzan izango; eta jana berdin.

Alako ollo-saldarik ez det iñon artu oraindik. Saiburu zarrak gogoan eduki zuan ura piska batean. Ni ikusi orduko asi-ko zan ura "Oiartzungo mendi-puntan artu genduan salda balego!" esanez.

Egun ederra pasatzen da, izan ere, mendian; da, ala preparatuta joan ezkerro, berriz, obea.

Orduan gurekin ziran lagunak ere geienak illak dira: Baleioneko Erramon, Aox-

keneko Pello, Kamio Iturriozkoa ta Axaie-neko Luis. Danakin ez naiz akordatzen; baña Miranda-borda, orixe bizi dana.

Eguna zoragarria pasa genduan, beintzat, eta illunabarrean Ugaldetxora etorri giñan, goizean joan giñan kamionean jarrita. An beste bertso-saio bat egin genduan Saiburuk eta biak, eta erretira ederra egin genduan.

Alde ederra dago: zenbait bodega-zulotan zigarro-keetan egon edo mendi gañean aize preskoa artuaz eguna pasa ez da berdin.

Beste baten Aizarnazabalera joan giñan. Orduan Txapelekin nintzan. Zepai ez dakit nora joan izango zan. Orduan biok batean bizi giñan; da, ura libre zanean, arekin joaten nintzan, naturala dan bezela.

Asteasuko Lamitegi bertsolaria ere antxe zegoan egun artan. Ango maixua koñadua zuan, ba, Lamitegi orrek, eta arekin ere saio bat egin genduan. Oso bertsolari polita zan ura ere.

Egun artan lasai joan nintzan. Lan-tokian despatxua emanda nengoan bezperan: beste astebate pasako nuela, baña geia-go ez idukitzeko nere esperantzarik esanda. Andik Arruara pasa nintzan. An lo egin da lasai etorri nintzan biaramon-goizean, ta arratsaldean joan nintzan lanera. Aste artarako bakarrik nintzan. Zer egingo nuan, ba? Pena aundiarekin atera nintzan, baña aldegitea erabaki nuan.

Enbotilladoreko nere enkargatuari esan nion lenbizi, ta arek sermoi bat eman zidan: mendira joango nintzala ni berriz ere, eta mendira auntzak joaten zirala esan zidan.

Arrazoa zeukan, baña an ere gutxi irabazten genduan, da zerbait pentsatu bear. Jarriko zidala beste lan bat geixeago irabaztekoa.

–Bai! Zenbat izango da, ba?

–Pezeta bat geiago!

–Pezeta batekin ez det ezer egiten nik  
–erantzun nion.

–Ni neroni orain amabi urte sartu nintzan fabrika ontan eguneko zortzi pezeta irabazten, da orain ikusten dezu nola nagoan!

Ni aldegitea pentsatuta nengoan, da alperrik aritzea zan neri orduan.

Esan ziola enkargatu printzipalari, baña neronek aldegiterako zerbait esatea itxurazkoa izango zala esan zidan enbotelladoreko enkargatuak. Astea joan bitartean bazegoala denbora eta esango niola erantzun nion atzera.

Urrengo egunean, gure enkargatu ori antxe zebillen beti bezela, eta esan nion ari ere nola aldegeteko asmoan nintzan.

Baietz esan zidan; Martzelinok esan ziola zer pentsamentu neukan, eta nik pentsatu bearreko gauza zala ori, baña pena ar-

tzen zuala berak. Aren langille bakarrik ez nintzala; bere laguna ere bai. Lagun batek aldegiten ziola fabrikatik pentsatzen zuala berak. Askoren kejak allegatu zirala arengana, baña nere kejarik etzala iritxi oraindik. Berriz etortzea pentsatzen banuan ere, neretzako ateak zabalik izango zirala esan zidan.

Oso ondo partitu nintzan fabrika artatik.

Gero, gerra-denboran sartu ziranak, danak berak despatxatu zituzten. Zepai ta oiek ere kanpoan gelditu ziran. Or Azpeiti alde ta Urrestilla ta Nuarbe ta oietatik baziran mutil bikañak, eta danak despatxatu zituzten. Gerran ibillitako jendea sartu zan, *excombatiente* edo oietakoak.

Konportan ere oso etxeko egiñak giñan, da andikan ere etxekoakin despeditu ta aldegin bear. Nik ez det ausardi geiegi orretarako ere, baña eguna iritxi zan da danakin despeditu giñan; da eramandako erropak artu ta etxera etorri giñan.

# Olaberriko basoak

**M**ILLA bederatzireun da berrogeian Olaberriko basoak bota ta zerratu giñuzen.

Ortxe zan: San Migel ondorenean-edo etorri nintzan Zerbezeritik, eta udazkene-ko lanak egiten lagundu piska bat. Ollagorretan ere piska bat ibilli giñan, eta Gabonak inguru orretan Olaberriko basoak erosi nituan.

Arratsalde baten joan nintzan ollagorretarako aitzakian eta basoak ikusi nituan, da Olaberrira bertara joan nintzan. Banean basoak saltzeko zeuzkatela, ta zerbaitetan asi bearrean nengoan ni ere.

Ia basoak saltzeko zeuzkatela egia al zan galdetu nioten nik. Baietz esan zidaten; nai baldin banuan, neroni salduko zizkidatela. Eta nik, erosi ere igual egingo nizkiotela, ba, konpontzen bagiñan.

Asi giñan tratuan, da aiek ogei ta iru milla pezeta edo ez dakit zer eskatu zizkidaten, da nik beintzat itz batean eskeñiko niotela neri iduritzen zitzaidana. Ogei milla pezeta eskeñi nizkioten, eta artantxe tratu egin ere egin genduan.

Pagatzeko ere plazoak egin genituan, eta konforme. Berak ere beste edozeñi baño naiago zutela neri saldu, ta orrelako batzuek esan zituzten. Lenago morroi an egona nintzan, ba, ni, ta konfiantza piska bat

bagenduan alkarrekin, da egin genduan beintzat tratua.

Etxera etorri ta anaiari esan nion zer tratu egin nuan, da ia lagunduko al zidan ango lanak egiten. Baietz esan zidan; arek ere nunbaiten asi bear zuala lanean, da pozik lagunduko zidala.

Nerekin orain daukadan anaia auxen da. Gerratik etorri ta ospitalean luzaro egonda, artean lanean asi gabe zegoan, eta biok asi giñan gure Olaberriko baso orretan. Gabon-jaiak-eta pasa etxean ta Urte Berrian asi giñan.

Guretzat tratu aundi samarra zan ura, ta zintzo asi giñan lanean. Etxea baño piska bat aurretik ardi-txabola bat zan. Aretxen ondoan asi giñan pagoak botatzen arratsalde baten, eta berealaxe elurra egin zigun. Aundia egin ere. An milagroa zan, ba, alako elurra egitea. Olaberrian oso gutxitan egingo du. Paraje beia da ura, baño mardul egin zuan orduan.

Ollagorra bazegoan, berriz, nunai, ta guk ibiltzerik ez. Gure tratuak kezka ematen zigun; artean diru gutxi zan, ba, ta orduantxe asi zan dirua piska bat ugaltzen, da jeneroari ere balioa etorri zitzaion. Ogei milla pezetan baserri dezentea zan orduan, da etzan milagro gu zintzo lanean jardutea.

Goiz batean basoan ari giñan, da Olaberriko txara famatua zan ollagorrak iza-

ten. Gu beste aldetik aurrez aurre ari giñan lanean, da eiztari bat ikusi genduan araxe sartzen, eta:

–Oraitxe laste ikusiko diagu, ba, ollagorren bat!

Berealaxe tiro bat tira zuan eiztari orrek, eta zortzi azaldu ziran txararen gañera. Danak batean bistan iduki giñuzen. Ura zan edertasuna! Bat, gu lanean ari giñan toki-  
ra etorri zan, da esan ere egin genduan:

–Bat artarako ez dagoanean, orrelaxe izaten dira gauzak! Gu eizean ibilli bagiña, ez uan ori onera etorriko! Ta orain ikusten dek zer burla egiten digun? –esan nion anaiari.

Urrengo goizean ezin nintzan egon, da ni ere asi nintzan galdezka ia iñork eskopetarik bai al zeukan edo. Mutil koskor batek bereala esan zidan arek bazuala eskopeta, amabi milimetroko txiki oietakoa. Eta:

–Kartutxoak bai al dituk? –galdetu nion.

Eta:

–Bai! Satorretarako kargatuak badira edo!

–¡Bueno! Ondo zio!

Mutil koskor ori Gregorio zan, da ura zai nik zer egiten ote nuan. Olaberriako txara ortara sartu nintzan, da bereala at-  
ra zitzaidan ollagor bat, eta *danba!*, tira nion eta aurrera. Ez nintzan batere arritu; bota banu arrituko nintzan, nere orduko pre-  
paratiboakin.

Nik segi aurrera, eta emen det burua-  
ren gañean zear besteren batek jaikitako ollagorra. *Danba!*, tira diot, eta seko lurre-  
ra. Orduantxe ez nintzan asarre.

Urrengo, uso aundia ikusi nuan, pago-  
-usoa, piko baten gañean; makur-makur eginda sartu naiz tirabidera, eta *pun!* ari

ere, ta pikotik bera ura ere. Artu det nere usoa ollagorraren ondoan, da aurrera.

Artan nere bueltatxoa eginda, Olabe-  
rrira arrimatu nintzan, da neri eskopeta eman zidan mutil koskorra, Gregorio, an zegoan atarian zai. Ia kartutxorik bai al nuan galdetu zidan, da bat baietz erantzun nion.

–Nik erakutsiko dizut zuri eiza! esan zidan.

Eta etxearen aurrean bertan bazegoan iturri bat, eta istingorra antxe zala. Joan nintzan ta altxa zan, da *pun!* Atzeneko kartutxoa an erre zan, baña bai istingorra ere an erori zan.

Orduantxe egin nituan negu artako ei-  
zak, eta gure Gregorio ori etzan asarre, bere eskopetarekin eiz ura egin nuanean:

–Esaten nuan len ere zuk zerbait eka-  
rriko zenduala, joan ezker!

Nerekin esperantza aundia izaten zuan arek. Joan da lenengo astea zan ura, ta la-  
nari jarraitu genion berriz ere.

Jan, berriz, Olaberrin bertan egiten gen-  
duan, da bazan an zeñi jaten emana. Ama-  
bi baziran etxeakoak ere; artzaiak beste bost, amazapi; eta gu ere beste lau izaten gi-  
ñan aldizka, bi koñadoak etortzen zirane-  
an, zerran egiteko ekartzen giñuzen, ba. Bota bi anaiak bakarrik egiten giñuzen; baña zerrarako gutxi giñala eta bi koña-  
doak ere an izaten ziran. Ogeitaka lagu-  
nak izaten giñan askotan. Pazientzi ede-  
rreko emakumea zan ango etxeo andrea, eta askotan bearra izaten zan gurekin.

Ogiarekin ere gaizki ibiltzen zan or-  
duan leku askotan, baño an sekulan etzan ogi-paltarik izaten. Arek su ekonomikan erretzen zuan; ogi ederra ala ere. Garia, be-  
rriz, etxean egiten zuten; da, naiz ogei la-  
gun izan, guk ez genduan beñere ogi-pal-  
tarik ezagutu an.

Iñoiz erropak busti samartuta-edo ikusten bagiñuzen lanetik etorritakoan, laster ezango zuan arek:

–Tira: erropa oiek erantzi!

Segituan garbituko zituan, da jarri lehortzen. Konfiantza aundiko pamelia zan ura.

Zerra-toki inguruan egur gutxi baldin bazan, berealaxe esango zuan nagusiak:

–Zerra-tokian egurra palta bada, ez gero ibilli egurra juntatu ezinda! Idiak emen zeudek alper-alperrik!

Eta an joango zan ura, artu idiak eta egur juntatzera. Erreka txar bat bazan basoaren erdian; eta an ere, ots egiten bazien, antxe pasako ziran aiek nagusiaren atzetik.

Lenbizi buruz bera sartuko ziran errekan; eta gero, ertetzeko, buruak altxatu eta aide ertengo ziran. Trongo aundiakin ez det esaten; baña, puska txikia bazan beintzat, an joango ziran aiek nagusiari segika. Idi zarrak ziran aiek eta ondo leziatuak.

Ni an morroi nengoan arte erosiak ziran aiek; San Antonio egunean Urkiolara joan da andik ekarriak, milla bederatzireun ogei ta bederatzian; berrogeian atera genduan guk basoa eta amabigarren urtean zi-joazen, eta biak sano ziran artean.

Orduan ere ango karreteria egiten parte artu zuan nagusiak. Beste batzuei esan zien, ta bera ere an zan. Zubeltzu bertsolariaren anaia zan bat, bestea koñadoa, Martin Presaldekkoa eta nagusia bera. Lau oietxek ziran ango egurrak eraman zituztenak. Aiek laurak an ujuka asten ziranean, erreka-zulo artan etzan atsegin izaten.

Makalak eta lertxunak eta altzak eta urkiak eta olako enbalajerako moduko egurrak, danak Zarautzara saldu genituan. Lizarrak, berriz, Legazpira Patrizio Etxeberriari. Oiek danak segituan kamiora atera giñuzen; bakoitza salduta zeuden toki-

ra bialdu eta berealaxe dirua artzeko modua egiten genduan.

Aritzak eta pagoak eta gereziak eta orrelakoak, berriz, bertan zerratu egin giñuzen. Orretarako bi koñadoak ekartzen giñuzen, eta ederki moldatzen giñan. Aiek biakin nik zerran egiten nuan, eta anaiak trongoa landu. Aiek pagoak zerratu arte eduki giñuzen bi koñadoak.

Aritzak eta gereziak eta orrelakoak geok biok zerratzen giñuzen jeneralean, oiek trongo txikiagoak izaten ziran, ba. Lennengo, biok trongo lantzen egiten genduan; eta gero, berriz, zerran.

Tokia ere ederra zan ura: trongoa iñora iges egin bildurrik etzan an izaten. Zerra-tokia, berriz, errekan eduki genduan luzaro; eta, an egurrak gutxitzen ziranean, nagusiak ekarritzen zituan. Ez genduan egur-paltarik izan beñere taller aldean.

Nagusi ura baño txarragorik ez bagiña, mundu ontan ez litzake dan aña gerra ta eskandalo izango. Biotz aundiko gizona zan ura. Bere etxeko lanakin baño geiago akordatzen zan ura gurekin; eta, ura ala ikusten genduanean, guk ere zerbait egin bear.

Tratua, gizonaren buruaren parean esku biakin bueltan arrapatzen etzana botatzea libre genduan. Lodiagoa ere utzi egiten giñuzen.

Bazeuden an lizar batzuek, eta aritzak ere bai, tamaña ori baño piska bat lodiagoak, urte gutxian ederrak egingo ziranak; eta aiek botatzea etzuan kontzientziak agintzen, eta alakoak utzi egiten giñuzen. Guk ere basoa, beste zenbaitek artuta baño askoz obekiago utzi genduan.

Ura tratua egin zan bezela bota ta garbitu balitz, konparazio baterako erretzeko egurrik ere gabe utziko genituan; baña etzegoan ura egiterik, ura zan bezelako pa-

meli bati. Aiek ogei urtean erreko etzuten ainbeste egur utzi genien.

Saldu ere asko egin zuten aiek egurra. Nik neronek ere, len debalde utzitako egur-  
rrak, gero, andik iru bat urtera, tonelada  
ogei ta amar duro pagatu nuan. Gasojeno-  
rako saltzen zan orduan aritz-egur igarra.

Aritz-adarren enpleoa neukan, da ba-  
nekian nun zegoan; arek kastilloan ederki  
jarrita zeukan, eta nik alakoxea bear. Se-  
kulako egur-pillak egin zituzten guk utzi-  
tako egurretatik: aritz mugarro zarrak pi-  
tzatu, ta gero aien adarrak.

Morroia ere bazeukan, eta semeak ere  
bai koskortuak. Bat amalau bat urtekoa,  
eta bestea ere amabi ingurukoa. Mutil go-  
gorrak ala ere. Aientzat, berriz, basoa izan-  
go zan lanik onena. Edade orretan naiago  
izan oi da, lan ariña baño, piska bat lan go-  
goragoa.

Geroztik ez naiz baso oietan ibilli. Ez  
dakit zer egingo zuten. Gaia geratu zan an  
berrizko ere: lizar gazteak eta ederrak. An  
egurra berez etortzen da; ez du aldatu be-  
arrik.

Kamiona kargatzea ere bi koñadoakin  
egiten genduan. Zerra-lanari utzi ta joaten  
giñan kamiora; eta, kamionak Zarauztik  
buelta egin bitartean, egurrak luzean ate-  
reak ziran, ba, ta denbora ori aprobetxa-  
tzen genduan egurrak mozteko.

Ni kamionarekin joango nintzan, an Za-  
rautzen neurtu-edo egitera, eta anaiak bi  
koñadoakin egurrak moztu.

Lan-tokia, berriz, ederra zan: erribera-  
rik ederrenean moztu ta kargatu egiten gi-  
ñuzen.

Kontua badu, piska bat pagatuta ere,  
alako tokiak. Gurtzaldian eramaten zituz-  
ten itzaiak, eta nunai bota; soro zabal artan  
tokia naikoa mozteko eta berezitzeko. Ala,  
egurra zabalean dagoan tokian, aukera

ederki egiten da. Kamiona kargatzeko ere,  
lodia bota ondoan eta meenak gañean.

Al baldin bazan, kamionako txoperra  
ere egurrari eltzeko modukoa nai izaten  
genduan.

Baziran Sieteneko tabernan bi mutil. Bat  
oraingo nagusia; *Baiona* esan oi genion guk.  
Arrua beian dago Baiona etxe txiki bat; an-  
goxe semea da ori. Eta bestea, Telesforo.  
Orain Zarauzko Iñurritzan edukiko du ta-  
berna, aldatu berria ez bada beintzat.

Oiek etortzen ziranean, etzan izaten ka-  
mionaren gañean laguntzalle bearrik. Ori  
ez da egoten norbere gain. Aiek orduan  
zuten sasoi, ez du nai duan guziak izaten.  
Guk ere orduan sasoi piska bat bagenduan,  
baña ez giñan irixten aietara.

Bi koñadoak, udara etorri zanean, etxe-  
an gelditu ziran. Lanik bearrenekoak egin  
giñuzen; egurrak osorik bialtzeoak bial-  
du ere bai; pagoak zerratu ere bai. Pagadi  
bat gelditu zan bota ta gero zerratzeko.

Guk, bien bitartean, aritzak zerratzen  
jardun genduan, erreka-alde artan giro  
ederra egiten zuan da. Bero aundien mo-  
dua bazegoan, goizean goiz jaiki ta goiza  
aprobetxatuko genduan, berotu baño len.  
Berotzen zuanean, itzala billatzen genduan  
guk, ta trongoa landu-edo. Beti gelditu ere  
egiten zan an itzala egiteko ainbeste zu-  
gaitz.

Ebaki samartu ere egin giñuzen, da kas-  
tilloak ere egin bear ziran, da esan genien  
bi laguni. Ortarako ere bazeuden an kargak  
bildurtzen etzitianak, eta an alakoxeak ko-  
meni. Egun baten kastillorik aundiena egin  
samartu genduan. Beste koskorreria, ura  
geok egin genduan.

Aritzak mendian bertan kastillotu gi-  
ñuzen. Aiek iru bat urtean an egon bear  
zuten kastilloan; da pagoak, berriz, ka-  
mioaren ondora atera ta antxe kastillotu-

tzen giñuzen. Pagoa, tabloia egin da andik urte beterako lanerako moduan izaten da.

Orregatik, pagoak, Olaberriako nagusiari esan da segituan ateratzen zituan arek, bere idi zar aiekin. Txakurrak bezelaxe segitzen zioten aiek berari. Kamioa aldean zan an, berriz. Kargatzeko laguna izan ezkerero, nai ainbeste biaje egiten ziran an.

Atera zituan kamiora; baita guk ere kastilloetan jarri giñuzen, ta pakea. Gero, an palta ziran aritzak ere egin giñuzen bertan mendian, eta or gelditu giñan. Ta beste pagadia, len botata gelditu zan ura, palta zan zerratzeko.

An beste auzo batean ere bazegoan zerrera piska bat egin bearra, Aritzaga base-  
rrian, da ia joango al giñan esan ziguten, eta baietz. Ezin, ba, esan ezetz.

Joan giñan, ba, ta sagardo ederra zegoan, da zerran baño lan txarragoa zegoan an aiek nai zuten ainbeste sagardo edaten. Atarian bertan genduan zerra-tokia, eta litro inguruko poto bat bazegoan an, da beti ura eskuan zuala an zan Nikaxio-edo, mutilzar bat bazegoan, ba.

Ura etzitekean mozkortuko bokoi batekin, eta besteak ala zirala uste zuan arek.

Eun da berrogei kilo izango zan ura orduan ere, eta gero eun da larogei kilo ere pisatzen omen zituan. Eta aren ondoan zertako ziran, ba, gure moduko larogei kiloko gizonak? Alegiña kontu egiñaz ibillita ere, illunabarrerako lanak izaten ziran an. Bi edo iru egun pasa giñuzen gose-egarri aundirik gabe, eta andik libratu giñan da atzera Olaberrira etorri giñan.

Nikaxio-edo mutilzar ori bixkietakoa zan, da bestea ere ez nolanaiko mutilla. Aietatik libratu zan amak deskantsu ederra artuko zuan. Zein zein ziran ere etzitan ezagutzen aiek edozeñek.

Bein batean Santa Kruzak ziran, da Ibañarrietan pestan izan giñan. Etxerakoan Aoten apaldu genduan: nik bixkietako batekin eta bestearekin bere lengusuak, Armendiko Jose Marik. Eta disputa atera genduan: arek Nikaxiorekin apaldu zuala, eta nik ezetz, Joxerekin apaldua izango zala; Nikaxiorekin nik apaldu nuala; ta arek ezetz da nik baietz. Azkenerako kape bana apustu egin genduan.

Nik nuan arrazoi. Ni auzorik urrenean bizi nintzan, da ez da milagro ezagutzea ere, Olaberrin bizi bainintzan. Baña bestea ere, igandero mezetara alkarrekin joaten ziranak, eta gañera lengusuak. Nik izketan ere ezagutzen nituan, beste edozertan baño errezagoo.

Kinto ziranean ere, erritan aditu bear izan zituan batek ederrak. Joan omen zan bat eta tallatu omen zuten; eta libre zala andik eta bialdu omen zuten.

Andik piska batera joan omen zan bestea, ta alde egiteko andikan faborez, bein tallatzea naikoa zala ta! Bai, baño ura etzutea tallatu artean. Baietz eta ezetz ibilli omen ziran disputan, baño atzenean ere orregatik berearekin erten omen zuan Aritzagako bixkiak.

Bein batean, gorputz jasotzera esaten diogu guk, ildakoa kanposantura eramatera joan giñan. Marizelai basarriko amona zan il zana. Oiek, bixki biak, an ziran, eta ni ere bai.

Aiek biak pareja alkarrekin egiten zuten; ain berdiñak ziran biak alturan eta zabalean, eta bati neurriak artu ta bien trajeak egin zitezkean. Alakoxeak ziran biak.

Olaberri Arruako partean zegoan, da Aritzaga ere bai; baño amona il zan basarri ori, Marizelai, Itziaroko partean, eta Itziarrrera eraman genduan gorputza sei muti-



llek. Beste batzuek baziran ondoren ere, ta an joan giñan danak Itziarrera.

An ardoa eman izan diote gorputz jasotzera joaten danari. Kontzejuan izaten da ori, eta andik asita –orduan goizean izan oi zan entiarroa– badakit nik zer ardoak edan giñuzen. Asi bazkaltzetik eta eguna joan bitartean, putzu batean izan baziran igarian egiteko ainbat bai, da etxera illunduta etorri giñan. Marizelaiko amona ederki busti genduan guk.

Ni orduantxe bildurtu nintzan aiekin. Ogei ta iruna urte ingurua izango zituzten orduan aiek. Nik emeretzi neuzkan, da edadean diferentzi orixe genduan: lau bat urterena. Orain, bizi badira, irurogei ta zortziren bat urte dituzte.

Itziarren izan giñanean, eun da amarna kilotik ogeira tartea izango ziran aiek. Batek, andik laster etxean aserratu eta aldegin egin zuan; eta laster ezagundu zan zer etxetatik aldegin zuan. Berealaxe jarri ziran biak zein zein ziran ezagutzeko moduan.

Bat morroi jarri zan. Ura lanean ere poliki jarduten etxean; da, morroi jarrita, berriz, lana ere egin-egin bearke zan, da berealaxe jarri zan gure moduan.

Bestea, berriz, gero ta geiago. Ura lanera ere, kopa-otarra bete botilla sagardoakin, artu bizkarrean da egun erdi bateko lanera, bazijoan ere.

Jaian, berriz, goizeko mezetara joango zan, da beste auzoko mutilzar eta biak jarriko ziran mai baten da gosaldtu. Ta zor-

tzi edo amar botilla, *Cune* aundiak, maia- ren gañean an geldituko ziran, aiek alde- giten zutenean.

Ura eun da larogei kilo bazala aditu nuan nik; eta, nik azkeneko ikusi nuanean, arta zuritzen ari zan etxeko sarreran. Ormigoiarekin egiña zan da antxe bota arto- -pilla bat. Jiratik sillarik ere etzan ikusten. Onera Oiartzuna etorri ta gero zan.

Oraindik ez det panazko txaketa aundi- gorik ikusi, orduan ikusi nuan baño. Gizona ere kilo asko izango zan, baña txaketa ura ere mordoska izango zan. Etzeu- kan otz-bildur aundirik gure Nikaxiok.

Olaberriko basotik aldegin da ibilli naiz. Gizon oien berri emateak bere inportan- tzia baduala pentsatu det, eta barkatuko didazute.

Esan bezela, Olaberrira joan giñan atze- ra. An pagadi bat zerratzeko gendukan, eta beste auzoko mutil bati esan genion. Gu bi anaiak eta auzoko mutil orrek, iru- ron artean berealaxe ebaki giñuzen, eta ederki kastillotu ere bai.

Pagoak urte betean eta aritzak iru bat urtean egon egin bear zuten igartu-zai, di- rua artuko bazan; baña pazientzia artu bear. Tabloiak gero ta geiago balio zuan, ta ari eskerrak.

Olaberrin bertan jan eta bertan lo egin, etxekoak ez giñanik ere ez genduan pen- tsatzen, baña despeditu egin bear.

Ondo izateko eta berriz ere ikusiko gi- ñala, eta ikusteko pozak gañera. Andik etxera joan giñan.

# Getaria

**L**ENAGO urtez urte jardun det eskribitzen, baña orrela ez dago erri danak pasatzerik, eta orain erriz erri asiko naiz. Asitzen dedan erria bukatu egingo det, eta orrela badakit zenbat lan egin dedan eta zenbat egiteko daukadan.

San Antonetan, Ilbeltzaren amazazpian, Getarian izaten giñan bertsoan. Milla bederatzireun da berrogeian asi ta irurogei ta amairuan gelditu, ogei ta amalau urte egin ditut. Ez dakit bitarte ortan joan gabe pasa dedan urteren bat, baña ez naiz akordatzen.

Lenbiziko urtean, *Asteasu Txikia* esaten genion guk, arekin izan nintzan: Asteasuko Lamitegiko semea. Bertsolari ederra zan.

Orduan bi eguneko joaten giñan, da iru pasatzeko ere inporta gutxi guri, etxerako kezkarik ez genduan idukitzen da. Bi egun oiek, esan bezela, pasa giñuzen. Egunean bi saio egiten giñuzen aiuntamentuko balkoitik. Tabernan ere orduan errez asten giñan gu; eta mariñelak bertsozaleak dira, berriz, eta aiek etzuten esaten ixiltzekorik.

Jaten, berriz, Jose Loidiren tabernan izaten giñan. Etzan etxe txarra. Oraindik ez degu erririk izango, etxe batean or ainbeste urtean jan degunik. Ogei ta amalau urtean ortxe izan giñan paltatu gabe. Ez det

esan nai orrekin beste tabernak txarrak dirala Getarin, eta ezin nezake esan gañera, ez ditut probatu ta. Oraindik beste tabernetan jatordu bat egiteko egongo naiz.

Ibilli, danetan egiten giñan: Jose Barrekoa esaten genion itziartar orri, eta Zabalan, eta Ulazia pelotaria izana... Txakoliña edan da orrelakoak danetan, eta danakin ondo konpontzen giñan.

Jose Loidiren etxean gu joan-zai egongo ziran, guri gosaria emateko; ta guk gosaldu egiten genduan lenbiziko lana. Meza nagusia ere ordu ortantxe izaten zan; baña gu, igandea bazan beintzat, ara baño len entzunda joango giñan, da beñere ez giñan meza nagusira joan. Baña lenbiziko asiera beti meza nagusiarekin eman izan zitzaion, oitura dan bezelaxe.

Ura bukatzen zanean, aiuntamentua antxe etorriko zan amaiketako egitera, gu geunden tabernara. Ura an zegoan arte, gu trankil egongo giñan; bein aiuntamentua andik mogitzen zanean, gu ere aietxekin batean joaten giñan plazara, eta lenbiziko saioa orduantxe egongo genduan.

Lamitegi ta biok izan giñan urte artan, bi eguneko giñan; apaldu ta edan-alak edan eta gero, kalmantea zala ta oiera joaterako ura edan bear izaten genduan, eta ederki berdinduta joango giñan oiera.

Baña ango etxeko andreari etzitzaion aztuko goizean kapea oiera eramatea; bera ez bazan joaten, neskameren bat bialduko zuan. Etxe artan olako detalle asko ikusi ditut nik.

Urrengo, Zepairekin ere egin nuan beste saio bat. Arekin ere gustora ibilli izan nintzan. Gizon alaia zan ura, eta umore onekoa. Arek beti aterako zuan zelebreekia; eta, nai bazan da ez bazan, parra egin bear orduan.

Orrela, beste afizionaturen bat gañetik bertsotan asten bazan, orduan izaten zan ura ona. Nerekin ari baldin bazan, berealaxe esango zidan neri:

–Piska baten ixilik egon adi paborez, neretzako moduko bertsolaria dek au ta!

Ni ixilduko nintzan eta asiko zan adarra jotzen beste orri, eta jiran zegoan jendea gozatuko zan arekin.

Silbeti mutilzar bat genduan lagun ika-ragarria, ura estankeroa zan, ba. Bera etzan izango, baña arrebaren bat edo orrela izan bear zuan estankoarekin. Arek tabakoa noiznai ematen zigun kuarteroi aundi bat-edo, eta arek eskatutakoan bertso-saioa ere egin-egin bear izaten zan.

Gero, berriz, Basarrirekin. Orrekin geiena joan nintzan. Orreri beti esan izan zioten, bein ori trabajadoreetatik etxera erretiratu zanean, eta orrek abisatzen zidan neri.

Berrogei ta irugarren urtean edo orrela etorri zan batalloitik. Ogei ta amaseian joan etxetik eta berrogei ta iruan etorri, zazpi urte pasa zituan etxetik kanpoan. Errez esaten da; ez da emen idaztea eta an pasatzea berdin.

Basarrirekin joaten nintzala, ona emen bertso-saio bat biok egiña, Basarrik eta Uztapidek Getarin abestua. Bertsotan aste-ko ordua iritxi ta ni palta, Danak estu sa-

mar omen zebiltzan, etorriko ez ote nintzan zalantzarekin. Noizbait iritxi nintzan eta Basarrik arpegira bota zidan:

Bakarrik ez naiz ni atrebitu bertso-lanari ekiten, Uztapidetzaz galdetu eta iñork nun zan etzekiten. Getariako jendea gogor asi zaigu itzegiten, bestela ezin ezer egin da altabozez otsegiten.

Uztapidek:

Basarri ori etorria da deitu eta derrepente, orrenbestian agertutzia ez al du egin dexente? Lotsa gutxikin egongo ziñan danen aurrian presente, ordu bete ontan zai zeguen au bertsotan asteko tente.

Basarrik:

Ai, Uztapide egun auetan dago ederki kostia, orregatikan arkitutzen da naikua xamar bustia; emen erriko gizonak ere oso konporme ezta, lanik ein gabe nai al zenduke soldata irabaztia?

Uztapidek:

Olakuari ere badakit iñoiz ondo erantzuten; nere euskaldun anai-arrebak, jarri zaitzte entzuten: Basarri ori len bakarrikan nola ikusi dezuten, au ere etzan emen egongo gonbiratu izan bazuten.

Auek Arruako Zugazti-aundiko Julian Buenetxeak artuak dira; ez magnetofonoz, buruz. Ez dakit orrela izango ziran, baña urrean ibilliko zan. Ura aparta da orretan. Iñorekin baño pioago nintzake arekin. Bertsoa ez da erraza, kantari ari dala, osorik artzea; baña diferentzi aundirik gabe artuko zituan arek. Neri eman dizkidaten bezela jartzen ditut emen.

Beste bertso bat, Basarrik bein batez kantatu ta Julian orrek artua:

Guk iru egun pasa ditugu,  
irurak erarikuak;  
entzun zazute, nere lagunak  
kanpo ta Getarikuak,  
emen zaudeten zar eta gazte,  
bekuak eta goikuak:  
biotz-biotzez lendabiziko  
arratsalde on Jainkuak.

Beste au, berriz, Zubeltzu bertsolariak artu zuan gogoan, nik milla bederatzireun irurogei ta amargarrenean kantatua:

Ogei ta amaika urte dirade  
lenengo izan nintzala,  
ta aurten ere etorri gera  
lengo urtetan bezela;  
gure Jainkuak aurrera ere  
ala nai izan dezala,  
ta onezkero esan liteke  
getariarra naizela.

*Inazio Sastre* esaten genion guk. Oso laguna genduan. Kontzejal egon zan bolara batean. Beti jai-arratsalde bat pasatzera joateko esaten zidan, nere lagun batzuek artuta.

Iritxi zan, ba, eguna, eta joan gera alako baten. Jai-arratsalde bat zan, da eguardian bazkaldu etxean da beste iru lagun nereak et ni joan gera Getari orretara.

An billatu ditugu gure Inazio Sastre ori ta bere lagunak. Inazio Sastre aitarengandik zetorkiola uste det; aita sastrea edo olakoren bat. Bera mariñela zan, da barkoa ere berena zuten gañera.

An izketan jarri gera ta ia itxasora joan nai al genduan galdetu ziguten, eta nere lagunak baietz; nai bagenduan eramango giñuzela, ba. Kape bana artu degu eta preparatu gera, ta bagoaz muelle aldera.

Inaziok an zeukan beren barkoa, eta gu lau arruatarrak eta beste iru getariarrak: Inazio bera; bere kuñadua, Jose Loidi, guk San Antonetan jaten genduan tabernako nagusia; eta beste gazte bat, aien laguna. Eta an joan gera danak itxasora.

Gu, itxasoan asko ibilli gabeak. Ni bein-edo regata batzuetan Donostian zerbait ibillita nengoan, da besteak ere alako moduan egongo ziran. Mariatuko ote giñan-edo beti izaten da, ba, alako zalantza bat. Joan giñan beintzat itxasoan kanpora.

Barkoa mutil gazte arek eramaten zuan, eta Inaziok guri gauzak esplikatu: arraia nola arrapatzen zuten-da. Bodegara ere jextxi giñan, da an genbiltzan.

Barkoaren gañera erten degun batean, or ikusi du Inaziok urrutiko aldean zerbait arrai aundia; eta, arrimatzen ari giñan bezela, ezagutu zuan: kolaioa zala, edo arrai beltza esaten diote berak, eta arrapatu egin bear genduala.

Arrimatu du barkoa gazte orrek, Inaziok artu du arpoia eta *sasta!*, or sartzen dio bizkarraren erditikan triparaño. Bateatik bestera pasatu zion arpoia.

Arpoi orrek egurrezko esku-lekua izaten du, eta zezenari sartzen zaion banderillak egiten duan operazio bera egiten du: sartu ta gero ateratzeko zailla gelditzen da ura. Gantxo bat edukitzen du erten ez dedin, eta egurrezko esku-leku ori eskuan gelditzen da.

Arrai ori barkoaren igesi nola joaten dan, arpoia sartuko bazaio, barkoak ere korritu egin bear izaten du; eta, arpoia sartzen zaionean, soka bat eramaten du arpoiak, eta ari utzi egin bear izaten zaio, soka luzea izaten da-ta, barkoak daraman abiada ura gelditu artean.

Barkoa gelditu zanean, ez dakit barkoa bera atzeratu genduan edo sokatik tirata arraia ekarri genduan. Jasotzen gaizki ibilli giñala, bai, badakit. Barkoaren gañera jasotzeko eldu egin bear zitzaion ari. Gero eun da larogei kilo pisatu zituan; alegia, etzan ura kiloko amorraia.

Geren ori artu ta Getarira etorri giñan, eta ederki meriendatu genduan. Alkarri piska bat adarra jo genion, kantu-saio bat ere egin genduan, eta etxera joan giñan.

Inazio gizarajoak etzuan suerte aundirik eduki. Gaixotu zan, da ni aditzen nuan beti ere gaixo zegoala, eta zerbait txarra ote zuan ere bai.

Egun batean, Donostian, Fermín Calbetón kalean andrea eta biok goazela, antxe *Bar Urola*-n egon ura; ikusi egin giñuzen pasatzen eta deitu egin zigun. Jiratu nintzan eta gure Inazio bere alabarekin. Ala, saludatu giñuzen, eta zer artuko genduan da zerbeza piska bat edan bear. Atera zuan da ia zenbat balio zuan galde-tu nion an serbitzen zegoanari, eta Inaziok esan zidan atzera:

—Ez, Manuel, ez! Nik pagatuko ditut auek; eta, geiago bear badezu ere, edan! Nik oraintxe sobrean ditut diruak! Amai-ka bider bildurak ibilli gera ez ote geran osatuko, baña oraintxe danak sobratu!

Berak garbi-garbi esan zigun zer gaitz zeukan. Ez dakit zer urte-garai zan, baña piska bat luzatu zuala, bai. Artean ere urrengo San Antonetan zegoan oso gaizki.

Ara bertotara joan da abisua utzia zeukan ura ikusi gabe ez etortzeko. Eguardi-

ko saioa egin Lasartek eta biok, eta Jose Loidi bere kuñadua eta biok joan giñan bisitatzer. Oso kastatua billatu nuan, eta andik bi edo iru egunera il zan.

Arek etzuan, gu Getarira joaten giñanetik etxera aldegin arte, gure ondotik aldegingo. Alakoxe bertsozalea zan ura.

Atzeneko urtean ere, ni bisitarekin antxe nengoala, Lasarteren bertsoak eta ne-reak antxe eraman zizkan mutil gazte batek, eguardian guk bota giñuzenak, magnetofonean artuta. Eta utzitzeko an esan zion, eta gero adituko zituala.

Onetan bukatzen da Inazio Sastre-  
ren historia, ta zeruan gerta dedilla.

Basarrirekin urte askotan joan nintzan Getarira, eta utzi egin zion ark ere, denborarik etzeukala ta. Ni gero Lasarterekin asi nintzan. Lasarterekin ere urte batzuek egin ditut.

Arekin ere goizeko saioa eginda aiuntamentuko balkoitik, gero bazkaltzeko zai egoten ziran beti mariñelak. Eta bertso-saio bat an ez bazan egiten, etzan Getarian pestik. Bakoitzak amar bana bertso botata, orduantxe jendea kontentua.

Arratsaldean plazara joatea aztutzen bazitzaizun, Manuel Pierres aguazilla an izango zan. Akorda-aziko zizun arek. Kiñu txiki bat egitea naikoa izaten zan. Sillatik jaiki ta berealaxe jarriko giñan plazara bidean.

Gizona serioa zan ura. Jenerala ejerzitoan bezela zan ura. Etzioten ari parre asko egingo mutil koskorak. Serio dabillen gizonak beti du errespetoa bere tokian. Ura ala zan, berriz,

Elkanok munduari buelta eman ziola lareun urte zirala edo orrelakoren bat zelebratu bear zanean ere, arek egiten omen zuan Elkanoren papela. Parre asko egin gabe egingo zuan arek ori ere. Erropa za-

rrak puxkatutakoakin da orrela ibilli bear izaten omen da, Elkano bera ere orrela etorri omen zan da. Orrelako lanak egiteko asko balio zuan arek.

Getarian pesta geiago ere egin izan dira. Errekartetxo eta Garatxabal ere izan ziran urte baten arri jasotzen. Errekartetxo, Amezketako arriaren formako arria zala edo arekin zan; orduan zuan, ba, bolara ori orrek. Nik ez nion Amezketako arriaren itxura aundirik artu ari baña. Garatxabal, berriz, amar arruako kubikoarekin. Arek ere jaso-aldi batzuek eman zizkan, eta alaxe bukatu zan aien pesta.

Beste urte baten, berriz, Agerre arri jasotzen eta Luxia aizkoran. Agerrek ez naiz gogoratzen zer arri ibilli zituan. Luxiak, bai; zer egur zituan oraindikan gogoan daukat. Lau kana erdiko zituan, eta zortzi minutuan ebaki zituan lau kana erdikoak. Uste det ederki dala; lan ederra. Denbora baten, lau kana erdiko ebaten, amabi minutu bear izaten ziran. Iru minutuan kana erdiko bakoitza esan oi zan, eta lau ebaten amabi minutu. Luxiak sasoi ederra zeukan orduan.

Arrantzaleak goizean bisigutara joan oi ziran lenago, San Anton goizean, barko danak. Urte baten, akordatzen naiz, ikaragarriko pillak ekarri zituzten. Sekula arrapatu zuten geiena arrapatu omen zuten egun artan. Getariako kalean etzan bisigua besterik ikusten. Pestara etorri ziran base-rritarrak ere, batek lau ta besteak sei ta danak bisiguz beteak edo kargatuak joan ziran beren etxeetara. Mozkortuta joanda baño begiratu ohea egingo zion andreak gizonari, bisiguz kargatuta joanda. Ura zan edertasuna! Urte artan Getariko parrillak izango zuten estimazioa.

Nik bisigurik batere gabe ez det eza-gutu Getari San Antonetan. Bertsolarienzat ainbat bada ere juntatuko zuan Jose

Loidik. Urterik ez degu uts egin, bisigurik jan gabe.

Orain, urte auetan, ez dira bisigutara joan ere egiten, getariarrak beintzat. Antxoak geiago ematen duala, eta zer esango diezu? Jendea dirua eldu dan lekura jokatuta ere, naikoa lanak izaten dira. Bisigua arrai ederra da; baña, dirurik ez badu ematen, ez dago kontuarekin ezer.

Bestela jendea ona da Getarian; jende jatorra. Bulla-puska bat aterako dute, baña ez dute alkar joko. Aiek baño bulla gutxiagorekin makiña batek odola aterako du. Alkarri aundiak esaten dizkiote, baña ondo konpontzen dira.

Egunero, beren ogi-tartekoa edo kazueta koskorren bat artu ta antxen etorriko dira tabernara aiek, denbora pasatzer, itxasotik libre badira. Itxasora joaten ez diranak ere izaten dira: batzuek zarrak dirala, eta beste batzuek, berriz, sare konpontzen ari diranak-edo. Aiek ere, beren tarea egindakoan, antxe etorriko dira tabernara.

Joserren Barreko aiton-amonak ere urrezko eztaiak egin zituzten Erreteriko *Panier*-en. Lasarte ta ni, biok an izan giñan bazkaltzen. Pamili dana gonbiratu zuten eta kuadrilla ederra juntatu ziran. Oiek itziartarrak dira; Jose bera, beintzat Itziar-ko Intxusburukoa, da andrea ez dakit.

Andreak dantzan gogor egiten zuan oraindik. Urte pare bat izango dira ori zala, baña edozein moduz ere urte asko eduki bear zituan urrezko eztaiak egiteko. Berrogei ta amar beintzat ezkondu zirala ere; ta, ogeirekin ezkondu zala ere, irurogei ta amar beintzat; eta gizonak badakit larogei oso urrean dituana.

Andreak gizonak ere dantzan egitea nai zuan, eta gizonak ezetz esan zion. Gaztetan andreak baño obeto egiten zuala, baña orduan etzijoala aстера esan zion. Anak-

-eta piska bat nagituta zegoan, milagro ez da-ta, bein larogei urtetara ezkerro. Baña ondo ibiltzen zan ura ere edade ortarako.

Azkeneko San Anton auetan ere bisitatu giñuzen ta ondo ziran, eta urte askotan alaxe izan ditezela biak.

Aurten ere San Antonetan izan giñan. Manuel Lasarte ta Arozamena ziran deituak bertsoara. Neri, berriz, plaka bat zegoala neretzat, an nola urte askoan serbitu nuan San Antonetan; da, nai banuan, neroni joan, da bestela semea bialdu, plaka jasotzera.

Makiña bat pentsamentu egin nuan, baña neroni joatea erabaki nuan. Getariko erriari eskerrak ematea ere etzegoala gaizki pentsatu nuan, orrenbeste urtean deitu ta gero. Bertsoarako gauza ez nintzanean ere akordatu egin ziran beintzat. Eskerrak emateko bertsoak preparatu nituan, buruz ikasi ta an joan nintzan.

Beti bezela gosaldu genduan Jose Loirenean, eta joan giñan aiuntamentura. Lasartek eta Arozamenak egin zuten beren saioa, eta neri ere erriko kontzejal bategen eskeñi zidan bere plaka. Asi nintzan,

ba, ni ere ikasitako bertso oiek botatzen, baña ezin nezakean bota. Antxe egin nuan poto.

Beñere baño txalo-ots aundiagoarekin erantzun zidaten, eta negar egin zutenak ere bai omen ziran. Ni eziñean ikusita pena artua izango zuten batenbatzuek. Eskerrak eman nizkioten itzez, bertsoetan eman bearrean.

Artan bukatu ziran nere Getariko bertsoak. Erri baten kantatzeko, zerbait kantatu ere egiña izango detela uste det. Ez nintzan batere lotsatu. Getarian bazekiten nere berri, eta zer egingo zan, ba? Ezin danean, ez dago beste erremediorik.

Lasartek eta Arozamenak ezin da obeto kunplitu zuten erriarekin. Bazkalondon ere egin zuten beren saioa, eta arrantzaleakin kunplitu zuten, eta bazkaldu zuten etxekoakin ere bai. Arratsaldean ere beste saioa egin zuten Kontzejuko balkoitik eta erria agurtu zuten.

An beste piska bat ibilli giñan, eta Arozamena kotxearekin zan, da lenbizi Lasarte entregatu zuan, eta gero ni nere etxera, ta ortantxe bukatu genduan San Anton.

# Martutene

**D**ONOSTIKO Martutenean, *Ganaderi* esaten zaion taberna ortan edo *Odriozolaenean* egin oi genduan bazkaria denbora baten San Sebastian egunean.

Ori, bazkari ori, iru lagunek asi izan bear zuten aurrena egiten: Martuteneko goarda bera bat eta beste bi lagun arenak. Boni goardak esan oi zuan zein lagun zituane ere. Ni ez naiz orain gogoratzen, baña berdin da. Auskalo zenbat urte izango ziran; ogei ta amar urte bai. Eta orrela, piskabanaka-piskabanaka, ugaltzen joan zan jendea. Gu an izaten giñanean, irurogeitaka izaten giñan.

Guk ori, pameli ori, ara bazkaltzera joaten asi baño len ezagutzen genduan. Manuel zana ere ezagutu genduan; da Erramon, aren semea, berriz, lagun aundia degu, ta onelaxe.

Martuteneko pestak antxe, ango atarian, egiten ziran, da an bertotan askotan izana nintzan ordurako, batean Zepairekin da bestean Ernaniko Pablo zapateroarekin. Gu an bertako egiñak giñan.

Ez dakit nik egun baten edo bitan egiten zituzten, baña Ama Birjiña Mertzedes egunarekin zerbait pesta egiten zan Martutenen; da bein batez onela kantatu omen nuan:

Bertsoak kantatu nai giñuzke  
ta ez dira erteten berez;  
zerbaiten ere laguntza biar,  
gu geren gixa ezer ez;  
biotz-biotzez eskatzen dizut,  
Ama Birjiña Mertzedes:  
konbeni bada zure laguntza  
eman zaiguzu mesedez.

Bertso ori nik aztuta neukan, baña Aieteko Sebastian Salaberriari buruan geratu zitzaion.

Gero, bazkari orretara ere asi giñan, ba, joaten, da gustora ango bazkariarekin. Bein baño geiagotan Basarrik esan izan zidan, urte guzian egiten genduan bazkaririk onena edo gustokoena, antxe egiten genduala, ta ni ere arekin nengoan.

Txerria etxean iltzen zuten egun orretarako, ta an aña potaje-klase ez det ikusi nik bazkari baten: babarrun gorriak urdai zuriarekin, ta babarrun zuriak lukainkarekin, ta azak odolkiakin, eta garbantzua aragiarekin, koliflorak beste zerbaitekin, da danak ez ditut esan ere egingo.

Gero angulak eta ollaskoa etziran faltatzen. Angulak, danak jaten giñuzen, baña ollaskoa jaten zutenak gutxi izaten ziran. Batzuek bai, danak jaten zituzten. Kolore ederrak aterako zitzaizkioten. Da gero kapea artu.



Basarrik eta nik bertso-saio bat egingo genduan, da bapo. Bazkari arekin geiago ere asi izan ziran bertsoan.

Altzan bazan amerikano motz bat, eta ura ia urtero jarduten zan. Apizio gogorra zuan. Etzan alañoeko bertsolaria, baña bai denbora pasatzeko ainbestekoa.

Segundo Errekaldekoa ere an izaten zan, da ura bertsolari ohea zan; gizon galanta ta boza ederrarekin. Arek ere iñoiz egin oi zuan saioa, patxara ederrean ala ere.

Donostiako beterinarioa ere an izaten zan, don Benantzio zana, eta gero Markuleta ere bai; ori ere beterinarioa edo albai-teroa zan.

Almandoz jauna ere bai; au medikua edo sendagillea. Gizarajoak etzuan suerte aundirik izan atzanean. Gaixoren bat bisitatzeraz joan da gau batean, eta errekarerori ta antxe gelditu izan bear zuan illa. Bere automobil ta guzi errekan sartu ta akabo; iñor akordatu zanerako, il.

Umore ederreko gizona ala ere. Segundo Errekaldekoa arek artzen zuan gaizki; illea artzen asiko zitzaion eta an izango ziran komeriak, etzan asko estutuko baña. Orain biak illak dira aiek ere.

Martin esne-zalea ere an izaten zan. Arek bai apetitu ederra, bai jateko eta bai bertsoak aditzeko ere, umore ederrarekin. Arek gozatzen zuan egun artan! Gero suertea eduki zuan orrek ere: itxutu egin zan da piska bat tristetu zan, baña itxutu ta gero ere an joaten zan ura.

Bibiano Elizalde ere ango klientea zan. Ura ere patxara ederrean joango zan. Danak banan-banako jendea izaten ziran an. Bibiano, bertsolariak ziran tokian, gozatzegoten zan. Ura ere joan zaigu mundu onetatik eta zeruan gerta dedilla.

Boni goarda ere an izaten zan, bazkari ori asi zanetik eta egiteari utzi zitzaion arte. Ori Martuteneko goarda zan.

Loiolakoa ere antxe izaten zan, Simon goarda. Gizon galanta ala ere. Ura ere illa da.

Ez da siñale ederra ildakoakgatik itzegiten jardutea: norbera ere zartu dan señaleara da ori.

Etxeko nagusia ere, Manuel zana, maian izaten zan. Periko, Manuelen suia, ere bai. Semea ere bai, Erramon. Perikoren semea ere bai, Manolo. Izena aitonak bezela zeukan; aitonak ere Manuel zuan. Antxe bazkaltzen zuan arek ere. Eta etxeko andreak, Roxarik, berriz, maia dana serbituko zuan umore ederrarekin. Ori ere aitona Manuelen alaba da, bizi baldin bada. Ez naiz aspaldian joan etxe orretara; ez dakit arrezkero batenbat illa bada ere pamelian. Alakorik bada, barka dezatela.

Nik beste asko ere baditut gogoan, an bazkaltzen izaten ziranak; baña, danen izenak esaten asiko banintz, toki asko bearko nuke eta bukatu egin bearko det.

Erramon ori denbora baten gizon pamatua zan, motoarekin idien kontra jokatzen zuanean. Or, Astigarragan-eta, badi-ra proba-arri ederrak, baña apenas asko estimatzen zituan aiek ere. Ori gizon artista da orrelakoetan.

Gu ere eraman giñuzen batean pakete ederrarekin, Donostian ari giñala, Zepai ta biok. Aingelun izanda giñan barrikotean, da artu dezentea guk ere.

Dozenaren bat lagun giñan; gu sei lagun, Zerbezeritik joan giñanak. Aitona Manuelek gonbidatu giñuzen gu, Zepai ta ni: biok joateko, beste lau lagun, nai giñuzenak, artuta. Ta joan giñan, ba, beste lau, gurekin lanean zebiltzanak, joango ziralta.

Esan bezela, Aingelun genduan barrikotea, eta aitona Manuelek kostilla ederra eraman zuan, ta erre ere bai ederki. Bai guk jan ere, eta edan ere bai bapo. An bertakopak ere baziran beste dozen erdiren bat. Aitona Manuelen semea an zan beintzat, eta Aingeluko nagusia ere bai.

Gu lenbizi asi giñan bertsotan. Beste asko ere bai, baña gutxi gora-bera onelatsu kantatu giñuzen lau bertso.

Zepaik:

Uztapide, badezu  
bertsotako maña,  
nai bezela artuaz  
lagunari gaña;  
zeure ustez bazera  
zu ere ni aña,  
ez nazu menderatzen  
uste dezu baña.

Uztapidek

Bertsotako kontuan  
Zepai onen gala,  
nik ere erantzungo'iot  
nola edo ala;  
au ere bere ustetan  
ez dago makala,  
azkar esan du beintzat  
ni ainbat badala.

Zepaik:

Aspaldian badaukak  
erronka ugari,  
zer egin bazekiat  
orrelakuari;  
alderdi ona etzaik  
iñondik agiri,

ik eziñ ezer egin  
Zepai txikiari.

Uztapidek:

Aspaldian ari naiz  
bertso eta kanta,  
eure ustetan badek  
batek ainbat planta;  
gizon txiki batentzat  
ujua galanta,  
ik ere nik bezela  
bearrena palta.

Da gero geiago ere asi ziran bertsotan. Aingeluko nagusiak berak ere boza eder askoarekin bertso zarrak ederki kantatzen zituan.

Arratsalde zoragarria pasa genduan. Aitona Manuel gozatu zan gurekin orduan. Bera ere bertsolaria zan. Bertsoak jarririk ere izan bear zituan arek. Amerikan ere izan zan ura. Aitona galanta eta umore ederrekoa ala ere.

Gero, Aingelun aspertu giñanean, atzera Ganaderira etorri giñan. Martutene ondoko basarri bat zan Aingelu; Ganaderitik bertan zegoan, da sagardotegia izaten zan an.

Esan bezela, beste lau lagun ere baziran an gurekin joanak; eta aiek, ederki moldatu ziranean, etxe aldera jo zuten oñez. Aiek Donostin barrena irrintzi egiten omen zuten.

Gu, berriz, Ganaderin kapeak artu ta berriz ere beste saio bat egin genduan bertsotan, da puroak piztu ta bertako semea an zegoan, Erramon. Ordurako ere automobilla bazuan arek, eta artu ta etxera entregatu giñuzen, eta ari eskerrak...

# Idiazabal

**O**TSAILLAREN lauean Idiazabalera joaten giñan bertsoara. Aurten ez naiz joan, baña beste gañerakoan ia urtero joan gera, San Blas txiki egunean.

Jakiña, neguan izaten da; eta, lenbizi joan giñanean, elurra zegoan galanta.

Zepai ta ni biok giñan. Ez giñan bereala iritxi Idiazabalera, trenak sekulako atrasoarekin etorri ziran-da, elurra zala merio. Ta orduan etzan orain ainbat kotxe ere, ta egon egin bear trena etorri-zai. Noizbaiten ere etorri zan Zumarragara tren ori, ta joan giñan Beasaiñera. Andik zer egingo ote genduan, eta tasisa artu eta bereala joan giñan Idiazabalera.

Egualdia bezelaxe, jende otza zegoan, eta etzegoan artean ere prisarik.

Ziaran-zar joan zan bestea gurekin, arri-jasotzallea, an esne piskaren bat billatuko ote zuan-edo. Eibarren bizi zan ordurako ere, ezkondua. Eibarrerako esnea nai zuala uste det.

Pedro Rubio an bizi zan ordurako ere. Gaztetako laguna genduan ura, Iraetako Tellerian azia zan, ba, ta asko ezagutzen genduan. Eizean-da asko ibilliak giñan ordurako alkarrekin.

Arek taberna zeukan, da aren etxean sartu giñan. Bereala eskeñi zigun amaiketako, ta guk artu egin genion.

Beti bezela, eiz-kontua aitatu zuan. Denbora bazijoan eta alako batean aguzilla etorri zan: asi egingo ote giñan, ba, bertsoan, da nai zutenean esan genien.

Elurra nola zegoan, Rubioren balkoitik egin genduala uste det. Gere saioa egin genduan, da berealaxe libratu giñan, goiz-parteko lanak eginda.

Piska bat ibilli giñan, da artean lenbizi-ko aldiz orduan allegatu giñan gu Idiazabal. Baña etzan ikusi-gaiztoa artean ere erri ori. Orain etxe berri asko egin da, baña artean etzan orrelakorik. Bereala eman genion buelta. Bermuten batzuek edango giñuzen, eta aiuntamentuko gizonak Rubioren etxean bazkaltzeko esan ziguten, eta aiek egingo zituztela kontuak.

Ala, Pedroren ostatura joan giñan bazkaltzera. Aspaldian ikusi ez alkar da kontu asko gendukan pillatuta, eta deskantsatu bat artu genduan. Gerra-denboran ere beti eskribitzen genduan biok.

Ala, bazkaldu genduan alkarrekin ederki. Arratsaldean ere beste saioa egin genduan, da pasa zan eguna.

Gabean bertan gelditzeko esaten zigun Pedro Rubiok: arek etzuala bertsoarik aditu egunez eta gabeen aditu nai zituzkeala.

Gu an gelditzen errezago zan orduan, urteko gariak itaiarekin ebaten baño. Itxu-

ra pizarren bat egingo genduan bearbada, baña gustora gelditu.

Ala, gelditu giñan beintzat eta bertsoa naikoa kantatu ere bai, eta gero oiera joan bearko genduala. Nagusia ere etxe artan bertsozalea zan, baña naikoa aditua izango zuan ark ere beste urtebete baterako.

Preparatu gera beintzat oiera joateko, ta etxeko andreak oia bakarra zeukala, baña zabala zala ta moldatuko giñala biok an lo egiteko. Baietz guk, elurra zegoala eta otz gutxiago pasako genduala oi batean biok.

Baña bestea ere an zegoan, goizean gurerekin joan zan laguna, Ziaran-zar. Aren-tzako ez al zegoan oirik, eta ezetz; lenago esan balu, nunbaiten billatuko zutela, baña orduan garai txarra zala iñon ateak jotzeko. Oia zabala bazan, irurok moldatuko giñala.

Joan gera; ta an, bi ez-ezik, iru ere errez kabitzen ziran. Sartu giñan oi artan, da ez genduan atariko elurrik asko sentitu. Bapo egin genduan lo.

Biaramon-goizean ezin, ba, goiz jaiki. Berandu etzan giñan, da bapo deskantsatu ta jaiki giñan. Gu berriz ere gosaltzeko pronto geunden; gosaldtu eta agurtu giñuzen Pedro eta bere pamelia, eta antxe bukatu ziran urte artako San Blasak.

Berriz ere Zepairekin segitu nion Idiazabal ortara joaten. Orduan, batetik, bertsolari asko etzan; eta, bestetik, berriz, alkarrekin oituta geunden eta biok ibiltzen giñan.

Gero, berriz, esposatu egin zan bertara Zepai, eta andik aurrera etzuan gogo aundirik edukitzen berak an kantatzeko, Norbera bizi dan lekua, txarrena izaten da bertsoarako. Au edo ori esan bear ez duanik ez da izaten iñor, da ez da gustatzen ori.

Beste batzuekin asi nintzan gero joaten: Basarri ta Txapelekin ere bai; Mitxelena, Lazkao-Txiki, Lasarte ere bai. Oiekin danakin izanda nago ni Idiazabalen.

Zepairen *despedida de soltero* ere zelebratu genduan. An izan giñan igande baten Ursuaranen. Angoxe alaba da Zepairen alarguna. Neskatxa gustatu zitzaigun. Bizimodurako modukoa iduritu zitzaigun. Ala gertatu ere egin zan. Guk ere ala desiatzen genion Zepairi; bera ere mutil ona zan da merezi zuan alakoxe bat.

Berastegiko Pakito Txikiarekin izan giñan *despedida de soltero* orretan. Gaba dana etzan gabe pasa genduan, eta komeri polita ikusi genduan Berastegiko Pakitorekin.

Bide kaskar samarra zegoan etxetik gora kamiora; orduan etzan, ba, kamiorik bertaraño. Etxegaratera dijoan kamio ortetara erten bear. Gaur kamio bertara dago, baña orduan etzan.

Oñetakoak ez zikintzeagatik, garaman baten gora gentozen. Soñua joaz zetorren Pakito Txikia, eta or eroritzen da, ta soñuak azpian artzen du bera ta ez dala aterako soñuaren azpitik. An ziran komeriak! Azkenerako guk jaso bear ura; bestela, etzan egundaño aterako soñuaren azpitik.

Soñu jotzen bazuan abildadea arek, berak gogo artzen zuanean.

Ursuaran ori Segurako partean egon bear du, Idiazabaldik urrerago dago baña. Antxe, Idiazabaldik gora, Etxegarate alde-ra, kamioaz eskubitara, antxe dago ballara txiki bat, eta antxe taberna edukitzen zuten Zepairen alargunak eta bere pameliak.

An piñudi bat bota zuten Zepaik eta bere lagunak. Orduan egindako amistadeak izango zituan andregaiarekin Zepaik, eta bereala ezkondu ere egin ziran.

Bein ura ezkondu zanetik aurrera, an izaten zan gure ostatua, Zepairen tabernan. Etxe artan ondo jan ere egiten zan. Angularik etzan paltako bazkaltzerakoan, eta beste gauzak ere era artan.

Bertsozale batzuek gonbiratuko zituan egun ortarako, badira, ba, Goierrin amorratuak; eta bazkalondoan bertso-saio bat egin gabe etzan libratzen iñor.

Baña bera ere kantatu gabe etzan geldituko orduan, naiz-ta errian kantatu ez. Bazkaltzeko denboran iru bertsolari izaten giñan: bi, erriko plazan kantatzen zutenak; eta, gu asten giñanean, berealaxe asiko zan bera ere.

Erriko alkatea ere beti gonbiratzen zuan egun orretan. Alkateak ganbiatu ere egiten dira, baña danakin ondo etortzen zan. Nik neronek ere bost alkate ezagutu ditut Idiazabalen.

Lenbizi ezagutu nuana, Etxaide zan. Gero, Idiazabal pelotaria. Gero, Pantaleon izena zeukan bat. Gero, izena ez naiz gogoratzen, ia geiena tratatua bera izango zan baña; gizona ezko gazte bat, zabal samar bat, luzea ere ez. Orain, berriz, *Granja San Blas*-eko nagusia, Bost alkaterekin serbitu degula esan genezake. Oraingo au, len luzaro aguazil egona da. Olloak dauzka millaka; olloak euki bear ditu.

Idiazabalen, plazaren erdian, kiosko bat dago, eta anditxikan kantatu izan degu, orain aspaldi onetan beintzat. Neguan dira ango pestak, eta batzuetan bero-usai aundirik gabe jardun izan gera.

Beste gañerako pestak ere antxe egin izan dira. Sokatira ere ikusi izan degu polita, ezkonduak ezkongaien kontra, errikoak danak. Baña ez bereala alkarri amor

ematen. Alde batera tiratu arren, etzuten etsitzen. Tokiz ganbiatutzen dira gero, ta urrengo besteak eraman igual. Irugarrenean berriz jarri; ta, ondo luzatu ta eskuak ederki minberatu ta gero, batenbatek obedituko zuan, baña ez ondo probatu gabe.

Ez da sari aundirik izango, orrelako erriko jendea danean; baña iñork ez du nai izaten parragarri gelditu.

Aizkolariak ere ikusi ditugu iñoiz, batek biri eta al dan bezela moldatuta. Jeneralean errikoak izaten ziran, baña piñenak aietxek izaten dira. Askotan ez du iñork gelditu nai izaten atzera, eta egiñalak egin beste erremediorik ez du edukitzen, atzera gelditu nai ez duanak.

Musika, berriz, beti orkestina ona izango da an, eta txistulariak txanda egiteko. Dantzan egin nai duana, ez da soñu-paltan geldituko. Txistulariak bertan errian dira an onak. Iru anai edo ez dakit zer ziran ere; ala uste det.

Azkeneko urte auetan Lasarte ta biok izaten giñan, eta arratsaldeko saioa egin-zai egoten ziran, soziedadera eramateko ta an erriko frutu eskeñitzeko: gazta. Idiazabalko gaztak beti du pama, eta pama ez da nolana artzen dana izaten, da an ere gazta ona izaten da; ez du pama bakarrik.

An danak jango genduan gazta, eta soziedadean ziran ardorik onenak ere aterako zituzten. Andik ere edango genduan, eta berriz ere beste bertso-saio bat egin gabe ez giñan geldituko. Alkatea ere an etorriko zan gurekin. Danak adituko zituzten gure bertsoak; kontuak egingo giñuzen, eta an, soziedadean zeudenak, danak agurtuko giñuzen eta urrengo urtera arte despedituko giñan.

# Ereñozu

**G**ARAGARRILLAREN amairuan Ereñozura joango giñan. Ara ere urte askoan joan nintzan.

Lenbizi joan giñanean, lau bertsolari izan giñan: Saiburu edo Lujanbio; Azpeitiko Mandiolatzakoa; Ernaniko kurtiderian egiten zuan lana, orain ganbiatu ez bada beintzat; uraxe bestea, eta Zepai ta ni. Mandiolatza au etzan asko ibillia bertsotan, baña orduan an tokatu zan. Edadean nerekin bat samarrekoa da ura

Beti bezela, bi saio egin giñuzen: bat goizean eta bestea arratsaldean.

Bien bitartean joan giñan bazkaltzera, eta neskatxa bat ikusi genduan, bertsotan ederki egiten zuana, guk bazkaldu genduan tokian. Ez dakit, zarrak edo berriak, zer kantatuko zituan; baña boza ederrarekin kantatzen zituan. Ereñozun jende asko izan oi da kanpokoa, eta ez dakit egun orretarako etorritakoren bat edo zer izango zan ura. Geiago ez det nik ura ikusi.

An ere meza izan oi da lenbizi. Eleiza ez da aundia ere, ta bete eta kanpora izan oi da jendea. Mezak, geroko ere, asko bilduko dira an. San Antonioentzat debozio aundia du euskaldun jendeak. Meza kantatzera Ernanitik joan oi dira.

Ernaniko Migel Toledo majiña bat bider joango zan onezkero, berak esan izan

duanez. Migel Toledo ori gerra aurreko alkatea zan, da orrek beti gurekin bazkalduko zuan. San Antonio egunean aspaldian etzuan urterik galduko Ereñozura joan gabe.

Gero Basarrirekin asi nintzan joaten. Orrekin ere urte batzuek egin nituan. An ere, goizeko saioa egin ezker, lanik txarrenak egiten ziran.

Soziedade bat zegoan; ara bildu oi giñan, plazako saioa egiten genduan, eta an izaten ziran kanpotik etorritakoren batzuek.

An, tragoska bat egiñaz, bertso-saioren bat egingo genduan, da iñon baño atentzio ohea edukiko zuten. Urumea errekan bada afizioa, eta entenitzen dute aiek bertsoa zer dan. Batenbat ixilik ezin egon bazan, berealaxe esango zion an batenbatek:

–Ixilik egon edo bestela kanpora emendik!

Txirrita zana ere orkoa zan, ba, Urumea erreka; eta beste asko izan dira or bertsolariak. Txirrita zana, Ereñozutik aurre-ra Goizueta aldera piska bat joanda, antxe dago kamioaren ondoan, ezkerretik, ura jaio zan etxea. Estalirik ez du; dana untzak artutako pareta batzuek ikusten dira.

Txirrita zanaren bustoa antxe jarri zuten orain dala urte batzuek; amar edo ama-

bi edo geiago igual izango dira. Urteak aguro joaten dira. Busto ori jarri zutenean, ni ere antxe nintzan, baña orain ez daukat gogoan zenbat denbora izan litekean.

Bola-premioak ere beti izaten dira an. Goizetik asita egun guzian jardungo dute an boletan. Manuel Matxainek eta oiek ez dute paltatuko egun orretan.

Tokan ere izaten da sariketa, ta artan ere jendea ez da gelditzen. Apizio gogorra du orko jendeak. Toka beintzat sagardotegietako oitura da, ta Donosti jira ontakoa; emen geiena egiten da tokan.

Basarrik eta nik biok arratsaldean egingo genduan beste saioaren bat, eta goizean baño errezagó; kezka gutxiagorekin beti ere. Jendea agurtuko genduan plazan, urrengo urtera arte esanda eta berriz ere ez aztutzeko gurekin, eta jetxiko giñan, soñu-jotzalleari txanda eskeñiaz.

Soñu jotzen, Tarragona izan oi zan beti. Arek zerbait esango zuan, beti ari botatzen geniolako; baña guk ere batenbati bota egin bear, eta arekin bagenduan ainbeste konpianza. Ura etzala aserretuko bagenekigun.

Orduan jetxiko giñan tabladotik bera, ta berriz ere soziedadera sartuko giñan. An beste piska bat edan, zerbezaren bat-edo, eta an zegoan jendea despedituko genduan eta urrengo urtera arte. Ura joango zan Zarautza eta ni ere bai Oiartzuna, eta urte baterako serbituta gelditzen zan Ereñozu.

Urte batzuetan segitu genion Basarrik eta biok; baña arek utzi egin zion gero, eta ni Lasarterekin asi nintzan orduan.

Lasarterekin ere urte askoan joan giñan. Biok ondo alkar artutzen genduan, eta bertsotan errez egin ere egiten genduan. Bertsotan alde aundia dago: alkarrekin asko ibillia badago, antza ematen zaio, gutxi gora-bera, bertsoa nola botako edo bukatuko duan.

An, *Txilibitanea* esaten zaiona bada taberna bat, eta ura ere bisitatu bear izaten genduan. Suia ere, bat soñu-jotzalea du Txilibitak, eta egundoko juega egin oi zan etxe artan.

Gizona gogorra da ura bera. Irurogei ta bost urte idukiko ditu Txilibitaneko nagusiak; eta, ura dantzan asten danean, orain ere gazteak bezela ibilliko da. Orain ola dagoanean ura, ogei ta lau urterekin nola ibilliko ote zan? Gizon aundia da; gizena ez, tamañakoa ta zimela: ortxe larogei bat kilo ingurua izango da. Ikusi egin bear da aren mogimentua orain ere.

An ere beti egin bear izaten genduan bertso-saio bat.

Or Urrietako Xoxokan-edo ikusita, agindu zigun baten, urrengo urtean aien etxera joaten bagiñan, botilla bat ardo ona aterako zigula, bazeuzkala-ta gordeak; eta orduantxe ardo ona nolakoa zan probatuko genduala.

Urrengo urtean, beti bezela, joan giñan, ba, Txilibitanera, eta gogoan zeukan; etzeukan aztuta. Atera zuan botella ardoa eta bertsoak bota bear. Len ere ez giñan gelditzen gu, ara joan ezkeró, bertsorik bota gabe; eta ura ere ez ardorik atera gabe.

Baña, ala, asi giñan bertsotan, da Lasartek diskuidatu egin ote zan esaten zion; nun gordeak zituan etzuala jakingo. Egundoko asarre-itxurak egiten zizkan Txilibitak. Etzan asko asarretuko eta estutuko, baña itxurak egiten zituan beintzat. Nik ardo ona zala ura esaten nion; Lasartek etzuala ardoa ezagutzen; aspaldian ez genduala alako ardorik edan.

–Ikusten al dek onek zer esaten duan? Ez; ik ez dek edan ere, aitortu nai badek! –esaten zion nagusiak.

Orrelaxe pasatzen genduan dibertsioa guk, eta bien bitartean ardo ederra edan.

Pamelia ere ederra zeukan ikaragarri. Amairu seme-alaba izan bear ditu. Ikusi egin bear dira aiek danak, an juntatzen direnean, bata baño bestea ederragoa.

Aiek ikusi ta bein andre bat arritu omen zan. Ainbeste aundiko taldea ta danak bata baño bestea ederragoa, aien aita ezagutuko zukeala pozik esan omen zion aur aien amari. Eta antxe ari zala, ba, baratzan lanean, nai bazuan berarekin egon, esan omen zion ama orrek.

Joan da galdetu omen zion:

–Aur oiek danak zureak al dira? Ori da edertasuna, ori!

–Bai; amairu badira beintzat nunbaiten, eta berriz ere aideak artzen ibillia da! –esanda utzi omen zuan.

Jendea asko juntatzen da orrera ere goizean. San Antoniori bisita egitea dala-ta, pamelia asko izaten da: andre-gizonak beren aurtxoakin, mutillak ere bai beren andregaiakin.

Orrelaxe, meza nagusia entzungo dute, eta an medalla ta orrelakoak ere saltzen ibilliko dira andreren batzuek, eta aiek erosi. Dantzan egin nai duanak ere, orkestina ederra antxe edukiko du. Eta ordu bietan edo ordu bi ta erdietan bazkaltzera joango dira.

Tabernan lekurik arrapatzen badute, antxe jarriko dira. Batzuek norbere janakin joango dira. Aiek zopa beroa ta kapea-edo artuko dituzte, eta ardoa. Janik eramaten ez duanak, berriz, tabernan bazkaldu bear izaten du. Alakoak ere asko izaten dira. Ango tabernetan ez da ollo-salda ederra paltako. Goiz-goizetik usai ona egoten da ango ostatuetan.

Guk ostatuan askotan bazkaldu izan degu, eta ango apaizaren etxean ere bai. Apaizak badute ongi jaten duten pama, ta

gu pozak joan giñan, da ala atera ere. Ongi bazkaldu genduan; jaietako moduan. Jaietan gure etxeetan ere zerbait obeto jaten da.

Ernanin, len gure etxean egondako apaiz bat zegoan, Uztapiden egona, Legazpiko semea bere izatez. Antxe zan ura ere bazkaltzen, da egin genduan egundoko tertulia.

Beste batean, Agirre azpeitiarrarekin ere izan nintzan. Bertsolari bizia da uraxen; jendeari gusto emateko modukoa. Ereñozun bazekiten aren berri ordurako; len ere askotan izanda zegoan ura.

An izaten dira, bertsotan entenitzen duan jendea ere, Juan Marko ta Uizi narra; ta Ernaniko Zinkuaneko Inazio Setien ere an izaten da. Ura ere ez da txarra.

Batean bota zion Jose Inporruri bertso ederra, Irundik gentozela trenean. Aiek biak eta Basarri ta ni gentozen; da, lastima, dana ez nion artu, baña erdia gogoan daukat orain ere:

Begiratuta ematen dizut  
gizon kaskarren itxura,  
eltzen badizut ipur-zakutik  
botako zaitut putzura.

Ederki bazkalduta gentozen, da bertsotan egiten etzan zailla orduan.

Anaia bat ere bazuen orrek, Inazio orrek, bertsolari ederra: Patrizio Setien. Il zan; urte batzuek badira ura il zala.

Irunen bizitzen zan, Lenago mikelete izana; ta, gerrarekin endreatuta, gero *Palmera*-ko guarda zan.

Berriz ere mikelete sartzeko aukera etorri zitzaion, da sartzea erabaki zuan. Etxegaratera joan bear izan zuan, da an bizitzen zan. Erretiroa ohea izateagatik edo orrela



sartu bear izan zuan. Baña etzuan suertetik eduki: diabetis aundia eduki bear zuan eta gazterik il zan.

Gizon galanta zan ura ere. Eun da ogei ta amar kilo pisatzen zituan, eta etzan ala ere gizon parregarria.

Ura ere Ereñozu ballarakoa zan jaiotzaz. Arekin kantatu izan genduan iñoiz Irunen; ura an bizitzen zan, ba, *Palmera*-n lana egiten zuanean. *Palmera* bera ere Irunen dago.

Beste aitona bat ere, Jose Migel izena duana, bada an bertsotan majo egiten duana. Orrelaxe asko dira an. Neri orain akor-

datzen etzaizkidanak ere izango dira, eta kontu aundia bear izaten da orrelako tokian bertsotan egiteko.

Jendea, berriz, nik ez dakit nundik etortzen dan ainbeste jende erreka-zulo artara. Ikusi egin bear da ango automobillen emana ta ango jendetza. Lenbiziko pestak, izan ere, egiten dira urtean. Arratsaldean, beintzat, izugarri izaten da an jendea.

Baña gu, jendea ugaltzen dijoan bezela, gure saioa egin eta alde egin izan degu. Kontuak egin, ango lagunak despeditu, urrengo urtera arte esan eta etxe aldera egingo genduan.

# Segura

**G**ARAGARRILLAREN ogei ta lauan Segurara joan izan giñan. Jakiñako erria izaten zan; urte askoan joaten giñan. Lenbizi, Zepairekin joango giñan urte pare bat edo orrela; gero Basarrirekin urte askoan. Segura erri ezaguna degu; konpian-tza aundian joaten giñan.

San Juan eguna izaten da egun ori. San Juan egunean pestak leku askotan egin izan dira; baña guk egun ori Segurarako gordeta edukitzen genduan.

San Juan eguna urtean izaten dan egunik luzeena dala esan oi da. Eguzkiak er-teeran dantzan egin oi duala ere esan oi da, eta zenbat orrelako!

Dana dala, beintzat urte-garai ortan kanpo ederra egoten da. Txoriak, danak kantuan; kukua ere emen izateko garaia da. Mendiak ere parrez daudela esan liteke.

Neri zenbat gustatzen zaizkidan mendiak! Al baldin banu, sarriago joango nintzake ni mendira. Askotan astirik ez degu izan: aste-egunean lana dalako; eta jaiian, berriz, norabaiterako abisoa izaten genduan, ta or nun dan gure mendira joatea.

An jateko tokia, Imazeneko ostatuan izaten genduan, Seguran alegia. Urte askotan izan giñan, eta alakoxe konfiantza artu genduan. Lo ere antxe egiten genduan, etxera etortzen ez giñanean.

Seguran soldadu lagun bat ere banuan: Ariztimuño; eta Basarrik ere bai: Pedro Txiki. Gero aien lagunak an ibiltzen ziran kua-drillan; eta, an giñanean, ez giñan gelditzen lagunak gabe.

Gerriko anaiak ere gure urtean izaten ziran: Bitoriano eta Luis. Aiek ere oso lagunak giñuzen.

Bitoriano orrek, gu Segurara edo Zegamara edo Idiazabalera edo erri oietara joaten bagiñan, etzuan uts egingo. An izango zan gure inguruan. Bertsozalea alako-xeari esaten zaio. Bertsolari txarrik ez da arentzako.

Danak lagunak ditu orrek; batzuek geiago, besteak gutxixeago, baña danakin ondo konpondu oi da ura.

Gu, San Juan egunean, beti gonbidatu izan giñuzen kapea artzera. Beti ez giñan joaten; baña, beste konpromisorik ez bagenduan beintzat, joango giñan. Aren etxean bertso-saio bat egin gabe etzegoan aldegiterik.

Gu lenbizi Segurara joaten asi giñanean, taberna zeukan; joaten giñan orduan ere, eta bereala esango zion andreari:

–Ekarri botilla bat *Cariñena!*

Tabernarik etzuanean ere, beti izaten zan an guretzako botilla bat *Cariñena*.

Pamili aundia dute. Amarren bat izan bear dituzte, baña danak ondo aziak eta edukatuak.

Ondo esateko, erri guzia lagun egiten da, orrenbeste urtean erabat joaten dala Edozein modutara ere, ogei ta amar bat urte egingo giñuzen, eta lagun egiteko garaia badala uste det.

Andoaingo Txurrerotarrak izaten ziran soñu jotzen. Pepe eta Mateo bi anaiak; beste bat Jose Mari, ura ere Andoaingoa; Ikatza bestea, ura Tolosakoa zala uste det, eta orrelaxe. Bost izan oi ziran danetara.

Oiek eman oi zioten asiera pestari. Txistulariak goizeko diana joko zuten, baña gu ez giñan allegatzen garai ortarako. Goizeko txistulariak eta meza nagusia gu joan baño len pasatzen ziran. Ez giñan beñere iritxi gu ordu orretarako.

*Los Alegres* edo orkestina ori izaten zan gure aurretik, eta gu gero. Aiek jo-aldi bat egindakoa, gu asiko giñan. Urteetan orrela jarraitu genduan Basarrik eta nik.

Ogei urte-edo pasatu ziranean, egin ziguten omenajea. Egundoko kantu ederrak eskeñi zizkiguten. Segurako eliz-abeslari-taldeak beren biotz-agurra egin ziguten. Gizon aundiak ere baziran, da neska gazteak ere bai, eta ume koskorak ere bai. Irurogeiren bat lagun danetara izango ziran.

Erria dana ala guregana entregatzen ikusi genduanean, guri ere piska bat biotzean ikutu egin zigun. Kantu-aldi aundia egin zuten aiek. Ume koskorak-eta geiena biguntzen du gizona.

Gero, oiek gutxi balira bezela, Imaz abizena daukan batek bertsoak zuzendu zizkigun. Guk ere zerbait egin bear, ba, eta orduan Basarrik eta nik moldatutako bertsoak ementxe dijoazkizute.

Basarrik:

Biotz-biotzez eman bearrak  
milloika esker da grazi,

biotz onetan zer gertatu dan  
nik ezin adierazi;  
barruan ezin egonda, jaunak,  
ditut malkuak igesi;  
seguratarrak, oinbeste onra  
guk ez genduen merezi.

Uztapidek:

Nere eskerrak entzun artean  
piska baten egon zaitze,  
pozez beterik gelditua naiz  
leno nenguen triste;  
abek gizonai meritu asko  
ematen len e dakizte,  
baña gaurkua geitxo izango zan,  
gu ez gerade ainbeste.

Basarrik:

Une batian jarri nazute  
sentimentutan betia,  
aur bati bezela gertatu zait  
ortxe negar egitia;  
ezin asmatu nezake orain  
emen esker ematia,  
Zeruko Jaunak onetsi beza  
dezuten borondatia.

Uztapidek:

Gaurko eguna zoragarria  
Segura aldiandegua,  
ai, bertan bizi bear bagendu  
beti uda eta negu!  
Egin dizkigun kantu ederrak  
estimatzen dizkiogu,  
ta kapaz geran arte etortzeko  
berriz e agintzen diogu.

Basarrik:

Erri ontako erretoria  
ez det nai gaizki artzia,  
komeni zaigu kontu guziak  
beren neurrian jartzia;

ain da umilla ta ez luke nai  
bere izenik aitatzia,  
baña ez da errez ainbat balio  
duen jaun bat ixiltzia.

#### Uztapidek:

Parroko jaunak eginkizuna  
ederki asko du bete,  
era ortako gizon bat nola  
ez degu izango maite?  
Ni beintzat emen txoratu eta  
gelditua naiz dexente,  
zure bearra Segurak ere  
badaduka, don Bizente.

#### Basarrik:

Bide zuzen da ona darama,  
ezagun da bazterretan;  
seguratarrak danak zaudete  
bereganako zorretan;  
erriak ez du atzera egingo  
lengo oitura zarretan,  
goiko puntara irixteko ere  
ez dago esku txarretan.

#### Uztapidek:

Artzai on orrengana guztiok  
artu zazute ardura,  
denbora labur danok baguaz  
eriotzako ordura;  
jaun orretxen esanetan zuzen  
ibiltzen bada Segura,  
zenbat animak jua bear ote du  
erri ontatik zerura?

Gure bertso-saioa orrelaxe izan zan. Baziran beste saio batzuek ere egiñak, baña oiek an kantatu, magnetofonean artu, koadro batean sartu ta etxera bialdu zizki-guten. Orain dala amar urte zan au gertaturik, milla bederatzireun da irurogei ta iruan; amar urte aurtan.

Ez dakit Basarri geiago joan zan Segurara. Azkeneko urte auetan Lasarterekin joan izan naiz, ta ni arrezkero ere askotan joan naiz.

Erriko jaiak ez dirala ere joan izan gera. An badute zine-moduko txiki bat, eta antxe kantatu oi genduan. Seguran noiznai bertsoak aditzeko prest egoten ziran.

Basarri ta biok joan izan giñan perretxikoak jateko aitzakian ere. Gaba pasa an da biaramonean etorri etxera. Perretxikoak jan ere bai, eta gañetik usoak; eta bertso-saio bat egin da orrelaxe.

An bertan ere badago bertsolaria; Intxausti du abizena. Arek ere egin izan du bertsoan iñoiz. Orduan iru jarduten giñan: gu, emendik joaten giñanak, bi: eta Intxaustirekin iru.

Etorrera aundia du bertsoan Intxausti orrek; gutxi jarduna. Urtean lau aldiz etzan jardungo, eta nola nai dezute, ba, bertsoan erreztasuna edukitzea? Ezin liteke.

Gu an giñan egunean, etzan beste pestata aundirik izaten: gonbiratuak eta triparta-pesta, ta partidoren bat.

Pelotariak beti onak izaten dira Seguran bertan. Erriko parejaren bat erbesteko parejaren kontra, ta orduan ez dago frontoira sartu bearrik, zein irabazten dijoazen jakiteko. Errikoak irabazten badijoaz, asiko dira mutil koskorrak bulla ta txaloka, ta ez dira ixilduko. Galtzen badijoaz, berriz, izugarrizko kalma izango da partido artan.

Bizikleta-karrerak izan dira, ta *tiro-platoa* ere bai. Oiek geroagoko egunetan izaten dira. Guk ez degu beñere ikusi oieta-korik.

Arratsaldeko saioa egiterako arrimatu-ko giñan plazara, eta an jardungo zuten *Los Alegres* edo orkestina ori, ta oiek ixilduko ziran pozik. Koparen bat artzera joango ziran, eta guk egiten genduan saioa

orduan. Akaberan agurtuko giñuzen plazan zeudenak danak, urrengo urtera arte esanaz, eta urte artako pakea egingo genduan plazakoa.

Baña beste lan bat ere egoten zan artean egiteko. Soziedade bat bazegoan *Caza y Pesca*, ta an egoten ziran gure zai erriaren erdia. An saio bat egin gabe, len egin giñuzen lanak, danak alperrik ziran.

An izango zan amerikanoren bat etorri berria, edo eiztariren bat zerbait esan bea-

rrekoa; beti preparatzen zuten orrelako zerbait.

An izaten ziran angoak! Bati, erbia tira eta joan egin zitzaiola; besteak zakurra jo zuala tiroarekin, eta orrelako naspillarik an preparatzen zan. Batzuek asiko ziran txaloka, ta noiz ixildu etzekiten, besteari amorratzeagatik.

An ematen zitzaion pestari atzena. Urrengo urtera arte despedituko giñan, da agur, jaunak!

# Ernani

**S**AN Juanetatik urrengo ostegunean Ernani izaten giñan. Urte askotan izan naiz an ere.

An trikitixa izaten zan kalez kale aruntz ta onuntz, ta tabernetan ere bai. Jo ta jo etzan ixiltzen egun guztian. Beste gazte-pilla bat aren ondoren edo aurrean, salto ara ta salto onera. Pesta bear bazan, antxe izaten zan pesta.

Zapateroak bai poz ederra, gazte aiek ala ikusita; danentzat gaizki etortzen dan pestarik ez omen da izaten da.

Lenbiziko urtean gerra asi baño len izan giñan: Txapel da Zepai; irugarrena ez dakit zein izango zan: Mandiolatza edo Saiburu, bitan bat izango zan; da bestea ni. Lau bertsolari giñala badakit.

Saio bakarra egin genduan, eta gabera-ko Konportara joan giñan. An egin genduan beste bertso-saio bat, eta lotara.

Txapel, Zepai ta ni giñan ara joan giñanak; Konportako nagusia an zan, ba, Ernani egun artan, da arek esan zigun joateko aien etxera. Zepairen anaia da ura, ta gu joan, bitan esan gabe. Gero, an lo egin da etxera joan giñan.

Gu orduantxe giñan, ba, bertsolari berriak, eta orduan estimazio izugarria izaten genduan. Aurreko San Sebastian bezperan Donostin izan giñan txapelketan, eta jendeak orduan ezagutuak, ni beintzat: eta

andik urrengo San Juanetara bost illabete daude danak ere, eta orduantxe gu Ernani. Ori lenbiziko urtea zan.

Gerra ondorenean ere urtero joaten giñan. Zepairekin eta Basarrirekin, Pablo zapateroa ta Mitxelenarekin, eta gero atzenean Lasarte eta Arozamenarekin eta Azpillagarekin, oiek danakin kantatu izan det nik Ernani plazan. Makiña bat modutako bertsoak kantatuko giñuzen. Ernani plazak izketan baleki...

Beti plaza batean ez genduan kantatu ere egiten; baño lenbizi, luzaro, ganaduperia egiten zan leku artan, orain ez dago peria egiteko moduan baño.

Gero, berriz, Tiloetako Plazan urte askoan. An kantatzen genduala, ganaduen premioak ere izaten ziran. Bei ederrak ala ere Ernani aldean; bei bikañak izaten dira.

Gero, Txantxillako kanpoan ere bai. An egiten genduan, beste pestaren batzuek zeudelako izango zan.

Garziarena ta Ernani uztargillea ere antxe ikusi giñuzen aizkoran, bentaja emanda. Ez dakit zenbat bentaja izango zan, baño uztargilleak irabazi zuala bai beintzat. Garziarenak ematen zion bentaja, dezentea izango zan; ez dakit doblea ebakitzer baldin bazan ere.

Arruizko Txikia eta Aldatz ere ikusi giñuzen beste baten korrika. Arruizko Txikia

orduan bentaja emanda zan; artean etzan, ba, Aldatz bere purian jarri. Eman zion bentaja ere berealaxe kendu zion. Sasoi ederra zeukan orduan Arruizko Txikiak. Gero bestea ere, Aldatz ere, korrikari ona izan zan, baña beñere etzan iritxiko Arruizten tamañara.

Arruako Ostolaza Txikia ere antxe zan lengo urte batean. Bestea Urrestilla, Arruakoa au ere. Saio bikaña egin zuten. Astibia ere ikusi izan degu kanpo artan sasoi ederrarekin, laste egurrak mozten. Agerre zana ere bai arri jasotzen. Oiek, danak dira onak beren lanetan.

Sokatirak ere bai, oiartzuarrak an erriko bertakoen kontra. Ez dakit zeñek irabazi zuten.

Pultsoan ere bai, zeñek kilo geiago jaso. Iru gazte presentatu ziran, eta irurak egin zuten ondo.

Orrelaxe, Txantxillako kanpoan ikusi ditugu oiek danak eta geiago. Ni akordatzen ez naizenak, zenbat izango ote dira?

Ernanin, bertsoak entzuteko zaletasun aundia dute bertako jendeak; baña kanpoko jendea asko nastu da orain an ere, eta lengo konturik ez da izango.

Garai bateko ango aitona ikusiko baluteke, orain ibiltzen geran bezela, bertsoak kantatzeko bildurrak, ez dakit zer esango luteken.

Portuko ballarako Graxiano bat, eta Makala, ta Maldaburu, eta Eltzekondo ta aiek, egun guzian egongo zitezkean bertsoak aditzen. Eta bertso zarrak ere bai, bazekizkiten aiek egun baten kantatuko etzuten ainbat. Gizon galantak ziran, baña abots ederrarekin kantatu ere egingo ziztuzten aiek.

Graxiano zanarena badakit bat, bertsoa alegia. Elgoibarren zegoan klinikan, beiak bota ta belaunean min artu ta Arrillagaren

klinikara eramanda. San Isidro aurre ori zan.

Zepairen illoba bat ere an zegoan arekin, eta arek esana gu joango giñala ara, ta besteak arengana ere bialtzeko esanda zeukan mutilla.

Zepairen illoba ori bisitatu genduan eta ondo zegoan; da arek esan zigun an, beste aldeko koartoon, bazegoala gure ezagunen bat, eta arek ere nai zuala gu joatea.

Joan giñan, ba, eta an zegoan gure Graxiano ori. Ia zer moduz ta ondo zegoala, baña lenago ederrak ikusi zituala; eta, ala, arek sei bertso etzituan ortik onerakoak kantatu? Baña neri bat ez besteak aztu egin zaizkit; eta au, bisitatzera joan zanean, semeari kantatua:

Naiko janaia badaukak eta  
ez akela egiñ oterik;  
bei eru arek egiten al dik  
len bezelako boterik?  
Nik etzedukat etxe onetatik  
puska batean joterik,  
etxeko lanak eiñ itzik zintzo,  
bestela ez daukak doterik.

Orrelakoxe aitona ziran aiek; beti umore onean.

Makalenak ere badira orrelako gertaera-moduak. Batean, kalean berandu bai omen zebillen, da ura orduan ere umore onean kantuan. Lo egiteko ere etzan izango garai txarra, eta serenoak txistu jo omen zion. Bestea irrintzika asi omen zan orduan, da serenoak txalo jo. Makalen alde-ra abitu omen zan; eta badaezpada ere, etxera joan omen zan Makala.

Serenoak, urruti izan arren, ezagutu, eta urrengo egunean topo egin du serenoak Makalarekin. Ia zer formalidade zan esan omen zion, bartarratsekoa alegia.

–Zer, ba? Nik zer egin nuan, ba?

–Kantuan ordu aietan! Nere txaloak eta txistuak ez al zinduzen aditu?

–Bai, ba! Ondo ari nintzalako jotzen zenduala txalo pentsatu nuan nik, eta orduan da aundiagoak egiten nituan ujuak! Atzenean irrintzika ere jarri ninduzun!

Serenoa ez omen zan oso gustora ere geratu, baña atzenean ere barkatu egin omen zion beintzat.

Beste batean, berriz, regatak omen ziran Donostin, eta an omen zebillen Makal ori kaia alde ortan, "Bost duro Orioren alde!" uju egiñaz; aurrena baietz Orio, alegia.

–Ezet! –esan omen zion beste batek–. Ezetz aurrena etorri Orio!

Egin omen zuten beren trabesa bost duro, eta alkar ez ezagutzen.

–Nik irabazten badet, zeñengatik galde egin bear diat?

–Ernaniko Makalengatik galdetu zak, eta edozeñek erakutsiko dik. Eta, nik irabazten badet, zeñengatik galdetu bear diat?

–Usurbilko Mansorengatik.

Aiek orrelakoxe gizon umoretsuak ziran. Usurbilko Manso ere ezagutu nuan nik. Gizon aundia zan ura ere. Aiek danak il ziran aspaldi.

Eltzekondo zana ere gizon galanta zan. Eun da ogei ta amar bat kilo izango zan ura ere, eta bertsozalea. Ori burrukaria zan; Otxoa zanarekin Ameriketanda ibillia. Pultsoan ere bai; emen azaldu dan onena. Zenbat indar zuan etzekian arek berak ere.

Orrek, bertsoan ari giñanean, ondo aditu nai izaten zituan. An jiran asten bazan

berriketan batenbat, laster esango zion arek ixilik egoteko edo bestela alde egiteko andikan.

Ernanin kantatu ez duan bertsoaririk ez da izango asko. Zinean ere izaten ziran noiznai bertso-saioak, eta zortzi bat bertsolari izaten ziran orduan ere. Batean batzuek eta bestean besteak, beti ganbiatuan izaten ziran. Ernanin badute orretan gustoa, bertsolari danak ikustekoa.

Denbora baten, Txirrita ere San Juan bezperan antxe izaten omen zan. Zenbat urtean ibilli ote zan ura an eskean? Bertsoak kantatu, eta limosna batek eta besteak eman egiten. Len aitatu dedan Graxiano izaten omen zuan laguna. Orain il zan Txirrita, ta San Juan eskea ere bai.

Euskerak naikoa larri ibilli bear du Ernanin ere. Kanpoko jendea geiago jarri da errikoa baño. Oiek ez dute ikasiko euskeraz, eta guk ikasi bearko degu oien izkuntza. Guk ez degu onezkero ikasiko, baña bein erderaz ondo ikasten duanak, euskerari utzi egiten dio, ez litzake ala bear baña.

Ala ere, bat ikasitakoan besteari aztutzen uztea ere, zerbait da. Bat ikasi baño lenago besteari utzitakoak ere badira; gure moduan astakeriak esanez-eta derrior erderaz egin bear.

Orrela gelditzen dira gero euskaldunen umeak euskeraz ikasi gabe, gurasoak etxean erderaz egiten dutelako, euskeraz askoz obeto egingo lutekela ere.

Ernanirengatik naikoa izango det, eta bukatu egin bearko det. Oraindik erri askotako berriak eman nai nituzke, eta agur, Ernani!



# Eibar

**G**ARAGARRILLAREN ogei ta bedertzian, San Pedro eguna, Eibarren izaten giñan aspaldiko urteetan. Pestak San Juanetan izaten dira, baña gu pestan atzenean joaten giñan, bukaera ematera.

Or ere urte bi edo iruan Zepairekin izan nintzan, eta andik aurrera Basarri-rekin urte askoan; ogei urte edo ez dakit zenbat izango ziran, baña asko beintzat edozein modutara ere. An ere omenaldia egin ziguten, urtero jaten genduan etxeak, Agiñazpiñeko barrean.

Eibarrera San Pedrotan joaten asi giñanetik, beti antxe jan degu, Agiñazpiñean; beti itxuran jan ere. Asi gosaltzetik eta bazkaria, konpleto. An langostarik ezan paltako bazkaltzen, eta txanpanik ere ez.

Detalle geiago ez noa ematera, oiek biak diran lekuan beste gauzak ere alaxe izaten dira-ta. Txanpan otza porroitik edaten antxe ikusi giñuzen, eta ur-ardoa baño obea izango dala esango nuke.

Etxe orretantxe egin ziguten guri omenaldia: txapel eder bana Basarri eta biori; eta, norbera oian dagoala, andrea esnatzeko zintzarriak. Ez dira txarrak aiek ere, baña nere andrea berealaxe jarri zan ari kasorik egiten etziola. Semeak nik baiño gazteago artzeko itxura

dauka andrea, eta akaso arentzat balio-ko du.

Dana dala, guk beti etxe orretara zuzen billatzen genduan bidea: trenetik atera estazioan eta Agiñazpiñera gosaltzera.

Pulmana ara joaterako, gogoia ederra egiten da. Amar ta erdiak izango dira pulmana Eibarrera joaterako; emen Oiar-tzunen seiretarako jaiki askotan, da kati-llakada bat salda eta kazuelkada bat tripakiri zer egin jakiten genduan guk. Bein ura egin ezker, bertsoatarako ere bapo jartzen giñan.

Amiak aldera ezker asten ziran an umeen jokuak eta zerbaiten mobimentua: eltzeak autsi edo zaku-karrerak edo zerbait; ortzetan kutxara artu ta aren gañean ollo-arrautzak, eta korrika zeñek lenengo plazari buelta eman da orrelakoxe gauzak. Danak parre egitekoak dira oiek.

Gu an egoten giñan gosalduta, Agiñazpiñean, abisoaren zai, eta alako baten etorriko zan batenbat abisatzera, bertan zegoan, ba, plaza, guk gosaltzen genduan tokitik; eta jaiki ta joango giñan plazara.

Jendea asko izaten da an, publiko ikaragarria; baña, egia esan bear bada, ez

da bertsotarako gusto geiegirik izaten. Jende nastua; kanpoko jendea geiago bertakoa baño, eta ixiltasun geiegi ez da izaten. Programa nola edo ala egin bear izaten da, eta bertsolariak ere jarri egiten dituzte; baño serbizio aundirik ez dute egiten Eibarko plazan bertsolariak.

Bazkaltzeko denboran bai. Gure maian bakarrik etziran izaten an bertsozaleak; aldameneko maiak ere danak beteta izaten ziran, da danak bertsozaleak izaten ziran, an egun artan ziranak.

Eta guk, ederki bazkaldu ta gero, an izaten zan bezelako gizartearekin, nola ez genduan, ba, egingo bertsotan? Antxe artutzen genduan gozatu bat; emendik araño joan ezkerro, zerbait egin gabe ere ez da izaten gustorik.

Baña, goizeko pesta bukatu baño len, bazkaldu ta danak egin ditugu.

Dantza-sariketa izaten da beti egun orretan bertsolarien ondoren. Gu joaten asi giñan ezkerro, ez dute faltatu dantzariak Eibarko plazan. Gipuzkoan eta Bizkaian diran onenak an izaten dira egun orretan. Premioak ere dezenteak izan oi dira Eibarren, eta saiatuko dira ara joaten. Urte-garai ortan erri askotan izaten dira pestak, eta arratsaldean beste lekuren batera igual joango dira, baño angoa eginda.

Lengo urte baten, Aragoi alde orretakoa-edo, bikote bat atera ziran; senar-emazteak izan bear zuten, eta ementxen ere badirala dantza librean ederrak, baño badirala toki geiagotan ere dantzariak aitortu bearra dago. Ni arrituta gelditu nintzan, aiek dantzan ikusi nituanean. Aien soñua markatzeko postura! Aiek egin zuten bezela dantzan egingo dute-nak, emen ere ez dira dozenan amairu.

Ainbeste aldiz izan gera ta modu askotako pestak ikusi ditugu.

Sokatira ere ikusi izan degu kale batekoak beste kalekoen kontra. Luxia aizkolaria ere antxe zan besteen tartean.

Arri-jasotzalleak ere bai, asko ikusi ditugu. Bat, errikoa bertakoa: Justo Gallastegi famatua, berrogei ta amar urte-tik gora ere, amairu arruako arri kubikoa bizkarrean ibillitako gizona, berak altxatuta. Ta ez baten bakarrik; askotan.

Gazteakin ere ikusi izan ditugu sari-eketak. Agerre bigarrena ere egun orretantxe ikusi genduan, lenbiziko, arri jasotzen, eta lenbiziko premia irabazi zuan.

Mallabiko Txikia ere ikusita gaude, ta or Bizkai alde orretakoak geiago ere bai. Neri orain etzaizkit gogoratzen dannen izenak, baño Eibarren San Pedrota asko izan dira oietakoak.

Eta aizkoran ere bai. Eibarko *Iskua* esaten zaion ori ere ikusi izan degu esku batekin bera baño gizon aundiagoen kontra. Ala ere irabazi egin zuan.

Beste batean, Iurrebaso ta Iskua, ta bestea ez dakit zein izango zan irugarrena. Iru zirana bai, badakit. Polipaso ez bazan ere irugarren ori... Iurrebasok irabazi zuana bai, badakit.

Oiek danak San Pedro egunean Eibarren ikusi ditugu, eta beste asko neri akordatzen etzaizkidanak; burua piska bat galdua ere badaukat lendik, eta baraka dezatela nik aitatu ez ditutenak.

Len esan dedan bezela, bazkalondonan izaten da an bertsotarako poz piska bat. Erriko autoridadea ere an izaten da, eta bein Basarrik eta biok kantatutako bertsoak.

Basarrik:

Zu, Uztapide, jakiñik nago  
nola ama dezun illa;

lengo batean eleiza juanda  
antxe artu nuen silla;  
belaunikatu nintzan bertan da  
egin nun otoitz umilla,  
zure guraso agurgarria  
zeruan gerta dedilla.

#### Uztapide:

Basarri, orain kanta didazu  
neri bertso arranua,  
ongi-ezikan jarri liteke  
emen pertsona sanua;  
nere guraso maitea illa  
len daukat naiko damua,  
ez bazerade laster ixiltzen  
negarrez aстера nua.

Nik ama il berria nuan orduan, da Basarrik ura aitatu zidan, eta nik aski pena baneukala len ere esaten diot. Orrelaxe izaten dira bertsolarien kontuak.

Plazan saio bakarra izaten da; edo, obeto esateko, goiz-partean bakarrik; bi saio edo iru igual egiten giñuzen, aizkolariak zirala edo arri-jasotzalleak zirala-edo, aien akaberan da orrela.

Baña arratsalderako kezkarik ez beintzat. Arratsaldean maian egiten genduan egingo genduan; kapea artu ta purua piztu ta ezeren kezkarik gabe. Batenbat izango zan piskaren bat toriatu bearrekoa ere.

Ango lagun-arteak bukatzen zanean, batzuek zezenetara eta besteak beste norabaitera, danak zabalduko ziran; eta gu ere, jendea bakantzen asten zanean, estazio aldera jotzen genduan.

Bidean beste botellaren bat zerbeza edan, da Ziarran-zar Manuel arri jasotzallea bisitatu-edo, lenago auzoak izanak gera, ba. Ura ere an dago tabernarekin Agiñazpiñetik urrean. Gero trenera andikan.

Treanean askotan erdi lotan. Eibartik onera ez da biaje eroso egin ere egiten. Donostiraño or nunbait etortzen da, trenaldatu bearrik ez da izaten da.

Bein Donostiraño etorritakoan, pausotik pausora aldatu bear: batean trolebusa eta bestean autobusa. Amaratik onuntz ez da lo egiteko ere denborarik. Amaran trolebusa artu ta *Plaza de Guipúzcoa*-raño; gero andik Erreterira beste, nai bada trolebusa ta nai bada Ondarrabiko autobusa; andik Oiartzungo kalera beste autobusa, eta andik etxera tasi, burutik nastutzeko ainbat aldaketa izaten da or bide orretan.

Basarrik utzi zionean, Lasarterekin asi nintzan. Arekin ere urte batzuek egin nituan. Arekin ere martxa bera ibiltzen genduan; eguardiko saioa eta arratsaldean jai.

Lazkao-Txikirekin ere izan nintzan; arekin atzeneko aldiz, eta orduan Eibar ko bertako Narbaizak ere kantatu zuan. Ori bertsolari gazte bat da, ta etorkizuna daukana.

Guk gero bazkaldu ta bertso-saio bat edo bi egin giñuzen, eta Eskoriazara joan giñan Lazkao-Txiki eta ni, biok. An euskal pesta bat zegoan, eta an beste bertso-saio bat egin genduan.

Astibia biren kontra zan an; Iurrebaso ta Arria irugarrenak osatzen zuten bikotea. Arria, anaia bigarrena; aita ere aizkolaria da ta oraindik bizi da, ta anai bigarrenari aizkolaria irugarrena esan bear. Astibia ona da, baño ezin izan zuan bikotearekin. Txanda librean ziran bikotea, eta gizon deskantsatuak indar aundia du; mende artu zuten eta nai zituztenak egin zituzten.

Arri-jasotzalleak ere baziran. Ostolatzan bat, eta bestea ez dakit zein izan-

go zan, baña ondo txalotuak izan zirala bai, badakit.

Pesta ori pasa zanean, emen Añarbe-koa, ez dakit Erreterin edo Ernanin egongo dan Añarbe ori, baña an dago orko mutil bat ezkondu ta tabernarekin; eta arek meriendatzera gonbiratu giñuzen. Gu joan egin giñan, berriz.

Iparragirre da ori, eta bera ere bertsolaria da. Sariketetan-da sarri presentatu da ori bera ere.

Arekin meriendatu genduan. Botella bat ardo ona atera zuan da lasai, kontu zarrak esanez, antxe; lanak egin giñuzela eta ezeren kezkarik gabe jarritakoan, orduan izaten da deskantsua.

Zarauzkoa ere bada beste bat tabernarekin: Errotazarreko Santi. Arek ere konbidatu giñuzen. Bein baño geiagotan jan ere egin degu guk aren etxean. Andrea leitzarra du, ta emakume pizkorra gañera.

Bestea, Azpeitiko Otolakoa. Ura, berriz, frontoiaren ondoan dago tabernarekin, eta an edan genduan lendabiziko; ura Zestuan arakin jardunda dago, ba. Ni orduan Santa Agedaren eskean ibilli nintzan arekin, da orduko ezaguna det nik ura.

Danak ezagunak eta etzegoan an gauza onik. Etxe aldera abitu bearco genduala eta asi giñan jendea agurtzen, eta orretarako ere denbora asko bear. Iru-lau bat aldiz agurtu bear izaten dira alakoan, da beintzat noizbaiten ere abitu giñan etxe aldera.

Lazkao-Txikik ekarri ninduan Elgoibarko estazioraño. Ura andikan Azpeitira joango zan, da gero Mandubiko gañetik Lazkaora.

Ni, berriz, Elgoibarren trena artu ta urrean zegoan Oiartzun! Etsi-etsian noiz-

bait ere iritxiko nintzala eta etorri egin bear.

Orrela egin bear izan ditugu guk biajak: batzuetan trenean da besteetan norbaiten automobillean eta orrelaxe, geok ez degu automobillik izandu eta.

Nik banuan lagun bat esaten zuana berak etzuala kotxerik eduki nai; konpromiso aundia zuala, eta bere lagunak bai, gustatzen zitzaiola edukitzea. Lagunaren kotxea, ordea, batzuetan ondo etorriko zaizu, baña askotan gaizki: zuk alde batera joan bear badezu, lagunak bestera joan bearco du eta.

Orain gurea joan da, eta ezin asiko gera onezkero guretzako kotxea erosten. Emendik aurrerako bertsolariak kotxean ibilliko dira. Ez dute trenen zai egon bearrik, eta trenean lo egin bearrik ere ez.

Eibarren zinean ere askotan kantatu degu: *Cine Amaya*-n. Gallastegi pelotariarena da ori, zine ori, eta or izan ez dan bertsolaririk ez da asko izango. Danak txandan-txandan ekartzen zituan. Mugaz beste aldekoak ere ekartzen zituan, eta bizkaitarrak ere bai.

Sariketa bat ere an izan zan Eibarren orain dala urte batzuek, eta gu ere an giñan. Ori San Pedro egunetik aparte zan. Untzagako plazan zan, eta bazan jendea pranko. Sarrera ordaindu bearrik ere etzan, da Eibarren iñon baño gutxiago begiratzen zaio gauza orri; baña beintzat gauza nola zan esaten det.

Mobel edo Mogel edo orrelako izen bat ibilli zan an juradokoen ezpañetan. Guk, an giñan bertsolariak, ez genekigun gizon ori zer izan zan eta gutxiagorik ere, ta gaian ez giñan sartu bertsolaririk iñor ere bear bezela.

Zazpi bertsolari juntatu giñan: Zepai zana bat, eta Mitxelena, Lizaso, Lasarte,

Garmendia, Agirre ta ni. Bertsolariak iñork bear bezela gairik ibilli ez gendualako, ez piperrik ez gatzik etzuan eduki orduko sariketak.

Nik askotan esan det, eta berriz ere esango det, bertsolariak zenbat dakiten begiratuta gaiak jarri bear lirakela; baño juradukoak berentzat moduko gaiak jarritzen dituzte askotan. Ez dakite gu zenbaterano motzak geran. Berak, geienak karrerako gizonak dira, eta guk ere jakin bear degula uste dute, berak bezela. Baña utzi deiodan sariketa orreri ta goazen aurrera.

Beste batean. Lasarteko Juantxorekin joan giñan Eibarrera, apari bat egin bear genduala ta. Azpillaga eta Lopategi ere etorri ziran. Ederki apaldu genduan, eta bertso-saio batzuek egin giñuzen. Gabean gera gu beti onenak, eta alakoxean saiatu bear.

Juantxo bera ere asi zan bertsoan, da mundu koskor oneri eman genion arreglatu bat.

Piska bat berandutu zigun, eta aiek agurtu eta etxe aldera abitu giñan. Juantxok berak eraman eta berak etxera entregatu ninduan; eta, berandutxo izanda ere, badakizu beintzat nun zabitlan.

Ogei ta amabiren bat urtean joango nintzan ni Eibarrera bertsoara; eta, al izan banu, artean ere jarraituko nion; baño eziña etorri zan. Bai ara ta beste lekutara ezin ni joan.

Izketan ere pallo piska bat gelditu zitzaidan, eta memoria makaldu. Gauza pentsatzen denbora asko bear izaten det orain; eta, bertsoan egingo baldin bada, berriz, azkar pentsatu bear.

*Trombosis* pasa nuan ezkerre daukat pallo au, eta onez aurrera nerekin bear-ko du onek. Bertsoan egin gabe ere bi-

zitzen da gizona; eta, onenbestean naitzen ere, kontentu naiz.

Itzik egiten ez nuala ere egon nintzan illabete bat urtean, da uraxe zan mixeria! Gero, orregatikan ere, asi nintzan izketan; dana aldrebes esaten nuan, baño zer-bait beintzat.

Eibartarrak ori jakin zutenean, bereala asi ziran neretzako omenaldia preparamen. Ikusi zuten ez nintzala geiago bertsoara joateko gauza, eta bestelako laguntza piska bat egitea erabaki zuten.

Badira or gizonak besteri on egiten bereala aspertuko ez diranak: Segundo bat, eta Eusebio Garate, ta oien lagunak besteak. Bereala preparatu zuten beren omenaldi ori, eta baita abisatu ere Maiazaren ogei ta zazpian izango zala. Alaxe egin ere egin zuten.

Gu ere joan giñan, ba. Goizean kotxe bat bagenduan; eta, beti bezela, Agiñazpiñera, ta an zeuden gure lagunak. Bertsolariak ere juntatu ziran eta an gosaldu genduan, da frontoira joan giñan.

Frontoian sartu giñan eta ura dana jendez betea zegoan. Esateko, an ezagunak geienak. Gipuzkoako bertsozaleak, geienak ezagutzen ditugu guk. An giro izugarria zegoan.

Bertsolariak kantxa aldera bazijoazen, eta nik ere ara joan bear. Jetxi nintzan, ba, kantxara, ta oraindik alako txalo-zaparradarik an izan zan!

Bertsolariak igo zuten tabladora, eta ni ere jarri nintzan aien ondoan. Joxe Mari Iriondo gaiak ematen, da berealaxe asi ziran lanean: Manuel Lasarte, Jose Agirre, Imanol Lazkano. Mitxelena, Xalbador, Mattin, Arozamena, Mugartegi, Egileor eta Narbaiza; atzeneko au Eibarkoa bertakoa. Asi ziran bertsoan da tajuz egin zuten danak.

Ni larri samar ibilli nintzan batzuetan, malkoakin begiak bustita; baña ori normala da omenajeetan. Batzuetan neronekin geiegi sartzen dirala esango da, baña ara joaten danak zerbait esan nai izaten dio omenaldia egiten zaionari ere, eta asmatu zazu, ba!

Dana dala, beintzat frontoiko lanak egin ziran, da bazkaltzera joan giñan soziedade batera. An lasai bazkaldu, ta bertsolariak berriz ere egin zuten bertso-saio ikaragarria.

Lengusuak ere banituan an bertan bizi diranak, eta Bitoritik etorriak ere bai. Aiekin ere piska bat itzegin nai genduan, eta asti aundirik ez genduan ortarako ere.

Illuntzea ari zan arrimatzen eta asi giñan jendea agurtzen, pesta ori egin zutenak batez ere: Segundo asper eziña, Eusebio Garate, San Martin, Jose Mari Panpo eta beste orrelako batzuek ere bai. Ni ez naiz orain danakin gogoratzen, baña danai eskerrak eman genizken; urrengo arte esanda despeditu giñan da etxera abitu giñan.

Goizean joan giñan kotxea an zegoan, eta ura artu eta erretira egin genduan. Baña gero kontuak egitekotan etorri giñan; berak abisatuko zutela noiz egiteko moduan ziran.

Andik illabete batera edo olaxe abisatu zuten onera bertara etorriko zirala, eta alaxe etorri ere. Igande batean emen ziran garaiz gure etxean, eta zillarrezko

bandeja bat, frontoian bildu ziran diruak gañean zituala, ementxe entregatu zituzten.

Emen gure ballaran pestak ziran gañera, eta bazkari bat alkarrekin egin bear genduala ta alaxe egin ere. Segundo eta Eusebio emen ziran orduan ere beren andreakin, eta aien lagun batzuek ere bai.

Eta, emen pestak nola ziran, Azpeitiko Lizaso eta Lazkano ere emen ziran, ba, bertsoan; da aiek bertsozale gogorrrak dira, berriz, Segundo eta bere lagunak, eta ederki pasa genduan.

Gure kuñadoak taberna dauka emen da antxe bazkaldu genduan, da piska baten ederki egon giñan. Baña pesta zegoan lekura buelta bat eman genduan, da aiek joan egin bear zutela; Eibar urruti zegoala ta agurtu genituan.

Aiek joan ziran, baña beste gauza bat emen utzi zuten, da zer da beste gauza ori? Biotza. Emen beste guziak kontuak dira, baña biotza duan gizonak obra on asko egin lezake, eibartarrak nerekin egin zuten bezela. Nik gogoan daukat eta bizi naizen arte etzait aztuko ere.

Jendea txartu egin dala-ta makiña bat berriketa ibiltzen degu. Ona pranko ere bada oraindik. Joan daneko urtebete onetan nik probatu det ederki. Txarra asko egongo da, baña nik izan det zeñek lagundua, eta bearra ere bai. Eskerrak lagundu didaten danai, eta agur ta erdi, eibartarrak!

# Asteasu

**G**ARAGARRILLAREN ogei ta amarrean Asteasun izan oi giñan lenago. Orain, atzeneko urte auetan, ez naiz izan; baña len urte askoan izan nintzan Batis-ta Kortajarenarekin. Ura an bertakoa Asteasukoa da. An Uztapidetik ere etorri izan nintzan, da onera Oiartzuna etorri ta gero ere jarraitu diot joateari.

Makiña bat aldiz Billabonaraño joan trenean da andik aurrera oñez joanda gaude. Lauren bat kilometro egongo dira, eta gustora gañera joan ere. Paraje zoragarria zan Billabonatik Asteasura. Ango sagardi ederrak eta angó arto-so-roak! Beste batzuek, berriz, belarra eba-kitzen.

Guk an *prantzes-belarra* esaten genion; emen, Oiartzunen, *tepla* esaten zaio. Urte baten antxe ari zan Florentino segaria izanduaren sendia *tepla* edo dalako ori ebaten, ontzeko. Soro koskor bat ia ebakian zeukan, ni aruntz pasa nintzanean.

Florentino segari ori Ondartza zana-ren kontra jokatua zan Iturriotzen; bes-tea ere zana izan bear du. Florentinok irabazi zuan, eta orduan pamatu zuten. Segari ederra izan bear zuan. Biak aste-asuarrak ziran oiek.

Paseo ederra zan Billabonatik Astea-surakoa. Atzen aldera nik ere tasi artzen

nuan Billabonan, eta ala bost minutuan joaten zan bat.

Billabonako Turko zana ere laguna nuan, da arekin ere joaten nintzan, bai Asteasura ta bai Amasara. Turkoren ta-bernan sartu gabe ez nintzan ni joango Asteasura, Billabonan pasata. Oso lagu-na nuan angó nagusia.

Gizarajoa, gazterik il zan ura ere, da zeruan gerta dedilla; eta barkatu deza-tela bere pamelikoak nik Turko esaten badiot, beste izenik nik ez nuan ikasi ta.

Orrelaxe, Asteasura allegatuko nin-tzan, eta an Pello Mariren etxean jan izan genduan beti edo geienez. Antxe sar-tuko nintzan, eta lenbiziko lana gosal-du. Emendik Asteasura joan orduko, gogo ederra egiña izaten da bat.

Gero asiko ziran lagun zarrak junta-tzen, da berealaxe piztuko giñan. Egun ori Eibarren izandako biaramona izaten zan, eta Irunera joateko bezpera.

Dana dala, gure Batista an egongo zan erriko bikarioa baño ere zintzoago. Ni, berriz, bezperan Eibarren izanda, adarrak kolokatutako idia uztarrirako bezela; eguardi aurretik beintzat kon-pondu ezin zeikean gaitza.

Es Kerrak ondo konpontzen giñan Ba-tista ta biok. Asiko giñan San Pedroekin,

eta erriko neskatxakin bukatuko genduan eguardiko saioa.

Jetxiko giñan balkoitik; aiuntamentuko balkoitik egiten genduan an bertsoan; da, ura bukatzen zanerako, pelota partiduren bat egongo zan anunziatua, eta bereala aterako ziran galtza zuriak jantzita.

An bazan uztargille bat, jokutzen zionari jokutzen ziola, arek larri ibilliko zuan partidua. An, arkupe artan, ari irabaztekoa ikusiko nuan pozikan. Atano irugarrenak ere jokatu ziola aditu izan det nik, baña uztargilleak irabazi ziola.

Nik ez nuan ikusi Atanorekin, baña Billabonatik-eta bi pelotari dezenteak etorri ta ala ere arek etzitian aintzako-tzat artzen. Nik ura jokutzen ikusi deten guztian, irabazten ikusi det.

Atanok arek baño ogei urte geiago izango ditu, bai. Bera ere sasoiaren etzan izango irabazten erraza; arkupean ondo oitutako pelotariak dira Atanotarrak ere. Asteasuko arkupea txikia da, bai.

Ala, partidu ori ere bukatuko zan, da bitartean musika ixillik egongo zan. Pesta egiten zan plaza eta frontoia, biak alkarren ondoan zeuden. Partidua bukatzen zanean, musika asiko zan.

Orkestina ona izaten zan an ere.

Errenteriko *Versalles*-ko tabernako nagusia, Emilio, izaten zan batzuetan pilarmenik jotzen; aren lagunak korneta ta salsopoi ta *jazz-band*-arekin. Orrela osatzen ziran kuadrilla.

Mateo Txurrero ere bai bere kuadrillarekin. Beintzat, batenbatzuek, beti talde ona izango zan.

Aiek asiko ziran, da an oraindik ere dantza librean ondo egiten da. Asteasun da Aian badakite oraindik ere lengo dantza zarra.

Aiek dantzan ari ziran bitartean, guk bermuten batzuek edango giñuzen, eta bazkaltzeko garaia zaitzen genduan guk.

Batzuetan tabernan geldituko giñan, eta Batistaren etxera ere joan izan nintzan. Batista arek ama Pello Errotaren alaba zuan, ta bertso zarra pranko bazekian arek. Ederki bazkaldu ta gero asiko zan ura, ta bereak kantatu egiten zituan arek.

Ura izaten omen zan aitaren bertsoak eskribitzen zituana ere: amona Mikela. Eun urterako paren bat paltako zituana orrek, il zanean. Ikusi egin bear zan orrek zeukan gatzia, il aurreko urteetan ere.

Amona Mikela arekin egiten genduan tertuli bat: bertsoak ere kantatzen giñuzen Batista eta biok, eta atzera plaza aldera etorriko giñan.

Plazan ezeren prisarik ez bazegoan, beste kaperen bat artu ta trankil an egongo giñan. Urte-garai orretan bero galanta izaten da askotan; orkestinak asi bear izaten zuan lenbizi, eta, arek saio bat egin artean, lasai egoten giñan gu.

Alako baten, piska bat preskatzera egindakoan, asiko zan orkestina; ta, arek pieza batzuek jotzen zituanean, batenbat etorriko zan abisatzera gure garaia zala, ta an joango giñan aiuntamentuko balkoira.

Arratsaldeko saioa lasai egingo genduan. Ura egin ezkeren bagenekigun libre giñala edo plazako lanak egiten giñuzela, ta saio ori egingo genduan, plazako jendea agurtuko genduan, eta urte artako plazako lanak egingo giñuzen. Gero, tabernara jetxiko giñan.

Urte baten, erriko etxean gelditu nintzan apaldu ta lo egiten. Orretarako, errian bueltaka ibilli giñan illundu ta gero



arte, ta apaldu genduan. An bertso--saio-  
ren bat egingo genduan, baña garaiz lo-  
tara joan nintzan. Urrengo egunean ere  
Irunera joan bear nuan; da, lorik egiten  
ez badezu, arpegi txarra eramaten da.

Joan naiz beintzat lotara, eta ni baño  
lenago nere kuartuan ibilliak baziran eta  
petaka egin zidaten oian. Ni, erropak  
erantzita, oian sartzen asi naiz ta anak  
goian gelditu ziran, petaka jota.

Bereala buruan pasa nuan an zer ope-  
razio zegoan egiña. Tira det anakin kol-  
pea bera, belaunak kixkurtuta neuzkan,  
ba. Anka biak maindiran sartu nituan.  
Maindira garbia zan; baña, esaten dan  
bezela, ajatua.

Ondo lo egin nuan, anak maindira-  
ren zuloan nituala; goizera arte seko  
egon nintzan. Nik, jakiña, petaka ura an  
billatu nuanean, bullan asiko nintzala  
uste zuten. Ba, ez nuan santu batek baño  
zarata geiago atera, ta arekin izurratu ni-  
tuan danak.

*Versalles*-ko Emilio zan petaka egin  
zuana, etxeko neskakin joanda. Urrengo  
goizean ni, Irunera joateko, goiz jaiki  
nintzan, da gure Emilio ori an zebillen  
jaikita, nik zerbait esango ote nuan. Nik  
ezer pasa ez balitz baño geiago ez nion  
aitatu, eta kapea artu ta Irunera joan nin-  
tzan.

Ori ola pasa zan, eta urrengo igande-  
an Errenterin trena artu nuan Arriarana  
joateko, eta Emilio ere Pasaian sartu zan  
trenera. Aiek Asteasura zijoazen pesta-  
ren repetizioa egitera, eta orduan esan  
zidan Emiliok nola berak petaka egin zu-  
ten; ez omen zuten uste ni goiz artan  
alain ixilik joango nintzanik Irunera.

Nik neretzako esan nuan: "Ixilik joa-  
ten banaiz, danai adarra joko ziotek; eta,  
bullan asten banaiz, ni aserretuta ikus-

ten banaute, parra egingo zidatek! Ixilik  
joatea diat nik gauzarik onena!". Ta ala-  
xe egin ere.

Gero Lasarterekin ere joan nintzan  
batzuetan Asteasura. Arekin kaminero-  
en egun batean izango nintzan lendabi-  
zi.

Eguardian plazan egin genduan ber-  
tsotan, San Pedro egunean bezelaxe.  
Gero, bazkaltzeko denboran, berriz egi-  
ten genduan beste saio bat edo bi; arra-  
tsaldean etzan izaten berriz plazan egin  
bearrik, eta maian bertan bukaera ema-  
ten genion.

Kamineroak urtean jai bat beti egiten  
zuten, beren sobrestante eta danak. Ori,  
diputazioak ematen zuala uste det baz-  
kari ori.

Lasarterekin geiagotan ere izan naiz.  
Batistarekin bezelaxe, goizean saio bat  
egin eta bazkaldu, eta arratsaldean bes-  
tea; agurtu erria, beti bezela, eta etxera  
etorriko giñan.

Atzeneko izan giñan urtea, berriz,  
Agerre bigarrena alkate zegoala joan gi-  
ñan Lasarte ta ni biok, eta Batista Korta-  
jarenak ere gurekin kantatu zuan. Beñe-  
re baño ederkiago kantatu zuala iduritu  
zitzaidan orduan.

Goizeko saioa egin genduan, taber-  
nai buelta bat eman genien eta alkatea-  
ren etxera joan giñan bazkaltzera.

Orrek bazkari ederra eman zigun.  
Txanpanez ase giñan, eta bertan, alkate-  
aren etxean, egin genduan lenbiziko ber-  
tso-saioa. An tonuan jarriko giñan eta  
gero plazan errezago egingo genduan.

Asteasuko Batista Kortajarenari nik  
kantatua, bertsoan biok ari giñala;  
arrautz piñakin tratua egin da ustelak  
sartuta nengoala ni, ta nik orduan bertso  
au bota omen nion:

Orain goguan nik artutzen det  
Batista onen esana:  
motibo gabe zertako ola  
bajatzen dute gizona?  
Nik zertarako entzun biar det  
olako arrazoi lizuna?  
Arrautzak baño ustelago zan  
zuri ori esan zizuna.

Au ere nik Asteasun botea omen da,  
ta ez dakit zeñi:

Ai zeñen errez artzen dizkagun  
guk besteari neurriak!  
Edozein gauza entzuteko gu  
konforme gera jarriak.  
Zañez ondroso egonagatik  
okelaz gaude urriak;  
gizonak argal egoten gera,  
gizentzen dira zerriak.

Beste baten, berriz, Asteasun balkoi-  
tik bertsoan ari giñala Batista ta biok,  
alkatea erdian zan ta artean irurok mul-  
tilzarrak. Zeozer emakume-kontuan ari  
giñan, da nik onela kantatu omen nuan:

Nai bezin errez ez det somatu  
balkoi ontara biderik,  
berriz juntatzen kostako zaigu  
askoz kuadrilla oberik;  
iru mutilzar juntatu gera,  
iñork ez degu andrerik,  
zeruan ere ez da egongo  
olako trinidaderik.

Ta beste baten, artean ere mutilzar  
nengoala, onela kantatu omen nion Ba-  
tista orri:

Toriaketan beti ari zait,  
au da mutil arranua!  
Gauza guztia biar bezela  
esplikatuzera nua:  
bakardadian bizi izateko  
ateria det planua;  
askok esango dute: "Mutil au  
burutik ez da sanua".  
Gero obia izango al da  
ezkondutako damua?

Bertso auek Asteasun kantatuak  
omen dira. Ni ez nintzan gogoratzen,  
baña neri onela eman dizkidate. Ez dira  
izango berdin botiak akaso, baña alde  
aundirik gabe izango dira. Bertsoa zalla  
izango da magnetofonorik gabe ondo ar-  
tzea; auek ala dira.

Len esan det azkeneko aldian nola  
izan nintzan Lasarterekin, eta Batista  
Kortajarena ta ni irurok. Esan bezela,  
arratsaldean alkatearen etxetik plazara  
joan giñan. Orkestina ordurako an ari  
zan lanean, eta dantzariak ere bai gogor.

Gu berari begira piska bat egon gi-  
ñan, eta egingo gendua egin-egin be-  
arke genduala guk ere, eta txanda eska-  
tu genien; eta aiek eman ere bai.

Egin genduan guk ere beste saio bat  
eta agurtu giñuzen plazako jendea: ondo  
izan zitezela danak eta agur, Asteasu!

# Irun

**U**ZTAILLAREN batean Iruna joaten giñan. Urte askoan joan ere egin giñan; ogei ta amar urtetik gora beintzat. Lenbiziko urteetan Zepairekin joan nintzan.

An Urdanibiako plazan egiten genduan bertsotan. Aurretik musikarekin kontzertoa soldaduak jotzen zuten; Urdanibiako plazaren erdian kioskoa dago ta anditxik. Aiek kontzertoa bukatzen zutenean, gu asiko giñan bertsotan.

San Martzial jaiak izaten dira orduan. Garagarrillaren ogei ta amarrean San Martzial eguna; gu pesta bigarren egunean joaten giñan urtero Iruna.

Esan bezela, Zepai ta biok joaten giñan lenbiziko urte pare bat edo iruan. Musika ixiltzen zanean asiko giñan, eta egingo genduan saioaren bat. Jendea ain bertsozalea da Irunen, eta aien gustoa erreza zan egiten. Gu, berriz, orduantxe geunden modan.

Arrillagango Jose Mari etzan guregandik urruti izango. Ura kontzejal egon zan luzaro Irunen, da orrek izaten zuan kargua bertsolariena. Gu ez giñan galtzen, arekin genbiltzanean. Bertsolarien-tzat gizon ona zan ura. Ura il zanean, gu erdi illean gelditu giñan. Alako gizon bat errian dagoanean, beste arrimo bat eramaten du kanpotik dijoanak ere.

Zepaik eta nik, an Urdanibiako plazan ganaduen premioak ere beti izaten ziran, baña ez genduan ala ere, beiak marrua batzuk egiñagatik, susto aundirik artzen. Guk orain baño sasoi obea iduki ere orduan, da geok beiak baño marrua aundiagoak egiten giñuzen, da inporta zigun guri!

Beste baten, berriz, Mattin eta Xalbador etorri ziran San Martzial batzuetan, eta ez dakit emendik zein izango nuan. Laguna ez daukat gogoan, baña lau bertsolari giñala bai. Patrizio Setien edo olakoxeren bat izango zan seguru.

Zana zala, beintzat, aiekin ere eguna pasa genduan, da bertsotan egin ere bai. Mattin orduan ere umore ederrekoa zan, eta besteari ere jarri zitzaion umorea, Xalbadorri ere. Mugarano lagundu genien; gabean joan ziran, eta mugan ere bertsotan egiten zuten.

Gero Basarriekin asi nintzan; Basarriekin urte askoan joan nintzan.

Or beti kontzertoa jo-zai egon bear izaten zan. Soldaduak kontzertoa jo bitartean, beiak ikusi; eta programa batenbatek idukiko genduan eta:

—Oraindik ere onenbeste pieza palta dizkitek.

Beiak ere ikusteko modukoak izaten dira an, da aieri begira errez pasatzen zan denbora.

Eun da ogei ta bi erraldeko beia ortxe kendu zuan Nikasio Olazabalek, Oillurta baserrikoak. Bei ura urtero antxe izaten zan, bizirik zan arte. Eta beste geiagore ere bai bei ederrak, ainbestekorik ez besterik baña. Bi bei ere dezenteak bear ziran ura ainbeste izateko. Irurogei ta bat erraldeko bi bei bear, eta gaur ere ez dira nunai izaten irurogei erraldeko beiak; ura bi irurogeiko ere pasa. Bein baño geiagotan arrituta egon giñan gu bei ari begira. Izugarria zan ura.

Larogei erraldetik gorakoak asko izaten ziran an. Gipuzkoan diran onenak ortxe izaten dira: Irunen eta Ondarrabian. Batean izaten diran beiak joaten dira bestera ere.

Oillurta ere Ondarrabiko basarri bat da; ura an izango da Ondarrabian ere. Amar bat buru izango ditu geienean. Ez pentsatu ura bakarrik izaten duala orrek begiratzeko modukoa. Arek ekartzen dituanak, danak izango dira bei dezenteak; ura bakarrik ez da.

Asko dira bei onak izaten dituztenak. Gero, alako ganaduari begira, denbora errez pasatzen da.

Alako baten kontziertoa bukatuko zan, ba, eta gu ere asiko giñan gere saioa egiten, kioskora igota.

Arrillagango Jose Mari an izango zan gure ondoan. Bestela baño piska bat geiago beti egingo genduan ura zalako, baña gu gustora ibiltzen giñan ala ere arekin.

Urte baten, Basarri ta biok giñan orduan ere, ta bazkaltzeko denbora etorri zan da eskiñako taberna artan genduan bazkaria. Jendea eseri zan da guretzako lekurik ez.

Jose Mari Manterola ori an zan orduan ere, eta bestea Gaztelu guarda; eta

Basarri ta ni, lau gizon danetara. Ta an bazkaltzen ari ziranak jaiki-zai ez giñala egongo gu, eta beste leku batera joan bear genduala andik, esan zigun Jose Mari Manterola orrek.

Eta an joan giñan beste taberna batera. An bazkari aundi samarra egin izango genduan-edo. Ardoak ikusi nituan nik an armiarma-sareak egiñak; eta koñak frantzesak, eta puruak, bana erre genduanean, besteak piztu; eta kontua gora joana izango zan gero.

Eta urrengo urtean bazkarien dirua emango zutela, eta gu arreglatzeko diru arrekin. Bueno, guri etzigula inportik eta konforme giñala bazkaria geok pagatzeko, dirua ematen baziguten.

Dirua artu genduan, ba, urrengo urtean, da *Restaurante Toki-Alai*-edo bada go Irunen eta antxe bazkaldu genduan kontrabandista kuadrilla batekin; eta erriari kobratu ta bazkaria kontrabandista oiek pagatu zuten, eta gu libre izan giñan kontu artatik. An bertso-saio bat egin genduan, eta txalotu giñuzten aiek ere ederki.

Arratsaldean San Juango plazan egiten genduan bertsoan, da gu araxe etorri giñan. Beien despeira izaten zan, da bakoitzari beren sariak ematea; eta guk, sariak emandakoan, bertso batzuek botatzen giñuzen. Etzan saio aundirik izaten; dozen erdi bana bertso, geienez ere.

An beiak, errapeak kargatuta, anka tartean kabituz ezinda; eta zezen batzuek ere etortzen dira Fraisorotik, bikañak danak. Banan-banan antxe pasatzen dira, sariak jaso-alean, San Juango plazan. Gauza ederra izaten da ura.

Esan bezela ganaduak pasatzen diranean, jendea agurtuko genduan, eta artan bukatzen zan egun artakoa. Nai ba-

zan pelota-partidua ikusi, edozertarako libre. Partidu onak urtero izaten dira Iruenen San Martzialetan.

Urte batean, bazkaltzen ari giñala, gizon bat etorri zan gure maira, eta Jose Mari Manterola an zegoan orduan ere.

–Gizon au erriko sindikua da –esan zuan Jose Marik.

–Urte askotarako! –Basarrik erantzun zion; eta orduan ere bertso baten eskea bereala egin zuan Jose Marik, eta Basarrik au bota zion:

Gizon aundi bat etorri zaigu  
mai ontara nerekiko,  
bestela nere aurik ez nuen  
nik onela irikiko;  
gu bertsolari txar batzuk gera  
eta zu berriz sindiko,  
gaur ezagutzen zaitut nik eta  
lagun nai zaitut betiko.

Eta nik auxe erantzun nion:

Emen etorri zaigu gizon bat  
oso kargu aundikua:  
Irungo erri onetan orrek  
egiten du mendikua;  
nolanai ere etzera izango  
bertsolari-sendikua,  
bestela etziñan izendatuko  
zu Irungo sindikua.

Urte batean izan giñan Patrizio Setien, Mitxelena, Lexoti ta ni, lau bertsolari. Orduan ere ganaduen premioak eta goizeko kontzietoa eta oiek beti bezela; eta guk, berriz, bi saio bertsoetan; da, aiek egin giñuzenean, libre.

Beste urte bat baño geiagotan ere bai Basarri, Lizaso, Lasarte ta ni.

Atzen alde onetara lau bertsolari izaten giñan jeneralean.

Diputaziokoak eta *Caja de Ahorros*-koak, albaiteko jendea eta danak, alkarrekin bazkaltzen genduan. An, bazkaltzeko denboran ere, kantatu bear izaten zan. Geienak entenitzen zutenak ziran lenago; orain gero ta gutxiago, eskola duten gizonak euskera aztutzen ari dirata.

Frontoian ere pesta ederra egiten zan. Gu atzeneko izan giñan urtean –oraintxe bi urte pasa dira–, ango arri-jasotzalleak, ango sokatirak eta Naparroako *dunba*-zaleak Iturengoak!

Arri jasotzen, Ostolatza, Usategieta, Soarte eta Endañeta. Ostolatza, eun kiloko arria esku bakarrarekin. Ikusi egin bear zan, sinisteko ere. Aren arria ibiltzeko postura! Gezurretako arria ematen zuan, gizon ari begiratuta. Irurogei ta amairu edo amalau kilo besterik etzan bera, ta esku bakarrarekin arri jasotzen. An bakarrik ez degu ikusi; leku geiagotan ere bai.

Usategietak ere astindu zituan arriak. Bere erria, izan ere, eta erakutsi nai izaten da abildadea.

Soartek ere egin zuan aproba, baña etzuan egin nai zuanik. Gerriko miñarekin egon bear zuan; eta an, arri jasotzen asi zanean, berriz berritu egin zitzaion. Soartek emendik aurrera arriari deskantsu emanda, obe. Len ere orrek baño gutxiago egindakoak izango dira.

Endañeta, berriz, ortik onerakoa amasei arruako arriarekin; ori, ezer ez balitz bezela. Geroztik emezortzikoa ere erabilia du. Gizon orrek ez al du atzenik edo zer pasatzen da orrekin? Amar arruako kubikoarekin jokatu zuan lenbiziko aldiz, Asteasuko Sarasolarekin. Ari errez

irabazi izan bear zion. Lenbiziko aldiz jokatzeko arri aundia da, baña andik onera badago alde ederra. Amarretik emezortzira beste gizon baten karga dago.

Sokatiran ere soziedadeak bat bestearen kontra edo ola ziran. Baziran gizon galantak, bai alde batetik eta bai bestetik. Danak ere etzuten asko gorde. Ura zan luzatzea, ura! Aspaldi artan alako luzaturik artu gabeak izango ziran. Tarte artan an ibilli ziran, batek tira alde batera ta besteak tira bestera. Atzenean, orregatik ere, bentzitu zuten alkar.

Gero, Naparroako Iturengo *dunba*-zaleak. Zuek, irakurleak, *dunba*-zaleak zer diran galdetuko dezute, beñere ikusi ez dituzutenak. Amar edo amabi gizon, *dunba* aundiak bizkarrean lotu ta kalez kale *bran! bran! bran!*, danak batean pausoan konpasa eramaten dutela. Oso ederki ematen dute. Ardi-larruakin jantzitzen dira. Guk lenago oiek Naparroako Donezteben ikusi izan giñuzen, Mariezkurrenak ekarrita. Ta Irunen ere batenbati gustatu egingo zitzaizkion.

Bertsotan, berriz, Jose Lizaso, Imanol Lazkano ta ni giñan. Guk tarteetan egiten genduan. Konparazioko, arri-jaso-

tzalleak bukatzen zutenean; urrengo, sokatira bukatutakoan. Orrelaxe bi edo iru saio egin giñuzen; eta jendea agurtu genduan eta bazkaltzera joan giñan.

Lasai bazkaldu genduan. Izokia ere jan genduan. Askotan jan gabea naiz, baña pama du izokiak, eta ederra da, izan ere. Pama artuko bada, zerbait bear du; ez da nolanai artzen dana izaten pama. Izokia erderazko *salmón* da.

Diputazioak, *Caja de Ahorros*-koak, Praisorokoak eta orrela, jende aundi samarra izaten da an, Irunen, bazkaltzen. Oiek ez dira egoten len ere sardiña zarrakin oituta; ta berriz ere, oiek diran lekuan, seguruago izango da bazkari ona.

Kapeak artuta bertso-saio bat egin genduan maian bertan; eta premioak partitzera joan bear izaten zuten Diputazioko jende orrek eta *Caja de Ahorros*-koak; eta, aiek joaten ziranean, gu ere bai.

Guk ere, aiek premioak partitzen zizutenean, bertso batzuek bota bear izaten giñuzen, eta bere orduan gañera. An ez du balio bere orduan pasa ezkerero.

Dozena bana bertso botako giñuzen; jendea agurtu atzeneko bertsoetan da urrengo urtera arte.

# Arriaran

**S**AN Pedrotik urrengo igandean Arriarana joan izan giñan. Askotan ez giñan joan, baña iru bat aldiz bai.

An ere ezagunak ditugu. Bertsozale batzuk lau anaia baziran: Jose, Patxi, Eduardo eta Julian. Oiek, lau anaia, beti an izaten ziran, gu Goierrin bertsoan giñanean. Orain Eduardo illa da eta zerruan gerta dedilla. Orain ere beste iru anaia an izango dira, bertsolariak diran tokian. Anaia oiek ziralako joango giñan gu, seguru, Arriarana.

Urte batean, bazkaltzera ere aien etxera joan giñan. Antxe erriaren parean goian dago etxe ori. Orain etzait gogoratzen izenik, baña antxe bazkaldu genduan lau bertsolariak: Lazkao-Txiki, Manuel Lasarte, Zepai eta ni. Bazkaldu, itxuran gañera; otelean bezela.

An bertsoak ere kantatu bear izaten ziran. Aien gustoa egingo bazan, derriort bertso-saio bi edo iru egin bear; baña gustora egin ere. Aiek estimatzen zituztela bagenekigun, eta alako lekuan ez da aspertzen.

Arreba bat ere bazuten, eta ama ere emakume pizkorra zegoan artean.

Etxe artan martxa gogorra zegoan. Larogei erralde inguruko txekorrak bazenuden ikullu artan, eta gaur sosak ba-

lio ditu. Julian, anaia gazteena, da etxean lanean jarduten dana. Besteak ere la-gunduko diote etxean diranean; baña oiek, Jose ta Patxi ta oiek, basoan ibiltzen dira.

Basoak erosi, bota ta moztu. Berak dauzkate zerrak. Menditik kamionean ekarri ta zerra-makinan pasa; eta tabloia egin da tabloia saldu. Mendi aundiak erositzen dituzte oiek.

Oiek kamioa etxera, gu an izan giñanean, orduantxe ari ziran egiten. Oraindik automobillean joan giñan kamioa bukatu zan arte, eta an utzi genduan automobilla. Bazkalduta etorri giñanean, antxe zegoan guk len utzi genduan tokian, eta atzera antxe sartuta etorri giñan errira.

Aiek, etxera kamioa egin baño len, bazuten automobilla; bear ere bai, aiek ibiltzen ziran bezela ibiltzeko. Josek manejatzen zuan automobilla; ura zan txoperra.

Baña bertsoan Julian zan geiena. Arek gogoan artzen zituan beti, bertso-saio bat guk egiten bagenduan, bi edo iru bertso. Ondorenean kantatuko zituan. Berak ere bertsoak kurioso kantatuko zituan, orrek berak asmatutakoak ere. Apizio gogorra zuan arek.

An Zepai-ta lau bertsolari izan giñan artan ere, ura zan bat gaiak jartzen. Zepairen da nere txanda iritxi zanean, ara zer gai jarri zizkigun; ni ikazkiña, eta Zepai mandazaia. Arek bazekian gure berrri: guri zer gai etorriko zitzaigun ondoena.

Zepaik onela kantatu zuan:

Aspaldi ontan lanikan gabe  
gendukan mando-taldia,  
ta animal deskantsatuak  
beti badauka aldia.  
Aizu, Manuel, nagon lekutik  
egingo dizut galdia:  
Manduak jarri ditut perrakin,  
ikatzak pronto al dia?

Nere erantzuna:

Aspaldi ontan lanikan gabe  
manduak pentsua jaten,  
mandazai ona aizen tankerik  
iñondik ez dit ematen.  
Ikatzak ia pronto al diran  
zer ari itzan esaten?  
Gizarajuai kosta bear zak  
nik egiñak eramaten.

Onelaxe edo onelatsu ziran gure orduko bertsoak, eta besteai zer gai jarri zien ez daukat gogoan. Lazkao-Txikik eta Lasartek ere beste orrelako gairen bat izango zuten, eta orrelaxe denbora pasatzen genduan guk. Orrelako bat izan ezkerro, gaiak jarri edo ofizioak eman-edo, asko laguntzen du.

Goizean emendik trenean joan, da Beasaingo estaziora zerrari oietako anai bat atera zitzaigun, Jose, kotxearekin. Arek eramane giñuzen Arriarana, eta an gosaldu egiten genduan lendabizi. Bertso-

tarako sasoian jarri, eta andik aurrera etzizun ajolarik guri kantatu edo ez kantatu.

Txistulariak, gu ara joaterako, mar-txan jarrita egoten ziran. Goizean diana jota lendabiziko pestari asiera ematen diotenak, txistulariak dira. Aiek ez dute, bezperan pesta baldin bada ere, logalerik izaten; beti jotzeko pronto.

Norbera oian dagoala, txistu-soñuak ederki ematen du. Gu, iñoiz egun bat leku batean pasatu-eta, biaramonean beste erri batera joateko edo erri batean bertan bi eguneko joanak-edo oian gaudela, diana askotan jo izan digute guri, eta segituan jaikitzeke gogoia ematen dio arek gazteari.

Arriaranen ere orkestina beti izaten da ona, ta dantzari egin nai duanak ez du soñu-paltarik izaten. Tokia ere ederra aparta da, egualdi ederra baldin bada. Zelaia dago aproposa gazteak jostatzeko; eta, euria egiten badu, berriz, zimitorioa bikaña elizaren aurrean. Egualdi txarratik berdin egin liteke an pesta.

Olako erri txikietan, askotan ez da lan ederra izaten. Euria asi orduko nun soñua jorik ez. Tabernaren baten barruan-edo asiko dira soñu jotzen, da baso erdi bat emateko tokirik ez; jan bear dutenak serbitzeko eta ezertarako ere ez.

Alako estalpe bat baldin bada, berriz, an, dantzari egin bear dutenak, egingo dute; tabernan ere lana ondo egingo dute, eta danak ongi arreglatuko dira. An gañera, elizaren ondoko estalpe artan ere, taberna jartzen dute pestetarako.

Aizkolariak ere egin izan dituzte, Errekalde zana beintzat; eta orduan bai, sasoia ere bai omen zeukan. Aizkolaria ona zan ura, baña etzuan suerterik izan. Atzen aldera gaixorik ibilli zan, da gai-



xo dagoan gizonak ezin, ba, ezer egin. Jokatu zituan joko geienak, ongi-ezik jokatu zituan arek. Egiñalak gobernatzan egin; eta, aurrera egin bearrean, atzera. Soldaduzkatik etorri zanean ainbat indar ez omen zuan geiago izan. Egin zituan egiñalak egin gobernatzan, eta ala ere alperrik.

Zerrari oiek bakarrik giñuzen lagunak lenbizitik, baña gero aien lagunak ere lagun egin giñuzen. Martzelino bat ere ongi laguna genduan, eta uste det illa izango dala.

Oiartzunen ere piñudi bat atera zuten. Trapada izeneko piñudi bat zan, da ura ateratzen ibilli zan Martzelino.

Nik orduantxe ezagutu nuan, piñudi artan ari zirala. Goiz baten nerekin etorri zan Beasaindik onera, Oiartzuna, eta orduan egin nintzan aren ezagun. Gerroztik beti lagun izan gera.

Egun baten, emen etorri zitzaizkidan Zepai zana ta biak: Errekalden zeudela eta ia joango al nintzan; errotariaren sagardotegian alegia.

Ni siestan nengoan, da nik ere, amar beirentzako janariak ekarriko al nituan esanda baño poz aundiagoa artu nuan.

Martzelinok berak zeukan kotxe ederra, eta berealaxe preparatu nintzan; kotxean eramane da ekarri egingo niñutela, eta alaxe egin ere.

Joan gera Errekalde orretara, eta gero meriendatu egin bear zala ta ari giñan sagardoa ere dezente edaten. Oiek sagardoa probatzera etorriak ziran: Jose ta Patxi zerrariak eta Martzelino, iru sozioak; eta Zepai eta Beasaingo Loinazen tabernako nagusia; eta ni ere joan nintzan gero. Sagardoak ortik eramaten zituzten gero, eta nolakoak zeuden ikus-tera etortzen ziran oiek.

Bertso-saio bat edo beste egin genduan, eta gero meriendatu: tortilla bakallauarekin eginda eta antxumea erre-ta. Berriz ere sagardo puska bat edateko ez giñan gaizki jarri.

Sagardoa naikoa edan genduanean, kapeak artu ta bertsotan jo genduan gogor.

Illundu zuanean, ni ekarri ninduan etxera, ta Martzelino atzera joan zan, da aiek artu ta joan omen zan etxera.

Urrengo egunen baten, Zepai ori tentatzen asi omen zan an auzoko gizonen bat, eta:

–Lengoan Errekalden zer ibilli zerate?

–Zera ibilliko giñan! Sagardoak probatzera joan giñan eta edan egin genduan!

Beasaingo Kabi-Txikin orain daudenak ere ezkondu ziranean, an giñan bodetan. Ez dakit Lazkao-Txiki ala Lasarte izango nuan laguna; baña ni an nintzala bai, badakit. Oiek ere Arriarango zerrari oien lagunak ziran; berak ere Arriarangoak, gizona beintzat. Egun ederra pasa genduan.

Orain, Beasaingo estazioan trenetik ateratzen giñanean, denborarik bagenduan beste konbinaziorik artzeko, an sartu gabe ez giñan geldituko. Uraxe bixitatu eta an zerbait artu gabeko onik ez genduan izaten. Bai nagusia eta bai etxeko andrea, biak ere jator askoak dira.

Arriaranek badu beste istori bat ere. Arriarango intxaur aundia askok adituko zuten. Urte batzuek badira ura bota zutela. Berrogei urte urrean izango dira onezkero.

Nik ikusi nuan ura botata zegoala. Goiko kamiotikan nola begira egon giñan gogoan daukat oraindik. Adar-jende ikaragarria zuan arek. Nik ez dakit

zenbat metro kubiko izango zituan arek.

Aspaldiko kontuak dira ta istori aundia zuala, bai. Orain ere izango dira an batenbatzuek.

Bertsotan, ura baño leku txarragoetara joan izan gera gu ere. Atzeneko izan giñanean ere, bapo gozatu giñan beintzat Zepai eta konpañia.

Len esan dedan bezela, Julianek opizioak jarri eta Zepaik kantatu zuanean arek mandoak perratu zituala eta ikatzak pronto al ziran, jendeak naikoa parra egin zuan. Arek beti olako zerbait atera bear izaten zuan.

Atzenean beintzat jendea agurtu genduan eta gazteak dantzan egin zezatela, ta gu etxera etorri giñan.

# Amezketeta

**A**GOZTUAREN ogei ta lauan, San Bartolome eguna, Amezketara joan izan giñan. Ogei ta amar urtetik gora izango giñan beintzat, eta gustora joan ere egiten giñan.

Amezketeta Aralar mendiaren oñetan dago, ixil-ixilik Txindoki bere guardian duala, gau ta egun zutik, gudari ernea bezela.

Zein ederrak diran mendiak, Aralar dan bezelakoak, bere madalean malloa duala eta aren Larraitzik gorako zelai eder aiek! Txindokitik aruntz Igaratza, berriz.

Pakea nai al dezu? Joan aruntza! An dago pakea! Udaberrian zizak bildu ta artzaiakin itzezin; da, mendia gustatzen bazaizu, an gozatuko zera.

Igaratza orain refujioak edo txalek egiten ari diranak, badakite, bai, zertan ari diran. Orain pezeta batzuek gas-tatuko dituzte; baño gero, udara eldu danean, badaukate nora joana.

Mendiak gero baño gero estimazio geiago izango du. Errian jendea aspertu egin da, ez dagoalako mendian bezelako pakerik, eta pakea gauza ederra da.

Amezketan Papelera bat badago. Ura garbia bear izaten omen du papela ondo egiteko, eta antxe izango da ura garbia.

Aralarko mendiak ematen dituan iturriak, ez dute zikin aundirik izango.

Dana dala, beintzat, erriko jendeentzat lana izanarekin, bai alde ederra! An erriko jendea enpleatu egingo zan geina, eta erritik kanpora lanera joan bear duanak ederki probatzen du ori: etxe inguruko lanak zenbat balio duan.

Amezketan ere, artzaiez gañontzekoak, geienak industriari begira egongo dira. Basarriarekin bakarrik bizi dankan, ez da asko izango an ere.

Lenbiziko aldetik Zepairekin izaten giñan, da Aierberen tabernan jaten egoten giñan. Orain ez dago an tabernarik, baño orduan bazan.

Ango aitona zana ere bertsolaria zan. Bertso ederrak botatzen bazekian; baño plazan etzan aritzen ura, ta Zepai ta ni joaten giñan erriko pestetan.

Ango gaiak jakin samarrak izaten ziran: San Bartolome, Fernando zana, Amezketako artzaiak, nekazariak eta aiuntamentua.

Orain atzeneko alkateak, berriz, etzuan aitatzerik ere nai izaten bere ize-nik, eta artatik ere libre giñan.

Amezketako artzaiak, beintzat, gein-bat mingañean ibilliko giñuzenak izaten ziran.

An amaiketakoa egiteko oitura zan San Bartolome eguardian, erriko gizonak meza nagusitatik aterata. Gu ere ara arrimatu izan giñan, eta an maian jarriko giñan. Erriko gizonakin batean amaiketakoa egingo genduan, trago bat edo bi ardo egin, eta noiznai pronto bertotan asteko.

Goizeko saioa orduantxe egingo genduan. Amezketako jendeak atentzio aundia edukitzen zuan bertsolariantzat. Saio koskor bat egingo genduan, da goiz-parterako aski zala ta arratsalde arte esango genion jendeari, ta artan ixilduko giñan.

Orduan txistulariak edo orkestina asiko ziran. Biak txandan jotzen zuten.

Makiña bat urtean izandako txistulariak baziran an alegitar batzuek, aita-semeak, eta aita il zan orain dala iruren bat urte. Amaika txiste ta ipui kontatua; gizona alaia zan ura. Amaika bider denbora errez pasatuak gera orrekin.

Gizon aren umorea ikusita, ezin zitekean esan artean il bear zuala orrek. Urteak edukiko zituan, bai; ortxe, irurogei ta amarretik gora izango zan beintzat.

Guk, aiek jotzen ari ziran bitartean, errian jira bat emango genduan; bermuten bat edo beste artu ta, eguardia etortzen zanean, berriz, Aierberen etxera joango giñan, eta bazkaldu egingo genduan ederki.

Ango aitona ere asiko zan bertotan, da an denbora errez pasatzen genduan. Batean bertso auxe aditu nion ango aitonari:

Udaberria eldu daneko  
ardien txintzarri-otsa,  
nai eta nai ez alaitu bear  
artzai zarraren biotza;

mendi-puntara ertetzen dira  
bere ama ta bildotsa,  
kasku batetik agurtzen dute  
eguzkiaren jaiotza.

Aierbe zanari nik artua da ori. Bertso ori ez da segurua; itzen baten utsegitea izan liteke, baña ez du alde aundirik izango. Olakoxe tertulia egiten genduan guk Aierbe zanarekin.

Gero, berriz, arratsaldeko saioa egin bearra zegoan, eta plaza aldera azalduko giñan. An estankoan-edo denbora pasatuko genduan. Bitartean txistulariak eta orkestinak txandan joko zuten soñua; eta, aiek pieza batzuek jo artean, ez gendukan guk estuasunik.

Pelota-partidua ere beti izaten zan an, da ura jokatu. Aierbe aitona bertsolari orren semea etzan txarra. Orain ganadu-tratuan ibiltzen da.

Anaia orrek beste anaia gazteari eta guarda Gurrutxagari, Abaltzisketan egon zanean, bai jokatu zien. Biak pelotan dezente egiten zutenak ziran aiek. Orain ez daukat gogoan galdu ala irabazi egin zuan.

Gurrutxaga guarda orain Erreterian bizi da. Berez azkoitiarra da; pelotari-errikoa. Ezin esango degu danak onak diranik Azkoitian, baña ura etzan oso txarra ere. Galtza zuriakin jokatzen zuten beintzat. Guri ere gustatu egiten, berriz, begira egotea, naiz geok jokatzeo balio ez.

Partidu ori bukatu zanean, gu ere bertotan asi giñan, da botako giñuzen guk ere gerek. Artzaiak edo batenbatzuek adituko zituzten ederrak, nik ez daukat orain gogoan zer esan genduan ere baña. Geure saioa eginda, bukatzeo agurtuko giñuzen plazan ziranak, eta urte artarako plazakoa bukatuko genduan.

Baña gaberako an geldituko giñan; eta, apaltzen gelditzen giñan lekuan, an izaten ziran Amezketako bertsozaleak danak. Eta, kantatu nai bazan, aukera ederra izango zan. Eskerrak etzigula ajo-la aundirik guri orduan. Aukeran ere kantatu naiago, ixilik egon baño.

Ala, apalduko genduan eta beste saio-ren bat edo bi egingo giñuzen, da erre-tira egingo genduan; da, lo eginda, edo Zegamara edo bestela etxera aldegingo genduan andikan, urrengo urtera arte esanda.

Urrengo urtean ere etzuten pallatu-ko abisoarekin. Illabete bat aurretik an etorriko zan abisoa.

Iru edo lau urte orretan egin giñuzen Zepaik eta biok. Gero Basarrirekin asi nintzan joaten, eta jaten ere Estankoan gelditzen giñan orduan. Erriko gizonak nora agintzen ziguten, araxe joaten giñan gu. Oso pameli ona zan Estankoan ere; pameli edukatua. Basarrirekin ere urte askoan joan nintzan.

Gau baten, tabernetan-edo piska bat ibillita, Estankora joan giñan lo egiteko asmoan-edo, eta antxe izan genduan Manuel Lasarte ezagutzeko zoria ere.

Antxe zegoan Estankoan gure Lasarte ori, eta bere lagunak, gazte-kuadrilla bat. Eta an, zerbait artzen-edo, mustradorean geundela, itza atera zuan gazte aietakoren batek, ia bertsoan egiteko gogorik bai al gendukan; gazte bat baze-goala an apizio piska bat zeukana, eta arekintxe bertso batzuek botatzeko, nekatuta ez bageunden beintzat.

Orrenbeste egingo genduala, ba, eta asi giñan bertsoan. Bai gure Manuel Lasarte ere; zai zegoan ura ere. Gure ondoren laste bota zuan arek ere, eta txukun asko bota ere.

Berriz ere guk jarraitu genduan eta aren paltarik etzegoan, eta gure bertso-ari erantzunez. Launa edo bosna bertso bota giñuzen eta ixildu giñan, baño geurea gogoan genduala.

Gazte-kuadrilla ori agurtu genduan, eta oiera joan giñan; artean amazapiren bat urte edukiko zituan geienez ere Manuel Lasarte orrek, eta:

–Gazte ori zer iduritu zak, Basarri? –esan nion nik Basarri.

–Ona neri ori!

–Aspaldian ez diagu olako gazte asko ikusi! Ori gero ere azalduko dek nuntz baiten! –nik erantzun nion.

–Bai; orrek bertso berriak bota dizkik danak! Ez al aiz konturatu gure bertso-ari erantzuten ziola, bota dituan bertso guzietan? Siñale ona dek ori!

–Gañera gaztea dek! Oraindikan asko mejoratuko dek!

Oiek esan da lo egin genduan. Gero, urrengo Santa Agedetan, or aditzen degu Santa Agedaren eskean ibilli zala gazte-kuadrilla batekin Zarautzen, eta oso ederki egiten omen zuala bertsoan. Geiago ibilli gabea izateko, ederki egin ere.

Arrezkero makiña bat bider joan naiz Manuelekin Amezketara. Ara nola izaten diran gauzak: nik an Estankoan lenbizi ezagutu nuanean, zeñek esango zuan nik gazte arekin ainbeste aldiz ibilli bear nuala?

Artean ere ibilliko nintzana gelditu nintzan, gaitz txar batek arrapatu ta ezin nualako. Bestela ere banuan gelditzeko garaia, baño bein gelditu ezkero ez dago berriz asteko esperantzarik. Al dan arte jarraitu egin bear; nai baño len etortzen da bestela ere ixildu bearra.

Orain gogoratzen naiz: Arruitzko Txikia, batean, Amezketan nerekin tokatu zan lo egiten, an bertan esibizioa eginda. Andik bi egunera beste leku batean ibilli bear zuan korrika; eta goizean, egunaren zabaleran, jaiki, jertsei lodia eta bota aundiak jantzi, eta Txindokira joan zan.

Zenbat denbora bear zuan Amezketatik Txindokira, eta etzala beñere joan esan zidan, baña ordu ta erdian joango zala.

Gu ta beste gure antzeko asko jarduten gera jokolariakgatik zerbait itzegiten: gerorako gaizki oituta, mutillak alperrik galtzen dirala ta orrelakoak. Baña arek etzeukan oitura txarra, goizean mendira joatekoa.

Ni, balio izan banu, joango nintzan orduan pozik berarekin; baña ez nintzan gauza ta antxe gelditu nintzan oian.

Bein batean, Pernando zanak, San Bartolome aurreko egun batean, santua arrapatu omen zuan eleizatik, erriko zaindaria, San Bartolome.

Erriko bikarioa kejatu omen zan, santurik gabe gelditu ziranean: zer egin bear zan erriko pestetan santurik gabe? Sermoilaria ekarri bear da lendabiziko bear zana santua zala, pestak egingo baziran.

Pernandogana joan omen ziran, eta esan omen zioten zer pasatzen zan errian eta San Bartolomerik gabe pestarik ezin zitekeala egin.

–Onelako baserritan dago gizon bat San Bartolomeren oso antzekoa –erantzun omen zioten–, da uraxe jarri zazute meza-denborarako, eta egiña dago.

–Baña zeñek esango dio orain ari? Eta berak ez dakigu zer pentsatuko duan ere!

Esan omen diote beintzat, eta gizon ori lenbizi ezetzean gogor; ura etzijoala

beintzat meza nagusia dana an geldi pasatzera, eta nai zuana jarriko zala.

Ala, ondo ordainduko ziotela denbora artakoa, ta mesedez egin bear zuala orixe. Ordaintzeko kontu ori aditu zuanean, orregatikan piskaren bat ganbiatu omen zan gizona.

Erriko bikarioak onenbeste diru ematekotan egin omen zuten tratua, dirua ere poliki izango zan orduan da.

Meza luzea izango zala ta an nola altarean egon ere pentsatu egin bearko zan, eta Pernandori galdetu omen zion gizon orrek.

Arek berealaxe esan omen zion orrela: altarean luzaro egoteko etzala ezta bezelakorik; arekin kopeta busti ta presko-presko egongo zala; meza guzian egoteko ere etzeukala kuidadorik.

Esan bezela, etorri omen zan, ba, San Bartolome eguna. Jarri omen zan, ba, gizon ori altarean, kopeta eztiz bustita, eta ederki omen zegoan.

Baña Pernando an omen zegoan korruaren atzean, kañaberaren batean erle-mordoska bat artuta, eta libratu omen zituan bere erle oiek.

Berealaxe billatu omen zuten gure altareko gizona. *Sasta!* batek eta *sasta!* besteak, artu omen dute gizon ori Pernandoren erle oiek, eta an omen ziran komeriak: geldi egon nai ta ezin egon.

Etorri omen zan sermoiko denbora, eta sermoilaria etzan nolanaikoa izango; an ari omen zan apaiza pulpitotik berean, San Bartolome pamatu ezinda:

–Begira San Bartolome! Bizirik dagoala ematen du! Mogitzen dala diruri! –esan omen zuan sermoilariak, eta:

–I ere mogituko intzake, emen baengo! –erantzun omen zion San Bartolome postizuak.

Amezketan bertan badira bertsolari politikak: Artola bat, eta Lukas bat ere bai. Artzaiak dira oiek. Artola baño txarra-goak, asko ikusi ditut nik balkoitik bertotan, da oso onak diralakoa. Berak ez izan gogorik, zenbaitek bezela. Ez da gustagarria, izan ere, beste danak ixilik daudela, itzegiten jardutea.

Batean tokatu nintzan Lukasekin jardun bearrean ere. Ez dakit zeñekin joatekoa nintzan, baño lagunak pallatu zidan. Ni joan nintzan eta bestea etzan azaldu. Lukasi esan genion eta etzan bereala konpromatu; baño atzenerako esan zuan orregatik baietz.

Igo genduan aiuntamentuko balkoira, ta an esan giñuzen geureak. Etzan iñor kejavu beintzat, gaizki kantatu gendualako.

Artola ta Lukas, da beste bat ere bazan lenago Amezketan; Txirrita esan oi zitzaien. Bertsolari polita zan ura ere, boza bikañarekin. Orain Lizartzara ez-konduta dago.

Bein batean, Txirrita ori, mutil koskorra zala, orduan Amezketan bizi omen zan artean, da Bedaion osaba-izebak omen zeuzkaten, eta seme-alaba kua-drilla aundia gañera.

San Bartolome aurrean joan omen zan gonbiratu etortzeko esatera gure Txirrita ori basarri orretara.

Jo omen zituan atekak, eta dozen erdi bat txakur atera omen zaizkio. Atariko atearen aldamenean garo-meta bat omen zegoan erdia gastatuta, ta igo omen du aren gañera, txakur oiek jango ez bazuten.

Alako batean, atera omen zaio etxe-ko andrea orregatikan, da:

–Kontxo! I al intzan, txikito? Etorri adi barrena, gizarajo ori! Aspaldian ez intzan gure etxean izan. Mutil aundia egin aiz!

Ondo artu omen zuan. Gutxi gorabera bai omen zekian arek zer abisurekin joan zan mutikoa, ta alako batean esan omen zion, ba:

–Ateak itxi ta danak joateko San Bartolome egunean bazkaltzera!

Ta izebak:

–*Bueno, bueno!* Ondo zio! –esan omen zion.

Baña emakumeak nola danak jakin nai izaten dituzten olako mutil koskorrak arrapatutakoan, berriz galdetu omen zion illobari:

–Zuen amak zer esaten ote dik, gu danak bazkaltzeko gonbiratuta?

–Zera esan du gure amak: danak gonbiratzeko; baño, iñor ere etorriko ez baltz, ohea litzakeala!

Gudari edo soldadu ere izan omen zan gure Txirrita ori, ta laguna emen Oiartzungoa omen zuan bat beintzat.

Andik etorrita, luzaro ez omen zuan ura ikusteko zoririk izan; eta, urteen buruan, Tolosara apusturen batera etorri omen da ta antxe topo egin omen du oiartzuar orrekin.

Ainbeste denboran ikusi ez da besarkatu omen ziran biak, eta:

–Zer moduz, motell, orrenbeste denbora ikusi gabe?

–Ni ongi! –esan omen zion oiartzuar orrek-. Eta eori zer modutan aiz, ba?

–Ondo esan bearko!

–Ezkundu al intzan? –galdetu omen zion oiartzuarak Txirrita orri, ta:

–Ni bai!

–Pamelirik bai al dezute?

–Bai; badiagu pamelia ere, bost badizkiagu-ta –erantzun omen zion Txirritak-. Da ik bai al dek?

–Bai! Lenbiziko andrearekin bi izan nizkin, eta bigarrenarekin iru; irugarrenarekin, orain daukatenarekin, bat. Daretara, sei.

–Arraioa! Ez dek suerte ederra izan pamelian, bi andre il da irugarrenarekin bizi baaiz!

–Ez; ez diat suerte ederra izan; baña, ganaduairekin gertatu balitz ere, bearko giñun da...

Amezketan ainbeste aldiz izan gera eta beti jasotzen da zerbait.

Atzeneko urteetan karnizerian jaten genduan, eta guk bakarrik ez; gonbiratuak izaten ziran egun orretan, da bazkaria ona. Jaten emateko gustoa badu ango etxeko andreak. Bertan bazkaldu eta bertan apaldu ere egin izan genduan. Eta Amezketako bertsozaleak an izango ziran.

Artola ere an izango zan, da gurekin bertso-saio bat egin gabe etzan geldituko. Txiritarena, berriz, zer esanik ez; arekin asten bagiñan, nai baño saio luzeagoa igual izango zan. Etorri mardula zuan arek; bearbada etzuan izango Artolak bezin garbia. Batek asko egiteko jenioa zuan; eta besteak, berriz, ondo egitekoa.

Dana dala, gu saiatzen giñan jendeakikoa egiten, eta an uraxe bear izaten zan. Lasarte ta biok izango giñan atzen aldera, eta an tabernan zeudenak agurtuko giñuzen da lo egiteko modua egiten genduan.

Goizean jaiki, autobusa artuko genduan da Zegamara joango giñan, baña ez kapea artu gabe. Kapea artu ta joango giñan Alegrira autobusean, eta andikan Beasaiña trenean; da Segurako autobusa an egongo zan, gu Zegamara eramateko. Ura artu ta Zegamara.



# Zegama

**A**GOZTUAREN ogei ta bostean Zegamara joaten giñan. Aitzgorriren oñetan dagoan erri polita Zegama; erri paketsua.

An ez da izango zenbait erri aunditan ainbat gora-bera. Beren Papelera koskorra eta errikoentzat ainbat lan izango da, eta asko geiago kaltekoa da. Erri bakoi-tzak erriko jendeentzat ainbat lan sortu ezkerro, ez dago geiagoren bearrik.

Amaika aldiz Zegamako aiuntamentuko balkoitik Aizgorriri bertsoak bota dizkagu. Orrelako mendi ondoko erri koskor oiek beti badute beren itzala eta errespetua.

Aitzgorri mendiaz beste aldetik, berriz, an dago Urbia. Zer mendi ederra dan Urbia! An bein izan naiz, Arantzazutik joanda. Bere eleizatxo ta kantina. Ango arratseko ixiltasuna! An ez da, ardiak etzaten diranetik aurrera, txintik ere izango. Artzaiak an ez dauka lo egin besterik.

Zegamara ere Zepairekin egin nituan lenbiziko birajeak. An Erriko Etxean jaten egoten giñan, eta aiuntamentuko balkoitik bertsoan egin.

Pelota-lekuan beste zerbait pesta bazegoan, pelota-partidua edo aizkolariak, aiek ere ikusi izan ditugu. Erriko gazte-

ak aizkoran, lau edo bost gazte, konkurtsua, zeñek lenago ebaki. Eta orduan guk ere an egingo genduan pelota-lekuan bertsoan. Arratsaldean izaten zan pesta ori.

Beste batean iru bertsolari izan giñan: Zepai, Asteasuko Batista Kortajarena ta ni. Orduan ere egin genduan geure saioa; arratsaldeko saioa bakarra genduan orduan.

Gero, berriz, Basarrirekin joaten nintzan urte askoan. Arekin ere, besteakin bezela, bi saio: bat goizean eta bestea arratsaldean, eta beste gañontzean guk nai genduan egingo genduan.

Alako moduko jenderik bazegoan, egingo genduan saio bat. Ez genduan agindu bearrik. Bat edo bi bakarrik bazeuden bertsozaleak, eta amar bertsoari kasorik egingo etzietenak, gu ez giñan asiko bertsoan. Igual esango zuten batenbatzuek:

–Oieri bertsoak entzutea ere ondo pagatuta izango dek, ba!

Ez da ori orrela; gu ez bagiñan bertsoan asten girorik etzgoalako.

Jaten, Basarrirekin joaten giñanean, Gerrikoren ostatuan gelditzen giñan. Atxukarrok ere an jaten zuan, ba, eta Basarri eta biak nola erri batekoak diran.

jaiotzaz biak errezildarrak; eta beti izaten da alako begiramentu piska bat.

Atxukarro gurekin ere ondo konpon-tzen da; baña zeñekin ez? Atxukarrore-kin konpondu ezin dana, bakarrik bizi litekeala uste det.

Gerrikoenekoak taberna edukitzeari utzi egin zioten; baña guk berdin jarrai-tu genion ara joateari.

Urte baten, gañera, Atxukarro ta bere lagunak, orain Zumaian dagoan maisu bat, *escuela profesional*-eko maisua, ta oiek danak, guk joan bear genduan goizean perretxikoak bildu zituzten, da arratsaldean jan egin giñuzen.

Basarri ere beti perretxikoak jateko amorratzen egoten zan; ni ere, berriz, zalea naiz, da beste edozer gauza baño naiago giñuzen guk aiek. An, berriz, aukera egoten da perretxikotik, jira danean mendiak dauzka ta.

Urte batean. Zegamara joateko San Bartolometan, bezperatik etorri giñan Azpeitira. An Pedro ostalariaren kuñadua zegamatarra zan, da arek abisatu zigun Azpeitira etortzeko ta urrengo goizean alkarrekin joango giñala.

Zepai ta biok sartu giñan Pedoren ostatuan, da an zeuden Urnietako Blanco, Lizaso bertsolaria eta bere aita ere bai. Nik Lizaso baño lenago ezagutzen nuan bere aita. Urnietako Blanco ori ere erdi bertsolaria da.

Lizaso bertsolaria ezagutu bakarrik ez; baita bertsoan saio ederra egin ere, eta arekin seguru zala bertsolaria esan genduan guk. Ez genbiltzan oso gaizki.

Andik urrengo sariketa etorri zanean, an presentatu zan Eibarren eta lenbizikoa atera zuan; lenbiziko saria.

Orain ikusten dezute zer modutan kantatzen duan. Lizaso ezagutzen ez

duan bertsozalerik ez da iñor izango orain, eta nik ez daukat zer itzegiñik beragatik.

An ere orkestina ona izaten zan beti, eta txistulariak txanda egiteko. Orkestina, Txurrero bi anaiak eta beren lagunak ikusi izan nituan. Oiek toki askotan ibiltzen ziran, eta oso onak dira; Pepe eta Mateo oso ezagunak dira.

Txistulariak, berriz, Segurako Galar-tza makiña bat urtetan izango zan an. Asi goizeko diana jotzetik eta gabean berandu arte, aspertzeko ainbat jo bear izaten dute. Txistulariak ere borondate aundikoak izaten dira geienak, eta ari eskerrak.

Dantza-sariketa ere ikusi izan degu Zegaman; lau sari ziran da bi bikote. Etzan iñor saririk gabe gelditzeko bildurrik.

Atxukarriori erregutu zioten dantza ateratzeko; bi sari sobrean zeudela ta parregarria izango zala ori: bi sari jaberik gabe gelditzea. Eta uraxe atera zan, antxe bertan zegoan neska batekin.

Beste bi bikoteak lenbizikoa ta bigarren saria irabazi zituzten, eta Atxukarrok irugarren saria irabazi zuan. Nik ez nuan sinistuko Atxukarro ala dantzan egiten ikusiko genduanik.

Beste batean, *Mutiloa* esaten ziotela uste det, mutil lodi bat bazan Zegaman, eta orrek egin zuan egundoko esibizioa. Arri sastar bat jaso eta egundoko biguntasunak egiten zituan. Ankan gañean zegoala, atzetik buelta burua anka tartetik pasa ta berriz aurrera begira jartzen zan, subea zirudiela. Atzeko aldean sosak jarrita, ederki jasotzen zituan ortzak. Orrelako asko egiten zituan arek.

Mutil ari begiratuta, zeñek esan arek alako biguntasunik egin zezakeala? Oso

lodia zan, ba. Ura aditu nuan *lucha libre-an* ari zala, ta ez det aspaldi ontan aren arrastorik.

Tokan ere beti izaten da sariketa San Bartolometan Zegaman. Gu antxe giñan egunean izaten zan. Donostiko Antiguako Altuna du abizena, ta andrea du Zegamakoa; arek irabazten zuan geie-nean.

Ura Frantzian bizi da orain. Ez dakit gerrarekin joanda edo nola egongo dan; baña andik etortzen da beti Zegamara, San Bartolomeak pasatzera.

Ala, sariketa ortan parte artzen zuan orrek. Ura an zanean, besteak alper sammarrik ibilliko ziran. Ura Antiguan ikasia izan Xarpatarrekin, da zenbat aldiz ibillita ote zegoan? Tokak ere bere tokiak ditu; ta, sagardotegiak diran tokian, geie-nean tokalari onak.

Orain, atzen urte auetan, guk zinean kantatzen genduan. Lau bertsolari geie-nean izaten giñan. Goizetik bi joango giñan, aiuntamentuko balkoitik egingo genduan; beste biak arratsaldean zinean kantatzera joango ziran.

Atzen aldera, urte bi edo iruan, Lasarte, Lazkao-Txiki, Jose Agirre ta ni izaten giñan. Lenbiziko agurra egingo gen-

duan bertso bana edo binan; eta gero, gaiak jarrita, bi bitara eta banaka ere bai, bina edo iruna bertso bakoitzak. Danetara probatzen giñan.

Olaxe, bi saio koskor egingo giñuzen, eta erdi lanetan deskantsatu. Trago bat zerbeza edan edo zigarro bana erre edo orrelakoxe lanak, eta berriz ere asiko giñan. Bigarren partea bereala bukatuko genduan.

Zegaman jende ona da gañera. Ixilik egongo ziran aiek bertsoak entzuten. An zinetik ateratakoan izaten ziran bakoitzak beren iritziak. Bitartean txintik etzan izango. Alako tokian poza ematen du. Lana egin da alperrik, etzaio iñori gus-tatzen.

Sarrera ordainduta dijoana, nunai ere beste gauza bat izaten da. Ura bertsoak entzutera joaten da. Batenbat ixilik egon ezin baldin bada, berealaxe esango dio aldamenetik batenbatek, ixilik egoteko edo bestela ertetzeko; atea berealaxe erakutsiko diola arek.

Al zan bezela agurtuko giñuzen an zinean zeudenak banan-banan, eta urrengo urtean ere ez aztutzeko gurekin eta bitartean ondo izateko danak; eta agur, Zegama!

# Ondarrabi

**A**GORRAREN amaikan Ondarrabira joaten giñan. Pestak zortzian asita egiten ziran, baña gu amaikan joaten giñan. laugarren egunean, pestaren akaberan.

Lenbiziko aldetik, urte askoan, ganaduen sariketa izaten zan egun orretan.

Gu joango giñan da Etxeberriaren ostatuan gosalduko genduan, eta zai jarriko giñan, bertsotarako moduan preparatuta.

Ganaduak an egongo ziran, goizean jarrita, Alamedako zumardi eder artan. An ibilliko ziran albaitero edo beterinarioak beiak ikusten eta zeñek saririk onena merezi zuan juzkatzen.

Aiek beiak ikusten zituztenean, gu ere arrimatuko giñan plaza aldera eta egingo genduan bertso-saioa. Basarriekin izan nintzan an ere urte askoan bertsotan. Alamedan kiosko ederra zegoan, ata anditxik egingo genduan.

Ango gaiak, estropadak eta mariñelak; eta, an aurrean zeuden bei eder aiek ikusita, nekazariakin ere ezin aztu; aita-tu egin bear aiek ere.

Estropadak orduantxe izaten ziran; lenbiziko jaiá pasatu eta bandera jokatze-ko egongo ziran. Ondarrabi aurre sa-

marrean ibillita bazegoan lenbiziko jaián, orduan izaten zan gure poza bertsoak botatzeko. Atze samarrean ibillita bazegoan, al zan gutxiena aitatu ta pasa egin bear.

Arrantzaleak ere zer arrai-klase arrapatzen zuten esango ziguten batenbatek; eta, al bazan beintzat, ongi gelditu beste baterako ere.

Basarritarrak beñere baño errezago izaten zan piska bat toriatzeko ere, etxean ziran beirik onenak an izaten zituzten da.

Beintzat egingo genduan geure saioa, eta jendeari esango genion arratsaldean nola pelota-partiduak izango ziran; "arratsaldera arte!" esanda agurtuko giñuzen, eta bazkaltzera joango giñan.

Lenbiziko aldetik Jauregiren otelean bazkaltzen genduan. Diputazioko jendea, ta *Caja de Ahorros*-koak, eta beste albaitero batzuek eta danak izaten ziran an bazkaltzeko, eta oiek ez dira tokirik txarrenera joaten. Guk ere aiekintxe bazkalduko genduan.

An ere, lasai kapeak artuta, izango ziran batenbatzuek itzezin bearrekoak, eta aiek ixiltzen ziranean etortzen zan gure txanda. Guk ere botako giñuzen bertso- ren batzuek; eta, ango lanak eginda, bes-

teak ganaduari sariak ematera joango ziran, da gu, berriz, frontoira. An egin bear izaten genduan arratsaldeko saioa.

An pelota-partidua izaten zan orduan; da guk, partidua asterako, saio txiki bat; eta, ura bukatzen zanean, bestea egingo giñuzen. Eta jendea agurtuko genduan. "Urrengo urtera arte!" esango genien, eta etxera etorriko giñan.

Pazko-egunean ere joaten giñan Ondarrabira bertsoara. Orduan Mitxelena-rekin joaten nintzan, eta aiuntamentuko kale artantxe egiten genduan bertsoan. Goizeko saioa bakarrik izaten zan orduan, eta ura bukatuta libre izaten giñan.

Orduan sokamuturra izaten zan bestea. Zezena sokarekin lepotik lotu ta kallean bueltaka; orixe da sokamuturra. Diskuidatzen danari kolperen bat galanta-edo; erroparen bat urratu-edo; zezenaren lana orixen izaten da, baña ala ere izaten du estimazioa.

Gogoratzen naiz batean Fernando Artolak, Bordarik, nola presentazioa egin zuan gurea. Aiuntamentuko kale artan giñan orduan ere. Gaiak ere berak jarri zizkigun orduan.

Gaiak jartzea batzuetan mesere aundia izaten da. Bein iru edo lau bertso bota ezker, gaia aitu egiten da; eta, jartzalle bat baldin bada, orrek berritu egiten du gaia.

Berriz ere urrengo urtean zintzo deituko zuten ondarrabitarrak. Illabete bat aurretik an etorriko zan abisoa illaren amaikarako.

Guk jakiñako tokia izateri genduan alkarrengana juntatzeko. Etxeberriaren ostatura bilduko giñan, an gosalduko genduan eta tenple onean jarriko giñan berriz ere.

Atzen urte auetan txistularien *alardea* izaten zan, da *kontziertoa*. Berrogei bat txistulari bilduko ziran, da aien txistua jo bearra gogorra izaten zan.

Guk aiek bukatu-zai egon bear izaten genduan, bertsoan asteko. Etxeberriaren ostatura urruti samar dago Alamedatik, txistulariak noiz bukatzen duten-edo ikusteko ere.

Orduan, *Bar Alameda* izeneko ostatu bat an urreragoan badago eta ara etorriko giñan. Programa izango genduan batenbateg, eta:

—Oraindik lau pieza palta dituk! Iru palta dituk!

Atzeneko piezara arte trankil egongo giñan. Oraintxe atzeneko pieza jotzen asten al ziran, orduantxen aterako giñan *Bar Alameda* ortatik

Ango nagusia ere zestuarra da, Zestuako Listorraitzakoa, eta urtero joaten giñan ura bixitatzera.

Esan bezela, atzeneko pieza jotzen asten ziranean, antxe presentatuko giñan, bertsoan egin bear genduan tokian.

Atzen urte auetan lau bertsolari batzuetan, bestean iru, eta bi ere bai. Agirre, Lizaso, Lasarte ta ni ere izan giñan urte baten edo bian; iru ere bai: Lasarte, Lizaso ta ni. Berak nola abisatzen zuten, alaxen joango giñan gu.

Txistulariak bukatzen zutenean, jeltxiko ziran kioskotik, eta gu igotzen giñan orduan. Guk ere esan egin bear zerbait; nola edo ala zerbait moldatuko genduan beintzat, eta egingo genduan saio dezentea goiz-partekoa.

Arratsaldean etzan egin bearrik izaten atzeneko urte auetan; goizekoa bakarrik, eta bazkaltzera joango giñan Marina aldera.

Rafaelen ostatuan jaten genduan orain atzeneko urte auetan. Bidean bermut bat edo beste artuaz, bagenekigun, ba, nora joan bear genduan bazkaltzera, araxe bilduko giñan atzenerako. Lasai bazkaldu; arratsalderako kezkarik gabe kapea artu.

Ordurako batenbat asiko zan txistu jotzen, berrogei txistulari oiek an bazkaltzen zuten gurekin da.

Naparroako Arizkungoa bada aitona koskor bat, gogotsua. Ura izango zan lenbiziko asiko zana, eta bai ederki jo ere txistua. Bi edo iru pieza joko zituan bere gusturakoenak; eta nai zuanak jo, lekua emango zion.

Orduan Lesakakoa, gizon eder bat, asiko zan. Arek ere joko zituan bereak. Bat beintzat *birigarroa* joko zuan, eta egundoko txaloak joko zitzaizkion. Nai zuanak jo, lekua utziko zion arek ere.

Urrengo, Errenteriko banda asiko zan: Lizardi ta bere lagunak. Oiartzungo Mendizabal ere askotan an izango zan aiekin, eta Goikoetxea Zestuakoa, orain Errenterin bizi da aspaldian baña.

Geienak probatuko ziran an. Oraindik onena ez det aitatu: txistulari *eléctrico*, Amasako Garate. Ura ere asiko zan, bi edo iru pieza joko zituan, da aretxek irabazten zituan txaloak. Jo ere egiten zizkioten.

Gure txanda ere etorriko zan, da batenbat izango zan guri ere aginduko ziguna. Donostiar bat izaten zan; *praktikantea* esaten zioten.

Asiko giñan, ba, gu ere eta egingo genduan gure saioa. Alako jende alaiaren aurrean pozak egin ere, eta geure lana egingakoan ixiltzen giñan.

Praktikantea bera asiko zan orduan. Txistua jotzen balio duana da. Bakarrik ere ondo jotzen duan txistularia da ura.

Isidro Ansorena ere denbora batean ortxen izaten zan. Orain ez du txisturik joko bearbada, baña txistulari danen maisua. Ari txapela erantzi izan zioten danak, eta umore ederreko gizonak dira aiek.

Anaia bat ere badu Ernanin bizi dana, gizon alaia. Arekin ere ortxe, Ondarrabin, juntatu oi giñan. Irurogei ta emezortzi urte zeuzkala esan zuan berak, eta umorea saltzeko ere bazeukan arek.

Orrelako gizonak bear luteke bizi lueza. Alai ta pakean bizi diran gizon oiek urte askotarako izan ditezela.

An izan diranak, danak ez da aita-tzen ere errez; baña Zarauzko Izagirre ere etorri izan da. Arek ere bakarrik jotzen zuan ederki.

Getarikoa ere bai, aitona aundi bat, len musikako direttore izandakoa. Arek ere utzi zion etortzeari; larogei urtetik gora ditu arek.

Bergarakoa ere zarra izaten zan bat, eta orrelaxe.

Ala, bazkaltzeko denbora alaia izaten zan an, baña jendea agurtzeko garaia etortzen zan; txistulariak danak agurtuko giñuzen bertso banan edo binan, eta urrengo urtera arteko pakea egingo genduan.

Gero *Bar Ignacio*-ko nagusia eta etxe-ko andrea ere agurtu bear izaten giñuzen.

Neroni ere antxe egin izan zidaten omenajea, txapeldun atera nintzanean; eta beti gogoan eduki izan det ori. Berrogeiren bat lagun juntatu ziran, da antxe apaldu egin genduan umore ederrean. Basarri ere joan zan apaltzera, eta guk ere bertso-saio bat egin genduan eta ederki pasa genduan.

Len ere ala nintzan nagusiarekin, baña andik aurrera pameli dana ezagun egin zitzaidan.

Beste batean, Guadalupen ere izan giñan Lasarte ta biok bertsoetan. Jendea pranko bazan antxe ere, baña etzan bertsolarentzat jende ona. Ondarrabin zarrak bertsozaleak dira; baña orduan arratsaldean giñan, da gazte jendea zegoan asko, dantzara joandako gazteak, eta bertsoak baño dantzan egin naiago zuten aiek. Guk geure saioa egin genduan eta ostera bera jetxi giñan.

Tokia ederra da ango eleizaren atzeko alde ura; baña guk atzera etxera etorri bear, eta jendea agurtu genduan eta Ondarrabira etorri giñan.

Beste batean, Marinan izan giñan bertsoetan. Orduan etzan Ama Birjiñaren jairikan; mariñelen pesta zan, zerbait ere. Manuel Lasarte ta biok giñan orduan.

Jende gutxi zan Guadalupeko aldean, baña jende ona; ixiltasun aundia gorde zuten, eta gu ere gustora jardun giñan. Jendea ixiltzen ez baldin bada, bertsolaria bera laster ixilduko da.

An goizeko saioa bakarrik genduan; etzan arratsalderako kezkarik.

Ederki bazkaldu genduan, eta geure artean egin beste bertso-saio bat maian, kapea artu ondorenean; eta ango jendea agurtu genduan ta etxera etorri giñan.

# Zaldibia

**Z**ALDIBIKO Bentaberrira ere askotan joan giñan bertso tara. Joakin an zegoan arte asi giñan.

An bertsolari danakin edo askorekin izan nintzan: Zepai, Basarri, Mitxelena, Ernani-Txikia, ta gero Lasarterekin ere bai; ez dakit zenbatekin.

Etxe artan amaika saio egiñak gera. An bertsolariak eta pilarmonika izaten ziran. Ori, etxe ori, Zaldibiko erritik kilometro bat gora dago, Larraitz aldera, kamioaren ondoan.

Tabernako bertsoia oso txarra izaten da. Batetik lan asko egin bear, da bestetik toki txarrean. Jendeari tabernan eutsiko bazaio, bertso-saio asko egin bear izaten da eguna joan bitartean, eta toki txarrean gañera.

Egun guzia eta gaua beti edaten eta tabakoa erretzen; eta, zedorrek bakarrik erreko bazendu, ala ere gaitz erdi. Ogei lagun badaude barren artan, amasei izango dira erretzalleak, jaian beintzat, eta kearekin alkar ikusi ezinda jartzen da bat atzenerako. Bertsoan egin zazu an!

Gu gaixotu egin gera, baña ez motiborik gabe. Makiña bat mundu onetatik joan ere egin dira gutxiagorekin. Gu bizirik gelditu gera, Jaungoikoari eskerrak.

Pilarmonikak guk baño ere lan geiago egingo zuan. Goizetik asi ta gaba ere an lardaskatu bear. Atzenerako ederki aspertuta gelditzen ziran aiek ere.

An jende asko biltzen zan bertsolariak joaten ziranean, eta kanpoan ere beti egiten giñuzen pare bat saio.

Ala ere an jende ona zan. Ixiltasun aundia gordetzen zuten. Zaldibiko jendeari ez dio iñork eramango orretan. An etzan txintik izaten, gu bertsoan ari giñan denboran.

Edo, bestela, kastillanoren bat bear-ko zuan, bertso-rik konprenditzen etzua-na. Eta, alakorik bazan ere, laste ixildu edo aldegin egin bear-ko zuan andik; bestela, laste izango zuan nork kontra egiña.

Bertso auek nik Zaldibiko Bentaber-rrin botiak omen dira. Lazkao-Txikik ala dio:

O, Zaldibiko txoko polita,  
maitatzen zaitut benetan;  
zuk dadukazun edertasuna  
ez baita toki danetan;  
alde batian artoa loran,  
bestian garia metan,  
illabete bat pozik pasako  
nuke alderdi onetan.



Gaur Zaldibira etorri dira  
banaka eta biñaka,  
zure galdezka ere, Basarri,  
izandu ditut amaika.  
"Basarri zein da?" neskatxa batek  
txamarratikan tirata,  
ez dakitela erantzun diot,  
basarri asko dira ta.

Au ere Lazkao-Txikik emana da, eta  
nik kantatua omen da. Zaldibiko Benta-  
berrin, kastillano bati:

Amaika ola erdi ipurdiko  
ikusi degu munduan,  
leno bazuan lagun bat eta  
orain ez dakit nun duan;  
bazter guziak ipini ditu  
oraintxen iya minduan,  
kate batekin lotu zazute  
idi beltzaren onduan.

Gero Joakin orrek saldu egin zuan  
Bentaberri, eta Telleritxok erosi zuan. Jo-  
akin orrek beste bat erosi zuan Billa-  
franka edo Ordizian; ez dakit lenago ta-  
berna izango zan ala ez, baña gero  
taberna ederra jarri zuan. Ordizira joaten  
giñanean, beti antxe izaten giñan.

Baba txikia jartzen ziran espezialak,  
zeziñarekin. Guk, an bazkaltzen giñane-  
an, jakiña izaten genduan baba txikia ja-  
tea. Orain utzi diote tabernari.

Gero Telleritxo gelditu zan Bentabe-  
rrin. Arekin ere berdin segitzen genion  
guk bertsoara joateari.

Telleritxo etxea bera berreun bat me-  
tro gorago zegoan Larraitz aldera, ka-  
mioaren ondoan. Bentaberri artu baño  
len ere taberna izaten zuten Telleritxon;  
da Bentaberrin ere bai, bi taberna alka-  
rren ondoan. Da gero, Bentaberri erosi

zuanean, etzuan kontrariorik. Berak ba-  
karrik biltzen zituan ango sosak.

Baña ala ere aspertu egin zan edo sal-  
du zuan atzera Bentaberri, eta gelditu  
zan Telleritxorekin, da ara ere joaten gi-  
ñan bertsoara.

Guk iru bat joan-aldi urtean egiten  
giñuzen ara, eta baziran bertsoa zer zan  
zekitenak ere. An potoarekin etzenduan  
txalo asko irabaziko.

Ango lenbiziko tabernariaren anaia  
bat Bizente, eta bestea Ilario, eta bestea  
Migel bat, eta Lorentxo: oien aurrean  
etzegoan katua erbitzat pasatzerik. Ber-  
tsotan ondo ari baziñan, iñork baño obe-  
to eskertuko ziñuzen aiek; baña bestela  
jai zegoan an.

Esan bezela, gero atzera saldu egin  
zuan Telleritxok Bentaberri, eta atzera  
lengo etxean gelditu zan, Telleritxon. Ara  
ere jarraitu genion joateari, berak andik  
aldegin zuten arte.

Gero tabernak eta danak bertan utzi  
eta Irunera joan zan. Aspaldiko berririk  
ez dakit, ez Telleritxokorik eta ez ango  
nagusiarenik; ez dakit zertan diran.

Arrezkero ere Zaldibira joateari beti  
jarraitu diogu guk. Santa Fetan egiten  
dira erriko festak, Urriaren seian, eta or-  
duan ere joan izan gera.

Erriko soziedadeetara ere bai. Goian  
plazaren ondoan dagoan soziedade ar-  
tara ere joaten giñan. Beian ere beste so-  
ziedade bat badago pameliko gurasoena-  
edo, eta an ere izaten giñan.

Xalbadorrekin ere izan nintzan bate-  
an beintzat, eta Lopategirekin ere bai  
beste batean.

An gau ta eguneko bertsoa izaten  
zan. Gaberako ere bertan gelditu geie-  
nean, an Bentaberrin da Telleritxon gaiz-  
ki oituta zeuden-da, beti gabean an gel-

ditzen oituta. Xalbadorrekin izan nintzan artan ere gaba an pasa genduan, eta geiena bertsotan.

An, soziedadera joaten giñanean, bertan bazkaldu egiten genduan, bertako sozioakin. Asko, andrearekin izaten ziran. Pameliko gurasoak ziran soziedade artan. Erriaren sarreran zegoan ori, soziedade ori, emendik joanda.

Oso lagun-arte ederra egiten genduan an. Bertan bazkaldu ta etzan bertso-paltarik izango. Dozena erdi bat saio egingo giñuzen gutxienez ere. Geiago bear bazan, geiago. An gero alako tokian kantatu pozak. Jendeak entenitzen duan tokian, geiago saiatu ere egiten da.

An izaten dira bertsolariak ere. Ilario baño txarragoak makiña bat ikusi ditugu balkoitik bertsotan, ta zerbait diralakoan gañera. Arek ez du nai izan kantatu, ta iñork ez dago derriorrean eragiterikan.

Goiko soziedade artan, berriz, Manuel Lasarterekin izan nintzan. Makiña bat kantatu genduan orduantxe ere.

An badira gizonak, txuleta bat arrautza-pare batekin piska bat jaten asteko eskatzen dutenak ere; gero eskatuko dutela gañetik zer bear duten. Bautista Artano da bat.

Ori baño gizon lasaiagorik ez det nere denboran ikusi. Orrekin aserretzeko ere zerbait gaizki egin bearko zaio arixe. Gizon ori jubilatua dago, eta ezeren paltik ez dauka orrek.

Gizonik bere bizimoduarekin kontentu dagoanik iñor bada, uraxe da bat. Orrelako gizonak ez du ezer ere palta. Len ere esan det, eta uraxe bizi da zorionean.

Gizon luzea ez da, baña eun bat kilo izango da; lepo ederra edukiko du orain

ere, nik aspaldian ez det ikusi baña, Goierrin txuletarik bada beintzat.

Lazkao-Txiki ere Zaldibiko Bentaberrin ezagutu genduan, eta baita bertsotan egin ere berarekin.

Bertsolari piña zan orduan ere; artean bertsolarien manejoak palta, baña bestela materiala bazeukan. Arrezkero esan dezagun asko mejoratu dala.

Beste batean, Iztueta zanaren eun urte betetzea-edo, ez dakit zer giza-alditakoa zan ere, baña zerbait orren oroimenez egin zan pesta bat Zaldibin, da orduan ere an izan giñan.

Basarri ta ni biok dantza-sokan ibilli giñan orduan. Gure moduko zarrakin osatu zan dantza-soka; ta, aureskua ateratzeko, gazteak, dantzan egingo zutenak, eta ala moldatu giñan.

Lopategi eta Lazkao-Txiki bertsotan; aiek biak egin zuten ango bertso-lana. Egunak eskatzen zuan bezela, Iztuetari buruz kantatu zituzten dozen erdiren bana bertso, eta ederki.

Mondejoak egiten dira ederrak Zaldibin. Nik lenbizi Bentaberrin jan nituan, eta gustora jan ere.

Mondejoa zer dan galdetuko luke zenbaitek, len beñere ikusi ez duanak. Ardiaren estean sartzen dira ardiaren segoak-eta berdura askorekin, da egiten omen dute arrautzak eta orrelako gauzak.

Odolkiak beltzak izaten diran bezela, mondejoa zuria izaten da. Beroa dagoan artean errez jaten da ura; oztu ezker, txarra. Nik neronek odolkia baño naingo nuke.

Txuleta ta bi arrautza jaten asteko eskatzen zituan arek arrapatuko balitu, lau bat mondejogatik ez litzake asko sustatuko. Ondo esanean artuta, beste litro

bat ardo edan, ardiaren segoak urtutze-ko-eta.

Gu ere batean joan giñan propio mondejoak jatera, eta ederki moldatu giñan. Ez giñuzen mondejoak bakarrik jan; len-bizi mondejoak, eta gero txuletak.

Eta gero, tripatik ondo jarri giñanean, joan giñan, ba, ikullura ere, ta beia erosi nuan nik, alako moduko lagunak ere nituan ta: Martin Artano, Rezola tasista, eta bestea Etxarri, tasista ori ere.

Bertsolari zar bat ere bada Zaldibiko semea, orain Altzo-beian bizi da baña: Artxanberri. Bertsolari ona gañera. Banaka aldiz berarekin jarduteko zoria izan degu.

Gizon ona da bera. Ez dizu nolanai utsegingo izketan. Bertsolarientzat oso kondizio ona da ori, eta beste edozeñentzat ere oso txarra ez.

Gu Goierrri aldera joaten bagiñan, an izango zan ura, ta gurekin bertso-saio bat egin gabe etzan geldituko bereala.

Ez da bere gisa asi oi dan bertsolari oietakoa. Piska bat pentsatuta asiko zan. Ala bear ere bertsotan ondo egingo bada. Ondo pentsatuta ere bada lanik asko.

Ez da bertsolaria bakarrik. Azari arrapatzen ere ona da; amaika azariri bizia kendua.

Mendiak izaten zituan artuta, azari arrapatzeko onenbesteko batean. Burgos alde ta oietan ere, asko ibilia da azari arrapatzen.

Bertsolari bezela baño, azari-arrapatzalle bezela geiango ezagutzen da.

Orain erretiratu da. Larogei urte urrean izango ditu, ta emendik aurrera obe du etxe inguruan. Mendirako urte txarrak dira oiek.

Lenago artzai ibilia da, ta makiña bat otz-bero ikusia izango da.

Batean, ardiakin-edo mendian zebilela, gazte batekin topo egin omen zuan, da bertso au kantatu zion:

Bai, mutil, guk e garai batean  
gaztetasuna bagiñun,  
bañan geroztik kontsuelorik  
guretzat etzegok iñun;  
len bigun ziran gauz danak gogor  
ta gogor ziranak bigun,  
ara zartzeak zertarañoko  
bentaja ekarri digun.

Pameli ederra azi du: iru seme ta iru alaba izan bear ditu; eta andrea ere oraindik gogor dago, osasuntsu.

Zaldibiko erriak omenaldiren bat egingo ote dion aditu det. Alakorik bada, ondo irabazia izango du orretzek, eta lenbailen egin dezaioleta.

Atzeneko aldiz Zaldibin Manuel Lasarterekin izan nintzan, eta Santa Fetan, erriko festetan, joanda.

Goizean egin genduan, beti bezela, saio bat, eta soziedadera joan giñan. An, denbora pasa, ederki egon giñan; ta bazkaltzera, berriz, Arreseren ostatura joan giñan.

An bazkaldu genduan lasai, ta kapeak artu; ta an bazeuden bertsoak pozik entzungo zituztenak eta egin genduan saio koskor bat an ere.

Eta gero plazan egin bear zala; abixatzera etorri ziran eta joan giñan, ba, ta ekin genion.

Jendea agurtu genduan, plazako jendea, ta gero gazte batek gaiak jartzen zizkigun. Ala ere egin genduan saio bat gaiak jarrita ere, eta atzenean an plazan zeudenak danak agurtu giñuzen.

“Urrengo urtera arte!” esan genien, oitura dan bezela, eta jetxi giñan sapai artatik bera eta soziedadera joan giñan.

An ere bazeuden bertsolariak: Zaldibiko Iraola eta Idiazabalko Florentino Goiburu.

Bertso au Iraola orrek Lazkao-Txikiri-ta kantatua omen da:

Egunen batez gertatzen bada  
Gurutzetako partian,  
amaika ordu galdu bear du  
zuen ta bere kaltian;  
endemas beintzat kobrantzaren bat  
izaten badu tartian,

ez daukazute ori ikusirik  
aiek gastatu artian.

Gurutzeta au Lazkao-Txikik orain  
Zaldibin erosi duan basarria da.

Iraola ta Goiburu oiekin ere beste  
saio bat egin bear izan genduan. Aien  
zaletasuna bertsoarako! Guk ere piska  
bat egin-egin bear, ba, aiek ala ikusi ez-  
kero.

Alako baten agurtu giñuzen sozieda-  
dean zeudenak eta etxera etorri giñan.

# Azpeitia

**D**ENBORA baten, San Tomas egunean, Abenduaren ogei ta baten, Azpeitira joan izan giñan bertsoara.

Urte batez, Xalbador, Mattin, Basarri ta ni joan giñan, eta Kornelio, mugaz aruntzko aldetik bizi dana orain. Berez Bera-Bidasoakoa izan bear zuan. Ura pilarmonika jotzen. Oso pesta polita egin genduan.

Guk, laurok, bertsoan egin genduan, da Bordari gaiak ematen. Orain ez daukat gogoan zer gai giñuzen, baña nolainai ere gai onak izango ziran arek jartzen zituanak.

Guk saio bat egin genduanean, kera egin genduan erdi lanetan bezela, ta orduan Kornelio asiko zan pilarmonikarekin.

Ura pamatua zan orduan, eta Azpeitian ere jotzen zizkieten txalo ederrak. Arek joko zituan iru edo lau pieza, eta guri emango zigun tokia.

Berriz ere gure txanda etorri zan, da berriz ekin genion bertsoan; txanda egiteko ere lau lagun bagiñan eta errez egin giñuzen Azpeitiko lanak.

Gu len ere kantatuak giñan Azpeitian, Basarri ta ni, baña beste biak lenbiziko aldiz kantatuko zuten, Xalbador eta

Mattinek. Piska bat arrituko ziran azpeitiarrak aien itzegiteko posturarekin. Gero berealaxe jartzen da, baña lenbiziko aldian zailla izaten da.

Egin genduan beintzat gure saioa, eta bertso banan edo binan plazako jendea agurtu genduan, eta beste bat arte.

Korneliok egin zuan beste saioa, eta jendea gustora. Iru edo lau pieza jo zituan berriz ere, eta txalotu zuten gogor, merezi bezelaxe. Arek ere bukatu zuan, da ederki; arratsalderako kezkarik ez genduan, ba, eta ederra izaten da ori. Asi-aldi baten lanak egin, eta deskantsua.

Bein batean, Kornelio soñu-jotzallea Donostira etorri omen zan, da soñu jotzera alegia.

Eguna pasa omen du soñua jotzen, da lotan bertan gelditu omen zan, Donostiko Parte Zarrean; eta goizean jaiki omen zan besterik iñor baño lenago, eta atera omen zan kalera.

Trenera joan nai eta estazioa nun zan jakin ez, eta galdetzen ere lotsatu egiten omen zan. Motiko bat ikusi omen zuan kalean, da:

–Aizak, motiko: nai al dek apustu egin bi pezta, Norteko estaziora zein lenago joan?

Begira piska bat egon ondoren, esan omen zion motikoak:

–Bai, nai badezu!

Soñua bizkarrean zuala-eta, zarpail samarra iduritu motikoari; eta, batean atzeraka eta bestean aurreraka, an omen dijoa gure motiko ori, eta estaziora iritxi ziranean:

–Oto, motiko! Ik irabazi dek!

Eta motikoa ere pozak, eta Kornelio ere bai. Iñori galdetu gabe eta zuzen estaziora joan nai badezute, badakizute zuek ere zer egin.

Korneliok jotzen bukatu zuanean, bera jetxi giñan; bermuten bat edo beste artuko giñuzen, eta bazkaltzera joan giñan.

Orain ez dakit Astigarragaren ostatuan-edo segururik nun bazkaldu genduan; baña umore ederrean jarri giñala, bai. Kapeak artu giñuzen, eta bertsotan saio ederra egin ere bai.

Donostian ere bazan bertsolaria egun artan, San Tomas eguna zalako-edo. Berak etzuan ala usteko, baña ez oso bertsolari ona. Izenik ez det esango, baña bi rima-klase ibiltzen zituan beti: *tzen da tu*.

Guk, bazkaltzen ari giñan lekutik aditu giñuzen aren bertsoak radiotik, eta ori ortan pasa zan.

Gero, bazkaldu genduan tokian aspertu giñanean, joan giñan soziedade batera ta an pasa genduan denbora. Nai genduana eskatzeko; an bazegoan, beintzat, emango zutela.

Guk, berriz, bertsoa errez botatzen genduan orduan. Ixilik egon baño kantatu naiago. Korneliok, berriz, zer esanik ez dago, jotzen zuan soñua, nai zan guzia.

An gustora geunden, baña biaramonean Donostian kantatu bear genduan. Xalbadorrek eta Korneliok eta oiek etzekiten artean Donostiko berri aundirik, eta danok Donostira etorri giñan. Tiburtzioren ostatuan gelditu giñan apaldu eta lo egiteko.

Apaldu genduanean, Korneliok jo zituan pieza bi edo iru, baña lo egitera joan giñan: urrengo eguna ere lanean pasa berra gendukala eta deskantsatzea pentsatu genduan, lo eginda.

Alako batean jaiki giñan eta or junta-tu gera bezperan radiotik kantatu zuan bertsolariarekin, Tiburtzioren mustradorean.

San Tomas egunean, beti txerri aundi bat egoten da zozketan edo *rifan* Donostian, eta billeteak bazituztela Xalbador eta Mattinek ere, eta nola eraman bear zuten txerria, zozketan aieri erteten bazioten.

Nik esan nuan orduan bezperako bertsolariak kamionak bazituala eta aietako batean eramango zutela. Bertsolari arek esan zuan orduan, len ere txerria obeto zegoala, bai, Frantzian, berriz emendik eraman gabe. Eta orduan Xalbadorrek esan zion:

–Aizu, adiskidea: emen bertan ere badira txerriak! Atzo entzun nituan radiotik baten kurrunkak!

Bezperan Azpeititik entzun giñuzen, ba, aren bertsoak radiotik. Donostian bertsotan egin zuan, da Xalbadorrek ura esaten zion disimulu ederrean da ederkientenitzeko moduan.

Azpeitiko Pedroren ostatuan, batean, an bertsolari bat bada; berez ango semea ez da, baña aspaldian Azpeitin bizi dana; ta bera amarengandik bakarrik sortua zala, aitarik etzuala, esan zuan bertsotan. Nik auxe erantzun nion:

Bertsoak gogoratutzen zaizkit  
nagon garaian aldartez,  
oraintxen ere bat bota bear  
dizut aspaldiko partez:  
amak bakarrik egin bazindu  
besteren kutsurik batez,  
Jesus bezela sortuko ziñan  
Espirituan bitartez.

Udaberrian bere garaian  
azaldutzen dira zuzak,  
oiek dirade nola datozten  
iñork ez dakigun gauzak;  
baña segitzen baldin badigu  
orain daukagun jentuzak,  
aurrera ere izango dira  
olako Niño Jesusak.

Lendabiziko bertso ori Pablo Zubia-  
rrainek, Ernani-Txikiak, emana da; eta  
bigarrena, Jose Agirre bertsolariak ema-  
na.

Beste au, berriz, Loiolako Erremente-  
riko Inazio Zubizarretak artu zuan go-  
goan. Azpeitiko taberna batean, saio luze  
baten ondoren, erterakoan, atean buel-  
tatu ta nik Lizasori botia omen da:

Zapatak baño sarriagotan  
jantzi izan det abarka,  
bein bear eta gaur ere emen  
nabil baldarka-baldarka;  
uste ez dala gertatua zait  
emen naikua aztarka,  
gaur gazte onek autsi banindu  
ura izango zan marka.

San Tomasetan Azpeitira joan giñan,  
urte baten, Manuel Lasarte, Jose Lizaso,  
Basarri eta ni, berriz, Uztapide. Ezkon-  
du berria nintzan orduantxe, eta zerbait  
danak izaten zuten neri esan bearra; aiek  
ere bai. Bertso auetxek bota zituzten:

Basarrik:

Manuel gazte, itzegingo'izut  
anai maite baten gisan,  
etzaitzela betiko galdu  
buru-ariñen peskizan:  
ezkondutzeko tratu orretan  
presarik etzazu izan,  
mutilzartuta egonagatik  
Uztapide ezkondu zan.

Lasartek:

Uztapide au gazte-denboran  
beti izan da nagiya,  
baña bein asi zanian argi  
ibilli zuan begiya;  
onen kontuan esango'izuet  
momentu ontan begiya:  
andre ederra artu zuan, bai,  
onentzat ederregiya.

Lizasok:

Uztapide au etzan akordau  
gazte-sasoia zun arte,  
oaintxe berekin izango ditu  
aurki irurogei urte;  
oraindik oso ez dauka baño  
apenas ditun aparte,  
orren semeak kintatik libre,  
suerte bat badaukate.

Uztapidek:

Bein bear eta ari zerate  
oraiñ e zuen dotriñan,  
nere sasoia pasa ote zan,  
jaunak, ortañ antziñan?  
Amaika begiratu egiña  
neskatxai kale-eskiñan,  
diruz pobriak izanagatik  
ortatik osatzen giñan.

Beste batean, Azpeitin izan giñan ber-  
tsotan Jose Lizaso, Jose Agirre, Imanol

Lazkano eta ni Uztapide. Ez dakit San Tomasak ziran edo astearte-iñauteri eguna zer izango zan, baña iru azpeitiarrakin izan nintzala bai.

Jose Lizaso aspaldi ezagutzen nuan ordurako. Jose Agirrerekin gogoratzen naiz Lizasoren etxean bein jardun genduala bertsotan, an Landetan Lizaso bizi zala, baña bestetan ikusirik ere ez naiz gogoratzen. Orduan ere bertsolari zorrotza zan ori. Ordurako Aginagan sari-ketan izana egongo zan.

Imanol Lazkano, berriz, ez nuan artean ezagutzen, da ni arrituta erri batean ainbeste bertsolari izatearekin.

Orduan artean nik ere sasoi neukan; errez egin giñuzen ango lanak.

Orain, berriz, beste bertsolari bat ere badute errian, Azpeitin: Gorrotxategi.

A zer laukotea jarri diran oraintxe! Lau orrelako bertsolari ez dira beste erri batean egongo. Azpeitian orain, bertsolarien pesta bat egin bear danean, ez daukate bertsolarien billa iñora joan be-arririk erritik kanpora; errian badaukate naikoa bertsolaria.

Agerre arri-jasotzalle zanaren ome-nez ere kantatu genduan batean Azpeitian. Izugarri pesta ederra egin zan orduan. Ango aizkolariak eta arri-jasotzalleak eta korrikariak!

Arria bi anaiak Kortaberri bi anaien kontra jokatu zuten aizkoran. Ura zan joko estua jokatu zutena! Atzena eman zion arte, etzuan iñork igarri an zeñek irabaziko zuan. Nik orain ere dudan nago, Arriatarrak irabazi zuten uste det baña.

Arri jasotzen, berriz, an ziran Bizkaitik asi ta onerañokoak danak.

Geien-geiena arritu niñuna izan zan, danetatik, Atxaga Luisek. Bere berrogei urterekin amabost arruako arria bi aldiz

jaso zuan, da errez jaso zuala iduritu zitzaigun guri. Eun da larogei ta zazpi kilo ta erdi pisatzen ditu amabost arruako arriak, eta agure zarrentzat pisu aundiak dira oiek.

Korrikalariak ere baziran. Segururik ez nuke esango zein ziran, baña bat beintzat Ataungo Aierbe izan bear zuan.

Guk ere egin genduan geure saioa, bertsolariak. Pesta ikusgarria egin zan, da jendea ere ondo zan Azpeitiko zezen-plazan.

Beste batean, berriz, gerra aurretik gogoratzen zait pesta izugarria egin zala Azpeitin. Gu an giñan orduan ere. Txapel, Zepai, Basarri ta ni giñan bertsotan eguardian, bazkaltzeko denboran.

Bederatzireun lagun giñan bazkaltzen Azpeitiko berdura-plazan, eta Azpeitiko taberna danetatik serbitzen zuten bazkaria. Ura zan lagun-arte! Ura zan ango umorea!

Nik ez det sekula ainbeste jende ikusi erabat bazkaltzen, militarrek izan ezetan. Gudariak bai iñoiz, baña bestelakorik ez. Ikusi egin bear zan ura, gero kontatzeko.

Kapeak artuta jarri giñanean, egin genduan bertso-saioa. Orduantxe genduan, ba, guk geure bolara; Basarri ta Zepai oiek lenagoko urtetik, baña ni urte artan egin nintzan bertsolari, eta orduan, atzekoz aurrera botata ere, dana ona zan. Ta antxe Zepai, Txapel, Basarri ta ni, lau bertsolari giñan gu, an jardun giñanak.

Gero, an saio bat egin eta zezen-plazara joan giñan. Bederatzireun gizon bazkaltzen egon giñanak, eta beste zenbat izango ote ziran arratsaldean etorri ziranak? An ikaragarria preparatu zan.

Orain ez nintzake batere arrituko, ba-koitzak kotxe bana jendeak daukan ga-



rai onetan, jendea juntatzea ere; baña orduan nik ez dakit zer da nola etorri zan ainbeste jende.

Lenengo, aizkolariak egin zuten; lau aizkolari. Egundoko sokatirak ere baziran. Azpeitikoak talde bat, eta Oiartzun-goak bestea, eta Ernanikoa, eta orrela aterra ziran.

Ange jendearen ujuak, bakoitzak bere alderdikoari! Ezin bentzitu alkar, eta an ziran angoak!

Azpeitiarrak eta oiartzuarrak gelditu izan bear zuten atzenerako, besteak eliminatuta. Eta oietan bietan ez dakit zenek irabazi zuten, aspaldiko kontuak dira ta.

Guk ere egin genduan gure saioa. Andoingo Etxeberria zana ere etorri zan arratsalderako, eta bost bertsolari juntatu giñan.

Esatekoak esan giñuzen guk ere. Gaia naikoa bazegoan egun artan. Jendea agurtu ta bukatu genduan gere saioa.

Egun artan Urolako trenak bazuan estimazioa. Orduan etzan ezagun kalean kotxe geiago zegoanik, baña trenak ibiltzen zuten orduan jendea.

Azpeitin orrelako pestak asko ikusi ditugu. Ez orrenbeste jendekin, baña askotan orrelako zerbait izan oi da. Danak ez dago esaterikan; bukatu egin be arko eta agur, Azpeiti!

# Tolosa

**M**ILLA ta bederatzireun da berrogei ta bostean izan zan Tolosan bertsolarien txapelketa bat. An giñan gu ere. San Migel biaramona zan, Agorraren ogei ta amarra.

Bezperan Laurgaiñen giñan Basarri ta biok, ango pestak ziran, ba. San Migeletan egiten dituzte aiek pestak, laurgaindarrak.

Ezin esango zuan jendeak ondo deskantsatuta joan giñanik. Entrenatu berriak joan giñala esaten al zan. Baña gaba geiena an pasa genduan bertsoan, da Basarri joan zan etxera ta ni bertan lotarra gelditu nintzan.

Tolosara nundik joango ote nintzan, da Aiako Olaskuagaiko Mariano zanak, berak eramango niñula motorrean esan zidan; da goizean lo piska bat egiteko nik geiago, eta bertara etorriko zala Laurgaiñera. Ala, Tolosara joateko kezka kendu nituan.

Baña beste kezka bat bazegoan burutik kendu ezin zana: Tolosako txapelketa. Ori ezin aztu zan iñola ere. Oian maikiña bat buelta egin nuan, baña ura beti buruan.

Alako batean etorri zan gure Mariano ori, ta bere motorrarekin. Ogei ta zortzi urte dira, ta orduan etzuan edozeiñek motorra ere; oso konta-alak zuten

orduan. Arek artu Laurgaiñen, eta Aian egon giñan piska baten Armendian-edo.

An ostatua zan orduan; antxe egin genduan gosari piska bat, eta trankilidade ederrean joan giñan Billabonara.

Ni ara eraman niñuna ere il zan gizarajoa, ta zeruan gerta dedilla.

Tolosan genduan txapelketa, baña arratsaldean gendukan; eta bazkaria Billabonan. Juanito Atxukarrok organizatzen zuan, ba, txapelketa. Billabonan taberna zeukan Atxukarrok, eta aren etxean bazkaldu genduan bertsolariak danak eta juradukoak, eta beste kurioso asko, gure bertsoak nolakoak ziran entzutera joanak.

Juradukoak iru izaten ziran orduan: don Benantzio Rekalde, Donostiko albaiteko edo beterinarioa; don Antonino Pagola eta don Domingo San Sebastian. Aiek ziran orduko juradukoak; eta, bazkaldu genduan, don Benantziok eman zizkigun kontseju batzuk. Oraindik ere gogoan dauzkat aietatik batzuk.

An egin genduan bertso-saio bat, eta koparen bat edo beste artuko giñuzen; Tolosara joateko tren bear, da trenean berealaxe joan giñan.

Zazpi bertsolari giñan: Zepai, Astea-suko Batista Kortajarena, Saiburu edo Lujanbio, Mitxelena, Pablo Zubiarrain *Ernani-Txikia*, Basarri eta ni, Uztapide.

Tolosako pelota-lekuan genduan txapelketa ori; danak araxe juntatu giñan, eta igo genduan an eginda zeukatzen saipai artara.

Lenbiziko agurra egin genduan danak bueltan; gero ofizioak, juezak jarrita. Artan ere egin genduan al genduan bezela. Gero puntuak jarrita, danai banan-banan bueltan eta bakoitzak al zuana egiten.

Ala ari giñala, Zubeltzu-zar bertso-laria or ikusten det, neri txaloka ari dala. Nik bertsoa botatzen nuanean, erdi ipurdikoa bazan ere, egundoko txaloak jotzen zituan orrek; eta beste iñori etzion jotzen arek txalorik. Nere baitan:

–Danok etzeduzkat nik emen kontra!

Ura piñ ari zan neri laguntzen. Bertotan nik egin bear, baña plazako jendea norbere alde izan edo kontra izan, bada aldea. Jendea bere alde dagoala ikusita koan, danai eragiten diote piska bat; eta zenbaiti, berriz, asko.

Pasa zan ango txapelketa ere, eta jendea agurtu genduan beste bat arte. Sariak jaso bear zirala eta gu an geunden zeññentzako izango ote ziran zai; eta juezak, berriz, an ari ziran beren suma ezin eginda.

Alako batean jaikitzen da don Benantzio Errekalde, ta lenbiziko saria Basarrirentzat zala, ta bigarrena Uztapide-entzat; irugarrena, Mitxelena; eta laugarrena, Pablo Zubiarrain, Ernani-Txikia.

Era orretan banatu zituzten sariak, eta saririk etzuanai ere gastuetarako-edo zerbait eman zitzaioten.

*Caja de Ahorros*-ek bazeukan beste erregalo bat, bera famatu eta bizio txar-rrak gorrotatutuzten zituanarentzat. Auetxek dira Basarrik eta nik orduan kantatutako bertsoak:

Basarrik:

Euskaldunaren pama da beti kristau langilliarena,  
izen on orrek poza aundi bat biotzera dakarrena;  
joku ta apustuz gañezka gabiltz,  
erari geitxo barrena,  
nere ustetan au da errian biziorikan txarrena.

Uztapidek:

Gorroto izan bear genduke bizio txarrentzako,  
ez det esaten gose-egarriak lanian ibillitzeko;  
jokua eta erari asko txarra da gizonentzako,  
uste ez dala kalte aundiak ekartze'itu zartzarako.

Basarrik:

Bide onari eutsi daiogun eta txarretik aldegin,  
geren lanetan zintzo jarraitu bertan artuaz atsegin;  
gazte sasoiko geran artian txanpon-mordoska bat egin,  
gero burua zuritutzian damurik izan ez dedin.

Uztapidek:

Erreparatu zazute ondo jarriko detan puntuan,  
kristau izatia nola dagon gorputzen mobimentuan;  
jokua eta erariakin ibilli arren kontuan,  
biziorikan txarrena dago seigarren mandamentuan.

Gerra ondoren lenbiziko izan zan txapelketa auxa zan, da Tolosan izan zan.

Nik bi egun pasa nituan bertan. Beste iru lagun banituan nere auzokoak, eta laurok bi egun pasa giñuzen Tolosan. Ederki zebratu genduan konkurtsoa. Lengusu batzuek genduzkan tabernarekin Tolosan, eta gu antxe egon giñan atsedenean, bezperako sustoa pasa arte.

Gero, bezperako iru lagunak an neuzkan, eta tasi bat artu genduan eta joan giñan geure errira.

Beste batean, Basarri, Xalbador, Matin da ni joan giñan Tolosara bertsotara. Frontoian kantatu genduan. Bertso-saio bat egin genduan bakarrik. Etzan txapelketarik orduan. Ondo txalotuak izan giñan. Tolosan zenbat aldiz izan geran ere, ez daukat gogoan.

Beste batean izan giñan *Iparragirre* antzokian ere. An Lizaso azpeitiarra, Azpillaga, Basarri ta ni, Uztapide. An gaiak emanda jardun giñan.

Tolosan urtean bitan geienean izaten giñan: Eguberri bigarrena eta Pazkoa bigarrena izaten ziran Tolosako jaiak; Pazkoa bigarrena beti jai nola egiten dan, jendea biltzeko ona izaten da, ba. Eguberri bigarrena ere bai. Orri begiratuta egiten zituzten pesta oiek. Orain asko utzi zaio pesta oiek egiteari ere.

Agerre arri-jasotzalle zanak ere egin izan zuan zezen-plazan. Aizkolariak, Astibia ta Arria bigarrena aurrez aurre; korrikalariren batzuek, eta gero gu bertso-tan.

Gu ez dakit zein giñan ere. Manuel Lasarte eta Jose Lizaso beintzat an ziran, eta ez naiz gogoratzen bestea, laugarrena, zein zan. Lau bertsolari giñala, bai, badakit.

Aizkolariak egin zuten pesta ederra. Ez dakit zortzi kana erdiko ala amar ziran bakoitzarentzat. Alakoxeren bat zi-

tuzten, da iru edo lau golperen aldea zuten atzenean.

Zepai zanaren omenajea ere antxe izan zan, *Iparragirre* saloian. Bertsolari-sail aundia giñan orduan ere. Baña omenaje tristea zan ura. Bat bizirik dagoan arte egin bear litzake omenajea; baña beti ez da orretarako erarik izaten, da al danean egin bear.

Beste batean pelota-lekuan egin zan bertsolari gazteen txapelketa bat, eta an juntatu ziran bertsolari-mordoska bat.

Gu ere antxe giñan ikustera joanak. Aitagiarreba zana-ta joan giñan emendik. Orduan etorri berria nintzan onera, Oiartzuna, eta gu ere joan giñan iru bertsolari: Zuluua zana, nere aitagiarreba, ura ere zana, ta ni, antxe geren komentariak egiten.

Parra naikoak egiñak baziran, Iñaki Alkaiñi ijitua jarri ziotenean. Oien ofizioa jakiña izaten da: arrapatzen dutena berentzat. Astigarragako Berasarteri astoren bat paltatu omen zitzaion, eta biak jarri zituzten alkarren kontra. Bazan naikoa zer esana bien artean.

Egin zituzten beren saioak, eta gero juzkatu egin bear; zein izango ote zan aurrena eta Astigarragako Berasarte; eta bigarren, berriz, Lazkao-Txiki. Orixe izan zan ango juraduaren erabakia.

Beste batean, berriz, *Cine Leidor*-en beste eliminatoria bat txapelketa nagusirako. Orduan ere juntatu ziran gazte-kuadrilla bat. Aiek ere egin zituzten beren saioak; eta neri, egia esan, Gorrotxategi gustatu zitzaidan. Eta ura ala atera ere.

Nik lenbiziko aldiz ikusi ere egin nuan, baña errez egiten zuan arek. Orrela gazte bat saio bat egiten ikusten bada, antza ematen zaio.

Gero zer da eta Berrobiko Garmendia lenbiziko, eta Gorrotxategi bigarren. Orrela izan zan juraduaren erabakia. Gero biak joan ziran Donostira txapelketa nagusira, Garmendia eta Gorrotxategi alegia.

Beste batean, Urtain bozeolari ori Tolosako zezen-plazan jokatu zan arri jasotzen; esku bakarrarekin onenbeste aldiz jaso baietz eun kiloko arria. Ez dakit zein zuan kontra, baña errez irabazi zuan.

Gu ere antxe giñan bertsoara joanak, Azpeitiko Lizaso eta ni. Orduan ere tartetan egiten genduan. Amar minutuan arri jasotzen egiten zuan arek, eta kera. Orduan gu asten giñan. Bi edo iru saio egin giñuzen, eta libratu giñan orduan ere.

Atzeneko aldia uraxe izango zan: San Blasko eleizatxoaren ondoan izan giñan. Arrezkero ez det uste izan geranik Tolosan. Manuel Lasarte eta biok izan giñan orduan. An etzan publikoan egin bearrrik. Maian bakarrik egin genduan bertsoan.

Uraxen da leku zoragarria! Tolosaren gain-gaiñean dago San Blasko eleizatxo ori, ta egualdi ederra zan da andik ederki ikusten ziran Tolosako inguruak.

Antxe eguna ederra pasa genduan. Eliz-pean bazkaldu genduan, zimitorian, eta iru edo lau saio egin giñuzen bazkalduta, eta errez libratu giñan. Gero eguna bukatzera zijoan eta agurtu giñuzen: "beste bat arte!" esan da etxera etorri giñan.

# Jaioterria

**J**AIOTERRIAGATIK zerbait idatzi nai nuke eta ez dakit nundik asi. Ez dakit nungoa naizen ere, eta orregatik ez dakit nundik asi.

Arruan bataiatua naiz; gure gurasoak esan oi zutenez, Arruan kristau egiña. Arruak badu, beraz, parrokia, baña aiuntamenturik ez.

Eleizako lanak beti Arruan egin izan giñuzen; konparazio baterako, lenengo komunioa eta konfirmazioa eta orrelako gauzak.

Baña aiuntamentuko lanak Zestuan egin bear; konparazioko, kinto giñanean, tallazioa Zestuan izaten zan, da orrelako gauza asko erriko etxean egin bearrekoak.

Batez ere etxeko buru baldin bazera, izango dezu errian batentzat lana. Ni ez naiz izan beñere Zestuan etxeko buru, baña ala ziranak ikusten nituan nola zebiltzan.

Bein batean, Arruako bikarioak esan zidan ez lotsatzeko Arruakoa nintzala esaten, Arrua erri txikia zalako. Don Joakin Arostegi zan au esan zidana; Arruako elizan jaioa nintzala ni-ta Jaungoikoaren aurrerako. Gaur ere orixe da Arruako bikario.

Ni, egia esan, ez naiz, ba, erri aundien alderakoa; erri txiki batekoa naizela esaten lotsatzen naizen oietakoa. Baña bein asi nintzan, or bertsoan nenbillela-eta, Zestuakoa nintzala esaten, da arantxe jarraitu.

Oiartzunek ere baditu zortzi ballara edo zerbait, eta errian bertan esaten al du batek Altzibarkoa dala edo Iturriotzkoa dala; baña, bein erritik atera ezkerro, Oiartzungoa dala esango dute danak, naiz-ta ballara batekoa izan.

Eta, gudaritzan edo soldadu tokatzen bada, berriz, bein Burgosera ezkerro, Donostikoa ta kito.

Emen Oiartzungo ballarak ez daukatena, badu gauza bat Arruak: parrokia. Emen, Oiartzunen, ez dago ballaretan eleizarik; erriko parrokia bakarrik.

Zestuan badauzkazu, Zestuako partean, Arrua-goia, Arrua-beia, bi; Aizarna, Iraeta, Ibañarrieta, Endoia, Santa Engrazia, Lasao, San Juan; oteletan da nunai badira kapillak, eta Zestuako parrokia bera. Bederatzi eleiza eta gañera kapillak; eta abitantez ez da Oiartzun baño asko geiago izango.

Lenago aitatu degu Arruako bikarioa, don Joakin Arostegi. Nik onoko bertso au bota omen nion. Zerbait eleizako jaiak

ziran: ez dakit zer jai ziran, esateko, orain.

Gu, Basarri ta biok, an ari giñan bal-koi batean bertsotan, da Arruako bi apai-zak an zebiltzan gure aurrean plazan, don Joakin Arostegi ta don Juan Txiki. Atzeneko onenik ez dakit beste abizen-ik; *Txiki* esaten beti oituta gaude eta barkatu dezala.

Basarrik zerbait aitatu omen zuan bi-karioa, eta nere orduko erantzuna:

Gure don Joakin aitatutzian  
ni jarriko naiz seriyo,  
era ontako gizon batekin  
batere ez da misterioyo;  
egun batian erri txiki oni  
artu zion amoriyo,  
obispo bear lukena dago  
Arruako bikariyo.

Arruako Zugazti-aundiko Julianek emana da au, bertso au, eta ez du izan-go oker aundirik.

Arruan egun-pasa asko egiñak gera gu; ta gure aurrekoak geiago, berriz,

Batean, Arruan, egun-pasa egin jai-an eta astelen-goizean bai omen zijoan *Agerre-Malua* esaten zioten zelebrea bat Aitubeko atarian bera, eta Aitubeko aitonak esan omen zion:

–Ara emen Malua ere! Au ere Itziar-ko Ama Birjiñak seme ederra bota zuan mundura, da orain Arruako Amandre Santa Anak mantendu bear!

Maluaren erantzuna:

–Bai; errixan pare bat danean izaten dituk onelakoak: Itziarren ni ta Azkue gaituk, eta Arruan i ta Errexill!

Orixe erantzun da aurrera jarraitu omen zion gure Maluak. Len ere esan det eta oso zelebrea izan bear zuan onek, gizon onek.

Beste batean, berriz, Itziartik Arrua-ra korrika-apustua omen zan jokatzekoa. Lekunberri ta Zakillu omen ziran jokatze-koak.

Atzeneko onen izena, or bada Zaki-llu-buelta esan oi zaiona: Arruatik Irae-tara, andik Soaitzenera, Oikiatik Lar-rondora, eta atzera Arruara; ori da Zakillu-buelta. Or jokatua izango zan noizbaiten Zakillu ori. Ortik etorriko zi-tzaion izen ori.

Esan bezela, korrikariak juntatu omen ziran izendatutako ordurako, eta baita Agerre-Malua ere; an omen zan korrika asi bear zuten arraian, eta beste bat Pat-xiko Txiki esaten ziotena.

Eta abitu omen ziran korrikari aiek Itziar-ko Gaintzatik. Erriaren parean, kamio jeneralean dago Gaintza ori. Berea-la gorde omen ziran an bista aietatik.

Orduan Patxiko Txiki orrek esan omen zion Maluari:

–Aizak, i, Malua: oiek berealaxe ez-kutatu dituk, eta orain guk biok jokatu bearko diagu! Gu ikusiko gitxetxik pis-ka baten!

Eta aotik atera bezin azkar erantzun omen zion Maluak:

–Auntza arrapatu ezin duan gizona-rekin ez natxiak ni saltaka jokatzera!

Ta Patxiko Txikik orduan:

–Arraioa! Pronto eukan!

–Bai! Zoroen memoria ta lertxunen ostoa sekulan ez dituk geldu egoten.

Patxiko ori auntza arrapatzen jokatua izan, da arkaitzetan ibiltzen pizkor amorratua. Auntzak, apustu eginda, arrapatu ere askotan egiña, baña bein arrapatu gabe gelditu, auntza gaiztoa tokatu-edo. Eta Agerre-Maluak ori jakin eta bai aguro erantzun ere. Toki ederre-an asi zan ura toriatzen!

Patxiko Txiki zerbait gure parientea zan: gure amonaren kuñadua; gure amonaren aizpa zuan andrea orrek.

Nik ez nuan ezagutu Agerre-Malua; gure aitari adituak dira oiek. Patxiko Txiki, bai, ezagutu nuan.

Malua etzan Donostira askotan etorriko; baña bein etorria izan bear zuan, da or ere badu gertaera polita gertatua.

Kontxako ur-eskiña artan bai omen zebillen aruntz eta onuntz. Uretan ere bai omen zebiltzan an batzuek, eta gañetik begira ere bai jendea pranko.

Eta pentsatu omen du gure Maluak salto egin bear duala uretara; jende asko zegoala ta aterako dutela, ta baita egin ere. Salto egin omen zuan, baña gero atera ezin, ta an omen ziran komeriak!

Jendeak, uretara saltatu zanean, igarian jakingo zuala usteko zuan, da lenbizitik utzi egin omen zioten da uren azpira gure Malua.

Eta bildurtu omen ziran an ziranak danak; eta, urrengo gañera atera zanean, bereala eskuak erantsi zizkaten eta atera omen zuten uretatik.

An atera zutenean, silla batean-edo jarri omen zuten, eta an aldamenean bai omen zegoan andre bat ondo jantzia, eta arek esan omen zion:

–Igarian geiago jakin ez ta gizonak bere burua putzura bota!

–Uretan sartu gabe ikasiko al niñanen, ba?

–Neri susto ederra eman didazu beintzat!

–Nik aundiagoa artu diñat!

–Eroa izango zera zu! –esan omen ziran andreak.

Eta:

–Bai; ala esaten diñe danak!

Garai artan lurrak laiaz iraultzen ziran; da Malua, gizarajoa, etxez etxe ibiltzen zan oietakoa izan bear zuan, da Mendaroko Sarobe basarrian tokatu omen zan, laiariak ziran batean.

Gosaltzera joan omen ziran, da etxe-ko andrea an ari zan taloak egiten. Jarri omen ziran gosaltzeko laiariak, eta Malua aspaldi artan naikoa jan gabe egongo zan, da taloa jaten omen zuan arek, gustoa emateko moduan.

Etxeko andreak esan omen zion orduan:

–Aizak, Malo: ik jan bear dek nik egin-ala talo!

–Esnea naikoa eman baianen, batere ez niñanen jango!

Beste bat, Ilario izenekoa ere, bai omen zan oso zelebrea, gauza guziak aldrebes, atzekoz aurrera, esan bear zituan oietakoa.

Urte batean intxaurra asko omen zuten, baña batere ez omen ziran baliatu: danak txerriak bota ta aizeak jan omen zizkieten.

Artaldean zeukan ardirik onena ere, datorren bi illabete onetan palta zuan; da, ia etsia artu zuan garaian, etzi azaldu zitzaion. Siñalea ere bazuan, ba, ain zuzen: atzeko belarrien aurretik koska.

Beste batean orbeletara joan omen zan gurdiarekin; bei-parea ere bai, gorri-gorrixak, biak ama-umeak eta biak edade edo adiña batekoak.

Kargatu omen zuan gurdi orbela, bai omen dijoa etxera, eta beko bidetik goikora itzuli omen zitzaion gurdi orbela, eta an omen ziran komeriak, nola jasoko ote zuan. Osorik jaso omen zuan orregatikan ere.



Nolanai ere etzan izango Ilarioen gurdi orbela: larogei arrua, batere ez dakit baña.

Gurdia atzera jaso omen zuan, baña gurdi gañean zuan aizkora galdu. Goiko bidean dana sasia omen zegoan, da egiñalak egin da ezin billatu omen zuan.

Sasiari su ematea pentsatu omen zuan, eta baita eman ere. Aizkora an erre omen zan, baña kertena azaldu orregatikan.

Gurdia itzuli zitzaionean, gurtorea autsi ta kabilla eten omen zitzaizkion.

Arrua ez da erri aundi bat; ballara koskor bat. Baña bertsolariak eta duntziñeroak eta orrelako gauzak erriko pestetan ekartzen zaleak izan dira.

Zubeltzu-zar izan oi zan geienean bat, Prantzes-Txikiarekin, Txapelekin, Orioko Exkelarekin edo orrela. Gu mutil koskorak giñan garaian, oietxek ziran ango bertsolariak.

Beste batean, gogoan daukat, errenteriarrak, Telleri-Txiki eta Pello Zabaleta ere izan ziran.

Gero gu ere izaten giñan. Zepairekin ere bai ta Basarriekin ere bai. Batean, gogoratzen naiz bero galantarekin izan giñala Basarri ta biok. Etzan eguna motza joan. Itzalean ere dana bustita, eta uraxen zan penatzea.

Duntziñeroak ere askotan izaten ziran Santa Anatan Arruan. Urrustilko *Xaxurra* askotan etorri oi zan bere lagunakin. Duntziñero ederrak ziran aiek.

Bizkaitar bat ere bai; batean etorri zan. *Galdakano* esaten zitzaion ari. Ura, bakarrik etorri zan. Asi zan duntziña jotzen Arruako plazan, eta an laguna egokitu zitzaion, berak uste baño ohea: Usarruako Bitorio zana, mutil gazte bat.

Usarrua ori Itziarko partean dago, baña Arruara ez da asko urrutiago egongo. Santa Ana pestetan beti etortzen ziran aiek Arruara, eta orduan ere antxe egokitu zan.

Galdakano ori an ari zan jo ta jo, ta beste gazte ori ere, piska baten begira egon ondoren, inguratu zitzaion bere ondora. Izketan egon ziran biak eta or asten dira biak alkarrekin jotzen. Jendeak ura poza, ni aurrena nintzala!

Baña nola jotzen zutela uste dezu? Ura zan ederki jotzea! Biak zeñek baño zeñek ederkiago. Usarruak altutik eta Galdakanotik bajutik, an plazan egin zuten saio luze bat; eta, martxa joaz, erretiratu egin ziran.

Basarriaren andrearen anaia zan ori, Usarruako gazte ori; Basarriren kuñadua.

Arruako gizon batek esaten du, indarrak aren etxetik bixtan daudela: *Iberduero*-ko indarrak onak dirala, baña oiek ere ez omen dira txarrak: Endañeta Itziarko partean dago, baña Arruatik histan; Urtain ere bai; eta Ostolatza, berriz, Arruako kalean. Oiek danak etxetik bixtan dauzkanak, zerbait esan lezake.

Beste bat, *Diabru* esaten dioten bat, bada Arruako semea; orain aspaldian Azpeitian bizi da baña. Arruako konturik aitatu ezker, bereala esango dizu arek bi trenbide dauzkala Arruak, eta bi estazio; eta Gipuzkoan oso erri gutxi dirala bi trenbide dauzkatena.

Zestuan Ama Birjiña Agorreko egunean egiten dira pestak; Agorraren zortzian.

Ez da beñere bertsolaririk egin izan. Urte-garai txarra izaten da Zestuan bertsolariak egiteko. Uda-zaleakin bete-betean egoten da orduantxe, eta aiek ez

dute bertso bearrik. Ulertu ere ez dute egiten; askok nai ere ez, gañera.

Erriko jendeak ere al duan guzia aierri nundik ondo egingo, ia urrengo urtean ere etortzen diran eta txanpon batzuek utzitzeko modua egiten duten.

Bakoitzari dirua nundik etortzen zaion, araxe begiratu bearra dago. Ala ere izaten dira naikoa lanak.

Zestuako Ama Birjiñetako pestak, zezenak eta pelota-partidua eta musika izaten dira. Musika-banda errian bertan dago. Oiek dira jakiñako pestak Zestuan.

Badira beste egun batzuek ere pestak egiten diranak Zestuan: Santa Kruz eguna, Maiatzaren iruan. Orduan joan izan giñan Txapel, Zepai eta irurok; batean beintzat izan giñan.

San Jose egunean ere bai urtea pran-kotan; orduan maristak ziran, ba, eskola ematen zutenak, eta erri guzia gelditzen zan bazkaltzen. Egunderra izaten zan ura.

Zestuan orain ez da maristarik; aldegin zuten.

San Jose egunean Basarrirekin eta beste askorekin ere izan nintzan; Manuel Lasarte eta Jose Lizasorekin eta danakin izaten giñan.

An bazkalondo ederra izaten zan. Eskolan ibiltzen ziran umeen aitak eta orrela izaten ziran. An berreun bat lagun izaten ziran orduan bazkaltzen, da danak bertsoa gustatzen zitzaietenak.

Beste gañontzean ere pesta egin oi zan: edo dantzari txikiak-edo, arri-jasotzalleren bat-edo, beti izaten zan zerbait. Ori dana kolejioko patioan izaten zan, bazkal aurretik.

Bazkaria ere bai gero kolejoan bertan. Egunduziko pesta egoten zan an.

Gero, illunabarrean, andik ateratakoan, Zestuako tabernetan buelta bat emango genduan, da trenera.

Andik onera ere denbora bear izaten zan; eta, garaiz ateratzen bagiñan, garaiz etxeratuko giñan. Goiz erretiratutako penarik nik ez det izan beñere; berandu etxeratua, bai.

An soziedadea ere bada, eta ara ere joaten giñan bertsotara. An Jose Lizasorekin izan nintzala gogoan daukat.

An Maiatzaren bian, gabeen, aparria izaten zan, Santa Kruz bezpera; eta Santa Kruz egunean, gurutze bat badago an erriaren bazter batean, aurrean zabalune bat duala, eta antxe egiten zan pesta. An ere atzeneko aldiz Jose Lizasorekin izango nintzan.

An goiz ta arratsalde egiten da pesta; bertsolariak ere, arratsaldean, antxe egiten genduan gure saioa.

Pelota-partidua ere jokatzen da an. Txikito Iraeta ere ikusi izan degu bere buru zuriarekin. Zartuta ere erriari ezin ezetz esan, eta antxe joaten zan ura, eta an gazte askori lanak eman gañera.

Esaera bada, len ona izan danarekin, piska bat zartuta ere, bildur izateko. Eta ez da esaera bakarrik, izaera ere bai.

Nik poz bat daukat, aundia gañera: Zestuan atzena kantatu nuala, Maiatzaren bian, soziedadean, *Gure Txokoa*-n. Antxen atzeneko aldiz kantatu nuan.

Apirillaren ogei ta amarrean, Anoetako pelota-lekuan, ezin kantaturik arkitu nintzan. Erdi lanetan deskantsuan geundela, zerbait sentitu nuan; da, urrengo nere txanda etorri zanean, ez nuala kantatuko ezergatik ere.

Azpeitiko Jose Lisaso bertsolariak ekarri niñun etxera, bere kotxean artuta.

Sendagillea ekarri genduan eta ainbesteko garrantzirik etzion eman. Zer pasatu zitzaidan garbi esan nion, baña etzidan bertsotan ez egitekorik esan.

Ni ordurako Zestuako abisoa artuta nengoan, da Maiatzaren bian joan egin nintzan Zestuara bertsotara.

An beti bezela jardun genduan bertsotan, bertako gazte batzuekin: Lilibe, Basakarte eta nere besoetako illoba bat. Aietxekin jardun nintzan, eta ez nuan ezer ere sentitu.

An iru edo lau saio egin, beti bezela, eta anaiaren etxean lotan gelditu nintzan.

Biamamonean anaiak egiñalak egin zizkidan, egun artan pesta zegoala berriz ere eta bertan gelditzeko; ia beti lana bakarrik egin bear al nuan.

Atzera nik erantzun nion lanerako ere ez nengoala bapoa; baña ortarakoxe aña beste ezertarako ez nuala balio.

Beintzat, nere atzeneko bertso-saioa egin Zestuan eta etxera etorri nintzan. Anaia ori Zestuan ostatuarekin dago.

Orrelako aundirik gabe badakigu Zestuako tabernetan denbora pasatzen, iñoiz perira etorrita gu: meriendatu eta lasai kape bana edo bina artu ta bertso-tan. Edozer gauza jan edo edan egiteko bildurrik ez, da etxera joateko batere kezkarik ez.

Gero aberatsak esaten da. Gu giñan aberatsak orduan! Serenoak irugarren al-dian tabernako atea jo arte gu ateratzea etzan erreza izango. Noizbaiten joango giñan etxera eta etzango giñan, da naikoa loa egin arte etzigun iñork kasorik egin guri.

Ta, bein naikoa loa egiten genduanean, guk ez genduan lana iñork agindu bearrik; etxeko nagusia bezela saiatzen giñan.

Omenaldiak ere egin zizkidaten Zestuan bi alditan ere. Batean emendik joan giñan ogei ta zortzi edo bederatzi lagun autobusean mezetara.

Meza nagusia eman zuten; eleiza batean zan jendea. Sermoi ederra ere egin zuten, eta oso eleizkizun bikaña izan zan.

Gero, eleizaren ondoan dago zinea, eta an bertso-saio bat izan zan an ziran bertsolariakin, eta gero bazkaltzera Al-korteaeneko otelera.

Ura bete zan geiago ezin zitekean moduan, sardiñak latan bezela: an etzegan bat geiago sartzerik. Eta bazkaldu egin genduan.

An, kape-denboran, bazan naikoa bertsolaria. Bordarik esan ere egin zuan-da, perretxikoak bezela sortzen zirala an bertsolariak; ta alaxe zan, izan ere. Lenengo, artara joanda zeudenak egin zuten saio bat; eta gero asi ziran tartean nunai sortzen bertsolariak, eta andik aurrera etzan bertso-paltarik.

Aitona zarrak ere danak bertsotan: Segundo Errekaldekoka eta gure aitagiarrera ere bai. Biak illak dira aiek ere. An ez dakit alkar billatu duten edo bertso-tarako moduko lekurik badan.

An ala ibilli giñan; eta, orduantxe garaia zala pentsatu genduanean, artu autobusa ta etxera etorri giñan.

Gero, txapeldun atera nintzanean, berriz egin zidaten omenajea. Orduan ez genduan autobusik eramanean. Zestuatik etorri zan kotxea eta antxe joan giñan. Bertsotan Jose Lizaso, Manuel Lasarte eta Jose Agirre ziran. Oso ederki egin zuten gañera. Kontzejuko balkoitik egin zuten, eta oso txalotuak izan ziran.

Orduan ere Alkortaren otelean bazkaldu genduan. Jendea kabitu ezinda zan, eta umore ederrean pasa genduan.

Guk aitagiarreba *Residencia*-n gendukan, eta aren kezkarakin etxera garaiz etorri giñan. Andik bi egunera il zan gure aitagiarreba. Zeruan gerta dedilla.

Gu etxera etorri giñanean, neretzat antolatutako pieza bat bazuan ango musikako direktoreak, eta uraxe joaz agurtu giñuzen.

Ondorean, Arruan egin zidaten beste omenajea, an ere meza nagusiarekin asita. Plaza barreneko Jose Manuel zegoan alkate, eta arekintxe joan nintzan mezetara.

Bertsolariak, berriz, bat Lazkao-Txiki zana badakit, eta ortik aurrerakoak ez dakit zein ziran ere; aztuta daukat.

Eguardian bazkaltzera soziedade batera joan giñan, eta oso lagun-arte alai pasagenduan, erriko iru apaizak aurren zirala.

Erriko bikarioak egin zuan itzaldi bat: eta, Arostegi jauna serio asten danean, oso gutxik eramango diote ari itzegiten.

Arrua erri txikia ta pobrea zala esan zuan, baña borondatea bazutela aundi baten ainbeste; erregalo txikia zala, baña erri guztiaren biotzak antxe zeudela relojuarekin batean.

Arek esan-nai aundia zuan, itz arek: urrezko reloju bat eta biotzez emana.

Egun ederra pasagenduan an ere, eta betiko etzan ura ere eta ari zan bukatzen, eta etxera etorri giñan.

Atzanean Uztapiden, nere jaiotetxean, an ere egin bear zidatela, ba, eta beste lekutan danetan egin zidaten ezkeru.

An ere mezarekin asi giñan. Arruakodon Juan Txikik meza eman zuan eta itzaldia ere berak egin zuan. Gaurko omenajeak duan parterik ederrena meza zala esanez asi zan itzegiten. Uztapideko etxearen ondoan dago eleiza, eta meza antxe eman zigun. Meza entzun genduan eta gero bazkaltzera.

Bazkalondoan, Basarri eta Lopategi an ziran eta bertsoak kantatu zituzten, egunari zegokion bezelakoak, eta bapo.

Eunen bat lagun bagiñan an ere bazkaltzen; asi Eibar-tik-eta etorri ziran.

Eibarko Untzeta ere antxe zan. Ura-xen da gizona! Beti basarririk basarri; ta Eibarren dan aberatsena zala esan izan zuten, lenago beintzat, eta orain ere ez da izango pobreena. Ferreteriak dauzka Eibarren.

Eguna pasa samartu zan da etxera abitu giñan. Orion apaldu genduan, *Toki-Alai*-n, emendik joanak bagiñan, ba, amalau edo amabost lagun. Danok an apaldu ta kapeak artu giñuzen; ederki geunden, baña etxera etorri giñan.

Bertso au Uztapideri botia da, an izan giñanean:

Ni bertsuetan asia nintzan  
oso motiko txikiya,  
eta aurrera jarraitutzeko  
artu nun erabakiya;  
noizik bein onuntz etorritzia  
oso gauza egokiya,  
zorianian ikusten zaitut  
ni jaio nintzan tokiya.

# Gipuzkoa

**E**RRI bakoitzari kapitulo bana egiten asi nintzan, baña onetan ez dago au bukatzerik. Lan luzea izango litzake; eta orain, aitatu gabe gelditzen diranak, danak segiran aitatuko ditugu.

Nundik asiko gera? Berastegitik asi bearko. Ogeitaka urtetan izan geran erri bat, nola utziko degu, ba, aitatu gabe?

Lenbizi joaten asi giñanean, Etxaberekin joaten giñan, orain dabillen orren aitonaekin. Berastegiko autobusak Etxabetarrenak dira.

Orain dabillen orren aitona il zan lenbizi; eta gero, berriz, aita. Aitona zartuta il zan, baña aita ez oso zartuta ere. Zerbaít gaitza izan zuan arek; gizon bikaña zebillen arte, egun batetik bestera ezkutatu zan. Gizon aundiak ziran ñiak, bai aitona eta bai aita.

Eta orain dabillen ori, gizon gaztea da oraindik. Zenbat edukiko ditu, ba, oraindik? Ogei ta amar urte, olakoxen bat idukiko ditu.

Berastegin ez degu pentsatu izan bertakoak ez geranik. Orrenbeste urtean bi egun pasa ditugu gutxienez, iñoiz iru ere bai, ta bertako egiten da bat. Gero, erri guzia ezagutzen dezu.

Ostatuetan ere konpianza aundia genduan. Ango Kakoren ostatuan da aie-

tan, ez genduan pentsatzen etxean ez geundenik. Makiña bat bider San Lorentzo bigarreanean txekorren gibela jan genduan; ostalaria eta arakiña da, ba, ura, eta pesta bigarreanean txekorra iltzen zuan jeneralean, eta guk gibela jango genduan.

Elduaíenen ere izan oi giñan Ama Birjiña Agoztukoetan. An ez dakit urte batean edo geiagotan zer izango giñan. Urte batean beintzat bi egun pasa giñuzela gogoan daukat.

Berrobin ere izaten giñan. San Agustíñetan izaten giñan an, Agoztuaren ogei ta zortzian. Garmendia ta Muñoa bertsolariak angoak dira, Berrobikoak. Ostalariak ere lengusuak ditugu, eta ara ere konpianza osoan joaten giñan. Beti ongi artuak izaten giñan.

Oreja beste erri bat. Ez dakit izena nola zuan gizon baten omenajea izan giñan an. Erri ori ere Gipuzkoan dago, Naparroako mugan. Erri txikia da ori. Manuel Lasarte, Jose Agirre, Lazkao-Txiki ta ni izan giñan bertsoetan.

Lizartza beste erri bat. Ori ere Naparroarekin muga egiten duala dago. An ere Ama Birjiña Agoztukoetan izaten giñan. Kasiano soñu-jotzallea angoa da. Zepairekin izan nintzan lenbiziko aldiz. Luzaro ez giñan berriz joan, eta azken alde onetara Manuel Lasarterekin; urte

batean edo bitan, ez daukat segururikan gogoan. Kasiano soñu-jotzalleak jarri zizkigun gaiak Lasarteri eta biori.

Alegrian ere izaten giñan. *Txintxarri* soziedadean edo partxondegian. An ere urtea prankotan izan gera. Lagun-arte ederra egiten genduan antxe ere. An ere Manuel Lasarterekin izaten nintzan.

Erriko etxeak ere eramaten giñuzen. Ez dakit segururik noiz izaten diran erriko jaiak, askotan ez gera izan da; Ama Birjiña Karmengo egunean edo orrelaxe izaten ote diran ere banago.

Itsasondon ere izan giñan batean, kinto-bazkaria zala-edo; ez dakit zeñen kapretxua izango zan. *Ingeniero de puertos y canales* edo oietako bat bazan an, da aren gogoia izango zan gu ara eramatea. Orrek ordaindu ere egin zigun gure lana. Sarasolatar oietakoa zan ori, ingeniero ori, lengo pizarreriko nagusi aietakoa.

Legorretan ere askotan izan gera. An Azentzio egunean izaten dira erriko pestak, eta urte baten izan giñan egun orretan.

Baña zubi ondoko ostatuan, zenbat aldiz izan ote gera, Jesus Eskisabelen etxean? Oraindik ere an nagoala iduritzen zait, aulki baten itsatsita. Jesus! Zer eseri-aldiak egin ote ditugu guk an? Akordatuta ere otz-ikara etortzen zait.

Jesus Eskisabel orreri *Jaungoiko Beltza* ere esan oi zitzaion, eta eskerrak ori denbora pasatzeko moduko gizona zanari.

Basarrirekin lagun aundia zan ori; ta batean, San Pelaiotan-edo, bazkaltzera gonbiratu omen zuan Basarrik. Oso berandu etorri omen zan, da zai samar jarririk.

Nun egon zan-edo galdetu omen zioten an zai zeudenak, eta len ere naikoa berandu bai omen zan eta aien andreak

txerriari azpiak ateratzeko agindu omen zion; orduantxe etortzeko asmoan zegoana, eta egin-egin bear ura ere, ta gero berandutu egin omen zitzaion.

Don Nemesio Etxaniz an omen zegoan, da arek esan omen zion ia *Jaungoikoa* izanda txerri-tokian ere ibiltzen al zan. Eta Jesusek, atzera, Jaungoikoa toki guzietan egoten zala ez al zekian artean, apaiza izanda, esan da utzi omen zuan.

Altzagan ere izaten giñan bertsotan. San Migeletan izaten dira an erriko pestak. Zepai ta biok izan giñan an lenda-biziko aldiz, da bi egun pasa giñuzen. Bigarren egunean eguardira arte etzan egoten estuasunik bertsoarako, eta Gaintzara joan giñan eizean egiñez.

An ere San Migeletan egiten dira pestak. Bi erri txiki alkarren ondoan daude Altzaga eta Gaintza, eta biak San Migeletan pestak.

Gaintzara iritxi giñan da bertsotan egin bear, ba, an ere. Zepai ura asten erreza zan, da egin genduan saiotxo bat.

Gu an bertsotan ari giñan bitartean, sukaldeko emakumeak ere gure bertsoari atentzio geiago edukiko zuten; da gurekin joan zan txakur batek, su gañean kazuelan zegoan ollóa atera kazuelatik, eta jaten arrapatu zuten. Piska baten konturatu ez balira, dana jango zuan da ura izango zan ederra.

Atzera Altzagara etorri giñan eta eguardiko saioa egin genduan.

Beste batean Basarrirekin izan nintzala gogoan daukat. Gau artako ixtoria Basarrik ere gogoan edukiko du; baña ez da papel zurian jartzeko modukoa ta utzi egin bearko det.

Gero asi giñan Gaintzara ere joaten, eta an ere askotan izan giñan. Erriko etxean izaten giñan jaten, eta saio dezentek egiñak gera an ere.

Batean Lasarterekin joana nintzan, eta dana eztarria katarratua gelditu nintzan. Eskerrak Lazkao-Txiki an zala; orrek egin zuan nere tokian arratsaldeko saioa. Nikasio da an Erriko Etxeko ostalaria.

Gaztelun ere izaten giñan. Ori ere Napparroako mugan dago. Zein egunetan izaten giñan ez daukat gogoan. Or Mitxelenarekin ere joan izan nintzan ara, eta gero Lasarterekin ere bai.

Ango alkatea Orixeren illoba zan, gu an izaten giñanean; Añorgako Aranalde apaizaren anaia. Orain ez dakit zein izango dan. Palankari ona zan ori.

Egun batean pelea ederra ikusi genduan: alkate ori eta Tolosako Iguaran, biak palankan, zein baño zein, Gazteluko plazan. Orrera Tolosatik joaten da.

Leaburu dago beste erri bat; Gazteluko bidean ezkerretara kamio batetik joaten da ara. An ere izan giñan batean Basarri eta biok. Meza berriren bat izan bear zuan. Ori ere erri txikia da.

An ere gogoan daukat beintzat apaiz asko zala, ta bazkalondoan kantuan asi ziran apaizak eta egundoko orfeoia an antolatu zutela. Oiek Aralarko artzaiak baño obetoxeago jakin ere egiten dute kantuan, da ez da batere arritzekoa.

Beste bat Belauntza dago, Tolosatik joaten dana. Erri txiki bat da ori ere, eta orrera ere joaten giñan. Orain Bedaioko arri-jasotzallea dago an ostatuarekin. Orren etxean jan genduan.

Emezortzi arruako arria bizkarrean jasotzen uraxe ikusi genduan Tolosan. Bera larogei ta bat kilo omen zan. Baña etzitzaidan batere gustatu orren arri jasotzea: noiz baño noiz arriak azpian artuko bildurrak egon nintzan. Etzuan nik nai baño lenago jaso bizkarrera, etziran izango segundo asko baña, pasa zituanak.

Bedaion ere izan giñan batean; erri-raño ez giñan joan, baña sagardotegiraño. An ere kuadrilla batekin izan giñan Zepai ta biok, eta saio ederrak egin giñuzen. Gabean lo eginda etorri giñan biaramonean.

Araman ere izanda gaude. Gipuzkoako erririk txikiena dala esan oi zan lenago, eta orain ere etzan asko aundituko ura. Baña erri polita da; kanpoze ere oso dotorea da ura. Erriaren gañeko aldeko sakon ura ederra du arek.

Billaprankan ere izaten giñan. Ama Birjiñaren egunean izaten dira an pestak, Agorrillaren zortzian, eta ondorengo egun batean joaten giñan ara.

Ganaduen sariketa izaten da egun ortan. Goiko plaza artan izaten giñan. Goizeko bertsotia an egiten genduan. Ganaduak ere antxe egoten dira.

Gero, bazkaltzera. *Gau-Txori*-ra joaten giñan. An baba txikiak jaten giñuzen zeziñarekin; oiek jakiñak, eta gero nai zuanak eskatuko zuan zer gustatzen zitzaien.

An ere bertso-saio bat edo beste beti egin bear izaten ziran; eta, an kapeak artuta, azoka-plazan egiten zan arratsaldeko saioan an izaten giñan. Atzeneko urte auetan Manuel Lasarte, Lazkao-Txiki ta ni irurok izaten giñan.

Billaprankan edo Ordizian leku geiagotan ere egin izan degu. Teatroko saioak ere askotan egin izan ditugu, eta frontoian ere bai. Bein gogoan daukat oraindik nola izan giñan Basarri, Mattin, Lazkao-Txiki ta ni, aspaldiko kontua da baña; eta zer bertso bota nuan ere bai. Basarri, Mattin eta Lazkao-Txiki toriatzen asi zan, metro banako gizonak ziralara alegia. Nere orduko erantzuna auzen da:

Bi txikiak tentatzen  
Basarriren lana,  
erdia esan dezu ta  
esango det dana:  
gizon oiek ez dira  
biak metro bana,  
ongi luzatuta're  
geienaz e kana.

Bertso au ere Ordizian, puntua jarri-  
ta, nik botia:

Etorri al zerade,  
lagun Uztapide?

Ta nik:s

Izan e badet emen  
ainbeste adiskide;  
zuen emengo pesta  
izan dala bide,  
bestiak bazetozen  
t'etorri naiz ni're.

Ordiziak badu beste ballara bat ere;  
Urkiri edo orrelakoxe izen bat dauka.  
Erritik gora dago, urruti samar. Egural-  
di txarra egokitu zan, euria, eta aterkia-  
rekin da al genduan bezela joan giñan.

Baña, bein ara iritxi ezkerro, ez giñan  
alperrik galdu. Egun ederra pasa gen-  
duan an ere, eta illunabarrean atzera  
bera jetxi giñan Ordiziara; an trena artu  
ta etxera etorri giñan.

Beasaiñen ere izaten giñan Loinaze-  
tan. Pesta irugarrenean edo orrelaxe iza-  
ten giñan. An aiuntamentuko plazan  
kantatzen genduan. Kiosko eder bat ba-  
dago ta anditxik izaten ziran gure ber-  
tsoak. Atzeneko urte auetan Lasarte, Agi-  
rre, Lazkao-Txiki ta ni izaten giñan.  
Goizeko saioa bakarrik izaten genduan  
an.

Sebastian arakiña izaten genduan  
ango nagusia; ta, erri bakoitzean alako  
Sebastian bat balego, bertsolariak beste  
modutan ibilliko giñake. Arek tratua  
eginda edukiko zuan gu joaterako, eta  
ez da izango txarra arek egiten duan tra-  
tua. Gu beti pozikan gelditu izan gera  
aren tratua-rekin; gure gustoa egiten zuan  
arek.

Bazkari ederra egin da Beasaingo ber-  
tsozaleak an izango ziran, gu bazkaltzen  
giñan tokian; eta kape-denboran bertso-  
-saio bat edo beste beti egin bear izaten  
ziran an, da pozik gañera bertsoa zer dan  
ezagutzen duanaren aurrean.

Loinazen sorlekuan ere izan giñan  
beste batean bertsoan, eta saio bat egin  
genduan an ere. Beasaingo ballara bat  
da ori. Beasaindik gora joan kamioan eta  
eskubitara, antxe dago txoko batean.

Teatroko saioak ere askotan egin di-  
tugu. Beasaiñen ere beti jendea ondo  
izan genduan, ta jende ona gañera.

Orain bost edo sei bat urte, Beasain-  
go *Cine Usurbe*-n gai jarri zidaten mi-  
nan edo arrobian lan egiten nuala, ta bi  
aldeetatik mendiak artua nintzala, ta ez  
batera ta ez bestera. Onela kantatu  
nuan:

Lurren azpian gelditu naiz ta  
au nere estuasuna,  
Jainko maitia, gaurko egunian  
zuk ematen dirazuna!  
Len e banekin betiko onuntz  
ni botia ez nazuna,  
gutxieneko galdu dirazu  
mundu ontako osasuna.

Len ere banun bildurra eta  
len ere banun ardura,  
etzala oso leku ederra  
nere mina-zulo ura.



B'al dakizute une onetan  
zer datorkidan burura?  
Mundu ontakua galdu dedala  
ta banuala zerura.

Orendaiñen ere izaten giñan. Zepai ta biok izan giñan lenbiziko aldiz. Beroztzeko ere ez da urte-garai txarra; baña Ama Birjiña Agoztukoetan antxe egon giñan otzak, ango Erriko Etxeko balkoian; aizea aundia eta otza zegoan.

Bi eguneko joan giñan ara ere, eta bigarren egunean goizean goiz jaiki ta erbitara joan giñan; baita erbia arrapatu ere. Guk ez genduan tirorik egin bearrik izan; txakurrak arrapatu ziguten, eta erbia janda etorri giñan etxera.

Abaltzisketara ere joaten giñan. San Pedroetan joaten giñan ara; Garagarri-llaren ogei ta bederatzian izaten da San Pedro eguna. Ara ere bi eguneko joan giñan Zepai ta biok.

Bigarren egunean, an ere eizera joan giñan; galeperretara. Asko zegoan an orduan galeperra. Gu, goizean joanda, ibilli giñan piska bat, eta gurekin joan ziran lagunak an geratu eta gu etorri egin giñan errira.

Guardiazibillak etorri ta danak kendu zizkaten: galeperrak, eskopeta bat eta kartutxera bat. Berakin ekarri zituzten guardiazibillak aien trasteak, eta guk ezagutu egin giñuzen aguro. Esan genduan:

-Ba! Arrapatu dizkitek gure lagunak!

Eta ala gertatu ere. Gosaltzen ari ziralara, beren gañeraño sartu, berak konturatu ziranerako, eta beren trepetak utzi eta aldegin omen zuten.

Berak etzituzten arrapatu, baña eskopetatik izurratu ziran. Arek, eskopetak, jabea zein zuan berealaxe jakingo

zuten, da kastigu, gutxi edo geiago, izango zuten.

Egun artan kantatuak izango dira bertso auek. Lendabizikoa Zepaik kantatu zuan:

Ni're eizian ibilliya naiz  
zenbait alako girotan,  
jeneralian baita bota're  
tiratutako tirotan;  
nik dadukaten apunteriya  
ez leike paga dirutan,  
oetamarretan orrek aña nik  
botatzen ditut irutan.

Nere erantzuna:

Jende guziak entzun dezute  
Zepaik egin dun agurra,  
onek e badu agertu naia  
dun abildade apurra;  
Burgos aldera eizera juanda  
ein du biaje laburra:  
onek erbia nola botako?  
Tiroz jo zuan zakurra!

Atzeneko aldiz Imanol Lazkanorekin izan nintzan Abaltzisketan.

Altzo-goian ere izaten giñan. Karolina edo orrelako zerbait ateratzen zuten mina bat izan bear zuan an, Altzo-goian, eta Santa Barbara egunean joaten giñan ara. Abenduaren lauan izaten da ori.

An jende bikaña izaten zan bazkari artan; dana euskalduna. Eun bat lagun urrean izango ziran, danak sasoikoak. Bazegoan an indarra, baña zerbait pasa zitzaion ari ere; lantegia bertan bera gel-ditu zan.

Larraitzko zabal artan ere jardun izan degu bertsoan Zepai ta ni biok. Orduan, San Pedro egunean, Abaltzisketako jendea Larraitzera joaten zan, eta guk ere

araxe joan bear. Garai artan guri, Zepairi eta neri, gutxi ajola zigun Txindokiko puntan agindu baligute ere.

Lazkaon ere izaten giñan. Gerra aurretik asi giñan ara joaten Zepai ta biok. An da Lazkaomendin, bietan izan giñan Zepai ta ni gerra aurretik. Lazkao-mendi au Lazkaon ballara bat da, eta Lazkao-Txiki ere angoxe semea da.

Geroztik ere Lazkaon izan naiz Lasarterekin, eta Lazkao-Txikirekin berarekin ere bai. Bi soziedade badira eta bietan izan gera; bat zarren soziedade eta bestea gazteena. Berak ere ala esaten diote.

Ataunen, berriz, San Martiñetan egiten dira pestak. An ere izan gera banaka batzuetan. An Zepairekin asi ta Basarri, Xalbadorrekin, Lasarterekin eta oiekin danakin.

Iñoiz baita elurrarekin ere. Aurten ez da oraindik elurrik. San Martiñak pasa ziran, baña Azaroak ogei ta bat ditu gaur eta oraindik ez degu elurrik ikusi.

Bein baten, Ataunen, puntu au jarri zidan Basarrik:

Apaizak e or daude  
bertsuak entzuten...

Nere erantzuna:

Sermoilariak gerala  
pentsatuko zuten;  
ez gerade jardungo  
oiek bezin zuzen,  
ia asten zaizkigu  
betik erantzuten.

San Gregoriotan ere izaten giñan. Ballara bat badu izen orretakoa, eta an ere izan gera Lazkao-Txikirekin, eta Lasarterekin ere bai.

Santa Isabeletan ere bai, Ataungo Aian izan gera banaka batzuetan Lasarterekin, eta Lazkao-Txikiren ere bai.

Zeraiñen ere izaten giñan. Arte aundi aren azpian kantatu izan genduan. An ere Zepairekin izan nintzan lenbiziko aldiz. Errezilkoa zan apaiza orduan Zeraiñen, eta aretxen etxean bazkaldu genduan. Bertso-saioak ere egin giñuzen. Urrengo, berriz, Basarriekin joan nintzan.

Orduan ikusi giñuzen Labordetarren sutegia eta beste lengo gauza zarrak asko, guk ere ezagutzen ez giñuzenak, gu baño ere zarragoak. Gero Laborderen basarrira joan giñan bazkaltzera.

Laborde ori edo oiek Andoaiñen dauzkate tallerrak; eta an, Zeraiñen, basarria eta sutegia ta olako gauzak daukate, ta jaietan joaten dira ara. Basarria ganadurik gabea izango dala pentsatuko dezute, jaian bakarrik joateko.

Gero atzenean Manuel Lasarterekin joaten nintzan; eta orain, berriz, iñorekin ere ez.

Mutiloara ere joaten giñan. Ara ere Zepairekin joan izan nintzan. Segurako bide-gurutzetik oñez joaten giñan. Etzan orain aña kotxe orduan. Araño Segurako autobusean joan da oñez. Segurako bidetik iru kilometro edo lau egongo dira Mutiloara. Eskerrak orduan orain baño errezagot ibiltzen giñala.

Olaberrira ere joaten giñan. Ara lenbiziko aldiz Jose Agirrerekin joan nintzan; gero, berriz, Lazkao-Txikirekin ere izan naiz, eta Manuel Lasarterekin ere bai. Oso jan-etxe ona ere badago an; bodak ere asko egiten dira, ta an ere batzuetan izan gera.

Gariñen ere izan gera. An San Sebastian egunean izaten dira pestak. Ori Be-

asaingo ballara bat da. Azpillagarekin izan nintzan an batean beintzat, eta berri ere joan nintzan ni ara ta ez dakit zeñekin izan nintzan.

Ezkiogan ere bai; Zepairekin an ere. An ez dakit zein egunetan izaten diran pestak; baña erriko pestak ziran, gu an izan giñanean.

Ormaiztegin ere askotan izan giñan. An San Andresetan izaten dira pestak. Ezkurdiaren ostatuan jaten genduan an. Lenbiziko, Basarriekin izaten nintzan an; gero Lazkao-Txikirekin, eta gero Manuel Lasarterekin.

Beasaingo Salbatoren ere bai, izanda nago. Ez daukat gogoan zeñekin izan nintzan.

Gabirian ere izanda nago. Ez dakit an ere zeñekin izan nintzan. Gertaera polita badakit orduan adituta, an pasia.

Gabiriko baserritarren batek asto bat omen zeukan itxua, eta ijitoari ziria sartu naian asi omen zan, astoa trukatuko ziola esanez; eta ijitoak baietz esan omen zion, trukatuko ziola berak ere. Ijito orrek:

–Asto gazte ederra emen dago, ta amar durokoren bat bearko det nik ogaria!

–Ez –esan omen zion besteak–; nik ez det ogaririk emango. Nai badezu, buruz buru egingo degu tratua.

Eman-gai eduki orrek ere, ijitoak ere. Bereala egin omen zuten tratua. Ijito ori laste ezkutatu omen zan, bere astoa artuta. Andik Zumarragara dijoan kamiora jetxi omen zan, eta Legazpiraño ederki joan omen zan astoa.

Gerra-ondo artan errotak itxiak egon ziran leku askotan, eta Gabirin ere ala egon omen ziran; eta errotara Legazpira joaten oituta egon astoa eta ederki joan omen zitzaion.

Da errotako atarian gelditu omen zan astoa, ta etzala mobituko andik aurrera. Jo egurrarekin ta ala ere alperrik.

Asi omen da astoa obeto ikusten, da itxua! Berak ere begi-bakarra sartu omen zion baserritarrari, baña besteak itxua.

An prailleetan ere izan giñan batean; an ere bertsotan. Gabirin bertan dago komentua.

An Aztiriko bentan ere bai. Gerra aurretik zan ura. Zepairekin izan nintzan, eta orduan egin genduan atzeneko joanaldia gerra aurretik. Ballara au ere Gabirin dago. An bertan lo egin genduan, eta biaramon-goizean Legazpira jetxi giñan Zepai ta biok.

Zumarragan ere askotan izan naiz. Santa Isabeletan izaten dira an pestak. Denbora baten ganaduen sariketa izaten zan. Ganadu asko izaten zan. Zepairekin joan izan nintzan ara ere.

Goian, ermita artan ere, izan naiz bi aldiz; batean Lizasorekin eta bestean Jose Agirrerekin.

Eizagako ballaran ere izanda nago. An ez daukat gogoan zeñekin izan nintzan. Zumarragako ballara da au ere.

Billarrealen ere bai, frontoian, askotan izan naiz. An beste zerbait pesta zanean izaten giñan: aizkolariak, arri-jasotzalleak edo zerbait orrelako, eta geienean San Luzia egunean.

Jose Lizasorekin izan naiz an; Basarriekin ere bai; Zepairekin eta Lasarterekin; oiekin danakin izan naiz ni Billarrealen.

Agiñeta ballaran ere bai, izanda nago. Ori ere Billarealko partekoa da, eta Santa Barbara dala uste det beste ermitatxo bat. An ere bai, izanda nago.

Lenengo, Txapelekin izan nintzan, gerra aurretik. Aritz aundi baten gañetik

egin genduan bertsotan. Ori ere Billa-reako partean dago.

Gero, Agiñeta aizkolariari omenaldia egin ziotenean, Lazkao-Txiki ta biok izan giñan orduan.

Meza, eleiza aurrean altarea jantzi eta kanpoan eman zan. Guk ere bertsotan egin genduan meza-denboran.

Aizkolariak zarrak ziran: Agiñeta bera eta Iurrebaso, alde batetik; eta, bes-tetik, Arria eta Luzia. Aiek ziran an aiz-koran.

Guk ere meza-ondoan egin genduan bertsotan, da bazkaltzera joan giñan. Bazkaria bertan genduan, eleizaren au-rreko zugaitz-azpi artantxe.

Gero, bazkaldu eta Zepai zanaren en-tiarrora joan giñan. Egun triste samarra zan ura bertsotarako.

Legazpin ere izaten giñan. Santa Kru-tzetan joaten giñan ara; Maiatzaren iruan izaten da egun ori. Lenbiziko, Zepaire-kin joan nintzan ara ere. Gero, berriz, Ba-sarrirekin.

Telleriarten ere bai. Au Legazpiko ba-llara bat da. Emen ere Basarrirekin iza-ten nintzan.

Brinkolan ere bai. An Lasarterekin izan nintzan. Ara arratsaldetik joan gi-ñan, eta saio bat egin da libratu giñan.

Oñatin ere bai, izaten giñan. An San Migeletan izaten dira pestak. Pelota-le-kuan izaten dira pestak. Gu San Mige-letatik urrengo astelenean joaten giñan ara.

An euskal pesta egiten zan egun orre-tan: aizkolariak, arri-jasotzalleak, palan-ketan ere bai, pelota-partidua ta olako-xe gauzak izaten ziran an.

Guk ere egin oi genduan gure saioa, eta eguardirako libratzen giñan.

Lenbizi, Zepairekin joaten nintzan ara; gero Basarrirekin, gero Jose Lizaso-rekin, eta Manuel Lasarterekin ere bai.

Arantzazun ere izan giñan. An ere Ba-sarrirekin izan nintzan. Eta Araotzen ere bai. Emen ere Basarrirekin. Au ere Oña-tiko ballara da.

Antzuolan ere banaka batzuetan izan naiz. Lenbiziko, Basarri ta biok izan gi-ñan, San Isidro egun baten. Ori gerra au-rretik zan.

Gero ere, or gerran egindako azaña-ren baten imitazioa egiten dute, eta gu orduan ere joaten giñan, Basarri ta biok.

Erriko jaiak San Bartolometan izaten dira.

Omenajeetan ere iru bat aldiz izan naiz. Batean, erritik gora badago an ba-llara bat, eta an ere izan giñan; batenba-ten omenajea zan egun artan ere.

Atzeneko izan giñanean, berriz, pelota-lekuan zan bazkaria. Orduan ere baten-baten omenaldia zan, da jendea asko zan.

Mondragoin ere izaten giñan. San Juanetan izaten dira erriko jaiak. Lenbi-zi Zepai ta biok izan giñan San Juane-tan. Gerra aurretik zan ura.

Gero, San Tomas bigarreanean ere izan gera Basarri ta biok; urteak dezente egin ditugu egun orretan ere. Egun orretan beste pesta geiago ere egiten ziran: aiz-kolariak, arri-jasotzalleak, albokariak eta oiek danak.

Eta geiena izan geran eguna, Kon-tzezio izan da. Orduan Jose-Maritarra-kin izaten giñan.

Jose-Maritar oiek lenago soziedadea izandakoak edo orrela izan bear dute. Berrogeiren bat lagun izaten ziran, edo geiago, bazkaltzen. Urtero ortxe egun bat pasatzen genduan.

Ogei urte baño geiago egin ditugu orrera joaten gerala. Lenbizi Basarriekin joaten nintzan; eta gero, berriz, Lasarterekin, Jose Lizasorekin, Jose Agirrekin, eta Kosme Lizasorekin ere bai.

Lenbizitik gaberako bertan gelditzen giñan; eta, apaldu eta lo eginda, biaramonean etxerutzen giñan. Gero, atzen urte auetan, atzera egun berean etxera etorriko giñan.

Musakolan ere izan giñan batean; Basarri ta biok an ere. Au ere Arrasateko edo Mondragoiko ballara da.

Gatzagan ere izan giñan batean. Zeñekin izan nintzan ez daukat gogoan.

Ama Dorletakoari ere bai, bi edo iru aldiz kantatu diogu. Au ere Gatzagako partean egon bear du.

Aretxabaletan ere askotan izan gera erriko pestetan, eta omenajeen ere bai. Kristobal Altuberi eta García-ri omenaldia egin ziotenean ere, antxe giñan; Basarri eta biok giñan.

Osintxun ere bai; bein edo bitan izan gera an ere. Basarriekin eta Egileorrek izan giñan beintzat urte batean, eta ez dakit bestetan izan baldin banaiz ere.

Orain ez dago an gure bearrik bertotarako. Bertan dago an sasoi ederrenkoa Gorrotxategi, gu ez gera gauza baña.

Bergaran ere askotan izan gera. Pazko-zapatuz izaten dira pestak, eta orduan Basarri ta biok izaten giñan.

Pelota-lekuan ere izaten giñan Basarriekin, eta Lasarterekin ere bai. An beste zerbait pesta zanean joaten giñan ara: pelota-partiduren bat, aizkolariak, arri-jasotzalleak eta zerbait orrelako euskal pestaren bat.

Bergarako prailleetan ere izaten giñan; Egileor, Lasarte, Lizaso ta ni izan

giñala uste det. Antxe arkupe baten kantatu genduan, eta Egileorrek bazkaltzera eraman giñuzen.

An soziedadeetan ere askotan izan gera: *Sagarpe* eta *Pikupe*-eta soziedadeak badira an, eta an izaten giñan.

*Pol-pol*-en ere izan giñan. Ara erritik urruti egiten da; ordu ta erdi bear dira ara joateko. *Refugio* bat dago an oso dotorea, bere lo egiteko tokiakin-eta preparatutako etxea, mendi-punta baten.

Basarriekin joan giñan ara, eta beste soziedade aietan ere bai, beti Basarriekin izan naiz.

Beste batean izan giñan Bergaran Xalbador, Mattin, Berasarte, Uranga ta ni, bertotan. Da soñua jotzen, Angiozarko Pelis Aranzabal. Gabean kantatu genduan an, da Arrasaten edo Mondragonen ere bai.

Urrengo goizean Oñatin kantatu bear genduan, eta lo egitera Oñatira joan giñan. Lo egin genduan, biaramon-goizean jeiki giñan oietik, eta:

–Ez niok batere ontsa! –esan zuan Xalbadorrek.

Eta nik atzera:

–Zer sentitzen dek, ba?

–Etzekiat zer dedan ere, baña barrerengoa illuntasun bat senti diat!

Gosaria eskatu genduan, eta Xalbadorrek eta Mattiñek tripakiak eskatu zituzten. Mattiñek probatu zituan da utzi; etzitzaizkion gustatu, itxura danez. Eta Xalbadorrek bien errezioak jan zituan, da nik esan nion orduan:

–Nola egongo intzan, ba, i ontsa, goseak eangoan da?

Azkeneko Bergaran izan giñan, ganaduen sariketa zan batean, Gorrotxategi eta biok, eta antxe egin giñuzen bi

saio, bat goizean eta bestea arratsaldean.

Artean ez nintzan ni askotan jarduna Gorrotxategirekin, baña erreztasun aundia billatu nion, olain gaztea izateko.

Uberan ere izan giñan batean Basarri ta biok. Au Bergarako parte da; ballara bat da au.

Angiozarren ere bai, izan giñan beste batean. An Pelis Aranzabal, Basarri ta ni irurok izan giñan. Pelis soñua jotzen; Basarri ta ni bertsotan.

Elgetan ere bai, iru bat aldiz: bitan Basarriekin eta bestean Asteasuko Lamitegirekin.

Plazentzian ere bai, askotan izan naiz. Kanean ere bai; Santa Anatan ere izan giñan iñoiz. Errotatxoren tabernan ere bai, askotan izan naiz.

Ezoziko Ama Birjiñetan ere bai, ogei aldiz baño geiagotan. Ura erritik urruti dago. Orain kamioa egin dute erdiraño, baño oñez joan bearra dago orain ere.

An bertsolari askorekin izan naiz: Basarriekin, Jose Lizasorekin, Manuel Lasarterekin eta Imanol Lazkanorekin; oiekin danakin izan naiz. Ta Estellako duntziñeroak izaten dira bestea.

Bazkaldu, alkarrekin egiten genduan. Beste apaiz-mordoska bat, bi edo guardiazibil –olakoxe gizon kuadrilla izaten giñan– da alkate jauna. Apaizak meza ematen zuten, meza nagusia, eta gero bazkaltzera.

Ori Plazentziako ballara bat da. Malzagatik joan da ezkerretara dago ori.

Ezkubitara badago beste ballara bat erriaren gañean. An ere izanda nago. Ori ere Plazentziako ballara da.

Trabakun ere izaten giñan. Ori Gipuzkoako ta Bizkaiko mugan dago, eta

an billera egiten zan igandeetan. Orrera Ermuatik joaten giñan. Ez dakit zein erri-takoa dan ori.

An ere Basarriekin izaten nintzan, Manuel Lasarterekin ere bai, ta Azpilla-garekin ere bai.

Soñu-jotzallea ere beti izaten zan. Gu joaten giñanean, geienean Pelis Aranzabal izaten zan.

An bi etxe daude, eta biak tabernak; ez da ballararik eta ezer ere orrelakorik.

Eibarko Arraten ere izaten giñan. An ere beti Basarriekin izaten nintzan. Don Pedro abadeak eramaten giñuzen ara. An Ama Birjiña Agorrokoetan izaten giñan, eta gu bakarrik ez; beste makiña bat jende ere izaten zan an. Agorraren zortzian izaten da egun ori.

Elgoibarren ere askotan izan gera. San Bartolometan izaten dira erriko pestak. Orduan ere joaten giñan. Ganaduen sarriketa izaten da San Bartolometik urrengo egun batean, ta gu orduantxe joaten giñan. San Isidro egunean ere bai; egun orretan jai egiten dute geienak Elgoibarren.

Teatroko saioak ere askotan eduki ditugu *Odeón*-en, eta beste teatro baten ere bai; izena ez daukat gogoan orain.

Eta Kamineroko ostatuan ere bai. An pelota-lekua dago, ta antxe egiten genduan bertsoetan.

San Migelen ere izaten giñan. An ere iru edo lau aldiz izan gera. Au Elgoibarko ballara da.

San Pedron ere bai; batean izan giñan. Au ere Elgoibarko ballara da.

Elgoibarren Zepairekin izan nintzan aurrena, eta gero Basarriekin; Lasarte eta Lizasorekin ere bai. Teatroko saioak egin ditugunean, berriz, ez dakit zeñekin izan naizen ere.

San Antolin, beste ballara bat; au ere Elgoibarkoa. Erritik bera, Altzola alde-  
ra, kilometro bat edo geixego, kamioa-  
ren ondoan dago. An ere izan gera bi edo  
iru aldiz.

Urrengo, Altzolan; an ere ez gera as-  
kotan izan, baña bi edo iru aldiz bai.

Gero Mendaron; bi erri edo bi parte  
ditu Mendarok: bat Garagartza eta bes-  
tea Azpilgoeta. An ere bietan izan gera.  
Azpilgoetan dozen erdi bat aldiz izango  
giñan, eta bestean ere izan giñala gogo-  
an daukat: Mitxelenarekin beintzat ba-  
tean, da ez dakit bestetan izan naizen.

Beste ermita bat ere badago an tren-  
bidearen gañean, eta an ere izan giñan  
batean.

Beste auzoune txiki bat Mendarotik  
kilometro batera badago, Aingeru Guar-  
dako esaten diotena, eta an ere izan  
gera iru bat aldiz.

Eta Mendaron, oiek danez aparte,  
egin ditugu bazkariak eta apariak ere;  
lagun-arte ederrak ere bai.

Motrikon ere izan gera banaka as-  
kotan. Batean Basarriekin eta bestean  
Azpillagarekin, da biakin eta orrelaxe.  
Teatroan edo antzokian ere egin izan  
degu.

Aingeru Guardako-edo ballara bat  
badago; Kalbario esaten diote batzuek.  
An ere askotan kantatu izan genduan.

San Jeronimo, bestea; Motrikotik On-  
darroa aldera kamioaren ondoan dago  
beste ballara txiki bat; an ere bi aldiz kan-  
tatu degu.

Deban ere izan gera batzuetan. Erri-  
ko pestak San Roketan izaten dira; urte-  
garai txarra bertsolariak egiteko. Uda-  
zaleakin bete-betea egoten da Deba, eta  
ez da bertsolaririk egin. Bi aldiz izan naiz  
egun oietan Deban bertsotan.

Batean, euskal pesta bat egin zan as-  
paldi: aizkolariak, arri-jasotzalleak eta  
olako pesta bat egin zan, eta orduantxe  
kantatu nuan. Beste bein, berriz, Soarte  
arri-jasotzalleari omenaldia egin zioten,  
eta orduantxe izan nintzan, Asteasuko  
Mujikarekin.

Urtearen lenbiziko larunbatean ere jo-  
aten giñan. Orduan, *Bar Txoko*-n pelota-  
-lekua dago ta antxe egiten genduan:  
soñu-jotzallea ere izaten zan. Batean Ba-  
sarrirekin, bestean Mitxelenarekin, ta  
orrelaxe izaten nintzan.

Zinean ere banaka aldiz egin gen-  
duan, eta orrelaxe.

Deban nik kantatua omen da bertso  
au; Zubeltzu-zarrek ala dio. Remente-  
rianean, tabernan, kantatu omen nion  
beste bertsolariren bati.

Len iru andregai bazeuzkala eta ber-  
riz ere ostatuko alabari arekin ezkon-  
duko zala esaten ari omen zan, da one-  
la da bertsoa:

Kontseju on bat artu bear dit  
emengo dama kutunak:  
laugarren andregai zertako  
lenago iru ditunak?  
Bat bera ezin mantendu leike  
onen moduko jatunak,  
gaur ere laste garbitu ditu  
Lekeitioko atunak.

Lekeition izanda etorriko giñan nor-  
tanai ere.

Itziarren ere izan gera aldi askotan,  
kopradixak dirala-ta. Irugarren Ordena-  
koak ere noiznai egiten zuten pesta, eta  
Kontzeziokoak-eta, urtean bata dala ta  
bestea dala, egun askotan egiten dira  
pestak. Gu beti deiari kaso egiteko prest  
egoten giñan.

Zubeltzuren omenaldian ere izan giñan. Milla bederatzireun da berrogei ta emeretzian, Garagarrillaren amalauan, Itziarren izan zan omenaldi ori. Ni aren laguna izan, berriz, eta joan gabe ezin gelditu.

Artean ere gizon ederra zegoan Zubeltu. Irurogei ta bi urte zituan orduan, eta bere musu gorriarekin Luistarren lendakaria zan denbora artan. Omenaldia ere Luistarrak egin ziotela uste det.

Gizon on bat da Zubeltu gizarajoa. Itziarren danak maite zuten, eta guk ere bai. Arekin artu-emanik izan duten guziak gogoratuko dira Zubeltzurekin. Gizon gozoa da Zubeltu.

Itziarko omenaldi artan, artean ere bertsotan ederki egiten zuan. Txapel zana ere an zan; eta, bazkaltzeko denboran, egin zuan Zubeltzuk ere bertsotan Txapelekin. Len ere egiña zan ura bertsotan bein baño geiagotan.

Nik ere bertso bat gogoan daukat oraindik, Zubeltzuren omenaldian kantatua. Onelaxe zan gutxi gora-bera:

Jose Antonio nere laguna,  
ia gogoratzen zazun:  
ni Olaberrin morroi negoan,  
zu bizi ziñan Zubeltzun;  
zuk sorotikan bertsua bota,  
nik bestetikan erantzun,  
nik dakizkiten ederren oiek  
zuri ikasi nizkizun.

Lasturren ere bai; San Nikolasetan izaten giñan. Au ere Debako ballara da.

Elorriagan ere izan naiz bi edo iru aldiz. Or batean Lopategirekin eta beste an Imanol Lazkanorekin; ez dakit beste zenbaitekin izan naizen edo ez. Au ere Debako ballara da.

Zumaian ere izan gera San Telmo egunean. Baten beintzat Jose Lisasorekin eta beste batean Basarrirekin; ez dakit zer pesta izango zan, baña pelota-lekuan go-goan daukat Basarrirekin jardun nuala.

Oikian ere izaten giñan. San Bartolometan izaten dira ango pestak. Basarrirekin izanda nago gerra aurretik; gero, berriz, Mitxelenarekin, eta Lasarterekin ere bai.

Meagasko gañean ere bai; San Isidro egunean uste det izan giñala. Jose Lizaso eta biok izan giñan an.

Aizarnazabalen ere izan gera. Gerra aurretik Txapel zanarekin izan nintzan, eta geroztik Lasarterekin ere bai. Arruako don Juan Txikia genduan gai jartzen. Beste bein, berriz, Lopategirekin izan nintzan aparti batean.

Arrua-beian Karmentan izaten dira jaiak. Egun ori Uztaillaren amaseia da. An ere izan naiz Basarrirekin, Lasarterekin, Jose Lizasorekin eta Urangarekin. Au Zestuako ballara da.

Iraetan ere bai, Santa Inesetan; an ere izanda nago. Basarrirekin lenbiziko aldiz, eta gero Lazkao-Txikirekin. Au ere Zestuako ballara da.

Ibañarrietan ere izan naiz urte batean, Asteasuko Lamitegirekin. Au ere Zestuako ballara da.

Aizarnan ere bai; Ama Birjiña Agoztukoetan ango jaiak, eta Basarrirekin, Azpillagarekin, Lazkao-Txikirekin eta Lasarterekin, oiekin danakin izan naiz Aizarnan. Au ere Zestuako ballara da.

Lasaon ere izan giñan egun baten. Ez dakit zein egunetan egiten diran an pestak. Au ere Zestuako ballara da.

Loiolan ere izan gera. Arozamenarekin izan nintzan an, da ez dakit zein egunetan izan giñan. Au Azpeitiko partean



dago. Azkoitirekin disputa asko ibilliak dira, baña orain erabakia dago.

Amenabar zarrak larogei urte ta geiagoko edukiko ditu, ta gizon pizkorra izana. Nik ezagutu nuanean ere, artean sasoi gogorra zuan orrek, eta batean izketan jarri ta galdetu omen zion Basarrik:

–Amenabar, zuk ere sasoiari indar puska bat izango zenduan, ba!

Eta:

–Bai; zuk uste baña askoz geiago nik indarra, baña neuk uste aña sekula ez!

Amenabar au Loiolakoa da.

Azkoitian ere izan naiz. Pelota-lekuan, batean, Agerre arri-jasotzalle zanak egin zuan pesta bat, eta antxe izan giñan. Seiren bat bertsolari bagiñan, eta danak ez dakit zein giñan ere.

Gero, salesianoak pesta bat egiten zuten Azkoitian, eta artan ere izan nintzan bi edo iru aldiz; batean Manuel Lasarterekin, bestean Lazkao-Txikirekin eta Jose Lizasorekin, eta ortik aurrera ez dakit zeñekin izan naizen.

Azkoitin badira gizon pamatuak ere: Kaskon-edo esaten genion guk, eta beste askok ere bai.

Eguna pasa omen du ostatuan. Olioia kokorekin egiña bazan lenago, eta etxerakoan botilla bat olio alakoa artu omen zuan Kaskonek; eta nolabait ere deskuidatu omen da, eta botillak eskutik iges egin omen dio eta autsi.

Baña olioia osorik gelditu omen zan, eta artu lurretik eta jaso omen zuan. Botilla autsiagatik olioia etxera eramango zuala ikusi zuanean, "Biba koko! Biba koko!" uju ikaragarriak egiñez etxera joan omen zan.

Gizon orrek ainbeste odol besteri emandakorik, ez da gizon asko izango.

Gizona gogorra zan ori denbora batean, onezkero onenak eman ditu orrek ere baña. Irurogei ta amar urte edukiko ditu onezkero.

Elosun ere izan giñan baten Basarri ta biok. Aizpurutxora joan giñan; an utzi Basarriren kotxea ta abitu giñan. Bi mutil gazte bidea erakusteko; eta abitu gera betik gora.

Gu larri, aldapa ikaragarria zegoan da; baña guri bidea erakustera etorri ziran aiek gustoa ematen zuten nola joaten ziran.

Joan giñan beintzat, eta ollo-salda ederra atera ziguten; baña piska baten itxogin egin bear geure onera etorri arte. Gero artu genduan salda, eta bertsoan egin ere bai. Bazkaldu eta egun ederra pasa genduan.

Bertaraño joan ezkerero, toki ederra da ura. Orain, berriz, kamioa egiña dago, ni ez naiz geroztik joan baña. Au erdia Bergaran da beste erdia Azkoitin dago, ballara au.

Aratz-errekan ere izan giñan Jose Lizaso ta biok. Ez dakit zein egunetan izaten diran pestak, baña egun bat pasa genduan an ere. Ballara au Azpeitiko partean dago.

Urrustillen ere izan gera. Lau bat aldiz izango nintzan an ere. Jose Lizasorekin izan naizela gogoan daukat; besterik ez naiz gogoratzen.

Nuarben ere izan gera, askotan ez baña. Paren bat aldiz izango nintzan. Auek Azpeitiko ballarak dira.

Matxinbentan ere bai, izan naiz. Jose Lizasorekin izan nintzan an ere. Au ere Azpeitiko ballara da.

Madariagan ere izan naiz. An Kortatxorekin izaten nintzan. Au Azkoitiko ballara da.

Elgoibarko San Lorentzon ere izan nintzan Basarrirekin. Gaua an pasata etorri giñan.

Errezillen ere izanda nago; an bikario zarraren omenajea; eta Basarriren omenajea ere bai beste batean. Jende asko zan orduan; bazkaltzen beintzat arritze-ko moduan. Oiezaz aparte ere izanda nago beste batean Errezillen, Jose Liza-sorekin.

Bikarioaren omenaldian izan nintzan artan botatako bertsoa, bat gogoan daukat oraindik:

Errezildarrak euskaldunaren  
odola dute zaiñetan,  
lizar-makilla zuriarekin  
or dabiltz mendi-gaiñetan:  
nik berriz ere kantatu nai det  
olako erri bikaiñetan,  
ia deitutzen dezuten bada  
urrengo San Martiñetan.

Errezillen pestak izaten dira, ba, San Martiñetan.

Errezillen, nik aditu izan det, elizako relojuia pisuak bajatuta omen zegoan, eta nik ez dakit, ba, ezkill-torrearen kanpotik edo zer egongo ziran pisuak; eta kalera joan zan emakumeren batek astoa lotu omen zion relojuaren pisuari, eta dendara joan omen zan.

Urrengo, dendatik atera zanean, astoa ezkill-torrearen puntan omen zegoan. Ura dendan zan bitartean, sankristauak relojuari kuerda eman omen zion, da andreak astoa etxera joan ote zan. Alako baten gora begira jarri omen zan, eta astoa an omen zebillen aztarka, ia itoan.

Beste batean, gizon bat ezergatik bildurtzen etzana bai omen zegoan Errezillen, eta bati animak erten ziola kanpo-

santuan eta besteari ez dakit zer egin zitzaiola.

Gizon baliente ori tabernan omen zegoan, eta arek gezurrak zirala oiek esan omen zuan; ura, etxerakoan, kanposantutik pasako zala, baña ari etzitzaiola iñor aterako esan omen zuan.

Ori aditu zutenean, an ostatuan zeuden beste batzuek joan omen ziran kanposantura bera baño len, eta kanposantuan zuloa ere bai omen zegoan ildakoren bat enterratzeko-edo egiña; eta maindre zuri baten bilduta or atera omen zitzaion gizon bat, eta geiago ere bai omen ziran an urrean.

Eta eldu omen dio gizon baliente orri, eta ibilli omen ziran aztarka; an ildakozentzat egindako zulo artan eman omen zion sartu-aldi bat, eta astindu omen zuan ta utzi zion.

Eta atzera lengo ostatura joan omen zan gizon ori, eta kanposantuko zulo-egillea ere an ari omen zan musean ostatuan, da ala esan omen zion kanposantutik etorri zan orrek:

–Obeto egingo uke, an kanposantuan libre dabiltzan oiek lurreen obekiago sartuko baitu, or musean jardutea baño!

–Zer ba? Lurraren gañean al dabil-tza?

–Bai, madarikatua! Danak or zebiltzka gañean, ta bat ez dek ganau ederra, neri eskuak erantsi dizkidan ori!

Bidanin ere izan gera, askotan ez baña. Gotzai jauna an zan batean izan giñan beintzat Basarri ta biok.

Muñoa bertsolaria angoa da; orain badago Berrobin ere beste Muñoa, baña lengo zarra Bidanin dago.

Beizaman ere izan gera iñoiz. Lenbizi Zepairekin izan nintzan. Santa Agedaren eskean ibilli Zepai-ta Beizamako

talde batekin, eta Santa Ageda eskeko jana egitera deitu zidaten, eta antxe izan nintzan bazkaltzen.

Jose Lizasorekin ere izan nintzan beste baten. Beizamako sankristauarekin musean egin genduan orduan. An bertako ostalariarekin jokatu genien ari ta beste bati. Zerbeza jokatzeko genduan, eta bost eta bat gelditu giñan; guk bost.

Beizamako sankristauak zein ote dan pentsatuko dezute zuek orain. Musean pama aundia dauka orrek, eta nik ere orrela pama piska bat daukanari jokatu naiago nuan, ba.

Etzan oso kontentu ere gelditu. Arpegia oso beltza zuan. Nik ura ala ikusi nuanean, auxen esan nion: ez pentsatzeko edozeñek irabazi zionik, Uztapiderekin jokatu zuala ta...

Beizaman bazan beste gizon pamatu bat ere: Urdanpilleta. Zortzi arruako zaragi ardo eskumuturretik txintxilika zuala, bere firma bota omen zuan Beizamako Erriko Etxearen paretan. Antxe omen zan gero ere. Zaragia zeukan esku berarekin, alegia.

Santa Marinar ere izan giñan Zepai ta biok. Bi aldiz ere izan naiz. Ori Albizturko ballara bat da.

Albizturren bertan ere izan naiz; batean Jose Lizasorekin eta bestean Manuel Lasarterekin. Au erri txikia da, baña berak dauka aiuntamentua.

Zarautzen ere askotan izan giñan. Pelota-lekuan urtero arratsalde bat pasatzen genduan. Patxi Larrañaga izaten genduan gai jartzen. Patxi au ere bertolaria da; azkoitiarra, baña Zarautzen bizi dana. *Patxi Barbero* esaten diote.

Batean, arrosa bati iru bertso kantatzeko esan zidan. ta onoko auek kantatu omen nituan:

Munduan zenbat nekazari ta  
zenbat arrantzale t'artzai  
negu beltzean egoten geran  
danok udaberrian zai!  
Arros maitea, zabaldu zera  
ta egin dizugu usai;  
neguan estuasuna jua da,  
orain jarri gera lasai!

Udaberrian mendira danak,  
ardia eta bildotsa,  
eta orduan gozatutzen da  
gizon zarraren biotza;  
begi onetan ikusten zaitut,  
zorioneko arrosa,  
urte bat geio eman diguzu  
eta auxen nere poza!

Lau pentsamentu ekartzen ditu  
arros maitiak burura,  
eta udarak izan dezala  
zu gordetzeko ardura;  
berriz neguak kenduko dizu  
orain daukazun itxura,  
bitarte ortan zure aurrera  
datozen danak lillura!

Zarautzen, jubilatua edo zar-sari-  
tua ere ospatzen dute beren eguna, eta  
orduan ere izanda nago bi urtetan.

Santa Marina kalean ere izan naiz; eta  
Iñurritzan ere bai, iru bat urtetan-edo  
gutxienez ere.

Aian ere izan gera banaka aldiz. Len-  
bizi joan giñanean,. Basarri ta biok gi-  
ñan; alkatea lodia zan da Basarrik esan  
zuan alkate jauna goratu bear genduala,  
bertso batean; da nik esan nion atzera  
astuna zegoala ta etzuala uste bezin errez  
jasoko.

Ori orretan pasa zan, da nik kopeta  
beltza jarri ote zuan, bai, baña gero or  
aditzen det geiago ez nuala bertso tara

joan bearrik Aiara, ura alkate zegoan arte.

–Zer egingo degu, ba? Ori beste oke-  
rrik ez bada, biziko al gera! –esan nuan  
neretzako.

Urte batzuetan ez nintzan joan geia-  
go. Alako baten deitu zidaten berriz.  
Zein izango alkatea ta lengo lodi aren  
semea. Andik aurrera etzan ezeren no-  
bedaderik izan. Geroztik ere banaka al-  
diz izan naiz ni Aian.

Altzolan ere izan naiz bi aldiz; bate-  
an Lasarterekin eta bestean Lazkao-Txi-  
kirekin. Au Aiako ballara da.

Urdanetan ere izan naiz urte batean.  
An ez daukat gogoan zeñekin izan nin-  
tzan. Au ere Aiako ballara da.

Aizterrazu edo San Pedron ere izan-  
da nago beste iru bat aldiz. An Lasarte-  
rekin izaten nintzan, eta au ere Aiako  
partean dago.

Santiago beste ballara batean ere iza-  
ten giñan. Au ere Aian dago. Emen ba-  
tean Jose Lizasorekin izan nintzan, eta  
bestean ez dakit zeñekin.

Orion ere izan gera. Arrantzaleak pes-  
ta egiten zuten atunetatik etxeratzen zi-  
ranean, eta Lasarte ta biok an izaten gi-  
ñan urtero. Zinean ere egin ditugu  
saioak. Arraunlariak ongi ateratzen zi-  
ranean ere bai.

Lizargaraten ere askotan izan naiz.  
Or Basarrirekin, Lasarterekin, Mitxele-  
narekin eta Azpillagarekin, oiekin dana-  
kin izan naiz ni Lizargaraten. Au Ori-  
ko ballara da. Etxe bat besterik ez dago,  
baña basarri bakar batzuek badira.

Aginagan ere izan naiz iru bat aldiz.  
Manuel Lasarterekin izaten nintzan an.  
Au Usurbilkoa da, ballara au.

Usurbillen ere askotan izan naiz. Ba-  
sarrirekin izaten nintzan lenbiziko alde-

tik, eta gero ia bertsolari danakin izan  
naiz Udarreghiren omenajea. Gero ere  
sei bertsolari edo zerbait izan giñan gau  
baten. Esan nezake danakin izan naize-  
la Usurbillen.

Lasarten San Pedrotan izaten dira  
pestak, eta or ere gerra aurretik asita iza-  
ten giñan. Basarri ta Saiburu zarrarekin  
izan nintzan lenbiziko, eta geroztik zi-  
nean ere bai; lau bertsolari-ta izaten gi-  
ñan noiznai.

Sausta basarrian ere bai; lenengo  
Sausta-txikin, eta gero Sausta-aundian.  
Zepai ta biok izaten giñan gerra aurean  
Sausta-txikin; eta Sausta-aundian, berriz,  
Lasarterekin, eta Jose Agirrerekin ere bai,  
izan nintzan. Au etxek orduan kantatu-  
tako bertsoak dira:

Nik:

Era ontako egun batian  
gu nola egon tristiak?  
Zar au're asko poztutzen baidu  
zuek ola ikustiak;  
ederki asko kantatz'ezute  
batek bezela bestiak,  
ori sasoia daukazutena,  
bejondaizuela, gaztiak!

Lasartek:

Asterako ere erabaki nun  
zuk zertxo esango zendun,  
bertso bikaña zetorkizula  
ori pentsatutzen gendun;  
badakizute gaztiak onak  
gaudela nola esan dun;  
gu bertsolari bikañak gera,  
aitona zarra txapeldun!

Agirrek:

Gaztiak dula sasoia bañan  
zarra ez dago motela,

nik pentsatzen det au zeruraño  
jaso bear gendukela;  
aurtengo ontan jantzi zenduen  
merezi zendun txapela,  
urte askuan izan dezala  
zure buruko epela.

Ta nik:

Lasarte eta Agirre, emen  
zer ai zerate esaten?  
Enbusteria geiegik gero  
ez du itxurik izaten!  
Jainkuak ala naiko zuen ta  
txapela jaso det aurten,  
neri ez ori kentziagatik  
zuek etzerate erten!

Oriara ere joan izan giñan; pare bat aldiz-edo izan giñan an ere. Lasartetik pis-ka bat Tolosa aldera dago ori.

Urnietan ere izan gera dozen erdiren bat aldiz; or Mitxelenearekin, Lasarterekin da Basarrirekin.

Xoxokan ere bai, izan-izan gera. Or Zepairekin izan nintzan lenbizi, ta gero Basarrirekin eta Lasarterekin. Ori Urnietako partean dago.

Andoaiñen ere askotan izan gera. Or San Juanetan izaten dira pestak, eta Santa Krutzetan ere bai. Lenengo Zepairekin, gero Basarrirekin, gero Lasarterekin eta Lazkanorekin izan naiz.

Aspalditxoko urte auetan euskal pestakin batean izaten giñan. Aizkolariak, arri-jasotzalleak eta orrelakoak izaten ziran, gu giñan egunean.

San Esteban ere antxe dago, Andoaingo erriaren gañeko aldean, ballara koskor bat. An ere izan oi giñan. An Basarrirekin eta Lasarterekin izan naiz.

Sorabillan ere bai; iru bat aldiz-edo izan naiz. Ori Andoaindik gora, Billabo-

na aldera, kamioaz eskubitatik dago. An ere Lasarterekin izan naiz. eta Andoaingo partean dago.

Billabonan ere izan gera. Or ere Lazkao-Txikirekin izan naiz, eta Lasarterekin bi aldiz. Konkurtsoan ere izan naiz or. Batean, iru gipuzkoar iru mugaz arunzkoeri jokatu genien: Xalbador, Mattin eta Zubikoa, Lasarte, Lizaso eta nere kontra. Or jokatu genien da guri irabazitzat eman ziguten.

Bestean, berriz, Basarri lenbizi eta ni bigarren klasifikazio jeneralean, eta Mitxelena irugarren. Gero beste *premio especial* bat irabazi zuan Mitxelenak. Baña ez da, Mitxelenak esan zuan bezela, bera zala Basarriren ondoren, bigarren. Ori ez da orrela, nik emen jarri detan bezela baizik. Laugarren Ernani-Txikia, Pablo Zubiarrain.

Zizurkillen ere bai. Ama Birjiña Agoztukoetan izaten dira pestak. An ere iru edo lau aldiz izan gera. Basarrirekin izaten nintzan.

Zizurkil-beian ere bai: izan gera an ere. Jose Lisaso eta Manuel Lasarterekin izan naiz. Ori Billabonako estazioaren ondoan dago, baña Zizurkillen dago. Billabonako estazioa ere Zizurkilko partean dago.

Estazioaren aldamenen bada ostatu bat: *Pasusenea*; an ere askotan izan gera apaltzen, eta bertsoetan egin. An berrogei ta amar bat lagun izaten ziran apaltzen, eta umore ederra izaten zan an. Lasarterekin izaten nintzan an.

Adunan ere bai, izan gera lau-bost bat aldiz. Ama Birjiña Agoztukoetan izaten dira an pestak. Erri txikia da, baña oso ona da basarritz. Basarri bikañak bada an. Zepairekin izaten nintzan an gerra ondoan.

Larraulen ere izan naiz; batean bakarririk. An meza berri baten izan giñan Zepai ta biok.

Anoetan ere bai; askotan izan naiz. Tolosan regatak egiten dira San Juanetan, da Anoetak banderak irabazi zituan, ba, eta uraxe ospatutzero joaten giñan Zepai ta biok. An pasatzen genduan eguna.

Beste saio bat ere egin genduan pelotalekuan sei bertolarik. Don Jose Maria Aranalde ori zan gaiak jartzen egun artan Anoetan. Ori Añorgako apaiza da, eta ala jarri zigun gaia:

Eman da zabal zazu  
munduan frutua...

Orixe zan gaia bertso bana kantatzeko, eta nik bertso auxe kantatu nuan:

Gernikako arbola  
zarra zan usteldu,  
ta landare berri bat  
albian azaldu;  
euskaldunak, frutua  
eman da zabaldu,  
gure arrazarikan  
ez dedien galdu.

Orrelaxe banaka aldiz izan gera gu Anoetan.

Laskibarren ere izan gera. Lenbizi kamineroen bazkari baten izan giñan Lasarte ta biok. Kamineroak urtean jai bat ospatzen dute, eta orduantxe. Gero, bodetan dala-ta, askotan izan gera an.

Amasan ere askotan izan gera, San Isidro egunean dala-ta, Lasarte ta biok.

Arantzabin, berriz, zer esanik ez. Bazkariak-eta askotan egin ditugu guk an, au dala ta ori dala.

Ollalumen ere izan giñan batean Zepai eta biok, An ere, denbora artan, billera egiten zan, da jendea juntatzeagatik izango zan gu ara joatea.

Berrobin ere izaten giñan. An ere Arozamenarekin, Lasarterekin eta orrela izaten giñan, eta festak egiten aparteko adurra badute. Bazkaltzen jende asko izaten da an, eta alkartasun ederra. Berrobi au Astigarragako partean da.

Astigarragako pestak Santiagotan izaten dira. An ere izan gera batzuetan; Lasarterekin jeneralean, eta Mitxelena-rekin ere bai. Atzeneko aldiz Kosme Lizasorekin San Isidrotan izan giñan.

Loiolara ere urtero joaten giñan. Azken urte auetan Zepai, Arozamena ta ni, irurok izaten giñan. An eguardarteko saioa bakarrik izaten zan. Arratsaldean garaiz etxeratzeko moduan libratzen giñan.

Urrezti-gaiñen ere aspaldian urtero izan gera. An ere Lasarterekin jeneralean. An eguna pasatzen genduan, eta gauerako gelditu bear izaten zan apaltzen.

*Aingeru Zaindaria* badago soziedade bat eta antxe apaltzen genduan. Soziedadekoak geienak an izango ziran apaltzen, eta Donostiko alkatea ere bai; ta an, apaldu ta ondorenean, saio bi edo iru egin eta etxera etorriko giñan.

Igeldon ere bai, izaten giñan. San Pedrotan egiten dira an pestak, eta an ere Lasarterekin eta Mitxelenarekin izan nintzan. An sagardotegian ere askotan izan giñan Pakoren etxean. Batean gogoratzen zait Jose Lizasorekin an gertatu giñala, eta etzan bertso-paltarik izan gau artan.

Añorgan ere izaten giñan. Lenbizi Zepairekin izan nintzan, eta gero urte

askotan Basarrirekin. Uztaillaren emezortzian urtero joaten jarraitu genion gero Lasarterekin, arek joateari utzi zionean.

Gero apari-merienda emateari utzi zioten, eta gu ere zinean kantatzen asi giñan orduan. Gu Basarri ta biok izaten giñanean, apari-merienda ematen zitzaioten Rezola-ren langille danai, eta an kantatzen genduan guk apaltzeko denboran. Rezola ori porlan-fabrikako nagusia da.

Esan bezela, gero zinean kantatzen genduan, eta askoz obeto. Ala ere langille geienak euskaldunak zituan Rezolak, baña sarrera ordainduta dijoana entzule ona da beti.

Aranalde izaten genduan gai jartzen aspaldiko urteetan. Beste toki askotan ere bera izan degu, ta ez dakit, ba, Añor-gan edo beste nunbaiten, zineren batean beintzat, ekaitza jarri zidan gaia. Orduan botatako bertsoak dira auek. Lenbizi Aranaldeak puntua:

Trumoia kanpuan da  
trumoia etxian...

Nere erantzuna:

Askotan arkitzen naiz  
estuasun latzian;  
pena aundi bat artzen  
degu biotzian,  
trumoiak ikaratzen  
bainau arratsian.

Gero Aranaldeak lau itzak: oñazkarre,  
erre, asarre, akelarre.

Nere bertsoa:

Denboralia zegon  
lenguan asarre,

eta ortxen etorri  
baizan oñazkarre;  
norabait juan bear da  
jo zun akelarre,  
eta sorgin guziak  
zitun bertan erre.

Ta ekaitzari nere bertsoak:

Gogoratzen naiz bein nola zigun  
trumoi gogorra asiya,  
ta beriala or sortu zuen  
denborale itxusiya;  
basarritarrak lendik bagendun  
naikua ezin biziya,  
ta uraldiak eraman zuen  
gure kosetxa guziya.

Gaurko eguneko denboralea  
ere trumoiaren gisan,  
burrukaldiak nunai badira  
errian eta elizan;  
nik bezelaxe entzuleak e  
dakite nola gabiltzan,  
burruka baño okerragorik  
ezer ez baileike izan.

Ekaitz-aldiak datozenian  
iñon ez dago atsegin;  
bildurrak gaude, guk ez dakigu  
nun eta nola itzegin;  
ekaitz oriek aplakatzeko  
danok orazio egin,  
oraingo tenpestade gaizto au  
lenbailen bukatu dedin.

Beste teatroren batean puntu au jarri  
zidan batean Aranaldeak:

Nork agintzen du etxian:  
zuk ala andreak?

Nere erantzuna:

Gauza ori ez gaude  
probatu gabeak;  
kanbiatu baidira  
munduan legeak,  
nik bear nuke baña  
agintzen du beak.

Aieten ere izan giñan batean. Lasarte, Lazkao-Txiki ta irurok izan giñala uste det. Matxainek aurkeztu giñuzen. Au Donostiko ballara bat da.

Antiguan ere izan gera bitan. Or euskal pestak ziranean izaten giñan. Ori ere Donostian dago.

Ategorrietan ere izaten giñan. An ere Mitxelenarekin izan nintzan, batean beintzat. Erdaldun asko izaten zan, baña antxe egiten genduan gure saioa.

Intxaurrondon ere bai; urte askotan izan gera or. Zepairekin asi nintzan lenbizi, eta gero luzaro Basarrirekin izaten giñan. Gero Mitxelenarekin, geroago Lasarterekin, eta atzeneko aldiz, berriz, lau bertsolari izan giñan: Lasarte, Jose Agirre, irugarrena ez naiz gogoratzen zein zan, eta nerekin lau giñan.

An ere aparia izaten da, eta danok joan giñan apaltzera, an bertako kuadrilla batekin: Illarregi anaiak, Zabaletarrak, Etxeberria bat, Basurtoen suia ta orrelakoxe batzuek. Apaltzeko denboran izaten da bertotarako giro ederra, eta apaldutakoan artu automobillean eta etxera entregatuko giñuzen.

Altzan ere izan oi giñan. Lenbizi Zepairekin, gero Mitxelenarekin eta gero Lasarterekin, oiekin izan naiz beintzat. Pestak Santa Isabeletan izaten dira. Ori Donostiko ballara da orain.

Pasai Antxon ere izaten giñan. San Ferminetan egiten dira pestak. Euskal pestak ziranean joaten giñan gu aruntza. Aizkolariak, lokotx-biltzea, sokatirak, eta atzeneko urtean tobera-jotzalleak ere baziran, lesakatarrak. Gu, berriz, Lasarte, Lizaso, Lazkao-Txiki, Agirre, Lazkano edo orrelako batzuek izaten giñan. Txandaturtzea nai izaten zuten berak ere.

Pasai San Pedron ere izaten giñan. San Pedrotan izaten dira an pestak. Batean nola izan giñan gogoan daukat. Dantzako sariketa ere bazegoan orduan.

Erreran ere izan giñan batean, soziedadeak esanda; bertsolari gazteen sariketa zegoan orduan, da aien juraduko.

Etzan lan gaiztoa; juzgatu-errezak ziran: Koxme Lizaso lenbiziko; aren anai bat eta beste lezotar bat bigarrena, berdin eman genien; eta Donostiko Lazkano irugarren. Nere juraduko laguna Larrea zan. Orrelaxe eman genduan gure erabakia.

Pasai San Juanen ere izan gera Mitxelena eta biok. San Juanetan izaten dira an pestak. Goizean saio bat eta arratsaldean bestea egin giñuzen, eta etxera etorri giñan.

Errenterin ere askotan izan gera. An bertotan orain ibiltzen diranakin geinakin izan naiz. Zepairekin asi, eta Basarrirekin, Xalbador, Mattin, Azpillaga, Lopategi, Lasarte, Lizaso, Mitxelena, Berasarte zana. Teatroko saioak izan diranetan, berriz, gazte auekin danakin; Xenpelarren omenaldietan da orrelakoetan.

Xenpelarren omenaldian nik kantatutako bertsoa:

Bate pentsatzen egondu gabe  
Xenpelarri buruz orra:



biyar eun urte ordaindu zuen  
mundu onetako zorra;  
biotzez ain zan gizon ona ta  
ain bertsolari jatorra,  
bera juañ zan mundutik baña  
bere lana illezkorra.

Lezon ere izaten giñan. An ere Zepairekin asi nintzan lenengo ara joaten.

Oraindik ere gogoratzen zait Zepairen ateraldia. Bein gizon bat etorri zitzaigun, ostatu baten bazkaltzen ari giñala-ta, "*¡cacahueses tostados!*" eju aundiak egiñez.

Zepai ori atzeaz zegoan giron orren-gana, ta jiratu zan piska bat eta:

–*¡Hola, señor don Bigotes!* –esan zion Zepaik.

Donostiko Antiguako López-eneko etxeko andrea an zegoan amar bat urteko alabarekin, eta aietxek gozatu ziran aren ateraldiarekin. Aren jiraera ikusi egin bear zan; orduan esan zuana baño ere askoz politagoa zan ura.

Geroztik izan naiz Basarrirekin, Mitxelenarekin eta Lasarterekin; beste baten, berriz, Azpillaga, Lopategi, Lasarte ta ni laurok izan giñan. Or urtean bitan egiten dira pestak: Santa Kruz egunean eta Pazkoetan.

Eta ementxe bukatuko ditut Gipuzkoako errietako nere ibillerak. Neri gogoratzen zaizkidanak, beintzat, emen jarri ditut. Aitatu gabe erriren bat utzi badet, barkatu dezatela eskatzen diotet. Ainbeste erri txiki dago Gipuzkoan, eta batenbat aztutzea ez da gauza zalla.

# Bizkaia

**G**IPUZKOAGATIK zerbait itzegin degu, eta Bizkaietzaz ere itzegin bearko degu.

Ondarroara joan izan gera bertsotara. Basarri ta biok joaten giñan ara. Jende euskalduna da an, da jende gogorra.

An, kanpotik etorritakoak ere, ikasi egiten dute euskeraz. Nai bada Galiziatik etorri ta nai bada Extremaduratik, baña an, gutxi edo geiago, ikasi egiten dute danak.

Jende arrantzalea jende jatorra da, izan ere; eta jende frankoa. Mariñel-erriak ezagunak dira nunai; bereziak dira, emen ere bai eta Bizkaian ere bai. Gu beti pozak joaten giñan Ondarroara.

Ango kantu zarrak eta ango umorea! Edozein mariñel zarrek kantatuko dizkizu zuk sekula aditu ez dituzun bertsoak. Gazteak ere badira, berriz, Ondarroan, kantuan ederki egiten dutenak.

Anai-talde bat bada. Oiek, korrua egin da nunai asten dirala ere kantuan, izango dute zeñek entzuna. Sei edo zazpi anaia badira; ta, aiek asten diranean batzuek altutik eta besteak bajutik, gustoa da aieri entzutea.

Donostira ere etorri omen ziran bertsolarien sariketa zanen batean-edo, eta

asi omen ziran kantuan. Ostaturen batean izango ziran, da bai omen zuten naikoa entzulea.

Ostatu artatik atera ziranean ere, jendea dana berakin batean, eta prozesioan or ibiliak ziran Donostiko kaleetan.

Geiago ere ikusi ditut kantore ederrak, baña aiek baño gusto obean kantatzen duanik, asko ez ditut ikusi.

Azpillaga ere antxe ezagutu nuan. Santa Agedaren eskean ibili ziran nunbait, eta Santa Agedaren eskeko janera joan nintzan ni.

Azpillaga zuten *koplarixa*, eta ni suertean nintzan: ibili-aldi galantak egin izan ditugu iñoiz, bazkari ori egiteko; eta orduan, batere eskean ibili gabe, bazkari ederra egin genduan.

Anaia-talde ori-ta ziran Santa Agedaren eskean ibiliak, eta ateondoren batzuetan gustoa emango zuten aiek, Azpillagak berak ere boza ederra du eta.

An bazkaldu genduan; artan ere, bagenduan zeñek txanda egiña Azpillagak eta nik.

Bazkari artan bazan gizon bat jatun ederra ere: *Jesus Pintxii* esaten zioten. Berak guk bezela bazkaldu ta gero ere, zenbat bota platerara, ainbeste jaten zuan arek.

Bi alditan bazkaldu det orren ondolan; baten antxe eta beste batean Zestuaiko Maristetan. Nik ondoan nuan Zestuan ere, eta aren inguruan etzan ezer sobratu.

Ondarroan Iparragirrereren ostatuan jan genduan guk. Ondarroan degun etxerik ezagunena uraxen da.

Jesus Pintxii orrek bein bildotxa enkargatu omen zuan Ondarroako ostatureren batean. Joan omen zan, ba, jatera eta:

–Gertu al dago bildotxa?

–Utsa palta du! Lagunak etorri orduko pronto da au!

Bera ez omen zegoan kontentu ere, eta piska baten egon omen zan. Baña berealaxe aspertu omen zan zai egoten, eta asteko ekartzen esan omen zien, eta:

–Lagunak etortzen diranean, zer?

–Esandako ordurako etortzen ez danari, orixen egiten zaio: jan! Da urren-goan etorriko da ordurako.

Ekarri omen zioten, ba, eta asi omen zan jaten, da bai jan ere. Auntza alako bildotxa, dana jan omen zuan.

Ñor ere ez izan arek etortzekorik, eta bearrik ere ez, bildotx bat jateko. Ta bera, geienaz ere, irurogei kilo izango da.

Ondarroak badu, erriaren sarreran gora joanda, an mendian beste ballara bat. An ere izan giñan bitan edo orrelaxe.

Berriatun ere bai, izan giñan. Basarri ta biok joaten giñan ara. Gero, batean izan nintzan Azpillaga, Mugartegi eta *Buztarri* esaten diote berak, Ibarzabal dala uste det abizenez; oiekin irurokin izan nintzan.

Lekeition ere bai, izan giñan gerra aurretik. Zepai, Txapel, Basarri ta ni izan giñan Azkue zanaren omenajea.

Kepa Enbeita zana ere antxe zan orduan, eta bertso bat kantatu ere egin egin zuan Bizkaiko *Urretxindorrek*, amar puntukoa.

Geroztik ere askotan izan gera an Angiozarko Pelisekin; soñu jotzen ura zala, Basarri ta ni bertsotan.

Beste batean, txapelketa moduko bat egin genduan: Basarri, Mitxelena, Pablo Zubiarrain *Ernani-Txikia* ta ni, Uztapide

Gañontzean ere askotan izan giñan gu Lekeition.

Mendexan ere izan giñan bein. Izpazterren ere bai, ta Bedaronan ere bai. Mendexa au ez dakit Lekeitioko ballara dan ala ez. Iru erri auek Lekeitioren jiran daude.

Natxitian ere izan giñan: Basarri, Lasarte, Lizaso eta ni, lau bertsolari. Eta bostgarrena, Arrola zarra.

Bazkaltzeko denboran an zan ura ere; apaizaren etxean giñan bazkaltzen, eta bertsolaria zan, ba, ura ere.

Magnetofonak orduan asi berriak ziran, ba, ta an egundoko esplikazioa egin zuan, da bertso batzuk bota ere bai. Aiek danak artuta, apaizak jarri zion magnetofona martxan; eta, ura Arrolak esan zituanak danak esaten asi zanean, jarri zan atentzioan, da berak len esan zituanak esaten ari zala akordatu zanean:

–Jesus, Maria Santisimia! Ori nik esan ditutenak esaten ari da! Orrelako soringkeririk ez degu ikusi oraindik! –esan zuan Arrola zarrak arrituta.

Guk ere artean ez genduan askotan ikusi magnetofonik; arek beñere ez, itxura danez.

Arrola ori, bein batean, juezetara joan bearrean arkitu omen zan, eta Bilbaoko juezak ez euskeraz jakin da naikoa la-

nak ari entenitu ezinda. Nolabait ere, al zuan bezela, beste an juezetara joanda zegoanen batekin-edo, konprenditu omen ziran beintzat.

Urrengo, inglesen bat etorri omen zan ara juezetara; eta arekin ere larri, konprenditu ezinda. Ta Arrola ori California-n urte asko pasia omen zan; eta erderaz ez, baña ingleseaz dezente egiten omen zuan. Ta Bilbaoko juezak or utzi omen zituan arrituta, ingles orrekin itzegiten ikusi zutenean gure Arrola.

Ori Kortaberri aizkolariaren osaba zan, Mendarokoa. Eun da ogei ta amar bat kilo izango zan ura. Bizkaian bizitzen zan, da artzaia zan. Giza-proban ere kanpeon izana urte askoan. Abel Muniategi, bertsolaria eta abodagua ere, Arrola zarraren illoba izan bear du.

Arrola zarra ta bere lagun bat bein sartu omen ziran ostaturen batean. Jakiña, jatordu-tarte aundi samarrak ere egin bear izaten ditu artzaiak, eta jaten eskatu omen zuten.

Arkumea ekarri omen zioten; asi omen ziran jaten da biak apetitu ederrekoak. Orain bada ezurak platera batera jasotzeko oitura ere, baña orduan etzan olakorik ere: mamia jan-alean, ezurra lurrera botatzen omen zuten.

Lenbizi, gisatua, ta jan omen zuten naiko. Gero errea, berriz. Eta azkenean ezurra belaunetaraño bai omen zuten, exerita zeuden lekuan; da gastu aundia egiten ariko ziralta ta utzi omen zioten jateari.

Orduan ez dakit gastua egingo zuten; baña, gaur izan balitz, ederra ordaindu bearko zuten beintzat.

Arrola ori bertsolarien txapelketetara ere joaten zan. Bein gaiak jarrita ari omen ziran danak bueltan; da, orren txanda

etorri zanean, maisua jarri omen zioten ofizioa; eta arekin ari zanari, berriz, estudiantea. Egin omen zuten beren saioa, eta bukaerakoan ala esan omen zuan:

bereala amaitu da  
nere maisutzia.

Gero, andik bera jetxi zanean, batenbategi esan omen zion eskolan asko ibili gabe egin zala ura maisu, eta Arrolaren erantzuna:

Amerikatik buelta egin da gero, botoa botatzera sartu omen zan bein eskolara; bestetan etzala gogoratzen eskolara sarturik.

Bein, aizkoran jokatzeko señaleari botata, joan omen zan Keixetarengana aizkoran ikastera. Beti ere egiten omen zituzten pruebak, eta Keixeta ori ixilik omen zegoan.

Alako batean galdetu egin omen zion Arrolak ia zer aizkolari iduritzen zitzaion bera: jokatzeko modukoa edo.

Etzekiala, ba, arek nolako kontrarioa zuan ere, ta arek zer esatea nai zuan, ba? Señaleari berdiñean jasotzeko modua egiten bazuan obe, esan omen zion.

Urrengo egun batean or etorri omen zitzaion gure Arrola ori, jaso zituztela diruak esatera. Ala egin omen zuten pakea.

Arrolak berak esan oi zuan ori: arri zatar aundi bat jasotzen geiago zala, aizkoran baño. Edozein erataria ere, Keixetari etzitzaion oso ona iduritu.

Natxituan asi giñan eta Natxituara gatoz atzera. Anjo apaiza, don Felipe izan bear du; Mendarokoa, estazioko jefeari anaia. Antxe zan jefea ere, gu an izan giñanean, bere andrearekin. Ama ere baietz uste det; eta, aiek diran tokian,



bada gizatasuna. Bi anaiak dira jatorrak. Gu ere alakoakin piska bat jatortu egiten gera.

Beste batean Arteagan ere izan giñan. Basarri ta biok giñan emendik joanak; eta Bizkaitik, berriz, bat Lopategi eta beste Balentin Enbeita izan bear zuten.

Markinan ere askotan izan giñan. Lenbizi Zepairekin, gero Basarriekin, eta geroago Lasarte, Lopategi eta Azpillagea, danok izan giñan; eta Muniategi gaiak jartzen. Ori abogadua da.

An ostatua *Kiputxanea* izaten genduan lenbiziko aldetik. Azpeitiko Gallaiko Kosme zegoan orduan an ostatuarekin, eta orain ez dakit bizi dan edo ez.

Angiozarko Pelisekin ere izan giñan batean beintzat, ura soñu jotzen eta Basarri ta ni bertsotan.

Markina-Etxebarrira ere joan giñan bitan edo geiagotan. An ere Basarriekin izaten nintzan.

Aulestian edo Murelagan ere izan giñan. Markinako *Legoa* ere antxe ezagutu nuan. Alkarrekin joan giñan automobillean Markinatik ara, eta arri jasotzen jarri zuten gañera.

An sariketa zegoan arri jasotzen, eta bat besterik apuntatu ez; da ia zeñi esango zitzaion, ba, amar arruako arriari eltzeko, Legoiaren modukoren bati esan ezean? Eskerrak uraxe jarri zan. Amar arruako arria aundia da jolasean ibiltzeko.

Lenbizi, len apuntatua zegoan ura asi zan, da orrek ederki manejatzen zuan arria. Gero Legoiak eldu zion ta orrek ere ondo jasotzen zuan; baña ezagun zuan ofizioa palta zuala.

Bigarren premioarekin gelditu zan Legoa. Etzuan parragarrikeririk egin.

Beste bat ikusiko nuan nik aren ondoan, ura baño geiago ibili gabea.

Baña bestea ezagun zan asko ibilita zegoala; orrek etzuan indarririk alperrik galtzen.

Gernikan ere izan giñan banaka batzuetan. An ere Basarriekin izaten nintzan. An euskal pestaren bat zanean edo orrela izaten giñan. Mitxelenarekin ere izan nintzan batean, eta Agerre arri jasotzen, Latasa ta Arretxea aizkoran, da orrelaxe. An Arrien pelotarien etxean gelditzen giñan jaten.

Gernikara joan ezkeru, arbola ere ikusi bear, ba, eta ura ere ikusi genduan egun batean. Arbola bakarrik ez; an lenago billerak egiten ziran toki aiek eta danak.

Areatzan ere bitan edo zerbait izan naiz. Ori bertsolari-erria da. Orkoak dira Enbeitatarrak, eta orkoak Lopategi, Sardui, Ajuria eta Iturri. Oiek nik dakizki-danak; ez dakit besterik dagoan.

Iturri gizarajoa aspaldian elbarrituta dago, karroxa baten gañean bestek erabiltzen duala. Nik Donostian ikusi nuan batenbaten omenaldian, eta errukarria ikusi nuan da pena aundia eman zidan.

Datorren urtearen aurrenean Enbeitari egingo zaio omenaldia, ezerren okerrik ez bada; Balentin Enbeitari alegia. Ori Kepa Enbeitaren semea da. Irurogei ta sei edo zortzi urte edukiko ditu.

Abelen aita da ori, ta Abelek beste anai bat ere badu bertsolaria. Zarautzen ikusi nuan gazte askorik bertsotan.

Sardui, Ajuria ta oiek danak ere Enbeitarren lengusuak dira.

Lopategi Tolosan ezagutu nuan. Orrek ikasketak egiten jardun zuan tokian, pesta bat egin zuten. Basarri ta ni aruntz joan giñan, eta ura ere antxe zan,

eta an izan genduan ura ezagutzeko zoria.

Bertsotan ere egin zuan gurekin, eta lenago ere bagenduan Lopategiren aditzera. Bizkaian sariketan-da ibilita zegoan ordurako ere.

Iturri gizarajoari ia, ba, zerbait laguntza egiten zaion. Nik ezin nezake asko lagundu. Baña bertsolarien artean biotz piska bat badagoala nerekin ikusi det, eta berriz ere len egin duanarekin pio izan zaitezte; omenaldiren bat edo zerbait beintzat, bere txanda datorrenean.

Onoko bertso au Areatzan nik kantatua omen da. Balentin Enbeitak ala dio.

Au txokoaren edertasuna!  
Auxen da alaitasuna!  
Gure izkuntzak nabarmen dauka bere aberastasuna!  
Areatzarrok alkaturikan emen da anaitasuna,  
diruarekin ezin ordaindu olako edertasuna!

Amoroton ere izan giñan batean. An ere Basarri nuan laguna.

Arritxina edo an ere izan giñan batean edo bitan. Elorrioko fabrika bateko langilleakin joaten giñan ara Jose Lizaso eta biok. Goizean joan da an bazkaldu, eta eguna ederki pasatzen genduan.

Bermeon ere izan giñan baten Basarri eta biok. Uriarte ere an zala uste det orduan. Au gerra aurreko bertsolaria da. Ez dakit bizi dan; baña, bizi baldin bada, onezkero urte asko ditu arek. Ni baño ere puska bat zarrago zan ura. 1935-ean emen izana zan ura ere, beste askoren artean.

Urdulitzen ere izan giñan Basarri ta biok, eta bazkaltzera Plentziara joan gi-

ñan. Oso polita da Plentzia, ta Urdulitz bera ere bai; itxasorik ez daukala arek, Plentziak bezela.

Lujan ere izan giñan. An Zepai ta biok izan giñan. An Motrikoko Betetxe korrikaria zegoan bizitzen, eta aren etxean egon giñan jaten.

Bilbaon ere izan giñan iru edo lau aldiz. Batean *Arriaga* antzokian izan giñan: gu, emendik, Basarri, Mitxelena eta ni, Uztapide, iru Gipuzkoatik; eta Bizkaitik, Enbeita eta Azpillaga, bost. An ez genduan lan aundirik izan: bina bertso kantatu bakarrik.

Beste batean, Xalbador, Mattin, Madariaga, Narbarte, Mitxelena eta ni, Uztapide, kanpotik joan giñanak, eta bertakoak Azpillaga eta Mugartegi. Ez dakit geiago giñan edo ez giñan.

Beste batean, berriz, *Instituzioa*(1) edo ez dakit zer izango zan; angoxe patioan jardun genduan. Orduan ere Basarri ta ni giñan emendik joanak; eta Bizkaitik, berriz, Mugartegi eta Azpillaga.

Bestetan ez dakit izan geran edo ez.

Euban ere izan giñan batean. Ura prailleen komentua izan bear zuan, eta Egileor eta biak izan giñan.

Larrabezuan ere izan giñan. An Angiozarko Pelis soñuarekin, eta Basarri ta ni bertsoan izan giñan.

Durangon ere izan giñan batean. An berdura-plazan kantatu genduala uste det. Basarriekin nintzan orduan ere, eta Angiozarko Pelis bestea soñu jotzen.

Urkiolara ere joan izan giñan: Durangoraño trenean joan, andik Mañariño autobusean, eta andik gora oñez. Batzuek anka-utsean joaten dira ala ere. Guk bestela bazala naikoa penitentzia pentsatu genduan, an gora oñez joatea ere.

Bein gora joan ezkerro, toki zoragarria da an, Urkiola buelta artan. Ango pagadi eder aiek! Nunai soñu-jotzallea ta nunai duntziñeroa! Ango mendien edertasuna! Ango pago-osto eder aiek!

Emen palazioai-eta jardiñak antolatzen jarduten dira. Ez dago pagadi ederra baño jardin ederragorik. Aren ondolan alfonbra ederra izaten da. Berdin gabeko itzal ederra ere berekin du pagoak.

Urte-garaia ere ala izaten da San Antonio eguna. Zerbaitegatik jarrita egongo da egun orretan Urkiolara joateko oitura.

Mañari aitatu dedanean, gogoratu zait Alberdi bertsolaria. Eibarren ikusi nuan txapelketa batean, eta oso guregandik desberdin egiten zuan arek. Bertsoa asi ta bi puntu rima batekin egin; eta, beste biak egiteko, aldatu egiten zuan rima. Aiek ala izango zuten oitura.

Bizkaian badira Pujana bat eta Balentin Enbeita bera ere; guk baño rima lasaixegoa ibiltzen dute jeneralean.

Ez det esan nai orrekin bertso txarragoa antolatuko dutenik. Rima zenbat eta lasaiago ibilli, orduan da geiago esan ditekete bertsoan. Ori nola lenengo oitzen dan izaten da. Orain gu, zarrak beintzat, ezin giñezke aldatu, naita ere.

Abadianon ere izan giñan bi edo iru aldiz. Batean Basarriekin, bestean Zepairekin eta bestean Saiburu zarrarekin; eta Angiozarko Pelis ere an zan danetan.

Batean gertakizun bat ere ikusi nuan. An San Blasetan izaten giñan, eta abere-periak izaten ziran.

An peria ikusten genbiltzan, eta alako baten or ikusten degu jendea dana ijito bati makillakin Kristorenak ematen. Zer ote zan eta, kartera lapurtzen bati ari

zala, besteak ikusi. Jo garrotearekin, eta eskuan zeukan kartera kendu omen zion.

Lenengo bat asi jotzen, eta gero jiran makillak zituzten danak. Ango egur-otsa! Lurrera erorita ere, etzioten utzitzen.

Alako baten guardiazibillak kendu zioten. Etzan asarre ura, guardiazibillen eskuetan jarri zanean, bestela antxe garbituko zuten da.

Aiek kartzelara eramango zuten; baño iru egun barru libratuko zuten, da berriz ere lengo opizioan saiatuko zan ura.

Aspe-Marzanara ere joaten giñan. Basarri ta biok izan giñan an. García Ariño anaiak orkoxeak dira.

Elorrion ere bai; izaten giñan. An euskal pesta zanean izaten giñan; arri-jasotzalleak, aizkolariak eta orrela izaten ziran, gu joaten giñanean. Au Azkarate pelotariaren sorteria da

Bein batean, Kortaberri Mendarokoa eta Motrikoko Txurruka ikusi giñuzen joko estua jokatzten. Txurrukak irabazi zuan, baño naikoa lanak baziran an.

Bertako aizkolariak ere ikusi izan ditugu an. Egurra lurrean bueltaka artuta ebaki egiten zuten aiek ere. Egur txikiak ziran, da ari eskerrak.

Zeanurin ere izaten giñan. Iru bat al diz izango giñan an ere.

Batean, oraindik gogoratzen naiz, emen jeiki Jaungoikoak nai zuan ordutan, da, ara joan giñanerako, ala ere berandu. Meza berriren bat izan bear zuan; da, gu iritxi giñaneko, amabiak urrean izango ziran. Gu iritxi-zai zeuden bertsoan jartzeko: gotzai jauna zai zegoala gu bertsoan ikusteko!

Joan gera, ba, balkoi batera ta an zegoan gure gotzai jaun ori. Emen artuta-

ko kapearen indarrarekin bertsotan ederki egingo genduan guk gotzai jaunaren aurrean. Amaika orrelako egin degu gure denbora piska onetan.

Kastillo-Elejabeitia, Iurre, Billaro ta oietan danetan izanda gaude. Basarriekin izaten nintzan jeneralean erri oietan.

Olakuetan edo Berrizen ere izaten giñan. An San Antoniotan egiten dira pestak.

Idi-probak izaten dira or pamatuak. Orrekin izen aundia artu du Berrizek. Iñon ez bezelako probak, eta sariak ere onak banatzen dituzte or. Orregatik, Berriz asko aitutzen da, Urzelai jaunari eskerrak.

Zaldibarren ere izan giñan bi edo iru aldiz. An ere Basarriekin izaten nintzan. Euskal pesta zanean izaten giñan gu an.

Batean, Mallabiko Txikia antxe ikusi genduan amabi arruako arria jasotzen. Gizona bera baño aundiago zan arria, eta ederki jasotzen zuan ala ere. A zer nolako txaloak irabazi zituan! Plaza dana aidean eduki zuten ango txalo-otsarekin.

Mallabian bertan ere izan gera beste pare bat aldiz. An ere Basarriekin izaten giñan, eta Angiozarko Pelis soñu jotzen.

Au ere pelotari-erria da. Gure Mallabia *Primero*-ren etxean egoten giñan jaten. Ostatua zeukaten aren etxean.

Gero, Mallabiako Txikia, amaika aztarka ibillitako gizona frontoietan; eta orain, berriz, orren semea: *Gana-partidos*.

Ermua, Bizkaiko azkeneko erria; or ere izan giñan bi edo iru aldiz. Basarriekin lenbizi, eta gero Lasarterekin izan giñan.

Asteasuko Lamitegi bertsolaria ere antxe il zan. Alargun batekin esposatuta zegoan, eta gazterik il zan.

Bizkaian ni ibili naizen erriak, geienak aitatu ditut. Baña ez da batenbat gogoratu gabe gelditzea arritzekoa izango. Olakorik balitz, arren barkatzeko eskatzen dizutet; eta agur, Bizkaia!

(1) Instituto.



# Araba

**G**IPUZKOA eta Bizkaia aitatu ditugu, eta Arabarengatik ere zerbait esan bearko degu.

Euskera bizi dan erriak ere ez dira asko izango Araban; baña zerbait, Arian-edo, zarren batzuek izango dira oraindik itzegingo dutenak. Baña oraingo gazteak ezin lezateke itzezin. Ango euskera joan da.

Aldaketa aundiren bat etortzen ez bada beñepein, len galtzen joan dan bezela atzera indartzen asten ez bada beintzat, akabo ango euskera ere.

Billarrealen ere itzegiten zan geroxegoan ere. An ere orain zarren batzuek itzegingo dute. Zar aiek bukatzen diranean, zeñek itzegingo du an ere euskeraz?

Oraingo gazteai bost ajola zaiote euskerarengatik. Edozein gaztek esango dizu: "Orain euskera zertarako ikasi?". Gutxienez ere, izkuntza bat da beintzat, eta utzitzen errezago da.

Nik izkuntzak ikasteko inbiri aundia det. Ez det ikasteko erarik izan; baña, al izan banu, ikasiko nituan al nituan guziak.

Bitorian ari omen dira batzuek orain euskeraz ikasten. Bitoriak ez du galdu

egingo euskerarik. Ni egon nintzan an mutil koskorretan, eta an etzan orduan ere itzegiten euskerarik, oso gutxi ez bada.

Ementxe Bizkaitik edo Gipuzkoatik joandakoren bat an bizitzen baldin bazegoan, aretxek itzegingo zuan; baña an bertan jaiotakoak, beintzat, batek ere ez.

Orregatik esaten det Bitoriak ez duala galduko euskerarik; bada ere, irabazi. Berrogei ta amarrek ikasten badute ere, aiek geiago, eta galtzeko bildurrik ez.

Arabian erri bat dago euskeraz jator egiten dana: Aramaio. Antxe danak egiten dute euskeraz, bai zarrak eta bai gazteak.

Arabian euskera bizirik egon bada, Aramaiori eskerrak. Beste danak galdu dute, baña oiek eutsi. Errez esaten da ori, baña egin-egin bear da ori.

Orain-oraingo berririk ez dakit; baña, gu an bertetan izaten giñanean beintzat, aiek danak euskeraz mintzaten ziran, eta oraindik ere ala egingo dirala pentsatzen det.

Gu Arrasatetik edo Mondragoitik joaten giñan ara. Ez da oso egoki joateko ere emendik orruntz, trenean beintzat.

Errenterian artu bostak eta erdietako trena eta Donostiko Amarara joan; an sei

ta erdietan egoten zan trenan, ta orren zai piska bat egon egin bear; gero, arekin Maltzagaraño joan; an Bitoriakoa artu eta Arrasatera. Andik ere autobusa bear, berriz, Aramaiora joateko.

Etzan bereala izaten gosaria, ara iri-txita!

Angiozarko Pelis izaten zan an gurekin soñu jotzen, eta Basarri ta ni bertso-tan.

Ormaetxea pamelia genduan guk an oso ezaguna. Basarriekin gerra-denboran Frantzian alkarrekin egonak izan bear zuten, eta andik zuten konfiantza aundia alkarrekin; eta nik ere bai, gero egin nuan konfiantza. Oso pameli ona zan.

Pameli artako alaba zegoan erri artan ostatuarekin, eta kuñadua, anai-talde orrena.

Anai-talde aundia zan; Ormaetxea oiek sei edo zazpi baziran, gutxienez ere.

Aita illa izan bear zuten ordurako ere. Ama emakume lodi bat zan, eta enplastera edo orrelakoa izan bear zuan. Makiña bati erremedioak egiña izango zan ura, esaten zutenez.

Gu Aramaiora iritxi eta etxe artantxe sartuko giñan. Gosari piska bat egin-edo, beti ondo artuak izaten giñan gu etxe artan. Antxe gozaten giñan piska bat.

Batenbaten omenaldian edo ez dakit zer izango ziran, bi anaia Donostian ikusi nituan. Basarriren omenajean izango zan seguru asko.

Anaia bat oso ondatua ikusi nuan. Luziano edo orrela izan bear du izena, eta Bilbaon bizitzen zan ura lenago. Orain ere an biziko da seguru asko. Makillakin-da zebillen, eta ezurretako desgastea edo zerbait orrelakoa edukiko zuan.

Alkar agurtu genduan eta piska baten egon giñan alkarrekin; bere anaia Imanol zuan laguna. Len ere anaia alkar maiteak ziran aiek, eta orain ere ala izango dute. Alakoxe moduan ikusi nituan nik aiek.

Nik ere ementxe izan nuan, gaixo egon nintzanean, bisitatzen, Imanol. Etzuan gutxi egin nerekin gogoratzea ere.

Imanol ori Santa Agedan bizi da; zerrak dauzka orrek, eta basoak erosi eta tabloia ta trabesa egiten jarduten du.

Ez dakit aspaldiko berririk; ama bizi dan edo illa dan ere ez dakigu; baña orrek edade edo adiña aundia du onezkero, eta illa izatea ere ez da arritzekoa. Ala bada, zeruan gerta dedilla.

Esan bezela, gure saioa arratsaldean izaten zan. An saloi koskor bat zan, eta ara joango giñan.

Angiozarko Pelisek joko zuan lenbizi soñua, pare bat edo iru bat pieza, eta Basarrik eta nik bertso-tan egingo genduan beste saio bat. Txandan, orrelaxe, pare bana saio egingo giñuzen..

Gure Pelisek joko zuan martxakoa despedida bezela, eta jendea saloitik kanpora aterako zan.

Pelisek berriz ere joko zuan soñua dantzarako ere, ta erri guzia ederki dibertitzen zan.

Gero, gaberako ere, bertan gelditzen giñan geienetan. Ormaetxearen etxera bilduko giñan, eta an ederki apaldu ta bertso-saiorik etzan paltako, apalondora ezkeru.

Pelisek, berriz, soñua bere gisa jotzen erakutsita zeukan. Baña berak an bear zuan derrior; bestela etzuan jotzen.

Gabean, asperten giñanean edo lo-galetzen giñanean, oiera joaten giñan.

Ederki deskantsatu ta goizean kapea artu; ta langilleakin etortzen zan autobus bat Arrasatera zortzietarako, eta gu ere jarri antxe ta bera etortzen giñan.

Gero, badakizu, Aramaiora ainbeste aldiz joaten giñan eta Azkoagan ere bazuten gu eramateko desioa; eta ara ere joan giñan, ba, alako batean.

Ori ere Aramaioko ballara bat da. Euskeraz egiten da an ere. Aramaiok ballara asko ditu, eta danetan egiten da euskeraz.

Dana dala, beintzat, joan gera Azkoaga orretara, ta ango bista ederrak eta ura toki alaia! Aramaioko beste ballarak ere ikusten dira andik.

Ango mendiak badirudi itzegiten ari dirala. Danak arpegi argiarekin daude.

Aiek, denbora baten, beren egal guzietan euskeraz entzundako mendiak dira; "Arabak euskeraz zekianean", aramaiotarrak esaten duten bezela.

Mendi aietatik arunzkorik iñor etortzen baldin bada, "oiek arabarrak dira" esango dizute, berak ere ala dira baña.

Mendi aietatik arunzko jendeak euskeraz zekianean, orduan bai, bikote gazteak eta euskeraz egiñez ibiliko ziran. Arri-tontorrek ere jakingo zuten euskeraz.

Anboto mendiko arkaitz aundi aiek zerbait esango luteke. Aiek ikusi duten ainbat gorabera! Ango gerrak eta ango sesioak, lur-gain guzia geurea bagendu bezelaxe eta berreun urteko bizia bagendu bezelaxe, eta egun bateko segurantzirik ez daukagu.

Al degun guzia geureganatu. Naiz besteari min aundia eman, etzaio ajola-

rik. Al baldin bada, zapaldu beintzat. Mende samarrekoa arrapatzen baldin bada, orduan da poz aundiagoa.

Kristauen izena daramakigu, baña askotan ez liteke esan kristauak geranik. Kristau jatorrak bagiña, ez genduke olako goserik izango eta orrenbeste besteak zapaldu nai izango.

Esan bezela, Azkoaga orretan eguna pasa genduan, eta ez dakit zer pesta zan ere. Bitoriako gobernadorea eta alkateata or ziran, eta txistulari-talde bat ere bai. Zerbait pesta arek izango zuan bere garrantzia.

Guk egin giñuzen geure saioak eta libratu giñan, beti bezela.

Ango apaizak ez dakit don Felipe-edo izana nola zuan ere. Orrek erlean zuan apizio aundia. Makiña bat erlekontu esan zigun egun artan, nik asko ez ditut orain gogoan baña. Nunbait orrek berak erlean egiten zuan lana.

Egun ederra pasatu genduan guk beintzat. Basarri ta biok giñan an egun artan ere. Aspaldiko kontuak dira, eta ia aztu ere egin zaizkigu.

Arabarengatik ez degu beste zer esan aundirik ere. Aramaiio bezelako beste erri batzuek egon balira Araban, geiago jakingo genduan ango berri ere. Erri bat bakarra degu an bertotan izaten giñanik, eta beste ballara bat, eta gauza aundirik ezin esan.

Gu pozik joaten giñan Aramaiora bertsoara, Araban izan giñala esateko ere; baña etzegoan beste nora joanik, ta erri batekin konformatu bear.

Besterik etzait gogoratzen ezer esatekorik eta bukatu egingo degu orain; eta agur, Araba!

# Naparroa

**E**TORRI da, ba, Naparroaren txanda ere. Nun ibili giñan bada ere esan bearko degu.

Goizuetatik asiko naiz. Nola Oiarzunekin muga egiten duan, auzo-erri bezela degu Goizueta.

Narbarte bertsolaria ere orkoa zan. Arekin ere pranko ibili giñan.

Batean Prantzira joan giñan, Larzabal apaizaren omenaldira. Larzabal ori Zokoako bikarioa izan bear du, eta Azkaiñen egin zitzaion omenaldia, Laduxen etxean.

Goizean etorri zan nunbait Narbarte ori Iruna, eta orrerañokoa bakarrik zualakoan edo ez dakit, ba, nik zer izango zan ura; baña muga pasa bear eta or zegoan koxka.

Batenbatek esan dio pasea bear dala, mugan pasako baldin bada; joan da Komandantzira, eta jai dutela aiek eta ez dirala lanean asiko egun artan.

Etsi du an eta kalera atera da, ta Jaungoikoa beti laguntzen ari zaigula ez da gezurra, ez. Bergara tasistarekin topo egin du: ura bere kotxean, eta kaso egitea pentsatu omen zuan, len Bergararekin Bilbaon izanak giñan, ba.

–Ara emen Narbarte ere! Zer zabil-tza?

–Galduta edo alatsu! –esan omen zion.

Orduan esplikatu omen zion zer pasatzen zitzaion, eta Bergarak artu berarekin eta joan omen ziran Komandantzira berriz; eta ezetz, egun artan etzutela lanik egingo.

Eta Bergara orrek ezaguna izan Berako Komandantzian zegoan gizona, eta ara joan omen ziran biak. An eman omen zioten pasea, eta orduantxe ez omen zan asarre gure Narbarte.

Begararekin berarekin an dijoa Azkaiña. Gu bazkaltzen aurreratu ta gero joan ziran Bergara ta biak, ta an danentzat jana bazegoan eta antolatu ziran.

Gero, onuzkoan, ni ere aiekin etorri nintzan. Berriz ere Bera-Bidasoara etorri bear genduan.

Ibardingo gañean gelditu giñan eta an karabineroak besterik etzegoan; baña Narbartek derrior bertsoan egin bear. Guk, ixilik egoteko! An etzegoala iñor bertsoa konprenditzen zuanik! Ala ere alperrik zan. Ibardin ori Prantziako ta Españiako muga da.

Atera giñan, ba, andik, eta pasea Bera-Bidasoan entregatu bear zuan.

Ara iritxi zanean, asi da pasearen bila ta ez duala billatuko. Begiratu patri-

kara batean da begiratu bestean, eta etzuan billatzeko modurik egiten. Asarretu ere egin zitzaion Bergara.

Alako batean, amalau edo amabostgarren patrikaran edo zer dakit zer, billatu zuan beintzat, eta etzan asarre gure Bergara.

Irunen trena artu genduan eta Ernainirako billetea artu zuan. Egun artan etzeukala etxeratzeko modurik esaten zuan.

Nik, badaezbada ere joateko esaten nion; an basoan zebillen kamioiren bat edo zerbait, andik izango zuala konbinazioa.

Baña biaramonean, astelenean, Tolosan omen zebillen perian, eta batenbatek galdetu omen zion an ia zer zebillen edo orrelakoren bat.

Eta bere naziotik kanpora bertsozara joateko inportantzia zeukan gizonarentzako etzala ori aundia, Tolosaraño perira joatea, esanda utzi omen zituan.

Baña gazterik il zan gizarajoa. Beti gaizki zebillen nunbait aspaldi artan, da or aditzen degu il dala gure Narbarte, Goizuetako bertsolaria.

Ez genduan gauza garbirik jakin. Urrutiko gauzak, lauri aditzen badizkiezu, lau modutara izango dira; eta danak gezurrak ez badira, ala ere.

Mendian sua atera zuala ere aditu genduan; eta, ura itzali eziñik zebillela, geiegi beartu ote zan. Nolabait ere galtzeko aña modu egin izango zuan beintzat.

Nik baño obeto jakingo dute aren eriotzaren berri an ingurukoak, eta aiek esango dute; eta zeruan gerta dedilla.

Perurena ere orkoa da, Goizuetakoa. Arekin ere tokatu zitzaidan batean ber-

tsotan egin bearra, txapelketa batean, Donostian.

Esan bezela, Goizuetan ere izan gera, ez dakit zenbat aldiz, baña banaka batzuetan bai. Batean Basarrirekin, bestean Mitxelenarekin da orrelaxe. Or Ama Birjiña Agoztukoetan egiten dira pestak.

Leitzara ere joaten giñan. San Tiburtziotan egiten dira pestak.

Orrera jeneralean Lasarterekin joan izan naiz, erriko semearekin. Beste bein, perretxiko-txapelketa zan batean ere izan giñan. Papelera berri orrek abisatuta ere bai.

Leitza Papelera orretzek jantzi du. Orain errian badute lana berentzat eta geiago ere. Lenago basora edo Ameriketara artzai joaten ziran orko gazteak, eta orain ez da orrelakorik. Orain Leitzan ori zuzenduta dago.

Leitza aizkolari-erria da. Orkoak dira Gartziarena, Astibia, Ituarte, Zabaleta ta oiek danak.

Leitzako erriak baso asko dauka. Aberastasun aundia dauka Leitzak basoekin. An berez etortzen da pagoa beintzat; ez dago landarea aldatu bearrik.

Gorritin ere iru alditan izan naiz. Batean, kamioa egin zutenean, orren inaugurazioan. Bordaberri zarrarekin izan nintzan. Bestean bakarrik, Berakoetxeari omenajea egin ziotenean. Eta atzeneko aldian Lasarte ta biok, berriz. Amerikano bat etorri zan, da aretxek eraman giñuzen erriko pestetarako.

Bordaberri zar ori Leitzakoa izango zan berez, eta bertsolari gogorra zan. Etorri aundia zuan arek. Arekin ondo uzartzeko, bi eskuetatik jakin bear zan lanean. Ori bai: zepillatu bear aundia zeukan; baña edozeñi lan txarrak emateko aña bazan ura.

Areson ere izan giñan bein. An Jose Lizaso ta biok izan giñan. Emengoa da Zabaleta bertsolaria. Batean Donostian izan zan; txapelketa batean ura ere.

Betelun ere izan giñan batean, aspaldiko kontua da baña. Basarri ta biok izan giñan an ere.

Atallon ere bai, eta Arriben ere bai. Oietan, batean Lazkao-Txikirekin eta bestean Lasarterekin izan nintzan.

Lekunberrin ere bai. Emen askotan izan giñan; Mitxelenarekin eta Ernani-Txikiarekin izaten giñan.

Or Barriola zarrarekin izaten giñuzen gure tratuak. Orrek eramaten giñuzen; eta, gu bertsotan asten giñanean, beste danak ixilik egon bearko gañera.

Danak orrek bezela maiteko bagendu bertsoa, oraindik ere bertsolariak izango genduke lana.

Arruizen ere izan giñan batean. Lasarte ta biok joan giñan ara. Karnabaletan izan giñan an. Lau edo bost egun, danak jai egiten dituzte aiek karnabaletan. An Txikito-Arruizen etxean egon giñan.

Au korrikalaria da; garai batean ona gañera. Orain ostatua dauka Arruizen.

Etxalekun ere izan giñan. An ere Mitxelena ta biok izan giñan emendik; eta an bertakoak: Errazkingo Oreja eta Gartzaronen bada beste bertsolari bat, orain ez naiz gogoratzen bere izenik, baña uraxe ta biak.

An frontoia berri-berria zegoan, da antxen egin genduan laurok. Orain ez daukat gogoan zer pesta izango ziran.

Beste bein, Ultzamako bentan ere izan giñan gau batean apaltzen, ango gizon-talde batekin.

Almandoz alde ortakoak ziran; Sanzberrotarrak anai-koadrilla aundia dira,

ba, Almandozen, eta oietako bat zan Amerikatik etorri berria, ta ori izango zan motiboa.

Lau anaia baziran berak ere. Kanta zarrak kantatzen, gutxi izango dira anaia aiek bezelakoak. Egun artan ere kantatu zituzten ederrak.

An Lasarte ta biok izan giñan. Guk ere kantatu giñuzen geureak. Atarian elurra zegoan, baña guk kendu giñuzen otzak.

Almandozen ere izan giñan. An Mitxelena ta biok, bi aldiz edo zerbait ere izan gera.

Berroetan ere bai. Bi eguneko joan giñan ara. Mitxelena ta biok izan giñan an ere.

Elizondon ere askotan izan naiz. Bertsolari geienakin izan naiz or, naparrak badira; eta bizkaitarrak eta mugaz arunzkoakin ere bai, ta gipuzkoarrakin zer esanik ez.

Or pesta antolatzen dutenak Klemente Ezkurdia eta Mariano Izeta dira.

Oiek ez balira, besteren batzuek izango al lirake; baña ez dakit, oiek palta diranean, bertsolaririk izango ote dan Elizondon ere. Oiek antolatzen dute beti.

Ango mendiko jendea pozik etortzen dira Elizondora, an bertsolariak diranean.

Izparringirik irakurtzen ez dutenak ere, jakiñean jartzen ditu Klementek, trantuan dabillen denboran batari ta besteari esanda.

Orrelaxe manejatzen dira aiek; eta beti ere, Elizondon bertsolariak egiten diranean, jende puska bat izan egiten da.

Bein batean onela kantatu omen nuan agurra Elizondon:

Arratsalde on anai-arreboi  
esan bear det aurrena,  
Elizondora iritxi arte  
eneukan lasai barrena;  
bañan poztu naiz lagun zarrakin  
bildutzian alkarrena,  
lenengo agurra neretzako zan  
nola bainaizen zarrena.

Mattin, Lazkao-Txiki, Xalbador ta ni  
giñan orduan. Urrena Izetak agindu zi-  
dan pestetan famelian bilkurak nola egi-  
ten diran aitatzeko, eta onela kantatu  
nuan:

Emen jarraitu bearra dago  
jartzen diguten gaietan,  
famelirako bilkurak izan  
dira pesta-garaietan;  
guraso eta seme-alabak  
inguraturik maietan,  
zer poztasuna igaro duten  
Elizondoko jaietan!

Gero, puntua onela jarri zidan:

Munduko gauzik onena  
degu osasuna...

Nere erantzuna:

Ontzat ematen dizut  
esaten dezuna;  
bestela gaizki pasa  
bear da eguna,  
oraindaño ona da  
beintzat daukaguna.

Gero, alkarrekin kantatzeko, opizioa  
eman zigun Mattini eta neri; Uztapide,  
erriko apaiza, beti kontseju onak ema-  
ten ari dana; eta Mattin, neskatxa gaztea,  
dantza gustatzen zaiona. Seinua bertso

kantatu bear izan giñuzen. Oietako ba-  
tzuk onela izan ziran:

Uztapidek:

Eneuke nai gaztiak  
ibiltzia triste,  
ori eskatzen dedanik  
etzazula uste;  
beti etzera izango  
orain bezin gazte,  
zartutzia're eldu  
biar zaizu laste.

Mattinek:

Uste dut ai zirela  
bide zuzenian,  
eta gonbertituko  
naiz ni azkenian;  
baina orai emen nago  
gazte sasoinian,  
zu segituko zaitut  
zartzen naizenian.

Uztapidek:

Dantza onak beti're  
libre baidirade,  
apaizak orren kontra  
iñoiz ez gerade;  
ongi dibertitzia  
guztientzat obe,  
dantzan egin liteke  
pekaturik gabe.

Mattinek:

Nexka gaztia naiz baña  
nai det esplikatu,  
hunuen erraitera naiz  
gaur deliberatu:  
lengo zarretarikan  
beti dut aditu  
oneski dantzatzia  
ez dela bekatu.

Uztapidek:

Ondo dantzatzen daude  
sekulako lanak,  
badira orain gogor  
lotutzen diranak;  
ortik galdutzen dira  
neskatxaren famak,  
dantza-klase ori etzun  
eiten zure amak.

Mattinek:

Amak ola iten zuela  
etzaut iduritzen,  
bainan lengo modak dira  
lengoan gelditzen;  
gaurko modak baitira  
bai usu berritzen,  
apezak ere ez dira  
gaur berdin beztitzen.

Arizkunen ere izaten giñan. An Lasarterekin izan nintzan, da euskal pesta bat zegoan orduan: Latasa aizkoran da orrelako pesta bat. Txistularia ere oso ona dago an, erri artan.

Errazun ere izan giñan batean Lasarte eta biok. An jendea otz samarra zegoan pestarako. Belarrean eta orrela ari zan jendea, eta basarrietan belarrak garrantzi aundia dauka. Jendeak alakoan, pestak pesta dira, baña lana lenago izaten da.

Zugarramurdin ere izan nintzan batean. An Mattinekin izan nintzan, baña damutu zitzaidan ara joana.

Goizean bakarrik kantatzekotan joan nintzan, baña gero arratsalderako gelditu bearra izan nuan.

Nik biaramonean Plazentziara joan bear nuan, da andik Elizondora jetxi nintzan illunabarrean; baña ango autobusak aldegiñak ziran, Donostira etorri bear zutenak.

Makiña bat begiratu egin nion *horarioari*; baña ez nuan ikusten, goizerako utzita, Plazentzira joateko erarik, eta tasisa artu ta etortzea erabaki nuan.

–Bizpahiru oren gibeleratu zatzu hango besta! –esaten zidaten Zugarramurdin, baña nik tasisa pagatu bear.

Ergoaineraño etorri nintzan; galdetu nion, ba, tasistari zenbat zan kontua, ta larogei ta amar duro, urrengo egunean larogei duro irabazteagatik.

Banekian galera egiten nuala, baña egun bateko ez dala izaten gizona eta egin-egin bear ura ere. Zugarramurdin eun duro kobratu nituan, ura urruti zegoala-ta. Or ikusten da bertsolariak zer irabazi egin ditugun.

Jakiña, ni urte askoan izanda nengoan Plazentziako Esozin, da aieri paltatu baño, naiago nuan nik dirua galdu ere.

Arraiozen ere izan giñan Lasarte ta biok. Eta Oronozen ere bai gau baten apaltzen; an ere Lasarte eta biok.

Oronozen kolejio bat ere badago, eta an ere iru bat aldiz izan giñan. An pesta ederra egiten zuten, gitarristak-eta eramanda. Benito Lertxundi eta Laboa izaten ziran gitarra jotzen. Pelota-partiduak ere bai arratsaldean. Oso pesta ederra egiten zan. Lasarte eta biok izaten giñan an ere.

Mugairen ere bai, izaten giñan. Aizpuruaren ostatuan apaltzen izan giñan. Basarri eta biok izan giñan an. eta umore ederra egoten zan an ere. Aizpurua bera ere etzan gizon txarra bertsolarietzat. Il zan gizarajoa eta zeruan gerta dedilla. Orain semea dago esposatuta, pamelia azten.

Legasan ere izaten giñan. Urte baten bi egun egin giñuzen an ere Mitxelenak eta biok.



Santesteban edo Donezteben ere izaten giñan. Or Mariezkurrenak egiten zuan pesta izugarria. Prantzian izaten zan udaran basoan mutil-talde aundi batekin; eta, andik etorritakoan, urtero egiten zuan pesta ori: aizkolariak, bertsolariak eta Iturengo *dunba*-zaleak ere bai kalez kale.

Egun guztiko pesta izaten zan an. Goizean erri-meza lenbizi; gero gerokak. An eleizan ere kantatzen genduan; gero pelota-lekuan, eta gero bazkaltzeko denboran ere bai. Gipuzkoatik ere jende asko eramaten zuan pesta orrek.

Erriari pesta ederra ematen zion beintzat Mariezkurrenak. Naiz dirua galdu, etzan egongo ura pagatzeko bildurrak. Gizon jatorra dala esango nuke nik Mariezkurrena. An lau bertsolari izaten giñan geienean.

Zubietan ere izaten giñan. Lenbiziko joan giñanean, Lasarte ta biok izan giñan; eta gero, berriz, sei bertsolari, euskal pesta zan batean. Danak ez dauzkat gogoan zein giñan ere. Pesta ederra egin zala bai, gogoan daukat oraindik ere.

Baleztena aizkolaria angoa da, eta alkate zegoan gu an izan giñanean.

Sunbillan ere izaten giñan. Lenbiziko joan giñanean, bi eguneko joan giñan. Amerikano batek eramane giñuzen; eta alkateak, arek ere zerbait egin bearko zuala eta irugarrenerako gelditutzeko esan zigun, eta iru egun an egin giñuzen Mitxelenak eta biok.

Gero berriz ere izan giñan beste batean. Orduan ere Mitxelena eta biok izan giñan.

Latasa orkoxea da. Aizkolari ederrik izan bada, bat uraxe da; nere idurirako, onena.

Aranatzen ere izaten giñan. An Zepairekin izan nintzan lenbiziko aldiz; eta

gero, berriz, Basarriekin. San Juan iturrian anak garbitu eta oñez joan giñan andik Aranatzera Basarri ta biok. Gaba zan eta bezperatik joan giñan. An Ama Birjiña Agoztukoetan izaten dira pestak. Bidasoako tren ortan joan giñan Igantziko bentaraño, eta andik gora oñez zortzi bat kilometroan.

Igantzian ere izan giñan batean, Zarauzko koadrilla batekin. Basarri-etxe bat zeukaten erosita an Zarauzko batzuek, eta pestetan zortzi bat lagun-edo beti etortzen ziran Igantzira; eta Igantzitik ere bai, Zarautzen pestak ziranean, beste ainbeste, eta orrela ibiltzen ziran.

Gu, zarauztarrak Igantzira etorri ziran baten, joan giñan aiekin eta bertotan ere egin genduan. Ez daukat gogotan zeñekin izan nintzan ere, Jose Lisasorekin-edo.

Bera-Bidasoan ere izaten giñan. Antxe ezagutu nuan Mattin. Zubikoa eta biak etorri ziran; eta Basarri ta ni joan giñan emendik, lau bertsolari.

An goizeko saioa egin genduan, eta Mattin etzan ixiltzen; plazan kantari, kallean kantari eta tabernan ere kantari. "Zer da au onelakoa?" esan nuan nere baitan.

Gizona etzan ixiltzen, birigarroa Maiatzean baño geiago. Lenbiziko eguna estranjerian eta kezka ederra zeukan arek!

Zubikoa Sunbillako semea da, ta an bizi dana, mugaz beste aldean. Ura bere errira etorri zan, konparazioko, baño serio ibiltzen zan Mattinen aldean.

Orduan gaztea eta alai zan artean Mattin. Ura zala, onezkero badira ogei ta amar urte; baño aren orduko gorpuzkera beti begietan edukitzen det nik. Orain ere berdin-berdiña dago.

Lengo igandean Añorgan izan giñan, eta arek umorea badauka saltzeko ere; eta, Mattin umorerik gabe gelditzen danean, joan liteke sendagillearengana, bera ez da sendatuko eta.

Mattinekin izan nintzan beste batean ere, eta Basarrirekin ere bai, eta Mitxelenarekin ere bai. Or San Estebanetan izaten dira pestak.

Beste batean, berriz, Bizkaitik Lopategi ta Azpillaga, Naparroatik Lasarte eta Arozamena, eta Gipuzkoatik Lazkao-Txiki ta ni, Uztapide, izan giñan, sei bertsolari; eta pelota-lekuan egin genduan bertsoetan. Jendea dezente genduan.

Lesakan ere izan oi giñan. An periak ziranean, uda azkenean, izaten giñan; eta beste pesta geiago ere izaten ziran orduan.

Lenbizi Basarrirekin joaten nintzan ara ere, eta ganaduen txapelketa izaten zan lenengo, joaten giñanean. Aiuntamentuko balkoitik egin izan genduan goizean saio bat, eta arratsaldean bestea.

Gero Mitxelenarekin, Lasarterekin, Lexotirekin, Asteasuko Mujikarekin eta Arozamenarekin. Erriko semea ori, orain Ernanin bizi da baña.

Etxea erosi zuan, da antxe bere andrearekin. Semea ere badu, alaba ere bai, osasuna gañera eta naikoa ondasuna. Elizanburuk bezela esan dezake orrek ere: "Zer geiago bear det nik?".

Lesakan izan giñan baten, pesta polita ikusi genduan: Latasa Gartziaarena-ren da Korta Antonioren kontra. Ez dakit zeñek irabazi zuten, baña bi kontrario beti txarrak dira, ta etzioten egoteko astirik eman Latasari ere. Ura zan jotzea, ura! Bikotea ere biak onak izanak; eta len izan danarekin, gero ere bildur.

Ordurako Kortak berrogei ta amar bat urte urrean edukiko zituatan, baña aiek biak ebakitzen zuten dezente artean ere. Latasa ere ona da, baña len esan detena: etzan nagiak atera bearrik.

Lesakako pelota-lekuan ikusi ditugu Endañeta ta Soarte ta oiek ere arri jasotzen; eta soka-tiran ere bai, Irungo talde bat eta Lesakakoa bestea, saio ederra egiten. Ez dakit zein gelditu zan nagusi.

Bidaso inguru orretan, erri guzietan izaten dira kontrabandistak. Gu joaten giñanean, aurreneko lagunak aietxek izaten giñuzen.

Jende jatorra da, umore onekoa. Zeozer gonbiratzeko ere ez daukate borondate-paltikan. Ta ematen duten santuak izaten dira onenak guretzat ere. Orduan jakiten giñuzen guk zeozer kontrabanduaeren kontuak.

*Arratseko lana* esaten diote berak; lanik ez egiteagatik egiten dan lana.

Bein batean bai omen zebiltzan or Naparroan, arratseko lan orretan, bi mutil. Enteratu dira guardia zibillak eta nun arrapatuko omen zebiltzan, artu ta kartzelara eramateko. Aien lagunak an omen zeuzkaten len sartuta, eta aietatik jakin izango zuten beste bi oiek ere ibiltzen zirana.

Mutillak berak jakin omen zuten beren atzetik nola zebiltzan goardiak, eta egun batean ala esan omen zion batek besteari:

–Adi zak: bai al dakik zer pentsatzen deten oraintxe?

–Nik ez! Nola jakingo diat, ba, nik, ik zer pentsatzen deken?

–Beste aldera joatea, Frantziko alde-  
ra!

–Ta an zer egin bear dek?

–An? Lana egin da biziko gaituk beintzat an ere!

Ta:

–Emen ere bagintxendukan lana, baña lanik ez egiteagatik gitxabiltzek onetan! Ni emen bertan geldituko nauk! Kartzelara joan bear bada, joango nauk, baña lanik ez neri agindu! –esan omen zion besteak.

Beste batean, urte batzuek badira au zala, Gipuzkoako erri batera joan giñan pestetara, eta an bazebillen arratseko lan orretan ibiltzen zan napar bat, ura ere pestan; baña beste lan bat ere bazuan arek egin nai zuana: Zumaian omen zeuden iru milla kilo kape, eta beste aldera pasa nai zituan.

Erri txiki orretan bazegoan emendik bialdutako gizon bat, arratseko lan ori egiten zualako, eta naparra bi egunean an ibilli zan gizon orren billa; atzenean bigarren illuntzean egon zan emendik bialdutako gizon orrekin.

Eta gizon orrek, berak ere jakin kape oiek nun zeuden eta berak pasatzeko asmoa iduki bear zuan. Bestea, emendik joan zan ura, etzan jenio ederrean jarri; nerekin etorri zan, eta arek etzituala pasako, baña besteari ere kostako zitzaio-la, esan zuan, kape oiek mugan pasatzea.

Orregatik esaten du esaera zarrak: “Zein da nere kontrarioa? Nere opizio-koa”. Batek bestea galtzeko amorratzen: “Nik ez badet pasa bear, ezta ik ere!”. Mundua orretzek galtzen du: zorigaiztoko inbiria.

Beste batean, Ondarrabian apaiz bat arkitzen omen zan Prantzira pasa nai zuana; pasaportetik eta ezer ez omen zeukan, ta ara joan nai. Batari ta besteari galdezka zebilela, amabiren bat urteko mutiko bat arkitu omen zuan, da berak igual eramango zuala, ba.

Abitu omen dira apaiza eta mutikoa biak; eta bidean, apaiza ere kurioso samarra izango zan da or asi omen zaio galdezka ia dotriñarik bai al zekian.

Ezetz esan omen zion; aren etxean, eskolan ibili bear zan garaian, lanean asi zirala, eta etzuala izan ezer ikasteko erarik. Orduan apaizak:

–A, gizarajoa! Biziaren erdia galdu dek, dotriñarik ikasi ez badek!

Bai omen dijoaz orretan da txanala zulatu omen zaiote, ta orduan omen ziran an komeriak! Motikoak apaizari:

–Aibeza, apaiz jauna!

–Zer dek, txikito?

–Igarian bai al daki berorrek?

–Nik ez; etzekiat igarian!

–Nere txanala zulatu da, eta nik biziaren erdia galdu det, dotriñarik ez nekialako; baña berorrek osoa galdu bear-ko du, ba, orain, igarian ez dakialako!

Mutikoak igarian bazekian eta biziaren erdia salbatu egin zuan; da apaizak, berriz, dotriña jakingo zuan, baña bizia dana galdu bear.

Naparroan, zer esanik ez dago, Bidaso inguru orretan da Baztan alde orretan-da, seguru arratseko lana egitea. Lenago etzan beste irabazirik ere. Orain badira pabrikak Bera-Bidasoa alde orretan ere; baña orduan basora, Ameriketara edo bestela arratseko lana.

Lenengo al dan ixillena egin; da gero, gelditzen ziran lekuan, ardo piska bat geiago edan, da *vino confesor*.

Nik aditu izan diotet, koadrilla bat sartu omen zan ixil-ixilik Ultzamako bentan, zerbait artu bear zutela eta iñork sumatu gabe paketeak gordeta. Eta gero uste baño obeto gobernatu eta egiñalako irrintziak egiñaz atera omen ziran. Es-

kerrak goardirik etzala izango an urrean. Aieri aztu omen zitzazkioten beintzat goardiak eta gañerakoak.

Emen, Oiartzunen bertan ere, goardiazibillen koartelaren azpian zan pelotalekua, eta danak antxe egiten zuten pelotan, arratseko langilleak. Naikoa loa egin eta goardien aurrean pelotan.

Berealaxe jakiten dute goardiak ez dala ura errentatik bizi; beste zerbait egiten duala orrek bizitzeko: lanik ez egiteagatik egiten dan lan ori, eta ez lanik ederrena bera.

Iruñan ere izan giñan batean bertotan. Panaderoakin joan giñan. Gipuzkoako panaderoak, danak egiten dute jai ori. Gu autobusean joan giñan.

Idaizabalko *Gaztelu* esaten zaion ostatuan gosaldu genduan. Berak kotxeak zeuzkatenak kotxean joan ziran, eta gure moduko zar batzuek autobusean. Arozamena ta biok giñan bertotan.

Lenbizi, Iruñatik aurrera joan giñan puska bat, eta an irin-fabrika bat ikusi genduan. An panadero guztiak dutela uste det partea, kooperatiba bezela.

Oiek gu baserritarrak baño obeto alkartzen diran siñalea or dago, ez da zalla ere ta.

Gero, an urteko kontuak egitea edo ez dakit zer lan zuten. An denbora puska bat egin zuten, da Arozamena ta ni atzera autobusera sartu giñan otzak, abentatuko bagenduan.

Ez dakit zer urte-garai zan ere, baño nolana ere negua beintzat; aize orrek berak esaten zuan. Paraje ederrak dira aiek, baño udarako; orduan etzan giro.

Noizbaiten atera ziran gure panaderoak eta bildu ziran autobusera. Orduan Iruñera etorri giñan. An bermut bat edo beste artu giñuzen bazkari aurretik, eta bazkaltzeko lekura joan giñan.

Bazkaldu genduan ederki, eta oraintxe kapea artzeko garaia al zan, orduantxe asi giñan bertotan. An saio bat edo bi egingo giñuzen, da etzan lan aundirik izaten egun ortan bertotan. Donostiko txistulari bat ere bazan jotzera joana, eta orrek egiten zigun txanda.

Gero, Iriondo jaunak ere itzezin bear izaten zuan. Aren itzaldia eta abar, berealaxe pasatzen zan arratsaldea.

Panaderoetan ere bazeuden bertsolariak, eta aiek ere egin bear izaten zuten saioa. Orrela, esan bezela, berealaxe bukatu zan arratsaldea.

Guk agurtu giñuzen ango jendea; eta Donostitik joan zan txistularia ezaguna zan, ba, eta ura automobillarekin bakarrik zegoan, da bi bertsolariak etxera etorri giñan arekin.

Naparroan toki askotan ibili gera gu, eta ura au baño obeto dago basoz. Ango pagotegi eder aiek! Ortan beintzat alde aundia daukate.

Emen ere baziran denbora baten pago-sail ederrak, ariztiak eta gaztañak. Etxean ere ezagututa gaude, Uztapiden giñanean, ogeitaka gurdi-gaztaña biltzen.

Gaztaindiak askorenak izaten ziran an sail batean, eta ango txakur-otsa eta ango eju-otsa! Orain, akordatuta ere, parre-gurea etortzen zait.

Ardiak eta larre-beiak-eta etortzen ziran, ba, botatako gaztaña jatera. Gizon bat edo bi jarduten ziran, ba, aurrean, gaztaña botatzen sardai luzeakin.

Lurretik botatzeko izaten dira sardai luze oiek. Arekin lurretik arrapatzen ez diranak, beste sardai motzago bat izaten du botatzalleak gaztañaren puntara igotzeko, eta puntara igo arekin eta bukatzen zan arbola.

Orrela, beste pameli dana biltzen jarduten zan. Aurrean botatzalleak bentaja puska bat eraman bear izaten zuan; bestela, gaztaña-lakatsa lurrean bueltaka bera etortzen zan, da orrela sail bat asotan bildu bear izaten zan.

Naparroan oraindik ere badago emengo orduko itxura piska bat. Gaztañak ere nunai badira; eta pagoa eta aritza, berriz, zer esanik ez. Or, Basaburua ta oietan, bista alako basoak daude oraintxen ere.

Gu izan giñan urte batean an, Etxalekun-edo, bertsoan, eta pagotegi ikaragarriak ikusten dira andik. Emen, Leitzan bertan ere, pagoa asko dago.

Or Bidasoa erreka orretan ere bai; baso aundiak ikusten dira, eta piñu gutxi. Or Naparroan piñudi bat ikusi orduko, emen berrogei ikusiko dituzu.

Guk aguro dirua nai izaten degu; eta piñuarekin, berriz, esperantza ori dago, ez dakit zer emango duan baña. Piñua

ere kanpotik ekartzen dala-edo, beti izaten da zerbaiten aitzakia.

Bestela, emengo piñudiak ez dira ezer asko; baña prezioari baju eutsitzeagatik edo ez dakit zergatik ekartzen duten kanpotik piñu-egurra; guk ala uste degu beintzat.

Naparroari ere eman diogu, ba, astindu-aldi bat, eta ez dakit aitatu gabe ko erririk utzi detan, ni izandakorik.

Azpeitiko Patxi Iturzaeta bertsolariari aditu nion batean, gizonari zartzean gauzak aztu-erreztu egiten zitzaizkiola, ta ez da gezurra.

Orain ikusten det nik gauza ori nola dan. Nik orain baño sasoi ohea izan nuan, ni orain egiten ari naizen lan au egiteko; baña orduan ez nuan egin eta orain berandu samar da.

Neri ere gauzak aztu-erreztu egin zaizkit; eta, ni izandako erriren bat aitatu gabe utzi badet, ez da nik nai detelako, eta barkatu zazute arren; da agur, Naparroa!

# Mugaz arunzko aldetik

**M**UGAZ onunzko aldetik asko ibilita geunden bertsotan; baña aruntz ez giñan pasatu beñere, eta egun batean joan giñan Urruñara, txapelketa bat zegoala-ta.

Kopa aundi bat an zebilkiten, batean batek irabazi ta bestean besteak. Iru urtetan segiran irabazi bear zuan batek, etxean geldituko bazuan kopa ori, eta urte artan Mattiñek ekarri zuan, aurreko urtean arek irabazia zuan da.

Len esaten asi naiz ta joan gera gu ere, muga pasata, Basarri ta ni biok, Urruña orretara.

Goizean meza lenbiziko. Lafitte jauna zan etortzekoa, baña ezin etorri izan zan; eta Urruñan bertako erretore jaunak eman zuan meza, baita sermoia egin ere. Bazkaria Larretxean egin genduan.

Milla bederatzireun da berrogei ta bederatzian zan au, Azaroaren ogeiean.

Arratsaldean, erriko eskolan, bertsolari-jaiia izan zan. Bertsolariak auetxek giñan: Mattin, Etxahun, Iriarte, Xalbador, Uhalde, Sarasola, Trunday, Kailaba, Xanpun, Capdeville; auetxek ziran mugaz arunzkoak; eta emengoak, berriz, Basarri, Errezill, Zubikoa eta ni, Uztapide.

Zubikoa au gerra-denboran emendik iges joan zan. Sunbillakoa da ori bere izatez. Orain Bankan bizi da esposatua.

Errexill au, berriz, Naparroako eta Frantziako mugan guardian egonda, pusilla arrika tira ta andikan iges egiña gau batean, da an omen ziran komeriak.

Andaluz bat etorri omen zitzaion txanda egitera, len esan detan muga orretara, eta aren arrastorik ez an iñon.

–*¡Vaco! ¡Vaco!* –asi omen zan andaluz ori.

Eta besteak:

–Ni nun nagoan ez dakik asko! –erantzun omen zion mugaz beste aldetik.

Orrelakoxe zelebrea zan ura.

Erreziltarra zan bera, Loidisaletxe bertsolariaren anaia, eta gizon ona zan ura, onik bazan. Urruñan bizitzen zan, ta esposatu eta pamelia azi zuan.

Baña etzuan gizarajoak suerterik eduki bizitzeko; gaitz txar batek arrapatu eta artean gizon sasoikoa il zan.

Len asi naiz esaten eta Urruña orretan amalau bertsolarik egin genduan saioa, eta Basarrik irabazi zuan kopa aundi ori.

Len ere etzuan izango lendabizikoa, eta beste bat geiago. Biak gustora etorri giñan gure koparekin etxera. Beste bi urtetan irabazi bear zan segiran, baña Basarrirentzat etzan arritzekoa.

Maiko jaunak auetxek ziran: Dassance jauna buru; Constantin, Monzon eta Oxobi jaunak lagundu.

Egun ori orretan bukatu zan, da urrengo urtean berriz joatekotan etorri giñan.

Berriz ere milla bederatzireun da berrogei ta amarrean jarraitu zitzaion kopa aundi ori jokatzeari. Len esan dedan bezela, iru urtetan segiran irabazi bear zuan, etxean geldituko bazan, eta Basarrik aurreko urtean irabazi zuan; eta kopa ori artu ta joan zan bigarren urtean Donibane-Lohitzun edo San Juan de Luz-era.

Antxe zazpi bertsolari juntatu omen ziran: Sarasola, Mattin, Xanpun, Zubikoa, Errexill, Iriarte eta Basarri. Lenbiziko urtean amalau bertsolari ta bigarrenen zazpi, erdiak; ni ere ez nintzan joan, da beste askok ere ori egin zuten, itxura danez.

Juraduko maian, Dassance jauna buru; ta Lafitte apaiza, Monzon eta Ernardorena.

Eta bigarren urtean ere Basarrik irabazi kopa, baña artean ere beste urte baten irabazi bear, beretzako gelditzeko.

Urrengo urtean berriz jokatu zan kopa, eta irugarren eta azkeneko aldiz Baigorriin jokatu zan. An joan zan Basarri bere kopa aundi ori artuta, kopa irabazten zuana urrengo urtean bere koparekin joaten zan, ba.

Antxe bildu ziran, ni ez nintzan joan baña, Zuberoko Etxahun, Xanpun, Mattin, Naparroako Zubikoa, Basarri, Iriarte eta Xalbador, zazpi bertsolari, irugarren aldian kopa bat jokatzera. Esan bezela, an bildu ziran Baigorriin.

Meza nagusia lenbizi, jendez eleiza betea zala, amar ta erdietan. Gero bazkaria Arze-baitan, eta bazkaltzeko denboran bai omen zan bertso ederrik.

Gero, lauretan, trinketea, bertso-saioa. Jendea asko omen zan entzuten ere.

Maiko jaunak: Dassance, Constantin, Monzon, Oxobi eta Lafitte. Gaiak ematen, berriz, Zerbitzari apaiz jauna.

Egin omen zuten bertso-saioa, eta kopa aundi ori Basarri ematea erabaki omen zuten juezak. Xalbadorrek ere berdin irabazi omen zuan urte artan; baña Basarrik len beste bi urtetan irabazia zuan, ba, kopa ura bera, eta orregatik pentsatu zuten Basarri ematea, eta beste lau milla franko.

Xalbadorrek, Mejikotik bialdutako urrez bordatutako txapela eta lau milla franko. Orrelaxe banatu omen zituzten urte artako sariak. Zazpi bertsolariak danak zituzten beren sariak.

Basarrik, berriz, iru urtetan illaran irabazi zuan kopa bat, eta orduan eman zioten beretzat; eta gero, ori orrela gertatu zala bide, Zarauzko erriak omenaje eder bat egin zion Basarri. Au milla bederatzireun da berrogei ta amaikagarren urtean zan.

Andik urrengo urtean, milla ta bederatzireun da berrogei ta amabian, Saran egin zan berriz beste txapelketa bat.

Orduan bertsolari asko joan giñan emendik ere: Basarri, Mitxelena, Lizaso, Lexoti, Lasarte eta ni, Uztapide; eta mugaz arunztik, berriz: Errexill, Etxahun, Mattin eta Xanpun; amar bertsolari danetara.

Epai-maian auetxek ziran: Constantin, Leremboire, Labeguerie, Etchemendy, Lafitte eta danen buru Dassance, Euskaltzaleen Biltzarreko nagusia. Gaiak ematen, berriz, Oxobi.

Da Mattin txapeldun juzkatu zuten. Mattin oso ondo aritu zan, baña gu arrituta gelditu giñan, egun artan Basarri nola eman etzioten txapela. Bein ere ondo egin baldin badu Basarrik, or-

duantxe egin zuala esango genduan geok; baña zerbait pasa zan an.

Juezen erabakia onela izan zan: Mattin txapeldun; ni, Uztapide, bigarren; Basarri, irugarren; laugarren, Etxahun; bostgarren, Lasarte; seigarren, Lizaso; zazpigarren, Xanpun; zortzigarren, Errexill; bederatzigarren, Lexoti; eta amargarren, Mitxelena. Era ontan izan zan ango erabakia. Sarako trinketezan zan txapelketa au.

Beste batean Donibane-Garazin izan zan beste txapelketa bat. Ara ere joan giñan Basarri ta ni biok.

An ere bagiñan amairu bertsolari edo zerbait ere, juntatu giñanak; eta an ere egin genduan gure bertso-saioa.

Baña an ez nuan eduki oso egun ona ere: Basarri txapeldun, Xalbador bigarren, Mattin irugarren, laugarren Zubikoa eta bostgarren ni, Uztapide.

Beñere ez naiz olain atzean gelditu oraindik txapelketa baten; baña neronek antz eman nion gaizki egon nintzana, eta beste baterako esperantzan etxeratu giñan.

Beste batean Baigorriara joan giñan: iru bertsolari, mugaz emengoak, iru mugaz arunzkoen kontra jokatu bear zala, eta berrogei ta amar milla franko zeudela; nagusitzen zan taldeak ogei ta amar milla franko; eta galtzen zuanak, ogei.

Gu, emendik, Lizaso eta Lasarte eta ni Uztapidek osatzen genduan taldea joan giñan; eta andik, berriz, Xalbador eta Mattin eta Zubikoak osatzen zuten taldea atera zan; eta ala jokatu ere egin genduan.

Ez genduan esperantza aundirik eman aruntz; baña guk irabazi genduan edo guri irabazitzat eman ziguten. Beñere ez det alako pozik artu oraindik ber-

tsotan eginda, an irabazi genduanean baño. Beren etxera joan da irabazte orrek, beti izaten du alako poz bat.

Gero berriz emen jokatu bear zan; Billabonan egokitu zan jokatzea, eta berriz ere guri eman ziguten irabazitzat. Igan-de arratsalde batean jokatu genduan emengoa.

Aiek beren automobillakin etorriak ziran orduan, Paul Iturnier-edo, Sarako alkatea, eta orrelako batzuk. Amasan bazkaldu ta egun-pasa ederra egiña zuten. Baña oso ondo portatu ziranik ez det uste billabonatarrak; nik alako moduko kontuak aditu nizkien berai. Dana dala, orretan bukatu zan orduko gure eguna.

Parisen ere izan giñan bertsoetan. Milla ta bederatzireun da berrogei ta emezortzian, da Loreillaren emezortzian, izan zan Parisko au; baña ortarako Urruñan egin genduan lenbizi eliminatoria-moduko bat.

Au Apirillaren lauan izan zan, Urruñako au. Irungo olerkari bati, Basurko zanari, omenaldi bat egin zitzaion; eta, bide batez, Parisera joan bear zuten lau bertsolariak aukeratu.

Jai-aldi bikaña egin zan. Lenbizi meza nagusia, ta elizkizun ederrak egiten dira an, mugaz arunztik. Elizako kantuak ere danak jakiten dituzte an; danak egiten zuten an kantuan.

Orain emen ere, euskeraz meza ematen asi ziran ezkerro, geiago jarraitzen zaio mezari; baña an lenago ere bai. Gustoa ematen zuan ango elizkizunetara joateak: erri guztia kantuan.

Meza nagusia eman zuan Urruñako bikarioak, Etxeberri jaunak; sermoia, berriz, Aita Larzabalek, Zokoako bikarioak, eta ederki goratu zituan Basurkok



egin zituan lanak; eta bukatu zan meza nagusia.

Gero bazkaria *Hotel Mendi-bixta* ize-neko etxean. Garaiz izaten da an bazkaria ere, eta bazkaltzeko denboran bertsolariak Basurkoren gorantz kantatu giñuzen bertsoak.

Bazuan ainbeste meritu, izan ere. Zeñek, arek baño obeto, Jesukristoren bizitza ta San Inazioarena idatziko zituan, ba? Relijio-gaiak ibilli zituan beti.

Gizon ona zan ura. Oso ezaguna genduan guk ere. Sendoa geiago zan ura, luzea baño; bere bigotetxoarekin, da euskaldun ona. Orregatik, il da gero ere, oroitzen zan jendea arekin.

Gero, bazkaldu ta joan giñan parrokkiko saloira bertsoara. Gu joan giñanerako, betea zegoan jendez Urruñako saloia; eta, pakerik izango bazan, ateak zabalik utzi bear izan ziran. Barruan baño kanpoan jende geiago zan, eta altabozik ez. Lastima! Kanpoan egon ziranak, ezin aditu ongi.

An giñan bertsolariak: Xalbador, Mattin, Errexill, Xanpun, Aintziart, andik, mugaz arunzkoak; eta Basarri ta ni, Uztapide, mugaz emendik.

Basarri gona luzeak pamatzen eta Mattin denbora berean motzen alde, saio polita egin zuten oso.

Xalbador kontrabandista eta Errexill karabineroa; aiek ere ederki zaitu zuten bakoitzak bere alderdia.

Gero, Xanpun da ni; ura automobillen alde eta ni astoen alde. Artan egin genduan geure saioa.

Gero atzanean, berriz, Aintziart bakarrik gelditzen zan da Mattin jarri zioten kontra. Loreak pamatu bear zituan, eta bien bitartean Aintziart tipula pamatzen jardun zan.

Orrelaxe egin genduan geure saioa, eta gero puntuak jarrita ere egin genduan beste saio bat.

Atzanean, epai-maia an zegoan: Dancesance, Aita Lafitte eta Aita Larzabal, eta aiek eman zuten erabakia, finalerako zein gelditu ziran Parisera joateko, munduko kanpeonatoa jokatzeko: Basarri, Mattin, Xalbador eta Uztapide aukeratu zituzten. Eta, ala, etxera etorri giñan, gero bere egunean Parisera joatekotan.

Emen daukazute orain bina bertso, Basarrik eta nik Basurko zanari kantatuak Urruñako *Mendi-bixta*-n. Egun ortan da bazkalondoan kantatu giñuzen.

Basarrik:

Basurko jaunak omenaldia  
degu gaurko egun ontan,  
denbora asko ez dala oraindik  
betiko gelditu lotan;  
Yauna, zure izen saindua  
ark jaso zuen bertsoan,  
erruki onez goxoki artu  
zazula zeure besotan!

Uztapidek:

Basurko jauna laguna izan  
gendun oso luzaruan,  
egon liteke oraindik gure  
laguntzaren esperuan;  
nik gaur goizian otoitz egin det,  
bai, nere biotz beruan:  
komeni bada gure Jainkuak  
gorde dezala zeruan.

Basarrik:

Urte askotan giñan irurok  
alkarri itza emanak;  
toki aunitzez billatzen giñan,  
artaño lagun laztanak;

zuzenbidezko izaten ziran  
Basurko zanen esanak,  
betiko aintza merezia du  
era artako gizonak.

Uztapidek:

Gure artian esaten zitun  
makiña bat itz tajuzko,  
nere ustetan ura zeguan  
bertsolaien maiorazko;  
lagun artian ark bazekien,  
Basarri, mintzatzen presto,  
obe genduke baldin bagiñuz  
alako euskaldun asko.

Gero, bere eguna etorri zanean, Parisera joan giñan. Endaian trena artu genduan, eta gau batean joan giñan. Trenean *coche-cama* edo alakoak giñuzen; eta, berriketan aspertu giñanean, lo joan giñan bidean.

Goizerako Parisen giñan. Zortzireun kilometro pasiak daude Endaiatik Parisera, eta amar ordu eskasak egin giñuzen bidean. Ez genduan ezer ikusi, gabean joan giñan da.

Ara iritxi giñan; da gero, egon bear genduan etxera eraman giñuzen Hermandorenak, eta an geure maletak utzi giñuzen; gure izenak-eta eman giñuzen, eta abitazioko giltzak artu geurekin.

Lenbiziko lana *Torre Eiffel* ikusten egin genduan. Gora igo puntara, andik bera begira jarri ta lurtean gizona txikia gelditzen zan, txindurria bezela.

An, zerbait artuaz, egon giñan piska batean. An bazegoan kantina-moduko bat, eta edaritik-eta aukera egoten da an. Gero piska bat egon giñan da jetxi egin giñan.

Paris ederki andik ikusten da. Erdi-erdian dago ori, torre ori, ta alde guzietara begiratu ta urruti zeuden aren egalak.

Gero, arratsaldean, bertsoan egin bear genduan. Euskaldunak beren biltokia badute; propaganda ere egiña izango zuten eta jendea ondo bildu zan. Parisen, Oiarzunen ainbat euskaldun urtean egongo da. Egun artan aña euskaldun ez da an ere bilduko sarri; baña orduan beintzat ni arrituta gelditu nintzan.

Arratsaldean joan giñan, da pelota-leku ederra dago Eusko-Etxe orretan; eta antxe egin genduan gure kanpeonatoa.

Basarriri eman zioten lendabiziko premia. Ura zan kanpeon. Beste irurok berdin gelditu giñan: Mattin, Xalbador eta ni, Uztapide. Ortantxe bukatu zan gure kanpeonatoa. (1)

Gero, gabean, munduan zan espektakulorik ederrena ikusi bear zala, eta joan gera *Lido* izeneko saloi batera.

An bazegoan aragia, baña sarrerarik etzuten kobratzen. Botella bat txanpan gutxienez atera bear zuan an sartzen zanak, eta emengo milla pezeta balio zitan botella txanpanak orduan ere. Orain bi baño geiago balioko ditu.

Ala, sartu giñan beintzat. Porteroa euskalduna zan, Baigorriko semea.

An bata baño bestea politagoak asi ziran ateratzen, eta Mattin bereala asi zan lepo-luzeka. Bestela ezin zuan, ba, ezer ikusi; piska bat lepoa luzatu ezkerro, bai.

Besteak santuak giñan, baña iñor ez nuan atzera begira ikusi nik. Xalbadorek, artxek lo piskaren bat egin zuan; besteak danak erne egon ziran an.

Ala, txanpana edan genduan eta espektakulo ederra ikusi ere bai; eta, bukatu zanean, oiera joan giñan.

Biaramon-goizean joan giñan telebisiora ere, an kantatu bear zala eta. Baña denbora gutxi gendukan, eta guk ez genduan izan kantatu bearrik; Xalbadorrek

eta Mattinek kantatu zuten, eta Basarrik eta nik ez.

Ala, bi egun pasa giñuzen; eta Basarri andrearekin zegoan, eta, bi egun pasa zituanean, etxera etorri ziran aiek.

Ni an gelditu nintzan biaramona pasatzeko Mattin eta Xalbadorrekin. Guk lengo egunetako tokira joan eta lo egin genduan.

Biaramon-goizean oetik jeiki ta gosaldu genduan. Museo bat ikustera joan bear genduan, eta Hernandorena ere gurekin etorri zan.

An ikusi giñuzen lengo gauzak ere, orain ezagutzen ez diranak.

Bat ezagutu zuan Xalbadorrek; mendian ganadua izutzeko izaten zala esan zuan. Ganaduak billera aundia duan tokiak izaten ditu, ba, mendian, eta andik ganadua zabaltzeko izaten omen dira aiek, ots aundia ateratzen duten tresna batzuek.

Ikusi genduan museo ori; baña gure Hernandorenak bertsoak botatzea nai eta an ziran komeriak. An bertsoarako giroa palta, eta girorik gabe ez da bertsoan egiten. Lenbizi amaietako ederra egin; eta gero, nork bere gustoko lagun batzuek jiran dituanean, orduan bertsoarako gogoia etortzen da.

Baña nolabait ere kantatu giñuzen beintzat bertso bana. Auxe zan nik kantatu nuana, Hernandorenak jaso:

Museo ontan ikusi ditut  
oso gauz arrigarriak,  
auskalo noiztik egongo diran  
dauden bezela jarriak;  
oiek dirade aurreko zarrak  
egindako edergarriak,  
ez dakit nola apaindu leizken  
era orretan arriak.

Ori, bertso ori, museoan bertan kantatu da. Gero museoaren gañera atera giñan, eta Paris guzia ikusten zan, andik begiratuta; eta an aurrean zer ikusten genduan kantatzeko esan zigun Hernandorenak. Nik auxe kantatu nuan orduan:

Parisko museoko gañian  
irikitze'itut ezpañak,  
esatiarren jira guztian  
dauzkagun gauza apañak:  
erreka aundi bat, etxe ederrak  
eta eleiza bikañak,  
au baño toki ederragorik  
ez du izango lur-gañak.

Auxe zan nik Parisko museoaren gañean kantatutako bertsoa, Hernandorenak jaso. Orrelaxe ibilli giñan gu Parisen.

Gero peria batera joan giñan; *feria de muestras* edo orrelakoxe bat zegoan, eta uraxe ikustera joan giñan. Illabete baño geiagoan an zegoan peria izan bear zuan arek. An bazegoan jeneroa: edari ederrak ere bai debalde. Guk edan genduan pisika bat, baña berealaxe mozkortuko giñan, an segi izan bagendu.

Bazkaltzera etorri giñan eguneroko tokira. Gero, bazkaldu genduanean, etxerako preparatzen asi giñan.

Iru egun pasa ta urte bete pasata bezelaxe aspertu edo ez dakit, ba, zer esan ere. Gu Parisen izan giñala, ta poz orixe. Hernandorenari eskerrak joan giñan gu Parisera; bestela ez giñan joango sekula igual.

Trenera etorri giñan, eta Hernandorenak lagundu zigun estaziora.

An, badakizu, irakurle, ni beintzat bakarrik ez nintzan iñor ere an ibiltzeko. Iñori ezer galdetzeko ez, da gauza eskasa gelditzen da bat, bertako izkuntzarik ez baldin badaki.

Treanean sartu giñan eta gabeen berriez ere etorri giñan. Ortxe, Landesetan, onuntz gentozela, eguna zabaldu zigun, eta zerbait ikusten asi giñan. Bitartean lo egin genduan; eta, bein Landesetara ezkerro, berealaxe iritxi giñan Endaiara.

Gero Iruna etorri nintzan; an gosaldu eta etxera etorri giñan.

Nik, Parisen baño, naiago det Oiarzunen bizi. An sortuak bagia ere, beste gauza bat izango litzake; baña gu emen sortuak izan.

Geroztik ere izan det nik Parisa joateko aukera, baña ez nintzan joan. Xalbador, Mattin, Enbeita ta ni giñan joatekoak, eta nik ezezkoa eman nioten bereala. Gero Mitxelena joan zan nere tokian. Ni ere, lenbiziko aldia izan balitz, joan egingo nintzan; baña lenago izanda nengoan da berriz joateko gogorik ez.

Nik ez det esaten Paris au baño leku txarragoa izango danik; baña orain guretzat egiten dan tokia ez dala ura, eta besterik ezer ere ez.

Mugaz aruntz asko joaten giñanikin ezin esango degu bertotara. Erri batzuetara bai, joaten giñan.

Ni zenbat tokitara joan nintzan esango dizutet, gogoan ditutenak beintzat: Behobia, Biriatu, Urruña, Sara, Makaia, Luhoso, Hazparren, Donibane-Garazi, Azkain, Baigorri, Aldude eta Paris. Auetxek dira ni gogoratzen naizen erriak.

Erri batzuetan etzan animazio aundirik izaten; beste batzuetan jendea ederki ere bai.

Urruñan beti egin oi dute urtero bertsolari-jai bat, eta jendea ondo izaten da an. Antzokia edo teatroa ederki betea ikusi izan degu; baita ateak zabalik utzi-

tzen ere, kanpoan jende asko gelditu sartu ezinda ta aiek entzun zezaten.

Alduden ere jende asko izaten zan. An usotarako sareak daude, emen Etxalarren bezela; eta an, uso-denbora bukatzen danean, egiten zuten bertsolari-eguna. Jende asko izaten zan an ere. Ara pozik joaten nintzan.

Urte batean Xalbadorren etxera joan nintzan lo egitera. Aren etxean apaldu ta lo egin; eta biaramonean etorri nintzan etxera. Itzainak ekarri ninduan mugaraño.

Beste egun asko oso tristeak izaten ziran an: jende gutxi eta ezeren pozik ez.

Batean gogoratzen naiz, erri batera joan da oso jende gutxi zandana entzuten. Xalbadorrek esan zuan orduan, zazpi bertsolari-edo bagiañan, ba, eta:

–Mutillak, emendik bera jetxi bearko diagu batzuek, entzulerik etziok eta!

Oso egun tristea egokitu zan. Orrelaxe, danetarako egunak egokitzen ziran an ere. Baña, batanez beste, ez dauka an bertsoak emen ainbesteko indarrik. Gu beti pozik joaten giñan aruntz, gure lagunak ere an genduzkan eta.

Mattiñen etxera ere joan nintzan bi aldiz edo zerbait ere, eta orrelaxe. Errexill zanaren etxera ere bai. Danak lagunak giñuzen aiek, eta orrela errez joaten da. Konfiantza osoan joaten giñan gu aruntza.

Orain ez gera geiago bertotara beintzat joango; baña bestela baliteke oraindik ere bueltaren bat ematea, eta berriz joan arte agurtzen ditut mugaz aruntzko anaiak.

(1) Eguna: 1958-V-18.

# Donostiko txapelketak

**1**950-ean izan zan txapelketa bat Donostian bertsolariena, Santo Tomas egunean. Zepai, Mitxelena, Lasarte ta ni giñan, lau bertsolari. Juradukoak, berriz, don Benantzio Rekalde, don Antonino Pagola ta don Domingo San Sebastian. Oiek izaten ziran gure juzgatzalleak. Tokia, Groseko pelota-lekua.

Pilarmonika-jotzalleak ere bazituzten egun artan premioak; kantariak ere bai, zortzikoteak. Danak egun batean ziran urte artan.

Guk, bertsolariak, an egin giñuzen geren saioak: lenbizi, agurra bina bertsoan laurok; gero, opizioak emanda, beste iruna bertso; bina bertso, juraduak puntua jarrita; eta beste bina bertso, despeditzeko, laurok txandan. Artan bukatu zan gure txapelketa.

Juradukoak joan ziran beren klasifikazioak egitera; eta, etorri ziranean, Mitxelena lenbizi, Uztapide bigarren, Lasarte irugarren, Zepai laugarren; era ortantxen eman zuten beren erabakia.

1960-an, da Abenduaren 18-an, Donostiko *Victoria Eugenia*-n, izan zan bertsolarien beste txapelketa bat.

Lenbizi, agurra danak txandan. Suertea bota dute eta Perurenari tokatu zaio astea. Bigarren, Uztapide; irugarren, Az-

pillaga; laugarren, Xalbador; bostgarren, Mitxelena; seigarren, Mattin; zazpigarren, Mugartegi; eta zortzigarren, Narbarte. Gero ere ordena onetan egingo degu.

Lenbiziko saioa: puntua Perurenari eta erantzun du; urrengo neri eta nik ere bai, erantzun det. Orain gai librean bina bertso. Oiek osatu ditugunean, beste launa bertso, opizioak emanda, alkarrekin teman. Osatu ditugu oiek ere eta bukatu degu gure saioa.

Orain Azpillaga eta Xalbador, eta era berean kantatzen dute. Urrena, Mitxelena ta Mattin asten dira, eta oiek ere berdin. Gero, Mugartegi ta Narbarteren txanda. Ori eginda bukatu da oraingo saioa.

Juraduak, Xalbador, Mattin da Uztapide aurrera pasatzen dirala, ta beste irurerekin desenpatea jokatu bear dala orain: Mitxelena, Azpillaga eta Narbarterekin. Zotz egin eta ordena onetan tokatu dira: Narbarte, Azpillaga eta Mitxelena.

Narbarteri lenbizi iru bertso botatzeko gaia ematen dio Irigoienek: "Bertsolari zarren gañean daukazun iritzia azaldu bear dezu". Gero puntu bat, eta Narbarrek bukatzen du bere saioa.

Urrengo Azpillagak, eta gero Mitxelena, gauza bera egin bear dute; orre-

laxe egin ere egin dute, eta bukatu dute beren saioa. Eta juraduak Azpillaga aukeratu du aurrera pasatzeko.

Orain gelditu gera Mattin, Uztapide, Xalbador eta Azpillaga, eta ordena onetantxe kantatu ere egingo degu.

Lenengo, Mattin eta Uztapide. Puntu bana jarri digu eta erantzun degu. Orain bina bertso gai librean, eta oiek ere osatu ditugu. Urrena, beste launa bertso opizioak emanda, alkarrekin teman: Mattin, nekazaria, laboraria; eta ni, berriz, fabrika bateko langilea. Orrekin bukatu degu gure saioa.

Orain Xalbador eta Azpillagaren txanda, ta guk bezela egin bear dute oiek ere: lenengo, puntu bana; gero, gai librean; eta urrena, opizioak emanda. Kantatu dituzte eta bukatu da goiz-parteko saioa. Xalbador, Azpillaga eta Uztapide gelditzen dira, arratsaldean aurrera pasatzeko. Orain bazkaltzera goaz.

Bazkaldu eta etorritakoan asten gera agur egiten. Basarri lendabiziko, Uztapide bigarren, Xalbador irugarren eta Azpillaga laugarren.

Agurra egin ondoren, Uztapide bertan gelditu eta beste biak kanpora eraman dituzte: Xalbador ta Azpillaga.

Neri gai bat eman didate lau bertso kantatzeko: oraingo aurrerapenak mesedeak dauzkan ala kalteak. Oiek osatu ditutenean, puntu bat jarri dit Irigoienek eta erantzun det; eta bukatu da nere oraingo saioa.

Ekarri dute Xalbador eta orain orren txanda. Gaia, nik nuana bera, lau bertso, eta puntu bat. Orrekin bukatzen du Xalbadorrek ere.

Orain Azpillaga ere ekarri dute, eta orreri ere gaia guri bezelakoa jarri diote, lau bertso, eta puntu bat. Orrekin bukatzen du oraingo saioa, eta juraduak era-

baki du Azpillaga ta Uztapide aurrera pasatzea.

Bi puntu lenengo neri; gero, Azpillagari beste bi; erantzun ditugu. Orain, opizioa emanda, alkarrekin teman launa bertso: Uztapide orain eun urteko euskalduna da, eta Azpillaga oraingo euskalduna. Oiek botatakoan, beste iruna bertso. Biok gai berdiña degu: zerua nolakoa ote dan gure iritzian. Azpillaga kanpora eraman dute. Nik botatzen ditut iru bertso; urrengo, Azpillagak beste iru; eta bukatu da oraingo saioa. Juraduak artu du erabakia: Uztapide aurrera pasatzea.

Oneraño etorri naiz nolabait ere, baña emendik aurrera ez dago neretzako tokirik. Orain Basarrirekin jokatu bear Euskalerriko txapela. Zotz egin eta Uztapidek eman bear ditu asierak.

Bi puntu lenbizi neri, gero beste bi Basarri, eta erantzun ditugu. Gero beste launa bertso kantatu bear ditugu, opizioak emanda, alkarrekin teman: ni bertsolaria naiz, eta Basarri, berriz, juraduko gizona, bertsolarien txapelketetan ibiltzen dana. Oiek ere osatu ditugu. Orain, atzeneko lau itzak emanda, bina bertso; oiek ere kantatu ditugu, lenengo nik eta gero Basarrik.

Orain Basarri kanpora eraman dute, ta nik bakarrik kantatu bear. Bost bertso kantatzeko gaia ematen dit Irigoienek: aita baten esanak bere alaba ezkontzera dijoanari. Bost bertso oiek osatu ditut. Orduan bederatzi puntuko bertso bat eskatu zidaten, eta antxe trabatu nintzan.

Baña nik bukatu det nere saioa, ta ez nintzan asarre. Nik uste nuan bukatuko etziran lanak artu giñuzela; eta ez, bukatu ziran.

Ekarri dute Basarri ere, eta gai berdiña zuan ark ere: lenbizi bost bertso eta

gero bederatzi puntuko bertso bat. Kantatu zituan oiek eta bukatu zan gure auzia; eta Basarriri txapela ematea erabaki zuten.

Agur egiteko bertso bana bota genduan lenbiziko laurok, eta berandutzen ari zala eta ortan gelditu giñan: Basarri, txapelkun; Uztapide, bigarren; Azpillaga, irugarren; Xalbador, laugarren; Mattin, bostgarren; Mitxelena, seigarren; Narbarte, zazpigarren; Mugartegi, zortzigarren; eta Perurena bederatzigarren. Eta ortan bukatzen da gaurko txapelketa.

Txapelketa artan estuasun ederra pasako zuan Narbartek. Egun aietan, Fabiola Beljikako erregearekin ezkondua zan, eta periodikoan eta radioan-da beste konturik etzebilela ta danak jakingo zutela usteko zuten juradukoak, eta batean puntua onela jarri zioten Narbarte-ri:

Belgatarren erregin  
egin da Fabiola...

Baña notizi ura etzan artean iritxi Narbarterengana, eta onek al zuan bezela osatu zuan bertsoa:

Igerri diot, Alfonso,  
egiya diyola;  
beste gañekoan etzan  
mintzatuko orla,  
antxen pentsatutzen det  
zerbait badagola.

Narbarte gizarajoa mendian biziko zan, da periodikorik ere noiz irakurriko zuan, ba, arek? Nere moduan, ulertu edo konprenditu ere igual ez-ta bear aña. Orretan kontu aundia bear du juraduak: zeñi zer gai jarri.

Gero Narbarte atera omen zan antzokitik edo teatrotik, eta batenbat asia izango zan Narbarte toriatzen, eta ala erantzun omen zion: Fabiola... orrek izurrratu zuala!

Ori orrela pasa zan, bañan andik urte t'erdira-edo, Goizuetan, txapelketa batean, bertsoaren bukaera onela eman zioten:

Gero juezak irakurri zun  
sententzia bat larria.

Orrekin bukatu bear zuan bertsoa. Ta iñork pentsatzen etzuan tokitik erten zuan. Onela kantatu zuan:

Ni Donostira neure ustetan  
joan nintzan bertsolaria;  
aitortuko det dotore asko:  
eskolarikan gabia;  
eman zidaten uste gabian  
Fabiolaren berria,  
gero juezak irakurri zun  
sententzia bat larria.

Or ikusten da etzitzaiola aztu artean ere.

Donostian, 1962-an, da Abenduaren 30-ean, izan zan urrengo txapelketa.

Goizean lenbizi asi ziranak auek ziran: Azpillaga, Mitxelena, Zabaleta, Lazkao-Txiki, Mattin, Arozamena, Lopategi ta Xalbador. Oiek saio bat egin ondoren, lau eliminatu egin ziran: Zabaleta, Mattin, Azpillaga ta Lopategi. Eta gu, Basarri ta ni, Uztapide, sartu giñan aien tokian.

Gu aurretiagoko txapelketan Basarri lenbizi ta ni bigarren gelditu giñalako genduan aukera ori, lenbiziko saioan kantatu gabe gelditutzekoa, ta bigarren saioan sartu giñan gu.

Gelditu giñan: Mitxelena, Arozamena, Uztapide, Xalbador, Lazkao-Txiki ta Basarri. Zotz egin eta ordena onetantxe gelditu giñan.

Mitxelena eta Arozamena asi ziran. Asierako, bina puntu jarri. Gero, beste iruna bertso, alkarrekin teman. Gaia, auetako bat aukeratu bear zuan asera ematen zuanak: pakea, lana, maitasuna, dirua, osasuna, gaztetasuna, adiskidetasuna, familia edo osasuna. Mitxelenak osasuna ta gaztea aukeratu zituan. Urrena, beste bertso bana atzeneko lau itzak emanda, ta oiek biak bukatu zuten beren lana.

Gu asi giñan gero: Xalbador ta ni. Guk ere era berean egin genduan. Bina puntu jarri zigun Irigoienek; gero, gaia jarrita, beste iruna bertso, ta nik osasuna aukeratu nuan; eta atzeneko lau itzak berak eman da guk aiekin bertsoa osatu bear.

Gure txanda pasa zan, da beste bi an zeuden zai: Lazkao-Txiki ta Basarri. Aiek ere gauza bera egin zuten.

Gero bertso banarekin bukatu genduan saioa. Bertso orrek izan bear zuan, zortziko luzean eta zortziko motzean ez, beste edozein bozatan; eta gaia, berriz, bixigua. Bederatzi puntuan kantatu genduan geienok, eta Basarrik bukatu zuan Iparragirreren doñuan. Onekin bukatu zan goizeko saioa.

Arratsaldean emango zala erabakia zein aurrera pasatzen ziran, da danak bazkaltzera joan giñan. Ez genduan bazkari aundirik egingo, baña joan giñan beintzat. Atzera lauretarako etorri bear genduan, eta korrika ibili bear.

Etorri giñan bazkaldu ta atzera; Astoria-n jarri gera zai, eta auetxek dira aurrera pasatzen diranak: Xalbador, Uza-

pide, Lazkao-Txiki ta Basarri. Ordena onetantxe kantatuko dute. Beraz, Xalbador ta ni gera lenbizi. Xalbadorek agurra egin zuan bertsolari danen izenean, eta orduan asten da txapelketa.

Lenbizi bina puntu jarri digu Irigoienek Xalbadorri ta neri. Aiek erantzun ondoren, beste bertso bana: lau puntuen atzenak eman Irigoienek eta guk bertsoa bukatu. Gero, iru bertso gaia jarrita; bakoitzak iruna bertso. Aiek bota ditugu eta gure saioa bukatu da.

Beste biak an daude, guk bukatzeko zai, asteko: Lazkao-Txiki eta Basarri. Oiek ere, guk bezela, lenbizi bina puntu Irigoienek biai, gero bertso bana lau bukaerak emanda, eta gero iruna bertso gaiak jarrita; ta saio ori ortan bukatu da.

Gero, beste saio bat lau bertsolariak. Oso gai polita da ta merezi du esatea, luze joango da baña: Lazkao-Txiki ta ni biok anaiak gera, Xalbador eskribaua, eta Basarri, berriz, lenago ildako aita. Eskribaua len egindako testamentua irakurtzen ari dala, gelaren erdian azaldu da aita, beste mundutik etorrita. Laurok gai ortantxen egin genduan bertso-saioa, iruna bertso, eta orretan bukatu zan gure auzia.

Irigoienek piska batean egoteko esan zigun, juraduak erabakia artu bitartean. Bereala etorri zan juradua, eta Irigoienek esan zigun Basarri ta ni giñala aurrera pasatzen giñanak.

Bi puntu bakoitzari lenbizi Irigoienek, eta ni asten nintzan lenbizi. Bina bertso bota giñuzen; eta gero, lau puntuen atzenak emanda, beste bertso bana.

Gero, gaia emanda iru bertso. Baña orain banaka egin bear degu bertsoan, eta ni naiz lenbiziko. Nere bizitza zer izan dan esan bear det. Bota ditut iru bertso oiek, eta beste iru botatzeko esa-



ten dit Irigoienek: santuren bat bertsolarien patroitzat izendatu bear det, eta aiek ere bota ditut. Orduan bat kantatzeko, eta kantatu nuan. Da beste iru despeditzeko, ama gai detala, eta aiek bota nituan, ta nik bukatu ditut lanak.

Ekarri dute Basarri kanpotik, eta lan bera egin bear du. Egin zituan orrek ere egun artako lanak, eta Irigoienek:

–Bukatu dute saioa Uztapidek eta Basarrik, eta orain erabaki bat artu bearra dago.

Juradua etorri zanean, lenbiziko Uztapide eta bigarren Basarri. Jaungoikoak ala naiko zuan, da nik ezin ezer egin. Azkenekoa eman bazidaten ere, etzegoan ezer egiterik. Lenbizikoa eman zidaten eta ura naiago, berriz.

Irugarrena, Xalbador; laugarrena, Lazkao-Txiki; bostgarren, Mitxelena; seigarren, Arozamena; zazpigarren, Mattin; zortzigarren, Azpillaga. Besterik ez da emen arkitzen, eta eguna bukatu da eta agur, Donosti!

1960 urtean, aitagarrebarekin joan nintzan, *Victoria Eugenia*-n txapelketa egin zanean, eta orduantxe iltzeko ere konforme zegoala esan zidan, txapelketa ura ikusita. Bere denboran etzuala egun bat gustorago pasatu esan zidan. Eta ura etzan beti aitaren da amaren ondoan egona. Bizi bazan, berriz ere joatekotan etorri giñan. Tasis bat artu ta egun agiz etxera etorri giñan.

Andik urrengo txapelketa egin zanean, Donostiko *Hospital Provincial*-ean zegoan nere aitagarreba; eta Mondragoiko *Ezkerra* pelotaria nola da? Aretxen arreba zegoan monja bat ospital artan, da oian zegoan tokira radio bat orrek ekarri omen zion, eta oian aditu omen zituan danak, gure bertsoak.

Etzan geiago joan Donostira bertsoak aditzera. Arek apizio aundia zuan kantatzeko ere, ta bertsoak entzuteko, berriz, zer esanik ez. Geiago etzan oetik atera. Abenduaren ogei ta amarrean zan txapelketa ori, ta urrengo Otsaillaren ogei ta zazpian il zan; bi illabete eskasak. Zeruan gerta dedilla!

1965-ean, da Urteberri egunean, egin zan beste txapelketa bat.

Goizeko saioa, Mugarategi, Arozamena, Garmendia, Narbarte, Lazkao-Txiki, Xalbador, Mattin, Mitxelena eta Lopategi; bederatzi bertsolari auk egingo dute saio au. Ordenan jarrita daude; eta, dau den bezela, bueltan danak agurtzeko bertso bana botako dute.

Ori egin orduko, Irigoienek pronto dauka beste buelta: atzeneko lau itzak emanda, bertsoa osatu bear. Asi Mugarategiandik eta Lopategiganaño, danak txandan egin dute beren saioa.

Urrengo, binaka. Lenbizi Mugarategi eta Arozamena dira; bina puntu jartzen diote Irigoienek, eta oiek erantzun. Gero, alkarrekin teman, iruna bertso; Mugarategi pelotaria da, eta Arozamena aren alde dirua jokatu ta galdu egin duana. Oiek kantatu dituzte eta beste iruna bertso, berriz ere oiek berak, gaia jarrita; baña oraingoan banaka. Lenbizi Mugarategi iru bertso kantatu ditu. Orain Arozamena da, eta orrek ere beste iru bertso; kantatu ditu onek ere, eta bukatu dute beren saioa Mugarategi eta Arozamenak.

Orain Garmendia eta Narbarteren txanda, eta lan bera egin bear dute. Urrena Lazkao-Txiki eta Xalbadorrek kantatu bear dute; eta, aien ondoren, Mattin, Mitxelena eta Lopategi dira.

Juraduak zerbait erabaki bear du. Orain Lazkao-Txiki, Mitxelena eta Xalbador aurrera pasatzen dira, eta Matti-

ñek eta Lopategik desenpatea jokatu bear dute.

Biak alkarri puntua jarrita egin dute lau bertso osatu arte. Gero, bat ezkutu; Mattin eraman dute kartzela moduko orretara, eta Lopategik bota ditu iru bertso. Gero, Mattiñek ere bai, kartzelatik aterata, beste iru; eta juraduak Mattin aurrera pasatzeko erabakia artu zuan.

Ura ikusita, danok bazkaltzera joan giñan; baña nik apetitua palta egun artan. Kezkaz beterik, ez da jateko gogo aundirik izaten. Gizonak, tratu txarra artzeko, ez du gauza aundiaren bearrik izaten. Ori ere, zenbaiten idurirako, ez da gauza aundia izango; baña gizona gaizki jartzeko naikoa da. Neri arratsaldeko gogoratzen zitzaidan.

Etorri zan, ba, arratsaldea, eta asi da txapelketa. Xalbador, Lazkao-Txiki, Mattin da Mitxelena, laurak.

Asteko, bina puntua ematen die Iri-goienek, eta danak ondo erantzun dute. Orain laurak gai bana dute, baña laurak alkarrekin egingo dute iruna bertso. Oiek bota dituztenean, beste iruna, baña orain binaka.

Lenbizi, Xalbador eta Lazkao-Txiki opizioak emanda. Berealaxe egin zuten saio ori ere. Gauza bera egin bear zuten Mattiñek eta Mitxelenak; oiek ere kantatu zituzten iruna bertso, eta bukatu zan saio ori.

Orain lau bertsolariak lan bera egin bear dute. Iru kartzelara eraman dituzte, eta Xalbador bertan gelditzen da, lenbizi kantatzeko.

Puntua jarri dio, eta baita erantzun ere. Gero, bildurrari bi bertso kantatzeko, eta bereala aiek kantatu zituan. Gero, emazte il zanaren soñekoari beste bi kantatzeko, eta aiek ere bai. Atzenean, bu-

katzeko, beste iru bertso, txiste bat kontatuaz; eta, aiek kantatu zituan, Xalbadorrek eman zion saioari atzena.

Urrena Lazkao-Txiki asi zan, eta lan bera izan zuan. Urrena Mattin, eta gero Mitxelena; eta oiek ere lan bera.

Beraz, bukatu dute saioa, eta juraduak erabaki du Lazkao-Txiki aurrera pasatzeko.

Etorri da, ba, nere txanda ere, eta orain Lazkao-Txiki ta Uztapide. Agurra egiten diotet pelota-lekuko jendeari.

Irigoienek Lazkao-Txikiri puntua; erantzun du. Urrengo neri puntua, ta nik ere erantzun det. Gero, opizioak emanda, iruna bertso: Uztapide larogei urteko aitona da; Lazkao-Txiki, berriz, aren billoba, emezortzi urtekoa, estudiantea. Arek Euskalerriko antziñako oitura garbiak goratu bear ditu; ta billobak, berriz, gaurko aurrerapenak. Nik asiera. Iruna bertso oiek bota ditugu biok txandan.

Eta Lazkao-Txiki eraman dute kartzela moduko orretara, eta neri iru puntu jarriko dizkit orain segiran, eta erantzun ditut oiek. Orduan, azkeneko lau itzak emanda, bertso bat, eta bota det ori ere. Orduan beste gai bat eman dit bi bertso osatzeko: basarri on bateko seme zarrenak ezkondu egin nai du, ta dei egiten die inguruko baserrietako nesak txak gazte ezkongai guziei. Aiek ere bota ditut. Berriz ere bi bertso botatzeko gai bat ematen dit: nere erriko elizako ponte; eta oiek ere bota ditut. Eta beste iru bertso kantatzeko: gaua da; ta, oiean lotan nagoala, il-kanpaiak esnatzen nau. Eta iru oiekin bukatu det nere saioa.

Nere poza libratu naizenean! Des-kantsu ederra bai!

Orain Lazkao-Txiki. Gauza bera egin bear du, ta bertso oiek danak kantatu ditu eta bukatu du Lazkao-Txikik ere.

Bazan garaia! Asi goizean da zenbat bertso bota ote zituan? Burutik nastutzeko ere bada ori.

Dana dala, orain juradua puntuak sumatzera joan da. Bitartean, gu antxe zai.

Berriz ere txapela neri uzten didate. Bildur dira burua oztuko ote zaidan. Lazkao-Txikik oraindik sasoiak daukala ta ez dute, neretzat ainbeste erruki, orrentzat.

Beraz, Uztapidek lenbiziko saria; bigarrena, Lazkao-Txikik; irugarrena, Xalbadorrek; laugarrena, Mitxelenak; bostgarrena, Mattiñek; seigarrena, Lopategik. Ortik aurrerakoak ez dira izendatzen zein zeñien urrena diran, eta onenbesterekin bukatzera noa; ta agur, Donosti!

Urte artan, eta aurrekoan ere bai, Salegitarrek ekarri niñuten etxera. Aiek ere alegiñak egiten zituzten neri txaloka, eta ala ere danen bearra izaten nuan. Oiek *La Guipuzcoana*-ko nagusiak dira; kamion asko dituzte oiek berenak. Irugarrenean, Oiartzungo kontzejal batzuek ekarri niñuten, eta eskerrik asko neri egin zizkidaten mesedeakgatik.

Beste txapelketa bat 1967-an, Garrillaren 11-n, izan zan, *Anoeta*-n, Donostiko pelota-lekuan. Ongi bete gañera; bat geiagorentzako lekurik etzan an.

Bertsolariak auetxek ziran: Mattin, Lopategi, Gorrotxategi, Xalbador, Garmendia, Arozamena, Mugartegi eta Madariaga.

Zepai ere juraduko maian an zegoan, eta arek eman zion asiera bertso batekin.

Orain ordenan dauden bezelaxe egingo dute, lenbizi Mattin dala, danak kantatu arte. Kantatu dute agurra.

Orain puntu bana jarriko die Irigoienek zortzi bertsolariari, eta erantzun dute danak.

Orain binaka asiko dira. Lenbizi, Mattin da Lopategi. Bina puntu jartzen dizkie, eta erantzun dute. Orain alkarrekin teman iruna bertso. Orain Lopategik iru bertso berak bakarrik kantatuko ditu, eta gero Mattinek gauza bera egingo du. Orain Lopategik, bertsoaren atzeneko lau itzak emanda, bertso bat osatu bear du. Mattinek gauza bera egiten du. Lopategik eta Mattinek bukatu dute beren saioa.

Orain Gorrotxategi eta Xalbador datoz, eta lan bera egiten dute. Urrena Garmendia ta Arozamena, ta gero Mugartegi ta Madariaga.

Zortzi bertsolari oietatik iru pasa bear ziran aurrera, eta oiek dira Lopategi, Xalbador eta Gorrotxategi.

Arratsaldeko lenengo saioa Lazkao-Txiki, Lopategi, Gorrotxategi eta Xalbador. Zepai ere antxe zegoan eta egin zuan lenengo agurra, ta beste laurak ere berdin agurtu zuten an zegoan jendea. Lazkao-Txiki eta Lopategi asiko dira orain.

Bina puntu txandan ematen dizkie, eta erantzun dute. Opizioak emanda alkarrekin teman beste iruna bertso, biak txandan; berealaxe osatu zituzten. Orain Lazkao-Txikik iru bertso basarri uts bati, eta oso ederrak kantatu ditu. Lopategik beste orrenbeste egin bear du beste gai batekin, eta kantatu ditu. Orain, saioa bukatzeko, bertso bana biak, atzeneko lau itzak emanda, eta ederki osatu dituzte.

Gorrotxategi eta Xalbadorrek lan bera egiten dute, eta orrekin arratsaldeko lenengo saioa bukatzen da.

Orain lau bertsolariak lan bera egin bear dute. Lenengo, Lazkao-Txiki emen gelditu eta beste irurak kartzela moduko orretara eramango dituzte.

Lazkao-Txikiri bi puntu jartzen dizkio, eta erantzun ditu. Gero iru bertso kontzientziari, eta orain beste bi bertso parrari. Onekin bukatzen du oraingo saioa Lazkao-Txikik.

Orain Lopategi, Gorrotxategi eta Xalbadorrek gauza bera egiten dute, puntu ta gai oiekin berakin.

Oien arteko auzia bukatu da. Orain nerekin zeñek jokatu bear duan ikustera joan dira juradukoak.

Erabakia artuta etorri dira juradukoak: lauren artetik Xalbador aukeratu dute aurrera pasatzeko; arratsaldeko bigarren saioa, Xalbador da Uztapide.

Jendeak erabaki oneri txistuak jo zizkion; eta, nere iritzirako, oso gaizki dago Xalbadorri txistu jotzea. Nik ez dakit neri joak baziran ere; baña guk Xalbadorri jo zizkiotela pentsatu genduan.

Gure egoera ederra zan orduan! Gu biok giñan an, jendearen aurrean txutik jarrita, txistuak noiz ixilduko ziran zai. Nola nai dezute, ba, pakea izatea? Gero esan zutenez, bost minutu ta erdi iraun zuan txistu-aldi arek. Gu bezelaxe urtero or txapelketa ortan kantatzen izaten ziranak berak ikusi giñuzen okerrenak, eta iñola ere gauza onik ez.

Nik kantatu nuan nere agurra; eta Xalbador asten da kantatzen eta etzioten uzten.

Gizon bat bazegoan an aurrean exerita; gure aurrean, alegia. Ura ankan gañean jarri ta atzera begira bueltatu zanean, artxek egin zuan pakea. Len ere bein edo bein egiña izango da ura orrenbeste, eta orduan ere bazan aren bearra.

Gozoa jarri zan ura! Legoa bezela jiratu zan, eta atzaparrakin ere elduko zien txistu jotzen ari ziran aiei, ondoan euki balitu. Merezi du jartzea orren ize-

na, ez dakit berari gustatuko zaion baña. Joakin Zubiria da ori, ango pakeak egiten asi zana.

Orduan ixil-aldi bat egin zan, eta artaz baliatu zan Xalbador kantatzen aste-ko:

Anai-arrebak, ez otoi pentsa  
neure gustura nagonik,  
poz gehiago izango nuen  
albotik beha egonik;  
zuek ezpazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik...

Jendea txaloka asi zan orduan. Bazan garaia! Ezin segitu izan zuan Xalbadorrek. Bi pusketan kantatu zuan. Jendea ixildu zanean, onela bukatu zuan:

Zuek ezpazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik,  
txistuak jo dituzute bainan  
maite zaituztet orainik!

Len txistuak bezela, txaloak ziran orduan. Nolakoak gañera! Jendea zertara asten dan izaten da.

Txistu-soñu aundiak Anoetako pelotalekuan, eta jendea Xalbadorren bertso orrek jarri zuan txaloka. Bertso ederra zan, izan ere, ura. Gero ere egun artako bertsorik onentzat juzkatu zuten bertso ura.

Xalbadorrek negar egiten zuan, eta ez da gutxiagotarako, izan ere. Txistuka ari zan jendea bertso batekin txaloka jartzen duan gizonak badauzka meritua. Ez da ari zertan txistu jorik.

Geroztik ez da txapelketarik egin, eta alde batera ez egitea ere obe, ala ibiltzekotan; batean txistua, bestean ujua, beti bazan zerbait eta.

Artan jarraitu zitzaion txapelketari. Bioi puntu bana jartzen digu Irigoienek, eta erantzuten degu. Neri jartzen dit gaia: zearo beltzez jantzitako umetxo bati iru bertso, eta bota ditut. Xalbadorrek gauza bera egiten du, aurrak, jaiotzen diranean, zergatik negar egiten duten esanaz.

Orain, opizioak emanda, alkarrekin teman biok txandan iruna bertso: biok anaiak gera; eta, egunsentian, ni lanera eta beste anaia, Xalbador, gau pasa egin da etxera dator, eta alkarrekin topo egin degu.

Oiek osatu ditugu eta orain nik bakarrik egin bear, Xalbador kartzela moduko ortara eraman dute ta.

Irigoienek lau puntu jartzen dizkit, eta erantzun ditut danak. Gero, bi bertso lau atzeneko itzak emanda, ta nik aiekin bertsoa osatu. Urrena, bi bertso gaia emanda; eta gero beste iru bertso oiari. Orrekin bukatu da nere saioa.

Atera dute kartzela moduko orretatik Xalbador, eta orrek nik bezela berdin egiten du, eta bukatu da Anoetako saltsa.

Joan da juradua gauza erabakitzerara. Bitartean gu zai gaude zer adituko degun. Atzera etorri da juradua, eta txapeldun izendatu dute Uztapide. Ni antxe gelditzen naiz, sinistu ezinda iru bider kanpeon nola izan ote nitekean.

Agurtzen ditut bertso batekin pelotalekuan zeuden danak; bigarren, Xalbadorrek agurtu zituan; irugarren, Lopategi; laugarren, Lazkao-Txiki; bostgarren, Gorrotxategi; seigarrena, Arozamena; zazpigarrena, Garmendia; zortzigarrena, bederatzigarrena eta amargarrena, danak berdin, Mugartegi, Mattin eta Madariaga. Orrelaxe zan aurtengo erabakia.

Iru bertsolari gazteenentzat milla bana peza daude. Gorrotxategi da gazteena, eta irurak berari eman zizkaten, bertsolaririk gazteenai partitzeko.

Joakin Zubiriak ematen dio beste kopa bat danetan gazteenari; ori ere Gorrotxategirentzat da.

Eguneko bertsorik onena botatzen zuanari ere, beste *premio especial* baze-goan: kopa eta milla pezeta; eta aiek, len esan bezela, Xalbadorri eman zitzaizkion.

Arozamenak Urumeako ibaiari bota zion bertsoari, beste bosteun pezeta. Ori ere *premio especial* da. Onekin bukatzen da gaurko saioa.

Len esan bezela, geroztik ez da txapelketarik egin; baña sariketa bat bai: eun milla pezetako sariketa. Noiz egin zan ez daukat gogoan (1); baña zein izan giñan, bai, gogoan daukat: mugaz beste aldetik, Xalbador, Mattin eta Xanpun; Bizkaitik, Lopategi, Azpillaga eta Mugartegi; eta beste gañontzekoak gipuzkoarrak, beste amar: Basarri, Lasarte, Lizaso, Agirre, Lazkano, Lazkao-Txiki, Garmendia, Arozamena, Mitxelena eta Uztapide. Oietxek danak giñan atzeneko sariketa ortan.

Bi igandetean egin zan ori. Lendabizikoan erdiak eliminatu ziran, da beste erdiakin egin zan sariketa, andik urrengo igandean. Auek ziran eliminatu ziranak lenbiziko igandean: Lizaso, Agirre, Lazkano, Lazkao-Txiki, Garmendia, Azpillaga, Mugartegi eta Xanpun. Eta beste zortzietan jokatu zan sariketa ori.

Lenbiziko saioan bost eliminatu giñan. Auetxek dira: Lopategi, Mattin, Arozamena, Mitxelena ta Uztapide. Eta iru pasa ziran aurrera: Basarri, Xalbador eta Lasarte.

Oiek danak gauza bera egin bear zuten txandan-txandan: lenbizi Xalbadorrek, gero Lasartek, eta atzenean Basarrik. Artan saioa egin zuten, da orrekin bukatzen da oraingo sariketa.

Gu zai jarri giñan zeñentzat izango ote zan lenengo saria, eta Basarri lenbiziko eta lau punturen goraberan Xalbador; eta lenengoa eta bigarren sariak, biak berdin jaso zituzten. Irugarrena Lasartek; laugarrena Uztapidek; bostgarrena Lopategik; seigarrena Mattinek; zazpigarrena Mitxelenak; eta zortzigarrena Arozamenak.

Olxaxen banatu ziran orduko sariak, eta jendea pake-pakean joan zan etxera.

Bañan txapelketan tratu txarrak aritzen dira; eta sariketan ere berdin.

Urkiolan lenengo eliminatoria egiten zanetik bildurrak jartzen giñan. Urkiolan izaten zan jeneralean lenengo asiera, eta toki ederrean zegoan, orduan bildurrak jarrita zegoana! Etzeuden sei illabete parasarik!

Abendu alde orretan izaten zan askotan txapelketa, eta bitarte orretan gutxi esango det, ba, berrogei ta amar erritan izaten giñala; baña etzan besterik akordatzen: txapelketa bakarrik. Bitartean egin bear ziran lan oiek etziran gogoratzen.

Gero, zenbat urrerago eta orduan-da bildur geiago asten zan, esnatzen zanean beti orixe burura etortzen zala.

Berak ulertzen edo konprenditzen etzuan gairen bat jarriko ote zioten-edo, beti izaten da zerbaiten kezka. Parragarrikeriren bat egiteko beti bildurrak egon bear, guk bezela gauza gutxiren berri dakanak. Ez da arritzekoa, gañera, bildurrak egotea.

Txapelketa batera dijoanean, ez da aurrean ibiltzea bakarrik gogoratu bear;

baita parragarrikeririk egin gabe ibiltzea ere. An ainbeste milla lagunuen aurrean lotsagarrikeria egitea ez da gero ederra. Txaloak jo bearrean, marmar an jendea asten danean, tristetu egiten da bat.

Azkeneko egunetan, berriz, egunez lanean dabillenean ere aztu ezin; eta, gaba etorri ezkerero, esnatzen zeran gutzian, berriz, etzaizu beste gauzarik gogoratuko. Beti orixen buruan.

Gero eguna etortzen da; jaikiko zera oetik eta joango zera errira, eta danak zuri begira daudela uste dezu; eta, bitartean, etzaiote gogoratzen guk uste ainbat jenderi.

Dana dala, joango zera beintzat jokatut bear dezun tokira: eta antxe, jendearrekin-da piska bat nasten zeranean, aztu egiten da. Baña, len esan detena, zuk ulertzen ez dezun gairen bat jartzen badizute, bein dalako Narbarteren Fabiola bezela....

Premioak izaten ziran modu askotakoak: diruaz gañera, kopak, makillak, eta liburuak ere bai. Magnetofona ere irabazi nuan baten. Irabazi edo eman egin zidaten beintzat.

Omenaje baten Donostian egin zizkidaten erregaloak ere ez dira aztutzekoak: magnetofona eta telebisioa ementxe daude. Batenbatzuek ordaindu zituzten aiek ere. Bakoitzak amarna milla pezeta-ta emandakoak baziran; da, orrela asi ezkerero, bereala osatzen da oiek ordaintzeko ere. Bosna eta launa eta beste batzuek gutxiagorekin ere, biotzez ematen baldin bada, berdin estimatzen da ori ere.

Erlojua eta radioa Zestuan eman zizkidaten, omenaje egin zidaten batean; oiek danak eta bizarra mozteko makina. Au nere Zestuako lagun batzuek emana.

Lenengo omenajea Arruan egin zidaten, onera etorri nintzanean, eta kartera

erregalatu zidaten. Ura ez dala erregalo aundia esango da, baña nik aundiena ainbeste estimatu nuan kartera ura, nere lagun batzuek egin baitzidaten, eta banekian nik ura biotzez emana zala; eta biotzez egiten dan erregaloak, pisu aundia izaten du.

Nik, norabait nijoanean, beti nerekin eramango det kartera ura. Askotan ez da diru-pilla aundirik izango; baña, kartera ura artzen dedan bakoitzean, nere Arruako lagunakin gogoratzen naiz.

Oiek danak, eta gogoratzen etzaizkidanak ez dakit zenbat izango diran.

Liburu onen bidez oiek danak eskertzen ditut. Neri erregaloak egin dizkidaten guziaz, bein da berriro eskerrik asko! Ta ni gogoratu ez naizenak, barkatu dezatela, arren! Ez pentsatu ni az-tuta nagoanik. Burutik ondo naizen bitartean, etzaizkit aztuko neri jendeak egin dizkidan mesedeak.

Kopa banaka batzuek ere badira. Gure andreak izaten du lana oiek garbitzen; baña ixilik garbitzen ditu eta gaitz erdi...

Omenajeak egiten asi ziranean Donostian, neri lenbizi egin zidaten. Orduan txapelketetan genbiltzanetan bertsolaririk zarrena nintzalako edo ez dakit zergatik izango zan; baña, dana dala, ori Jose Salaberriak jakingo du.

Baña gero, berriz, gaixotu egin nintzan; eta Salaberria orrelakoetan ez da lo egoten, eta orduan ere etzan ala egon. Neri ezer ere esan gabe, beste omenajea antolatu zuan Donostian egiteko.

Nik ori jakin nuanean, nere buruari esan nion:

–Bigarren omenajea denbora gutxiren barruan toki batean, ez dek oso ego-ki izango!

Telefonotik deitu nion Jose Salaberriari, eta izketan jarri giñan.

Nik esan nion etzitzaidala oso ondo iduritzen omenaje ori, eta:

–Zer, ba? –erantzun zidan Salaberriak.

Eta len lau edo bost urte izango zira-la oraindak Donostian omenajea egin zidatela, ta bera izan zan gañera egin zidana edo antolatu zuana.

Atzera erantzun zidan, arek berriz ere antolatuta zeukala, ba, eta ura etzegoala orain atzera egiteko moduan, eta egin-egin bearko zala; bertsolariai ere esan ziela, eta danak sutsu baietz erantzun ziotela.

Orduan nik ixildu egin bear izan nuan, eta onartu Salaberriaren esanak.

Eta egin zan omenaldi ori, Astorian gañera egin ere, jendez dana beteta.

Ni ez nintzan joan, baña semea an izan zan, da arek esan zidan. Ni gaixo egon berria nintzan, eta ez nintzan ausartu joaten.

Baña Jose Salaberriak lau bat bertso eskatu zizkidan omenaldi orretan kantatzeko, eta nik nola ukatuko nizkion, ba, ari? Ezta ezergatik ere, eta baietz esan nion: alegiñak egingo nituala.

Omenaldia egiteko aurreko egun batean etorri zan Salaberria, bere iru edo lau lagun artuta, magnetofonoa ere bai; kantatu nituan nere lau bertsoak, eta Salaberria, bere aiek artu eta an joan zan Donostira.

Ni ez nengoan beiñere baño obe-kiago bertsotarako, baña nolabait ere moldatu nituan beintzat, ondo edo gaizki.

Nere orduko omenaldia Jose Salaberriak eta *Turismo*-etxeko sekretarioak

moldatu zuten. Rafael Agirre Franco edo orrela izan bear du orrek, eta eskerrak biotzez bioi.

Bertsoak onela ziran, berriz:

Jorraillaren oetamarrian  
gertatu zan Anoetan:  
ordu estua eta larria  
izan nuana benetan;  
kantuan asi giñaden eta  
gañera erdi lanetan,  
ixil samarrik egonak gera  
geroztikako onetan.

Emen zerate, nere lagun zar  
prestuak eta laztanak,  
bateonbaten zai egon bear  
norbera gauza eztanak;  
orain baño len banituen nik  
amaika bertso emanak,

orain pentsatzen jarria nago  
bukatu ote diran danak.

Kantu-lanean asiak giñan  
asko bezela gazterik,  
ez nuan uste nere burua  
era ontan ikusterik;  
nere denboran ez det pasatu  
olako egun tristerik,  
orain ez daukat ari diranai  
eskerrak eman besterik.

Lendabiziko *Turismo*-etxea  
bear genduke eskertu,  
jardun da jardun eginda ere  
alare ezin aspertu;  
zar da gazteak nai zinduzteket  
maitetasuna agertu,  
beste aldi bat arte guztiok  
orra biotzez agurtu.

(1) 1968-II-4 eta 11.



# Baso-lana

**B**ERTSOETAKO bizimodua esan det nik, baña mundu guziak badaki gu bertsoakin bakarrik ez giñala biziko. Egia da ori; ez giñan bertsoakin bakarrik bizitzen. Askotan basoan ibiltzen giñan. Danen berri ez dago ematerik, baña batzuek kontatuko dizkizuet. Gerraz geroztik egin giñuzen baso-lan auek.

Ugarte-berrin ere ibili giñan. Amabi mutil giñan an. Larraskanda-azpikoan egiten genduan lo lenbiziko aldetik.

Basoko lana, pagoak bota ta tabloia egin; baña esku-zerrarekin. Jakingo dezu, irakurle, ori lan zalla dala ere. Gu beintzat nekatzen giñan.

Baña beti umore onean ibiltzen giñan, eta nekeak asko aztu arazitzen ditu orrek. Amabi mutillek, basoa asi ta bukatu arte, ez genduan itz bat altuago egin bearrik izan.

Larraskanda-azpikoan, berriz, ez genduan etxeoak ez giñanik sekula pentsatu. Aiek baño lenago jaikitzen giñan gu, eta gosaria preparatzera. Sukaldea gure mende izaten zan an.

Guk, negua zan-da, eguna argitzera-ko gosaldu eta aldegin egiten genduan etxetik. Neguan eguna motza egoten da, eta ondo aprobetxatu bear izaten zan.

Egualdi txarra baldin bazan, artu zaku-pare bat ezpal da Larraskandako sukaldera.

An segituan asiko giñan musean-edo; eta dirurik ez genion alkarri kendu nai izaten, da musean galtzen zuanak, ardo trago bat gutxiago edo orrelako kastigua; edo, bestela, bertsoa botatzeko kastigua, musean galtzen baldin bazuan.

Sukalde artan etzan otz aundirik egon, gu an ibilli giñan bitartean. Bi su zeuden: bat, *ekonomika* esaten zaion oietakoa; eta bestea su bajua, koska baten gañean jarria. Su bajua geienez gure mende izaten zan.

Sukaldea ere aundia zan ura, ta danak moldatzen giñan an. Gaurko kaleko sukalde askotan, ipurdiari bueltarik eman ezinda, ez dago ainbeste sartzerik. Etxean ere pameli ederra zegoan, eta gu beste amabi baso-mutill, da danak ederki ta lasai sartzen giñan an.

Basarri-taberna edo orrelakoa izaten zan, eta billera ere bertan egiten zan. An neskatxa batek jotzen zuan soñua, ta ura an bertakoa zan, Larraskandakoa.

Ardi zar bat ere jokatu genduan musean, eta ura ere an jan genduan igande batean. Gau artan ez genduan lo asko egin; urrengo goizean ere ez giñan oso

goiz jeiki; eta, badakizu, orrelako egu-  
netan umore ona izaten da.

*Txankarta* esaten geniona bazan bat  
taldean, basarria izen ortakoa zalako.  
Gerra aurretik ere alkarrekin ibilliak gi-  
ñan. Beti amerikanoak bezela ibiltzen  
zan ura, erloju-katea txalekotik txintxillik  
zuala.

Eta bertso bat bota nion nik, eta arek  
erantzun; bertsoak onela ziran gutxi  
gora-bera:

Uztapidek:

Amaika bertso badet  
len ere botia,  
orain ere dadukat  
burua betia;  
egñ zazu mesere  
neri esatia  
nundik erosi dezun  
erloju-katia.

Ta Txankartak:

Bertsuetan etzaude  
zu mutill makala,  
pentsatu zazu nik e  
botako detala;  
len piper-poto billa  
ibiltzen zirala,  
aietxek saldu eta  
erosia zala.

Bertso auek bota ta lanera joan giñan.  
Neguko eguna zan da bapo pasa gen-  
duan. Bereala asi giñan irrintzika, eta  
ezta gogoratu ere bezperako ardi-janik.

Larraskandako pamelia oso ona zala  
esan bear. Kristauak asko izaten dira  
itzegiten oso ederrak; baña obretan eza-  
gutzen dira, bai gizonak eta bai andreak.  
Aiek etziran mesere egiteko bildurrak  
egongo. Kristauari on egitea etzuten ge-  
rorako utziko aiek.

Gero Ugarte-berrira jetxi giñan. Ba-  
soa ere angoa zan; da, goiko lanak egin  
giñuzenean, Larraskanda urruti jarri zi-  
tzaigun lo egitera joateko ere. Orduan  
Ugarte-berrira jetxi giñan, da an lo egin  
da jan ere bai.

Pagotegia Ugarte-berritik asten zan,  
eta andik gora zegoan Larraskanda, pa-  
gotegiaren goienean.

Len Larraskandan bezela, Ugarten  
ere ondo konpontzen giñan. Oso pame-  
li ezaguna genduan ura ere. Debako par-  
tean zegoan ori; eta Larraskanda, berriz,  
ez dakit Elgoibarko partean edo Azkoit-  
tikoan dagoan; danetatik urruti beintzat.

Baña antxe baño etxe-jira ederrago-  
rik ez da leku askotan izango. Ango ze-  
lai eder ura! Emen, Oiartzunen, soroa  
esaten zaio. Etxe-jira guzian zotala dago  
an.

Ugarte-berrian, berriz, kamioa dago  
etxeraño, eta an ere soroak-eta oso or-  
dekan dira.

An nagusia alarguna zan pameli gaz-  
tearekin. Eta, basoa bukatu genduane-  
an, Itziarra joan giñan. An meza bat en-  
kargatuta zeukan nagusiak; eta, ura  
entzun eta kontuak egin-eta, bazkaldu  
genduan ederki nagusiaren kontura eta  
etxera etorri giñan.

Larraskandan zor aundiak utzi giñu-  
zen: ainbeste endredo eman genduan eta  
ezer etzigiten kobratu nai izan; eta ga-  
riak itaiakin ebakitzen zituzten aiek ar-  
tean ere, ta, gariak eldu ziranean, amabi  
mutillak joan giñan goiz baten, eta illun-  
tzerako gariak danak ebaki ta lotu giñu-  
zen. Orduantxe aiek gustora, eta gu ere  
bai. Ortantxe bukatu ziran ango baso-la-  
nak.

Gero Ugarte-berriko lanak egin gi-  
ñuzen, eta Itziarko Andutzenera joan gi-

ñan orduan. An ere lengo kuadrilla giñan berriz ere. An ere pagoa bota, zerratu eta tabloia egin.

An txabolan preparatu genduan kamaña, eta asi giñan pago botatzen. Zerra-tokia ere egin genduan bereala, eta an ari giñan serio. Jaian etxera etortzen giñan, da astelenean berriz joan basora.

Pago aundi samarrak ere baziran an. Beste zerra-eskua ere asi zan tabloia egiten, eta antxe. Aldian irrintzi bat egin zerra-toki batetik bestera, eta antxe ari giñan.

Arratsalde batean:

–Emen da Andutzeneko etxeko andre aundia!

Arkume bat artu kazuela aundi batean maniatuta, ta iritxi zan basora. Ia, juntatzeko ura zegoan tokira! Joan giñan, ba, ta arkume bat guk jateko! Andre aundi orren anaia bat ere an ari zan gurekin.

Andre aundia esaten det nik; baña uraxe zan, ba, emakumea aundia ta ederra, luzea eta zabala; oso gizona ere ez, baña eun da geiago kilo beintzat, edozein eratarata ere.

Guk ederki jan genduan beintzat arek eramane zigun arkumea, eta gusto ederra artu ere bai. Izan ere, arkumeak alako lekuan jan bear lirake, ta ez erdi txoratuta edariakin dagoanean.

Guk, arkume ori janda, beste egunetan bezelaxe zerran egin genduan, eta kamañan etzan. Biamon-goizean letxuga baño ere preskoago geunden.

Iñoiz, arkume-jan bat eginda, ilda baño gaizkiago egon izan naiz ni ere. Ez da arkumeak egiten duan kaltea ori, baizik-eta aurretik eta ondorenean edaten diran edariak dute kulpa guzia. Askotan, arkumea jan ez balitz baño gaizkiago.

Dana dala, baso ori ere egin genduan. Azkeneko egunean, artean ere zaragian ardoa dezentegendukan. Zumar bat zegoan aizeak ipurditik ateria, eta uraxe moztu eta zerratu egiten asi giñan gu, iru zerrari eta trongo-lantzalle bat.

Gosaritarako eju egin zutenean, azaldu gera, ba, beste aien taller aldera, eta gure kuñado batek irrintzi ikaragarria egin zuan. Guk batek besteari esan genion:

–Emen ere jendea berotu dek!

Gu ere goizetik gogor asi giñan edaten; baña besteak ere etzeuden baraurik. Aiek zazpi litroko zatoa zeukaten; eta, goizean beteta, gosaltzerako oso ardo gutxi zuten, eta ederki gobernatuta zeuden.

Gure kuñadoa ixilla zan, ba; ta, ura ala mogitu zanean, guk pentsatu genduan zerbait bazala an.

Dana dala, gosaldugenduan eta atzera joan giñan bakoitza gere lekutara, eta artan jarraitu genion eguardira arte ere. Egun artako lana ere bete-betekoa genduan, eta gogor jarraitu ere. Piska bat izurratu giñuzen eguardirako berriz ere; bazkaldugenduan eta arratsalde erdirako lanak menderatu giñuzen.

Guk beintzat egin genduan zumar aundi ura zerratzeko modua, eta joan giñan besteak lanean ari ziran tokira. Aiek ere pago-paren bat zeuzkaten ebakitze-ko, eta alkarri lagundu ta berealaxe ebakitu giñuzen.

Merienda piska bat egin da abitu giñan etxera, ta joan giñan itziartarrakin partitzeko tokiraño. Iru itziartar giñuzen, ba: Andutzenekoa bat eta Isasiko bi anaiak. Ezin partitu aiekin. Itzegin ere altutik egiten genduan, eta danak batean gañera.

Noizbaiten ere partitu giñan beintzat, eta abitu gera etxe aldera. Kamioa zegoan; eta, Soarte parera iritxi giñanean, an basarri-taberna zegoan eta an sartu bear genduala; baita sartu ere.

Nagusia soñu-jotzallea zan an, Soarte arri-jasotzalle orretxen aita. Jarri degu ura soñu jotzen, eta danak dantzan asi gera, zekianak zekian bezela.

Ala genbiltzala, gure lengusu batek, anka goi samarrera jaso eta, buelta ematen asi zanean, su ekonomikak edukitzen du aurrean barandilla bat eta an sartu du abarka-muturra eta abarka dana puskatu.

An ala ibilli gera, eta apaldu egin bear zala. Apaltzen eskatu degu eta zerbait jarri ziguten, eta bai apaldu ere. Len dezente baldin bagiñan, orduantxe jarri giñan osatuta. Apaltzen, berriz, sei lagunek amar litro ardoren kontua pagatu genduan.

Nolabait ere atera gera andik; eta iñor etzan beintzat bakarrik etxera joateko aña etzanik; eta danok, al genduan bezela, etxera joan giñan.

Otsolarren ere jardun genduan basoan. An bi nagusiren kontura giñan: bat Urruzula eta bestea Muno. Au Errezilkoa da, eta Urruzula ori Azkoitikoa. Biak sozio egiten zuten.

Goiz baten ikusi genduan baso ori. Nere lengusu bat, kuñado bat eta irurok joan giñan; eta nagusi oiek ere bai, eta tratua eginda etorri giñan.

Otsolarre ori Azkoitiko partean dago, Aitzburutxotik gora joanda Martirita aldera, eta azkeneko basarria. Oso mendian dago. Baña joan giñan beintzat ara ere.

Seguru asko Azkoitin dan basarrik altuena izango da ori, edo altuenetako

bat. Izena ere ez dauka ederra: Otsolarre. Noizbaiten otsoak izaten zirala esan nainko du izen orrek.

Sei lagun joan giñan ara: gure bi lengusu, gure kuñado bat bere anaiarekin eta gu bi anaia. Iru etxetatik bina anaia; danak pamelikoak giñan.

Da asi giñan: joan da pagoa bota ta zerratu egiten genduan, ta tabloia egin.

Asi ta laster, zortzi eguneko elurtea izan genduan. Eta basoan ezin lanik egin eta musean jarduten genduan an ere, denbora pasa; egualdia ondutzen zuanean egingo genduala lana. Eta etorri ziran egualdi onak ere, eta eraso genion lanari.

Larunbatean etxera etortzen giñan, da astelenean berriz basora. Aitzburutxotik ibiltzen giñan gora eta bera. Larunbatean errez etortzen giñan goitik bera; baña astelenean, Aitzburutxoko erdiko bentatik gora begira jarrita, bildurra ere ematen zuan ango aldapa arek.

Baña, bein bertara joan ezker, bapo jarduten giñan lanean: birek bota ta moztu, besteak trongoa landu, eta beste iruk zerratu egiten genduan.

Pagoa aundi samarra zan an ere; pago zatarra. Pago aundiak beti mogimentu txarra du, eta kontuz ibilli bear zerra-tokira jasotzen-eta. Min artzeko naikoa da, bestela, alako trongo aundia.

Astea lanean pasa an da etorri giñan larunbat batean etxera, eta gure ama egun artantxe illa! Oian illa billatu zuan gure koñatak. Ura zan beste muturrekoa! Irurogei ta sei urte zituan artean, eta amarik gabe gelditu giñan.

Biaramonean amaren eleizkizunak egin eta berriz ere basora. Mundu au gauza tristea da, ondo pentsatzen jarri ezker. Bat il dala-ta, ez dago besteak la-

nik egin gabe bizitzerik. Bizirik gelditzen diranak lana egin bear.

Ama, batere gaixo egon gabe, gabean besteakin batean oira joan da goizean illa. Aita, berriz, andik bi illabete barru il zan, eta or gelditu giñan gurasorik gabe.

Ama, Epaillaren ogei ta bostean, Ama Birjiña egunean; eta aita, berriz, San Isidro egunean, Lore-illaren amabostean. Biak egun siñaletan il ziran; bi illabete baño amar egun gutxiago. Zeruan gerta ditezela!

Onek badirudi bein dalako Bizkaiko gertaera bat. An ere bi anaia. Basoan ari omen ziran aiek ikatz egiten, da denbora askoan ez omen ziran etxera joan. Alako baten, etxearekin gogoratu omen zan bat eta besteari esan omen zion:

–Etxera ere joan bear ko juagu, ba!

–Nai danean! Nik txondarrak zaiduko jituat; eta, nai badok, joan adi!

Joan omen da anaia bat etxera, eta bestea txondarrak zaitzen gelditu omen zan.

Egun bi igaro ondoren, ostera basora etorri omen zan etxean egon zan anaia ori. Eta aspaldian etxean izan gabe eta, ez da arritzekoa, basoan egon zan anaia orrek:

–Da etxean zer barri dok?

–Etxaok nobedaderik! Aitta il lengoan!...

–Zer pasa jakok, ba?

–Etxe osteko bentanatik ortura jausi ta zamea apurtu jok!

–Aza-alde ederrak egingo joazan orduan!

Gure Otsolarreko basoari jarraitu genion berriz ere. Bukatu zan arte, astele-

nean joan eta larunbatean oster a etxera etorri.

Otsolarreko pamelia ere oso ondo portatu zitzaizkigun: lo egiteko oi zuri ederrak, eta eltzea ere berak maniatzen ziguten. Otordu guziak etxean egiten giñuzen, eta neguko egunean alde ederra egoten da orretan ere.

Jatorduan, askotan kanpoan baldin bada, aize otza-edo, nai ainbat denbora ez da pasatzen; eta, etxean bada, berriz, beste modu baten antolatzen da jatordua; eta gañeko zigarrotxoa erre ta beste gusto bat izaten da. Ori dana, Otsolarreko pameliari esker.

Orduantxe pamelia azten ari ziran andre-gizonak ziran aiek. Dozena bat urteko motikoa zeukaten zarrena; dozen erdi bat seme-alaba, danak alkarren segiran.

An ere etxean bezela egon giñan; baña zerratu giñuzen pagoak eta aldegin egin bear. Nagusiai abisatu genien, eta aiek neurtzallearekin etorri ziran. Azpeitiko Atxan esaten zioten bat ekarri zuten.

Guk erabili giñuzen tabloiak-eta Atxanek neurtu zituan, eta pronto etxera joateko.

Nagusiak oso jatorrak giñuzen eta etzeagoan kontuak egiten aserretu-bildurrik. Atxanek kontuak atera zituanean, berealaxe ordaindu zizkiguten, eta ondo partitu giñan beste baterako ere.

Geiagorekin ere basoan jardun degu, baña danak ez dago kontatzerik eta bukatu egin bear ko. Bestela, danak esaten asten bagera, bada iru liburu betetzeko ainbat; eta dana ezin basoko kontuakin egingo degu eta beste kontu batzuekin asiko naiz orain.

# Oiartzun

**L**EN ere esan dedan bezela, Uztapiden ez giñan bereala aspertu. Baña pamelia azitzen ari ziran etxeko anaia eta goñata, eta andik aurrera etzegoan guretzat tokirik an.

Ori norberak ikusi bear izaten du, bestek esan baño len. Guk alaxe egin genduan. Garaiz aldegiten baldin bada etxetik, berriz ere joateko pozak egoten da. Gu alaxe joaten gera orain: pozak.

Norabait aldegin bear zala, ba, eta Oiartzunen bai omen zegoala basarri koskor bat saltzeko jakin genduan. Baita etorri ere, eta basarria erosita joan nintzan etxera.

Oiartzunera bizitzera etorri giñan, ba. Nik berrogei ta bat urte, eta anaiak ogei ta emeretzi, naikoa zarrak aldatzeko. Lurra artzea ere ez da segurua izaten eda-de edo adiña orretan.

Lendik esana nago au ere: Arozpiden bazan bat landare-klase ona, zenbat lekutan aldatu, ainbeste aldiz lurra artzen zuana; beñere etzan ura igartu. Baña gu ez gera alako landare-klaseak.

Dana dala, beintzat, guk ere emen artu genduan lurra ta emen bizi gera. Lenbiziko aldetik sarri joaten giñan aruntz: illean bein edo orrela; geroxeago urtean bein, eta orain urtean bein ere ez

gera joaten. Bi anaia etorri giñan onera bizitzera.

Laguntzarrene du izena gure basarriak. Basarri txikia da. Aundiaren bearririk ere ez genduan orduan. Orrera eta onera betiko lana bagenduan bertsotan ere; eta orain, berriz, basarri bear aundirik ez daukagu.

Ementxe errekatxo baten ondoan dago gure basarria. Dituan terrenoak oso egoki ditu: etxetik bertan. Esku-karro batekin ganadu-jatekoak danak errez etxeratzeke moduan. Bi bei edukitzeko ainbat jateko edo orrelaxe.

Ergoien, gu bizi geran ballara au, oso ordeka ta polita da. Eguzkiak ez du asko jotzen neguan. Gañerakoan oso ballara ederra da au.

Lagun onak baditugu emen ere. Edozeñi mesede egiteko-eta, ez dago agindu bearrik. Danean izaten dira kristau onak, eta emen ere badira. Norbera ona izan ezkerro, lagun onak billatu leizke; baña ez da errez ona izaten, da ortan dira kome-riak.

Gure asmoa olloakin zerbait egingo ote genduan edo orrela zan, da baita prueba egiteko aña jarri ere egin giñuzen. Txabola egin genduan, eta irureun ollo jarri giñuzen, eta beste larogei aate.

Aateentzat ere toki ona zegoan: erreka bertan, da ongi.

Aateak arrautza asko egin ziguten. Lenbiziko urtean berreun da amar, da bigarreanean eun da larogei esan zigun saldu zituanak; eta egin zituzten ainbeste eta geiago ere. Etzigun batere gezurrik esan.

Baña, bi urte oiek pasa ziranean, kontuak atera giñuzen, eta jan zituzten pentsuak geiago balio zuten, egin zituzten arrautzak baño.

Arrautzak danak gabeen egiten dituzte aateak. Larogei aatek irurogei ta emezortzi egin izan zituzten, eta ura izaten zan edertasuna, goizean txabolako atea idikitakoan! Txabola txikia izaten zuten, da lur estali izaten zuten arrautza.

Zeñek esan, ura ala ikusita, aiek etzutela jateko ainbat eman bear? Baña asko bear, ordea, jateko ere.

Bi urtean eduki giñuzen aateak; eta aiek baño oberik etzala izango beste batzuek jarrita ere, eta utzi egin genion aateak edukitzeari

*Corredores indios* zan aate oien izena. Usurbilko Pagolaren etxetik ekarriak ziran aate oiek. “*Con el ave de pico no se hará rico*” esan zuanak, zerbait esan zuan.

Olooakin ere ez genduan irabazi aundirik ikusi, eta arriskua galanta galtzeko; eta utzi egin genion olooak edukitzeari ere. Guk gero geiago jartzeko asmoak giñuzen, ondo asi bagiña; baño ez giñan gustora ari, eta bertan bera utzi genion.

Guk olooak eduki giñuzenean baño gauza gutxi geiago balio du arrautzak; eta, pentsua, berriz, zer preziotan dagoan, begiratu besterik ez dago.

Orain olooakin ari diranak, ez dakit nola ari diran. Olo-tokiak oso ondo egiñak, automatikoak, gizon batek berrogei

milla olloen lanak egiteko moduan jarrita ta orrela; gaur, bestela, esku-lana asko kostatzen da. Lareun edo bosteun ollori begira jarri gizona ta ez da konturik orain.

Guk buru-auste ederrak ibilli giñuzen geren olloakin, eta atzenean dirupuska bat galdu ta erretira egin genduan.

Txabola ere dana bizkarrean guk bi anaiak ibillia da; eun da geiago metro kuadroko txabola, ederki bizkarrak nekatuta jaso. Bidetik ogeitaka metroak bazeuden, da andik dana bizkarrean eraman bear. Asi blokeak eta morteroak eta zurajeia, tella ta danak. Orain antxe dago alper-alperrik, ezeren serbiziozik egiten ez duala.

Lanean egin degu saio bat, eta orain deskantsatu egin bear degu.

Gu onera etorri ta laste, barrikote bat izan zan, *Tolare* izeneko ostatu batean. Nik orain andrea detan onen etxean geunden gu jaten, Bidealden, da aren aurrez aurre dago ostatu ori, *Tolare*. Larunbat batean zan barrikotea. Jeneralean ala izaten dira barrikoteak, batenbatek trago bat geiegi edan balu ere, astelenerako sendatu dedin. Ez det uste askotatik bat deskuidatzea arritzekoa danik.

Gu ere joan giñan, ba, anaia biak, barrikote orretara, eta egundoko jendetza giñan.

Barrikotea zer dan galdetuko du zenbaitek. Oso esplikazio erreza du onek. Barrikotea da barril koskor bat sagardoz betea, aundixeago edo txikixeago, neurri jakiñik ez duana. Sagar jo-aldia egiten danean betetzen da; ta, al baldin bada, atzeneko pizarrakin bete berde-berdea, ta etorri dedilla aguro. Orixe da barrikotea.

Esan bezela, jende asko giñan; eta, Oiartzungo oitura, piska bat berotzean

bertsotan egin bear. Emen gañera berriak giñan gu; ta, apaldu genduanean-edo, kapea artzeko astirik gabe, asi giñan Mitxelena ta ni, biok.

Guk saio bat egin ondoren, nere aita-giarreba izana eta *Zuluu*; aiek ere egin zuten beste saio bat. Eta, aiek aspertu ziranean, Morkondoko Naparra eta Barentin.

Atzeneko auek laurak illak dira. Iru-rogei urtetik bera ilko ziran danak, eta zeruan gerta ditezela.

Orrelaxe, txandan danak egiten genduan guk bertsotan. Lau il zirala esan deten oiek, danak ballara ontakoak ziran, Ergoiengoak.

Goizaldera arte an egon, da beste aldameneko etxean bizi giñan da erretira ederra gendukan; eta urrengo egunean lanerako kezkarik ez, igandea baitzan.

Naikoa loa egin; bezperako barrikan sagardorikan baldin bada, artu amaiketako piska bat, eta bezperan gaixotu zuan arek berak sendatzen du.

Emen basarrietan nunai izaten zan sagardoa saltzen, gu onera etorri giñanean: Zulatxipin eta Olaitzberrin eta oietan. Igande-arratsaldea pasatzeko, zer gauza ederragoa?

An tokan egin piska bat, beti ere sagardo-trago bat egin, eta, nai duanean, meriendatu. Tortilla ederrak egiten jakiten dute sagardotegiko andreak. Ura jan ez bai kontu ederrak:

–Aurten edan al degu onenbesteko sagardorik?

–Beste alako basarritan edan gendua ere ez uken txarra!

Ta olakoxe kontuak. Adurizek dauka emen Oiartzunen sagardotegi bikaña. Orrek ere beti idikitzen zuan lenago txo-

txean barrika aundi bat. Aste Santuan izaten zan geianean. Amabost milla litroko barrika zan ura; eta, bera ikustea-gatik ere, jende asko joaten zan ara.

Emen beste zenbat lekutan saltzen zan sagardoa, ezin liteke esan ere egin. Ta ala ere, gu etorri baño lenago, askoz geiago.

Emen gizon batek eman dit neri lista bat, errian deretxoa pagatzen zutenak edo sagardoa saltzen zutenak, eta irurogei ta geiago ziran lista artan. Ortik pentzatu zer mobimentu izango zan emen, batere sagar-urtea zanean.

Etxe oiek danak sagardoa saltzen asten ziranean, txandan salduko zuten; baña alkarri toki piska bat eman egin bear beintzat.

Oloetatik ezer etzegoala ikusi genduanean, basoan asi giñan berriz. Esker-rak lenago oituak giñala. Goarda bat bazegoan emen, eta lana eskatu nion; eta piñu-azia biltzen bazeukala lana esan zidan.

Beste bi lagun billatu nituan emen; Añaki-edo badago basarri bat eta angoxe bi anaiak, langille onak biak, zugaitzaren gañean ibiltzeko modukoak. Batek ogei ta bi urte ta besteak emezortzi edo orrela idukiko zituzten; eta nik, aiek billatu nituanean, ez neukan ezeren bildurrik.

Aiek zugaitz gañean katagorriak bezela ibiltzen ziran; nik ere errezen batzuek botatzen nituan, da aiek botatakoak ere bildu bear izaten ziran. Oso ondo konpondu nintzan bi mutil gazte oiekin. Emengo piñurik aundienak bildu giñuzen, da bukatu genduan lan ori ere.

Emen beste baso koskor bat bazegoan saltzeko, ta uraxe erosi nuan. Anaia neregana ekarri nuan; obra batean ari



zan, eta biok baso orixe botatzen asi giñan. Gero mutil batzuek artu giñuzen, eta berealaxe bota genduan, eta egurrak txikitu. Itzaia ere billatu genduan, eta aguro egin giñuzen baso aren lanak.

Gero zori gaiztoko jela-urte ura etorri zan, da piñuak danak igartu zituan. Orduan danak bota egin bear zirala eta eremu izugarriak artu ta bota ere egin giñuzen. Bota eta zuritu eta kamioan jarri, erabat artu genduan. Papelerara joan ziran geienak.

Diputazioa zan orren kargua zeukana. Guk Diputazioaren kontura egiten genduan lana, eta arixe kobratu ere. Onenbesteko baten artu ta geok arreglatzen giñan, al genduan bezela.

Diputazioan pagamentu segurua da. Tratuan saiatuko dira; baña, bein agindu ezkeru, konplitutzen dute aiek.

Mutillak, berriz, emen bertakoak giñuzen asko, eta lana ongi egiten zuten. Kamiora ateratzea, erabat eman genduan itzaiai; guk zurituta jarri, ta itzaiak egurra bildu eta kamiora atera. Ala egin giñuzen sail aundiak.

Ala egin giñuzenak, berriz, kastillano batzuekin egin giñuzen. Kastillanoak ere lau edo bost sail bagiñuzen. Sail aundiak etziran izaten aiek: iru edo lau ko taldeak izaten ziran, geienez ere.

Baña lana poliki egiten zuten aiek ere. Euri ta ateri egiten zuten lana aiek, eta jaian ere bai. Beñere etzuten oporrik egiten aiek. Kosetxak bildutakoan etortzen ziran onuntz, eta lan-tarte orretan saiatuko ziran zerbait egiten.

Urte bateko lana izan zan dana ere gure emengo baso-lana. Piñuak bukatu ziran da orduantxe gelditu giñan lanik gabe.

Gero, berriz, piñuak bota egin ziran, baña aldatu egin bear ziran oster; eta

orretarako landarea egin bear eta eraso genion landare egiteari.

Mutegia egin bear eta baita egin ere. Gero artu mendiak gure kontura, zulatu eta aldatzeko. Negu guziko lana izaten genduan orretan. Udaran, berriz, landarea egiten: azia erein, ta gero landarea jorratu, jaiotzen zanean.

Txoriakin ere kontu aundia bear izaten zan. Bere azia puntan duala jaiotzen da; txoriak jo ta bota egiten du, ta egun guztian zai egon bear.

Otordua bertara eraman eta, goizean eguna zabaltzen zuanetikan asi eta illundu bitarte guzian, antxe egoten giñan gure mutegi orretan.

Amabost egun edo ogei bat egun, ondo jaiotzen dala ere. Asko moduz jaiotzen kostatzen bazaio, berriz, ez jakin zenbat denborako zauden.

Gero asten zera belarra ateratzen, da uda guziko lana. Dana eskuakin atera bear belarra. Piñua ugari izaten da, eta ezin liteke atxurrik sartu tartera.

Antxe, burua baño ipurdia gorago genduala, jarduten genduan piñu-jorran. Bi edo iru jorratu-aldi eman bear izaten zaizka, eta gerrietako otz aundirik gabe jarduten giñan.

Askotan, zotalezko txabola bat egin bear; da, euria egiten bazuan, araxe sartu ta an deskantsatu. Berriz ere, egualdia ontzen zuanean, erasotzen genion lanean, da orrelaxe.

Gero, berriz, negua zetorrenean, piñu aldatzen izaten genduan lana. Artu gere kontura terreno-sail aundiak eta, al baziran, zulatu aurrez. Gero, aldatzeko garaia datorrenean, alde ederra izaten da, ala eduki ezkeru.

Landarea mogitu baño lenago aldatu nai izaten giñuzen, aldatzen ez baziran

ere pasa egin bear izaten zan baña. Bein landareak bote aundia egin ezkeru, oso gaizki ematen du aldatzeko.

Batean edo bestean, beti sortzen zan lana; gure landarea enpleatzea izaten zan bearrenekoa, egitea ere asko kostata egoten zan da.

Sei bat urte-edo egin giñuzen orretan ere, eta piñuz osatu samartu ere egin ziran emengo mendiak, eta zelaiak ere bai pranko. Etxe bat ustutzen bazan, zai egoten zan dirua zeukan jendea, erosi ta piñua aldatzeko.

Orain bolararik aundiena eman zuan orrek ere. Gauza guziak izaten dituzte beren bolarak. Guk orrelako basarri kaskarrak asko sartu giñuzen piñu, eta basarri onak ere bai.

Askotan, erosi ta segituan presaka ibiltzen zan jendea, dirua alperrik edukitze gabe. Etxea erosi eta gorririk edukitze badezu, piñua aldatu edo zerbait egin gabe, etxe ura zorra egiten ari da. Bein erosi ezkeru, eskriturak egiteko astirik gabe etorriko zitzaizun batenbat, piñu-zuloak egin bear zirala eta prepartatzeko.

Gu ere al genduan azkarrena asiko giñan. Ez genduan nai izaten beste bat astea ere. Beste bat asi ezkeru, landarea igual beste lekuren batetik artuko zuan; da gu asi ezkeru, berriz, landarea ere gurea sartutzen genduan.

Gero lana ere gutxitu zan piska bat, eta neroni ere ez nenbillen oso gogor, eta utzi egin genion danari. Piñuak baño lenago izango zala neure burua, eta erretera egin nuan.

Biotzetik eri nenbillen, eta lan gogorrik ez egiteko esaten zidan beti medikuak ere. Neroni ere amorratua ez izan ni, eta ondo egiten nituan medikuaren esanak, gai orretan beintzat.

Dana dala, olaxe bukatu nituan nere piñu-landare-lanak, eta egin genduan pakea.

Omenaldia ere egin ziguten Oiartzunen Mitxelenari eta biori. Emen ere mezarekin asi giñan; meza nagusia lenbizi, eta gero bertsolariak: mugaz arunzkoak Mattin, Errexill eta Xanpun, eta emendik ez daukat gogoan zein ziran ere. Beintzat, plazan egin zuten saio bat, eta bazkaltzera joan giñan.

Orretarako, goizean txistulariak jo zidaten diana neri, eta Mitxelenari ere ala joa izango zioten. Ori etxeko atarian zan. Ez da gure etxea oso aldean ere erritik, baña etzituan bildurtu bideak txistulariak.

Esan bezela, bazkaltzera joan giñan gero. Bazkaltzen ere jende asko gelditu zan. Aiuntamentuko arkupean zan bazkaria. Dana betea zan. Estankotik serbitu ziguten bazkaria; oso ederki serbitu ere ainbeste jende izateko, eta aguro gañera.

Bein batean, Trajinosa edo gizon pamatu bat bai omen zan emen, da Errenterin taberna batean botellaren bat ardo ordaintzekotan utzi-edo egin izango zuan. Adarra-jotzalleak beti izaten dira, ta an gauza aren berri zekienek batek, piska bat toriatzeagatik-edo, ala esan omen zion Errenteriko Kasparrenean:

–Bai; an ziok botilla ardoa pagatzeko. Apuntatuta zeukak, bai!

–Apuntatuta al dauka? Disparatzeko esaiok orduan, nik etzioat pagatuko ta!

Beste bein, Errenterin-edo bai omen ziran bi anaia oso aberatsak, baña ajola gabe samarrak eta gastu aundikoak. Ari omen ziran beren gauzak bajatzen; eta baten, ala zebiltzala, gau-pasa bat egin omen zuten orduan ere, ta etxera bai omen zijoazen.

Etxe aundi baten parean gelditu omen ziran, eta anai batek esan omen zion besteari:

–Aizak: bai al dakik etxe au zeñena zan lenago?

–Bai! Jakingo ez diat, ba? Gurea!

–Ikusten al dek? Au ere jan diagu guk!

–Utsa uken jan bagendu! Edan egin diagu, edan!

Emen Pedro Errero omen zan oso gizon zelebrea. Berari edozer gauza egin da ere ez omen zan aserretuko, baña berarekin ere kontu.

Emen txerri iltzen ibiltzen omen zan ura, ta egun batean, txerria ilda, txerri-erregaloakin sartu omen zan Castroeneko-edo esaten zioten ostatu batean; eta, jakiña, sukaldean bere pardela utzita, jarri omen zan bere lagunakin ardangelan.

Usaia aditu egiten beste lagunak ere, odolki-usaia alegia, eta an jan bear zituztela esan omen zioten, odolki aiek.

Ezetz Pedro Errerok: odolki aieri pakean uzteko mesedez; urte artako lenbizikoak aietek zituala, eta aiek pamelian jan bear zituztela, ta ekarriko zituala berriz ere. Baña aiek ezetz. Odolkiak bear bazituzten, etzerala aien paltan geldituko, baña aieri pakean uzteko.

Pedro gero ere an egon omen zan oso entretenitua; eta, ostatuan erretira egin zutenean, artu lengo pardela eta joan omen da etxera. Berandu samar izango zan, da andrea ere ixilik eta bazter aldeira begira jarri omen zan oian. Da Pedrok bere baitan:

–Asarre al ago? Nik sukaldean utzi detan pardela erakusten diñatenean, adiskidetuko aiz!

Ala, lo egin omen dute eta jaiki omen dira. Andrea ere bai, eta an omen zegoan

bezperan utzitako pardela. Andreak kuriosoak izaten dira orrelakoetan, da idiki omen du bere pardel ori, eta an omen zeuden egundalakorik zaldi-zimaur da orrelakoak, aza-orrietan bilduta.

Andrearekin orduantxe ez omen zan atsegin! Ari aundiagoak ere egingo zizkatela oraindik, eta aundiak entzun omen zituan Pedrok. Bere baitan:

–Neri au egin didazute, baña batenbatek pagatuko zidak ederki!

Artan gelditu omen zan: odolkiak palta, ta andreagandik ederrak aditu ta kito.

Jai batzuetan bai omen zebillen zai samar, ia noiz arrapatuko zuan txaskua egiteko modua.

Egun baten pentsatu omen zuten: Aldako esaten zioten basarri baten oso sagardo ederra omen zegoan, eta bi kazuelkada enkargatu omen zituzten Oiartzungo Estankoan, bat bakallauarekin eta bestean aragia menestran edo ez dakit zer.

Arratsaldean bostetarako pronto edukitzeko. Baietz, pronto egongo zirala. Joan omen ziran etxera arratsalderako martxa jarrita, eta Pedro Errero ere bai oiek danak adituta; eta, bostetan etorri bearrean, lauretan etorri omen zan Pedro Errero ori:

–Kaixo, etxeko andre! Pronto al dira oiek?

Eta:

–Zer oiek gero?

–Zera: kazuelkada oiek.

–Ba, bostetarako esan didate neri, baña oraindik laurak dira!

–Bai, baña jendea juntatu da an; da, pronto baldin badaude, eramateko esan didate neri!

–Bai; oraintxe egin dira ta berealaxe jarriko dizkizut!

Kazuela oiek papelarekin ederki bilduta-ta jarri omen zizkaten, da an dioja gure Pedro Errero ori txitxi baño kontentua.

Ugaldetxoan, Txipiton-edo, bai omen zegoan sagardoa saltzen, eta an sartu omen da:

–Arratsalde on Jaungoikoak dizuela!

–Bai zuri ere! –esan omen zioten an zeudenak.

–Emen, mutillak, jana naikoa!

Jarri omen zan an zegoan mai baten, eta:

–Etorri onera, nai duana, jatera!

Laster bildu omen zan jendea naikoa, ta ustu omen zituzten ango kazuelak sekulakorik azkarren.

Beste odolki-zaleak joan omen ziran gero bostetan kazuelen billa, eta:

–Pronto al dira edo zer da?

–Zer gero?

–Zera: kazuelak.

–Pedro Errerok eraman ditu –esan omen zion etxeko andreak.

–Jarri zazu beste zerbait! Orrek eraman baditu, ez da aiekin probetxurik, eta on egin daiola!

Berriz etxean zegoanetik jarri zerbait eta preparatu omen zan gizona Aldakora joateko. Aiek ziran gizonak, alkarri orrelakoak egin eta ez aserretzeko! Orain ez dago alako gizonik. Oraingo gizonak utsarekin minberatzen gera.

Frontoira ere izan omen zuten joaten ziran bolara, Pedro ta bere lagunak. Piska baten ibilli omen ziran artan ere, eta irabazian omen zegoan frontoitik eta utzitzea pentsatu omen zuan.

Terreno txiki bat erosi omen zuan, soro koskor bat, eta *Moderno* jarri omen zion izena. *Moderno* frontoian izaten omen ziran, da an irabazitako diruakin erosi omen zuan soroa.

Beste baten, *terreroan* sariketa bat omen zegoan Ernanin. Joan omen dira Oiartzundik talde bat: Ezkertarrak, eta gure aitagarreba, eta Pedro ori ere bai. Geiago ere bai omen ziran; talde aundia beintzat.

Izenak eman omen dituzte, eta asi omen ziran tiratzen. Danak segiran izango ziran, izenak ala emango zituzten da. Pedro orrek atzena tira bear zuala, eta besteak tira omen zuten, da ura atzeneko.

Tira omen du eta erdirago ez omen zegoan jotzerik; bete-betea erdiko beltzean jo omen zuan.

Palta ziranak tira arte egon omen ziran, eta bestek ez omen zuan arek bezin erdian jo.

An dagoan txapa biribil ura txapel-dunarentzat izaten da, ta or eman diote Pedro Errerori. Gozoa jarri omen zan. Artu omen du bizkarrean eta Oiartzuna.

Emen bazan beste gizon bat, zerbait aitatzea merezi zuana: don Antonio Valverde.

Oiartzunen bertakoa etzan, baña Errenterikoa edo orrela izan bear zuan. Emen, Oiartzunen, etxea zeukan arek. Asko maite zuan gañera Oiartzun. Oiartzunengatik itzegiten asten bazan, etzan bereala aspertuko ura.

Gizon aundia zan, baña txikiakin ere bazekian tratatzen. Arentzat etzan gizon txikirik; danak berdiñak ziran arentzat gizonak.

Txarrik iñor etzuana zan ura. Edozeñengatik itzegiten asten zala ere, etzion

arek tatxa aundirik billatuko. Gizon gu-txi ikusi ditut nik alakoak.

Piska bat ezagutzeko zoria izan genduan guk. Bertsozale amorratua zan ura. Bertsolarien juraduko ere izan zan urte batzuetan, eta guk aldi askotan itzegin genduan arekin. Arentzat gizon danak onak ziran.

Izan ere, alde aundia dago bat nola itzegiten asten dan. Gizonik geienak ditugu alderdi onak eta txarrak; eta, bat asten bada alderdi onak gorde eta txarrak azaldu egiten, gizona oso beian utziko du. Valverdek etzuan bereala egingo orrelakorik.

Itz batean esateko, gizon ona zan ura; gizon osoa; gizon bete-betekoak.

Artista zan gañera. Neri ere egin zidan erretratu bat. Bere etxera joaten nintzaion. Iru edo lau arratsaldetan antxe izan nintzan, eta konfiantza osoan joan ere egiten nintzan.

Mesede baten bearrean arkitzen ba-ziñan ere, etzizun bereala ukatuko.

Orrelakoxe gizonak joaten dira mundu onetatik aurrena; eta ori ere, gu ez giñan gaixo zegoanik ere konturatu, eta urrengo nun aditzen degun il zala. Emendik gorde zan eta zeruan gerta de-dilla!

Berriz ere omenaldia egin didate orain, gaixotu naizenean, oiartzuarrak; bi egunetako omenaldia.

Lenbiziko pesta gabeen egin zuten, kantanteakin-eta. Jende asko izan omen zan. Ibargainen egin omen zuten pesta. Ibargain au etxe uts bat da; aurrean patio bat dauka ederra, eta entzuleak antxe antolatzen dira. Sekulan ez bezela omen zan jendea. Au larunbat-gabeen zan, pesta au.

Gero, igande-eguardian, berriz, bertsolariakin, Ibargainen berriz ere. Igan-

dean ere jende asko izan bear zuan. Ni neroni ez nintzan atrebitu joaten, baña an izan ziranak ala esan zuten.

Gero, eguardian, bazkaria, *Atamitx* ostatuan. Ni ere joan nintzan bazkaltze-ra. Jendea bazan bazkaltzen ere.

Soñu-jotzalleak egin zuten lenbiziko saioa: Sakabi eta Agiñazpi, Laka ta Iturbide ziran soñu-jotzalleak; bi pilarmonika ta bi panderista.

Auek goizean ere barrio guzietan soñua joaz ibilli ziran; Lexoti bertsoan eta beste lau oiek soñu jotzen.

Eguardian, oien ondoren, bertsolariak egin zuten saioa, eta ez dakit zenbat ziran ere: Xalbador, Mattin; Lizaso ta Agirre Azpeitikoak; Lasarte, Lazkao-Txiki, Azpillaga, Mitxelena, Arozamena, Lexoti, Kosme Lizaso eta Klemente Ezkurdia. Ez dakit besterik zan edo ez; ni danakin gogoratzea ez da erraza. Oso lagun-arte ederra egin genduan.

Gero, bazkaldu ta bereala, asi zan jendea etxe aldera begiratzen. Soñu-jotzalleak lenbizi agurtu giñuzen. Aiek Azpeititik etorri ziran; da, atzera ara joateko, garaiz mogituta obe. Gu ere garaiz etxeratu giñan.

Gero, kontuak egitera deitu zidaten. Joan nintzan Atamitxera eta an apaldu genduan.

Amar bat lagun izango giñan; eta danak bakoitzak berea ordaindu bear zutela esan zuten, eta nik ezetz; an gazte batzuek bazeudela len ere nigatik naikoa egiñak, eta nik ordainduko nituala. Ez bati ta ez besteari, etzigun kobratu; danak Mitxelenak bere kontura artu zituan ango kontuak.

Eskerrik asko Mitxelenari, *Intxixu* taldeari, Lexotiri, Langilleen Aurrezki-Kutxari, aiuntamentuari eta erri gu-

ziari! Zorretan gelditu naiz. Eskerrik asko danai!

Kontuak kontu, ogei ta sei milla duro pasiak bildu ziran; eta, atzeneko aparria egin genduanean, antxe entregatu zidaten txeke bat, nai nuanean dirua kobratu.

Diru ori bertsolariai esker bildu zan, eta soñu-jotzalleai eta kantanteai. Eskerrek, ba, bein da berriro nere alde soñua jo ta kantatu egin zuten danai.

Bat gaixorikan jartzen danian etortzen zaion arriya!  
Jaungoikoari eskerrak eman,  
nerekin zegon erriya,  
zer bear nuan begiratuta  
laguntzeko zai jarriya;  
nere barrenan sentitu nuan  
poz bat ikaragarriya.

Gogo onakin asitakuan  
errez egiten da lana,

borondatia da erri ontan  
nik ikusitzen dedana.  
Pesta egiten zuten garaian  
ango jendien emana!  
Esan liteke *Ibargain* orrek  
berak daukala imana.

Mundu onetan, uste ez dala,  
gaitzak etortzen dirade;  
gu ere, ala bearko zan-da,  
pranko okertuak gerade.  
O, Oiartzungo erri maitea,  
oso jatorra zerade!  
On egiten bai zuk dakizula  
zeñi begiratu gabe!

Oiartzungo erri maitagarria,  
etzera txarra izandu;  
oraingo onetan beste askok ere  
nik bezelaxe esan du.  
Oker aundia izan nuen da  
ezin liteke zuzendu;  
zuk sendatuko ninduzuke ni,  
zure eskuan bazendu!

# Eiza

“**B**ETI lanean!” esango dute batenbatzuek. Gu langille amorratuak ez gerala badaki mundu guztiak, eta ezin jardungo gera beti lan-kontuak esaten. Orain asi gaitezen, ba, eiz-kontuak esaten.

Eizean ere ibilli izan giñan iñoiz. Lenbiziko aldian Bitoriara joan giñan galeperretara, eta bazeuden dezente galeper-rrak, eta ederki ibilli giñan.

Bi eguneko joan giñan, eta an ni lenago morroi egondako tokian jan da lo egiten genduan; eta nere lengo nagusiak laguntzen zigun eizean ere.

Galeperra dezente il genduan, eta txakurra galdu zitzaidan neri eta triste etorri nintzan etxera. Iru lagun giñan joan giñanak, eta beste biak beren zakurrakin etorri ziran; eta ni, gabe; eta azalduko zanik ere jakin ez.

Joan ziran egun batzuek eta ezeren arrastorik ez, eta “Akabo nere txakurra!” nere artean. Eta alako batean or artzen det karta azaldu zala nere txakurra, eta ez nintzan asarre orduantxe. Andik urrengo igandean ez nuan iñork agindu bearrik. An joan nintzan nere txakur ori ekartzera.

Artu goizean trena Arruan da joan nintzan, Bitoria baño lenagoko estazio-

an, Duranan-edo, jetxi nintzan. Andik Zurbanora joan nintzan, eta an lengo nagusiaren etxera.

Antxe billatu nuan nere txakur ori. Nik ezagutu nuan txakurra, eta txakur-rrak ere bai ni. An bazkaldu nuan, len egon nintzan etxean, eta artu txakurra ta etxera. Illunerako etxera etorri nintzan.

Beste batean, Santo Domingo de la Calzada edo orrera joan giñan. An ere galeperra dezente zegoan, eta bero egiten zuan gañera. Goizeko preskuran puska baten ondo ibilli giñan, baña gero ziran an komeriak.

Egarritu ere egin giñan, eta naikoa lanak baziran an. Iturria bikaña billatu genduan: Grañón-edo erri koskor bat bazegoan an, da ara ia iritxian. A zer asekada artu genduan!

Nere lagun bat eta biok giñan, da Txortxiko Santi edo olaxe zan bestea. Txortxi ori gure auzoan dago, Uztapideko auzoan. Beti alkarrekin izaten giñan, eizera joaten giñanean. Oso lagunak giñan.

Goiz artan pekatu txiki batzuek ere egin giñuzen. Galeperra bakarrik egoten da libratua artean, da an jaikitzen ziran eper-taldeai zeñek utzitzen zioten tira

gabe? Bat edo beste erori ere egin ziran, eta koneju bat ere bai. Erremolatxa tar-tean atera ta antxe bota nuan. Dagoan tokian zerbait egiten da; ez dagoan to-kian, ezer ere ez.

Beste batean, berriz, Gallur-era joan giñan. Ori Aragoiko partean dago; muga pasatu eta lenbiziko erria, Naparroa dana pasatuta alegia.

Ara, eiza libratu ta andik zortzi egu-nera joan giñan, baña an zegoan galepe-rra ugari! Sekula ez det ikusi ango ta-mañan iñon. Antxe bai gozatu giñala eizean!

Larunbatean goizean aterata, joan gi-ñan ara lasai iganderako. Bost mutil joan giñan ara; lau, gu Zestuatik; eta Zuma-rragako bat. Ura len ere ibillita zegoan an eizean, da ango berri bazekian arek. Illuntzerako iritxi giñan aruntz.

An erriko alkatearekin itzezin gen-duan, eta galeper asko zegoala esan zi-gun. Alkateak bi mutil billatu zizkigun guri laguntzeko edo eiza nun zegoan erakusteko. Bi anaia ziran aiek. Orduan apaldu, zerbeza piska bat edaten egon giñan eta garaiz oera joan giñan.

Goizean ez da iñork deitu bearrik iza-ten eizera joateko. Danak erne geunden. Jeiki eta kapea artu genduan, eta bezpe-ran laguntzeko agindutako bi mutil aiek ere an ziran garaiz.

Atera giñan, ba; ta, len esan dedana, bazegoan an zeñi tiria ta zerekin goza-tua! Antxe baño gustorago ez gera be-ñere ibilli eizean, eta bai galeperra il ere egin genduan: bost lagunek kotxea kar-gatu genduan.

Dana ordeka zan Gallur ori, eta aiek alpalpa-soroak zeuden! Da artoa ere bai sail ederrak. Dana bere lorearekin zego-an artean. Ia Agoztuaren azkena zan or-

durako, eta an bazegoan ganadu-jatekoa, baña ganadurik ez genduan ikusi. Al-palpa ura ondu egingo zuten, eta arto-lastoa ere bai.

Dana dala, bazegoan beintzat an ga-nadu-jateko ederrik. Nik emen bestetan etzegoala iñon ganadu-jatekorik uste nuan, da ederki engañatuta geunden.

Eguna pasa genduan an, da erretira-tu giñan errira. Biaramonean beste leku batera joatea pentsatu genduan; eta an lo egin genduan eta Cortes esaten zioten beste erri batera joan giñan.

Bezperan guri laguntzen ibilli ziran mutil aiek, arratoi-txakur bat bazuten be-rekin, *Clavel* izenekoa, eta galeperretan biziatuta zegoan gogotik.

Gu bigarren egunean Gallurko pla-zan abitu giñanean, sartu egin nai zuan kotxera eta ez genion utzi sartzten.

Ogei ta bi kilometro omen daude Ga-llur-etik Cortes-era; eta, gu iritxi giña-neko, an zegoan Cortes-ko plazan. Mi-lagroa egin zuan orrek, txakur orrek! Nik orain dauzkadan ankakin ez dago egite-rik olako milagrorik.

Kotxeari jarraitu zion arek bere aña-an. Galeperrari ere jarraitzen zion arek; bera añean joaten zan korrika. Baña bi-llatzen etzan txarra.

Gurekin joan zan txoperrak eskopeta bazuan, baña txakurrik ez, eta arek era-man zuan arratoi-txakur ura, baña laste iges egin zion; guregana etortzen zan ura berealaxe.

Galeperra bazegoan, berriz, an Cor-tes-en ere disparteata! An bi ere bota ni-tuan tiro batean. Batere bota gabeak ere izango nituan tiroak, baña orduan bi. Erreten moduko batean biak alkarren on-doan egon, eta txakurra gelditu zan, da or atera zaizkit biak batean. *Pun!*, tira-tzen diotet, eta biak bera.



Guk, eiztariak, gezurti-pama aundia daukagu, eta ori ere ez dezute sinistuko bearbada.

An bazegoan galeperra nazkatzeko moduan! Arratoi-txakurrak isatsa moz-tuta zeukan; ari eragiten asten zanean, laste izango zan egan galeperren bat, eta bera azpitik azkarrago joango zan, txakurra.

Guk geok ere txakur onak giñuzen orduan. Urte artan galeper asko zan emen ere; eta, gu giñan leku artan, etzan goardien bildurrik egoten eta ibilli egin giñan; txakurrentzat ez da ibiltzea beze-lakorik izaten, eta eiza iltzea. Urte artan txakurrak leziatuta eramán giñuzen, eta lana ondo egin ziguten.

Bi egun oiek pasa giñuzen eta pozik etorri giñan etxera, automobilla galeperrez kargatuta.

Cortes ori Naparroako partean dago; eta Gallur, berriz, Zaragozako partean. Biak ogei ta bi kilometroren gora-beran daude, eta biak galeper-toki ederrak.

Aguiar esaten zaion erri batera joan giñan beste batean eperretara. Ori Naparroan dago.

Gu gizon-talde aundia joan giñan autobus batean, eta gu bakarrik ere ez giñan; baziran beste batzuek ere. Eperra dezente zegoan, baña jendea geiago. An dozen erdi bat besterik izan ez bagiña, eperra dezente zan.

Txakur ona neukan da nik iru eper bota nituan. Bi sei botatakoak ere baziran; baña batere bota etzutenak ere bai.

Eguna argitu zuaneko, kantari asi ziran eperrek. Ura zan ilusioa! Etzuan guk nai baño len eguna argitu. Ogei ta amar lagun izango giñan gutxienez, eta bakoitzak bina botata ere irurogei dira. Gu, kotxe baten joan giñanak oiek; beste ainbeste baño geiago bazan an.

Aras edo olakoxe erri batera juntatu giñan etxera etortzeko, eta erromeri aundi bat ematen zuan ango billerak; plaza jende bete. Eta sartu kotxean eta etxe aldera jo genduan.

Uso-tara ere joaten giñan. Batean joan giñan Bernedo-ra. Ori ez dakit, ba, Naparroan edo Araban dagoan; Bitoriatik urrerago, beintzat, Panplonatik baño.

An iru edo lau egun egin giñuzen, eta usoa ederki pasatzen zan an ere. Taberna baten jaten genduan, eta goizean etzan iñork deitu bearrik izaten; jaiki eta mendira joaten giñan.

Uso-puestoen ondoan bertan eper bat il nuan nik lenbiziko egunean; eta eper-rak bazeudela, ba, eta goiz baten etzan uso-pulamentu aundirik ere, eta eperren kantu-otsa aditzen zan.

Joan egin bear genduala esan genion alkarri, eta bai joan ere iru lagun.

Asi gera eperrai segika, eta uste baño bide geiagoan joan giñan. Alako batean begiratzen det goiko puertora, eta urrutu zegoan.

Zatoa banuan nerekin, baña pixa baño epelago zan nere zatoko ardoa. Egarria kendu baño, eman geiago egiten zuan ardo arek. Mats piska bat jan nuan, alde danetara ondo begiratuta artuta. Artxek piska bat kendu zidan egarria.

An Riojakoa da erri bat, Yécora-edo, ta orren parean bera pasata ibilli giñan Nere mats-piska ori jan da segi gora. Nik eperren kargarik ere ez nuan: nekea probetxu.

Alako batean iritxi naiz: bi erri zeuden oso alkarren urrean. Mutil koskor bat billatu nuan antxe, eta galdetu nion ia erri aiek biak izenak nola zituzten; eta batek Las Aldeas ta besteak La Población.

Bazkaltzeko gogo ederra neukan, eta La Población ortan bazkari ohea egongo zala Las Aldeas-en baño, ta araxe joan nintzan.

An emakume bati galdetu nion tabernarik bai al zegoan, eta baietz. Erakutsi zidan nun zegoan, eta sartu naiz taberna orretan.

“Egun on!”, da “Bai zuri ere!”, eta ez nion tankera onik eman taberna orri: etxearen sarreran mai txiki bat zegoan, eta aren gañean garbiketakoa; ta silla bat etzan agiri.

Ardo preskoa eskatu nion lenbizi, eta uraxe ekarri zidan. Ia jateko zerbaiz bai al zeukan, da ezetz esan zidan; bezperan Logroñotik jende asko sartu zitzaioela, eta aiek danak jan zizkiotela.

Matsa ekarri zidan arek ere, eta ogia, azalak jira guzian janda, bola bezelakoxe biribil bat.

Ez nuan bazkari txarra egin! Las Aldeas edo ara joan banintz ere, okerrenera jota alakoxe bazkaria izango zan. Ardo preskoa ta matsa jan nituan beintzat. Nik egin nuan eizak eta orduko bazkariak etzuten alde aundirik.

Gero andik atera nintzan, eta aitona zar bat ardoa egiten ari zan. Ia ardo gozua nai al nuan, eta baietz esan nion; borondatea estimatuko niola. Potokada bat edan nion ari ere; eta, egarriak joan banintzan ere, kendu nituan ederki.

Orduan joan nintzan goiko puertora, ta nerekin goizean joan ziran bi lagunak an etorri ziran, ni joan da andik piska batera, goiko puertora, eper batekin. Eperrak bazeuden an, baña askotan eiztarien aurrean ibilliak.

Egun artan, arratsaldean, asi ziran usoak pasatzen, da banaka batzuek il giñuzen.

Illunabarrean, gu joan giñanean, gure beste bi lagunak an zeuden gure zai, beren puestoetan. Bost lagun giñan, ba.

Ala, egun batzuek pasa giñuzenean, etxera etorri giñan.

Valvanera-ra ere joaten giñan usotarra. Ori Logroñoko partean egongo dala uste det. Ori ere eiz-toki ona da. Ara lenbiziko joan giñanean ere, sei lagun joan giñan emendik; obeto esateko, sei eiztari, ta txoferra, zazpi.

An usoa asko pasatzen zan. Egun ona tokatzen zanean, erruz pasatzen zan an usoa.

Gu, lenbiziko urtean, bertan gelditzen giñan gaberako; bertan jan da bertan lo egiten genduan. Zortzi egun alaxe egin giñuzen, eta uso-pilla aundia ekarri ere egin genduan.

Giroak ere onak tokatu zitzaizkigun. Ia bi milla metroko mendia zan ura, ta giro ona baño, txarra seguruago izaten da alako mendian urte-garai ortan.

Egunak izaten ziran an: asi goizean eta arratsaldeko laurak aldera arte, ete-nik gabe pasatzen zan an usoa.

Guk geok ere izan genduan eguna eun da bat usoa ildakoa. Ez da gaizki sei lagunentzat. Danak alkarren segiran giñuzen puestoak. Ura zan geieneko eguna, baña zortzi egun pasa giñuzenerako uso-pilla ikaragarria osatu genduan.

Astearte-goiz baten iritxi giñan Azpeitira bueltan; bi panadero bagiñuzen, ba, angoak, Azpeitikoak, lagunak. An ustu genduan kotxea usoak partitzeko; etxeko sarrera batean zan ori, eta uso-meta aundia zan. An bazan zeñek begiratu. Guk ere erronka piska bat bai. Zertarako ezetz esatea?

Beste lau eiztariak Zestuakoak giñan; Zestuara etorri giñan, an bazkaldu gen-

duan lasai, eta illunerako etxera joan giñan.

Onera Oiartzunera etorri ta gero ere, joan giñan berriz. Orduan iru lagun joan giñan. Bi egun pasa giñuzen, eta usoa poliki il genduan orduan ere.

Iru lagun oiek ezagunak giñan: bat, Arangurengo Juan Mari; bestea, Olaizola kontratista prantzes zarraren semea Julen; da ni bestea.

Orduan bera, komentura, jexten giñan lo egitera; baña neke aundia da andikan. Beneditinoen komentua dago beian.

An lo bai, oi ederretan egiten zan; da zerbeza preskoa edanda ederki egarria kendu ere bai; ta goizean kape-esne ederra artu ta oiek danak egiten ziran an; baña gero bi ordu ta geiagoko bidean joan egin bear eizean egiteko tokira.

Bi egunengatik ez dago txabola egiterik, eta al dan bezela ibili bear. Ala, bi egun oiek pasa giñuzen, eta uso-mordoska politarekin etorri giñan andik.

Berriz andik urrengo urtean ere joan giñan, eta orduantxe ez genduan ezer ere egin. Bost lagun joan giñan, da bost egun pasa giñuzen, eta ogei usotara ez giñan iritxi. Egualdi txarrak egin zituan, da ezer ere ez genduan egin.

An usoa, pasatzeko girorik ez bada, beian basoan egoten da. Pagotegi aundiak daude, ba, an aurrean; da an batzuetan, usoa mugitzen danean, eltzea irakiten dagoala ematen du. Pago-gain guztiak tapatuta, bat mugitzen bada, danak mugituko dira.

Gure lagunak ikusi zutenean etzala usorik pasatzen an, aurreko pagotegi aundi aietara joan ziran, eta antxe il zituzten uso bakarrak. Nik ez nuan alerik ere il.

Geiago ez naiz ara joan; baña oiartzuarrak joan dira geroztik ere aruntz, eta baita uso-aldi ederrak ekarri ere.

Bost egun pasa eta batere usorik gabe etorri nintzan, da besteak ere gustorik egin gabe. Egualdiak laguntzen ez badu, ez dago an zer egiñik.

Kanpoan bakarrik ez da eizean egiten: Gipuzkoan ere egiten da. Ez dago orain eiz asko. Baña pasako eizak-eta izaten dira emen ere. Ollagor da orrelakok ugari izan oi dira.

Uztapiden izaten nintzanean, beti ollagorretan ibilli izan nintzan. Txakurrak ere ortarakoak idukitzen giñuzen, eta txakur onak gañera. Ollagorra, asko il ere egiten genduan guk orduan, eta ez da iltzea bezelakorik, txakur ona idukitzeko. Txakurrak ibilli egin bear du bildurrik gabe.

Guk, eiza bazan beintzat, batek goizean eta besteak arratsaldean, anaia batek utzitzeko zai egoten giñan, beste anaiak txakurra artzeko. Anaia danak genduan apizioa aundia.

Ollagorra eiz polita da. Uda azkenean pasan dijoan ollagor ori, mendien puntan egoten da jeneralean. Egualdi ederrarekin batere minberatu gabe egoten da; ez da jaikitzen ere. Txakurrak lana ondo egingo dizu olako ollagorrarekin. Ez du jaiki nai izaten lurretik, eta askotan lurrera ikusiko diozu gañera. Eizean gustora ibilli izan gera iñoiz alako giroarekin.

Eizean orain ez da gure denboran bezela. Zorioneko piñu onekin bazter danak bete dira orain, eta ez dago, lagun bakarrak beintzat, ezer egiterik. Askotan ego-otsa aditzea naikoa dezu.

Gu eizean ibiltzen giñanean, etzan orrelakorik. Pagotegi ederrak izaten zi-

ran orduan, eta txillardiak gizonaren gerriñoakoak; ondoan, zotal ederra.

An, txakurra gelditu ezkerro, ollagorra seguru izaten zan. Asiko giñan isikitze-  
korik bai ote genduan-edo gerrian begi-  
ra, eta askotan bota ere bai. Ollagorreta-  
ko istoria ez litzake bereala bukatuko;  
baña ez dizutet belarriko miñik egin nai.

Berrogei urtetik gora nituan Oiartzu-  
nera etorri nintzaneko, eta mendian ibil-  
tzeko garairik onena joaten ari zan; eta  
besteren etxera etorri bear, da ezin, ba,  
etorri txakurra katetik nuala; eta an gel-  
ditu ziran gure ollagor-txakurrak.

Onera etorri ta piska baten ez gen-  
duan izan eizari begiratzeko astirik,  
jaian-edo ez bazan. Baña ez nintzan az-  
tutzen beñere eizarekin.

Aitagiarreba ta kuñadua amorratuak  
izan, berriz, eizean; baña erbitan ibiltzen  
ziran aiek, eta aiekin asi nintzan, berriz,  
erbitan. Egiñalak egin nituan, erbitan  
ikasiko nualako; baña berrogei urtetik  
gora ikasten diran opizioak, geienak  
gaizki, eta ez nuan ikasi erbitan.

Erbia iltzen askok jakiten dute; baña  
txakurrarekin mogitzen, gutxik. Nik ere  
ortantxe nuan pallo aundia. Erbiak ni-  
gatik lo egiten zuten askotan.

Ollagorretan ikasi nuan, gaztetan  
asita, askori lezioak emateko moduan.  
Zakurrak ere onak izaten giñuzen, eta  
txakur onak berak ematen du poza ei-  
zerako. Zuk nai ez badezu ere, arek era-  
mango zaitu eizera.

Txakur politik eduki nituan emen  
ere, erbi-txakurrak. Ondo lagundu ba-  
niote, egingo zuten aiek eizean; baña er-  
bia zegoan lekura urreratzen nintzan,  
baña ez nintzan iristen.

Orain, berriz, utzi diot joateari ere.  
Oraindik ere lizentzia artzen det, baña al-

perrik. Goizetan otzetara ateratzeko ez  
naiz gauza; eta eizera goiz atera bear da,  
ezer egitera ezkerroz, eta utzi diot.

Bertso banaka batzuek emen jarri di-  
tut eiztarientzako, ez dira oso onak baña.  
Garai bateko memoria galdu zait neri  
ere, eta al ditudan bezela jarriak or di-  
tuzute:

Deitu gabe esnatzen  
gerade goizian,  
gure aurrekuak e  
orrela oi zian;  
zakurrak artu eta  
mendian pasian,  
ez degu luzituko  
denbora luzian.

Zakurrak or dabilta  
bulla eta zaunka,  
eizera juateko  
arin dute anka;  
eiztariak badauka  
orrenbeste tranpa:  
arrapatzen ez bada  
zakurraren palta.

Eiztariakin beti  
olako naspillak,  
mendira ateratzen  
dira gizon-pillak;  
beren ustetan oso  
mutiko abillak,  
langak irikitzeo  
ederrak mutillak!

Eskopetak artuta  
mendira atera,  
goiko mendi-gañari  
buelta ematera;  
bueltan etorriko  
dirade atzera,  
etxian utzitako  
pizarrak jatera.

Eguna argitzeko  
eizian asiyak:  
"Ankak sano ditugu  
Jaunari graziyak!".  
Erbiak erituta  
ango karrasiyak:  
"Ez ditugu bizirik  
utziko guziyak!".

Emengo tiro-otsak  
ematen du gerra,  
gauza ori-re dago  
garbi esan bêrra:  
lenguan egin nuen  
eskapada ederra,  
ez nuan ezer izan  
Jaunari eskerra.

Entzun bear zan ango  
tiruen burrunda,  
olakorik sekula  
ez nuen barrunda;  
beldurra ematen du  
askotan entzunda,  
ez dago bromarikan  
gaur mendira junda.

Gizona nekatzian  
bai anak makaldu,  
pasa ezin danian  
esiak zapaldu;  
zakurrakin izutu  
ta ardiak bialdu,  
bestelako lanikan  
eiztariak al du?

Ezagutzen ditugu  
aien pikardiyak,  
zakurrak e gaiztuak  
dirade erdiyak;  
ito're badakite  
egiten ardiyak,  
baña beren buruak  
dituzte garbiyak.

San Migel ondorian  
badatoz usuak,  
eiztariak zai daude  
ta ez oso gozuak:  
"Ez ditugu alperrik  
emango pausuak!  
Aurten ilko ditugu  
bandada osuak!"

Usuak etorritzen  
dirade aidian,  
ez dute deskantsurik  
izaten bidian;  
nola etenik gabe  
etorri oi dian,  
ez dute gelditu nai  
gizonen mendian.

Eiztarietan ere  
badira pizkorrak,  
iñoiz egin dituzte  
aberi gogorrak:  
"Ematen genizten, bai,  
oieri zigorrak,  
etortzen ziranian  
onuntz ollagorrak!"

Oiek ekartzen ditu  
onera neguak,  
ez dirade makalak  
orien eguak;  
korritutzen dituzte  
aguro leguak,  
guk uste degun baño  
ere azkarraguak.

Laguna eta biak  
eizera atera,  
zer suerte izan degun  
nua esatera:  
erbia il degula  
egunaz batera,  
ta illunabarrian  
baguaz jatera,

Eiztaria segika  
ta eiza igeska,  
oriekin biekin  
gauza onik ezta;  
gauzak jarri baño len  
ziaro trabeska,  
ementxe bukatzen da  
eiztarien pesta.

# Laguntzarrene

**E**ZKONTZA bearreko gauza bat dala esan oi da, eta guretzat ere ala gertatu zan. Emakumerik ez gendukan etxean, eta besteren etxean janaz eta orrela genbiltzan; ala ere aspertu giñan, ba. Apopilo izen ori ez da ain ona ere, bein bere edade edo adiña batera ezkeru.

Amasei illabete egin giñuzen orain andre detan onen etxean janez. Konfiantza bagenduan etxean bezela, baña sukaldeko armarioa besterena. Makiña bat lekutan egon naiz ni besteren etxean, da batek baño geiagok esan ere bai:

–Or dago armarioa, eta or dagoanik artzeko bildurak ez egon!

Baña neretzat itzal aundi bat du besteren etxeko armarioak. Ez dakit arrazoi daukadan edo ez. Au, besteren etxean ibilli ez danak, ez daki nola izaten dan.

Ala, etxean ere bazeuden neskatxak, guk jaten genduan etxe orretan, baña gazteak guretzako.

Ala, beintzat, konpiantza gero ta geiago izaten da etxeko kristauakin, da aieri ere esaten genien beti orrela: besteren etxean aspertu giñala eta beste zerbait pentsatu bearko genduala. Ta erantzuna:

–Esposatu eta orduan zeuen etxean ederki biziko zerate!

–Bai ote dago emen guretzako moduko neskazar bat edo?

–Jesus, ori esatea! Bai gazteak ere zurekin pozik ezkonduko lirakenak, emen ni aurrena naizela!

Asnasa betik gora atera zitzaidan, da:

–Ori egia ote da? –esan nuan neretzako–. Pausorik txarrena eman diat, ba, ori orrela ateratzen bada!

Eta ala atera zan. Zortzi illabete ziran etorri giñala, orduan tratatzen asi, ta beste zortzira esposatu giñan; onera etorri ta andik amasei illabetera.

Arruara joan da bataioko agiria ekarri nuan andik, eta beste karta bat eman zidan Arruako bikarioak eskuetara. Oiarztungoari entregatzeko esanda. Eman nion Oiarztungo bikarioari ura, karta ura, eta bataioko agiria, eta:

–Auetxek dira zortzi abizenak, bat baño bestea euskaldunagoak –esan zidan.

Andik urrengo egun batean joan giñan dotriña esatera-edo –orrela esan oi da–, eta:

–Gizon ona dezu, Kontxita –esan zion Oiarztungo bikarioak nere andreari.

Erronka jotzen ari naiz, baña barkatuko dezute, irakurleak, nere tonto-aldia...

Andik egun batzuetara ezkondu giñan. Nik berrogei ta iru urte nituan egunean izan zan gure ezkontza. Bodara ez genduan iñor eraman, ni zarra nintzalako. Atzetik parra egingo zidatela pentsatu nuan, eta padrino-nadrinak eta geok biok, eta *fuera!*

Oiartzunen esposatu giñan, eta tasi batean jarri ta Errenterira. An gosaldu genduan eta Donostiko Uliara joan giñan, eta antxe pasa genduan bazkaltzera artekoa.

Bazkaldu, berriz, Donostiko *Bar Jose Mari*-n egin genduan, Nik konpianza piska bat banuan ango nagusiarekin, eta antxe baño obeto ez giñala iñon arreglatuko.

Gero, berriz, bazkalondoa, Igeldora joan giñan, da an *Moriko*-rekin-eta egonaldi bat egin genduan. Ala, *Buena Vista* ta *Leku Eder* eta oiek danak bisitatu giñuzen, eta atzera Donostira etorri giñan.

Nik padrino anaia nuan; da andreak madrina, berriz, bataiatzerakoan izan zuana bera; eta aiek, aspertu zirala ta etxera etorri ziran, egun guzian gurekin ibilli zan tasista arekintxe, eta gu an gelditu giñan, nere andrea eta ni. Apaldu ta lo egin genduan.

Biaramon-goizean ateratzen ziran basarritarrak biadera zortzi eguneko, eta aiekintxe joan giñan gu ere.

Goizean Donostian atera eta Bilbora joan giñan bazkaltzera. An bazkaldu ta Santanderrera joan giñan lo egitera. An ibilli giñan piska bat, eta apaldu ta lo.

Biaramonean, berriz, ez dakit Reinos edo orrelakoxe erri bat zan bazkaldu genduana, eta gaberako Palentzira joan giñan.

An gaba pasa eta urrengo egunean Valladolid-era bazkaltzera. An *Hotel Roma*-n bazkaldu genduan.

Aiek Matxinbentakoak ziran, nagusia beintzat, eta bazkalondoa bertsotan eragin ziguten; Basarri ere an zan, ba, biadjean, gurekin batean.

Lau autobus beteak ziran, eta gaberako Segovia-ra joan giñan. An apaldu ta lo egin giñuzen.

Urrengo egunean bazkaltzera Escorial-era joan giñan, da an ibilli giñan Escorial piska bat ikusten. Garrantzirik geieneko gauzak danak ondo ikusten egun bat bear dala aditu izan det nik. Beintzat an bazkaldu genduan, eta gaberako Madrid-era joan giñan.

Urrengo eguna San Isidro zan, da an meza entzun genduan kanpo librean. Zabal aundi bat zan, da orain ez daukat go-goan ermitaren bat baldin bazan ere, San Isidro izenekoa.

Iru egun pasa bear giñuzen Madrid-en, eta gu atzera Escorial-era joan giñan andrea ta biok; nere Beasaingo lagun bat zegoan, ba, an, da arek nai zuan aruntz joatea.

An pasa genduan gau bat eta urrengo eguna, aren ganadutegia ikusi ta eizean egiñaz; konejo bat ere bota nuan, eta beitegia ikusi ere bai. Eun burutik gora zeuzkan, da ederki da; orain beste erri bateko alkate dago beasaindar ori. Meiorada del Campo edo olakoxe erri bat izan bear du, Madrid-etik urrean.

Gu, berriz, arekin eguna pasata, atzera lengo lagunetara etorri giñan Madrid-era.

An pasa bear ziran egunak pasa giñuzen, eta goiz batean atera giñan Burgos-era. Eguardirako bazkaltzerako etorri giñan Burgos-era. An ere katedrala eta orrelako batzuek ikusi giñuzen, eta bazkaldu genduan. Gaberako Bitoriara etorri giñan, eta an lo egin.



Urrengo egunean Idiazabala bazkal-  
tzera. San Isidrolik urrengo igandean  
pesta bat egiten zuten Gipuzkoako ba-  
sarritarak, erriz aldatuta baña urtero,  
eta urte artan Idiazabalen tokatu zan  
pesta ori.

An ere bertsotan egin genduan. La-  
sarte ere antxe zan, ura bere etxetik joa-  
na. Ango pesta ori pasa zanean, Oiar-  
tzuna etorri giñan, eta orduantxe asi  
giñan gure etxean, Laguntzarrenean, bi-  
zimodu berrian.

Jarri giñan, ba, gure armariotik jaten  
genduala. Etzan zenbait tokitan bezin  
ugari izango, baña guk agintzen gen-  
duan an; da, nai genduanean, andik ogi  
koskor bat artu egingo genduan, eta ori  
zerbait bada, nere ustetan.

Aldian bein errieta txiki batzuek iza-  
ten ziran; urrengo aldian, berriz, errietak  
ondo aztuta ere bai.

Apaiz jaun bati bein sermoian aditu  
izan nion: gizonak etxeko burua eta an-  
dreak etxeko biotza; eta zerbait esan  
zuan.

Nere andreak, beintzat, biotz ona du  
neretzat. Errietan ari bada ere, nundik  
ondo egingo pentsatzen dago beti. Egia  
esateko, andrearekin ezin nezake aitza-  
ki aundirik eduki.

Iru laguneko pamelia jarri giñan La-  
guntzarrenean lenbizi, ezkondu giñane-  
an: gu, andre-gizonak, eta nere anai bat,  
Nazario. Pameli erreza nolanai antola-  
tzeko ere, osasuna izan ezkerro.

Landaretxo bat ekartzeko modua ere  
egin genduan, baña ez genduan suerte-  
rik izan. Jaiotzean il zan. Ala bearko zuan  
nunbait eta etzegoan ezer egiterik. Len  
zartuta asi lanean, da berriz ere atzera-  
pena.

Bertsoa ere badet gai ortaz, Ergoingo  
festetan, San Antoniotan, bazkalondoan

kantatua. Iturriotzko Robustiano Urkiak,  
an zegoan da gogoan artu zuan:

Ezkondu eta egun batzuek  
zorionaren pozian,  
gero obeto izatekotan  
aurtxo txiki bat sortzian;  
mundura azaldu baño lenago  
bere seme bat galtzian,  
negar-malkuak etortzen zaizkit  
arretaz akordatzian.

Orain emen daukagun seme au eto-  
rri zanean, orduantxe osatu giñan lau la-  
gun pamelian, eta bereala asi zan piska  
bat gogortzen.

Lau urte zituanerako, asi zan erbita-  
ra aitonarekin joaten. Eskopeta bat, jos-  
tallu bat artu; puntan kortxoa sartu ta  
lokarriarekin lotu kortxoa, tiroa tirata-  
koan galdu etzedin, eta arma ura izaten  
zuan.

Aitona errena zan, eta bestea lau ur-  
teko mutikoa. Ai zer bikotea, erbi asko  
etxera ekartzeko!

Aitona eiztari ona zan, bai. Errendu  
zanean ikasi omen zuan arek ere. Bere  
aita zanak amaika bider esan omen zion  
korrika alperrik ibilliko zala; etzuala se-  
kula korrika iñork oraindik erbirik arra-  
patu.

Baña bere puestoan jarri ta erbia ikus-  
ten bazuan beste aldean aurrera zijoala,  
ezin omen zan geldi egon ura, ta *aide!*  
Bera ere joaten omen zan, eta erbia igual  
bera len egon zan lekutikan pasa. Gaz-  
teen kontuak!

Gero, errendu zanean, geldi egoten  
ikasi omen zuan, eta erbia errezagó il ere  
bai.

Dana dala, gure mutikoa antxe ibilli-  
ko zan, batean aitonak bezela errena egin

eta alakoxe imintziotan; bestean, bide-kurutzeren batera iritxi ta andik muga-arriren bat ikusten bazuan:

–Manueltxo, joan onoko arri orren ondora! Begiratu erbiaren erregalorik dagoa!

Joango zan, da artu eskuetan da aguro ekarriko zizkan.

Guk esaten genion batzuetan aitona-ri:

–Onek zure imintzioak egiten ditu ederki!

Eta aitonak orduan:

–Ori ere bai? Juuu!

Baña etzegoan aitonaren bistan ari ikutu besterik; laste jabetuko zitzaion, edozein zala ere.

Larunbatetan egundoko erregaluak ekartzen zizkan: sagarrak-edo, naranja-edo, platanuak-edo, matsa-denboran matsa, ta zer fruta zegoan purian, uraxe ekarriko zion; ta gañerakoan galletak, karameloak eta olakoak. Eta mutikoak, aitonak ematen zuana artu.

Aitonak, gu onera etorri giñanean, etzuan lanik egiten. Belaunean *tumor* aundi bat izan ta oso kojo zegoan. Gero Ardi-iturriko minetan ibiltzen zan bideak arreglatzen. Or bazan burnibide txar bat; trena ibiltzen zan an, da arek betiko lana idukitzen zuan konpontzen. Antxe jarduten zan mutil batzuekin enkargatu-moduan.

Gizon umoretsua zan; bertsoan ere jardun izan zuan. Ni neroni ere saio asko egiña nintzan arekin.

Emen *Zulua* esaten zioten bat ere bazan, eta ura ere gu bizi giñan ostatu artan an izango zan; eta igandero izaten ziran bertsoak, eta aste-egunean ere askotan.

Bein batean, egun pasa eginda omen zebillen *Zulua* ori Ergoiengo ostatueta, batean batera eta bestean bestera.

Alako batean or etortzen da gu geunden lekura, eta or asitzen da guri bertsoa botatzen. Baña batere gabonik esan gabe sartu ta segituan bertso auxe bota zuan:

Ni ez nak bildurtutzen  
batere irekiñ,  
batekin bezelatsu  
aiko nak birekiñ;  
ez eidazute neri  
odolik irakiñ,  
ez da giro izango  
gaur Zuluarekiñ.

Nere erantzuna:

Gizon onen joerak  
ez dit egiten on,  
pentsatzen jarrita're  
ez daki nun dagon;  
lenbiziko sarreran  
esan balu gabon,  
lengo txarkeri dana  
barkatuta zegon.

Ta nere aitagiarebak:

Ez al gaude gu gero  
geiegi eranak,  
goizetikan asita  
tabernan geranak?  
Bakarrikan egingo  
ditu biren lanak,  
ez dira aintzat artzen  
Zuluan esanak.

Era orretantxe zan Ergoiengo bertso-giroa. Guk ez genekigun bertso-rik gabe denborarik pasatzen. Ogei ta iru urte onetan atzeradaka aundia egin du ber-

tsotarako giroak; oraintxe dira, ba, ogei ta iru urte gu onera etorri giñala.

*Zulua* lagun aundia genduan guk. Amaika mus-aldi ere egiñak gaude alkarrekin. Aspaldi il zan gizarajoa, eta zeruan gerta dedilla.

Emen gure auzoan dago *Palazio* ize-neko etxe bat, eta orko nagusia gizon beltz bat zan, da noiz edo noiz, etxera zijoala-edo, galdetzen bazenion:

-Etxera al zoaz, Jose Migel?

Da arek:

-Ni ez etxera, palaziora baizik!

Ura ere gure aitagarrebaren laguna zan, da orrek beti illea artzen zion; baña ala ere etzan orrekin aserretuko. Beste zenbaitekin, berriz, egiñalean ondo egiten jardunda ere, etzion asmatuko.

Tamaña txarreko eroa zuala arek esan oi zuan gure aitagarrebak: Santa Agedara eramateko ainbat ez, da emen bertan egoteko, berriz, geiegi.

Gizon pamatu aiek danak il ziran. Nik askotan esan izan det Palazioko nagusi beltz arek etzuala artean il bear. Baña guk esan edo ez esan berdin da.

Gure aitagarreba ere oso zartu gabe il zan, berrogei ta emezortzi urte zituala. Barrenak danak usteldu zitzaizkion ari. Bere denboran tripero samarra izan ere, ta edozeñi pasatu leioke orrenbeste; baña nola zan esaten det nik. Gibelak, giltzurdiñak, birikak eta biotza, danak usteldu zitzaizkala esan zuten medikuak.

Azkena oso penatua izan zuan, eta bukatu zan, beintzat, eta zeruan gerta dedilla.

Gure mutikoa osatu zan gero armaz. Lenbizi baliña erosi zion Lizaso bertso-lariak; eta gero, aunditu zanean, bi ka-

ñoiko eskopeta. Danak Lizasok erosiak ditu.

Baliñarekin ere birigarroak-eta iltzen zituan; da orain, berriz, eskopetarekin ollagor, erbi ta oiek danak ere bai.

Guardiazibillak kendu zioten batean baliña, eta or etorri zan gure mutikoa negarrez aitarengana, baliña kendu ziotela ta joateko esanaz.

Joan nintzan, ba; esplikazio bat eman zioten nere aurrean eta atzera entregatu zioten bere baliña. Etzan asarre ura, berriz ere bere eskuetan baliña artu zuanean.

Anaia, nerekin bizi dan au, berriz, lenago minetan ibilli zan. An ondo zebillan labe bati kontu egiten lenbizitik; eta gero atzanean, berriz, konpresoreari kontu egiten.

Gero emen, gure etxearen ondoan, fabrika berri bat egin zuten, da emendik ere eske asi zitzaizkan eta onera etorri zan. Emen ere lana egin bear, baña etxetik urrean lantegia, beintzat, eta asko esan nai du lantegi erosoak ere.

Orain, berriz, lanetik erretiratzeko garaiak ditu, eta laste libre da fabrikatik, irurogei ta iru urte urrengo illean baditu, ta emendik bi urtera, nekezenez ere, erretiroa artuko du.

Andrearen pamelia, berriz, anaia eta iru arreba ziran, eta ama gu onera etorri eta bereala il zitzaioten, gu esposatu baño len, berrogei ta amaika urterekin.

Oian batere egon gabe, sukaldean atake batek eman eta, gu konturatu giñanerako, illa. Tensioa eduki bear zuan aundia, eta orrelaxe bukatu zan.

Aren semea, berriz, nere andrearen anaia, Mirandan bizitzen zan ezkondata, andrea ere angoa zuan, ba. Bera transporetan ibiltzen zan, da azidentean il zan.

Jornadaren bat ikatzakin zijoala, direziora pallatu eta arbola bat jo eta *seko*. Su artu eta dana erre motorra, eta bera erten egin izan bear zuan kabinatik. An bukatu zan beintzat ura, ta zeruan gerta dedilla.

Andrea seme batekin utzi zuan; aiek, ama-semeak, an bizi dira orain ere, Mirandan.

Orain iru aizpa bizitzen dira lengo pamelikoak, irurak esposatuta. Bat Frantzia bizitzen da, eta beste biak emen: bat bere jaiotetxean, eta bestea nere andrea.

Irurak oso ondo konpontzen dira alkarrekin, eta ni ere pozak egoten naiz, ori ikusten dedanean. Etxeko asarrea munduan dan gauzarik txarrena izango da, eta baita pameli artekoa ere.

Nere andrearen bi aizpak Iraetako bi anairekin esposatuta daude.

Emen, Laguntzarrenean, gustora bizi giñan; ementxe iltzeko etsian jarrita geunden.

Baña pabrika berria egin zuten emen ere, eta lanean asi ziran, lenbiziko asi zanak etzuan luzaro jarraitu baña. Makinaria ona jarri zuan, eta etzan alperrik eukitzeko jarria ura. Jakiña, eun kilorekin ederki ibiltzen zan gizona zan ura, baña karga geiegi artu zuan; gutxienez berreun kilo artu zituan, eta ezin bizkarrean eduki. Artzeko-zaleai utzi zien fabrika, eta aldegin egin zuan.

Emen jiran lur-sail aundiak erosi zitan. Orain ez datoz gaizki. Lenbiziko nagusia Pinatxo zan; eta bigarrena. *Sociedad Anónima Ergoyen*.

Eta orain *Tor*-edo Donostiko taller bat etorri edo etortzen: batzuek etorri dira ta besteak oraindik etortzekoak. Emen obrak egin bear *Tor*-eko langilleak danak sartuko badira. Irureun langille bai omen dira.

Eta gure etxea ere bear zutela-ta, or asi zitzaizkigun disimulu ederrean tentatzen. Guk ezetz; gure etxea ez gendukala saltzeko esanda bialtzen giñuzen, ta puska baten etziran etortzen berriz.

Baña atzenerako garbi esan ziguten gure etxea industrializatuta zeukatela berak; eta, nai ta nai ez, saldu bearra gendukala, eta berai gañera.

Nere artean:

–Au dek komeria, au! Oraintxe etxerik gabe geldituko gaituk! Etxea gurea genduan ustez, eta onekin ere ez degu agintzen.

Garai batean esan baligute etxe onetatik derrigorrean aterako giñuztela, ez genduan bereala sinistuko; baña alaxe da: azkenean etsi egin bear.

Etxea aientzat zala, ta berak nai zuten prezioan, egia esateko. Papel bat egin genduan eta firmatu genduan; bi urtean egon giñezke etxe onetan geienez ere, eta ordurako etxe berria egin bear.

Euskalerrian ez da gurekin bakarrik gertatu gauza ori; beste askorekin ere bai. Fabrikak dirala-ta, lengo basarria galdu eta gero nolabaiteko etxe bat egin, baña basarriaren itxurarik ez duana.

Guk ere egin bearko degu nolabaiteko etxea oraintxe. Laste asteko asmoak ditugu. Ura egiten degunean, ara aldaturako gera, eta adios, gure basarria!

# Zepai

**Z**EPAI oso laguna nuala ezin ukatu. Urtero egun bat alkarrekin pasatzen genduan, geure kontura artu eguna eta iñork agintzeko bildurrik gabe. Orduan pamelia ta guzi joango giñan, geure andreakin eta semeakin.

Lenbiziko urtean Iruna joan giñan San Martzialetan. Zepaik-eta ere seme bakarra zuten, guk bezelaxe. Iruna joan giñan egun artan, euria egin zuan gogotik goizean. Gu San Martzialera joateko asmoan joan giñan Iruneraño; baña etzegoan girorik an gora joateko, eta Irunen bertan gelditu giñan.

Gero, eguardian, bazkaltzera Ondarribira joan giñan, eta arratsaldean Jaizkibelko *parador* orretara joan giñan.

Andik aiek bista ederrak! Irun da Ondarrabi eta Frantzi aldeak, danak ederki ikusten dira andik, eta begiai gusto piska bat eman genien. Zerbait artu ere egin genduan, eta atzera bera etorri giñan.

Eguna ere asi zan bukatzen, eta ala despeditu giñan, urrengo urtean ere beste ainsteste egitekotan.

Ala, urrengo urtean nora joango ote giñan, ba, eta karnabaletan Tolosara joatea pentsatu genduan, eta baita joan ere. Bagenekigun nun alkar billatuko gen-

duan joaterako ere, eta berealaxe jo genduan alkar.

Lenbiziko lana gosaltzea egin genduan gure lengusu batzuen etxean; ostatua baitzuten Tolosan gure lengusuak.

An gosaldu eta atera giñan, ba, kale-  
ra. Ordurako asi ziran karrozak, eta aierri begira egon giñan piska bat.

Baña gu toki baten egoteko ez gera onak, eta aspertu egin giñan bereala an ere; eta, aldian bisitatxo bat ostatuetara egiñaz, konturatu giñaneko eguardia etorri zitzaigun, lagunetatik partitu eziñik genbiltzala.

Bazkaltzeko garaia zala eta *Bar Agustín*-edo bada an ostatu bat, eta araxe joan giñan. Bazkaldu genduan, eta an ere pakerik etzan; bazkaldu genduanerako bertso batzuen eske asi ziran an ere, eta kantatu egin bear.

“Geure kontu eguna artu” esaten degu, baña alperrik zan. Mendiren batera joan ezean, beti ezagunak baziran; da guk, berriz, ezetz esaten ez dakigu, eta beti izaten genduan orrelako konpromisoa.

Egun artan erabaki genduan urrengo urtean Aralarrera joango giñala, ba, ta an ez giñuzela iñork endredatuko; ta alaxe egin ere egin genduan. Aralarrera joan giñan.

Tolosan alkartu giñan Zepairen pameliarekin; andik Lekunberrira joan giñan ta an gosaldtu. Bazkaria enkargatu eta Aralarko San Migelera joan giñan.

Ango iransubea edo ez dakit zer esaten dioten ere, ura ere ikusi genduan. Ango apaizak erakutsi zizkigun ango gauzak.

Jarri zaitex Aralarko San Migeldik begira egualdi garbian, eta begiak ederki aseko dituzu. Ango kotxeak eta ango mogimentua aruntz eta onuntz, txindurriak diruditela!

Ikusiko ziñuzten onezkero txindurriak, mendian jatordu bat egin-eta, utzitako ogi-apurrak beren muntora eraman eziñik. Alaxe ibiltzen dira Napparroako bideetan automobillak, Aralartik begiratuta. Zeñek esan aiek danak beren lana badutela? Gutxi edo geiago, danak badute beren lana; beren ogi-apurra danak eraman edo ekarri egingo dute.

Trena ere antxe ikusiko dezute luze-luzea, subea dirudiala; eguzkia beroa danean sube amorratua bezela, gerri-bigunka, jendeak alde egiten diola ura datorrenean, sube gaiztoari bezela.

An goitik ikusten dira oiek danak. Ai, aiek bista ederrak! Zenbat erri txiki ikusten dira andik?

—Ori onelako erri ikusten da!

Eta:

—Ez! Beste onelako ez al da?

Antxe Zepai zana eta biok, aspertu eziñik egon izan giñan. Zepaik esan ere bai:

—Auek bista ederrak dauden emendik!

—Bai, motell! Ementxe begiai gusto ederra ematen zaiotek!

Gure andreak-eta berdin; aiek ere bera begira jarriak zeuden, eta danok aspertu ezinda antxe.

Alako batean guarda-etxe aldera etorri giñan. An amaiketako piska bat egin genduan, eta perretxikoak biltzen ere ibilli giñan piska bat.

Ango pagadi eder aiek! Aien azpitik eguzkirik etzan agiri, eta ango ixiltasuna! Zer zan ura? Ango pakea!

Alako baten txerriren bat azalduko zan. Ura ere atentzio aundiarekin piska baten zuri begira egongo zan; da, zu mugitzen baziñan, orduantxe sartuko zan konfiantzan.

Gizonak amets egiten du an. Emen erri batean sartzen zera, eta ez dago itzegiteko ere txandarik. Itzegiten baldin badezu, batenbati min emango diozu. Bestela, kontu aundia iduki bearke dezute. Alkarri ez diogu ezer ontzat artzen. Batek bestea ezin degu ondo ikusi. Bakarrik ibiltzea bezelakorik ez dago gizonarentzat. Bakarrik ez dago sesiorik; birek, berriz, pakerik ez!

Baña eguardia zala eta Lekunberrira jetxi giñan. An bazkaria pronto zegoan Barriolatarren etxean. Ura len ere ostatu ezaguna genduan, eta antxe lasai bazkaldu. Gero, kapeak artuaz, antxe denbora pasa, lengo kontu zarrak esanez.

Gero, andik Leitzara jetxi giñan. Leitzan egon giñan piska bat, eta andik Berastegira.

An ere derrior egon bear, ba, ainbeste urtean bertsoan serbitutako erria izanik; gustora gañera.

An ere zerbait artu genduan, eta gure mutikoa antxe gustora; zarranbillua bazegoan, ba, an, eta gero zeñek kendu ura andik? *Zarranbillua* emen, Oiartzunen;

Endoia aldean, berriz, *dindana*, ta erderaz *columpio*.

Alako batean atera giñan andik ere, eta Berrobira etorri giñan. An bagenduzkan gure lengusu batzuek ostatuarekin, eta aiek bisitatu eta antxe egin genduan Zepairekin-eta partira.

Tolosaraño etorri giñan alkarrekin, eta aiek Idiazabalera eta gu onuntz etorri giñan, urrengo urterako ere desapio eginda beste egun bat pasatzeko. Artan erretiratu giñan.

Andik urrengo urtean, nik ez daukat gogoan, baña izan genduan zerbait, eta udara joan zitzaigun iñora joan gabe. Negan ez dago, berriz, mendira joaterik, eta Amasan egin genduan urte artan bazkari bat ederra. Urte ura orrela pasa zan.

Ain zuzen, gañera, pestak ziran Amasan. Gu ezjakiñean joan giñan, baña erriko pestak ziran. Errira allegatu bat egin genduan eguardian, eta gu Arantzabira etorri giñan bazkaltzera. Jaten oso ederki ematen dute an, da ondo bazkaldu genduan.

An, nai dezun bezelakoa emango dizute bazkaria. Danetik egoten da an, eta zuk aukera egin eta ederki bazkalduko dezu. Guk ere ala egin genduan.

Eta lengo kontu zarrai pasara bat eman gabe ez giñan gelditzen Zepai ta ni.

Ala, egun ori ere pasa zan, eta jetxi giñan Billabonara. An despedida egin genduan, eta aiek Idiazabalera eta gu onerra.

Urrengo urtean etzitzaigun konturatu gabe udara pasako. Orduan, San Inazio egunean, Donostiko Loiolan izaten giñan bertsotan, eta an egiten genduan tratua noiz eta nora joango giñan; eta urte artan izendatu genduan eguna eta

tokia: Urbasara joango giñala eta onelako egunetan.

Alaxe joan ere, orduan esan genduan egun artan bertan, eta Urbasara joan giñan.

Goizean Zepairen etxera joan giñan, eta aiek an zeuden zai. An gelditu giñan zerbait artzeko, eta aiek ere bereala preparamatu ziran, eta an goaz Etxegaraten barrera.

Altsasutik berealaxe eldutzen zaio Urbasako maldari; eta, urrengo, gañera ateratzen da. An zabal ederrak daude. Aiek ordeka-sallak! An ordekan sartu giñanean, piska bat aurrera joan da iturri bat dago bidetik aldemenara, ezkerretarra.

Aren parean automobilak gelditu eta iturri orretara baztertu giñan gosaltzeko. An pago aundi batzuek daude itzal ederrarekin, eta aska bat ormigoiarekin egiña, edariak-eta preskatzeko. An automobilak utzi eta gosalduegin genduan. Antxe gizona gozaten da, mendizalea baldin bada beintzat.

An gosaldue ta piska baten gustora egon giñan. Lenago basoan ibilli giñaneko kontuak berritu giñuzen Zepaik eta biok; eta, trago bat edo beste egiñaz, antxe gure poza. Gizona nun gozatu litekean, ez da esateko.

Gero, an puska batean egon giñan da Urbasako otela ere bisitatu bear genduala, ta joan giñan ara, geure automobilak artuta. Zerbait artu genduan, eta antxe uda-zale batzuek ere bazeuden, eta antxe aiekin ere izketan egon giñan, eta pozik.

Ura zan gloria! Gizonak beste lanearako kezkarik iduki ez da araxe joango nintzake ni egun batzuek pasatzera. Bai nere gustora pasa ere!

An pozik geunden, baña eguna mo-tza izaten da eta puska bat aurrera joan giñan, apusturako egurrak-eta botatzen dituzten toki artara. Aieri ere ikusi bat eman genien, eta Urbasatik bera aldegin genduan.

Amezkuara joan giñan. An zerbait artu genduan, eta andik erreka baten ondora jetxi giñan. An amorraien biberoa ikusi genduan ederra. Bazeuden amorrai ederrak, eta an egon giñan begiai gusto piska bat eman arte,

Andik urrengo saltoan Estellara joan giñan bazkaltzera. Bermut bat edo beste artu giñuzen apetitoea egiteko, eta bazkaldu, lasai jarrita, Ostatu ederra zan, da nik neronek zer jan nuen gogoan daukat oaindik ere.

*Gorrín* esaten diote berak, txerriku-mea erreta. Zenbaitek parra egingo du ori adituta, baña pama aundia du *gorrín* orrek Estella eta alderdi orretan. Nik oso gustora jan nuan.

An bazkaldu eta piska batean egon giñan kapeak artuaz; eta, aspertu giñanean, altxa ta martxa egin genduan.

Lizarragako gañera etorri giñan. An beste kera egin genduan; gazta jan ere bai. Ez gendukan gogo aundirik artean, baña an probatu giñuzen, eta etxerako erosi ere bai. An artzaiak dira, ba, danak, eta gazta-aukera egoten da an.

Bein andik atera giñanean, urrengo saltoan Idiazabalera etorri giñan. An ez genduan premi aundirik, baña zerbait artu bearke, Zepairen etxean sartu ezker. Antxe despeditu giñan, eta urrengo urtera arte. Gu ere etxera etorri giñan, ez gendukan ezeren premirik eta.

Ala, urrengo urtean ere, Loiolara joan giñan San Inaziotan bertsoara Zepai, Arozamena eta ni irurok, eta or-

duan aukeratu bear zan tokia, eta eguna ere bai.

Lengo bi urteetan mendian ibillita geunden, eta itxas-ertzera joango ote giñan, ba, urte artan, da ala erabaki genduan. Gure Loiolako erabakia izan zan Bizkaiko kostara joateko, eta eguna ere erabaki genduan: onelako egunetan da onelako ordutan Itziarren alkar billatzekotan partitu giñan Loiolan.

Alaxe, Itziarko gañean *parador* bat badago, eta gu iritxi giñan lenbizi, baña aiek ere berealaxe. Ez genduan alkarren zai egon-bear aundirik izan.

An alkar saludatu genduan, eta Ondarroara joan giñan gosaltzera. An jetxi automobilletatik, eta lenbizi erria ikusi genduan piska bat. Gero Iparragirrenen ostatura joan eta gosalduegin genduan. Ura etxe ezaguna genduan, eta ederki konpondu giñan.

Andik atera eta Lekeitiora joan giñan. Lekeitio oso erri polita da, eta ura piska bat ikusi gabe ezin gelditu. An ibilli-aldi bat egin genduan. Ikusitako danak aitortzen dute Lekeitio erri polita dala, eta gure andreaire ere gustatu zitzaieten.

Guk len ere bagenekigun ura nolakoa zan; baña gauza polita ikusten ez da bein da bitan ikusita aspertzen, eta guk ere ikusi egin genduan berriz ere.

Gero, andik atera eta Natxitan barrera Elantxobera joan giñan. An ez dago zer ikusi aundirik, baña polita da ura ere.

An piska bat begiratuta, andik Gernikara bitartean badago zer ikusia. Danak dira oiek politikak. Ango ondartzader aiek! An ere egiten giñuzen geldi-aldiak, eta danean zegoan zer ikusia. An bai zegoala begien gozamina!

Nik len ere ikusita neuzkan aiek, Arteagan bertsoan izan giñan baten. Ba-



tek eraman giñuzen kotxean eta erakutsi zizkigun; baña, bein da bitan ikusiatatik, ez da aspertzen alako gauzak ikusten.

Andikan Gernikara pasa giñan Arteagan barrena. Gero, Gernikatik aurrerago joan eta an Arritxinaga edo olako izen bat dago. Ura ere oso polita da.

Pedernales edo alakoxe erri bat zan bazkaldu genduana. Antxe lasai egon giñan bazkaltzeko denboran. Gero kapeak artu eta kontuak egin giñuzen, eta marxta egin genduan.

Plentziaraño joan giñan. An plaia-eta ikusi giñuzen, eta zerbeza preskoa artu genduan. Eta Bilbaotik etorriko ote giñan, eta besteak ezetz, ohea zala ara sartu gabe.

Amorebietara etorri giñan, eta andik etxe-alderakoari eman genion.

Elgoibarren partitu giñan, eta etxera etorri giñan, urrengo udaran berriz ere joatekotan.

Egun artan, bein baño geiagotan esan zuan Zepaik urtean bi aldiz joan bear gendukela biaje orretara, bizia moztutzen ari zitzaigula eta.

Andik urrengo udaran izan ziran beste nobedadeak. Gaixo zegoala aditzen genduan beti, baña etzuan iñork grabe zegoanik esaten, da artan geunden.

Alako baten, astelen-goiza zan, da Oiartzungo trasportean zebillen batek ekarri zigun ikustera joateko abisua. Abisu ori artu genduanean, berealaxe joan giñan, tasi bat artuta, andrea ta biok.

An zegoan oian. Triste samarra iduritu zitzaidan neri, baña etzegoan etsita artean. Mundu onetako kontuak esaten zituan arek, baña etxeakoak etsita zeuden, eta ni ere etsia etorri nintzan. Zertarako ezeta esatea?

Artean ere lengo zelebrekeri aiek ateara nai zituan, baña itzala ere oso bajatuta zeukan, boza ederra bazuan ere.

Etxekoai etzaiote ainbeste baja egin duanikan ere iduritzen, egunero ikusten danean; baña aspaldian ikusi ez duanarentzat, oso bajatua zegoan.

Atzera etorri giñan eraman genduan tasisean; eta egun ura astelena zan, da larunbatean il zala berria artu genduan.

Gu an izandako biaramonean, Tolo-sako klinika batera ekarri omen zuten, eta an illa izan bear zuan.

Biaramona Santiago-eguna zan, da entiarroa Idiazabalen. Joan giñan, baña triste. Beñere ez det alako traturik artu oraindik entiarro batean. Uraxe zan biotza xamurtzea.

Beti alkarrekin ibilliak giñan; alkarri dana esaten genionak, eta lo ere alkarrekin askotan egiñak; eta oiek, batere biotzik duanari, gogoratu egiten zaizka. Nere begiak ederki busti ziran beintzat.

Aita-gure batzuek errezzatu genizkan, da ari etzegoan beste ezer egiterik, eta meza bat ateratzeko enkargatu genduan.

Gure agurra egin genion bertso batekin eta adios, Zepai! Zeruan gerta dedilla!

Nere orduko bertsoa ondo kostata kantatu nuan. Onelaxe da:

Akelino, lagunak  
giñaden munduan,  
amaika alaitasun  
igaro genduan;  
oraindiokan ere  
daduzkat goguan;  
eskari auxen diot  
nik otoiz-moduan:  
emen il dana pixtu  
dedilla zeruan!

# Bukaera

**B**ESTE bi bertsolari ere badira joanak mundu onetatik azken urte auetan: bat Txapel, eta bestea Kortatxo. Biak Azpeitian bizi ziran. Aiek ere lagun aundiak nituan.

Kortatxo, lenbiziko bertsolari laguna nuan. Arekin lenbiziko plazan asi nintzan bertsotan: Lasturren, Madariagan, Urrategin eta mendiren batean, Andutzen. Aitolako gurutzea bedeinkatu zutenean ere, antxe kantatu genduan.

Ziolarren ere bazkaria egin genduan; orduan jende aundia zan an, eta guk biok egin genduan bertsotan. Ziolar au Uztapideko auzoa da; ostatua zan orduan, eta orain ere bai.

Ori ere nere laguna zan, Kortatxo ere. Jaietan Ziolarra juntatzen giñan beti, ta an izaten zan gure bertso-saioa.

Txapelekin, berriz, geroxeago egin nintzan lagun, bertsotan orrera ta onera ibiltzen asi nintzanean. Arekin askotan ibilli nintzan.

Txapel errespeto aundiko gizona zan, da bertsotan ere serio jarduten zan ura; eta beste laguna ere ala gustatzen zitzaion ari: serioa.

Gu askotan gure bidetik aterata ibiltzen giñan, erbiaren arrastua galdutako erbi-zakurra bezela. Baña beti ondo kon-

pondu giñan arekin ere; ez genduan beñere asarrerik txikienik ere izan.

Baña aiek ere biak joan ziran mundu onetatik, eta zeruan gerta ditezela.

Badakizute, ba, gure lengo lagunak joaten ari dirala.

Zubeltzu da bizi dana orain. Lengo igandean omenaldi bat egin zitzaion Deban, bere errian, Larogeigarren urtean dijoa, eta antxe egon zan bere omenaldiari begira, eta bazkaltzen ere bai, gure ondoan. Ez da gutxi dauzkan urteetarako.

Kolore ederrak eta gizon ederra dago, Anketatik dabil gaizki, makaldu samarra. Ez da arritzekoa urte oietan.

Ni ere, ura baño gazteagoa, ixillik egon nintzan. Basarri ere an zan; arek eman zuan atzen agurra teatroan, eta bazkaltzeko denboran ere besteak bezela kantatu zuan arek.

Zubeltzu ta ni giñan ixillik egon giñanak: Zubeltzu, zarra zalako; eta ni, berriz, gaixo bat txarra pasa dedalako.

Lenbizi biotzetik sentitu nuan. Lengo uda-azkenean amar urte pasa dira. Sagar biltzen ari nintzala, petxuan alako min bat sentitu nuan. Zerbait gauza ona etzala konturatu nintzan, da urrengo egunean sendagillearengana joan nintzan.

Arek etxean egoteko esan zidan; *ra-yos*-etan ikusi ninduan eta etzidan ezer billatu, pulmoietan-da alegia. Biotza ikusteko aparatorik etzedukan gure erriko sendagilleak, eta urrengo egunean etxera etorri zitzaidan bera.

Orduan esan zidan zer idukiko nuan: petxuko anjinak idukiko nituala, aren iritzirako; arek etzeukala ori ikusteko aparatorik, eta Donostira joan bearco nuala ori ikusteko.

Joan nintzan, da an egin zidaten *electrocardiograma*, eta baietz; egia zala erriko sendagillearena esan zidan, eta kontu aundia edukitzeko.

Rejimenen jarri zidan aundia. Egin ere ez nuala egingo pentsatu nuan lenbiziko aldetik; baña oitu egiten da bat edozein erataran. Gauza batekin ibilli nintzan gaizki: tabakoarekin. Ori ez nuan dominatu; beste guziak bai.

Baña bertsolari, beti jarraitu nion bertsolaritziari. Urtea joan da urtea etorri ta banenbillen, eta ortxe zortzi urte igaro nituan.

Baña Donostiko Anoetako pelota-lekuan, bertsolari joanak orduan ere, eta erdi lanetan geldialdi txiki bat egin genduan beti bezela, eta geiago ez nuala kantatuko. Bi aldiz alegindu nintzan, baña etzegoan kantatzerik.

Ala, Jose Lisasok etxera ekarri ninduan. Sendagillea segituan ekarri nuan, da etzidan garrantzi aundirik eman. Jorrraillaren atzeneko eguna zan ura, eta banenbillen poliki-poliki.

Baña Loraillaren amarrean, nere urte betetzean, orduantxe nituan irurogei ta iru urte; ta, apaltzen ari giñala, eman zidan berriz ere atake batek, eta orduan konturik gabe gelditu nintzan. Oiera jaso niñuten, eta nere burua oian ezagutu nuan.

Berriz ere sendagillea ekarri genduan, eta Donostira espezialista batengana joan bear genduala esan zidan.

Aita Zabala gure etxean tokatu zan, da nik begietatik neukala uste nuan; eta arek, Aita Zabalak, eman zidan zuzenbidea bere eskola-laguna batena: Tolo-sakoa berez, Ramon Maria Otegi, Donostin konsulta daukana, eta arengana joan giñan.

Ikusi ninduan eta arek egiteko gauzarik ez neukala esan zidan; begietan ez neukala ezer ere. Zenbat bear zuan galdetu genion, eta ezer ere etzuala bear esan zigun; eta berak egin zigun Urkolarekin kosultatzeko modua ere.

Arratsaldean joan giñan Urkolarengana, eta oso ondatuta nengoala esan zidan. *Cruz Roja*-ra joan bear nuala esan zidan; an Arrazolak ikusiko ninduala.

Analisa egin zizkidaten, eta etzuten uste bezin gauza txarrik billatu buruan; tumorren baten esperantza zuten, eta ez eduki nik alako gauzarik.

Bost egunean eduki niñuten; atzera Urkolagana bialdu niñuten eta geroztik arekin nabil.

Itzik ere ez nuan egiten arengana joan nintzanean, eta asko meioratu nau. Esku eskubia ere jateko ainbat ez nuan, eta orain gizon ia egin naiz.

Urkola jaunak bein batean bertso bat eskatu zidan, eta au eman nion, idatzita:

Egun batian gaixotu nintzan  
 nik ez nekiela nola,  
 itzegin nai eta ezin nuan  
 itzik asmatu iñola;  
 zerbait pentsatu biar nuan da  
 nerez pentsatzen negola.  
 eskerrak eman, bai, gogoratu  
 zitzatela, jaun Urkola.

Ta beste batean beste auxe:

Maietz illaren amairua zan  
erten nuana etxetik,  
ni gaixo eta nere andria  
erdi negarrez atzetik;  
aspaldi artan sufritzen nuen  
burutik da biotzetik,  
Urkola jaunak sendatua nau  
oraindañoko gaitzetik.

Bertsotan egiteko ez naiz gauza, baña  
bertsotan egin gabe ere makiña bat bizi  
dira, eta nik ere ala bizi bearko det. Bu-  
rua oso mantsotu zait; nekez pentsatzen  
ditut gauzak eta, bertsotan egitera ezke-  
ro, burua azkarra bear du.

Emen nere lengo lagunik ez da ber-  
tsotan dabillarik Basarri besterik, eta  
Jainkoak lagun deiola urte askoan.

Len esan det eta lengo igandean Zu-  
beltzuren omenajea giñan, ba, eta gus-  
to ematen du oraingo bertsolariakin.  
Zortzi baziran Deban, eta bat baño bes-  
tea ederkiago jardun ziran danak. Poz  
ematen du gazteak orrela ikusitzeak.  
Euskalerrian ez da orain aña bertsolari  
izan sekula, ta onak gañera.

Lizaso, Agirre, Lazkano, Gorrotxate-  
gi, Lasarte, Arozamena, Mugartegi eta  
Lazkao-Txiki ziran lengo igandean kan-  
tatu zuten bertsolariak. Oso saio ederra  
zan lengo igandekoa.

Eta beste orrenbeste bertsolari ba-  
daude Euskalerrian, bear izan ezker-  
o. Beste txanda batean, orain etxean geldi-  
tu diranak izango dira aurrena. Txanda-  
ka izaten dira orrelakoak.

Txirritaren omenajea ere gogoan  
daukat oraindik. Orduan ere bi gizaldi  
bezela giñan: Txirrita bera, Lujanbio, Te-  
llei-Txiki, Juan Jose Sarasola eta Fernan-  
do Alkain; oiek ziran gizaldi bat. Beste

gizaldia, berriz, Basarri, Alkaiñen semea  
Iñaki, Txapel ere oso zarra ez, eta ni ere  
an nintzan orduan.

Zarrak ziranak joan ziran mundu  
onetatik; eta gazteak giñanak ere zartu  
gera eta larri gabiltza.

Orain Zubeltzu, Artxanberri Altzo-  
koa, Bidaniko Muñoa, Enbeita Muxika-  
koa, Pello Saikola eta orrelako batzuek  
daude zarrak, bertsolariak alegia.

Oieri jarraitzen diegunak, berriz, gu  
gera: Basarri eta ni, Uztapide. Gero Loi-  
di-saletxe Errezilkoa, Asteasuko Korta-  
jarena, Azkoitiko Patxi Larrañaga, *Bar-  
bero* esaten diotena, ta Zubikoa; ori  
Sunbillakoa da berez, baña orain Fran-  
tziako erri txiki baten bizi da: Bankan.

Orain bertsotan dabillen zarrena Ma-  
ttin izango da, eta umorerik onenekoa  
ere bai.

Gero badira Xalbador, Xanpun eta Ez-  
ponda. Oiek mugaz arunzkoak dira.

Emen, berriz, Mitxelena, Lexoti, Gar-  
mendia, Egileor, Etxeberria, Igartzabal,  
Azkoitiko Larrañaga gaztea, Kosme Li-  
zaso, Narbaiza, Segurako Intxausti eta  
abar.

Naparroan ere badira: Madariaga,  
Zabaleta, Uizi Aranokoa eta Perurena  
Goizuetakoa, orain Elizondo alde artan  
bizi dana.

Gero, Bizkaian or daude Lopategi,  
Azpillaga, Arregi, Sardui, Ajuria, Balen-  
tin Enbeitaren semeak eta Muniategi.

Ni gogoratu gabe geldituko naizenak,  
batez ere gazteak, beste ogei badira gu-  
txienez emen, sariketara presentatzen di-  
ranak; eta barkatu nik aitatu ez dituda-  
nak.

Orain ez dago bertsolari-paltarik;  
baña bertsolariak gauza askotarako bear

izaten dira orain: erriko pestetan, plazan kantatzeko; boda bat danean edo meza berri bat danean, *despedida de soltero* bat danean; edozein mezatan ere orain kantatzen dira bertsoak, eskeintza egitera-koan-edo.

Bertsolariak, len egiten etzuan tokietan, askotan egiten du orain kantuan. Denbora baten esan balitz eleizan mezetan bertsotan egin bear zala, meza arek balio zuanikan ere ez genduan sinistuko. Orain olakoxe aldaketak dira.

Len ere esan det eta bertsolari asko dago orain, eta zenbat eta bertsolari geiago, eta orduan da lan geiago izango dute bertsolari bakoitzak.

Sekulan ez da bertsolaririk orain ainbat aldiz ibilli bertsotan. Len ere esan izan det, eta Txirrita eta biak amazapi erritan izan zirala urte baten esan oi zuan Lujanbiok, gauza aunditzat bezela. Aiek egin zuten aundiena ori izango zan.

Aien denboran, erri batetik bestera joateko ere, etzan, izan ere, gaur bezelako erreztasunik. Al zuten bezela ibilli bear-ko zuten aiek; eta gaur norbere kotxean joango dira ia bertsolariak danak, eta alde ederra.

Orain, berriz, illabetea egiten du ori bertsolari batek; amazapi erri serbitutzea, alegia. Ez du illero egingo ori; baña nik neronek ere, Dagonillea beintzat, amabost bat plaza egin izan nituan. Besteak ere orrelaxe; danentzat egoten da lana naikoa.

Bein baño geiagotan joan gera Basarri eta biok erri batera bertsotara, eta:

–Lengo urteetan izan al dezute bertsolaririk?

Eta aitonaren batek erantzungo zuan:

–Bai; oraintxe ogei bat urte izango dira Txirrita eta Pello Errota izan zirala. Gogoratzen naiz aiuntamentuko balkoitik nola jardun zuten.

Ori erri askotako berria da. Erri askotan aztuta egoten ziran noiz bertsolariak ikusi zituzten ere.

Gure ondorengo gizaldi onetan, berriz, oso ugari sortu dira bertsolariak, eta ez daukagu kezkarik Euskalerrria bertsolaririk gabe galditzeko, gu ixilduagatik.

Poz ematen du, pesta batera joanda, zortzi edo amar bertsolari, eta danak sa-soikoak.

Ni, berriz, pozak nago; gaixo egon banaiz ere, ez da palta izan zeñek lagundurik emen. Euskalerrri guzitik etorri zait jendea bisitatzera, da asko, lotsatzeko moduan, eskuak bete gauzarekin.

Nik, bizi naizen arteko zorra badet. Il-dakoan danak ordaintzen omen dira, eta nik ere ola ordaindu bearko ditut.

Orain liburu au bukatu egingo det; zer idazten ari naizen ere asko ez dakit, eta ohea izango da garaiz erretiratzea. Sermoi txarra ere, zenbat eta luzeago eta okerrago izan oi da. Nere idazketa ere ala izango dalakoan nago.

Eskerrik asko, liburu onen bidez, neri laguntza egin didaten guziaz, eta baita Euskalerriko bertsolari guziaz ere. Nere alde bertsotan egin dute geienak; eta, beartu izan banintz, egin ez dutenak ere pozik egingo zutelakoan nago. Eskerrak Euskalerrri guziari ere, eta nere liburua ementxe bukatzen da.

(Oiartzunen, Laguntzarrenen,  
1974-ko Ilbeltzaren 12-an.)

# **Lagunen aitorpenak**

**Bertso-saillak**

# Uztapide

1  
Lagun zar, maite, agurtu nai aut  
gañera biotz guztitik,  
ire ta nere artean ez dek  
sekula izan nasketik.  
Ireganako ez diat ñoiz  
komeni ez dan izketik,  
bertsolari on, trebea aiz ta  
gizon jatorra bestetik.

2  
Oso sarritan egon izan nauk  
i ikusteko pozetan,  
berdin pentsatzen degunak gaituk  
bizimoduko gauzetan.  
Alkarri esku emanda biok  
asi giñukan gaztetan,  
amaika saio egiñak gaituk  
Euskalerriko plazetan.

3  
Jaun Zerukoak argitasunak  
guri banatu zizkiguk,  
oiek zabaldu beste gauzarik  
ezpaidiagu egin guk.  
Lagun Manuel, emen urteak  
azkar asko joaten dituk,  
buruz poliki gabiltzak baña  
zartzen gogor ari gaituk.

4  
Bizkai, Gipuzku ta Naparroa,  
bertsolariak danean,  
alde guzitan gazte bizkorrak  
asiak zeudek lanean.  
Ez dakik asko nolako poza  
daukadan nik barrenean,  
ordezko paltik ez dek izango  
gu ixiltzen geranean.

5  
Ate guziak zabal-zabalik  
biok noranaira joanik,  
pasa ditugun egun alaiak  
ez dizkiat aztuko nik.  
Beti gizonki jokatu gaituk  
alkarri amor emanik,  
guk ez diagu ñoiz pentsatu  
anai batzuk ez geranik.

6  
Batzuk aultzera bagoaz baña  
indartsu datoz gazteak,  
euskera maite degunorentzat  
ez dira berri tristeak.  
Poztuko gaitu bertsolariak  
anaituta ikusteak,  
alkar maitatuz kanta zazute,  
Euskalerriko gazteak.

7  
Semea azten ari omen zaik,  
badiat berekin fede;  
komeni bada izan dezala  
aitak ainbat argibide.  
Basarri emen daukak Zarautzen  
benetako adiskide,  
emazteari goraintzik eman;  
agur, lagun Uztapide.

*Zarautz, 1959-garren urteko azaroa.*

*Iñaki Eizmendi, Basarri  
Kantari nator, Zarautz, 1960.  
Nere bordatxotik, Auspoaren Sail Nagusia, 2, 1992.*

## Uztapideri

1

Zorion eta berri on zuri,  
Uztapide, bihotzetik,  
nere agurrik beroena gaur  
lehendabiziko hitzetik.  
Jendea ez da aspertzen inoiz  
zure izena aitzetik,  
Jainkoak gorde zaituelako  
gizon harroen gaitzetik.

2

Umil-umila agertzen zera,  
ez zaizu gailentzen ezer,  
horregatikan hartzen dituzu  
hainbeste txalo ta esker.  
Begiratuta galde daiteke:  
"Gizon horrek zer du, ba, zer?".  
Jendea hola txoratutzeko  
nonbait badezu zedozer.

3

Amets bat egin zuen Jainkoak  
zu sortu zinen orduan,  
dohai ederrez osatutzeko  
berak nahi zuen moduan.  
Hortik pentsatu zer maitasuna  
zuregan ixuri duan,  
zu bezelako bertsolaririk  
ez digu sortu munduan.

4

Beti holaxe jarraitutzeko  
egiten dizut erregu,  
gizon apala eta jatorra  
azkar ezagutzen degu.  
Bertsolaria harroa bada  
beretzat nahiko kalte du,  
apika gaurko mundu harroak  
apaltasuna maite du.

5

Txapela zuri jartzearekin  
a zer arrazoia zuten!  
Ai, onenaren alde gaudenoi  
zer poza eman ziguten!  
Ondo merezi zenuen eta  
ederki jarri zizuten,  
zorionean eraman zazu  
beste berrogei bat urten.

6

Bertsolaritzan txapela inoiz  
kentzen badizute behintzat,  
zu ez zerala haserretuko  
neri iruditutzen zat.  
Hori sarritan arrixkoan da,  
guk ez dakigu zeinentzat;  
gizatasunez baldin balego,  
txapela beti zuretzat.

7

Bertsotarako zuk baidaukazu  
aparteko etorria,  
edozein gai da zuretzat berdin  
nahiz ona nahiz bihurria.  
Halajainetan Jaunak ez zizun  
eman talentu urria,  
ta ez dedila inoiz agortu  
zuk daukazun iturria.

8

Plazarik plaza entzule asko  
beren begiak josirik,  
zenbait algara eginaz sarri  
zu bertsotan ikusirik,  
gogor txalotuz zuk lagunari  
sartzen dizkiozun zirik...  
Umore hortan Jaunak luzaro  
gorde zaitzala bizirik!



9

Zahartutzean galtzera goaz  
gaztetasun atsegina,  
udaberriak iges eginda  
berriz bihurtu ezina.  
Uda-azkenak berekin ditu  
tristura eta samina,  
nahiago nuke nik mila bider  
gazteagoa bazina.

10

Mundu hontako urte laburrak  
bai azkar dijoazela,  
beti pentsatu behar genuke  
bestera bagoazela.  
Zu bizi zaite Kristoren berdin,  
esan zenuen bezela,  
berak gordeko dizu zeruan  
galdutzen ez den txapela.

11

O, Uztapide, horra bertsotan  
nik al dedana azaldu,  
zu bezelako gizon jatorrak  
hainbat merezi ez al du?  
Nik bertso hauek herririk herri  
al banituzke zabaldu,  
zure oroitza zoragarria  
sekula ez dedin galdu.

Jesus Maria Etxezarreta, *Izazpi*  
1963-ko azaroaren 15-ean.  
*Auspoa* 216, 1992.

## Uztapide, txapeldun

1  
Nik Uztapide ezautu neban  
bertso kantari beñola,  
bertsolari lez onena dala  
erri guztiak diñola.  
Aundia dogu baña apala,  
ez da arrotuko iñola,  
Uztapide da Euskalerriko  
txapeldun urretxiñola.

2  
Bertsolariak, zartuagaitik,  
jakitun antzo eztena,  
gure Uztapidek danentzat dauka  
zentzundun erantzupena.  
Orretan beti agertu jaku  
euskaldun eta gizona,  
ori dala-ta erriak diño:  
“Au da gure txapelduna!”.

3  
Jakituriak ez dau egiten  
bertsoetarako grazi,  
orretarako jaio ez bada  
alperrik egin garrasi.  
Manuel jaunak eskola asko  
etzuan eingo ikasi,  
au ta guzti be emen daukagu  
Euskalerriko nagusi.

4  
Ikusten dira filosofoak,  
gizon argi ta altsuak,  
teknika eta rima-kontuan  
bertsozale jakintsuak.  
Baña gatza ta piperra palta,  
ez dira orren gozuak;  
erriak askoz naiago ditu  
Uztapideren bertsuak.

5  
Bertsoetako bear ditugu  
berezkoa ta biotza,  
onek ez ditun bertsolariak  
alperriko dau jakintza.  
Gure Uztapide berezkoz eta  
biotzez da aberatsa,  
jakitun askok artuko leuke  
onen piper eta gatza,

6  
Donostiako Astorian zan  
argi ta garbi ikusi,  
danan gañetik, kostata baña,  
zelan zendun irabazi.  
Batzuk zalantzan ibilli arren  
zu zara danen nagusi,  
Euskalerriko bertso-txapela  
ondo zenduan merezi.

7  
Omen-jai asko merezi ditu  
Uztapideren txapelak,  
frutu ederrik asko emon dau  
gaur arte bere arbolak.  
Ikasbidetzat artu daiguzan  
bere bertsozko eskolak,  
bera da gure arbola eta  
gu gara bere orbelak.

(1963)  
Balendin Enbeita  
*Nere apurra, Auspoa* 117-118.

## Uztapideri

Anoetako pelota-lekuan, bertsolarien jaialdi bikain bat ospatzen ari zala, etorri zitzaion ondoeza Uztapide bertsolari aundiari. Bertsolariak eta bertsoak maite ditugunak zearo goibelduta gelditu giñan, eta nik ondoren artan onoko ale auek moldatu nituen.

1  
Euskal bertsoen zale geranok  
orain bai illun gaudela,  
jakin zazute Uztapidetzaz  
mintzatzen asi naizela.  
Bertso auetxek eskeintzen dizkat  
oroigarritzat bezela,  
baldin kalterik egingo banu  
arren barkatu dezala.

2  
Zer utsunea gure plazetan  
aurtengo uda guztian,  
gure Manuel gaitz gaizto batek  
artu baitzuen azpian;  
naigabe ori nere aurrean  
gertatu zan Donostian,  
Apirillaren azken egunez  
irurogei ta amabian.

3  
Txit borondatez eskeiñi zigun  
biotz zabal da xamurra,  
txalo berotan ordaindu gendun  
orduko azken agurra.  
Geroztik duen ixillaldia  
ezta nai bezin laburra,  
berriz asiko ez ote zaigun  
badaukat naiko beldurra.

4  
Lanerako gai eztan gizonak  
eztauka irabazirik,  
galdera auxe egiten det nik  
gauzak ola ikusirik:  
bertsoko jai bat zertan jarri ez  
maitasuna erakutsirik?  
Projimoaren laguntza orri  
eutsi zaiogun bizirik.

5  
Jesus maitea, une onetan  
zuri erreguka nago,  
eskari onen erantzun ona  
zure eskuetan dago:  
doaia eta borondatea  
eman zenizkan lenago,  
orain indarra eman zaiozu  
kantatu dezan geiago.

Martzelino Manterola, Oiartzun  
*La Voz de España*, 1972-VIII-27  
*Zeruko Argia*, 1972-IX-10  
*Lore apal bat*, *Auspoa* 166, 1983

# Uztapideri

Donostiko *Astoria* Antzokian omenaldi eder bat eskeñi zitzaion Uztapideri 1972-ko irailaren 24-an. Andik bi egunera bertso aukeratu nituan *La Voz de España* egunkarian.

1  
Ogeitaka urtez ibili gera  
biok erririkan erriz,  
orduko sasoi eta almenik  
ezta etorriko berriz.  
Beti apal da beti leialki,  
jatortasun arrigarritz,  
ura berdintzen gaiztoa baita  
gizonez ta bertsolariz.

2  
Egun goxoak, egun mikatzak,  
danak alkarren segiran,  
Uztapidentzat ere eziña  
orra nola etorri dan.  
Orain an dabil burumakurka  
bere etxetxoaren jiran,  
onelakotan ikusten degu  
egizko lagun zein diran.

3  
Orain bi milla urte zitzaigun  
Salbatzaillea etorri,  
gurutze baten inguru-sailla  
utzirik odolez gorri.  
Ark eman zuen agindu ura  
bai dala gogoangarri:  
lurreko urte bakar auetan  
lagun deiogun alkarri.

4  
I Oiartzunen eta ni emen  
alkarrekin ezin goza,  
gure ondoan gertatu baintz  
izango genian poza;  
berriro entzun nai bagenikek  
laister ire kantu-otsa,  
itxaropenik ez galdu iñoiz,  
Manuel, jaso biotza!

5  
Lenago beian ez intzan baiña  
jasoa izan aiz gora,  
i goraltzeko ta txalotzeko  
artu genikan denbora.  
Bein sartu intzan, zorionean,  
euskaldun biotz-ondora,  
Euskalerrria irekin zegok,  
egon indeke gustora!

Iñaki Eizmendi, *Basarri*.  
*La Voz de España*, 1972-IX-26.  
*Príncipe de Viana*, 1972-X.  
Sortu zaizkidanak, *Auspoa* 112, 1973.  
*Auspoaren Sail Nagusia*, 1992.

## Uztapide adiskideari

1973-ko Orrillaren 27-an. Eibarren, omenaldi aundi bat eskeiñi zitzaion Uztapide bertsolari trebeari. Guk ez genduen joaterik izan. Ondoren datozen iru bertsoak bidali genizkion lagun aztu-eziñari.

1  
Zuaitzak ostoz apaindu dira  
ta naigabeak jo gaitu:  
txoririk ezagunenak lengo  
txorrotxioak nun ditu?  
Manuel maite biotzekoa,  
badezu zertan alaitu:  
len zuk serbitu zendun Eibarrek  
orain zeu serbitzen zaitu.

2  
Utsak gera ta gure almenak  
muga urrean daukate,  
zeure tokia ainbat urtean  
zuk beti zintzoki bete.  
Euskal bertsoa zuk bezin sendo  
iñork ez lezake maite,  
beraren morroi izan baizera  
eziña etorri arte.

3  
Eibarren ainbat gozamen eman  
dezu euskera garbian,  
emen bezela, an eta emen,  
iritxitako tokian.  
Etengabeko ur-jarria  
zegen zure iturrian,  
gizaldi zear gogoratuko  
zera zu Euskalerrian.

Iñaki Eizmendi, *Basarri*  
*Goiz-Argi*, 1973-VI-30.  
*Auspoaren Sail Nagusia*, 2, 1992.

## Basarri, Uztapide eta Ernio mendia

Bertso auek ere pelikularako egiñak dira, Basarri eta Uztapideri eta Ernio mendia, eta argatik daude iru ta iru.

1  
Emen ditugu bi bertsolari  
Uztapide ta Basarri,  
garai batean amaika bertso  
boteak gera alkarri.  
Ainbat urtean ibili giñan  
izan ere erriz erri,  
Euskalerriak badaki ondo  
maixu aundi auen berri.

2  
Amezketako erri maitean  
egin nintzan auen lagun,  
Jainkoak daki guk esateko  
zenbat kontu zar daukagun.  
Irurok alkar anai bezela  
nola ixtimatu degun,  
gizon auekin igaro det nik  
amaika gustoko egun.

3  
Mutil gaztea gertatu nintzan  
ni laguntzaren bearrez,  
bai alegindu ere laguntzen  
auek ainbeste biderrez.  
Kantatzen gendun pake gozoan  
eta umore ederrez,  
garai artako lagunarteak  
etzaizkit aztuko errez.

4  
Gure Ernio neguan ez da  
goxoa eta epela,  
gu an aritu giñan urtean  
bazan elurra ta jela.  
Kuxkur ibili giñan mendiko  
abere danak bezela.  
iñoiz pentsatu izan nuen nik  
otzak ilko giñuzela.

5  
Mendi altuak negu beltzean  
gordelekurikan eztu,  
ango bizitza zer zan ez leike  
ikusi gabe siñistu.  
Ekaitz eraso gogorak iñoiz  
artzen bagiñuzen estu,  
txabola zar bat bagenduen da  
ara oi giñan babestu.

6  
Aize olatu ta arri jakak  
txabola astintzen zuten,  
ni bildurturik egon oi nintzan  
alako otsak entzuten.  
Amabi urterekin lanera  
ara eraman ninduten,  
ortik pentsatu gaztetan guri  
zer erakutsi ziguten.

Manuel Lasarte,  
Beranduko lanak,  
Auspoaren Sail Nagusia 3, 1992.

# Uztapideri

1

Zorioneko zure liburu  
*Lengo egunak gogoan*  
ez dakit nola nere eskutan  
eroria zen lehengoan.  
Ezjakin batek idatzitzeko  
ain ongi nola dagoan,  
zu goraltzeko ez dut arkitzen  
itzikan nere ahoan.

2

Eginkizun bat hartutakoan  
ez zera txantxetan hasten,  
zenbat ordu ta buruauste zuk  
liburu eder hau jazten!...  
Eskolan ere denbora asko  
ez zendun pasa ikasten,  
zuk nun arraio ikasi dezu  
horren ederki idazten?

3

Liburu honi egin zaiogun  
merezi duen arrera;  
harrigarria, motibo gabe,  
zuk egin duzun karrera.  
Oraindik ere begira zagon  
denok xpillu zaharrera,  
lotsatu egin behar genduke  
azaltzen zure aurrera.

4

Zure euskera ez datorkigu  
gaur jartzen diguten eran,  
herri soilaren esaera ta  
hizkuntza duzu aukeran.  
Kontseju onak ez dira jartzen  
inorentzako galeran,  
ura garbia nahi duzutenak  
iturri hontatik eran.

5

Alajainetan, Uztapide hau  
ez da hortik honakoa:  
bertsolaritzan paregabea  
ta idazle modakoa.  
Zeinek sinistu edade hortan  
zegoenik holakoa?  
Esaera da: "Berez behar du  
izan Billabonakoa".

6

Gazte haroan probatu zendun  
makinatxo bat langintza:  
lehendabiziko morrontza eta  
gero berriz ikazkintza.  
Zuk diozuna: "Orain ezin ni  
jakintsuen mailan mintza;  
maixu trebea izango nintzan  
eskolan izan banintza".

7

Txikitandikan lan gogorretan  
ondo zaildua, jakina;  
Euskal Herriko baso latzetan  
hamaika txondor egina.  
Nola ez dugu estimatuko  
horrelako ikazkina,  
bertsotan eta idazten ere  
ederki asko dakina?

8

Horra noraino iritxi zeran:  
ezer ikasi gabea,  
zu zerekasa egin zerade  
jakindurian jabea.  
Garai batean ikazkina ta  
orain idazle trebea,  
eskolan ere ezin liteke  
egin karrera hobea.

9

Zure egunak ere ez ziren  
izango oso errezak,  
ondoren hoiek ekartzen ditu  
munduan ondasun-ezak.  
Guri bildurra ematen digu  
garai hartako pobrezak,  
baina batzutan ongi letorke  
kentzeko gure lainezak.

10

Liburu hortan ez datorkigu  
umiltasuna besterik,  
haundinahi eta harrokeririk  
ez pentsatu ikusterik.  
Orri hoietan ez baizigun nahi  
besterik erakusterik:  
berez haundia danak ez dula  
behin ere haundi usterik.

11

Osasunean zauden bitarte  
liburu berria egin,  
zure euskera garbi horretan  
berriro ere hitzegin.  
Gure artean zabalduzako  
egingo dugu ahalegin,  
zure oroitzia maitagarria  
sekula galdu ez dedin.

12

Eskabide hau egingo nuke  
nere azken agurrean,  
urteak azkar joaten dira  
ta heriotza hurrean.  
Zure irudi bat eukitzeko  
geure begien aurrean,  
monumentu bat jaso zaiogun  
Euskal Herriko lurrean.

*Izazpi*

Jesus Mari Etxezarreta  
Zumarraga / Deba.  
*Zeruko Argia, 1974-X-20.*



# Manuel Olaizolari

(Uztapideren *Lengo egunak gogoan*  
liburua irakurri ondoren)

1  
Gure Manuel Olaizolari  
jartzera nua bertsuak,  
berak tajurik ez du izan da  
komeni zaizka batzuak.  
Oraindik ere gogoan dauzka  
gazte zaneko pausuak,  
eldu ta gero egindakoa  
buruan ondo jasua,  
aitormen danak merezi ditu  
orren gizon doatsuak.

2  
Atze-atzetik ni ere zerbait  
azaldu naiean nabil,  
Uztapideren putzu ortara  
ezin egin degu murgil.  
Bere denboran botea badu  
millaka bertso biribil,  
gure Jainkoak nai duen arte  
bat ezin baliteke il,  
gaitzak gorputza jipoitu baiña  
animaz indartsu dabil.

3  
Uztapideren idazte onek  
jarri dit eginkizuna,  
berarengana amarratu naiz,  
ez izan balitz lizuna.  
Liburu onak maite nai ditut  
nola baitan garizuma,  
zu, irakurle, esan nai dizut  
txit on egingo dizuna,  
zeruak ere zuzenarentzat  
geiago du maitasuna.

4  
Bekaizkeriz ta inkurriuan  
ez genduke bear mintza,  
baiña askotan lagun urkoa  
mendratu nairik gabiltza.  
Tankera ortan ez det ikusten  
Uztapideren eskeintza;  
iruditzen zait gau eder batek  
prestu egindako intza,  
mundu guztiak jakin dezala  
eraman duen bizitza.

5  
Morrontzan eta artzantzan, biak,  
latzago berriz basuan,  
nekea zer zan gaztea zala  
noski ikasiko zuan.  
Goizean egunsentian asi,  
jo ta ke egun osuan,  
ikazkin batek egur galantak  
ibili bear besuan,  
txanpon batzuen antsiarekin  
ez oso lan erosuan.

6  
Esaten digu gaiñera berriz  
itaiarekin garitan,  
bizkar gaiñeko otz aundi gabe  
eguzkiaren argitan;  
beti makurka jardun bearra  
atseden gabe gerritan,  
goizean begiz jotako lanak  
ezin txauturik sarritan,  
oitura aiek bukatu ziran  
ta... gaur zer Euskalerritan?

7

Etxe aldetik omen zebillen  
gerra zabaldu zanean,  
geroxeago Antiguako  
Zerbezerian lanean;  
lendik lagunak zirala eta  
Zepairen aldamenean,  
bertso-saioak lasai egiñaz  
gogoia zegoanean,  
militar jantzi bearrarekin  
komeriak azkenean.

8

Une batean aipatzen ditu  
gure kastaren berriak,  
garrantzi asko ez dute baiña  
jakin ditzala erriak;  
liburu eder bikain orretan  
nik dauzkat irakurriak,  
olako gauzak izaten dira  
iñoiz atsegingarriak,  
malkoz bustita gelditu nintzan  
len legor neuzkan begiak.

9

Uztapideren gizatasuna  
iruditzen zait bapua,  
ta bestek ere txartzat nola jo  
ori dan bezelakua?  
Gerra ondoren urte batzuek  
prestu igarotakua;  
orrek ezpaitu beera jatxiko  
beñere lagun urkua,  
San Josek ere maite duala  
jarriko nuke lepua.

10

Pentsatu orren ona ez dala  
besteren gauzak nastia,  
gure Jainkoak nai ote zuan  
ni lan onekin astia?  
Betiko penik izan etzezan  
artu zuan emaztia,  
bera edadez aurreratua,  
andria gazte-gaztia,  
ori egiten duten gizonak  
asko izaten ezitia.

11

Nere barrengo berotasuna  
ia biurturikan su,  
ipiñi dezun liburu ortaz  
zerbait mintzatu natzaizu.  
Sortu giñan da Euskalerriko  
semeak gera ni ta zu,  
orain oitura dagon bezela  
emango nizuke musu,  
lotsa gabeko ausarta banaiz  
barkatu bear didazu.

*Segundo Kalonje,  
Oriamendi, Donostia  
La Voz de España, 1975-III-16 eta 19.  
Auspoa 255, 1998.*

# Uztapide

Uztapide lagun aundia izan det nik. Urte askoan ibili gera erriz erri, ta gorabera asko ikusi degu.

Bertsolariak ere egun guztiak ez ditu izaten errexak eta gustokoak. Zer lagunartetan arkitzen dan ere, alde ederra dago, jaunak.

Jende bertsozalea bakarrik dagon tokian, ondo ibiltzen da bertsolaria; baño, batzuetan, tartean sortzen dira entenitzen ez dutenak edo ixilik egon ezin diranak eta olakoak ere.

Eta, ixiltasunik ez dan tokian, bertsozale aundi oiek aspertu egiten dira, ondo entzuten ez dutelako. Asko supritzen dute, ta bertsolariak ere bai. Pentsatzen du:

–Emen bertsoak ez ditek paltarik egiten eta alperrik ari gaituk! Obe diagu ixildu!

Oztu egiten da.

Uztapide umore ederreko gizona izan da, ta jendearekin kunplitzen dakiena.

Osasuna ere aberatsa izandu du beti, orain asko bajatu bazaio ere.

Alkarren zai ez degu denborik galdu beiñere. Ogei ta zazpi urtean ibili gera alkarrekin, da beti, joan bear zan tokira, izendatutako ordurako irixten giñan gu.

Batek edo besteak abixua artzen genduenan, azkar pasa alkarri, ta orduan

izendatu nuntsu bilduko giñan: goizean bazan lana, goizean; eta, arratsaldean bazan, arratsaldean.

Baño esandako toki ta ordu berean bildu alkarrengana, bestela ezin bazan tasis bat artuta; baten zai bestea egotea aspergarria izaten baita.

Guk ola jokatu degu, eta beiñere ez degu asarre bat izandu alkarrekin.

Beste bat, Azpeitiko Jose Lizaso da zuzena ortan. Ark, itza ematen badu, an izango da agindutako orduan. Ta gauza ederra da ori.

Uztapide gizajoa gaixotu zala Donostiko Anoetan bertsoan ari zala jakin nuanean, pena ikaragarria artu nuan.

Urrengo egunean joan nintzan bixitatzera, ta etzegoan gizon alaia.

Baña esku onetan jarri zan da ondo arkitzen da gaur. Poz ematen du.

Leitzan, nere omenaldikoan, asko supritu zuen. Bazkaltzera bildu giñanean, esan zidan:

–Estuasuna pasa al dek, Manuel?

Erantzun nion:

–Bete naiz oso!

Ta esan zidan:

–Ba, ez uan gutxiagotarako! Ni izan banintz ire tokian, gañezka egingo nian!

Ori da benetako laguna izatea.

Bertso auek berari jarriak dira.

1

Aspalditxoan ixilik negon  
penak ezin agertuan,  
ainbat zergatik sufritzen degun  
iñola ezin ulertuan;  
Manuel, bertsoz zuregan nua  
biotza ia lertuan,  
soñez urruti banago ere  
gogoz or nazu gertuan.

2

Ixilik zaude egun batean  
gaixo bat sortu zalako,  
animatikan sentitutzen det  
lagun izan geralako;  
ni ere triste naiz osasunak  
laguntzen ez didalako,  
mundu onetan gusto guziak  
komeni ez diralako.

3

Beti bezela sendo joan arren  
zere lan-aldietara,  
bein Anoetan iritxi ziñan  
une mingarrietara;  
notizi ura eldu zanian  
nere belarrietara,  
berialaxe lertu zitzaidan  
negarra begietara.

4

Uztapideren gaitza balitza  
guk sendatu gentzakena,  
seguru nago bertso kantari  
berriz laister litzakena;  
itz batzuetan zail da esaten  
zer dan eman duen pena,  
Euskalerrriak urte batzutan  
aztu ezin lezakena.

5

Arbol zarrari bein gaitza sartzen  
bazaio bere zañera,  
ostro berriak nekez etorri  
oi dira aren soñera;  
Manuel, ni're iritxia naiz  
arbol orren tamañera.  
zu ixiltzeak asko tristetu  
ninduen lenaz gañera.

6

Kantari ziñan urretxindorra  
bera dan bezin gozoa,  
iturri bati ura bezela  
sortzen zitzaizun bertsoa;  
biotz ona ta zentzun aundia,  
danera gizon osoa,  
zure langintza geldituko da  
artxibuetan jaso.

7

Ain osatua nola baitziñan  
eztarriz eta zentzunez,  
zu ixiltzea pena izan zun  
erriak, esaten zunez;  
amaik'euskaldun goxo egon da  
zure bertsoak entzunez,  
nola kantatzen zenduen beti  
apal da gizatasunez.

8

Omenaldiak egin dizkizu  
erriak bere ongi-naiz,  
zeu ere pozik egongo zera  
olako arreba ta anaiz;  
zu ilda ere zure izena  
paraje askotan da maiz  
gizaldietan aitatuko da,  
ni deskuidatzen ez banaiz.

9

Manuel, zure ondora bildu  
nintzan ni oso gaztetan,  
gogoan daukat noiz asi giñan  
aurrena alkar-izketan:  
Agoztuaren ogei ta lauan,  
San Bartolome festetan,  
lendabiziko bertso-saioa  
egin gendun Amezketan.

10

Artean nola bainengoan ni  
maixu jator baten paltan,  
zeuk ez dakizu zer kontsuelo  
eman zenidan gau artan;  
orduan oñez asi nintzan ni  
lenengo bide-sendatan,  
gizonak eztu proatu arte  
jakiten bera zenbat'an.

11

Esan zenidan: "Jainkuak urte  
asko ematen badizkik,  
gure anaiak bertsoa pranko  
entzun bearrak zioztik".  
Orduan alkar billatu gendun  
maitasunezko biotz bik,  
Euskalerrian amaika saio  
egin ditugu geroztik.

12

Geientsuetan nerea oi zan  
asierako agurra,  
berialaxe entzuten gendun  
zure erantzun xamurra;  
alde batera uzten zenitun  
pereza eta bildurra,  
erri bateri poz emateko  
zuk izan dezu adurra.

13

Bertsotarako zu izan zaitut  
nere gustoko laguna,  
konfiantza da bearrezkua,  
guk beti izan deguna;  
alako baten iritxi zaigu  
bakartutzeko eguna,  
onez aurrera izan dedilla  
gure Jainkuak nai duna.

14

Jaio orduko egiñak giñan  
gu euskeraren eredu,  
bertsolariak bere bizitza  
mendi-txorien pare du;  
arren, euskera, indartu zaitez,  
egiten dizut erregu,  
geu laister iltzen bagera ere  
zu bizitzea nai degu.

Manuel Lasarte  
*Gordean neuzkanak, Auspoa, 1975.*

## Uztapideri

1

Ondo dakit gaur bihotz gaxo bat astindu behar dedala,  
ai, Uztapide, barka zaidazu zu aitatzera noala.  
Burutan hartu dedan lan hontan Jainkoak argi nezala,  
esan nahiak ager ditzadan sentitzen dedan bezala.

2

Ez dakit zer dan zuri ni gaitik gogora datorkizuna,  
nik ez baidauzkat, ondo badakit, zure azta ta zentzuna.  
Halarik ere bada gauza bat onartu behar dezuna:  
maitagarria ez banaiz ere maitale suhar nauzuna.

3

Egun on batez bertsoen bidez zurekin alkartu nintzan,  
zu baino lagun hoberik ez det aurkitu ene bizitzan.  
Zure itzala berdintzen ere saiatu naiz ene gisan,  
nahiz nik egin indar guztiak alper alperrikan izan.

4

Norbaitek behin esan zuala entzun izan det nonbaitik:  
"Doai on batek argi dezake berdin anima gaiztotik".  
Iñork etzuan iñoiz esango horrelakorik zu gaitik,  
doai on hutsa zarelakotz zu barrendik eta kanpotik.

5

Jaunak zure gain utzi lan hontan zu izan zera gizona,  
trebea eta argiz betea, zure hitzetan sakona.  
Parra eragin behar zanean, hartako ere zu ona,  
gure denboran ezagutu dan bertsolaririk osona.

6

Egun ordea agorrik zaude, ai, ezin-beste estutan,  
heri gainera hainbeste ur on ixur ondoan burrustan.  
Herri honentzat eten zerala, arren, ez egon damutan,  
ordainez bere semen bihotzak hartu dituzu eskutan.

7

Dauzkazun doai oro dituzu gu danon mende ezarri:  
zure gogo eta bihotza, adimendu ta eztarri,  
amodioa eragile ta giza legea uztarri;  
begira egun zure eraintzak ekarri duan uztari.

8

Gure lan hontan bide guztiak ez dirade erosoak,  
bainan nekeak iñoiz ekartzen ditu ondoren gozoak.  
Zuk erakutsi gizatasuna eta zuk eman bertsoak,  
esker on askoz ordaintzen ditu gaur Euskal-herri osoak.

9

Ez dakit iñoiz bihurtu dezun Jaungoikoari eskerrik,  
mundurat eman zaituelako dana birtutez beterik.  
Etxe guztitan ez da izaten horren ispillu ederrik,  
zure semeak ez dauka orain horri behatu besterik.

10

Badakit nola etxean zauden zu ezinduraz betea,  
ni berriz ezin zure ganatu, hau egoera tristea!  
Gerta litaike munduan alkar guk berriz ez ikustea,  
eskerrak bizi honen ondotik hor daukagula bestea.

Xalbador  
*Zeruko Argia*, 1974-XI-3.  
*Odolaren mintzoa*, 1976

## Nere lagun Uztapideri biotz-biotzez

1  
Zestuako seme bat  
Uztapidekoa,  
euskerarentzat asko  
saiatutakua;  
arrokeri gabeko  
gizona bapua,  
gaur ezta billatutzen  
nunai olakua,  
aita bat bezelaxe  
maitatutakua.

2  
Gutxi izaten dira  
orrela diranak,  
ondo irabaziak  
zuk dituzun famak;  
zurekin kantatuzten  
ibili giñanak,  
zuretzako nunai ta  
beti lagun danak,  
amaika kontseju on  
baditu emanak.

3  
Iñoiz eztu maitatu  
arrokeririkan,  
burua makurtuta  
ibili baizikan;  
beti errespetoz ta  
ixil-ixilikan,  
etzitzaion paltatzen  
iñun lagunikan,  
sortuko al da berriz  
orrelakorikan?

4  
Gaizki esaten ez det  
nik beñere entzun,  
izketan jardutiak  
poza ematen zun,  
juaten zan tokiyetan  
guztiyakin lagun;  
gaur Ergoienen dago  
umill eta txukun,  
pozik egon zindezke  
zu ere, Oiartzun!

5  
Ikatz egiten asi  
gaztia ziñala,  
an e saiatuko zan  
ori egiñala;  
pentsatu urte batzuk  
izango dirala,  
gaur ere jarraitzen du  
umil da apala,  
geienak badakigu  
jatorra zerala.

6  
Danok izandu degu  
Manuelen premiya,  
ori izandu baita  
gure giyariya,  
ara, lagunak, esan  
biotzez egiya;  
gaitzak arrapatuta  
ixildu txoriya,  
lagun guziyak penaz  
lertu giñan iya.



7

Zepai zana ta biak  
amaika alditan,  
kantatutzen zutenak  
juandako erritan,  
itxuraz antzian da  
gizonan neurritan,  
alkar zirikatuz  
ta saio aunditan,  
poz ederrak emanaz  
juandako tokitan.

8

Jakinduriyaz ondo,  
eskolatik urri,  
auxen entzunda nago  
askotan zeorri;  
gu're bire ortatik  
gabiltzanak larri,  
gero beste lagun bat  
zizuten ekarri;  
ondo konpontzen ziran  
Manuel ta Basarri.

9

Zuen premia bazun,  
bai, Euskalerriyak,  
alaitzeko tristuran  
zebiltzan guziyak;  
pasa erriko pestak,  
auzo ta periyak,  
poza pranko emanak  
Basarri ta biyak,  
oiek izan dirade  
gure giyariyak.

10

Bertso bikañak bota  
burua jeikirik,  
ondo konpontzen ziran  
onak ziralarik;  
iñoiz etzuten izan  
oik bekaizkeririk,  
alkarrentzat etzuten  
oiek aitzakirik,  
sortuko al da berriz  
olako bikorik?

11

Gaur txoria ixilik  
bere basarrian,  
artzairikan onena  
zan gure larrian;  
lenago grazi ona  
zuen eztarrian,  
mingain gozoa eta  
petxua indarrian,  
etzan giro izaten  
aren baztarrian.

12

Askotan alkarrekin  
nunbait kantatzeko,  
pozez egoten nitzan  
arek deituzeko;  
alako maitia zan  
nunai ibiltzeko,  
beti biotza zabal  
bestei laguntzeko,  
motibuak badira  
Manuel maitatzeko.

13

Gaztien alde beti  
saiatu gogotik,  
bere ondorengiak  
izatiagatik;  
berak suprituta're  
etzion inportik,  
auxe pentsatzen nuan  
juanda nunaitik:  
zenbat ikasten degun  
Uztapiden aotik!

14

Danok eztitugu izan  
orrelako grazik,  
besterik etzekian  
ondo egin baizik;  
meritu aundik ditu  
mundun irabazik,  
nik eztet aitortutzen  
ala eztan gauzik,  
gazteak kantatzian  
egoten zan pozik.

15

Oiartzunen bizi da  
aspaldiko urtetan,  
len andik ibiltzen zan  
gogoz bertsetan;  
alkarrekin juanak  
amaika jaietan,  
orrekint kantatzeko  
gu beti pozetan,  
aita-semen antzera  
toki guztiyetan.

16

Ondo kantatutzeko  
bazitun patxarak,  
almazen ederra zun  
Manuelen ganbarak;  
aren bertsuarekin  
jendian algarak,  
gero ixildutzeko  
etorri bolarak,  
kalte ederra badu  
geroztik euskarak.

17

Ezkonduta Oiartzunen  
jarri zan bizitzen,  
obeto izango zala  
nunbait igarritzen;  
Euskalerrin danera  
andik zan ibiltzen,  
deitzen zuten danairi  
biotzez serbitzen,  
orain goxoki dago  
pamelia azitzen.

18

Jaungoikuak eskuan  
dauka agintzia,  
beste bueltarik ezta:  
antxen umiltzia;  
zeñen errexa degun  
gaitzak etortzia!  
Danontzat kaltegarri  
Manuel ixiltzia,  
okerrago izango zan  
burua galtzia.

19

Emazte ta semea  
bizitzen berekin,  
Manuelen anaia're  
ortxen da oiekin;  
pake santu onian  
oitura zarrekin,  
alkarri lagunduaz  
biotz onarekin,  
ondo konpontzen dira  
danak alkarrekin.

20

Ara bertso batzuak  
zure izenian,  
nai nuke izatia  
gozotasunian;  
Manuel nun dagoan  
jakin nai danian,  
Ergoien aldera jo  
al dezutenian,  
Oiartzunen bizi da  
Laguntzarrenian.

Mikel Arozamena  
*Nere aldia,*  
*Auspoa* 127 (1976).

## Uztapideri

1

Bertso batzuek jartzeko asmoz  
nola nagoan gaur ere,  
agian auek ez dira irtengo  
nai nuken bezin dotore;  
nere barrena ez dago lasai  
asmo auxe bete gabe,  
oraingo ontan zureztat dira,  
biotzeko Uztapide.

2

Ezbear batez egun batean  
bertsotan ixildu zanai,  
ainbat lagun ta bertsozaleak  
penaz utzi giñuzenai;  
bertso-lanean gutxik izan du  
orrek zuan ainbat doai,  
guk Uztapide egun orretan  
txit alaitsu ikusi nai.

3

Uztapideren omena degu  
apirillaren bostean,  
gu egun ori iritxitzeko  
jarriak gaude pozean.  
Beste gauzarik ez da entzuten  
oraintxe Zarautz aldean,  
Jaunak grazia eman deizula  
igarotzeko pakean.

4

Egun alaia izango dala  
ez det egiten zalantzik,  
ta bera iritxitzeko emen  
guztiok gaudela pozik;  
eta sinistu guk ez degula  
orretan beste ametsik,  
bertsolari on, gizon jator bat,  
omendutzea besterik.

5

Esan bezela, apirillaren  
bostean degu eguna,  
zure gorantzan omenaldia  
Zarautzen presta deguna.  
Santa Marinatarrak pozikan  
egingo degu al deguna,  
baiña guk ondo badakigu zuk  
geio merezi dezuna.

6

Marinatarrak maitetasuna  
diogu Uztapideri,  
gure esanetan alai ta zintzo  
ibili dan gizonari.  
Garrantzi aundiz zure gorantzan  
jarri degu egun ori,  
beso zabalik zai gaude eta  
beldurrik gabe etorri.

Patxi Larrañaga, "Barbero"  
Azkoiti / Zarautz  
El Diario Vasco, 1981-IV-2

# Uztapideri

1  
Jakin nai nuke Uztapideren  
borondatea nork duan,  
Euskalerrria serbitu dezu,  
Manuel, urte-morduan;  
eta erria zure goraltzan  
zerbait asi dan orduan,  
konturatu da gure izkuntzak  
zurekin zenbat zor duan.

2  
Zuk borondate berdingabea  
bazenduan lanerako,  
biotza beti zabal-zabalik  
Euskalerrri danerako.  
Zure sustraitik ez ote dira  
landareak aterako?  
Ori genduke etorkizuna  
euskeraren onerako.

3  
Zeure denboran amaika bertso  
zoragarritzko egiña,  
zuri entzuten egotea zan  
guretzat poz, atsegiña;  
baiña egun batez sortu zitzaizun  
geiago kanta eziña,  
naiago nuke beste ezer baiño  
berriz asiko baziña.

4  
Jarraitzailleak badaduzkazu  
Euskadin erri danetan,  
Zestuak geien goraldtu zaitu  
nola sortu ziñan bertan;  
Zarautzek berriz txit bereziki  
zuri oraingo onetan,  
Santa Marinatar zintzo oiek  
maite zaituzte benetan.

5  
Manuel maite, zure bertsoaz  
ni bai poztutzen naizela,  
ikusten baitet erri-muiñean  
bizirik dijoazela.  
Jaunak emanda urte on asko  
zuretzako ditezela,  
gure izarrak argi dagigun  
orain artean bezela.

6  
Nik, Uztapide, agur eginda  
buka nai det onezkero,  
zuk nai zenduken bezelakorik  
nigandikan ez espero;  
besarkada bat luzatzen dizut  
biotzetik bero-bero,  
zure maitale nik izan nai det  
beti, orain eta gero.

*Joxe Mari Lertxundi*  
*Auspoa*, 167, 1983.

Sail ontako 2, 3 eta 5-garren bertsoak,  
*El Diario Vasco*-n agertu ziran,  
1981-IV-12-an.

# Uztapide

(Doinua: Amurizak azken txapelketan txantxangorriari kantatutakoa).

1  
Mila bederatzireun laurogeita hiru,  
Ekainak zortzian gogor jo digu.  
Uztapide hil dela albistetu zaigu,  
bihotzaren dardarak arima du bildu.  
Txoriak ixildu,  
gogoak amildu,  
txisteziak bildu,  
aberriak mindu;  
heriotzaz guk, berriz, ezin agindu. (bis)

2  
O heriotz zitala, lapur pare gabe!  
Itxaso zakartua, etzaude bare.  
Gizonen bila zabiltz, zara bere jabe,  
nahi duzun dena ezin lortu zuk halare.  
Gorputzak mirabe,  
zure mende daude;  
baina, adiskide,  
non da aginpide?  
Manuel duzu hila, ez Uztapide. (bis)

3  
Etxaun, Urretxindorra, Xenpelar azkarra,  
edo-eta Fernando Amezketarra,  
ez da inoiz itzali piztu zuten garra,  
antzinatikan dator zugana indarra.  
Zeruko izarra,  
lurreko lizarra,  
poeten gitarra,  
bertsoen pitxarra,  
su gai berri zara, Uztapide zaharra. (bis)

4  
Ibili zen tokitan ibili zen trinko,  
herriak maitasuna bazion nahiko.  
Bestela hiletara ez zen etorriko,  
etorri zen jendetza behe eta goiko.  
Apez eta laiko,  
pare bat hogeiko,  
bertsolari fijo,  
zenbat ote piko?  
Agertuz Uztapide ez dela hilko. (bis)

5  
Baratzean dagoen pikuzko arbola,  
emaitza ugaria hor dariola.  
Uztapide honela uste dut dagola,  
ez bai dut ikusitzen bestela inola.  
Amaren odola,  
sabelean nola  
maitasun diola,  
haurraz da axola.  
Berdin elikatuz hitzaren kirola. (bis)

6  
Zakoa bete asmo harturik kolkoan,  
luma bat jarri zuen makil kakoan.  
Idazten hasi behar mutututakoan,  
oroipen aberatsez zankotik zankoan.  
Etorri ta joan,  
jo hemen ta jo han,  
ernai eta loan,  
ametsen zorroan,  
loratu zen *Lengo egunak gogoan*. (bis)

7

Zugandik ez genuen gutxio espero,  
ahotsez isil baina bihotzez bero.  
Eskribatu dituzu horrenbeste lerro,  
lana agertutzen da fin egin ezkerro.  
Landu bi jenero,  
prosaz lehenengo,  
bertsoz berriz sendo,  
ifar eta ego.  
Biek egin *Sasoia joan da gero*. (bis)

8

Zu goraltzeko ez dut aurkitzen hizkirik,  
ez dela ere ez du duda izpirik.  
Egoera honetan nor egon ixilik?  
Gogoetak datozkit sortaka zintzilik.  
Honta iritxirik,  
ez daukat pitxirik  
kofrean hertsirik,  
hain baliotsurik.  
Zure liburuetan zauzkat bizirik. (bis)

Xanti Zabala, "Lexo"  
Lezo  
Argia, 1983-VII-3.

## Uztapide zenari

(Doiñua: "Sor-lekua utziz geroz...).

1  
Berri trixte bat jakinik, sesitu nau ni bet-betan,  
barneak ezin jasanez hasi bainaiz nigarretan.  
Egun guzitako berriak jakin nahiz radiotan,  
uste gabez entzun izan dut Oiartzune alde hortan.

2  
Berri txarrak hartu behar onak balire bezala,  
ezin sinetsiz nagoen Uztapide hila zela;  
banakien aspaldixkoan hura gaixo zagoela,  
iduri zuen arbol azkar bat ezin aurdikiz nihola...

3  
Pausa zaitte, lo egizu, Manuel gizagaizoa,  
asko lan egina duzu, paregabeko usoa;  
zerbitzatu izan baituzu gur'Euskal-Herri osoa,  
merexitu ere baituzu baitezpada deskantsoa.

4  
Hegaldatzen zarelarik hortxet zeruetan barna,  
zuri begira dagotzi zuretzat ziren lagunak:  
Mattin ta Xalbadorrek tuzte hartu gakoak hor barna,  
zorionean hartuko zauzte amultsuki beren gana...

5  
Uztapideren joaiteak mintzen du Eskual-Herria,  
nigarretan familia, bai eta mundu guziaz;  
guzientzat sakrifikatu du bihotzaren erdia,  
maitasunean ereman baitu bere munduko bizia.

6  
Manuel gizagaizoa, zuri azken adiaua,  
mundu huntarik joaiteko jin zaitzu azken ordua;  
bihotz handiko zerbitzu eile, denentzat gizon prestua,  
betiereko, segur, ongi izanen da jujatua.

*Adixkidea*  
*Herria, 1983-VII-7*

## Uztapide il da!

Berri tristea edo gai illuna egokitu zait, nere liburuan azken bertsoak jartzeko.

Ekainak 8. Zerbait gogozko entzun naiean, radioa piztu. Zer entzungo? Ta: “Manuel Olaizola *Uztapide* il da”. Orra zer berri jaso nuan.

Zer esan nezake nik Uztapidetzaz? Nere ustez, esateko danak esanak daude. Berarekin gaztetan asi eta orain arte jarraitu dutenak, garbi kontatu dute Uztapide nor izan dan.

Nik egin nezakeana, borondaterik onenez, onoko bertso ale auek eskeñi, nere bertsoak Uztapiderentzat ezerezak izango badira ere.

1

Biotza daukat naigabetua,  
oroimenez nago motel,  
bertsolaria maite degunok  
gaude triste eta goibel.  
Zugaitz aundi bat ezkutatu da  
tronko, adar eta orbek:  
Uztapideko seme argia,  
Olaizolatar Manuel.

2

Ekainaren zortzigarrena  
nai arren ezin zait aztu,  
gertatutako berri illunak  
ez nindun askorik poztu.  
Egia zala esanagatik  
nik ezin nuan sinistu,  
naiago nuan ezpaldin banu  
gure radioa piztu.

3

Gaur triste daude Euskalerriko  
bertsozaleen biotzak,  
min eman zigun uste gabeko  
albiste illun zorrotzak.  
Bezperatikan asiak ziran  
tximist eta trumoi-otsak,  
denboraleai ere min eman  
zion aren eriotzak.

4

Amaika urte paseak dira  
asi zitzaizkala miñak,  
jende aurrean ezin kantatu  
egin arren alegiñak.  
Etzun alperrik denborik galdu,  
lan asko dauzka egiñak,  
esku ta lumaz ornitu zitun  
mingaiñez kanta eziñak.

5

Oso gazterik ikasi zuan  
beartsu gisan bizitzen,  
zenbat lan-mota proatu zitun  
zail da adierazitzen.  
Ikatz egiten ere jardun zan  
Zestuan da Izarraitzen,  
bai Donostian fabrikan ere  
zerbeza enboteillatzen.

6

Serbitu zitun nekazaritza,  
artzantza eta basoa,  
kantuz zabaldu zuan doaia,  
berdin euskera gozoa.  
Eta azkenik luma artuta  
dantzatu zuan besoa,  
baita dotore idatzi ere  
bere bizitza osoa.



7

Gauza zan arte millaka bertso  
euskal plazetan boteak,  
argatik zeuzkan beti zabalik  
Euskalerriko atea.  
Etzigun ainbat galera egin  
ondoezik egoteak,  
iru liburu eder or daude  
bere doaiez beteak.

8

Egintza onak utzi dizkigu,  
oiek ez dira joango,  
lan eder oiek ez ote dute  
beren frutua emango?  
Bertsotan onak ez datozenik  
ez det iñolaz esango,  
baiña utsune ori betetzen  
ez da erreza izango.

9

Bere illetak ospatu ziran  
eliza bete-betea,  
amazazpi apaiz meza eskeintzen  
aldare santu batean,  
bertsolariak malko jario  
agur itzak esatean;  
askok gogoan izango degu  
bizirik degun artean.

10

Azken agurra egin genion  
bizi geran lur gaiñean,  
geroztik amets asko egin det  
sinistatu eziñean.  
Orain atsedean artu dezala  
zeru zabal urdiñean,  
ta sendiari laguntzen diot  
atsekabe samiñean.

Martzelino Manterola

Oiartzun

*El Diario Vasco*, 1983-VI. 28 eta 29.

*Lore apal bat*, *Auspoa* 166, 1983.

## Uztapide zana

1  
Manuel zana jaiο ta gizon  
egin zitzaigun Zestuan,  
gero bizi zan erria ere  
gogotik maitea zuan.  
Aingeru bat or lagun artu ta  
kabia osatutakuan,  
il arte bertan bizi izan zan  
geroztik urte askuan.

2  
Gazte denbora pasatu zuen  
aizkorarekin basuan,  
gizarajoak lan gogorrean  
ain borondate osuan.  
Bazun berezko argitasun bat  
bere izate gozuan,  
zer izango zan zenbaitek duen  
eskola izan bazuan?

3  
Bere aotikan entzun izandu  
genduen bertso ederrik,  
arrazoietan zuzen joango zan,  
etzuen joko bazterrik.  
Manuel zanak mendekoari  
etzion egingo parrik,  
erri au zenbat gozatu zuen  
Jainkoak daki bakarrik.

4  
Naiz baserrian egin bizitza  
noiznai jeixten zan kalera,  
gu ere pozak bildutzen giñan  
ura zebillen aldera.  
Itzal aundiko errespetuan  
egingo zuen galdera,  
amaika aldiz ari entzuten  
gozatu izandu gera.

5  
Lenengo entzun genduenean:  
"Il da Uztapide zarra",  
Oiartzun erri ortara bildu  
giñan jendetza edarra.  
Azken agurra egin naiean  
begietatik negarra,  
itzaldu baitzan urte askoan  
argi egin zun izarra.

6  
Bagenekien gizarajoa  
gaixo zebillela aurrez,  
ta Oiartzungo elizan sartzen  
egun artan etzan errez.  
Batzuek antxen errezatutzen  
eta besteak negarrez,  
il zan amaika egi esanda  
guretzako on bearrez.

7  
Lagun maiteak emen utzita  
aldegin zuen betiko,  
ni Jaungoikoa izan banintzan  
ez nion joaten utziko.  
Gurekin emen bearco zuen  
eternidade guziko,  
sinistu ere ezin det berriz  
ez degula ikusiko.

8  
Doai apartak bazenitun zuk  
gure Jainkoak emanak,  
ainbeste ziran zoragarriak,  
Manuel, zure esanak.  
Geientsuenak gogoan ditut,  
zail da edukitzen danak,  
al dana egiten saiatzen gera  
zure lagunak giñanak.

9

Gizonak gutxi izaten dira  
zu ziñan bezin osuak,  
argatik daude zure esanak  
gogoan ondo jasuak.  
Zure tokia zeruan dago,  
etzaitu erreko suak,  
gorputza il zan betiko baiña  
bizirik daude bertsuak.

Pablo Zubiarrain, *Ernani-Txikia*  
Ernani  
*Auspoa* 190, 1985.

## Uztapideren eriotz ondoren

1  
Gaztetan ez da segurantzirik,  
eskaporik ez zartzera,  
alper-alperrik egitea da  
eriotzari atzera.  
Mundu ontatik geientsuenak  
joaten diraden antzera,  
zure ordua bete danean,  
gure Manuel, joan zera.

2  
Ezagutzera eldu giñanak,  
gizartean genbiltzala,  
aitortzen degu itxaropenik  
aundienean il zala.  
Dударik ez da, bukatu zaizu  
eriotzaren itzala,  
orain uste on zenduan Arek  
bere argitan zaitzala.

3  
Bertso eder ta zoragarriaz,  
pakezko giro gozuan,  
gu atsegintzen alegindu zan  
bere bizitza osuan.  
Biotz barrua beti bazeukan  
maitasun beroko suan,  
argatik orain goiko Jaun onak  
berekin artuko zuan.

4  
Euskal Erriko zugaitz sendo ta  
indartsu izan zerana,  
mendi gañeko arnas garbitan  
gure lur onek emana.  
Goian zinduzen zure sustraiak,  
goitarra zenduen dana,  
eta azkenik goi arnas orrek  
artu zaitu beregana.

*Teodoro Mujika,  
Zizurkil  
Auspoa 235, 1996*

## Uztapideri argazkia

Ni ezkonberria nintzan. Nere emaztea Elorrixako izebari laguntzera joana zan bertara. Nik ere an pasa nuen igande ura: 1968-ko San Sebastian eguna.

Uztapide aundiarekin egun bat pasa nuen nik ere: egun uraxe. Bera eta Lopategi ziran bertsotan. Bazkalondoan ni ere jarri ninduten kantuan. Iru edo lau bota nituan nola-alakoak. Uztapideren ondoan egun bat pasatzea zer zan probatu gabeak ez daki. Arek atsegindu egiten ziñuzen.

Bazkari-denboran, bere ateraldi batek erakutsi zidan edozein moduz ez zala jardun bear berarekin izketan. Lopategi gaztea zan eta gizon ikasia. An ari zan amar minutu inguruan bere adierazpenak egiten. Jende guztia isilik, berari entzuten. Alegia, mundua noiztik dan, eta gizona tximuarengandik datorrela eta abar. Manuel zaarra ere isilik; baiña alako batean esan zion:

–Ba, zu ere olakoxea zera, ba, ta sinistu egin bearko da.

An bukatu zan Lopategiren sermoia.

Illunabarrez, etxerako bidea artu bear zuten. Orduan ez zan automobil-biderik; nolabaiteko bide-aldapa eta lokaztiak baizik. Beeko kamiñero-etxera jeitxi bear; an bait zuten Lopategiren automobilla: *Diane* 6 urdiña. *Xaar-bide* zuan ize-na kamiñero-etxe orrek. Ximon kamiñeroak ere gurekin pasa zuen eguna. Eta berak lagunduko ziela beera jeixten. Nik ere laguntzera joan nai ba, artu giñuzen esku-argiak. Uztapide farola arekintxe oitua zala ta, besteok linternak-edo ba-

genituen. aterkiak, makillak...; zer ez zizkiguten eman?

Bertsolariei agur egiteko erromeria gelditu, eta jende guztiak:

–Aio, Manuel. Urrengo arte.

Abiatu giñan beeruntz. Atariko ordekatxo artan bazan lokatza. Beste ateraldia an zuen egiña Manuelek.

Lokaztiaren asieran gelditu zan eta galdetu zuen:

–Emen nundik degu pasatzeko lekuri onena?

Eta Ximonek erantzun:

–Emen dana berdiña: dana txarra.

–Orduan, goazen erdi-erditik –esan zuen Uztapidek, asko pentsatzen egon gabe.

Jeitxi giñan *Xaar-bidera*, ta an oiñeta-koak aldatu-eta egin zituzten bertsolariak.

Ximonek:

–Pasa sukaldera danok.

Etxekoandre Anjelitak su-ondo epela zeukan. Eta alako giro txarrean, istimatzten da ori.

Gogoan daukat nola sukalde erdian eseri giñan. Bost jarraulki atera zituen Ximonek: lautan esertzeko eta bosgarrena erdian. Etxekoandreak, erdiko aulkira, platerkada gailleta eta botil ardoa.

Berriro Ximonek:

–Benga, Manuel. Asi bertsotan kamiñeroari.

Bi aldiz esan bearrrik ez zegoen. Nik ez dakit gizon aren etorria nun buka zitekeen. Zortziko txikian jardun ziran. Ni ez nintzan ausartu aien tartean sartzen.

Lopategi ere oso ondo jardun zan. Jardungo ez zan, ba, arekin; bertso bakoi-tzean bide bat irekitzen zion-eta!

Uztapideren bertsozaritza nolakoa zan gau artan oartu nintzan. Bere maki-lla eskuan zuala jardun zan ura, eserita, bertsoetan; eta txapela aitonen erara jantzita.

Bere bertsoetako bat gogoan det:

Kamiñero guztiak  
alperrak zerate:  
egun guztia aitzur-  
-kirten kontra tente;  
kolperik egin gabe  
zortzi ordu bete,  
argatik gertatzen da  
ainbat azidente.

Noizbait altza giñan; nik nai baiño leen.

Nagusi-etxeakoandreak agurtu ondoren, ala esan zion Uztapidek Lopategiri:

-Jon, badakit Bizkaia emendik gertuago daukazuna; baiña gaurkoagatik eraman nazazu Oiartzuna.

1  
Era ontako Uztapide zan  
nik ezagutu nuena:  
asi bertsoetan borondatez ta  
bat bezelaxe dozena,  
erantzun bero arrazoitsuak,  
naiz bera izan otzena,  
itza betetzen zekiena ta  
jokabideetan zuzena,  
erri txikien maitale aundi,  
erriak maite zuena.

2  
Txapela beti baserritarren  
gisara jartzen zuala,  
aundi-txikian gizon arrunta,  
gorputzez ez zan argala,  
aurpegiz luze, belarriz aundi,  
euskaldun apal-apala,  
asi zirika ta erantzuna  
ez zan izango makala,  
berezko bertsolaria eta  
enbor oneko ezpala.

3  
Bazekien ark aguro jartzen  
jarri zeiken seriona,  
errespetua eta itzala  
ageriko zitzaiona,  
txoro-usairik gabekoa ta  
gizatasunez gizona,  
nabaitzen bazun maai inguruan  
guztiz bertso-giro ona,  
arrats osoan jarduteko ere  
ajola gutxi ziona.

4  
Garai aietan nork ez zuen nai  
gure Manuelen kide?  
Bazuen naiko erremate ta  
sobran ainbeste izpide.  
Bota albotik danbarra eta  
rau artuko zizun aide,  
bi ormetara gozo bota ta  
bera zure adiskide...  
Lagun, ez dakit zekizun baiña  
orixe zan Uztapide.

1997-ko iraillean  
Beranduko birigarroa, *Auspoa* 254.  
Nikolas Zendoia,  
Aia / Zarautz.

## Uztapide gogoratuz

Uztapideri buruz auskalo zenbat esan eta idatzi dan. Zenbat liburu, aldizkari, egunkari, komunikabide eta abarretan egin ote dira bere gorantzak? Baiña ziur nago gure ondorengoek ere luzaroan jarraituko dutela Zestoako bertsolariak mintzatzen. Bertsolari eta bertsozalerik dan artean, era batere edo bestera, beraien aotan ibiliko da Uztapide zanaren izena.

Gu (ni) ez noski, luzaroan mintzatzeko, bizi egin bear da luzaroan; eta ori, zoritxarrez, aaztu bearra daukat. Urteek ez bait dute barkatzen. Ala ta guztiz, bertsozalea naizen aldetik, eta gauza berri asko esango ez dedan arren, nik ere Manueli zertxobait eskeiñi gabe ez nuke gelditu nai.

Gure jaiotetxean, bertso-giroan sortu eta aziak izan gera. Aiton eta gurasoengandik, Fernando Amezketarra, Xenpelar, Bilitx, Pello Errota, Otaño, Txirrita eta geroztikako bertsolarien izenak eta bertsoak entzun eta ikasteko aukera noiznai izaten zan.

Giro artan, beraz, ez da arritzekoa zale-tasuna sortzea; eta gogoan daukat aitona zanak nola eraman nindun, Uztapidek bere *Lengo egunak gogoan (I)* liburuan aipatzen duan Martutene auzora. Jaiak ziran eta antxe izan nuan, leenengo aldiz, neri, ezaguera nuanetik, gizaki bereziak dirala iruditu izan zaizkidan gizon bertsolari aiei entzuteko aukera. Ze urtetan zan ezin dezaket esan, baiña berrogeigarren amarkadaren aseran zan. Bertsolariak, berriz, Telleri-Txiki eta Saiburu zirala esango nuke.

Ziur dakidana da txoratzen egon nintzala berariei entzuten.

Andik lasterrera, eta orduan bakarrik joana izango nintzan ziur aski, eskolara ere ara joaten giñan-eta, Martutenen bertan ezagutu nuen Uztapide, orduko oituran leiotik leiora bertsoan. Gustatuko litzaidake bertso-laguna nor zuan jakitea, baiña ez naiz gogoratzen.

Uztapideren irudia, ordea, txapela dotore asko jantzita, begien aurrean banekuka bezela daukat gogoan oraindik. Nola egin zezakeen ain gozo ta errez bertsoan galdetzen nion nere buruari. Norbait zan ere laguna, barka dezaidala, nere entzumen eta begiak Uztapideri bakarrik luzatu izanagatik. Umetako kontuak, dudarik gabe.

Ura zalako edo etzalako, artean mukiak kentzen ondo ikasi baiño leenago, kantatzera ausartzen ez banintzan ere, bertsoak asmatzen aritzen nintzan nere kasa. Asmatu ere egiten nituan nola-alakoak, baiña bi puntukoak; andik gora geiegi ziran –eta orain ere ala dira– neretzat. Baiña zorionsua nintzan, zerbait banintzala iruditzen zitzaidalako, eta ez dakizute asko zenbat gozatzen nuan...

Geroago, askoz geroago, 1970-an asita, gaur bizi naizen Loiola auzoan, eta *Txomin-enean* ere bai, Uztapideri gaiak jartzeko aukera eta zoria izan nuan. Aipatutako urtean, Arozamena, Zepai eta irurak etorri ziran bertso-tara Loiolara, San Inazio egunean. Irurak joanak dira mundu ontatik. Goian bitez.

Gaiak jartzeko ardura urte artan artu nuan, ain zuzen, eta alde batetik eskarmenturik ez, eta bestetik alako gizona be-tidanik izan diedan begiruneagatik-edo, beldurra ez, baiña alako errespeto berezi bat sortzen zuten nigan bertsolariek, eta Uztapidek zer esanik ez.

Ara zergatik: gai-jartze lanetan asi baintzan asi, geroztik bertsolari askori jarri izan dizkiet gaiak; eta denak esatea geitxo izango da agian, baiña amarretatik zortzi-ren aurpegian, gaia jarritakoan, gaiaren arabera, irripar, keiñu, begiratu edo imintzio adierazgarriren bat ikusi oi da beti; Uztapideren aurpegian, ordea, iñoiz ez. Beti jarrera bera eta seriotasuna nagusi.

Berak, irrifar ez-ezik, farra ugari ere egin arazi zuan arren, etzan irrifar errezekoa, oso gizon serioa baizik. Nik irudipen ori daukat beintzat. Geiago esango nuke: oker egongo naiz eta zearo alderantziz izango da, baiña pentsatu izan nuan, Uztapidek ez zituala gogozkoak gaiak eta ez zuala gustora kantatzen, iñork gaia jarritakoan.

Baiña, lantxo au osatzeko, *Auspoa* sailleko *Zepai bertsolaria* liburua eskuetan artu nuanean, 1969-an, Loiola auzoan, San Inazio egunez, Zepai eta Arozamenarekin egindako bertso-saioa aurkitu eta ara zer zion Uztapidek berak, gai librean ari zirala:

Luzaro ari gera lanian  
nola daukagun itzala,  
baña uste det nik gai batekin  
luze samar gabiltzala;  
entzuliak e aspertzen dira  
bertsolariak bezela,  
ixil gaitezen eta Anttonek  
gai batzuk jarri ditzala.

Esan eta egin, eta liburuak garbi dion bezela, gaia jarrita egin zuten ondorengo

saioa. Eta ara nola gauza bat geiago ikasi; eta aitortu bearra daukat nere uste eta irudipenak iñolako oiñarririk gabeak zirala; oker nengoala, alegia. Beste era batera esanda: ezjakintasunaren lanak.

1 Nik ezagutu zintudanean  
umea nintzan artean,  
badakit nun zan eta esango det:  
Martuteneko partean.  
Auzoko jaiak ziran eta zu  
bertsotan leio batean,  
lilluratuta utzi ninduzun  
betirako bat-patean.

2 Geroztik au da bertsotarako  
zaletasuna ta griña!  
Zure antzeko izaten badet  
amaika aalegin egiña.  
Baiña bertso bat kantatu nai ta  
beti ondoren jakiña:  
poto ez bada, neurritz gaizki  
edo bukatu eziña.

3 Bertsolaria izate ori  
ez da, ez, doai makala;  
eta, Uztapide, danok dakigu  
zu ala jaiio ziñala.  
Nik galdetzen det: eta zergatik  
ez nintzan ni jaiio ala?  
Ez al zekiten bertsoak oso  
gogozkoak zaizkidala?

4 Doairik gabe jaiio giñanok  
utsaren urrengo gera,  
nere emaitzei begiratuta  
nola ez eman tankera?  
Bertsolaritzan oso eskasa  
nik egindako karrera.  
juxtu-juxtuan iritxi bait naiz  
bertso batzuk idaztera.



- 5 Beraz, nik bertso batzuk idatzi  
eta ez oso txukunak,  
obeak ziran zuk, Uztapide,  
kantatzen zenizkigunak.  
Doai geiago etzidan eman  
Jaungoiko Guztialdunak,  
eta ezer gutxi egin dezake  
abildaderik ez dunak.

## Uztapide

1

Uztapide nik ezagutu nun  
gazte-gaztea nintzala,  
Berrobotik Belauntzara joanez,  
an pesta eder bat zala.  
Bertso-laguna Uranga zuen,  
oso aldrebes etzala;  
biak il ziran eta Jainkoak  
ondoan izan ditzala.

2

Bertso batzuek nik banekizkin  
paperetik ikasiak,  
baiña zearo zoratu nindun  
Uztapideren graziak.  
Nere gisara arritu ziran  
entzuten zeuden guziak,  
egun artako txaloak zitun  
ederki irabaziak.

3

Uztapide etzan giza eder bat  
dotore oietakoa,  
arpegiz zatar, belarriz aundi,  
euskaldun benetakoa.  
Gazte izanik zaarran itxura  
berekin artutakoa,  
arrazoietan eta bertsoan  
bera obenetakoa.

4

Gero alkarrekin biok bertsoan,  
garai aietan nork esan?  
Etorkizunan ustegabeak  
mundu ontako mudantzan.  
Esan leizkenak esanda daude  
Uztapideren gorantzian,  
gozamen pranko eman ondoren  
zorianera joan zan.

*Txomin Garmendia,  
Berrobi*

## Azken agurra

1

Poz au ez det, Manuel,  
galduko sekula:  
bertsogintzak zurekin  
bat egin nindula.  
Ongi dakit zuk grazi  
aparta zendula,  
ortarako doaia  
biok bagendula,  
nundik sortu zitzaigun  
ez genekigula.

2

Zutaz izketan asten  
naizen momentuan,  
gure bertsogintza det  
nik pentsamentuan.  
Ederra ta gozoa  
ziñan zu kantuan,  
alkarren maitasuna  
arturik kontuan,  
lan asko egin gendun  
guk pake santuan.

3

Iñoiz ez gendun autsi  
batasun-katerik,  
alkarri ez genion  
egiten kalterik.  
Zure aurka ez daukat  
itzik esaterik,  
zurekin ibilia  
naiz pozez beterik,  
lagun obeagorik  
ez dago izaterik.

4

Manuel, gu biltzean  
etzan falta ezer,  
ongi konpontzen giñan  
Jainkoari esker.  
Zuk erria serbitzen  
egin zenduen ler,  
kantatu zendulako  
ainbat bertso eder,  
zoriondu nai zaitut  
bein da milla bider.

5

Bertsoak premizko du  
legezko joskera,  
orixe baida bere  
soiñeko jazkera.  
Ez da ikasten egun  
batetik bestera  
garbiro erabiltzen  
ziñezko euskera;  
ni ez noa zarrari  
berria nastera.

6

Txoria aldatzen da  
basotik basora,  
bai ni ere, Manuel,  
pausotik pausora.  
Zu falta zaitudanez  
ez nabil gustora,  
ezin bainaiz iritxi  
zorion osora,  
gu biok len genduen  
maitasun gozora.

7

Kantatzen zenekien  
noiz, nola eta non,  
argatik jaso zendun  
ainbeste zorion.  
Biok alkarri ongi  
laguntzen genion,  
nik bertsozaleari  
begiratzen nion,  
amaika parre gozo  
eragin zenion.

8

Zure bertso gozoak  
ta umorekoak  
ziran ezta baiño  
gusto obekoak.  
Sake batzuk zenitun  
buelatik gabekoak,  
pelotari on baten  
molde berekoak,  
nork atera lezazke  
aien parekoak?

9

Nola sakeak eta  
ala erreestuak,  
nik ikusten nizkizun  
oso erreztuak.  
Zure bertsoak ziran  
apain orraztuak,  
baita ziriak ere  
txukun zorroztuak  
sartzen zenituela  
ez gaude aztuak.

10

Betiko ez da inor  
jaiotzen mundura,  
ori esan gantzake  
dakigun modura.  
Manuel Uztapide  
datorkit burura,  
bi aldetara joan zan  
gizon eder ura:  
gorputza lurrera ta  
anima zerura.

Manuel Lasarte  
*Uztapide gogoan* liburutik,  
*Auspoa*, 261, 1999.

# **Aldizkari eta abarretan**

**(Nikolas Aldaik egindako bilketa)**

## Aldizkari eta abarretan (Nikolas Aldaik egindako bilketa)

### Bertsolari guduak, 1935-1936, Euskaltzaleak, Donostia, 1936

*Lehenengo saioan Uztapidek kantatuak:*

Nere agurra emen bildu diran  
eusko donostiarrari,  
eta lantegi zoragarri au  
emen jartzen dutenari.  
Eskerrak eman bear dizkiet  
epai maieko jaunari,  
oiez gaiñera teatro ontan  
dauden entzule danari.

Nere maixu ta guzi emen det  
olerkari ikastola,  
ene anaia maitagarriak,  
artu entzuteko aioala. (sic)  
Emen ikusten det nik jendiak  
maitasun pixkat badula,  
bestela oinbeste euskeldun ezin  
onera bildu iñola,  
biotz barrendik agurtutzen det  
euskaldunaren odola.

*Bigarren saioari asiera emateko, onako  
bertso au abestu zuen Basarrik, gai jatzailea  
bera zan eta:*

Entzun, anaiak: orain asten da  
bigarren bertso saioa,  
doñuan aske, baiñan gai batez  
guziak jarraitzekoa.  
Ez dezute, ez, gauza alaia  
orain kantatutzekoa:  
"Gerra zitalen ondoren txarrak  
azalduz bota bertsoa,

ta agertu sutsu zein geiagoka  
beretzako gorrotoa".

*Onako hauek dira Uztapidek kantatu zi-  
tuenak:*

Kaltegarriak dira guretzat  
beti emen gudateak;  
badakizute, lenago ere  
itxi zituzten ateak.  
Gauza tamala ematen digu  
ara gudari joateak,  
eta zertako dira emengo  
aberatsen izateak?  
Gerraren kontra jaikiko dira  
Euskalerriko jendeak.

Gerra orretxek ipiñitzen dit  
bere aldiko itzala,  
zeiñek ez daki gauza orretan  
leen ibilli zirala?  
Urte batzuek igaro dira  
guda ori izan zala,  
kristau artean orrelakua  
bai negargarria dala,  
berriz e guda bildurgarritik  
Jaunak aparta gaitzala.

Emen gerade zazpi senide,  
danok alkar ezagunak;  
leno ikusi ez badegu ere  
ona iritxi egunak.  
Zabal ditzagun orain itxiak  
egon diran ate illunak,  
errukarriak dirade, anaiak,  
bai, gure biotz bigunak,

guda utzita alkar maiteak  
bear degu euskaldunak.

*Hirugarren saioa, Basarrik puntua jarri-  
ta egin zute. Hona Uztapiderenak:*

–Nolatan zabilta zu,  
kaixo, Uztapidde?

–Bein etorri bear da  
etorri naiz ni're.  
Gaur Donostian daude  
amaika adiskide,  
onetxek ematen dit  
ainbeste izpide.

–Len ere egiten ziran  
onelako jaiak.

–Zenbat bildu ote dira  
onera anaiak?  
Ementxe dabilzkigu  
jarritako gaiak,  
danak ikusten ditut  
aurrean alaiak.

–Polita al deiozu  
dala Donostia?

–Len ere aditu nuen  
beraren famia.  
Baiñan poztu naiz asko  
gaur ere ikustia,  
neretzat polita da  
oso Donostia.

*Laugarren saioa binaka egin zuten: Zepai  
eta Txirrita; Dargaitz eta Iriarte; Etxeberria  
eta Txapel. Eta, azkenik, hirunaka: Lujan-  
bio, ardozale, Harrieta, tabernari; eta Uztapide,  
sagardozale. Honek kantatutako bertsoak:*

Zurruteruak emen gerade  
Donostira etorriak,  
eran nairikan ardo beltza ta  
sagardo ori gorriak.  
Ementxen zuten botillakuak  
Naparrutik ekarriak,  
doble kobratu nai liguke ta  
il bear gaitu egarriak.

Onen tabernan sartu naiz ni gaur  
arduaren aitzakian,  
ni zurrutero ona nitzala  
gizon onek bazekian.  
Sagardo mia zeukala eta  
ardua saldu nayian,  
bertsolariak ekartzen ditu  
ardo onaren tokian.

Naiz tabernari Naparruako  
asiak dauden burruka,  
sagardo onen artu-emanak  
beti dira diru-truka.  
Kristau artean ezin liteke  
egi au iñork e uka:  
ai zer bertsuak bota leizkean  
sagardo onak baleuzka!

Onen tabernan aspaldi ontan  
ein det amaika bixita,  
baiña badakit nolatan daukan  
malezi txarraz jarrita.  
Naiago nuke bere taberna  
baldin baleuka itxita,  
ardu truke ura saltzen du  
kontzientzia utzita.

Gizon onetxen pasadizua  
esaten biar det asi,  
gizartean gaizki esana  
sekulan ez det ikusi.  
Tratukerian gezurrez dabil  
Jesukristoren igesi,  
ola badua a zer gustua  
emango dion Judasi!

Sagardo billa joaten gera  
guziok, zar eta gazte;  
taberna ontako pasadizua  
esango dizutet laiste.  
Beti or daude adiskideak  
nola igande ta aste,  
urarekin kentzen dizkigu  
sosak, arduaren truke.

Yakintza aldizkariak ere (1936, 148-157  
orrialdeetan) bertso hauetako batzuk argita-  
ratu zituen.

### **Euzko Deya, 1939, 4 zenbakian:**

Euzko Nekazari Bazkunak Azpeitian  
egin zuen hamalaugarren batzar nagusiaren  
berri ematen du Zubimendik, eta bertan Uz-  
tapide nola ezagutu zuen adierazten du, eta  
1936-ko Bertsolari Egunean Donostian  
kantatu zuen bertsoetako bat jasotzen du,  
baina ainbat aldatetarekin:

Kaltegarriak dira guretzat  
beti emen gudateak,  
badakizute lenago ere  
nola itxi ziran ateak.  
Gauza tamala iruitzen zaigu  
beti gudara joateak,  
bestela zertan dira emengo  
aberatsen izateak?  
Gerraren kontra jaikiko gera  
Euskalerriko jendeak.

### **Anaitasuna, 1960, 70 zenbakian.**

Urte horretan Euskaltzaindiak Bilboko  
Arriaga antzokian antolatu zuen jaialdian  
kantatu ziren bertsoak ekartzen ditu. Tarte-  
an daude Uztapidek San Inazio Loiolakoari

kantatu ziona. Baiña hori Auspoa Liguru-  
tegiko 42 alean, Noizbait izenekoan, 23  
orrialdean aurkituko du irakurleak. Baita li-  
buru hontan ere.

Ez honela ondorengo bi hauek "Ama ba-  
tek seaskan daukan semetxoari esango lioke-  
ena" kantatu behar zuen Uztapidek. Hona  
hemen zer kantatu zuen:

Une onetan au zoramena,  
seaskan det semetxoa;  
esnatu gabe zeramakian  
eguardi arte osoa.  
Aldamenean bere zai nengon  
ura zan loa gozoa,  
orain begiak zabaldu ditu  
dirudiela usoa,  
zerbait esan nai ta eziñ esan  
neri begira gaixoa.

Ateratzea nai du norabait  
luzaturikan besoa,  
arratsaldean joango gera  
Josetxonfana auzoa; (sic)  
gero txorien kabien billa  
etxetik goiko basoa.  
Txikia zera oraindik baño  
entzun zaidazu bertsoa,  
zartzarorako zure bear naiz  
ta izan zaitez zintzoa.

### **Olerti, 1963, 3-4 zenbakian, 134 orrialdean.**

Uztapide, bertsolari eskolatu gabea izan  
arren, bestek jarritako puntuari azkar eta  
egoki erantzuten maixua zela adieraziz, eta  
adibide bezala, Eibarko txapelketan jarri zio-  
ten puntua jasotzen da.

–Eibarren egiten da  
eskopeta pifia.



–Nik badaukat aspaldi  
ementxe egiña.  
Aspaldi izango dezu  
zedorrek jakiña:  
oker tirata ere  
botatzen dakiña.

–Tren onek erruberak  
zenbat ote ditu?

–Jakitia nai dunak  
azpira begitu.  
Jarritako guziak  
or izango ditu,  
baldin norbaitek orain  
kendu ezpaditu.

## ***Jesusen Biotzaren deia, 1961, 7 zenbakia, 5-7 orrialdeak.***

Goiarki *jesuitak Bilboko Capitol antzo-  
kian, 1961-ko Errege egunean izan zen bertso  
jaialdiaren berri ematen du.*

*Bederatzi bertsolarik kantatu zuten: Bas-  
sarri, Uztapide, Jose Joakin Mitxelena, Ma-  
ttin, Xalbador, Andres Narbarte, Juan Bau-  
tista Madariaga, Jon Mugartegi eta Jon  
Azpillaga.*

*Honela egin zuen Uztapidek lehen agu-  
rra:*

Bertsuarekin lanikan asko  
badegu emen eta or,  
izkuntza zutik egongo bada  
saiatu egin bear gogor.  
Eta Bilboko anai-arrebak  
zein portatzen diran jator!  
Beste lan bage Gipuzkoatik  
zuek agurtzera nator.

*Jaialdiaren beste pasarte batean, jarrita-  
ko puntuari honela erantzun zion Uztapi-  
dek:*

–Balego kantatzen gaur  
ementxe Txirrita...

–Naiago nuke ikusi  
goitik etorrita.  
Lenago bagenekien  
elkarren berri-ta,  
oraindik ere zerutik  
entzuten an baita.

*Kontuan izatekoa da, Uztapidek berak  
Txirritari Ereñozun egin zitzaion omenal-  
dian aitortu zuenez, Txirritak berarekin  
egin zuela mundu honetako azken bertso  
saioa.*

*Bilboko Capitol antzokian Uztapidek  
kantatutako bertsoetatik beste hiru jasotzen  
ditu Goitarki-k bere idazlanean. Inpernu-  
ari buruz kantatutako hiru hauek:*

Bear bezela azaldutzeko  
ez det egin esamiñik,  
Uztapideren aldetik ezta  
faltako, ez, alegiñik.  
Inpernu orretan ez dala falta  
eternidadeko miñik,  
ze su txarra dan ezin deu esan  
ez degulako mingaiñik.

Amaika alditan sermoietan da  
egona naiz aditua,  
inpernuetan sua dagola,  
baita burni goritua.  
Ura entzunik gelditutzen naiz  
bildurturik arritua,  
alare iñoiz aztu-alditan  
eiten degu pekatua.

Estutasunak izango dira an,  
nazka ta larritasuna;  
al baldin bada, egin dezagun  
emen bizitza zuzena.  
Ezta geiago ateratzerik  
bein zulora joan dana,

ain oñaze illun eta tristea  
ta iñoiz bukatzen eztana.

## **Jesusen Biotzaren Deia, 1961, 10 zenbakia, 25-26 orrialdeak.**

*Bilboko Capitol antzokian izandako jaialdiko beste saio bat dakar. Oraingo hau Narbarte eta Uztapidek egin zutena: Narbarte, txapelik erabiltzen ez duena; eta Uztapide, txapel-zalea.*

*Narbartek:*

Txapelik gabe dabil Narbarte  
bere denbora guztian,  
eta Uztapide neure igual  
ikusitzen dut aurrian.  
Oitura danak galdu ditula  
ia nago igerrian,  
arritutzen naiz onek txapela  
nola utzi dun etxian.

*Uztapidek:*

Narbarte, erantzun bear nizuke  
lengo oitura zarrian:  
etxetik txapelakin nentorren  
ta patxada ederrian.  
Edukazio piska bat nola  
dagon Bizkaiko lurrian,  
kendu egin det emen jartzeko  
jende jatorren aurrian.

*Narbartek:*

Txapel aundia ibil zendula  
nik emendik esanikan,  
kendu duala aitortu digu  
jende aundiagatikan.  
Nik berriz etxetikan onara  
etorria naiz utsikan,  
bate buruan ez naukan eta  
ez nun kendutzen lanikan.

*Uztapidek:*

Jende aurrian ez nioke nai  
esan nik itz zatarrikan,  
baiña gaia ala aginduta  
gaur nerekin alperrikan.  
Narbarte jaunak txapel kontuan  
beti dabil buru-utsikan,  
buru ariña duanak ez du  
bate txapel bearrikan.

*Narbartek:*

Onek esan tu gaurko onetan  
paragarritzko kontuak,  
buru ariña nonbait badauka  
Andres Goizuetakuak.  
Txapel aundi bat ibillitzen du,  
ala dirudi, tontuak;  
aren barrenen kabitzen dira  
Uztapiden talentuak.

*Uztapidek:*

Gaur Uztapide asko pozten du  
toki ontako txalo-otsak,  
auetxek dira bertsolariak  
artutzen ditugun pozak.  
Txapel on bat e gaur kostatzen da  
dendara joan da sosak,  
baiñan alare jantzi bear nik  
bestela ilko nau otzak.

*Narbartek:*

Zure atzetik prisaka nabil,  
urruti beti zoaz zu;  
ai, Uztapide, seguru nago,  
zu zaute bertsotan maisu.  
Esan bearrik bat ere ez daukat,  
zeorrek sobra badakizu:  
etxekua're emango dizut  
lengua eskas badezu.

Uztapidek:

Beste bertso bat kantatuzeko  
oraintxe nago ni gaian,  
onek e astian janzten du baño  
erantzi egiten du jaian.  
Txapela gizonak jantzi bear  
luke bear dan garaian,  
zartuta orain asi al zera  
señorito egin naian?

Andres Narbartek hogei ta hamalau  
urte zituen orduan; eta Uztapidek, be-  
rrogei ta hamabost.

## **Beasain, 1963** aldizkaria, 31 orrialdea.

Baztarrikatar I.-k izenpetutako artikulua  
bat dator urte bereko otsailaren 10-ean, Be-  
asainen izan zen bertsolari jaialdiaz. Martin  
Donearen mendeurrena zela-eta antolatuta-  
ko ekitaldia izan zen. Uztapide, Basarri, Laz-  
kao-Txiki eta Manuel Lasarte jardun ziran,  
Iñaxio Atxukaroren esanetara. Eguna iri-  
txi baino lehen saldu ziran sarrera guziak.

Jaialdi honetan Uztapidek kantatutako  
hainbat bertso jaso ziren Auspoa-ren 42 ale-  
an. Ez, ordea, ondorengo puntu honi eman-  
dako erantzuna:

–Katuak tellatutik  
illargiari miao...

–Zerbait esan bear da  
esaten digu au.  
Mundu ontan badirade  
bai onelako lau,  
katu biurtuko nau  
toriatzen banau.

Ezta ere Uztapidek Basarriri Iparragi-  
rrearen bozean kantatu zizkionak. “Zure bi-

zitza guziko adiskide on bati bi bertso” kan-  
tatzea eskatu zion Atxukarro gai-jartzaile-  
ak; eta nori kantatuko eta Basarriri:

Lendabiziko lagun zar on bat  
bear burura ekarri,  
asi baño len dezute zuek  
zein izango dan igarri.  
Ain gera lagun biok,  
berai kantatuko iot  
estuasuunik gabe sarri,  
biotz-biotzez nola maitatzen  
detan or dagon Basarri.

Nere ustetan bertso batekin  
nuen lan dena amaitu,  
baña oraindik e gure Atxukarrok  
piska bat tentatzen gaitu.  
Nola geraden anai,  
Basarri, biok jarrai,  
euskerak danak bear ditu:  
zu zeralako ni ere piskat  
eiten ari naiz aunditu.

## **Lartaun, 1963, 12** zenbakia, 276 orrialdea.

Uztapideri elkarrizketa bat egiten zaio  
Oiertzungo herri aldizkari honetan, eta  
amaieran bi bertso eskatu. Honako hauek:

Jaiotzen danak il arteraño  
bizi bear du munduan,  
eta galdetu nizun neretzat  
ia lekurik zenduan.  
Eta, Oiertzun, artu ninduzun  
zure semien moduan,  
amabi urte igaro arren  
oraindik daukat goguan,  
bizi tokia eman zendula  
nik bear nuen orduan.

Erri polita, paketsu zaude  
Urkabe mendi-oñetan,  
pagoen itzal ederrak ere  
alboko mendi gañetan.  
Lartaunen odol sendoa dago  
erritarraren zañetan,  
zar ta gazteak danak euskera  
dabilkite ezpañetan,  
ai, Oiartzungo erri maitea,  
jatorra zera ziñetan!

### **Boga-Boga, 1964, 27 orrialdea.**

*Txomin Agirre idazlearen mendeurrenean bertsolariak kantatu zizkioten aleak jasotzen dira Ondarroako herri aldizkari honetan. Baina beldur gara Uztapideren bigarren bertsoa ez ote dagoen behar bezala jasota, batik-batik bigarren bertsoaren lehen puntuaren hasieran. Jonela dakartza bi bertsoak:*

Ondarroako erri maitea,  
zuretzat nere bertsoa,  
nik zuregana beti pozetan  
nere biotza jasua.  
Euskaldun zera ta arrantzale  
ia-ia erri osua,  
gau eta egun zuri laztanka  
Kantauriko itxasua,  
Txomin Agirre aundia sortu  
zenduan kabi gozua.

Egun da Txomin Agirre (sic)  
mundu ontaratu zala,  
eta entzun det omenaldi bat  
egiteko dabiltzala.  
Ark egin baizun *Garoa* eta  
ark egin zuen *Kresala*,  
juzkatua zan gizon aundi ta  
euskaldun on bat bezala,  
gure Jainkoak zeru goietan  
ala juzkatu dezala.

*Agian, bigarren bertso honen lehen puntuaren hasiera beste hontara izan zitekeen: "Ehun urte da Txomin Agirre..."*

### **Príncipe de Viana, 1967, 11 zenbakia, 3 orrialdea.**

*Anzanarri-k izenpetzen duen Bertsolariak idazlanak, Uztapidek eta Manuel Lasartek, 1967-ko San Jose egunean, Elizondoko Antxitonea trinketean egin zuten bertso-saio bat ekartzen du. Xalbadorrek eta Lazkao-Txikik ere kantatu zuten jaialdi hartan.*

*"Beti lanean eta beti pobre bizi dena" izatea egokitu zitzaion Uztapideri. Lasarteri, berriz, "pobrea bai, bainan batere lanik egin gabe ederki bizi dena".*

*Uztapidek:*

Ia, bada, Lasartek  
era dun konpontzen,  
baiña gauza zailla da  
gizon txarrak ontzen.  
Beti lanean ari gera  
eta dena kentzen,  
oraintxe aspertu naiz  
alperrak mantentzen.

*Lasartek:*

Ikusi dituzute  
atarramentuak,  
ta erantzuteko nik  
gaur pentsamentuak.  
Badakizu zein diran  
lanaren kontuak,  
ori egiten dute  
olako tontuak.

*Uztapidek:*

Zuengandikan sortu  
izan dira gerrak,  
ikaragarrik dauzkat  
zuri esan bearrak.  
Merezi ez ditunai  
nola eman eskerrak?  
Guk eñak jaten beti  
ai dira alperrak.

*Lasartek:*

Badakit erantzunak  
zuzen datozela,  
ta badakit temara  
onuntz gatozela.  
Itz batean esan du  
alperra naizela,  
argatik bizi naiz ni  
gizonak bezela.

*Uztapidek:*

Beste bertso bat bota  
bear diot mardula,  
badakit arrazoia  
gerekin degula.  
Au bera're listoa  
ez da izan sekula;  
alderdi bakarra du:  
lotsarik ez dula.

*Lasartek:*

Langillea, izketan  
zabiltza zu argiz,  
nik ere erantzungo  
det euskera garbiz.  
Nekatuta ikusi det  
makiña bat aldiz,  
ola ezin ibilli  
listua izan balitz.

*Uztapidek:*

Lanera ez du joan nai.  
egunero oporra,  
lanik ein be bizitzia  
da lanik gogorra. (sic)  
Dirurik ez dabilki  
eta nunai zorra,  
kartzelara joan bearra  
dauka derriorra.

*Lasartek:*

Ez zaidazula bota  
olako txisterik,  
zuregandik ez dago  
arrazoi tristerik.  
Zu ere ez dago ondo  
emen ikusterik,  
ezer ez dezu aurreratu  
nekea besterik.

## **Zeruko Argia, 1972, 501 zenbakia, 2 orrialdea.**

*Iñaki Eizmendi Basarrik ematen du Uztapideri Astoria aretoan egin zitzaion omenaldiaren berri, antolatzaileak eta partaideak nortzuk izan ziren zehatz-mehatz azalduz.*

*Eta bere kronikaren bazterrean, Bertso Berriak izenburupean datorren idazlanean, Uztapideri Ziriako Andonegik egindako elkarrizketa bat jasotzen da. Galderak hitz lauz, baina erantzunak bertsotan dituen elkarrizketa. Idatzian ez da zehazten, baiña 1965-ean egindako elkarrizketa izan behar du. Urte hartako Urteberri egunean jokatu zen txapelketako kontuak baiditu abiapuntu. Uztapidek urte hartan jantzi zuen bere bigarren txapel haundia.*

*–Zer diozu Urteberri egunez Anoeta-n izandu zan Bertsolarien Txapelketari buruz? –galdetzen dio Ziriako Andonegik.*

*Eta Uztapidek:*

Anoeta-ko pelota-plazan,  
Urteberri egunean,  
arriturikan gelditu nintzan  
lenengo begirunean.  
Lau milla eta geiago euskaldun  
an ikusi nitunean,  
pentsatu nuen oraindik bizi  
giñala zorionean.

*-Txapelketa asi aurrez uste al zendun  
lendabiziko ateratzerik?*

*Uztapidek:*

Ni Urteberri egunez nengon  
ziaro kezkaz betia,  
errexka baita eskutan dana  
besterengana joatia.  
Ta bertsolari gazte batzuek  
oso bizkorrak baitia,  
ez nuen uste aurten txapelik  
etxera eramatia.

*-Bertsolaritza indar aundia artzen ari  
dala esango nuke. Zer derizkiozu?*

*Uztapidek:*

Geldi egonda ez dago ezer,  
beti zerbait lanetikan;  
gaurko gazteak ikusten ditut  
oso bide onetikan.  
Landare onak sortutzen dira  
Euskalerra danetikan,  
bertsolaritza indartzen ai da  
gu gazte giñanetikan.

*-Eta, azkenez, oraingo bertsolari gazteen  
artean gaitasun, trebetasun edo egokitasu-  
nik badagoala uste al dezu?*

*Uztapidek:*

Bertsolariak len bakar giñan,  
gaur baditugu jabeak;  
umezurtz gisa ez gera bizi,  
gurasorikan gabeak.  
Gaurko gazteak daude lanean  
egokiak ta trebeak,  
bertsolariak ikusten dira  
gero ta gero obeak.

## **Príncipe de Viana, 1975, 112 zenbakia.**

Euskalerrian zear bertsolari billa Her-  
nandorenak izenpetzen duen idazlanean, Ba-  
xurko zenaren berri ematen zaigu, eta bai  
Urruñan egin zitzaion omenaldiarena ere,  
1958-ko apirilaren 4-an. Omenaldi horretan  
jokatu zen gero Parisera bertso tara joango  
ziren lau bertsolarien sailkapena. Partaideek  
Baxurkoren izenean bertso bana kantatu be-  
har izan zuten Urruñan. Hona hemen Uz-  
tapiderena:

Nik e Baxurko aipatu nai ta  
ezin det pentsatu nola;  
gizon zuzenagorikan beintzat  
ez leike izan iñola.  
Zuzenarentzat dago zerua,  
denak begira gora;  
ia gu ere juaten geran  
Jaunaren beran ondora.

## **Deia, 790 zenbakia.**

Ondarroako Aguztin Zubikaraik Uzta-  
pidek Antonio Arrue zenari emandako ber-  
tso bat dakar. Udaberriko zizei buruzko ber-  
tsoa da.

Ziza zuria udaberrian  
lenbizi etortzen dana;

usaia oso ederra dauka  
zeruko intzak emana.  
Bat ikusitzen degun garaian  
pozikan berarengana,  
ez da merkea izaten baiña  
beti bada zeñek jana.

## *Egan, 1985, 5-6 zenbakia.*

*Parisen 1958-an jokatu zen txapelketako bertsoak azaltzen dira. Ohar batean honela jakinarazten da:*

*“Agiriok J. Zaitegi zenaren paperetan aurkituak dira, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan”.*

*Hernandorenak antolatu zuen txapelketa horretan, Xalbador, Mattin eta Basarri izan zituen kantu-lagun Uztapidek. Honen bertso hauek argitaratu zituen Egan aldizkariak:*

Ara zertxo lan eman didaten  
lenez neukana goguan,  
bestela zer esan pentsatzeko  
txoki txarrean nenguan.  
Euskaldun asko ez bagerade  
zabaldurikan munduan,  
banaka batzuk juntatu gera  
emen alkarren onduan,  
baño eztakit urrutieneko  
anaia zeñek nun duan.

Nagusi batek agindu zidan,  
nik kendu biar txapela;  
badakit orren aurka itzikan  
ezin egin ditekela.  
Euskaldunak txit gutxi gerade,  
len ere esan det onela,  
danak banatzen gerade berriz  
ardi galduak bezela,  
danak batera juntatu, arren,  
pixkat indar gaitetzela.

*Hona hemen Uztapidek 1958-an Parisen kantatu zituen beste bi bertso. Lau bertsolari jarritako gaia:*

*–Zer egin leitekean euskeraren galtze izugarri onetan, eta zer egin leitekean olako itxurara txarretik goratzeko, altxatzeko eta berpizteko.*

### *Uztapidek:*

Ara nundikan egin diraten  
berriro ere imurtzi,  
badakizute, iuian esanik  
ezin egin gabe utzi.  
Gaur desgraziz, bai, itzegiten da  
euskeraz denen txit gutxi,  
orla bagoaz izkuntza galdu  
bear da biar edo etzi,  
geuk dakiguna egiten jarrai  
ta dakiguna erakutsi.

Ia argitzen degun ba denok  
gure memori ariña,  
euskera bizirik eukitzeko  
badaukagu zer egiña.  
Eta siñistu zein dan bera  
bezin garbi ta berdiña,  
seaskan giñan artean gure  
amak goxo itzegiña,  
orreri eusten saia gindezke  
seme jatorrak bagiña.

*“Orain izango dira: Xalbador, donado edo mutiltzaharra; eta Uztapide, gizon ez-kondua.*

### *Uztapidek:*

Emandako suietik  
ezin emen kendu,  
ta Hernandorena jaunak  
auxe esaten du:  
ni nintzala gaur baño  
lenago ezkondu;  
onek, egitekotan,  
garaia omen du.,

*Xalbadorrek:*

Ezkondu hioen berri  
ikasi dut beti,  
baño gorrotorikan  
ez diotet atxiki,  
Hau ikusita hola  
postura egoki,  
zu etzira bizitzen  
ni bañoñ hobeki.

*Uztapidek:*

Ezkontzen saia zaitetz  
zu egiñalian,  
nola akabazko tratu (sic)  
ortan estalian. (sic)  
Mutilzar asko gaizki  
mundu zabalian,  
amarretik seik lo egin  
oi dute kalian.

*Xalbadorrek:*

Bañoñ alegre azaldu  
lo egin da gero,  
ostian ongi izatea  
ezpaitu espero.  
Mamurrez bizi zerate  
ezkonduak oro,  
nik ez dut nai korbatikan,  
naiago dut libro.

*Uztapidek:*

Berriz ere erantzun  
bear dizut bereala:  
ezkondu obe dezula  
nola edo ala.  
Gaur bizkor egon arren  
zartzera makala,  
atzen orduan izango  
dezu ospitala.

*Xalbadorrek:*

Zu ezkontzean arritu  
izan zen mundua,  
laguna hartu zinuen  
egin gabe ordua.  
Xalbador prantxarik gabe  
beti aintzina dua,  
naiko zentzun ar zazu  
zehauren burua.

*Uztapidek:*

Lagun gera ta itzegin  
bear dizut suabe,  
gero zartzian izan ez  
dezazun naigabe.  
Ezkondata ez da egiten  
milloiaren jabe,  
baño ez leike ondo bizi  
emakume gabe.

*Xalbadorrek:*

Gazterik hartu zenuen  
lepotikan soka,  
alta, begiratzeko ari  
nintzaizun otoika.  
Tabernan edan eta  
zerbeza edo kopa,  
etxerakoan segur duzu  
andria mokoka.

*Uztapidek:*

Zuk esanda eztauzkat  
oiek ikasiak,  
eztira ezkondata ongi  
bizitzen guziak.  
Batzuk daude matrimonio  
ziaro autsiak,  
baño errieta oiek dira  
ongi mereziak.



*Xalbadorrek:*

Barnatago, Uztapide,  
nahi nuke sartu,  
ni donado zarra naiz,  
geiau nahi dut zartu.  
Etzazula gero gaizki  
enegatik sortu,  
pakia nai duenak ez  
andrerikan artu.

*Uztapidek:*

Nik urrutitik ditut  
gauzak ikusitzen,  
eta zu're asi zaite  
nigan ikasitzen.  
Laste asten ez bazera  
semiak azitzen,  
lan txarra da zartzian  
itxuran ibiltzen.

*Xalbadorrek:*

Donadotako gogoia  
deraukat nik sano,  
pakean edanen dut  
zenbait baso arno.  
Ezkontzerik ez dut pentsa  
iñoiz egin bano, (sic)  
donado hobe da gaizki  
ezkondurik baino.

*Ondorengo beste saio hau lau bertsolariak  
gairik eman gabe eta puntuka egin zuten:*

*Uzt.:* Orain bertsuari  
eman puntu bana.

*Bas.:* Orrela egingo degu  
komeni dan lana.

*Mat.:* Nik ere segi behar  
lagunek errana.

*Xal.:* Bizi dadin pixka bat  
jana ta edana.

*Bas.:* Guk zerbait esan eta  
jende dana irriz.

*Mat.:* Gu ere etorriko gaituk  
leku hunta berriz.

*Xal.:* Nik ere ez dut arantiko  
ixta bat ez baiz, (sic)

*Uzt.:* Bai, ibili baziñan  
oraingo ontan neurriz.

*Mat.:* Xalbador ez al da ba  
neurriz ibilia?

*Xal.:* Ez daukat errukiturik  
gaurko itzalia.

*Uzt.:* Atzo bazun eraririk  
ezin estalia.

*Bas.:* Jaunari esker urruti  
daukat familia.

*Xal.:* Zuek ere or ziñaten  
Xalbador bezala.

*Uzt.:* Ez det uste zu bezela  
ni jarri nintzala.

*Bas.:* Gauerako pentsatu  
xelebretu zala.

*Mat.:* Muxurtzen bai gu sarri  
nola edo ala.

*Uzt.:* Ori zerbait baldin bada  
gu ere lagunak.

*Bas.:* Noiznai ez dira izaten  
olako egunak.

*Mat.:* Serioz ibiltzeko  
ezkai etorri hunat.

*Xal.:* Ni txarra naizela baino  
hauek ere ez unak.

*Bas.:* Moko beraka zioak  
or dagon txoria.

*Mat.:* Hori eremateko da  
jaun hau etorria.

*Xal.:* Horren kolorea zer da:  
beltz edo oria?

*Uzt.:* Ez eging tiroak emanda  
orrela eroria.

*Mat.:* Xalbadorrek ez al daki tiroa botatzen?

*Xal.:* Uxoeri behintzat ez dut bertzerik bilatzen.

*Uzt.:* Nora tira bear zaion ez du begiratzen,

*Bas.:* Punteri ona daukanik nik ez dut pentsatzen.

*Xal.:* Zuek tiratzen duzute nahiko astiro.

*Uzt.:* Nik ondo jotzia nai ta eman eiten tiro.

*Bas.:* Parisera ez omen dator berriro. (sic)

*Mat.:* Olako lagun artean ezta beti giro.

*Uzt.:* Beraz, lagunarte ontan ez dago atsegin.

*Bas.:* Olakoakin obe da batere ez itzegin.

*Mat.:* Untsa mintza baino errexo baita hemen hutsegin.

*Xal.:* Kanta dezagun laster eta gero aldegin.

*Bas.:* Radiatua ote da gaurko saioa?

*Mat.:* Nork estimatu behar dik honen balioa?

*Xal.:* Toki hontan bero bada zabaldu leihoa.

*Uzt.:* Au kanpotik entzuteko ez da serioa.

*Mat.:* Denek ongi al gaituzte hemen konprenditzen?

*Uzt.:* Egiten bagaituzte ere ez gera arritzen.

*Xal.:* Gure aldak eta lanak (sic) ezta errez biltzen.

*Bas.:* Bertsolariak nagusi dira gaur Parisen.

*Lau bertsolariek gai berari buruz bina bertso kantatuz egin zuten saiotik, Uztapidek kantatutakoak dakartzagu honera.*

*Hernandorenak jarritako gaiak honela zion: "Euskalerritik kanpo, bere etxea utzirik, Parisera edo Ameriketara dijoan seme bati zer kontseilu eman lezaizkioken".*

*Eta Uztapidek:*

Seme euskaldun bat doa kanpora etxetik, ta aitak zertxo pena duen biotzetik. Bere izena eman baizion sortzetik, bere abenda ona ez galtziagatik, aren bidean segi ber dio geroztik.

Dirua irabazten da kanpoko langintzan, bañan ez, seme, aztu utsaren peskizan. Seme on bat bezela sar zaitetz eleizan, lagunakin portatu euskaldunen gisan, ta gurasoak ere ez aztuak izan.

*Uztapidek eta Xalbadorrek egindako bi saio jasoko ditugu segidan. Ama-alabak izan-go ditugu. Hernandorenak: "Uztapide, ama; eta Xalbador, alaba".*

*Uztapidek:*

Zu sortu ziñanetik ni naiz zure ama, lenbiziko asnasakin nintzan zuregana. Jaiotzatik doaia ustez nun emana, orain kanpotan egin bear dezu lana,

gogoan artu zazu  
gaur amak esana.

*Xalbadorrek:*

Gure Jaunak zerutik  
urrikal gaitzala,  
saia gaiten hortara  
guk egin ahala.  
Badakizu betitik  
zurea naizela,  
nauzuke aurkitu (sic)  
semean itzala,  
nik etzaitut utziko  
semiak bezala.

*Hernandorenak: "Ez dute, ene iritziz,  
ondo konprenditu. Uztapide da etxean gel-  
ditzen dan ama; eta Xalbador, urrutira dijo-  
an alaba. Kantatu duten bertsoak ez du ba-  
lio, eta berriro asten dira".*

*Uztapidek:*

Lenak balio ezpadu  
asiko naiz berriz,  
alaba, oraingo au  
izango da egiz.  
Zugan bustitzen nago  
malkoz ta izerdiz,  
beti gogora zaitez  
begirapen aundiz  
len esan dizudana  
makiña bat aldiz.

*Xalbadorrek:*

Eztu balio, ama,  
hastia negarrez,  
beti izandu zira  
haundia indarrez.  
Atzotan idukia (sic)  
kontu eta parrez,

etxian bizi ginen  
bizimodu txarrez,  
nola daukazun karga  
arindu beharrez.

*Uztapidek:*

Etxeko pekatu-rik  
ez leike estali,  
erantzun txarra, alaba,  
ez dezu bidali.  
Bai, ez gendun egiten  
eunero bijili,  
egonduagatikan  
sei zazpi pamily,  
zu an bear badezu're  
itxuran ibili.

*Xalbadorrek:*

Joaiteko itzaia  
lengoa dut hartu,  
itzultzen naizeneko  
ez otoitza aztu.  
Zuen karga nahi nuen  
parte bat nik hartu,  
ezin bizia baizen  
etxian maiz aitu,  
gaurtik goiti alabak  
lagunduko zaitu.

*Uztapidek:*

Bizi bearrak ditu  
milla eginkizun,  
badakit, alaba, nik  
zer esan didazun.  
Kanpoan ere izan  
zazula osasun,  
badakizu zer pena  
ematen didazun,  
goguan izan bularra  
zeñek eman zizun.

*Xalbadorrek:*

Ez da txista ematen  
ez dun elorririk,  
kasik urriki izan naiz  
mundura etorririk;  
ama, etzinuen zuk  
penaren beharrik,  
nik eztizut egingo  
egitate txarrik,  
maitatuko zaitut ta  
ez egin nigarrik.

*Uztapidek:*

Nik eman dizut zuri  
munduan argia,  
badakizu, alaba,  
au dala egia.  
Zu joan bearrak nauka  
negarrez jarria,  
ez izan beintzat mutil  
zarraren nobia,  
bestela galdu da ama  
ta Euskalerria.

*Xalbadorrek:*

Ezkontzaren berriak  
ein daizke onduan,  
behintzat egun eztaukat  
holakoik goguan.  
Hartaz ere leiaren  
behartzerakuan,  
balia zaizkit, ama,  
aitaren onduan,  
nola Ama Birjina  
eiten den zeruan.

*Ondorengo gai hau Urruñan Basarrik eta  
Mattinek erabili zutela adierazten du Her-  
nandorenak. Oraingoan Uztapidek eta Xal-  
badorrek erabiliko dute: "Uztapidek gona lu-  
zearen alde kantatuko du; eta Xalbadorrek,  
gona motzaren alde.*

*Uztapidek:*

Len serio giñan baño  
orain datoz bromak,  
aztu dirade emengo  
izketa sakonak.  
Xalbadorri gustatzen  
zaizka motzak gonak,  
baño oiek negurako  
ez dirade onak.

*Xalbadorrek:*

Nola neska gaztiak  
ezpaitaude otzik,  
ta bere edertasunak  
gorde ezin atxik,  
gonak ez ditzala gorde  
pantorrilak baizik,  
gaiñekoak ez dira  
trabatzeko baizik.

*Uztapidek:*

Euskaldunentzako izan  
leike beti lotsa  
soiñian jantzitza  
oso gona motza.  
Bildurrez jarritzen zait  
neroni biotza:  
sartuko zaizuela  
Ilbeltzeko otza.

*Xalbadorrek:*

Ez pentsa gona motzekin  
nabillela merkez,  
politagoa izateko  
nabil nere ustez.  
Luzeak diranean  
korritzen da nekez,  
t'horrek andria zartzen du  
hogeitabat urtez.

*Uztapidek:*

Gazte ez dira urte  
askoan biziak,  
nik era askotakoak  
ditut ikusiak.  
Gona luziak dirala,  
Jaunari graziak,  
orrek tapatzen ditu  
gauza itxusiak.

*Xalbadorrek:*

Nik eztut erabiliko  
hoin luzeko gonik,  
horrela ez dut bilatu  
espero gizonik.  
Ez egin, jaun Uztapide,  
horrengatik penik,  
zuk zango itxusia duzun  
nik ez dut obenik.

*Uztapidek:*

Ara gonaren kontuan  
nolako naspillak,  
nik bezela ikusten du  
neska au mutillak.  
Erakusten baditu  
bere pantorrillak,  
izutu ta igesi  
joango'ia mutillak  
*Xalbadorrek:*

Gaur gai asko erostia  
ez da berriketa,  
ni gona motzakin nabil,  
ez hortaz kinketa.  
Gona luziak asko  
oial behar du eta,  
nik hartarik egiten du  
gona ta txaketa.

*Uztapidek:*

Azkenekoa dijoa ta  
igesi esperuan,  
gona motza da (sic)  
denbora beruan.  
Baño otzak iltzen beti  
ilbeltz-abenduan,  
ola ibilli ta gañera  
sartu ezin zeruan.

**Deia, 1986, Martxoaren 30.**

*Jose Lizasok "lehengo eta oraingo bertso-laritza" gai hartuta egindako hainbat adierazpen jasotzen dira. Honela dio pasarte batean:*

*–Garai batean ahal zen tokitik atera behar izaten ziren gaiak. Gogoan dut behin Uztapidek eta biok Anoetan egindako saioa. Bezperan Irunen ibiliak ginek, eta kazkartu samarrak egun hartan. Bertsoetan hasteko orduan, gari soro bat genuela begien aurrean konturatu zen Uztapide, eta kantatu:*

Anoetari egin daiodan  
nere ongi etorria,  
gaztetan ere nolatan naizen  
emendikan ibilia.  
Aurrekaldean ikusitzen det  
ia elduan garia,  
onez aurrera anoetarrak  
seguru dute ogia.

*Han ez zen ondoren gai faltarik izan. Gosea eta gosarik eza, han jardun gendun kantatzen.*

**Eguna, 1989, 264 zenbakia, 24 orrialdea.**

*Uztapidek jarritako lau bertso jasotzen ditu; "Aitona baten esanak" izenburuarekin ondoren datozenak.*

Lenguan egondu naiz  
aitona batekin,  
arrituta zeguan  
gaurko gaztiekin.  
Neska-mutillak beti  
dabiltza alkarrekin,  
itxura asko baiña  
ezer gutxi egin.

Gaurko neska-mutillak  
daude borondatez,  
ni arritzen naiz dagon  
modaren izatez.  
Kalean zapartaka  
portaleko partez,  
bistan itxura asko,  
ezkutuan batez.

Gure denboran dantza  
zan debekatua,  
eliza ere zerbait  
bada aldatua.  
Esaten zuten: "soiñu  
madarikatua",  
orain libre dagona  
leno pekatua.


Orregatik, gazteak,  
ez jarri kezketan,  
egiak esan ditut  
neronen ustetan.  
Agur, gazteak, nola  
besterik ez detan,  
gero damutu gabe  
saiatu gaztetan.

# Argazkiak



Uztapide baserria.





## Uztapide

Emen degu Uztapide,  
mutila bikana,  
ez genduan sinisten  
bako dun ana.  
Lenengez aldi ontan  
agertu da baña  
arugaren saria  
jaso, alajana!


Uztapide, Azpeitiko txapelketan, 1936-I-1.



Uztapide baserria.



Donostiako txapelketa nagusia, 1936-I-19. Aurrean, ezkerretik: Dargaitz, Harriet, Txirrita, Iriarte, Etxeberria. Atzean, ezkerretik: Txapel, Saiburu, Zepai, Uztapide.



Uztapide, Donostiako txapelketa nagusian, 1936-I-19.



Uztapide, gaztetan.




Txirritaren omenaldia, Errenteria, 1936-III-12. Eserita, ezkerretik: Alkain zaarra, Lexo, Jose Ariztimuño "Aitzol", Txirrita, Basarri, Alkain gaztea, Txapel. Zutik, ezkerretik: Hernandorena, Saiburu, Garmendia, Telleri-Txiki, Bitor Idiazabal, Joxe Zubimendi, Gillermo Lizaso, Andres Arzeluz, Klaudio Gaztelumendi, Iñaki Olaizola, Uztapide.



Donostiako Loiolan, Akene baserrian, 1939-VII-31-n. Maai-gaiñetan eserita, ezkerretik: Saiburu, Loiola aldeko bertsolari bat, Zepai eta Uztapide.





Uztapide eta Zepai; erdian, lagun bat.



Tolosako txapelketa, 1945-IX-30. Ezkerretik: Mitxelena, Saiburu, Ernani-Txikia, Basarri, Uztapide, Ondartza, Zepai.




Uztapide eta Basarri, Tolosako txapelketa nagusian, 1945-IX-30.



Uztapide, Tolosako txapelketa nagusian, 1945-IX-30.





Uztapide eta Basarri, Zumaian. (Foto Gar).



Ordizian. Ezkerretik: Lazkao-Txiki, Uztapide, Mattin, Basarri.



Amasan, Arantzabi jatetxearen atean. Ezkerretik: Bautista Kortajarena, Ondartza;  
Fabian Loidi, euskal olerkaria; eta Uztapide.



Uztapide eta Basarri, Eibarren, 1949.






Ezkontza, 1952-V-10.



Parisen, 1958-V-20. Ezkerretik: Teodoro Hernandorena, Mattin, Xalbador, Uztapide.



Uztapide, Lazkao-Txiki eta Basarri.



Zubeltzu bertsolariaren omenaldia, Itziar, 1959-VI-14. Aurrean, ezkerretik: Prudentzio Eiguren "Artañola", Jose Lizaso, Zubeltzu, Uztapide, Basarri, Txapel. Atzean, ezkerretik: Migel Albizu, "Soarte", aita; Anjel Albizu, "Soarte", arri-jasotzailea; Jose Mari Arakistain, Aldazabalkoa, Itziar. (Foto Allica, Deba).



Eibarko txapelketa, 1959. Ezkerretik: Alfontso Irigoien, gai-jartzailea; Fernando Artola, *Bordari*; Uztapide, Antonio Zavala eta Juan San Martin.



Uztapide eta Lasarte, Eibarko txapelketan, 1959-XI-8.



Uztapide, Eibarko txapelketan, 1959-XI-8.





Donostiako txapelketan, 1960-XII-18.



Uztapide eta bere illoba eta besoetakoa dan Manuel Olaizola Olaizola, Endoian, bertso kantari.



Jose Lizaso, Uztapide eta Basarri. Ordizian 1962. (Foto Josexo Marin).




Donostiako txapelketan, txapela irabazitakoan, 1962-XII-30-ean.



Uztapide, Antonio Valverde-k egindako marrazkia, 1963.



Txirritaren oroitarria bedeinkatu zan egunean, Latzen, Ernanin, 1963-X-20. Ezkerretik: Juan San Ildefonso, Ereñozuko apaiza; Lazkao-Txiki; Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illoba; Ernani-Txikia, Arozamena, Uztapide, Basarri.




Areatzan, bertso-kantari. Ezkerretik: Balendin Enbeita, Uztapide, Lopategi.






Donostiako Txapelketa nagusia, 1965-I-1.  
Ezkerretik: Lazkao-Txiki, Uztapide, Arozamena, Mugartegi.



Donostiako Txapelketa nagusia, 1965-I-1.  
Ezkerretik: Lazkao-Txiki, Uztapide, Alfontso Irigoien, gai-jartzaillea.



Donostiako Txapelketa nagusia, 1965-I-1, txapela irabazitakoan.



Donostiako txapelketa nagusian, 1967-VI-11.  
Uztapide eta Xalbador, txistu-aldia izan zan unean.






Donostiako txapelketa nagusian, 1967-VI-11.  
Txapela jazerakoan. Ezkerrean: Antonio Arrue zana.



Donostiako txapelketa nagusian, 1967-VI-11. Uztapide eta Xalbador.



Donostiako txapelketa nagusian, 1967-VI-11. Azken agurra kantatzerakoan.



Irun, bertso-kantari, 1970-VII-1.



Bertso-kantari. (Foto Charola).





Uztapide eta Lasarte, Donostiako Trinitate Plazan.

# Aurkibidea

<b>Itzaurrea</b> .....	7
<b>Lengo egunak gogoan</b> .....	23
Atari gisa .....	25
Eskeintza .....	31
Uztapide etxeko berri .....	33
Uztapideko familia .....	35
Eskolan .....	41
Bertsotarako afizioa .....	45
Zurbano .....	51
Berriz Uztapiden .....	55
Olaberri .....	59
Ataungo Markes-basoa .....	69
Berriro artzantzan .....	75
Beliosoro-errekako basoan .....	79
Zestuako Legoian .....	81
1933-ko udara .....	85
1934-ko urtea .....	93
1935-eko udara .....	99
Lasturko San Nikolasetan .....	105
Urrategi .....	109
Arozpide .....	111
Iturzaeta .....	115
Santa Agedaren eskean .....	117
Tolosako txapelketa .....	119
Azpeitiko txapelketa .....	123
Donostiko txapelketa nagusia .....	127
Txirritaren pesta .....	133
Lengo bertsolari zarren ateraldiak .....	137
Gerraren asiera .....	141
Donostiko Konportan .....	143
Gerra .....	151
Gerratik etorri berria .....	161
Olaberriko basoak .....	167
Getaria .....	173

Martutene .....	179
Idiazabal .....	183
Ereñozu .....	187
Segura .....	191
Ernani .....	195
Eibar .....	199
Asteasu .....	205
Irun .....	209
Arriaran .....	213
Amezketan .....	217
Zegama .....	223
Ondarrabi .....	227
Zaldibia .....	231
Azpeitia .....	237
Tolosa .....	243
Jaioterria .....	247
Gipuzkoa .....	255
Bizkaia .....	277
Araba .....	285
Naparroa .....	289
Mugaz arunzko aldetik .....	299
Donostiko txapelketak .....	307
Baso-lana .....	319
Oiartzun .....	325
Eiza .....	335
Laguntzarrene .....	343
Zepai .....	349
Bukaera .....	355
<b>Lagunen aitorpenak (Bertso-sailak) .....</b>	<b>359</b>
Uztapide .....	361
Uztapideri .....	362
Uztapide txapeldun .....	364
Uztapideri .....	365
Uztapideri .....	366
Uztapide adiskideari .....	367
Basarri, Uztapide eta Ernio mendia .....	368
Uztapideri .....	369
Manuel Olaizolari .....	371

Uztapide .....	373
Uztapideri .....	376
Nere lagun Uztapideri biotz-biotzez .....	378
Uztapideri .....	380
Uztapideri .....	381
Uztapideri .....	382
Uztapide .....	383
Uztapide zenari .....	385
Uztapide il da! .....	386
Uztapide zana .....	388
Uztapideren eriotz ondoren .....	390
Uztapideri argazkia .....	391
Uztapide gogoratuz .....	393
Uztapide .....	396
Azken agurra .....	397
<b>Aldizkari eta abarretan .....</b>	<b>399</b>
Bertsolari guduak, 1935-1936 .....	401
Euzko Deya, 1939 .....	403
Anaitasuna 1960 .....	403
Olerti, 1963 .....	404
Jesusen Biotzaren deia, 1961 .....	404
Jesusen Biotzaren deia, 1961 .....	405
Beasain, 1963 .....	406
Lartaun, 1963 .....	407
Boga-boga, 1964 .....	407
<i>Príncipe de Viana</i> .....	407
Zeruko Argia, 1972 .....	409
<i>Príncipe de Viana</i> .....	410
Deia, 790 zenb. ....	411
Egan, 1985 .....	411
Deia, 1986 .....	417
Eguna, 1989 .....	418
<b>Argazkiak .....</b>	<b>421</b>





1056653

BO-4180



МИТСУБИ




СУЗУКИ



**Uztapide**

**Berriz plazara II**



20-4180-II

~~67238~~

47238

# Berriz plazara

## II

Manuel Olaizola Urbieta  
**UZTAPIDE**

# Berriz plazara II



**AUSPOA**



**SENDOA**



**EUSKALIZAINDIA**  
AZRUC BIBLIOTEKA

© Sendoa

L.G.: NA. 1705-2001  
ISBN: 84-95378-40-X

Sendoa  
Ugaldetxo  
20180 Oiartzun  
Tels. 943 493 551 /2/3  
Fax 943 493 548

[www.sendoa.com](http://www.sendoa.com)  
[editorial@sendoa.com](mailto:editorial@sendoa.com)

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L.

**Sasoia joan da gero**



# Itzaurrea

**B**ERRIRO ere badu Euskalerrriak Uztapideren itza entzuteko aukera. Egun batez pentsa zitekeen betiko isildua zela, baina ez da ala gertatu. Bein eta berriz erasotzen dio bere bakardadetik igarle zaar batek bezela.

Leengo liburua ez-ustekoa izan zen. Uztapidek liburua egin zuela otsa zabaldu zanean, mundu guziak bertsozkoa izango zela pentsatu zuen, eta itz--lauzkoa etorri zen. Oraingoan ez du orrelako deskuidorik izango. Au, Uztapideren izenari dago-kion bezelakoa da: bertsozkoa.

Bati baino geiagori leengoa gogoratue-raziko dio zenbait alditan. An itz-lauz ait-  
tatutako zenbait pertsona, erri eta gertaki-  
zun, berriro agertzen baita emen bertso-  
tan. Zepai zenak bazuen an bere kapitu-  
loa eta emen ere badu bertso sail bat. Ge-  
tariak bazuen an eta emen ere bai. Familia  
an agertzen zen eta emen ere bai. Ala ere  
irakurleak ez du esango gauza bera dire-  
nik ura eta au. Beti berriak ez badira ere  
esaten dituenak eta inoiz gauza bera badi-  
ra ere, arako Zepaik eta biak oe berean lo  
egiten omen zuten ura bezela, forma eta  
arrazoiketa berriak ikusiko ditu irakurle-  
ak. Beraz ura irakurri zuenak ez dezala  
pentsa au alperrik duenik.

Dakizunez, irakurle, *Sasoia joan da*  
*gero* jarri dio izena liburuari gure Uztapi-

dek. Berak dionez, «gorputzean indarra  
ondo dagoenean, burua ere obeki egoten  
da»; eta garai bateko sasoi ederra joanda  
dagoela entzungo diozu bein baino geia-  
gotan liburuan zear. «Bat ori -dio berak-  
Bestea, ori baino ere okerragoa: gaixo  
txarra pasata nago orain dala ia lau urte.  
Perlesia pasa nuen burutik, eta burua ark  
oso moteldu zidan lenaz gañera». Beraz,  
«sasoia joan da gero» emandako fruitua  
dugu gure Uztapideren au.

Bestalde, «ni ez naiz bertso-jartzallea»  
aitortzen digu. «Bat-bateko bertsolaria»  
omen da bera. Bigarren au ez zedukan  
esan bearrik Euskalerrriari. Ori ondo iku-  
sia zeukan bertsozaleak. Amaika gozatu  
artu du aspaldiko urtetan Uztapideren  
kontura. Eta beste ori? Egia ote da «ber-  
tso-jartzallea» ez dela gure zestuarra?

Barka, Manuel, baina deskuido ederra  
badaukazu ortan, «arritzekoa» ere ez da-ta,  
zeorrek diozun bezela. Nik ez det zure ber-  
tso idatzitako askorik irakurri. Ez det uste  
askorik idatzi dezunik ere. Baina badituz  
batzuk irakurriak, eta ni oso deskuidatua  
ez banago -«arritzekoa ez litzake izango»-,  
zu bertso-jartzalle ona zera. Gogoan al di-  
tuzu zure leenengo liburuxkan, *Noizbait*  
izeneko artan, Zestuan egin zizuten ome-  
naldiaz jarri zenituen aiek? Dozena batetik  
gora badira eta zuk an agertzen dezun es-  
kua egun artako atze-aurre guziak punta-

rik punta kontatzen, ez da nolanaiko bertso-jartzalle batena. Ala gauzak esateko urrenez-urren, eta akto bakoitzean detailerik nabarmen ura izendatuz, eta gero bertso bakoitza ala errematatuz, bertso-jartzalle ona bear du izan. Zu zerana, Manuel.

Orrekin ez dizut esan nai liburu ontako bertso sail guziak sail aren mailakoak dituzunik. Emen sumatzen dira motelaldiak eta naasi-uneak. Zenbait bertso-sailetan gauza bera edo beratsua esaten duzu bein eta berriz. Ezagun da zure buruak ez dadukala garai batean zuen indarrik. Ala ere, Manuel, lasto ori bearrezkoa baldin bazen urrezko gari ale oiek jaso aal izateko, bego lastoa ere.

Eta orain zuri, irakurle, nere mokoak bildu dituen ale batzuk dakarzkizut muestratako. Zuk bilduko dituzu nik utziak. Ikus nolako gauza politak esaten dakien gure zestuar aundiak.

Negua erdi goseak pasa duten ganaduengatik ala dio:

«Zer kontatua izango dute lurmentzen duan orduan». (*Elurtea*)

Neguaeren latza adieraziz onela errematatzen du beste bertso bat:

«Amaika ardik eta beorrek utzi beaitu ezurrak». (*Elurtea*)

Bertso sail ortan bertan ala dio beste batean:

«Otso zarrak marmarrean». (*Elurtea*)

*Gaztañak biltzea* izendatu sailean ala dio aiek baino leen gaztainadira joan diren ardi eta zerriengatik:

«goizean gu baño len sallean jarriak».

*Garai bateko eztaiak* izenez daukan sailean, berriz, meza bukatuta atera diren ezkonberriengatik ala dio guzizko fintasunez:

«da elkarrekin lo egiteko bazuten askatasuna».

Eta kaleak ere badituela bere eskasiak adierazteko, onela dio bertso batean:

«an ere etxea utsa baitago goizean oitik jeikita». (*Uztapide'ko pameliaeren kaleratzea*)

Edadeko pertsonaren egoera kontatzean, onela dio:

«eta gaitz berri batek zarrak estaltzian». (*Gizonaren negua*)

Orrelakoxe pitxiak bilatuko dituzu Uztapideren liburu berrian, irakurle. *Sasoia joan da gero* ere, zenbaitek, olakoxe «mirariak» egiten bait ditu.

Bertso batzuk ere aukeratu dizkizut. Bertso liburu batean ez litzake naikoa esatera politak arkitzea, bertso osoak ere nai lirake beteak eta biribilak. Ona nik muestratako eskeintzen dizkitzudan ale batzuk.

«Da etxeko ganaduan ere alako moduan: jelatutako arbi pixka bat dute itxute onduan; zer kontatua izango dute lurmentzen duan orduan».

«Mendi altu samarrean  
otso zarrak marmarrean;  
oiek gosiak egoten dira  
amaikatik amarrean.  
Jaunak aparta animala bat  
olakuaren aurrean!» (*Elurtea*)

«Ardia dezu oso  
gaztaña-zalia,  
begi argia du ta  
berezko jalia;  
orbel tartian daki  
billatzen alia,  
orduan astintzen du  
bere joalia». (*Gaztañak biltzea*)

«Orduan etzeguan  
egiterik dantzan  
danen bixtan plazan;  
neskatxari elduta  
egin bear bazan,  
gutxinez obispuen  
baimena bear zan;  
lenbiziko galdera  
lotsatzen ez al zan;  
zeñek sartu nai luke  
orrelako saltsan?»  
(*Orain irurogei urteko apaizak*)

«Kontrabandixtak gabaz lanian  
izaten dira abillak,  
askoz geiago egingo zuten  
izan balira ixillak;  
atzenerako dana jakiten  
zuten guardia zibillak,  
gero larrutik pagatzen zuten  
ortan zebiltzan mutillak».  
(*Kontrabandua*)

Eta aukera au bukatzeko, *Bodegón Alejandro* deritzan Donostiako taberna eta tabernariari eskeinitako sailean dagoen seigarrena artuko dugu:

«Etzait aztutzen neri *Bodega Alejandro*-ren izenik,  
ostatu ori bertsolariak  
ain gogozkua izanik;  
egunen baten ori itxita  
arkitzen baldin badet nik,  
ez det pentsatzen egun orretan  
Donostin izan naizenik».

Eta orrenbestez bukatzen dut nik. Orain asi zaitte, irakurle, Uztapideri entzuten eta ez zaizu damutuko, gure erriak sortu duen gizon aundi oni entzuna.

*Joxe Mari Aranalde*

# Eskeintza

- 1/ Len liburu bat idatzi nuen:  
«Lengo egunak goguan»,  
baña senide bakarra zan da  
biziro triste zeguan;  
beste anaia gaztea nola  
jaio bearra dagan,  
au ikusita ia jartzen dan  
patxara obiaguan.
- 2/ Bakarrik oso lotsati zegon  
nere lengo liburua,  
lagunik gabe igaro ditu  
iru urte ingurua.  
Zertan lotsatu ainbesteraño  
azaltzen zere burua?  
Onez aurrera izango dezu  
anaiaren anparua.
- 3/ Ezjakiña naiz baña badet nik  
idazteko ausardia,  
zer irakurri ez-ta zeguan  
Euskalerrien erdia;  
orain datorren liburutxo au  
ere euskaldun garbia,  
denbora gutxi barru oraintxe  
ikusiko du argia.
- 4/ Barka zazute, anai maiteak,  
ez bainaiz arrigarria,  
nere bertsuak irakurtzeko  
ikusten nun egarria;  
ez nukien nai gauz orren paltan  
ikusi Euskalerria,  
biotz-biotzez eskeintzen dizut  
nere liburu berria.

**Uztapide**  
Manuel Olaizola

# Liburuaren lanak

**A**SKOK esan izan didate neri, edo obeto esateko esan izan zidaten, bertso batzuek jarri bear nituzkeala; gero-rako etzala ezer gelditzen; danak aizeak eramaten zituala gure bertsoak.

Baña ni ezin nintzan onetara jarri. Batetik, naikoa lana genduan. Astean bi edo iru saio bertsoan egin bear izaten giñuzen. Bertsoetik leporaño egiñak egoten giñan. Eta bestetik, berriz, bertsoan erriz erri ibiltzeko mesede aundirik zegoanik ez nuan pentsatu izan, papeletan bertso asko jarrita.

Badakizu zergatik esaten dedan au? Papeletan bein jartzen dezun bertsoa ez da zurea. Bertso ura danak buruz ikasiko dute eta kantatu egingo dizute gañera. Zuk ura plaza batean berriz kantatuko bazendu, be-realaxe esango luke jendeak:

-Ori bertso zarra da, onelako garaitan papelean jarria!

Eta ez daukazu, bein papelean jarritako bertsoa, geiago plaza batean kantatzerik, motibo orretxengatik.

Orregatik, ez da komeni, plazan ibili bear duan bertsolariak, bertso asko jartzea papeletan. Au nere iduripena da. Baliteke ni deskuidatuta egotea, Arritzekoa ez litzake izango.

Bein papeletan jarritako bertsoak saldu egiten dira gañera jeneralean. Orregatikan ez dira zureak. Ez dezu eskubiderik geiago aiekin dirua irabazteko.

Augatik edo origatik, nik bertsoak jartze ori gerorako utzia neukan. Ez dakit edo nagia naizelako edo zergatik, baña beti gerorako utzi, errezena utzitzen izaten da-ta.

Gero, oso bertso onak jarriko nituan itxaropenik ere ez neukan, eta nola asi? Bat-bateko bertsoak piska bat moldatu arren, papelean bertsoak jartzeak bere lanak baditu. Ori an gelditzen da betiko. Plazan kantatzen diran bertsoak, len esan deguna, aizeak eramaten ditu, berriz.

Orregatikan, neri beti bildur gutxiago eman dit plaza batean kantatzeak, bertsoak papelean jartzeak baño.

Atzenezan ausartu naiz bertsoak papelean jartzera ere. Baña berandutxo izango dala esango nuke, orain.

Burua asko moteldua daukat. Ori neuk ikusten det, eta beste guztiak nik baño lenago ikusten dute gauza ori; eta baliteke nik uste baño ere asko geiago atzeratuta egotea buruz.

Burua onena nuanean ere, miraririk ezin nezakean egin. Ni ez naiz bertso-jartzallea, bat-bateko bertsolaria baizik. Nik alegiñak egingo ditut, eta neri geiago eskatzea alperrik da.

Baiña, irakurleak, jakiñaren gañean jartzen zaituztet, nere miraririk ikusteko itxaropenik ez izateko, ez dedala egingo-ta.

Bertsotan erriz erri ibiltzen giñanean, orduan nuan nik sasoi a papelean jartzeko ere; baña esan det zergatik ez nituan jarri orduan.

Eta orain sasoi ura eskutik joan egin da. Gorputzean indarra ondo dagoanean, burua ere obeki egoten da. Burua ondo idukitzeko adiña edo edadea ere aurrera joan da, eta gogoratu gabe gañera.

Garai batean ez genduan uste onela zartuko giñanik, baña gogoratu gabe joan dira urteak; eta orain, bertsoak jartzera ezker, asi egin bear, gero obeak izateko itxaropenik ez dago-ta.

Bat ori, zartu egin gerala, ez da gezurra. Bestea, ori baño ere okerragoa: gaixo txarra pasata nago orain dala ia lau urte. Perlesia pasa nuan burutik, eta burua ark oso moteldu zidan lenaz gañera.

Geiago ez naiz bertsotarako gauza izan. Ez det bertsorik kantatu geroztik. Bañan ala ere kontentu naiz onenbestean naizeanean ere. Ibiltzeko ondo nago, eta jan da edan egiteko ere bai. Zer geiago eskatuko degu ba irurogei ta sei urtetan? Makiña bat lenago joanak badira gure adiñakoak, eta gazteagoak ere bai.

Ni ere etsita egon nintzan denbora batean, itzik ere ez nuan egiten-da. Illabete baño geiago pasa nuan itzik egin gabe, baña asi nintzan berriro ere itzegiten, dana aldrebes, dana atzekoz aurrera.

Baña zuzendu nintzan piska bat atzera, eta orain batere gaixorik izan ez banu baño ere askoz kontentuago bizi naiz.

Gizonak olako etsi-aldi bat ona izaten du. Urrengo atzera piska bat obeto jartzen bada, ez dakizu zer poz-aldi izaten dan. Beiñere baño geiago estimatzen da osasuna.

Garai batean etzan asko gogoratzen orrelakorik. Gu bertsotan erriz erri ibiltzen giñanean, osasuna bagenduan saltzeko ere. Asko ez diogu kontu egin ere, baña ala ere naikoa irauñ digu. Zenbaitek bezela osasuna zaitu bagendu, ez dakit urratu ere egingo ote giñan.

Bateko gau galduak eta besteko jan edan geiegiak eta oiek danak, gorputzaren kaltean izan oi dira, ta ni askotan ibili izan nintzan piska bat drogatuta.

Goizetik beti bertsolari motel samarra nintzan ni. Geiago ere pentsatu izan det, jan da edan ondo egindakoan, ez dirala txarragoak. Bi saio egin izan giñuzen egunean, orrela erri batera joandakoan: bat goizean edo bazkari aurretik, eta bestea berriz arratsaldean edo bazkal ondoan; eta nerekin joaten ziranai besteai ere, nik askotan aditu izan diotet, goizeko saioa egindakoan:

–Gaurko lanik txarrena egin diagu!

Ori zerbaitek esan arazitzen du. Ortatik pentsatu izan det, besteak ere baraurik baño naiago dutela ondo bazkaldu eta kape bat artutako garaian.

Ni bezin nerbiosoak edo lotsatiak ez dira asko izango. Besteak ere, berenak berak pasa bearko dituzte. Nere drogak kopak eta purua izaten ziran. Aiek izan ezker, ez nuan bertsotan egiteko bildurrik izaten. Baña osasunerako ez dira onak izango oiek.

Nik, len bezela bertsotan errietan ibiltzeko modua izan banu, gaur ere zailla izango zan ni bertsoak idazten astea; eta orain, besterik ezin dedanean, au bada ere egin-egin det eta gerorako zerbait utzi egingo det.

Beste lanetarako ez naiz gauza eta medikuak gogor galerazten dit gañera, ta zerbaitetan denbora pasa bear da ta prueba

egitera noa. Okerra atera bada, igeteia; ta zuzena bada, burruntzia, lenagoko errementariak bezela.

Orain liburua egiña dago, baña gaiakin ere nolabait ibili naiz. Neronek asmatu bear, da ez da iñork uste duan bezin lan erraza ori ere. Askotan, bertsoak jartzea baño asko errazagoa ez da izaten gai on bat gogoratzea.

Askok egin dituzte liburu osoak gai bati buruz, baña guk ez degu olako almenik eta al degun bezela osatu bear. «Auxe gai polita dek!» pentsatzen danean, asi ta bertso sailtxo bat jarri, ta urrango beste gai bat gogoratu arte itxogin egin bear.

Ta beti ez da gai ona aukeratzea ere segurua izaten, alegiñak eginda ere, eta nolako edo alako gai asko bear gure moduko batek, liburua osatuko badu.

Olakoxe lanak eman dizkit neri liburu onek.

Orain esango dizutet, nere bertso auek solfeoa ere badute eta ori nola jarria dan.

Manolo Yaben, geienak jakingo dezute, baña Berastegiko semea da ta pilarmonika jotzen zuan onek. Gu, berriz, nola bertso-tan ibiltzen giñan, oso lagun ortatik egin giñan.

Tratu aundia genduan alkarrekin. Soñu-jotzalle ona zan gañera; garai aietan zan onenetako bat. Eta ainbeste aldiz topatu giñan errietan eta oso lagun giñala ez dago esan bearrik.

Gizon errexza zan gañera. Bestetik, nere gustoko laguna; arrokeririk batere gabea. Amaika aldiz gabak asko gogoratu gabe pasa izan giñuzen alkarrekin. Etzuan gañera agindu bearrik soñua jotzeko ere.

Baña ori soñu jotzetik erretiratu zan da Ernanin jarri zan bizitzen. Neskatzta ta mutil gazteai soñu jotzeko lezioak eman da ortatik ateratzen du bizimodua. Ta ni ere,

berriz, bertsoetatik etxeratu nintzan, gaixo txar baten bidez edo orrela, oso aberastuta ez baña. Ta alkarrekin aztu edo oztu egin giñan pixka bat.

Ala, urteak joan dira alkar ikusi gabe, ta ikusten ez duan begiak ez omen du negarrik egiten da zerbait esan liteke guregatik ere. Ez genduan beintzat len bezelako artu-emanik alkarrekin.

Bañan gizona gizonengana beartzen dala esan oi da eta ala izan ere. Ni beartu naiz beintzat Yabenengana, ori musika-kontuan maixua izanda, nere liburu berri oni solfeoa jartzeko. Len magnetofonean kantatutako bertsoetatik artu ta emen ezarri, orixe egin dit Yabenek.

Egun batean emen bildu giñan biok, len ia aztuta neukan lagunarekin. Aita Zabala ta biak etorri ziran gure etxera.

Ta lenengo, automobilletik atera zanean, San Pedro zala pentsatu nuan, bere bizar aundiarekin nere animaren billa zetorrena. Baña ez, bereala ezagutu nuan Yaben zala; eta ementxen besarkatu giñan biok aspaldiko partez eta itz aspertu bat artu genduan.

Nere koñaduak ostatua dauka emen, ballara onetan, da antxen, aparitxo bat egiñez, artu genduan lasaitu ederra.

Ortaz, Manolo Yabeni esker, nere bertsoak solfeo ta guzti izango dituzute. Nik solfeoari ez diot antzik emango, baña ori dakizutenak badakizute nola bertsoak kantatu.

Len ere baditugu gabak nai baño len pasiak, eta atzeneko ori ere nik baño len bukatu zan Yabenekin.

Manuel Olaizola  
**Uztapide**

# Aita zanari



1 Ezagutu zuenak  
gure aita zana,  
bildurrik gabe egin  
izan zuen lana,  
zortzi seme-alaba  
azitzeko zama,  
orregatikan artu  
zuen Beregana.

2 Zortzi seme-alaba  
ondo azitzeko,  
zerbait erakutsi ta  
aiek ezitzeko,  
jatia derriorra  
degu bizitzeko,  
lana egin bear da  
artan luzitzeko.



- 3 Bizi guzian jardun  
zuen nekazari,  
ondo begiratuaz  
etxeko gauzari;  
bein asitzen danian  
bat lan eskasari,  
iñoiz ez du jasoko  
bear ainbat sari.
- 4 Lurreko lanak dira  
oso penosuak:  
askotan pasa zitun  
ark egun osuak,  
ederki nekatuta  
beraren besuak;  
illuntzian etziran  
izango gozuak.
- 5 Ikusirik lanian  
lengo gizon zarrak,  
astindu oi zituzten  
beren atzaparrak,  
gizon aundiak ziran  
da berez azkarrak,  
osasunez sendo ta  
orreri eskerrak.
- 6 Azitzeko ainbeste  
eman zuten jaten,  
eskolara're giñan  
batzuetan juaten:  
zortzi seme-alaba,  
errez da esaten,  
azitzia ez da ain  
erraza izaten.
- 7 Amasei bat orduko  
eguna lanian,  
zer poza egun ura  
bukatzen zanian!  
Beti etzan izango  
umore onian,  
pakian utzi bear  
ala zegonian.
- 8 Ganadu-mordoska bat  
ikullu zarrian,  
batzuetan ibiltzen  
giñuzen larrian;  
gogotik saiatutzen  
ziran belarrian,  
ille puska bat bazan  
aien bizkarrian.
- 9 Oiez gaiñera berriz  
mendian ardiak,  
baziraden beorrak,  
baziran zaldiak;  
an ere egin bear  
ibilli-aldiak,  
bertan gelditzen ziran  
bestela erdiak.
- 10 Aitortu bear aita  
langillea zala,  
eta garai aietan  
bearra bazala;  
zortzi aur etzituan  
aziko bestela,  
saiatu ez balitza  
gizona bezela.
- 11 Gizona izan arren  
zintzua ta piña,  
alare bazeguen  
naiko zer egiña;  
gero bazan gurekin  
zeiñi eragiña,  
gure aitak orduan  
a zer atsegiña!
- 12 Gustatuagatikan  
lagunen artian,  
zintzo jokatu bear  
ogei bat urtian,  
gu sortu giñanetik  
aunditu artian;  
zenbat suprituko zun  
bien bitartian!

13 Orrenbeste aundiko  
pamelia azi  
da itxura-antzian  
nai duanak bizi,  
gauzak ondo pentsatu  
bear lendabizi;  
alare bear ziran  
gorriak ikusi.

14 Guk pasatu giñuzen  
gure estusunak,  
aundiaguak, aita,  
pasa dituzunak;  
oso urriak ziran  
giñun ondasunak,  
eskerrak lagundutzen  
zigun osasunak.

15 Aita gizarajua  
an dago zeruan,  
gu noiz juango ote  
geran esperuan;  
ez du egon bearrik  
oso luzaruan,  
laster ikusiko det  
zer berri dagan.

# Ama zanari

A musical score for the piece 'Ama zanari'. The score is written on six staves of music. The key signature is one flat (B-flat) and the time signature is 2/4. The melody is written in a single voice line. The first staff begins with a treble clef, a B-flat key signature, and a 2/4 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, with some rests. The second staff continues the melody with similar rhythmic values. The third staff shows a change in the melodic line, with some dotted notes. The fourth staff continues the melody with eighth notes. The fifth staff shows a change in the melodic line, with some dotted notes. The sixth staff concludes the piece with a final cadence, including a double bar line and repeat dots.

- 1 Esan nai nizuteke  
zein zan gure ama,  
amaika aldiz guri  
bularra emana,  
ezin asperturikan  
ematen laztana;  
bizi naizen artian  
aztuko ez dana,  
une guzitan neri  
oroitzen zaidana.
- 2 Amarengandik dator  
semien jaiotza,  
une orretan amak  
artzen duen poza!  
Orduan baño geio  
batek ezin goza;  
entzuten duenian  
aurren negar-otsa,  
orduan samurtzen da  
amaren biotza.
- 3 Amak supritzen dula  
ez al da ezagun?  
Lorikan egin gabe  
or dabil gau ta egun;  
deskantsurikan ez du  
billatutzen iñun,  
baietz uste izan arren  
ez dakit dakigun,  
semiak ama bati  
zenbat zor diogun.
- 4 Amak semiagatik  
zenbat du supritzen,  
ni askotan egon naiz  
beragan kupitzen;  
nai bezin errez ez da  
askotan luzitzen,  
odolak txupatu ta  
indarrak gutxitzen,  
naikua lan badago  
orrela bizitzen.
- 5 Guregatikan zenbat  
egin zuan amak,  
gogoratutzen ere  
badirade lanak;  
gu gera beriala  
aztutzen geranak,  
gugatik supritutzen  
ibilli ziranak,  
goguan idukiko  
baidituzte danak.
- 6 Urtiaren buruan  
zutik gera asten,  
bitartian eskutik  
ez digute uzten;  
orretan ere lana  
dago erakusten,  
noiz eroriko geran  
beti buru austen,  
ortik pentsa amak zer  
supritzen dituzten.
- 7 Aur bat izan dedilla  
nai bezin pizkorra,  
amak ura azitzen  
dauka lan gogorra;  
alare ateratzen  
bazaio jatorra,  
gogoratutzia da  
gauza derriorra  
nola ordainduko dun  
ari dion zorra.
- 8 Gurasuentzat ez da  
alain lan gogorrik,  
ez badu izaten ere  
ezeren okerrik;  
ez diozu ematen  
bear dan eskerrik;  
mundu onetan ez da  
sortu izan aurrik,  
ordainduko dionik  
ama bati zorrik.

- 9 Ama bat umiantzat  
ain gauza apala,  
da suaren aurrian  
jartzen da zabala;  
ura jantziko bada  
bear du oiala,  
berotzeko badakit  
bearrezko dala;  
aur batentzat onena  
amaren magala.
- 10 Aurrak ematen ditu  
iñoiz lan ederrak:  
batzutan lo artzeko  
eragin bearrak,  
noiz autsiko ote diran  
seaskan adarrak;  
amak kantatzen ditu  
bere bertso zarrak,  
aur txikiak orduan  
aiek dira parrak!
- 11 Ama aurrakin dago  
poz eta atsegiñez,  
bere arteko kontu  
batzuk itzegiñez;  
negar egiten beste  
gauzarik jakiñ ez,  
etxian zai jarriak  
noiz asiko oiñez,  
ortarako urte bete  
bear du gutxiñez.
- 12 Aurra ondo eldu da  
amaren ustetan,  
alakoren batian  
asi da izketan;  
bitarte ortan beti  
jarria kezketan,  
kristaua ain eskasa  
nola dan gaztetan,  
gaixuak ez baidaki  
negarrez bestetan.
- 13 Pentsatu besterik ez  
dago zer dan ama,  
edo semiakgatik  
supritzen duana;  
ni gogoratutzen naiz  
egin oi zuana,  
au sinistatutziak  
badu bere lana:  
guri ematen zigun  
aura zeramana.
- 14 Ama ainbeste aundi  
umiak azita,  
ordurako batzuek  
ezkontzen asita,  
nola biziko diran  
kezka izaki-ta,  
guraso izatia  
zer dan badaki-ta,  
zerua izango du  
ondo irabazita.
- 15 Emendikan zerura  
aspalditxo junak,  
izango ziradela  
zarrak geientsunak;  
munduan supritutzen  
igaro egunak,  
guri oinbesteraño  
lagundu zigunak,  
edo kezka aiek danak  
eduki ditunak.
- 16 Mundu ontan badegu  
guk geure ardura,  
noiz iritxiko geran  
eriotz-ordura;  
ez al degu igoko  
amaren gradura,  
ia guretzat gorde  
toki eder ura,  
gu're gaur edo biar  
baguaz zerura.

# Uztapiden nintzan sortu

A musical score consisting of eight staves of music. The music is written in a single melodic line on a treble clef staff. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 2/4. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The piece concludes with a double bar line and repeat dots.

- 1 Orain irurogei ta sei urte  
Uztapiden nintzan sortu,  
ta bataioko sakramentua  
Arruan genduan artu;  
orduana etzan pentsatzen baña  
orain ara oso zartu,  
berriz naita're ezin gindezke  
basarri orretan sartu.
- 2 Atzoko egunez egin bainuen  
Uztapidera bixita,  
ezin egonik nenguen len an  
berrogei urtez bizita;  
gure antziñako babes-lekua  
zegon ezurra autsita,  
nere begiak busti ziraden  
nola zegoen ikusita.
- 3 Gu zortzi anai-arreba giñan,  
urrenguk bederatzi,  
da basarriko bizimoduan  
iñork ezin zuen etsi;  
bat naikua zan etxerako ta  
danak bertan bera utzi,  
ortan gogorik ez daukanari  
ez geiegi erakutsi.
- 4 Basarri zarrak egin ditunak  
neri ezin zaizkit aztu:  
euri danian estali eta  
aize danian babestu;  
egualdia txarra bazegoen  
bertso zar batzuk abestu,  
mendi altuan jaio dan batek  
neguen bildurrik eztu.
- 5 Negu beltzian noiznai bazan an  
zortzi eguneko elurra,  
gu danak lotan geundelarikan  
estalitzen zuen lurra;  
baña etxean izaten gendun  
beti naikua egurra,  
ura pentsatzen jarri ezkeron  
juaten zan negu-bildurra.
- 6 Udaran bai an giro ederra  
iñon ederrikan bazan,  
ango iparreko aize ederra  
zer zan nik ezin det esan;  
orain an dago paraje ura  
jendiak ikusi dezan,  
noranai juaten giñala ere  
toki oberikan etzan.
- 7 Mundu onetan etxe geienak  
dute zerbait aitzakia,  
nik Uztapide zanagatikan  
au daukat erabakia:  
ura basarri-lanetarako  
zala etxe egokia,  
nunai ez dezu arrapatuko  
alako bizi-tokia.
- 8 Etxia asko gozatutzen du  
zerbait kanpua egonak,  
norabait jua bear zan berriz  
irabazteko txanponak;  
aparia're guztiz ederra  
preparatzen zun amonak,  
pameliako gozo ederrian  
igarotzeko Gabonak.
- 9 Gaztiak nai ez basarrian da  
zarrak ziara makaldu,  
gogorik gabe egiten danak  
irabazirik bai al du?  
Urte batian irabazitzen  
dana beste baten galdu,  
azkenerako pentsatu zuten  
beren basarria saldu.
- 10 Saldu bear zala pentsatuzia  
bakarrik etzan naikua,  
tratua ere egin bear zan  
ez dirua galtzekua:  
beintzat modua egiña dute  
etxe ori saltzekua,  
ankaz gora or bota dute gu  
len bizi giñan lekua.

- 11 Esan bezela, atzo juan nintzan  
neroni ala bearrez,  
ikusitzeko asmotan baña  
begira ez nengon errez;  
gu sortu giñan lekua ere  
estali dute zakarrez,  
gustora juan banintzan ere  
etorri nintzan negarrez.
- 12 Uztapideko basarri zarren  
paraderoa ikusi,  
iñork esanda ezin sinistu  
zagonik alain itxusi;  
ainbeste seme-alaba zitun,  
danak etxetik igesi;  
begiratuta ez du ematen  
len an iñor zala bizi.
- 13 Aspalditxuan ez det igaro  
alako egun tristerik,  
ez nuen uste basarri ura  
era ortan ikusterik;  
ni une artan jarri baintzan  
samintasunez beterik,  
ikusitzian an etzegola  
zakar-pilla bat besterik.
- 14 Gure anaiak aspalditxuan  
zeukan saltzeko idia,  
nunbaitetikan lortu zuen ba  
ori egiteko bidia;  
lengo basarri zarra botata  
berria egiten ai dia,  
erosi dunak berekin dauka  
ortako eskubidia.
- 15 Uztapideko basarri zarra  
badakit Endoian zala,  
ni berrogei ta bat urte pasan  
an bizi izan nintzala;  
orain lurpian ezkutatu da  
len esan degun bezela,  
erosi dunai opa diogu  
suertia izan dezala.



# Nere jaioterriari

A musical score for the piece "Nere jaioterriari". The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/4 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, often grouped with slurs. The piece concludes with a double bar line on the final staff.

- 1 Gure Jainkuak nai zuelako  
ni naiz Arruan sortua,  
ta bataioko sakramentua  
parroki artan artua;  
geroztik ere amaika aldiz  
nago eleizan sartua,  
orduan aurra banintzan ere  
orain aitona zartua.
- 2 Biotza asko xamurtzen zaio  
bati aitona-zartzian,  
bere etxetik urruti jua da  
bizi-bide bat artzian;  
Arrua, beti goguan zaitut  
egunez da arratsian,  
negar-malkuak ixurtzen zaizkit  
zurekin gogoratzen.
- 3 Arruak berak aukeratu zun  
Gurutze-mendin magala,  
exeri eta or ikusten da  
luzia bezin zabala;  
ezagutzen da menditxo orrek  
erria maite duala,  
bere semia balu bezela  
beso tartian daukala.
- 4 Amaika seme euskaldun jator  
azi dituzun erria,  
ni neroni're aien artian  
Jaunak ortxen ezarria;  
aspaldi ontan nunbaitetikan  
badator jende berria,  
kaleko etxeak ugaldtu eta  
gutxitutzen basarria.
- 5 Kantari ere egiñak gaude  
an makiña bat orrua,  
zenbait lekutan bezela etzans  
jendia oso arrua:  
kanpotik ez da ezagututzen,  
ikusi bear barrua,  
amaika bider gogoratzen zait  
zorioneko Arrua.
- 6 Erriko pesta bezela beti  
ospatzen ziran Sant' Anak,  
Uztaillaren ogei ta seian  
goizetik jotzen kanpanak;  
ikusgarriak ziran orduko  
gure pestako apanak,  
bizimoduko kczkarik ez du  
ori buruan daukanak.
- 7 Egun orretan aiton-amonak  
danak meza nagusitan,  
beren erriko zaindariari  
urteoroko bisitan;  
orduko zarrak juango ziran  
bestelako jai guzitan,  
osasunetik ondo baziran  
meza utsegin gutxitan.
- 8 Meza aundia bukatu eta  
txistulariak plazara,  
erriko pestak diradenian  
Euskalerriko gauza da;  
berialaxe neska ta mutil  
ertengo ziran dantzara,  
era ortantxe egingo zuten  
bazkal aurreko pasara.
- 9 Ori pasata an inguruko  
basarritako batian,  
seniderikan ez bazan bizi,  
bere lagunen artian,  
bazkari ederra egingo gendun  
umorez eta pakian;  
arratsaldeko pesta zegoen da  
plazara jua gaitian.
- 10 Arratsaldeko pesta aguro  
bukatuko zan bildurra,  
erriko pestak ziradelako  
etzan izaten samurra;  
Arruan zerbait luzatutzeko  
ere bazuten adurra,  
gabaz tabernak itxitakuan  
egiten gendun agurra.

# Guk sasoia bagendun

A musical score for the piece "Guk sasoia bagendun". The score is written on seven staves, each beginning with a treble clef, a key signature of two sharps (F# and C#), and a 2/4 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, with some rests and a final double bar line at the end of the seventh staff.

- 1 Guk sasoia bagendun  
giñanian gazte,  
etzan gogoratutzen  
zartzerik laste;  
jana neurtu bearrik  
etzan gaur ainbeste,  
nai gendun klasetikan  
ase eta bete,  
igande ta aste,  
ez baigendun uste,  
baña batez beste  
neurtutzen gaituzte;  
gurekikuak erraz  
egin dituzte.
- 2 Egin errazak ziran  
nunbait gure lanak,  
ortarako artu al  
ditugu pamak?  
Zerbait gerala uste ta  
ezer ez geranak,  
baña orain gauz orri  
gaude antz emanak;  
len zerbait izanak,  
aundiak esanak,  
sasoia juanak,  
ezereztu danak;  
zerbaiten poza badu  
len izan zanak.
- 3 Nola ibiltzen giñan  
sasoi gendunian,  
gogoratutzen bati  
zartu danian;  
nekatzeko bildurrik  
batere etzanian,  
etzan gabe ere berdin  
iru egunian;  
alare lenian  
jarraitu lanian  
sasoi onenian  
da umore onian,  
gorputz-aldi bat ona  
zeguanian.
- 4 Guk sasoi gendunian  
ez gendukan gerrik  
da alkarrekin setan  
jardun bearrik;  
pasatutzen genduan  
umore ederrik,  
aserretu-erazi nai  
bañan ez, alperrik;  
ez iñori eskerrik,  
Jaunari bakarrik,  
etzan beste zorrik  
ta ez lagun txarrik,  
ez basarrikorik da  
ez kaletarrik.
- 5 Naiz basarrian izan  
da berdin kalia,  
gu pake billa beti  
egiñalian;  
umore ederra berriz  
gendun axalian,  
bost duro bagiñuzen  
gure sakelian;  
ez jan «hotelian»,  
segi jornalian,  
era apalian,  
obe igualian;  
olako gutxi da gaur  
lur zabalian.
- 6 Kantu-lana izan det  
oso ezaguna,  
orain eduki arren  
burutik juna;  
egokitzen zanian  
gustoko jarduna,  
gogoratu baño len  
pasatzen eguna:  
jan guk nai genduna,  
bazan osasuna,  
naikua laguna,  
bi bertso entzuna,  
beti pronto izaten  
nun erantzuna.

- 7 Bakarrik triste dago  
gizona munduan,  
beste lagun bat bear  
beti onduan;  
erretira txar asko  
egiten genduan,  
geienetan etxera  
garai beranduan;  
pakia goguan,  
jakin non nenguan,  
munduko zeruan,  
gizonen moduan;  
eriotzen bildurrik  
etzan orduan.
- 8 Gazte izan giñala  
nai adierazi,  
orduante kontentu  
giñan gu bizi;  
osasanik ez leike  
dirutan erosi,  
ez giñan ibiliko  
lanaren igesi:  
bera da lenbizi  
ta gaztetan ezi,  
ondo irabazi  
duenak merezi;  
saso dunari lanik  
ez galerazi.
- 9 Len izanagatikan  
sasoiko azkarrak,  
ai gerade artutzen  
tratu ederrak;  
gauz asko erakusten  
ditula bearrak,  
gaztetan izan gera  
gerenez zabarrak;  
beti kristau zarrak  
dauzka egun txarrak,  
bajatu indarrak,  
da jendien parrak;  
orduan artzen dira  
suak da garrak.
- 10 Lanari utzitzera  
gaude beartuta,  
ez dago jarraitzerik  
broman artuta,  
nola arkitzen geran  
urtetan zartuta,  
aspalditxuan gaude  
erretiratuta;  
ajiak sortuta,  
ezin indartuta,  
ongi aspertuta,  
jenio-txartuta,  
lengo gaztetasanik  
ezin lortuta.
- 11 Guri etzaigu palta  
gorputzeko otzik,  
ardo pixka bat ezin  
eran det utsik;  
janarekin ere ez  
piperrik da gatzik,  
mediku jaunari ez  
kontra egin itzik;  
ez sendatzen gaitzik,  
ontan iraun baizik,  
non det lengo antzik?  
Len etzan akatsik,  
berriz osatzeko're  
ez esperantzik.
- 12 Bertsuak jartzen ditut  
Oiartzun partian,  
ni saiatu naiz beintzat  
al dan artian;  
aurten ezin dedana  
urrengo urtian,  
jarraitu onenbeste  
geran bitartian;  
ez dana kolpian  
da era torpian,  
patxara batian  
lagunen tartian;  
ixilduko gerade  
lurperatzian.

# Zestua

A musical score for the piece 'Zestua'. The score is written on eight staves of music. Each staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 5/8 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The piece concludes with a double bar line on the final staff.

- 1 Nundikan nora sortu zera zu  
olako erri prestua?  
Nola naizen ni zure semea  
ez nago zutzaz aztua;  
bertso batzuek zuri jartzea  
neretzat gauza justua,  
beti gogoan izango zaitut,  
nere barrengo Zestua.
- 2 Alde batetik Gurutze-mendi,  
beste aldetik Ertziña,  
Zestua ortxe ikusitzen da  
bien erdian etziña;  
ni ere orko semia naiz ta  
or bizi nintzan antziña,  
pameli aundia nola baigiñan  
danak or izan eziña.
- 3 Azpiko aldetik erreka aundi bat  
deitzen zaiona Urola,  
badakizute gau eta egun  
marmarka ari zaiola;  
oso urrian pasatzen zaio  
muxu ematen diola,  
arren eskatzen diot Zestuai  
guardia egin daiola.
- 4 Zestuako ura orain baño len  
izango dezu entzuna,  
neri sekula etzait aztuko  
baldin badaukat zentzuna;  
danena ez da jakiten baña  
badakit beintzat batzuna,  
gibelian bai al da arririk,  
au da kenduko dizuna.
- 5 Zestuatikan ikusten dira  
Izarraitz eta Agiro,  
mendi luziak nola diraden  
neguan ez da an giro;  
lenago gazte giñadenian  
juaten giñan aldiro,  
orain zartutzen ari naiz eta  
juango ote naiz berriro?
- 6 Sastarrain edo basarri baten  
gaiñean dago Ekaiña,  
mendi ortantxe billatu dute  
ar-zuloren bat bikaiña;  
gu an giñala basuak ziran  
pagoa edo gaztaiña,  
geroztikako berri aundirik  
ez nuke emango baiña.
- 7 Ango kaleko bizimodua  
len izaten zan «hotela»,  
orretarako ez da izan an  
batere jende motela;  
badakit aiek beren bizia  
ondo eraman dutela,  
zorioneko iturri orri  
esker eman daiotela.
- 8 Jendia asko etortzen baita  
iturri ori dalako,  
gibeleko ta beste gaitz asko  
berak kentzen ditulako;  
nik pentsatzen det Zestuako urak  
an daudela sekulako,  
hotelak beti bear ditugu  
ur oiek ditugulako.
- 9 Zestuan zenbat ote dirade  
ur ortatikan eranak?  
Erdiak beintzat probatu gabe  
an bertan bizi diranak;  
bolara baten emanagatik  
bertako uraren pamak,  
ardo pixka bat biarrezko du  
osasun ona daukanak.
- 10 Orain badago Zestuan nunai  
pabrikazio berria,  
Iraetan e ipiñi dute  
martxa ikaragarria:  
bertarako ainbat lanekin eta  
orain ondo da erria,  
zenbait tokitan ainbeste jende  
kanpotik ez da etorria.

- 11 Zestuan zenbat izango dira?  
Zazpi milla bizi lagun.  
An bezin jende euskaltzalerik  
bai ote da beste iñun?  
Udazaliak etortzen dira,  
oiek alare euskaldun;  
aurrerantz ere al baldin bada  
izkuntza maita dezagun.
- 12 Udazaleak egoten dira  
iru bat illabetian,  
eta itzegin bearra dago  
beste izkuntza batian;  
ez dago euskeraz egiterikan  
aiek dauden bitartian,  
ostera berriz asiko dira  
kanpotar oiek juatian.
- 13 Mundu guziak daki gu ere  
Zestuan sortu giñala,  
aspaldi esan zendun zeorrek  
nere erria ziñala;  
eta gaiñera neri laguntzen  
egin dezu egiñala,  
nik ere maite zaitut biotzez  
esplikatu eziñ ala.
- 14 Aitortu bear degu Jainkua  
maite degula lenengo,  
baña sinistu zazu, Zestua,  
zu zera Aren urrengo;  
ortik pentsatu besterik ez da,  
zaitut biotzen barrengo,  
ola portatutzen dan erri bat  
nork ez du maite izango?
- 15 Agorrillaren zortzian oi da  
Ama Birjiñan eguna,  
guk Zestuako erri orretan  
gure zaindari genduna;  
onuntz etorri ta gero ere  
beti goguan deguna,  
bizi geraden arte guzian  
gogoratuko zaiguna.
- 16 Zaindariaren egun berian  
pestak egiten ziraden,  
urruti bizi izanagatik  
gu ere juaten giñaden;  
nola mendiko basarri baten  
jaiotakuak geraden,  
ango lenengo galdera beti  
zezenak bai al diraden.
- 17 Lendabiziko zezenak eta  
ondoren pelotariak,  
eta oieri begira beti  
gozatzen dira begiak;  
gero gabian berandu arte  
alako erromeriak,  
erretirarik egin ezinda  
atzenian komeriak.
- 18 Illaren atzen asteazkenian  
egiten gendun peria,  
sekula etzan palta izaten  
beia ez bazan iria;  
perreteriko gauzak zirala  
eta ango dendaria,  
oiek guziak ikusi eta  
gero danak aparria.
- 19 Apal onduan bertso saio bat  
kapetxo bana artuta,  
an inguruko basarritarrak  
alkarregana batuta,  
guk alkarrekin beti izaten  
gendun ainbeste tratu-ta;  
gero erretira egingo gendun  
al giñuzenak sartuta.
- 20 Une onetan gu nola gauden  
bertso-lanari emanak,  
zerbait esan nai ta ezin degu,  
badira naikua lanak;  
aldi batian nola ez diran  
burura etortzen danak,  
Zestuagatik jarri ditut nik  
gogoratu zaizkidanak.



# Artzaia

A musical score for the piece 'Artzaia'. The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef, a key signature of two flats (B-flat and E-flat), and a 3/4 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, often grouped with slurs. The piece concludes with a double bar line and a fermata over the final note.

- 1 Artzaiak ere negu beltzian  
baditu egun tristiak,  
nai ordurako ez dira juaten  
aldi batzutan astiak;  
egualdi ona desiatutzen  
batek bezela bestiak,  
udaberria noiz etorriko  
zai daude artzai guztiak.
- 2 Ardiak ere tristetzen ditu  
neguko busti ta otzak,  
ori ezer ez balitz bezela  
gaiñera gastatu sosak;  
artzaiak berak uste baiño len  
zimurtzen dirade poltsak,  
egualdi ederrak datozenian  
mendira juateko pozak.
- 3 Gazte-denboran ibillia naiz  
ni're piska bat artzantzian,  
bildur gogorra izaten gendun  
denboralien mudantzian;  
txarrari alde egin nai beti  
iñondik al baldin bazan,  
pobria bizi oi dan bezela  
beti geroko esperantzian.
- 4 Txakur gabeko ardi-zaitzia  
penosua izaten da,  
ardia iñork nai ez lukian  
tokira azkar juaten da;  
guk nai genduan tokian berriz  
mokaurikan ez jaten-da,  
arri tiraka gelditzen giñan  
beso guztiak etenda.
- 5 Ardia jarri zuk nai badezu  
paotxik ederrenian,  
iru edo lau mokaro jango  
dizkizute aurrenian;  
amar minutu baño len an da  
larrerik zakarrenian,  
txakurrik gabe kostako zaizu  
idukitzen barrenian.
- 6 Gaurko artzaiak ikusten ditut  
geienetan etzanian,  
lenguak ere etzaten giñan  
beste lanik etzanian;  
lengo konturik ez dago orain,  
zakurrak gogoz lanian;  
orrelakorik etzan izaten  
gu artzai genbiltzanian.
- 7 Artzaiak ere beste guztien  
antzera baditu lanak,  
sinistu ere ezin litezke  
esango bagiñuz danak;  
geienak nola egoten diran  
ongi naiari emanak,  
beste lanikan ez du egin nai  
bein ortan probatu danak.
- 8 Epailaren atzen aldera  
asiko zaigu kukua,  
bitarte ortan supritutzeko  
bada denbora naikua;  
une artako artzaien poza  
ez da, ez, nolanaikua:  
«Aurtengua're pasako degu  
gurekin bada Jainkua!»
- 9 “Negua jua da etorri zaigu  
lore-illaren aurrena,  
egualdi onak asiak dira,  
pasia degu txarrena”.  
Oraingo ontan lasaitu zaio  
artzai zarrari barrena,  
laster ikusi bearrak gera  
Aralar puntan barrena.
- 10 «Negua pasa penatuta ta  
orain mendira baguaz,  
ni ere ez naiz asarre eta  
ardiak pozak dijuaz;  
zutik ibiltzen ikasitzen da  
mundu ontan amilduaz,  
ai zer egunak pasako'itudan  
perretxikuak bilduaz!»

- 11 Mendi-puntan bai orain atsegin,  
ostuak danak zabaldu,  
larriak ere berdetu dira  
eta zer jana ugaldtu,  
orain ardiak jetzi ta gero  
kamaña zarra zapaldu,  
neguan ola penatu danak  
arrazoirikan ez al du?
- 12 San Isidrotan emen artzaia  
goiko mendi-gaillurrean:  
«Beñere onlako gozamenikan  
nere bizi laburrean!»  
Ardiak pago batzun azpian  
txabolatikan urrean,  
berak otoitzak egingo zitun  
Jaungoikoaren aurrean.
- 13 Artzaia udaran mendian dago,  
bera da ango nagusi,  
gizonak gaztak egin bitarte  
andriak babak egosi;  
automobillen bildurrik gabe  
pameli ederra azi,  
zer da mendiko pake ederra,  
zein ote leike an bizi!
- 14 San Juan alde orretan berriz  
emen da ardi-moztia,  
traje bat utzi nagusiari,  
badatorkio bestia,  
ez gaurko neska gazte askori  
ainbeste diru kostia;  
oieri jaten kostatzen zaie  
baña utsian jaztia.
- 15 Goizian intza ederra zegon  
baña eguardian bero,  
ardiak pago zarren azpian  
egingo dute abaro;  
janaren billa asiko dira  
preskatzen astian gero,  
lo egitera leku batera  
juango dira gauero.
- 16 Illuntze aldera au deskantsua  
ardiak garaiz jetzita!  
Andik zinera ezin juango da  
ango lanari utzita;  
mogituzeko gogorikan ez  
an nai bezela bizita,  
emen konturik onena dago  
mendian bertan etsita.
- 17 «Garagarrilla badijua ta  
ardiaren antzuea,  
udaberria ona gendun da  
ondo antolatu gera;  
arkume onak azi ditugu,  
gaztatik berriz aukera,  
okerragorik ez dezagula  
izan emendik aurrera!»
- 18 Ardiak urte-garai guztitan  
badauka bere lantxua,  
gutxinez ere iduki bear  
nundik dabillen zantzua;  
jetzi bearrik ez dala izaten  
bistan da ardi antzua,  
artzaientzat iñoiz bada-ta  
oraintxen da deskantsua.
- 19 Bein bear eta artzaiak ere  
oraintxen egun batzuk jai,  
lenago etzan aukerarikan  
baña bolara ontan bai;  
aspaldi ontan egongo ziran  
ardiak antzutzeko zai:  
«Aurtengo lanak egin ditugu  
ta egon gaitezen lasai!»
- 20 Udarak eman ditu onenak,  
etorri da Agorrilla,  
artzaiak bere kezkek baditu  
eta artzen du makilla;  
urte ontako gaztak saldu ta  
neguko larrien billa,  
«Aurten kitorik ez degu egiten!»  
esanez dabil mutilla.

21     Artzaiak nola bizitzen diran  
         orra nik adierazi,  
         negar piska bat egiten dute  
         bañan ondo irabazi;  
         gaztak garesti saltzen dituzte,  
         belarrak ondo erosi,  
         aurrera ere opa dizutet  
         eta ondo-ondo bizi!

# Basoko lanak

The image shows a musical score for the song 'Basoko lanak'. It consists of five staves of music, all in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 2/4 time signature. The melody is characterized by frequent triplet patterns, indicated by a '3' above a bracketed group of three notes. The notes are primarily eighth and sixteenth notes, with some quarter notes and rests. The overall feel is light and rhythmic.

1 Gazte denbora osuan  
ibilli giñan basuan,  
zer lantegi dan esan bear det  
berdin dan kasuan:  
ezin ibili pausuan,  
deskantsua bai auzuan,  
ondo pentsatzen jarri ezkeru  
era penosuan.

2 Lo egiteko txabola,  
ura zan gure kaiola,  
txapa zarren bat buru parian  
ixtilla zaiola.  
Baldin bazaio ajola,  
bizi al liteke ola?  
Gure Jainkuak premi guzitan  
lagundu daiola.

- 3 Baba beltza zan jateko,  
urdaia ogi tarteko,  
berialaxen pronto giñan gu  
lanera juateko;  
da etzan ordu bateko  
gure taria beteko,  
lana egin bear al du gizonak  
ala izateko?
- 4 Bazkaltzen berriz euritan  
izaten giñan sarritan,  
oraindik ere ibillera ura  
dadukat begitan;  
esaten dizut egitan  
zer iduritutzen zaitan:  
kartzelan ere obe an baño  
zenbait egualditan.
- 5 Baso-mutillen bizitza  
eramaten oso gaitza,  
trabies edo tabloi egiten  
pagoa ta aritza;  
gaiñetik dator ekaitza  
eta bizkarrian intza,  
jolas-gurarik gabe illuntzian  
ari dan bakoitza.
- 6 Txantxangorria laguna  
zabaldu orduko eguna,  
eguneroko diana berak  
kantatuko duna;  
amaika bider entzuna  
alako txori kutuna,  
baso-mutillen ogi-apurrak  
bilduko dituna.
- 7 Eguneroko diana  
txantxangorriak emana,  
esnatu eta ura zan poza  
ematen ziana!  
Esan aita gure bana  
eta an daukazu lana,  
bezperan utzi gendun tokian  
an zegon arpana.
- 8 Juan da arpanari eldu,  
uste etzala moteldu,  
iru bat ordu lanian eta  
orduan gosaldü;  
zotz-arten baten amildu,  
gorputza dana odoldu,  
gizonak ola penatutzeko  
arrazoirik al du?
- 9 Jainkoakin oroitzean  
asten giñan otoitzean,  
estrapozon bat egin baño len  
goiko arkaitzean;  
gaubean edo goizean,  
oitura zan bakoitzean,  
jakiñik Bera guregatik il  
zala gurutzean.
- 10 Amalau ordu lanian,  
alare umore onian,  
lujo aundirik etzan izaten  
jan da edanian;  
ordu bete etzanian  
euririkan etzanian,  
oitura ori izaten gendun  
bazkaltzen zanian.
- 11 Siesta ere kanpuan,  
lanian ai zan lekuan;  
txabola ere urruti zegon  
ta ara ezin juan;  
pago zar baten onduan,  
ijituaren moduan;  
gu baño okerrago zanikan  
bai al zan munduan?
- 12 Baso-mutillen bizia  
daukat ondo ikusia:  
mutil juaten dana bezela  
berdin nagusia;  
an pasa uda guzia,  
gaiñera oso gazia,  
neguko apusturako ainbat  
ango irabazia.

- 13 Ain bizimodu latzian  
zortzi illabete pasian:  
lana sobrian izaten gendun,  
jana eskasian;  
ara gauzak nola zian,  
ez naiz ari jolasian,  
uda ona zan milla pezeta  
ekartzen bazian.
- 14 Milla peztako txartela  
artu ta Roschild bezela;  
iñork uste dun baño geiago  
berotzen sakela;  
gure mendiko «hotela»  
lo egiteko orbela,  
bertan prueba egin dunari  
galdetu bestela.
- 15 Gabonak dira urrian  
da etxeratu bearrian,  
gurasuakin apaldutzeko  
oitura zarrian;  
eguraldia txarrian  
otza illunabarrian,  
pipa erriaz a zer girua  
suaren aurrian!
- 16 Basuan gera aspertu,  
elurrik ezin atertu,  
egun guzia lanian eta  
ez gera legortu;  
eguna zaigu laburtu,  
erropa pizarrak artu,  
onez aurrera obeko degu  
basua agurtu.

# Garia Euskalerrian

The image displays a musical score for the piece "Garia Euskalerrian". It consists of six staves of music, all written in a single treble clef. The time signature is 2/4. The melody is characterized by frequent triplet patterns, indicated by a bracket with the number "3" underneath. The notes are primarily eighth and sixteenth notes, with some quarter notes and rests. The overall style is that of a traditional folk or dance tune.



- 1 Garai batian Euskalerrian egiten gendun garia, zenbait lekutan bezela etzan alain uzta ugaria; orain lan orri utzita dago emengo nekazaria, nekia pranko bazuan baña zer zan aren lan-saria?
- 2 Gure etxian goldia erosi ni mutikoa nintzala, ura baño len gari-ereintza laiakin egiten zala; ortan eguna igarotzeko etzuan bear makala, baña orduan laian etzekin basarritarrik etzala.
- 3 Gari ereiten laiakin eta ebakitzeko itaian, lana berdintsu egiten gendun aste-egunian da jaian; nekia pranko artu genduan gaztiak giñan garaian, nai ordurako ogi zuria ez gendun ikusten maian.
- 4 Ebakitzeko itaia eta jotzeko berriz arria, ondo pentsatzen jarri ezkeroraxen zan lan urria; orain ezikan orduan ere neketsu zan basarria, egun guztian autsa jaten da ura lan penagarria!
- 5 Egun batian garbitzen giñun goguak emandakuan, bederatzi bat illabetian eduki bear kanpuan; noizbaiten eldu zaio denbora ta ez berialakuan, zer atsegiña izaten gendun zakura sartutakuan!
- 6 Errotara're eraman bear egingo bazan iriña, zakua artu astuan eta etzan izaten ariña; Jainkuak zekin ura ordurako zenbat lan zegon egiña, jo ta garbitu egindakuan izaten zan ugariña.
- 7 Errotatikan iriña ekarri ta etxian zan labia, basarri baten izanagatik akats aundirik gabia; legez guk bear genduke iñork baño aukera obia, baña guk baño errazago jan dutenak pranko badia.
- 8 Oraindik gauza asko ditut nik gariari esateko: zenbat lan-klase egin bear dan emen bizi izateko; pazientzia artutzia're guk ez genduke kalteko, lan oiek danak egin da gero ogi zuria jateko.
- 9 Kondia edo dukia oi zan basarritako nagusi, gariarekin errenta ordaintzen asko giñuzen ikusi; nekazaria urte aietan era orretan zan bizi, geroztik maizter askok dituzte beren etxiak erosi.
- 10 Euskalerriko gari egitia ederki asko kostia, arrazoiakin erabaki zan lantegi ori utzia; galanki egin gendun gaiñera ainbeste urtian eustia, aurrerapenik gabe zailla da bizia irabazia.

- 11 Tratoriakin ereiten dira  
Kastilla aldian gariak,  
biltzeko ere ez dira emen  
bezelako komeriak;  
an lana neke gutxikin egin  
oi dute nekazariak,  
emen bezela ez dago egin  
barrik astakeriak.
- 12 Kosetxadorak egiten ditu  
ango gariaren lanak:  
ebaki eta jo ta garbitu,  
zakua bete ta danak;  
makina oiek dira ordekan  
ibilli izan diranak,  
gu gera berriz malda txarretan  
lanian ari geranak.
- 13 Ogia oso bearrezkua  
izaten degu jateko,  
emen iñori ezin agindu  
Kastilla aldera juateko;  
errez moldatzen dira garia  
errotara eramateko,  
emen txekorrak gizendu bear  
ogi-truke emateko.
- 14 Euskalerrian garia egin  
izan gendun borondatez,  
egitiari utzi genion  
ganaduaren bitartez;  
orretarako lurak obiak  
dirade auek izatez,  
balio duan gauzari segi  
garia egiteko partez.
- 15 Gariagatik naikua samar  
izango det itzegiña,  
onez aurrera obe izango  
det artzia atsegiña;  
barka zazute, irakurleak,  
nere gaurko utsegiña,  
beste gai baten erremeditzen  
egingo det alegiña.

# Garoa biltzen

A musical score for the piece 'Garoa biltzen'. The score is written on eight staves of music. The first staff begins with a treble clef, a 3/8 time signature, and a key signature of one flat (B-flat). The melody consists of eighth and sixteenth notes, with some rests. The subsequent staves continue the melody, featuring various rhythmic patterns and phrasing, including slurs and ties. The music concludes with a final note on the eighth staff.

- 1 Garai bateko basarritarra  
etzan ziaro eroa,  
San Migeletan bizi gera ta  
orain da bere aroa;  
orain utziak gaude ziaro  
bildutziari garoa,  
or ikusten da nekazariak  
damakin paraderoa.
- 2 Garai batian klase orretatik  
ugari biltzen genduan,  
zuk, irakurle, nik bezelaxe  
izango dezu goguan:  
nere artian au pentsatutzen  
egondu nintzan lenguan:  
garoa bezelako iñaurkiñik  
bai ote zegon munduan.
- 3 Bandua jotzen zan markatzeko  
nola diran errienak,  
danak ez nuke esan nai baña  
ala dirade geienak;  
egun orretan argitzerako  
mendian giñaden danak,  
ta beretzako ziran orduan  
siñalatutzen ziranak.
- 4 Erri-gizonak jarriko ziran  
mendirik luzienian,  
tiro batzuek tiratzeko erne  
eguna argitzen zanian;  
basarritarrak ere zai zeuden  
erasotzeko lanian,  
erriko gizon oiek tiruak  
tiratzen zituztenian.
- 5 Jeneralian ostegunian  
oi zan garo-markatzia,  
guk Oiartzunen ez gendun libre  
ortako sega artzia;  
itaiarekin ari ez baziñan  
seguru zendun partxia,  
emen guardak arrapatuta  
ez pentsatu barkatzia.
- 6 Iru egunetan itaiarekin  
berebiziko sarrera,  
besterik ezer ez dakienak  
ori du bere karrera;  
asi eguna argitzetikan  
eta illunabarrera,  
segakin lasai egin ziteken  
igandetikan aurrera.
- 7 Segakin egin ebakitzea,  
iriarekin ekarri,  
urte askuan jarraitu giñon  
guk oitura-klase orri;  
geren gurdiak basa-bidetan  
atera eziñik sarri,  
karga geiegi artzen gendun da  
noizko etxera etorri?
- 8 Arrazoiakin ai da izketan  
mendia probatu duna,  
ustez goiz erten etxetik baña  
bueltatzerako illuna;  
gu konturatzen giñanerako  
juan egiten zan eguna,  
ederki kostatako garoa  
guk ekarritzen genduna.
- 9 Mendian pasa bear izaten da  
makiñatxo bat otz-bero,  
illabete bat baño geiago  
nekaturlan ziaro;  
gure ataian amaika bider  
egiñak daude igaro  
goizetik asi ta arratsera  
irurogei gurdi garo.
- 10 Gu gurdiakin ibiltzen giñan,  
orain daude tratoriak,  
oiek dirade lenan aldian  
tramankulo dotoriak;  
len iriakin oiñez bezela  
beren gaiñean jabiak,  
alare orduan ekartzen ziran  
garo-mordoska obiak.

- 11 Jendiak gogoz egiten zuan  
orduan mendiko lana,  
iñaurkiñikan gabe gelditzen  
azkar ibiltzen etzana;  
basarritarra nola zeguan  
lantegi orri emana,  
garo-metakin betetzeraño  
etxearen jira dana.
- 12 Toki askotan egin dirade  
orain ikullu berriak,  
eta beiak or ikusten dira  
parrill gaiñean jarriak;  
lana're asko gutxitu dute  
gaurko gure basarriak,  
orregatikan sobratzen dira  
mendian azpigarriak.
- 13 Batzuk azpirik ez egiteko  
jarri diote parrilla,  
besteak berriz iñaurkiñetan  
gastatzen dute txirbilla;  
orregatikan gaur jende gutxi  
juaten da garuen billa,  
basarritarrak esaten degu:  
«Mendian egon dedilla!»
- 14 Lanikan gabe gizona ongi  
bai astian da bai jaian,  
guztiok gera saiatutzen gu  
atsegiña artu naian,  
ori da orain egiten dana  
garotarako garaian,  
denbora labur ezagungo da  
soruan edo zelaian.

# Artoak eta babarrunak



1 Lenago emen zenbat  
arto ta babarrun  
Euskalerra guzian  
egin izan gendun!  
Gaur ez degu iñork nai  
lan orretan jardun,  
ez dakit pamelia  
mantenduko degun.

2 Arto ta babarrunak  
izaten du lana,  
Lore-illa izaten  
zan ereiten zana;  
Santiagotarako  
bi jorra emana,  
jakingo dezu legez  
jarri bear dana.

- 3 Orren tokian naiko  
ganadu-janari,  
belarra izaten da  
ona ta ugari;  
lan gutxiago dula  
ez al da agiri?  
Artuari utzi ta  
jarraitu berari.
- 4 Babarruna ona zan  
gizonak jateko,  
urdailla zendun ondo  
arekin beteko;  
utsik aiñean bazan  
bolara bateko,  
atxurra artu eta  
lanera juateko.
- 5 Emen egin-ezakin  
ez balitz okerrik,  
gabe pasa gindezke,  
ez da lan bearrik:  
artu bear genduke  
deskantsu ederrik,  
ez giñoke emango  
lanari eskerrik.
- 6 Lana ugari bazan  
uda azkenian,  
arto ta babarrunak  
eltzen ziranian;  
lan ori Urri-illak  
dakar geienian,  
alperrik da orduan  
egin ez-enian.
- 7 Lana Urri-illian  
egin bazenduan,  
urteko babarruna  
sartuko zenduan;  
arto-pilla galanta  
ganbaran onduan,  
neguaren bildurrik  
etzegon orduan.
- 8 Negu gogorra bada  
arbi danak galdu,  
orma beltzak jo eta  
ziaro usteldu;  
ganadu argalikan  
ez dezu nai saldu,  
badakizu, orduan  
dagonari eldu.
- 9 Txerriak gizentzeko  
ona da artua,  
berria baño ere  
obia zartua;  
baldin badezu aurrez  
etxera sartua,  
ganbaran jarri eta  
ongi igartua.
- 10 Olluak mantentzeko  
ere arto zarra,  
aukera dagonian,  
ez da oso txarra;  
ataiko atetikan  
bota parra-parra,  
orduan bai arrautza  
gorringo ederra.
- 11 Urte guztian etzan  
palta egun baten,  
alare ez aspertzen  
babarruna jaten;  
aize asko duela  
gaur degu esaten,  
orrelako bildurrik  
len etzan izaten.
- 12 Gaur beste era baten  
gizonak jaten du,  
babarrunakin ezin  
liteke mantendu;  
lana gutxitu baña  
janikan ez kendu,  
galdu giñake ori  
egingo bagendu.

- 13 Gizonak lan eginda  
ez badu jatenik,  
orrela dabillenak  
ez du iraupenik;  
iñoiz tripatik arin  
etxetik ertetik,  
bi lagunek ez dute  
egingo batenik.
- 14 Bixtan dago nundikan  
dan irabazia,  
basarritarrak ere  
ondo ikusia;  
pabrikara jendia  
juaten asia,  
batere lanerako  
gauza dan guzia.
- 15 Lanera baldin juaten  
bagera kalera,  
ortatik basarrira  
datorren galera!  
Nunbaitetikan jana  
betor sabelera,  
ortik edo emendik  
beteko al gera!



# Elurtea

The image displays a musical score for the piece 'Elurtea'. It consists of seven staves of music, all written in a single treble clef. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 2/4. The notation includes various note values such as quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests. There are several slurs and accents throughout the piece. Notably, there are two triplet markings, each consisting of a bracket with the number '3' above or below it, indicating three notes played simultaneously. The first triplet is located on the first staff, and the second is on the second staff. The piece concludes with a double bar line on the seventh staff.

- |   |  |    |  |
|---|--|----|--|
| 1 | Aspaldi ontan elurrak<br>estalita dauzka lurrak,<br>eta etxetik ateratzeko<br>jarriak gaude bildurrak;<br>amaika ardik eta beorrek<br>utzi beaitu ezurrak.   | 6  | Zenbait mendiko basarrik<br>etzeukan elur bearrik;<br>arbiak ia aitu dira ta<br>ez dadukate belarrik,<br>ganauari nork bizirik eutsi<br>pentsuarekin bakarrik?       |
| 2 | Mendian ez dago bero,<br>elurra ai da gaubero;<br>egualdi onekin ezin liteke<br>gauza onikan espero:<br>artzaiarentzat negarra dago<br>ardiak galdu ezkerro. | 7  | Mendi altu samarrean<br>otso zarrak marmarrean;<br>oiek gosiak egoten dira<br>amaikatik amarrean,<br>Jaunak aparta animali bat<br>olakuaren aurrean!                 |
| 3 | Ugaldu dira azaiak<br>eta ez gaude lasaiak;<br>urrutitikan artzen dituzte<br>aiek ardien usaiak,<br>elurrak juan artian erne<br>egon litezke artzaiak.       | 8  | Elurrak ez du gauz onik,<br>zuri ta ederra izanik;<br>baratzan ere jenero danak<br>berdatu eta neuzkan nik,<br>ez det pentsatzen ezer bizirik<br>onek utziko duanik. |
| 4 | Da etxeko ganaduan<br>ere alako moduan:<br>jelatutako arbi pixka bat<br>dute itxute onduan;<br>zer kontatua izango dute<br>lurmentzen duan orduan.           | 9  | Zeñek zer duen merezi,<br>iñork ez gaitu berezi;<br>elurrak egin ditun kalteak<br>orra nik adierazi,<br>eskerrak laster kenduko duen,<br>onekin ez leike bizi.       |
| 5 | Emengo orma-ziriak<br>luziak eta loriak;<br>negu beltzian ikusten dira<br>onelako komeriak,<br>auek kenduko ditu urrengo<br>egiten duen euriak.              | 10 | Elurra ez bada jela<br>beti egiten duela;<br>eskatutzen det juan dedilla<br>etorri zaigun bezela,<br>animaliak eta gu danok<br>galduko gera bestela.                 |

# Gaztañak biltzea

The image shows a musical score for the song 'Gaztañak biltzea'. It consists of five staves of music written in a treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some triplets and slurs. The first staff starts with a treble clef, a sharp sign, and a 3/4 time signature. The second staff has a fermata over the first note. The third staff has a slur over the last two notes. The fourth staff has a slur over the last three notes, with a '3' above it indicating a triplet. The fifth staff ends with a double bar line.

1 «Asi bearrak gera  
gaztañak bildutzen,  
jaian ikusi nitun,  
ai dira eldutzen!»  
Aita gizarajua  
etzan ixildutzen:  
ari dirala danak  
alperrik galdutzen.

2 Oso urrian dira  
Santu Guzienak,  
ortxen eltzen dirade  
gaztañik geienak;  
ganadu asko berriz  
gustatzen zaienak,  
anka-markak baziran  
eta ardienak.

- 3 Ardia dezu oso gaztaña-zalia, begi argia du ta berezko jalia; orbel tartian daki billatzen alia, orduan astintzen du bere joalia.
- 4 Batetikan ardiak, bestetik txerriak, goizian gu baño len sallean jarriak; egiten giñun eju ikaragarriak, iñoiz urratzeraño gure eztarriak.
- 5 Alako eju batzuk egiten baziran, ardiak azkar asko aterako ziran; berriz ere gaztañan an ziñun segiran, orduko komeriak ez dakit non diran.
- 6 Etortzen ziran beor eta betizuak, gabaz eman izandu dituzte pausuak; aientzako gaztañak ziraden gozuak, lakats ta guzti jaten zituzten gaixuak.
- 7 Gaztaña bildutzero pamelia dana eltze ta guzi giñan askotan juana; bertan egositzeko jartzen gendun jana, ganaduak bialtzen bazan baten lana.
- 8 Aitak gaztaña bota, beste danak bildu, mutil koskorren batek ardiak bialdu: eltzia egositzen zanian bazkaldu, gaztañarikan ezin alperrikan galdu.
- 9 Gaztañak bildutzian neguen asera, jateko aukera dezu zalia bazera; danboliña beztua jaso lagatzera, aize-kolpe ederrak oi ziran atzera.
- 10 Gaztañak erretzeko biltzen giñun zotzak, erretzen ari zanak kentzen zitun otzak; danboliñen barrendik aiek tiro-otsak, esnatutzen ziraden etxe-jiran ontzak.
- 11 Gaberako geiegi baziraden danak, goizian jaten giñun sobratzen ziranak; gu gaztetan olaxe ibilli geranak, au ez dute sinisten gaztiak diranak.
- 12 Garai baten gaztaña danetik gañezka, orain asia dago emendik igeska; bukatuko dirala bada naiko kezka, juantxe da emengo gaztañaren pesta.

# Laiariak

The image shows a musical score for the song 'Laiariak'. It consists of six staves of music, each containing a line of lyrics. The music is written in a treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/8 time signature. The notes are primarily eighth and quarter notes, with some rests and slurs. The lyrics are in Basque and are numbered 1 and 2.

1

Amabi urterako  
asi nintzan laian,  
 premia zegola ta  
 zerbait egin naian.  
 Artian ez gendun guk  
 jarri bear zoian,  
 gero indarrikan ez  
 bear zan garaian.

2

Aitak sotondotikan  
 jotzen zun aurrena,  
 ta nik, mutil koxkorra,  
 aitaren urrena.  
 Nere aurreko anaia  
 zan irugarrena,  
 zoiaren goienetik  
 arrea zarrena.

- 3 Ni amabi urteko  
mutiko sakatsa,  
bete egiten nuen  
zoiaren akatsa.  
Illunabarrerako  
lairik ezin altxa,  
gaurko aldian zegon  
bizimodu latza.
- 4 Laian ibillitzeko  
tiro edo bultza  
indarrian sartua  
egon banintz utsa.  
Muturra igarra ta  
txikia gorputza,  
aitari egin bear  
al gendun laguntza.
- 5 Arto-saillak galantak  
eta luberriak  
neguan laiatzeko  
an zeuden jarriak.  
Askotan bai ederki  
nekatu gerriak,  
ikusi ber izaten  
giñuzen gorriak.
- 6 Gero asitzen ziran  
berriz auzo-lanak,  
an bilduko giñaden  
ballarako danak.  
Egun ortan dexente  
jan eta eranak,  
saiatuko ziran an  
bildutzen ziranak.
- 7 Lauko zoia izaten  
zan jeneralean,  
iru edo lau bat zoi  
soro zabalean.  
Danak ixil-ixilik  
ta egiñalean,  
zein lenago iritxi  
beste egalean.
- 8 Ustutzen zutenian  
an zegon botilla,  
laster mogituko zan  
etxeko mutilla,  
ardorikan ez bazan  
sagarduen billa.  
Illunabar aldera  
ango eskanbilla!
- 9 Ballarako etxe danak  
pasako giñuzen,  
deitutzen zutenian  
juan bear zuzen.  
Aste-egunak ortan  
pasa baziñuzen,  
jaiko jolas-guriak  
kenduko ziñuzen.
- 10 Lan ori baztatu da  
urtetik urtera,  
laiarekin ez leike  
juan apartera.  
Gaur bestela badago  
laneko aukera,  
azkeneko tontuak  
gu izandu gera.

# Astoaren lanak



1 Lengo garai bateko  
astoaren lana:  
eraman egin bear  
artutako zama;  
batenbatzutan igual  
jarritako dana  
gertatuko zitzaion  
ezin eramana.

2 Astoak errotara  
juaten ziran sarri,  
artoa eraman da  
iriña ekarri;  
etxeko andre gaixoak  
atzetikan: Arri!  
Ikasten zuten ongi  
bide oien berri.

- |   |   |    |  |
|---|---|----|--|
| 3 | Astoa barrutian<br>an dabil larrian,<br>kalera juateko<br>aren bearran;<br>ollo arrautz batzuek<br>jarri bizkarrian,<br>an dijoa astoa<br>andrien aurrian.            | 7  | Esniak kaleratu<br>bear ziranian,<br>astoa asiko zan<br>lenbizi lanian;<br>ez basarri batian,<br>au leku danian,<br>arto koskor bat andik<br>etortzen zanian.    |
| 4 | Kape edo azukre,<br>ardo edo ogi,<br>kargatzen zan astoa<br>askotan gelegi;<br>kalian zama artu,<br>basarrira segi,<br>etzan etxeratutzen<br>iñoiz errezegi.          | 8  | Egin bear danian<br>kalerako jira,<br>gaurko andre askori<br>jar zaitez begira:<br>kotxe eder askuan<br>datoz baserrira,<br>astoakin juatia<br>lotsatutzen dira. |
| 5 | Bidean eman bear<br>naikoa astia,<br>ekarriko bazuan<br>karga ura guztia;<br>etxeratzen etzan<br>pentsu garestia,<br>barrutira izerdiz<br>bizkarra bustia.            | 9  | Langilleak izandu<br>arren on askuak,<br>orain sobre dirade<br>emengo astuak;<br>pasa badituzte're<br>len egun estuak,<br>basarritarrak dira<br>txit aberastuak. |
| 6 | Ekarri bear ziran<br>ganaduen janak,<br>bizkarreko kakoak<br>ziran bere armak;<br>estaliko zizkaten<br>burua ta danak,<br>laister egingo zitun<br>morroi baten lanak. | 10 | Astoa dabil beti<br>loitán zikindua,<br>zarra izan liteke<br>edo ezindua;<br>alare egin bear<br>gure agindua,<br>langille ona baña<br>gaizki ordaindua.          |



# Garai bateko eztaiak

The image displays a musical score for a piece titled "Garai bateko eztaiak". The score is written on seven staves, each beginning with a treble clef, a 3/4 time signature, and a key signature of one sharp (F#), indicating the key of G major. The music is a single melodic line. The first staff starts with a quarter rest followed by a quarter note G4, then eighth notes A4, B4, and C5. The second staff continues with eighth notes D5, E5, F#5, and G5, followed by a quarter note G4. The third staff features eighth notes A4, B4, C5, and D5, then a quarter note E5. The fourth staff has eighth notes F#5, G5, A5, and B5, followed by a quarter note C6. The fifth staff begins with a quarter note D6, then eighth notes E6, F#6, and G6, followed by a quarter note G5. The sixth staff starts with eighth notes A5, B5, C6, and D6, then a quarter note E6. The seventh staff continues with eighth notes F#6, G6, A6, and B6, followed by a quarter note C7. The piece concludes with a quarter note D7 and a final double bar line.

- 1 Gure auzoko maiorazkuak bazitun ezkondu-naiak, orrelakuak berriz aukeran edukitzen andregaiak; adiñan ere aurreratua eta baziran garaiak: «Orrek seguru emango dizku bi eguneko eztaiak!»
- 2 Zortzi bat egun aurretik edo artzen gendun abisua: ostegunian ezkontzen zala len esandako auzua, nola eztaitan espero zuten gure pameli osua; gazte jendia une artantxen etzan izaten gozua.
- 3 Bolara artan ezkontzen ziran geienak ostegunian, eztaiak zeuden orduan eta ondorengo egunian. Ura zan poza maiorazkuak dei egiten zigunian! Juan gabe iñor etzan gelditzen aukerarik gendunian.
- 4 Esposatzen zan maiorazkua baizan gure taldekua, bi eguneko jan da erana gendukan debaldekua; bezperan ilko zuten txalen bat berrogei erraldekua, arekin kezka kenduko zuten gutxiñez sukaldekua.
- 5 Lau bat dozena itxapero-edo ortako aurrez erosi, asteazkenez gau erdirako tiroak tiratzen asi: maiorazkua nola ezkontzen zan danari adierazi; sasoi ederra eta miñik ez, orduan giñan gu bizi!
- 6 Egun orretan goiz-goizetikan asiko zan trikitia, eleiz-birian martxa jotzeko oso soñu egokia. Gazte jendiak soñuarekin batian ura jaikia! Une artan guk gendukan poza etzan izaten txikia.
- 7 Goiz orretan bai etxian zuan traierik onena jantzi, taldian zegon gazte lerdanak egingo zuen irrintzi; maiorazkua ezkontzen da ta bada ainbeste garrantzi, mutillak bere eztaien poza nai zukien erakutsi.
- 8 Errian sartzen ango soñu ta ango itxapero-otsa! Berrogeiren bat neska ta mutil, aiek bai orduan poza! Basarritikan kalerakua etzan oso bide motza, eleizaraño sartuko giñan eta an zegon ezkontza.
- 9 Ordu betian egin genduen guk gere elizkizuna, uraxen zan guk egun orretan gendukan eginkizuna; sazerdotiak eskeiñi zien urte askoz osasuna, da alkarrekin lo egiteko bazuten askatasuna.
- 10 Goizetik egin gendun gaztiak gure elizako jira, berialaxe jarri giñaden mendi aldera begira; ezkon berriak jua nai zuten atzera lengo tokira, erriko lanak egin ziran da bazkaltzera basarrira.

- 11 Ume koskorak juaten ziran  
ta gurasuak ere bai,  
auzokoren bat ezkondutuzian  
danak artuko zuten jai;  
beren tarteko senideren bat  
utziko zuten etxe zai,  
bi egun oitan beren lanakin  
etzuten ezer jakin nai.
- 12 Gezurrak ere badirudite  
eztaietako esanak,  
egun bat lagun eta geiago  
sarritan gaude izanak;  
janaren paltik etzan izaten  
eta sobratu eranak,  
bapo moldatzen ziran orduan  
aruntz juaten ziranak.
- 13 Soñua jotzen ari zana're  
etzan ixiltzen orduan,  
dantzan askorik etzekitenak  
asiko ziran saltuan;  
beste mai-puntan aitonak berriz  
bertsotan edo kantuan,  
danak zeukaten libertsia  
eztaitaru juandakuan.
- 14 Gau erdi aldia etorriko zan  
eta nekatu samarrak,  
ordu oietan jotzen giñuzen  
erretiratu bearrak;  
bestela urrengo egunerako  
egoten ziran lan txarrak,  
bakoitzak beren etxietara  
juango ziraden zarrak.
- 15 Zarrak juango ziran etxera,  
bertan gelditu gaztiak,  
pena ematen baizigun guri  
broma eder ura uztia;  
batzuk batere etzan gabe ta  
sapaian lotan bestiak,  
da biaramon goizian berriz  
antxe gosaltzen guztiak.
- 16 Ostiralian berriro ere  
asiko gendun eguna:  
«Ai zer nolako lagun-artia  
igaro bear deguna!»  
Auzoak edo pamelikoak  
dana jende ezaguna,  
gosaltzen berriz jango genduan  
an ekarritzen ziguna.
- 17 Goizetik oi da illun-aldia  
eztaien bigarrenian,  
gosaldutuzian atzera berriz  
sasoirik ederrenian:  
«Len bezelako tristurarikan  
ez daukagu barrenian,  
goizeko gure goibel-aldia  
pasa da okerrenian!»
- 18 Len esandako trikiti ori  
astean zan gosaltz onduan,  
ta an zeguan gazte jendia  
dantzan aguro orduan;  
egun oriek zartuta ere  
izaten dira goguan,  
orain ederki ikusten degu  
zartutzian zer daguan.
- 19 Gaztetan pasa diran egunak  
gogoratutzen zartzian:  
nola ez baizan ezeren paltik  
eztaiak ziran etxian,  
une gozuak pasatzen giñun  
juaten giñan bakoitzian;  
negar-malkuak etortzen dira  
gauza ortaz oroitzian.
- 20 Juaterakuan poza eztaiak,  
etxerakuan serio,  
urrengo eguna lanian pasa  
bear degula merio:  
«Etxe onetan bi egun pasa  
ditugu millonario,  
gabon pasatu, etxeak, da  
beste bat arte ario!».

# Orain irurogei urteko apaizak

A musical score consisting of seven staves of music. The music is written in a single melodic line on a treble clef staff. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 2/4. The melody is composed of eighth and sixteenth notes, with some rests and slurs. The piece concludes with a double bar line.

- 1 Erlijua bai gaur  
irurogei urte  
ta bagendun parte;  
beste batzuk etziran  
ibiltzen aparte;  
elizara bidian  
al gendun bitarte,  
apaizen aginduak  
bear ziran bete:  
«Bestela kondenatu  
egingo zerate!''.
- 2 Apaizak zer zeukaten  
jarria buruan  
ez dakit orduan;  
oso zintzo ibili  
bearko genduan;  
Arruan zazpiretan  
meza bazeguan,  
lenbiziko orduan  
guk nai berriz juan;  
apaizaren gogoa  
betetzen genduan.
- 3 Orduan mezetara  
juaten zan oiñez,  
intentzio piñez;  
ordu bete bidean  
bear zan gutxiñez;  
al gendun pausorikan  
luzena egiñez,  
errez pasatzen giñan  
arriaren gaiñez,  
ez baigiñan egoten  
zankotako miñez.
- 4 Mezetara juaten  
giñan illunpetan,  
itxusi benetan;  
oitura orixen zan  
basarri danetan:  
lasto-zuziak artu  
eskuan garretan;  
ibiliakgatikan  
postura txarretan,  
ez giñan geldituko  
mezakin zorretan.
- 5 Mezetara askotan  
sei zazpi senide,  
tartian an ni're,  
goizian goiz jeikita  
ori zala bide;  
elizatik urruti  
zegon Uztapide,  
Jaungoikuarekin nai  
gendun adiskide,  
uste det bagendula  
ainbeste eskubide.
- 6 Neguan izaten zan  
birian elurra,  
estalarik lurra,  
eta zuzen juaten  
etzan ain xamurra;  
ezin billaturikan  
ango bidexurra,  
saiatutzen giñan gu  
al gendun apurra:  
meza utsegiteko  
bagendun bildurra.

- 7 Igandia izanda  
etzeguan lanik  
egingo zuanik;  
naiz belarra ebateko  
garaia izanik,  
pasa bearra zegon  
egin gabetanik:  
jaian lana eginda  
etzan gauza onik,  
da ez pentsa gezurrik  
esaten dedanik.
- 8 Dantzan asitakuan  
neskari ez eldu  
ta anima galdu;  
orrenbeste eskubide  
mutillak ez al du?  
Batere uste etzala  
akatsak azaldu,  
erriko neskazarrak  
kontua ugaldtu,  
luistarra baziñan  
aurrian bialdu.
- 9 Orduan etzeguan  
egiterik dantzan  
danen bixtan plazan;  
neskatxari elduta  
egin bear bazan,  
gutxinez obispuen  
baimena bear zan;  
lenbiziko galdera  
lotsatzen ez al zan;  
zeñek sartu nai luke  
orrelako saltsan?
- 10 Orain ez det pentsatzen  
olako lanikan  
izango danikan;  
jendiari ez lioke  
egingo onikan;  
gaur kasorik ez dantzan  
egiñagatikan,  
da mezak asten dira  
larunbatetikan;  
juan nai duenak ez du  
aukeran paltikan.
- 11 Mezetara juan gabe  
izaten zan kezka,  
askotan gaiñezka;  
bati burua jartzen  
zitzaion trabeska;  
danak juaten giñan  
mutil eta neska,  
entzuten ziranakin  
berriketa ez-ta;  
olaxe zan orduko  
erlijio-pesta.
- 12/ Gaur ez da orrelako  
nekerik izaten  
mezetara juaten:  
sartu zar da gaztiak  
danak kotxe baten;  
alare kostatzen da  
batzuk eramaten,  
alperrik jardutia  
askori esaten,  
ia ba onez aurrera  
juaten zeraten.

# Zakurra



A musical score for the piece "Zakurra". The score consists of six staves of music, all written in a single treble clef. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 2/4. The music is composed of eighth and quarter notes, with some rests and a final fermata. The notation is as follows:

- Staff 1: Four measures of music. Measure 1: quarter note G4, quarter note A4. Measure 2: quarter note Bb4, quarter note C5. Measure 3: quarter note Bb4, quarter note A4. Measure 4: quarter note G4, quarter note F4.
- Staff 2: Four measures of music. Measure 1: quarter note E4, quarter note D4. Measure 2: quarter note C4, quarter note B3. Measure 3: quarter note A3, quarter note G3. Measure 4: quarter note F3, quarter note E3.
- Staff 3: Four measures of music. Measure 1: quarter note D3, quarter note C3. Measure 2: quarter note B2, quarter note A2. Measure 3: quarter note G2, quarter note F2. Measure 4: quarter note E2, quarter note D2.
- Staff 4: Four measures of music. Measure 1: quarter note C3, quarter note B2. Measure 2: quarter note A2, quarter note G2. Measure 3: quarter note F2, quarter note E2. Measure 4: quarter note D2, quarter note C2.
- Staff 5: Four measures of music. Measure 1: quarter note B1, quarter note A1. Measure 2: quarter note G1, quarter note F1. Measure 3: quarter note E1, quarter note D1. Measure 4: quarter note C1, quarter note B0.
- Staff 6: Four measures of music. Measure 1: quarter note A0, quarter note G0. Measure 2: quarter note F0, quarter note E0. Measure 3: quarter note D0, quarter note C0. Measure 4: quarter note B0, quarter note A0, followed by a fermata.

- 1 Zakurra da gauza bat  
derrior ber dana,  
danak izaten dute  
bakoitzaren lana;  
ederki egiten du  
jabien esana:  
«Juan aruntza edo  
atoz neregana!» .  
Sena izaten baitu  
Jainkuak emana.
- 2 Zakur txiki batzuek  
zikinduak loitan  
ikusiko dituzu  
edozein sasoitian;  
alperrikan ez dago  
animali oitan,  
etxe ederrenian  
edo barrakoitan  
ibilliko zaizkizu  
beti arratoitan.
- 3 Beste zakur batzuna  
dadukat esangai,  
aueri ez nieke  
ixilik utzi nai:  
ikusiko izan ditut  
makiña bat artzai,  
zakurra lanian da  
berak egiten jai,  
ardien baztarrian  
exerita lasai.
- 4 Ollagorretarako  
zakurrak badira,  
piñ asko eman dituzte  
makiña bat jira;  
beren nagusiakin  
juanda mendira,  
Azaro Abendutan  
ibilli oi dira;  
ni berriz txoratutzen  
berari begira.
- 5 Beste zakur batzuek  
ere tajuzkuak  
ikusiko izan ditut  
erbitarakuak;  
egunez erabiltzen  
gabeko arrastuak,  
animaliak dira  
oiek piñ askuak,  
Jaungoikuak artako  
berezitakuak.
- 6 Ikusi izan ditut  
ataiko atian  
zakur batzuk daudela  
lotuta katian;  
etxekorikan iñor  
ez danen batian,  
an egongo da erne  
norbait juatian,  
ez da ixilduko ark  
aldegin artian.
- 7 Amaika aldiz jardun  
gerade esaten,  
zakurrikan alperrik  
ez dala izaten;  
bakoitzari lan bana  
diogu ematen,  
ikusiko degu nola  
portatu zeraten,  
ez da arritzekua  
ematia jaten.
- 8 Bildurtutzen bazera  
gaba illunian,  
ontzak orruaren bat  
egin dizunian,  
edo beste soñu bat  
entzun dezunian,  
gizona jarritzen da  
estuasiunian,  
ez zakur on bat lagun  
damakizunian.





# Uztapideko pameliaren kaleratzea

The musical score consists of eight staves of music, all in treble clef. The key signature is three flats (B-flat, E-flat, A-flat), and the time signature is 3/4. The melody is written on a single staff. The notes are as follows:

- Staff 1: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4, C4.
- Staff 2: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4, C4.
- Staff 3: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4, C4.
- Staff 4: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4, C4.
- Staff 5: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4, C4.
- Staff 6: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4, C4.
- Staff 7: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4, C4.
- Staff 8: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4, C4.

- 1 Aita ta ama ziran lenbizi,  
zortzi gero senideak,  
eta bakoitzak izaten ditu  
norbere adixkideak,  
batzuek lagun maiteak eta  
beste batzuek aideak,  
baña norberak billatu bear  
bizimoduko bideak.
- 2 Jakiña dago sortu giñala  
aita ta amarengandik,  
kontseju txarrrik ez da izaten  
guraso onarengandik;  
gure Jainkuak egun batian  
eraman zitun emendik,  
nik zerbait baño naiago nuke  
bizi balira oraindik.
- 3 Zortzi senide giñaden eta  
guztiak sakabanatu,  
al zan bezela bizimodua  
bakoitzak gerezanatu;  
kristau pobriak oi dan bezela  
bizitzen asko penatu,  
bañan alare noiz zartu geran  
ez degu asko sumatu.
- 4 Anai zarrena etxerako ta  
beste guziak kanpuan,  
bizi-lekua billatu bear  
bakoitzak al zun lekuan;  
guk ere lortu gendun noizbaiten  
da ez berialakuan,  
etxerako zan anaia zarra  
zoriontsu zalakuan.
- 5 Maiorazkua izanagatik  
an etzan zorionikan,  
ogei-etaka ganadurekin  
ez baitzegon an bromikan:  
gazte guziak kalera eta  
iñon ez gauza onikan,  
baserria're bajatutzen da  
ez bada egiten lanikan.
- 6 Gaztiak danak kalera eta  
au baserriko segira!  
Oso ikusi erraza dago  
jarririk guri begira:  
opiziorik ez gendulako  
nola juañ giñan mendira;  
gaurko gaztiak gu zarrak baño  
lenago esnatzen dira.
- 7 Zazpi seme ta bi alabatxo  
ziran pameli gaztia,  
pentsatu zuten opiziuua  
ta eskolan ikastia;  
orretarako komeni baita  
bere garaian astia,  
Uztapidetik aldegin gabe  
zailla zan erakustia.
- 8 Gaztiak kale-birian eta  
gurasuarentzat lanak,  
nunbaiten miña izango dute  
asko nekatzen diranak;  
gauza onikan etzeukatela  
ondo ziran antzemanak,  
askoz obia zutela andik  
kalera jetxita danak.
- 9 Gurasuak an arkitzen ziran  
lan zakarrakin etsita,  
eta kalera jetxi ziraden  
baserriari utzita;  
kalian ere zerbait billatu  
bear menditik jetxita,  
etxian ezin egongo ziran  
ate guziak itxita.
- 10 Kalian ere izaten dira  
makiña bat aitzaki-ta,  
an ere etxe utsa baidago  
goizian oitik jeikita;  
baserrikan jetxi baño len  
zeukaten erabakita  
nola biziko ziran Zestuan  
ostatu bat irikita.

- 11 Esan bezela, zuten ostatu  
polit bat an irikia,  
ta pamelia bizi izateko  
oso era egokia;  
andik eroso zegon eskola  
ta lanerako tokia,  
ori etxetik alde daukanak  
ez du alderdi txikia.
- 12 Pena ematen du aldegiak  
basarri eder batetik,  
bere denboran bizi izandako  
ganaduaren artetik;  
baña aztuko zaizka guziak  
lendabiziko urtetik,  
gogoratzian aldegin dula  
lantegi zakar artatik.
- 13 Basarria ain gauza ederra da  
noizik-beiñetan juanda,  
ni ere emen Oiartzundikan  
iñoiz juaten nitzan-da;  
atzera alde al dan azkarren  
kontseju batzuk emanda,  
bañan etxian bizi danentzat  
beti lanerako txanda.
- 14 Goizian oitik jeiki orduko:  
«Ekarri itzak jatenak!»  
Artantxe ere badira lanak  
gizon tajuzko batenak;  
eguna ondo zabaldu gabe  
sarri etxetik ertenak,  
baietz esango dirate neri  
ondo probatu dutenak.
- 15 Gaztiak juan kalera eta  
gurasuentzat arria,  
zarrak besterik ez baldin bada  
bera dator basarria;  
gero Gabonak etorritzian  
iltzeko palta txerria,  
lana ugari ta sari gabe,  
ori da penagarria!
- 11 An utzi zuten basarria ta  
lengo etxien babesa,  
bolara artan ipiñi zuten  
makiña bat esamesa;  
ondo pentsatzen jarri ezkerro  
ez da aztutzen erreza,  
gaur ez daukate beste penikan  
lenago etorri eza.
- 17 Gizona nunai konformatzen da  
txarraguak ikustian,  
lanikan asko dago guretzat  
batian eta bestian;  
ostatua're itxitzen dute  
egun batian astian,  
okerragorik ez baldin bada  
kontentu orrenbestian.
- 18 Nolanai itza ateratzen det  
berritsu batzuk bezela,  
bat edo bestek esan lezake  
gaizki mintzatzen naizela;  
izketa-aldi luze samarra  
egin nezake bestela,  
nere anaia, opa dizutet  
ondo izan zaitezela.

# Gerra



1 Mundu onetan gerra izaten  
da gauza izugarria,  
au da gizonak bazter guziak  
ondatutzeko jarria;  
gauza zar danak desegin eta  
nolabait utzi berria,  
pixka bateko galdua dago  
gerra pasa dun erria.

2 Zenbat nazio ondatu dira  
gerra bat izan dalako,  
ori egin gabe gure artian  
konpondu ez giñalako,  
beste guztiak oinperatu ta  
agindu nai degulako;  
gizonen txatxukeriagatik  
galdu gera sekulako.

- 3 Gu emen gerra izan zanian  
mendiz mendi ibiliak,  
ez geure borondatez juanak,  
beste batzuk bialiak.  
Amaika mutil eder baziran  
lur otzakin estaliak,  
zer negar egin ote zituzten  
mutil oien pameliak!
- 4 Gu alkar iltzen ibilli giñan  
anaiak eta lagunak,  
oraindik ezin dirade aztu  
an pasatako egunak.  
Salbaziorik bai ote degu  
gauz ori egin degunak?  
Guk aña kulpa izango zuan  
guri agintzen zigunak.
- 5 Batzuek illak gelditu ziran,  
beste batzuek elbarri,  
bear ainbeste errespeto ez  
geniolako elkarri.  
Bi ankarekin juan ziranak  
bueltan batekin etorri,  
berriz juateko gogo aundirik  
apenas zuten ekarri.
- 6 Amaika bider argitu zuen  
zori gaiztoko eguna,  
Jaungoikuari erregutuaz  
«Nere Jesukristo Jauna».  
Ondo pentsatzen jarri ezkeru  
ura zan ordu illuna,  
batere billa ibilli gabe  
etorritzen zitzaiguna.
- 7 Batek anka bat paltako zuen,  
bestiak bi beso motzak,  
abiazio txarren batzuek  
aiek segara zorrotzak!  
Gizona ez du asko poztutzen  
era artako morrontzak,  
erru aundirik etzutenak an  
gelditu ziran illotzak.
- 8 Gizonak gerran ibiltzen dira  
ajolik gabe jarriak,  
nunai erreta ikusten ziran  
etxiak eta erriak.  
Pamelietan jartzen dituzte  
naigabe izugarriak,  
ez dira olain errez egiten  
aien ordañak berriak.
- 9 Bati etxea erretzen zaio  
eta semiak soldadu,  
eta gosiak ia illian  
berriz ainbeste ganadu.  
Alare ez du iñork il naiko  
bate osasunik badu,  
galera aundiak izanagatik  
au bukatzea nai degu.
- 10 Pentsatu zazu gerra txar batek  
ekarri leiken galera,  
berialaxe artuko baitu  
naziuen zabalera.  
Orrelakotan zelebria da  
gizonaren abelera:  
illak lurpera sartutzen dira,  
erriak ospitalera.
- 11 Gu geok ere egiñak gera  
txit ibillera kaskarrak,  
orretarako ez gendun egin  
ondatau baizik baztarrak.  
Atzera bueltan etorri giñan  
jun bezin mutil azkarrak,  
beragatikan Jaungoikuari  
ematen dizkat eskerrak.
- 12 Andikan ondo etorri zanak  
nola ez Jauna eskertu?  
Len ere ez giñan gogoz juanak  
eta bai ondo aspertu.  
Iñori kalte egiten ere  
gu ezin giñan ausartu,  
emen agintzen dezutenak ez  
gerrako asmorik artu!

# Zubeltzu bertsolaria

A musical score for a Basque bertso (improvised song) titled "Zubeltzu bertsolaria". The score consists of seven staves of music, all written in a single melodic line on a treble clef staff. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/4. The music is characterized by a steady, rhythmic pattern of eighth and sixteenth notes, with occasional rests and dynamic markings. The notation includes various note values, rests, and articulation marks such as slurs and accents. The piece concludes with a double bar line at the end of the seventh staff.

- 1 Lore-illaren emeretzia  
Zubeltzu il zan eguna,  
mundu ontatik ezkutatu zan  
ainbeste maite genduna,  
guri emen bizi geraden arte  
iñoiz aztuko etzaiguna;  
gorputza zuen sendua baña  
biotza oso biguna,  
ez da nolanai aztutzekua  
tamaña artako laguna.
- 2 Adiña ere aundia zeukan  
larogei urte pasiak,  
denbora ortan amaika buelta  
emango zuan aiziak;  
danetarako denbora dauka  
gizonen bizi luziak,  
Zubeltzuk ere onak da txarrak  
danak zitun ikusiak,  
alaxen ere pazientzian  
pasako zitun guziak.
- 3 Nere artian auxen pentsatzen  
egondu nintzan lenguan:  
nola Arruan kantatu zendun  
Prantxes-Txikian onduan;  
kolore gorri-gorriakin-da  
sasoi ederra zenduan,  
ogei ta amar-amabi urte  
izango ziñun orduan,  
garai artan zuk il bear zanik  
pentsatuko etzenduan.
- 4 Gaztetan morroi egona nintzan  
Zubeltzu zarren auzuan,  
emezortzitik ogei urtera  
bi urte oso-osuan;  
semien gisa artutzen nindun  
beti joera gozuan,  
ogei ta amasei urte geienaz  
sasoa're ala zuan,  
nerekikuak egingo zitun  
nai izan baldin bazuan.
- 5 Oraindik ere gogoratzen zait  
neri Zubeltzu zar zana,  
zenbat kontseju eder ote zan  
gazte denboran emana?  
Pozik egingo nuen gaiñera  
alako baten esana,  
neretzat etzan Jose Antonio  
ain maisu txarra izana,  
arekin zerbait ikasi nuen  
lenago ezer ez nintzana.
- 6 Gazte denboran ibillia zan  
iriarekin itzantzan,  
danentzat oso zaila da baña  
gizon jatorra izan zan;  
«Jose Antonio bezelakorik!»  
amaika aldiz esan zan,  
ari esaten zitzaion ona  
onik iñor baldin bazan,  
pakia sortu zuten tokian  
Zubeltzu zarra're an zan.
- 7 Lagun-artiak eder askuak  
egiñak zitun gazterik,  
bañan ez pentsa ura sekulan  
gizonen kontra asterik;  
lagun egiten txit erreza zan,  
gero etzegon uzterik;  
arek etzekin iñori jartzen  
komeni etzan nasterik,  
umore ona zedukanian  
kantatutzia besterik.
- 8 Zubeltzu zarrengatikan egin  
bear baldin banu itza,  
gaurko gizonak nere ustetan  
oso biurri gabiltza:  
alkarri ezer sufritu ezinda  
ori da daukagun gaitza,  
beñere ez gera ondo izango  
ola baldin bagabiltza,  
ez Zubeltzuren antzeko asko  
mundu onetan balitza.

- 9 Mundu ontatik zu juatia  
sentitu degu benetan,  
bizi geraden arte guziko  
gelditu gera penetan;  
otoitz egingo degu zugatik  
oroitzen geran unetan,  
guk ere jua bear degula  
gogoratzen zaigunetan,  
ez bai gerade luzarokuak  
izango mundu onetan.
- 10 Zarraren atzen urtiak nola  
izaten diran tristiak,  
nik berdin samar ikusten ditut  
batzuk bezela bestiak;  
arentzat alde aundirik ez du  
jai-egunak da astiak,  
ikusten ditu dibersuan  
nola dabilzan gaztiak;  
martxa orixe eraman dute  
oraindañoko guztiak.
- 11 Jainkuak berak daki ondona  
zu gaiztua etzerana,  
guk dudarikan ez degu jartzen  
zeruratuko zerana;  
eriotzako orduan Jaunak  
deitu zion beregana,  
santu guzien artera zuen  
segituan eramana,  
eternidade guziko poza  
zion berari emana.
- 12 Gizatasuna zeguan beti  
Zubeltzuren inguruan,  
etzan arekin iñor aspertzen  
egon arren luzaruan;  
nai zendun gisan izango ziñan  
maisuzarren anparuan,  
beste gauzarik une onetan  
ez dadukat nik buruan:  
Jaungoikuari eskatzen diot  
gerta dedilla zeruan.



# Perretxikoak

A musical score for a piece titled "Perretxikoak". The score is written on seven staves of music, each beginning with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The first staff starts with a 3/4 time signature. The music consists of a single melodic line with various note values, including quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests. The piece concludes with a double bar line at the end of the seventh staff.

- 1 Dakidan piska eman nai nuke  
perretxiuaren berri,  
apiziu banuen eta  
billa ibilli naiz sarri;  
mendian dago osasuna ta  
zerbait jateko ekarri,  
lagunak asko baldin badakar  
ni ez naiz utsik etorri.
- 2 Apirillian ziza zuriak  
jaiotzen dira aurrena,  
perretxikutan nik ezagutzen  
detan klaserik onena;  
usaitik ere ezagutzen da  
alakoxe nabarmena,  
asi berrian kiloak milla  
pezeta egiten duena.
- 3 Pago azpian jaiotzen da au  
muzker koloreko gaiña,  
bein probatutzen baldin badezu  
perretxiku-klase piña;  
pama aundia du orrek emen,  
jan litekena gordiña.  
txit ezaguna Euskalerrian,  
izena gibelurdiña.
- 4 Arrazoi gabe nere ustetan  
ez det aterako itza,  
nik beti perretxiku tartian  
damakit nere bizitza;  
oneri ere gustatzen zaizko  
pagoa eta aritza,  
gaiña moria daukana eta  
deitzen zaiona urritza.
- 5 Oiez gaiñera beste klase bat  
daukagu ziza oria,  
oso aundia ez da ori baiña  
perretxiku ugaria;  
iñoiz lur-gaiña estalirikan  
ikusten da pagadia,  
eta eskertzen jakin bear da  
orelako janaria.
- 6 Len ere izena esan dizutet  
batena baño geiona,  
ondo beltza da beste bat emen  
oso perretxiku ona;  
emengo klase onenari're  
ezer zorrik ez diona,  
ikusitzen dan lekuan beti  
txapela erazten zaiona.
- 7 Nik perretxiku batzun izenak  
esan dizkizut lenago,  
ondo zuria izenekua  
beste bat ere badago;  
ortatik ere pilla ederrak  
iñoiz ekarria nago,  
baña aukeran jarri ezkerro  
nik ondo beltza naiago.
- 8 Kuletuak e badira baña  
ez dira izaten ugari,  
imporru zuri baten bilduta  
jaio izandu da ori;  
eta mordoskan ateratzen da,  
zer poza biltzalleari!  
Jeneralian gaztaiñadian  
gustatzen zaio berari.
- 9 Nik perretxiku biltzen igaro  
ditut sarritan egunak,  
amaika aldiz pozak txoratzen  
etxetik erten da junak;  
batzuek perretxiku geiago  
badituzte ezagunak,  
klase auetxek bakarrak dira  
guk jan izan ditugunak.
- 10 Beste batzuek ere badira  
emen bildutzen samurrak,  
onak da txarrak danerakuak  
ematen baiditu lurrak;  
egia garbi esaten det nik,  
zertako esan gezurrak?  
Zartuagatik gu gaude beti  
benenatzeko bildurrak.

# Lasarte bertsolaria

A musical score for a piece titled "Lasarte bertsolaria". The score is written on seven staves of music, all in treble clef. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 3/8. The music consists of a single melodic line. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a time signature of 3/8. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line at the end of the seventh staff.

- 1 Guk alkarrekin pasa ditugu  
bertsotan zenbaixo urte,  
bein ezagutu giñanetikan  
gaixotu nintzan bitarte;  
Euskalerriko zenbat pestetan  
artu ote gendun parte?  
Aspaldi ontan nola zeraden  
berririk ez det, Lasarte.
- 2 Ez dira ola aztutzekua  
guk pasa giñun egunak,  
noizian beinka gogoratutzen  
dira lengo ezagunak,  
dudik ez dago berriz guk biok  
egin izan ditugunak;  
zutaz oroitzen gerade beti  
ezagutzen zaitugunak.
- 3 Zenbat euskaldun guk errietan  
pozik utzitzen genduan!  
Lengo egun baten neure artian  
ori pentsatzen nenguan;  
amaika aldiz gogoz bertsoan  
jardun det zure onduan,  
ni kaxkal samar banintzan ere  
zuk lagundutzen zenduan.
- 4 Gelditu gabe erririk erri  
berdin zortzi egunian,  
ez giñaden gu nekatzen ere  
osasuna gendunian;  
ezertarako ez gera berriz  
ura galdu zaigunian,  
burua eta anak ziaro  
makaldu zaizkigunian.
- 5 Zurekin ezin azturik nabil,  
gure Lasarte prestua,  
amaika aldiz lasaitu nazu  
ni izan arren estua;  
aspalditxoan ikusi ez da  
auxen da ezin aztua!  
Zure laguna izan danentzat  
ori da lan bat gaiztua.
- 6 Zu ere baju ibiltzen ziñan  
geienez osasunez,  
ebakuntza bat egin zizuten  
zeuk esan izan dezunez;  
urtietako suprimetua  
nik zuri entzun nizunez,  
alare beti ibilli izan  
ziñaden gizatasunez.
- 7 Ongi ezian daguen batek  
beti motel du gorputza,  
osasunakin gerala zerbaite,  
gaixotutakuan utsa;  
urdailletikan egin zizuten  
sekulako ebakuntza,  
eskerrak eman izan zendula  
Jaungoikuaren laguntza.
- 8 Zure urtiak izan dirade  
mikatzak edo gaziak,  
istori pranko badituzu zuk  
mundu ontan ikusiak;  
seme-alabak ere iñoren  
laguntzik gabe aziak;  
orain txarrenak egin dituzu,  
aztuko ziran guziak.
- 9 Juan ziran gure bertso-denborak,  
geiengo ez det abestuko;  
len egin izan nazun bezela  
ni ez nazu babestuko;  
orain mututu naizela eta  
ez al zera zapuztuko?  
Nik, Lasarte, zu bizi naizela  
sekula etzaitut aztuko.
- 10 Zorionean egun batian  
gu biok giñan alkartu,  
bein ezagutu giñaden eta  
geiengo ezin bakartu;  
landaretxo bat txertatutuzian  
bezela biok bat artu,  
oraindik gure naitasunikan  
ez da ziaro igartu.

- 11 Guk errietan pasatu izan  
ditugun gertakizunak,  
artzen giñuzen eguneko ta  
gabeko eginkizunak;  
garai aietan aginduko du  
gutxiña uste dezunak,  
nola arraio nai dezu ba zuk  
laguntzia osasunak?
- 12 Nekia edo nagitasuna  
arkitutzen nuen lendik,  
biotzekua neukala eta  
makaltzen asia andik;  
irurogei ta sei urterekin,  
zarra ez nintzan oraindik,  
garai bateko alaitasunak  
nora jua diran nigan?
- 13 Gure sasoiaren lenago etzan  
ortikan onerakua,  
aspaldi ontan nengon bertsoan  
piska bat ikaratua;  
perlesiak jo burutik eta  
itzik gabe geratua,  
orain etxian arkitutzen naiz  
oso erretiratua.
- 14 Lenago ere bertsoarekin  
dudan jarria nenguan,  
mututu eta gelditu nintzan  
Donostian atzenenguan;  
itzikan gabe geldituzian  
nik auxen pentsatu nuan:  
bertsoan egin gabe amaika  
bizi zirala munduan.
- 15 Bertsoarekin gabe bizi gerade  
orain ixiltasunian,  
naiz ikusi ez jarraitu beti  
lengo anaitasunian;  
Oriotikan Oiartzunera  
urre dago zuzenian,  
Manuel, kezka gabe onuntza  
etorri nai dezunian.

# San Antonetan Getarian

A musical score for the piece "San Antonetan Getarian". The score is written on seven staves of music, all in treble clef. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 3/8. The music consists of a single melodic line. The notation includes eighth and sixteenth notes, rests, and various phrasing slurs. The piece concludes with a double bar line.

- 1 Getariara juaten giñan  
urtero San Antonetan,  
lagunak ere oso jatorrak  
genduzkan erri onetan;  
iñola etzegon paltatzerikan  
ango pesta-egunetan,  
erria berriz biotzetikan  
maite genduen benetan,  
iñoiz ez giñan etxeratutzen  
aruntz juandako penetan.
- 2 Ango plazara bezin gustora  
nora juaten giñan gu?  
Erriko Etxetik kantatzen gendun  
Elkano zala testigu;  
Getariako pasadizuak  
gogoratutzen zaizkigu,  
amaika bider aitaturako  
txakolin eta bixigu,  
orain ez gera juaten baña  
ango berri badakigu.
- 3 Jaten gelditu izan giñaden  
Jose Loidiren barrian,  
bazkari ona egiteko're  
ez oso leku txarrian;  
nagusi jauna an izango zan  
bertsolaien baztarrian,  
kantatu gabe nola gelditu  
alako baten aurrian?  
Saio bat pozik egingo gendun  
lengo oitura zarrian.
- 4 Zenbat jun-aldi egin gendun guk  
egon arren apartian?  
Bai poz askorik kantatu ere  
Getariako partian;  
gutxienezko izango nintzan  
ogei ta amalau urtian,  
juaten asi nintzanetikan  
gaixo jarri bitartian;  
gorputza sano eduki banu  
segiko nion artian.
- 5 Gaixo jarri ta urrengo urtian  
deitu zuten Getarira:  
«Plaka bat dago zuretzat eta  
au artzia komeni da».  
Nola ez jua ainbeste urtez  
len izandako tokira?  
Kontzejal batek eraman nindun  
Erriko Etxeko balkoira,  
erri artako jende geiena  
antxe zan guri begira.
- 6 Erri artako kontzejal batek  
plaka eskeintzerakuan,  
bi bertso neuzkan pentsatuak ta  
aiek eman nai nitun;  
mutututzia egokitu zan  
asi eta segituan,  
ni nerbioso jarria nintzan  
iñon ezin kabituan,  
abildadiak eman zitunak  
atzera kendu zituan.
- 7 Aspertu eta geldi etzitezen  
Getaria ta bazterrak,  
eskeiñi zuten plakagatikan  
eman nai nitun eskerrak;  
orretarako eraman nitun  
bi bertso ustez ederrak,  
ez dakit galdu ez ote nindun  
nere ondo egin berrak,  
nolabait ere sortu ziraden  
uste ez nitun okerrak.
- 8 Gure antzeko ezjakiñari  
bai beti okerra sortu,  
osasunetik bigundu nintzan,  
geiago ezin gogortu;  
artian ere kantatu nai nun  
baña ori ezin lortu,  
Getari ondo portatu zala  
bear diogu aitortu,  
biotz-biotzez eskeintzen dizut,  
nere esker ona artu!

# Zepai

A musical score for the piece 'Zepai'. The score is written on eight staves of music. The key signature is two sharps (F# and C#), and the time signature is 3/8. The melody consists of eighth and quarter notes, with some phrases ending in a fermata. The piece concludes with a double bar line.



- 1 Une onetan gogoratzen zait  
Zepai bertsolari zana,  
bizi izan zan arte guzian  
nere laguna izana;  
oso alaiia zan da amaika  
zelebrekeri esana,  
irurogei ta lau urterekin  
Idiazabalen il zana.
- 2 Nik baño obeki zeñek zezkien  
Zepai zanaren berriak?  
Bertso-lanian pasa giñuzen  
ingurutako erriak;  
iñoiz etxera etortzen giñan  
ederki asko jarriak,  
baña munduan pasa ditugu  
egun gogoangarriak.
- 3 Esan bezela, Zepai eta ni  
izan giñaden lagunak,  
asko etxerik gogoratzeke  
pasatzen ziran egunak;  
bururatzia ez da erraza  
guk egin izan giñunak,  
ordu eder aiek nolatan aztu  
norberak pasa ditunak?
- 4 Gauzak esaten asten zanian  
zer zan baño gizon ura?  
Bildurrik gabe esaten zekin  
zetorkiona burura;  
nik berriz beti maitatzen nuen  
anaia baten modura,  
berriz alako gizon-klaserik  
sortuko al da mundura?
- 5 Ataunen ezagutu genduan  
Zepai zana lendabizi,  
*Kaseta* izeneko etxian  
da bertan bertsotan asi;  
biok bertsotan ari giñala  
alkarren berri ikasi,  
kantuan gogoz ari bagiñan  
gu zeñek ixildu-azi?
- 6 Ura izan zan Zepain da nere  
lendabiziko saiua,  
aren mingaiñak etzun trabarik,  
ain bertsolari iaiua;  
egun batian amarengandik  
orretarako jaiua,  
ainbesteraño saiatu gabe  
goi mallaraño iua.
- 7 Aizpurutxoko Erdiko-bentan  
lenengo plazan kantatu,  
Zepaitik eta Uztapidetik  
giñaden biok juntatu;  
al zan bezela bata bestiai  
pasadizuak kontatu,  
biok giñan gu gazte-gaztiak,  
biok orduan kontentu.
- 8 Geroztik biok alkarrekin gu  
ibilli giñan lanian,  
Donostiako Zerbezerian,  
beti umore onian;  
jan da lo ere etxe batian  
Zepain anaiarenian,  
burua makur izaten gendun  
askotan astelenian.
- 9 Len esandako Zepain anaian  
ostatua zan Konportan,  
sagardotegi bikain askua  
bazegon ostatu ortan;  
iñoiz bai bertso-saio ederrak  
egin giñuzen an bertan,  
agindu bear aundirik ere  
guk ez gendun sasoi artan.
- 10 Jaietan berriz arratsaldian  
Igeldora giñan juaten,  
*Leku-Eder* edo *Buena-Vista*-n  
geldituko giñan jaten;  
andik etxera ixildu gabe  
alkarri zerbait esaten,  
sorgiñen bildur aundirik beintzat  
etzan orduan izaten.

- 11 Egun batian barrikotia,  
bestian lagun-artia,  
orrelakorik iñon bazegon  
beti bagendun partia;  
larunbatian jakiña beintzat  
nola pasa bitartia,  
olako gauzak bukatu gabe  
juaten zitzaigun urtia.
- 12 Egun batian Oiartzunen da  
urrenguan Erretererin,  
sagardotegi oietan ere  
beti bazegon zer egin;  
ango jendia gozatu naian  
saiatzen giñan alegin,  
gero arratsa pasa zala ta  
pake ederrian aldegin.
- 13 Amaika olako kontu zeleb्रे  
goizetikan arratsera  
esanda sartu izan giñan gu  
lengo tokian atzera:  
zenbait alditan iritxi giñan  
eztarriak urratzera,  
baña ondoren guardiarik  
etzan etortzen etxera.
- 14 Zepairengandik etzan paltako  
bertsua edo abestia,  
astelenetan utzi berari  
orretarako astia;  
ura esaten asitzen bazan  
jaian pasa zan guztia,  
aldi askotan ibillia naiz  
ederki galtzak bustia.
- 15 Gu bertsolari giñan garaian  
etzegon altabozikan,  
eju galantak egiten giñun,  
ez gendun beste pozikan;  
txalo ederrak izaten ziran  
naiz-ta jaso ez sosikan,  
garai aietan etzun beteko  
bertsolariak poltsikan.
- 16 Biok ezkongai, pameliarik  
ez gendun gure karguan,  
noranai juaten giñala ere  
guk beti pesta goguan;  
iru-lau duro baldin bagiñun  
patrikararen onduan,  
gu bezin gizon aberatsikan  
iñor etzegon orduan.
- 17 Orduan bazan umore ona  
ta bazan alaitasuna,  
biok alkarri bagiñon berriz  
alakoxe naitasuna;  
sasoi ederra gendukan eta  
baita ere osasuna,  
nere ustetan orixe baita  
munduko aberastasuna.
- 18 Lagun bat ona izan ezkerο  
ezin da bizi bakarrik,  
nik Zepai berriz ala izanda  
ez dago esan bearrik;  
gazte-denboran pasatu gendun  
guk biok egun ederrik,  
zenbaiten gisa gaztetasuna  
ez degu galdu alperrik.
- 19 Gazte-denboran Euskalerrian  
pasiak amaika plaza,  
azkeneko aldiz ikusirikan  
dirade lau urte pasa;  
Uztaillaren ogei ta lauan  
eman zun azken arnasa,  
alako lagun maite batekin  
ez da aztutzen erraza.
- 20 Mundu onetako gure egunak  
nola oso motzak diran,  
Zepai, zuriak uste baño len  
bukatu izango ziran;  
zeruan neretzako moduko  
lekurik badezu jiran,  
ia gordetzen dirazun eta  
ni ere or naiz segiran.

# Euskalerrria

A musical score for the piece 'Euskalerrria'. The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of two sharps (F# and C#), and a 3/8 time signature. The music consists of a single melodic line with various rhythmic values including eighth and sixteenth notes, and rests. The notation includes slurs, ties, and accents. The piece concludes with a double bar line on the sixth staff.

- 1 Anai maiteak, ez da  
oraingo berria,  
mundua egin zanean  
bertan ezarria.  
Kanpotar askok dute  
onen egarria,  
baña guria zera  
zu, Euskalerrria.
- 2 Munduan bizitzeko  
danok erri bana  
bear izaten degu  
egiteko lana.  
Auxen da Jaungoikuak  
guretzat emana,  
aitortutzen dizugu  
portatu ziñana.
- 3 Ni suerte batekin  
emen sortu nintzan,  
da ikusten dezute  
zer moduz gabiltzan.  
Konpondutzen gerade  
guk nai degun gisan,  
beste leku batian  
obeto ezin izan.
- 4 Beren erriarentzat  
sekulako pamak  
eman izan dituzte  
atzerritar danak.  
Gu gera azkarrena  
oartzen geranak:  
ez dira juaten berriz  
etortzen diranak.
- 5 Emengo basuetan  
entzun det batzutan  
kukua jotzen zugaitz  
aundi baten puntan.  
Al dakizu orduan  
zer pentsatu dutan?  
Edertasun au ez da  
pagatzen dirutan.
- 6 Emen basuak ditu  
milla edertasun,  
jakin bear zenduke,  
ez dakit dakizun:  
zenbat txoriren kantak  
entzunak dituzun,  
eta biotzeraño  
sartu zitzaizkizun.
- 7 Emengo ondartzakin  
egin dute amets  
amaika kanpotarrek,  
ikusitzen denez.  
«Abek dirade toki  
ederrak!» esanez,  
or dabilta Jaunari  
eskerrak emanez.
- 8 Aurten ikasi badu  
onuntza bidia,  
urrengo urtian ere  
badator jendia.  
Euskalerrria pozik  
etorritzen dia;  
ez, baleukate beste  
toki bat obia.
- 9 Euskalerrria zer dan  
gaur baño lenago,  
bertan bizi naiz eta  
ikusia nago.  
Jardin bat bezelako  
dotoria dago,  
danetan politena  
oker ez banago.
- 10 Ezin nintzan aspertu  
ni onelako gaiz,  
baña ixildutzea  
obe degu garaiz.  
Ementxe sortu nintzan  
da emen ilko naiz,  
burutikan ziara  
nastutzen ez banaiz.

# Osinbeltzeko ezbearra



Zestuan autobusarekin pasatako gertaera au aspaldi samarrekoa da, baña jartzea pentsatu det.

Ogei ta iru urte dira aurtan, baña ez daukagu aztuta. Izan ere, gogoan idukitzeko modukoa zan egun ura. Batez ere Urola erreka orretan egin zituan okerrak, ez dira nolanai aztutzekoak.

Or, iru erritan, izugarria pasa zan. Azkoiti, Azpeiti eta Zestuan luto gogorra jantzi zan; luto beltza.

Guk ere bagenduan lengusu bat an galdua; an itoa, obeto esateko. Iraetako bi mutil aietako bat zan gure lengusua. Jose Uria Olaizola uraxe. Gure aitaren arreba zuan arek ama. Orregatik zuan bigarren abizena Olaizola, guk lenengoa bezela.

Ogei ta zortzi urte zituan egunean ito

omen zan. Kotxean urak artuta zeudenak ateratzera joan da bera galdu ura ta beste mutil bat. Au, Jose Olaizola Arriaran; au ere gure abizenekoa zan, baña etzan gure parientea. Beste batzuek uretatik ateratzeko asmoan joan da beren burua galdu zituzten gizarajoak.

Nik au, papeltxo au, gure lengusuaren oroigarri idazten det. Ain maitea genduan eta oraindik ere ezin aztu. Bi mutil aiek, orduantxe bizi izaten asitako mutillak, antxe ito ziran.

Beste guziak ere gogoan ditugu. An ito ziranak, geienak nere ezagunak ziran, da bakoitzak beren etxeetan, berriz, ezagunago izango ziran.

Nik guztiai opa diotet zeruan gerta ditezela.

- 1 Milla ta bederatziregun da berrogei ta amairuan, Urri-illaren amalaua zan gelditu zana buruan: urak ekarri zitun kalteak Gipuzkua inguruan, egia da, bai, iñor ez dala bizi ordu seguruan.
- 2 Arrats orretan gertatu zana zan gauza izugarria: milla ta bosteun milloi pasakin zigortu Euskalerrria; lurralde txiki batentzat ori bazan naikua arria; da ori utsa, kristauarena izan zan penagarria.
- 3 Bestiak beste Urola erreka arrats artan arrotua, bere lekuan kabitu ezinda zebillen amorratua; esan ziteken gizonarentzat zedukala gorrotua, eta autobus *Guipuzcoana* ark zuen izurratua.
- 4 Autobus ori Donostiatik arratsaldeko seiretan atera zan da arrixku aundia ikusitzen zan biretan; Azkoitirako destinuakin ondo pasa zan lretan, da Zestuara iritxi gabe or gelditu zan uretan.
- 5 Len esan dana Urola erreka zegon oso zakartuta, eten gabeko euriarekin urak zeuden indartuta; da Osinbeltzko pare orretan kamio dana artuta, autobusa an gelditua zan motorra urian sartuta.
- 6 Autobus ori arkitutzen zan oso arrixku latzian, eta lau gizon Zestuaraño laguntzan billa jua zian; beste laguntzik billatu ez ta tasista baten kotxian etorri ziran, da zer egiñik etzan aiek etortzian.

- 7 Autobusaren erditik gora  
jarria zeguan ura,  
argi-indarrak juan ziran da  
ura zan gauen itxura!  
Euria goian bezela beian,  
ematen zuen tristura,  
esplikatur ez da erraza  
orduko trantze beltz ura.
- 8 Zestuatikan espero zuten  
izango zala laguntza,  
ezin zeikela ikusizian  
serio jarri zan gauza;  
ura gero ta arruago ta  
denborale txarrak luza,  
orduko batzun erabakia  
utzitzia autobusa.
- 9 Orduan etzan txorakeria  
autobusari uztia,  
baña sasoiko ziran batzuek  
pentsatu zuten astia;  
bost lagun ziran igari egiñaz,  
bata bezela bestia,  
beren bizia salbatu zuten  
ederki asko kostia.
- 10 Bost lagun aiek autobusetik  
erten zuten momentua,  
nola ote zegon bere barruan  
zeudenen pentsamentua?  
Jaungoikuari eman bearra  
beren animen kontua,  
kotxe barruan errezatu zan  
errosario santua.
- 11 Zori gaiztoko gau triste ura  
ikusten zan itxusia,  
Iraetatik ateria zan  
sasoiko jende guzia;  
ango bi mutil gazteri pasa  
zitzaioten desgrazia:  
besteri laguntzera juanda  
an galdu zuten bizia.
- 12 Autobusa an arkitutzen zan  
goiko arkaitzari lotua,  
sokak autsi ta ark jarri zuan  
berebiziko lutua;  
amasei lagun zitun barrenan  
da urak menderatua,  
Iraetatik berreun metrora  
txikituta billatua.
- 13 Autobusa urak eraman zuan  
goizeko ordu bietan,  
barrengiak zer supritu zuten  
sei ordu luze aietan,  
uraren otsa beste gauzarik  
aitzen etzan garaietan!  
Eskerrak beren itxaropena  
zutela zero goietan.
- 14 Errotazarren ere pasa zan  
gauza ikaragarria:  
gau artan bertan Urola errekek  
bota zuen basarria;  
iru eriotz egin zituan,  
ura orduko larria!  
Arrats orretan kastigatua  
zan Zestuako erria.
- 15 Kotxe turismo txiki bat bazan  
autobusaren atzian,  
ura ere an gelditua zan  
ujolak menderatzian;  
salbatu nai ta laguntzarik ez,  
oso estusun latzian,  
an etzan aren aztarrenikan  
eguna zabaldutzian.
- 16 Amasei lagun ziran orduan  
galduak autobusian,  
beste iru kotxe txiki batian  
juan gabe bide luzian;  
Iraetako bi mutil gazte  
andik urruti etzian,  
Errotazarko iru aiekin  
ogei ta lau bat bazian.

17 Iru erritako jendia ziran  
ogeitalau oiek danak,  
Azkoiti eta Azpeiti eta  
Zestuan bizi ziranak;  
erreka batek zakartu ta gau  
baten egindako lanak,  
bizi geraden arte gau artaz  
gogoratuko geranak.

18 Nere ustetan gai oni buruz  
naikua degu itzezin,  
ondo pentsatzen jarri ezker  
ordu an etzan atsegin;  
an il ziraden aien animen  
alde orazio egin,  
eta Urola erreka berriz  
ola arrotu ez dedin.



# Oiartzun

A musical score for the piece 'Oiartzun'. The score consists of seven staves of music, all written in a single melodic line on a treble clef. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/8. The music is characterized by a steady eighth-note rhythm with various melodic intervals and rests. The notation includes eighth notes, quarter notes, and dotted notes, with some notes beamed together. The piece concludes with a double bar line at the end of the seventh staff.

- 1 Zori onean ikusten zaitut  
ni bizi naizen erria,  
gure Jainkuak egun batian  
emen nindun ezarria.  
Laguntzarrene bizi izaten  
jarri giñan basarria,  
zer poztasuna ote nuan nik  
egun baten ekarria!  
Beti gogoan izango zaitut,  
Oiartzun maitagarria!
- 2 Oiartzun oso paketsu dago  
Urkabe-mendin oiñetan,  
pagadi bikain askuak ere  
baditu mendi-gaiñetan;  
Lartaun zarraren odola dago  
oiartzuarren zaiñetan,  
euskera beste izkuntzarikan  
ez da beren mingaiñetan,  
ondo pentsatzen jarri ezker  
jatorra zera ziñetan.
- 3 Gure etxetik begiratuta  
bixtan da Aiako-arri,  
emen bizitzen jarri baño len  
banekien bere berri;  
nik Zestuako mendietatik  
begiratzen nion orri;  
ixilik ezin egonik dago,  
izketan ai da zeorri;  
pakian bizi nai badezute  
alde onetara etorri.
- 4 Arditurriko minetan dago  
Aiako-arriren magala,  
ortik pentsatu besterik ez da  
mendi aberatsa dala;  
orko beruna ta espatua  
eta gaiñera metala,  
eta batzuek esaten dute  
zillarra ere badala;  
oiek guziak arkitzen dira  
urratu ezker azala.
- 5 Mendi geiago ere badaude:  
Errenga eta Bianditz,  
aspertu eziñik egona nago  
begira amaika aldiz;  
txapela erantzi bear zaiote  
eta errespeto aundiz,  
esplikaturten asitzerako  
ikusi egin bear begiz,  
Oiartzun bezelako erriak  
oso gutxi dira mendiz.
- 6 Oialekuren berri eman gabe  
ez da erraza ixiltzen,  
ikusirikan gazte ta zarrak  
jaietan nola dabilten;  
ango pagadi zabal aietan  
ikusten dira murgiltzen,  
batzuek beren janakin juan  
eta perretxiku biltzen,  
aur txikiak ere ikasiko  
dute an oiñez ibiltzen.
- 7 Ondo pentsatu ezker, zer da  
mendiko lasaitasuna?  
Badakit Oialekuko berri,  
irakurle, dakizuna.  
Len ez daukanak toki oietan  
billatzen du osasuna,  
begien bixtan ikusitzen da  
ni lilluratzen nazuna,  
nere mingaiñak ezin esan du  
zuk dezun edertasuna.
- 8 San Juanetan ikusgarriak  
dira emen belardiak,  
erdiak jaten dira berdetan,  
legortu beste erdiak;  
negurako're etortzen dira  
erramolax ta arbiak,  
eta sagarrez betiak berriz  
aurten ere sagardiak,  
o, Oiartzungo basarritarrak  
daukazkien alderdiak!

- 9 Mendian nunai ikusten dira  
ardiak eta beorrak,  
oso aundiak ez dira baño  
arkaitza bezin gogorak;  
aberez ongi jantziak daude  
emengo mendi-tontorrek,  
etxian beiak esniakin da  
gaiñera azi txekorrak,  
baserritako lanik geienak  
egiten ditu motorrak.
- 10 Bai eta ere nunai ikusten  
dira lantegi berriak,  
bertakuentzat ainbat lan badu  
oraintxen gure erriak;  
orretan ere etorriko da  
artu bearra neurriak,  
oraingoz ia naikua dira  
emen lenago etorriak,  
asko geiago ugaldtu eta  
ikusi bear gorriak.
- 11 Oiartzun, zuregatik esango  
nituzke amaika egi,  
orretarako zuzendu bear  
zaizka lenbizi bi begi;  
bakoitzak bere bizimoduai  
eman bearra arpegi,  
pabrika egiten asi ziran da  
orain alaxe nai segi,  
lana tamañan ona da baña  
ez da komeni geiegi.
- 12 Pabrika asko egin ezkeru  
errian lana ugaldtu,  
orrek erriko jendiaentzat  
alderdi onik bai al du?  
Lana ugari dagon tokira  
jendia beti azaldtu,  
bein etxeraño sartu ezkeru  
zeñek aurrian bialdu?  
Kanpokuakin ondo izateko  
etxekorikan ez galdu!

# Basarri ta ni

A musical score for the piece 'Basarri ta ni'. The score is written on eight staves of music, each containing a single melodic line. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/8. The music consists of eighth and sixteenth notes, with some rests and phrasing slurs. The piece concludes with a double bar line on the final staff.

- 1 Basarri ta ni Oikian asi  
giñan kantuan lenbizi,  
artian alkar oso gutxitan  
egingo gendun ikusi;  
eskarmenturik ez gendun eta  
bertsotan franko eskasi,  
andikan ara asi giñan da  
guk ere zerbait ikasi.
- 2 Oikian gendun lenengo plaza,  
Antzuolan bigarrena,  
arako deia izan genduen  
Oikiakuen urrena;  
geroztikan or ibilli gera  
Euskalerrian barrena,  
lendabiziko bi erri oitan  
egiña gendun txarrena.
- 3 Basarri ta ni biok giñaden  
orduaz gazte-gaztiak:  
ogei eta sei urte neuzkan nik,  
ogei eta bi bestiak;  
geroztik pasa ditugu egun  
alaiak eta tristiak,  
oker aundirik gabe jua dira  
orain arteko guztiak.
- 4 Gu bertsuetan asi giñala  
dirade berrogei urte,  
Basarri mutil ederra zegon,  
eun kilo etzan aparte;  
amaika bertso kantatu degu  
andik onera bitarte,  
orain ixilik irau biarko  
Jainkuak nai duen arte.
- 5 Gure bertsuak diradelako  
amaika erritan izanak,  
bestela ez giñun ikusiko're  
ikusi ditugun danak;  
urtian buelta bat gutxienez  
Euskalerrian emanak,  
geure partiak egin da gero  
erretiratu geranak.
- 6 Gipuzkua eta Naparrua,  
Araba edo Bizkaia,  
oiek danetan kantatutzeko  
izandu degu doia;  
beti norabait jua bear zan  
etorri ezkerro jua;  
orain bertsuak utzi ditugu,  
bazala uste det garaia.
- 7 Mugaz bestalde orretan ere  
badira iru probintzi,  
an ere eman egiten zaio  
bertsuai zerbait garrantzi;  
ara juateko izan ditugu  
makiña bat komenentzi,  
deia zanian jua gabe guk  
askotan ez giñon utzi.
- 8 Paristik ere egun batian  
deia zitzaigun etorri,  
nolabait ere ikasi naia  
gendukan Parisko berri;  
Xalbador eta Mattin andikan,  
emendik ni ta Basarri,  
iru egun pozik pasa giñuzen  
naiz diru gutxi ekarri.
- 9 Basarri ta ni ezagutuzten  
giñun emengo jendiak,  
ezagun asko egin giñuzen  
gu izan arren pobriak;  
Gipuzkuan txit erri gutxitan  
giñaden izan gabiak,  
estaziora jua orduko  
izango ziran jabiak.
- 10 Izan geraden erriak danak  
esaten ez naiz asiko,  
uste det lana bagendukela  
aurtengo urte guziko;  
aberasteko ainbeste diru  
ez gendun irabaziko,  
beste lan baten asi bagiña  
gaizkio ez giñan biziko.

- 11 Basarri ta ni zenbat erritan  
bertsotarako bilduak,  
azkenerako ibilli giñan  
urtetan pranko elduak;  
jan da eran ere geiegi eta  
gaiñerako gau galduak,  
nai gendunikan ezin egin zan  
nola baigiñan salduak.
- 12 Garai aietan ez bainuen nik  
Basarri beste lagunik,  
amabost-aldi batian iñoiz  
utsegin gabe egunik;  
batzuek esan da sinistu ez  
guk ori egin degunik,  
ez det pentsatzen ori nolana  
burutik juango zaigunik.
- 13 Pake ederra izaten gendun  
gaberako aldeginda,  
bat illuntzian etorriko zan  
etxeke lanak eginda;  
gu ordurako txit nekatuak  
geiago egin ezinda,  
ajolik gabe aginduko zun  
gu nola geunden jakinda.
- 14 Esan bezela, orain berrogei  
urte bertsotan asiak,  
askotan lorik etzan egiten  
eta burutik nasiak;  
ori dala-ta zenbat naigabe  
ote gaude ikusiak?  
Orduan etzan pentsatzen baña  
ibillera itxusiak.
- 15 Amaika bertso berrogei urte  
ontan botiak alkarri,  
jenio txarra zeukaten asko  
umore onian jarri;  
geure denboran diru askorik  
ez degu ortik ekarri,  
baldin ezertan paltatu badet  
barkatu akiak, Basarri!

# Kontrabandua

The image shows a musical score for a piece titled "Kontrabandua". The score is written on six staves of music, each with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The time signature is 2/4. The music consists of a single melodic line. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp, and a 2/4 time signature. The melody starts on a quarter note G4, followed by quarter notes A4, B4, and C5. The second staff continues with quarter notes B4, A4, G4, and F#4. The third staff has quarter notes F#4, G4, A4, and B4. The fourth staff has quarter notes B4, C5, B4, and A4. The fifth staff has quarter notes G4, F#4, G4, and A4. The sixth staff has quarter notes B4, C5, B4, and A4, ending with a double bar line.

1 Gizonak zerbait egin bear du  
biziko bada munduan,  
batek ez daki sortzen danian  
ogi-bidea nun duan;  
Guk Oiartzuna etorritzian  
emen ikusi genduan,  
jendia nola ibillitzen zan  
gabian kontrabanduan.

2 Kontrabandoai esaten zaio  
askotan *gaueko lana*,  
oso gordian egiten da au  
naiz batzuk kontatu dana;  
gabaz lo egin zutenari're  
beren albixta emana,  
gezurrik ez det batere esaten,  
begiz ikusi dedana.

- 3 Kontrabandistak gabaz lanian  
izaten dira abillak,  
askoz geiago egingo zuten  
izan balira ixillak;  
atzenerako dana jakiten  
zuten guardiazibillak,  
gero larrutik pagatzen zuten  
ortan zebiltzan mutillak.
- 4 Illundu orduko asiko ziran  
paketiak bizkarrian,  
gorputza oso nekatu arren  
ezin utzi baztarrian;  
bildur ziraden guardiren bat  
izango zala urrian,  
eta korrika egin bear zan  
alakuaren aurrian.
- 5 Arrats guzian beren kargakin  
mangatzeraño ezurrak,  
gizonak oso kezkaturlkan,  
ez du balio gezurrak;  
ixildu gabe aitzen ziraden  
basarritako zakurrak,  
ber zan lekura eldu baño len  
argitutzeko bildurrak.
- 6 Gabaz lanian dabilzan oiek  
gutxi ikaratzen zaunkak,  
iñoiz guardien aurrian ere  
jasotzen zituzten anak;  
oietatikan aldendutzeko  
izaten zituzten tranpak,  
aien eskutan eroritzian  
bizkarrekuak galantak.
- 7 Denbora baten asko ziraden  
ortan ibilli ziranak,  
uste gabian beren buruai  
tratu gaiztuak emanak;  
irabaziak justuak zitun  
gabaz egiten zan lanak,  
gutxi dira lan orretatikan  
itxuran jarri diranak.
- 8 Etxetik irten egin bear da  
zenbait illunabarretan,  
aize otza ta tenpestadia,  
askotan kazkabarretan.  
Ibilli bear balitza bire  
itxurazko samarretan...  
Atsegin dago giro arekin  
asko estrata zarretan!
- 9 Batetik giro kaskarra eta  
bestetikan berriz illun,  
illargirikan eta izarrik  
etzan ikusitzen iñun;  
gau-giro artan pausuak ere  
okerrak emango ziñun,  
ederki asko ordaindua zan  
kulpak zeorrek baziñun.
- 10 Opizio au seguru zuan  
emen jaio ta aziak,  
amabost urte zituzteneko  
ontan ondo ikasiak;  
askok lan ori aitzaki artu  
ta utzi beste guziak,  
egunez aixa gatatzen ziran  
gaueko irabaziak.



# Gizonaren lau aroak

Gizonak lau aro zituala esan oi zuan gure erriko gizon batek, Oiartzungo gizon batek.

Lenengoa, udaberria, ogei urtera bitartean; bigarrena, udara, berrogei urtera arte; irugarrena, uda azkena, berrogei urtetik irurogei bitartean; ta laugarrena, andik aurrerako dana, negua.

Ta neri gustatu egin zitzaidan oiartzuarraren ateraldi ori; eta, liburu au egi-ten asi nintzanean, bertsoak jarri nizkien gizonaren lau aro oieri.

Eta orain esango dizutet gizon ori zein zan: Jose Mari Exkerra. Bera illa da eta bere illobak bizi dira orain, ta barka deza-tela gizona aotan artu badet.

Nik, Jose Mari Exkerra bera, beti udaran bizi izandako modukoa ikusi izan nuan. Gizon ederra ta bikaiña zan. Egun txar asko pasa gabea izango zan bere denboran. Udal-etxean egiten zuan lana; ango eskribientea zan.

Patxara ederreko gizona, Amaika sagardotegitan sesio aundirik jarri gabe denbora pasako zuan arek, bere musu gorriarekin.

Bere etxean ere sagardotegia zuten lenago. Orain ez det uste sagardorik egi-ten dutenik. Emengo sagardo-egintzak gutxitu dira oso.

Eta Jose Mari Exkerra ere il zan eta nik opa diot zeruan gerta dedilla.

# Gizonaren udaberria

The image shows a musical score for the song 'Gizonaren udaberria'. It consists of six staves of music, each containing a melodic line with a treble clef and a key signature of one flat (B-flat). The time signature is 2/4. The music features a series of eighth notes and quarter notes, with several triplet markings (indicated by a '3' above a bracket) over groups of three notes. The melody is simple and repetitive, typical of a folk or traditional song.

1 Batek mundura etorritzian  
izaten du aurtzaroa,  
aur galarik bearrezko da  
bere amaren beroa;  
pixkabanaka aunditzen ere  
asiko gera geroa,  
andikan urte batzuetara  
udaberriko giroa.

2 Aur bat jaio ta ondorenian  
oso txikia da soiñez,  
eta andikan urte betera  
asten baldin bada oiñez;  
negar bakarrik egiten daki  
jarritzen bazaizu miñez,  
buruan pasa litekeanik  
ezin esan du mingaiñez.

- 3 Bost sei urtetan mutil koskor bat eskolan asten danian, etxeko iñoren bearrrik gabe zaitzeko aldamenian; eskolan ere erdi bildurrak ibiltzen da aurreniam, bera asiko da atrebitzen garaia datorreniam.
- 4/ Gero or dator komuniua zazpi edo zortzi urtetan, bikariua zai egongo da sankristiako atetan; egunen batzuk juan gabe ere pasako ditu tartetan, nola bizitzen diran batzuek txit basarri apartetan.
- 5/ Sankristiara juan ez dala-ta ara mutilla begiz jo, da apaiz jaunak desapioa egingo dio berrizko: «Komulgatuko baldin bagera dotriña degu premizko!». Edade orretan mutikoari gauz oiek aztutzen zaizko.
- 6 Komulgatzian jarritzen gera noranairako moduan, opiziuua ikasitzia beti eduki goguan; ikasi gabe gelditzen bada bere aitaren onduan, bizi guzian beti esklabo izango zera orduan.
- 7 Udaberrian landare danak aunditzen diran bezela, mutil gaztia gora dijuu, gauza onik ez bestela; bera're asko gogoratzen da urte onak datoztela, ogei bat urte arterakuak lenbailen dijuaztela.
- 8 Amabost edo amasei urte, gorri ditu koloriak, udaberrian etortzen dira ekaitzaren ondoriak; orduan ostoberritzen dira sagarrak da udariak, mutil gazte onek ere oraintxen emango ditu loriak.
- 9 Emezortzitik ogei urtera irixten da zuzeniam, urtiak ola obiak dira aguro dijuazeniam: sasoia eta indarra danak batera datozeniam, bere artian pentsatzen dago: «Pasa nauk eskaseniam!».
- 10 Edade ortan ez da paltako alaitasuna ta broma, edozein eran ibiltzeko're sasoia baidauka ona; nunbait lanikan egiten badu irabazten du txanpona, lagunak ditu erri guzian, nunai dauka zoriona.
- 11 Etxe batian bezelaxe au gerta liteke danian, gizonak badu arrokeri bat lanera asten danian, bere buruen jabetasuna batek artzen duanian; ni beintzat asko poztua nintzan ori lortu nuanian.
- 12 Oraintxen dala ogei urtetan mundu ontara etorria, eta «Banuen adifña ontara irixteko egarria! Orain udaran sartzera nua, au da poz izugarria! Neretzat ona izan zerade ta agur, udaberria!».

# Gizonaren udara

The image shows a musical score for the song 'Gizonaren udara'. It consists of six staves of music written in a single system. The key signature has two flats (B-flat and E-flat), and the time signature is 5/8. The melody is written in a treble clef. The notes are mostly eighth and sixteenth notes, with some quarter notes and rests. The music is in a minor key, as indicated by the two flats in the key signature.

1 «Ogei urtetan pasiak gera,  
orain udaran sartzera,  
auxen da poza etorri dana  
goizetikan arratsera!  
Amodiua ere badegu  
mutil guzien antzera,  
noiznai juaten asia nago  
nere maitien etxera!»

2 Ogei urteko mutiko batek  
anka nola dun ariña,  
beti ez dala ola izango  
aren kezkarik aundiña;  
buruaz bera ibiltzeko're  
ederra dauka adiña,  
gerriak ere bigun dauzka ta  
gorputz guzia gordiña.

- 3 Ogei ta iru-lau urte ditu,  
sasoi ederra mutillak,  
gutxi ikusi ditut munduan  
ori dan bezin sotillak;  
aurrian jartzen badiozu're  
ez du bildurtzen jentillak,  
danak berari begira berriz  
an jirako neskatillak.
- 4 Gusto guziak ez dira izaten  
ez gazte ta ez zarretan,  
baña gaztiak oso gutxitan  
oi dira egun txarretan;  
gorputza sendo eta begia  
argi edade orretan,  
urte oriek dauzkan gizonak  
ez ditu saltzen urretan.
- 5 Ogei ta zortzi urte mutillak  
eta laster amarrian,  
laster andria artzeko ere  
sasoi onen samarrian;  
bestela azkar auzoko atsuk  
asiko'ira marmarrian,  
edozein gauza egiteko're  
ez dago garai txarrian.
- 6 Oitamar urte dituelarik  
mutillak nai du ezkondu,  
sasoi onian arkitutzen da,  
oraindik ez du berandu;  
andregai'a re badauka eta  
orain zeren zai egondu?  
Obe genduke garai orretan  
danak artuko bagendu.
- 7 Gizona bere andriarekin  
dago ondo osatuta,  
urte batzuek pasako ditu  
nai bezela gozatuta;  
ez da ezer ere irabazitzen  
gerorako luzatuta,  
kontu obia izango baitu  
lenbailen esposatuta.
- 8 Andria ona tokatu eta  
bere pamelia azten,  
oso kontentu bizitzen dala  
digu ark adierazten;  
nunbaiten asi bear lanian  
jornal ona irabazten,  
ura bizitza zoriontsua  
naiz-ta ez dan aberasten!
- 9 Esposatzian pasa bear du  
oso bizimodu ona,  
zerbaitengatik izaten du-ta  
ezkontzak olako sona;  
mundu onetan andriarekin  
ondo daraman gizona,  
ark pasako du oraindik pasa  
duen urterik gozona.
- 10 Ogeitamabost urte ditu ta  
oraindik dago gaztia,  
batere uste gabe lanian  
igarotzen du astia;  
orrentzat oso erraza baita  
bizia irabaztia,  
urte oietan zer kostatzen da  
iru edo lau aur aztia?
- 11 Seme-alabak nola baiditun  
oso gogortzen asiak,  
zorionian pasatu ditu  
gaur arteko egun guziak;  
eta Jaunari emango dizka  
bere esker bereziak,  
Aren laguntzaz bizi da eta  
ditu ondo mereziak.
- 12 «Berrogei urte ditut atetan,  
laster da uda azkena,  
onenak pasa ote ditudan  
au bildurra daukatena!»  
Gizona zartzen asten danian  
biotzian duen pena,  
da beti gazte izate ori  
iñola ezin leikena.

# Gizonaren udazkena



1 «Udarak egin digu  
betiko agurra,  
ta uda azkenari  
badiot bildurra!  
Onek ez baldin badu  
ematen egurra,  
egiten duanian  
mendian elurra...

2 Uda azkena degu  
ogei urtekua,  
ta ongi damakigu  
orain artekua;  
lana egin ezkeru  
bada jatekua  
oraindik etxian  
aldi batekua».

- 3 Berrogei ta lau urte  
berez ez da zarra,  
osasunakin bada  
bear du indarra;  
lepua lodia du,  
ez dago igarra,  
pamelia azteko  
guztien biarra.
- 4 «Asi giñanetikan  
pamelia azten,  
bizimoduko berri  
ai gera ikasten;  
lan gogorrari diot  
txapela erazten,  
gauza ez da batere  
gerora errazten».
- 5 Len berrogei eta lau,  
orain berriz zortzi,  
da berrogei ta amar  
biar edo etzi;  
urterik ezin leike  
bazterrian utzi,  
emendikan aurrera  
berriketa gutxi.
- 6 Gizona bajatutzen  
ari dala lendik,  
lenari eutsiko bai  
al balitz iñundik;  
osasuna badauka  
ta ez daki nundik,  
ortan kontentu egon  
liteke oraindik.
- 7 Aurra asi zaizkio  
piska bat lanian,  
lagunduko diote  
gauza ez danian.  
«Ez nuen bearrikan  
gazte nintzarian,  
orain guztiak bear  
zartu naizenian».
- 8 Gauza ori buruan  
lendik zeramaten:  
lagunduko zutela  
kargak eramaten.  
«Ikusiko det zenbat  
laguntzen diraten!  
Asiko al dirade  
alakoren baten!
- 9 Berrogei ta amabost  
urte neregana  
etorri zaizkit eta  
bada naiko lana;  
baldin balego auek  
zeñek eramana,  
pozik entregatuko  
nuke karga dana».
- 10 Bein bat asten danian  
edadian sartzen,  
ajola gabienak  
ez du pozik artzen;  
indarrak bajatu ta  
jenia txartzen,  
iñork ez bagaitu're  
ortara beartzen.
- 11 «Derrior sartu bear  
degula neguan,  
urruti zan artian  
bildurak nenguan;  
izen txarra zuela  
nik beti goguan,  
naio nuen etorri  
balitz geroguan».
- 12 Luzia ta tristia  
gizonen karrera,  
irurogei urtekin  
neguen sarrera;  
danetan okerrena  
onen etorrera,  
egun bat onik ez da  
emendik aurrera.

# Gizonaren negua



1 Irurogei urtetan  
neguan sartuta,  
erretira ortzetan  
pipa bat artuta;  
gizon orreri ondo  
erreparatuta,  
ibilpidia dago  
oso baldartuta.

2 Bromarako gogorik  
ez du gizon zarrak,  
gauza utsarengatik  
begiratu txarrak,  
premiarikan gabe  
arrazoi kaskarrak;  
olaxen asiko da  
aspertzen baztarrak.



- 3 Lenago izan arren  
gizona majua,  
egunero indarrak  
gutxitzen dijua;  
arkitzen dalako len  
aldian bajua,  
ernegazitzen dago  
aiton gizajua.
- 4 Garai baten bazuan  
aitonak denbora  
aixa juaten zana  
mendi-puntan gora;  
gaur etxetikan ezin  
erten du kanpora,  
erretiratu bear  
suaren ondora.
- 5 Orain ari dalako  
burutik arintzen,  
berak egin ez baña  
besteri agintzen;  
zarren gozo guztiak  
dirade samintzen,  
gauza utsengatikan  
asiko da mintzen.
- 6 Tabernara juateko  
ez baitu lagunik,  
bakarrik ezin pasa  
etxian egunik;  
garai batian asko  
ez nuen uste nik,  
gizon ori orrela  
ikusiko nunik.
- 7 Gaztetan ibillitzen  
ziñan plazik plaza,  
soñurik baldin bazan  
dantzaz egin lasa;  
orain irurogei ta  
amar urte pasa,  
sasoia jua da eta  
burua eskasa.
- 8 Bat ikaratutzen da  
burua galtzian,  
edo gorputzetikan  
kejak azaltzian;  
eta gaitz berri batek  
zarrak estaltzian,  
aguro sartu bear  
ollua eltzian.
- 9 Gaztetako kontuak  
ederki aztuta,  
burua soildu eta  
ortzak akastuta;  
itzik ez du egin nai,  
kopeta beztuta,  
zartzian gauza onik  
gizonak ezta.
- 10 Mundu onetan dauzka  
gizonak lau aro,  
laroegi urtetara  
iritxi ezkeri;  
Jaunari errezatzen  
ai da egunero,  
zeruko gozamina  
izan dezan gero.
- 11 Gizona errezatzen  
Jaunari astian,  
etenik gabe beti  
jaian da astian,  
zorionaren eske  
bizitza gutzian,  
mundu ontan ez dago  
baña bai bestian.
- 12 Urte asko etorri  
ziñala mundura,  
geroztik emen zabiltz  
al dezun modura;  
juan zan zure lengo  
gaztetasan ura,  
onez aurrera jua  
ziñezke zerura.

# Arakiñak

The image displays a musical score for a piece titled "Arakiñak". The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of three sharps (F#, C#, G#), and a common time signature (C). The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, as well as rests and slurs. The music is presented in a single melodic line across the staves.

- 1 Bizimodua ona damaki  
ari danak arakintzan,  
ori baño lan oberik asko  
ezin bailiteke izan;  
nik e gazterik asi ezker  
ikasiko nuen gisan,  
zerbaitxo baño naiago nuen  
lan ortan asi banintzan.
- 2 Txekorren batzuk erositzera  
badijua basarrira,  
ta ganaduen atzeko aldetik  
emango ditu bi jira;  
danak ez dira berdiñak baña  
batzuek gaiztuak dira,  
ango txekorren akats batzuek  
billatzen asten badira.
- 3 «Txala daukazu nik uste baño  
askozaz kaxkarragua,  
batetikan da atze zorrotza,  
bestetik dauka segua;  
erosi gabe bertan uzteko  
etorritzen zait gogua,  
goiko basarri ortan artu det  
au baño ederragua».
- 4 Ganaduaren aitzaki danak  
lenengo adierazi,  
basarritarra bildurtuko du  
ta gero tratuan asi;  
txekorra txarra daukala eta  
al dana bajatu-azi,  
itxura ederrak egingo ditu  
ta atzenian erosi.
- 5 Arakin ori basarrietan  
saiatuko da tratuan,  
ortzak baño're aurretik itza  
ziririk ezin sartuan;  
basarritarrak sinistu berriz  
alaxe diralakuan,  
baña txekorra aldatuko da  
tratua egindakuan.
- 6 Arakin oiek ikasi dute  
orrelakoxe karrera,  
basarritikan atera eta  
mataderiko sarrera,  
orain piska bat mejoartzeko  
ez oso leku txarrera;  
txekorra txarra danikan ez du  
esango andik aurrera.
- 7 Andikan egun batzuetara  
etxeko andria bialdu:  
«Lenago txala saldu genduan  
arategian azaldu.  
Lengoko gure txekorrak orain  
batere akatsik bai al du?  
Erositzeko aitzaki asko ta  
onen prezian saldu”.
- 8 Urte betian gutxienez  
txala azi zai egondu,  
prezio ona espero gendun  
da iñola ezin kendu;  
aragi billa juan ezker  
poltsatik azkar arindu,  
arategira bein juaten dan  
txalakin ezin agindu.
- 9 Arakiñetan pobre samarrak  
asko ziraden lenago,  
orain dirua badadukate  
Roschill-ek baño geiago;  
aberastuko ote diraden  
bildurrak jarria nago,  
gaur txala ordainduko ez duan  
arakiñikan ez dago.
- 10 Orduan ere etzan ariko  
iñor lanian debalde,  
baizikan danak saiatzen ziran  
bakoitza norbere alde;  
aragi gabe pasatzen ziran  
len makiña bat sukalde,  
bakoitzak saltzen ote zituzten  
astian ogei erralde?

- 11 Aragi gutxi saldutzen eta poltsatik oso arindu, desiuaren paltarik ez du baña gizonak ezin du; txekorra il da dirurikan ez, beti geroko agindu, lenbizi saldu aragiak da gero txekorra ordaindu.
- 12 Nekia pranko ematen zuan garai artan ere lurrak, aragirikan gutxi txekorrak, noizko aunditu ezurrak? Bat edo bati saldu egin bear egiten ziran apurrak, zenbaiti saldu ezkerro beintzat kobratutzeko bildurrak.
- 13 Gaur arakiña ondo bizi da ez badu iñungo miñik, geientsuenak ikusten dira diru puska bat egiñik; aldamenetik iñor ez dago segururikan dakiñik, baña gaur ez da iñor ibiltzen txala ordaindu eziñik.
- 14 Urte bete bat edo geiago nai bezela mantenduta, txala eraman mataderira al dan eran konponduta; txarra erosi basarritikan, salduko dute onduta, ordaindu egingo dizute baña beruarena kenduta.
- 15 Arakiñarengatik ez dakit zenbat nukien esango, ortik aurrera asi ezkerro ez da atsegin izango; bati geiegi esanda ere ez degu ondo emango, bearbada geio gero esango det askiko degu oraingo.

# Gure ezkontzea

A musical score for the song "Gure ezkontzea". The score is written on six staves of music, all in treble clef. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 3/4. The melody consists of eighth and quarter notes, with some phrases grouped by slurs. The piece concludes with a double bar line.

- 1 Zorionian pentsatu nuen  
ezkontzia egun baten,  
nere lagunak ere kontseju  
ori ematen ziraten;  
ikusten nuen asi bearra  
neskatxan bati esaten,  
eta ark baietz esatia're  
ez da seguru izaten.
- 2 Goizian oitik jeiki orduko  
beti gauza bat goguan,  
udaran ere gogoratzen zan  
eta geiago neguan;  
gure auzoko taberna baten  
jan da lo egiten genduan,  
andria artu eta etxian  
jarri asmotan nenguan.
- 3 Nik jaten nuen taberna orretan  
neskatxak zeuden gaztiak:  
ogei ta iru urte zarrenak,  
andikan bera bestiak;  
lotsa pixka bat ematen ziran  
aiek tentatzen astiak,  
berialaxe baietz esan zun  
orain dedan emaztiak.
- 4 Berrogei eta iru urte neuzkan,  
naikua mutilzartua,  
ogei ta iru zeuzkanarekin  
nuen ezkontza-tratua;  
berandu samar baña berakin  
nola nintzan alkartua,  
beñere etzait damutu izan  
arekin esoposatua.
- 5 Berrogei ta iru urte banitun,  
bazan pranko edadia,  
emaztia zan ogei ta iru  
artian bete gabia;  
ondo pentsatzen jarri ezkeru  
purian zegon loria,  
ta gero ere atera zan nik  
merezi baño obia.
- 6 Etxe batian bizitzen giñan,  
etzan neskatxa arrotza,  
berez alako leiala da ta  
lanian berriz zorrotza;  
kariño aundiko pertsona bera,  
neregan zeukan biotza,  
egun batetik bestera alaxe  
egin zan gure ezkontza.
- 7 Bein erabaki genduenian  
ezkontzak etzun luzatu,  
zerbaiten palta sentitzen nuan  
da egun artan osatu;  
len jaten nengon etxe artako  
neskatxakin esoposatu,  
arrezkeroko egun guziak  
berakin ditut pasatu.
- 8 Pamela're ekarri gendun  
da ill egin zan zarrena,  
egun artantxe tristuraz bete  
zitzaidan neri barrena;  
emaztia ta biok negarrez  
juntaturik alkarrena,  
da pena oiek danak azteko  
etorri zan bigarrena.
- 9 Len esan dedan bigarren ura  
sendira zetorreanean,  
bai al dakizu nolako poza  
zegon gure barrenean?  
Muxu ematen asi zitzaidan  
lanetik netorreanean,  
eta orduan esan nuen nik:  
«Pasa dek okerreanean!»
- 10 Lenengua're alaxe zan da  
bigarrena're mutilla,  
ogei urtetan pasia dago  
ta ez da oso debilla;  
beste gauzarik ez det eskatzen:  
osasun izan dedilla;  
laste asiko da ori ere  
pameli berrien billa.

- 11 Zerbait nai giñon erakutsi guk  
geure seme bakar oni,  
ortantxe ari giñan pozikan  
nere emaztia ta ni;  
gu beti sano izaterikan  
iñola etzan komeni,  
gutxiña uste nuen garaian  
gaixotu nintzan neroni.
- 12 Semia eskolan eta neroni  
gaixo jarri nintzanean,  
Jaungoikuari erregututzen  
besterik ezin zanean;  
pazientzia baneukan eta  
beti patxara onean,  
opiziuua bukatu du ta  
semia ai da lanean.
- 13 Bein gaixo batek arrapatzian  
gizona dezu ain utsa,  
begiratu tristia eta  
indar gabia gorputza;  
jana're ez du aukerakua,  
arekin ere zaputza;  
eskerrak izan nuela nere  
emaztiaren laguntza.
- 14 Guztiok ondo dakizutena  
gaixo naizela egondu,  
egia esan oñazerikan  
beiñere ez det izandu;  
mutilzartuta ezkondu nintzan,  
ori amaikak esan du;  
mundu onetan aztua nintzan  
ori egin ez bagendu.
- 15 Gauza erraza dala diote  
mundu ontan ezkontzia,  
ez gu egiten geran bezela  
alkarrekin konpontzia;  
Kontxita, ondo egiten dezu  
gaixo bati laguntzia,  
pena litzake urte batzutan  
orain zu alarguntzia.

# Nere semiari

The image displays a musical score for the piece "Nere semiari". The score is written on seven staves, each beginning with a treble clef and a key signature of three flats (B-flat, E-flat, A-flat). The time signature is 6/8. The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, rests, and bar lines. The music is presented in a single melodic line across the staves.



- 1 Mundu onetan bizi bearrak  
baditu milla komeri,  
geren denbora pasatu degu  
pesta edo erromeri;  
zartuta izan gendun seme bat,  
azitzen kosta zait neri,  
bertso banaka batzuek orain  
jarriko dizkat berari.
- 2 Baldin oinbeste kostatzen bada  
seme bakar bat azitzen,  
sei urterako eskolan artu  
bear dan eran ezitzen,  
gaurko eguneko umiarekin  
zer ditugun ikusitzen,  
sei edo zazpi izan bagiñuz  
naiko lan bazan bizitzen.
- 3 Sei urterekin eskolan asi  
ta ogeiraño artian,  
amaika buelta egin bear zan  
oien bien bitartian;  
Pasaiaraño jua bear da  
Oiartzundik apartian,  
egunik galdu gabe juateko  
ia amalau urtian.
- 4 Komeni ere bazala eta  
asi giñan erakusten,  
ondo dakizu gaurko umiak  
nolako lanak dituzten;  
esplikazio bearrak ez da,  
zeorrek dezu ikusten,  
orretarako gu gurasuak  
zenbat nekatzen gaituzten.
- 5 Esan bezela, opiziuian  
lendabiziko sarrera,  
orren aldian erraza izan zan  
ikasten gure karrera;  
seme bakarra gendukalako  
bazan bialtzeko era,  
lanera zintzo juaten da orain  
ogei urtetik aurrera.
- 6 Nere denboran emanak ditut  
amaika bertso egizko;  
eskolak eta opiziuak  
baidira nere begizko,  
nik jakiñian jarri beaitut  
oraingo eta berrizko:  
orrela eskolan ibili banintz  
egingo nintzan obispo.
- 7 Gure semiak ikasi zuen  
elektronika-lanian,  
aita zeguan oso kontentu  
ori egin zuanian;  
lana billatzen ere ibilli  
baitzan suerte onian,  
aitarentzako zer deskantsua  
lanera asi zanian!
- 8 Ni bildurtutzen nintzan askotan  
osasunik ez nulako,  
eta dirurik aurreraturik  
oso gutxi gendulako,  
gere burua mantendutziak  
lan ematen zigulako;  
baña geio ez erakutsia  
pena degu sekulako.
- 9 Mundu onetan ez du balio  
akordatziak berandu,  
ondo ikasten ai zan garaian  
eskolatik bear kendu;  
egia garbi aitortuko det,  
zertan bildurrak egondu?  
Injeniero egingo gendun  
al izan baldin bagendu.
- 10 Bere lanian zintzo ari da  
len esan dedan bezela,  
aitortu bear semiarekin  
ortan kontentu naizela;  
nola ondona izango dan bat  
asmatzen errez ez dala,  
biotz-biotzez opa diot nik  
osasun izan dezala.

# San Juanak

A musical score for the piece 'San Juanak'. The score is written on seven staves of music, all in a single system. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/4. The music is written in a treble clef. The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, as well as rests. The melody is characterized by a steady, rhythmic pattern with some melodic variation.

1 Euskalerrian nola izan dan  
aspalditako oitura,  
Garagarrillen ogei ta iruan  
egin izan dan su ura,  
guk ere jarrai nai genioke  
guraso zarren modura.  
Nola gu ere beratatikan  
etorri giñan mundura,  
orregatikan eduki ber da  
aurrekuaren ardura.

2 Garagarrillen ogei ta irua  
oi da San Juan bezperan,  
oitura onak jarraitu bear  
nola sinismendun geran.  
Au illunabar aldera edo  
eguzkiaren sarreran  
egin izan da, ta ez gaiñera  
iñorentzako galeran;  
oitura onek segitzen du gu  
gazte giñaneko eran.

3 Igartutako sasi-pillan bat  
izango da etxe-jiran,  
eta ari su emango zaio  
eguzkien erretiran.  
Mutil gazterik baldin bazegon  
saltoka danak segiran,  
irrintzi galant askuak ere  
iñoiz aditutzen ziran,  
an izaten zan dibertsia  
ontzak esnatzen baziran!

4 Jeneralian basarrietan  
egin izan dira suak,  
batek piztutzen duanerako  
oartzen dira auzuak.  
Aguro asko artutzen dira  
bat bestien abisuak,  
andikan laste sua egingo  
baitu ballara osuak,  
era ontantxe lengo oiturak  
dauzkagu emen jasuak.





1 Beste oitura bazan  
San Juan goizian:  
basarriko gizonak  
esnatu oi zian,  
ta lizar-gurutze bat  
ataiko atian  
jarriko zuen, jaiki  
zanakin batian,  
seme-alabak lotan  
zeuden bitartian.

2 Lengo guraso zarren  
oiturak galtzian,  
sinismena oztu da  
olako etxian.  
Jakiñik Kristo nola  
il zan gurutzian,  
eta gauza orrekin  
zerbait oroitzian,  
siñale ori jarri  
etxe bakoitzian.

3 Emango balitzaie  
ber aña igurtzi,  
aurreko zarrak ondo  
zuten erakutsi.  
Lengo oiturarikan  
ez galtzera utzi,  
geure bide onari  
al dan arte eutsi,  
damu izan ez dedin  
biar edo etzi.

4 Oitura au ez dakit  
nik zenbat urtian  
zabaldua daguen  
euskaldun tartian.  
Guk ere jarraitu nai  
genduke partian,  
emengo basarritar  
danakin batian,  
osasuna izaten  
degun bitartian.

# Jaungoikoaren legeko aginduak

The image shows a musical score for the hymn 'Jaungoikoaren legeko aginduak'. It consists of six staves of music, all in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/8 time signature. The melody is written on a single line of music, with the lyrics positioned below it. The music is a simple, rhythmic tune with a mix of eighth and quarter notes.

1 Jainkuan legeko aginduak,  
oraintxen baño lenago,  
lengo dotriña zar artatikan  
ongi ikasita nago;  
da lendabizikua  
nola dan guzizkua  
onela jarria dago:  
Jauna maitatu bear da beste  
guztiak baño geiago.

2 Bigarrenian ez artu autan  
Jaungoikuaren izenik,  
ortik ez daukat itxaropenik  
zeruratuko naizenik;  
gaurko zar da gaztiak,  
bat bezela bestiak,  
ikusi izan ditut nik,  
gogoratutzen etzaiotela  
kondenatuko diranik.

- 3 Irugarrenak meza entzutera  
igande edo jaietan  
beartzen gaitu, eta lanikan  
ez egin egun aietan;  
premi aundin batian  
gertatu bitartian  
soro edo zelaietan,  
deskantsatzeko egunak dira  
ori ez dan garaietan.
- 4 Laugarrenian errespetatu  
itzazu aita ta ama,  
da aparteko maitetasuna  
bear da berarengana;  
ez bada gizatxartu,  
asmo sendo bat artu  
nik maiteko ditudana;  
Jainkuak ere maite izango du  
ori egiten duana.
- 5 Bostgarrenian bearturikan  
gaude iñor ez iltzera,  
amorratuta asiak gaude  
batak bestia galtzera;  
badala asarria  
ta Jaunari aurria  
artutzen asi al zera?  
Jaunak etzaitu asko maiteko  
ala ibiltzen bazera.
- 6 Seigarren onek galerazten du  
aragizko pekatua,  
da jakiñian jarritzen gaitu  
nola dan debekatua;  
askok agindu oitan  
ibillitzia loitan  
daukate aukeratua;  
gure Jainkua orregatikan  
daukagu minberatua.
- 7 Besteren gauzik ez ostutzeko  
zazpigarren aginduan,  
ezkabide au badakizute  
Jaunak nola egin duan;  
al dezakena ostuta,  
agindu ori aztuta  
asko dabilza munduan;  
orrelakorik Jainkuak ez du  
artuko bere onduan.
- 8 Zortzigarrenak ez izateko  
gezurretako testigu,  
bestela Jaunak emango dula  
merezi ainbat kastigu;  
oitura txarrik lendik  
baldin badu iñundik  
batere ajola eztigu;  
gauz auek gero kondenatzian  
gogoratuko zaizkigu.
- 9 Bederatzigarren agindua  
emen daukagu bestia,  
esaten du ez desiatzeko  
beste baten emaztia;  
ori ondo ikusita  
dago galerazita  
zarra bezela gaztia;  
bestela gero kostako zaigu  
zerua irabaztia.
- 10 Amargarrena ez desiatu  
besteren ondasunikan,  
ez sinistatu zorion dana  
ortatik daukazunikan;  
zuk ez pentsatu izan  
aberatsaren gisan  
pasako ez dezunikan:  
pobria ondo bizi liteke  
badauka osasunikan.

# Arrantzalien bizitza



1 Getariar batekin  
egon naiz lenguan,  
arrantzalien berri  
jakin nai genduan;  
exerita jarriak  
alkarren onduan,  
zeure bizitza ondo  
kontatu zenduan.

2 Getarin daude lau-bost  
legatz-zale txiki,  
eguna baño ordu  
bat lenago jaiki;  
lanerako tokia  
aldian izaki,  
orregatik bizitzen  
dirade egoki.

- 3 Debatikan asita  
Donostira arte,  
Prantziatikan berriz  
sei milla aparte,  
ango uretan ezin  
artu dute parte,  
onla jarraitu bear  
al duten bitarte.
- 4 Atunetara berriz  
Azores aldera,  
«0 Cabo San Vicente»  
Cádiz-ko partera;  
eta beste batzutan  
Canarias-era,  
amabost eguneko  
juan izan gera.
- 5 Bakallaua ugari  
Terranovan dago,  
aruntz juan oi gera  
gaur baño lenago;  
iru bat illabete  
baño gutxiago  
pasatuta, andikan  
bueltarik eztago.
- 6 An biziko diranak  
iru illabetian,  
Jaungoikuak dakien  
paraje batian,  
beren sendietatik  
gutziz apartian;  
batek ez daki zer dan  
probatu artian.
- 7 Euskalerrian barku  
geiena Bermeon,  
egun da irurogei  
aundi bertan egon;  
berreun berri ere bai,  
zer aukera dagon,  
ori da Euskalerrri  
guziko kanpeon.
- 8 Itxasoko bizitza  
ari da gazitzen,  
guk geok lurretikan  
degu ikusitzen;  
arrantzaleak geitu,  
arraia gutxitzen,  
oraingo eran naiko  
lan dute bizitzen.
- 9 Itxasuan badira  
burruka ederrak,  
legorrian bakarrik  
ez ditugu gerrak;  
txakur gosiak inoiz  
dakazkin okerrak,  
joera bera dabil  
gure Inglaterrak.
- 10 Bakallaua asko  
dauka Islandiak;  
arrai txikia nola  
jaten dun aundiak,  
andik arrapatuta  
ingeles jendiak,  
ongi mantentzen dira  
mariñel sendiak.
- 11 Islandiaren ogi-  
bidea bakarra,  
bakallaua dute  
asko ta ederra;  
beste nazio batek  
dulako indarra  
ori arrapatzia,  
ez al da negarra?
- 12 Arraia dala eta  
orrenbeste auzi,  
batek bestea ezin  
baidute ikusi;  
onez aurrera gerran  
berko dute bizi,  
gogorrena juez ta  
indarra nagusi.



# Bodegón Alejandro

The image displays a musical score for the piece "Bodegón Alejandro". The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a time signature of 3/4. The music is characterized by a rhythmic pattern of eighth and sixteenth notes, with several triplet markings (indicated by a '3' above a bracket) that create a lively, syncopated feel. The notation includes various note values, rests, and a final double bar line at the end of the sixth staff.

- 1 *Alejandro*-ren Bodega nun dan  
nai nuke adierazi,  
ezjakiñean egoterikan  
iñork ez luke merezi;  
jan da eran egin bear daneko  
orra etxe bat berezi,  
aruntz bisita egin ez dunak  
Donosti ez du ikusi.
- 2 Bretxa aldian sartutzen zera  
*Fermín Calbetón* kalera,  
metro batzuek aurrera juan  
da eskubiko aldera;  
*lumero cuatro* ikusten da an,  
jetxi eskallerak bera,  
gu etxe ortan amaika bider  
gustora egonak gera.
- 3 Zorioneko eguna lenen  
bisita egin nuana,  
beñ ere etzait damutu izan  
ordu an aruntz juana;  
maitetasuna da geroztikan  
eramanazten nauana,  
ni bezelaxe juango da bein  
ura probatzen duana.
- 4 Martin Berasategi dezute  
etxe ortan nagusia,  
txit borondate onekua da  
baña jenioz bizia;  
andria berriz sukaldaritzan  
emakume berezia,  
jana ta erana badaukazu an  
desio dezun guzia.
- 5 Iru seme ta alabatxo bat  
dute beren pamelia,  
oiek ez dute oraindik egin  
guk ainbeste bijilia;  
otzen bildurrik ere ez dute,  
gorputz ondo estalia,  
gero ez dute damu izango  
orain ola ibilia.
- 6 Etzait aztutzen neri *Bodega*  
*Alejandro*-ren izenik,  
ostatu ori bertsolariak  
ain gogozkua izanik;  
egunen baten ori itxita  
arkitzen baldin badet nik,  
ez det pentsatzen egun orretan  
Donostin izan naizenik.
- 7 Amaika aldiz ostatu ortan  
egon izandu gerade,  
nai genduna jan eta galdetu:  
«Kontuak nola dirade?»  
«Kontua egiña daukazu eta  
juateko libre zerade»,  
eta etxera etorri gera  
sosikan ordaindu gabe.
- 8 Zenbait alditan eguna pasa  
ta askatu gabe poltsa,  
ordaindu gabe aldegitia  
gizonarentzat txit motza;  
etxe orretan berriz sartzeko  
izaten genduen lotsa,  
tamaña ortantxe zabala baitu  
gure Martiñek biotza.
- 9 Jaunak, ni ezin atera nintzan  
iñoiz ostatu ortatik,  
gizon jatorrak egoten ziran  
da alakuen artetik;  
etxe artan da errespetua  
begiratuta bertatik,  
urte askuan izan dedilla  
Uztapideren partetik.
- 10 Egunak pasa ditut gustora  
nik sarri etxe orretan,  
gizon bakoitzan borondatia  
ezagutzen da obretan;  
Martinek duen biotz xamurra  
ez da ordaintzen urretan,  
ni orrentzako jarria nago  
bizi guziko zorretan.

# Euskaldunak

A musical score for the piece 'Euskaldunak'. The score is written on six staves of music, each beginning with a treble clef and a 2/4 time signature. The music consists of a series of eighth and sixteenth notes, often grouped with beams and slurs. There are several rests and dynamic markings throughout the piece. The notation is clean and professional, typical of a printed musical score.

- 1 Gu euskaldunak nola geraden  
Euskalerrian sortuak,  
da bataioko sakramentua  
ementxe bertan artuak;  
irurogei ta sei urte ditut,  
pranko aitona zartuak,  
motibua're bagendun eta  
ezagueran sartuak.
- 2 Pama ona bein artu genduan,  
geiago ez degu galdu,  
juaten geran leku guztitan  
beti itxuran azaldu.  
Ango legiak errespetatu  
eta iñor ez zapaldu,  
gu juandako lekuetatik  
ez gaitu iñork bialdu.
- 3 Iñoiz edo bein gertatu bada  
euskaldunen bat kanpuan,  
estimatuak izan gerade  
beti gabiltzan lekuan.  
Obeditutzen badakigu guk  
bestek agindutakuan,  
ortan etsian egon bear da  
iñora juandakuan,
- 4 Joko-gizonak ere badira  
euskaldunak tajuzkuak,  
artako jartzen diradenian  
langille itxurazkuak.  
Aizkoran eta arri jasotzen  
badira bikain askuak,  
Jaunak aparta itsatsitzia  
olako baten eskuak.
- 5 Korrika eta beste lanetan  
badira mutil bikaiñak,  
ortan asitzen diradenian  
astintzen dituzte oiñak.  
Gorputza dute indartsua ta  
ankak ere bai ariñak,  
orain baño len marka ederrak  
badaduzkate geiñak.
- 6 Euskaldunari oiek bezela  
beste edozein kirola  
seguru nago probatutzian  
ongi etortzen zaiola.  
Txit ezagunak edo beriak  
ditu pelota ta bola,  
edozeiñekin probatuta're  
lan txarra emango diola.
- 7 Zernai apustutarako ere  
ez dago jende makala,  
ez det esango iñork autsitzen  
ez duanikan badala;  
fugolistak e onen-onenak  
saldu egiten dirala,  
aiek etxian egon ezkerro  
txapeldun giñakiala.
- 8 Txit nabarmenak izaten dira  
emen gizon odoldunak,  
mundu onetan alderdi ona  
du ori berekin dunak.  
Gauza ori berriz nunai ta beti  
izaten du euskaldunak,  
orregatikan irtetzen gera  
lan askotan txapeldunak.
- 9 Euskaldun batek txapel bat eta  
birek berriz apustua,  
iru euskaldun baldin badira  
bazkaltzen a zer kastua!  
Lau osatutzen diradenian  
orfegeoi eder askua,  
Jose Artetxek esan zuen au  
ta arrazoi tajuzkua.
- 10 Alai ibilli litakiena  
zertarako egon triste?  
Orretarako arrazoirikan  
dagonik ez degu uste.  
Gu euskaldunak bagera gero  
esaten degun ainbeste,  
ta aietara inguratuzian  
kontuz ibilli zaitezte.

# Ostalariak

A musical score for the piece 'Ostalariak'. The score is written on seven staves of music. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/8. The melody consists of eighth and sixteenth notes, with some rests and slurs. The piece concludes with a double bar line on the final staff.

- 1 Ostalariak jende txarrakin sarri egiten du lana, bertan gaiztotzen aguro zenbait len oso jatorra zana; gizona ola ikusi eta au da zenbaiten esana: «Len ere etzan ona izango orain ola jarri dana!»
- 2 Eranda ere ongi egoten dira jatorrak diranak, tamaña orretan ezin lezake gizonik galdu eranak; aztuta dauzka, lotsa galduta, bezperan zuri esanak, zuk zerbait esan baziñon berriz goguan artuak danak.
- 3 Gizonak nola itzegin leike tamaña ortan nabarmen? Eran gabian ez baidu gauzak esateko ainbat kemen; ezetz esango du nai duenak, garbi ikusten da emen lotsa galdutzen dala askotan ezaguera baño len.
- 4 Beste batzuek berriz izketan izaten dira gozuak, asarrerikan gabe pasako dituzte arrats osuak; bista ederra daukate eta ez dira begiz lausuak, aiek juatian paltako dira kopak ez bada basuak.
- 5 Lana egiteko ontzirik gabe utziko zaitu aurrena, ondo ordaindu bearko dira ekarritzeko urrena; ez da oitura gustagarria batere gizon orrena, au da tabernan egin liteken aziorikan txarrena.
- 6 Ontzirik gabe gelditzen dira orrela zenbait ostatu, an artu eta ataira ernten da autsi edo puskatu; azio oiek egiten neri sekulan etzait gustatu, gizonen izen ona nai badu ez era ortan jostatu
- 7 Mundu onetan danak ditugu geren oitura plakuak, eta azaldu bearra dago geraden bezelakuak; len esandako gizon oietxek ez dira oso bapuak, bizkarra ongi berotutzia merezi du olakuak.
- 8 Gizon batzuek jakiten dute norberantzako eraten, beste iñori ez baidiote lata txarrikan ematen; zelebrekeri batzuk jardungo dute alkarri esaten, ostalariak ez du sekulan oien kejarik izaten.
- 9 Ostalariak oso zaila da danak onak izatia, gerta liteke juan dan baten garisti samar jatia; orduan libre dauka nai badu beste aldera juatia, danak egiten badute ori itxi bearko du atia.
- 10 Esan bezela aski zenduke beste etxera aldatu, beste edozein eratará're ez al diteke moldatu? Bost durongatik ezin liteke oso txarrera saltatu, beste arrazoirik ez baldin bada ez gizonari paltatu.

- 11 Ostatuak da jan-etxiak gaur  
aukeran daude jateko,  
da askatasun osoa berriz  
nai dan tokira juateko;  
ez du gizonak deretxorikan  
nai ditunak esateko,  
pazientzia ederra bear da  
ostalari izateko.
- 12 Ostalariak egoten dira  
entzuten ondo oituta,  
zenbait gizonen esango dizu:  
«Merezi're baditu-ta!»  
Berak daukaten eramanakin  
egoten naiz arrituta,  
gure Jainkuak danerakuak  
munduan egin gaitu-ta.
- 13 Beste batzuek erretiratzen  
izaten dira nagiak,  
nola beteta egoten diran  
iñoiz ardo-zaragiak;  
alaxen dago gizon ori're  
zabaldtu eziñik begiak,  
baña beste bat obeagorik  
ez du mantentzen ogiak.
- 14 Gizona oso umildua da,  
juan zaio lengo garbua,  
egun guzia pasa daneko  
erango zuen mordua;  
da atzenian ezin du zaitu  
erretirako ordua,  
ola jarrita txartzen ez danak  
eran lezake ardua.
- 15 Ostalaria arpegi ona  
jarrizera beartuta,  
txarra jarritzen badezu ere  
ezin da ezer lortu-ta;  
ez dezu ezer irabaziko  
egun batian lertuta,  
emen konturik onena dago  
pazientzia artuta.

# Tratanteak

The image displays a musical score for the piece 'Tratanteak'. The score is written on seven staves, each using a treble clef and a key signature of two sharps (F# and C#). The time signature is 3/4. The music consists of a single melodic line with various rhythmic values, including quarter notes, eighth notes, and dotted notes, often grouped with slurs. The piece concludes with a double bar line on the final staff.



- 1 Gizon bat asten bada ganadu-tratuan, ibilli bearko du txit era trapuan; al bada ez erosi prezio altuan, erostuna arkitu bear segituan, ia tontoren batzuk billatzen dituan.
- 2 Tratantia perira bei batzuk artuta, eta bere beiakin plazara sartuta; buelta aiek danak zitun aztertuta, erostun bat etzuan iñon agertu-ta, an zebillen gizona oso aspertuta.
- 3 Basarritar bati dei plazan baztarrera, da tratantiak egin dio eskaera: «Amar bat milla duro gutxi gora-bera zuk izaten badezu ordaintzeko era, beiakin bi itzetan konponduko gera».
- 4 «Deseo geiegia dirazu azaldu, beiarekin tratuan ez nuke nai galdu; amar milla durori zuk bai gogor eldu, nik ere abisu bat nai dizut bialdu, bei orrek errapian esnerik bai al du?»
- 5 Tratantia dotore ari da mingaiñez, praile batek bezela ondo itzegiñez: «Ez bazaizu jarritzen errapeko miñez, ogei ta lau bat litro badauzka gutxiñez». Egia dan ala ez dan seguru jakiñ ez.
- 6 Bei ori an zeguen bestien kuadrillan, basarritarrarekin jardun du ardaillan: «Preziua jarri zuk tokatzen dan maillan! Ongi ordaindua da bederatzi millan!» Konpontzen dira eta artutzen du traillan.
- 7 Beia traillan artuta etxera eraman du, pentsua emanda ere ederki jaten du; bere ustetan beia itxuran mantendu, urrengo egunian jabiak jeizten du, baña ogei litro're etzizkion kendu.
- 8 Basarritar ori zan beiakin kejatu, nola tratante orrek egin zun pekatu: «Bei ori bear dezu derrior merkatu, nai ez badezu berriz atzera zuk artu, ta alako ziria beste bati sartu!»

- 9 Tratuan milla duro  
jetxi-erazia,  
oraindik ere dala  
beretzat gazia;  
basarritarrak badu  
naiko malizia,  
aitzakia eman du  
esne-eskasia.  
«Prezio ortan bada  
zeñek eresia!»
- 10 «Tratantia, nai dizut  
nik adierazi:  
zori gaiztuan nintzan  
bei-tratuan asi;  
bañan orretan ez det  
ezer irabazi,  
bei ori obe nuen  
ez banu ikusi,  
aukera ederra dauka  
nai dunak erosi».
- 11 Batian beia eta  
bestian iria,  
tratantia or dabil  
periaz peria;  
aberastu nai du ta  
orren komeria,  
orretan nekatzen du  
bere memoria,  
zeñi sartuko ote  
lioken ziria.
- 12 Iria saltzen badu  
peria batian,  
bildurrak egon bear  
kobratu artian;  
keja gogorrek datoz  
bien bitartian:  
arroto egin dala  
jendien artian,  
nagusiak ez dula  
lotutzen katian.
- 13 Iria ezin badu  
lotu nagusiak  
etxe orretan pranko  
bildurtzen asiak;  
tratantientzat dira  
keja itxusiak;  
olakoxe kontuak  
ganadu biziak,  
etsia artu dute  
pameli guziak.
- 14 Tratantia ari da  
gauz batzuk ikasten,  
basarritarra berriz  
baztar danak nasten;  
iri-tratuan ez du  
asko irabazten,  
suerte obian ez  
baldin bada asten,  
naiko lanak izango  
ditu aberasten.
- 15 «Tratuan izan arren  
abillidadia,  
bolara ontan badet  
naiko naigabia,  
kejatu zaitalako  
ganadu-jabia;  
tratua izan bedi  
aitzaki gabia,  
ia pasatzen degun  
egun bat obia».

# Gaurko mutil gaztiak



1 Gaurko mutillak dirade  
geienak kotxien jabe  
ta arritutzen gerade;  
guk nai ta ezin pasa ditugu  
makiña bat atsekabe:  
beti besteren mirabe,  
ta oroitzen al zerade,  
olako tresnarik gabe.

2 Beti etxian bildurrak,  
naiz ez izan gu samurrak,  
noiz puskatuko sudurrak;  
errietan e aritzen gera  
urratzeraño zintzurak;  
goizetan beti muturrak,  
jarritzen dira kuzkurak,  
oiek ez dira gezurrak.

- 3 Mutill askoren jarduna  
bertatik nago entzuna,  
gitarra dute laguna;  
ez da besteri entzundakua,  
geok ikusi deguna;  
olako soñu kutuna  
pasatutzeko eguna,  
danok txorutzen gaituna.
- 4 Mutill orrek arratsian  
sentitzen du biotzian  
ezin egona etxian;  
neskatxa gazte maitiarekin  
bildutzen dan bakoitzian,  
bizarra du kokotzian,  
beti bera otoitzian,  
ai zer poza ezkontzian!
- 5 Gaztia alai berez,  
egunez bezela gabez,  
ta ala bear du legez;  
egoki baño askoz naiago  
dute ibili aldrebesez;  
esan zaiozu mesedez  
aldatzen diran edo ez,  
zure esanik baterez.
- 6 Mutil danak alkartuta  
jarri dira indartuta,  
gaiñera pranko txartuta;  
irabazirik ez da inñondik  
oieri kargu artuta;  
gurasuak baztertuta,  
alare ezin aspertuta,  
zer alderdia zartuta!
- 7 Gaztiak, izan goguan  
zartutzian zer daguan,  
etxeko suen onduan;  
zuen umiak jartzen badira  
zuen oraingo moduan,  
lenago zer egin duan  
laugarrengo aginduan  
oroituko da orduan.
- 8 Egin gera pranko zartu,  
tratu txarrikan ez artu,  
ez bazaituzte beartu;  
pazientzia artu dezagun,  
zertarako gizatxartu?  
Gerriak zaizkit okertu,  
bizkarra berriz konkortu,  
ezin malkorik legortu.
- 9 Ari naiz gauzak esaten,  
kontseju onak ematen,  
ia entzuten diraten!  
Asto zar batek gauza zaila dek  
karga asko eramaten;  
sasoirik ez det izaten,  
ez igaz eta ez aurten,  
ia oroitzen zeraten!

# Baserriko bizimodua

A musical score for the piece "Baserriko bizimodua". The score is written on eight staves in a single system. The key signature is three flats (B-flat, E-flat, A-flat), and the time signature is 5/8. The melody consists of eighth and sixteenth notes, with some rests and a final double bar line. The notation includes a treble clef, a key signature signature, and a time signature signature.

- 1 Esan nai nuke orain aldian  
nola dagon basarria,  
akordatuta ematen digu  
berebiziko larria:  
eraman ezin gentzaken karga  
nola daukagun jarria,  
lana alperrik egiten degu,  
ori da penagarria!
- 2 Gure lanaren erdi partia  
askotan bestek jaten du,  
alegin pranko egiñagatik  
pamelia ezin mantendu;  
basarritarrak probetxu gabe  
izerdi asko eman du,  
obe genduan orain baño len  
emendik alde bagendu.
- 3 Amabost edo amasei ordu  
basarritarren eguna,  
neroni ere ordu oietan  
pranko alditan jarduna;  
lana ariña balitz ezer ez,  
ura're sarri astuna;  
askotan bestek eramaten du  
guk irabazten deguna.
- 4 Amasei ordu oietan sarri  
euriarekin bustia,  
siesta pixka bat egin nai eta  
askotan palta astia;  
txekorra eta esnia merke  
eta pentsu garestia,  
ezjakiñenak gu gaude eta  
gurekin nai dan gutzia.
- 5 Jaian e lana egiten degu  
geienak uda-partian,  
eguna argitzen duanetikan  
berriz illundu artian;  
belarrak-eta itxuraz samar  
etortzen diran urtian,  
ez dago jairik egiterikan  
oiek ondu bitartian.
- 6 Gaur ez da baserrian lanian  
ari dan maiorazkorik,  
batenbat izan liteke baño  
ez da izango askorik;  
aurten ez baldin bada egiten  
ez daukagu igazkorik,  
basarri baten ezin ordaindu  
morroi bat itxurazkorik.
- 7 Basarritako jatorra bada  
ona izango da pabrian,  
andik jornala seguru dauka  
egiten badu lanian;  
da atzenian erretirua  
ederra're bai andikan,  
au ikusita ez pentsa iñor  
morroi juango danikan.
- 8 Lenago morroi onak bezela  
orain makinak azaldu,  
da tresna orrek basarritako  
aurrerapenik ez al du?  
Beti pentsatzen dago gizona,  
itxaropenik ez galdu;  
erabiltzeko bear batenbat,  
bakarrik ezin bialdu.
- 9 Lanian ez da iñoiz asiko  
makina bera bakarra,  
gizon bat beti bear du arek  
motela edo azkarra;  
lurra're ondo maniatzen du  
eta ebaki belarra,  
olakuakin ondo erabili  
liteke etxe-baztarra.
- 10 Mendi-basarri askotan ere  
gauza jarri zan serio,  
piñua nola jartzen ari zan  
gero eta ugario;  
ori dudarik ez dagueña  
ardiaren kontrario,  
da etxe asko ustu ziraden  
ori zalako merio.

- 11 Mendi-baserri batek izaten  
baidu bere alderdia,  
beren mendiko ganaduari  
egin bear zaio guardia;  
etxetik errez zaituko ditu  
beorra eta ardia,  
ori eginda seguru dauka  
bizimoduan erdia.
- 12 Piñu onekin etorri dira  
orain mudantza gogorak,  
kendu-erazi baizitun onek  
ardiak eta beorrak;  
mendian berriz jeneralian  
daude basarri koskorak,  
ango etxeko ganaduakin  
egiten dirade zorrak.
- 13 Ikusten degu zertaraño dan  
emengo irabazia,  
seguru txarrak daudelako're  
zerbait kezkatzen asia;  
emen ez dago aberasterik,  
ori dago ikusia;  
baña pixka bat errezago bai  
eraman gure bizia.
- 14 Zer jana oso gutxi da emen,  
lanez bai aberatsena;  
aspaldi ontan emen gabiltza  
ezin egiñik gatzena;  
segururik ez, orrekin berriz  
komeriarik latzena;  
orrek ekarriko du emengo  
basarriaren atzena.
- 15 «Au baserriko pake ederra!»  
makiña batek esan du,  
orain artian ez da gaiñera  
ziaro txarra izandu;  
oker aundirik ikusten bada  
al dan bezela zuzendu,  
bestiak beste dirade baña  
ori lenbailen konpondu.

# Gure lengo baserria

A musical score for the song 'Gure lengo baserria'. The score is written on eight staves of music. The key signature is one flat (B-flat) and the time signature is 2/4. The melody consists of eighth and quarter notes, with some phrases ending in a half note. The notation includes stems, beams, and slurs. The first staff begins with a treble clef and a key signature of one flat. The music is arranged in a single melodic line across the eight staves.



- |   |  |    |  |
|---|--|----|--|
| 1 | <p>Pake santuan bizi giñan gu<br/>ogei ta lau bat urtian,<br/>eta pabrika egin ziguten<br/>gure ataiko atian;<br/>aldegiteko kontua esan<br/>ziguten egun batian,<br/>etzuten onik izan gu andik<br/>bialdu giñun artian.</p>            | 6  | <p>Aspaldi artan gaixo egonda<br/>nolabait jarria txutik,<br/>artian ere ez nengon ondo<br/>burutik edo petxutik;<br/>lorikan ere ez nun egiten,<br/>salbatu nintzan estutik;<br/>erregalorik ez da izaten<br/>orrelakuen eskutik.</p> |
| 2 | <p>Oraindaiñoko geienarekin<br/>konpondu naiz itzegiñez,<br/>bañan arekin gelditu nintzan<br/>kaskarrari atzegiñez;<br/>gauz ori ikusi nuenian ni<br/>lorikan ezin egiñez,<br/>ura zan sendagaia neretzat<br/>lenago banengon miñez.</p> | 7  | <p>Orain zertako jardungo degu<br/>onlako gauzak esaten?<br/>Ura jua da geroko presak<br/>ez du balio izaten;<br/>ez dira asko estutzen oiek<br/>besteri pena ematen,<br/>eta etxia kendu ziguten<br/>nai zuten prezio baten.</p>      |
| 3 | <p>Aldegiterik ez nun pentsatu<br/>lenbiziko esanean,<br/>baña zer egin bear genduen<br/>bestarik ezin zanean?<br/>Arrai zatarrak koxkorragua<br/>menderatzen duanean<br/>bezelatsu, gu gelditu giñan<br/>jarraitutzeko lanean.</p>      | 8  | <p>Gure moduko atzeratuak<br/>beti ikasten legiak,<br/>da atzenian gertatzen gera<br/>ezer ikasi gabiak;<br/>gaurko egunian bere lurrakin<br/>ez du agintzen jabiak,<br/>gure Jainkuak emango ditu<br/>auek baño egun obiak!</p>       |
| 4 | <p>Sasoi onena juana nengon<br/>jostaketan ibiltzeko,<br/>baña etxian bazan indarra<br/>lur aiek erabiltzeko;<br/>nere anaiak laguntzen ziran<br/>beiari jana biltzeko,<br/>eta etsian jarria nintzan<br/>basarri artan iltzeko.</p>     | 9  | <p>Esan bezela basarri baten<br/>bizitzen giñan lenago,<br/>gaurko egunian aldegindako<br/>pena ederrakin nago;<br/>era onetan jarraitu eta<br/>gauza onikan ez dago:<br/>basarriak txit gutxitu dira<br/>da kale-etxe geiago.</p>     |
| 5 | <p>Laguntzarrene zeukan izena<br/>bizi giñan basarriak,<br/>geure ustetan bizia antxe<br/>pasatu asmoz jarriak;<br/>mundu onetan izaten dira<br/>beti endredagarriak,<br/>errukirikan batere etzien<br/>eman gizon elbarriak.</p>        | 10 | <p>Basarriak ain indartsu egon<br/>dirade orain artian,<br/>asko gutxitzen ari dirala<br/>jua dan amar urtian;<br/>penagarria izan liteke<br/>gure Euskalerrri maitian,<br/>ia euskera ere galtzen dan<br/>basarriakin batian.</p>     |

# Gu orain bizi geran etxea



1 Utsik an gelditu zan  
lengo basarria,  
gure pameliantzat  
naikua arria;  
etxez aldatutzia  
gauza mingarria,  
eskerrak gendukala  
eginda berria.

2 Etxe berriarentzat  
bertan gendun lurra,  
obrak ematen zigun  
naikua bildurra;  
gu bezelakuentzat  
ez baita samurra,  
bai iduki ezkerro  
naikua ezkurra.

- 3 Berriz ere gelditzen  
gerade aldian,  
lengo basarriaren  
gaiñeko aldian;  
eguzkiak jotzen du  
goiz arratsaldian,  
giro ederra beti  
gure sukaldian.
- 4 Ez gerade biziko  
noski luzaroan,  
egunikan onenak  
gero esperoan;  
ia bada izaten  
diran zartzaroan,  
seme bat badegu ta  
aren anparoan.
- 5 Aspaldian badegu  
milla atsekabe,  
noizbaiten auek ere  
pasako dirade;  
bertan konpondutzia  
danentzako obe,  
etxe onetatikan  
berriz erten gabe.

# Gaurko neskatxak

A musical score for the piece 'Gaurko neskatxak'. The score is written on six staves in a single system. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/4. The music is written in a treble clef. The first staff begins with a treble clef, a B-flat key signature, and a 3/4 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, with some slurs and ties. The second staff continues the melody with a slur over the first two notes. The third staff continues with a slur over the first two notes. The fourth staff continues with a slur over the first two notes. The fifth staff continues with a slur over the first two notes. The sixth staff continues with a slur over the first two notes. The piece ends with a double bar line.

- 1 Esan nai det nik gaurko  
neskatxak zer diran,  
aztu baño lenago,  
oraintxe segiran;  
goizeko ordubitan  
datoz erretiran,  
ai gure gurasuak  
bizi izan baziran!
- 2 Bizi izan baziran  
lengo gurasuak,  
zuzenduko zituzten  
olako arazuak;  
aieri egin garai  
ortako pausuak,  
ederrak entzun bear  
neskatxa gaixuak.
- 3 Tabernan berak dira  
askotan aurrena,  
mutillak sartzen dira  
neskatxen urrena;  
garai batian izan  
balitz nabarmena,  
olaxe jarria da  
oraingo ordena.
- 4 Oraingo neska gazte  
askoren jantzia,  
gorputza estaltziari  
ziaro utzia;  
nik alaxen dadukat  
nere iritzia,  
gurasuak orretan  
artu du etsia.
- 5 Gurasuari kaso  
eginda bai obe,  
ortan ematen dute  
amaika naigabe;  
gazte-gaztetatikan  
gaur zenbait mirabe  
pamelia guzian  
berak jaun da jabe.
- 6 Neskaxa gazte asko  
pabrikari lanian  
ikusiko dituzu  
gaurko egunian;  
gero kastu-bildurrik  
ez dute igandian,  
tabernaren batian  
sartzen diranian.
- 7 Gurasuak daude gaur  
neskatxen karguan,  
ala zan gu gaztiak  
giñaden orduan;  
aiten da amen bildurrak  
len urte-morduan,  
orain asmatu zazu  
arrazoi nork duan.
- 8 Nere ustez esango  
dizutet egia:  
askatasun osuan  
dabil gaztedia;  
len bildurrak amaika  
aldiz ibilia,  
oraingua baterez  
ta ura geiegia.
- 9 Gurasuen bildurra  
len geiegi zala,  
gaztia etzeguan  
bizitzerik ala;  
gaurkoa askatasun  
aunditxua dala,  
ez det esan nai danak  
berdin dabiltzala.
- 10 Mundu onetan artzen  
badezu atsegin,  
besterako derrior  
bear da utsegin;  
guk alperrik zertako  
ainbeste itzezin?  
Neregatik zuek nai  
dezutena egin!

# Jose Lizasori

The image shows a musical score for Jose Lizasori, consisting of six staves of music. The music is written in G major (one sharp) and 2/4 time. The melody is simple and folk-like, with a mix of quarter and eighth notes. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The music continues across six staves, ending with a double bar line and repeat dots.

1 Jose Lizasorentzat  
baditut bertsuak,  
esplikatu nai ditut  
beraren kasuak;  
beti artu izan nau  
zabalik besuak,  
gizon gutxi dirade  
olako gozuak,  
aren egintzak ditut  
goguan jasuak.

2 Gizon onikan iñor  
badago munduan,  
bertsolari artian  
bat ori genduan;  
amaika egun pasa  
det bere onduan,  
orrek kontraria  
ez dakit nun duan,  
ni bizi naiz berakin  
ezin atzenduan.

- 3 Nunai entzungo dezu  
Lizasoren sona,  
ni sarri nago beintzat  
aditzen egona;  
daukana emateko  
borondate ona,  
izketan izaten dan  
kristaurik gozona,  
nun billatuko dezu  
olako gizona?
- 4 Ezagutzen ditugu  
alkarren abotsak,  
ateratzen giñuzen  
sekulako otsak;  
batak besteai bota  
puntara zorrotzak,  
iñon etzuen txarrik  
Lizason biotzak,  
ni berriz ere Jose  
ikusteko pozak.
- 5 Berriz juntatzen giñan  
goiz edo berandu,  
pestak zirala edo  
batenbat ezkondu.  
Aruntz juateko zertan  
pentsatzen egondu?  
Ez genduen beñere  
okerrik izandu,  
nola ez Joserekin  
itxuran konpondu?
- 6 Azpeiti ta Zestua  
bi erriak auzo,  
gaztetatikan lagun  
egin giñan oso;  
alkarrekin emanak  
makiña bat pauso,  
iñor ez oinperatu,  
al dezuna jaso,  
olakoxe gizona  
zera zu, Lizaso.
- 7 Jose Azpeitian da  
jaio ta azia,  
ortxe artu zenduan  
Jaunaren grazia;  
ez dezu kosta gabe  
eraman bizia,  
gaztetan egun latzak  
zera ikusia,  
orain bizi izaten  
zerbait ikasia.
- 8 Gaztetan probatua  
ziñaden morrontza,  
ikusiko ziñuzen  
berua ta otza;  
orain nunaitik dator  
eskutara sosa,  
berak ematen baitu  
bizitzeko poza,  
zeure pameliakin  
urte askoz goza.
- 9 Pamela azi ta  
nolatan ez poztu?  
Len txarrak pasatako  
urte aiek aztu;  
orain ez aiz bizitzen  
zenbait bezin estu,  
sagardotegietan  
trago batzuk ustu,  
itxuran bizi beintzat  
naiz ez aberastu.
- 10 Batek menderatzian  
bizitzako baza,  
orduan lasaitzen da  
gizonen arnasa;  
bitarte ortan ez da  
izaten jolasa,  
orain kezkarik gabe  
biziko aiz lasa,  
nere partetik, Jose,  
urte onak pasa!

# Agorrillaren amalaua

The image displays a musical score for the piece 'Agorrillaren amalaua'. The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a common time signature (C). The notation includes various rhythmic values such as eighth, quarter, and half notes, as well as rests and accidentals. The piece concludes with a double bar line and repeat dots at the end of the sixth staff.



- 1 Agorrillaren amalaua zan  
eta Santa Krutz eguna,  
arrigarria atzo illuntzian  
emen ikusi genduna;  
bakar-bakarrik nengon etxian,  
pameli guzia juna,  
bizi naizela etzait aztuko  
guri pasa zitzaiguna.
- 2 Andria bere jaiotetxera  
juan zan arratsaldian,  
trumoiien otsak aditzen nitun  
gaiñera pranko aldian;  
amarrak amar gutxi ziran da  
emen nengon sukaldian,  
tamaña artako sustorik ez det  
artu juan dan aspaldian.
- 3 Ni sukaldian nenguelarik  
or sartutzen da tximista,  
arritzekua bolara artan  
ark atera zuen txispa;  
nik ezin nuen ezer ikusi  
juan baitzitzaten bista,  
bizirik nola gelditu naizen  
oraíndik ezin sinistra.
- 4 Emen izan zan tiruarekin  
ikara egin zun lurrak,  
neri orduan juan zitzaizkidan  
len nitun indar apurrak;  
argiak ere juan ziran da  
ni mugitzeko bildurrak,  
broman badakit jarduten bañan  
auek ez dira gezurrak.
- 5 Telebixtaren antenatikan  
egin zuan etorrera,  
etxe-kantoia puskatu eta  
andikan ere aurrera;  
da sukaldeko leio batetik  
gure etxera sarrera,  
tiro aundi artan lertu zan eta  
antxe sartu zan lurrera.
- 6 Leiuetako kortinak ere  
erre-lardastu zituan,  
ark utzitako usaiarekin  
ni berriz ia ituan;  
an artu nuen sustuarekin  
iñon ezin geldituan,  
une artan nik gauzik txarrenak  
buruan pasa nituan.
- 7 Etxian egin zitun okerrak  
danak aztutzat utzirik,  
nik ez det nere buruarekin  
errez artuko etsirik;  
atzo illuntzian gure etxian  
pasa zana ikusirik,  
ni arrituta nago nolatan  
gelditu naizen bizirik.
- 8 Nik trumoiari bildur gogorra  
izaten bainion lendik,  
arrixkutikan aldegingo nun  
al baldin bazan iñondik;  
atzoko orrek lenaz gaiñera  
susto aundia eman dit,  
beste pozikan etzait arkitzen  
bizi naizela oraíndik.

# Lazkao-Txiki

A musical score for the piece 'Lazkao-Txiki'. The score is written on seven staves of music, each beginning with a treble clef and a key signature of one flat (B-flat). The music is a single melodic line. The first staff starts with a 3/4 time signature. The melody consists of eighth and sixteenth notes, often beamed together, with some dotted rhythms. The piece concludes with a double bar line and repeat dots at the end of the seventh staff.

- 1 Ilbeltz illaren ogei ta bosta illen atzen igandia, elurra zuri zeguan baña etzegen otza jendia; motibua zan omendutzia Lazkao-Txiki aundia, Donostiara bildu giñaden euskaldunaren sendia, gure billerak asitakuan olaxen izaten dia.
- 2 Lengo igandean, esan bezela, zuri zeguan elurra, bañan elbarrak ere utzia gendun otzaren beldurra, Jose Migeli azaltziarren gure naitasun apurra; umiltasuna dadukalako ta bertsoetako adurra, egun orretan eman nai giñon gure zorion agurra.
- 3 Egun orretan *Carmelo Balda*-n etzan gizon bat bakarra, ura jendien emana eta ura zan sartu bearra! Ango euskaldun berotasuna ia aterian garra, ikusitzen zan Jose Migelen espirituen indarra, ala ere bi begietatik ixuritzen zan negarra.
- 4 Gizon aundiak txikia sarri sartu nai luke azpian, Lazkao-Txikik oien berriak aspalditikan zezkian; gizon bezela jokaturten zan beti juandako tokian, apaltasuna nagusitzen da oraindaiñoko guztian, ori bera zan gertatu zana igandean Donostian.
- 5 Lazkao-Txiki beti izan da apala edo umilla, sekulan etzan juango bere omenajearen billa; baña ikusi egin bear zan an bildu zan jende-pilla, nere iritziz izango ziran gutxienekoz lau milla, berdintzen ere lanak dira ta autsitzia oso zailla.
- 6 Jose Migeli nork ez genion azalduko ongi naia? Bertsolariak pentsatzen degu ote dan gure anaia; ain da gizona broma-zalia eta ain gizon alaia, bere onduan pasa nai gendun guk ere juañ dan jaia, bazala uste det omenaje bat eskeñitzeko garaia.
- 7 Baña denbora iritxi zan da derrior bear zan egin, borondatia zuen jendia gustora gelditu zedin; alako gizon baten onduan artutzen baita atsegin, ain da euskaldun xamurra eta berakin zerbait itzezin, ondoreñian aruntz juandako penarik izan ez dedin.
- 8 Jai orretako pasadizua sarri datorkit gogora, gogoratziaren bertsolariaren egiten ai dan mejora; ikusi gendun bildu zirala berrogeitatan gora, beren omena eskeiñi naian Lazkao-Txikin ondora, ez gendun izan bertsoen paltan pasa eziñik denbora.

- 9 Lazkao-Txikik beti izan du  
bertsuetarako maña,  
asko pentsatzen etzutenari  
artu izan zien gaña;  
noizbaiten artu bearra zegon  
oien guzien ordaña,  
gizontasunak asko egiten du  
ez degu pentsatzen baña,  
erregalotan ere bazuen  
tren bat kargatzeko aña.
- 10 Anoetako belodromuan  
eman zuten bazkaria,  
zazpireun lagun bagiñan baña  
bazan naiko janaria;  
elurrez bapo zuritu eta  
zegon ango ataria,  
barrenak ondo berotutzeko  
eran gendun eraria,  
une batian an ere bazan  
naikua bertsolaria.
- 11 Arritzekua zan Donostian  
guk pasa gendun eguna,  
aitortu bear degu derrior  
gustora pasa genduna;  
egun orretan Lazkao-Txikik  
bazuen naiko laguna,  
bizi zeraden arte guzian  
aztuko're ez dezuna,  
alakuari esaten zaio  
benetako maitasuna.
- 12 Esan da esan eginda ere  
ura zan egun mardula,  
osasunetik ondo zerala  
ez da aztuko sekula;  
badakit egun orretan asko  
supritu berko zendula,  
zeorrek ondo ikusi zendun  
erriak maite zindula,  
animatikan opa dizut nik  
osasuna izan daizula.

# Aurtengo loteria

The image shows a musical score for the song 'Aurtengo loteria'. It consists of five staves of music written in a single treble clef with a 2/4 time signature. The melody is composed of eighth and quarter notes, with several triplet markings (indicated by a '3' above a bracket) in the second, fourth, and fifth staves. The piece concludes with a double bar line at the end of the fifth staff.

1 Donosti alde ontan  
degu eroria  
San Tomasetan aurten  
zegon loteria;  
noiznai ez da izaten  
olako saria,  
lasai egingo zuten  
Gabon-aparia.

2 Lendabiziko aldiz  
Donosti partian  
aurten da eroria  
euskaldun artian;  
itxaropena gendun  
bien bitartian,  
aterako al zala  
alakon batian.

- 3 Ez da suertosua  
ortan Gipuzkoa,  
oraingo ikutua  
zan itxurazkoa.  
Bai al dakizu nola  
dan nere juzkua?  
Jokatutzen duenak  
dula arrixkua.
- 4 Nora tokatua zan  
nua esatera:  
parterik aundiena  
soldadu tartera,  
Loiola deitutzen dan  
kuartel batera,  
zer poza izango zan  
kontuak atera.
- 5 Soldadu batentzako  
izango zan poza,  
an ondo kontatuta  
izaten da sosa;  
loteria tokatu  
eta bete poltsa,  
nola jarri ote zan  
mutillen biotza?
- 6 Donostia da aurten  
diru-berritua,  
jendia gelditu zan  
oso arritua;  
berialaxen zuan  
bozak korritua:  
pobriaren artian  
zala partitua.
- 7 Pobriak pasa biar  
ditu egun latzak,  
alako modukuak  
askotan arratsak;  
loteria lendikan  
dute aberatsak,  
oien bizimodua  
juan da arrapa zak!
- 8 Loteriakin ez da  
milla segurantzi,  
gu ez gerade diruz  
aurten ere jantzi;  
gauza orri ez eman  
oinbeste garrantzi,  
osasuna dan arte  
artu pazientzi.

# Xalbador

A musical score for the piece 'Xalbador'. The score is written on six staves of music, all in a single system. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/8. The notation includes various note values (quarter, eighth, and sixteenth notes), rests, and phrasing slurs. The piece concludes with a double bar line and repeat dots at the end of the sixth staff.

- 1 Urepeleko adiskidea,  
ni lagunen billa nator,  
galdetzen dizut ote zabiltzan  
lenago bezela jator.  
Len bezelako alaitasunik  
aldi ontan bai al da or?  
Zu burutikan kendu eziñik  
emen nabill ni, Xalbador.
- 2 Zu bezelako gizon batekin  
lagun egiten danian,  
nai ez duela ibiltzen da bat  
beti umore onian.  
Zurekin ala ibilli nintzan  
ni Euskalerrri danian,  
eta betiko partitu giñan  
gaixo jarri nintzanean.
- 3 Gu oso lagun izanak giñan  
biok ogei urte pasan,  
da perlesiak jo ninduen ni  
bein Anoetako plazan.  
Berriz kantatuko ez nuela  
ezin zitekien esan,  
baña ez dago zer egiñikan  
onela komeni bazan.
- 4 Xalbador, zure gogoramenak  
izaten ditut sarritan,  
garai batian biok ibilli  
giñan amaika erritan.  
Zurekin amets ere egin det  
nik makiña bat alditan,  
esna naizela ezin ikusi  
zaitut baña aspalditan.
- 5 Juan daneko aspaldi ontan  
ibiltzen gera itxusi:  
nai ez diranak beti aurrian,  
nai danik ezin ikusi.  
Seguru dakit etzabiltzala  
zu neregandik igesi:  
esi bat degu erdi parian,  
ezin alkarrekin bizi.
- 6 Zu ikusteagatik gaur ere  
eman nezazke pausuak,  
bai eta pozik besarkatu're  
zabaldurik bi besuak.  
Oraindik ere goguan ditut  
zuk botatako bertsuak,  
Gabon onduan ganbaran diran  
sagarrak bezin gozuak.
- 7 Zuk badakizu zer izan diran  
emengo bertsolariak,  
edo dauzkazu irakurrita  
aurrekuen istoriak.  
Zure bertsuak len ere ziran  
onak eta ugariak,  
urte auetan zuk damazkitzu  
gure Xenpelar sariak.
- 8 Parisen ere izanak gera  
gu orain baño lenago,  
bein juatia ondo da baña  
nik ez nuke nai geiago.  
Gerran igesi juandakua  
ta euskaldun asko dago,  
baña ura baño toki oberik  
bertsotarako badago.
- 9 Erri askotan ibilli giñan  
da ez Parisen bakarrik,  
Xalbadorek ez zuen egiten  
ateraldi bat zakarrik.  
Aserretu nai izanda ere  
arekin alper-alperrik,  
oraindik izan gabiak gera  
itz erdi baten okerrik.
- 10 Iñoiz iritxi izan gerade  
ala moduzko kasuan,  
beñere asarre izatekotan  
pranko motibo bazuan.  
Kristo bezela areriuak  
masail batian jo zuan,  
alare etzun gorrotorikan,  
bestia eskeintzen zuan.



- 11 Lau urte laste eldu dirade  
nik bertso-lana utzirik,  
bitarte ortan nere buruak  
etzuen artu etsirik.  
Orain ez daukat len bezelako  
ibillitzeko antsirik,  
osasunakin ere ez baidet  
batere segurantzirik.
- 12 Irurogei ta sei urte ditut,  
laste etorriko zazpi:  
bitarte ortan bertso-lanian  
egiña badegu aski.  
Lantegi onen ezkutu danak  
Xalbadorrek ondo dazki,  
umore ona ibiltzen gendun  
baña gorputza txit gaizki.
- 13 Danak kontatu izan balira  
guk zenbat bertso abestu!  
Ni eziñean gertatutzian  
ez nazu gutxi babestu.  
Zuk lagunduko zenduke gaur e  
baldin balitz zure esku,  
Xalbador nere biotzekua,  
zure lagunik ez aztu.
- 14 Zu bertso-tako beti ederki  
egoten ziñan gatzian,  
baita jarraitu ere itxuran  
orretarako jartzian.  
Nik ura poza zurekin ala  
asten nintzan bakoitzian!  
Gaur ere negar egiten det nik  
gauza oiek oroitzian.
- 15 Xalbador, biok bertsolariak  
giñan gu gere izatez,  
gutxiago ezin bildu giñezken  
lotu bagiñuzte katez.  
Gaur biotzetik agurtzen zaitut  
juan dan aspaldiko partez,  
emen aurrian arkitzen diran  
bertso ale auen bitartez.

# Artikutza

The musical score for 'Artikutza' is written on eight staves of music. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is common time (C). The score begins with a dynamic marking of *mf* (mezzo-forte). The first staff contains two measures of music. The second staff contains two measures, with a 3/4 time signature change indicated by a double bar line and the new time signature. The third staff contains two measures. The fourth staff contains two measures, with a 3/4 time signature change. The fifth staff contains two measures. The sixth staff contains two measures, with a 3/4 time signature change. The seventh staff contains two measures, with a dynamic marking of *mf*. The eighth staff contains two measures, ending with a double bar line and repeat dots.

- 1 Artikutzara buelta bat eman  
nuen lengo egun baten,  
nerekin ziran lagun batzuri  
jardun nintzaien esaten:  
Au baño toki ederraguak  
ez dira asko izaten,  
asi bear det mendi onetako  
berriak zerbait ematen.
- 2 Esan bezela, eman nai ditut  
Artikutzako berriak:  
danak or zeuden mendi eder ori  
erosteko egarriak;  
gauza auek len seguru asko  
dauzkatzu irakurriak:  
nola atzenian erosi zuen  
Donostiako erriak.
- 3 Donostiako erria zuen  
mendi orrek merkatari,  
eta erosi bear zitzaien  
Azillona markesari;  
bizkaitarren bat izan bear zun  
esaten degun jaun ori,  
bearrekua artu zioten  
erosi ziotenari.
- 4 Milla pasa ta bederazireun  
da emeretzigarrena,  
da Ilbeltz illak ogei ta zazpi  
ori erosi zuena;  
iru milloi ta berreun milla  
pezeta ordaindu dena,  
Donostik oraindik egin duan  
erosturarik onena.
- 5 Iru millako eta zazpireun  
ektareako basua,  
ogei ta amabi kilometro da  
mendien bira osua;  
Donostiako erateko ura  
ortik daukate jasua,  
orregatik da mendi aundi ori  
olako baliosua.
- 6 Artikutzaren aunditasunez  
gogoratuko zerate,  
neurri oietxek euki biaitu,  
neri ala esan dirate;  
mendi eder ori erosi zala  
berrogei ta amasei urte,  
garai aietan Zuaznabar jauna  
zan Donostiko alkate.
- 7 Mendi onek lau erreka dauzka,  
emango det beren berri:  
Elama eta Urdallue bi,  
guk entzun ditugu sarri;  
irugarrena Enobieta,  
laugarrena Errolarri,  
txanpanen pare badira auek  
bat dagonian egarri.
- 8 Lau basarri're baziran emen  
errekak bezela berdin,  
Urdallue ta Elama eta  
Egazpia ta Goizarin;  
pameliak or bizitzen ziran  
lengo nagusiarekin,  
gero Donostik erosi zuan  
da baserriak desegin.
- 9 Orain berrogei ta amasei urte  
ingurumari aietan,  
beren kosetxa pixka egiten  
zuten basarri oietan;  
ganadua're errez egiten  
esan degun garaietan,  
ezkurra ere naikua baizan  
Artikutzko mendietan.
- 10 Orduan lasai biziko ziran  
Artikutzko basarriak,  
ezkurrarekin mantendutzen or  
ardiak eta txerriak;  
gero ixtia erabaki zun  
Donostiako erriak,  
eta orduan aldegin bear  
an ziraden pameliak.

- |    |   |    |   |
|----|---|----|---|
| 11 | Mendiko ganaduaz gaiñera minak ere or bazian, berreun gizon edo geiagolanian ari baizian; beruna edo plomuen billa Elaman jardun oi zian, gero Donostik erosi zuan da minak gelditu zian.                     | 16 | Aministradore jaunak zitun ango berriak emanak, nola amairu pameli ziran an bertan bizi ziranak: berrogei eta amabi bizi-lagun omen dauzka danak, Donostiko aiuntamentuan enpleatutzen diranak.               |
| 12 | Esan bezela, berreun gizon aritzen ziran lanian, gutxi edo geio aurrerapenak izaten dira danian; berunetikan Elaman goian pillla egiten zanian, Errenteriko estaziora bajatzen zuten trenian.                 | 17 | Ogei ta amabi kilometroko bidia da Donostira, <i>land-rover</i> -akin egiten dute egunero andik jira; gaztiak eskolara eraman, jana ekarri mendira, urruti samar egonagatik olaxe moldatzen dira.             |
| 13 | Mendi orretan daude pagoak, aritzak eta gaztaiñak, danetatikan ere ikusten dirade zugaitz bikaiñak; frutua duten zugaitzarekin ornituta mendi-gaiñak, basa-urdiak gozatzet'itutze ederki beren ezpaiñak.      | 18 | Galeraziak daude Artikutzan bai eizak da bai arrantzak, ori dala-ta ango goardak egon oi dira garratzak; ango erreka koskorrak dira amorraitan aberatsak, baña arrosa danak dituzte bakoitzak beren arantzak. |
| 14 | Piñutik ere badago zerbait, baitare altz da urritzak, mendi ori zer dan ez lezake esan bertsolari baten itzak; altura pixka bat ere badu, izaten dira ekaitzak, bañan alare aixazitzen dirade orko zugaitzak. | 19 | San Agustin da izendatua Artikutzako zaindari, zenbat alditan ur presko ederra emana Donostiari; orain urtiak juan dira ta osatzen naiko komeri, aurtengo udaran bajatua da ango presa aundi ori.             |
| 15 | Orain baiño len izana nago Artikutzan bertsuetan, aspertu ezinda ari begira antxe ordu osuetan; nere artian pentsatzen egon izan nintzan batzuetan: zenbat milloiren baliua ote zegon ango basuetan.          | 20 | Artikutzako kapilla ere oraindikan da berria, orain berrogei ta zazpi urte zuten zutikan jarria; da San Agustin zan egun baten zaindaritzat ezarria, ark berak asko apaindutzen du len esan degun erria.      |

21 Nere ustetan orko berriak  
nik eman nitun lenago,  
baña pelota-plaza ederra  
ere Artikutzan badago;  
ango pestetan partidu ederrak  
sarri ikusia nago,  
ortik aurrera ezin nezake  
kontatu berri geiago.

22 Ango pestetan ikusitzen da  
plazan jendia gaiñezka,  
egun orretan bildutzen dira  
emengo mutil da neska;  
Dagonillen ogei ta zortzia  
ori esan bearrik ezta,  
bertso onekin bukatutzen da  
gure Artikutzko pesta.

# Gure euskera

A musical score for the song "Gure euskera". The score is written on eight staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 5/8 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes, with some rests and a final double bar line on the eighth staff.

- 1 Euskera au da gure izkuntza,  
ikasi gendun gazterik,  
ez du merezi zabarkerian  
orain galtzera uzterik.  
Jaunak burutik nasten ez banau  
ez det olako usterik,  
gu geran arte seguru dago,  
ez baidakigu besterik.
- 2 Batzuek oso izkuntza asko  
ikasi-zale dirade;  
ondo dagola iduritzen zait,  
orren kontra ez gerade.  
Asko ikusten ditut egiten  
prantzes ta inglesen jabe,  
ori guzia egin dutenak  
euskerarik aztu gabe.
- 3 Gurasuari ikasia da,  
ez degu ezer osturik,  
ortaz euskeraz ikasitzen guk  
ez degu egin kasturik.  
Asko ikusten ditut daudela  
izkuntzaz aberasturik,  
ez baidaukagu bat ikastetik  
bestia zertan azturik.
- 4 Guraso euskaldun asko ikusten  
ditut erderaz etxian,  
da aien aurrak egongo dira  
euskeraz motel antzian.  
Ni arrituta gelditutzen naiz  
gogoratu bakoitzian,  
pena ederra izango dute  
gero premiak jotzian.
- 5 Gurasuak gai ori dala-ta  
askotan dute utsegin,  
naiz-eta berak akordatzian  
gero buruai atzezin.  
Al badezute zuen aurrari  
beti euskeraz itzezin,  
gure izkuntza maitagarri au  
betiko galdu eztedin.
- 6 Estimatuak izan gera gu  
etxian eta kanpuan,  
naiz-ta emendik Arjentinara  
ogiareen billa juan.  
Beti atiak zabalikan guk  
juaten giñan lekuan,  
baña euskaldunik ere ez dago  
euskera galdutakuan.
- 7 Batzuk diote euskera dala  
izkuntzarikan zarrena,  
ezjakin batek ezin lezake  
atera orren aztarrena.  
Baña badakit ama esaten  
asi nintzala aurrena,  
orregatikan dago sartuta  
nere biotzen barrena.
- 8 Asi guraso zarretatikan  
aurretaraño lenago,  
beti euskeraz itzegiten zan  
gaur baño askoz geiago.  
Gaurko gaitz orri begiratuta  
bildurrak jarria nago,  
ori kendutzen ez baldin bada  
gauza onikan ez dago.
- 9 Aspalditxuan alde onetan  
indar du atzerritarrak,  
jendien palta omen zegon da  
bete dirade baztarrak.  
Gu euskaldunak nola geraden  
orrelakoxe zabarrak,  
eta euskeraz egiten degu  
aitona batzuk bakarrak.
- 10 Garai batian itzegiteko  
bildurrak giñan bizitzen,  
geren lurrian euskerarikan  
nola etzuten utzitzen.  
Orain olako areriuak  
asiak dira gutxitzen,  
ia, gaztiak, saia gaitezen  
gu izkuntzari eutsitzen.

- 11 Orain edozein erritan dago  
euskerazko ikastola,  
ez esan zerbait ikasitzeko  
aukerarik ez dagola.  
Ogei bat urte inguru dira  
olakorik etzegola,  
erakutsi nai dionari au  
ondo etorri zaiola.
- 12 Negar egiten degu guk baña  
izkuntza ez dago illa,  
urte txar asko eduki ditu  
baña bukatutzen zailla.  
Aspaldi ontan gaixorik dago,  
guazen sendagaien billa,  
gu ilko baldin bagera ere  
euskera bizi dedilla.



# Jose Salaberriari

A page of musical notation for Jose Salaberriari, featuring six staves of music in a single system. The notation is written in a single treble clef with a key signature of one flat (B-flat). The music consists of six staves, each containing a line of music. The first staff begins with a treble clef and a B-flat key signature. The notation includes various note values (quarter, eighth, and sixteenth notes), rests, and phrasing slurs. The piece concludes with a double bar line and repeat dots at the end of the sixth staff.

- |   |   |    |   |
|---|---|----|---|
| 1 | Donosti ontan egiten degu<br>pesta bat izugarria,<br>omenaje bat egindakuan<br>izendatzen da berria;<br>egun orretan esan liteke<br>an dala Euskalerrria,<br>eta jai orren antolatzaillle<br>da Jose Salaberria.        | 6  | Gu bertsolari asko gerade<br>Euskalerrrian sortuak,<br>premi danian lagundutzeko<br>asmo senduak artuak;<br>ondo ibilli izan ditugu<br>gure arteko tratuak,<br>uste dan baño indar geiago<br>dute gizon alkartuak.        |
| 2 | Ni izan nintzan izendatua<br>danetatikan aurrena,<br>nola bainintzan ordun nebillen<br>bertsolaririk zarrena;<br>andik urrengo urtetarako<br>jarria zuten ordena:<br>botuak bota txarteletan da<br>aukeratutzen zutena. | 7  | Ikusten dezu, bertsolarien<br>omenaje bat danian,<br>amar amabi juntatzen dira<br>lenbiziko esanian,<br>derriorrian ibilli gabe,<br>txit borondate onian;<br>bildurrik gabe deitu ziñezke<br>premian zeradenian.          |
| 3 | Bana-banaka len omenduak<br>badira zortzitarano,<br>Salaberriak jarraitu nai du<br>danak pasa arterano.<br>Jaunak denbora ematen badu<br>irixteko ortarano:<br>asko jaiera ederragorik<br>ez da sortuko au baño.        | 8  | Ni sarri asko egona nago<br>bertsolariai begira,<br>zarrak galdutzen ai gera baño<br>gaztetik bada segira;<br>orain artian bezela danak<br>ondo konpontzen badira,<br>gaur omentzeko daudenak ere<br>laster osatuko dira. |
| 4 | Salaberria, zu zaitugu guk<br>bertsolariak jabia,<br>zure biotza iduritzen zait<br>sutan daguen labia;<br>da on egiten asitakuan<br>zeure berdiñik gabia,<br>orretarako kostako zaigu<br>billatzen gizon obia.          | 9  | Garai batian ez gendun uste<br>ontarano irixterik,<br>onez aurrera bertsolariak<br>ez dauka egun tristerik;<br>omenaldiak egingo dira<br>lengo aldian gazterik,<br>ez dadukagu Salaberriai<br>abisatzia besterik.         |
| 5 | Salaberria, orrelakotan<br>gizon ernia zerade,<br>beragatik gu bertsolariak<br>oso kontentu gerade;<br>egun batian zu egin ziñan<br>gure pamelian jabe,<br>zuk badakizu ondo egiten<br>zeñi begiratu gabe.              | 10 | Era ortako nagusi jaun bat<br>ez gendun gure artian,<br>bertsotan asi giñanetikan<br>oraindaño bitartian;<br>Salaberria, jarraitu zazu<br>bertsolarien tartian,<br>zeu omenduko zaitugu laste<br>gogoratzen dan batian.   |

# Eriotza

A musical score for a piece titled "Eriotza". The score is written on eight staves of music, each containing a single melodic line. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/8. The music features a variety of note values, including quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, often grouped with slurs. The piece concludes with a double bar line and repeat dots at the end of the eighth staff.

- 1 Orain irurogei ta sei urte jaiotza izan nuela ez naiz esateko lotsa; geroztik probatua berua ta otza, emendikan aurrera dago bizi motza, gutxiena ustian dator eriotza.
- 2 Mundu onetan ia denborak betiak, eta pena ematen bestera juatiak; projimuari egin dizkagun kaltiak, lotsa ematen digu gero esatiak, ia ixten dizkuen zeruko atiak.
- 3 Anima garbi degu guk gere ustian, etsaiak zirikatzen baten da bestian; eriotza urrian dala ikustian, jaian bezela ori letorke astian, zai egon bear gure biritza guztian.
- 4 Gazte-sasoian izan giñan indarrean, orduko kontuak gaur aztu bearrean; eriotzako ordua emen da urrean, pekatuan bizitzen bagera lurrean, zer esan bear degu Jaunaren aurrean?
- 5 Guk izanagatikan mingañak legunak, ezagutzen gaituzte auzoko lagunak; aiek galtzeko griña eduki degunak, bearbada batzutan galdu ditugunak, danak goguan artu bear ditu Jaunak.
- 6 Emen pasatzen dira milla gertakari, mundu ontako gizon danak pekatari; iñork ez du egin nai oien merkatari, ezer supritu ezin batak besteari, gauzik itxusiena izango da ori.
- 7 Burutikan gerade zearo ariñak, da uste ez degula pekatu egiñak, eta ondorenian datozkigun miñak; alare emen daude txarrerako griñak, Jaunak ondorenian baditu ordaiñak.
- 8 Mundu ontan gauza bat dago itxusia: iñolaz ere alkar ezin ikusia; nola arkitzen dan bat bajatzen asia, eriotza gañean ain gauza gazia; ortantxe bukatzen da gizonen bizia.

9 Mundu onetan dago  
bizitza laburra,  
eriotzari beti  
diogu bildurra;  
guri bizia osten  
dakien lapurra,  
gizona bezelaxe  
daramaki aurra,  
ez dago libratzerik  
esanda gezurra.

10 Eriotzako ordu  
ori ain da latza,  
bein or erortzen dana  
ezin leike altza;  
etortzen zaionian  
ordu bat garratza,  
eguna bezela da  
arentzat arratsa,  
ez ditu bereziko  
pobre ta aberatsa.

11 Gizona egon arren  
sasoi baten gordin,  
eriotza etortzian  
izaten da berdin;  
alperrik esatia:  
"Emendik aldegin!".  
Ark pentsatutakua  
azkar asko egin,  
iñor azitarako  
gelditu ez dedin.

12 Gizona tristetzen da  
indarrak aitzian,  
andik aurrera beti  
bat zorigaitzian;  
bildurrak arratsian  
da berdin goizian,  
Jaungoikuari eten  
gabe otoitzian,  
laguntzeko bizitzan  
da eriotzian.

# Idiazabalko Zepai saria

The image displays a musical score for the piece "Idiazabalko Zepai saria". The score is written on seven staves, all using a treble clef and a key signature of three sharps (F#, C#, G#). The first staff begins with a 6/8 time signature. The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, often beamed together, and rests. The music concludes with a double bar line on the seventh staff.

- |   |  |    |   |
|---|--|----|---|
| 1 | Urriko illaren emezortzian<br>sariketa bat zeguan<br>Idiazabalko erri maitean,<br>eta nik ura goguan;<br>nola zan bertsolariarentzat<br>guk nai gendukian juan,<br>da illuntzian zortziretako,<br>eziñikan etzeguan.             | 6  | Len esandako amar mutillak<br>jardun ziraden serio,<br>zorioneko sariketa ori<br>jarri zutela merio;<br>danak ikusten ziran gogotsu,<br>bazan naiko itz-jario,<br>batek bear zun lenengo eta<br>gertatu zan Zeberio.            |
| 2 | Au da urtero gaztiarentzat<br>jartzen dan Zepai saria,<br>eta guk aurten izandu degu<br>ikusitzeko zoria;<br>batzuk takua sartutzen zuten<br>eta bestiak ziria,<br>aspaldin ugaldutzen dijua<br>euskaldun bertsolaria.           | 7  | Egun artako bertsolariak<br>geienak ziran gaztiak,<br>eta zer poza emango zien<br>saria irabaztiak!<br>Ikusi giñun saiatzen ere<br>batzuk bezela bestiak,<br>egun guzia galtzen du baña<br>bertso bat aldrebestiak.             |
| 3 | Euskalerrriak umore oneko<br>gazte jendia badakar,<br>boza oneko mutillak dira,<br>memoria berriz azkar;<br>beste aldetik bat etorri zan<br>eta beste bi bizkaitar,<br>beste zazpirak gipuzkuarrak,<br>danak neurtu zuten alkar. | 8  | Bertsolariak ez balu izango<br>kezkarik edo arrikan,<br>egun artan e entzun bearrak<br>giñan bertso ederrikan;<br>baña ori ez duenik ez da<br>ez gazte ta ez zarrikan,<br>basarritako kontuak ondo<br>aztutzen dira karrikan.   |
| 4 | Bost gizonekin osatutzen zan<br>an zeguan epai-maia_<br>Aita Zabala lenbizikua<br>eta Bordari aundia;<br>beste aldetik Olea zegon<br>ta Luzio Gabiria,<br>ta Abel Muniategi berriz,<br>Bizkaiko bertsolaria.                     | 9  | Basarritarrak izaten dira<br>bertsolari geientsunak,<br>jeneralean lan ortarako<br>berak dira jakintsunak;<br>pasadizuak esango ditut<br>an izan ziran batzunak,<br>pena aundia izango zuan<br>saririk jaso etzunak.            |
| 5 | Idiazabalen bertan badago<br>gizon bat oso iztuna:<br>Azurmendi du izena eta<br>gaiak jarritzen zituna;<br>nik lenbiziko ikusi nuen,<br>oso langille txukuna,<br>askotan etzan jardungo baña<br>danak arritzen gaituna.          | 10 | Pesta polita ikusi gendun<br>Idiazabala juanda,<br>batzuk saririk gabe gelditu,<br>nunbait danentzat etzan-da;<br>aurtengo ori zuentzat oso<br>egun tristia izan da,<br>juaten segitzen baldin badezu<br>urrenguan zure txanda. |

# Ura

The image shows a musical score for the song 'Ura'. It consists of five staves of music, all in treble clef, with a key signature of one sharp (F#) and a 3/8 time signature. The melody is written on the first staff, and the accompaniment is written on the subsequent four staves. The music features a mix of eighth and quarter notes, with some rests and slurs. The overall mood is simple and folk-like.

1 Gauza bearrekua  
sortu zan mundura,  
iturri batetikan  
ixurtzen dan ura;  
irixten danian bat  
alako lekura,  
trago bat egin gabe  
ezin utzi ura.

2 Gauza bearrak asko  
izaten dirade,  
bero aunditan uren  
premieran gerade;  
orduan iturrian  
pasa bazerade,  
etziñan geldituko  
andik eran gabe.



- 3 Ura bear degula  
nai adierazi,  
ori gabe eltzerik  
ezin da egosi;  
premia nola dagon  
dezute ikusi,  
urik gabe gizona  
ez liteke bizia.
- 4 Zenbat aldiz garbitu  
erropa zikiñak,  
beste mirari asko  
baditu egiñak;  
urakin egin dira  
errotan iriñak,  
zenbat olako gauza  
zaizka eragiñak.
- 5 Ateratzen bazera  
etxetikan jaian,  
itxas-ertzera juan  
pasiatu naian,  
jendia erdi gorri  
antxen dabil plaian,  
ori ere gauz ona  
bero dan garaian.
- 6 Itxaso zabalean  
makiña bat arrai,  
danak izaten ditu  
gañera emangai;  
ta legorrian berriz  
asko jateko zai,  
beste iñon ez dago  
bañan uretan bai.
- 7 Begi-bixta ona ta  
badegu argia,  
baña ez det ikusten  
arrazoi garbia;  
entzun det itxasuak  
duen alderdia:  
mantendutzen duela  
munduen erdia.
- 8 Erdia ez bada izan  
dedilla laurdena,  
asko ematen dula  
gauza nabarmena;  
beti izango degu  
orren aitormena:  
mundu onetan danik  
sororik onena.
- 9 Itxaso ta errekek  
eta iturriak  
Jaunak beren lekutan  
zitun ezarriak,  
iñor ez dedin egon  
gose-egarriak;  
bestela ikusi bear  
giñuzen gorriak.
- 10 Arrai ederra pranko  
badago uretan,  
arrapatu izan da  
itxaso baretan,  
kabitua eziñikan  
askotan saretan;  
gero kaiara datoz  
beren baporetan.
- 11 Bateko legatz eta  
besteko bisigu,  
oiek itxasotikan  
etortzen zaizkigu;  
beti jateko pozak  
egoten gera gu,  
iñoiz aukerarikan  
izaten badegu.
- 12 Beste arrai-klase bat  
berriz txitxardiña,  
uretan bai al dago  
beraren berdiña?  
Arrapatu ezkeru,  
zenbaitek gordiña  
jango luke pozikan,  
ain da klase piña.

- 13 Arrai eder askua  
ez al da langosta?  
Nik ezagutu ere  
egiten det ozta;  
orren prezioakin  
ezin leike josta,  
pozik jaten dana da  
naiz-ta asko kosta.
- 14 Len oso ezaguna  
gendun izokia,  
bi aldiz jan izan det,  
ura zan jakia!  
Arrai-klase ona da  
ta ez da txikia,  
egun aunditarako  
oso egokia.
- 15 Bakallaua ere  
badakigu jaten,  
nai zan guztian etzan  
gaiñera izaten;  
ori're itxasuak  
diguna ematen,  
ta bearrekua da  
pamelia baten.
- 16 Emengo erreketan  
dagon amorraia,  
jende geienak pozik  
jaten dun arraia;  
askok izaten dute  
beregandu naia,  
badu jateko oso  
ona dan garaia.
- 17 Itxaso zabal dana  
betea da arraiz,  
ez dakienak obe  
jakitea garaiz;  
guk klaserik piñenak  
aitatu arren maiz,  
bastuaguetatik  
geiago jana naiz.
- 18 Asi arrai guztien  
izenak esaten,  
ezin dira kabitu  
liburuxka baten;  
badakit au ez dala  
egoki izaten:  
piñenak aitatu ta  
bastuenak jaten.
- 19 Itxasuan badira  
arraia on askuak,  
erantsiko giñozke  
pozikan eskuak;  
pobriak gera eta  
bildurtzen kastuak,  
bestela libre ziran  
gugatik bastuak.
- 20 Ikusitzen dezute  
gure jokaera,  
ura zer zan esan det  
gutxi gora-bera;  
obeko degu garaiz  
ixiltzen bagera,  
eta eman dezadan  
onen bukaera.

# Ereñozuko omenaldia

A musical score for the piece 'Ereñozuko omenaldia'. The score is written on seven staves, each with a treble clef. The key signature consists of three sharps (F#, C#, G#), and the time signature is 2/4. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The piece concludes with a double bar line on the seventh staff.

- 1 Omenaldi bat egin  
*Ur-mia* bazkunak,  
ta Ereñozura giñan  
goizetikan junak;  
Lore-illaren laua  
bezelako egunak  
gutxi izan dira guk  
pasa ditugunak,  
ortarako laguntza  
egin bear Jaunak.
- 2 Goizeko amarretan  
zegon erri-meza,  
egiña gendun aruntz  
juateko promesa;  
oietik jeikitgian  
estu eta presa,  
juateko esan ziraten  
iñola al baneza,  
gogozko bide baten  
korritzen erreza.
- 3 Meza-ematallea  
Don Juan apala,  
banekin apaiz ori  
bertakua zala;  
laguntzen Aranalde  
ta Aita Zabala,  
entzuten ere etzan  
jendetza makala,  
esan bearra dago  
portatu zirala.
- 4 Itzaldia zan Aita  
Zabalaren kargu,  
zenbaitek bezela ez  
izketan bi ordu;  
gauzak esplikatzeko  
jakintza bear du,  
eta etzuan iñoiz  
memoririk galdu,  
bertsolari zarraren  
bizitza azaldu.
- 5 Dantzariak baziran  
altare aurrian,  
azaldu ziradenak  
sasoi gogorrian;  
dantza egiten zuten  
itxura ederrian,  
ango txistularien  
doñu xamurrian;  
ez dakit jartzen zuten  
ankarik lurrian.
- 6 Txalapartaren otsa  
aitzen zan koruan,  
aiek jotzen baitzuten  
gizonen moduan;  
nik gauza oiek artu  
nituan goguan,  
nerbioso samarra  
jarrita nenguan,  
baña elizkizuna  
ederra zeguan.
- 7 Bertsolariak ere  
elizan kantari,  
aiek ere etziran  
jolasian ari;  
beren eskeintza egin  
zioten Jaunari,  
ta gauza seriua  
izaten da ori,  
galdetu besterikan  
ez dago berari.
- 8 Elizatik ertenda  
gero berriz plazan,  
zortzi bertsolariren  
saiua izan zan;  
gutxiñez jardun ziran  
ordu bete pasan,  
entzulearen paltik  
egun artan etzan,  
pozik entzungo ziran  
geiago izan bazan.

- 9 Ordu bi t'erdietan  
gendun bazkaria,  
*Ur-mia* bazkunion  
ederki jarria;  
jendiak kendu zuan  
gose-egarria,  
ni beintzat gustora naiz  
etxera etorria,  
naiko zer kontatua  
badegu ekarria.
- 10 Erregalo-denbora  
iritxi zanian,  
zillarrezko bandeja  
zegen mai gañian;  
aurrez jarria nengon  
jakiñan gañian,  
sekretario jaun bat  
bazan bazkunion,  
artxek eskeñi ziran  
danen izenian.
- 11 *Ekintza* taldearen  
dantza bereziak,  
nere esker beroak  
ondo mereziak;  
aietxek daude dantzan  
ederki eziak,  
junturaz bigun eta  
jenioz biziak,  
txoratuak giñuzen  
an giñan guziak.
- 12 Bola-txapelketa're  
egun artan zegon,  
eta jendia etzan  
alperrikan egon;  
an inguratu ziran  
makiña bat gizon,  
irabaztunarentzat  
saria baitzegon;  
bolari onak badaki  
kontua non dagon.
- 13 Entzutekuak ziran  
trikitilariak,  
egun guztian jotzen  
jardun ziran biak;  
geldikan ezin egon  
ziran dantzariak,  
ematen zutelarik  
aideko txoriak;  
nere omenaldirako  
pesta geiegiak.
- 14 Beste bertso-saiua  
zegon bazkaltzian,  
Aranalde ta danak  
plazara juan zian;  
bertsolariak zeuden  
umorez antzian,  
parra egiten zuten  
gaiak azaltzian,  
apenas gelditu zan  
babarik eltzian.
- 15 Bertsotan segitzeko  
nola geran zartu,  
orrentzat sendagairik  
iñon ez da sortu;  
baña maitetasuna  
dezute agertu,  
olako kristauakin  
ni ezin aspertu,  
ara ereñozutar  
guztiok eskertu.
- 16 Egun ona izan zan  
baña bai laburra,  
juan giñanerako  
bagendun bildurra;  
Ereñozun badute  
ortarako adurra,  
"Bedeinkatua izan  
bedi zuen lurra!",  
ura izan zan egun  
artako agurra.

# Egunsentia

The image displays a musical score for the piece 'Egunsentia'. The score is written on six staves, each beginning with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 2/4 time signature. The music is composed of eighth and sixteenth notes, with some measures containing rests. The notation includes stems, beams, and flags to indicate the rhythmic values of the notes. The piece concludes with a double bar line at the end of the sixth staff.

- 1 Iñondik eman al banezazke egunsentien berriak...  
Amaika aldiz egon gera zai noiz etorriko jarriak;  
alaitzen ditu mendiak eta era berian erriak,  
au zer dan ezin esan lezake nere memori urriak.
- 2 Sortaldetikan asten danian zerbait argitzen eguna,  
nik esan gabe badakizute poza artutzen deguna,  
ikusirikan nola dabillan aize epel da biguna,  
alkarri esanaz: "Au da denbora ederra datorriguna!".
- 3 Udaberriko zenbait goizetan basuan egun argitzez,  
jira danera begiratuta dana beteta zugaitzez,  
zu gogoratu zeradeneko dana busti zera intzez;  
egunsentien edertasuna ez dago esaten itzez.
- 4 Egualdi ederra datorrenian egunen mogimentuan,  
basuan diran txori guziak asiko dira kantuan;  
oian pozikan egonagatik ederkiago kanpuan,  
euskal menditan bezelakoxe pakia dagon lekuan.
- 5 Arrats guzia egunaren zai or daukazkigu loriak,  
gorri edo zuri erakutsi nai baidituzte koloriak;  
gordian ezin egon dirade, ain dirade dotoriak  
begiak piskat gozatutzeko zer dira gauza obiak?
- 6 Eperra ere zintzo asten da egunsentian kantari,  
bere musika ederrenian kasku batian da ari;  
nun bizitzen dan adierazi entzuten dauden danari,  
gero ziria sartuko dio ondoren juaten danari.
- 7 Klinikian ere askotan gera gaixoaren zai egonak,  
egunsentien galdera egingo dizu an miñez dagonak;  
gabaz tristetzen emakumiak, bai eta ere gizonak,  
eta eguna argituztuan gaixoaren zorionak!
- 8 Egunsentia izaten ditu milla alako alderdi,  
ezjakin batek ezin lezazke esan bear bezin garbi;  
mendi-puntan zai egoten dira zenbat bildots eta ardi,  
gau illunaren ondorenian nola jartzen duan argi.

# Pelota

A musical score for the piece 'Pelota'. The score is written on seven staves of music, each beginning with a treble clef and a key signature of two flats (B-flat and E-flat). The music is in 3/4 time. The notation includes quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, with various rests and accidentals (sharps and naturals) used throughout. The piece concludes with a double bar line on the final staff.



- 1 Pelota zenbat maitatzen degun euskaldunena dalako, gu geok ere egun batian emen sortu giñalako; pelotariak gure lagunak asko izan diralako, edo au baño politagorik joku bat ez dagolako.
- 2 Bi-bitara lau izaten dira pelotariak askotan, batek pelota jotzen du eta bestia ez dago lotan; bista pixka bat ere bear du eta indarra besotan, apiziorik baldin badauka gozatuko da pelotan.
- 3 Pelota nola egiña dagon dibertitzeko gaztiak, batzuek joka ari dira ta begira berriz bestiak; askori lanak ematen dizka ortan ondo ikastiak, ikasi ezkerro kezkarikan ez ogia irabaztiak.
- 4 Guk euskaldunak nola ez degu pelota izango maitia, ume geienak jaio orduko lan ortan asten baitia? Naikua zendun egun askotan prontoi batera juatia, goizetik ikusiko zenduan atetaraño betia.
- 5 Garai batian pelota gendun ogia baño naiago, gaur ikusten da fugalak nola dadukan indar geiago; zorioneko ostikoketa txit modan jarria dago, guk joku orren izenik ere ez giñekigun lenago.
- 6 Zorioneko ostikoketa pelotaren kontrario, ikusitzen da gaztiak ortan daukatela amorio; orregatikan pelotazale asko dabilta serio, len esan degun joko-klasia indartu dala merio.
- 7 Pelotarako gogo gutxi gaur ta fugola indarrian, emengo lengo pelotariak daude erdi negarrian, esanez: "Gure joko polita dago leku ederrian!". Fugol-kontuak poliki esan alakuaren aurrian.
- 8 Askok dute gaur pelotariak ateratzeko ametsa, ori lortutzen ez da izaten guk uste bezin erreza; garai bateko gizon aiek zer ziran esan al baneza, naiago nuke bizi balitza orduko Mondragonesa.
- 9 Mondragonesa zer zan esaten asiko baldin banitza, orretarako ezertxo ez da bertsolari baten itza; gizon luzia eta lerdena, ematen zuen zugaitza, berak sasoi zedukanian pelotan autsitzen gaitza.
- 10 Beste bat sortu zan Azkoitian da ez motiko motela, udaberrian ziza zuriak sortutzen diran bezela; ez gendun uste Mondragonesa iñork txautu zezakela, baña Atanok jokatu eta or kentzen dio txapela.

- 11 Atano ori sortu zitzaigun  
Azkoitiako partian,  
pelotaririk onena bera  
beste guzien artian;  
iñork etzion irabazitzen  
sasoi zeukan bitartian,  
txapela berak iduki zuen  
ogei eta bi urtian.
- 12 Oi ta bi urtez txapeldun zegon  
Atano irugarrena,  
Eibar aldetik azaldua zan  
kontrariorik txarrena;  
beste guziak mendean zeuzkan  
eta jua zan orrena,  
noizbaiten galdu bear zuan da  
txapela eibartarrena.
- 13 Orrenbeste urte txapelarekin  
ez al dirade geiegi?  
Artzia ere kostatzen da ta  
gero bear zaio segi;  
makiñatxo bat kontrariori  
emango zion arpegi,  
batek bear zion irabazi ta  
zan Eibarko Gallastegi.
- 14 Urte askuan egondu giñan  
gu txapel orren karguan,  
segururikan ez dakit baña  
beintzat denbora-morduan;  
guregandikan aldentuzeko  
orain ez dakit zer duan,  
Gipuzkuantzat kontrariorik  
etzan izaten orduan.
- 15 Ori ez dago sinistutzerik  
aldamenetik esanda,  
Gipuzkua au urte askuan  
beti txapeldun izan da;  
ixilik egon bearra dago,  
beste aldera jua da:  
aitortu berra daukagu orain  
dala naparraren txanda.

# Lore-illa



1 Lore-illak du guk esan ezin  
gentzaken aunditasuna,  
pentsatu utsarekin auxen da  
poza ematen dezuna;  
gorputzak oso indartzen ditu  
eta eman osasuna,  
mundu guzian banatuzten du  
alako alaitasuna.

2 Lore-illa bai dala ederra  
bat baldin bada ederrik,  
zugaitz guziak ostuan daude,  
ez dago esan bearrik;  
alde danetik begiratuta  
ezer ez dezu zuk txarrik,  
ez da ill onek alaituko ez  
duen gazte ta ez zarrik.

- 3 Lore-illeko egunsentian  
juan izan naiz mendira,  
ta begi biak zabalik antxe  
aspertu ezin begira,  
zozua eta birigarrua  
kantuz ai diran tokira;  
zorionikan bada munduan  
neretzat beintzat ori da.
- 4 Zozua eta birigarrua  
eta beste egaztiak  
basuan antxe danak kantari,  
goizeko intzak bustiak;  
gero egalak zerbait astindu  
ikutzian eguzkiak,  
zoriontsuak dira benetan  
an diran txori guztiak.
- 5 Gure mendien edertasuna,  
bikaña zera benetan,  
aztu eziñik egoten gera  
gu Euskalerrri onetan;  
egualdia eder samarra  
etorritzen zaigunetan,  
bat txoratuta gelditutzen da  
orrelako egunetan.
- 6 Txori gaxoak beren umiak  
azten ai diran garaian,  
lana egiten dute gogotik  
astian bezela jaian;  
umiak antxe daude kabian  
zugaitzen goiko tantaian,  
piska bat lumaz jantzitakuan  
andikan atera naian.
- 7 Ez al dezu zuk iñoiz ikusi  
baso auetan kukurik?  
Lore-illian ez da izaten  
txori-klase bat muturik;  
danak goizetan abesten dute  
beren musika arturik,  
bein asten dira eta ez dute  
ixildutzeko konturik.
- 8 Euskalerrriko mendi auetan  
zenbat txori ta egazti,  
basakatuak eta azaiak  
eta zenbat klase pizti,  
Lore-illian danak ederki  
da negu beltzian gaizki;  
kanpuan bizi bear duanak  
oien berriak badazki.
- 9 Lore-illian fruta-zugaitzak  
oso era dotoretan,  
ikusten ditut nolatan dauden  
adar guziak loretan;  
errepairatzen baldin badezu  
sagar eta udaretan,  
arritu eta gelditzen da bat  
jantzi duten koloretan.
- 10 Urtian ill bat bearreko da  
beti itxura antzekua,  
neguak auldu duen guztia  
erabat konpontzekua;  
fruta-zugaitza eta basuak  
ta beste gañontzekua,  
larru gorrian dagon guztia  
jantzi ta apaintzekua.
- 11 Askoz obia izango nuen  
egon banintza ixilla,  
baña asi naiz udaberriko  
edertasunaren billa;  
urtiak ditun beste guziak  
lotsatuko ditun illa,  
da aurten ere opa diogu  
ondo etorri dedilla.
- 12 Derrior pasa bearra dago  
neguko egun tristiak,  
txarrik ez balu iñoiz egingo  
ez dira onak bestiak;  
udaberrian alaitzen gera  
zarrak bezela gaztiak,  
artu egin bear gure Jainkuak  
ematen ditun guztiak.

# Martiñ Estanko

**M**ARTIÑ Estanko esaten genion guk. Aizarnako gizon bat zan au. Martin Mujika zituan izen-abizenak. Martiñ Estanko, etxeak ematen zion izena zuan. Etxean estankoa zuten, eta ostatua, denbora berean.

Makiña bat aldiz bertsoan egiñak gaudete etxe artako balkoitik Basarri ta biok, ta pozak joan ere egiten giñan gaiñera. Ain zan etxe konpiantzazkoa. Ta Martiñekin itzegiteagatikan ere, pozik joango giñan. Ain zan gizon iztuna eta jatorra ura.

Aizarnako kale-kalean zegoan etxe ori; plazan bertan. Orregatik egiten genduan guk ango balkoitik bertsoan.

Istori aundiko gizona zan Martiñ ori. Opizioa ere Donostian ikasi zuala esan izan zuan berak. Amazazpi urterekin asi omen zan, da orain bezelako aukerarik etzan izango orduan automobillakin ere joan da etorri egiteko, eta oiñez egin bear joan da etorri.

Aizarnatik Donosti ez dago gero atzaparrean, opizio bat ikastera oiñez ibiltzeko. Asi ta bukatu alaxe egin zuala esan oi zuan, da etzan gizon gezurtia Martiñ.

Esan bezela, astelenean oiñez etorri Donostira, ta larunbatean atzera oiñez jira. Amak biderako jana jartzen zion lenengo

aldetik: lauko ogiaren erdiarekin jartzen omen zion, eta ura askotan Donostira bañolen bukatu egiten omen zitzaion. Eta gero osoa; andik ere ez det uste asko sobratuko zanik.

Gizon aundia zan ura. Guk ezagutu genduanean, eun da bost kilotik eun da amarrera izaten zan. Apetito aundikoa gaiñera. Zato ardoa ere beti izaten zuan berekin.

Lau ta erdiak edo bostetan irten Aizarnatik, eta lau ordu bear izaten zituan Donostira etortzen. Oriora bi ordu, eta andik Donostira beste bi ordu.

Atajoak ondo billatuta idukiko zituan arek: Aiako mendi oietan barrena Oriora; eta gero andikan, or Mendizorrotzen barrena, Igeldotik edo orrela izango zan aren bidea.

Alegiña moztuta ere, naikoa luze izango zan. Azkar ibilli bear, lau orduan Aizarnatik Donostira etorriko bada.

Zaldi-kotxe oietakoak ibiltzen omen ziran Oriotik Donostira; eta, aiekin batean Orion ateratzen bazan, Donostiko Antiguan Martiñ aurretik izaten omen zan.

Beste gertakari bat ere bazuan pasia Martiñek bide orretan. Aizarnako ezkonberri batzuek arekin etorri bear zutela Do-

nostira, eta astelen batean alkarrekin irten omen ziran.

Eta Martin zatoarekin ikusi zutenean, artu omen zuten berak ere zatoa, eta sarri samar bidean ikutu egingo zioten, da nobio zelebren jarri. Nolabait ere, alkarri lagunduta-edo, Donostiraño etorri omen ziran. Gero kontuak Donostian: Martin bera nobio egin bearrean gertatu etzanean, kontentu.

Orain San Martingo plaza dagoan toki orretan, basarri bat omen zegoan, arek esaten zuanez. *Buen Pastor*-ko katedrala ere orduantxe asi omen ziran egiten. Orain larrogei ta bost urteko kontuak dira auek.

Bi urte pasiak egin zituan Martiñek, Aizarnatik Donostira joan da etorri, opizioa ikasten. Arotza zan. Lertxundi ta Zalduekin ikasi zuan arotzean. Bertan gelditu nai izan zuten, baña Aizarnara joan zan ostera. Zer deskantsua artuko zuan, opizioa bukatu zuanean! Geroztik beti arotzean lana izaten zuan, ta beti zintzo jarraitu zion bere lanari.

Gero, esposatu egin zan. Andrea Oikiakoa zuan, elizaren ondoko etxe batekoa; Etxetxo edo ez dakit nola esaten zioten ere. Bere senideak Txabolan eta Lasalden eta etxe oietantxe bizi izan ziran.

Amaika seme-alaba izan zituzten: sei seme ta bost alaba. Oraindik zortzi bizi dira; iru dira illak, da zeruan gerta ditezela.

Martiñ alaba zarrenari errietan asitzen omen zan iñoiz, eta andreak ala esaten omen zion:

–Biok berdiñak zerate zuek!

–Eta zuk ala nai! –Martiñek atzera.

Errietan asitakoan ere, gizon serioa izango zan ura; baña batere errietarik egin gabe amaika seme-alaba azitzen ez da errez.

Gu Zestuara periarra illero joan oi giñan –illaren azkeneko asteazkenean izaten zan peria–, eta askotan biltzen giñan an Martiñekin.

Ura basoak erosi ta saldu ta orrela ibilli oi zan, da nik ere iñoiz baso koxkor batzuek erosten nituan, da arek konseju onak ematen bazekian. Litro erdiren bat ardo atera eta jarriko zan patxara ederrean, da orduan arekin itzegiteak poz ematen zuan. Beti erakutsi egiten zekian arek.

Zenbait gizatxarrek kontra erakutsiko dizu; baña arekin etzegoan olako bildurrik. Izketan patxara ederrean jarduten zekian arek. Gizona ona alakoari esan izan diot nik. Baña, aserretzen zanean, bera ere ez omen zan gozoa.

Bera arotza zan da egur neurtzen ere ibiltzen omen zan, besterentzat ere, batzuetan. Ura egur neurtzen ari bazan, etzuan ez saltzalleak eta ez erosi zituan arotzak ere aitzaki aundirik izango. Gizon jatorra zan ura, ta zuzena.

Baña bein Zarautzko arotz batekin aserretu omen zan. Beti aitzakia ematen ari omen zan, da aspertu zan entzuten. Koloarek zuritu omen zitzaizkion, eta egur neurtzen zebilkan zinta utzi omen zuan. Berak neurtzeko esan omen zion.

Da ezetz; alakorik etzutela bear da jarraitzeko neurtzen; berriz ere alkarrekin tratatzeko moduan partitu bear zutela-ta.

Ezetz Martiñek: sekula geiago alkarri itzik egiteko moduan etzutela partitu bear; da ez omen zion geiago aitzakirik eman.

Esaera bada gizonik onena dala txarre-na, bein aserretu ezker; ta ez da gezurra.

Orain nerekin bizi dan anaia onek-eta, egin zioten baso bat Martin Mujika edo Estanko orreri. Piñudi bat zan, da bota ta zuritu egiteko kargua zuten artua, eta alaxe egin ere.

Ura baño gustoragoko nagusirik ez duala beñere izan esan oi du. Beti, basora joaten zanean, zatokada bat ardo eramango omen zuan baso-mutillentzat, eta egingdako lanarentzat beñere aitzakirik ez omen zuan izaten arek. Gizon atsegiña zala makiña bat aldiz aditu diot gure anaiari.

Atzenean bukatu omen zuten basoa, eta neurtu egin bear egurrak; metro kubikoa onenbesteko batean omen zuten tratua egiña, eta zeñekin neurtuko ote zituan, ba, Martiñ Mujika orrek. Eta berak neurtzeko, nai baldin bazuan beintzat, esan omen zioten mutillak; eta alaxe neurtu ere.

Baña kontzientzira lana egin omen zuan arek. Zenbait gizonak, beretzat izan edo beste batentzat izan, berdin egingo du lana. Alakoak ez dira danak. Ura gizon serioa zan.

Merienda ederra eman omen zioten neurtu zituztenean, eta kontuak egin eta pake ederrean etxera.

Nik gizon danak onak ditutela esan didate lengo liburua ikusi dutenak; eta arrazoa berealaxe emango dizut, irakurle, zergatik dan ori. Ni bere bizitza esaten asten naizenean, gizon aukeratua da ura nerezako, ta orregatik beartua nago ondo itzegitera. Baña, ondo itzegiten badet ere, gauzak diran bezela esatea gustatzen zait, eta auek alaxen dira.

Julian Elorza ta Inazio Perez-Arregi jaunak oso lagunak omen zituan. Oiek biak lege-gizonak omen ziran.

Bein, Aizarnan, auzia omen zeukaten baserritar batzuek Zestuako bañu-etxearekin, da baserritar oiek Martiñ Estankori laguntza eskatu omen zioten.

Ta zuzendua izango zan bere Donostiko lege-gizon oietara, Julian Elorza ta Perez-Arregi Donostikoak baitziran; ta aiek lagundu ere bai, eta auzia irabazi beintzat.

Zestuako bañu-etxeak galdua izan bear zuan auzia.

Terreno batzuek zirala medio zuten auzi ori, eta Aizarnako basarritarrak gelditu ziran beren terreno oiekin, eta ala esan omen zuan Zestuako bañu-etxeako jerentek, Don Pakok, Martiñengatik:

*–jEse casero ilustrado nos ha hundido!*

Larogei ta amalau urte zituan Martiñek il zanean, da andreak larogei ta amar. Biak ere mundu-aldi ederra pasa zuten. Martiñ 1967-garren urtean il zan; da bere emaztea, berriz, bi urte lenago.

Urrezko eztaiak, berriz, Loiolan egin zituzten, Etxanizen jan-etxean, ta jende asko izan zuten. Oso pozik gelditu ziran.

Gizon bat bazan Aizarnan, askotan aditu izan niona:

–Martiñ Estanko Madrillko semea izan balitz, gutxienez ministro egingo zan!

Pio Barojaren adiña berekoa zan; da, Zestuan sendagille egon zanean, ezagunpide aundia zuan Martiñek. Aizarnan iñor beartzen bazan sendagillearengana, Martiñ an joango zan bere billa. Orrelaxe konpontzen ziran beti.

Gero, Pio Baroja idazle pamatua izan zan. Zestuan urte bete bakarrik egin omen zuan sendagille.

Martiñ, len esan degun bezela, apetito aundikoa zan, da sendagilleak gutxi jan bear zuala esanda zeukan. Baña etxean ostatua zuten; eta igande-goizetan, beti, mezetara joaterako gosari txiki bat, eta bestea ateratakoan, da gutxienez libra bat ogi jaten omen zuan, da ezin egin jan gabe.

Batean, billoba txikia ta biak gelditu omen ziran, besteak lanera joanda; eta, biak sukaldean zeudela, ordurako ezindua izango zan-da, sillatik altxa ta maiera abitu omen zan. An, maiaren gañean, omen zeu-

den ogiak; eta artu ogia eta, atzera sillara zijoala, erori egin omen zan sukaldearen erdi-erdian.

Billoba txikia kejatu omen zan, eta ez estutzeko esaten omen zion aitajaunak, laste etorriko zirala besteak eta. Baña arek, besteak etorri ziranerako, ogi osoa jan omen zuan.

Len kilo asko eta apetito aundia, gizon zarrarentzat ez dira ondo etortzen, eun da bostetik amarrera kiloak bazan len eta. Donostira oiñez joaten zaneke sasoi edukit bazuan... Berrogei ta bost edo sei kilometro egongo dira eta. Baña gizona ez da betikoa; Jaungoikoa bakarrik.

Baña berak esaten omen zuan: arek jateko gogorik ez bazuan, berealaxe bukatuko zala ura.

Seme bat sastrea dauka Donostian. Il aurreko igandean, joan omen ziran andrea eta biak bisita bat egitera. Ordurako etsia artuta omen zegoan, da semeak esan omen zion:

–Berriz ere etorriko gera igandean!

Eta:

–Lenago etorri beariko dek, ni bizirik ikusi nai banauk!

Eta ostiralean il omen zan.

Berak esaten omen zuan iltzeko pozik zegoela, geroz ta gizatasun gutxiago ikusten zuala mundu onetan da.

Orain zortzi urte dira il zala; andrea il zala, amar. Bizia pranko luzea izan zuten, baña aieri ere bukatu; eta nik opa diet zerruan gerta ditezela.



# Martiñ Estankoren gizatasuna

A musical score consisting of seven staves of music. The music is written in a single melodic line on a treble clef staff. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 2/4. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some rests. The piece concludes with a double bar line and repeat dots.

- 1 Iltzeko pozak jarria zegon,  
aspertua zan bizitzen,  
gazte zaneko gizatasunik  
ez baitzuen ikusitzen;  
arrokeria ugaldu eta  
umiltasuna gutxitzen,  
Martiñek etzun iñolaz ere  
era orretan etsitzen.
- 2 Ikusi egin bearra zegon  
Martiñen gizatasuna,  
alde batetik serio baña  
bazuen alaitasuna;  
amaika aldiz nintzan berari  
izketan pozik entzuna,  
gizona baizan alakoxia:  
txorakeririk etzuna.
- 3 Larogei eta amalau urte  
igaro zitun munduan,  
gaztia zala indartsua zan  
zugaitz mardulen moduan;  
denbora pasa eziñik etzan  
alako baten onduan,  
pasadizuak esplikaturzen  
ura asten zan orduan.
- 4 Martiñ Estanko sarri ikusi  
izan nuen nik serio,  
len esan degun gizatasuna  
galtzen ai zala merio;  
alkar ikusi eziña zegon  
gero eta ugario,  
Mujikak etzun alakuentzat  
askok ainbat amorio.
- 5 Martiñek zuan gauza bat ona:  
gizonen gisa itzezin,  
al baldin bazan lagun urkoai  
ez ezertan e utsegin;  
gorrotorikan txikienikan  
baldin bazuan desegin,  
bere gogoko etzan gauzikan  
beste iñori ez egin.
- 6 Len ere esan det amaika aldiz  
da esango det berriz ere:  
guztiak ziran arentzat onak,  
baña batzuk batez ere;  
Martiñek zeñi etzekiela  
egiten zekin mesere,  
borondatia dadukanari  
etzaio kosta ezere.
- 7 Gizona ona berez danentzat  
iñoiz ez da zorigaitzik,  
Mujikak etzun atera izan  
iñoren aurkako itzik;  
mesere billa bat juaten bazan  
etzan etorriko utsik,  
gero egiteko etzun utziko  
egin al bazun laguntzik.
- 8 Martin Mujika euskalduna zan,  
euskeraz bere mintzua,  
ez dakit nola izan liteken  
alako gizon zintzua;  
berrogei urte zenitularik  
etziñan gizon mantsua,  
orain opa det izan zazula  
zeruetan deskantsua.

# Naparroako mendietan

**U**ZTAILLAK ogei ta zazpi zituan da egualdi ederra zan; goiz argia, intza bikaiña, Santa Ana biaramona gaiñera, ain zuzen; egun señaleara.

Ibilli-aldi bat egin bear genduala pentzatu genduan, eta erten genduan goizean. Nere semea kotxearekin, aren lagun bat eta gu bi anai, lau lagun osatu giñan.

Nora abituko ote giñan, ba, eta Naparroa aldera joango giñala. Ta Oiartzundik atera ta Irundik barrena artu Bidasoko erreka ori, eta Mugaireraño; andik Belateko gaiñera. An asi giñan pagadi ederrak ikusten. Naparroan sartu ezkerre, ori jakiña dago.

Andikan Ultzaman bera Iruñara. Iruñan nola igaro guk eguna, ordea? Ezta lotuta ere. Bero izugarria egiteko itxura zegoan. Alkarri esan genion:

–Joango al gera Burgete aldera?

–Bai; goazen.

Eta an goaz. Artu degu mendi alderako bidea, eta joan giñan lenengo beste mendi batera, nere semea-ta basa-urdetan an izaten zirala-ta.

Ara iritxi giñanean, gosaldu egin genduan. Zortzi t'erdia ziran eta gogoa egin zitzaigun. Gosaria, berriz, geok gendukan; eta, mendi ori ikusiaz, antxe piska baten egon. Baña mendi arlote samarra da ura:

eizerako ona izango da, baña ez dago bestela balio aundirik, artea edo orrelakoa ikusten zan baña.

An, gosaltzeko ainbat denbora bakarrik egin genduan; eta, gosaldu genduan, artu genduan berriz ere mendirako bidea, eta ogei ta iru kilometro zeuden andik Burgetera. Berealaxe iritxi giñan.

Toki ederra! Goian dago, baña zabal ederrak ikusten dira an. Erria ere oso polita; etxeak ederki zurituak eta kuriosoak daude.

Ango nekazaritza, berriz, lur-sagarra edo patata dala uste det; ortatik sail izugarriak ikusten ziran. Gaiñontzean, ganadua. An beiak kanpoan ikusten dira. Berak biltzen dute berentzako ainbat. Emen ainbat belar ebaki bearrik ez dago. An beiak mendian, antzu ta orrelakoak. Etxe aldean utzi esne piska bat jeizten zaiotenak, eta besteak mendira botatzen omen dituzte.

Len Baztan aldetik ere etortzen omen ziran beiak, eta zerria bezelaxe gizendu eta uda azkenean etxera. Orain gauzak gero ta estuago dijoaz; eta an ere, itxura dagoanez, ala joan dira. Eta, orain dala bost bat urtez emendik, ez omen da kanpoko beirik ametitzen.

An mendi aberatsak daude: batetik pagadi ederrak eta bestetik larre ona. Emengo larreetan ez da beorrik txikienik ere ala

gizentzen. Eta beiak, berriz, bota itzazu emengo mendietara; betizu txiki oiek izan ezean, beintzat, ez dago emen mantentzerik. An, berriz, kanpokoak galerazi dituzte, itxura danez; baña orrek ez du esan nai larreak len baño txarragoak diranik. Errikoak len baño obeak egongo dira; bei ederrak ikusten ziran beintzat angozelaietan.

Burgetetik urrena, *Roncesvalles* edo Orreaga dago. Or zazpi edo zortzi etxe daude danak ere. An ere gelditu giñan, ba, eta ostatu batean sartu giñan, gure oitura dan bezela.

Ta an aitonatxo bat; etxeko nagusia zala esan zigun, eta euskeraz nolako ederki egiten zuela gero! Luzaidekoa zala esan zigun bere jatorriz, eta ezkontzaz etorria zala orrera. Euskeraz egiten zuela nik esan nion; eta baietz, "erdaraz baño obekio!" erantzun zidan.

Oso aiton argia zan. Larogei urte bazituela esan zuan, baña ez du ematen ainbeste ta gutxiagorik daduzkanik.

Erreiña Oiartzungoa dauka etxean; oraintxe alargundu berria da andre ori.

An, erri artan, aproba asko egin zituela artoarekin-da esan zuan; etzala eltzen artorik esan zigun. Jakiña, uda motza izango da an. Ainbesteko alturan ez dago udara luzea izaterikan. Uda azkenean laiño otz bat sartzan omen da, eta andik aurrera ez omen du artoak lanik egingo.

Erri ortan iru pameli dira nekazariak. Gaiñerakoak—danak ere ez dira asko—, zazpiren bat pameli eta erlijioso batzuek, kannonigo eta orrelakoak; amairuren bat danetara. Gero, beste gudari batzuek; aiek ere eguzkitan an ikusten ziran, egualdia beroa baitzegoan.

Beti ez dira an alako beroak izango. Ango etxeak nola estaliak dauden begiratu besterik ez dago. Arri losakin estaliak

daude etxeak danak, eta ixuri aundia dute. Ori elurren bildurrak egindako lana zala esan genduan guk. Baña arritu egin giñan lenbiziko, etxe aiek ikusi giñuzenean.

An begiratu bat eman genduan; eta, pisika bat aurretiago joanda, beste *puerto* bat dago, Ibañeta izenekoa, eta aruntz joan giñan.

An ermita txiki bat dago, aurreko erri ortako etxeak bezela estalia ura ere, arri losakin. Aizeak izango du indarra an.

Ermita orren gaiñeko aldean iturri bat dago, eta jendea asko zebillen joan da etorri.

Azpiko aldean etxe bat erdi egiñean, baña aspaldian lanik egin gabe. Geldi dagoan obra. Segitzeko baimenik ez edo zerbait orrela izango da.

Gero, Ibañetako *puerto* orretatik ere beste *pista* bat bazegoan eskubitara, zazpi kilometrokoa, eta an gora abiatu giñan, eta aldapa izugarria. Bildurra ematen zuan an azpiko aldera begiratzeak ere, baña igo genduan beintzat ara ere.

An poste luze bat ikusten zan, da telebisioaren errepitidoreren bat izango zala esan genduan guk.

Andik begiratuta, bazegoan zer ikusia. Ango pagadi eder aiek ikusi egin bear dira, gero beste bati kontatzeko ere. Bista alako pagadiak. Ango mendietan badago aberastasan ederra.

Burgetek berak zer balio ote dauka pago utsetan? An, kamio-baztarretan, nunai ikusten dira pago ikusgarriak. Ango erri koskor aiek pagoz ondo ornituta daude. Errian edozein obra egin bear dala ere, ez dago ezeren kezkarik iduki bearrik. Badago zerekin ordaindua.

Len esandako mendi orretatik, Prantzi aldeak ere ederki ikusten dira.

An egon giñan piska baten, begiari atsegin ematen ezin asperturik.

Ardiak ere bikaiñak ikusten dira an, da geienak adardunak. Artzaiak ere bai beren kotxeakin, zakurra ere kotxean zaramatela. Garai baten etzan izango atsegin mendi artara igotzen, zazpi kilometroko aldapa latz ura oiñez igo bear zanean. Gaur beste erreztasun batzuek dituzte artzaiak ere.

Mendi aietan geien-geiena arritu ninduan gauza zan, txabolarik ez nuala ikusi alerik ere. Ez dakit nora biltzen dituzten ardiak jeizteko edo beste edozer gauzetarako.

Beorrak ere badaude bikaiñak, emengo mendietan baño ederragoak, ipurtalde zabal askoarekin.

An egon-aldi bat egin ondoren, bera jetxi bearko genduala, eta bildurra ematen zidan neri an goitik bera abiatzeak, milla ta bosteun metroko menditik jetxi bear genduan da. Ortzainzurieta zan mendi ori.

Abiatu giñan, ba, poliki-poliki. An, prenoak utsegin edo orrelako zerbait pasatu ezker, akabo zegoan: pago zarren bat jo ta zatituko giñan. Baña Jaungoikoak lagundu zigun eta ederki jetxi giñan Ibañetara.

An ikusten dira usotarako lekuak ere. Akotatua egon bear du arek. Gipuzkoako ta Bizkaiko jendea omen da, an eizean egi ten duana.

Gero Espinal edo beste erri koskor bat bada an, eta baneukan an gelditzeko gogo

ere, eta antxe pasa bear genduala esan ziguten. Arruako nere lagun bat an egona zan, ba, luzaro: Juan Erentxun. Organista eta eskola-maixu ta sekretario ere ura izango zan Espinalen. An pasaran gelditu giñan, da orduantxe meza nagusitako jendea atera zan.

An ere, piska bat egarrituak giñan da sartu giñan ostatu batera. Antxe, bermut bana artuaz, piska bat egon giñan.

Da erriari begiratu bat eman genion. Nik uste baño erri politagoa da Espinal. Oso garbia eta txukuna, kamioa erditik pasatzen zaiola. An ere beren elur-bildurra edo ori bazegoan; baña bestela erria patxarazkoa eta polita da.

Badakizu, altura aundia dago an da bildur bear elurrarekin. Noiznai amabost bat egun edo illabete egingo ditu an elurrak, eta kezka ematekoa da. Baña, bestela, nik uste baño erri politagoa.

An egona zan nere laguna, Juan Erentxun edo dalako ori, orain Donostian bizitzen da. Musikoa da, ta pianoa jotzen edo orrela bizimodua ateratzen du.

Gure mendiko buelta eman genduan eta ordubata zan. Bazkaltzeko gogoa ere piska bat egin zitzaigun. Egualdia ederra zegoan, bero aundia, da andikan Ultzamarara etorri giñan bazkaltzera.

An bazkaldu eta lasai. Preskatu giñan, kapeak artu ta an mendian ikusitako gauzai beste pasara bat eman genien; eta, piska bat preskatu zuanean, artu gure kotxea eta etxera etorri giñan.

# "Naparru alde ortan..."



1 Naparru alde orretan  
izan naiz lenguan,  
aspalditxuan beti  
juateko nenguan;  
Burgete alde ori  
ikusi genduan,  
nolako garbia ta  
txukuna zeguan.

2 Etxiak ikusitzen  
ziran zurituak,  
an ere badituzte  
beren merituak;  
kaliak kristalaren  
gisa garbituak,  
gu aieri begira  
oso arrituak.

- 3 Burgete, Orreaga  
edo Ibañetan,  
eta an inguruko  
mendien gañetan,  
aspertu ezin ango  
baso bikañetan,  
exerita jarriak  
paguan zañetan.
- 4 Alde ortan badira  
milla edertasun,  
ez dakit nik bezela  
ikusten dituzun:  
ardiaren orruak  
mendian oiartzun,  
alde baten egin da  
bestian erantzun.
- 5 Ango mendietako  
beorren taldiak,  
zabal askuak beren  
ipurdi aldiak;  
da aiekin batian  
badira zaldiak,  
zer esanik ez dago  
berriz artaldiak.
- 6 Mendi-punta aietan  
larriak edarrak,  
ardi adardun batzuk  
ez dira melarrak;  
indarra dauka nunbait  
an dagon belarrak,  
trabatu bildurrik ez  
otiak da larrak.
- 7 Gustatu zitzaidala  
ez dago zalantzik,  
alderdi ark ez dauka  
Gipuzkuan antzik;  
emen ez da an bezin  
mendi aberatsik,  
pagadi ederrak an,  
ez da piñu beltzik.
- 8 Errekak ere oso  
garbiak dirade,  
arrituta begira  
egonak gerade;  
ikusiko dituzu  
juaten bazerade,  
fabriketako zikin  
askorikan gabe.
- 9 Asko gustatu zaigu  
ango parajia,  
oso pozikan egin  
gendun biajia;  
bañan au esateko  
badet korajia:  
euskerak badaukala  
naikua ajia.
- 10 Zar batzuek euskeraz,  
ixillik bestiak,  
lotsa ematen die  
izketan astiak;  
ajola gabe daude  
oraingo gaztiak,  
lanak emango ditu  
ondo ikastiak.
- 11 Biajatzia ona  
izaten da neurriz,  
gustatu zitzaidala  
aitortzen det egiz;  
noizik-beinka ona da  
aldatzia erriz,  
urrengo uda aldera  
juan nai det berriz.
- 12 Ortzanzurietara  
gu jua lenago,  
aize presko ederra  
an noiznai badago;  
berriz aruntz juateko  
txoratu nago,  
agur gero artian  
bizirik banago.

**Osasuna joan da gero**



# Bertsolari zaarrei omenaldia

- 1 Egun alai bat ospatuzeko garai da gure artian, amasei bertsolari badira Euskalerriko partian irurogei ta amar urtetik larogeira bitartian; omenajia egingo zaie danari egun batian.
- 2 Bat edo bestek izan lezazke larogei baño geiago, beste okerrik ez baldin bada konpondu eziñik ez dago; kantatuzeko ongi etorri ta guria egiña dago, bai orain ogei ta amar urteko sasoia baldin balego.
- 3 Simon Ibarra Bankan bizi da, ez da bertsolari eskasa; ta Aldabako semea dezu Prantzisko Maria Lasa; Jose Maria Mutuberria Eltzaburuko arraza; Mungiatarra Juan Ormaetxe, berdintzen ez da erraza.
- 4 Pello Errotan billoba Ondartza, ta erria Asteasu; Joxe Iñaxio, urrustildarra, zuk zer esaten didazu? Pello *Saikola* izenekua, arruatarra zera zu, ta Itziarko seme jatorra nere maisua Zubeltzu.
- 5 Klemente Ezkurdia Gorritin, erria da Elizondo; Muñoa, berriz, Bidanikoa, Joxe Mari Aristondo; Patxi *Artxanberria* il zaigu gendukalakuan ondo; Zarauzko *Nekazabal* zartu da, baña oraindikan sendo.
- 6 Ariztimuño Segurakua, Donostira otsegiña; Tomas Arrizabalaga, berriz, zumarragatar bat piña; Lorentzo Zulaika ori ere Elgoibartar atsegiña; guztien ezaguna dezute erri bereko *Etxeigiña*.
- 7 Memoriz ongi arkitzen dira, anak piska bat makaldu. Ainbeste urte dauzkan gizonak arrazoirikan ez al du? Egun eder bat igarotzeko itxaropenik ez galdu, orretarako egun orretan Donostiara azaldu.
- 8 Bat Bankan bizi da ta bestea Bermeoko muturrian, oriek alkar ikusitzeko ez dira oso urrian; egun orretan nai ta ez alkar ezagutu bearrian, batek bestia besarkatuaz lasaitasun ederrian.

- 9 Oraingo bertsolari gaztiak  
or dabiltz erririk erri,  
orregatikan jakiten dute  
geienak alkarren berri.  
Zarrak olako aukerarikan  
etzuten izango sarri,  
guztiak alkar ezagutzera  
Donostiara etorri.
- 10 Urte batzuek juan dirala-ta  
zertako egon tristiak?  
Orain aitondu zerate baña  
lenago izanak gaztiak.  
Poza ematen zuen orduan  
nunai bertsoan astiak,  
zuek kantatzen ez badezute  
badira orain bestiak.
- 11 Euskalerrriak bertsolariak  
ematen ditu danian,  
batere iñork agindu gabe  
asiko dira lanian;  
oiekin ere etzan atsegin  
len gaztiak ziranian,  
naiz ta piska bat orain makaldu  
zartzen asi diranian.
- 12 Bizimoduak izaten ditu  
une batzuek grabiak,  
beste batzutan, berriz, ederki  
beroturikan labiak.  
Bertsolari zar auek dirade  
urte askoren jabiak,  
Euskalerrrian sortu ta bizi  
ta alkar ikusi gabia.
- 13 Zartu dalako izan dezake  
batek kantatu eziña,  
len sasoi ona zeguanian  
etzuan usteko baiña;  
lenago bazan indarra eta  
gizona ere bikaiña;  
altu-bajuak daude munduan,  
etzera orduko tamaiña.
- 14 Illiak ere gutxitu dira  
eta burua arindu,  
orain bertsua kantatutzeko  
zertako alperrik agindu?  
Batek balio ez duanian  
ez diteke alegindu,  
ni zuek baño gaztiago naiz  
baño neriak egin du.

\* \* \* \*

Bertso auek *Zeruko Argia* astekarian agertu ziran, 1974-ko Iraillaren 1-ean, aurretik argibide auek ematen zirala:

“Hona hemen udazkenean omenduak izango diren hamabost bertsolarien izenak eta argazkiak.

Denek dute bertsolaritza zerbait eginik: lagunarteko jardunak, tabernan eta ferian; santeskean eta plazetan; txapelketetan ere bai, inoiz, batzuk; gutxien egin duenak ere bertso-jartzen lan egin du.

Bakoitzak, zezakeen neurrian, bertso-giroa eta zaletasuna erein du bere inguruan. Zor hori ordaindu nahi die Euskal Herriak. Horretarako, bertsolariarik onenei dei egi-

ten zaie, hoiene omenez, bertsoan egin dezaten egun horretan.

Omenduak izango diren zaharren izenean, bertso bana edo bina, hauek abestuko dute:

Mugaz bestaldekoen izenean, Simon Ibarra “Zubikoak”.

Bizkaikoaren izenean, Juan Ormaetxek.

Gipuzkoakoaren izenean, Bautista Kortajarena “Ondartzak”.

Nafarren izenean, Klemente Ezkurdiak.

Uztapidek goraiatu ditu aurrez ale honetan. Pozik eskaini dizkie hamalau bertso hauek. Beste bertsolariak omenaldi egun gogoangarri hartan eskeiniko dizkiete”.

# Manuel Lasarteri

- 1 Zu jaio ziñanetik  
gaurdaiño bitarte  
badira berrogei ta  
amaika bat urte;  
bertsotan naiz ez izan  
zuk ainbeste arte.  
omenaldi onetan  
artu nai nun parte,  
zorionak biotzez,  
Manuel Lasarte!
- 2 Jakiñik nungoa dan  
zure jatorria,  
pozik egon liteke  
Leitzako erria.  
Plazaola errekan  
Franki baserria,  
an ikusi zenduan  
lenbizi argia,  
orregatikan zera  
euskaldun garbia.
- 3 Frankin azia ziñan  
urte batzuetan,  
lenbiziko aldia  
aman besoetan:  
gero mutiko danak  
lagun auzoetan,  
txori-kantu politak  
ango basoetan,  
aiekin nasi asi  
ziñan bertsoetan.
- 4 Gero Aiara etorri  
zure sendi dana,  
anai-arrebak eta  
aita eta ama.  
Bereala entzun zan  
bertsolari pama;  
jaietan bertsoetan  
da astean lana,  
nunai bizitzen baita  
saiatutzen dana.
- 5 Azaroan ereiten  
badezu garia,  
gero jasoko dezu  
uzta ugaria.  
Aian erein zendula  
gauza agiria,  
au da aiatarraren  
gaurko oparia,  
len kantatu ziñuzen  
bertsoen saria.
- 6 Nola ibiltzen giñan  
ia atzenduman,  
aspaldin lozorroak  
artuta nenguan.  
Amaika une eder  
igaro genduman,  
pake eder askoan  
alkarren onduan;  
Jaunak luzaro bizi  
zaitzala munduan.

Bertso auek *El Diario Vasco* egunkarian agertu ziran, 1979-III-21-ean, Basarriren *Nere Bordatxotik* izeneko saillean.

Aiako erriak Lasarteri eskeiñitako omenaldi ori urte artako San Jose bezperan ospatu zan. Ikus: Manuel Lasarte: *Beranduko lanak* liburua, *Auspoaren Sail Nagusia* 3, 195 orrialdean.

Basarrik argibide auek eman zituan bertsoen aurretik:

“Atzoko nere lanean esaten nuan beze-la, Aian, nere lagun Uztapidek bertso batzuk eman zizkidan eskuetara.

Manuel Lasarteri egiten zion eskeintza zan. Nik kantatzea zan bere naia, ta alaxe egin nuan ainbat jenderen aurrean.

Irakurle asko zerate, ordea, Aiara joateko erarik izan etzendutenak. Eta ziur nago bertso auek atsegiñez irakurriko dituzutela”.

# Itzaurrea

(Uztapidek 1975-ean Manuel Lasarteren *Gordean neuzkanak* liburuarentzat idatzitako itzaurrea)

**M**anuel Lasarte bertsolariak liburu berri bat egin du bertsotan, edo bertsozko liburua, alegia; eta orain itzaurrea egin bear da nik egingo al detan esan didate.

–Baña nik nola egingo det, ordea? Ni baño egokiagoak badaude, lan au egiteko, aukeran!

–Bai; aukeran dago zeñek egiña –esan zidaten–; baña zu beti berarekin nola ibilli zeran, orregatik pentsatu degu zuri esatea, zu iñor baño egokiago ziñakelata.

–Ori orrela bada, alegindu egin bear-ko!

Nik Manuel Lasarte ezagutzen dedala, badira ogei ta amar bat urte. Amezketako Estankoan izan zan ain zuzen, da arrezkero beti lagun izan gera.

Bertsotan, berriz, nik esan bearrik ez daukat. Euskalerrian ez dira asko izango, Manuel Lasarte ezagutzen ez dutenak; eta, ura bein ikusi dutenai, ez dago ezer esan bearrik bertsoetzaz.

Bertsoen neurria orrek bezela ibiltzen dutenak, oso gutxi izango dira, eta neurria oso gauza bearrekoa da bertsoetan. Sastre bat ere neurririk artu gabe asten bada gizon bati galtzak josten, ez du gauza onik egingo.

Neurrik gabe dabilzan bertsolariak ere, oso nabarmenak gelditzen dira.

Neurria bakarrik ez da Lasarterena. Aren puntuak ere entzutekoak dira. Aren bertsoak puntu berdiñik ez du izango, baña berdintsuak danak; belarrian atsegiña ematen duten oietakoak.

Zenbait bertsolarik belarrian min aundia ematen du; baña ori ez dago norbere gain. Bertsotan balio ez duan arek, beste zerbaitetarako balio lezake.

Manuel Lasartek neurrian eta puntuetan ez du bere berdiñik, nere ustez, gaurko bertsolarietan; da ori bakarrik ez da Manueli ikusten zaiona.

Esan ere asko egiten du. Bestela, begiratu bere omenaldian arek bota zituan bertsoai: lau bertso, Leitzako plazan, zutik egoteko modukoak, lau milla kristauren aurrean. (1)

Ori ez da, gero, ostatuan kiloko txuleta jan, gañetik kape ederra artu ta purua pixten daneko une ura.

An lau milla kristau, danak berari begira, danak beren ongi-naia azaltzera beste egiteko gabe joanak. Gizonari orixe gogoratzea naikoa da ezerezteko.

Bañan Manuel Lasarterekin ez genduan orrelakorik ikusi. Lau bertso, euskerak irauten duan bitartean iraungo dutenak, antxe entzun genizkan. Bertso

ederrak, bertso mamitsuak eta bertso sakonak ziran aiek.

Nik nere baitan esan nuan:

–Zer da gizon au, ordea?

Danak “gaur Manuel Lasartek zutik irauten badu, galanki egingo dik!” esaten ari giñan garaian, bota egin bear dira bertso oiek!

Bertso oien bukaeran, ez dakit zutik nola gelditu zan Leitzako pelota-lekua, angotxo-zaparradarekin.

Jendeak maitetasuna azaldu zuan an, Manuel Lasartek merezi bezelaxe; eta txalotu ere bai, plaza-gizon aundi bat bezelaxe.

Makiña bat begi-ondo busti ziran an une artan. Etzan gutxiagotarako, izan ere.

Manuel plaza-gizona dala, danok dakigu. Zenbat aldiz, osasunarekin ere nolabait eta bertsoarako gogo aundirik gabe atera ote da etxetik? Baña beti bere lan bat egin arek, joaten zan lekuan.

Ni neroni asko ibilia naiz Manuel Lasarterekin, eta pixka bat badakit bere berrri. Makiña bat plazetan txalo jo diote gustora.

Ni neroni ere pozik ibiltzen nintzan berarekin. Neretzako gizon ona da; gizon serioa ta errespetokoa; gizon apala ta atsegiña; itz batean esateko, gizon osoa.

Orain jendea irrikitzen dago liburu au ikusteko. Au ikusitakoan esango dezute ez dala Manuel Lasarte plaza-gizona bakarrik; baita liburu ederra ere egin duala, liburu zoragarria.

Ezin zitekean gelditu au argitaratu gabe. Gaur euskerak daramakien gainberakoarekin, ez dago Euskalerrinari eskeintza oberik egiterik.

Zuk, berriz, euskeraz ondo dakizu, Manuel. Leitzan ere ondo egiten da euskeraz, da Aian zer esanik ez.

Liburu au irakurri ta ulertu edo konprendituko ez duanik, ez da iñor izango; eta au emen geldituko da, zu mundutik joaten zeranean ere.

Gizonak bizia motza degu, baña liburuak ez dira beñere iltzen. Au beti zuri ospea ematen ariko da. Makiña batek kantatuko ditu liburu onetatik bertsoak.

Au da zu zer bertsolari izan zeran, beti, aspertu gabe, esaten ariko dana. Zuk testigu bat utzitzen dezu, zu joaten zeranerako.

Eta bakarra ez dedilla izan. Oneri beste lagun bat ere ongi etorriko litzaioke, eta astiro-astiro asi egin bear beste bat egiten.

Erosi ta asi liburu au irakurtzen, eta esango dezu, irakurle, ez dirala Leitzako aiek bakarrik; emen, liburu onetan, geiago ere badirala bertso ederrak, danak banan-banako bertsoak dira-ta.

Nik Lasarterengatik asko itzegin nezake, baña ixildu egin bearko det. Liburu au ez da nik edertzekoa, ta liburuak itzaurrea motza bear duala esan oi da, ondo egiña izanda ere. Nik, berriz, ezin nezake ondo egin, lendabiziko aldia det-eta.

Barkatu, Manuel, nere ausardia.

# Erriko seme kutun

Zestoan, 1978-ko maiatzaren 24-an, erriko seme kutun izendatu zuten Uztapide. Onek bertso auek moldatu zituan egun ortarako.

- 1 Loreillaren ogei ta laua izendatu zan eguna, Zestuan izan bear nuela erriko seme kuttuna. "Ni ametsetan ibiliko naiz -au zan nere erantzuna-; nork sinistu nik orretarako merituak banituna?"
- 2 Ni emendikan juanak badira oitamar urte urrian, bitartekoa igaro nuen Uztapide baserrian. Ugari giñan ta egokitu gu atera bearrian, Jaungoikoari eskerrak eman, ez gera leku txarrian.
- 3 Oitamar urte dira oraintxe utzi nuela erria, aztuta egongo zirala emen neukan buruan jarria. Nola ziñaten ikusitzeko banedukan egarria, egun auxe bai gertatu dala egun gogoangarria.
- 4 Gaurko egunean egokitu da titulo au ematea, zail izango da urte askoan kargu au eramatea. Ni bizi naizen bitarte emen zabalik daukat atea, eskerrik asko kunplitu bada errian borondatea.

\* \* \* \*

Zestoan, 1980-ko maiatzaren 25-an, *herriko seme kuttun* izendatu zuten Manuel Olaizola, Uztapide. Izendatze hori zela-eta, Xabier Unanue Alberdi herriko alkateak egin zuen hitzaldia:

"Herriko agintaria naizenez, lehenik eskerrak eman nahi dizkiot Aranalde adiskideari, Uztapide eta bertsoaritzaz esan dizkigunagatik. Une hontan Uztapideri, gure herriko seme kuttunari, erregali hau eskaini aurrez, bi hitz esan nahi nituzke.

Gaur Euskal Herrian herri bezela hainbat aldiz aipatzen dugunok, esan ohi dugu arraza bat garela; esan ohi dugu kultura bat badugula; hizkuntza bat geurea dugula, eta literatura bat ere badugula, zenbait herri-literatura baino aberatsagoa; eta esan ohi da idatzizko literatura ere badugula.

Baina Euskal Herriak badu beste berezitasun bat ere, oso nabarmena, eta da aho literatura aberats baten jabe dela; eta, hain zuzen, aberastasun horren sor-

tzaile eta bultzatzaile bertsolariak eta bertsoak dirala. Aho literatura horren historia bertsolaritzaik dator, bertsolari-ek egindako bertsoetatik, eta herriak ikasi dituen bertsoetatik.

Beraz, nik honekin amaitzen dut. Zestoako herriak Uztapideri, herriko seme bezela, bertsolari bezela eta gizon bezela, eskeintzen dio *herriko seme kuttun* izendapen hau.

Baina uste dut Euskal Herri osoak bertsolari guztiei eskaini behar liokela omenaldi haundi bat, ez bakarrik bertsolari direlako, aho literaturaren sortzaile eta bultzatzaile direlako baizik.

Uztapideri eskaintzen diogun pergamino honetan, hauxe jarri dugu:

Ara, Uztapide, zure herriak  
zenbat gogoratzen zaitun,  
bertso batean ezin da esan  
nola zailtasunak ditun.  
Bai al dakizu zure izenak  
gu noraino lotzen gaitun?  
Gizatasunez apal izanik,  
bertsolaritzan txapeldun,  
beti etxeko izan zaitugu  
nahiz kanpoan gaur egun;

har zazu ontzat izendatzea  
*Zestoako seme kuttun*. (1)

(Bertso hau Uztapideren iloba eta besoetakoak dan Manuel Olaizola Olaizola edo Uztapide II-ak moldatua dala uste degu).

Manuelek lau bertso idatzita eraman zituen izendapen-egun hartarako. Baiña berak ezin kantatu eta Erramun Etxaide *Legoia* herritarrak kantatu zituen:

- 1 Loreillaren ogei ta laua  
izendatu zan eguna,  
Zestuan izan bear nuela  
erriko seme kuttuna.  
"Ni ametsetan ibiliko naiz  
-au zan nere erantzuna-;  
nork sinistu nik orretarako  
merituak banituna?"
- 2 Ni emendikan juanak badira  
oitamar urte urrian,  
bitartekoa igaro nuen  
Uztapide baserrian.  
Ugari giñan ta egokitu  
gu atera bearrian,  
Jaungoikoari eskerrak eman,  
ez gera leku txarrian.

\* \* \* \*

*Uztapide Zestoako seme kuttun izendatzerakoan, 1980-ko Maiatzaren 24-an, Udaletxeko billeran, honako bertso hauek kantatu ziran.*

Amuriza:

Herriko seme kuttuntzat horra  
Euskal Herriaren hotsa,  
Endoian sortu zen gizon hura  
len ere etzan arrotza.

Zestuak dizu eskua eman  
eta askotan bihotza,  
bihotz horretan gorde ezazu,  
Manuel, zure abotsa.

Lazkano:

Bertsolarien bertsolaria  
zestuarra da ain justu,  
do aiz beterik jaio zan eta  
denak erriari ustu.



Jaioterriak ere lan onak  
nola ezin zituen aztu,  
zure seaskan oial epelak  
oraindik ez dira oztu.

Jose Agirre:

Omenaldi au egin asmoa  
aspalditik zan jarria,  
alako baten zorionean  
eguna da etorria.  
Erri guztiak maitatutzen du,  
ain degu maitagarria,  
zorionekoa seme bikaiña  
sortu zenduen erria.

Jose Lizaso:

Nik ere agur egin nai dizut,  
nere lagun zar laztana,  
bein bear eta erri guztia  
itzuli zaizu zugana.  
Gaurtik aurrera eman diote  
or kale baten izena,  
mundua mundu degun artean  
beñ e aztuko eztana.

Amuriza:

Bein ere aztuko ez dana noski  
baizan gizon bezain trebe,  
bear zanean serio eta  
bear zanean xeobre.  
Zuk egindako lan guzti oiek  
ezin ordaindu alare,  
seme ez-ezik bear ziñuzten  
egin erriko errege.

Lazkano:

Ai, zestuarrak seme au dute  
biotz barruan josia,  
len e berena zeukaten arren  
gaur dute berrerosia.

Izanez ere bera degu guk  
bertsolari nagusia,  
alegin dana egin da baiña  
ez bear luken guzia.

Jose Agirre:

Lazkanok zion Zestua, baiña  
beste noranai juanik  
emen bezela maitatzen dala  
garbi esan nai nuke nik.  
Bertsolaritza eta euskera  
gogozkoak dituenik  
ez da izango gure Uztapide  
estimaten ez duenik.

Jose Lizaso:

Onek altxa du Zestua eta  
berdin Urola baillara,  
orain izen bat or bota dute  
kamiñuaren ertzera.  
Gu're sarritan ibiltzen gera  
ortxe gora eta bera,  
agur ein gabe ez neike pasa  
geio emendik aurrera.

\* \* \*

*Hurrengo egunean, 1980-ko Maiatzaren  
25-ean, sekulako jaialdia egin zan herriko  
polikiroldegian. Jaialdiaren hasieran paper-  
txo bat eman zioten Basarriri, bi bertsore-  
kin; eta berak kantatu zituen, norenak ziran  
esan gabe, jakin ere ez zuen jakingo eta.*

Basarrik:

Zestuarrak or datozkizu,  
Manuel, zure gorantzan,  
geroko ere zure izena  
gordetzeko esperantzan.  
Zure oroitzua galduko danik  
etzaitez egon zalantzan,

biotz barnean josirik zaude,  
ez bakarrik enparantzan.

Anai arteko artu-emanak  
dauzkagu aldrebestuak,  
eta edozer uskerigatik  
or gabiltza saiestuak.  
Zure erriak dauzkan maitasun  
alkarri estu-estuak.  
il da gero're bere semetzat  
gordeko zaitu Zestuak.

Eta jarraian han bildu zan zenbait  
bertsolari kantatu zuen Uztapideren  
omenez.

Mattin:

Ogei eta bost urte baditut  
hemen nintzala izatu,  
orduana ere Uztapideri  
omenaldia kantatu.  
Geroztik ez tet gizon hoberik  
nere denporan maitatu,  
horren bertsuetako manera  
ongi zitzaidan gustatu,  
eta gaur ere zartuagatik  
enuen nahi faltatu.

Xanpun:

Agur, Manuel eta sendia,  
zor zaitugu lehen-lehenik!  
Agur, Zestua, poztu zaite gaur  
duzun seme hau ukanik.  
Zueri esker besta honetan  
gaur partea badut nik,  
ta goresmenak, lagun maitea,  
ipartar haurridenganik.

Lazkano:

Gaurko egunez Uztapideren  
omena degula bide,

giro onean bildu gerade  
orrenbeste adiskide.  
Aita onaren altzo gozoan  
ia lareun bat senide,  
mai zabal onek erakusten du  
zer izan dan Uztapide.

Gorrotxategi:

Gaur sorterrian artu zaituzte  
errege baten antzean,  
negar malkoak begietan ta  
tipi-tapa biotzean.  
Gaur jasotako erregaliak  
zintzilik jarri etxean,  
egun onekin gogoratzeko  
oieri begiratzean.

Lopategi:

Zestuatarrak aurrelari ta  
besteok borondatean,  
denok jo degu zabalik dezun  
biotz ortako atean.  
Olako jaiak zor dizkizugu  
gutxienez bat urtean,  
gure esker ona jaso dezazun  
geurekin zauden artean.

Lazkao-Txiki:

Nik, Uztapide, ezagun zaitut  
nintzadenetik mutiko,  
orregatikan zure pausorik  
ez tet beñere utziko.  
Eta Jainkoak bi gauza aundi  
eman zizkizun betiko:  
zure anima eta izena  
eztirade beñe ilko.

Amuriza:

Lazkao-Txikik kolpea jo du  
Uztapideren ariman,

nola nagusi bera izan baitan  
bertsolaritzaren deman.  
Obe genduke gauden bakoitzak  
osasun erdiña eman,  
gizonak beste berreun urteko  
bizia dezan eraman.

Jose Agirre:

Gizonai ondo itzegitean  
etzaio ematen miñik,  
Manuel maite, pentsatze' al zendun  
ainbat maitatzen ziñanik?  
Bazkalondo bat ederragorik  
ez det ikusi iñun nik,  
au bezelako egun argiak  
ez luke bear illunik.

Jauregi:

Arrua-goian dagon Endoian,  
Uztapide, ziñan sortu;  
an jaio eta azia zera,  
gero plazara agertu.  
Zure bertsuak entzuten ez da  
oraindik iñor aspertu,  
ori dala-ta Euskal Erriak  
ez daki nola eskertu.

Olalde:

Ai, Uztapide, zuri bertso bat  
kantatu bearrez nago,  
naiz eta neure ustez merezi  
ori ta askoz geiago.  
Zure izaera zalantzan gaurko  
jarritzerikan ez dago,  
zu gustora ikusten zaitugu  
ta erria gustorago.

Gazte bat:

Zu bear aiña eskertutzeko,  
Manuel, aurkitzen naiz motz,

bearbada ni gaur zuretzako  
gertatu ninteke arrotz.  
Baiña alare beti jarraitu  
izandu dizut ain zorrotz,  
zu gurtutzera etorri naiz gaur  
gorputz, anima ta biotz.

Santi Zabala, "Lexo":

Zure oorez festa astean  
eta ainbeste partaide,  
emen gaur garbi ikusitzen da  
lagun eta adiskide.  
Zarrak ondoren eta gaztiak  
zu zaituzte erdi-bide,  
galdera auxe sortzen zait neri:  
zuk zer duzu, Uztapide?

Beste gazte bat:

Ainbeste jendek eskeiñi dizu  
zuri gaur omenaldia,  
gaurkoz gertutik bildurik emen  
dago jende-pilla aundia.  
Euskal Errian ezaguna da  
Uztapide bertsolaria,  
maite dezu zuk sorterrria ta  
baita're sendi guztia,  
zuk landutako baratza ontan  
erein nai dugu azia. (bis)

Mugartegi:

Manuel, zure gorantzan doa  
gaurko egunik geiena,  
au izan leike gizon batentzat  
gauzarikan alaiena.  
Esker beroa gaur artu dezu  
emen zeure anaiena,  
zu zeralako Euskal Erriko  
izarrikan argiena.

Manuel Uranga "Azkonar":

Beste guztiak kantatu dute,  
emen nator azkenian;

nik ere esan nai nuken zerbait  
badaukat almazenian.  
Errekau auxe eman didate  
onuntz'torri naizenian:  
aizu, Manuel, zorion asko  
eibartarren izenian.

*Jose Lizaso:*

Lagun jator bat agurtutzea  
ain degu une gogorra;  
gu adar batzuk bakarrik gera,  
zu zera gure enborra.  
Danak bilduta eskeiñi degu  
omenaldi bat jatorra,  
alare eztakit ordaindu degun  
zurekin gendukan zorra.

*Loidisaletxe:*

Olakoxiak merezi ditu  
munduan gizon prestuak,

zoragarriak dirade orrek  
bota dituen bertsuak.  
Manuelentzat zabalik daude  
biotza eta besuak,  
gaur ikusten da bere seme bat  
zenbat maite dun Zestuak.

*Basarri:*

Manuel, erdi negarrez ziok  
Basarrin biotz debilla,  
sarritan eskatu izan diat  
argia etorri dedilla.  
Lenago biok bakarrik giñun  
euskal giroaren billa,  
ta ondorenez orain kantatzen  
ikusten dizkiat milla.

Xabier Unanue,  
Zestoako alkatea.

# Mattin bertsolariari

*Oiartzunen omenaldi bat egin zitzaion Mattini, 1981-ko ekainaren 7-an. Ari zoriona ematearren, bertso aukeratu zituan Uztapidek. Oiartzun 1982 aldizkaritik artuak ditugu.*

- 1 Gaur omendutzen degu  
Mattin Aheztarra,  
denbora baten etzan  
bertsolari txarra.  
Abots onekua ta  
memoriz azkarra,  
gaur ezbear batekin  
bajatu indarra,  
bestela oraindikan  
ez da gizon zarra.
- 2 Lenbizi ezagutu  
giñan biok Beran,  
geroztik beti kezka  
nola ote zeran.  
Garai artan bertsuak  
giñuzen aukeran,  
jarritzen giñanian  
bear gendun eran;  
ez dakit ontaraño  
nola jetxi geran.
- 3 Sarri entzun ditut nik,  
Mattin, zure sonak:  
gutxi txarrerakuak,  
geienian onak.  
Gu sarri alkarrekin  
pozikan egonak,  
ortarako doaia  
bear du gizonak,  
beragatikan artu  
nere zorionak.

# Zegamako omenaldirako (1981-XI-15)

- 1 Zegama aldera etorri gabe  
joan zaizkigu urtiak,  
amar bat beintzat gutxienekoz  
izango dira betiak.  
Erri ontako plaza zarrian  
amaika bertso botiak,  
eskerrak egin giñuzela len  
puska bateko partiak.
- 2 Erri ontara pozik etorri  
gera makiña bat aldiz,  
gaur ere negar egiten nuen  
ikusitako begiz.  
Zegama maite izan dedala  
aitortzen dizutet egiz,  
baiñan eskuak bete lan badet  
zu ikusitzia berriz.
- 3 Jaiotakuak nolabait ere  
bizi bear du munduan,  
San Bartolome bigarrena guk  
emen pasatzen genduan.  
Amar urtian etorri ez ta  
nengon ia atzenduman,  
baiña eztago aldaketarik  
orduantxen zan moduan.
- 4 Zegamak beti izan izan du  
erri jatorraren fama,  
nik ezagutu nuen ezkeron  
beti goguan dedana.  
Seme on batek zenbateraño  
maitatu lezake ama?  
Gutxienekoz orrenbestexe  
nik maitatzen det Zegama.
- 5 Bizi naizela etzait aztuko  
neri Zegama erria,  
berak goguan naukatela ere  
nago ondo igerria.  
Amar urtian etorri ez ta  
gaur berriro ekarria,  
baiña nik orain ezin kantatu,  
ori da penagarria.
- 6 Zure egontoki aukeratua  
zendun Aizkorrin magala,  
lasai zaude zu eseri eta  
ain baida leku zabala.  
Erri txikia zera izatez  
baiña etzera makala,  
Zegamari nik aitortzen diot  
izenan jabe badala.

7 Ai zer ote dan uste gabean  
gizona oso zartzea!  
Baiña omena egokitu da  
bizi naizela artzea.  
Nolabait ere naiko nuke nik  
gaurko eguna partzea,  
orretarako bidezkoa da  
eman duna eskertzea.

8 Oraingo ontan pozarez pozez  
nola nintzan ia lertu,  
neronek orain nai nizuteke  
maitetasuna agertu.  
Len ere esan dizutet baiña  
oraindik ezin aspertu,  
Zegama eta zegamatarrak  
orra biotzez eskertu.

# Lexotiren omenaldirako (1982-I-30)

1982-ko urtarrillaren 30-ean egin zitzaion omenaldia Oiartzunen Jose Luis Le-  
kuona *Lexoti* bertsolariari. Lau bertso umoretsu auek jarri zizkion Uztapidek.

- 1   Lagun Lexoti, iritxi da ba  
danon gogozko eguna,  
aspaldi ontan iñolaz ere  
aztu ezin zitzaiguna.  
Guretzat egun ona da baiña  
zuretzat franko astuna;  
areriorik iñor ez da gaur,  
jira danian laguna,  
gu bizi geran artian beti  
gogoratuko zaiguna.
- 2   Zu nola ziñan bertso lanian  
oso gazterik asia,  
eta gañera eduki dezu  
orretarako grazia,  
gaurko emengo omenaldia  
zendun ondo merezia.  
Lendabiziko saria franko  
zerade irabazia,  
zuretzat oso gutxi da emen  
egiten zaizun guzia.
- 3   Juaten zan leku bakoitzetikan  
ekartzen zuan saria,  
abots oneko gizona zan da  
txit iturri ugaria.  
Lastorik oso gutxi tartean,  
dana, esateko, garia;  
orrelakoxe mutilla izan da  
Lexoti bertsolaria,  
beti mendean eduki zuan  
bigarren kategoria.
- 5   Lau bertso auek idatzitzera  
iñork ez nau ni beartu,  
orrenbeste zor bagenizula  
nik banekien ziertu.  
Lexotirekin nola daukaten  
aspaldian zenbait tratu,  
oker ibiltzen gera batzutan,  
orain arrastuan sartu;  
ondo merezi dituzu eta  
nere zorionak artu.



# Arrua-goiko omenaldia (1982-VI-6)

1982-ko ekainaren 6-an omenaldi bat egin zitzaion Uztapideri Arrua-goikoan. Sei bertso auen bitartez azaldu zuan bere esker ona.

1 Ogei ta amaika urte dirade  
emendik alde nuela,  
baiña sinistu aitonak beti  
gogoratzen zaituela.  
Auntzak jaio zan arri-gain ura  
maitatzen duan bezela,  
nik maitatuko zaitut, Arrua,  
il egingo naiz bestela.

2 Oiartzunera aldatu nintzan  
ez emen bizi ezinda,  
berrogei eta bi urte aundi  
Arruan bertan eginda.  
Jaioterrira etorritzia  
orain ere atsegin da.  
etxera pozik joango naiz gaur  
lagunekin itzeginda.

3 Ainbeste urte aldegin nula  
Arruak nauka goguan,  
nik ere jakin nai nuan berriz  
emen zer berri zeguan.  
Jende alaia eta jatorra  
gaur ere lengo moduan,  
au bañon erri okerragoak  
lau badirade munduan.

4 Esker beroak omenaldi au  
egiten didatenari,  
oiez gañera kanpo-errietatik  
onuntza datozenari;  
nigatik emen ari zeraten  
beste zenbait bertsolari,  
edo itz baten bukatutzeko  
emen zeraten danari.

5 Juan daneko aspalditxoan  
memoritik naiz arindu,  
mingaiñak lengo gisa berean  
orain ezin itzezin du.  
Arruari zor auek ordaintzen  
naiko nuke alegindu,  
zuen eskutan gelditutzen da  
nai dezutena agindu.

6 Nere biotza pozaren pozez  
gaur ia zitzaidan lertu,  
Arrua, erri biotzekoa,  
nere esker ona artu.  
Nolabait ere nai nizukean  
maitetasuna agertu,  
bate geiago itzezin gabe  
orra nik gaurkoz agurtu.

# Lasturko omenaldirako (1982-IX-19)

Lasturren, 1982-ko Irailaren 19-an, omenaldia egin zidaten, eta bertso aukeratu jarri nian, eskerrak ematearren.

- 1 Lasturren kanta nuen  
bertsotan aurrena,  
orduante ez neukan  
lasaia barrena.  
Kortatxo Juan Mari zan  
lagun nekarrena;  
eman zigutenean  
asteko ordena,  
ura zan neretzako  
trantzerik txarrena.
- 2 Ezagutzen det ongi  
Lasturko zuluia,  
Zozote inguruko  
ontzaren ulua,  
aurrez aurre mendi bat  
dauka Urkulua.  
Afaltzen jaten bazan  
naikoa talua,  
seguratuko zendun  
gau guziko lua.
- 3 Adituko zenduten,  
Lasturko zezanak  
ez dirade izaten  
ganadu zuzanak.  
Ez izanagatikan  
mardul da gizenak,  
ikaratutzen gaitu  
orien izenak,  
naiz oien berri jakin  
onuntz gatozenak.
- 4 Portatutzen zaizkigu  
gure lasturtarrak,  
orain ezik len ere  
etziraden txarrak.  
Emengo mutil gazte  
eta aitona zarrak  
bazekiten egiten  
eskeintza ederrak,  
abek ordaintzen ditu  
Jainkoak bakarrik.
- 5 Omenaje ederra  
egin dezutela,  
ortxe ezagutzen da  
maite nazutela.  
Lasturren inoiz ezta  
jendea ustela,  
itzik ere ez nuen  
esango bestela,  
Jainkoak osasuna  
eman deizutela.
- 6 Ezagun asko ditut  
emen ikusiak,  
etorriak etxeo  
lan danak utziak.  
Saiatu naiz agurtzen  
al dedan guziak,  
Lasturren egin ditut  
gaur zor itxusiak,  
mesedez artu nere  
esker bereziak.

# Noizbait

# Itzaurrea

**E**z gera noski asiko Uztapide, bertsolarien txapelduna, nor dan adierazten. Aspaldiko urteetan or dabil erriz erri eta plazaz plaza, kantu-lanean Euskal Erriko bazter guziak korrituaz, eta gizon ezaguna da, gure artean gizon ezagunik bada; eta ezaguna ez-ezik, maitatua ere bai, bere gizatasuna dala merio.

Liburu ontako bertsoak, banaka batzuk errebista ta olako paperetatik artuak daude; baiña geien-geientsuenak magnetofoi-arietatik.

Gauza bi izan bear ditu, beraz, irakurleak gogoan: bata, emengo bertsoak, berez kanturako sortuak dirala, ta gero liburu-rako artuak; bestea, bertso-mordoxka au ez dala Uztapideren kantu-lanaren erakusbide kokkor bat baizik.

Izan ere, olako beste milla liburu osatzeko lain izango zuan Uztapidek, berak kantatutako bertso guziak biltzera jarriko bagiña.

Ez datoz, beraz, emen beraren bertso guziak, ezta ere bertso onenak noski. Jakiñaren gañean egon bedi alde aurrez irakurlea.

Bañan bertsolariak ez dute bakarrik kantatzen. Orregatik, Uztapideren bertsoekin batera, Basarrirenak, Lasarterenak, Lazkao-Txikirenak eta beste askorenak datoz liburu ontan.

Bertsolari guziak pozaren pozez eman dute baimena, beren bertsoak emen argitaratzeko. Onela zioten: “Iñor olakorik merezi duanik bada, Uztapide da noski”. Ori bai: alde aurrez beren bertsoak irakurri ta an da emen ikutu batzuk –oso gutxi– egin dituzte. Emengo bertsoak txapelketakoak etziran ezkerro, eskubidea bazuten, noski, ori ta geiago ere egiteko.

Magnetofoi traste berria da, ta orain arte oso bertso-saio gutxi aldatu da aritik paperera. Liburuak, beintzat, iru besterik ez dira argitaratu:

*Euskalerriko Bertsolarien Txapelketa* (1960), *Kulixka-sorta*, 43-44.

*Errege eguneko bertso-saioa* (1962) *Auspoa*, 10.

*Bertsolarien Txapelketa* (20-XII-1962), *Auspoa*, 22.

Bañan iru saio oiek txapelketakoak ziran, eta olakoetan estu eta larri izan oi da, noski, bertsolaria. Erri-plazak, tabernak eta lagunarteak dira bertsolariak patxaraz eta lasai, estuasunik eta kezkarik gabe, kantatzen duan tokiak.

Beraz, aotik aorako gaurko bertsolaritza zer dan agertzeko, iru oietaz gañera beste libururik ere bear zan.

Utsune ori betetzera dator Uztapideren liburu au. Ez, noski, bera bakarrik zulo guzia berdintzera; bañan bai, lenengo pala-

kada boteaz, gure geroko lan bat zer tajutakoa bear ko luken erakustera. Bai; mese de litzake olako liburu asko, gaur bertso lari batena eta bigar besterena, agertuko balira.

Orain arte, euskaldunak teatrora, tabernara edo plazara, etxetik kanpora joan bear izan du, Uztapideren bertsoak entzuteko. Gaur, ordea, liburu au dala merio, Uztapide bera datorkio etxera, bertan be-

tiko gelditu ta bere bertso bikañekin etxe guziko pozgarri izateko.

Adiskide asko aspalditik ari zitzaizkion Uztapideri, libururen bat edo zerbait olako egin bear zukeala esanaz. Euskaldun askoren amets ori, orra gaur mami biurtua, nai baño lenago izan ez bada ere.

Ain zuzen. orregatik bataiatu du Uztapidek berak liburu au daukan izenarekin: *Noizbait*.

A. Z.

# Basarri ta Uztapide Tolosan

1945-ngo Agorrillaren 30-n, bertsolari-txapelketa bat antolatu zuan Tolosan, Gipuzkoako *Caja de Ahorros Provincial* deritzaionak.

Onek berak argitaratu zituan gero urrena datozen lau bertso aukerak, bertsolarien eta kopen erretratuen azpian erderazko argibide aukerak emanaz:

*“Los bersolaris “Basarri” de Zarauz y “Uz-*

*tapide” de Cestona, actuando en el certamen, ganadores de las copas que se hallan bajo sus bustos, donadas por la Excma. Diputación y por el Ayuntamiento de Tolosa. Para la copa del centro, donativo de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, hubo empate, y fue adjudicada por sorteo a Uztarbide.*

*Versos entonados para el logro de la Copa donada por nuestra Caja:*

\* \* \* \*

Bas.: Euskaldunaren sona da beti  
kristau langillearena,  
poz aundi bat da izen on orrek  
biotzera dakarrena,  
joko ta apustuz gañezka gabiltz  
ta edari geitxo barrena,  
nere ustez au da gure erriaren  
biziorikan txarrena.

Uzt.: Gorroto izan biar genduke  
bizio txarrantzako,  
ez det esan nai gose-egarriak  
lanian ibillitzeko;  
baña jokua ta erari asko  
txarrak gizonarentzako,  
uste ez tala kalte aundiak  
ekartzen ditu zartzako.

Bas.: Bide onari eutsi zaiogun  
eta txarretik aldegin,  
gure lanetan zintzo jarraitu  
bertan artuaz atsegin.  
Gazte sasoiko geran artian  
txanpon mordoska bat egin,  
gero illeak zuritutzean  
damurik izan ez dedin.

Uzt.: Erreparatu zazute ondo  
jarriko dedan puntuan,  
kristaua izatia nola dan  
gorputzan mobimentuan:  
jokuakin ta erariakin  
ibilli arren kontuan,  
biziorikan txarrena degu  
seigarren mandamentuan.

# Bertso Berriak

## Manuel Olaizola *Uztapidek* jarriak

(Bertso-papera: *Editorial Itxaropena, Zarauz*, argibide onekin: "Recuerdo del homenaje al notable bardo cestonés Manuel Olaizola "Uztapide", celebrado el día 29 de abril de 1956, patrocinado por el Iltre. Ayuntamiento de Cestona).

- 1 Jaiotz-errian izandu nitzan  
orain aurreko egun baten,  
uste ez nuen omenaldi bat  
bertan egin baizidaten;  
bertso batzuek jartzeko askok  
nola esana didaten,  
esan nai nuke, zestuar onak,  
nola portatu zeraten.
- 2 Zestuan bizi izandu naiz ni  
berrogei ta bat urtian,  
jaio nitzaden egunetikan  
orain sei urte artian;  
berriro ere gelditu nitzan  
gure probintzi maitian,  
gaur Oiartzunen bizitzen gera  
baserri txiki batian.
- 3 Badakizute zer poza ematen  
duen olako egunak,  
kezka're beti izaten degu  
ezer gutxi dakigunak.  
"Bakarrikan ez zerade juango"  
esan zidaten lagunak,  
ogei ta zortzi giñan emendik  
aruntza erten gendunak.
- 4 Goizeko amarrak inguru ortan  
autobusetik atera,  
nere Oiartzundik eraman nitun  
lagun aiekin batera;  
erriko etxera juañ giñan danok  
an giñala esatera,  
alkate eta kontzejalari  
egun onak ematera.
- 5 Alkateari galdetu nion:  
"Zer moduz dago erria?".  
Berrialaxe erantzun zidan  
ondo ziraden berria:  
"Noiz azalduko ote ziñaten  
emen nengon zai jarria,  
torizu orain bostekua ta  
izan ongi etorria.
- 6 Aizu, Manuel: amar t'erdietan  
dago meza nagusia,  
ta zu gurekin aruntz juatia  
ez litzake itxusia".  
Kontseju onak artzeko beti  
izan det gogo bizia;  
erantzun nion: "Gaur egin nai det  
agintzen dezun guzia".
- 7 Eliz-lanetan ekin zioten  
apaiz jaun agurgarriak,  
kantore onak daukazki guziz  
gaur Zestuako erriak;  
Azkoiti eta Zumaiatikan  
ekarri indar berriak,  
noiznai ez dira igaro izan  
olako une pozgarriak.
- 8 Arrua-beko apaiz jaun batek  
ura itzaldi gozua!  
Ari entzuten pasa liteke  
pozikan egun osua;  
dana ezpada geientsuena  
daukat goguan jasua,  
asi ta laister eman baizuan  
gure aitonen bertsua.

- 9/ Amabi t'erdik inguru ortan  
*Eliz-ondo* teatruan  
 pesta zala ta jendia antxe  
 lekurik ezin artuan;  
 erriko txistulariak jotzen  
 ta *Ur-zaleak* kantuan,  
 aieri entzuten egondu giñan  
 danok iya txoratuan.
- 10/ Bidasoaren bi aldetako  
 bertsolariaren txanda;  
 danak zioten: "Uztapide au  
 gizon jatorra izan da".  
 Baña nik oso ezin siñistu  
 ola bertotan esanda,  
 an ere ondo banatu giñan  
 besarkada bat emanda.
- 11/ Bazkaldutzeko aukeratu zan  
 Alkortaneko Hotela,  
 nik ezagutzen nitun lendikan,  
 ez da famili motela;  
 entzuten nuan lanari gogoz  
 jarraitutzen ziotela,  
 gure Jainkoak urte askoan  
 osasuna diotela.
- 12/ Esan bezela, Alkortarena  
 ordubitako garaian,  
 irureun da geiago lagun  
 exeritzen gera maian;  
 lagun zar danak maitetasunez  
 alkarri itz egin naian,  
 beste izkuntzarik etzan ibilli,  
 danak euskera alaian.
- 13/ Gipuzkoatik asko giñan da  
 baziraden Bizkaitarrak,  
 Arabakuak ikusten ziran  
 eta bazeuden Naparrak;  
 Lapurditikan jator askuak  
 etorri ziran bakarrak,  
 egun ortan an ziran danari  
 ematen dizket eskerrak.
- 14/ Bazkal onduan or altxatzen da  
 ango alkate prestua,  
 erri guzien izenian ta  
 zabaldutzen du eskua;  
 zer ikusiko ote nuan da  
 erloju bat urrezkua,  
 ni gauza gutxi izanagatik  
 saria eder askua.
- 15/ Ondo pentsatzen jarri ezkeru  
 baña zer zan egun ura!  
 Lagun guztiak zoriontzera  
 zetozkien ingurura;  
 denbora gutxiz amaika gauza  
 eldu zitzaizkan burura,  
 nik uste nuan an bertatikan  
 banijuala zerura.
- 16/ Gora Zestua! Nere denboran  
 aztuta etzaitut utziko,  
 nola argia nik or ikusi  
 bainuen lendabiziko;  
 seguru nago orlako egunik  
 ez nuela mereziko,  
 ori ordaintzen lana badaukat  
 nere denbora guziko.
- 17/ Uts egiñikan baldin bada're  
 etzaitzeta samindu,  
 nai izan arren gaur Uztapidek  
 geiagorikan ezin du;  
 zuen gogo betetzera nik  
 bear nuke alegindu,  
 guztien mende bizi naiz eta  
 nai dezutena agindu.
- 18/ Bukatu bear, bertso geiegi  
 ezpaita ona izaten;  
 ezjakin batek gaizki ematen du  
 gauzak nolana esaten;  
 abek zabaldu bear ditugu  
 astiya degunen baten,  
 Euskalerriko bertso-zaleak  
 dembora pasa dezaten



# San Iñazio Loiolakoari

Zeru goitikan onuntz begira  
dago Iñazio deuna,  
Loiolan sortutako seme bat,  
gure zaindari deguna;  
mundu onetan nola ibilli  
guri erakutsi ziguna,  
ikusi egin bearra zegon  
jaun aren apaltasuna,  
bera aundia izanagatik  
txiki askoren laguna;  
Jesukristoren dotriñagatik  
bere bizitza eman zuna,  
orain lareun urte ta geio  
mundu onetatik juna,  
guretzat ere bidean dator  
eriotzako eguna,  
seguru nago zeru-bidean  
laguntza egingo diguna,  
lurralde onekin ez da aztuko  
bera baizan euskalduna.

Bertso luze au Egutegi-orri batetik ar-  
tua da. Bilbon kantatu omen zuan leenago  
Uztapidek; bañan ezin jakin zein urte eta  
egunetan.

# Uztapide ta Xalbador, Alduden, 1961-X-29-an

1961-X-29-an, Alduden jardun ziran lau bertsolari: Xalbador, Mattin, Uztapide ta Zubikoa. Saio artako gai bat onela izan zan: "Xalbador eta Uztapide ari dira lurretik eun metrora dagoan aldamiyo batean, pareta bat pintatzen. Bat-batetan, azpiko al-

damiyoa asten da kraskatzen. Batek bereala salto egiñez, menturaz bestea salba liteke, aldamiyoa ez bailitzake orduan arras kraskatuko. Entzun ditzagun. Ikusiko degu zein prestatzen dan salto egitera, edo zeñek bestea presta araziko duan".

\* \* \* \*

Uzt.: Lurretik eun metrora zaigu  
aldamiyo bat ageri,  
bitatik batek saltatu bear,  
badira milla komeri;  
ta, Xalbador, zu eroritzeak  
pena ematen dit neri,  
bitatikan bat erortzekotan  
naiago det nik erori.

Xal.: Kasu hunetan nehoiz munduan  
gertatu ote da nehor?  
Beheragotik ere guziak  
nahiz gintazken erorkor;  
ez, Uztapide, nihaur banoa,  
otoi, etzaitela eror,  
berdin zu hantxet hil eta gero  
hila litake Xalbador.

Uzt.: Xalbador lagun orren aurrean  
erantziko det txapela,  
bañan badakit bitatikan bat  
salbatu ez ditekela;  
biotzak dio sentitzen duna,  
ez nun esango bestela,  
lagun urkoa maitatzen baidet  
nere burua bezela.

Xal.: Zendako behin, oi Uztapide,  
ote zintudan ikusi?  
Zer debruk bada ote zintuen  
eni hola maitarazi?  
Ez gaiten hemen bat ere geldi,  
biak lurrerat goatzi,  
gutarikan bat hor hiltzekotan  
bertzea zendako bizi?

Uzt: Ongi diozu, lagun maitea,  
ez dezu itz egin zakar,  
eta zuri zer erantzun ere  
pentsatua daukat azkar;  
alkarrentzako sortu giñan da  
zertarako bizi bakar?  
Biok gelditu edo erori  
guk artu dezagun alkar!

Xal: Hau da memento ikaragarri  
txarra pasatzen duguna,  
ni memorioz gaizki naiz edo  
memento hau ez da ona;  
hau da amets gaixtoenatarik  
nunbaitik heldu zaukuna,  
bi maitetarik bat galdu behar:  
bizia edo laguna.

Uzt: Badakizute zer izaten dan  
munduko trantze txar hura,  
gauzak seriyo artutzen dira,  
ezta bakarrik itxura;  
azkenerako au datorkio  
Uztapideri burura:  
iltzen bagera zer egingo da?  
Biak baguaz zerura!

Bertso auek *Gazte* errebistak (Hazila, 1961) argitaratu zituan; bañan Uztapide-  
renak Bidasoaz beste aldeko izkerara al-  
daturik. Emen argitaratzeko, Uztapidek  
berak itzuli ditu beren lenengo itxurara.

# Uztapide, Basarri, Azpillaga ta Lizaso Tolosan, 1962-III-18-an

(Gai-jartzaille: Fernando Artola, Bordari)

Bertso auek Martin Garmendia apaiz jaunari zor dizkiogu. Milla esker.

Aldi ontan, eta besteetan ere berdin, ez ditugu bertsolari guzien bertsoak jartzen, Uztapiderenak eta onekin batera kantatu zutenenak baizik.

Uzt.: Abetxek egun alaiak eta  
abek egun pozgarriyak;  
ainbeste anai-arreba emen  
guri entzuteko jarriyak!  
Gaur ase naiko ditugu bada  
zuen bertso-egarriyak,  
Jainkuak egun on dizutela,  
entzule maitagarriyak.

Bordari: Nik ez dakit noiztikan, bañan gure Mañuel Uztapidek bizio txarra artua du: jokuren batera-edo azaldu da, ta apustuan dirua galdu du. Eta or dago korapiltoa ta nasbidea! Emazteari nola esan? Bi bertsoan aski du berak orain moldatzea.

Uzt.: Moldatuko al degu nolabait ematen badute beta,  
orrek dionez nere sortzetik jokalaria naiz-eta;  
ustez ni manejatuaगतिक  
makiñatxo bat aldetu,

dirua galdu; egiya da, bai,  
jokua eztala errenta.

Emaztiari zer esan nion  
moldatuko det berela;  
badakizute estusun txarra  
pasa bearko nuela;  
baña etxera nijualarik  
pentsatu nuen onela,  
ala esan nion: karterista oiek  
ostu egin zidatela.

Bordari: Orain binaka ariko dira. Alde batetik, Basarri eta Uztapide; bestetik, Lizaso ta Azpillaga. Gazteok, Lizaso ta Azpillaga, txoferrak dira, kamioi aundi bat artuta bide zabalean edo estuetan dabiltzan txoferrak; Basarri ta Uztapide, berriz, baserritarrak, itzaiak. Alkarren berri badakite ta kanta ditzatela bakoitzak bina bertso:

Bas.: Berrito asiko dira  
gaur bertsuak dantzan,  
olako zerbait festa  
Tolosan biar zan;  
Azpillaga, egon zaite  
entzun-esperantzan:  
txofertzan baño naio  
det askoz itzantzan.

Liz.: Itzai abek ezagutzen  
ditut aspalditik,  
noizian bein jexkitzen  
dirade menditik;  
alare ez dira ibiltzen  
beti eskubitik,  
atzo're libratu ziñan  
arrisku txarretik.

Uzt.: Gu ibillitzen gera  
eskubi ta ezker,  
zuena ere esan  
bear degu laister;  
ikusi izan ditut  
makiña bat txofer,  
ibillitzen itzaiak  
diran bezin oker.

Azp.: Au ere esan bear det  
beldurrikan gabe,  
ezjakiñak dirala  
zertarako galde?  
Korritzen degu emengo  
trolebusen pare,  
zuek kamiñu erditik  
baztarrera alde!

Bas.: Diru pixka bat dutela  
ta erosi kotxia,  
ezta errez jende oni  
gaur aguantatzia;  
ezpaitakite zer dan  
zuzen ibiltzia,  
erdiak merezi dute  
karneta kentzia.

Liz.: Basarri, ez da asi biar  
alkargan burruka,  
nola ibiltzen zeraten  
etzazute uka;  
iriyari jardute'ira  
gañetik akulka,  
ganauak pagatu biar  
itzaiaren kulpa.

Uzt.: Gure faltak nai zinduzke  
zuk adierazi,  
baña neurritik kanpora  
ez gero emen asi;  
txofer ikasi baño len  
kotxia erosi,  
orregatik pasatzen da  
oinbeste desgrazi!

Azp.: Au esatera ere  
bainaute beartu,  
izan ere gu emen  
baigera alkartu;  
era dan tokietan  
tabernara sartu,  
gero kamiño batean  
ezin ba kabitu.

\* \* \*

Bordari: Basarri ta Lizaso korredoreak  
izango dira, ta Uztapide ta Azpillaga  
apostulariak. Kanta ditzatela bakoitzak  
bina bertso.

Bas.: Garbi emango dira  
emen señaliak,  
ez gera disimuluan  
ibili-zaliak;  
aspalditxuan gaizki  
gu korredoriak,  
txartel asko dauzkagu  
kobratu gabiak.

Liz.: Korredoretzan gabiltza  
aspaldin jo ta ke,  
txartelak kobra ezinda  
orrenbeste neke!  
Jokua egiten dute  
gezurraren truke,  
abekin argi xamar  
ibilli liteke.

- Uzt.: Abek ibiltzen dute  
milla enbusteri,  
tarteko pekatua  
jarriko'et agiri:  
kobratzen ari ziran  
euneko amabi,  
aurretik kobratuta  
daukazute ori.
- Azp.: Zelakuak diraden  
jarri agirian,  
Uztapidek esan du  
nolakuak dian;  
pelotariyak erosi  
juan da segian,  
orrelakorik ez dago  
Jainkuan legian.
- Bas.: Aspaldian izan dira  
milla nobedade,  
artzeko galantekin  
triste asko gaude;  
ezagutu ez bagiñu  
geuretzako obe,  
jokatzeko beti pronto  
xentimorik gabe.
- Liz.: Berriz e orruntza nua  
poliki-poliki,  
gure auzi gogorra  
orra erabaki;  
abekin tratatzen dunak  
zer diran badaki,  
dirua gutxi eta  
txartela galanki.
- Uzt.: Sesiyo polita zegon  
emen sortzekua,  
au bai dala buruan  
ongi sartzekua!  
Beti daukate txartela  
ustez saltzekua,  
guk ez degu zorrik eta  
abek artzekua.
- Azp.: Bestien gaitzak eta  
segi'ituzte gogotik,  
bizi nai dutelako  
oik gure lepotik;  
galdutzen deguela  
etzan orregatik,  
etxe bat badadukat  
egiña jokotik.
- Bas.: Lenguan estuasuna  
Tolosan ikusi:  
Latasan alde sartu  
ziran bizi-bizi;  
gero diru kobratzera  
nintzianian asi,  
Arruiz baño azkarrago  
etxera igesi.
- Liz.: Nik arrapatu nitun  
kalian ertzian,  
otxan asko egondu zan  
lepotik eltzian;  
gizona umiltzen da  
dirua galtzian,  
pagatzeko agindu zidan  
txekorra kentzian.
- Uzt.: Itzegiteko ez gaude  
oso apartian,  
obe ibilli ez bagiña  
iñoiz alkartian;  
eztegu irabazitzen  
lautatik batian,  
trankil egon zaitezte  
irabazi artian.
- Azp.: Beiñ egindako utsak  
kontatzeko gaude,  
lagunak ez bagiña  
askozaz e obe;  
gaur jokatuko degu  
Atanoren alde,  
iñoiz juanak gera  
bate kobra gabe.

Bordari: Ontan gabiltzanak askotan lan pranko izaten degu gairik ezin auke-ratuz. Orregatik, euskal baratzak nola baiduen ugaritasuna bere atsotitzetan, erre-franetan, esaera zarretan, gai oiek ontzat artuta, bakoitzak errefran bateri bertsoa botako dio. Ia, Uztapide: "Idia adarretik eta gizona itzetik".

Uzt.: Nola izango diran esaera zarrak, nolabait daduzkagu asmatu bearrak; oker bat egin leike irien adarrak, gizonen itzak e bai badirade txarrak.

Bor.: Illargin bai ote da prakadun gizonik?

Uzt.: Ori sumatuzten nik ez dadukat bromik; ez det uste seguruki oi jakingo danik, oraindak ez baida ara iritxitzen danik.

Bor.: Bertsotan ibillita zer probetxu dago?

Uzt.: Zuk ori badakizu nik baño lenago; ni ondo asko beintzat aspertuta nago, txalua asko baño dirurik eztago.

Bor.: Tolosa bai degula erri txit alaia...

Uzt.: Aspaldian banuen bisitatu-naia; berak ere bazuten deitzeko garaia, maiz moldatu zazute onelako jaja.

Bordari: Orain, berriz, binaka ariko dira. Eta batzuek arrantzaleak, eta besteak nagusiak. Nagusiak, Azpillaga ta Basarri; arrantzaleak, Uztapide ta Lizaso. Bañan ez dira itxas-arrantzaleak, erreka-ko arrantzaleak baizik. Besteak, berriz, erreka alperrik galdu duten Papelerako bi nagusi.

Bas.: Len goi xamar giñanak azkar guaz bera, aspaldiko urtetan oso larri gera. Ez dute ontzat artzen gure jarduera, baña tristexe zioke gure Papelera.

Liz.: Nik itzegin nai nizun alakoan baten, gauza esaten ez bada ez baida jakiten; errekarari ez diote gauz onik ematen, benenoik gabe ez daki papela egiten.

Azp.: Onek arkitu dira arrantzale piñak, ortik ote dituzte diruak egiñak? Gure pabrika kentzen onen alegiñak, papelak aña ematen al du amorraiñak?

Uzt.: Asmatuzten dituzte abek aitzakiyak, baña guk errekarari dauzkagu begiyak; beneno botatze oiek ez dira egokiyak, agur garai bateko gure izokiyak!

Bas.: Errekak benenuak  
dituela galdu,  
ortara jarriya gu  
geuk daukagu damu.  
Kulparik gabe askok  
artzen dute kargu,  
zerbait egin biarra  
guk jango badegu!

Liz.: Basarri, jarri zaituz  
erreparatutzen,  
arrantzale koxkorrak  
nolatan gabilten;  
gaxo asko ziraden  
orrekin sendatzen,  
amorrai ona ez da  
diruaz pagatzen.

Azp.: Esan bearra daukat  
itza degularik:  
arrantzaliak dira,  
ez dago dudarik;  
abek ez dute beñere  
jaten okelarik,  
baña len ez gendun jan  
onen angularik.

\* \* \*

Bordari: Gu bizi geran erria zearo nas-  
tu zaigu. Eta, ain xuxen, erri ontako alka-  
tea, Uztapide; sekretarioa, Lizaso; mai-  
xua, Azpillaga; ta apaiz jauna, Basarri.  
Erria zearo nastu da, alkarren berri jakin-  
go dute, ta esan dezatela zergatik erria  
nastu ta asarretu dan.

Bas.: Zerutar Jaunak egin ninduen  
ni animaren karguko,  
oso bildur naiz ez ote diran  
errian asko galduko;  
motiborikan izan ez banu  
ez nuke autan artuko,  
alkate ona izan bagendu  
erririk etzan nastuko.

Azp.: Ni maixu koxkor bat besterik ez,  
zer nai dezute esatea?  
Zeretzat aña azaldu dezu,  
Basarri apaiz maitea;  
juez au berriz tabernan beti,  
baxoa ondo betea,  
gauza guzien kulpak dituna  
izango da alkatea.

Liz.: Gure erriko apaiz jaun ori  
degu olako iztuna,  
maixua ere agindu batzuk  
orrekin egiten duna;  
alkate jauna, guretzat dago  
ain bizimodu astuna,  
errian degun maixua dago  
euskerarikan eztuna.

Uzt.: Dotriñarikan ez dakiena  
jarri dute erretore,  
maixutzat berriz or da bestia  
gure izkuntzarik gabe;  
sekretario au eginda dago  
biziyo guztien jabe,  
alkate onik ez da abentzat  
edozein ipiñita're.

Bas.: Beraz dotriñik ez dakitena,  
jo nazu beko klasera,  
alkate jauna, etzait gustatu  
zure ortikako asera.  
Erria gobernatuko balu  
kristau jatorren antzera,  
auzo-errira ez litzake ori  
juango konfesatzera.

Azp.: Aldamenetik asi dirade  
maixuaren faltak artzen,  
baña apaiza jatorra izanda  
alare ez dute abonatzen;  
alkate ori zertan asi da  
besteri konduta kentzen?  
Bera ez dakit nola dabilen,  
ez baidaki irakurtzen.



Liz.: Alkate jauna, gure errian  
gauza onik ez espero,  
ez dakigu guk zertara bañan  
Donostira egunero;  
kastu aundiak zuk neretzako  
dakazkizula illero,  
lau traje berri egin dituzu  
alkate jarri ezker.

Uzt.: Apaiz jaun ori len asia da  
alkatiaren kargura,  
konfesatzera beregana ez ta  
orrek dadukan ardura!  
Oraindik ere ez al zerade  
zu eroria kontura,  
gizonak jua izan dirala  
gizonak diran lekura?

Bas.: Apaiz jaun batek etzun entzungo  
olako desafiyorik,  
gizona ez naizela entzun biar,  
ez da erremeryorik.  
Baldin betetzen ezpezu, alkate,  
erriko kondiziyorik,  
nigana etortzen bazera ere  
ez dezu absoluziyorik.

Azp.: Alkate eta sekretaiuak  
kulpak dituzte lepuan,  
igual sinistatuko dezute  
bertso au esandakuan;  
naiz-ta erria ona eduki  
beti dago jaleuan,  
sekretaiua ta alkatia  
mozkorak diran lekuan.

Liz.: Maixu tzar onek gaur egiten du  
berak gizonen itxura,  
sartu zanian kilo aundirik  
etzun ekarri pixura;  
pixkat loditu zaikigu ori  
gure errian kontura,  
kontentu ez bada jua dedilla  
len etorri zan lekura.

Uzt.: Au ere esan bear dizutet  
kostatzen ez dan kasuan,  
irurak etorriyak errira  
bururik ezin jasuan;  
gaizki esaka ari zaikizkit  
eguardi arte osuan,  
nai baldin banu irurak sartu  
nitezke kalabozuan.

\* \* \*

Bordari: Kanta ditzatela orain bertsola-  
riak beren gisa bina bertso.

Bas.: Sarritan izaten degu  
bertso eta txistu,  
ilda dauden biotzak  
nai ditugu piztu.  
Laukote onek iñoren  
kejarikan ezta,  
esaten degun gauzik  
ez beintzat sinistu.

Azp.: Jo ta su emen gabiltz  
gu laurok lanian,  
etzaitzela sartu  
gure esanian;  
alkarrekin etorriak  
gerade onian,  
ta berdin juango gera  
bukatzen danian.

Liz.: Aitortza egitia  
nai nuke aurretik,  
bertsolariyen berri  
dakite aspalditik;  
ez giñan ari kontra  
egitiagatik,  
nolabait ere broma  
pasatziagatik.

Uzt.: Bertsoan emen ai gera  
bi zar ta bi gazte,  
aserretu ta aixkidatu  
eiten degu laste;

bañan entzule jatorrak  
ez dauzkagu triste,  
txalotzen ai dira guk  
merezi ainbeste.

Bas.: Tolosako entzuliak  
porta dira jator,  
txalo mordo ederrik  
onuntza badator;  
iñoiz asarre-paperak  
ein biar derrior,  
baña makil autsiyakin  
ez sartu emen iñor.

Azp.: Makillarik ez degu,  
ez gera errena,  
gure konbertsaziyua  
gauza nabarmena;  
etzazutela sinistu  
esan degun dena,  
laurotatik zar ori  
daukagu txarrena.

Liz.: Kantatu degu zenbait  
arrazoi egizko,  
berriz ere, lagunak,  
ez jarri bekozko;  
aurreko jendeak e  
oinbeste txalo jo,  
denori, entzule onak  
eskerrikan asko!

Uzt.: Gazte orrek argi dauka  
bere memoriya,  
oraiñ e karga nigana  
baida eroriya;  
emen konpondu eziñik  
au da komeriya!  
Azpillagan dotriñak du:  
zu pekatariya.

Bordari: Eta orain azken aurreko ber-  
tso bana. Bañan kondizio bat bakarra:  
Izaskungo Ama aitatu bear dezu, ta azke-  
neko zure itza *Izaskun* bear du.

Uzt.: Zugana nator biotzez eta,  
Izaskungo Ama, entzun:  
unuzko deia egin zirazun;  
ta bai nik pozik erantzun;  
betiko ez naiz etorri eta  
laister bearuko nuke jun,  
eta berriz ni etorri arte  
zutikan egon, *Izaskun*.

# Uztapide, Basarri ta Lopategi Tolosako Sakramentinoetan (1962-XII-9)

## Bazkalondoan

Bas.: Argitasun bat eman deidala  
zerutako Jaun laztanak,  
lenago ere une ederrak  
baditu guri emanak.  
Onenbestexe merezi degu  
gaur emen bildu geranak,  
guziori on dagizutela  
bertako jan da edanak.

Uzt.: Iritxi zaigu Tolosa onetan  
kantatuzeko eguna,  
auxen da jende umilla eta  
auxen da jende leguna;  
alde danera begiratuta  
ikusitzen da laguna,  
a zer nolako arratsaldia  
pasatu bear deguna!

Lop.: Maixu bi auek azaldu dute  
barruan daukaten zaña,  
nai nuke izan neronek ere  
auek dadukaten maña;  
eskerrik asko lendabiziko,  
ain zan bazkari apaña,  
bertso berritan izandutzen da  
bertsolarien ordaña.

Bas.: Maitar auetaz kanpo or dauzkat  
gazte mardulak aurrian,  
edertasuna ikusten degu  
gaur Tolosako lurrian.  
Gu guzioren bitarteko bat  
dago Jaunaren aurrian;  
alkartasun au gorde olaxe,  
o Santu Pedro Julian! (2)

Uzt.: Askorik ez dit erakutsiko  
neri pentsatzen egonak,  
ta esan egin bearko ditut  
etxe onetako sonak;  
gizon aundiak badaude emen,  
mutikuak e bai onak,  
orain gazteak diraden auek  
dira geroko gizonak.

Lop.: Gure Uztapidek nola dituan  
esakera aintzagarriyak,  
onenbestian saiatu nairik  
momentu oso larriyak;  
gure aurrian gazte ta abar  
praille ain txalogarriyak,  
oietxek dira gaur eguneko  
Pedro Julian berriyak.

Bas.: Gaur poz artu det Lopategi au  
nik emen ezagutua,  
Bizkai aldeko txapela dauka  
bertso obetan artua;  
iaioa eta azkarra dala  
nago ni konturatua,  
nabarmen dago etxe onetan  
dala au edukatua.

Uzt.: Pozik entzuten ditut nik ere  
Lopategin itz legunak,  
guri're eztingu kalte egingo  
au bezelako lagunak;  
eskola gabe pasa ginduzen  
guk gaztetako egunak,  
gero zartzian balio dio  
gaztetan ikasi dunak.

Lop.: Berrero onuntz azaldutziak  
barrutikan nau ni poztu,  
izotza ere zakarra zegon  
baña biotza ez dit oztu;  
gaur egunean munduan zear  
nere antzekokin nastu,  
emen ikasi nitun gauz onak  
guziyak ez ditut aztu.

Bas.: O, Uztapide maitagarriya,  
buruz etzera debilla,  
orain esango dizut nik au ta  
goguan izan dedilla;  
gu gaztetan ez giñan ibilli  
jakintza on baten billa,  
ta orain iñola ezin eman guk  
Lopategiren kurpilla.

Uzt.: Zure bertsua entzundakuan  
txaluak ertetzen zaizte;  
ikasten asi baziñan, zuk e  
ikasiko zendun laiste;  
zu zeurekiko saiatu zera  
ta eskolaz etzaude triste,  
pentsatutzen det badakizula  
edozein frailek ainbeste.

Lop.: Entzun dezute gure Uztapiden  
xelebrekeri goxua,  
onenbestian kantatutzeko  
zeñek ez dauka lausua?  
Eta gaztiak sarri askotan  
erratzen degu pausua,  
libururikan etzun ikasi  
baña bertsotan maixua.

Bas.: Abixu eder bat bialduko det  
belarriaren ertzera,  
gu emen eta zu an Gernika  
inguruan bizi zera;  
bixita sarri egin ezazu,  
arren, Gipuzko aldera,  
jator zerala ezagun dezu  
eta konponduko gera.

Uzt.: Sinista zazu, zu, Lopategi,  
asko poztutzen naizela,  
ikusitziari Muxikatikan  
Tolosara zatozela;  
gu asi gera ostua juaten  
arbola zarrak bezela,  
poz bat daduka nere biotzak:  
gaztiak badatozela.

Lop.: Nik ere nere sentimentua  
gura dizuet bialdu,  
ain biyotz onez zeratelako  
biyok nirekin azaldu,  
Bizkaian ere bertsolaritza  
oraindikan ez da galdu,  
baña nik ez nun kantako iñoiz  
berton ikasi ezpanu.

\* \* \*

Bas.: Alai ibiltzen gera  
erririkan erri,  
Euskalerrri guziyak  
daki gure berri;  
Lopategi, Uztapide  
ta ni naiz Basarri,  
batzuk kanta ditzagun  
gaztien pozgarri.

Uzt.: Bertsoz asten danian  
gure nagusiya,  
gu ixiltzia oso  
gauza itxusiya;  
gazte jendia dago  
entzuten asiya,  
oiek poztiagatik  
al degun guziya.

Lop.: Poza jarri nai degu  
guk oien gogotan,  
gogoz ibil deitezan  
oraingo arlotan;  
alegre bizi beti  
gustura bertsotan,

eta euskera izanik  
guztiyok besotan.

naiz gaztetan ez uste  
zartuko geranik.

Bas.: Beti izan zazute  
euskeran moldia,  
izkuntza ez eduki  
barrenen gordia;  
doblatuko litzaiguke  
guri abildadia,  
Manuel, baldin bagendu  
oien edadia.

Lop.: Ez gera konturatzen  
edadez sarritan,  
naiz-ta ikusi arren  
zar auek begitan;  
begira nola dauden  
orain inbiritan,  
gazte ez gera izango  
inor bi alditan.

Uzt.: Indarrak bajatzen ta  
estutzen arnasa,  
era orretan ezin  
bizi leike lasa;  
guk e len izan gendun  
sasoi ta jolasa,  
edade ori zaigu  
azkar asko pasa.

Bas.: Olako tokitan egin  
litezke gaur lerrak,  
erremeritu zaizkit  
atzoko okerrak;  
jan ditugun platu danak  
ain zeuden ederrak,  
etxeko sukaldariei  
eman ba eskerrak.

Lop.: Gauza ortan nik ere  
auxe azalduko:  
gazteakin mundua  
ez dala galduko;  
ezin litezke izan  
zar auen moduko,  
baña zartuko dira  
ainbeste ein orduko.

Uzt.: Atzo're egin giñuzen  
otordu bikaiñak,  
zerbait esan liteke  
berriya dakiñak;  
Basarrik ekarri ununtz  
sekulako miñak,  
seguro sendatu du  
emengo txanpaiñak.

Bas.: Gaztiak beti ematen  
didate inbiri,  
ortatik sartu nai nik  
iru edo lau ziri;  
urtiak pasa zaizkigu,  
koloriak zuri,  
zeñek artu lezaken  
edertasun ori!

Lop.: Ni ere arritzen naiz  
auen esanian,  
emen izandu gera  
denok afanian;  
eta oso gustora  
jan ta edanian,  
neurririk ez baidegu  
debalde danian.

Uzt.: Pozetan bizi dira  
sasoi egoz, egonik,  
seguru eztakit baño  
ala pentsatzen nik;  
gogoratutzen gera  
urtiak juanik,

Bas.: Basarri zarra, askatu  
zeure memoriya,  
goitik bera ez baldin bada  
oso eroriya;  
goizian Uztapide're  
triste ta nagiya,

zeuk ere bazenduen  
txanpañan premiya.

Uzt.: Pasatzen gera sarritan  
jan da eranian,  
etxetikan kanpora  
juaten geranian;  
urrengo egunian  
nola asi lanian?  
Laguna're ongi ez  
bat gaizki danian.

Lop.: Bertsoan gogor eta  
lanian suabe,  
bertsolariyak ola  
ibiltzen gerade;  
gaur gure trabeneru  
ainbeste abade,  
bertsoak grazik eztu  
edanikan gabe.

*Alkarri, azken agurra egiterakoan:*

Uzt.: Jarraitu, Lopategi,  
bertsozko langintzan,  
jakingo degu nundik  
noratan zabiltzan;  
gaur portatu zerade  
gizon baten gisan,  
eta Muxika aldian  
ondo-ondo izan.

Lop.: Zuekin ibiltzeak  
ez dit egin kalte,  
maixu pare gabiak  
biok baizerate;  
ez nuke izandu nai  
arlotan aparte,  
agur biyotz erditik,  
Donostira arte!

Bas.: Estimatuko zaitugu  
ta maitasun aundiz,  
zure izena aitatuko det  
makiña bat aldiz;  
gaur ikusi zaitut lenengo,  
dakitela, begiz;  
gustatu zera eta  
azaldu azkar berriz!

(1) Bertso auek Tolosako sakramentinoei zor  
dizkiegu. Milla esker.

(2) Sakramentinoen fundatzailea, santu  
egiña.

# Uztapide, Basarri, Lazkao-Txiki ta Lasarte Beasaiñen, 1963-II-10ean

(Gai-jartzaille: Iñaki Atxukarro)

## Puntuari

Atx.: Izotzak utzi gaitu  
oso kuxkurtuta...

Uzt.: Orain joan da igesi  
danak agurtuta;  
kanpo dana utzi du  
ain txar biurtuta,  
gu ere geunden orrekin  
bapo aspertuta.

Atx.: Nekazariantzako  
aurten urte txarra...

Uzt.: Alde guzitan bada  
sua eta garra.  
Galduko ote da ba  
Gipuzkoa zarra?  
Datorrena dago emen,  
ai!, artu bearra.

\* \* \*

Atxukarro: Batek bertso bat eta urren-  
goak bestea. Laurok gipuzkoar izanik, Gi-  
puzkoako aunditasun ta edertasunak go-  
ratzen eta aupatzen ari zerate. Bañan be-  
realaxe sortzen da zuen artean izketaldi  
biziagoa; izan ere, Uztapide Urola alde-  
koa da; Basarri, beterritarra; Iztueta, goie-

rritarra; ta Lasarte, itxas aldekoa. Ta, jaki-  
ña, bakoitzak bere lurraldea obeto ezagu-  
tzen ta geiago maitatzen.

Uzt.: Laurok gerade gipuzkoarrak,  
laurok euskaldun garbiyak,  
nork arrazoi dun ikusitzeko  
jarri begiak argiyak;  
batzuek kontra izango ditut  
ta alde beste erdiyak,  
orain esango ditugu emen  
geure lurren alderdiyak.

Bas.: Gure Gipuzku maitagarria  
nik juzgatzen det loreztat,  
munduan ixkin bat eztadukat  
geurea baño obetat.  
Gaia ere ala jarri dute ta  
auxen bururatutzen zat:  
Beterri salla bezelakorik  
ezer ez dago neretzat.

Laz.: Oi Gipuzkoa maitagarria,  
egin nai dizut laguntza,  
erdi erori zabilta bañan  
gora nai nizuke bultza;  
une onetan etzera arkitzen  
len ziñaden bezin utsa,  
zu baitzerade gure izkuntza  
gordetzen diguzun kutxa.

- Las.: Nik Gipuzkoa maitatuko det  
iñoiz baño apaiñoago,  
ementxe bizi naiz ni ere ta  
orretarakoxe nago;  
geure aldea goratutzeko  
edozein baño prestago,  
udara aldean kosta dan baño  
politagorik eztago.
- Uzt.: Lau anai gera ta obe degu  
alkarri esku ematia,  
bertsolariak orretarako  
badegu borondatia;  
Gipuzkoa da jardin polit bat  
guztia lorez betia,  
beste faltarik ez dauka onek:  
txikitxua izatia.
- Uzt.: Guztiak dira maitagarriak  
Gipuzkoako eskiñak,  
bañan Urola-errekak dauzka  
intxaurrak eta gaztaiñak;  
ni sortu nintzan Zestuak berriz  
oso iturri bikaiñak,  
orrek sendatu izandu ditu  
danen gibelego miñak.
- Bas.: Metroz erririk ez da neurtutzen,  
o Uztapide prestua,  
Goierri, Beterri ta itxaso,  
eman alkarri eskua.  
Danon artean osa dezagun  
famili itxurazkua,  
danen gañetik biar dezu zuk,  
biotzeko Gipuzkua.
- Bas.: Arbol, itxaso, zugaitz ta zelai,  
Gipuzko bedeinkatua,  
klase guztitik ikusten zaitut  
ondo asko osatua.  
Bañan ain seme txepelak gera,  
au da gure pekatua,  
beste penarik ez daukat ezer:  
euskera atzeratua.
- Laz.: Intxaur ta gaztain ta arrai presko,  
arkume, gazta ta abar,  
oek batera bildu ezkerok  
zorion bikaiña dakar;  
orregatikan lotu gaitezen,  
zertako ibilli bakar?  
Alkartasuna indarra da ta  
denok ar dezagun alkar.
- Laz.: Guk e badegu gauz eder asko,  
o Goierriko anaiak,  
gure bitartez zuzentzen dira  
toki askotako maiak;  
gureak dira geientsuenak  
maite ditugun artzaiak,  
gure lurretik jaten baidira  
arkumeak ta gaztaiak.
- Las.: Gure izketak ezer ez dute  
alperrikan kentzekorik,  
baño ez degu abildaderik  
okerrak zuzentzekorik;  
bat altxatzeko ez genduke nai  
bajatu gañontzekorik,  
baño munduak iñun ote du  
Gipuzkoan antzekorik? (1)
- Las.: Beste konturik eztabilkgu  
alkarregana biltzian,  
seme bezela jokutzen gera  
Gipuzkoak beartzian;  
lenago esan det gure tarteko  
komeri danak zer zian,  
txori guziak goxatzen dira  
udaran plaia-ertzian.

(1) Bertso auek *Beasain festivo, año 1963* erre-  
bistatik artuta daude.



# Uztapide ta Lazkao-Txiki

## Aizarnan

(1963-VI-23, luistarren eguna)

Uzt.: Lanean asi bearko degu  
bagerade itzekoak,  
ta gu gerade morroi jatorrak  
oi diraden antzekoak;  
emen diote iya garaiak  
dirala asitzekoak,  
galdetutzen det nola zeraten,  
aizarnar biotzekoak.

Laz.: Nere barrenak sentitutzen du  
goi-arnasaren epela,  
anai luistar bat beste lagunak  
inguratzean onela;  
pozaren pozaz kantura nator  
txori bat oi dan bezela,  
ongi etorri eta egun on  
Jaungoikoak dizutela.

Uzt.: Atzo egin nuan Oiartzundikan  
alde onetara abira,  
Azpeitiatik buelta emanda  
etorri bear zan tokira;  
Euskalerrian toki ederrak  
asko ikusitzen dira,  
baña txorien gisa ni ere  
gustora neure kabira.

Laz.: Gain maite ontan irauten baidu  
goi-arnasaren indarrak,  
gazteak ere zintzoak datoz,  
onak omen dira zarrak;  
jakin dedanez elizkizunez  
emen ez dira zabarrak,  
gaur festa antolatzen diguten  
biotzeko luistarrak.

Uzt.: Aurreko aldian Santa Engrazia,  
beste aldian Ertziña,  
ta mendi oiek ezagutuak  
nola nituen antziña;  
len ikusiak nitun txokoak,  
auxen da aztu eziña,  
naiago nuke, Aizarna, zutik  
luzaro egongo baziña.

Laz.: Zorioneko gain polit ontan  
nork ez luke artuko poz?  
Ni orregatik, len entzun-eta,  
gaurkoan eldu naiz gogoz;  
izanez ere landare fiñak  
erri onetan badatoz,  
zeruak ere gertuagoan  
dagola diruri askoz.

Uzt.: Lazkaok ere altura badu  
bañan Aizarnak geiago,  
nik pentsatzen det zuk emen bizi  
ote zenduken naiago;  
penik aundiña dezu onera  
ez etortzia lenago,  
zerua ere nola dagan  
emendikan alderago.

Laz.: Ibilli gabe ezeren berri  
ez da jakiten bizitzan,  
arrazoi dezu ta pena daukat  
iñoiz ez naizela izan;  
ta lenengoan artutzen naute  
beren anai baten gisan,  
orrelakua zala jakiñik  
lenago elduko nitzan.

Uzt.: Zuk badakizu Euskalerrriak  
nun-nai daukala atsegiñ,  
orregatikan amaika gauza  
gaur bai litezke itzegiñ;  
lenago ununtz etorri-ezak  
orain ematen dizu miñ,  
Aizarna ikusi artian onek  
mundua zer zan etzekiñ.

Laz.: Gaurtik aurrera nik egingo det  
makiña bat ametseta,  
sinista zazu nere gogua  
juango dala aseta;  
Aizarnaz ez da beiñe aztuko,  
oso atsegiñ zait-eta,  
tontor batian daukagu baña  
lore politez beteta.

Uzt.: Ikusitzen da nola daguen  
lore politez betia,  
zer ote da lore eder baten  
faltan bizi izatia?  
Emen Aizarnan egon liteke  
zuk nai zinduken maitia,  
Aizarna ere gustatzen zaizu,  
bertan gelditu zaitia.

Emen iru bertso galdu ziran tresnaren  
edo eskuaren erruz. Jarraipena:

Uzt.: Berriz erantzun nai banuke're  
eman didazu aukera,  
gaur arte luistar izan zera ta  
ortik nai dezu atera;  
len esan dezun lore oiekin  
ongi konpontzen bazera,  
ukatu igual eingo dezu zuk  
Luis Santuaren bandera.

Laz.: Ai, Uztapide, pentsatu zazu  
zer datorkidan gogora:  
iya pasatzen ez al naiz ari  
ni udaberriko lora?

San Luisentzako zartu naiz eta  
urtiak dijoaz gora,  
alakon batez juaun nai nuke  
San Frantziskoren ondora.

Uzt.: Mundu onetan etortzen dira  
zerbait pentsatu biarrak,  
denbora juanda gastatzen dira,  
bai, gorputzeko indarrak;  
poz aundirikan ez du izaten  
zartuta gizon bakarrak,  
bi santutatik bat aukeratu,  
biak e ez dira txarrak.

Laz.: Bi santu oiek maitatutzia  
da nere gogo zabala,  
ori betetzen beti izan naiz  
zintzua eta leiala;  
baña batengan juaun biar det  
iñoiz iñundik al dala,  
pentsatzen nago San Luis iya  
nerekin aspertu dala.

\* \* \*

Uzt.: Puntua jarrita bota  
biña edo iruna.

Laz.: Azkar egin dezagun  
ein bear deguna.

Uzt.: Oso lan luzia ez da  
agintzen diguna.

Laz.: Eskerrak daukagula  
sendo osasuna.

Laz.: Berriro ontan segi  
dezagun orduan.

Uzt.: Al bada segituko  
degu urte morduan.

Laz.: Zer da Euskalerrria  
ixildutakuan?

Uzt.: Ain mutu egoteko  
ez dakit zer duan.

Uzt.: Indartu Euskalerrriya  
ta indartu euskera.

Laz.: Gu alegingo gera,  
bai, sano bagera.  
Uzt.: Propiyo orretarako  
etorriyak gera.  
Laz.: Ikasi ba zer egin  
emendik aurrera.  
  
Laz.: Zarrak bezela saia  
zaitezte gaztiak.  
Uzt.: Ez dauzkate Aizarnan  
olako ustiak.  
Laz.: Aurrari erakutsi,  
senar-emaztiak.  
Uzt.: Asi dirade erderaz  
batzuk ez bestiak.  
  
Uzt.: Mendiyetan erdera  
indartzen ari da.  
Laz.: Euskalerriarentzat  
galera ori da.  
Uzt.: Bañan oraindik ere  
basotan bizi da.  
Laz.: Zenbait kaletan berriz  
gaizki ikasi da.  
  
Laz.: Aizarnan eztaukagu  
orrelakorikan.  
Uzt.: Ez dedilla izan iñoiz  
okerragorikan.  
Laz.: Emen erderaz ez det  
entzun jenderikan.  
Uzt.: Gaizki erakusteko  
ez det asmorikan.

Uzt.: Bukatu bear degu  
guk goiz-partekua.  
Laz.: Triste arituzkeo  
ez al da naikua?  
Uzt.: Ezta oso gaizki juan  
orain artekua.  
Laz.: Gero izango al da  
saio obegua!  
  
Laz.: Atzo burua ustu,  
oraindik ez bete.  
Uzt.: Orrek inportantzirik  
ez daduka bate.  
Laz.: Jendian pozarentzat  
bada naiko kalte.  
Uzt.: Goizerako aski da ta  
arratsalderarte.

(Bertso auek Jesus Gaztañaga apaiz jaunari  
zor dizkiogu. Milla esker.)



LIBRERIA VASCONICA  
AZKUE BIBLIOTEKA

# Uztapide, Basarri, Lazkano ta Lizaso, Orion 1963-VI-ean

(Gai-jartzaille: Patxi Larrañaga bertsolaria)

Lar.: Uztapide, sasoiko  
etorri al zera?

Uzt.: Nai badegu erantzun  
eman dezu era;  
len bikañak ez giñan,  
asiyak gain-bera,  
onez aurrera aundiyak  
izango ez gera.

Uzt.: Anai gaztia, jarri  
nere esanian,  
enteratu baidira  
Oriyo danian:  
barkua utzi zigula  
aitak il zanian;  
zu alperkeriz zabiltza  
eta ni lanian.

Lar.: Zu arrantzaleakin  
oso zera lagun.

Uzt.: Erregututzen aitzen  
gerade gau t'egun;  
lagun maiteagorik  
nik ez daukat iñun,  
segi lanian arraia  
ia jaten degun.

Bas.: Anai zarrak guztiya  
nai du bere eskutan,  
eta gaztiakin sarri  
or dabil disputan.  
Nik ez det ibili nai  
baporian puntan,  
interesaren erdiya  
ekatzu dirutan.

\* \* \*

Patxi Larrañagak: Urrengo saioa, gaiak jarrita emango diegu. Basarri izango da anai gaztea; eta Uztapide, anai zarra. Aita il zitzaientean, utzi zien baporea bere tresna guziekin. Anai zarra beti ibillitzen zan itxasoan; gaztea ez. Eztakit nola konpontzen diran. Orain berak esango dizuete.

Uzt.: Atrebitzen al zera  
ematen arpegi?  
Nik bota dizut zuri  
urrutitik begi;  
interesaren erdiyak  
dirade geiegi,  
ori nai bazenduke  
barkuakin segi.

Bas.: Barku ontan badabiltz  
makiña bat traste,  
aundiña auxe dala  
esango det laste.  
Konpondu giñezkenik  
etzazula uste,  
aitak ni maite niñun,  
aizu, zu ainbeste.

Uzt.: Aitaren esanetan  
oso zuzen zabiltz,  
bañan gu itxasuan  
penaturik gabiltz;  
lanian jarraitzeko  
eman zaidazu itz.  
barku ori galdua zan  
ni izan ez banitz.

Bas.: Anai zarra oker dabil  
itxasoko martxan,  
bildurra banuen zu-  
zenduko ez ote zan.  
Orain ere iru egun  
parrandan da saltsan,  
Oriyon ez egon onen  
atun-esperantzan.

Patxi Larrañagak: Uztapide izango da  
arrantzale; eta Lazkano, baserritarra.  
Daude biak alkarren aitzeki edo arrotasu-  
na, edo zer izango da? Bat gabe bestea  
ezin bizi dala, ta, nik uste, danak bearko  
dira; baña... ia, mesedez!...

Uzt.: Aspaldi ontan, baserritarra,  
baneukan itzegin-naia,  
bi ofiziyo dauzkagu baño  
zu zaitut nere anaia;  
iya badala iruritzen zait  
alkar artzeko garaia,  
zuk eman baserriko gauzak da  
nik ekarriko'et arraia.

Laz.: Ai, Uztapide, aspaldin zendun  
sekretutxo au gordeta,  
eta gaurkoan egin al zaizu  
aitortutzeko kasketa?  
Legatz preskua ipiñi zazu,  
nik jarriko det txuleta,  
eta etxera juango gera  
gu leporaño beteta.

Uzt.: Sekula etzaigu egokitu izan  
gaur etorri zaigun gaia,  
neuk e baneukan aspaldi ontan  
sabeletik ase-naia;  
zuk txuletatik osatzen nazu,  
nik legatza edo arraia,  
urrengo igande-arratsaldian  
a ze nolako afaia!

Laz.: Utziko zaitut bear bezela  
arrazoitxo bat parata,  
esan bear det gaurko onetan  
gaia egoki dala-ta;  
kaferik artu gaberik ezin  
gindezke biok aparta,  
aiek zuk paga bearko'ituzu  
arraia merkea da ta.

Uzt.: Ez al dakizu gure onduan  
badirala aingeruak?  
Lagunak dira gañera eta  
oso kristau seguruak;  
aspaldi ontan irabazi asko  
dabilkite barberuak,  
emen daukagun Patxi jaun onek  
pagatuko'itu puruak.

Laz.: Manuel zarra, barberuari  
zuk jo diozu aldaba,  
nola edo ala alai pasatu  
nai genduke gaurko gaba;  
ekarriko du orrek seguru  
gañerako naiko traba,  
orrenbeste gauz egin biar luke  
au gizona baldin bada.

Patxi Larrañagak: Uztapide, bi bertso  
bota bear dizkiozu arrantzalearen bizi-  
tzari:

Uzt.: Arrantzalien gaia  
det orain artuta,  
zueri kantatzera  
nago beartuta;  
merezi dezutela  
dakit ziertu-ta,  
enteratzen naiz sarri  
zeuekin batuta,  
irabazten dezute  
bañon nekatuta.

Jarraitzen diozute  
oitura zarrian,  
ta gu arkitzen gera  
zuen bearrian;  
gauza guzia emen  
ezta legorrian,  
bizi bearra dago  
alkarren urrian,  
ori aitortutzen det  
Jainkuan aurrian.

(Bertso auek ere Jesus Gaztañaga apaiz jau-  
nari zor dizkiogu. Milla esker.)

# Uztapide ta Lizaso

## Aiako Santiagon

(1963-VII-25)

(Saio au ere Jesus Gaztañaga apaiz jaunari zor diogu. Milla esker. Bertso batzuk galdu egin ziran grabatzerakoan. Orre-lakoak puntuz idatzi ditugu.)

### Meza ondoan

Uzt.: Oiartzundikan atera eta erreka ontantxen erori, txoko polit au gogoratutzen baitzitzaidan beti neri; amalau urte onetan badet emen laguna ugari, lendabiziko egun on eman biar diotet danari.

Liz.: Ez dakit noiztik egiña neukan nik txoko onen promesa, esan litake ez dala izan oso kunplitu erreza; nekez bada're gaur iritxi da deseo onen ametsa, bizi guziko penetan nago lenago etorri-eza.

Uzt.: Ni ere etorri gabe nenguan juan dan amalau urtian, sosegu onik ez nedukan nik zuek ikusi artian; gezurrik gabe auxen esango dizutet aua betian: nere osasuna indartzen dala onlako leku batian.

Liz.: Aspalditxotik egin ziñaden aben ezagueran jabe, ni lenbiziko gaur egin naiz ta leno egin banitz obe; Manuel, zeuk diozunez gu beti lagunak gerade, oraiñ arte nun eduki nazu onuntza ekarri gabe?

Uzt.: Lore eder auei urrutitikan artutzen nien nik usai, baña deirikan etzegon eta mendiyen nebillen artzai. Presaka zertan zabilta, Jose? Ibilli zaitia lasai, berai gogua egindakuan deituko digutela zai.

Liz.: Bein bear eta gaur gelditzen naiz Santiagori begira, oroitzen dana kantatutzea beñere etzait kupira; berrizko ere eman nai diot ballera oni segira, deitu gabe're etorri leike au bezelako tokira.

Uzt.: Onelakuak ez dira izan geraden toki guziyak, baña emen ere pasatu dira sekulako desgraziyak; lenago etziran gauza batzuek ditut aurten ikusiyak; bildurtutzen naiz, etxeak ere daude erortzen asiyak.

Liz.: Ara, Manuel, nik entzun dizut  
nola itzegin dezuan,  
ikusi nuan desgrazi ori  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Uzt.: .....  
.....  
baña ez tet nik ikusten ori  
oso itxura ederrian;  
gaizki ematen du etxeak ola  
euskaldunaren lurrian,  
ta batez ere era ontako  
eleiza baten aurrian.

Liz.: Bein bear eta Manuel dago  
zirikatzaile jarriya,  
ezten gogorak sartzen ditula  
ni're nago igarriya;  
baldin orrekin enteratzen ba  
Aiatarraren erriya,  
urrengo urtian zu etortzerako  
egingo dute berriya.

Uzt.: Pentsatzen nago eta nerekin  
badet naiko komeriya,  
erdi partia etxetxu orrek  
nola daukan eroriya;  
Jainkuagatik ez dedilla izan  
gaur beintzat or bazkariya,  
bestela laister egingo diat  
Oiartzunera abiya.

Liz.: Azkenerako jarritzen dizku  
biotzeko naigabiak,  
bai al dakizu zer pentsako dun  
etxe zar orren jabiak?  
Orren nausiak egin litazke  
ori dan bañan obiak,  
gizonak gera zartu ezkeru  
erremeiorik gabiak.

Uzt.: Ez ditzagula gai baten esan  
tamaña ortan aundiak,  
badaude emen soro ederrak,  
bai eta ere mendiak;  
ikusten ditut lore txuriyak,  
bai eta belar berdiak,  
esan bear dira Aia aldeak  
daukazkien alderdiak.

Liz.: Berriro ere zugana nator  
ta egon entzun artian,  
ta jakiñian utziko zaitut  
noizbait alakon batian;  
plaza polit au ikusitzen det  
lore ederrez betian,  
nola ez niñuzun onuntz ekarri  
soltero negon artian.

Uzt.: Onian konpon gindazkiena  
zertan asi armonira?  
Oraindik ere sasoi daukazu,  
zu etzuaz agonira;  
zu lore billa nora juañ ziñan  
jakitea komeni da,  
Aia aldera etorri bear  
ta juañ ziñan Bidanira.

Liz.: Saiotxo bat, Manuel,  
puntuja jarrita.

Uzt.: Lore billa berandu  
zaude etorrita.

Liz.: Granujatu zerala  
nago igarrita.

Uzt.: Garaia pasatzian  
alper-alperri-ta.

Uzt.: Ikusi izan al dezu  
granuja zarrikan?

Liz.: Akontsejatutzia  
alper-alperrikan.

Uzt.: Onez aurrera eztegu  
egingo okerrikan.

Liz.: Obe dezu orduan  
juañ bakarrikan.



Liz.: Oraindik ere ez nago  
ziaro etsiya.

Uzt.: Nik kontseju ori det  
zuk erakutsiya.

Liz.: Arrazoi bat auxen zun  
ondo mereziya.

Uzt.: Aurrerako bidia  
daukagu itxiya.

Uzt.: Gaztiak aurrera ta  
atzeraka zarrak.

Liz.: Derrior gaude oraintxen  
umildu biarrak.

Uzt.: Bajatzen asi dira  
len giñun indarrak.

Liz.: Uztapide zar onek  
jotze'itu negarrak.

Liz.: Baña saiatua zan  
gaztia zanian.

Uzt.: Beti ez giñan egon  
ziar etzanian.

Liz.: Danak ezagun ditu  
gaurko egunian.

Uzt.: Gutxitan egoniam,  
askotan lanian.

Uzt.: Lan asko egin degu,  
geienak alperrik.

Liz.: Len ere pasa dezu  
eguna ederrik.

Uzt.: Mundu oneri kasik  
nik ez diot zorrik.

Liz.: Aurrera ez daukazu  
nekatu biarrak.

Liz.: Lan geiegi badegu,  
eman bukaera.

Uzt.: Ordu laurden bat degu  
gutxi gora-bera.

Liz.: Neuk e billatzen nion  
aspertu-tankera.

Uzt.: Agur da arratsaldian  
azalduko gera.

## Bazkalondoan

Uzt.: Lendabiziko jakin zazute  
zer galdetuko zaizuten,  
atrebitua izan banintzan  
len esan bear nizuten;  
Santiagoko bertsuak zuek  
biyar Altzolan entzuten,  
jakin nai nuke saio ori artzia  
zenbat ordaindu dezuten.

Liz.: Berrero ere gauza ez dago  
gaur emen galerazita,  
ni arritzen naiz emen jaun batek  
egin diguten bisita;  
Altzolatikan juaten dira  
an bertan ezin etsita,  
sermoian ordez bertsuak igual  
makina ori utzita.

Uzt.: Makina oni gorroto diot,  
artu bear det makilla,  
nere bertsuak orren barrenan  
gutxienez daude milla.  
Oraindik ere bai al zatozte  
bertso geiagoren billa?  
Gaurkua kunpli nezake baño  
ontan bukatu dedilla.

Liz.: Geiago ere egon litazke  
gauza orri igarriyak,  
baztar danetan ikusten ditut  
aurreko aldian jarriyak;  
tresna onekin gero kenduaz  
iru-lautako erriyak,  
mundu orretan baldin badabiltz  
akabo bertsolariyak.

Uzt.: Badakizute nere laguna  
beti dala jaun Andoni,  
esaiozute tresna onekin  
ez nabillela ondo ni;  
nik nai nituzke nere bertsuak  
beren tokian ipini,  
mundu guzian zabaldutzerik  
neri ez baitzait komeni.

- Liz.: Nik Don Andoni ezagutzen det,  
oso da gizon umilla,  
neu ez nitzake iñora jungo  
kristau obiaren billa;  
nai dan guzia kantuz bialtzen  
orixen degu gauz zaila,  
bañan bertsean zale badago  
bera etorri dedilla.
- Uzt.: Ez pentsa gero lanerako gu  
penarekin gaudenikan,  
eta nik ixilik egotia  
pentsatuzten nuenikan;  
ez uste jaiak artuta onuntz  
etorri geradenikan,  
alperra deituko balirate  
ez nuke beste penikan.
- Uzt.: Arrazoi dezu ta bear zaio,  
Jose, bide orri eldu,  
zuzenbidian asten dan batek  
iñoiz ezta bear galdu;  
Andoni jauna zertako ezta  
bera onuntza azaldu?  
Aizarnara juan egun pasa ta  
tresna onuntza bialdu.
- Liz.: Ez dezazula gaizkitzat artu,  
Manuel, nere eztenik,  
zer burutapen etorri zaidan  
garbi esango dizut nik;  
guregaitan ez dute esango  
langille onak geranik,  
bertsolaririk al gera iñor  
alper xamarra ez danik?
- Liz.: Ai, don Andoni nola dabillen  
ni lenago igarriya,  
naiago nuan makina bañan  
bera balitz etorriya;  
sinistu zazu egingo nion  
sekulako itzaldiya,  
osatuko zan bertseotik eta  
bazkariyaren erdiya.
- Uzt.: Era ontantxen sortutzen dira  
mundu onetako gerrak,  
berriro ere gu Lizasori  
gaude erantzun bearrak;  
iñoiz egiñak gera saiuak  
lanian ere ederrak,  
txit langilliak ez gera baño  
ezta ere oso alperrak.
- Uzt.: Andoni dagon lekuan beti  
kendu izan det nik txapela,  
esaiozute oraindik ere  
gogoratutzen naizela;  
gure biotza ez daukagula  
mingaña dagon bezela,  
itz bat txarrikan esan badegu  
danak barka ditezela.
- Liz.: Barkatu idazu lengo bertsoa,  
erori naiz pekatuan,  
ez dezazula penarik artu  
zure biotzan onduan;  
umore pixkat gustatzen zaigu  
beti gabiltzan lekuan,  
lana egitia ain da erreza  
ondo bazkaldutakuan!
- Liz.: Andoni maite, gu ezagunak  
baigerade aspalditik,  
iru-lau kontu bialtzen dizut  
makina onen bidetik;  
ez gera jardun makina orri  
konduta kentzeagatik,  
agur xamur bat bialtzen dizut  
biotzan erdi-erditik.
- Uzt.: Barkatu zazu, Jose maitia,  
auxen da nere esana:  
oraiñ artian oso alperra  
beñere ez naiz ibana.  
Erdizka zertan ibilliko naiz?  
Nik aitortuko det dana:  
alper izena artu baño len  
gogoz egingo det lana.

Liz.: Berialaxen emango dizut  
bertso orren parezera,  
Jaunari eskerrak zer kontatua  
oraiñ badator aurrera;  
beraz orduan zere burua  
eskeintzen dezu lanera,  
berriro ere deituko'izute  
ondo portatzen bazera.

Uzt.: Santiagotar maitiak neri  
zertarako jarri traba?  
Etzazutela bertsolaria  
onuntz deitzeari laga;  
beti gelditu gabe ibilli  
.....  
.....  
.....

Liz.: .....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Uzt.: Lizaso maite, zu etzera ba  
bertsolari itxusiya,  
gizon jator bat zerala ere  
ongi daukat ikusiya;  
emezortzi bat urte badira  
zurekin nitzala asiya,  
erakutsiko dizut pozikan  
nik al nezaken guziya.

Liz.: Olako bertso maitekorrikan  
ez nuan entzun sekula,  
ta badakizu eskola-umiak  
estimatuko dizula;  
bañan sinistu kargu gogor bat  
zuk gaurtik artzen dezula,  
ikast'ezpadet esango dute  
maixu tontoa gendula.

Uzt.: Lenago ere botia zera  
konparaziyo ederrik,  
neronek dakit zure berri ta  
eztet galdetu bearrik;  
aspaldin biyok lagunak gera,  
gurekin ezta okerrik,  
nik baño geio dakizu eta  
saiatu zaitetz bakarrik.

Liz.: Ori entzunda erantzun gabe  
ez neike egon iñola,  
buru gogor bat jαιο nintzan da  
nik, ai!, berri det eskola;  
ta badakizu beste lagun bat  
oraiñ gaxorik dagola,  
baña Lasarte juzgatuzten det  
zure ordezko arbola.

Uzt.: Zu adarreko txoriya zera,  
Lasarte, berriz usua,  
zu ere mutil jatorra eta  
ura zu bezin gozua;  
nik berarekin pasa nai nuke  
nere bizitza osua,  
berez sortu zan jakintsua ta  
ark zertako du maisua?

Liz.: Nik gizon ura ezagutzen det  
juan daneko aspalditik,  
egun guziak amets batian  
jeki ezkerro oietik;  
kontu berdiñak juzgatzen dira  
entzule danen abotik,  
bertsotan ere juzgatuzten det  
beste guzien gañetik.

Uzt.: Lizaso maite, etziazu esan  
zuk neri orrelakorik,  
nola ez nion nik Lasarteri  
gaur irikiko kolkorik?  
Nere begi bi auetatikan  
ezin det kendu malkorik,  
gizonez eta bertsotan ezta  
Lasarte bezelakorik.

Liz.: .....

Jaun Zerukuak osasun ori baldin indartzen badiyo.

Uzt.: Geio kantatu nai nuke baño ezin nezake iñola, badakizute nai izan arren ni eziñian nagola; ikusitzen da osasun gabe aspalditxuan dagola, gure Jainkuak, komeni bada, arren eman dakiola!

Liz.: Azkenerako sartuko nitzan uste gabeko biretan, baña, Lizaso, nola asi naiz era ontako lanetan? Kontsueluan zegon gizon bat oaiñ arkitzen zat penetan, arren barkatu zazu, Manuel, utsegin badet ezertan.

Uzt.: Ez pentsa gero zure itzakin nik artu detela miñik, ni oraiñ askoz obeto nago negar pixka bat egiñik; itz batian e neri ez dirazu zuk ezertan utsegiñik, pozarez pozaz negarrez asi eta ixildu eziñik.

Liz.: Nik gizon ura gizarajua iya ikusi nun illotza, pentsatzen nuan: "Laister diagu kanpai illunaren otsa!". Kasikan ori oaiñ esatean ere bear nuke lotsa, osasunetik indartzen ai da, trunkildu zazu biotza.

Uzt.: Ai zuk eta nik biyok e ura maitia baigendun lendik, bai al dakizu zer penak ziran juan zanian emendik? Askok etzuten sinistatzen e sendatzerikan iñundik, bañan uste det kantatutzia nik berarekin oraindik.

Liz.: Ondo dakigu mundu guztiai egin giñola ezagun, mundu au ain da laburra eta bizi gerade lau lagun; aurrera ere oain bezelaxen izan gaitezen euskaldun, baña oraingo aski degu ta lanak bukatu ditzagun.

### Arratsaldean plazan

Uzt.: .....

..... dibertsiyua gaur etzait gutxi gustatu, festa guziak onak dirade baña tamañan jostatu.

Liz.: Emen jendia alkartu zaigu pentsatzen gendunez doble, nunbait guztiak egin nai zuten Santiago onen jabe; biyotzetikan kendutzen dira gaurkuan zenbat naigabe, diberti zaizte al dan ondona bañan pekaturik gabe.

Uzt.: Gazte maitiak, barka zazute gu bagera nabarmenak, geroko eztira gaizki etorriko bertsolarien ordenak;

- kaltegarriak izaten dira  
pekatuak da obenak,  
pozen urrengo etortzen dira  
broma aben ondorenak.
- Liz.: Manuel zar au nik derizkiot  
bildurtu da indarrian,  
derrior nago juaterako  
zerbait esan biarrian;  
eskua lotzen diona gaur e  
lore aben bizkarrian,  
mutil gaztiak ez dira jartzen  
oso arrisku txarrian.
- Uzt.: Gaurko munduak baidarabilzki  
alamoduzko naspillak,  
ta gurasuak beren etxetan  
eztaude oso trankillak;  
motibo gabe pekatu egiten  
gaurko eguneko millak,  
ortan kontua izan zazute,  
neskatxak eta mutillak.
- Liz.: Alde batera ain itxusi da  
nik gauza au aitatzia,  
baño, Manuel, ez al da aski  
orruntza begiratzia?  
Naikua dezu gazte-denbora  
nola zan oroitutzia,  
ain da gaiztua sasoi dan arte  
kristaua errenditzia.
- \* \* \*
- Uzt.: Puntua jarrita orain  
iruna edo launa.
- Liz.: Auxen da lanbidia  
jartzen didazuna.
- Uzt.: Ontan gozatzen degu  
geren osasuna.
- Liz.: Au utzita nola zuaz  
oraiñ Oiartzuna?
- Liz.: Ez al zagu tokatu  
leku dotoria?
- Uzt.: Nun billatuko degu  
beste bat obia?
- Liz.: Ai neroni banitzake  
onetxen jabia!
- Uzt.: Pena danak juan dira,  
auxen da gloria!
- Uzt.: Gipuzkuan nun dago  
onlako jardiñik?
- Liz.: Ezta beintzat egongo  
nunaitan egiñik.
- Uzt.: Eztezu idukiko  
etorria miñik.
- Liz.: Zeruak ere ote du  
onekin berdiñik?
- Liz.: Bertsuai utzita eingo  
ote degu dantzan?
- Uzt.: Toki ederrian zaude  
nere esperantzan!
- Liz.: Orduan zure sasoi  
ziaro juan zan.
- Uzt.: Len ere oso ona  
beñere ez nintzan.
- Uzt.: Zartuta ezin ondu  
len txarra izana.
- Liz.: Etzazutela sinistu  
gaur onen esana.
- Uzt.: Nik aitortzen dizutet  
eskasa nintzana.
- Liz.: Zartu ezkeror nor da  
dantzari zuzena?
- Liz.: Eziñ omen du jarraitu  
soñu-konpasian.
- Uzt.: Baña segitzen diot  
bertso-jolasian.
- Liz.: Etzera mintzatutzen  
lege eskasian.
- Uzt.: Nik aitortu dizutet  
gauzak nola zian.

Uzt.: Nere kulpa ezta ori  
aldebese banaiz.

Liz.: Obe zenduan akordatu  
baziñaden garaiz.

Uzt.: Ez al zera aspertzen  
zu orrelako gaiz?

Liz.: Orain erakutsitzen  
eziñ asiko naiz.

Liz.: Ez al geran ixilduko  
ai dira galdezka.

Uzt.: Buru guziya daukat  
oraintxen trabeska.

Liz.: Gizarajo onek baitu  
iru milla kezka.

Uzt.: Agur, gaur geio emen  
bertsorikan ezta.

# Uztapide, Lizaso, Agirre ta Basarri Zestoan, 1964-III-19

(Gai-jartzaille: Jose Mari Iriondo)

## Agurra

Uzt.: Alaitasunez betea dago  
ni sortu nintzan erriya,  
beragatikan astera nua  
kantatzen bertso berriya;  
entzuteko ere jendea pranko  
badaukagu zai jarriya,  
zorionean ikusten zaitut,  
Zestua maitagarriya.

\* \* \*

Iri.: Jarrai bear al dezu  
zeruan bertsoan?  
Uzt.: Ori pentsatzen egon  
izan naiz askotan;  
emen bezela gelditzen  
ez bagera lotan,  
kantatu bearko degu  
an ere batzutan.

Iri.: Ondo omen dakizu  
ruso ta inglesezez...  
Uzt.: Ori nik, Iriondo,  
esango'izut ezetz.  
Zertan zabilta ola  
ni jarri naiz lotsez?  
Ez al dakizu euskalduna  
naizela jaiotzez?

Iri.: Ikasi al dituzu  
*rock and roll* eta *twist*?  
Uzt.: Ez degu izan, aizu,  
guk orrenbeste bist;  
galdetu bear zendula  
ez liteke sinist,  
naikua pena onek  
neri ematen dit.

Iri.: Zertan ez dute monjak  
euskeraz mintzatzen?  
Uzt.: Askotan egoten naiz  
gauza ori pentsatzen;  
len pixkat ai ziranak  
ai dira lagatzen,  
euskaldunak asiyak  
orrekin kejatzen.

\* \* \*

Iriondo: Uztapide, Jose Agirre eta Jose Lizaso, irurak txandan egingo dute orain. Uztapide, Lasalletan maixua degu. Oanda (Agirre), emakumetakoren bat, bere mutil koxkorra jo egiten duela eta kejaz dator-kiona. Eta Joxe Lizaso, beste emakumea, bere mutil koxkorak ez duela ezer ere ikasten, eta au ere kejaz datorrena.

Asiera, oaingoan, Jose Lizasok eman-go dio. Iruna bertso.

Liz.: Aurrak azitzen ari giñan da  
or geunden pozaz txoratzen,  
gurasoari naigabe txarrak  
nunaitik zaizko etortzen;  
ustez mutilla eskolara nik  
pozikan nuan bialtzen,  
bañan ez digu apunte onik  
beñe etxera ekartzen.

Agi.: Jaun Zerukoak seme-alabak  
sanoak eman ditzula,  
bañan alare lasai bizitzen  
ez gera asiko sekula;  
neri umeak esan izan dit  
gogortxo jotzen dezula,  
ezta gezurra ardiyan kulpak  
bildotxak pagatze'itula.

Uzt.: Arrazoi ori egiya dala,  
Agirre, asi ikusten,  
guk kulparikan izaki ez ta  
or nola artzen gaituzten;  
jaio orduko beren semeak  
lañezaz bete zituzten,  
era ortako mutil koskorrai  
ezta errez erakusten.

Liz.: Nik bialdutzen detan mutilla  
ez da biyotzez zabarra,  
gizarajuak penaren pixu  
sarri eiten du negarra;  
ark aitortzen du maixu on bati  
beti badiola zorra,  
zure aitzaki ematen du ark:  
zerala biyotz gogorra.

Agi.: Onek umean kulpa eiten du,  
emen sortzen dira lanak,  
aingerutxuak maite ditugu  
gu gurasuak geranak;  
zigor azpian bildurturikan  
dauzkazu umetxo danak,  
asko jo gabe ezi litezke  
maixu ondradua danak.

Uzt.: Egun guzia or pasatzen det  
mutil oiekin ujuka,  
atzenerako ezin ezer ein  
ta asi bear burruka;  
zuen mutillak txikitandikan  
lañeza artua dauka,  
zuek etxeko kuziña txarrak  
ta maixuai bota kulpa.

Liz.: Guraso danak egoten gera  
geren aurrari begira,  
ezjakiñian diran mutillak  
noiz indartuko ote dira?  
Buru gogorak izan litazke,  
ez leizken gauzak eztira,  
lanera igual artuko'itugu  
ortan kapaz ez badira.

Agi.: Guk umetxoak bialtze'itugu  
zugana ikasitzera,  
jakinduriaz arlote eta  
negar-malkotan etxera;  
zuk gurasoak botatze'ituzu  
oso neurri eskaxera,  
bear bezela ezi itzazu  
maixu jatorra bazera.

Uzt.: Nik aurrez aurre esango dizut,  
ez naiz aiko atzetikan,  
eta gauza au esan biaizut  
lenbiziko itzetikan;  
pena aundia mutil oiekin  
dadukat biyotzetikan,  
lendabiziko erakutsia  
bear zuten etxetikan.

(Saio au ere Jesus Gaztañaga apaiz jaunari  
zor digogu. Milla esker).



# Uztapide ta Lasarte Abalzisketan, 1964-IV-12-an, Artzai Onaren igandean

**Meza ondoan,  
obispo jaunaren aurrean**

Las.: Nai eta nai ez, kantatutzera  
orain gaude beartuak,  
agintarian baimena ere  
gaude aurretik artuak;  
aundi ta txiki, danak dituzte  
gaur alkarrekin tratuak,  
obispo jaunai eskeintze'izkate  
beren erriko fruituak.

Mutil eta neska koxkor batek bildotsa  
eta gazta eskeñi zizkioten obispo jaunari,  
bertso batzuk esanaz. Urrena Lasartek  
ekin zion kantuari:

Las.: Zorioneko erregaliak  
emen dituzte urrean,  
gazte maiteak makurturikan  
obispo jaunari aurrean;  
erregaliak sortu dituzte  
beren biotz xamurrean,  
obispo jauna degu berriro  
artzai egin bearrean.

Uzt.: Auxe genduan, bada, Lasarte,  
oraingo emengo gaia,  
guk bagendukan or zer zijuan  
emendik ikusi-naia;

izan zaitea, bada, Lasarte,  
gizon prestu ta alaia,  
ez al dakizu len bera dala  
gure guzior artzaia?

Las.: Ara, Uztapide, erantzuteko  
asmoz beterik nenguan,  
berialaxe sartu zera zu  
arrazoiaren fonduan;  
erregaliak eman dizkate  
guztizko asmo senduan,  
ardi txarrikan ez da izaten  
artzai onaren onduan.

Uzt.: Oraingo unian baño geiago  
gu ezin giñezke goza,  
gauza abek ola ikusi eta  
nik artutzen dedan poza!  
Ikusten dira emen eskeintzen  
gazta ederra ta bildotsa;  
ori ezta ezer: Abalzisketak  
eskeñitzen du biotza.

Las.: Biotza emen artu al degu,  
ai Manuel, mingañean?  
Erregaliak sortu leitezke  
olako erri bikañean;  
nik erantzuna emango dizut  
guztiz era apañean,  
gazta ona ezta gaizki etortzen  
arkumearen gañean.

Uzt.: Ikusten degu nola dagan  
plaza guziya betian,  
guk nola kanta bear bezela  
olako egun batian?  
Aizia ere ain otza dabil  
etxe eder aben tartian,  
gure zai txutik eon ez ditezen  
laister ixildu gaitian.

Las.: Une txiki bat pasa nai gendun  
emen alkartasunean,  
itz bikañikan ezta sortuko  
gure azkartasunean;  
itz orrek beti on egiten dit  
neri estuasunean,  
erreztasuna ematen dizut,  
bukatu nai dezunean,

### Bazkalondoan

Las.: Nik nere zorra ordaindutzeko  
beti izan naiz itxua,  
Manuel maite, beste aldetik  
agintzen dago maixua;  
nik artua det bi edo iru  
kantatzeko abixua,  
nolabait ere egin bearko da  
oraingo pasadizua.

Uzt.: Agindutzia arrazoi dute,  
Lasarte, onelakuan,  
gu zertarako geran dakizu  
ununtz etorritakuan;  
etzan naikua lenago pixkat  
kantatutzia kanpuan,  
emen aixago kantatutzen da  
ondo bazkaldutakuan.

Las.: Xuxenak gera asitakuan  
gu alkarri erantzuten,  
al dan guzia saiatu gabe  
iñundik ez gera jutun;

arrazoiakin saio txiki bat  
oraintxe entzun nai zuten,  
lagun maiteak, jakin nai nuke  
ongi bazkaldu dezuten.

Uzt.: Ez al dituzu ikusten emen  
dauden kolore gorriyak?  
Begiratuta ezagun degu  
bapo gerala jarriyak;  
au da eguna eman diguna  
Abalzisketako erriyak,  
obe genduke eunero eingo  
balira apaiz berriyak. (1)

Las.: Obe genduke aste guziak  
olako egunak balitu,  
festak askotan arrotzen gaitu  
ta orduan nun kabituz?  
Emango dedan erantzun-bidez  
etzaitzela arritu:  
kolor gorriak badira baño  
neri etzaizkit gorritu.

Uzt.: Egin itzazu, aizu, Lasarte,  
zeure lagunen esanak,  
deskuidatutzen bagera iñoiz  
izketan ari geranak;  
janda're nunbait ezin gorritu  
izaten dirade lanak,  
governatzia alperrik du gaur  
zerbait gorritu eztanak.

Las.: Oraintxen ere kantatu dezu  
oso bide zuzenian,  
olakoxiak esaten jakin  
epokak datozenian;  
oraindik ere bertso bikañak  
badira almazanian,  
berdetu egiten naiz ni askotan  
governatzen naizenian.

Uzt.: Oraintxen ere eman didazu  
oso erantzun ederra,  
berez ortako sortua zera  
ta obeditu bearra;

batzuk gizona izaten dute  
eta zuk dezu giarra,  
kolore berde xamarrak baña  
badezu naiko indarra.

Las.: Zeuk dakizuna neure igarrian  
saiatzen naiz ni lanian,  
Manuel maite, zuk jartzen nazu  
betiko zer esanian;  
bikainxiago nitzan ni ere  
len sasoiko nitzanian,  
junturetako indarra jua  
orain zartu naizenian.

Uzt.: Lenago ere kantatu izan  
dizut nik zuri ederrik,  
oraintxen ere nere mingaňak  
ez al du ortako indarrik?  
Urdail erdiya kendu zioten,  
eztauka beste okerrik,  
orregatikan eztauka orain  
bazkai aundien bearrik.

Las.: Lenago ere zuk olakuak  
badizkirazu esanak,  
oso arrazoi fundamentuzko  
sendo dituzu emanak.  
Zeuk dakizuna, komeni al da  
kolpez esatia danak?  
Kafia artzian botako'itugu  
orain sobratu diranak.

(Bertso auek Tolosako sakramentinoei zor dizkie-  
gu. Milla esker).

(1) Egun artan meza berria emana zan Abal-  
zisketan.

# Uztapide ta Lasarte

## Amasan

(1964-IV-26)

### Meza ondoan

Las.: Jarriko al dizkiogu  
alkarri puntuak?

Uzt Nork erantzungo duen  
atera kontuak.

Las Laister bazkaltzeko ditut  
nik pentsamentuak.

Uzt Banekin etziñatela  
ziaro tontuak.

Uzt.: Beraz juan nai dezu  
laister bazkaltzera?

Las Ni ez nijua olako  
epoka galtzera.

Uzt Asi baño lenago  
aspertu al zera?

Las Obia izango al naiz  
emendik atzera.

Las.: Piztu egiten gera  
ondo bazkalduta.

Uzt Gero arratsaldean  
bear azaldu ta.

Las Gogoz jardungo gera  
lanari elduta.

Uzt Orain ez al gabiltz  
naiko motelduta?

Uzt.: Bertsotarako txarra  
baida goiz-partia.

Las Lanak sarri egiten  
baidigu kaltia.

Uzt Aundiya egin dezu  
ori esatia.

Las Ez al dakizu zer dan  
trapua izatia?

Las.: Edozer esaten det nik  
kezkarikan gabe.

Uzt Eta nik egin bear  
zure itzen jabe.

Las Entzuliak geienak  
asperturik daude.

Uzt Gu ere bada oraintxen  
aspertzen gerade.

Uzt.: Arratsalderako utzi  
bearko da lana.

Las Zu're gosetu ziñala  
negon antzemana.

Uzt Oraindikan ez dezu  
ikusitzen dana.

Las Danok egin dezagun  
bazkari on bana.

Las.: Saiua akabatzia  
ez genduke kalte.

Uzt Nik arrazoi emango  
nizuke, Lasarte.

Las Luzaroko langintza  
guk ez degu maite.

Uzt Oraingo aski degu ta  
bostak alderarte.

**Arratsaldean (1)**

- Uzt.: Emen jendia ikusitzen da  
etxe guzia betian,  
ai zer eguna daramakigun  
Amasako erri maitian!  
Eguna pasa bear degu guk  
umore eder batian,  
bertso batzuek kantatzen orain,  
Lasarte, asi gaitian.
- Las.: Neu ere zerbait erantzuteko  
desiatuturik negon,  
geure garaia iritxi da ta  
ixilikan ezin egon;  
ikusten baitet emen jendia  
zergatik bilduta dagon,  
anai-arrebak, lendabiziko  
Jainkuak arratsalde on.
- Uzt.: Asi ezkerro jarraitu bear  
zaio nola edo ala,  
gure aldetik Lasarte ta nik  
egingo degu egiñala;  
Amasako ta emen bueltako  
jendia ezta makala,  
ez nuen uste guri entzutera  
oinbeste etorriko zala.
- Las.: Ain nekosua eztute izan  
Amasarako bidia,  
nunbait zeukaten jaialdi oni  
erantzuteko idia;  
inguru ontako anai-arrebak  
geientsunak emen dia,  
al baldin bada gustora uzten  
saia gaitezen jendia.
- Uzt.: Amasa au da etortzeko ere  
oso leku egokiya,  
ta bisita bat egitea zun  
gaur askok erabakiya;
- gure bertso-lan au izaten da  
askotan oso txikiya,  
baña ezta au bakarrik ere,  
or dezute antzerkiya.
- Las.: Egokitzen dan guzia emen  
gogoz bear degu esan,  
orregatikan bildurik dagon  
jendiak aditu dezan;  
lentxiagotik jakin bagendu  
zeñen paraje ona zan,  
lenago ere gu bertsuetan  
izango giñan Amasan.
- Uzt.: Amaika bider egiten gendun  
guk onerako ametsa,  
eta gaur kunpli bearko degu  
len egiña zan promesa;  
desio gendun aspaldi baña  
eztegu izan erreza,  
orain penarik aundiña degu  
lenago etorri-eza.
- Las.: Uste gabeko txokoa degu,  
ikustia ezta kalteko,  
gaurko eguna goguan artu  
baitegu pixka bateko;  
onez aurrera ezer askorik  
eztaukagu esateko,  
ixildu egin bearko degu  
berriz agindu arteko.
- Uzt.: Lasartek ala agindu du ta  
ni ere nagon ixilla,  
zergatik emen aurreko aldean  
gutxinez badaude milla;  
ongi dakigu, oiek ez datoz  
gure bertsoaren billa,  
gure eingo da beste pixka bat,  
antzerkiya asi dedilla.

- Uzt.: Saio bat egin zagun  
puntu jarrita.
- Las.: Ortarako baigaude  
onuntz etorrita.
- Uzt.: Ixilik egotia  
alper-alperri-ta.
- Las.: Lanaren zale ziñala  
negon igerrita.
- Las.: Amasa nola degun  
ondo ikusiya...
- Uzt.: Ez gendun ikusiko  
dadukan guziya.
- Las.: Bertan pasako nuke  
nik nere biziya.
- Uzt.: Gaurko eguna beintzat  
ezta itxusiya.
- Uzt.: Emen ere urte dana  
ezta egiten jai.
- Las.: Beti ibili bear da  
zintzo eta alai.
- Uzt.: Ez dakit egunero,  
bañan gaurkuan bai.
- Las.: Biyar ere ez genduke  
lanikan egin nai.
- Las.: Astean sei egun ortxe  
dira lanerako.
- Uzt.: Ta zazpigarrenian  
ez naiz aterako.
- Las.: Etxian egotia da  
geure kalterako.
- Uzt.: Gaur asko ibili biar  
aruntz juaterako.
- Uzt.: Etxia dadukagu  
emendik urruti.
- Las.: Gauza orren bildurrak  
ibiltzen naiz beti.
- Uzt.: Egin bear deguna:  
eldu kotxen bati.
- Las.: Etzaitzela egon  
gauz orren bildurtti.
- Las.: Kotxerikan ez bada  
ni banua oñez.
- Uzt.: Esan asko egingo du  
baña bate eñ ez.
- Las.: Norbait errukituko da  
ondo itzegiñez.
- Uzt.: Orduantxen beteko  
zera atsegiñez.
- Uzt.: Erruki gutxi dago  
gaurko egunian.
- Las.: Guk billatutzen degu  
bear degunian.
- Uzt.: Zartu giñaden baño  
gabiltza lanian.
- Las.: Beti jarraitzen degu  
modu txukunian.
- Las.: Lasarte baño pixka bat  
zu zarrago zera.
- Uzt.: Ala ere neketan  
gaur ere gu gera.
- Las.: Lana egin bear guk  
betiko klasera.
- Uzt.: Zu etzera atrebitu  
txisme au artzera. (2)
- Uzt.: Gaur e kastigatua  
arkitzen zarrena.
- Las.: Txismea artzeko etzera  
biotan txarrena.
- Uzt.: Emen ezagutzen da  
zein dan alperrena.
- Las.: Baztarran utzi zazu  
al dan azkarrena.
- Las.: Ez al dira kejatuko  
or bertso geiegiz?
- Uzt.: Nik baneuzkan batzuek  
ikusiak begiz.
- Las.: Oraingo aski degu,  
azkenian berriz.
- Uzt.: Ni ixiltzera nua,  
ta errespeto aundiz.

Las.: Amasa aldeko eguna etzaigu  
guri aztuko iñoiz ere,  
anai-arrebak maite ditugu,  
emengoak batez ere;  
Manuel maite, saiatu gabe  
emen ez dago ezer e,  
len bezelaxe gure garaia  
iritxi da berriz ere.

Uzt.: Egiya da, bai, etorri dala  
garaia, nere laguna,  
ta berriz ere egin bear  
len esan degun jarduna.  
Ai zer ederki daramakigun  
Amasan gaurko eguna!  
etzaigu beriala aztuko  
emen ikusi deguna.

Las.: Izlari oiek jartzen dituzte  
gaur gauzak beren lekuan,  
bertsolariak gogor poztutzen  
dirade onelakuan;  
beti bezela alaitasunez  
saia gaitezen kantuan,  
guk alegiña egiten degu  
iñork agindutakuan.

Uzt.: Makiñatxo bat anai-arreba  
bildu gerade batera,  
eta, Lasarte, ikusi dana  
banijua esatera;  
emen egin dan antzerki ori  
ez baida gaizki atera,  
oraindik ere pixka bateko  
badala uste det euskera.

Las.: Antzerki orren alaitasuna  
oso izan da sakona,  
Euskalerrriak au du beretzat  
asko komeni zakona;  
gazte jendeak emen egin du  
langintza bat oso ona,  
gure aurreko jende-taldea  
ez da aserre egona.

Uzt.: Ez gaitetz izan kuzkurak eta  
ez gaitetz izan tristeak,  
ni asko poztutzen nau, Lasarte,  
gaur emengo albisteak;  
zuk badakizu biotza nola  
jartzen dun au ikusteak:  
nola euskeraz egiten duten  
neska ta mutil gazteak.

Las.: Or ikusten da gure euskerak  
eztula ordu esturik,  
ain errez nola itzegin duten  
negon ezin siñisturik;  
da oien bidez gure biotzak  
kantatutzeko pizturik,  
lagun daiogun al dan artean,  
eztu merezi tristurik.

Uzt.: Bai al dakizu zer gauz ederra  
degun emen ikusiya?  
Euskalerrrien erdi-erdiyan  
etzan festa itxusiya;  
oraindik ere eztute emen  
beren izkuntza utziya,  
pena da nolanai utzitzia  
amatxok erakutsiya.

Las.: Zuk bide ona artu dezu ta  
nola ez diot elduko?  
Samingarri dan gauza esaten  
ez nintzake motelduko;  
ibili giñan gure izkuntza  
nundik aruntz bialduko,  
ostro-berritzen asi da arbola  
ta ez da errez galduko.

Uzt.: Galdu dezagun ardura txarra  
ta galdu dezagun kezka,  
danak itxuraz portatzen dira  
emen mutil eta neska;  
lastima baña bukatutzera  
guaz orain emen pesta,  
pixka batian itxoin zazute,  
egin bear da zozketa.

Las.: Badakizute zuen onean  
geure asmoz nola gabiltzan,  
merezi dute oiek laguntza  
itxuran nola dabiltzan;  
zozketa ori ez galdu beintzat  
minutu batzun peskizan,  
agur, anaiak, agur, arrebak,  
ta guziok ondo izan.

(Bertso auek Jose Agirre apaiz jaunari zor  
dizkiogu. Milla esker).

- (1) Arratsalde artan antzerkia izan zan, eta onen geldialdietan kantatu zuten bertsolariak.
- (2) Magnetofonoaren mikrofonoa, alegia.



# Basarriren omenaldia

## Errezillen

(1964-V-17)

### Bazkalondoan

Egun ontan bertsolari asko bildu ziran Errezillen: Mitxelena, Lizaso, Uztapide, Zepai, Ondartza, Loidisaletxe, Albisu, Iburguren, Patxi Larrañaga... Bertso ederrik asko bota zuten; bañan orduan kantatutako guziak ezin jarri liburu ontan. Andik eta emendik banaka batzuk aukeratu ditugu, Uztapiderekin zer ikusirik daukatena.

Zep.: Etzetit uste iñon dagonik  
gaur emen aña jatorri,  
bertsua botatzen seme bakoitzak  
bildurrik gabe alkarri;  
onena zein dan eziñ liteke  
alde batera're neurri,  
gizon jatorrak biar dituna  
Errezillara etorri.

Loi.: Atzera beira negoen baño  
aurreratu naian nabil,  
jan-eraketik banun naikua,  
ez naiz gorputzetik debil;  
aundixiaguak dauzkat albuan,  
argatikan ari umil,  
goiko izarrak an diran arte  
bizi dedilla Errezil!

Uzt.: Idiazabaltik ununtz egin du  
Zepai onek birajea,  
bere erriya ikusitzian  
sendatu zaio ajea;  
eta Errezil goratutzeko  
izan dezu korajea,  
zuri egingo dizutela uste't  
urrengo omenajea.

Zep.: Ai, Uztapide, gaurko moduan  
sarri etzaitut ikusi,  
omenajeko ausentuakin  
nerekin etzaitetz asi;  
ni ez naute zuen graduan  
iñun oraindik ikusi,  
omenajerik ez egin bañan  
burlarik ez det merezi.

Uzt.: Ez nuen uste, Zepai maitia,  
nitzala ola zabartu,  
beti laguna izan zaitut nik  
ta etzaitut nai bazartu;  
lenago ere pizkorra ziñan,  
orain geiago azkartu;  
nik on-ustian esandakua  
etzazu burlatzat artu.

Liz.: Bi aiton abek alkarrentzako  
badituzte milla txiste,  
zer bururapen etorri zaidan  
agertu biar det laiste;  
urte batzuek juanak arren  
etzaite gelditu triste,  
urte gutxiko gerade eta  
ondo konpondu zaitezte.

Uzt.: Zarrak seguru laster atzena,  
eztago seguru aurrik,  
bañan etzaigu txartuko guri  
daukagun biotz samurrik.  
Oinbeste anai-arrebari nik  
nola kontatu gezurrik?  
Seguru dakit betiko ez tala  
emen guretzako lurrik,  
baña pekaturikan eztunak  
eztu eriotz-bildurrik..

(Bertso auek ere Jesus Gaztañaga apaiz jau-  
nari zor dizkiogu. Milla esker).

# **Lagunen oroitzapenak**

# Manuel Olaizola Olaizola

## “Uztapide II”

Manuel Olaizola Olaizola ditu izen-abizenak. Uztapide II-a bezala ezagutu izan da bertsolari munduan, aspaldi plazetatik erretiratu-ta badago ere. Bueno, ez dakigu onartuko ligukeen erretiratua den kontua. Berak, bertsolaria denik ere dudamudan jartzen baidu bere apaltasunean. Hala ere, asko gara Uztapide II-a plazetan ezagutu izan dugunak. Osaba, Jose Manuel Olaizola Urbieta, Uztapide bertsolari haundiari bezelaxe, jaiotetxetik dator-kio izen artistikoa ilobari, Manuel Olaizola Olaizolari.

Uztapide II-a 1939-ko urriaren 23-an jaio zen, eta bertan bizi, familia Zestoara bizitzera joan zen arte. Gaur egunean ere Zestoan bizi da famelia, Erdikaleko 9-an, lehen solairuan.

Manuel bederatzi senidetan hirugarrena da. Zazpi anaia eta bi arreba dira. Ogibidez okina da eta aurki jubilatzeko aukera izango duen ilusioa azaldu digu, asteko deskantsurik gabe, astelehenetik igandera eta goizeko lauretatik eguerdikoa hamabietara lana egiten duen gizon honek.

Bere anaietako bati bihotza txertatu berria zioten, kontu hauek jasotzera joan gintzaizkio-nean. Etsipenik beltzenean egon ondoren itxaropen izpiren bat piztu zitzaizela esan zigun Manuelek. Baina handik egun gutxitara irakurri genuen egunkarian Dionisio bere anaia zenaren eskela.

### Uztapide baserrian

Uztapide bertsolaria nola ezagutu zuen galdetu diogunean, honela erantzun digu Manuelek:

–Nik ezagutu nuen oiñez ikasterako, berak zaintzen ninduen askotan eta, txikia nintzanean.

Izan ere, osaba-ilobak Uztapide baserrian bizi izan ziren hamairu urtean. Baina oinez ikasterako ezagutu zuen Uztapide hura aipatzen diotenean, zer etortzen ote zaio burura Manuel ilobari?

–Zer esango dizut nik, bada? Askotan etxean eta gizon serioa zan...

–Jendartean bezain serioa al zen etxean ere? Bromarik-eta ez al zuen izaten?

–Bai, tartean bai, otorduko garaian-eta. Igual ni ere bere mantalean (magalean) egongo nintzan, eta bromak bai. Baiña gero, laneko orduan mugitzen zanean-eta, gizon serioa zan. Bestalde, kanpoan-eta asko ibiltzen zan. Eta ango kontuei buruan bueltak ematen asten zan, eta pentsakor askotan. Ez zuen nai izaten molestaterik-eta, askotan.

–Beraz, behin baino gehiagotan zuk “osaba, ez dakit zer eta badakit zer”, eta berak: “Hago isilik!”.

–Bai. Askotan bai. Ez txarra egiteagatik. Baiña...

### Lehen bertsoak

–*Bai al zuen etxean-eta, horrela, bertsoan aritzeko ohiturarik?*

–Ez. Ez nion askotan aditu nik. Ez zuen olako oiturarik. Tabernan bai. Gero taberna izan baigenuen etxean, Uztapiden. Baiña taberna jartzerako ere aldegin zuen, ordea. Iñoiz etortzen zanean-eta, bateonbat baldin bazegoen-eta, kantatuko zituen. Bestela, ez. Etxean, bakarrik, ez.

–*Zeuri inoiz kantatuko zizun?*

–Ni txikia nintzala, bai. Badauzkat, ni oso txikia nintzala, eskolara joan nai ez nuenean kantatutakoak. Eskolara asteko bezpera gauean, afaltzen ari giñala, nik amari ez nintzala eskolara joango. An geure baserrian zan eskola. Orduko maestra erdalduna zan. Erderaz ikasi bear zuten danak. Eta nik ez joan nai. Urrengo egunean ez naizela eskolara joango. Ni aitarekin lanera joango nintzala.

–*Eta?*

–Ni negarrez. Eta, ni konbentzitzeagatik, bere mantalean artu eta bi bertso kantatu zizkidan. Gurean anaia zaarrena eskolara-ko zeozer idazten-edo ariko zan, eta arek nola-ala artu-lardaskatu. Ondo-ondo artuta ez daude. Baiña orrela gorde izan dira zortziko txikian kantatutako bi bertso auek.

Zuk ori're badakizu eta ez da gutxi, arrazoi dezunean zeureari eutsi. Ta ez daukazunean ixilikan utzi, arek ez dakiena zeorrek erakutsi.

Kontseju ona dezu amatxok emana, ta txintxo bete zazu al badezu dana. Txikitan ikasi egin bear da al dana, aundia azitakoan eingo dezu lana.

### Eta eskolara

–*Zu eskolara joate aldeko bera ere. Konbentzitu al zintuen?*

–Bai. Orduko pakea, beintzat, orrela egin genuen, illuntze artakoa.

–*Eta gainera maestrari euskara erakutsi behar. Ez zizun lanteri ederra jarri! Puskaterako lana bai... (Manuelen algarra). Nolakoa zen Uztapiden zegoen eskola hura?*

–Oraingo oso desberdiña. Leenbizi, sarrera. Bilbotik edo ez dakit nondik etortitako maestra erdaldun bat zan, eta leendabizi *Cara al sol* kantatu bear izaten genuen asterako danak. Eta gero, antxe, jarrita. Dana erderaz. Dotriña asko. Erderaz ura ere! Txikitan, leenbizi, dotriña erderazkoa ikasi genuen zeozer, orain ez naiz akordatzen baiña.

*Gerra ondorengo lehen urteetako kontuak dira Manuelek kontatzen dizkigun hauek. Manuel bost-sei urterekin hasi baitzen eskolara. Ezer ulertu gabe, dena memoriz ikasi behar izaten zuten. Dotriña, aurrena. Gero matematiketako lau operazioak, lau ariketak. "Eta ortik aurrera ezer gutxi geio" Manuelek esan digunez. Urte batzuk lehenagora arte, hainbat eskoletan ez zuten jolas-tarterik izaten eskola-orduetan.*

–Guk bai. Errekrea izaten gendun. Izaten gendun piskat, bai. Amar bat minutu edo ez dakit zer izaten ziran. Baiña atari-ara irteteko ainbeste izaten gendun.

## Osaba bertsolaria

–Noiz somatu zenuen osaba bertsolaria zela? Eskolara joan nahi ez eta kantatu zizunerako jakingo zenuen osaba bertsolaria zela?

–Bai, bai. Etxe berean bizi giñan. Kanpora nola joaten zan, eta etorri. Eta nora joan bear zuen ere etxean esaten zuen. Arratsalderako joan bear bazuen, gurekin bazkalduta igual joango zan, “gero arte!” esanez. Gero, gu lotan giñala, goizaldera ere askotan etorriko zan.

–Eta bertsolari izate hori zer zen bazanekien, jabetzen zinen?

–Artean asko konturatu gabe, bearbada. Baiña bai. Zai egoten giñan beti ere. Osaba izan zan nik ezagutu nuen leen bertsolaria. Gero saioaren bat, orrela, bi bertsolariarekin-eta, entzun nuena ere bai, etxean. Azentziotan izaten ziran festak. Eta ura beti an izaten zan, orrelako zeozer izaten zanean. Maizenik Basarri izaten zuen bertsolari lagun. Gero Endoian bertan baziran bertsolariak. *Azkonarre*, esate baterako. Ezagututa nago Zubeltzu ere antxe kantatzen. Baiña geienetan, Basarri. Lagun aundiak ziran.

## Arruako telefonista, idazkari

*Garai bateko estratak, gurdibideak eta astobideak estaliz, autoz atariraino iristeko moduko bideak daude gaur egun baserrietan. Bestetik zen, ordea, orduan, telefonoa ere oso etxe bakanetan zegoen garaietan. Zenbait herrisketan telefono bakarra izango zen hasieran. Eta kontentu, aukera hori eskura zenean.*

–Orduan Arrua-goikoan zegoen telefonoa. Aruntza deitzen zuten, Uztapide nora edo nora bertsoara nai izaten zutenean. Orubeteko bidea zegoen andik gure etxera. Emakume bat joaten zan Arrua-goikoitik Uztapideraíño telefono-deia eramatera.

Zer ote ziran ibillera aiek ere! Paper batean apuntatuta ekartzen zuen abisua.

Askotan, gaiñera, aurrez alkarren berri zerbait jakiten zuten. Eta igual Basarri deituko zuen Arruako telefono orretara, emakume orri berriro andik bi ordura-edo deituko zuela esanez. Papera artu eta an joango zan zuzen Uztapidera, eta itzuli ere bai erantzunarekin, berriz deitzen zuenerako. Eskerrak *idazkari* zintzoa zuen!

## Txondor ondoko bertsoak

*Manuel Olaizola Uztapide II-ak ahaztua du txikitan ikasi zuen aurreneko bertsoa zein izan zen. Baina gogoan dauka txondorra sutu zeneko hartan osabak kantatu zizkionak.*

–Nik, jeneralean, bere kuartoan lo egiten nuen. Geienean irurok kuarto batean egiten genuen lo: osaba Manuelek, bere anaia Naxariok eta nik. Komunera jeiki naiz gau batean, leiotik begiratu det, eta etxearen gaiñeko aldean txondor aundi bat zuen egiña eta txondor ori su. Kuartora joan eta presaka esnatu nuen:

–Osaba! Osaba! Txondorra su dagoela!

Jeiki eta an joan ziran, eta txondorra tapatu. Nonbait tapa erori-edo egin zitzaion, eta sutan.

Urrengo egunean, basotik etorri berriro ere; eta, txondorraren bueltan zeudela, aita zanak esan zidan:

–Onezkero gogoia eginda egongo dituk eta botella bat ardo emaiek oiei.

Leen ere beste bat edanda egongo ziran igual; eta, botella ardoarekin joan nintzanean, bere leengusua eta inguruan zituanak bertsozaleak ziran, eta antxe kantatu zizkidan bi bertso.

Beste leengusu ori azkarra zan bertsoak gogoan artzen, eta gero onela jardun zitzaidan:

–Ori apuntatu egin bear dek, e?

Baita urrengo egunean piska bat gogoratzen lagundu ere; eta gutxi gora-beera onela izan ziran:

Mendira joan, bildu giñuzen  
abarrak eta enborra;  
eta egurrez ortxe ondoan  
egin genduan tontorra.  
Bañan gabean gaudela lotan  
ia pasa zan gogorra:  
ai, Manueltxo izan ez balitz  
akabo gure txondorra!

Egun guztia lanean pasa  
ta joaten gera lota,  
egia esan indarretikan  
bagaude naikoa jota.  
Gu lo gaudela ere okerra  
beti ortxe zai dago-ta,  
zu berriz ere gaban erdian  
begirazuntxo bat bota.

–Ez zizun lanteri ederra eman, e?  
(Parrea)

–Ez. Baiña, badakizu, umore oneko gizona. Serio, baiña illuntzean bildutakoan–eta broma ederra gastatzea gustatzen ziztaion askotan bere lagunekin–eta.

–Zure hartzaroan eta garai haietan txondorra maiz egingo zan, ezta?

–Pilla bat ezagutu det nik geure etxean. Baiña asko, e? Pilla, geure etxean.

*Ikatz hori saldu egiten zuten gero. Gurdian Arruaraino eraisten omen zuten. Han kamiona kargatu eta eramaten omen zuten.*

*Manuelek ez dauka gogoan zenbat denbora behar izaten zen txondorra ondo erretzeko. Baina gogoan du lan asko izaten zuela ikatza egiteak. Bai preparatzen eta bai gero, sutan zegoen bitartean, gau eta egun zaintzen.*

–Belar-zoiekin tapatuta egoten da. Eta, zulatu ezkerro, arnasbiderik izan ezkerro, su artzen du eta dana erre. Egurrak erre edo egosi egin bear du, baiña su artu gabe. Ori da bere sekretua.

**“Esnea erori bada, zertan egin negar?”**

*Ez artalde haundirik, baina ardi mordoska ezagutu zuen Manuelek Uztapiden. Bere eginkizunetako bat izaten omen zen haiek goizean biltzea eta jeiztea. Saiatu ere saiatzen zen ahal zuen hobekien eginkizun horrekin kunplitzen. Baina gauzak ez dira beti guk nahi bezala ateratzen. Ez eta Manueli ere. Ez, behintzat, behingo hartan.*

–Ardiak mendian edukitzen giñuzen, eta goizean ni joaten nintzan ardiak biltzera. Egun batean, artean amar bat urte edo orrela izango nituan, eta or erortzen zait nere kantin (marmita) ori, eta esneak danak lurrera.

Or etorri naiz kantin utsarekin etxera, eta negarrez piska bat. Orduantxe gosaltzen ari ziran, eta osabak:

–Zer dek, motell?

–Esnea erori zait eta!...

Eta, besterik gabe, bi bertso bota zizkidan zortziko txikian:

Artzaiak ere badu  
millaka istori,  
kantuan ariko zan  
makiña bat txori.  
Lau esne tanta bildu  
ta danak erori,  
lasai dabillenantzat  
egoten da ori.

Beraz entzungo zendun  
zenbait doiñu edar,

zuk, ardiaren billa  
mendi puntan zear.  
Esnea erori bada  
zertan egin negar?  
Emen ez du ortaiño  
fiña izan bear.

*Askotan, horrela, triste samar ikusten bazuen, pozteagatik kantatzen omen zizkion osabak bertsoak. Harek bai omen zekien esnea erori izanagatik etxean ez ziotela ezer ere esango. Baina ilobak berak estutzen, nonbait, bere burua. Hala ere, bertsoak entzutea aski izaten omen zuen umorean jartzeko. Poza sentitu bai, baina oso gauza zailtzat omen zeukan bertsoa. Beretzako ia ezinezko gauza bezala.*

### **Zestoako Bar Txoko zaharrea kantatuak**

*Baserriko lanak denak gogorrek direla esan digu Manuelek. Hala ere, eskolara joateko gogoak erabat galdu zituenean, ordurako hamabi bat urte bai eta etxeko lanetan hasi zen.*

–Eskolari joateari utzi nionean, ni ere baserrian asi nintzan lanean. Osabak ere bertan jarraitu zuan oraindik denbora batean. Nik bi anaia zaaragoak badituz; eta, geurok etxean asi giñanean, etxe batera jende asko ere bai, eta “beste leku bat billatu bear degu” esan eta Oiartzun alderako bidea artu zuten osabak eta bere anaia Naxariok. Ondo arreglatzen giñan, baiña... Oiartzunen baserri txiki bat artu zuten.

*Baina etxetik joan aurreko azken urte haie-tako batean Uztapidek kantatutako bertso batzuk gorde izan ditu Manuelek. Euskal Herriko baserri askotan artean garia egiten zen gerra ondorengo urteetako batean izango zen. Lekua, Zestoako Erdikalean zegoen Bar Txoko zaharrea. Utzi diezaiogun hitza Manueli, kontakizunaren haria azaldu diezaiogun.*

–Orduan garia errira entregatu bear izaten zan zerga modura. Urte batean, bi egin-

kizun egokitu zitzaizkigun egun berean: txaalaren eraman bear genduan iltzera maderira, eta garia errira ere bai. Aita eta ni joan giñan goizean txaalarekin. Gero osaba etorri zan gurdikada garia artuta.

Eguerdirako lan oiek danak egin giñuzen. Eguerdirako ez; goizago, amaiketarako-edo. Eta gero gibela jatera danok. Il genduan etxeko txaalaren gibela jan genduan Zestoako Bar Txoko zaarrea. Ni an ixil-ixilkan maai-puntan jarrita, gaztea nintzan artean eta. Amaiketako luzea, noski.

Kafea artzen geundela, or etortzen zaigu gariak pisatzen-eta egoten zan erriko gizona –oso ezaguna zuan osabak ere–, eta alboko maaian eseri, kafea artzera.

–Manuel –esan zion osabari–, gaur etxera joaterako bertsoen batzuk kantatuko dituk!

Laster bota zizkion. Pilla bat bota ere. Nik batzuk apuntatu nituan. Txaalaren pisua artzeko papera-eta eskuetan nitualako apuntatu nituan gizon ari kantatutako lau-bost bertso.

Erriko jauna, esango dizut  
eta mesedez aditu:

Uztapideko baserri zarrak  
soro ederrak baditu.

Gari ederra ekarri dizut  
ta ez daukat ainbat delitu,  
baiñan etxean guretzat ez da  
ezer askorik gelditu.

Garia zuri ekarri bear  
etxean jo eta laste,  
ta ortarako danok lanean  
ai gera zar eta gazte,  
oporrik gabe urte guztian  
beti naiz jai ta naiz aste;  
urrengo urtean ere izango  
al da zuentzat ainbeste.



Txaal ederra ekarri degu  
etxetikan zuzenean,  
arakiñaren ustez tamaiñan  
flako edo gizenean.  
Garia zuri utzi dizugu  
ta txala almazenean,  
baserritarren jornala auxe  
izaten da azkenean.

Danok ez degu errezetikan  
bizi izateko era,  
eta bakoitzak artu bear du  
etorkizunen aukera.  
Zuk badakizu gure etxeko  
berri gutxi gora-bera:  
pobre samarrak gerade baiña  
pozikan bizitzen gera.

Sarri itzegin izandu degu  
guk bear dan baiño geio,  
eta, erriko agintaria,  
etzaitz jarri serio.  
Gure etxean zer gelditu dan  
zeiñi zer inporta dio?  
Broma ederra pasatu degu  
ta ez du gutxi balio.

Izan ere, entzuten ari zanarekin serio samar jartzen ari zan gizon ura, tentatzen asi zalako damututa, nonbait. Baiña osabak ederki konpondu zuen dana azkenean.

### Leen bertso saioa osabarekin

*Osaba Uztapiden bizi izan zen garaiko bertsoetatik gogoan dituen azkenekoak direla bost bertso horiek esan digu Manuelek.*

*Oiartzunera joan eta gero ere, maiz etortzen omen zen osaba Uztapidera. Ez bakarrik bertso kontuak zirela medio; baita bestela ere, bisitatzera inoiz. Baina orduan familiarekin erruz hitzegin-eta bai; baina ez omen zen askotan kanturik izaten.*

*Bertsolaritzan eman zituen lehen pausoetan osabaren anparorik izan ote zuen jakin nahi izan dugu. Honela gogoratzen du Manuelek hasiera hura:*

–Ni, amasei-amazazpi urte nituala, asi nintzan pisikat kantatzen.

Ondoren, leen ere esan deguna, euskera aundirik ere ez genduan orduan, eta gero soldaduska txarra tokatu zitzaidan. Afrikan bi urte pasatu bear izan nituan. Eta orduan ere atzeratze galanta artu nuan. Lizentziatuta etorri eta ezta, ezta... Ezin ezer asmatu! Urteak ere txarrak ziran aiek. Dana galerazita, dana debekatuta zegoan. Baiña ori dana baiño txarragoa izango zan ez izatea nerez. Nerez izan banintz, oiek danakgatikan aterako nintzan.

–Zure plazaratzea gogoan izango duzu, noski. Lehen plazako saioa osabarekin egin al zenuen?

–Ez. Nik leendabiziko saioa Lasturren egin nuan *Artañola* zanarekin. Ez dakit entzutera badezun. Erren bat zan.

–Bai. Nik ez nuen ezagutu. Baina badakit izen-deituraz Prudentzio Egiguren zala.

–Maisua edo maisu bezela egoten zan, beintzat, baserrian. Noiz edo noiz entzun izango zidan etxean bertan, Uztapiden bertan, bertsoren batzuk kantatzen-edo.

–Lasturrera joan bear degu! –esan zidan bein.

–Ni Lasturrera nola joango naiz, bada?

Baiña arek bereari eusten zion: baietz, Lasturrera joan bear genduala, ango lanak errez egingo nituala-eta.

Alaxe, joan giñan biok Lasturrera, eta antxe kantatu nuan zer edo zer, orrela, jendaurrean. Zer kantatu genduan ez daukat ezer ere gogoan.

Ezer gogoan ez, baina bai hamazazpi bat urte zituela. Hori gogoan dauka Manuelek. Baita

ere osabarekin noiz eta non kantatu zuen aurrena.

–Uztapiden bertan kantatu nuan aurreneko aldiz osabarekin, Azentzioko festetan. Arreba batek orduko lau bertso artu zituan paperean. Or, neri iruditzen zitzaidan tartean bertso geiago ere izango zala. Baiña zailla izaten da orrela, aparatorik-eta gabe, entzutetik idatzira bertsoa pasatzea. Paper xaar batean an egoten ziran geroztik bertso oiek, eta galdu baiño leen neuk jaso nituan.

Saioari ekiterakoan, aren, osabaren, irteera askotan izaten zan:

–Zeu asi!

Eta ori esango zidan seguruenik neri ere:

–Zeu asi, nai dezun bezela!

–“Nai dezun bezela?” Neri errez segituko didazu, bai –erantzungo nion nik, eta neu asiko naiz:

Geu jaio giñan baserri ontan  
genduan gaurkoan zita,  
len bezelaxe gaur e gureztat  
etzan atea itxita.

Baiña, entzuleak, joango gera  
zuek pozikan utzita,  
itzal aundiko gizonarekin  
baidegu gaurko bisita.

*Osabak:*

Au jakitean Oiartzundikan  
bidea egin det alai,  
ainbeste jende entzuten auxe  
poza, arreba ta anai!  
Zuk nere itzala ta nik zurea  
izango ditugu nunai;  
gaur zu laguntzat edukitzea  
besterikan ez nuan nai.

*Nik:*

Gaurkoan biok kantatutzeko  
eginda zegoan plana,  
baiñan pentsatu egin bear da  
eta biok buru bana.  
Naiz ta saiaten naizen ni ere  
ondo egiten al dana,  
nere utsune oiek betetzen  
edukiko dezu lana.

*Osabak:*

Nik magalean artzen zintudan,  
ordun etziñan illuna.

Ta zeiniek esan? Orain zu zaitut  
bertsotarako laguna.

Ta memorian geldituko da  
gaur pasatako eguna,  
burua ondo daukagun arte  
iñoiz aztuko etzaiguna.

*Geroztik oso gutxitan kantatu omen du Manuelek bere osabarekin. Donostiako Anoetan kantatu ezina etorri zitzaion ondoren, Zestoan berarekin eta Liliberekin nola kantatu zuen Lengo egunak gogoan kontatzen duela osabak gogora arazi diogu.*

–Ni ere gogoratzen naiz kantuan jardun genduala; baiña ezer ere ez daukat gogoran –erantzun digu.

### **Kamaiña eta baba beltza**

*Manuel Olaizola Uztapide II-ak bere osabarekin bi ateraldi kontatu dizkigu. Gauza jakiña da Uztapidek, Araban eskolan ibili zenean, kubikazioak nola egiten ziren ondo ikasi zuela. Ez zitzaizkion gaizki etorri ikasketa horiek bere anaia Naxarioekin-eta baso-lanean ibili zen garairako. Lengo egunak gogoan liburuan kontatu ere egiten du eta, alperrik lanean ez jardutekoan, irabazirik nahi bazen, behintzat, fin saiatu behar, alde batetik, eta eguraldiare-*

kin eta lagunekin suerte piska bat behar, bestaldetik. Eta, horretarako, aurrez kontuak atera behar.

Bein Izarraitz aldeko Airo deritzan basoan ari omen ziren Naxario eta biak, irugarren lagun batekin, basoa botatzen. Oso zugaitz aundiekin borrokatu bear eta iru lagun motz samar gelditzen, ezin iritxita. Ala, onela esan izango zuen Uztapidek:

–Aste bukaeran, beera joaten geranean, halako baserritan mutil gogor askoa antxe zegok, eta orain etxean ez ditek olako lan askorikan, eta arixe esango zioagu etorri nai al duan.

Baita besteak onartu ere.

Etorri da asteburua, jetxi dira errira eta bai mutil gazte orregana urbildu ere.

–Irekin itzezin bear diagu.

–Zer dezu, bada, Manuel?

–Orain etxean ez daukak lan askorik, eta gu menderatu ezinda gabiltzak egur aundiak. Laugarren lagun bat bear diagu. Irabazten dana laurok partituko diagu.

–Ñooo! –erantzun omen zion sasoi bete-ko mutillak-. Mendian bi gauza daude neri gustatzen ez zaizkidanak.

–Arreglatuko diagu ori ere, motell, aal bada. Zer dituk, bada?

–An kamaiñan lo egin bear, eta baba beltza jan bear.

–Bada, an dauden bi onenak oietxek dituk; eta oiek ez bazaizkik gustatzen, alperrik dek! –esan eta utzi izango zuen aoa

bete ortzekin, saltzeko adiña sasorein jabe zan mutilla.

## Tolarean

–Barrio osoak sagardoa egiteko tolarea gure baserrian zan. Txandaka ibiltzen ziran auzokoak sagardoa egiten. Bat bazan sagardoari beti ur dexente, edo asko, botatzen ziona.

Gero, badakizu, sagardoak, barrikan dagoenean, irakin egin bear izaten du aurrena ontzeko, zikiñak bota eta garbitzeko.

Urte artan, ur asko botatzen zion orren urrena, gure txanda izan zan. Eta betiko modutsuan egin genituan sagardo oiek.

Andik egun batzuetara, ur asko botatzen zion auzotarrak galdetu zion osabari:

–Manuel, irakiñik egin al du sagardoak zuenean?

–Bai. Egin du.

–Gurean ez du, bada, oraindik egin eta...

–Urak, azpitik sua egiten ez badiozu, ez du irakingo. Azpitik sua egin bearko diozu.

*Horrelako ateraldiak gehiago ere izango zituela Uztapidek ez dago dudarik. Baina Manuel ilobak ez du besterik gogoan. Bertsoak ere bai omen ziren gehiago Uztapide baserrian, paper zaharren artean. Kalera jeitsi zirenean, seguruenik ere, bakarren batzuk galdu izango ziren ustea badu ilobak. Bestela, ez du gogoan, horrela liburuetan-eta jasoak daudenetatik aparte, osabaren beste bertsorik.*

*Manuel Olaizola Olaizola,  
Uztapide II,  
Endoia, Zestoa.  
(Nikolas Aldaik,  
grabatu eta paperaratua).*

# Jose Antonio Soraso Unanue

## Zubeltzu, Itziar

Uztapide ta Zubeltzuk Mardu-Etxeberriko tabernan alkarri kantatutako bertsoak.

Uztapide:

Mundu onetan biar genduke  
danak bizitza alaietan,  
aste-egunian lan puxka bat ein  
eta deskantsua jaietan;  
zertan ibilli errietaka  
matraka ta armoniyan?  
Nere laguna, galdetzen dizut:  
zer berri dago Mardaian?(1)

Zubeltzu:

Al dan moduan esango dizut  
nik dakidanen izkuntza,  
ez al dakizu lenagotikan  
nolakua dan morrontza?  
Urtaik pranko jua zaizkit eta  
tristia daukat biyotza,  
gañera berriz aurten neguan  
beti degu aize otza.

Uztapide:

Aizazu, aita, etzaidazu jo  
neri oinbeste illeta,  
zuk badakizu zein aldetara  
dantzatutzen dan trinketa;

beste bat igual eukiko dezu  
etxian ondo gordeta,  
aize otzari gogor eiteko  
dezu panazko txaketa.

Zubeltzu:

Ta nik oneri artutzen diot  
alako erreparua,  
begira zazu zer koloretan  
jarrita daukaten burua;  
nai nuke baña palta det emen  
neretzako anparua,  
txaketa baño obia nuke  
baneuka odol berua.

Uztapide:

Zu baño gizon pikaruagorik  
nik eztet asko ikusi,  
badaukazula iruritzen zat  
makiñatxo bat malezi;  
ziri bat sartu Satanasi ta  
bestia berriz Judasi,  
morroi-papela kanpua egin  
eta etxian nagusi.

Geiago ere jardun omen ziran, bañan  
bertso auek eman dizkiguna, Zubeltzu  
bera, ez da ortik aurrerakoaz oroitzen.

\* \* \*

Egun batez, Zubeltzu Itziarko bere illo-  
ba baten eztaietan zan. Uztapide ta Lasar-  
te ere an ziran. Bazkalondoan, auek ber-  
tsotan asi zitezen, Zubeltzuk onela kantatu  
zuan:

Nere kristauak, eztek atsegin  
lagun auen aldamenian,  
nunbait barrendik apenas dauden  
oso sosegu onian;  
endemas ere bertsolai eder  
oik etorri diranian,  
onezkero garaia dek eta  
asi zaitetzte lanian!

Ala, Uztapide onela asi zan:

Alkarrengana artu baizuten  
oso kariño gartsua,  
eztirade bela pasatuak  
Maietza eta Martxua;  
ezkonberrientzat orain dijua  
lendabiziko bertsua,  
urte askuan izan dezatela  
bizitza zorionsua.(2)

\* \* \*

Uztapide Tolosan zan, bertsolari-txapel-  
keta batera joana. Agian, 1945-gn. urtekoa  
izango zan, beraz. Ondoren, taberna bate-  
ra sartu ta an Zubeltzu bertsolaria topo  
egin zuan. Bertso au kantatu zion:

Nere denboran egiña naiz ni  
makiñatxo bat arrantzu,  
nere aiskide biotzekua,  
bosteku ori ekatzu;  
zure gorputzai komeni arren  
orrenbeste bat deskantsu,  
beinguagatik bertso polit bat  
bota zaidazu, Zubeltzu.

Ta Zubeltzuk era ontan erantzun zion:

Zu baño lagun maitiagorik  
eztet izandu munduan,  
noizbait biar ta juntatu gera  
biak alkarren onduan;  
iñoiz ainbeste memori eder  
euki ez arren buruan,  
dozen erdi bat botako'izkizut  
gôratzen diran moduan.(3)

\* \* \*

Zubeltzuri bertso ta argibideak artzen ari  
nintzaiola, etxeoandreak, aren illobak ale-  
gia, etorri ta onela esan zion:

–Bota bertso bat, Jose Antonio! Bota ber-  
tso bat, orain asmatua!

Eta onek auxe kantatu zion:

Beti biar degu guk  
zerbaiteren pake,  
baña ez gera engañatzen  
gezurraren truke;  
onek debalde kantua  
oaiñ entzun nai luke,  
merienda ekartzia  
guk obe genduke.

Magnetofonoa martxan baigenduan, ber-  
tso au ere artu zuan...

## Omenaldia

1958-ngo Garagarrillean, San Luis egu-  
naren aurreko igandean, omenaldia egin  
zioten Zubeltzuri Itziarko luistarrak.

Bost bertsolari etorri ziran: Txapel, Uz-  
tapide, Basarri, Lizaso ta Artañola.

Meza ondoan saio polita egin zuten. Or-  
duan kantatutako bertso bat oso ezaguna

da Gipuzkoan. Uztapidek bota zuan.  
Emen, Zubeltzuk berak esaten duan eran  
jarriko degu:

Jose Antonio, nere laguna,  
ia gogoratzen zazun:  
ni Olaberrin morroi negoen,  
zu bizi zian Zubeltzun;  
zuk sorotikan bertsoa bota,  
nik bestetikan erantzun,  
nik dakizkiten ederren oiek  
zuri ikasiak nizkizun.

Bikaiña bertsoa, bai bertsolaritzaren al-  
detik eta bai gizatasunaren aldetik ere.

Sebastian Salaberriari (Oriamendi, Aiete,  
Donostia) beste onela jaso nion bertso au:

Ni Olaberrin izaten nintzan  
eta zu berriz Zueltzun,  
ez dakit garai artako gauzak  
gogoratutzen zaizkizun;  
mendi batetik zuk kantatu ta  
nik bestetikan erantzun,  
gaur dakizkiten onentxuenak  
zuri ikasi nizkizun.

*Zubeltzu eta Saikola bertsolariak*  
(Auspoa 93) (1970) liburutik.

- (1) Mardaia Zubeltzuren baillara da.
- (2) Zubeltzu bera, Lasao-aundi, Mutriku.
- (3) Zubeltzuri jasoak.

# Akilino Izagirre Amenabar

## Zepai

(1906-1971)

Bertso au Zepai bertsolariak Oiartzungo Gurutzen kantatua omen da, ballara ontara Uztapide eta biak bertсотara etorri ziran batean:

Donostiko *Zarauztarra*-tik atera<sup>(1)</sup>  
eta arturik tasisa,  
martxa orretan uste nuen nik  
juango giñala Parisa;  
batere ankik nekatu gabe  
Oiartzunaño ain aisa,  
sonbrerorikan ez degu baña  
gabiltz markesaren gisa.<sup>(2)</sup>

\* \* \*

Zepai ezkondua ta Uztapide mutilzarra ziralarik, alkarri botiak dira urrengo bertso auek:

Zepaik:

Biyok batian ezkonduzteko  
atera gendun sistema,  
nik emandako arrazoyikan  
orrek etzuen istima;  
bera dalako galdu baiitu  
gorputza eta anima,  
salba leikela kondenatzia  
ez al da gauza lastima?

Uztapidek:

Il ondorean joko'izkigute  
erremateko kanpanak,  
andik aurrera mundu onetan  
ditugu ordu bakanak;  
gauz guztik zuzen kunplitu eta  
joaten ote dira danak?  
Uztapideri pakian utzi,  
zeurekin dituzu lanak.<sup>(3)</sup>

\* \* \*

Zepaik Uztapideri Ereñozun:

Aizu, Uztapide, galdezka negon  
aspaldi ontan nun ziñan,  
alkar ikusi gabetandikan  
nola baigeunden antziñan;  
ni bazterrera utzi ninduzun,  
Basarringana jun ziñan...  
Garai artan zu ni nitzan baño  
askoz obea etziñan.<sup>(4)</sup>

\* \* \*

Uztapideri bein batez kantatua:

Onek Oiartzunen dauka  
bizi dan kaiola;

andria ikusi det  
malkua daiola,  
onekiñ esposatua  
damutu zaiola...  
Arantzazuko Amak  
lagundu deiola!(5)

\* \* \*

Itxasondon bein batez kantatua, Basarri  
ta Uztapide ere an zirala:

Jende askok egiten  
die molestia,  
pena artutzen det nik  
ori sinistia;  
Basarri ta Uztapide,  
bata ta bestia,  
nekin asitakoan  
geiago ezta.(6)

\* \* \*

Eskuz idatzitako kuaderno batetik ar-  
tuak; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion kua-  
derno ori:

Basarrik:

Izkiñan jarri kordela eta  
oker berrogei aldeta,  
lana egiteko gizonak bear  
pixka bateko arreta;  
ikuste'ituzun nagusi jaunak  
daude asarrez beteta,  
bartarrasian eroi dalako  
zure atzoko pareta.

Uztapidek:

Porlanan billa goizian juan,  
allegatu da berandu,

orregatikan nere paretak  
mortero txarra izan du;  
zerbait esaten asi ezkeroz  
kopeta beltza jartzen du,  
naiago nuan duro bat bañan  
azpian artu bazindu!

Zepaik:

Arrazoi orri aldamenetik  
eldu bear diyot nik *rau*,  
lenago ere tripako miñak  
pasa izan det zenbait gau;  
sei eun lanian aritu eta  
abonatzen dizkigu lau,  
pioiak bañan lenagotikan  
despatxatu bear da au.

\* \* \*

Beste era ontara ere bai. Eskuz idatzita-  
ko paper-punta batetik ditugu. Ez naiz  
oroitzen paper-punta ori zeñek emana de-  
tan:

Basarrik:

Kordela jarri kantoyian da  
oker berrogei aldeta,  
obra onikan ezin atera  
zu argiñ txarra zera-ta;  
zerbait esaten asi ezker  
bezten du, berriz, kopeta,  
aiziak atzo an bota zuben  
zuk egindako pareta.

Uztapidek:

Oker dagoen gauza ez dezu  
askotan egin zuzendu,  
porlanan billa goizian baña  
gero etorri berandu;



orretxengatik nere paretak  
mortero txarra izan du,  
duro bat baño naiago nuben  
azpian artu bazindu!

Zepaik:

Bein nonbait edo ala bear da  
juntatu ziñan gugana,  
ta bidaldu nai egin ezkeru  
ez daukat denbora joana;  
lana gaizki egin ta pagatu bear  
nagusiyak oi du pena,  
beangatikan bialdutzeko  
artuta nago ordena.

Uztapidek:

Neri palluak billatziarren  
gezurra esaten dezu rau,  
aspalditxo ontan tripako miñez  
badaramazkit zenbait gau;  
sei egunian lana eginda  
apuntatutzen dizkit lau,  
argiña baña lenagotikan  
despatxatu bear da au.

Onako au Itsasondon kantatua da. Aldi  
artan Basarri zan puntu jartzaille:

Abendua diagu  
ollagorren illa...

Uztapidek:

Gaur goizean alegiñak  
egin ditut billa,  
etxera eraman e bai  
bosteunetik milla,  
arrapatu ez duana  
or konpon dedilla's

Zepai bertsolaria,  
Akilino Izagirre Amenabar,  
Errezil / Idiazabal.  
*Zepai bertsolaria* liburutik,  
*Auspoa* 107. 1971.

- (1) *Zarauztarra* Donostiko taberna bat da.
- (2) Pio Retegi, Arane baserria, Ugaldetxo, Oiar-  
tzun.
- (3) Antton Kortajarena, Zizurkil.
- (4) Pablo Zubiarrain, *Ernani-Txikia* bertsolaria,  
Ernani.
- (5) Zepairi jaso.
- (6) Julian Albizu, Arriaran, Beasain.

# Joxe Lizaso

## Azpeitia

**A**urrenetako bertsolari urbano edo hiritartzat jo beharko genuke Jose Lizaso Mendizabal, baldin eta kontzeptu horretaz sortzez kaletarra izatea ulertzen bada, behintzat. Jose Azpeitiko Enparan kalean jaio baitzen 1927-ko martxoaren 10-ean. Aitona zestoarra zuen, Ipintzakoa.

Juli Iraola Bidaurretarekin ezkondu zen. Urte askoan, sute batek eratxi zuen arte, Azpeitiko Landeta auzoan, izen berekoa zen taberna-jattetxe bat gobernatu zuten. Jose eta Juli aitona-amondurik aurkitzen dira gaur. Bi seme dituzte: Sebastian eta Bixente.

Azpeitiko Elosiaga auzoko Añota sagardotegian jarri zigun berarekin egoteko hitzordua Joakin Berasategik. Beti bezain gizon prestua aurkitu genuen Jose, 2000 urteko uztaialak 20-a zuen arratsalde hartan.

Jose Manuel Olaizola Urbietta, "Uztapide" haundia, noiz eta nola ezagutu zuen galdetu, eta oso aspaldiko oroitzapenetara jo behar izan du Jose Lizasok.

### Uztapide noiz ezagutu zenuen?

–Noiz ezagutu nuen? *Bueno...* oiñez ikasi eta andik aurrerako asko gabe esatera nijoan. Bazan *Albitxuri* izeneko taberna bat Azpeitian. Garai batean *Zepakoa*-edo izandakoa zan, or Etorra aldekoa-edo, taberna

orretan. Kantu-otsak eta bertsoak or somatzen nituen nik; eta izaten da, bada, barruko tiraizo ori. Griña or piztu zitzaidan. Aruntza arrimatu eta ezagutu nuen Uztapide ere.

Aiek zer susma etorri, egun-pasa egin eta illuntzean ez ziran presaka etxera joan oi zan kuadrillakoak. Bere leengusu Urtaindarrek-eta osatzen zuten or talde bat, Endoia alde orretatik etorri eta presakor agertzen ez zena. Serenoak leenago asperitzen ziran aiek tabernan baiño, ate ondolan zai!

### Uztapiderekin leen aldiz bertsoan

*Elkar ezagutu eta elkarrekin hitzegiteko eza-gupidea ere berehala egin zutela aitortu digu Jose Lizasok.*

–Orrela, leenbizikotakoa bezela daukat, Amezketara joan bear eta lo emen egin bear izan zueneko. San Bartolome bezpera zan. Urrengo egunean Amezketara joan bear bertsoara. Garai artako konbinazioak orrela izaten ziran. Endoiatik Amezketara joateko, bezperan Azpeitira etorri, emen lo egin, urrengo goizean Tolosarako *korreoa* artu eta orrelako tratu-maneruak.

Orduan *Pedroneko* tabernan eskatu zituen afaria eta oea. Eta emen bazan urnietar bat,

Blanco, telefonotan enpleatzen zan bat, txistetan-eta izugarria zana; oso bertsolari polita, gaiñera.

Egun artan beste bermeotar batzuk-edo, egun-pasa etorri eta beraiekin juntatu eta an ziran alkarrekin. Lagunartera arrimatu zitzaizkien batzuk etorri zitzaizkidan etxera billa. Joan nintzan ni ere eta bateonbategen zerbaite esan zion Uztapideri.

–Joño! Orain arte isilik nola arraio egon aiz, bada? –esan zidan.

–Gauza ez naizelako –erantzun nion.

Orduantxe bertso banaka batzuk kantatzen asi giñan; 1945 inguru ori izango zan. Arrezkero ondo zaintzen nuen nik ura ferrira noiz etortzen zan-edo.

Orrela egin nuen Uztapideren ezagutza. Naiko gazterik. Basarri, ez. Basarri geroxeago ezagutu nuen.

### Uztapideren orduko bi bertso

*Une gogoangarriak izan ohi direla pentsatuz, lehen aldiz Uztapiderekin kantatzeko zoria izan zuen egun hartako bertsorik gogoan bai al duen galdetu diogu Jose Lizasori. Askori ezagutarazi dien bi bertsoren berri eman digu Jose Lizasok. Jose Blancori Uztapidek egun hartan kantatu zizkion bi bertso dira.*

–Gerra ondorena zan –esan digu Jose Lizasok–. Guraso asko semeak nun ziran berririk gabe bizi ziran, eta seme-alaba asko gurasoak nun zituzten aztarnarik gabe nola zeuden eta... ortik sartu ziran beñik-bein.

Blanco orrek –nik ez dakit, bada, bere buruari zer billatu zion–, or kantatu dio erdi-erditikan berak ere ama bazuela, baiña aitarik ez.

Beste *belarri aundiak* ez zeukan, ez, pentsatzen denbora askoan egon bearrikan erantzuteko:

Bein bear eta Azpeitiara  
etorria naiz suertez,  
Blanco, zurekin elkartua naiz  
gaurkun aspaldiko partez.  
Beraz, orduan ama badezu  
eta aitarikan batez,  
Jesus bezela sortu al ziñan  
Espirituan bitartez?

Jose Blanco orrek erantzun zion bide bazarrean arrapatutakoren bat izango zala edo orrela, naiko diplomaziarekin.

Eta Uztapidek:

Nolabait ere udaberrian  
sortu oi dirade susak,  
oiek dirade nundik datozen  
jakiten ez diran gauzak.  
Igarri ezkerok bat ala ziur  
bildu bearrean jentuzak,  
gero argatik sortzen zaizkigu  
olako *Niño Jesusak*.

*Lagunarteko bertsotea ikertzeko eta Uztapideren freskura eta azkartasuna ezagutzeko aztertzea merezi duten bertsoak dira, Jose Lizasok oraindik ere irrifarrez gogoratzen dituen bi bertso horiek. Eta begira zein aitorten egin digun:*

–Garai artan, orrela, bertsoak entzutera joan ezkerok, dozena erdi bat bertso edo lau-bost bat bertso urrengo egunean akordatzen ziran. Gaur, berriz, arrezkero zenbat milla kantatu ote ditudan nola-alakoak. Ez zer kantatu degun eta ez zer aditu degun, nortxo bidez edo zertxo bidez kantatu degun, igual urrengo egunean jakingo dezu; baiña beste egun bat joaten zaizunean, aaztu zaizu.

### Uztapideren izakera

–Uztapide, gizon bezela, izugarria zan. Izugarria eta azkarra, gaiñera. Buruz oso

azkarra. Bertsotan ona, baiña pertsona eza- gutzen ohea. Arek pertsona ezagutzen ba- zuen birtute bat. Nola orain esaten zaie isilka ibiltzen diran oiei *policía secreta*-edo? Ortarako balioko zuen arek seguru aski, ala iruditzen zait, ez biotzez alakoa zalako baiña. Gerra ondorengo garaiak ziran eta edozein erri koskorretara joanda ere, or- duan, badakizu, nun zenbiltzan gaur bai- ño geiago pentsatu bearra zegoen denbo- ra aietan.

Amaiketakoa egin arte zorro-zorro ibili- ko zan. Bateonbat arrimatuko zan, kon- tzejalen bat-edo, eta antzemango zion egu- na pasatzeko moduko gizona zan edo peligroso samarra zan. Onela bazan, auxe esango zizun:

–Egin bearrekoak egin eta martxa, anka egin bear diagu emendikan.

Ortan ikaragarria zan.

Bestalde, buru ona zuen eta, gaiñera, bu- rurik ez zitzaion ondutzen. Arritzekoa zan arena. Guk bi edo iru kopa geiegi edaten baditugu, mingain baldar au aoan kabitu ezinda gelditzen zaigu. Ura, berriz, or- duan-eta ederragoa kantuan. Nik gizon ura ez nuen bein ere ikusi burua mozkor- tuta.

Balantzak egin eta sillei eta maaiei bul- tzaizo galantak eman bai. Baiña aurrez au- rre eserita kontuak esaten, ari ez zitzaion mozkorrik antzematen. Arek bazuen bu- rua amar gizonentzat lain. Ari mozkortzen zitzaizkion, baiña anak.

Iñoiz orrela komunera-edo joateko al- txatu maaitik eta onela esango zizun:

–Ño! I oraindik ondo ago!

–Ondo? Zer arraio dezu zuk, bada?

– Zer dedan? Au dek mozkorra!

–Mozkorra? Zaude isilikan!

Kantuan eta izketan normal gizona. So- lamente jeikitzen zanean erruki nituen, au-

rrean arrapatzen zituen pasoa ziran tra- bak! Ez, ez. Ortan izugarria zan!

## Uztapideren drogak

*Bertsotarako pizgarri bezala Uztapiderentzat koñaka eta fariasa izan zirela entzun izan du- gula adierazi diogunean, Jose Lizasok baitz esan digu.*

–Asi goizetik eta eguna, bai ardotik eta bai sagardotik trago egiñez pasako zuen. Zerbeza edaten ere ona zan.

Oiek danak orrela goitu arren, afalon- doan pattarra. Baziran orduan bi *Terry* ko- ñaka marka. Sare oriduna bata, eta sare zu- riduna bestea. Uztapidek sari oriduna nai izaten zuen. Kopak emakumeek josteko erabiltzen dituzten titareen antzekoak iza- ten ziran: ttiki-ttiki batzuk. Bertso bakoi- tzean bat ustu oi zuen. Eta botella. Ez egun batean, e? Arek urteetan egin zuen ori.

## Ateraldi fiñeko bertsolaria

Neretzako, Uztapideren meriturik aun- diena orixe zan. Leen esan dedan Blanco ori beti zegoen parrez parre, eta arek ate- raldiren bat egitea normala zan; erbia be- zela beti zai egoten zan eta.

Baiña bestea zorro-zorro egoten zan bere kopeta astun arekin. Eta botatzen zituen disparate aiek? Denak parrez leertzen, eta bera leenean. Ortan izugarri zan Uztapide!

## Santo Tomasetan

Santo Tomasetan, urte batean, Donostian giñan Uztapide, Basarri eta ni, *Biurtun* ta- bernan. Basarrik bere garaian aldegin zi- gun.

Serenok ere bi-edo barruan bagiñuzen, eta naikoa berandu erretiratu giñan.

Urrengo goizean Arrasatera joan bear genuen. Orduan ez zegoen, gaur bezela, etxetik ordubete leenago atera ta araiño joaterik. Otz egiten zuen. Jeiki gera. Bañu-gelako leioak patio batera ematen zuen, eta nere besoa baiño aundiagoko *kandela* zaarrak ikusten ziran, izotzak eraginda.

–Ikusten al dituzu oiek, Manuel? –nik.

–Bai. Botia izango dik ederra! –arek.

Goizean esnatzen zanean, dardarizoa izaten zuen arek, barrenak bere onera eka-  
rri arte, eta onela asi zitzaidan esaten itu-  
rri aurrean:

Jaunak, zelebrea da  
gure ibillera,  
antzemango al diozu  
gutxi gora-bera.  
Ura, berealaxe  
ator masaillera,  
faborez ez adi etorri  
bizkarrean bera.

Goizetik, jeiki zanerako, umore orrekin.  
Ortan izugarria zan.

## San Josetan, Baigorri

Urte dezentez geroago, San Jose egunez joan gera Baigorriara. Emendik gu biok gi-  
ñan. Gero, Xalbador zana, Mattin zana, Zu-  
bikoa zana eta laugarrena zein zan ez naiz  
orain akordatzen.

Goizean, amaietakoa edo dalako ori egin ondoren, saio bat egin genuen nola-  
-ala plazan. Gero bazkaltzera joan giñan,  
eta jaialdia arratsaldean izan zan, zine mo-  
duko koskor batean.

Xalbador ona zan. Bale. Baiña aotik aora baiño obea zan bertso jarrietan, denbora-  
rekin idazten. Liburuan azaldu zan Xal-  
bador ura nik ez nuen bat-batean soma-  
tzen.

Orduko artan gai bat eman zioten, itxu bati iru bertso kantatzeko esanez. Adituko nituzke berriro ere gustora bertso aietxek oraintxe. Baiña ola, ildakoak piztutzeko moduko bertsoak ziran. Eta Uztapidek esan zidan:

–Oi, oi, oi! Nora etorri gaituk, Jose?

Ortarako, leenago ere esan zidan:

–Gaur Xalbadorek egun beltza dik. Beno, zer egingo diagu, guk ere izaten dizkiagu eta?

Iru bertso aiekin zine guztia bereganatu zuen. Uztapidek esan zidan:

–Aldi oro izaten dek emen olakoren bat.

Bertso aiek jakingo nuke nik noiz sartuak ote zituen kolkoan. Kolkoan ez-ezik, enboteillatutakoak ere bazirala esango nuke.

Pasa zan ura, eta gero bidean berriketan eta abar; baiña ez zitzaion Uztapideri gustatu

–Txarrena askotan orixe izaten da –esaten zidan–. Zu sano-sano aalegitzen zera, eta konturatu ere bai gai-jartzaillearekin jakiñaren gaiñean edo ixilikan konpontxo eginda dagoenik badala. Esatekoa ez da, baiña gertatu askotan egiten da.

Etorri gera, bada, etxera. Bere andrearen jaiotetxera joan giñan. Taberna zeukaten orduan. Gaueko amarrak alde ori edo ez dakit zer izango zan.

–Kontxita, gaur ere okerra egin degu, bada! –esan zion emazteari iritxieran–. Eguna Iparraldean pasatu eta *Voltissier*-ik gabe etorri ez gera, bada, etxera?

–Zuek? Nik badakit zuek zer egingo zenuen. Goizean muga pasatu orduko artuko zenuen mordoska bat eta danak erre!

Arrazoi zeukan Kontxitak. Artean leengo zubi zaarra bakarrik zan muga pasatzeko. Bederatzietarako an frontoian egin

zituen egin bearreko diru aldaketak, eta esan zidan:

–*Voltissier* batzuk artu itzak, batere gabe natxeok eta.

–Bale.

Berrogei ta amarreko paketea artu nuen. Erditik bi zati egin eta bat neri eman zidan. Eta illuntzean etxera etorri giñanean, bat ere ez. Biok batere gabe!

Ordurako, aurdunaldian aurrera etorria zegoen Kontxita. Orduak ere aurrera eta senarrari kejatu zitzaion:

–Etxera ere joan bearko degu, bada, Manuel! Ez al nauzu ikusten zein posturatan nagoen? Au bada gizona erretiro kontuetan-eta!

Eta Uztapidek:

Ezkongaietan parranda sarri, ezkondu eta maizago, naiz ta andreak esanakarren etxeratzeko goizago.

Lagunarte au utzita joaten, andre kuttuna, gaitz dago. Ez al zekizun ni nor nintzaden ezkondu baiño lenago?

Ordurako mozkor-mozkor eginda. Zer egingo diozu, bada? Uztapide bakarra zan!

### **Txapelketak eta lagunarteak**

Uztapide txapelketetan-eta gu baiño geiago zan. Baiña bere onena ere txapelketatik kanporakoa zan. Lagunartean askoz ere geiago zan ura.

Baiña txapelketan, nere kontzientzira-ko, geiago zan *Aundia*; Basarri, alegia. Askori entzun izan diet Uztapide ohea zala. Bakoitzak berea defenditzea normala da.

Nik Basarri bezin maitea nuen Uztapide ere; baiña ez nintzake atrebituko esaten Basarri baiño Uztapide geiago zanik. Basarri Basarri izan zan. Nere kontzientzi-rako, e?

Orain berrogei ta amar bai omen daude ura zan baiño obeak. Berrogei ta amar? Danak bat eginda ere ez dira aillegatuko ura zaneraíño. Basarri!

Uztapide oso azkarra zan eta ondo jokatu zuen. Aurrena jakin egin zuen Zepairekin asera batean; baiña gero Basarrirekin elkartu zanean asmatu egin zuen Uztapidek.

Basarri beti bera asten zan kantuan. Protagonismo ori beretzat zeukan. Berak neurtu gauza danak, eta abar. Egun txar bat baldin bazuen, "Basarri gaur ere Basarri uan" esango zuen jendeak.

Bazekien botako zuela, eta beti egoten zan besteak, Uztapidek, botatako ziriren baten zai. Ez andik eta ez emendik, botako zion zartadaren bat.

–I! Basarri ona dala? Aditu dik ederra! –izango zan orduan entzule askoren komentarioa.

Aldarte ona zuenean, Uztapide Basarriren pare zan. Ori esan bear da: Basarri eta Uztapide, Uztapide eta Basarri, biak ziran onak.

Orain, orrela, klasiko bezela edo nik ez dakit bada nola esan ere, arek bazuen grazi aparteko bat. Baiña, neretzako, eta leenago ere esan izandu det leku geiagotan, ez dakit Uztapide izatera iritxiko zan, Basarri izan ez balitz. Neretzako, e?

Zergatik ezikan emen erria ere ain da zelebrea! Zelebrea edo... Geuk neurtzen degu zuk zer kapazidade dezun. Neurtzen ez dakit, irakurtzen ez dakit, baiña zu zer zeran esateko lain, kritikatzeko oitura edo jenioaren jabe, bai.

## Uztapide, bertsolari eskolatua

Danak Basarriren eskola zala eta ez dakit zer aritu oi diran esaten. Eskolaz Uztapide ez zan Basarri baiño motzagoa, e? Zergatik ezikan Uztapide, amairu urterekin, Arabara eskolara joan eta ibilitakoa zan edo izan bear zuen. Bestea, berriz, amabi urterekin eskola utzitakoa. Orain, Basarrik irakurtzeko afizio aundia izan eta egiten zuela.

Guretzat ere ortxe egongo ziran liburu galantak, baiña alperrik.

Kultura maillan ori. Eta matematiketan? Egurrak neurtzeko kubikatzeketan eta orrela asi izketan eta arek Basarri berrogei ta amar buelta emango zizkion.

Erriak pentsatzen zuen bezin ezjakiña ez zan Uztapide. Eta Basarri ere ez, erriak ematen zion bolumen ura jakintsuan. Gaur neri iruditzen zait edozeiñek daukala arek zuen baiño geiago. Batetik eziketa, eta gero ikaragarritzko praktika...

Orain, bi aiek osatzen zutena bikote izugarria zala, bai. Ondo osatzen ziranak. Eta ez dakit aien itzala... Gaur badira egundaiño izan diran onenak daudela diotenak. Neretzako, ez.

Nik errespetatzen ditut. Bale. Baiña nik dakit aien bertsoak oraindik kantatu egiten dirala. Belarritz iritxitako bertsoak, e? Ez paperetik ikasitakoak.

Orain iñor ere barruntatzen al dezu Egañarenak kantatzen? Eta Sebastianenak kantatzen? Orduko aldean txapel pilla galanta egingo dute. Leen ez ziran orain aiña zinta eta disko. Aienak gustoz belarrian gelditzen ziran.

Nik mutil koskorretan aditutakoak, oraindik ere tartean-tartean akordatzen zaizkit. Baiña bein alkarrekin ara eta onera asi giñanetik, kito!

## Aizarnako ateraldia

Esate baterako, bein Aizarnan kantatu zuten, luistarren eguna zala eta. Artean Basarri ez nuen ezagutzen, egia esan. Oñez joan nintzan Azpeititik, Santa Engrazitik barrena.

An zegoen Basarri. Baita alkate eta erretoire eta abar. Baiña Uztapide falta. Bateonbatek usaia ekarri zuen Uztapide Iraetan zegoela joan daneko bi orduetan. Motorzaleren batek joan eta ekarri izango zuen.

Basarri zai zegoen. Ura izaten zan garai artan aurrena egin bearreko saioa: meza ondorengoa. Asi ziran eta, atze-aurrera batzuen ondoren, Basarri orrek:

Jakingo nuke: gana-jatenak egiten egon al zera?

Uztapidek "onen esanei ez kasorik egin" eta antzekoak kantatu zituen, eta gero:

Lanean ez da kontserbatutzen olako gizon trasterik, gaur ere ez zuan onek egingo jeiki ta etorri besterik.

Zenbat orrelako ateraldi! Orain, berriz, zuk bukatzen dezun bertsoaren oiñarekin asi eta segi. Baiña non utzi duen bertsoa? Aztarrenik ere ez. Leenengo puntuan eman duen arrazoia izango zan bertsoa pentsatu eta kito. Ori ez da guk ikasi genuen bertsoatea. Gure bertsoatea ez zan orrela. Eta nik egia esango dizut: ni ez naiz asiko ia larrogei urterekin praktika berriz ikasten.

## Landetako etxean

Landetara joan giñanean bizitzera, an bizi zan andoaindar bat. Roke-edo, bertsoa

ikaragarri zekiena; eta bestea, emen Elo-siagako Etxeberriko Antonio. Onek ere bertso asko zekien. Asko eta, gaiñera, zalea zan. Bertso zaarrak kantatzen saioak eta saioak egiten genituen.

Gero telebista madarikatu au-eta azaldu ziran, eta akabo!

*Uztapidek eta Basarrik sarrera aundia zuten Landetako Joseren tabernan. Bertara juntatzen zan jendea ere artaraxe egoten zan. Ambiente artan. Zer edo zer entrenigarri bear, eta beti komentario orietxek. Gaur nekez sortzen dala halako girorik, dio Jose Lizasok.*

Gaur deitzen dizute bertso-afari batera. Batzuk bertsoak aditzeagatik joango dira. Beste batzuk telebistan azaltzeagatik, kamarari arreta geiago jartzen diotela. Ola-koari, bertsoa kantatu edo paretari txixa egin, berdin-berdin dio. Neretzako orrek bere bentajak edukiko ditu, baiña baita desbentajak ere. Orain ez zera ari filosofo batekin: periodista batekin ari zera.

*Orrela esan digu Uztapide negarrez ikusi izan zuen bertsolari bakarretakoak. Ikus Noiz-bait (Auspoa, 42) Manuel Olaizolaren bertso liburuan, 98-99 orrialdeak.*

(Nikolas Aldaik grabatu eta papereratua).



# Sebastian Salaberria

## Ernani

Martuteneko baillaran, orain berrogei bat urte, Agorrillaren 24-an, Ama Birjiña Mesedetakoaren egunez ospatzen zituzten festak.

Uztapide zana bein baiño geiagotan izan zan festa oietan bertso-tara etorria; eta batean onako bertso au kantatu zuan, leenngo agurra kantatzerakoan:

Bertsoak kantatu nai giñuzke  
ta ez dira erteten berez;  
zerbaiten ere laguntza bear,  
gu geren gisa ezer ez.  
Biotz-biotzez eskatzen dizut,  
Ama Birjiña Mertzedes,  
konbeni bada zure laguntza  
eman zaiguzu mesedez.

Dalako festa oien antolatzaille bezela, ondoren aipatuko ditudan bi gizon auek izaten ziran geienetan: Ramon Odriozola –*Ramon Exkerra* esaten zioten izenordez bezela– eta bere illoba Manolo Aiesta, biak Martutenekoak.

Festa-egun oietako batean, kantatu bear zuten bertsolariak Uztapide eta Zepai izan ziran. Baiña Ramon Exkerrak oker txiki bat egin zuan festak antolatzerakoan: bertsolariak eta globoak botatzea une berean jarri zituan.

Eta, jakiña, bertsolariak plazan kantatzen ari zirala, ekin zioten globoak botatzeari, eta jende guztia globoak aidean nola zijozten begira, eta ume guztiak bulla eta zalaparta.

Ala, ixildu egin ziran bertsolariak, eta utzi zioten globoak botatzeari. Ekin zioten berriro bertsolariak, eta Uztapidek bertso au kantatu zion Ramon Exkerrari:

Zertan kantatu entzulerikan  
ez baldin bada albuan?  
Erramon, festak jarri itzazu  
modu obexeaguan.  
Oraintxe dala iru miñutu  
errezelotan nenguan,  
Martutenetik bertsolariak  
joango ote geran globuan.

# Bizente Barandiaran

## Itsasondo / Altza

### Altza

Gaztea nintzala, ez nuan izan bera ezagutzeko zoririk, nola etzan izaten gaur aña bertso-saio bazterretan.

Leenengo aldiz, gu bizi geran Altza bailaran ezagutu nuan. Entzunda nengoan oso ona zala. Bereala jabetu nintzan aren abesteko erreztasun izugarriaz.

Egun artan bere ondoan ibili nintzan. Ez det uste itzegin nuanik berarekin; baiña bai entzun bere bertsoak. Ez naiz gogoratzten beste laguna zein zuan. Lasarte izan zitekean. Ez nago seguru.

### Itsasondo

Andik denbora gutxira, gu sortutako errian, Itsasondon, amabi kinto lagun giñan; eta bururatu zitzaigun, berrogei ta amarna urte bete genituanean, denok bildu ta bazkari bat egin bear genduala. Bat gerran il zitzaigun, Jaunak berekin dezala.

Bati gogoak eman zion bertsolariak bear genituala. Bera diruarekin ondo zebillen, ikusten zanez. Bere lana zuan *ingeniero de puertos y caminos*. Berak esan zien zein ekarri, ez txarrenak: Uztapide eta Lazkao-Txiki.

Eguna iritxi zanean, ni ere pozez nengoan lagunetara joateko. Jetxi nintzan Erre-rara goizeko bederatzia aldera. Trenean

sartu nintzanean, topo egin nuan Manuelekin. Nik nola nekian guregana joatekoa zala, esan nion:

–Gaur eguna alkarrekin pasatu bearko degu.

Eta:

–Ez dakit. Ni Itsasondora noa –erantzun zidan, nola ez niñuan ezagutzen.

Orduan esan nion:

–Ni ere angoa naiz.

–Zuk ere berrogei ta amar urte al dituzu?

–Bai. Ezin ukatu.

–Ez. Alperrik da. Goikoak gogoan edukiko ditu –erdi parrez esan zidan.

Orrela, iritxi giñan Itsasondora amarrak aldera. Trenetik atera giñanean, berak:

–Nik gosari-mokau bat egingo nuke.

–Bai; bertan daukagu.

Ala, sartu giñan *Náutico* jatetxean, gosaldu genduan ederki eta, askori gertatzen zaiguna, sendagillearen esana ezin bete: bronkioetatik gaizki zebillela eta esaten ziola ez erretzeko; eta tabernako etxeo-andreari *voltissier* bat bai al zeukan galde-tu zion.

–Bai –esanda, bost puru txiki zeuden kaja bat ekarri zion.

Bati su emanda, esan zidan:

–Gaur irugarrena det. Nik esango banio sendagilleari, “neregana geiago ez etorri!” esango lidake.

Ni arritu egiten nintzan, ura ain ona izan guretzat eta bere buruarekin ola ibiltzea.

Eskatu nion etxeoandreaki gosariaren kontua, eta esan zigun bazkariarekin sartuko zuala.

Orrela, atera giñan eliza aldera. Amaketan zegoan meza. Sartu barrena eta entzun genduan denok. Etzioten agindu barranean kantatzeko; baiñan Jesus Lete zai zegoan, biei lana emateko. Uztapideri onako au jarri zion:

–Emen daukagu Serapio Mujika, segari ona izan deguna. Gaur, arrobi-zuloan arria gaiñera erorita, anka moztuta dauka, eta ez da gauza. Egindako apustu geienak irabazi zituana da. Iru bertso botaiozu.

Leenengoa olatsu zan, gutxi gora-beera:

Serapio au sega-lanean  
oso gazterik zan asi,  
apustu asko egin zitun da  
kasi danak irabazi.  
Urte prankoan bera izan zan  
mundu guziko nagusi,  
gaur ere ala egongo zan au  
ankarik ez balu autsi.

Ez naiz gogoratzen Lazkao-Txikiri zer gai jarri zion. Baiñan konturatzen naiz jendeari gozatu bat eman zigutela, dozena bana kantatuta.

Aldegin genduan bazkari billa. Gosaldugenduan leku berean, oso ondo eman ziguten. Jan eta edan egindakoan, bertsoak errez etortzen zaizkio berez artarakoa danari. An ere bazan aukera, alako bikotea genduan da.

Beren saioa egin zutenean, asi zan Manuel bertsoan berriz. Leenengoa olatsu kantatu zigun:

Eiz-kontuak esan nai ditut  
al banezake egitan,  
aitzaki orrekin ibili pranko  
egiñak gera sarritan,  
Don Martin jauna uso-eizean  
eta ni berriz erbitan;  
baiñan utsikan etortzen gera  
gu irutatikan bitan.

Besteak etzion ixilik utzi. Ikusten zutenean entzuten gustora geundela, etziran aspertzen.

Ni konturatu nintzan trenaren ordua laister genduala eta esan nion:

–Orain trenean joan bear badegu, bertsoak bukatu.

Begiratu zion ordulariari eta, presaka danak agurtuta, atera giñan biok. Bistara azaldu orduko, trena iritxi zan. Artean eun bat metro zeuden. Nola zijoan begira egonda, bueltatu egin bear tabernara.

–Arraio-arraioa! –zion Manuelek.

Pena ederrarekin gelditu zan. Barrena sartu giñanean, kinto lagun bat, Donostian bizi zana, furgoneta batekin zegoan; eta arek esan zigun irurok joango giñala.

Etzegoan seguru Uztapide. Abiatu arren bidean geldituko ote giñan zeukan bildurra. Etzan ala gertatu.

Abiatu zan Donosti aldera. Denok etxerako pozean. Inguratu giñanean, esan nion txoperrari:

–Au Oiartzuna eramango al diagu?

–Bai, bai –gelditu gabe erantzun zidan.

Orduantxe argitu zan gure gizona, ikusi zutenean etxe inguruan zala laister. Plaza-  
ra iritxi giñanean, esan zigun:

–Oraintxe gonbidatuko zaituztet pozik zerbeza banarekin.

–Ez, ez. Ez daukagu egarririk eta eskerrik asko. Etxera goaz –esanda partitu giñan.

Orduantxe egin nintzan bizi guziko lagun Manuelek. Geroztik kontua pranko bagenduan alkarrekin.

## Donostiako Loiolan

Beste egun batekoak dauzkat gogoan. Auetxek jarri nai ditut. Ikusten zitzaien bertsolarietara, batera edo bestera zijoaztenean, izaten zutela norbait ondo artzen zizutena.

Ori beti gogoan izaten da, eta ala zeukaten batekin. Donostiko Loiolan bizitzen zan.

Berez zaldibitarra uste det, oker ez banago. Martin beraren izena. Esne saltzen ibiltzen zan. Nik ere ezagutu nuan. Gizon jatorra zan, neretzako beintzat. Bertsolarietara ere ala izango zan seguru. Ondo egiñak beti gogoan.

Martin ori, edadean aurreratua, itxutu egin zan, eta pentsatu zuten bi Manuelek, Uztapidek eta Lasartek, aste-egun batean, berari bisita egiñez, egun goxo bat pasatu arazi bear ziotela, ain bertsozalea izanik.

Nunbait zabaldu zan kontu ori. Nik banekuan lagun bat Altzan oso bertsozalea, besteak beste. Basarri, Uztapide eta Lasarte mundu ontako jaungoikoak ziran arentzat. Bibiano Elizalde zuan bere izena. Alkarrekin asko ibiltzen giñan. Deitu zidan ea Loiolara joango al giñan; Lasarte ta Uztapide zetozeela *Martin Itxua* deitzen zioten orrengana eguna pasatzera.

Ez dakit oporretan edo bajarekin nengon. Lanetik libre, beintzat. Esan nion joango nintzala. Aren poza, laguna zuanean! Gauean joan nintzan Elkartera. Itzegin genduan zer ordutan bidean alkartu.

Ni ordurako iritxi nintzan. Nere laguna an zegoan, erdi parrez begira. Oñez bajatu giñan Loiolara. Bazekian zein taberna-

tan izango zan jaialdi ori. Ara sartuta, galdetu zion goxo asko etxekeandreak:

–Aizu: gaur emen bertsolariak omen dira etortzekoak.

–Bai. Laster emen dira –esanda, alde egin zion.

Purrustadaka zebillen, apuratuta. Berriz inguratu zanean, galdetu zion:

–Aizu: festa au zuzentzen duana nor da?

–Ni naiz –esanda, sukaldera alde egin zion.

–Zer emakume da au, berriz! –esaten zidan lagunak.

Urrena azaldu zanean, esan zion:

–Aizu, etxekeandre: emen bertsolarietara bazkaltzerik izango al degu?

–Ez dakit zenbat jende etorriko dan –esanda utzi zuan.

Eta berriz ere goxo-goxo esan zion:

–Salda bana jarriko al diguzu?

– Bai; segituan –erantzun zion, erdi parrez jarrita.

– Pixka bat gozatu degu –esan zidan lagunak.

Eseri giñan. Laster agertu ziran Martin, itxututa zegoana, eta laguntzaillea. Ori, gaztetan, gu sortu giñan lekuan bizitua zan. Oso laguna genduan. A zer bikotea bildu ziran! Itxuak, eun da emeretz kilo; eta aurrekoak, eun da ogei, pauso berdiñean ibiltzeko moduan.

Laster agertu ziran bertsolariak. Orduan seguru giñan. Salda ekarri zigan etxekeandreak. Gero, pintxo bana ere bai.

Nagusia etorri zan. Bereala artu zituan tabernako lanak bere gain. Normaldu ziran gauzak. Laurak gosaldututa zuten, da kafea artu.

Martin da lagunak poztu naiean, asi ziran kantatzen. Bertso ederrik entzun gen-

duan. Batak bezela besteak, potorik etzan izan.

Gero, Loiolako gazteak idea berriak artu zituzten. Beren gogoan zian eguerdian ordubete bat, baillara berria egiña zegoan eta an festa pixka bat jarri. Bearbada esanak egongo ziran zerbait kantatzeko. Baiñan gazteak bertsolariak uste baiño lan geiago egitea nai zuten. Kantatzeko tokira iritxi ziranean, altabozak jarri ta kasetetan artu ta olako lanak zeuzkaten pentsatuta.

Uztapidek ori ikusi zuanean, esan zian aiek etzirala plazan kantatzera etorri; dozen erdi bana bota ta alde egin bear zutela.

An gelditu ziran denak tristetuta. Baiñan saio polita egin zuten gero. Gustora gelditu ziran.

Ala, etorri giñan leengo lekura. *Bar Goizueta* zuan tabernak izena. Etxekoandreak goizean uste zuan baiño lagun geiago bildu giñan. Sartu zan nagusia. Asten zaio erritan:

–Zuk bai jendea ekarri! Jana nun dezu?

Zortzi bat platera zeuzkan beteta. Uztapidek esan zion:

–Ekarri itzazu denentzat platerak, eta emen dagoana partitu. Badago naiko jana.

Ura esan zionean, lasatu zan. Gero asi zan aurreko egunean sobratu ziran oillaskoak eta eltzekada bat baba txikia maaiera ekartzen. Zenbat gauza atera zigun denontzat! Jan ezin aala. Gustora gelditu zan bera ere, orrenbestean osatu zanean. Uste det ur gutxirekin betetzen zana izango zala. Etzuan ematen emakume txarra zanik. Kafea danori eman da orduantxe lasatu zan.

Bertsolariak asi ziran kantari. Gozatu ederrak artu genituan, batez ere Martin itxuak. Esan zizkioten gogoan artzeko modukoak: bera aientzat nolakoa izan zan bazekitela; ari zioten zorrik etziotela ordain-

duko... Malkoak ixuriz eduki zuten. Biotza leertzen zitzaion.

Berriz asten ziran, gaztetako kontuak beritzen. Laster parrez jartzen zan. Bertsolariak bazekiten nola itzezin argitu arazteko. Orrela pasa genduan arratsaldea.

Asi ziran etxerako bidean. Ernanitik zertorren tranbea artu bearko genduala. Itxua ta bere lagunari agur eginda, tranbea etorri zanean sartu ta alde egin genduan Donostira. Plaza Gipuzkoan ustu zan.

Orduan Lasartek esan zigun etxera abiatzeko garaia zuala. Autobusa artu ta alde egin zigun.

### Uztapiderekin bertsoan

Iru lagun gelditu giñan. Uztapidek esan zigun kalean bero zegoala, eta *Bodegón Alejandro*-n ardo pixka bat edanez antxe sartuko giñala. Gu ere pozik berarekin. Bagenekian Martin nagusiak arpegi txarrik etzigula jarriko.

Sartu giñan. Aren poza, batez ere Uztapide ikusi zuanean. Bereala asi zan esanez:

–Zer edan nai dezute?

–Ardo pixka bat –esan zion Manuelek.

Ekarri zigun botilla bat ardo eta basoak. Joan zan sukaldera eta ekarri zigun platera aundi batean legatza prejituta, eder askoa. Denak janda, betekada ederra artu genduan. Botilla ardoa ustu ere bai.

Zigarro purua artuta, sutu zuan Uztapidek, eta esan zigun:

–Oraintxe, lagun bat balego, bertsoan asiko nintzake.

Orduan Bibianok esan zion:

–Onek lagunduko dizu.

Arritu egin zan, ori esan zionean. Orduan galdetu zidan:

–Nola dezu izena?

–Bixente –esan nion.

Asi zan kantatzen. Bukaera eman zion:

Bertso batzuek gaur kantatuko  
al ditugu, ba, Bixente?

Nik ere beti izan det trago batzuk egin-  
da erreztasun geiago lan ortan. Nola  
geunden ondo meriendatuta, pozik asi  
nintzaion, jakiñik lagun ona neukala. Ber-  
tsolari onak bidea irikita uzten du; eta txar-  
rrak, itxita. Beintzat, saio ederra egin gen-  
duan. Bera asi zan, da nik ez nuan ixildu  
nai. Segi, al nuan arte!

Etorri zan beste kalean taberna zeukana,  
norbaitek esanda Uztapide bertsotan ari  
zala. Neregatik etzan etorriko, noski. Egon  
zan biori entzuten eta esan zion:

–Nere tabernara joan gabe ez alde egin!

Azpeiti aldekoa zala uste det etorri zan  
ura. Noizbait bukaera eman zion, eta nik  
ere bai orduan.

Eta esan zidan:

–Zu, gu genbiltzan tokian gurekin ziñan.  
Nik uste nuan bertsozalea ziñala eta ber-  
tsolaria izan! Gaur arte ez dezu zuk nere  
aurrean kantatu.

–Bai. Ala da. Beti izandu naiz deitu ga-  
beko lekura sartzen ez naizena.

Bere gogoa bete arazi nion. Uztapide beti  
izan zan atepak zabalik uztea gustatzen zi-  
tzaiona. Emandakoa artuko zuan; baiñan  
ateratzeko gozatu ederra emango denei.  
Berriz noiz etorriko uzten zituan denak.  
Alaxe utzi zuan bodegoiko Martin.

Bere gogoa egiten nik lagundu niolako,  
gustora gelditu zan Manuel. Bai bestea ere.  
Denok etxera eramateko tasisa jarri zigun.  
Esan zion:

–Ok eraman bakoitza bere etxera, eta  
bueltan etorri.

Alde ederra dago lagun batzuekin ibili  
edo besteekin tokatu. Martin agurtuta, ate-  
ra giñan kalera. Manuelek esan zigun:

–Beste ortan sartu bear degu.

Tasista ere gurekin genduan. Atean azal-  
du giñanean, asi zan tabernaria parrez, zer  
nai genduan esanez.

–Ardo pixka bat –esan zion Manuelek.

Aparia emango zigun pozik, bertan gel-  
ditzeagatik. Zer suerte zan gizon arena!  
Denak Uztapide kantatzen ikusi nai. Ain  
zan apala eta biotz onekoa.

Laster atera giñan. Sartu kotxean da gu  
Altzako Elkartera leenengo. Manuelekin  
Oartzuna gero. Orrela bukatu genduan  
egun ura.

### Oartzuna bixitaz

Gero, nere lagun Bibiano azken urteetan  
medikuak asko ibiltzeko agindurik zego-  
an. Egunero sei kilometro gutxienez. Bere  
oitura artu zuan gaixoak bixitatu. Laguna  
nai ibiltzeko. Egun batean deitu zidan ea  
Manuel ikustera joango giñan. Deseatzen  
nengoan da nola esan ezetz?

Beste bat, Manuelen laguna, alkarrekin  
lanean ibilia, ura ere etorriko zala, Loiolan  
*topoa* artuta; eta or artuko genduala Oiar-  
tzungo autobusa. Urrengo egunean jexte-  
ko Errerara amarretarako.

Ala joan nintzan. Bibiano an zegoan txin-  
txo. Itxoin genion besteari, *topoa* etorri arte.  
Autobusa etorri zanean, sartu ta Oartzu-  
na. Plazan gelditzen zan. Andik Ergoien  
baillarara oiñez.

Deituta zeukan joango giñala. Zai zego-  
an. Bere emaztearen aizpak zeukan taber-  
nan billatu genduan. Tabernatik aparte  
zeukan gela txiki bat, polita. Antxe jarri gi-  
ñan.

Bere lagunarekin aspaldian egon gabe zegoan. Asi ziran gaztetako kontuak berritzen. Ordua akordatu gabe pasatzen genduan. Bazkaltzeko ordua bereala. Bere koiñata etorri zan, gosetu al giñan esanez.

–Nai dezunean ekarri. Gu jateko pronto gaude –esan zion Manuelek.

Laster ekarri zigun. Ni aurrena nintzala jaten. Serbitzu ona. Denok ederki bete giñan. Alako jatekoak ekarri zizkigun. Postrea ere, saiatu ziran gozotik. Ni aiei begira: fruta besterik jaterik ez, azukrea goien zebillelako. Gero, kafea. Kopa bana ere bai.

Kontua samurtu zitzaigun denoi. Baten tokian, bi batera izketan igual. Ola ari giñala, agertu zitzaizkigun iru lagun, errian bertakoak, Manueli bixita egiñez. Gero kontu geiago, bateko eta besteko. Tartean apaizen kontuak atera zituzten.

Ni ere, ixilik ezin egonda, asi nintzan esanez leengo aldean lan gutxiago edukiko zutela, konfesatzeari utzi geniola ta.

Uztapide bildurdu egin zan astakeriren bat esango ote nuan apaizen kontra:

–Ez asi, Bixente, bat bertan daukazu ta.

–Ez, Manuel. Apaizen kontra ni ez naiz asiko. Urte batzuetan nere etxean nituan. Bat, ezaguna seguru: don Salvador Irigoien.

Denak ezagutu zuten. Esan nien:

–Ura izan nuan nere bigarren aita. Eskolan berarekin ibili nintzan. Akolito ere bai. Oso eiztaria. Eizera joan bear zuan goize

an, lauretan jeikitzen zekian. Neri besotik elduta, esnatzen niñun, meza laguntzeko. Sakristira joatean, pezeta zillarra ematen zidan. Gustora joaten nintzan.

Orregatik esan nien ez nintzala apaizen kontrakoa, laguna baizik.

Orrela bukatu genduan egun artako ibilaldia.

### Oiartzungo *Madalen-soro* pelota-lekuan

Eta au esan gabe ez det utzi nai. Andik laster, bertso-jaialdi bat jarri zuten Oiartzungo *Madalen-soro* pelota-lekuan, igandegoiz batean.

Ara joan giñan suia eta biak. Antxe topo egin nuan gure Manuel. Eskua eman eta esan nion:

–Zer moduz zabilta?

–Ementxe. Ola ateratzen geran arte, ondo. Eta zu? –galdetu zidan.

–Ni ere ementxe. Gora ez degula egingo badakigu. Beera egin gabe eutsiko bage-nio...

Erantzun auxe eman zidan:

–Beerakoa badakigu datorrela. Golpean ez dedilla etorri.

Antxe pasatu genduan ordubete bat, bertsoak entzunez eta kontuak esanez. Nork pentsatu bear zuan azkeneko itzak esaten ari giñala alkarri? Geroztik ez nuan berarekin itzegin. Jaunak berekin dezala!

Bizente Barandiaran,

Itsasondo / Altza

# Uztapide zana oroitzuz Txomin Garmendia

## Elduain (1944)

Adiskide min batek Uztapide zana oroitzuz iru edo lau orrialde idatziko ote ditudan erregua egin dit; eta ortara nijoa, al dedan ainbean.

Uztapide eta Zepai gure erri Berrobitik oso gertu dan Elduaiñen ikusi nitun lenengo, Agorreko Ama Birjin pestetan. Jai-arratsaldea zan eta ume-mordo bat joan giñan, pestak zirala-ta. Amar bat urte izango nituan nik, gutxi gora-bera, eta 1944-garren urtea izan zitekean. Gogoan det elizako paretaren kontra jardun zirala, mai baten gaiñean sillan exerita.

Kantatu zituzten bertsoei ez nien grazirik artu. Ziartu nago onak kantatuko zituztela. Jendeak par-algara ederrak egiten zitun beintzat bertso bakoitzaren ondorenean. Ni ortarako gaztetxo izan nunbait, eta bakar-bakarrik gogoan daukat "milla pezetakoa" askotan aitatu zutela. Milla pezetakoa orduan etzun edozeiñek ibilliko, eta pentsatzen det bietakoren batek patrikan bazula edo antzeko arrazoiren bat esango zula, eta ura izango zuten gai nagusia.

Gure aita zana bertsozalea zan gogotik. Etxera etorri nintzanean, eman nion Elduaingo berri. Zer kantatu zituzten galdetu zidan; baiña nik ezin erantzun len aitatu dedan milla pezetako ori besterik.

Orduan bertsolariak, eta geroxeago ere bai, joaten ziran erri artan gauerako gelditzen ziran; eta, noizbait begiak argitzen asi giñanean, jakin genduan Elduaiñen gau artan bertso ikaragarriak kantatu zituztela.

Ondo ezagutu nun Elduaingo aitona bat, Ambrosio izena zuna. Tabernako bertsolaria zan; boza ere naiko kaskarra zun. Baiña ziri-sartzaille ikusgarria eta ateraldi arriagarriak zituna; eta gau artan ere, beste bi ospetsu oiekin asi zanean, gozatu izan bear zuan jendea.

Neroni ere bein baiño geiagotan kantatua naiz Ambrosio arekin, eta sinisten det Elduaingo gau ura zoragarria izango zala.

Inguruko zarrei entzuna nago Txirrita eta Prantzesa, Berastegira San Lontzotan etorri ziran batean, naiko estu artu zitula Ambrosio orrek. *Kakone* izenarekin ezagutzen dan tabernan izan bear zuten, eta ateraldi ederrik jaulkia izango zan, ondoan zegon amerikano batek duro zillarrak patrikan sartu zizkionerako.

Zenbat orrelako sasi-bertsolari probatu ote zun Uztapide zanak? Bere izatez ere tabernazalea baizan.

Sartu nadin arira. Gerra ondoko urte tris-teak ziran, naiz ni eta nere adiñeko geienak iñuxente bizi. Aita zanak peritik ekarritako bertso-paperak eta abar ikasten asi nintzanean, guraso onari galdetzen nion:



–Zein daude, ba, orain bertsolari onak?  
Beraren aotik ez bai nun il ziran bertsolarien izenik besterik entzuten.

–Basarri eta oiek izango dituk orain onak –izaten nun erantzuna.

Gaurko girorik etzan, eta agian Uztapide etzan izango ain ezagutua.

Gure aita zanari sarri entzun nion nola San Lontzo batzuetan Berastegiko plazan kantatzen ikusi zitun Pello Errota eta Txirrita, barrika baten gainean jarrita.

Gure erritik kilometro batera dago Berastegiko auzo bat, Eldu deritzaiona; eta Ama Birjin batzuetan an ere izan omen zan Txirrita.

Kontu oiek entzuna eta nik alako zaletasuna izanik, aita zanari galdetzen nion:

–San Agustiñetan nolaz ez dituzte ekarzen bertsolariak?

–Merkek izango dituk! –izaten zan erantzuna.

Gaur ibiltzen dirala asko bertsolariak esaten degu. Baiña errietan dirua dabillen konpormidatez neurtzen baditugu, orduan baiña gutxiago ibiltzen da gaur bertsolaria.

## Belauntza

Etzitzaidan nai orduko etorri bertsolariak plazan ikusi eta gozatzeko era: ama-lau bat urte nitula, Belauntzan Meza Berria zan egun batean, ain zuzen. Lau bertsolari ziran kantatu zutenak: iru ibartarrak eta Mitxelena; eta azkenengo au bakarrik eriten zan izen aundikoa.

Urrengo urtean, gazte-pesta eder bat egin zan Belauntzan, eta bertsolariak bazirala jakin genduan. Meza Berrian kantatu zuten ibartarrak izango zirala esan nion lagun bati, eta:

–Ibartarrak baiña obeak ekarriko al dizkie! –izan nun erantzuna. Ala gertatu ere, gero ikusiko dezutenez.

Gaur baiña gose geiago zegon bertsoak entzuteko. Zai jarrita geunden Belauntzako plazan, bertsolariak noiz agertuko. Alako batean, or azaldu zaizkigu udaletzeko leio banatan bi gizon: bat, Uztapide, naiko gaztea, baiña zaar-itxurakoa; eta bestea, Itziariko Uranga, *Azkonar*, au mutil gazte liraiña.

Asi dira bertsoan eta ura etorria eta erreztasuna, batez ere Uztapiderena! Gogoan det txapel txiki bat nola zun buruan, eta traje grixa.

Zer gai erabili zituzten? Erriko lau aizkolari gazte jardun ziran aurretik bi-bitara, eta aiek ere goratu zituzten, aurki Korta eta Arria ainbat izango zirala eta abar kantatuz. Orduan aizkolari auek baizebiltzan ederbegira.

Meza Berrian kantatutako ibartar bertsolari bat *Beltza* izenordez ezagutzen zana zan; eta, entzuleen artean zegolarik, or ekin die kantatzen ari ziran bertsolari. Batez ere Uztapidegandik entzun zitun epelak. Gogoan det Manuelek bertso baten bukeran zer kantatu zion:

Besteri lotsak ematen ai da  
berak batere ez du ta.

Ibartar ori orduan ixildu zan; baiña ez iru edo lau bertso kantatu gabe. Lotsagabekeria izango zan ibartarraren jokaera; baiña arratsalde artako bertso onenak, bera zalako entzun genitun.

Garai bateko bertsolari zaarretan ere baziran orrelako gertakariak. Gaur ez dago orrelakorik. Kantari ari diranak altabozaaren indarrez danak mendea dituzte eta kito!

## Tolosa (1949)

Ez dakit ziartu Belauntzan gazte-pesta egin zuten urtea zan edo urrengoa; 1949-ko urtea zan, beintzat, Eguberri bigarrena astelenez egokitu zana; eta, Tolosan perieguna zanez, beste astelenetatik oso berezia zan, eta bertsolari-jaialdi bat jarri zuten Beotibar pelotalekuan.

Kantatu zutenak: Basarri, Uztapide, Xalbador eta Mattin.

Nik Uztapide Belauntzan ezagutua neukan; baiña beste irurak orduan ezagutu nitun. Tolosa eta inguruetako jende askok lau bertsolari auek orduan ezagutuko zituzten.

Goiak eta beak jendez gaiñezkatu ziran Beotibarren, eta dotore kantatu zuten, batez ere Basarri eta Uztapidek. Artu gendun gozatu ederra! Basarrik errespeto eta pixu aundiko bertso asko kantatu zun; baiña Uztapideren ziri-sartze ura gustatu zitzaidan neri geiena. Neri bakarrik ez; beste askori ere bai.

Gai-jartzaillea ere bazuten. Gogoan det, Basarri langillea eta Uztapide alperra zala esanez, nola jarri zitun biak.

Onela kantatu zun zestoarrak bertso batean:

Izenak jarri dizki-  
gute aldrebes.

Puntutan asi ziran biak, eta Uztapirena bat onela izan zan:

Kostako zait jatia  
alperrak egiña.

Zeiñek esan bear zidan neri orduan lau bertsolari aiekin prankotan kantatu bear nunik?

## Zaldibi

Uztapide bertsolaria ona zala ez dago zalantzik. Baiña oraindik bere bertsolaritahun ori askoz geiago borobiltzen zun bere pikardi eta jendea ezagutzeko zun azkartasunez. Plaza batean luzituko bada, bertsolari soilla motz gelditzen dala esango nuke. Entzule amorratu batek bein onela esan zidan Uztapiderengatik:

–Orrek muturre bakarrik dik itxusie.

Uztapide eta Basarri Zaldibin ziran batean, Garizuma aurreratua izango zan noski, eta Basarrik onela bukatu omen zun bertsoa:

Oraindik Pazkoazkorik  
ere ez du egin.

Eta Uztapidek:

Basarri au zuzena da  
eliza-gauzetan,  
orazioak egiñaz  
goiz da arratsetan.  
Eta jaiero berriz  
or dabil mezetan,  
ta aita salduko luke  
kiloko pezetan.

## Gaztelu

Zalantzik ez dago, neroni bertsoan asi bitartean, nun ziran bertsolariak, aruntza joaten nintzala, al izan ezkerro beintzat. Zerbait asi nintzanean, berriz, ez dago esan bearrik. Bertsoak entzun, al bazan bertsolari oiekin itzegin, bertso-kontuan, jakiña, eta abar izaten ziran nere eginkizunak. Gaiñontzeko doiñu, dantza eta neskatxak alperrik izaten ziran neretzako.

Uztapide leenengo Gaztelura eraman zutenean ere, antxe nintzan. Arratsaldean

plazan lenengo kantatu zun bertsoak esaten digu ori:

Gaztelu onta lenengo aldiz  
gaur egiña det bixita,  
txoraturikan aurkitutzen naiz  
leku auek ikusita.  
Edertasuna nabaritzen da  
beiratzuz alde guzita;  
ni berriz ere etorriko naiz,  
etzaitzte egon etsita.

Mitxelena zun egun artako laguna, eta nik dakit zenbat gozatu nintzan. Gaztelun, plazatik Udaletxeko tabernara pauso batzuk zeudenez, aruntza goazela, Uztapiderekin zerbait itzegiteko zoria izan nun, eta galdera bat auxe egin nion:

—Garai batean izan bear zuten bertsolari onak?

Izan ere, aita zanarengandik eta abar, garrai bateko bertsolari zaar aien gorantza besterik ez bainun entzuten. Iñoiz aaztuko etzaiten erantzuna eman zidan Uztapidek:

—Onak gutxi leen ere.

Geroztikako urte batzuetan, Gaztelun pestarik etzan egingo Uztapiderik gabe, batean Mitxelenarekin, urrena Lasarterekin eta orrela. Bertsoak entzutera joanda, jakiña, Uztapiderekin, eta Lasarterekin ere bai, Gaztelun kantatu nun leendabizi. No-laz aaztu egun aiek?

Uztapidek oso ondo artu nindun. Lore geiegi ere botako zidan noski, gaztetan ni baiño ohea Lasarte bakarrik ezagutu zula esan baizidan.

Urrengo urtea izango zan, Lasarteri ekin niola. Gazteak ez du izaten eskarmenturik eta arro samar jarduna izango nintzan. Gogoan det Lasarte orrek gogor samar artu nindula. Bertso batean Oriora bixita egingo niola kantatu nion, eta bere erantzunaren bukaera etzait aaztuko noski:

Lasarten galde etzazu egin  
Oriora iritxita,  
gure etxian arruarentzat  
daude atea itxita.

### Anoeta

Tolosako San Juanetan jokutzen ziran arraun-norgeiagokak izaten zuten ospea, diru-jokatzea eta ixkanbilla. Etzan arritzekoa, Tolosa eta inguruetakoa izaten ziran arraunlariak eta. Urte batzuetan anoetarrek ibili ziran ederbegira, *Guadalupe* ize-narekin.

Tolosan bada *Agustiñenea* deritzaion taberna bat, eta ango nagusi Joxe Antonio zana Anoetako semea zan eta erri-maitalea, arritzekoa ez danez. *Guadalupe* orrek bandera irabazten bazun, beintzat, Anoetan urrengo igande batez egingo zitzaion omenaldian, Joxe Antonio ori izango zan partaidetik aundiena. Modua ere alaxe izango zun, eta gizon jatorra gaiñera.

Urte batean, tabernari orrek Uztapide eta Zepai eraman zitun bertsoara. Ondorengo urte batean Uztapide eta biok ere eraman izan gindun.

Aurrez esan dedan egun ortan, arratsaldetik joan giñan Anoetara, bertsoak entzun eta pestara. Laster jakin gendun *Modesto* tabernan zirala bertsolariak bazkaltzen, eta aruntz zuzendu giñan. Patxara ederrean zeuden bertsolariak, lagun-mordo bat inguruan zutela. Txanpaina edaten ari ziran gaiñera, eta sasoi ederrean bertsoarako.

Alako batean asi ziran bertsoetan. Uztapide pikardi aundiko bertsolaria zan. Joxe Agirre eta ni ordurako gazteen artean niko nabarmenduak giñan, eta Manuelek Zepai orri zaartu zirala, Agirre eta Garmendia orain obeak zeudela eta antzekoak kantatzen zizkion, tarteka neri kiñu egiñez. Maiaren inguruan zutik bertsolarien

aurrez aurre bainintzan, jendea ezin kabiturik zala.

Zepai ori ere asi da tiroka, eta onela dio bertso batean:

Atzo andriak neri  
bai desapioa:  
aspaldian nagola  
ni enbalioa.  
Amorrazita nintzan  
gaiñera ioa,  
beriala egin nion  
eundoko saioa.

Esan bearrik ez dago, noski, bertso orrek sortu zitun algarak eta zalapartak nolakoak izango ziran. Uztapide serio egon zan zalaparta aiek ixildu arte, eta ondoren:

Jendea bertso auekin  
zaigula gozatzen,  
gu're ez gera bear  
bezela osatzen;  
bertsolaiak erdi zartuta  
gera esposatzen,  
neri're asi zaizkit  
saioak luzatzen.

Uztapideren bertso orrek etzun grazi gutxiago egin; eta, ondo ausnartu ezkeru, erantzun ikaragarria dala esan bear.

Geroztik, esan bezela, Uztapiderekin ere kantatu izan nun Anoetan, arraunlari-pestan ortan.

### Berrobi

Bertsolariak alkarrekin zer alde duten ikusteko, ez da izaten txarra, berak ez dakitela, jakiña, eta egun edo leku ezberdiñetan, gai bera edo puntu berdiña jartzea. Garai artan, Berrobin, bertsolariei deitzea

nere gain izaten zan, eta pagatzea ere bai. Urte batean Uztapideri puntu au jarri nion:

Diru asko al dadukazu sobratuta?

Uztapidek:

Oraindik ez askorik zuri kobratuta.

Beste urte batean Mitxelenari puntu bera:

Diru asko al dadukazu sobratuta?

Mitxelenak:

Oraindik orrelakorik ez det logratuta.

Biak ere ondo erantzunak eta errimatuak daude, noski; baiña Uztapiderenak grazi eta pipar geiago dula ez dago zalantzik.

Garai bateko bertsolariak sos batzuk irabaziko zituzten; gose-egarriak kendu ere bai. Baiña zenbat ibillera eta etxeratze nolabaiteko egin ote zuten? Gaurko aukerarik etzan batetik bestera ibiltzeko; baiña, izan balitz ere, naiz erri batera goiz partetik joan bertsolaria, gauerako gelditu bear izaten zun, orduko jendearen zaletasuna ala zalako.

Euskaldun jator aiek meza nagusi ondoren pozik entzungo zituzten bertsoak; baiña aien ametsik nagusiena gaua etortzeko izango zan. Ikuilluko lanak egin, apaldu eta ondoren jetxiko ziran pestak zeuden taberna artara, bertsoak entzuteko irrikiz. Ez erritarrak bakarrik; auzo-errietatik ere asko etorriko ziran, zaletasun ura buruan zutela. Bertsolariak etxera joan zirala jaki-

ten bazuten, berriz, bukatu ziran aientzako pestak.

Gero, jakiña, goiz partetik joana zan bertsolaria, arritzekoa etzanez, askotan gertatzen zan edari-bidez eta abar naiko narrastua.

Ala ere, ezagutu ditugu bertsolariak, anketatik baldartu arren, buruz eta arrazoietan ondo. Beraz, bertsolariak nolabaiteko pama izatea etzan arritzeko.

Entzun diran bertsorik onenak, gau oietan kantatutakoak dira, ordea. Txirrita bategere, berak ezagutu zun bertsolariarik onena, gaueko amabietatik aurrera, Pello Errota zala esaten omen zun. Gure bertsoetaren aseran bukatu zan oitura ori, eta zorionez esan bearko.

Uztapide zan bat ere, zenbat ibillera xelebre egiña ote zan? Beste asko baiño parrandazaleagoa zan zestoarra. Bere bertso baten aserak erakusten digu ori:

Gazte denboran parrandak sarri,  
orain zartuta maizago...

Ala ere, pamilira bildu zanean eta abar, erretiro on baten alde agertzen zan, geroxeago ikusiko degunez.

Berrobin, San Agustiñetan bertsolariak, bertan dagoan *Uranga* papelerako jerente izan zan bati esker asi ziran. Jerente au oiartzuarra zanez, Zezilio Gaztelumendi, bertsozalea bear derrior, eta alde ortatik Berrobik zor asko dio.

Oker aundi gabe, 1960-ko urtea izango zan. Berrobiko pestetan lau bertsolari kantatzeko, neroni tartean nintzala, eta beste iru billatzeko agindua eman zidan jaun orrek.

Ala, Basarrik, Lasartek, Lizasok eta idazten ari dan onek kantatu zuten. Plazako lanak eginda, iru bertsolariak denboraz

artu zuten etxera-bidea. Esan bearrik ez dago ni pena ederrarekin gelditu nintzala.

Urrengo urtean agindu berdiña nun jerente jaun orrengandik. Bertsolarietara abixatu ta gero, beste agindu bat jaso nun, ordea: bertsolariak gauean ere bertan gelditzeko, zer bear zuten pagatuko zitzaizela-ta, basarritarrak eta abar bertsoak entzunez gaua igaro zezaten.

Iru bertsolarietara dei ori egitea geitxo iruditu zitzaidan eta Uztapiderekin bakarrik pentsatu nun, bion artean gaueko lanak egingo genituala ta.

Gaur bezelako aukerarik etzan orduan teleponoz, eta Oiartzunen bizi zan zestoarrari eskutitz bat egin nion: gauerako gelditzea nai genduala, Berrobira zetorren egun ortan, zer bear zun ordaindiko geniola ta.

Eskutitz aren erantzunik ez nun jaso. Obeto esateko, jaso nun, bai, bertsolarietara etorri zanean. Zepai eta Lizaso ziran beste biak; eta, amaiketakoak egiten ari giñala, onela esaten dit Uztapidek:

-Txomin, zure karta ura gure andreak letu zun eta etzizaion asko gustatu. Eze askorik ez badegu egingo ere, gauean gizona bere ondoan nai izaten du ark.

Zer esan ez nekiala, mutu gelditu nintzan.

Gauerako gelditu zan, ordea, eta nere go-go eta beste askorena bete gendun. Bosteun pezeta zan orduko bertsolarien soldata, eta berrogei duro eskatu zizkidan gauekoarengatik. Ostalariak zazpi duro eskatu zidan, berriz, oiarengatik; eta, nola bati ala besteari, propinarekin geitu nien eskatutakoa, eta ondo banatu giñan urren-gora arte.

Uztapideren erantzun ura eta egokiera andreak aitzaki egiñez, etzaizkit sekula aztuko.

## Ateraldi batzuk

Uztapideri emakume batek au galdetu zion:

–Manuel, egia al da bertsolari guztiak mozkorrek zeratela?

Uztapidek:

–Bertsolari guztiak ez dakit; baiña mozkor guztiak bertsolari, bai.

Berrobiko pestak genitun. Uztapide eta biok egin degu, ba, bazkal aurreko bertso-saioa. Bukatu gendunean, oltzaduratik erretzeko anka altxa bearra zegon balla bat igarotzeko. Uztapide naiko lanarekin, eta ala zion:

– Zaartu egin gera ta...

Ondoan zan Aita Demetrio Garmendia, prantziskotarra, Berrobiko semea eta bertsozale amorratua; eta onek, Uztapidere-na entzun ondoren:

–Okerrago ibilli bear dezu oraindik...

Eta Uztapidek:

–Orduan elizara joateari utziko diogu.

Beste alamoduzko batek:

–Zu bertsolari ederra eta ona zera; baiña palta bat badezu zuk ere.

–Zer da, ba?

–Belarri aundiegiak.

–Ori ez da palta; ori sobre izatea da.

## Azkena

Donostin, kantatzen ari zala, izan zun txorabioa, eta an izan zun azkenengo plaza Uztapidek, ondoren urte batzuetan bizi izan bazan ere. Mutu gelditu zan, baiña piskana-piskana itza naiko ondo etorri zitzaien.

Bere etxera bixitatzera joan nintzan batean, izketan naiko ondo moldatzen zan. Azurmendi kontratista pamatua ere bixitara joanda, biok egokitu giñan.

Gaitz-kontuekin ari giñan kontu kontari, eta Azurmendi orrek zion berak bazeukala azukrea; baiña etzula egarririk izaten, zenbaitek bezela.

Orduan Uztapidek:

–Nola izango dezu, ba, edan egiten dezu-ta?

Par ederrak egin genitun. Neregan nion: "Oraindik burua ondo zeukak!".

Erriari amaika gozatu emandako Uztapide!

*Txomin Garmendia*

# Jose Mari Lertxundi

## Aia

### Aia, 1944

Nik dozena bat urte nituala, gutxi gorabera, Aiako festetan, Donato Deunaren egunez, 1944-ko abuztuaren 7-an. Basarri eta Uztapide bertsolariak ekarri zituzten.

Nere denboran leenengo aldiz orduan entzun nien neurri artako bertsolari batzuei. Nik nerez txikitandik ekarri nuan bertso-zaletasuna; eta egun artan bi bertsolari sonatuenak aurrez aurre ikusi eta aien bertsoak entzunez egotea, gaur Aita Santua ikustea baiño aundiagoa zan askozaz ere.

Meza nagusi ondoren, era ontan jarri zuten bertsolariak kantatzeko tokia: plazaren erdi-erdian bi bukoi edo kupel aundiren gainean oltzadura bat; gainera igotzeko eskaillera, ertz batean; gainean, alde banatan aulkietan eserita bertsolariak; eta erdian, beste aulki batean jarrita, botilleroa, noizik eta bein aiei tragoxka bana emateko.

Garai artan bertsolarientzat gai-jartzailerik etzan izaten, eta beti edo geienetan Basarrik ematen zion asera, eta nondik nora joan bear zuten bidea jarri ere bai.

Lendabizi, Basarrik erriko Zaindariari kantatu zion; eta Uztapidek ere berdin. Ez dakit ziur gai artan bina edo iruna zenbat bertso kantatuak izango zituzten. Baiña Ba-

sarrik urrengo bertsoan erriko agintariengana jo zuan.

Orretarako, oartxo bat egin nai diot irakurleari, gauza nola gertatu zan jakiteko eta Uztapideren ateraldia errezagotzako. Lenago esan det nola kupelen gaineko oltzaduran jarri zituzten bertsolariak. Inguru guztia jendez beteta zegoan, eta aurreko aldean erriko alkate jauna bere zinegotzietan aulkietan eserita. Alkatea eun eta berrogei kilo izango zan gutxienez, eta ortatik etorri zan Uztapideren bertso gogogarri ura.

Basarrik, kantatzeko bidea jarri zion, azkeneko bi puntuak onela kantatuz:

Orain urrengo eginkizuna  
au degu bertsolariak:  
bion artean jaso ditza  
erriko agintariak.

### Uztapidek:

Basarri oni burutazio  
xelebrek zaizka etortzen,  
zer lanbidetan sartutzen geran  
ezta kontuan erortzen.  
Agintariak goraltze ori  
etziok erreza lortzen,  
kostako zaiguk alkate jauna  
emen goraño jasotzen.

Uztapideren bertsoa entzun zan une ura, Aiako plazan arrigarria izan zan. Ura adierazteko ez dago itzik. Ango parre-algarak eta aiek oiua! Ura jendearen eromena! Bertsozaleak gozatzeko uneak oiek izaten dira.

Orrelako gauzak, norberak bizitzen ez baditu, eziñezkoa da gertatuaren berri besteri ematea.

Orduan jendeak zeukan bertso-gosearekin, eta Uztapideren graziarekin, alkatearen aunditasuna adierazteko bat-batean alako bertsoa botatzea, neurritz kanpoko gertatu zan entzuleentzat.

Baiña zearo alderantziz alkate jaunarentzat. Garai artan ez baizegoan oiturarik bertsolarien ateraldiak bromatzat artzeko, eta orduko Aiako alkateak ere oso gaizki artua izango zuan. Iseka edo errespetorik eza iruditua izango zitzaion. Bestela, alako agindurik etzuan emango bertsolariantzat. Orrekin neurtzen da pekatuaren aunditasuna.

Ara nolakoa eman zuan alkateak agindua. Bertso ura zala bide egin zioten iraiñaren ordaiñezko zigorra etzuten txantxetakoa izan: bazkalondoan asi eta, berriz plazan kantatzeko ordua iritxi arte, taberna bakoitzean, kale barruko bost tabernetan eta Armendiko benta seigarrena, dantetan bertso-saioa egin bear zuten. Eta agindu ura bete arazteko, alkate jaunak mutil bat jarri zuan, gelditu gabe jardun zitezten.

*Portetxaene* tabernan bertsoan ari zirala, Uztapidek bere gurasoak il berriak izan nunbait, eta gai artara sartu ziranean kantatu zuan bertsoa da ondoren datorrena. Nere anai Patxi zanari ikasi nion:

Zortzi illabeten barruan il  
zitzazkidan bi guraso,

gauza orrekin nere biotza  
samindua daukat oso.  
Gure Jainkuak aien animak  
zituan zerura jaso,  
gu ildakoan aien ondora  
juango gera akaso.

\* \* \*

Ondoren datorren bertso au Anjel Arri-llaga zanari ikasi nion. Arruti basarrikoa zan bera, eta leengusu txikia nuan nik. Bertso-zale amorratua zan, eta berriak kantatzen ere bapo moldatzen zana. Bere garaian festa-giroan ibiltzen, berriz, gutxi bezelakoa. Aian bertsolariak izan ziran egun artan ere egin zituzten saiorik geienak entzunak izango zituan.

*Landaene* ostatuan ari zirala, Uztapidek botilleroari kantatutakoa da ondoren datorren bertso au. Alkateak bertsolarien gidari jarri zuan mutil ura zurrutero xamarran izan nunbait; eta ostatu artan ere botilla ardoa atera omen zuan, eta bertsolarietragoxka bana eman eta berak basoa beteta edaten omen zuan, eta orduan onela kantatu zion Uztapidek:

Botilleroak gu zaindutzeko  
nola dadukan ordena,  
orregatikan ateria du  
botill ardorik onena.  
Ikusitzen det beronek ere  
ardoa maite duena,  
guri emateko aitzakian  
berak edan du geiena.

\* \* \*

Armendi basarrian zegoan ostatu edo benta-moduko bat garai artan. Gaur ere basarria ortxe dago, baiña bentarik ez.

Armendi ori kale-ertzetik eun bat metrorra dago, eta bertsolariak, kaleko osta-



tuak pasa zituztenean, arratsaldeko seirak aldera iritxi ziran benta ortara, beren ondoren jende-mordo bat zutela.

Ni ere lagunekin antxe joan nintzan; baiña ostatu-barrua bereala bete zan, eta gu kanpoko aldean gelditu giñan, leio-ertzetik bertsolariak ikusten genituala, eta be-larriak erne gaiñera.

Ondoren datozen bertso auek Armendi-ko benta artan kantatuak dira. Len aitatu dedan Anjel arek aserakoak zirala esaten zuan, eta neronek ere alaxe uste det.

Uztapidek:

Lenago jardun gera  
beko tabernetan,  
ordena da kantatzeko  
ostatu danetan.  
Au ere nola dagon  
kaletikan bertan,  
oraingo saioa degu  
Armendiko bentan.

Basarrik:

Oraintxe arkitzen naiz  
oso nekatua,  
badetela uste det  
zertaz kejatua.  
Len ere amaika aldiz  
ola gertatua,  
ni ari naiz pagatzen  
onen pekatua.

\* \* \*

Berriro ere Armendiko saio artan kanta-tu zituzten bertso aietako ale batzuk. Auek jaso zituztenak: leen esan dedan Anjel Arri-llaga eta Joxe Mari, Gaztandizabal basarrikoa. Laurgain auzoan dago basarri ori, eta gaur utsik dago. Joxe Mari ura Azpeitira joan zan bizitzera bere sendiarekin. Aurten bi urte il zan. Oso bertsozalea zan;

berriak kantatzen ere oso txukuna, eta emen jarriko ditudan lau bertsoetako az-kenengo biak arek jasotakoak ziran.

Armendi artan iru bertso-saio egiñak izango zituzten: leenengo, zortziko txikian; gero, aundian; eta azkena ere txikian eman zioten. Azken saioan ari zirala, Uztapide garai artan baso-lanetan ibiltzen zan nun-bait, eta gai artara sartuak izango ziran. Ala adierazten dute bertso auen esan naiak.

Uztapidek:

Etumetan jardun naiz  
ni lan gogorretan,  
aizkoran eta trontzan,  
baita ere lorretan,  
Mutillak txarrak nitun  
nik baso orretan,  
ia utzi ninduten  
betiko zorretan.

Basarrik:

Baso-mutillak artu  
ituan errez ta,  
orain zertan egiten dek  
oinbeste protesta?  
Mutillak basoan utzi,  
au festarik festa,  
ola zorra egitea  
arritzeko ezta.

Uztapidek:

Mutillen famak ematen  
au, neri kenduta;  
lotsagarri utzi nai dek  
ik nere konduta.  
Kulpa nerea dala  
onek esan du-ta,  
ez nauk salbatuko ik  
asko lagunduta.

Basarrik:

Asiera guztiak  
bukaera zor du,  
oraintxe badala uste det  
bukatzeko ordu.  
Alkar zirikatu gabe  
ez gera egondu,  
esanak esan beti  
gu ondo konpondu.

Basarrik bere bertsoan garbi adierazten du Uztapide ordaintzen ari dan zigorra. Aunditzat artua zeukan, bertso ortan dienez. Bertso asko kantatzeak eman zion nekea baiño min aundiagoa izango zan berarentzat, beste errurik gabe bere burua makurtu eta tabernaz taberna ala ibili bearra.

Geroztik, Laurgaingo auzoan eta Iturriozko bentan izana zan Basarri bertso-tan; baiña urrengo Aiako errira 1978-an Lasarteren omenaldikoan etorri zan. Eta orduan ere *Kanua* jatetxean kantatu zituan bertso batzuk.

Plaza-giroan egin zuan saio bakarra, neroni lagun ninduela egiña zuan; eta ori izan zan 1983-an, Aiako korrikalari txikiari, Juan Manuel Azpirotzi, omenaldia egin zitzaionean.

Geiagotan ere deiak izan zituala badaikit. Aian, luistarren elkartearen babesean, iru urtetan euskal jaiak antolatu genituan, eta 1959 urtean jaialdi aietako leenengoa ospatu genduan, eta ordurako deitu genion Basarriri. Baita agindu ere. Baiña gero etzeukala berak etortzerik, eta Uztapide eta Lizaso bialdu zituan, guk bera eta Uztapide etortzeko esan genion arren.

Esan liteke, Uztapideren bertsoa zala eta etzala, Aiako alkateak ezarri zien zigor ura oso gaizki erori zitzaiola. Bestela etorriko zan berrogei urte baiño leenago.

Uztapideri ariñoago egiña izango zitzaion. Ura geiagotan etorri zan Aiara, eta umore ederrean gaiñera.

### Laurgain, 1945

1945 urtean, Basarri eta Uztapide San Miel egunez Aiako Laurgain auzoan bertso-tan izan omen ziran. Eguerdian saio bat eta illuntze aldera bestea egin omen zuten.

Basarri, ango bertso-lanak amaitutzat eman zituztenean, etxera joan omen zan. Baiña Uztapide, ikusten danez, etzegoan artarako. Nola biaramonean, Iraillaren 20-an, arratsaldean, Tolosan bertso-txapelketa zeukaten, etxera joan baiño antxe festagiroan jende artean obeto pasako zuala eta Laurgaiñen bertan gelditzea erabaki omen zuan. Ala, Tolosako saioak eman zizkion kezka eta buruaustea errezagotako aztuko zitu-tuala pentsatzen zuan.

Eta antxe, illuntzean lagun batzuekin zegoan *mutil-ardoan*. Festa-erakundeko alkarteari deitzen zitzaion izen ori, eta oraindik ere Aiako errian eta beste bere bost auzoetan jarraitzen du oitura orrek.

Uztapiderekin jarraituz, zerbait artuz kontu kontari zeudela, norbaitek galdetu omen zion:

–Biar Tolosan bertso-txapelketa omen daukazute.

Eta Uztapideren erantzuna:

–Bai; alaxe daukagu. Gaur emen gelditu naiz txapelketak ematen dizkidan kezka aztutzeagatik. Baiña orain sartu zait beste buruaustea: biar eguerdirako Billabonara joan bearra daukat, eta eramango nauanik oraindik ez det aurkitu.

Ori entzun zuanean, bere ondoan zeukan batek esan omen zion:

–Lasai egon, Manuel! Nik motorra ba-daukat eta neronek eramango zaitut.

Gizon ura, Mariano Ubegun, Olaskoaga-goikoa basarriko semea zan (g. b.); baiña lan-bidez zerratoki bat Aiako errirako sarreran kamio-ertzean zeukana. Garai artan motorra etzuan edozeiñek izaten; arek bazuan, eta aundia gaiñera.

Uztapidek, aren baietza entzun zuanean artu zuan poza eta lasaitasunarekin, esan omen zion:

–Buruaste ederra kendu didazu.

Marianoren galdera:

–Goizean zer ordutan etortzea nai dezu?

Eta Uztapidek erantzun omen zion:

–Bederatziak alderako etortzen bazera, oso ondo da neretzat.

Ortan gelditu omen ziran: goizean berriez alkartzekotan.

Urrengo goiz artan, esan bezela, Mariano bederatziatarako Laurgaiña, eta Uztapide ere kamio-ertzean pronto omen zegoan ordurako. Biak motorrean jarri eta ekin zioten bidaiari. Bidean zijoazela, Uztapidek galdetzen dio:

–Gosari-mokaru bat Aian egingo al degu?

Eta Marianok:

–Bai, gizona. Armendiko ostatuan egingo degu.

Armendi ori, leen esan bezela, erriko sarreran dagoan basarri bat da. Garai artan benta edo ostata edukitzen zuten. Gaur ere basarria antxe dago, baiña ostaturik ez. Esan bezela, antxe gosalduta eta garaiz iritxi omen ziran Billabonara. An motorretik jetxi zanean, Mariano bizkarrean joaz Uztapidek esan omen zion:

–Oso ederki etorri gera; eta, denbora daukagun ezkerro, ardo botella txiki bat edanez gure arreman au bukatzeko sartuko al gera ementxe?

*Izkiña* tabernaren ondoan omen zeuden; eta, Mariano ere konforme nola zegoan, biak barrura sartu omen ziran.

*Izkiña* artan bi gizaseme ari omen ziran amaiketakoak egiten. Une artan beste iñor ez omen zegoan. Baiña aiek Uztapideren adiskideak, eta berarekin arreman aundia zutenak. Toki guztietan baizituan lagunak Uztapidek. Aiek tabernan sartzen ikusi orduko, barruan zeuden aietako batek esan omen zion:

–Jarri emen gure ondoan, eta zer bear dezuten eskatu. Nik ordainduko det.

Orduan Uztapide eta Mariano aien ondoan eseri eta, ardo onetik barruak berotzen zituzten bitartean, nondik nora zebillen eta lagun ura zein zuan Uztapidek kontatu omen zion an zegoan bikoteari.

Alaxe, lagunarteko giro artan saio bat egin zutenean, Marianok esan omen zion maikide aiei:

–Ni zuekin oso pozik nago. Egun osoa ere alaxe pasako nuke. Baiña eguerdirako Aiara joan bearra daukat.

Orduan Uztapidek onela galdetu omen zion:

–Bueno, Mariano: maitikan altxatzerako, esan zaidazu zenbat ordaindu bear dizudan.

Marianoren erantzuna:

–Ara, Manuel: dirurik ez dizut artuko. Baiña gaurko gure ibillaldiaren despedida bezela bertso bat; orixe eskatuko nizuke.

Uztapidek, ori entzun zuanean, ezetzik esan gabe, une batean ixilik egon eta ondoren datorren bertso au kantatu zion:

Laurgaindik Billabonara ekarri nazu bertso baten truke,  
nigatik egin dezun guztiak  
geiago merezi luke.

Gaur Tolosako bertso-saioan  
suerterikan banuke,  
txapela irabaziko banu  
zuri emango nizuke.

Andikan zazpi urtera gutxi gora-bera  
izango zan, igande batez, goizeko meza  
ondoren, gu, iru lagun-edo, Aiako *Porte-  
txaene* tabernan gosari txikia egitera joanak  
giñan, garai artan oitura orixe zan eta.

Tabernako zutabe batean, Basarriren kro-  
nikako zatia periodikotik moztu eta an zint-  
zilik jarria zegoan; eta nik, bertan bertso  
bat ikusi nuanean, ura irakurtzera urrera-  
tu nintzan. Ernaniko Eltzekondo pultsola-  
ri sonatua il berria zanaren oroimenez  
egindako bertsoa zuan Basarrik. Irakurri  
nuanean onela esan nuan:

–Auxe bertso ederra daukana jarria!

Orduan bertako alaba Solek esan zidan:

–Jakiña, Basarrik jarritako danak bezela.

Gure Mariano Ubegun ere antxe zego-  
an; eta, ori entzun zuanean, onela esan zi-  
dan:

–Bertso ori ez dakit nolakoa dan; baiña  
au baiño obea ez da izango.

Orduan, karteratik atera eta erakutsi zi-  
dan Uztapidek Billabonan berak eskatu eta  
kantatu zion bertso ori.

Nik orduan ura pozik artuko nuala esan  
nionean, Marianok mostradorean zegoan  
Soleri lapitza eta papera kendu eta neri  
eman zizkidan kopiartzeko. Ango billera  
ari esker, bertso onek arkitu du argia. Bes-  
tela, betiko galduko zan. Bertso baten bi-  
tarte bestea etorri zala esan bear.

### Irrati-saioetatik, 1950

Basarri eta Uztapidek, 1950-ean-edo  
–ziurtasun osorik ez badaukat ere ez da  
oker aundirik izango– Donostiko irrati ba-

tetik goizean bein bertso-saio bat egiten  
zuten, jantzi edo erropa-denda batek ba-  
bestuta. Orduan aiek etxearen izena esan-  
go zuten; baiña nik, bertsoak entzuteko  
arreta jartzen nuan arren, etxearen izenari  
ez nion garrantzirik ematen; eta orain,  
pena badet ere, ezin beraren berri eman.

Gaur egun, bertsoa entzun nai duanak  
aukera guztiak dauzka; bearbada geiegi.  
Jatena ere, jateko gogo dagoenean, or-  
duan estimatzen da; eta bertsoa ere bai.  
Garai artan, Basarri eta Uztapideren saio  
bat entzutea neretzat gauza aundia zan.  
Ain erne egoten nintzan, eta burua ere gaur  
baiño argiagoa edukiko nuan, eta bertso-  
ak naiko errez ikasten nituan. Ondoren da-  
tozen ale auek orduko irrati-saio aietatik ja-  
sotakoak dira.

Basarrik:

Beti bezela orain  
leenbiziko lana:  
agur bat bialtzia  
entzuliengana.  
Agindu au guretzat  
baidago emana,  
guri entzuten dago  
Gipuzkoa dana,  
kanta ditzagun orain  
dozenako bana.

Uztapidek:

Ixilik egoterik  
ez daukagu noski,  
baña lan geiegiak  
gauz txarrak dakarzki.  
Osatu zitezkean  
sei edo zazpi,  
baña dozena bana  
ez al degu aski?  
Barkatu gaur egingo  
bagenduke gaizki.

Esan bezela, bertso asko izan ziran; baiña besterik ez nuan jaso. Orain ondoren beste lau bertso datoz, baiña puntuka egiñak. Neri bertso-mota orrek, gaur ere bai, baiña garai artan grazi berezia egiten zidan. Txandaka ain ederki bertsoa tolostatzeara, ain azkar gaiñera, ura zan neretzat gozamena.

- Bas: Etxe orrek daduka egundoko fama.  
 Uzt: Klase danetik dago algodoi ta lana  
 Bas: Denda artan erosletik dabillen emana!  
 Uzt: Berriz etortzen baita bein etortzen dana.  
 Uzt: Entzule, zuri egin dizugu abisu.  
 Bas: Aukera badagola orain badakizu.  
 Uzt: Ona eta merkea eskeiñitzen dizu.  
 Bas: Bein etortzen bazera gustatuko zaizu.  
 Bas: Etxe artan badago ainbat berogarri.  
 Uzt: Guztiai dei egiten ari da Basarri.  
 Bas: Gero ibili gabe estu eta larri.  
 Uzt: Negua sartzerako osatuta jarri.  
 Bas: Etxe oberik ezin gentzake aurkeztu.  
 Uzt: Bezeroak tratatzen berdiñikan eztu.  
 Bas: Danak artzen dituzte gozo eta prestu.  
 Uzt: Gaiñerakoa dago eroslien esku.

## Sorazuko eztaiak, 1951

Sorazu basarria Zarauzko erri-sailletan dago. Suaigain deitzen zaion gain artatik Aiarako kamioa artu eta eun bat metrora, leen basarria izandako Beogarate etxea dago, gaur berritu eta txuri-txuri, kamioaren ertzean. Etxe orretxen azpikoaldetik barrena abiatzen da Sorazu basarrirako bidea. Une ortatik seireun bat metro egongo dira Sorazu basarrira. Oso leku ederrean, gaindegi batean kokatua dago.

Garai artako Sorazuko nagusia Antton Larrañaga zan, motza eta sendoa; eta bere alaba bakarra Karmen zan. Bazuan beste neska bat ere azitzeko ekarria, baiña bertako alaba bezela zan ura ere.

Semerik etzutelako, Karmen ori nola zan etxeko maiorazka, bera ezkondu zan Sorazu basarrira, Aiako Arrutiegi auzoko Manterola-saletxe basarriko seme Joakin Eizagirrerekin. Etzan ezkontza makala izango garai artan mutillarentzat ere, alako basarri bateko maiorazkaren etxera sui joatea.

1951-garren urtean ezkondu ziran. Eztaiak ez dakit lau edo bost egunetan ospatuak zituzten. Alako basarri sonatua zan eta etzegoan ura baiño gutxiago eginda gelditzerik.

Eztaiak asi zituzten igande artan, Basarri eta Uztapide ekarri zituan etxeko nagusiak. Seguru asko, eguna eta gaua danak bertan pasata etxeratuak izango ziran bertsolariak. Len ere alamoduzko saioaren batzuk egiten oituak egongo ziran, nola bat ala bestea. Uztapide, beintzat, gau-pasa asko egindakoa izango zan, eta makiña bat tokitan jendea gustora edukia izango zuan, eta Sorazun ere bai, dudarik gabe.

Sorazuko eztai-egun berezi artan, Basarri eta Uztapidek bertso-saio asko egin omen zituzten.

Sorazuko nagusiaren leengusua zan Nekazabal bertsolaria. Nik ez nuan bera eza-gutu; baiña aren anaia bai. Seguru asko, bera izango zan etxeko zaarrena. Ura zan beintzat Nekazabal basarrira ezkondua.

Bertsolaria gerra asi eta berealaxe, Suai-gain orretan zegoan kaminero-etxean sartzen asi eta an soldadu gorriak igesi zijoazela bonba bat tranpan utzia eduki; eta, atea iriki zuanean, ura lertu eta bertan il omen zan Nekazabal bertsolaria (g. b.).

Ni Laurkiñen Diputazioaren basetxe artan bizi nintzala, eguerdi batean erriraiño joan bearra izan nuan zerbaitetara, beste askotan bezelaxe. Orduan plazako *Juanene* tabernara sartu nintzan; eta antze zegoan, zerbait artuaz, Nekazabal basarriko nagusi Patxi. Bereala kaso egin zidan, eta esan nion:

–Zu ere Aia aldera etorrita?

–Bai –erantzun zidan–. Eginkizun bat banuan eta esnezale baten kotxean etorri naiz goizean. Baiña orain beera joateko iñor etzait topatzen.

Ura esan zidanean, neronek aukera jarri nion:

–Oraintxe Laurkin aldera abiatzera noa; eta, nai badezu, Landarbide basarriraiño eramango zaitut.

Ura entzun zuanean, bai pozik sartu ere kotxean.

Alaxe, bidean ginjoazela, Sorazu basarriaren aitamena ekarri genduan, eta nik orduan galdetu nion:

–Zu Sorazuko ezta aietan izan al ziñan?

Eta bere erantzuna:

–Bai; izan nintzan. Eta egun eder asko pasa ere bai. Entzun genduan bertso-saio ederrik.

Orduan bertso-arian sartu giñan ezkerero, orduko bertsoaren bat edo beste buruan ja-

soa izango zuala galdetzera ausartu nintzan, eta bere erantzuna:

–Bai. Zazpi-zortzi bat kantatzen nituan garaia banuan. Baiña orain burua ere ez daukat leen bezelakoa. Batzuk aztuak dauzkat. Ala ere aleginduko naiz, eta iru edo lau gogoratuko ditudala uste det.

Alaxe, bere kasa pentsatzen egon ondoren, esanda bezelaxe, lau bertso kantatu zizkidan, eta ni ere oso pozik gelditu nintzan. Orduan ez nuan asko pentsatzen, andik urte batzuetara, Uztapideren bizitzaren berriak emango zituan liburu batean, bertso eta gertakizun aiek azalduko ziranik.

Orrialde ontan agertzen diran bertso auek, Sorazu basarriko eztaietan Basarri eta Uztapidek egindako bertso-saiotako batean, Sorazu basarriaren goraltzan ari ziralara, kantatutakoak omen ziran. Bearbada, Uztapideren leenengo eta bigarrenaren artean, Basarrik kantatu zuana faltako da; baiña orain ez dago erremediorik. Gorde diran bezela jarri eta dagoanarekin etsipena artu bear. Onenbeste diranean, pozik gaiñera.

Uztapidek:

Neri Sorazu amaika aldiz etorriko zait gogora, au utzi eta obean billa ezin abitu auzora: Basarri ona, Zarautz gertuan, kamioa bi pausora, neroni ere ementxe sui sartuko nintzan gustora.

Uztapidek:

Sorazun maiorazka zegonik garaian ez nuan jakin, nere aldean argi ibilli da Saletxeko Joakin.

Nola ainbeste gustatu naizen  
basarri eder onekin,  
morroia falta izan ezkeru  
konta zazute nerekin.

Basarrik:

Zu, Sorazuko nagusi Antton,  
gizon tontua etzera,  
zer asmorekin ori asi dan  
konturatuko al zera.  
Morroi bezela zuk Uztapide  
sartzen badezu etxera,  
mantenu truka artuta ere  
galeran ertengo zera.

Uztapidek:

Nagusi Antton, morroi-kontuan  
zurekin nai det mintzatu,  
Basarrik engañatu baiño len  
nai nizuke abisatu.  
Segan ez daki, ez eta ere  
atxurra nola dantzatu,  
ni utzi eta ori artzerik  
etzazu beintzat pentsatu.

### Aiako Bentaberrin, 1952 edo 1953

1952 edo 1953-koa, ziur ez dakit zein urte zan, urte baten okerrak nola ez duan ezer esan nai gertakizun onen berri emateko; kontatu nai nuken gauzaren muiña zer dan adierazi edo agertzeko. Sartu nadin bete-betean istoriaren arira.

Esaten detan urte oietako batean. Aiako Bentaberri tabernako nagusi Manuelek bertso-afaria jarri zuan. Etzan denbora-pasako afari oietakoa, bi bertsolari, zeuden onentxoanak, ekarri baizituan: Uztapide eta Lasarte. Bigarren Pazkoa zala uste det. Baliteke oker egotea, baiña orrek eztu zer ikusirik esan nai nuken orretarako.

Lasarte afari ordurako inguratu zan Bentaberrira. Baiña Uztapide iru bat ordu leenago Aiako plazan agertu zan, eta Bentaberrira jetxi ere bai. Guk ere ura beeko tabernara joaten ikusi genduanean, an zer bertso-giro izango zan ikusi asmoz lagun batzuk jetxi giñan; eta antxe zegoan Uztapide, maian eseri eta zerbait artuaz, patxara ederrean. Bertako nagusi Manuel eta beste bi edo iru lagun ere bai.

Danak mai batean kontu kontari giro ederrean zeudela, non sartzen dan *Kapitan* izengoitiz deitzen zioten bat, an edo emen bere bizimodua morrontzan zeramakiana; eta orduan ere Aiako Agerre basarrian alaxe zegoan. Tabernara sartu zan ordurako, inguratu zan Uztapide zegoan mai artara. Baita bertsoetan eraso ere. Bat tajuzkorik etzuan kantatzen, baiña ezta ixildu ere. Uztapide antxe, ari entzuten, umore ederrean.

Ikusten danez, gerra aurreko urte pare batean, Lasaoko *Markesa*-rekin morroi omen zegoan *Kapitan* edo zalako ori, eta gerra-denboran ere bai.

Gerra ura zala medio, *Markes* ura lur jota gelditua omen zan. Istori au guzia jartzen det, Uztapidek *Kapitan* ari orduan kantatu zizkion bertsoetatik nik iru ikasi nizkion, ondoren datozenak, eta irakurleak errezago ulertu ditzan. Gaia ezagutzen ez bada, bertsoak oso gutxi balio izaten du geienetan. Ona bertso oiek:

Nik onen berri aspaldi ontan  
nola ondotxo dakidan,  
gaur baiño leno ikusia det  
au makiña bat tokitan;  
gaurko onetan onen bizitza  
agertu nai det itz bitan:  
eskola aundirik ikasi gabe  
au egin zuten kapitan.

Kapitanaren gradu orrekin  
artua dauka laiñeza,

gauzik txarrena onek izan du  
besteren erruki-eza.

Lasaon onek egin zuana  
berdintzen ezta erreza;  
antxe ziara jota utzi zuan  
garai bateko *Markesa*.

Esan didate orain zu Aian  
basarri baten zaudela,  
nik pentsatzen det morroi au zein dan  
ezjakiñean daudela.  
Famili orri abisuakin  
au bialdu dezatela,  
arruinatuta utzi baiña len  
lengo *Markesa* bezela.

Gero, afalondoa bertsotan ari zirala, *Patxi Barbero* zana sartu zan Benta berriko tabernara, an zegoan bertso-giro artan parte artu nairik. Baita laister artu ere. Ala, zortziko aundian saio bat egin ondoren, puntutan ekin zioten, irurak txandan, asten zuanak bukatuz.

Ondoren datorren bertso oni, Uztapidek asera eman zion. Jarraian *Patxi*; gero *Lasartek*, errematea Uztapidek ematen ziola:

- |      |  |
|------|--|
| Uzt. | Kantuan onengana<br>gaur ezin iritxi.          |
| Pat. | Kategorian beintzat<br>ez nazute jatxi.        |
| Las. | Gaurkuan guregatik<br>nagusi da <i>Patxi</i> . |
| Uzt. | Asko kantatzen baiña<br>ona oso gutxi.         |

Bertsoa Uztapidek bukatu zuanean, entzuleak zenbat gozatu ote zuten!

### Zestoako plazan, 1958

Uztapide eta *Zepai* zanak bein batean Zestoa, peri-egun batez, biak an alkartu

omen ziran, beste toki askotan gertatuko ziran bezelaxe; 1960-garren urtea izango zala uste det, bertako taberna batean. Ez dakit zeñetan izango ziran. Bertan afalduak noski, gauerdia aldera asi omen ziran bertsotan, eta jendea ere bai pozik aiei entzuten, taberna dana betean.

Baiña garai aietan oraingo konturik etzegoan, eta erri askotan erronda egiten zuten bere orduan. Zestoa ere bai, itxurak diranez. Erronda-garaia iritxi zanean, alguazilla sartu omen zan tabernan, "Erronda!" otsegiten eta txilibitua joaz, eta tabernan zeuden guztiak kanpora.

Gaiñontzekoekin batean, Uztapide eta *Zepai*. Baita erriko alkatea ere. Bertsolariak, plazaren erdian gelditu eta bertsotan ekin omen zioten. Orduan jende guztia aien ingurura bildu zan. Baita alkatea eta alguazilla ere, eta *Zeparentzat* naiko gaia bazan ura bertsotan egiteko. Uztapide ere etzan atzera geldituko. Tabernan afaldu eta ederki jarriak egongo zian biak ere.

Ondoren datozen bertso auek nere andrearen aldeko osaba bati ikasiak ditut: *Agustin Unsain*. Aiako *Etxeta* basarrikoa zan berez, garai artan azoka eta ferietan asko ibiltzen zan, eta orduan ere antxe gertatu. Olako komeriak ikusteko oso ona izaten da ori. Etzegoan orain bezelako erreztasunik joan-etorrian ibiltzeko; baiña orduan ere nola edo ala etxera itzultzeko modua egiten zuten. Bera ere bertsotan tajuz egiten zuana zan. Orain ogei ta bat urte il zan.

Berak neri idatzita eman zizkidan bertso auek. Esan zidanez, ark bi bakarrik artu omen zituan gogoan. Baiña gau artan beste azpeitiar bat omen zan arekin, bertsoak ikasten oso ona. Ark orduan bere izen da guzti esango zidan; baiña nik arreta aundirik ez nion jarri eta gaur ezin bere berririk eman.



Bazan beste gizon bat, Agustin Odrizola, Aiako Laurkin auzoko Beietxe basarriko nagusia, Zestoako San Bixente basarritik gatzetxo zala Laurkiña etorria bere guraso eta senideekin; eta ondoren, zaartu ta gero, Zarauzko Kortaburu basarrira aldatua.

Onek bertsozik etzekian; etzuan ortarako doairik. Baiña Zestoan gau artan pasatako gertakizunen berri berdin-berdin ematen zuan. Jendeak gozatu omen zuan, bi aien orduko bertso-saio arekin.

Bi Agustin aiek gauzak alako ziurtasunez kontatzen zituztela ikusi ondoren, nik ere sinismen osoz jartzen ditut ondorengo bertsoak:

Zepaik:

Olain pozikan geunden tabernan  
toki goxo egokian,  
alguazil ori sartu orduko  
zer zetorren banekian.  
Orain ementxe gaude zutikan,  
otzak, plazaren erdian;  
olako gauzak pasatzen dira  
gizonik eztan tokian.

Uztapidek:

Tabernatikan bota gaituzte  
iritxitzean erronda,  
kalte aundiak etorri leizke  
goizalderarte egonda.  
Gizonik ez tala esateko  
emen arrazoia non da?  
Erronda legez egin du orrek  
egin bearra zegon da.

Zepaik:

Erri danetan alkate jauna  
izan oi degu nagusi,  
oraindañoko marka guziak  
Zestuan dituzte autsi.

Nere denboran ez det sekula  
orrelakorik ikusi:  
erriko alkatea jua da  
alguazillaren igesi.

Uztapidek:

Ikasi gabe dauzkak oraindik  
jakinbeituken laurdenak,  
orain zer pentsatu bear ditek  
iri entzuten daudenak?  
Kanpora aterazi gaitxiok  
barruan bapo geundenak,  
baña alguazillak betetzen dizkik  
alkatearen ordenak.

Zepaik:

Tabernan epel-epel geundenak  
orain plazan erdi otzak,  
alkate orri ikusi dizkat  
oso aginpide motzak.  
Ez niñuan ni ikaratuko  
alguazillan txistu-otsak,  
emengo alkate ni izan banintz  
autsiko nizkion ortzak,

Uztapidek:

Zepai jaun onek botatzen ditu  
oso arrazoi zorrotzak,  
iñorentzako errukirikan  
ez dauka onen biotzak.  
Alkate balitz alguazillari  
autsiko lizkake ortzak,  
ni alguazilla izan banintza  
kenduko nizkion otzak.

**Zarauzko Azken-Portu, 1960**

Aitatzen detan urte orretan, Irailleko  
peri-egun batez, illunabarrean, Zarautzera  
jetxi nintzan. Gaur nere andre daukatena  
orduan andregai nuan, eta *Salegi* jatetxe-

an ari zan lanean. Beste eginkizunak bete ondoren, gaueko amarrak aldera inguratu nintzan Salegi tabernara; eta, zerbait artuz egon ondoren tabernako ateondoan neskaekin nengoala, an inguratu zitzaizkigun Uztapide eta Lanberri.

Azkeneko au Aiako Altzola auzoko Lanberri basarriko nagusia zan, Benino izeneko eta Uztapideren lagun aundia, beste asko bezelaxe. Peri-giroan sarritan alkar tuak izango ziran.

Biak eta txekorrak edukitzen zituzten Lanberri basarri artan. Baita ere artalde aundia. Egia esan, Benino ura artzaia geiago zan nekazaria baiño.

Gu ateondoan geundela inguratu zitzaizkigun, eta biak oso tenple onean jarririk gaiñera.

–Gau on –esan ziguten, eta guk erantzun ere bai.

Orduan nik esan nien:

–Ederki zabiltzate peritik perira.

Uztapidek itz neurtutan erantzun zidan:

–Gu gaztetan ibiltzen giñan erromeriz erromeri:  
zaartu geranean, periz peri.  
Bizitzak Lanberri eta neri ematen digu naiko komeri.

Olaxe berriketan jardunalditxo bat egin ondoren, Uztapidek esan zigun:

–Gu Azken-Portura goaz; eta zuek ere, nai badezute etorri, onartuak izango zerate.

Orduan nere andregaiak esan zion:

–Pozik joango nintzake, baiña lanean jarraitu bearra daukat.

Uztapidek, ori entzutean, neri begira jarririk eta onela mintzatu zan:

–Zuk nai badezu, goazemazu gurekin. Badakit oso giro ezberdiña arkituko dezula.

la. Leen zendukazun lagun onekin goxogoxo egongo ziñan, eta orain gure kontu zaarrak entzunez egon bearra. Aspergarri egiten bazaizu, aldegin; eta gustora bazaudete, berriz, lagunarte polita pasa genezake.

Orduan nik leengo laguna utzi eta aiekin joan nintzan Azken-Portuko tabernara.

Barrura pasa eta kafea artuz geundela, beste bi lagun sartu ziran, eta aiek Oiar tzun aldeko egurzaleak omen ziran. Uztapide aiekin etorria omen zan, eta berriz etxera itzultzeko ere aiekin itzegiña zegoan. Danok maai batean alkatu giñan. Uztapidek etzeukan etxera joateko batere presarik, eta egurzale aiek ere ez. Baiña Lanberrik sarritan esaten zuan:

–Nik oraintxe etxera abiatu bear det.

Baiña etzan abiatzen. Seguru asko, bera egongo zan gaua bertan pasatzeko gelditu arazten errezena. Zarauztik etxera ordu t'erdiko bidea edukiko zuan; baiña etzion kezka aundirik emango. Edozein garaitan, eta giro txarrarekin ere bai, etxerako bideari lasai ekiten ziona zan.

Lanberriekin ibiltzea gertatu izan zait neri. Gaueko amaikak aldera, negua eta jertse bat bizkarrean beste jantzirik ez. Kazkabarra gogotik egiten zuan. Aiako Laurkiñera nik eramanean nuan kotxean; baiña gero andik Altzolara ekin egin bear zitzaion giro arekin. Au guztia, zeñen gizon adoretsua zan adierazteko jarri det.

Leenago nion bezela, oso giro ederrean geunden. Ura maai-inguru gozoa! Baiña berriro ere Lanberri leengo arira joaten zan, eta onela esaten zuan:

–Emen ederki gaude, baiña nik etxera abiatu bear det.

Uztapide, nonbait, beti kontu ura entzuten aspertu egin zan. Aparteko sasoiaren zegoan illuntze artan; eta, gaiñera, Lanberri nolakoa zan oso ondo ezagutzen zuan. Au

dala-eta, ondoren datozen bertso aukeratu zizkion Lanberriri:

Aizu, Lanberri, zuri begira  
auxe pentsatzen nengon da,  
noizikan beingo parranda ori  
gizonarentzako on da.  
Gaiñera emen kendua dago  
tabernetako erronda,  
obe zenduke giro onekin  
goiz arte bertan egonda.

Arriskutsu da gaeuz bakarrik  
mendiz mendi juatia,  
obe zenduke emen gurekin  
gau guztian egotia.  
Asarretuko balitzaizuke  
etxeoandre maitia,  
esan zaiozu: "Uztapide da  
gauza onen kulpantia".

Iruditzen zait emen gurekin  
zu geldituko zerala,  
eta goizean etxera juan  
eguna argitu ala.  
Gauz orregatik etxeoandrea  
ezta jarriko petrala,  
nik pentsatzen det lenago ere  
oitua egongo dala.

Kontu orrekin ixildu zaitetz  
aspergarria zaude ta,  
pozikan egon bear zenduke  
oso ederki gaude ta.  
Emen egitan mintzatutzeko  
artu ezazu arreta,  
gezurra esaten etzaitetz jardun  
ez degu sinisten eta.

### Aiako Laurkiñen, 1961

Beste toki askotan bezelaxe, bein batean,  
Aiako Laurkin auzoan gertatu ziran Uztapide eta Mitxelena. San Mioletan izaten

dira bertako festak; baiña egunik aundiena Ama Birjiña Errosariokoa ospatu izan da beti auzo ortan; eta orduan ekarri oi ziztuzten bertsolariak.

1960 urtea izango zala uste det. Eduki nezake urte batzuen okerra; baiña ori da gutxienekoa. Bertsolariak, eguerdi eta arratsalde, bietan jardunak ziran; baiña nik arratsaldekoa bakarrik entzuteko aukera izan nuan.

Bertsotan asteko zeudela, euriak erasozion, eta Uztapideri bertsoarako gaia artatik sortu zitzaion. Mitxelenaren motoan edo vespa-n etorri baiziran biak, eta Uztapideri euritan motoan etxera joan bearrak bildurra ematen zion. Bertsotan ala adierazten du beintzat.

#### Uztapidek:

Erririk erri nola ibiltzen  
dan beti bertsolaria,  
kontrariorik txarrena sarri  
guretzako egualdia.  
Motoa etxera joateko ta  
gogor ari du euria,  
kotxe batek oraintxe neri  
ematen dit inbiria.

#### Mitxelenak:

Lau urte ontan nik ibili det  
motoa ondatzeraño,  
pezta bat ere ez dit ordaindu  
egia esan gaurdaño.  
Orain kotxe bat billatu nairik  
ari dun ainbat enpeño,  
garestiago ertengo zaio  
Mitxelenan vespa baño.

#### Uztapidek:

Moto auekin saltsan sartua  
gaur arkitzen naiz damuan,

entzun dezute Mitxelenak zer neregatik esan duan.  
Gauza au garbi esplikatuta emendik nai nuke juan:  
*vespa* zar orren plazo aundiña neronek pagatu nuan.

Onako au ere Uztapidek:

Gaur Mitxelenak diru-kontuan jotzen dizkigu afanak, orrelakorik eztadukagu lanetik bizi geranak.  
Baña nik oso tankera txarrak daduzkat oni emanak:  
bere atzetik nola dabiltzan mugako jendarme danak.

Jakiña, saio artan bertso ederrak asko ziran. Jendea zoratzen eduki zuten. Baiña nik ez nuan besterik jaso. Bakarrik, Uztapideren bertso baten bukaera onelaxe zan:

kotxea ere etzait kostako onen motoa ainbeste.

Gero, era artako saioa egin ondoren, puntutan asi ziran Mitxelena eta biak, eta berriz ere leengo arira sartu. Nola garai artan jende askok motoa zatika edo plazoe-tan ordaintzekotan erosten zuten, Uztapide plazo-kontuan sartu zitzaion, eta saio artan jasotako aleak dira ondorengo auk.

Uzt.: Mitxelena *vespa*-rekin ari da afanaz.

Mitx.: Ori ezta erosia zuk dirua emanaz.

Uzt.: Ori traste txarra dala asi nauk esanaz.

Mitx.: Zuretzat txarra bada bakarrik juango naz.

Mitx.: Onek kotxia nai du motorrikan ez ta.

Uzt.: Aspaldian jan didazu makiña bat pezta.

Mitx.: Zuk kontu asko baña neria da *vespa*.

Uzt.: Laster kenduko dizute piadoreik ezpa.

Uzt.: Oraintxe motor orrekin aspertuta nago.

Mitx.: Ibili nai ez badezu zure esku dago.

Uzt.: Tratuan bukatuta nik askoz naiago.

Mitx.: Orduan ez etorri nigana geiago.

Mitx.: Nere *vespan* ibili da lau urte osuan.

Uzt.: Olako serbitzua ona da auzuan.

Mitx.: Zerbait aitortutzeko garaia bazuan.

Uzt.: Nigana ez etorri urrengo plazuan.

### Ordizia , 1963

Beste batean, Ordizian bertso-jaialdi bikain bat jarri zuten, Basarri, Uztapide, Lasarte eta Lazkao-Txiki ziralarik. Irrati-bidez entzuten egon nintzan orduan, eta oso bertso-saio ederra egin zutela aitortu bear.

Laurak alkarren jarraian kantatzeko agindua izan zuten, eta bakoitzaren gaia onela zan: Basarri, beterritarra; Lasarte, itxas-ertzekoa; Lazkao-Txiki, goierritarra; eta Uztapide, Urola aldekoa. Bakoitza bere gain, laurak jardun ziran; eta Uztapidek, bere txanda iritxi zanean, ara nola kanta-tu zuan:

Danak dirade zoragarriak  
Gipuzkoan lau ixkiñak,  
ta batez ere Urola aldeko  
intxaurrak eta gaztaiñak.  
Eta Zestuan arkitzen diran  
iturri garbi ta piñak,  
ur au edanda sendatzen dira  
danen gibealeko miñak.

# Teodoro Mujika

## Zizurkil

1943 urtean, Zizurkilko erritxoan festak ospatzen ziran, beti bezela, abuztuaren 15-ean, Ama Birjin egunean ain zuzen.

Festa bigarreanean, bi bertsolari alai agertu zitzaizkigun ostatuko balkoiean: Uztapide eta Bautista Ondartza, Asteasukoko bertsolari piña.

Bazirudien gorrotoak eta suak erretako gure lur ontan pakearen eta alaitasunaren azia ereitera zetozela.

Oso gutxitan entzuten dan doiñu alai batekin asi zitzaizkigun kantari. Aldarte aparta zeukaten bertsotan.

Uztapidek goralmen aundi bat egin zion Zizurkilko erriari, paradiso txiki bat zirudiela esanez. Bertso ura ez det gogoan; baiña beste ondorengo biak oker aundirik gabe onela abestu zituzten.

Lenengo Bautistarena, Uztapideren goralmenari erantzunez:

Zizurkildarren familiekin artu nai baukek parte, emen baserri bikain askoak ez dauzkak oso aparte. Egun batzuek pasatutzeak ez likek egingo kalte, i, Uztapide, ez adi joan emengo oilloak jan arte.

Eta Uztapidek bere doiñu eta aparteko eztarri gozoarekin, umiltasun eta jatotasunik ederrenekin, onela erantzuten dio:

Ai, zer arrano esaten dezu,  
Bautista, nere laguna?  
Ez naiz ain ongi bizi nai duten  
oietako euskalduna.  
Oitua dago gutxigorekin  
asetzen bere barruna,  
aurrera ere eskatzen det nik  
taloa ta babarruna.

*El Diario Vasco, 1987-IX-4.  
Errekaldeko intxaurraren itzala,  
Auspoa 235, 1996.*

\* \* \*

Egun ortan, eguerdiko ordubata inguruan, bertso-saio eder bat egin zuten, *Pantxikaene* deritzen zaion taberna ortako balcoitik.

Ondoren, tabernara jetxi ziranean, bertan arkitzen zan eta gure errian bizi zan amezketar artzai batek eraso zion Uztapideri.

Bertso ura ez det gogoan; bañan, oker askorik gabe, auxe adierazi zion: sasoi ederreko mutilla zegoenez, berak bazeuzkala bi alaba eder eta bat berak aukera zezala,

berarekin ezkontzeko. Era ortan nolabait bertso bat, zaar eta berriz naasia, moldatu zion.

Bereala Uztapidek:

Badauzkazula diozu, gizon,  
bi lore eder ta laztan,  
oien tratuan emen astea  
al dakizu zer jolas dan?  
Txantxetan ere bi alabatxo  
jarri dituzu subastan,  
baezbada ere ez det sartu nai  
nik Amezketako kastan.

Orduan amezketar artzaiak beste bertso bat bota zion, adieraziz bertsolarien ofizioa bajutzat zeukala, azkenerako non illundu an ostatu gelditzen zirala.

Uztapidek berriro:

Entzun, gizontxo, aitatzen dezun  
modu itxusi batean,  
gaur arte beintzat ez naiz ibili  
nere buruban kaltean.  
Bertsolaria izanagatik  
ez det nik orain artean  
narraskerian erori eta  
lo egin arta tartean.

\* \* \*

1946 urtean, Uztaillak 2, Santa Isabel eguna. Usurbilko festa eguna. Zizurkillen Luis donearen eguna ospatu zan. Uztapidek eta Basarrik kantatu zuten funtzioaren ondoren. Ondorengo bi bertso auek Uztapidek saioaren azken aldera abestuek dira:

Euskal Errian iritxia naiz  
makiñatxo bat erritan,  
erritxo ontan ere bai noski  
oraingo onekin bitan.

Gustatuko zait Zizurkil auxe  
bixitatzea sarritan,  
guri deitu gabe ez egin festik  
datozen Andra Maritan.

Azken agurra:

Agur gozo bat, zizurkildarrak,  
bukatzeko azkenean,  
Usurbillera joan bear degu  
emendikan zuzenean.  
Oraindik ere zer kantatua  
bagendun almazenean,  
danak ementxe ustuko'itugu  
urrena gatozenean.

Basarrik puntu luze aietako bertso batekin eman zion amaiera, Luis Santuaren bizikera aipatuz.

\* \* \*

Egun batez, Basarri eta Uztapide Berastegira joan omen ziran bertсотara. Bazkaltzen ari zirala, bertako neskatxak Uztapideri dei egin omen zion, telefonotik norbait berari deika zegoela. Zepai zana omen zan deitzen ziona.

Beren izketalditxoa egin ondoren, galdera au egin omen zion Uztapidek:

–Nundik deitzen didak?

Zepaik erantzun:

–Teleponotik.

Berriro Basarriregana inguratu zanean, onek:

–Zeñek deitu dik?

Uztapidek:

–Zepaik. Buirri arek sartu zetak ederra!  
Bukaeran, nundik deitzen didan galde egin zioat, eta “teleponotik” erantzun zetak.

\* \* \*

1971 urtea, Agorrak 9, Arantzazuko Ama Birjiñaren eguna. Zizurkilko Elbarreneko elizan, amabietako meza nagusian. Uztapidek eta Lizasok bertso batzuk kantatu zituzten.

Lizasoren bertso osorik ez det gogoan; bañan itz auekin bukatu zuen bere leenengo bertsoa, urte aiek euskaldunentzat oso gogorak ziranez:

Bizirik jango ez bagaituzte  
lagun zaiguzu zerutik.

Konturatuko geranez, Arantzazuko Ama Birjiñari erregu egiten zion.

Uztapidek ondoren:

Arantzazuko Ama Birjiña,  
zeru ta lurren Erregin,

biurri gauden egun oietan  
zuk badaukazu zer egin:  
errukiaren begiramena  
izan zazula gurekin,  
ia galduan dagon erri au  
erabat galdu ez dedin.

Egun berean, arratsaldetik, bertako plazatxoan, beste bertso-saio bat egin zuten. Lizasok, berriro ere, gure egoeraren minbera agertzen asi zan.

Saio artatik, Uztapideren bertso au besterik ez det gogoan.

Euskaldun danok ez izan arren  
beste askoren laurdenik,  
ez uste beti menderatuak  
egotekotan gaudenik.  
Azpiratuak bagaude ere  
ziurtasuna badet nik  
gure burua ertengo dala  
sator-zulotik bedenik.



# Jose Agirre Azpeitia

*Joxe Agirre Esnal bertsolaria azpeitiarra dela ez dakien bertsozalerik ez da izango. Asko dira Izarraitz aldeko Oranda baserrikoa dela daki-tenak. Hortik Oranda izenordea.*

*Joxe Orandan jaio zen, bai, 1929-ko apirilaren 13-an. Maria Luisa Odriozola Odriozolarekin ezkondu zen. Lau seme-alaba dituzte. Zaintzea asko gustatzen zaion bilobatxo bat ere badu, etxera ezkonduak alabarengandik.*

*Elkarrizketa hau egin genionerako, gaitzak eraso zuen Maria Luisa emaztea. Irailean galdu zuen Joxek bere biziko laguna. Galera haundia, ezpairik gabe. Baina oraingo hau ere gaintzeko kemena eta laister ere plazarik plaza abiatzeko umorea izan ditzala opa diogu Joxeri.*

## **Santo Tomasetan ezagutu**

*Joxe Agirrek Azpeitiko Udaletxeko balkoitik bertsoan ezagutu zuen Uztapide, Santo Tomasetan, orain berrogei ta hamalau bat urte. Artean bertsolari bezala plazaratu gabe zegoen Joxe. Baina bertsoarako grina bizi-bizi bezain kiskalkor zeukan ordurako.*

–Urte artan, Santo Tomasetan, Jose Lizaso, Manuel Lasarte, Basarri eta Uztapide izan ziran bertsoan. Azpeitiko udaletxeko balkoitik kantatu zuten. Nik egun artan aien lau bertso artu nituan gogoan. Agian

konfunditu egingo naiz, baiña nik onelatsu gogoratzen ditut lau bertso aiek. Basarri zan ixkiñatik asten; eta Uztapide azkena, bestaldetik.

Uztapide zaartuta ezkondu zan, berrogei ta lau urterekin-edo; eta Lasarte artean ezkondu gabe egongo zan. Ortik pentsatu zer urte pillu izango dan. Lasarte ere laster ezkontzekotan edo ezkondu naian zala-edo aritu ziran.

Basarri:

Manuel gazte, itzeingo dizut  
anai maite baten gisan:  
etzaitzela betiko galdu  
buru ariñan peskizan.  
Ezkonduzko tratu orretan  
presarik etzazu izan,  
mutilzartuta egonakarren  
Uztapide're ezkondu zan.

Jose Lizaso:

Uztapide au etzan akordau  
gazte sasoiu zun arte,  
orain berakin izango ditu  
ia irurogei urte.  
oraindik oso ez dauzka baiña  
apenas ditun aparte.  
Onen semeak kintatik libre,  
suerte bat badaukate.

Manuel Lasarte:

Uztapide au gazte denboran  
beti izan zan nagia,  
baña bein asi zanean argi  
ibili zuen begia.  
Onen kontuan une onetan  
esan nai nuke egia:  
andre ederra artu zun onek,  
onentzat ederregia.

Uztapide:

Nere sasoi pasa ote zan,  
jaunak, ortaño antziñan?  
Lenago zerbait egiteko're  
akordau gabe ezkiñan.  
Amaika beirazun eña naiz ni  
neskatxei kale-ixkiñan,  
diruz pobreak izanakarren  
ortatik osatzen giñan.

*Gaur egunean errima aldetik-eta pobre samarra bezela ikusiko da, beharbada, Uztapideren bertso au, ezkiñan eta giñan oiñak erabil-tzeagatik. Baina orduan ez; oso bertso ontzat juzkatzen zan bertso hori.*

*Aurreko iruretan batek, zahartuta ezkondu zala; besteak, ez zala akordau; eta hirugarrenak, andre ederregia hartu zuela eta ez dakit zer gehiago. Eta hirurei erantzuten die Uztapidek bertso bakar batean.*

### Olaberrian aurreneko aldiz berarekin

*Joxe Agirrek ondo gogoan dauka noiz eta nolatan kantatu zuen Uztapiderekin aurreneko aldiz.*

–Nik neuk Olaberrian kantatu nuan Uztapiderekin leenengo. Berrogei tbaturre izango dira ori zala. Ni beste batekin motorrean joan nintzan: Bixente *Prakaundi*-rekin. Uztapide trenean etorri zan, nunbait

ere bertsoan izanda. Eta uste det batere lorik egin gabe zegoala, gaiñera. Beste batek artu zuan ura tren-estazioan, eta bidean motorra aberiatu. Ni Olaberriraiño eramane eta berriro jetxi zan nere motortzale ori Uztapideren billa.

Bildurrez amorratzen joan nintzan. Bixentek gogora arazi izan didanez, nik onela galdetu omen nion Uztapideri:

–Zer moduzko lekua da au, Manuel?

–Oso ona! Emengoa errez egingo diagu –Manuelek.

–Zuk bai –nik.

–Baita zuk ere –arek berriro.

Eta ondo konpondu giñan. Uztapide oso gozoa zan itzegiten. Bi saio egin genituan, beintzat: bata eguerdian eta bestea illuntzean. Kontua egiteko ordua aillegatu zan eta komisioko gazte batek esan zion:

–Bueno, Manuel: zuena zenbat da?

–Gurea? Eun bana duro eta propiña libre –Uztapidek.

Ez nintzan asarre gelditu, eun duro aiek jasotakoan!

### Uztapide eta Jon Azpillaga Aizarnan

Neri Olaberrira joateko Uztapidek berak esan zidan. Aurreko jaietan Aizarnan ziran Azpillaga eta biak. Lagunik ez zeukala eta ea Olaberrira joango nintzan esan zidan. Nik bildur aundia neukan joateko; eta, neu ez banintzan, besteren bat bialduko nuala esan nion.

–Nik eu etortzeko esan diat; eta, aal baldin badek, etorri adi eu, arreglatuko gaituk eta –esan zidan.

Balkoi banatatik kantatu zuten Aizarnan, aurrez aurre. Oitura ori bazan. Artean Uztapidek sasoi ona zeukan. Azpillaga, orduantxe txapelketan aurrera samar atera-

ta ibilia, irugarren geldituta-edo. Izen aundia zeukan Azpillagak ere, baiña Uztapide ganadu ederra zegoan, bada!

Geroztik gogoan daukat orduan puntutan kantatu zuten bertso bat. Azpillaga zan asten.

- Azp.: Aitonak e badaude ta mutil gaztiak...  
 Uzt.: Aitatu ez diran oiek zer dituz bestiak?  
 Azp.: Neskatxak ere berriz ez daude tristiak...  
 Uzt.: Iri pozik aundiña oiek ikustiak

### Urnietako Xoxokan

*Olaberrian lehen aldiz kantatu zuten eguneko bertsorik ez du gogoan Joxe Agirrek. Oso fresko dauzkanak, oraindik ere, handik gutxira Urnietako Xoxokan izan zituzten ibillerak dira. Gogoan dauka, bertan lo eginez-eta, nola bi egun elkarrekin pasatu zituzten.*

–An bazan Pagolandi baserria. Ango aitonak Jose zuan izena, eta ikaragarri bromosoa zan. Gezurrak ere botatzen zituan, orrela, tente egoteko modukoak. Orduan ere erronkan ari zan:

–Gure etxean, ni ez banengo, zer izango uke, bada? –eta orrelakoak esanez.

Eta Uztapidek onako bertso au kantatu zion:

Jose, gauza bat eskatzen dizut:  
 zeure tokian errendi.  
 Garai batean agintzen zendun  
 nola etxe ala mendi.  
 Baiña zu gabe badago orain  
 ortarako ainbat sendi,  
 umil ibiltzen baldin bazera  
 egingo zaitugu aundi.

### Azpeitiko Landetan

*Hamaika bertso eta bertso-kontu jaulki eta jasotako lekua izan izango zan Azpeitiko Landetan, Jose Lizasok eta bere emazte Julik urteetan, erre zan arte, eduki izan zuten taberna.*

*San Eloitan izaten dira Landetako festak, eta urte batean Jose Joakin Mitxelena eta Uztapide izan omen ziren bertsoetan. Artean plazartu gabea omen zen Jose Agirre, baiña bertsoarako griña nagusi omen zuen ordurako bere barruan.*

*Josek oso gogoan dauka Uztapidek Lizasorenean zein gozo hartu zuen bera, eta han lagunartean nola kantatu zuten ere bai. Baina ez du gogoan kantatu zuten bertsorik. Bai, ordea, Mitxelenak eta Uztapidek puntutara kantatu zuten bat.*

–Uztapide oso gizon gozoa zan. Gogoan daukat Mitxelenak eta biak, puntuka parranda kontuetan ari zirala, kantatu zuten bertso bat.

- Uzt.: Ni len parranderoa,  
 baita orain ere...  
 Mitx.: Zure gaitz orrek ez dizu  
 aldeingo bein ere.  
 Uzt.: Gaiñera osasunari  
 eiteiot mesere.  
 Mitx.: Orduan arrazoi dezu,  
 segi berriz ere.

Dotorea bertsoa, e? Ondo Mitxelena ere!

Uztapide gizon gozoa zala esaten nizun leen. Gozoa eta kontu esale ona. Aren ondoan eguna pasatzea gustokoa izaten zan. Orain, asarretzen zanean, zakarra omen zan. Nik ez nuan bein ere ikusi asarretuta. Baiña Lexotiri adituta nago nola bein Oiarztunen bat jo ta bota omen zuan.

Ergoien auzoan asi omen zitzaion txakillen bat lata ematen. Faltatzen ari omen zi-

tzaion. Segi eta segi egiten omen zuan gairera, eta alako batean jo omen zuan Uztapidek ukalondoarekin atzeraka okotzean, eta luze bota omen zuan.

Baiña guretzako ura aparta izaten zan. Arekin bertsotan egitea erreza zan. Esan nai nuke, nola berak ondo eta errez egiten zuan, aren ondoan egin-egin bear besteok ere piska bat. Bide erakusle ona zan.

### Uztapiderekin egindako parranda gutxi

*Uztapiderekin egindako parranda haundiren bat gogoan al duen galdetu diogunean, Joxek Urnietako Xoxokan behingo hartan bi egun elkarrekin pasatuz egin zuten hura adierazi digu.*

–Orduan goizaldera erretiratu giñan. Baiña izan ziran batere erretiratu ez ziranak. Guk lo piska bat egin nai, eta aiek kantuan eta bullan.

–Oiek bazabiltzak orain or, alu oiek! –esaten zidan Manuelek.

–Bai, eta zer egin bear diezu? –nik.

–Naiago nitek ire sasoi baneuka. Joan beera eta joko nitek muturrean or dabillen txoro ori, orretzek dizkik kulparik aundienak eta.

### Ezkonberritako kontuak

Urte batzuekin ezkondu zalako entzun bear izan zituan epelak Uztapide gizara-joak. Baiña erantzuten ere asmatzen zuan. Nik ez nuan ura anka-motz gelditzen bein ere ikusi. Ura ona zan.

Ni ezkonberria eta bein, ola lagunartean geundela, galdera zuzena egin zidan:

–Zer? Andrea ixilla al dek?

–Baaa” –nik.

–Bai. Ain berritua ere ez dik ematen ire andreak. Nik ere makiña bat aldiz pentsa-

tu nian ezkonberritan: “andrea zearo ixilla eta au ez dek izango lagunartera ifiora eramateko modukoa; onekin zer egin bear det nik?” Ori esanez kezkatuta egoten niñuan. Bolara batzuetan itzegiten dik naikoa orain. Geiegi ere bai. Eta iri ere igual orrelakoren bat pasatuko zaik.

### Uztapide eta Jose Blanco

*Jose Lizasok kontatu digu leenago Uztapiderekin egin zuen aurreneko saioa nola izan zen. Jose Blane hartan Uztapidek kantatu zituen bi bertso eder ezagutzera eman ere bai.*

*Bertsuetan alde haundirik gabe, baina gertakizunean hainbat aldakuntza tarteko direla eman digu Jose Agirrek pasadizoaren berri.*

–Urte batean, Santo Tomas egunean, etorri onera bertsotara, urrengo egunean Mondragoira joan bear, eta lo egiten emen gelditu izango zan nunbait ere Uztapide. Legerik ez zuan oera joateko sekula izaten. Orduan ere ez zuan edukiko eta Olkiñeko tabernan asi dira bertsotan Jose Blanco eta biak.

Orretarako, Jose Blanco ori Urnietan azitakoa, baiña jasotakoa edo kanpotik ekarritakoa izan bear zuan. *Sasikumea* esaten zaiona. Eta non kantatzen dion Uztapideri ama ezagutu zuala, baiña aitarik ez.

### Eta Uztapidek:

Gauza-moduak jakitera gaur iritxi gera suertez,  
nik emango’izut nere iritzia,  
piska baten egon zaitez.  
Beraz, zuk ama izan zenduan eta aitarikan batez;  
Jesus bezela sortu al ziñan  
Espirituan bitartez?

Udaberrian azaltzen dira  
or bere garaian susak,

oiek dirade nundik datozen  
iñork ez dakigun gauzak.  
Bañan munduan segitzen badu  
orain daukagun jentuzak,  
geiago ere sortuko dira  
olako *Niño Jesusak*.

### Basarriekin bein batean

–Geiagotan ere gertatuko zitzaien, eta orduan ere Basarrik eta Uztapidek alkarrekin pasa izango zuten eguna, eta urrengo egunean beste leku batera joan bear. Ondoez piskaren bat ere bai, eta Basarri garai onean erretiratu izango zan oera; eta Uztapide lagun-kuadrillarekin gelditu.

Urrengo egunean jeiki da Basarri, baiña Uztapide artean oeratu gabe, eta bertso au kantatu omen zion, ikustean, Basarri:

Basarri, ez aiz azaldu  
gaur gizon arrua,  
nonbait ondoezian  
dadukak barrua.  
Ik ere edan bauan  
bartko patar ua,  
ark sendatuko zian  
ire katarrua.

Beste bein, orduan ere bezperan bertso-tan egin –guk ere olako asko egin degu–, eta urrengo egunean, lo askorik egin gabe, alkarrekin joan bear. Eta Basarrik esan omen zion:

–Au dek gizonaren ibillera, au! Gu orain oean egongo giñuzen ondo!

–Gaizki daudenak ere antxe egoten dituk –Uztapidek.

Beste bein, Zarautzen, norbaiti egiten zitzaion omenaldiren bat zan. Bazkalondonan baimena eskatu zion Basarrik Uztapideri:

–Zer, Manuel? Alako eta olako kontatuko al dizkiat?

–Nai dekana egin zak neregatikan –Uztapidek.

Kontatu zuen bat ondorengo pasadizo au da. Ordurako Uztapide zaartuta zegoen. Soraluzeko Ezozian izan omen ziran bertso-tan. Gosaldu egin bear zutela eta sartu dira tabernan. Serbitzaria, neska gaztea, etorri omen zitzaien.

–Zer artuko zenduteke, bada? –neska-meak.

–Ekarri zazu urdaiazpiko zerrenda bana ona, arraultza pare batekin eta botella bat ardo –Uztapidek.

–Eta gero gaiñerako? –serbitzariak.

–Gaiñerako? –Uztapidek, beetik gora begiratu–. Beti gaiñerakoa aukeratu bear al degu guk? Ez al dago emen azpirakoa aukeraterikan?

Belarri aundiarena, berriz, bolo-bolo dabil oraindik. Aitonaren batek esan omen zion Uztapideri:

–Nik ikaragarri estimatzen zaitut, Manuel. Oso bertsolari ona eta gizon jatorra zera; baiña zuk ere badezu, bada, falta bat.

–Zer det, bada? –Uztapidek.

–Belarriak dituzu aundiegiak.

–Ori ez da falta. Ori sobrea da! –atzera Uztapidek.

### Neska laguntzetik asarre

Berandu ezkondu zelako, epelak entzuna zela Uztapide esan digu lehen Jose Agirrek. Sasoian akordatu gabe ez egon arren, eta hamaika begirazun kale ixkinetako neskatxei zuzendu arren, egokiera izan zue-nean ezkondu zen hura ere.

Uztapide neska laguntzera joan zen batean, lagunak noiz itzuliko zai omen zi-

tuen; eta, etorri zenean, batek puntua bota  
omen zion:

Ea, Manuel, oraintxe  
bertsotxo bat bota...

Eta Uztapidek:

Ixilik utzi zaidazu  
asarre nago-ta.  
Ola ibilita ere  
ezer ez dago ta  
etxean egonda obe  
iriena jota.

(Nikolas Aldaik  
grabatu eta papereratua).

# Imanol Lazkano

## Azpeitia

*Imanol Lazkano Uranga 1936-ko urtarrilaren 12-an jaio zen, Azpeitiko Aintzibarren baserrian.*

*Arantxa Odriozola Uzkuhunekin ezkondu zen. Lau alaba dituzte.*

*Imanol, aurrena, Euskal Herriko Bertsolarien Elkartearen presidentea izan zen. Presidente izaten jarraitu zuen Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarte izatera pasatu zenean ere.*

*Azpeitiko Pastorkua jatetxean jarri zigun hitzordua Joakin Berasategik.*

### Azpeitiko Santo Tomasetan ezagutu

*Uztapide noiz eta nola ezagutu zuen gogoran al duen galdetu diogunean, Santo Tomasetan jarri gaitu Imanolek.*

–Santo Tomasetan, Basarri eta Uztapide seguru; Txapel ere, geientsuenetan izaten uan; batzuetan, Zepai; eta besteetan, Loizalete. Azpeitiko Udaleteko balkoitik bertsoan nola aritzen ziran gogoratzen nauk.

Leenengo aldi artan, Basarri izkiña batean uan; Txapel, urrena; Uztapide, irugarrena; eta azkena, Zepai.

Goiz artan izotz bildurgarria egin zian. Baiña korrika zijoan zakurra gogortuta gertzeko modukoa, e? Puntuka asi ituan, eta Basarrik:

Bas.: Gaur goizean sentitu al dezute otzik?

Txa.: Egia esateko ez dadukat lotsik.

Uzt.: Ez det sentitu eta ni bizi naiz pozik.

Zepai: Sekula ez det ikusi olako izotzik.

Nik artean amar urte ez nizkian edukiko. *Sekula sekulorum* nerekin joango dek bertso ori ere.

### Uztapideren umorea

–San Juan egun batez, Abaltzisketara joan giñuzean Uztapide eta biok bertsoara. Tolosan artu nian kotxea, eta joan giñuzen eta an gosaldtu. Eguerdian bertso saioa egiteko an zegoan andamio bat jarria. Igo giñuan ara, eta Uztapide ez uan asierarako bere burua eskeintzen zuan orietakoa. Beti bestea astea naiago izaten zian. Eta irriparrez esan zidan:

–Normala dek ire adiñean, eta ik onera bidean agurren bat eginda ekarriko uan, bada? Nik ezer egin gabe zeukeat eta asi adi erorri.

Ori San Juan eguna uan. Uztaillaren 1-ean, Irunen, Jose Lizaso, Uztapide eta ni, irurok giñuan, Frontoian genian saioa, eta esan zidan:

–Asi, gaztea!

–Aizu, Manuel: nik ez det beti bidean egiteko agurreko bertsoa, e? –nik, ironia pisaka batekin, Abaltzisketakoa gogoratuz.

–Ba! Emen Abaltzisketatik urruti samar gatxeudek, eta iñor ez dek konturatuko eta kantatu zak ango ura bera.

Orrelakoxe umorea uan Uztapidek.

## Gizon azkarra

–Uztapide uan gizon bat –uste diat nere iritziz esan nezakeela, segurutzat baizeukeat-eta ala zala, eta bestela ere an nonbait izango dek–, nik ezagutu dedan bertsolariarik listoena, argiena, zalantzarik txikienik ere gabea.

Bere gorpuzkerak eta fisikoak laguntzen zion, eta Uztapidek beti zeraman itzal bat bere atzetik soiñean. Ez zuan galtzen sekula Uztapide izate ori, ez izketan, ez bertsoan, ez... Beti mantentzen zuen alako seriohasun puntu bat, naiz eta gizon umoretsua izan.

Ezagutu genian Uztapide era askotara. Gu bezelaxe, erdi mozkortuta eta baita erabat mozkortuta ere. Baiña sekula ez zuen galtzen gizonaren patxara, errespeto minimo bat izateko moduko itxura ori.

Uztapide azkarra uan, bildurgarri azkarra. Eta erakutsi zian ori era askotara, Bertsoan ere bai.

## Iru bertso-gurdi, iru belaunaldi

–Guk ezagutu genuen leengo bertsoe mota. Gu ere aspaldi samarrekoak gaituk eta orduko gure ingurukoen berri izateko suertea izan genian, eta gutxi edo geiago asi: Loidisaletxe, Txapel, Zepai, Ondartza... Zubeltzu zaarrarekin eta danekin orrela bertsoan egiteko aukera izan genian.

Oriek danak Txirritaren belaunaldiko, erremesako, aren ondorengo eta eskola beretsuko bertsolariak ituan.

Uztapide ere talde orretakoa uan berez. Baiña talde orretan bertsolari onena izateaz aparte, danetan argiena uan. Eta Basarrik ekarri zuan aldaketa orretaz ere talde orretan danean konturatu zan bakarra, Uztapide uan.

Uztapide, leenengo, Txirritaren eta dotriña artako gauzarik politenak galdu gabe, Basarriren gurdia igo, Basarriekin aurrez aurre urte mordo batean bertsoan egin, Basarriren lenguaje beretsuan, eta iru txapel irabaztera iritxi uan. Eta orrek berorrek ere esan nai dik zerbait.

Uztapidek orretan ere desmostratu zian gizon azkar bat zala. Beti bere burua ezjakin eta tonto itxuran azalduko zian. Baiña itxuran bakarrik. Dudarik gabe, nik ezagutu dedan bertsolariarik azkarrena uan. Baldin bada ere, arekin piska bat parekatu ditekeena gaurko txapelduna da. Listo purukatua eta non dabillen dakiena, bertsolari ona izateaz aparte.

Jendearekin arremanetan eta izateko eran, igual izango da nik ainbestetxe miesten nuelako, baiña geiagok ere ala airtortzen ditek, eta Uztapide uan neretzako bertsolariarik azkarrena.

## Basarri baiño aurrerakoiagoa

–Bazirudian Basarri, berrikuntza ekarri zuen bertsolaria, aurrerakoiagoa izango zala. Baiña Basarriren aldean aurrerakoiagoa uan Uztapide. Aurrera begira, Basarrik baiño idea askoz preskoagoak zizkian. Basarri askoz ere izaera zaaragoakoa uan bere pentsakeraz-eta.

Uztapideri sekula ez ioan entzungo gazte batengatik:



–Gaurko gaztedia joan dek pikutara!

Arek esango zian:

–Gaurko gazteen aukerak guk eduki bageinu, auek baiño txukunagoak izango giñuan, bada!

Azken-azkenean egin zuen Uztapidek beste oso gauza zail bat: Txirritaren leen esan dedan gurditik zearo jetxi gabe, Basarrirenera pasa eta bai irugarren aldaketarenera ere, or Azpillagak eta Lopategik garatu zuten bertsoalaritzara; piska bat, orrela, bertsoalaritza erreboluzionariora. Orretan ere golpeak eman zituen Uztapidek. Or ere sartu egin uan ura.

Adibide bakarra dek: Donostian mututu zan egun artan, egun artan ez, urrengoan, Lopategi poliziak eramanda ibili uan, egun artan kantatutako bertso politiko batzuk zirala eta. Baiña, mututu ez balitz, Uztapidek ere seguru asko joan bearko zian poliziara, zeren egun artan politika aldetik kantatu zan bertsoerik fuertena Uztapiderena uan.

Azpillaga eta Lopategi an ituan, e? Baiña egun artan Francoren diktaduraren kontrako irugarren gurdi artan ere sartu egin uan Uztapide.

### **Kalea, festaleku**

–Ori egiteko izan bear dik ideak garbi eta bere buruarekin segurantzi bat, eta gizon argia bear dik izan. Iru belaunalditan ibili uan, eta iruretan topean, puntan. Ori zaila dek bertsolari batentzat.

Or erakusten zian Uztapidek tipo berezi-berezia zala. Gazte denbora naiko zabar eta naiko errez eramandakoa. Ez uste izan Uztapide *Niño Jesus* izan zanik, e? Manuel uan asto koskor ederra izana. Basa-mutil basa-mutilla. Eta, kalera jeixten zanean, etxera joatea aazten zitzaiona.

Berari entzunda natxeok, bein baiño geiagotan, Zepai eta biak Donostian, zerbeza fabrikari, lanean aritu ziran garaian, aien bizimodua egiten beste lagun batzuk ikusiko balitu, ez liekela aurpegira begiratuko.

Piska bat ulertzekoa dek, Uztapidek eta Zepaik kalea, iria, festaleku bezela ezagutu ziaten eta. Aiek iru illabete edo lau mendian egin eta kalera jeixten ziran lanean ko-brantzaren bat edo paperen bat egitera, edo ikatza saltzera, nai dekana egitera jeixten ziran garaian, egingo ziaten goizean taberna batean gosaldutxo; kontuak edo egin bear ziranak egin; gero, beste taberna batean bazkaldutxo; beste batean afaldutxo; illuntzean bertso saioa egin eta etxera. Aientzakoa, kalea festa egiteko toki bat uan.

Kaleko langille arrunt batek goizean jeiki eta lanera. Gero, berriz etxera etorri. Txikitoren bat artuko dik eta bazkaldutxo, kafea artu eta arratsaldean lanera. Kanean bizi liekela lana egiñez, langille bezela, ezta?

Baiña aientzat, bein kalera joan ezkeroko, kalea uan festaleku bat. Eta aiek *txip* ori aldatu gabe pasatu zizkiaten leenengo urte oriek. Sasoi galanta berekin eta lana egingo zien, irabazi bear zalako eta joan bearra zeukatelako. Baiña andik irten orduko, sagardotegira; ara edo onera, eta gaupasak eta erretiratu gabe askotan.

Ala ere, seguru natxeok ni arek, zebillen tokian, ez zuela galdutxo Uztapide-izate ori.

Gero uan irudi serioa, gizon, bertsoan arrazoizkoa. Izketan ere bai. Maian ere bai... Zebillen tokian, beti bazian alako berezitasun bat, eta orregatik uan erri guztiak maite zuena.

### **Plaza-gizon, oreka gordez beti**

*Bere belaunaldikoetan gehien kantatu zuen bertsolaria Uztapide izango zala iradoki diogu Imanol Lazkanori.*

–Ez ori bakarrik. Bertso txarrak ere kantatuko zituen ainbeste kantatu zuenak. Baiña bertsoarik onena kantatu edo txarrena kantatu, aurpegi berdiñarekin jiratzen uan ura mikrofono aurretik. Onena kantatzen bazuan ere, ez zian irtengo ola aurpegia zabalduta. Eta, txarrena kantatzen bazuan ere, iñork ez zioan ari igarriko aurpegira. Berak barrutik bai.

Gogoratzen nauk: Jose Agirre eta biok giñuan Lazkao-Txikirekin eta Uztapiderekin Zegaman. An bauan zine txiki bat, eta an genian saioa. Inozentzio Olea uan gaiak jartzen.

Uztapideri, agurra egiterakoan, bertsoak alde egin zioan. Azkeneko puntua ez zekiat puntua zan ere. Baiña jiratu uan, bere denboran kantatu zuan bertsoarik onena kantatu izan bazuan baiño satisfazio geiagorekin.

Lazkao-Txikik zearo egun alua zian, erre-erre eginda.

–*La leche puta!* Etorri ez banintz, askoz obe! –eta ez dakit zer geiago esaten zian.

Uztapide ixil-ixilik zegoan eta alako batean:

–Ez dagoela eskubiderik, plazara etorri eta gizonak orrela kobratu eta txerrikeri ori egiteko; –Lazkao-Txikik.

–Zer esaten ari aiz? Motell, motell, ago ixilik! –Uztapidek–, biar ere abisatuko diate iri nora-arako eta! Noiz edo noiz zer edo zer egin dekalako abisatzen diate iri. Zer edo zer aizelako. Orain utsegite bat egin dekalako erre bear al dek eure burua? Nik asieran kantatu dedan agur ura ere naiagorian beste batek kantatu izan balu. Baiña neri irten zaidak eta orri buelta eman bear al diok, bada? Kantatuko dizkiagu onak ere, tarterik baldin bada oraindik. Egon adi lasai!

Arek ez zeukan agurreko bertso txar ura aaztuta. Baiña jendearen aurrean, txarra

kantatuta ere, ona kantatutakoan oi zuen irudi ber-berari eusten zioan.

Orrek esan nai dik aillegatu egiten zala kapazidadez, eta gauzak ulertzen zituala; natural jokatzeko zuela.

Bat-bateko bertsoak ez zeukak beti perfektua izaterik, eta anka sartu dekala eta ezin irtengo aiz eure onetik. Urrena ondo kantatzen dekanean, orduan ere ez pasatzea ona dek. Eta eroritakoan altxatzen jakin bear dik.

Detalle auek garbi zeuzkean Uztapidek. Uan tipo bat izugarria!

### Bere liburuekiko kritikoa

Gero, bertsoan ere naturaltasun ikaragarria zian Uztapidek. Gogoan diat bein Beasainen jarritako puntu bati emandako erantzuna.

Puntua:

Etorri al zerade,  
lagun Uztapide?

Uztapide:

Izan ere badet emen  
ainbat adiskide.  
Zuek jarri dezuten  
jaia dala bide,  
besteak bazetozen da  
etorri naiz ni're.

Penagarria dek aren bertsoarik onenak aizak eraman izana. Grabaketak-eta asi ziranerako, Uztapidek altxor aundia zeuketan bertsoan ixurita.

Gero, berriz, idaztera-eta dedikatu uan. Baiña burua euneko berrogei ta amarrera jetxi eta gero. Leendabiziko liburuarekin

bastante konforme geldituta zegoen, ala ere. Bigarrenarekin, ez ainbeste.

–Liburua egin diat, Imanol! –esan zian.

–A, bai? Salduko da –esan nioan.

–Bai. Salduko da nere liburua. Nere liburua dala eta salduko dala bazekiat nik ori. Baiña ortxe egin det anka-sartzea. Ez nian egin bear. Askotan engaiñatu egiten gatxik geure buruak. Nik ere orain, peza batzuk izango dirala eta salduko dala pentsatuta, egin-egin diat ori, eta betiko orixe geldituko dek. Eta ez dek ona. Nik liburu ori egiteko orain baiño sasoi ohea nuen garaian ez nian denborarik izan. Eta orain, neure aalmenak asko murriztuta egindako liburua dek, eta ori geldituko dek istoriarako. Ez nian egin bear.

Konturatu uan orrekin ere. Bere teoria uan bera ez zala bertso-mejoratzaillea. Leenbiziko akordaldian esaten zuena zala onena arena. Beste batzuek, piska batean egonda mejoratu egiten zutela. Baiña papererako bertsolaria bera ez zala esaten zian. Alkarri erantzunez tiki-takakoan sortzen zan bertsoa zala onena.

Ez dek ori dana egia. Piska bat mejoratzen zian arek ere; baiña ez beste batzuek adiña. Beste batzuek bertsoa paperean kargatu egiten ziaten, eta berak ez. Arek ez zian ori bere fuertea. Arek zizkian oso-osoa eta bat-batean.

## Nere bertsolaririk mirestuen

Abotsa ere, bertsoarako, arek zuena baiño ohea zuen bertsolaririk ezagutu al dek ik? Miresmen bezela, Oiartzunen bertan-edo, bein ere sentituta kantatu baldin badet, arixe kantatu nioan azkeneko omenaldikoan:

Izan dituzun birtute danak  
oso zailla da esaten,  
alegin danak egiten ditut  
zure antzeko izaten.

Bertsolari bezela eta zuen barruko argitasunarengatik, geiena mirestu nuena, eta gaur ere miresten dedana, izan uan Uztapide. Ura baiño bertsolari listoagorik baldin bada, oraingoxe txapeldun auxe dek. Beste iñor ez diat nik ezagutu ura bezin pertsona argirik. Argitasun naturala, ez ikasitakoa. Berez listo.

Zebillen tokian, arek belarri aundi aiekin eta sudurrari goraka tiratzen bazion, arek kalkulatzen zian zein ingurutan edo nun zebillen, bista ere oso ona zian eta.

Ala ere, ez uan gizon bat beti danei amen-amen egiten zielako maitatua. Ura, ortzak erakutsi bear ziranean, erakusten zekiana uan. Ukabillarekin maaia jotzen zekiana ere bai. Gizonetik izugarri zuan pertsona uan, argia uan eta!

(Nikolas Aldaik  
grabatu eta papereratua).

# Lexoti bertsolaria

## Oiartzun

**J**ose Luis Lekuona Garaiar, Lexoti bertsolaria, 1925-ko azaroaren 11-n jaio zen, Oiartzungo Maiztaborda baserrian. Gaur egunean Hernaniko Epele auzoan bizi da, bere arreba Pepitaren etxean. Hala esan zigun arreba horrek grabazio hau egitera joan ginenean:

–Sei hilabeteko bizia ematen ziotela eta hartu nuen etxean orain hemezortzi urte. Esker-rak sei hilabeterako bakarrik eman zioten...

Grabazio hau San Antonio Urkiolakoaren bezperan, 2000-ko ekainaren 12-an, egin genuen.

### Txirritaren omenaldikoak

Ondorengo bi bertso hauek 1936 urtean, Erreterian, Txirritari omenaldia egin ziotenean, kantatuak dira. Omenaldira joandako bertsolari denek kantatu omen zioten Txirritari, eta baita honek erantzun ere. Hona hemen bueltetako batean Uztapidek kantatu ziona eta Txirritak emandako erantzuna.

#### Uztapide:

Zure bertsoa beti izaten da argia eta klarua, estimatzeko modukoa da zuk daukazun zartzarua. Aita batekin ola aitzia gaztientzat anparua, ankak piska bat okertu baiña argi daukazu burua.

#### Txirritak:

Nere barrengo sentimentua esaten bear det aritu, zuri ez dizu kalte egingo, gazte maitea, aditu: reuma gaiztuak arrapatuta elbarri nintzan gelditu, neri gaitza au eman zidanak zuretzat ere baditu.

*Lexotik dionez, handik hilabete pare batera-  
edo hil omen zen Txirrita. Goizuetara batzokiaren inauguraziokoan bertsotara joan, gazta zaharra jaten-eta aritu, eta nobedadea egin. Handik berehala hil omen zen.*

### Basarri eta Uztapide, San Isidroten Oiartzunen

*Garai batean baserritarrentzat bazkaria izaten zen San Isidroten Oiartzunen. Andres Gonzalez sindikatukoa arduratzen omen zen antolakuntzaz.*

–Nola ez dakit, baiña urte batean Oiartzungo tabernariekin arreglatu ez, eta Erreteritik serbitu zuten bazkaria. Basarri eta Uztapide ziran bertsotan, eta Basarri norbaitek eman izango zion gertatu zenaren berri. Bazkalondoan, kantuan asi ziranean, Basarrik:

Etz apuratu asarre samar  
dabillelako Basarri,

nik zernai gauza esanagatik  
kopeta illunik ez jarri.

Oiartzun ontan au gertatzia  
neretzako lotsagarri;  
ta azkenian bazkariak e  
Errenteritik ekarri.

### Uztapidek:

Basarri onen lengo sakia  
golpez egingo det ondu,  
arrazoi ori etzun esango  
gure berri jakin balu.  
Ori karkulatu dun gizonak  
talenturik aski badu:  
al dan guztia ekartzen saia,  
al bada ezer ez bialdu.

Ordurako Oiartzunen bizi baitzen Uzta-  
pide, eta arek ondo zekien emengo berri.

*Uztapide Oiartzunera bizitzera etorri zen  
garaia gogoratuz, hau azpimarratu zigun Lex-  
otik:*

–Ura onera etorri zenean, uste zuten ta-  
bernaz taberna bertsotan arituko zela. Bai  
zera! Ez zen aritzen. Gutxitan. Nonbaitetik  
etortzen zenen batean, akaso.

Ura, San Pedro alde orretan, lau-bost  
egunetan aritzen zen bertsotan, asi or non-  
bait ere San Juanetan eta Irungo San Mar-  
tzialetan bukatu arte.

Orduan, etortzen zenean, botatzen zi-  
tuen ikaragarritzko aleak. Lastima gogoan  
ez jaso izana!

*Uztapideren izakeraz ere galdetu diogu Lex-  
otiri.*

–Ura gizon serioa zen. Parre gutxi zuen,  
baiña broman aritzea-eta gustatzen zi-  
tzaion.

Jai askotan alkarrekin afaltzen genuen  
guk. Ni barrendero ibili nintzan an azke-  
neko urteetan. Jaietan ara joaten nintzan,

eta ura ere azaltzen zen, Ergoingo *Bide-  
alde* jatetxera. Andrea angoa baitzuen.

Afalondoetan iñoiz aritzen giñan ber-  
tsotan. Beste askotan izketan ere bai eta...  
Parre gutxikoa, baiña oso gizon atsegiña  
zen. Oso umore fiña zuen.

### Don Rejino medikuarekin, batean

*Oiartzunen bat baino gehiago izanak izan  
behar dute herritarren gustoko mediku zirenak,  
herri-mediku jator horietakoak. Bat, behintzat,  
Don Rejino. Asko gustatzen omen zitzaizkion  
bertsoak. Honela kontatu digu ondorengo pa-  
sadizoa Lexotik.*

–Batean, San Estebanetako festak ziran,  
eta gu bertsotan arituak goizean. Nik aren  
alaba nuela andregaiia kantatu nuen. De-  
nak parrez.

Gero, bazkalondoan geundela, orra non  
joaten zaigun Don Rejino ori, eta neri:

–Ara emen gure sui-bearra!

Nik zerbait esan bear eta:

–Ez, Don Rejino! Leenago bai, baiña utzi  
nuen zure alaba ori.

Eta Uztapidek baztarretik:

–Izorratu dek ederki!

–Zer, bada? –Don Rejinok.

–Zer, bada? –Uztapidek–. Onek nai ezik  
utzi duena zeinek artu bear du?

*Don Rejinok ez-ezik, haiek algarak egin omen  
zituzten inguruan zeuden guztiek ere. Pasadi-  
zo hau kontatu ondoren, honela jarraitu du Lex-  
otik bere gogoetarekin:*

Umure fiñeko gizona eta bertsolari be-  
zela aundia zen ura. Gure moduko batekin  
ere ondo egiten zuen. Basarrirekin ere  
ondo. Edozeiñekin ondo. Bertsolaria aun-  
dia zen ura.

## Xenpelarren mendeurrenekoan

*Xenpelar hil zeneko mendeurrenean, –nola ez bada?–, bertsolariak han ziren, besteak beste, Erreterian antolatutako ekitaldietan.*

*Orduan Uztapidek kantatu zituen bertsoe-tako bat ondorengo hauxe da, Lexotik gogora-tu digunez:*

Bertso eder bat kantatu nai det  
Xenpelarren ondran, orra.  
Gaur eun urte pagatu zuen  
mundu onetako zorra.  
Gizon bezela zuzena omen zan,  
ta bertsolari jatorra,  
mundu ontatik joan zan baiña  
bere izena illezkorra.

## Beste bertso bat

–Ez dakit bertso au ondo kantatuko de-dan. An, Oiartzunen, *Aixia*-edo esaten zio-ten bat baten. Erdi mozkortzean, beti or ibiltzen zen "Biba karlistak!"-eta esanez. Ala ari zen batean, Mitxelenaren leengu-suak-eta *fuera*-ka eraso. Baita batek parte eman.

Gizon au gerra aurrean nazionalista izan-go zen, baiña andrea karlista zuen, eta ge-roztik arrunt txoratua or ibiltzen zen.

Esaten nuen bezela, orrek denuntziatu, eta guardia zibillak jo egin zituen Mitxe-lenaren lengusua-eta. Ondorengo batean onela kantatu zion Uztapidek:

Saltsa besterik ez dek jarritzen  
abillen leku danetan,  
eskandaloa asmatu naian  
or ibiltzen aiz benetan.  
Ez pentsa gero gauzak esaten  
ari naizenik brometan:  
andreai galtzak entrega'izkiok  
eorri sartuta gonetan.

## Jose Joakin Mitxelenari, batean

–Uztapidek bertso txarra gutxi zuen. Ber-tso txarra gutxi, eta aparta asko. Lautatik bat-edo, berdingabekoa. Arrunt mozkor-tuta egonda ere ondo kantatzen zuen.

Bein Mitxelenari ere bota zion ederra! Nonbaitetik kantuan jardunda etorria zen. Erdi lotan omen zegoen eta Mitxelenak zerbait ere kantatu izango zion. Ona emen esnatu ezinda zegoen Uztapideren eran-tzuna:

Gauza guztiak ola'ituk baiña  
orra ni emen elbia,  
luzaro gabe jakingo'zute,  
mutillak, onen berria.  
Mitxelena onek len izan zuan  
ondo aritzen zan aldia,  
baiña ne mailla iritxitzeko  
oraindik dauka premia.

## Eliz-kandelak itzaltzeko gantxogintzan

*Beste guztiok bezalaxe, pertsona berbera izan arren beti, Manuel Olaizolarengan berezi omen zitekeen noiz zen Uztapide eta noiz ez, Lexo-tik esan digunez. Lagunarte-zale beti, bro-ma-zale ere bai. Baiña bertsolari, tokatzen zenean bakarrik.*

Neri illea artzen aritzen zen beti. Nik noiznai zirikatzen nuen kantatuko ote zuen, bada, naiz eta asizale ez zela jakin.

–Nere moduko bat banu, kantatuko ni-kek; baiña kategoria galtzen diat irekin ari-tuta –esan oi zidan.

Eta, ala, bein bota nion:

Oitabi urtekoa  
dauka andregai,  
beronek berroi ta lau  
badaduzka ia.

Bein e billatzezkeru  
bazenun garaia,  
demonio itxusi,  
belarri aundia!

Bota banion, bota nion, bada! Aditu nituen gero ederrak! Nere sudurrarekin eliz-kandelak itzaltzeko gantxoak egingo zuela ta... nik al dakit zer geiago! Aurrez ere banekien aditu bearko nituela, e? Baiña orrelaxe gozatzen nintzan denbora aietan neroni ere eta... adituak aditu, konforme.

### Beste batez, musean

–Beste bat, musekoa ere, badet arekin. Orain berrogei bat urteko kontuak, bai, izango dira gutxienez. Uztapide Ergoien-dik Mitxelenaren billa etorri zen Iturriotza. Eguraldia zegoen arrunt txarra. Eta an, orain *Zuberoa* esaten zaion jatetxe orri, orduan *Garbuno* esaten zioten. Eguraldiaren korajea ikusita, musean asi giñan taberna orretan. Uztapide eta Mitxelena, eta Garbuno eta ni. Garbuno, Manuel Arbelaitz; orduan amazapi urte egin zituen erriko alkate.

Ari giñan, bada, musean, eta Uztapidek:

–Parisen tella adiña tanto enbido aundira!

Eta jaso alea. Garbuno etxe aurrean panpanoa zen eta Manuel Arbelaitz orrek:

–Gure etxearen aurreko panpanoak os-toak adiña tanto enbido txikira!

Eta jaso alea.

Eta Mitxelenak paretara:

–Aiako Arriak gramoak adiña tanto enbido paretara!

Eta tira alea.

Jokora aillegatu giñan denboran nik:

–Gure etxean milla duroko aiña tanto enbido!

Eta orduan Uztapidek:

–Bale! Ik paso esan naiko uan!

Broman, orrela ibiltzen giñan.

### Erriko jaietan kantatua

*Gauza jakina da Oiartzunen San Estebanetan egiten dituztela herriko festak. San Estebanetan bota zuen bat da, Jose Luis Lekuona Garaiar Lexoti bertsolariak gogoan duen Uztapideren azken bertsoa bezala kantatu diguna.*

–Urte sail batean, utsegin gabe, San Estebanetan bertsoan izaten nintzan ni Oiartzunen. Baita Uztapide ere. Urte artan Basarri eta Jose Joakin Mitxelena ere kantatu-lagun izan genituen. Uztapidek onelatsu eman zion saioari asiera:

San Estebanek mundu onetan  
pasa zun zenbait martiri,  
ta geroztikan ezagutzen det  
erri ontako zaindari.  
Aingerutxo bat bidaltzen diot  
bitarteko mandatari,  
baldin premian aurkitzen banaiz  
arren laguntzeko neri.

Leen askoz bertso geiago nituen gogoan. Baiña orain zaartu egin naiz eta aaztu egin zaizkit.

*Horrela jarri dio amaiera egin digun berri emateari, beti bezain prestu hartu gaituen Lexotik.*

(Nikolas Aldaik grabatu eta papereatua).

# Jon Azpillaga

## Pasai San Pedro / Mutriku

**J**on Azpillaga Urrutia Pasai San Pedron jaio zen, 1935-eko azaroaren 26-an. Ondarroan eta Berriatuan bizi izan ondoren, ezkondu zenetik Mutrikun bizi da. Berak erakutsi zidan Okelar baserrirako bidea, Romanen adierazpenak jasotzera joan ginenean.

Egun berean egin zizkigun Jonek ondorengo aitorpenak Mutrikuko plazan, berarentzat bakarrik udaletxeak seinalatua daukan aparkalekuan. Jasaten duen artrosiarengatik, lanerako erabateko ezintasuna jasoa dauka Jonek; eta, urrutian kotxea utzi eta etxeratzeko zailtasunik izan ez dezan, aukera hori eskainia dio Mutrikuko udalak: aparkaleku bat beti eskura izatea. Herrigintzan emanak dituen urrats ugarien ordainetan ez zuen gutxiago mereziko Jon Azpillaga haundiak, zahartzarora inguratzen ari den honetan.

2000 urteko ekainaren 12-an, hor gaude, beraz, Jon Azpillagaren Mutrikuko plazako aparkaleku propioan, kotxe barruan.

### Oiartzunen eta Arruan

–Uztapide aspaldi ezagutu nuen nik. Aurreneko aldiz, Santa-eskeko bazkari batean ikusi genuen elkar, Ondarroako Iparragirenean. An elkar ezagutu eta bai bertso saio batzuk egin ere. Ez naiz akordatzan, ordea, zer kantatu genuen. Gogoan dau-

kadana, agian jende geiagok ere ala izango duen beste bertso au da:

Zer egingo nion ba  
aundiago zan da?  
Zutik ezin bazendun  
probatu etzanda.  
Bi orduko bidean  
neskarekin joanda,  
eze'egin gabe etorri  
zalea izanda.

Bertso hori Oiartzunen bertako Jose Joakin Mitxelenarekin bertsotan ari zela kantatua omen da.

Jonek eman zigun Uztapideren beste bertso baten berri ere. Ez omen da berak zuzenean entzundakoa, beste batzuegandik jasotakoa baizik.

Ondorengo hau Arruako lehengusu batek jarritako puntuari erantzunez kantatua omen da. Honela omen zen puntua:

Pausoa aldrebesa du  
luzaro ibiltzeko...

*Eta Uztapidek:*

Ez dik askorik falta  
oiraintxe iltzeko.



Zein preparatuko da  
zuloan sartzeko?  
Ni beintzat gertu neok  
buruan jotzeko.

Gero, Uztapidek baditu bertso gogoan-  
garriak, asko gaiñera, Baiña oiek liburue-  
tan jasoak daude.

### Uztapiderekin plazarik plaza

Nik 1961-garren urtean irurogei ta bost  
plaza egin nituan. Bada irurogei ta bitan  
Uztapiderekin kantatu nuen. Oietako bat  
emen, Mutrikuko Kalbario mendikoa izan  
zan.

Egun guztia bertsoan pasa Kalbarion,  
eta gero Maixan, afalostean kantatzen ari  
gaiñala, argindarra joan zan. Kandela aundi  
bat piztu eta jarri ziguten maaiaren er-  
dian.

Orduan Uztapidek kantatu zuen bertso  
bat ia orain arte buruan bueltaka erabili  
izan det. Oso bertso polita zen, kandela  
ura itzali arte andik ez zala jeikiko esanez  
kantatu zuena. Baiña orain ezin det gogo-  
ratu.

Baiña esan eta egin: alegia, goizeko lau-  
rak jota jeiki gaiñan maai artatik. Ni oiñez  
jetxi nintzan etxera, ordurako Mutrikun  
bizi nintzan-da. Uztapidek Maixan bertan  
egin zuen lo. Eta bertako mutillak eraman  
zuen biaramon goizean Debako tren-esta-  
ziora. Zazpi t'erdietan zan trena. An el-  
kartu gaiñan berriro biok, Billabonako ezta  
batzuetara joan bear genuen-da.

### Zizurkilkko egun-pasa

Trenean sartu, Donostiara joan, an Parte  
Zaarrean amaiketako edo amarretako  
egin, beste trena artu eta Billabonara. Bi-

llabonan Zizurkillerako zubia pasatu be-  
zin pronto dagoen *Pasus* jatetxean zan ez-  
tai-bazkaria.

Ezkontzen zana, ni bezela, gerran aitarik  
gabe umezurtz gelditutakoa zan. Egokie-  
ra ere alakoxea eta gustora eta benetan egin  
nuen nik bertsoan egun artan.

Uztapide, berriz, oso apala egon zan; in-  
darrrik gabe edo. Bezperan egundokoa bota  
genuen. Nik ez det uste alakorik aspaldian  
bota izango zuanik. Eta geroago ere ez da-  
kit aundiagorik egingo zuanik; askoz aundi-  
agorik ez beintzat.

Berrogei ta amairu urte zeuzkan orduan  
Uztapidek; eta nik ogei ta sei, ogei ta zaz-  
pi izateko. Ni baiño ogei ta sei urte pasa  
zan zaarrago. Neri Uztapide zaarra zala  
iruditzen zitzaidan. Jaten, beintzat, nere  
erdia ere ez zan; eta edaten, ni baiño geia-  
go, orduan ere. Koñaka edaten ikaragarria  
zan Uztapide!

Eztai-bazkariko eginkizunak bete eta be-  
rriz Donostiara joan gaiñan trenean. Gero  
arek *topoa* artu zuen etxera joateko. Eta nik,  
Debarako trena. Orrela bukatu zan gure  
egun ura.

### Ondoren kantatu zale

Ori, egun artakoa. 1961-garren urtea ika-  
ragarria izan zan guretzako. Zenbat egun  
pasatu ote genituan alkarrekin? Eta zen-  
bat bertso bota?

Zenbat bertso eder entzun ote nion nik  
ari? Uztapide ikaragarria zan, gero! Maisu  
zoragarria. Sekula bere neurritik irten ez,  
eta ez zenuan arekin ibiltzeko, ola, lotsa-  
garrizko itz baten bearrik izaten. Tarteka,  
bai; bazituan olako bertso berdexka batzuk  
adarra jotzeko-ta; baiña, bestela, oso ber-  
tsolari ona zen Uztapide; onena.

Saiotan beti ni astea gustatzen zitzaion. Beti, ni gai-jartzaille bezela. Orduan ez zen, bada, gai-jartzailerik izaten. Geuk kantatzen genuena izaten zan. Ni asten nintzan eta nunbaitetik ateratzen nuan zer edo zer. Nik periodikoa irakurtzen nuan, beintzat, aal nuan guztietan. Arek ez det uste ura irakurtzen zuanik ere. Eta ango berriak eta emengo berriak-eta izaten genituan gai.

Orduan ez zegoan nai zan gairik erabiltzerik ere. Esate baterako, politika asuntuan ez giñan asko sartzen. Ez, Uztapide eta ni ibili giñan garai artan beintzat. Erri bereko kontuak eta bertan gertatzen ziranak-eta izaten genituan kantu-gai.

### **Lagun aundiak, gero ere**

Orrela pasa zan 1961 urte ura. Gero ere bai, ibili zan arte, Uztapiderekin kantatu nuan ainbat plazatan. Baiña ondoren artan Lopategi eta biok asi giñan alkarrekin. Eta orduan bukatu zan Uztapiderekin ibiltzeko aukera ere. Ori bai: gero ere lagun aundiak izan giñan.

Eta ori: nik garai batean Uztapideren bertso mordoan nuan gogoan. Baiña orain dakanak aaztu zaizkit.

### **Okelartarrekiko miresmena**

Askotan gogoratzen zan Uztapide Okelar anaiekin. Ibiri baillaran antxe zeudela bi bertsolari ikaragarri onak. iñora kantura joaten ez ziranak, eta lastima bat zala esan oi zidan.

Nik neuk beti esan izan det Modesto koplari ona zala, aparta. Roman bertsolaria da. Narbaizarentzat, Agirrerentzat, Lazkanorentzat, Sebastian Lizasorentzat. Egañarentzat... oso bertsolari berezia da Roman. Ez ohea dalako, diferentea dalako baizik. Berorrek ez dio inportantzirik ematen.

Neri zenbat lekutatik deitu izan didaten, aal banu Roman eramateko esanez. Eta ez du nai izan. Kobratzeko lekura ez du joan nai izaten. Ez daukala kobratzeko adiñako kategoririk esaten du.

(Nikolas Aldaik grabatu eta papereratua).

# Roman Maiz Uriguen

## Okelar, Mutriku

**R**OMAN Maiz Uriguen, Okelar bertsolaria, Mutrikun jaio zen, 1928-ko azaroaren 5-ean, Pikua baserrian. Okelar baserria Ibiri bailaran aurkitzen da.

Uztapidek 1961-ko irailaren 14-an ezagutu zituen hainbeste estimatzen zituen Okelar anaia bertsolariak: Roman eta hiru urte zaharragoa zen Modesto. Bi anaiak jaio ziren Pikua baserrian. Artean bi eta bost urteko umeak zirela, 1930-ko Gabon egunean aldatu izango ziren bizitzera Ibiri bailarako Okelar baserrira. Modesto 1997-ko uztailaren 13-an hil zen.

Bai Modestok eta bai Romanek gaztetxotatik izan zuten Uztapideren berri. Zailagoa izaten da, ordea, bertsolariak bertsozalearen zuzeneko ezagutza izatea. Romanek gogoan dauka Uztapiderekiko ezagutza eta bertsotan berarekin egin zuen lehen aldia noiz eta nola izan zen.

Irailako Santakutzetan, bertsolariak izan dira urteetan Mutrikuko Kalbarioko ermitan; eta 1961-ko irailaren 14-an, zestoarrak bi anaien ezagutza egin zuen egunean alegia, Jon Azpillaga gazte bat izan zuen bertso-lagun Uztapidek.

Egun artan kantatu zituztenetatik gogoan ditu Roman Okelarrek hainbat puntu eta bai bertso erdiren bat ere.

–Bastante denboran aritu ziran kantari. Ez dakit entzuten zenbat lagun izango gihan, baiña apostoluen kontuak aipatu zi-

tuzten. Bata Jesus izango zala eta beste norbaitek bere burua urkatu bearko zuela eta orrela atera zuten *karrerie*. Eta Uztapidek kantatu zuan bertso au, ez nuan osorik gogoan artu, baiña akordatzen naiz zerbait:

...nai zinduzket besarkatu.  
Nik ez det iñor markatu.  
Gaizkirik esan baldin badizut  
bear didazu barkatu;  
ez zaitut gaizki ikusi nai ta  
gutxio berriz urkatu.

Bertso ederra bota zuela bai, baiña bertso osoa ez det gogoan.

Geroago, berriro ere itzuliko gara Kalbarioko ermitara. Romanek egin digun kontakizunaren haria jarraituz, Mutriku herrian gelditu behar dugu orain, 1946 eta 1947 urteetako bertso batzuk gogoratzeko.

–Nik emezortzi bat urte nituela, kanpo-futbola egin berri samarra-edo izango zan. Ez dakit berria zalako edo zergatik, baiña bai eurite batzuen ondorioz pareta apurtu zitzaiola eta gain-beera urak monjen komentuan sartu zirala.

Kalte oiek ordaintze aldera, jaialdia egin zen Mutrikun. Basarri eta Uztapide izan ziran bertsotan. Zapatu gauean ekiñaldi bat egin eta Mutrikun gelditu ziran lotan.

Biaramonéan, domekan, meza ondoren egin zuten beste ekitaldia.

Gurean, bezperan, Modesto joan zan entzutera. Ni domeka eguerdikora joan nintzan. Modestok kantatu oi zuan orduko Uztapideren bertso bat:

Zer gertatu dan esan digute  
etorri ta segituan,  
ta badakigu orduko argiñak  
ez daudela merituan.  
Monja gaixuak gelditu ziran  
urakin ia ituan,  
baña entzun det kanpo-futbolak  
kulpak bai ote dituan.

Modestok gogoan ekarri zuan bertso ori.  
*Ametsa*-enean egin omen zuten lo-edo.

Urrengo eguerdian izan zan ekitaldian, Basarri eta Uztapide aritu ziran bertsoan, eta tartean kitarrarekin kantuan aritu ziran beste batzuk. Bertsolariek kantatu zuten aurrena. Basarri asi zan:

Bein bear eta emen badegu  
makiñatxo bat testigu,  
atzo saio bat ein gendun baiñan  
gaur e azaldu zaizkigu.  
Ola jendea endredatuaz  
ibiltzen gera beti gu,  
Jaunak bedeinkatu zaitzatela,  
o biotzeko Mutriku!

Uztapide:

Atzo arratsaldetikan gaude gu  
Mutrikura etorririk,  
ta etzaigu falta gure bertsuak  
aditzeko egarririk.  
Lenagotikan nik ez nekian  
leku ontako berririk,  
bizi izateko neretzat ez da  
au bezelako erririk.

Basarriren beste bukaera batekin ere akordatzen naiz; ez bertso osoarekin. Onela da bukaera.

Akordatzean begietara  
etorritzen zait negarra:  
ordubateko autobusean  
Atauna joan bearra.

Eta Uztapidek:

Emen jendeak au entzun eta  
aterako'ute armoni,  
luzaroago egoterikan  
nunbait etzaigu komeni.  
Jendea ere gustora zegon  
eta konforme nengon ni.  
emen onela egotekotan  
utzi leikio Atauni.

Ataunera joateko itza emanda zeuden, nunbait; baiña Mutrikuko entzuleen bertso-gosea ase gabe joan bearrak kezkatzen zituezan.

Bertso saioko beste pasarte batean baseritarren kontuak aipatu zituezan Basarrik eta Uztapidek.

Garai aietan baserritarrik geienak Mutrikura, kalera, joaten ziran esnea saltzerara.

Itxura danez, bateonbategu ura bota-edo egiten izango zion esnari. Bezero jendea kejavu, eta autoridadeak analisiak egin. Multa pagatu zuten baserritarrik-eta izan omen ziran.

*Kontu horiek Basarri aipatu izango zizkion norbaitek. Normala den bezala, gero bertsoan aipatu izango zituen.*

–Nik ez nion bertso ura dana gogoan artu. Onelako zerbait izan zan Basarriren bertsoaren azkena:

Diru asko egiñak badira  
esnari ura emanda.

Eta Uztapidek:

Oraingo ontan entzun ditugu  
oso izketa gordiñak;  
danetakoak dira munduan:  
gorriak eta urdiñak.  
Bai kalean ta bai baserrian  
danak dirala berdiñak:  
kalen arduai eiten dizkate  
esneen uren ordaiñak.

*Horrela, bertsolariek leen saioa egin zutenean, kitarra-jolea lagun zutela, kantuan aritu izango zen lagun kuadrila bat. Gero, berriro ere bertsolarien txanda izango zen. Eta azkenean agurreko bertsoak.*

Basarrik:

Merezi dituzute  
amar milla grazi,  
barrenen degun poza  
nola adierazi?  
Baiña denbora nola  
dijoan igesi,  
ta guk bear baitegu  
abiatzen asi,  
agur, mutrikuarrak,  
ondo-ondo bizi!

Eta Uztapidek:

Lanerako ez degu  
bear ainbat inbentu,  
oiek egiten dute  
kitarra ta kantu,  
ta guk esan eziña  
bear ainbat kontu.  
Ataunera joateko  
autobusa puntu,  
alare Mutrikutik  
joaten naiz kontentu.

## Kalbaixoko festetan

*Itzuli gaitezen, berriro ere, Kalbario mendira. Irailaren 14-an izaten da hemengo festa. Eleizkizunak eta saio ofizialak, ermitaren inguruan; urterokoak zirenez, hain ez-ofizialak ere ez ziren saioak, otordu ondorean eta arratsean, Maixan baserri-tabernan.*

*Urte zehatza ez du Okelarrek gogoan; baiña orduko hartan Basarri eta Uztapide izan zirela bertsotan, bai. Saio ofizialeko bertso bat honela amaitu omen zuen Uztapidek:*

Onek ez du bururik,  
bakarrik lepoa.

Basarriren urrengo bertsoaren azken bi puntuak:

Gu ere egin giñan  
zertxobaiten jabe,  
ez dago leporikan  
bururikan gabe.

Eta Uztapidek:

Ez nun egin bear ain  
izketa zakarrik,  
olakorik ez neukan  
nik esan bearrik.  
Berriro're esango det  
duela Basarrik  
lepoaren gaiñean  
kozkor bat bakarrik.

*Hura ez zela kozkorra bakarrik esanez eta abar bukatu izango zuen saioa Basarrik.*

*Beste urte batean, Manuel Lasarte lagun zuela joan izango zen Uztapide Kalbarioko egunean.*

*Meza ostean puntuka egin zuten saiotik hauek dauzka gogoan Roman Okelarrek:*

Las.: Propio etorriak  
gerade kantura.  
Uzt.: Jan da edan egitera  
Mutrikun kontura.  
Las.: Edanak ezarriko  
digu kalentura.  
Uzt.: Ardoa edaten degu,  
ez da gero ura!

*Gero bertsolariek Maixan baserri-tabernan egiten omen zuten erronda, Okelarrek kontatu digunez. Han puntutara egin zuten saiotik, hauek artu zituen gogoan Romanek. Orduan Lasartek ogei bat urte omen zituen. Artean soltero omen zegoen Uztapide ere. Andregai kontuetan omen zebiltzan, eta Lasartek:*

Las.: Bana naikoa ez bada  
artu zagan biña.  
Uzt.: Ori da kristautentzat  
izketa zikiña.  
Las.: Orrelakoxea da  
gaztearen griña.  
Uzt.: Ola jarria ez dago  
Kristoren dotriña.

–Gero –jarraitzen du Okelarrek–, emen bizi da Erramon *Armaita* esaten dioten bat. Ori Uztapideren soldadu-laguna zan. Eta gau artan, afalondoan bertsotan asi ziranean, Erramon ere bertan zan. Oraindik bizi da, gaiñera, gizon au. Larogei ta amaika urte egingo ditu aurten, 2000-garrenean alegia, San Pedro egunean.

Esaten genuen bezela, Uztapidek eza gutzen zuen Erroman; eta Maixan, maai-inguruan, bertsotan ari zirala, onela kantatu zion:

Ni berriz ere etorriko naiz  
Kalbarioko ermita,  
ain izandu da barru ta kanpo  
apaiña eta polita.

Gu bertsuetan emen gabiltza  
urrutitik etorrita,  
urreragotik etorri dana  
or dago Erramon *Armaita*.

Geiago ere bota zizkion bere soldadu-lagunari, baiña ez nituen gogoan artu.

### Itsasmendiko saioa

*Itsasmendin baserri-taberna bat omen zegoen lehen, han mendian bertan. Auzo-bazkari bat egin zuten batean, Uztapide eta Buztarri, Juan Ibartzabal, eraman omen zituzten bertsotara. Aitzaki polita ingueratako gazte kuadrilak, zein gutxiago zein gehiago bertsozale gehientsuenak, bertara begira jartzeko.*

–Gu arratsaldean joan giñan, lagun-kuadrilla. Auek, bertsolariak, eguerdirako, bazkaritarako joanak ziran. Gu iritxi eta gero, kanpo-buelta eginda etorri ziran berriro baserri-tabernara. Kantatu zuan leen bertsoa artu nion gogoan Uztapideri:

Gogorrek dira gaur Itsasmendin  
gertatzen diran kasuak,  
orruntz juanda begira pasa  
ditugu ordu osuak.  
Aldegiteko asmotan ere  
egon litezke batzuak,  
guztiok emen gauden artean  
kanta ditzagun bertsuak.

*Eta gero, saioan aurrera zihoaztela, Uztapidek, bere buruarekin ari balitz bezala, kantatu omen zuen bertso baten puntu hauek gogoan ditu Okelarrek:*

...gure emazte Kontxita:  
“Aizu, Manuel, ze egin biezu  
Mutrikuraino iritxita?”  
Bart arratsian utzi ninduan  
ederki asko jtxita.

–Makiña bat parre egin zuen jendeak ori entzunda!

*Horrela gogoratu du, oraindik ere graziko, Roman Okelarrek. Segidan beste hau kantatu omen zuen Uztapidek:*

Ez dakit nola itzegin dedan olako modu berdian, guztiak esan gabe batzuek euki ditzadan gordian. Gaztiak ere atzekaldean egongo dira guardian, mutil sasoikoak jakizute biarko, andriak zer dian.

*Pello Saikola, Aginagako bertsolaria, Mutri-kun bizi omen zen aldi hartan, eta Itsasmendi-ko juntaizo hartan bertan omen zen. Piska bat edaten zuenean, beti kantatu beharra izaten omen zuen Pellok; eta honela izan omen zen bere bertsoaren amaiera:*

Nola bizi zea, Manuel, andria artuta?

Eta Uztapidek:

Gizonari egiteko ori dek pregunta!  
Nik ezin ixilik euki mingaiñaren punta.  
Nola bizi ote naizen andria artuta,  
eu ere ezkondu adi ni ondo bizi nauk ta.

Orain berrogei ta bat urteko kontuak dira auek! –errematatu digu Okelarrek.

### Astigarrabiako festetan

*Ondorengo kontu hauek Astigarribian ger-tatuak dira, eta artean mutiko zela jaso zituen*

*gogoan bertan entzundako bertsoak Roman Okelarrek. Akilino Izagirre Zepai eta Jose Manuel Olaizola Uztapide izan omen ziren bertso-tan. Entzun diezaigun Romani.*

–Nik amaika urte nituan. Orduan Modesto anaia eta biok giñan. Uztapidek ogei ta amar urte zeuzkezan; eta Zepaik, ogei ta amairu-edo. Zepairen bertso baten amaiera onela izan zan:

...esango'izutet egia:  
Maria Sorgin deitzen diotena dauka bedorrek nobia.  
Berrogeitamar urte oraintxe kunplituak zaizka ia,  
arekin aurra sortu orduko zurituko da ogia.

*Ez dago esan bearrik gerra ondorengo ogi beltzaren garaiak zirela, Okelarrek ondo gogoratu digun bezala.*

*Bestalde, emakumeak erabat pintatzen-eta garaitsu hartan hasi izango ziren. Halamoduzko kontuak aipatu izango zituzten, behintzat, bi bertsolariak. Honela dio Romanek:*

Akordatzen naiz Zepaik kantatu zuan bertso baten erdiarekin:

Ezpain guztiak gorriturikan pintura eta zikiñez,  
astian nola ibiltzen diran Jainkoak bestek jakiñ ez.

Eta Uztapidek:

Iru edo lau ikusten ditut ezpainañak pintaturikan,  
oiek bizirik erreta ere ez dago pekaturikan.

Uztapideren orduko beste bertso erdi bat:

Ezpain gorriak dituztela ta  
ez utzi emen nastuta,  
geuk ere iñoiz ibiltze'itugu  
ardoarekin beztuta.

*Beste behin, Astigarribian oraingoan ere, honela kantatu izango zion Uztapidek Iñaki Eizmendi Basarriri:*

Gaur eguerdian Basarrirekin  
naiz Jauregira batua,  
berriz onekin ez juntatzeko  
emango nuke botua.

Bazkaritara joan gera ta  
berealdiko platua!  
Urrengo urtean jana bere gain  
duala egin tratua.

*Apetito bikainarekin azaldua izango zen erre-zildarra, itxura danez.*

*(Nikolas Aldaik,  
grabatu eta papereratua).*



# Juan Ibarzabal Anitua

## *Buztarri* bertsolaria

### Markina

**B**UZTARRI bertsolaria Markinan jaio zen, 1924-ko otsailaren 14-an, Erlats base-rrian. Horregatik, gertueneko lagunentzat Erlats izan da, baina bertsolaritzak Buztarri bezala ezagutu du gehien bat; kasu honetan ogibidea nagusitu zaio jaiotetxeari.

Nolanahi ere, Erlats edo Buztarri izan deituraz, Juan Ibarzabal Anitua da gure gizona. Ezkondua da eta bi alaba eta seme bat ditu, Berea den eta bere izen berbera duen taberna etxean, Markinan, egina da grabazio hau, 2000 urteko ekainaren 29-an.

Uztapide nola ezagutu zuen gogoan al daukan galdetu diogunean, baietz esan digu.

–Soldadu Donostian nengola, Tolosan jarri zuten txapelketa bat, eta orduan ezagutu nitun nik Basarri eta Uztapide. Gerra ondorena zan. Orduan asi zan bertsoketea piskat indartzen. Eta ara joan ziran Basarri, Saiburu, Zepai, Ondartza, Ernani-ko Paulo Txikia eta abar. Mitxelena be an ezagutu neban, Tolosan. Andik eta lasterrera, Ernani zala uste dot beste sariketa bat. Uztapide ez zan joan Ernani-kora.

Buztarrik oraindik ere bizi-bizian dauka ezagutu zueneko hartan Uztapidek merezi izan zion iritzia.

–Badakizu, Basarri beti izan da gizon bi-kaña. Baiña ori, beste ori be, zorrotz joaten zan, e? Orrek beti euken, *dadak!*, ara: zi-

rixe edo tapie! Ori bertsolari aundixe, aundixetakoia izan da. Neretzako aundixe izan da.

Tolosako sariketa edo txapelketa horretan kantatu omen zuen Zepaik bere anaia-ri buruzko bertso entzutetsu hura.

Berarentzat miresgarria zen bertsolaritzarekin aurrez aurreko topo egite hartan. Dena golkora bildu nahi, eta Buztarrik ez omen zuen bertso hura osorik gogoan jaso. Baina bai bere kintakoa eta soldadu-lagun zuen Manuel Uranga itziartarrak.

–Ark jaso eban eta arrezkero kantatu eustan iñoiz. An, Tolosako artan, rumoreak izan ziran bertso orren ondoren beerakada izan zuela Zepaik. Ostentzian, neuretzako ondo egin eban ark bertsotan.

Hogei ta hamaseiko gerra ondorean egiten zen lehenengoa ez bazen, aurrenetakoa zen Tolosako sariketa edo txapelketa hartan, Basarrik jaso zuen lehen saria; eta Uztapidek, bertsorik onenarena.

### Markinan eta Ondarroan

Uztapiderekin izandako hurrengo harrem-  
nek Markinaraino ekarri dute Buztarri.

–San Isidro batzutan izan zan. Orreik eto-  
rri ziren Ernani Txikia, Uztapide, bere bes-  
te leengusua-edo, txato bat, Amaran-edo

bizi zala uste dot; eta Berasarte, Astigarra-gakoa. Au il zan. Zarautzen gazteen artean txapelketa bat egin barria zan. Berasartek atera zuen leenengo; eta bigarren Uranga izan zan.

*Ordurako zerbait bertsotan hasia zegoen arren, egun hartan Buztarrrik ez zuen bertso-tan egin.*

*Garai hartako Markinako, Berriatuko eta beste lekutako bertsolari gazte gehientsuenek bezelatsu, santa-eskean eman zituen berak ere lehen urratsak. Bide horretatik egokitu zitzaion Uztapiderekin kantatzeko aurreneko aukera ere.*

–Santa Ageda eskean ibili giñan Joan Azpillaga eta biok, eta lagun kuadrilla. Eta pentsatu gendun Uztapide ekartzea Ondarroako Iparragirreanean egin genuen bazkarira.

Antxe egingo neban, seguru asko, Uztapidegaz leenengoz bertso-tan. Eta gauza kurio-soa! Uste dot arekin norberak be obe-to egiten ebala bertso-tan. Dakienak bidea erraztu egiten dau.

### **Itsasmendiko bertso-saioa**

*Aurrez Roman Okelarrek eta Jon Azpillagak aipatua diguten Itsasmendiko bertso-saioaz zer duen gogoan galdetu diogunean, honela kontatu digu pasarte osoa Buztarrrik:*

–Ondarroako gazte talde bati akordatu jakon Uztapide eta ni eroan biar gindue-zala bertso-tara ara, Itsasmendira, egun-pasa bat egiteko. Eta etorri jatazan, ba, gal-detuz:

–Zu Uztapidegaz etorriko ziñake bertso-tara?

Nik baietz; deituko neutsola eta joango giñala. Artatixe abisatu neutson eta baietz, etorriko zala, Uztapidek.

Egunaz, ez naz akordatzen ze eguna zan. Nik Mutrikura urten neutson jarritako or-

durako. Laister aillegatu zan Uztapide be kamioi baten Salda bat edo zer-edo-zer artu bear genduala, eta ikusi gendun taberna bat aurreko aldean, eta soltatu giñan. Uztapide sartu zan aurretik.

Emakume bat an barruan; eta esautson emakume orrek:

–Ez; zarratuta dago.

–Zarratuta egon bazan, ez giñan sartuko –esautson besteak.

Buelta eta beste barik urten genduan tabernatik. Tasia geunkien esanda eta artan igo giñan Itsasmendira; eta artu bearreko-ak, salda eta beste, an bertan artu gendue-zan.

Gero, bazkaria. Eta batek eskatu eta besteak be bai, asi giñan bertso-tan. Bai kanta-tu be! Jende asko zan. Baso espaldi dana apastatuta egoen jendez.

### **Pello Saikola**

Bazkaria amaituta eta artan ari giñala, non entzuten dogun kanpoko aldetik bertsoa. A derrepente konturatu zan. Nor zan be konturatuko zan, eta entzun zan bertsoa bera be uste dot baenkiela. Eta esan eustan:

–Mesedez egongo zara piskaten? Nik ixilduko det ori!

Buenooo! Ni pozik! Asi ziran bertso-tan. Egoki, gero, e? Bata besteari ondo buztar-tuz. Kantatuko zituezan launa-bostna bertso. Baiña egoki! Askotan egokitasun ori izaten da alkarregaz buztartzea, eta areek josi zituezan moduan alkarri jostea. Izu-garri ondo aritu ziran.

Nik pena bat daukat bertso areek ondo-an iñok jaso ez izana. Nik Uztapideren ba-tena-edo daukat idea bat, igual anka sar-tzen dot baiña...

Bertsoa kantatzen dezu  
atean kanpotik,  
barrura sartutzeko  
baimenan aurretik.  
Gauza onaren billa  
al zatoz etxetik?  
Eramango dezu, ba,  
Itsasimenditik.

*Pello Saikola* esaten ziotena-edo zan bertsolari ura; aldi artan Mutrikun bizi zana.

*Ez dago dudarik Buztarrirentzat gustoko eguna izan zela hura. Bere oroimenean oso fresko dauzka bertako gora-behera guztiak, bertsoak ahaztuak baldin baditu ere. Egunari amaiera nola eman zioten gogoan al duen galdetu diogunean, kontakizun hau egin digu:*

Illunduta jetxi giñan andik, farolakin argi egiñez. Goitik beerako artan, baserri batean be atea zabaldu euskuen. An be egon giñan, eta tragoren bat egin be bai. Eta akordatzen naz nola esan eben Uztapidek:

–Toki ederra dek auxe! Berriro ere etorriko nintzake ni onera!

Olan amaitu zan gure ango bueltie.

*Esan digunez, apenas Buztarririk txapelketetan eta sariketetan-eta Uztapiderekin kantatzeko aukerarik izan zuen. Baiña sarritan Ondarroan-eta.*

–Azpillaga eta ni askotan ibiltzen giñan an, Ondarroan. Eta Basarri eta Uztapide ekartzen zituezan. Lekeition be bai. Berriatuan be ipintzen zituen, eta an be izaten giñan. Orrelan, banaka-banaka.

## San Isidroan, Markinan

*Juan Ibarzabal Buztarriren gazte denboran, orain ez bezala, festa egun haundia izaten omen zen Markinako baserriarrentzat San Isidro eguna. Gogoan dauka behingo hartan Uztapidek kantatu zuan bertsoa.*

–Emen, Markinan, San Isidroak izaten ziran. Bazan or tabernatxo bat jaten-eta emoten ebena. Orain be badago txikitxu bat. Ordukoari *Giputxana* esaten jakon, giputxe zan nagusia eta. Arek ekarri zitun bein Basarri eta Uztapide bertsoetara. Ni atean gaztea nintzan, baiña an nintzan.

Eta bazkalondoan tipo zelebren bat azaldu zan.

Izan ere, goizean euriari eman zion; baiña gero eguraldi ederra egoen. Tipo ori baserriar zana; eta, badakizu, urrun samarretetik etorri bear eta...Beintzat, mostradore ondoan egoan, piska bat txispatuta gaiñera, eta nondik atentziñoa emongo.

Uztapide derrepente konturatu zan, eta alako baten kantatu eutson:

Gobernatu ondoren  
ganadu ta egazti,  
gizonak artu bear du  
orrenbeste asti.  
Abarkak ta trintxera,  
guardasol ta guzti,  
euririk ez da eta  
nola zera busti?

Ala azaldu ere egin zan baserriar a: abarkak, artillezko galtzerdi lodiegaz; trintxera gitxi ziran orduan, baiña ak baeuken ori be; eta guardasola eta...

*Irrifarra ez-ezik parrea ere sortzen zaio oraindik Buztarriri gertakizun honetaz oroitzen denean. Baita algara ozen egin ere.*

## Elgoibarren

*Beste behin, Elgoibarren zela, bai, baina Buztarririk ez du gogoan zein egunetan edo zergatik. Bai, ordea, Uztapidek arratsaldeko saioan kantatu zuen bertsoetako bat:*

Oso ederki portatu dira  
jornalian da propiñan;  
ostatun bertan ordaindu dute,  
ez beintzat kale exkiñan.  
Bertsolariak gaizto samarrak  
omen ziraden antziñan,  
guk ez genduan orain kantauko  
alakuk izan bagiñan.

### Zubeltzuren omenaldikoan

*Buztarrik Uztapideren bi ateraldi eta bertso bat gogoratu dizkigu, Zubeltzu bertsolariari Itziarren omenaldia egin zitzaionekotik.*

–Itziarren probalekua dago, eta taberna. Ordurako bertsotan eginda geunden; eta, tabernatik urteterakoan, Uztapideri Basarriengatik esan neutsan lan asko egindako gizona zala. Eta berak:

–Bai. Gizon orrek lan asko egin du lanari igesi.

Gero, urten giñan tabernatik kanpora, eta an arrizko eserleku bat egoen, eta ber-

tan eseri zan Basarri. Eta Uztapidek, pare-ra irixtean:

–Zer, Basarri: kantsaziñoia ala gosearena da ori?

–Gosea? Gosea pagatu egingo nuke nik!

–Bada guk kentzea pagatzen diagu –Uztapidek errematea.

*Buztarrik egun hartakoetatik gogoan daukan Uztapideren bertsoa, berak esan bezala, oraindik ere bolo-bolo dabilen bertsoa da:*

Jose Antonio, gaztetatikan  
lagun aundiak ginduzun;  
ni Olabarrin bizitzen nintzan  
eta zu, berriz, Zubeltzun.  
Zuk sorotikan bertsoa bota  
ta bestetik nik erantzun,  
nik ditudazan bertso onenak  
zuri ikasi nizkizun.

(Nikolas Aldaik  
grabatu eta papereratua).

# Jose Insausti

## Segura

### Uztapideren bertso eta ateraldiak

Segurako *Txoritegi* elkartean bertso-saio onak asko entzuna naiz, eta neroni ere bazuetan jarduna.

Baiña gau batean bertso bikaiñak entzun ziran. Garai artan askotan bezela, gaia zerrua eta inpernua irten zuan, eta batzuek inpernura joatekotan ez jaiotzea ohea zala; besteak, berriz, norberak etzuala bere jaiotzarekin jakiña, eta bere buruaz beste egitea ere naiko pekatu zala inpernura joateko.

Ezin irtenbiderik billatu eta irugarren batek esango zuan ezer ez egoteko itxura geiago zeukala; orrenbesteko kastiguaren bildurrez bizitzekotan, etzuala Jaungoiko on utsak olakorik jarriko eta abar.

Eta urrengo batek, berriz, zerbait baze-goala; segurua zala Jesus ere piztu zala, eta gero besteak piztekotan iltzea etzala bildurtzeko ezer. Baiña noiz piztu: azken jui-zioke egunean ala irugarren egunean, Jesus bezela? Or ere baze-goala kakoa.

Ontan, or botatzen du Uztapidek zortzi-ko txikian, alaxe ari giñan eta:

Oraingoan kantatu  
bear det epela,  
da esango dezute  
ereje naizela;  
ilko nintzake eta  
ilko nintzakela,

piztutzekotan Kristo  
piztu zan bezela.

\* \* \*

Beste bat oso edanda zegoan. Ezpain alde-a ere oso garbia ez, eta zagua ugari eta mingaña lijero, eta esan zuan:

–Gaur ere andrea zai egongo dek eta bi aldiz egingo diat nik.

Eta Uztapidek, bertsoaren aurreneko bi puntuak ere onak izango ziran, baiña azkeneko biak dauzkat gogoan, gutxi gorabehera, zortziko aundian:

Iturri ori martxan jartzeko  
zabiltza narras antxean,  
da jolas-partez mutur gordiñak  
izango dira etxean.

\* \* \*

Uztapidek musean naiko ona zala esan izan zuan, pixka bat adarra joaz; eta nere ustez ala zan. Jakiña, etorri egin bear dute karta itxurazkoak ere, orain esatera noan au ulertzeko, musean jakin bear da zerbait; eta ez dakianari adierazteko, dexente itz egin bearko genduke.

Uztapide eta beste bat ari omen ziran musean beste biren kontra, eta or ari dira:

–Gasteizen teillak ainbeste tanto enbido aundira!

Eta besteak:

– Bilbaon lepatxuri edo beste emakume oiek ainbeste tanto txikira!

Jakiña, auek kontrarioak edukitzen badiu, ordago bezela dira; eta, aurrenekora bota ezkerro, ustela bietakoren batek egin du. Eta txikira ere, aundira bota ezean. Eta txikira bota berdin da.

Baiña parre-algara ederrak sortu izan dira emen askotan. Zortzi amarrekorekin egiten da ustela edo tantoa, askotan beintzat; eta zortzi amarreko egiteko berrogei tanto egin bear dute; eta Bilbaoko emakumeengatik batek esan lezake:

–Ni edo gu izan giñanean, ogei bakarrik zeuden.

Eta ogei tanto eduki. Eta besteak, jo duanak, baldin badauzka, laixter esango dio:

–Goizeko zortziretan izango ziñaten. Ni joan naizenetan, berreun baiño gutxiago ez ditut sekula ikusi, eta au ordago da.

Ala ari zirala, beñere edo gutxitan bost duro ere edukitzen etzituanak, ura ere an ari baizan musean Uztapideren kontra, ala dio:

–Gure etxean milloiak aiña tanto enbido!

Uztapideri galdetzen dio lagunak:

–Zer egingo degu: bota edo utzi?

Eta Uztapidek:

–Nola bota edo utzi? Ori *paso* dek, motell! Azkenean ikusiko diagu onenak zeiniek dituan.

An egongo zan giroak geiago balio du munduko karta danak baiño.

*Paso*, karta koxkor xamarrak diranean esaten da; edo maleziz, onarekin kontrarioak jotzen badu, arrapatzeko. Olaxe da musa. Aundi pasea eta txikikoa tanto bana

dira; baiña paretako eta jokuko pasea ez da kontatzen.

\* \* \*

Garai batean, bertsolariak etzuten, gaur bezela, kotxez ibiltzeko aukerarik; eta erri askotan, eguneko bertso-saioak bukatu eta gauean ere bertan gelditzen ziran lotan. Baiña leenagokoak esan zuana:

–Bakoitzak berak pentsatuko du pesta-egunetan lo egin edo loarekin aaztu eta gau guztian argi-argi egon edo ibili.

Ortan, Uztapide ere, beste asko geran moduan, etzan amutsa. Eta makiña bat gau gure errian bertso eta txiste, eta iñor ez triste.

Beti izaten zan bertsolari xebreren bat adarra pixka bat jotzeko modukoa, eta oriek erriz erri ere dexente ibiltzen diranak izaten dira. Lotsatu ere asko ez; eta, gaiñera, oso bearrekoak dira, nere ustez, eta gaur gutxitxo ote dauden pentsatzen nago.

Ain bertsolari aldrebasa izatea eta berak ona dala uste izatea, ez dira errezak izango nunbait. Baiña emen ere bat bazan, eta aren bertso aldrebesak naiko parre eragin eta berari bertso-sail bat kantatzeko gaia jartzen zuan.

Baiña ezbear txiki bat izan eta urte batean etzan ageri iñun, eta Uztapidek galde-tu zuan bizi al zan edo nun zebillen; eta, ezbearrarena entzutean, ala esan zuan:

–Laixter osatu dedilla. Uraxe da, ba, erri ontako afiziorik aundiarena duana bertso-rako, eta aldi berean abildaderik gutxiarena duana ere bai; eta oriek biak izatea zailla da. Edozeiñek ez ditu.

\* \* \*

Uztapide, nunbait bertso-tan izan da illuntzean etxera zijoala kotxe batean, egarri antxean, itxura danez, eta tabernara sar-

tu zan bere lagunarekin; eta an ikusi zuan len berarekin bertsoan askotan jardundako bat, beste iru bertsolari afizionaturekin jo ta autsi ari zala bertsoan.

Afizionatu oiek dexente egiten zuten bertsoan gaztetan; eta, lau lagun diranean, txanda irixterako zerbait pentsatu ere bai, gai bera bada lauak kanta bearrekoak; eta aiek irurak baten aurka edo broman arituko ziran.

Ala, saioa bukatu zutenean, alkar agurtu eta, pixka bat apartatu ziranean, bertsoan ari zan lagun zarrak Uztapideri:

–Gu onelaxe jarduten gaituk. Zer iruditu zaik?

Eta Manuelek:

–Barka nazak; baiña emen nik entzun ditudanekin auxe ikusi diat: iri asko aztu zaik edo, bestela, iru gazte oiek ikaragarri ikasi ditek.

Eta biak egiak. Baiña aurrenekoari aaztea zuzenean. Izan ere, pixka bat utzi ezker, bertsoa oso lan sorgiña da. Errez kantatzea zailla; eta, pixka bat zaartu ezker, zaillagoa edo oso zailla, naiz maleziaren indarrez zerbait egin. Bertsoan ere sarri jardun bear da.

\* \* \*

Apari ondorengo bertso-saio luze batean, ainbeste gai pasatu ta gero, egitazko gai bat etorri zan. Izan ere, eiztari-itxura xelebrenko bat bazegoan antxe bertan, eta egi edo gezur-otsak izan ziran. Nik uste egia izango zala, eta etzan aurrenekoa izango, eta ezta ere azkenekoa.

Eiztariak eiz-txakurrak oso maiteak izan arren, oillagorra paratuta daukan txakurra nekez joko du, oillagorra altxatu ta gero tiratuko diolako; baiña aurreraxeago, garo tartean dagoan edo dabillen beste txakurren bat jotzea ez da aurrenekoa; ezta bes-

te eiztariaren bat jotzea eta iltzea ere. Zoritxarrez, urtero izaten da bakarren bat.

Eiztari xelebrenkoak ere txakurrik onena il zuala eta or asi dira bertsolariak; eta beste, ura nundik edo zeinengandik jakin ote zuten, erderazko orazioak egiñez, eta an ziran angoak.

Bertsolari batek onela bukatu zuan:

Zuk errezena egin zenduan:  
bitan aundiña jotzea.

Eta Uztapidek ondoren onela bukatu zuan:

Egia da onek etzula egin  
apuntatutzen lanikan,  
baiña ez pentsa aundia jotzen  
beti erreza danikan.

\* \* \*

Uztapide eta beste bertsolari batzuk Segurako *Txoritegi* elkartearen ari ziran bertsoan, edo ari giñan. Aparia eta aren ondorengo bertso-saioak ziran, eta giro aparta zegoan, ondo janda. Eta zer edana eta zer erreza etzan falta. Tabako-usai puska bat egongo zan, gu danok puruak errez ari giñalako; eta entzuleak ere, geienak berdintsu, ondo bete bazegoan ere gure elkartearen, eta ordu txikiak dexente luzatzen asiak ziran ordurako, beste askotan bezela. Baiña danok pozik, olako apalondoak bizi izan ez dituan batek ulertzeko baiño obeto.

Batek ontan ala kantatu zuan zortziko txikian, ala ari giñan da: aurreko gauean ere berandu erretiratu zala Eibartik, bertsoara joanda; eta orduan ere illargia izkutatu eta eguzkia laixter azalduko zala, eta orrelakoak.

Eta Uztapidek:

Atzo gauan agurra  
berandu Eibarri,  
ez al zekizun bada  
Segurako berri?  
Au bertsolarientzat  
ez da lotsagarri,  
erantsiko al dizkagu  
bi egun alkarri?

Gero ala kontatu zigun: leenago ere egiña zala illuntze aldera, eguzkia zegoala, asi bertso-saioa, eta goizean egunsentian, txoriak asitakoan, utzi. Atsedenditxoak egiñez, jakiña. Baiña segidan jardunda ere, ari etzitzaion etorririk agortuko.

Uztapide berrogei urte ondo beteta ezkondu zan. Berrogei ta bi ere uste det bazituala, eta neska gazte ederrarekin ezkondu ere.

\* \* \*

Baiña, ezkondu gabe zegoala, *mutilzar* amaika bider entzun bear izaten zuan. Arratsaldeko edo bazkalondoko saioetan bertsolari eta entzuleak ere umore obean egoten dira, goizean baiño; ta mutilzar kontu ori, zerbait esan bear izaten da eta.

Ala, bein, lagun ezkondua or ari zitzaion jo ta autsi bakardadearen okerrak botatzen. Baiña Uztapideri adarra jotzen zailla zan, naiz pixka batean utzi broma jartzeko.

Baiña alako batean or irten zion ezkonduari oian bera ere bakarrik edo andrea ta biak oi banatan lo egiten zutela, oiaren jergoiak ez nekatzearren, eta andrearen asmoa izan zala ori, lo ondo egiteko ere ohea zala eta.

Ontan Uztapidek:

Alkolai mutu egonagatik  
etzaio falta indarrik,  
ta zuri ere atera dizu  
egitazko deadarrik.

Naiz eta esan "oian errukiz  
ni etzaten naiz bakarrik",  
orretarako ez dadukazu  
andrea mantendu bearrik.

\* \* \*

Taberna batean Uztapide eta beste bat ari ziran bertsotan, garai artan askotan bezelaxe botilla ardoa aurrean zutela maian, aulkian patxara ederrean exerita; eta beste mai-exkiña batetik erdi mozkor batek ala dio:

–Gaur etzerate mozkortuko. Au dek ardoa, au! Eta zuena ere azaletik botilla berdiña dek. Nola edan lezakek olako ardoa zuen kategoriko bertsolari batek?

Eta ala bota zion Uztapidek:

Aspalditikan jarria dauka  
nagusi onek taberna,  
ta gezurtia ez degu bera,  
baizik gizon nabarmena.  
Eta egia esplikatzeko  
orain eman dit ordena:  
zurek erdia daduka ura  
eta gureak laurdena.

\* \* \*

Uztapideri ez det uste guardiazbillen kontra astakeri aundiak esaterik gustatzen zitzaionik. Ala ere, au nik baiño obeto daitenak asko daude oraindik munduan. Nik, egia esan, ala ere batzuetan entzun nion, gaia alaxe jarrita, bai alde eta bai kontra guardiazbillei buruz.

Batean, bi muñeko edo olako gizon txapel-okerrak mai gainean jarri zituzten, eta aieri kantatzeko esan ziguten, eta ikusi nuan Uztapideri etzitzaiola batere gustatu. Bertso erdi bat ere gogoan det.

Baiña itzez oraindik aitormen gogorra-goak egin zizkigun ingurukoei. Orain ez



dakit zintaren bat an ere egongo zalako, edo beti gai ori zualako, edo oiek ere batzuetan falta egiten zutelako, edo zergaitik. Baiña aurreneko bertsoa olaxe bukatu zuan:

Gabiltzan lekun al degun dana  
beti oi degu eskeiñi,  
baiña naigo nun ez bazendute  
gai-klase auxe ipiñi.

\* \* \*

Beste batean, gai auxe zuten: bat base-rritarra, oilloak arrapatu zizkiotena; bestea, guardiazibilla; eta irugarrena, Uztapide, ijitoa; eta badakizute ijitoak zer fama duten edo zuten.

Orain ez dira leen ainbeste ikusten. Izan ere, danak kotxean gabiltz eta gauzak asko aldatu dira, eta amaika sesio jarritako baserri ondoetako oilloak ere bai, azkenik, geienak izkutatu dira, guk oraindik libre darabilzkigu baiña.

Uztapidek, ijitoak, guardiari auxe bota zion, berak ere oso gogor artu zuan da:

Egia da: gu ijito gera,  
ijitotatik irtenak;  
baiña, guardiak, zuek zerate  
naiko gizon nabarmenak.  
Oraindikan gazte sasoikoak  
eta gorputzez lerdinak,  
kolpeik jo gabe bizitzearren  
orruntz sartu zeratenak.

\* \* \*

Seguran, San Juanetan, Uztapide eta Basarri ogeitaka urtean izan ziran San Juan egunez.

Neronek ere kantatu nuan aiekin batzuetan; eta, orduko bertso-saio geienetan bezela, goizean San Joan ere puska bat aitatzen zan Seguran.

Beste errietan berdin: zein santu edo santa zan pestak ospatzen ziran eguna. Izan

ere, itzak ondo pentsatuta egin bearra zegoan agintari edo apaizen aurka, eta aldian broma batzuekin naastuz saioa osatu.

Ontan, Basarri aurrelari aparta zan, eta or ari ziran ia Jesus bera bezin aundia zala San Juan eta abar. Izan ere, gu kristau egiten gaitun bataioa Jesusi berak eman zio-la eta abar.

Ala Basarrik galdetu zion Uztapideri bietan zaarrena zein zan bai al zekian. Eta Uztapidek onela bukatu zuan:

Nola arraio galdetzen didak:  
"Bietan zarrena zein da?",  
San Juanetatik Gabonetara  
zer alde dagon jakinda?

\* \* \*

Egun au bera igual izango zan. Orduan, bertsolariak egunez kantatzen zuten lekuan, gauean lotan ere bertan gelditzen ziran. Lotan edo gaua, beintzat, bertan pasa, eta bertsorik onenak orduantxe izaten ziran.

Batean, gauean, ordu txikien asieran ia, Basarrik oierako gogoa ordurako eta bertso bikain bat onela bukatu zuan:

Naiz ta askotan festa-egunetan  
oiari izan gorroto,  
pertsone ez da iñun izaten  
oiean baiño obeto.

Eta Uztapidek:

Ik konfiantza aundiak dauzkak  
Basarri, oiarenak,  
baiña il ere an egiten dituk  
gure aldeko geienak.

Azken itz auekin zalantza daukat: *gure aldeko geienak* esan ote zuan, ala *mundu ontako geienak*.



# Julian Albizu

## Arriaran

**B**EIN Basarrik, zortziko txikian ari zira, bota zion Uztapideri zekian pixka berari ikasia zekiala, eta ortik pentsatzeko zenbat bertsolari zan.

Eta Uztapidek onela bukatu zuan:

Basarri maixuari  
marka pasa zaio:  
ikasleak ikasi  
berak baiño geio.

Bertso-saio orren azken aldera, onela eman zion bukaera Manuelek Basarriari erantzunean:

Onekin bukatzen dik  
oraingoz Basarrik,  
ezin jardungo dik ba  
txarrenak bakarrik.

\* \* \*

Gipuzkoako Gaintzan, orain urte asko dirala, Basarrik saioaren azken aldera puntu au jarri zion Manueli:

I Oiartzuna oa,  
ni berriz Zarautza...

Bai Uztapidek erantzun bikaiña eman ere:

Kilometro gutxigo  
baleudeke utsa.  
Jaunak egin deigula  
biori laguntza,  
lenbailen etortzeko  
berriro onuntza.

\* \* \*

Zerbait esan bear izaten da ta, oraindik Uztapide ezkongai zala, Basarrik onela bukatu zuan bertsoa:

I zeñek artuko au  
itxusia aiz ta?

Uztapideren bi puntu ondorengoak:

Basarri eta biok  
zitalduta gabiltz,  
utsa litzake bera  
polit antxa balitz.

\* \* \*

Puntu au Zegaman, arratsalde batez, Basarrik artean ezkongai zegoan Uztapideri:

Zer iruditzen zaizkik  
emengo neskatxak?

Eta Uztapidek:

Batzuk pobreak eta  
bestek aberatsak:  
oiei begira zeuzkat  
nik komeri latzak,  
iñor gustatzen bada  
altxatu beatzak.

Berriro Basarrik:

Itzegin nai nuke nik  
Uztapiden faman...

Eta Uztapidek:

Gaur neskan bat nai nikek  
emendik eraman;  
ez al dituk asiko  
ezetzeko teman,  
orrelakoik ez al dek  
egongo Zegaman.

\* \* \*

Garai batean, baserrian lan asko egiten zan laian, batik-bat artoa ereiteko lurrak prestatzeko. Esaerak ere badira jentillak nola erakutsi zioten kristau bati noiz laiatu, zer garaitan, alegia, egutegirik etzan garaian, eta etzebillen gaizki: "arantza beltza da loratu, arto-lurrak laiatu". Martxoan izaten da beti arantza beltzaren loratzea.

Zugaitz txiki onek izen asko dituala edo era askotara deitzen zaiola: baxarana, arantza milloa, elorri beltza eta abar.

Uztapide laian asko jarduna zala esaten zuan, gaztetan, orduko baserritar geienak bezela.

Gu ere jardun giñan zerbait; eta laia zan lurra aurrera jiratu edo irauli, eta laiariak atzera pausoa. Berriro ere lur-puska atera,

eta leen gaiña zana aurrera begira utzi edo zerbait etzanda; eta leengo gaiña, azpira begira antxean. Baiña lan urria, sail aundiak bi orduan egiteko.

Uztapidek ere ondo bazekian ori, eta bein ala esan zion batek:

–Manuel, leen laia ere egundoko aurrerapena izango zan, eta orain begira nun gelditu dan.

Eta Uztapidek:

–Nola izango zan, bada, aurrerapena, atzeraka egiten zan lana eta? Gero, ez al dakizu atzeraka aurreraka baiño eskasagoa dala oraindik?

Ala, puntu au jarri nion Uztapideri, gure baserrian zan batean:

Artoa izango al da  
laian egin gabe?

Eta Uztapidek:

Orain egin da jendea  
makinaren jabe,  
eta irabazten da  
lengo alden doble;  
orduan, al bada, oni  
jarraitzea obe.

\* \* \*

Uztapide, Arriaranen edo ez dakit nun, udarako egun bero sargori oietako batean, beste batekin bertso tara joana zan; eta gero, bazkalondoan, bat oporretara alde egiña zala, bestea ere bai eta onelako kontuak. Ontan, or jarri diot gaia Manueli. Auxe:

–Mundu ontan danak oporretara badijoaz, eta bestean ere asi dira. San Pedro bera ere zeruko atezaitza utzi eta plaian omen dabil, zortzi eguneko jaiak artuta.

Zer derizkiozun iru bertsoan kontatu zai-  
guzu.

Iru bertso dira edo ziran; baiña auxe da  
onena, gure ustean:

Amaika olako entzun degu ta  
auetxek badira gaiak,  
San Pedrok ere artu ditula  
zortzi eguneko jaiak.  
Plaia aldera tiratuko zun  
pixka bat preskatu naiak,  
pekatariak oraintxe ditu  
zerun sartzeko garaiak.

# Kasiano Ibareguren

## Lizartzako itxua

**N**i Kasiano naiz; edo *Lizartzako itxua* esanda geiagok ezagutuko nazute. Manuel Olaizolaz zerbait esan nai nuke; edo emen ere, *Uztapide* zana bertsolaria esanda, leenago konturatuko zerate norenngatik ari naizen. Neri ere liburu onetan lerro batzuk idazteko lekua eman didaten ezkerero, berarekin igarotako une gozo atsegin batzuk aitatu edo kontatu nai ditut.

Oso gazte nintzala nuan bere entzutea. Nola ez, bertsolari bezela orren ospetsua izanda? Ez genduan alkar ezagutzen. Baiña ni ere soiñuarekin erriz erri asi nintzanean, nola ez? Laister zegoan nun edo an topo egin bearra, eta ala gertatu zan.

Leenengo aldiz gogoan det. Berastegin Manuel Lasarte eta biak ziran bertsotan, eta ni soiñu jotzera joanda. Ango jatetxe *Arregi* edo *Kakoene* esanda ulertzen dan etxe ezagunean, alkarrekin egindako leenengo otordua, gosaria izan zan: txekorraren gibela. Zein gozo jardun genduan jaten da edaten! Eta leenengo aldiz, esan bezela, berarekin kontuak esanez.

Ordurako itxu nintzan; ez nuan ikusten. Ala ere, imajinatu nuan Manuel Uztapide gizon serio bat, aldi berean iztuna, baiña alperrikako kontu gutxi erabiltzen zuana. Atsegiña bai tertuli baterako. Otordu baten ondorenean, danok dakigun bezela, beti izaten dira bateko kontu, besteko berri,

txiste, ipuin eta abar. Eta an ere baziran parrigiteko modukoak, gure tripa barrera minberatu arte angorekin.

Baiña ondoan nuan Manuel, eta konturatzen nintzan berak etzuala guk bezelako algararik botatzen. Artan ere gizon serioa eta apala. Naiz izketan nik ez ikusi arren, antzematen nion bere ezpaitetan ere erabiltzen zuala irripar gozo bat. Bereala jabetu nintzan gizon jator aundi baten ondoan nengoala. Serioa, baiña alde berean alai. Iztuna ere bai, baiña alperrikako kontu gutxikoa, leenago esan detan bezela. Eta, nere zorionerako, leenengo aldiz egun artantxe berarekin alkartu nintzan.

Baiña bi egunetarako joanak ziran bertsotara. Nere gozoa izan zan bi egun aietan aien bertso bikain eta jatorrak entzutea, eta aldi berean oso lagun egin giñan.

Berastegin erriko festak ziran; San Lorentzotan, ain zuzen. Ango jaiak amaitu ziran: baiña berriro alkarganatzeke zoria laister izan genduan: Gaztelun. Ama Birjiña abuztuko edo Andra Maritan. Iru edo lau egun izaten nituan nik soiñu jo bearrak. Aiek egun baterako joan ziran.

Ni ordurako lagunartean edo bakarrik bertso batzuk kantatzen jardun izandu nintzan; baiña plazan eta olako tokietan bein ere ez. Eta Gaztelun, nola ez?, bakarren batek esan zien ni ere jarduten nintzala pixka bat lagunartean, eta tentatzeko. Bai ten-

tatu ere ederki, maixuki gaiñera! Baiña kontra ez; lagunduz beti. Nere denboran Uztapiderekin egindako leenengo saiotxo a egun artantxe izan zan, Gazteluko tabernan ain zuzen.

Geroztik, erri batean ta bestean biltzen giñanean, oso pozez agurtzen genduan alkar. Leenago esan detan bezela, bai iñoiz tabernan koadrillan-edo, bertso batzuk kantatzen nituan nik ere. Baiña nere gogo a bertsolari ospetsuei entzutea izaten zan. Ala ere, kontatuko dizuet bein gertatu zitzaidana, non, noiz eta nola.

1956-an zan. Santiago-Santa Anatan Arrua-goran jaiak ziran. Bazan Zarautzen bateri-jotzaille bat; au da: *jazbana*. Soiñu-jotzaille bat falta zuen eta neri dei egin zidan. Aren deia jaso nuen Arrua-gora joateko Santiago-Santa Anatan bost egunetarako, soiñua jotzera.

Santiago egunean soiñu jotzailleak bakarrik giñan festa-giroa alaitzeko. Esandako orduak bete genituan eta, gaur ez bezela, bai dantza ugari egin ere jendeak. Amaitu genduenean, nere lagunak programari begiratu eta esan zidan biaramonean, meza nagusi ondorenean, eguerdian alegia, bertsolariak zeudela. Eta ni gustora, nola ez?, urrengo egunean aien bertsoak entzuteko, nere betiko gozoa ori baitzan.

Meza nagusitik ateratakoan, alkatea inguratu eta onela esan zidan:

–Kaxiano, soiñu pixka bat jotzen asiko al zerate? Orain bertsolariak genituen, ta bat bai, Uztapide, etorri da; baiña bestea ez da agertu oraindik. Pixka bat itxoingo degu, edo beste bati deitu, zerbait egin be arko degu eta.

Nere erantzuna:

–Nola ez gera, ba, asiko, ortarako etorri-ta gaude ta?

Etzan gaur egun orrenbeste altaboz, mikrofono eta tramankulu erabiltzen soiñua jotzeko. Orregatik, laister giñan esandakoa betetzen. Artu soiñua eta udaletxeko balkoiera. Beste gabe asi giñanean, nunbait soiñua entzundakoan Uztapidek begiratu zuan, eta ni ikusi ninduean:

–Kaxiano dezute soiñu jotzen? Ba, bertsolari billa ez ibili batere. Laister agertzen ez bada etorri bear zuena, berarekin kantatuko det emengo saioa.

Pieza batzuk jo genituan, alkateak dei egin zidan balkoitik barrura sartzeko, eta onela esan zidan:

–Kaxiano, zuk bazenekizun ni bertsolari faltan nengoala; eta orain, zeñek eta Uztapidek esan dit zurekin egingo duala emengo saioa. Nolaz ez didazu esan bertsolaria zerala?

–Ez neukan esaterik ni bertsolaria nizenik –erantzun nion–. Nere burua ez det bertsolarizat jotzen, oraindiokan beintzat. Nik ez det sekula ere plazan kantatu. Ta Uztapidek bai, ezagutzen nau: taberna batean, apalondo batean, saiotxoren bat edo bi egin izandu ditut berarekin. Ortik plazara alde aundia dago. Baiña Uztapidek ala nai badu, ez det ukatuko saioa. Egin nezakena egiteko prest nago.

Orduan Uztapide bera agertu zitzaidan, eta esan zidan:

–Kaxiano, biok egin bear diagu saioa.

Esan nion:

–Badakizu nere berri eta nik zer nezaken.

–Lasaj! –esan zidan.

Eman zidan zigarro bat eta beste gabe balkoira. Leen esan detan bezela, orduan etzan altaboz eta mikrofonorik. Ni inguru artan ez ninduten ezagutzen ezertarako. Iñoiz nere berri entzun bazuten ere, soiñu-

jotzaille bezela: *Lizartzako itxua*. Bertsolari bezela, ura ta gutxiago.

Jendea nik ez nuen ikusten, baiña pentsatzen det neri begira egongo zala; eta, ni Uztapide ondoan ikusita, esango zuela: "Orrek zer egin bear ote du?".

Ta Uztapidek beste gabe esan zidan:

–Asi zerorri!

Jendeak gutxiena pentsatzen zuan nik asi bear nuela bertsoan; baiña ala izan zan. Asi nintzan, nere leenengo agurra kantatuz. Ondorenean, Uztapidek berea. Andik aurrera, garai artako erri-jaietako bertso-gintza orri eldu genion; eta jendearen txalo ugarienak, nik esatea ez badago ondo ere, neretzat izan ziran. Ez bertso onak botatzen nitualako, noski; baiña bai jendea arrituta gelditu zalako. Uztapideri txalo, nola ez? Baiña arekin etziran arritzen; danak zekiten zenbateko bertsolaria zan.

Ala, beintzat, eguerdiko saioa bion artean egin genduan, eta txalo ugariak entzun ere bai.

Balkoitik barrura pasa giñanean, alkatearen eraso izan nuan berriro, esanez:

–Baiña, ni nola nenbillen somatuta, nolaz ez didazu leenago esan?

Esan nion:

–Konforme gelditu bazera, utzi nazazu pakean, nik or kantatzen pasa dedan estuasuna zuk ez dezu pasa ta.

Leenengo aldia izan zan, bai, nere istoriarako, Arrua-goiko plazan balkoitik kantatutako saioa. Egotez, neroni ere gustora nengoan, bein egin bear zan eta leendabiziko aldiz plazan kantatu nuelako. Gaiñera, norekin eta Manuel Uztapiderekin! Baiña gero esan nion alkateari, eta Manueli ere:

–Ekarri arratsalderako nai dezutena, orain denbora badaukazute ta. Eguerdikoa bete da.

Ao batez erantzun zidaten nola alkateak ala Uztapidek:

–Emen ez dago besterik gaur ekarri bearrrik.

Eta Uztapidek esan zidan:

–Arratsaldean ere biok egingo degu.

Eta nik ere azkenean ameto eman nuan.

Andik bazkaltzera. Bazkaldu genduen bapo; eta bazkalondoa, noski, euskaldunak badegu betiko tertuli pixka bat. Santa Ana eguna nola zan, konbidatu jendea ere izaten zan etxeetan, eta ez giñan jende asko taberna ortan.

Baiña bat, bai; gauza bat gogoan det: taberna artako nagusiaren koiñadoa zan Urtain; baiña ez Urtain bozeadore-edo ezagutu genduena, orren aita baizik. Eta, nola ez?, alkarrekin giñan bazkaltzen, denak batera. Leenago esan dedan bezela, jendea bakoitza bere etxetara joan zan, konbidatuak artuta, eta gu maaian ez giñan asko. Orregatik, bazkalondoa, tertuli ondoren, an atera zan museko kontua, eta orduan esan nion Manuel Uztapideri:

–Jokatuko al diegu bi koiñadu auei?

Nagusia ta Urtain zanari, noski.

–Bai; jokatuko genieke. Baiña zuk nola egingo dezu musean?

Etzekien Manuelek ere artean nere berri ortan, eta besteak gutxiago. Esaten zuten:

–Bai; nola egingo dezu, ba, zuk, musean?

Eta:

–Bai, bai.

Ortarako beti eramaten nituan, egun batzuetarako ni joan tokira, kartak, neronek *Braille* sisteman zenbakituta noski. Karta normalei egiten zaie marka, zenbakia. Ta nik ondo ezagutzen nituan orduan, eta orain ere bai. Esan nien eta atera nituan kartak, karta igualak, eta:



–Baiña ok nola ezagutuko dituzu, ba?

Eta:

–Bai –esan nien– Emen puntu txiki batzuk dauzkate, ta oiek beatzekin ikutu eta nik badakit zer karta daukaten.

–Bueno, bueno!

Prueba egin bear zala ta beste gabe asi giñan. Saio jator bat egin ere bai; ta ez dakit: onak giñalako ez, baiña gure alde erori zan beintzat. Guk irabaztea gertatu zan.

Jendea gero pixka bat etortzen asi bazan ere bertsoaren batzuk entzutera, iñork etzuan bertsoerik eskatzen, ni musean ari nintzan bitarte. Danak arrituta, nola ote zitekean. Baiña ala ere sinistu zuten. Bearko! Begien aurrean ikusten zuten nik musean egiten nuala.

Ori pasa ta gero, noski, oitura zaarra: bertso batzuk kantatu genituan tabernan.

Ondoren, gaur egun baiña garaizago asten zan plazan soñua jotzen eta plazara. Ez dakit: bostak, bosteterdiak...Esan zidaten:

–Asi zaitezte soñua jotzen.

Ta geroxeago Uztapide joango zala bertso-saioa egitera. Berriro an agertu zan Manuel; eta eguerdian ziranak, eta jende geiago ere bai, urbildu zan festara, noski. Eta an egin bear izan nuan nere bizitzako bigarren saioa plazan.

Tartean baziran erri-kirol, aari-joko ta abar.

Alako batean jetxi giñan balkoitik; eta alkateak, Uztapide ta bioi otseginda, kontua egiten asi zan. Bertsoena leenengo Manueli ordaindu zion; ez dakit, baiña garai artan berreun ta berrogei ta amar pezeta zala uste det.

Ori ordaindu ta gero, neri etorri zitzaidan. Soñu jotzea bosteuneko tratua egin da nintzan, ta aparte egun ortako bertsoena ordaindu nai zidatela, ta ea zenbat zan.

Ni, beti bezela, tentati xamar-edo, ta esan nion:

–Orrek zenbat konbratu dizue?

Adarra jotzeagatik, noski. Eta:

–Berreun ta berrogei ta amar pezeta.

–Bai. Ori, izan ere, oso ona da, ta orreagatik jardun da ni baiña errezago. Neri geiago kosta zait, orri baiña, kantatzea.

Uztapide banekian inguruan zegoala, ta bai: argi zegoan. Entzun ere bai. Eta esan zion:

–Orri emaiozute neri bezelaxe. Ez al du besteren serbizioa ta ondo bete?

Eta berak, adarra jotzeko, oraindik:

–Gaiñera, bazkaldu batena bakarrik egin dik orrek, ta bestela biena pagatuko bear-ko zenduten.

Alkateak segituan esan zuen:

–Bai; ez nion galdetu ere egin bear. Galdetu gabe eman ta kito!

Orduan esan nion:

–Ez, ez, ez! Nik ez det ori esan bertsoa kobratzeagatik, ta kantatu ere ez. Utzizuo pakean bertsoari.

Uztapidek esan zidan:

–Artu gero!

*Bueno*, besoa luzatu nuen, ipiñi zidan eskuan ta poltsikora. Eta etzitzaidan batere gaizki etorri. Egun ura, beintzat, borobilborobilla erten zitzaidan. Egia esan, dirua ere, beti bezela, mesedetarako izan nuen; baiña ori baiña geiago zan nere onorea: Uztapiderekin plazan bertsoan jardun nintzala esan aal izatea.

Andik aurrera, ez dago kontatzerik zenbat erri-jaietan edo beste edozein billeratan alkartu izan giñan. Ura bertsoan, noski; eta ni soñua jotzen, tarteka bertso batzuk botatzen banituan ere.

Zenbat gozamen artu detan, aren ber-

tsoak entzunda! Segurua zan, altu-baju gutxikoa, ta beti serio. Eta aldi berean broma onak, oso onak, ere jartzen zekiena zan.

Zenbat erri-jaietan, auzo edo alkartetan eta era askotako billeretan gertatu giñan alkarrekin kontatzea, kasik eziñezkoa da. Ta beti galga berean sumatzen nuan Uztapide zana.

Gero sortu zan oitura, txapelketetan bezela, erri txiki, auzo eta bertso-saio geienetan, jaiak jartzea. Nere iritziz, oitura ona zan. Gaia ezaguna izan ezkeru, beintzat, zer esana erreztu egiten zitzaion bertsolariari.

Uztapide eta biok leku askotan alkartzten giñan, ura bertsoan besteren batekin eta ni soiñu jotzen. Arek laister galdetuko zuan gaiak jarri bear ote zituzten. Erantzuna leku geienetan:

–Bai; nai genduke. Baiña ez dakit nola moldatuko geran.

Manuelek esango zien:

–Ez badezute iñor gaiak jartzeko, Kaxiano emen dezute eta esaiozute berari. Ori oituta dago ta badaki lan orren berri.

Eta zenbat lekutan gaiak jartzea tokatu zitzaidan, berak edo erriko antolatzaillak eskatuta, naiz ez izan nere oso gustoko lana gaiak jartze ori! Bazuan bere arriskua, bi alderdiekin asmatu bear eta: bertsolariekin eta entzuleekin. Eta ori lortzea, beti etzan errez izaten.

Orrela urte pilla bat igaro zan gure arremman atsegin eta jator orrekin, zoritxarrez abotsik gabe gelditu zitzaigun arte gure Uztapide jaun aundia.

Onenbestez bukatzen det.

# Kosme Lizaso

## Oiartzun

### Piñu-landareak

**U**ZTAPIDEK bere gertakizun askoren artetik kontatu zizkidan batzuk.

Bein, igande-arratsalde batean, Oiartzungo Ergoiendik Lesakara bertsoara goazela, bi gertakizun kontatu zizkidan.

Leenengo kontatu zidana onela izan zen: sasoiako piñudi baten ondotik pasatzen goazela, esan zidan:

–Ikusten al duzu piñudi au, Kosme? Au aldatu zutenean, nik egintako landarea sartu zuten emen.

Bat-batean etorri zitzaidan burura eta esan nion:

–Zuk leen piñu-landarea egiten zenuen?

–Bai.

Eta orduan asi zen gertakizun au kontatzen:

–Bai. Landarea atera eta berriro aldatzeko gauza zen garaian, auzi ziran laguntzailleak etortzen; baiña gauez.

–Ez al zenuen iñor arrapatu izandu –galdetu nion.

– Bai; bat arrapatu nuen. Santo Tomasak ziran, eta Donostira bertsoara joana nintzan. Biaramonean joan nintzan mintegira, landarea atera, kontatu eta paketeak egin-ta jartzera, eta konturatu nintzan: “Leen-go-a ez nian, bada, nik sail au ala utzi!”.

Ezagutu nuen norbait ibilia zela. Jarri nintzan pentsatzen ta nere buruari esan nion: “Olako lekutan zegok sail bat zula-tua eta ura ikusi bear diat”.

Andik egun batzuetara, eskopeta artu ta joan nintzan. Sailla jabearen baserritik bis-ta-bistan zegoen, eta ibili nintzan bertan bueltaka. Ezagutu nuen: “Au nere landa-rea duk, ba!”.

Ikusi nindutela banakien, eta jarri nin-tzan pentsatzen: “Orain atarira joan ta “*jaup!*” egiten badut, lotsakerian jango nio-tek bi anaien arte, eta batere mintzatu gabe pasa egingo nak atarian”.

Ala, itxe ondora inguratu nintzanean, bi anaiak agertu ziran, eta batek:

–Zer da, Manuel? Eizean?

–Ez –esan nion–. Bestela nabil. Banakien auzo ontan norbait ere banuela neri on egi-ten zabilena eta zein den ikasi dut. Eta ari-xe amaiketako bat pagatzera noa Altziba-rrera joan ta baxoerdi bat artuta, bueltan kamioz kamio eldu nintzan itxe aldera; eta or ateratzen zait bi anaietako bat aurrera, esanez:

–Aizu, Manuel. Leengoan ekarri geni-tuen landare batzuk, ikusi dituzula bada-kigu ta aietxek pagatzera etorri naz. Tori ogei duro.

–Ogei duroekin eldu al zera neregana? Nik landareak non zauden ez banu ikusi,

ezer gabe geldituko nintzan; eta billatuko ditudalako diru orrekin kito gelditu nai al duzu? Au ez da ola geldituko. Gaur illundu biño leen bosteun pezetarekin gure itxera ez baldin bazera joaten, nik pentsatuko dut nora mintzatuko naizen.

Baita zuzen joan ere. Orrelaxe esan zidan.

### **Erbitan**

Au ere Lesakara bertsozara goazela kontatu zidana da. Neronek eman nion izbi-dea, eiz-kontua atera genuen eta. Galdatu nion:

–Orain ere erbiren batzuk botako dituzu, ba, Manuel!

–Ez –erantzun zidan– Ugalditxotik etortzen diran gazte oiek larrutu zuten Ergoiengo erbi-izatea. Gaur eraman dute azkenekoa.

–Bota dute orduan azkenekoa ere –esan nion.

Eta erantzuna auxe izan zen:

–Bota ez. Korrika arrapatu dute.

### **Donostiako txapelketa baten ondorena.**

Beste txapelketa batzuetan bezela, Donostiko txapelketa aundian askotan entzun izan genduen Uztapide aundia bertsoan, eta geienean goiko maillan. Au, nik idatzi gabe ere irakurtzen duzutenak badakizutena da.

Baiña noan nerera. Jakiña izaten da ola-ko txapelketa baten ondorean izaten diran diferentziak eta esanbesak, eta au ere ala izan. Ergoiengo taberna batean maaian exeri ta kontu kontari zeudela Uztapide eta bere lagun batzuk, or somatzen dute beste maaian exerita zegoen bat, bere inguruan zeuzkanei esaten:

–Uztapide txapeldun? Aixa! Orrek bazakik, txapelketara joan aurretik, zer bertso kantatu bear dituen; eta, gaiñera, jurado-koak ere lagunak ttik orrek. Ola edozein duk txapeldun.

An ari omen zen deskarga egiten, eta jarrri omen zen begira Uztapide, eta au da bere lagunei esan ziena:

–Utzi, utzi! Tientuan zegoen garaian pentsatuak oraintxe ari da esaten ta.

# Sabino Auzmendi

## Ataun

**A**RRATSALDE batean, Larrantzen, biak kantuan ari-ari zirala, bertso baten bukaera edo erditik aurrerakoa onelaxe bota zion Zepai zanak gure Uztapide zanari:

Anima salbo, zakurren gisa  
luzatutzen du mingaiña;  
nai luke, baiña gaur Uztapidek  
ezin luzitu nik aiña.

Uztapideren erantzuna auxe izan zan:

Gauz danak zuzen egin balira  
etzan izango okerrik,  
alde batera guk etzeukeagu  
onela jardun bearrik.

Aizak, Zepai, lantegi ontan nei  
ik ez didak joko adarrik,  
i bezelako amarrentzako  
naikoa natxiok bakarrik.

Oraingo beste bertso au, berriz, Ataunen,  
San Martin egun batean, Kontzejupean  
bertsotan ari zala, Uztapide zanak Aringo  
morroiari kantatu zion:

Kafea ez dakit artu dun baiña  
ortzetan dauka purua,  
oker jantzita daukan txapelak  
estaltzen dio burua.  
Gizon xeble bat onelaxe  
dator nere ingurua,  
zirkoan ondo egingo luke  
onek bere numerua.

# Patxi Iraola bertsolaria

## Zaldibi

### Bentaberrin

**U**STE det Basarri eta Uztapide 1942-an izan zirala leenengo aldiz Zaldibiko Bentaberrin bertsotan. Saturdira, berri, 1945-ean aillegatu ziralakoan nago.

Bazan, gure etxetik oso gertu, Bentaberri izeneko taberna bat, eta an erromeria egiten zan igande askotan. Uztapide eta Basarri Bentaberrira etorri ziran leenengo egunean, ni ez nintzan an, baiña gure aita zana bai, eta Zaldibiko bertsozale geienak joango zirala uste det. Bertsozaleak estimatu artu zituzten bertsolariak, eta andik aurrera urtean bein, edo igoa bitan, kantatzen zuten.

Leenengo egun artan ez nintzala esan det; baiña, auzotarrak giñanez, andik aurrera ez zitzaidan aukerarik falta izan bertsolariak gertutik ikusi eta entzuteko. Asieran, artean umeak izaki, gauean-eta ez giñan bertsolarien ondoan izaten, baiña kontu asko ditut an izandakoei entzunak; eta arratsaldez-eta kantatzen zituztenak, berri, neronek gogoan artuta.

Bentaberrik balkoi bat zuen sortaldera begira; andixe kantatzen zuten.

Balkoi orren parean, aurrez aurre, bada mendi ezagun edo famatu bat. Orain *Txindoki* deitzen diote, baiña garai artan guk *Ñañarri* esaten genion, etxean ala ikasi bai-

genuen. Gero ez dakit nik mendizaleak edo zein asi zan *Txindoki* deitzen. Or, inguruan, izan bear zuan bordaren bat *Txindoki* izeneko, eta andik artu zuala izen ori esaten dute.

Ez dakit kontuak ziur nola izango diran; Zaldibiko Udaletxeko paperetan, beintzat, *Larrunarri* agertzen da.

Kontuak kontu, jo dezagun arira. Egun batean, askotan bezela, an ari ziran kantuan, *Txindoki* edo *Ñañarri* ori aurrez aurre zutela.

Oskarbi zegoan; mutur-muturrean, ordea, sarritan bezela, bazan ipar-laiño pixka bat, muillo baten gisa, eta laiño orrek estaltzen zion punta, txapela balitz bezela. Ingurune aren gorantz, Uztapidek onela amaitu zuan bertsoa:

*Txindoki orri begira gaurkoz  
ara zer zaidan irudi:  
ipar-laiñoa goian duala,  
txondar aundi bat dirudi.*

Abuztu aldera izaten zan Bentaberriko saio ori. Emen auetan soro asko zan garai artan. Orduantxe zeuden batzuetan gariak ebaki eta metan, eta besteetan artoa lorantzen. Uztapidek onela azaldu zuan bertso batean:

O. Zaldubiko txoko polit au  
nik zenbat maitatzen detan!  
Emen dagoen edertasuna  
ez baita leku danetan:  
soro batean artoa loran,  
besteak gariak metan,  
illabete bat pasako nuke  
pozik paraje onetan.

Nik bertsoa orrela idatzi eta ikusteko era-  
kutsi diotanean, Rufino anaiak oar bat egin  
dit:

–Bertso ori eta urrengo biak ere ezagu-  
tzen dizkiat nik. Uztapideren *Lengo egunak  
gogoan* liburuan zetozek. Lazkao-Txikik  
emanak zirala esaten dik asieran datorren  
oarrak; baiña bazeudek alde txiki batzuk.

Ori esan eta bertsoak kantatu zizkidan.

Ez da arritzekoa bat-bateko bertsoak bu-  
ruz artu eta itzen batzuk aldatzea; ori orre-  
la izan da aozkotasunaren istorian. Beraz,  
nere bertsoaren ondoan Lazkao-Txikire-  
na ezarriko det, jendeak ikus dezan eta  
bere ondorioak atera ditzan. Uztapidek be-  
netan nola kantatu zuan onezkero ez degu  
jakingo; baiña nabarmen dagoana da ber-  
tsoaren muiñari biok indar beretsuarekin  
eusten diogula.

Gauza bat argitu nai nuke, ala ere: Uz-  
tapidek sarritan esaten zuan *Zaldubi, Zal-  
dibi*-ren orde. Nere itzak baiño ohea izan-  
go da, ordea, zeuok irakurri eta juzkatzea.  
Lazkao-Txikik esanda, Uztapideren libu-  
ruan onela dator:

O, Zaldibiko txoko polita,  
maitatzen zaitut benetan,  
zuk dadukazun edertasuna  
ez baita toki danetan:  
alde batian artoa loran,  
bestian garia metan,  
illabete bat pozik pasako  
nuke alderdi onetan.

Orduan, beti gai librean jarduten zuten  
bertsolariak; baiña beraien artean gorabe-  
eraren bat edo alkarri adar jotzeko modu-  
ko ezer barrundatzen bazion batak beste-  
ari, ez ziran egoten atzera begira; andixe  
ekiten zioten saioari. Informatzaille onak  
ere izaten ziran tartean.

Egun orretan, dirudianez, Uztapideri  
neskaren batek Basarri nor zan galdetu  
zion. Orixe izpide arturik, onako bertso au  
kantatu zuan gero balkoitik:

Gaur Zaldubira etorri dira  
banaka eta binaka,  
zure galdezka ere nigana  
iritxi dira amaika.  
Neskatxa batek: “Nor da Basarri?”,  
txamarratikan tirata.  
Ez dakidala erantzun diot,  
basarri asko dira ta.

Kasu onetan ere Lazkao-Txikiren ber-  
tsioa ipiñiko det segidan:

Gaur Zaldubira etorri dira  
banaka eta biñaka,  
zure galdezka ere, Basarri,  
izandu ditut amaika:  
“Basarri zein da?” neskatxa batek,  
txamarratikan tirata.  
Ez dakitela erantzun diot  
basarri asko dira ta.

Urrengo istoria au beste bertsozale bati  
entzuna da. Bein, Basarri eta Uztapide or  
ziran egun batean, bi kastillano etorri omen  
ziran goizean goizetik. Gosaltzen asi or-  
duko inguratu omen zitzaizkien, eta egun  
osoa ondotik kendu gabe pasatu omen zu-  
ten. Erderaz itzegin bear, noski, euskeraz  
ez zuten jakingo eta. Gauean afaltzen asi  
ziranerako, bata ezkutatu omen zan; baiña  
bestea an omen zebillen artean, lata ema-  
ten. Alako batean esan omen zuan:

–Ustedes ¿por qué no cantan en castellano, para que podamos entender todos?

Ori esan zuanean, sartu omen zan an zegoan jendea eta... beintzat ixil arazi izango zuten gizon ori. Gauzak baretu ziranean, auxe kantatu zion Uztapidek:

Amaika olako nolabaiteko  
ikusi degu munduan;  
goizean bazun beste lagun bat,  
orain ez dakit nun duan.  
Jende guztia ipiñia du  
oraintxe ia minduan...  
Kate batekin lotu zazute  
idi beltzaren onduan.

Oraingoan ere, noski, Lazkao-Txikik emandako bertsioa ezarriko det ondoan:

Amaika ola erdi ipurdiko  
ikusi degu munduan;  
leno bazuan lagun bat eta  
orain ez dakit nun duan;  
bazter guztiak ipiñi ditu  
oraintxen iya minduan,  
kate batekin lotu zazute  
idi beltzaren onduan.

### Saturdin

Leen esan det Basarri eta Uztapidek, Saturdin, 1945-ean kantatu zutela leenengo aldiz. Saturdi, Urretakale auzoan dagoan ermita bat da, Zaldibiko leenengo eliza, ain zuzen. Pazkoa bigarreanean egiten da festa. Egun artan apustu bat zan izatekoa, baiña jokatu bear zuten bietako bat ez zan azaldu. Bati *Biandetxe* esaten zioten, eta besteari *Motza*. Egun orretako bertsotarako gaia orixe izan zuten asieran. Basarrik ekin zion:

Gaur goizean artu det  
notizi garratza,  
ziaro tristetua  
da nere biotza.

Kunplimentu ugari,  
fundamentu otza,  
nik galdetzen dizuet  
nun gorde dan *Motza*.

Uztapidek kantatu zuan bertsoaren azken zatia au da:

Jokoan galdu eta  
trabesekin kito,  
lanean ler eginda  
ez dirade ito.

Gero, an aurrean zegoan jendeari ere kantatu izan zioten. Basarri erretorearekin asi zan. Auxe zan aren bertsoaren amaiera:

Kristoren ministroa  
jaun dotorea,  
nik esate'iot orri:  
gora erretorea!

Uztapideren erantzuna:

Erretore jaunari  
diot esker milla,  
beste gizon bat ere  
emen badabilla:  
traje dotorea ta  
eskuan makilla,  
nik goraldu nai nuke  
erriko aguazilla.

Aguazil ori, uniformeja jantzita, oso dotore joaten zan; baita makillarekin aguro asko korroa egin ere, aizkoran edo zana zalakoan jokatzeke.

### Don Gabrielen omenaldia

Zaldibira auskalo zenbat aldiz etorri ziran Basarri eta Uztapide. Saturdiko leenengo artatik orain kontatu bear dedan pasadizo au gertatu arte, tartean ogeitaka urte pasatu baitziran.



Irurogeiko amarkadaren asiera alderatedo, Don Gabriel Amundarain apaizari omenaldia egin zitzaion. Apaiz ori oso estimatua zeukan Zaldibiak, eta erriak bikain erantzun zuan. Omenaldi-egun orretako bi gertakizun aaztu-ezin dauzkat buruan jasota.

Bertsolariak, Basarri eta Uztapide alegia, an zeuden; eta, jende-mordoska bat ikusi zutenean, gu ere an ibiliko giñan urrutira gabe, batak besteari keiñu egin eta onela esan zuan Basarrik:

–Ementxe egingo diagu saiotxo bat.

Ondo eguraldi beroa zan egun artan, eta kantuan aritu bear zuten tokian oraindik ere beroago. Elizako paretaren kontra, eguzkia bizirik sartzen zan txoko batean ari baitziran kantari. An ez zan bromarik. Uztapidek ederki gogorarazi zigun:

Amaika olako egin degu ta  
au're guk ein bear genduan:  
emen kantari asi gaituk gu  
asi geraden moduan.

Ik bai al dakik zer bero dagon  
pareta onen onduan?

Gu baiño ume zailduagorik  
ez dek egongo munduan.

Urrengo bertso au ere egun orretan bertan kantatua da. Bazkaria eta plazako festa amaitu ziranean, goiko soziedadera sartu giñan danok.

An bazan emakume bat naiko gaizki egona, elizakoak eta danak egiña. Elizakoak, ain zuzen, Don Gabrielelek eman zizkion. Baiña, zorionez, sendatu eta ura ere antxe zan bazkaltzen.

Leen ere esan det bertsolariak informatzaille onak izaten zituztela ondoan; eta, ala, esan die bakarren batek amona orren pasadizoa Basarri eta Uztapideri. Basarrik ere kantatu ziola uste det; baiña neri Uztapideren au geratu zitzaidan buruan:

Orra gure amona  
egondu da miñez,  
oetikan iñora  
mugitu eziñez.  
Baiña bizkortu eta  
gaur emen da Ines...  
Don Gabrieli ia  
egin zion iges.

Oartuko ziñatenez, Ines zuan izena amona orrek, eta Zaldibiko Miranda baserrikoa zan; Mirandako Garmendiarretakoa, senarraren aldetik.

### Basarri “trabajadoreetan”

Asieran bi fetxa –orain *data* esan bear omen da– izendatu ditut: 1942 eta 1945, Basarri eta Uztapide Zaldibira bidean noiz asi ziran adierazteko. Orain, nondik nora asi ziran aipatu nai nuke.

Gerra ondorenean, Basarri *trabajadoreetan* ibili zan. Or zegoala, bolada batean Oiartzun aldean ibili omen zan bideak egiten-eta. Kasualidadez, zaldibitar bat tokatu an, Basarriri-eta guardia egiten. Zaldibitar ori Olaldeko Matias Garmendia zala det aditzera. Beraz, arekin ezaupidea egin eta andik ara etorri izan bear zuan leenengo aldiz.

Zaldibian bazituan ezagunak ordurako ere: bat, beintzat, Ilario Nazabal. Orrek kontatua da urrengo pasadizoa. Saturdin izan diran orretan, jarri dira izketan eta esan omen zuan Uztapidek:

–Atzo ere or izan gera bertsoan. Erretiro ederra eginda gaude: gaueko ez dakit zer ordutan oera. Gaur berriz ere goiz jai ki bear.

–Gu, Manuel, oean egongo ginduzkek ondo –esan omen zion Basarrik.

Eta Uztapidek:

–Gaizki daudenak ere antxe egoten dituk.

## Azken Portun

Beste batean, Uztapide eta Lasarte ziran Zaldibin. Zuzen esanda, *Azken Portu* ize-neko tabernan. Ni ere an nintzan. Nerekin batera eta beste askoren artean, Bautista Artano ere bai. Ura baiño pertsona atsegin, jator eta lagunartekoagorik ez da asko izango.

Uztapidek ezaupide aundia zuan Artanorekin, ordurako. Artanok Donostiako Loiolan senideak zeuzkan, eta aiekin arreman aundiak, nonbait, Uztapidek; eta, aien bidez, Bautistarekin ere bai. Ezaupide orren babesean, Uztapide adar jotzen eta toreatzen asi zitzaion:

–Bautista, ondo bizi zera zu.

–Beti nerekin batera ibiliko baziña, ez zenuke ori esango.

–Ez daukazu, ba, itxura txarrrik.

–Nik ere nereak neronek pasatu bear izaten ditut.

–Segan jokatuko nizuke zuri.

–Jummm! Ona bazera, ez dago gaizki. Nik, segara joaten naizenean, naiago izaten det ondoan neroni baiño geiago dana.

## Uztapide bisitatzen

Uztapide gaixotu zanean, joan izan gintzaizkion bisitatzera. Ango izpidea, geienetan, bertsoa izaten zan. Garai artan bertsolari on asko zebillen plazarik plaza: Azpillaga, Lopategi, Lazkano, Lazkao-Txiki, Lizaso, Agirre... Konbertsazio orretan ari giñala, nik galdera bat egin nion:

–Oiek danak oso onak dira. Gustatzen zaizkit. Baiña Basarri eta biok osatzen zenuen bezelako bikoterik ez dakit ote dagoan.

Nere galdera adituta, ixilik geratuko zala uste nuan. Baiña *¡qué va!* Auxe erantsi zien

berak nere itzei:

–Ez dago.

Bi itz, baiña indarrean jaulki zituan.

## Legorretan

Legorretan ere zenbat aldiz izan, eta batez ere egon, ote ziran? An bazuten adiskide aundi bat, taberna eta guzti: Jesus Eskisabel, *Jainkoa*, *Olaso* tabernako nagusia.

Orain kontatu bear dizuedan au taberna orretan gertatua da. Gertatua edo, bertsoa danez, kantatua. Nikolas Barandiaran *Antxusik* jaso zuan gogoan, eta ark kontatu eta kantatu izan zidan neri.

*Olaso*-ren pare-parean beste taberna bat zegoan: *Guadalupe*. Taberna ori, gaiñeko etxe-bizitzen batera, erre egin zan. Bestetik, andik ez oso urruti, bada *Guadalupe* izeneko ermita ere.

Erreketa gertatu eta ondoren artan ari ziran kantuan, esan bezela, *Olaso* tabernan, Uztapide eta Basarri. Basarrik kantatu omen zuan Guadalupeko Amak salbatu zuala ermita.

Uztapidek, dirudianez, Basarriren ikuspegiarentzat bertso gogor samarra kantatu izango zuan: etxe-bizitzak erre eta ermita salbatu, ederra kontua!

Basarrik esan omen zuan Uztapide ere-je biurtzen asita zegoala; elizara ere ez zala joaten erdietan, eta abar.

Auxe da Uztapideren erantzuna:

Basarri zintzoa da fedeko gauzetan, otoitza egiten du gau eta goizetan. Trapero au gaur ere izan da mezetan, ta aita salduko luke kiloko pezetan.

# Rufino Iraola

## Zaldibi

**U**ZTAPIDEK sasoirik onena zuan garaian mutikoa nintzen arren, haren bertsokera ondo ezagutu nuela esan dezaket. Hari buruzko nire ikuspegia zein den adierazteko, bertso bat gogoratuko dut:

Gaztetako kontuak  
ederki aztuta,  
burua soildu eta  
ortzak akastuta;  
itzik ez du egin nai,  
kopeta beztuta,  
zartzian gauza onik  
gizonak eztu-ta.

Harrituko bazarete ere, bertso hau ez da bat-batekoa, bertso jarria baizik. *Sasoia joan da gero* liburutik jasoa da, 197 orrialdean, 9 estrofa. *Gizonaren negua* da bertso sailaren izenburua. Zer misterio ote du, bada, bertso horrek? Nire uste apalean, bertso horrek, nahiz eta bertso jarria izan, alde-aldera erakusten du Uztapide bat-bateko bertsogintzan nolakoa edo zein zan izan zen; liburuko beste bertso guziek, berriz, alderantzizkoa adierazten dute; hau da: zer ez zen izan. Ez dute zerikusirik plazaz plaza ibili zen Zestoako bertsoari handiarekin; haren irudia (bat-batekotasanari buruz ari gara) nahiko diferentea ageri da liburu horretan.

Uste dut behar-beharrezkoa zela ohar hau egitea, zeren bi Uztapide oso ezberdin aurkituko ditu bertsozaleak *Sasoia joan da gero* liburuan eta erriaren memorian.

### Uztapide ezagutu

Bigarren Uztapideren kontu hori oso berandukoa da, noski. Beraz, noiz ezagutu nuen lehenengo hura? Sekula ahaztuko ez dudan irudia da nik Uztapide, Basarri lagun zuela, ezagutu nuen egunekoa: 1950/1951 aldera izango zen. Gure Patxik hainbat aldiz aipatu duen Benta Berrin zen. Taberna hori, nik aditzera dudanez, noizbait Olegiko (gure jaiotetxea) terrenoa izandakoan eraikia zegoen: handik metro batzuetara guk sagastia genuen, Beheko Sagastia deitzen geniona. Barrenean, arbola-sastraka eta horrelakoez osaturiko hesia zuen sagastiak, eta sasiaren bestaldetik egon ginen bertsoak aditzen aita zena, anaia gazteena eta hirurok.

Ez dut ideiarik ere zer kantatu zuten, baina ondo gogoan dut bertso bakoitzaren ondoren aitak egiten zituen sinuak; komentarioak ere egiten zituen; ez dut gogoan zer esaten zuen, hori ez, baina gauza bat geratu zitzaidan garbi: Uztapide gogokoago zuela konturatu nintzen. Seguru asko, badakit zergatik: Basarri berrizalegia zen haren belaunaldiko jendearentzat.

Egun hura pasatu zen, eta ez dut gogoa hurrena noiz ikusi nuen Uztapide; hori bai, kasi seguru Zaldibiko *Gaztelu Ehitza eta Arrantza* (orduan *Caza y Pesca*) elkartearen izango zen, urtean bi-hiru aldiz etortzen baitziren elkarte horretara. Udaletxearen azpiko lokalean zegoen elkarte hori, Atxukarro zenak pintaturiko zakur dotore eta hegazti luma-harroak hormetan zirela. Hamaika bertso entzundakoak gara lokal horretan.

### Guraso elkartearen

Gero, *Gure ametsa* etxebizitzaren azpian hartu zuen lokala *Gaztelu* Elkarteak, eta han ere kantatu zuen Uztapidek behin baino gehiagotan. Baina orain kontatuko dizkizuedan bi pasadizoak eta bertsoak *Guraso* Elkartearen jasoak dira, Zaldibin noski. 1970 inguruan izango zen. Joxe Agirre eta Manuel Olaizola Uztapide kantu-lagun. Agirrek abonatu egiten zuen Uztapide, goraiatu alegia: "Maisu handi ba zara bertsoan, berezko handia duzu zuk". Uztapidek hauxe erantzun zion:

Hankak makaltzen hasiak dauzkat  
eta arintzen kaskua,  
senipartean ere ez naiz ni  
izandu maiorazkua;  
nere bizitza beti toka zait  
neri bigarren eskua,  
eskolarikan ez daukat eta  
beharko det berezkua!

Segidan datorren pasadizoa eta bertsoa ere toki berekoak dira, baina urte batzuk geroagokoak. Oraingoan Lopategi zuen kantu-lagun. Lehengo eszenategiberra izateaz gain, eszena ere antz-antzekoa suertatu zen. Agure zaharra eta, ondorioz, zaharraren jakitatea goraiatzaren ari zen Lopategi. Halako batean Uztapidek:

Arbola zaharrak ez du besterik  
zotz igarra ta orbela,  
ni kontsolatzen ari da baina  
gauzak ez dira horrela;  
honez aurrera hobeko degu  
babesa eta epela,  
beste pozikan ez det sentitzen:  
gazteak badatozela.

### Seguran

Hurrengo bertso hau Seguran jaso da. Frankismo garai bete-betea zela uste dut, oker ez banago, eta ez dut uste, Uztapide, Joxe Lizaso, Azpillaga eta Lazkao Txiki ziren kantuan. Bazen Madrillen Morcillo izeneko kardenal famatu bat, ez oso adur onekoa euskaldunontzat eta, oro har, frankismoaren kontra geundenontzat. Egun horretan, ordea, halabeharrez, oso larri zegoen, hiltzorian. Mingainean herdoi handirik gabe, bapo astindu zituzten aitona kriminala eta gaineratikoak. Une batean, Morcilloren heriotza iragarria hartu zuten hizpide. Nahiko modu bitxian eta xelebrea saiatu zen Lazkao Txiki bertsoa osatzen, Morcillo *morcilla* eta odolkiekin hitz-jokoa lortu nahian:

Morcillo omen dago  
ia-ia hila,  
ez dago joaterik  
odolkien bila.

Uztapidek, ari ziren kontestu konkretetik dexente aterata, heriotzarekin bakarrik segitu zuen aurrera. Hauxe kantatu zuen:

Entzun behar dezue  
oraintxe epela,  
danak esango dute  
hereje naizela;  
ni're hilko nitzake  
Kristo hil zan bezela,  
jakingo banu berriz  
piztu behar detela.

Bertsolariak horrelako bidea hartzen duenean, eztabaida handiak sortzen dira bertsozaleen artean: batzuen ustez, gaiari ihes egin eta, lagunak esandakoari erantzun gabe, bere aldetik ibiltzea da hori; beste batzuentzat, aldiz, bidea ireki eta gaia berritzea. Ez da erraza kasu honetan epaile izatea. Dena dela, nik esango nuke Uztapidek gaiari progresio egokia ematen diola. Lazkao Txikiren bertsoan "Morcillo" da mintzagia; eta, beste formulazio batekin bada ere, "heriotza" iruzkina. Uztapideren bertsoan "heriotza" izango litzateke mintzagia; eta iruzkina, berriz, "piztu behar dudala baneki, ni ere hilko nintzateke".

Bertso horrek alderdi gehiago ere badi-tu aztertzea merezi dutenak. Uztapide pedagogiko bat azaltzen zaigu: bota behar duena handia dela konturatzen da, bada-ki denei ez zaiela ondo irudituko, eta entzulea prestatu egin nahi du: "Entzun behar dezute oraintxe epela: denek esango dute herexea naizela". Bidea prestatu du, pedagogi lana egin du, eta orain bota dezake nahi duena; nahiz eta entzuleen artean pertsona sentikorxeagoak egon, jadanik ez dago gaizki hartzeko arriskurik. Aldi berean, bere bertsoa eragingarria izan dadin nahi du bertsolariak; emozioa eragingo duena; umorea hautatzen du horretarako, beraz irri eginarazteko asmoa du, horren bila dabil.

Uztapideren berbaldian hiru ideia dau-dela esan genezake: a) ni ere hilko nintzateke, Kristo hil zen bezala, jakingo banu berriz piztu behar dudala (ideia nagusia); b) entzun behar duzue oraintxe epela; c) denek esango dute herexea naizela. Ordena, berriz, badakigu zein izango den: b, c, a; hau da: ideia edo arrazoi nagusia (tesia), gehienetan bezala, azkeneko utzi du.

Formulazio aldetik, bestalde, oso inportantea ez ezik ezinbestekoa ere bada Kristoren aipamena, arrazoiaren funtsa horixe baita. Literaturaren ikuspegi soiletik begiratuta, ordea, "Uztapidek konparazioa darabil baliabide literario gisa" esan eta hor amaituko litzateke komentarioa. Hori baino gehiago esan bear dela uste dut (Joserra Garziak horixe erakutsi digu bere tesian). Konparazio hori arrazoiaren funtsa dela esan behar da, hots, edukiari dagokiona, ez estetikari edo formari bakarrik dagokiona. Bestetik, formulatzeko eragatik, hasieran Uztapideren ikuspegi pedagogikoari buruz esan duguna errepika litzeteke, baina aski dela uste dut, eta bego bere horretantxe.

### Beste azterketa txiki bat

Esan dugu, jeneralean, bertsoa arrazoi fuertearekin amaitzen dela, hau da, konklusio indartsuarekin. Baina berbaldiaren tesia (ideia nagusia) beti bukaeran joaten al da? Oraingoz gera gaitezen galderarekin eta azter dezagun Uztapidek Lopategirekin Zaldibiko *Guraso* Elkartearen kanta-tu zuen bertsoa:

Arbola zaharrak ez du besterik  
zotz igarra ta orbela,  
ni kotsolatzen ari da baina  
gauzak ez dira horrela;  
honez aurrera hobeko degu  
babesa eta epela,  
beste pozikan ez det sentitzen:  
gazteak badatozela.

Bertso honen tesia edo ideia nagusia lehen puntuan dago: "Arbola zaharrak ez du besterik: zotz igarra ta orbela". Tesi honi laguntzen dioten hiru azpi-ideia dira besteak. Bereziki azkeneko puntuak, "beste pozikan ez det sentitzen: gazteak

badatozela”, asko edertzen du zaharraren irudi psikologikoa; bestalde, guztiz selektiboa da: zaharrak ez du beste pozik, gazteak dira poz bakarra; zaharrak ez du ezer, borondate eta desio onak izan ezik. Bihotz-zabala ageri da gizona. Ez du gehiagoren beharrik publikoarengana iristeko eta zirrara eragiteko. Tesi nagusia kontrastearen bidez indartzen du, zahartzaroaren alternatiba bakarra gaztea dela erakutsiz.

### Ordizian

Hurrengo bertsoa oso entzuna da; hala ere, Uztapideren liburu berri bat egin behar eta, ez dago kanpoan uzterik, lehen beste batzuetan azaltzen delako. Oker ez banago Ordizian kantatua da. Kasu hone-tan, Lazkao Txiki zuen kantu-lagun. Hau, hain zuzen, kontrabandista zen, eta Uztapide polizia. Lazkao Txikik, dirudienez, esan zion polizia tonto harengatik nahi zuena egingo zuela. Aditu-aditu Uztapideren erantzuna:

Harro antxean zabilta baina  
hasiko zera umiltzen,  
nik ondo dakit zure pausoak  
nondikan nora dabilten,  
eta neronek nai dedan arte  
utziko dizut ibiltzen;  
gure etxean, gizendu arte,  
ez da txerririkan hiltzen.

Badakit norbaitek esango didala bertso hori ez dela juxtu-juxtu horrela; eta egia izan liteke, baina propio ipini dut horrelaxe, lehen herriak erabili ohi zuen sistema zaharra, hau da, ahoz ahoa esplikatzearren. Dena dela, ez naiz gehiagi luzatuko puntu honen gainean, zeren Patxik bere sailean ongi azaltzen baitu arazoa. Izatekotan ere, xehetasunen bat edo beste erantsiko dizkiot.

Bertsio batetik bestera, bertsoaren muina edo bizkarrezurra ez da inoiz aldatzen. Askok besterik uste badu ere, aberasgarria da bertsio bat baino gehiago izatea. Hain zuzen, ahozkotasuna nagusi izan den arte mundu guztian gertatu den fenomeno da. Beraz, ez da gaitzesgarria, interesgarria baizik, eta, neurri batean, harrigarria ere bai. Hala ere, harrigarriena da bertsolaritzak magnetofoiak berak baino ere gehiago irauin izana.

Ahozko ipuinekin ere gauza beretsua gertatu ohi zen. Esate baterako, Txagorritxoaren ipuinak hirurehun urtetik gora ditu; hasieran ahozkoa baino ez zen, eta hiru edo lau bertsio ezberdin ba omen dira. Beraz, hitzez hitzezko fideltasuna baino askoz ere inportanteagoa da herriak parte hartzea eta bertsio berriak sortzea. Aspaldiko esana da irakurleak bere ekarpena egin arte ez dela osatzen testu bat.

\* \* \*

*Rufino Iraola onek berak idazlan bat agertu zuan El Diario Vasco egunkarian, Uztapideren lau ateraldi izenburuarekin. Oso-osorik onera aldatzen degu. Eskeiñiko dizkigun bertso bat edo beste, besteren batek ere agertzen ditu, baiña alkarren artean aldaketa asko dituztela. Onela dio:*

“Lehenbiziko au Legorretan gertatua eta kantatua da. Patxi Iraolaren eskutik jaso dugu. Honela da pasadizoa. Beste hainbatetan bezalaxe, Basarri eta Uztapide ari omen ziren kantari Legorretan. Eta beste mila alditan bezalaxe, elkarri ziriak sartzen orduan ere. Bertso batean “herejea” deitu omen zion Basarrik. Hona hemen Uztapideren erantzuna:

Basarri zintzua da  
fedeko gauzetan,

otoitza egiten du  
gau eta goizetan:  
trapero hau gaur ere  
izan da mezetan,  
ta aita salduko luke  
kiloko pezetan.

Beste behin, Ordiziako ganadu sariketa egunean hain zuzen, berriz ere Basarri eta Uztapide ziren kantuan. Hala bota zion Basarri horrek:

–Uztapidek badauzka behiak, baina apenas daukan ekartzeko modukorik.

Eta Uztapidek:

Basarri, zertan sartzen zera zu gaur gure etxe aldera?  
Hiru bei kaxkar badaduzkagu ta hantxe moldatzen gera; honek etxean ez dauka ezer: ez gurdi eta ez lera; animalia bat bakarra dute ta gaur hemen degu bera.

Hurrengo hau Idiazabalen gertatua da. Sarritan bezala, egun dexente eraman behar zituen Uztapidek kantuan eta nolabaiteko erretiruak eginez. Eta horrelakoe-tan ohi denez, azkenerako nekea gailendu. Mitxelena omen zuen bertso-lagun egun hartan. Han ari zirela, Ataungo Munduate 'Rubio' sartu omen zen. Hau ere bertsotan zedozer aritzen zena. Mitxelena eta 'Rubio' kantuan hasi zirenean, isildu eta, Pello lagunaren alboan, mahai gainera bere burua bota eta zehar-etzan abarrean atsedenalditxo bat hartzen jarri omen zen gure Uztapide. Mitxelena isilik egoteko ez nonbait, eta Uztapide bete zela eta tiraka bederenik kanpora atera be-

harko zela kantatu omen zuen. Baina Uztapidek ederki entzun omen zuen hura eta kolpean burua altxaturik honela erantzun omen zien:

Isil-isilik hemen nengoan  
Pelloren txoko hurrean;  
hauek diote ni ote nagon  
gizatasun koxkorrean,  
kanpora atera behar nautela  
tiraka edo lorrean;  
hauk biak aina banaiz bertsotan  
oaindik nere mozkorrean.

Gaurkoz azkenekoa izango den hau Zaldibiko Bentaberrin kantatua da. Bertsolariak han ziren batean, bi kasteilano halamoduzko tokatu ziren han. Dexente edaten zutenak eta biak ere azkenerako nahiko nabarmen. Bertsolariak hasi dira kantari eta:

–*¿Por qué no cantan en castellano para que entendamos todos?* –eginez han ibili omen ziren jendea nahikoaminduz.

Batek, horratik, noizpait aldegin omen zuen, baina besteak gauean ere, artean, han jarraitzen omen zuen. Gero eta mozkorrago eta goizeko eskola berarekin:

–*¿Por qué no cantan en castellano para que entendamos todos?*

Halako batean hala bota omen zion Uztapidek:

Hamaika holako nolabaiteko  
len e ikusi det munduan,  
jende guztia ipinia du  
oraintxe ia minduan;  
goizean beste lagun bat bazun  
orain ez dakit nun duan;  
kate batekin lotu zazue  
idi beltzaren onduan.

# Nikolas Zendoia

## Aia, Zarautz

### Auzoko baserritar batekin

**O**IARTZUNEN bizi zala, aste-egun batean, eguerdiz, norabait bertso tara omen zijoan, Basarrirekin kantatzera erri-ren batera. Zein erritara ez dakit.

Ba omen zijoan bide-estratan zear, eta auzoko baserritar laguna, gurdikada ar-bastarekin, eta idi-parea tiraka, jakiña. Topo eginda, kontu-mordoxka bat esan on-doren, an dijoa gure Manuel ori, idien baz-tarretik, pixka bat pendizera igoaz, idieta-ko bati esku zabal ura aurretik atzera bizkarrean paseaz. Gelditu eta onela gal-detu omen zion idi-jabeari:

–Aizak: zer ematen diek idi auei jateko?

Besteak, adarra jo naian:

–Auei? Lenteja!

Eta Uztapidek, ezpain-biurrika bat egi-ñez:

–Oño! Berriz ere edukiko ditek illea ten-teka!

### Bertaraiño

Oiartzunen bizi zala, an ere egingo zi-tuen bere irteerak ostatu aldera; edo, nun-bait bertsoan izanda, etxerakoan ostatu-ren batean bere egonalditoxa.

Iñoiz, gauean berandu antxean baldin bazan ostatutik irtetzerakoan, inguruan

jenderik edo gazte-talderik bazegon, zer-bait dotore esanda joan oi omen zan.

Beingo batean, beintzat, bere oitura jato-rraan bere lagunak agurtuta, txapela ondo jarrita abiatzen da etxerantza. Ostatu au-rraan gazte batzuk omen zeuden, eta euren artean ala omen zioten:

–I, Manuel ondo serbituta ziaak gaur.

–Bai; ala dirudi.

–Gaur ez dek egongo guri adarra jotze-ko moduan. Geronek jo bear zioagu.

An dijooz:

–Kaixo, Manuel.

–Kaixo, mutillak.

–Zer? Etxe alderako martxa al da?

Burua poliki-poliki jiratu ta, denei begi-ratu ondoren, onela erantzun omen zien:

–Etxe aldera bakarrik? Al baldin bada, bertaraiño.

Erreza zegoen ari aurea artzen!

### Zinkoenean

Beste bein, Ernanin, eguna bertsoan pa-sata. Zinkoeneko ostatuan apaldu ta bapo.

Ernanin bada *Zinkoenea* deitzen dioten borobil aundi bat. Itxura danez, borobil orretara bost kalek dute irteera. Orregatik deitzen omen diote orrela.



Ango ostatua, gaur egun beintzat, *Bar Justo* da. Justo ori izatez Aiako Altzolan jaioa da, urte askoan ostatu orrekin Ernain dagoena. Bertsozale amorratua. Gaur eguneko bertsolariak ere Justoren ostatuan sartu-erten bat egin oi dute. Uztapideren lagun aundia izana.

Dana dala, leen adierazi dedan moduan, Justoren ostatuan apaldu ta lasai egon ondoren, "Aio, jaunak!" esanda atera da andik Uztapide. Gauerdia-edo bai omen zan gutxienez. Baiña burua ondo.

Gauerdia ezkeru, lotsagarrikeri batzuk ere ikusi oi dira. Eta nun ikusten duen gazte kirten antzeko bat kale erdian edo asko baztertu gabe pixka egiten.

Uztapidek:

–Gazte, errespeto apur bat ere ederra izaten da, ba.

Gazteak:

–Ja, ja, ja! Auxe da, ba, pixka, Manuel! Auxe da, ba, pixka!

Eta Uztapidek, begirada zorrotzez:

–Ori bat ere ez da!

### Basarrirekin

Beste bein, Basarri eta Uztapide bertso-tara joan omen ziran mendigain zoragarri bateko auzo batera. Ez dakit ziur zein mendi, baiña ederra guztiz. Giroa ere ona, eta goiz iritsi omen ziran, goian ibillaldi bat egiteko.

Basarrik, bi besoak zabaldua:

–Au dek lekua, Manuel! Onekin konparatuta, gu bizi geran lekuak utsaren urren-go dituk.

Uztapidek kasorik ez; segi aurrera.

Andik pixka batera, berriro ere Basarrik, olako aupateko bat egiñez:

–Berriz esanda ere, au dek leku zoragarria! Emen bizi diranak Jainkoari zorra ziotek. Iri ez al dik biotza ikuitzen, Manuel?

–Bai. Nik ere bazekiat au gain ikusgarria dala. Baiña emen bizitzeko abarkak jantzi-ko balitu, Basarri laster aspertuko ukek.

### Musean

Basarri, Uztapide, Mitxelena eta Lexoti Oiartzunen uste det zirala bertsoan. Baiña egun guztian ere ezin, ba, jardun kanta ta kanta.

–Musean saio bat ere egin bearko diagu –dio Lexotik.

Basarrik:

–Benga! Bi zaarrak ez degu obedituko.(1)

Basarri ta Uztapide, Mitxelena ta Lexotiren aurka. Ari dira ta ari dira. Zaarrak pixka bat galtzen, eta ala dio Uztapidek Basarri:

! Eskutik aiz eta emen jo bearra zegok gaizki edo ondo!

Basarrik:

–Madrillen teilla ainbeste tanto aundira!

–Ori dek! –Uztapidek.

–Ez degu nai.

Lexotik:

–Gure etxean milla durokoak ainbeste tanto enbido txikira!

Uztapidek:

–I, Basarri: entenditu al dek ori? Orrek paso esan nai dik.

(1) Obeditu: amore eman. (Nikolasek berak itzez argitua).

# Juan Maria Narbaitza

## Eibar

**B**i milagarren urteko Bertsozale Egunean, besteak beste, Joakin Berasategi lagun zaharrarekin topo egin nuen. Aspaldiko kontuei eta gaurkoei astindu bat eman ondoren, Berasategik hor aipatu zidan nola Uztapideri buruz zer bait osatu nahian zebiltzan, eta ea nik ere nere ondar aletxoa erantsiko nuen saski hartara. Ezetz esaten ez nintzen ausartu, eta orain komeriak.

Uztapideri buruz nik zer konta dezaket? Adinean kokka dexentea genuen; bertsoan handiagoa.

### Miresmena

Mutil koxkorra nintzela, igande eguerdian, Arrate irratan, *La Voz de Guipúzcoa*-tik hartutako irratsaio bat izaten zen baserriari buruzkoa. Tartean Basarri bertsolariak parte hartzen zuen, eta aldizka Uztapiderekin baterako saioak eskeini ere bai.

Gure aitona han egongo zen, belarria irriaren kontra jarrita. Aitona hala ikusita, ni ere arreta jartzen hasi nintzen. Txapelketak ere, ez gaur bezela zuzenean, baina egun bat edo bi geroago entzuten genituen, eta Manuel geroz eta jainkoago zen neretzat; haren gauzak esateko postura eta ahotsaren gardentasuna miresten nintzen, besteak beste.

### Uztapide Eibarren

Uztapidek Euskal Herriko txoko gehienak pasako zituen, eta tartean Eibar ere bai. Arraten askotan ikusi eta entzunak gara; *Astelena* pilotalekuan ere bai, *Amaia* antzokian, Untzagako plazan eta abar. Badiara bertso antologikoak Manuelek Eibarren botatakoak: Urolako trenari, Eibarko eskopetari eta abar.

Hala ere, Eibarren ari garenez, Urkizuko parkera izango zen gehienetan etorria. San Pedro egunez, hogeitabost urtetan jarraian izan zen, gehienetan Basarrirekin, nola ez? Oso gustoko zuen egun hori.

Goizean hamaiketakoa, bere lagun min eta auzotar Manuel Arakistain *Ziaran-Zahar* harrijasotzaile handiaren tabernan egiten zuen. Haiek besarkadak elkarri ematen zizkietenak!

Kanturako naiz konturako tenple ederean jartzen zen gure gizona.

Gero, handik plazara. Jendetza izugarria izaten zen bertan. Herri-kirolak, txistulariak, dantzariak eta tartean bertsolariak; baiña etzen bertsoarako toki egoki edo goxoa. Bilbotik Donostiarako errepidea bertan zenez, motor hots etengabea izaten baitzen. Kanpotar jendea, berriz, lautik hiru inguru bertsoekin jabetzen etzena, eta pen-tsa hortik.

Behin Jose Lizasok, giro petral harekin kokoteraino eginda, hala omen zioen:

–Kaguen! Giro hontan ez dago kanta-zerik!

Eta Uztapidek baju-bajutik:

–Aguantau zak pixkat, hemen bazkari ona izaten dek eta.

Plazakoa bukatu eta *Agiñazpi* jatetxera. Han ere oso etxekoa zen; eta, denak agurtu ondoren, bazkaldu aurretik trago batzuk: porroitik ardoa eta txanpaina nahastuta, batak besteari paseaz.

Nik Basarri eta Uztapiderekin lehenengo aldiz kantatzeko aukera izan nuen egunean, honela esan zidan Manuelek:

–Gure alde hartan iturriko ura nahasten ziotek ardoari; eta hemen, berriz, Bilbokoa.

Egun hartan, bazkal osteko lehendabiziko bertsoa honela bota zuen Uztapidek:

Gaurkoan ere bapo portatu  
zaigu lagun Agiñazpi,  
langosta eta legatza ere  
ederrak baiziran noski;  
haragi eta postrearekin  
bapo aseak gaukazki,  
orain akeita, montekristua  
eta gainera “uixki”.

Ez dira zimendu txarrak kanturako.

1963 urtean, Manuel Lasarte gaixoaldi gogor bat gainditzen ari zelarrik, eibartar batzuk jaialdi bat antolatzea pentsatu zuten sos batzuk bildu asmotan haren lagungarri.

Antolatzaileen artean zen Segundo Iturralde zenak –bertsozale amorratua inor bazen hura zen– aipatzen zuenez, joan omen ziren Uztapideri beren asmoen berri eman eta ea etortzeko modurik izango luken galdetzera, eta Uztapideren erantzuna, haserre xamartuta, honela izan omen zen:

–Segundooo! Hori ez da galdetzen! Lasarteren alde baldin bada, nahi dezuen egun eta orduan libre nago ni.

Lasarteren aldeko jaialdi hartako gai-kartzaila zen Artañolak, gai hau jarri zien Mugartegi, Uztapide, Basarri eta Azpillagari:

–Lauok atzo etorri zineten Eibarrera, eta bakoitzak bertan egindako gauza bana erosi duzue: Mugartegik eskopeta, Uztapidek josteko makina, Basarrik bizikleta eta Azpillagak *Lambretta*.

Mugartegi:

Eskopeta bat erosi det nik  
dotorea eta fina,  
aurrerantzean oilagorretan  
egingo dut ahalegina;  
nere ustetan Uztapide da  
tratua oker egina,  
andreak josten ez daki eta  
zertarako du makina?

Uztapide:

Erregalo bat etxeratzea  
pentsatu det, ze arraio!  
Horrekin kendu leizken ustetan  
makinatxo bat lan saio;  
andreak josten ez dakiela  
Mugartegik ala dio,  
hurrengo ere ez du jakingo  
eramaten ez bazaio.

Basarri:

Josteko makina eskuratzea  
ez da gero berriketa,  
ta Mugartegik oilagor batzun  
esperantzan eskopeta;  
ehun da hamar kilo haundikin  
nik Eibarko bizikleta,

halare aixa pasatutzen det  
Azpillagaren *Lambreta*.

Azpillaga:

Entzun dezute zer indar dagon  
Basarriren mingainian,  
aldatzak oinez pasatzen ditu,  
laua ta behera gainian;  
kiloak ere gehiegi dauzka,  
beti dabil ezinian,  
honek *Lambreta* pasatutzen du  
geldirik naguanian.

\* \* \*

Osintxuko soziedadea inauguratu zenean, bazkaltzen hasi eta zurrumurrua zabaldu zen ezustekoren bat bazela. Eta Uztapidek:

Sorpresa hori bistaratzeko  
iritsi zaigu ordua,  
hutsa pixka bat izan balitza,  
ekarri digu mordua;  
ikusi eta ekartzen dida  
neuk egiñan akordua,  
nik orañela jango det baina  
ez hor dagon mokordua.

# Jesus Maria Etxezarreta

## Zumarraga, Deba

**B**ERTSO auk Uztapidek Azentzio egunean Endoiako plazan kantatu ziotuan, 1968-1970 inguruan. Fetxaz ez da emalea zeatz oroitzen.

Jose Alkorta Egañari jasoak dira. Onek kantatu eta nik magnetofonez grabatuak. Jose Alkorta Beliosoro-erdiko baserrian jaioa da; baina orain Akain baserrian bakarrik bizi da, Akain honetara 1961-an etorri omen zen, eta orain hirurogei ta bat urte ditu.

Akain baserria, Uztapide jaio zen base-  
rritik bertan dago, berreun bat metrora. Jose Alkorta, berriz, bertsozale purrukatua eta bertsolari txukuna dugu, memori apartekoa.

Azentzio egun horretan, Uztapidek bertso-lagun *Azkonar* omen zuen. Azkonar baserrian jaiotako Imanol Uranga bertsolaria. Oso bertso ederrak kantatu omen zituzten. Joxe Alkorta horrek Uztapideren bertso batzuk jaso omen zituen; eta, ge-roztik askotan kantatuz, oraindik gogoan ditu gutxi gora-behera.

Hauek dira. Agurra:

Egualdi ederra eta txoriak  
dabiltz zotzetik zotzera,  
eta gu ere inguratuak  
oien abesti-otsera.

Igokundeko eguna da ta  
Jesukristoren antzera  
gu ere pozik etorri gera  
geu sortu giñan etxera.

Jesukristo zerura bere Aitaren ondora  
joan zan bezela, bere etxera alegia, Uztapide ere bere sortetxera pozik etorria zala.

Ainbat lantegi diferenteak  
badira gure munduan,  
gure txanda're etorri da ta  
asi bearra genduan.  
Kontrariyua gogor xamarra  
tokatutzen zait onduan,  
naizu apustu ezetz antzeman  
zeiñek irabazten duan.

Bertso hau *Azkonar* bere lagunari kantatua:

Garai batean joanak giñan  
Endoiatikan igeska,  
ta lagun zarrak nola ote ziran  
beti bagenduan kezka.  
Len bezelaxe gaurko egunez  
egiten dezute festa,  
egualdi ona egin ezkeru  
leku oberikan ezta.

Ondoren, aizkolariak eta pelotariak izan  
omen ziren. Baina Uztapide eta *Azkonar* ta-

bernara joanak. Aizkolarietan, kanpokoak, inguruakoak ba omen ziren; eta bertakoak galdu apustua. Uztapidek aizkolariei onela kantatu omen zien:

Aizkol kontua ikusitzera  
nola ez geran azaldu,  
baiña pixka bat aitaturtzea  
orrek merezi ez al du?  
Karnizeruak txuletarian  
onuntz ez al du bialdu?  
Berez mutillak pizkorrak dira  
baiña endoiarrak galdu.

Pelotariei, berriz, beste honela:

Pelotangana goazen orain  
aizkorakoa esanda,  
orretan ere ibili dute  
berealduko demanda.  
Bikote ori irabaztuna  
endoiatarra izanda,  
beste erremeriorik etzegon  
kanpokorikan etzan da.

Despedidarako beste bi bertso auek ere  
gogoan zituan:

Arratsaldean gure bertsuak  
kantatu bear dirade,  
alkar probatzen ibilitzeko  
lagunegiak gerade.  
Al dan onduen konpondutzea  
biontzako degu obe,  
laster ixildu bearko degu  
geiegi probatu gabe.

Arratsaldean ere bertsuak  
dauzkagu kantatu berrak,  
pake santuan bildu gaitezten,  
gauza onik ez du gerrak.  
Entzuten egon zeratelako  
anai-arreboi eskerrak,

bazkalondoan kantaoko'itugu  
orain aldiand ederrak.

Jaialdi hartatik etzuen bertso gehiago  
goratzen Joxe Alkorkak; baina Uztapide-  
ren beste batzuk gogoan zituen. Ondoren-  
go hau, Zestoan omenaldian egin  
ziotenekoa:

Zestuan bizi izandua naiz  
berrogei ta bat urtian,  
jaio nintzaden egunetikan  
orain sei urte artian.  
Berriro ere gelditu nintzan  
geure probintzia maitian,  
gaur Oiartzunen bizitzen gera  
baserri txiki batian.

Beste hau, Manuel Lasarte bertsolaria-  
ren omenaldi-egunean Uztapidek kanta-  
tua:

Jaio ziñanetikan  
gaurdaiño bitarte,  
badira berrogei ta  
hamaika bat urte.  
Zure omenaldian  
artu nai nun parte,  
naiz bertotan ez izan  
zuk ainbeste arte,  
zorianak biotzez,  
Manuel Lasarte!

Azken bertso hau Zepaik Uztapideri  
kantatua omen da:

Aizu, Uztapide, galdezka negon  
aspaldi ontan nun ziñan,  
alkar ikusi gabe gabiltza  
lagun giñanak antziñan.  
Ni bazterrian or utzi eta  
Basarringana joan ziñan,  
garai aietan ni nintzan baiño  
askoz obia etziñan.

# Jose Maria Iriondo

## Urrestilla, Zarautz

**M**ANUEL Olaizola Urbieta "Uztapide" bertsolari haundia Zestoan jaio zen, Endoiako Uztapide baserrian, 1909-ko Maiatzaren 12-an.

Bere gurasoak Inazio Paulo Olaizola Olaskuaga, bertakoa, Endoiakoa, eta Maria Bizenta Urbieta Azpiazu, Itziarkoa, izan ziren.

### Zarauzko Zinema-n (1963-IV-7)

Zarauzko Koralak antolatuta, 1963-ko Apirilaren 7-an, Zarauzko Zinema pelotalekuan egin zen jaialdian, honako gai hauxe eman zien Uztapide eta Lazkao-Txikiri Patxi Barbero zanak:

-Uztapiderekin ezkontzeko hitzak emanak zituen, baina Lazkao-Txiki orain atzeraka dago, hoztuta-edo, itxuradanez behintzat.

Lazkao-Txikik:

Nere nobio biotzekoa,  
badatorkigu eguna,  
bata bestean alkartasuna  
eleizaz artzen deguna.  
Len enekien ezertan baiña  
orain egin naiz jostuna,  
eztkit bete nezakien nik  
zuk pentsatua dezuna.

Uztapide:

Neskaxka kaleratutziakin  
asko-asko enaiz pozten;  
berak dionez, piskan bat asi  
omen da oraintxe josten.  
Len baserrian zekizkin gauzak  
danak ari zaizka azten,  
lenago bero banintzan ere  
asi naiz naikoa ozten.

Lazkao-Txiki:

Nere mutilla, orregatikan  
etzaitia jarri nagi,  
baserriak dun etorkizunez  
etzaitetz poztu geiegi.  
Kale onduan billatuko det  
zuretzat ainbat lantegi,  
ni josten eta sortuko al degu  
biontzat ainbeste ogi.

Uztapide:

Egun batian izar ederra  
ziñaden inguratua,  
orain ikusten zaitut zaudela  
pranko urrutiratua.  
Kalian bizitzeko asmua  
baldin badezu artua,  
nai dezunana joan zindezke,  
galdu da gure tratua.

Lazkao-Txiki:

Maite giñala uste nuen ta  
biotz ori oztu zaizu;  
zure barnean eztago orain  
len zegon arrenbeste su.  
Diferentzi orregatikan ola  
uztea goratu al zaizu?  
Ezkontzerako uztea obe  
geio maite ezpanazu.

**Pilota txarrak, 1963**

Urte hartan, Luziano Juaristi, *Atano X*,  
hasarre zen Txapelketako azkenerako pi-  
lota txarrak jarri zizkiotela-eta. Gartzia Ari-  
ñori komeni bezelakoak, alegia. Ala, saio  
batean, neronek emandako gaia izan zala  
uste det gainera, *Atano X*-ren izenean itze-  
gin zezala eskatu zitzaion. Eta Uztapidek:

Bizkai aldetik zer asmo zegon  
aspaldi nuen igarri:  
ezin baizioten kontra egin  
oiek ainbeste indarri.  
Pixu gabeko pelotatuak  
dituzte aurrian jarri...  
Gizonarentzat bear diraden  
pelota batzuk ekarri.

Gizonak juan pelota billa  
ta badegu naiko traba;  
nik ere, berriz, saiatu gabe  
ez niokela nai laga.  
Jenio txarrez igarua det,  
anai maitiak, bart gaba;  
jokatu gabe geldituko naiz  
pelota onikan ezpada.

**Txapela irabazi ondoren (1965)**

Uztapide haundiak 1965-an Euskal-  
tzaindiak antolatutako Bertsolari Txapel-

keta Nagusian txapela irabazi zuen. Han-  
dik laster, Urtarrilaren 16-an, hain zuzen,  
Oartzungo bere baserrian bisitatu genuen  
lagun talde batek: Zestoako Jose Sagarza-  
zu, Kastaño eta neuk, hain zuzen ere..

Beti egiten nuen bezelaxe, Loiolako He-  
rri Irratiko *Beti Jai* saiorako bertso batzuk  
eskatu nizkion.

Lehenik eskatu nion:

–Gure entzuleei agur egin zaiezu.

Eta hark:

Bein bear eta gaur ere asi  
bearko kantu-lanari,  
laguntasuna eskatzen diot  
zeruetako Jaunari.  
Aitzakirik ez ematearren  
guk esaten degunari...  
Lendabiziko agur gozo bat  
irradi-entzuleari.

–Bertsolarien norgehiagokan txapela ira-  
bazi duzu. Zer sentitu zenuen hura janz-  
tean?

Uztapidek:

Au're erantzun bear det eta  
entzun, ba, nere esana:  
momentu ura oso ederra  
nik nola nuen izana.  
Nere bururik ezin zuzendu,  
banebilkin naiko lana,  
txapela nola eman zidaten  
nik pentsatzen ez nuana.

–Zurekin batean lehiaketan izan diren  
bertsolariei buruz zer pentsatzen duzu?

Uztapidek:

Amar bertsolai juntatu giñan,  
ez da esan bearrikan:



lau probintzietatik etorri,  
an etzan inor txarrikan.  
Egun guztian bertsoan eta  
bertso bat ez okerrikan,  
gutxitan entzun izan degu guk  
ain saio ederrikan.

-Urte batzutarako irabazi ote duzu aurren jantzi dizuten txapela?

Uztapidek:

Orain ein dezun galderari're  
ez diot gaizki iritzi,  
ta erantzuten ingo dizkizut  
orain pare bat irrintzi.  
Nai baiño leno, Iriondo, enaiz  
onetaraiño iritzi;  
urte askoko ezte espero,  
irabaztia ezta gutxi.

-Bertsozale asko bildu da aurtengo Txapelketan. Zer iruditu zaizu zaletasun hori?

Uztapidek:

Kanta bearra edukiko det  
oraindik ere geiago,  
galdera oiek erantzuteko  
ni emen prestu bainago.  
Orain aiña indar bertsolaritzak  
etzun izaten lenago...  
Eztakit zenbat iraungo duen  
baiña indarrian dago.

Lehengoak baino hobeak al zerate oraingo bertsolariak?

Uztapidek:

Amaika bider emanak gera  
len e iritzi edarrak,  
ta orain ere pentsatzen dana  
gaude gu esan bearrak.  
Alde aundiko bertsolariak  
gaurko gazte eta zarrak,

baiña aiek e bere gaitan  
etziran bertsolai txarrak.

-Gure Beti Jai saioaren entzule guztien izenean, zorionak eman nahi dizkizut bihotz-bihotzez. Eta beste bat arte, Manuel. Uztapidek:

Aizu, Iriondo, ez al da obe  
lana ondo eta labur?  
Baldin luzatzen asi ezkeroni  
izaten naiz txit bildur.  
Neure etxian bertsoa etzait  
neri ateratzen samur,  
orregatikan bertso onekin  
entzule deneri agur!

Azkenengo bertso honetan esaten duena egi hutsa da, noski: Uztapideri ez zitzaion gustatzen bere etxean bertsoan egiterik. Arratsalde osoa berriketan pasa behar izan genduen, bertso auek kantarazteko.

-Beste baterako uztea ez al degu hobe? -esaten zidan behin eta berriz.

Baina arratsalde-pasaren ordaina ekarri nahi, ba, nik ere. Horrelaxe kantarazi genion, erdi-bortxatuz.

### Loiolan, 1973-ko Urte Zaharreen

Manuel Olaizola Uztapidek liburua idatzi zuela-eta, zorionak eman zizkion Joxe Lizasok, 1973-ko Urte Zahar gauez, Loiolako Herri Irratiaren bidez. Hara nola:

Uztapideri nik zorionak  
ez det beste zer esanik,  
jaio orduko nolatan giñan  
beti lagunak izanik.  
Guregatikan ein dituzunak  
danak eskertzen ditzut nik,  
pozikan nago erri guztiai  
zure gorantzak entzunik,

etzuten uste ikazkin batek  
lan ori egin zeikenik.

Begira zer lan azaldu ditun  
gure aiton ixilduak:  
euskerarentzat arnas berri bat  
egin ditun liburuak.

Lenago goian dagon bateri  
nola altxatu graduak?  
Arritzen daude teologuak  
ta berdin filosofuak,  
ez baitzekiten zer balio zun,  
Manuel, zure buruak.

Ondo dakigu gizon nagia  
ez dala izan inoiz ere,  
orrek bazekin alperkeritik  
etzeguela ezer e.

Lenago bertsoz egin zuenak  
ez dakit zenbat mesere,  
ikusi degu zer egin dezun  
zuk mututu ta gero're,  
gizon au ezin gentzake ordain  
bear bezela beñ ere.

### **Azpeitiko hiru bertsolariren omenaldian (1974-III-10)**

1974-ko Martxoaren 10-ean, herriko hiru  
bertsolari omendu zituen Azpeitiko *Kar-  
melo Etxegarai* ikastolak: Joxe Lizaso, Ima-  
nol Lazkano eta Joxe Agirre "Oanda", ale-  
gia.

Azkenean, bertsolari asko hurbildu zen  
haiek agurtzera.

Baita Manuel Uztapide ere, gaixotu ez-  
kero kantatzeko gai etzela pentsatzen ge-  
nuen arren.

Azpeitiko iru bertsolariak  
eztauzkagu apartian,  
eta gu ere pozak zoratzen  
auexekin alkartian.

Oraintxe dala momentu batzuk  
pentsatzen nere artian:  
beste iru olako errege  
nun daude erri batian?

### **Loidisaletxe eta Ernani-Txikiaren ome- naldia (1981-I-18)**

1981-ko Urtarrilaren 18-an, Donostiako  
*Balda* pelota-lekuan, sekulako omenaldia  
eskeini zitzairen Errezilgo Antonio Mari  
Eizmendi "Loidisaletxe" eta Hernaniko  
Paulo Zubiarrain "Paulo Txikiari".

Egun horretan, besteak beste, Manuel  
Uztapideren bertso batzuk jaso genituen  
jaialdirako. Hona emen:

Agur, Zubiarraindar  
nere lagun zarra,  
garai baten etziñan  
bertsolari txarra.  
Urrutira joaten zan  
zure diadarra,  
boza alaia eta  
memori azkarra...  
Gaur zorientzen zaitut,  
Paulo ernaniarra.

Errezilgo semea  
Antonio Mari,  
zu gaztetatik egin  
ziñan bertsolari.  
Urtiak damazkitzu  
plazatan kantari,  
geio ezin eskatu  
leike gizonari.  
Olakoxe egun bat  
eskeini berari.

### **Zestoan (1983-II-5)**

1983 urteko Otsailaren 5-ean, ohizko ber-  
tsolari jaia antolatu zuten Zestoako ber-  
tsozaleek.

Joxe Lizaso (Manuel Lasarteren orde),  
Jon Lopategi, Joxe Agirre, Lazkao-Txiki,  
Jon Enbeita (Amurizaren orde), Jose Luis  
Gorrotxategi eta Sebastian Lizaso bertso-  
lariak izan ziren egun hartan kantatu zu-  
tenak

Baiña jaialdi horretan neu omendu nahi  
izan ninduen Zestoako herriak, bertso-  
saioa zuzendu, gaiak eman eta aurkezpe-  
na egitera urteero-urteero joaten nintzela-  
eta.

Han eman nuen gaietako bat honako  
hauxe izan zen, Lizaso, Enbeita, Agirre eta  
Lazkanorentzat:

-Zestoara etortzen geran bakoitzean,  
ezinbestez, Manuel Uztapiderekin gogo-  
ratzen gera".

Joxe Lizaso:

Jakiñez gaude lagun Manuel  
gaixorik nola dagan,  
etzendukake siñistatuko  
zenbat sentitzen deguan!  
Gaur edo biar, nik noiz ez dakit,  
mundutik juan orduan,  
luto illun bat geldituko da  
emen Euskadi osuan,  
eta negarrak zeñiek ixildu  
Zestuan eta Arruan? (bis)

Jose Agirre:

Tristea eta latza izango zan  
bere etxetik irtera,  
baiña gorputza osatu naian  
joan bear norabaitera.  
Udaberria laster degula  
bear kontuak atera,  
berriz mogitzen asiko zaigu  
txoriarekin batera;  
nik nai nukena: irten dedilla  
berriro gure artera. (bis)

Jon Enbeita:

Euskal Erriak ezin du aztu  
gure Manuel iñola,  
bertsoen bidez berak biztu du  
euskaldunaren odola.  
Esan digute egun auetan  
erdi eria dagola,  
baiña ezin da iñoiz zimeldu  
bere gisako arbola,  
txalo batekin biztu dezagun  
Zestuko urretxiñola. (bis)

Imanol Lazkano:

Eztakit gaitza nungoa duen:  
biotz edo burukua,  
baiña gaur entzun dedanez berak  
izan bear du naikua.  
Errukituko al zaio beintzat  
sendagille edo Jainkua,  
osasun onez entzun dezala  
udaberriko kukua.

Joxe Lizaso:

Naigabe txar bat sentitutzen det  
biotzan aldamenian,  
negarra ere enun urruti  
ori entzun dedanian.  
Ta izar ori gordetakuan  
Endoia aldeko gainian,  
eguzkikiran ez da sortuko  
amabost bat egunian.

Jose Agirre.

Euskal Erria serbitutzeko  
izan du bere bizitza,  
esan diteke bera degula  
bertsolarien zugaitza.  
Guk badaukagu borondatea,  
baldin bagendu baldintza,  
ogei urtera jeitxiko nuke  
baldin Jainkoa banintza.

Jon Enbeita:

Zertako baiña egin bear da  
ainbeste zotin ta negar?  
Alaitasuna zabaldu baitu  
Euskaldun Herrian zear.  
Egun erdiko eguzki dugu  
ta gau illuneko izar,  
Manuel bezelako gizonak  
ez luke iñoiz il bear.

Bere burua eta mingaiña  
etziran nagi ta motel;  
itxaropena zun bere arma,  
etzan bizitzen, ez, goibel.  
Gizon ta erdi pasa zan bera,  
gu laurdenera ezin el;  
ura zan aritz ezkurtsua ta  
gu gerade bere orbel...  
Egun aundian ikusi arte  
agur ta erdi, Manuel! (bis)

Imanol Lazkano:

Irakasle bat apartekoa  
genduen bertso-lanean,  
ori nabarmen erakutsi du  
emen ta leku danean.  
Orain tristura sentitzen degu  
bakoitzaren barrenean;  
bertso-sendia negarrez dago  
aita gaixotu danean.

**Elgoibar (1964-VI-7)**

Ondorengo bertso saio hau Elgoibarko  
herrian egindakoa da, 1964 urteko Ekai-  
naren 7-an, euskal jai batean. Artean fran-  
kismoaren garaia baitzen, tarte berezia izan  
zuten bertsolariek.

Manuel Olaizola *Uztapide*, Manuel La-  
sarte eta Joxe Lizaso izan ziran goiz-par-  
tean kantari. Arratsaldez, bat gehiago: Ba-  
sarri. Gai emaile Prudentzio Eiguren  
*Artañola* izan zen.

## XV Donostiako Bertsolari Eguna

1984-ko Urtarrilaren 22-an, XV *Bertsola-  
ri Eguna* egin zen Donostiako *Victoria Eu-  
genia* antzokian. Eta Jose Luis Gorrotxate-  
gik Uztapideri kantatu zizkion ondorengo  
bertso hauek, nahiz eta egun hartan Txo-  
min Garmendia omentzen zuten bertsoza-  
leek.

Lasarte:

Lanari eldu bearko zaio  
ontara baitgera erten,  
sekula baiño festa obeak  
jarri dituzute aurten.  
Eztakizute olako egunak  
zer poz ematen diguten,  
jakin nai nuke elgoibartarrak  
zer moduz bizi zeraten.

Bedeinkatua izan dedilla  
munduratu zuen ama,  
bularretatik ark jaso zuen  
gizon egin zuen mama,  
une artatik artu baitzuen  
bertsoetarako sena.  
Ta egun ontan nolatan aztu  
gure Uztapide zena,  
ainbeste seme umezurtz utzi  
eta mundutik joan zena? (bis)

Uztapide:

Orain baiño len jakingo zuten  
giñala etortzekoak,  
eta garaiak eldu dirade  
bertsotan asitzekoak.  
Lagun zar asko ikusten ditut  
emen jator antzekoak,  
nere agurra artu zazute,  
euskaldun biotzekoak.

Lizaso:

Ni ere egin bearrian naiz  
nere ongi etorriak,  
pozaren pozez egin ditugu  
gaurko ibili aldiak.  
Leku askotan baldin balira  
au bezelako erriak,  
oaindik arnasa seguru luke  
eusker a maitagarriak.

Lasarte:

Pozikan gera, anai-arrebak,  
geure lanari ekinda,  
ixilik egoten zailla baita  
egin bear dala jakinda.  
Barrua lasai jarriko zaigu  
gauzak garbi itzeginda,  
berrizko ere joan nai genduke  
zuen gustoa eginda.

Uztapide:

Pozaren pozez etorria naiz  
ta esango dizutet nundik:  
bertsuetara Elgoibarrera  
propio ni Oartzundik.  
Erri au beti serbitu nai det  
al baldin badet iñundik,  
ikusitzen da jatorra dala  
erri maite au oraindik.

Lizaso:

Zuen aurrera agertu gera  
biotza zabal degula;  
lan piskaren bat ein ber danean  
ain da jenio mardula!  
Ikusten degu amona bat e  
orain urbildu zaigula,  
amonatxo au nabarmendu da  
bertsoak maite ditula.

Lasarte:

Amonarentzat, Lizaso maite,  
dituzu egundoko famak,  
seme-alabak ondo ikusi nai  
ditu familiko amak.  
Iruna bertso jarri dituzte  
emen goiz-parteko lanak,  
arratsaldean bota bearko  
orain sobratzen diranak.

Uztapide:

Lasarte, ixilduko bagerade  
asi bear zan lenago,  
zu lanerako gogoz zaudenik  
iñork ez luke esango.  
Asko kantatzen baldin badegu  
eztegu ondo emango,  
baiña beste bat kantatu arren  
kastiguik ezta izango.

Lizaso:

Gere ustetan ari giñan gu  
jendian kontsolagarri,  
baiña luzegi ai ote geran  
Lasarte onek igarri.  
Seguru nago entzulen batzuk  
geldiko ziran egarri,  
zer kontatua izango da ta  
arratsaldian etorri.

Ondoren, bazkari-legea herriko *Baltasar*  
bazkunean egin zuten bertsolariak, ber-  
tsozale jende askorekin batera.

Eta bazkalondoan, bertsoa bertsoaren  
ondoren kantatu zuten.

Tartean, Jerman Uriguen *Etxagiña* ere  
han azaldu zen, Manuel Lasarteren gon-  
bitari erantzunez.

Lasarte:

Egokia da, anai maiteak,  
piskat elkar tentatzia,  
orretarako komeni zaigu  
zer itzegin pentsatzia.  
Egokia zan alkartasunez  
gu txoko ontan biltzia,  
komeni zaigu kantatu eta  
errespetoz ibiltzia.

Uztapide:

Aspalditxotik esan ziguten  
Elgoibarren zala festa,  
nola atera biar ote zun  
ekarri det naiko kezka.  
Alaitasuna ikusitzen da  
erri guztian gaiñezka,  
gure biotzak pozteko iñon  
onlako jairikan ezta.

Uztapide:

Berriro asi gaitetz bertsotan  
aztu baitziran lenguak,  
badakizute nola ixilik  
geran danok egonduak.  
Entzutera ere biltzen zaizkigu  
berebiziko munduak,  
bertso batzuek merezi ditu  
onlako bazkalonduak.

Lizaso:

Biotzak salto egiten zidan  
Uztapiden esanetan,  
izanez ere alako gauzak  
jarri zaizko ezpaiñetan.  
Edertasuna ikusten degu  
errian leku danetan,  
Elgoibartikan ezin aldegin  
etorritako penetan.

Lizaso:

Ai, nik baneki nolatan eman  
Uztapiden erantzuna!  
Begira nengon ezker-eskubi,  
auxen da edertasuna!  
Lenago triste zegonak ere  
sentitzen du poztasuna,  
leku guztian ezta billatzen  
olako alkartasuna.

Lasarte:

Au da paraje zoragarria,  
au da txoko atsegiña!  
Guretzat ezta penarik izan  
Elgoibarra otsegiña.  
Danak esaten asi ezker  
badegu zer itzegiña,  
zu're sufritzen or zaude eta  
kanta zazu, Etxegiña.

Lasarte:

Lizaso maite, itzegin dezu  
erik egokienean,  
elkartasunez biltzen gera gu  
beti edo geienean.  
Alimentatu giñan ondo ta  
asiak gera lanean,  
ixilik egoten ez da errez  
itzegin bear danean.

Etxegiña:

Bazkari ederra egin degu ta  
orain akeita artzera,  
*Baltasarrian* baturik gaude  
euskaldun onen antzera.  
Maitetasuna ikusten degu  
anai guztiok batera,  
gure oitura maite ez duna  
joan deilla bere etxera.

Uztapide:

Emengo arri jasotzia ta  
gero emengo aizkora,  
txistulariak ere taldian  
zetozen kalian gora.  
Era ortako egunetan bai  
ederki pasa denbora!  
Euskal Erria ola dan arte  
ni ez nijoa iñora.

Lizaso:

Berriro ere lanera nator  
aboa bete-betian,  
gorputza ere ikaraz neukan  
gauza oiek jakitian.  
Guk zer kabitxo billa gentzake  
txoko ontatik juatian?  
Nik bertan egon naiago nuke  
arnasa dedan artian.

Lasarte:

Uste gabeko gauza txukunak  
datoz aboa betean,  
alkartasuna ez da izango  
iñorentzako kaltean.  
Eskean ere Elgoibar ontan  
ibiltzen dira tartean,  
Etxegiña ortan ibiltzen zaigu  
joan dan ogei bat urtean.

Uztapide:

Entzuteko ere Etxegiña au  
ezta gugandik aparte,  
nik ez nekien lenago, baiña  
gaur emen esan didate.  
Beraz, eskian ere ibiltzen  
dala diozu, Lasarte,  
esan dute, bai, badamazkila  
oi ta emezortzi bat urte.

Lizaso:

Zu, Etxegiña, aiton maitea,  
lendik nago igarria  
Santa Agedatan kontsueloaz  
jartzen dezula erria.  
Zar da gazteak estimatze'ute  
zure ibili aldia,  
eta noiz degun jakin nai nuke  
zuretzat omenaldia.

Lasarte:

Etxegiña au oitura zarrak  
nola dijuan uztera,  
omenaldia izan leiteke  
egun batetik bestera.  
Mesede asko egin duela  
jakin gabiak ez gera,  
etxe ontatik lenengo aldiz  
joan ziñala eskera.

Uztapide:

Ez badakizu ere lenago  
omena egin zioten,  
bi urte dira eta ez dakit  
zuek nola ez dakizuten.  
Jendia ezin aspertu da oni  
limosnatxua ematen,  
or biltzen duen dirua ezpaita  
berorrentzako izaten.

Lizaso:

Erri guztiko pozgarria da  
Santa Ageda illuntzian,  
entzuten egon ziraden batzuk  
onelaxe esan zian:  
txalua pranko jotzen zutela  
zure bertsoak aitzian,  
ai zer negarrak Elgoibarrentzat  
aitonatxo au iltzian!

Lasarte:

Ongi portatzen danarentzako  
ez da falta eskerrikan,  
Euskal Errian egiten zaie  
omenaje ederrikan.  
Nekea franko izan du baiña  
guziak ez alperrikan:  
dirurik ez diote eskeiñi,  
erlojua bakarrikan.

Uztapide:

Au ere esan bear det eta  
zaudete pazientzian:  
erretiroa eun bat pezeta  
badu nere iritzian.  
Gero lan piskat eiten omen du  
berorren komenientzian,  
beste oinbeste bat irabazitzen  
omen dezu Plazentzian.

Uztapide:

Etxegiña, ez kasorik egin  
Lasarteren esanari,  
berriro ere beti jarraitu  
lengo bide zuzenari.  
Dirua zertan eskatuko'ie  
onek bere lagunari?  
Alajatxoa naikoa baita  
len dirua duenari.

Lizaso:

Etxegiña, gaur ez zabilta ain  
jokera gezurrezkuan,  
ezagutzen det aitona ori  
onela urte askuan.  
Dirua ere beti sobrean  
izaten du poltsikuan,  
gonbidatutzen saiatutzen da  
onuntz etorritakuan.

Lizaso:

Beti zuzena izango dala  
Uztapiden itzaldia,  
bein bear eta Etxegiñari  
esan diozu egia.  
Alajatxo bat bere besoan  
ortxe zioten jarria,  
bizi dan arte izandu dezan  
erriko oroigarria.

Lasarte:

O, Etxegiña, eman diguzu  
sekulako atakia,  
bertso batekin egin nezake  
disputa danen pakia.  
Ogei duro ematen badizute  
len egindako nekia,  
berriro ere Sigma makina  
ez da izango merkia.

Lasarte:

O, nere lagun biotzekoak,  
jator dezute itzegin;  
nik ere zerbait esan nai nuke,  
piska batian itxogin.  
Lenago aski daukan bateri  
erregaliak zer egin?  
Erlojutxo bat eman zioten  
goizean esnatu dedin.

bat:

Badakizute len ere entzuten  
gugan amaika olako,  
gaur e ari gera lagun zar ori  
emen gertatu dalako.  
Gizona zartu ta zail daukagu  
naiz gorputzez egon flako,  
emate' iote dirua baiña  
len asko egin zualako.



Lizaso:

Arrazoi dezu, zure bertsoa ezta izandu itxusi; bere urteak kunplitu zitun eta lanetik igasi. Osasun ona dauka oraindik eta nai lukena bizi... Lengo nekiak ordaintzerikan ez ote du, ba, merezi?

Lasarte:

Zer esanikan ez da, Etxegiña, kobratzen badira danak; oraindik ere jasoaz zabiltz lenago egindako lanak. Gauz auek esan erazten ditu alkarren lagun izanak; nik orrenbestez akabatzen det, barkatu gaizki esanak.

Elgoibarko euskal jaialdi ikusgarri hartako ekitaldi nagusia Azoka plazan ospatu zen.

Dantzariak, kantariak eta bertsolariak izan ziren han.

Prudentzio Egiguren Artañola zen aurkezle eta gai emaille.

Uztapide, Basarri, Lasarte eta Joxe Lizasok egindako agur-bertsoak hauexek izan ziren.

Uztapide:

Jaialdi eder au nola izango zan aspaldi esana zegon, ikus' ezute ni berriz orain zeñien kontenturik nagon. Edertasun au ikusi eta ezin ixilikan egon, lendabiziko anai-arreba guztioi arratsalde on!

Basarri:

Gaurko eguna aspalditikan danok itxaroten gendun, era ontako edertasunik orain bai ote da iñun? Elgoibar maite biotzekoa, bati izan zaitut lagun, arnas piska bat dezun artean jarraitu zazu euskaldun.

Lasarte:

Jaun Zerukua, indartu zazu gure memori ariña, zer falta duan jakingo dezu nola baitan zeuk egiña. Gaur Elgoibarren billatu degu biotzaren atsegiña; au da paraje zoragarria, ai bertan bizi bagiña!

Lizaso:

Agur eskeinka nator ni baiña ia ez dakit zer esan, oinbeste jende ikusirikan gaur Elgoibarreko plazan. Anai-arrebak, gure artean gauza auxe komeni zan, gaixorik dagon euskera zarrak arnasa izandu dezan.

Ondoren, Prudentzio Egiguren Artañolak gai hauxe eman zien han ziren lau bertsolarietara, ordena honetan:

—Oraingo saio ontarako ofizioak emango dizkiegu. Basarri, eiztaria izango degu; Uztapide, berriz, perretxiku--biltzailea; Manuel Lasarte, arrantzalea; eta, azkenik, Joxe Lizaso, karakol-biltzailea. Iruna bertso kantatuko dituzte.

Basarri:

Eizerako izan det  
beti nere griña,  
Jaungoikoak propio  
ortako egiña.  
Apunteri ederra  
badadukat, baiña  
aurten ez det egiten  
kartutxoantzat aiña.

Uztapide:

Jaiki eta mendira  
egiten det martxa,  
eztaukat bizimodua  
aurten oso latza.  
Perretxiku urtia  
baita aberatsa,  
naikoa det erostia  
olio ta gatza.

Lasarte:

Toki onik eztaukat  
nai baiño geiago,  
nik damakidan martxa  
ikusia nago.  
Arrantzan aspertu naiz  
bear baiño lenago,  
gure errio orretan  
arrai gutxi dago.

Lizaso:

Jendetza gutxi dago  
goizian jaikitzen,  
badakizu aspaldian  
nolatan gabiltzen.  
Euria're sarri samar  
nola dan erortzen,  
Lizaso trankil dabil  
karakolak biltzen.

Basarri:

Erriko guardazibil bat  
daukat begi betian,  
arentzako arkitzen naiz  
kolera fuertian.  
Eskupeta kendu zidan  
jun dan elurtian,  
eztiot barkatzen bi-  
zi naizen artian.

Uztapide:

Basarri, ixilikan  
egotia obe,  
zuretzat ere bada  
gutzat ainbat lege.  
Sekula etzera egin  
lizentzian jabe,  
etzerade libratuko  
kartzelarik gabe.

Lasarte:

Nere ustez atzo egin  
nuen nik azaiña:  
arrai freskua arrapatu  
neretzako aiña.  
Goizero antzuelokin  
botatzen det kaiña,  
saiatu egin bearko  
alperrik da baiña.

Lizaso:

Entzule maitagarriak,  
esango det auxen:  
karakola galanki jan,  
argatikan gizen.  
Goizean sorotara  
joaten naiz zuzen,  
landareak osorikan  
kontserba ditezen.

Basarri:

Uztapidek artu dit  
albotikan kargu,  
onek ori esateko  
motiborik al du?  
Baldin Basarrik kartzela  
merezia badu,  
perretxiku batzuek  
tartetan bialdu.

Uztapide:

Barkatu zazu, Basarri,  
lenago esana,  
zuk badakizu ori  
benetan etzana.  
Orain abituko naiz  
Lizasorengana,  
karakol biltzia ez da  
euskaldunen lana.

Lasarte:

Lizaso or daukagu  
karakol asean,  
bai beste pareja au're  
dotore antzean.  
Bat perretxiku biltzen da  
bestea eizean,  
etzerate mantenduko  
denbora luzean.

Lizaso:

Uztapidek bertso bat  
bazeukan kolkuan;  
jaunak, entzun dezute  
nola esan duan.  
Orren perretxikua  
nik jan ber banuan,  
onuzkero gosiak  
garbitu ninduan.

Puntuak eman zizkien ondoren Basarri  
eta Uztapideri.

Artañola:

Basarri, txakoliñik  
al dezu etxian?

Basarri:

Sekula ez naiz egoten  
armaio utsian.  
Inbiririk etzazu  
izan biotzian,  
nola probatuko dezu  
etorri ezian?

Artañola:

Mutil zartu ta gero  
zertako ezkondu?

Uztapide:

Izan zala uste det  
naikoa berandu.  
Zu ere geitxo zera  
alperrik egondu,  
onezkero obe dezu  
burutikan kendu.

# Uztapideren omenaldia, Donostia, 1968-I-21

1968-ko Urtarrilaren 21-ean omendu zan Uztapide, Donostiako *Astoria*-n. Ondoren, lagunarteko bazkaria egin zan *Urbia* jatetxean. Besteak beste, hamar urte besterik ez zuen Sebastian Lizasok honako bertso hauek kantatu zituen:

O entzuleok, arratsalde on,  
astera nua lanari,  
biotza zerbait alaitu nairik  
bertsua nai duanari.  
Gaur Manueli jo dizkiote  
txalo beruak ugari,  
eta nik ere biotz barrendik  
milla zorion berari.

Ainbat lagun zar bildu gerade  
nola erri ala erbeste,  
zure omena zala entzunda  
berotu giñan gu laste.  
Zure gorantzan izugarritzko  
jaiak moldatu dituzte,  
baña oraindik ez dizute egin  
merezi dezun ainbeste.

Ezjakin naiz ta barka zaidazu  
nere itzaldi txepela,  
zer jardunikan ez baidaukat nik  
gizon aundi bat bezela.  
Azkenik auxe esan nai dizut,  
ez nago lasai bestela:  
urte askuan gorde zazula  
osasuna ta txapela.

Semearen bertsoak entzun ondoren,  
Joxe Lizasok honela kantatu zion Uztapideri:

Zer kontatua franko badegu  
biotzean ta buruan,  
orretarako ordu politak  
oi dira bazkalonduan.  
Ordu batean emen geunden gu  
bertsoai ezin elduan,  
ta entzuleak emen genduzkan  
alperrak giñalakuan.

Nik zure berri erakustera  
ekarria det apropos,  
kontentu nago jardun danian  
umil eta errespetoz.  
Pozaren pozez neroni ere  
begiak bustirik malkoz,  
gu ez gerade betiko eta  
gaztiak ere badatoz.

Uztapide zaharrak, begiak malkoz  
bustita, honela kantatu zuen:

Gaur arteraño enuen entzun  
zure semian abotsik,  
orrek bezela iñork eztit gaur  
neri mugitu biotzik.  
Errez da ikusten nere negarra  
begietatikan pozik,  
a zer gizona ertengo duan  
berorren aita ezetzik.

Azkenik, beste bertso bat kantatu zuen  
Manuelek *Urbia* jatetxeko bazkarian:

Beste bertso bat kantatu nai det  
beti egon gabe entzuten,  
artu bakarrik ezpaita ondo,  
jakin bear da ematen.  
Gaurko eguna zail izango da  
neri burutikan juaten,  
bizi naizela etzait aztuko  
zer egiten didazuten.

# Apalondo batean jasoak

## Etkezuri, Olaberria

2000-VI-26

**E**GUN honetan lagunarteko afari eder batean bildu ginen Olaberriko Etkezuri sagardotegian Joakin Berasategi, Antonio Barandiaran, Agustin Agirre, Florentino Goiburu eta neu. Ondorengo bertso hauek lagunarte hartako berriketaldian jaso nituen.

Begin Batean Ordizian bertsotan omen ziren Uztapide, Lazkao-Txiki eta Basarri. Eta saio batean, Basarrik, beste biei eraso, honela kantatu zuen:

Bi txikiak tentatzen  
Basarriren lana;  
erdia esan du onek,  
esango det dana:  
bi gizon auek ez dira  
beintzat metro bana,  
ondo luzatuta ere  
geienaz e kana.

Antonio Barandiaranek jasotako bertso hau Lazkao-Txikik berari bota ziola esan ohi omen zuen.

Beste hau Florentino Goiburuk kontatu zigun: gizona etzela metroarekin neurtzen kantatu omen zion Lazkao-Txikik Uztapideri.

Eta erantzun hau eman ziola kontatzen omen zuen Joxemielek:

Txikiak artu nairik  
aundiaren fama,  
au dek gure artean  
gertatutzen dana.  
Zertan joango gaituk  
metroarengana?  
Gizon auek neurtzeko  
naikoa dek kana.

Bertso hori non bota zionik ez zen esaten Lazkao Txikik; baiña berari bota ziola, bai.

Antonio Barandiaranek kontatu zuen beste hau: Non eztakit, baina Uztapide eta Basarri omen ziren bertsolari herri bateko ganadu premiotan. Basarrik asko samar zirikatu omen zuen Uztapide, eta oso base-rritar petoa etzala egongo esan omen zion, haren ganadurik etzuela behintzat premiotan ikusi-eta. Bai Manuelek gogor erantzun ere:

Erantzuteko asmoa badet  
egin didazun galdera:  
iru bei kaskar dauzkagu etxean,  
gu aietxekin bizi gera.  
Onen etxean, berriz, ez dago  
ez gurdi eta ez lera...  
Animalia bakarra etxean  
ta emen arkitzen da bera.

Florentino Goiburuk kontatu zigunez, berriz, goiko bertso hori Ordizian kantatu omen zuen Uztapidek, eta beste honela kantatu ere:

Zer arrazoitan sartu zerade  
zu gure etxe aldera?  
Iru bei koskor dauzkagu eta  
aiekin moldatzen gera.  
Onen etxian ez dago, berriz,  
ez gurdi eta ez lera,  
animali bat bakarra dute  
ta gaur emen dago bera.

Antonio Barandiaranek kontatu zuanez, Billabona-Zizurkil alde horretan ba omen zen oso bertsolari on bat, Bittor izenekoa. Baina bere etxean bertsolaririk nai ez non-bait, eta utzi egin zion.

Harek Antoniori esandakoa da ondo-rengo bertso au, eizera joan eta La Puebla de Arganzón-eko *Restaurante Palacios* jate-txeko apartu batean.

Basarri eta Uztapide joan omen ziren he-rriren batera bertso-tara. Basarri errespeto-an ari omen zen erlijio-kontutan, eta hala-koren batean Uztapidek honela kantatu omen zion:

Basarri zintzoa da  
sinismen gauzetan,  
otoitzak egiten ditu  
arrats ta goizetan.  
Alproja au gaur ere  
izan da mezetan,  
ta aita salduko luke  
kiloko pezetan.

Florentino Goiburuk esan zuenez, Legorretan kantatua omen da bertso hori.

Ondoren, Antonio Barandiaranek hone-la esan zuen:

–Beste hau ere orduan kontatu zidan gazte horrek. Itxura danez, neska lagun-tzen izan ondorenean, etorri da Uztapide, eta tabernara zuzenean sartu. Baiña erabat asarre omen zegoen; oso kopeta beltza zue-la.

–Basoerdi bat atera idak –esan zion ta-bernariari.

Honek:

–Uztapide, eztakartzu oso begiratu ede-rra. Asarre etorri zerala dirudi? Gaizki har-tu al zaitue? Bide txarra neska laguntzeko ala?

Uztapidek hitzik erantzuten ez. Baiña ta-bernariak berriz ere tentatu egin nahi, ba, eta puntu haxe jarri omen zion:

Orain bertso txiki bat  
bear didazu bota...

Eta Uztapidek:

Pakean utzi idazu  
asarre nago-ta:  
onla ibilita ere  
ezer eztago-ta,  
kasik etxean obe  
idiana jota.

Florentino Goiburuk:

–Danean ere ona zen Uztapide; baina puntuari erantzuten aparta zen. Azkar eta zorrotz erantzuten zuen harek. Inork ez bezala, noski.

Ondorengo hau ere Florentino Goiburuk kontatu eta kantatu zigun.

–Bein puntu haxe jarri omen zioten Uz-tapideri, auskalo nongo bertso saioan:

Etxen nork agintzen du:  
zuk ala andreak?

Uztapidek:

Ez gaude gauza ori  
probatu gabeak.  
Orain aldatu dira  
munduko legeak,  
nik bear nuke baiña  
agintzen du beak.

Florentino Goiburuk:

–Ordizian egindako saio batean entzun  
nion nik Uztapideri gizonak bota dezake-  
en bertsorik onena. Gaia onela zuten: Uz-  
tapide karabineroa, eta Lazkao-Txiki kon-  
trabandista. Joxe Migel gogor ari zitzaion:  
karabinero zaharra askotan lo egoten zela,  
eta harengatik errez pasatzen zela eta abar.  
Alako batean Uztapidek:

Arro antzean bazaude ere  
asiko zera umiltzen;  
ikusten ditut zure pausoak  
nondikan nora dabilten.  
Nik neronek nai detan artean  
utziko dizut ibiltzen,  
gure etxean gizendu arte  
ez zeder zerririk iltzen.

Florentino Goiburuk:

–Eztira askotan entzuten horren bertso  
borobil eta zorrotzak. Sekulan entzun de-  
danik ederrenetakotzat daukat.

Honela jarraitu zuen Florentinok:

–Lazkao-Txikik nere aurrean bota zuen  
ondorengo bertso hau. Gizona erronkan  
ari omen zen andre kontuan. Eta Joxe Mi-  
gelek eraso:

Onek andre-kontuan  
orrenbeste lio,  
esaten duanakin  
enaiz oso fio.

Ura goguakin ta  
onek ez balio...  
Artuko luke iñork  
emango balio.

Barandiaranek:

–Etxarriko euskal festara joan dira behin  
batean Lazkao-Txiki eta Patxi Iraola, eta  
han erromeria izan. Soinua hasi zenean,  
dantzara jendea. Eta gizon bat, hirurogei  
urtetik gorakoa, andrea utzi bertsolariekin  
eta hor dijoa bera ere dantzara. Sueltoan  
gogotik egin eta izerditan blai itzuli omen  
zen, dantza saioa eginda gero. Ala, mantal-  
-poltsikotik atera eta tabako-zorroa eta  
pipa eman omen zizkion andreak gizonari,  
maitekiro. Lazkao-Txiki begira zegoen  
eta bai bertsoa laster bota ere:

Gaur ere ikusi det  
eundoko txiripa,  
aundiagorik ezin  
liteke apika.  
Gauz onerako aundigia  
daukazu zuk tripa...  
Zure partez andreak  
atera du pipa.

Barandiaranek:

–Uztapideri buruz zer esan? Agirreri en-  
tzun nion behin, Uztapide piska bat min-  
beratzen bazan, bazekiela hark gizonari  
bere lekua ematen. Baina mikro aurrean,  
muturra beltz-beltz zuela jartzen zenean,  
etzela giro izaten harekin. Eraman haun-  
diko gizona bai, baina berak lekua eska-  
tzen zuenean, argi harekin! Bertsoa buka-  
tu zai ikusten zutenean, hari erantzuteko  
bi behar zirela.

Billabona aldeko Bittor harek kantatua  
omen da beste hau ere, delako apari har-  
tan:



Emakume auekin  
asmatutzen lan da,  
neronek probatu det  
gaur aruntz joanda.  
Esaten nion arren  
jartzeko etzanda,  
nola sartuko nion  
kuskurtutzen zan da?

Florentino Goiburuk:

–Behin, gai hau jarri zioten Lazkao-Txi-  
kiri Ataunen: zu, gazte denboran, neska la-  
guntzen-eta asko ibilia zera hemen, eta ho-  
rri buruz bertso bat edo beste bota behar  
dezu.

Bi edo hiru bertso eskatu zioten, baiña  
bakarra daukat gogoan:

Neska launtzera joaten giñan  
oso umil eta noble,  
aruntzakoan bide erdia  
eta bueltakoan doble.  
Neska launtzera joaten giñan,  
joan ez bagiña obe:  
nekea franko izan genduen  
probetxu aundirik gabe.

Urrena, izbidea hola etorrita, Agustin eta  
Antioniok Zaldibiko Biandaetxe arginarena  
kontatu zuten. Argin ona omen zen, eta ta-  
bernaren ikusi eta esan omen zioten:

–Joxe, atzo diskusioa izan diagu, eta ar-  
gitu behar diguk hauxe: hemendik zuen  
etxera zenbat kilometro daude?

–Hiru –erantzun omen zien.

–Ondo zegok. Horixe jakin nahi genian.

Eta Joxek honela jarraitu omen zuen:

–Baina zenbait iluntzetan, nere atzetik  
jartzen denak sei ere egin beharko dizkik.

Edanaren kontuak, noski!

Urrena, Antonio Barandiaranek:

–Behin batean, etorri dira bi mendizale  
Zaldibira, Aralarren eguna pasata. Eta hasi  
omen ziren:

–Txindokin elurra zuritu du.

–Oño! Entzun al dek hori, Biandaetxe?

–Bai –mendizale batek.

–Zuen kontuak izango dira hoiak –Bian-  
daetxek–. Nik ez tet hori sinisten.

–Baietz, ba! Gu ez gera umeak. Handik  
etorri gera eta ondo asko ikusi degu –men-  
dizaleek.

Eta Biandaetxek erantzun:

–Bai; handik etorriko zineten. Baina elu-  
rra ezta Txindokin zuritzen; elurra goitik  
etortzen da zurituta.

Unanuetako Txato ikaragarritzko aitona  
zen; ehun kilotik gora behintzat. Eta bera-  
rekin apustu egin zuen batean Biandaetxe  
horrek:

–Berrogei kilo kendu baietz –Txato aito-  
nak.

–Ik neri berrogei kilo kendu? Kostako  
zaik orratio, haundia izango aiz baino.

Botilaren bat ardo-eta jokatu zuten. Eta  
joan dira Marihaundienera, eta:

–Pixua tranparik gabe al dago?

–Bai, bai. Baskula zuzen dago.

Hala, bada, pixatu omen zen Biandae-  
txe, eta hirurogei kilo justu. Urrena, ehu-  
nean jarri omen zuten baskula hori, Txato  
igo zan, eta, *danga!*, gora.

–Ardoa paga zak orain –esan zion Txa-  
tok Biandaetxeri.

Eta honek:

–Egon, egon, apustua eztek honetan  
amaitzen eta! Ea, jar zazu orain hirurogeian  
–agindu zion etxeko nagusiar.

Jarri du eta bai Biandaetxe baskulara igo  
ere. Eta:

–Ikusten al dek? –erantzun omen zion Txatori–. Lehen ainaxe pixatzen diat nik orain ere. Hik neri berrogei kilo kendu? Banengoen, ba, ni! Eztidak gramorik ere kendu!

Beste batean, hogeitazortziko apreta (*alpargata*) ankan sartu baietz eta ezetz apustu egin dute. Berriz ere Mariahaundienera joan ziren. Hogeitazortziko apreta ekarri eta proba egin omen zuen.

–Oraingoan izorratu haiz, orratio!

–Ni izorratu? –esan omen zuen Biandaetek–. Nola, ba? Ez horixe! Hogeitazortziko apreta ankan sartu baietz jokatu diagu, eta nik emen *totalmente* alderantziz ikusten diat: hogeitazortziko apreta ankan sartuta ez; anka ikusten diat nik hemen apretan sartuta –esan omen zuen.

Arrapa zak! Biandaetxe hura ez zen bertsolaria, baina hitz-jokoan azkarra zen.

Baina lehengo arira etorrita, Antonio Barandiaranek honela esan zuen:

–Artean sasoiko zela ezagutu genuen guk Uztapide, baiña radioz.

Goiburuk:

–Nik, radioz, San Sebastian egun batean ezagutu nuen. Hernanin nenbilen artaldearekin. Artean toki gutxitan izaten ziren radioak, baina han bazan.

Beste lagun batekin zen Uztapide: Belamendia-edo. Lehendabiziko bertsoak orduan entzun nituen nik radioz. Uztapide ere orduan ezagutu nuen, radiotik bada ere.

Artean soltero zegoen, nonbait, Manuel. Eta mutil zaharrok beti ere ikaragarriak entzun behar izaten ditugu, ba, gabiltzan tokian; eta hortaz zirikatatu zuten. Gogoan daukat Belamendia delako horrek nola esan zion:

–Donostian manta ederrak ikusi ditut;

eta ezkontzeko-edo behar baldin badituzu, ondo etorriko zaizkizu.

Eta Manuel Uztapidek egoki erantzun zion orduan ere:

Belamendiari nik eztiot gaur ukatuko itzikan, baiña nik ez tet olako gauzak erositzeko poltsikan. Eta alare batere eztaukat esposatzeko lotsikan, ezkonberriak manta gabe're eztu izango otzikan.

Horixe izan zan Florentino Goiburuk Uztapideri entzundako lehenengo bertsoa. Eta ondo gogoan hartu zuen.

Antonio Barandiaranek urrena:

– Hor, Eibar aldean, omenaldia egin zioten Manuel Lasarteri 1960 inguru horretan-edo. Zortzi bertsolari ziran kantatzen; eta gogoan daukat, eizean izan eta Urkola-azpin bazela radioa ordurako. Han sartu ginen bertsoak ematen ari zirela. Basarrik puntua jarri; gero Uztapideren eta Lasarteren txanda (bi Manuel), eta Agirrek amaitu. Bertso hau horrela osatu zuten:

Bas.: Ia bada garaia  
bazkaldutzekua...

Uzt.: Oraintxe jango nuke  
txulet bat bapua.

Las.: Ordun lodituko zaik,  
Manuel, lepua.

Agi.: Oraindik alkandoran  
badauka lekua.

Bazkalondo artan ari-ari ginela, Txirrita ere aipatu zuen Goiburuk, honela esanez:

–Txirrita zenarekin bertsoan jardundako bizi den bertsolari bakarra Paulo Zubiarrain *Hernani-Txikia* izango da. Berari egin zio-

ten eta oraintxe ilabete-edo radioz eman zuten elkarrizketa batean, Txirritarekin behin baino gehiagotan kantatu zuela entzun nion; eta bertso hau orduan gogoratu zuen:

Askotan joan naiz bizkar gainian  
arturik nere maleta,  
an edo emen bai egin ere  
makiñatxo bat pareta.  
Oraindik ere etxean dauzkat  
maillua eta paleta,  
ta nai badezu emango'izkizut  
ni enaiz oien zale-ta.

–Ikaragarri gustatu zitzaidan bertso hau-  
xe –zioen Florentino Goiburuk.

Beste behin, Lazkaon-edo ari omen zen Txirrita, sokorrak zapaltzeko alper-arria egiten. Bateren batek, handik pasatzean, honela esan omen zion:

–Ari zera, Txirrita!

–Bai; hementxe ari gera guraso zaharren ofizioan.

Etzion asko entenditu; baiña gurasoek bera ere alperra egin zutela esan nai izango zion, noski.

Ondoren, Barandiaranek jarraitu zuen:

–Behin batean, Basarri, Uztapide, Lizaso eta Lopategi Tolosan ziren bertsoan. Egun hartako gaietako bat hauxe izan omen zuten: Basarri, erretore; Lizaso, sekretarioa; Lopategi, euskeraz etzekien maisua; eta Uztapide, alkatea.

Uztapide, bistan danez, azkena kantatzen zuena.

Bertsotan hasi eta hirurak alkatearen kontra jardun ziren. Herriko txarkeri guztien errua harena zela, eta ondo egindakoren eskerrik ez, behintzat. Hala, dena amaitzera zijoala, Uztapidek bertso hau bota omen zuen:

Beraz, dotriñik eztakiena  
jarri dute erretore,  
maisua jauna're emen daukagu  
gure izkuntzarik gabe,  
sekretario egiña dago  
bizio guztien jabe...  
Auentzat berdin dio alkate  
edozein ipiñita're.

Basarrik gaizki hartu omen zuen hori, eta Pazkoazkoa egitera ere kanpo-herrira joaten zela bota zion Uztapideri.

Honek, ordea, etzion errez barkatu. Zirtzart, urrengo bertso honekin erantzun zion:

Galdera orri erantzuteko  
nik artuko det ardura,  
erantzuten e asmatutzen det  
iñoiz bear dan modura.  
Oraindik ere gogoan daukat  
lengo esaera zar ura:  
gizonak joan oi dirala beti  
gizonak diran lekura.

Oraindik ere bertsoan jarraitu zuten Tolosako jaialdi hortan. Azkenean, Uztapidek erremate hauxe eman zion:

Au ere esan bear dizutet  
kostatzen eztan kasuan,  
irurak onuntz etorri ziran  
buruak ezin jasuan.  
Gaizki esaka or ari zaizkit  
gaiñera egun osuan,  
nai baldin banu irurak sartu  
nezazke kalabozuan.

–Basarri bertsolari haunditzat izan degu guk beti –dio Barandiaran-ek–. Eta halaxe izan zan noski. Baina Uztapideren etorriaren erreza eta hitzaren zorrotza harrigarriak ziran.

Manuelek txapela irabazi zuen hartan, bera bertsolari eta Basarri juraduko jarri zituztenean, honek bere bertsoa honela amaitu zuen:

Ta emen egin bear dana da  
bertsoa ondo kantatu.

Eta hari Uztapidek *zapla!* erantzun zion, beharbada edozein jaialditan botako etzukeen bertsoa osatuz:

Ni gaur onuntza etorritzeko  
garaiz irten naiz oetikan;  
Basarri, berriz, irtenda dabil  
eman dioten gaitikan.  
Erabaki zorrotza sortuko  
zaigu gaur horko maitikan,  
arrazoirikan ezta izango  
zure bertso oitaitikan.

Uztapide, seguru asko, etzen izango txapelketako bertsolaria. Jaialdietan nahiago zuen harek.

Baina, hasten zenean, bota egiten zuen. Etorri errezekoa, jario onekoa, hitz ederrekoa zan, noski, hura. Hala ere, Lasartek eta Agirrek bezelaxe, txapelketa batean behera egiten zuen. Basarrik, Lazkao-Txikik eta beste batzuek, berriz, gora; azi egiten ziren, jendaurreko estuasunean.

Antonio Barandiaranek:

–Inoiz, Joxe Agirre Oandarekin bertso-tan ari ginela, haren tamainako maisu baten ondoan aritzeko bertsolariak ez ginela gu esan nion nik, eta berak hauxe erantzun zidan:

O, Antonio, nere esana  
artu betiko goguan,  
danen aurrean itzegingo det  
lagun on baten moduan.

Nik e inoiz ez kantatzezkeroz  
geio ziranen onduan,  
nere denboran amaika aldiz  
etxen egon berko nuan.

Bertso osoa da, bertso ederra, haren ondoan ari dena pozteko modukoa, noski, besteak beste.

Lazkao-Txikirengana joan zen hurrena apalondo hartako izbidea. Barandiaranek honela kontatu zuen:

–Batean, Alfontso Irigoien zenak honela esan omen zion:

–Neska baten gainean bertsoak bota itzazu.

Eta Joxe Migelek erantzun:

–Baina zer uste dezu zuk, Alfonso: ni zurezkoa naizela? Nik neska gazte baten gainean bein ere ez tet bertsorik botatzen.

Agustin Agirrek jarraitu zuen:

–Arramendiko Juan eta Lazkao-Txiki elkarrekin egon ziran soldadu Afrikan.

Nonbait ere, Lazkao-Txikik bertso asko botatzen zituen soldaduzkako-garaian. Eta, egunean hainbeste bertso botatzekotan, ofizio erreza izango zela uste omen zuen Juanek.

Hala, handik etorri zirenean, Joxe Migel aina bazela uste eta bertsoak egin nahi izan zituen.

Kontuak kontu, handik ogei bat urtera elkarrekin topo egin dute Lazkaon, eta zera esan omen zion Lazkao-Txikiri:

–Mutil, urteak daramazkiat bertso bat osatu ezinda. Hasierakoa egin nian, baiña handik aurrerakoa ezin egin. Enian uste zuen ofizioa hain zaila zenik. Ogei urtean erdia eginez, zaartuko nauk dena egiterako.

–Bai, bai, Horrelaxe dek. Eta nolako hasiera eman diok, bada?

Besteak:

Zer ikusi zenduan  
Afrika aldean?  
Gizonak geldi eta  
andreak lanean.

Lazkao-Txikik segidan erantsi zion bi-  
garren zatia:

Bizi bearrean gaituk  
patxara ederrean,  
ango oitura onuntz  
etortzen danean.

Orduan sinistu omen zuen Juanek etze-  
la edonorentzat egiten bertsolariaren ofi-  
zinoa.

Goiburuk:

–Ordiziko feri egun batean, Mendizabal,  
Iraola, Igartzabal eta horrelako koadrila zi-  
ren; eta Joxe Migel atakatzen ari jo ta ke,  
ganadu itxurazkorik etzuela sariketara  
ekarri izango eta abar esanez. Harek ho-  
nela erantzun zien azkenean:

Beiak onera ekarritzeko  
ez neukan ainbeste gogo,  
pentsua janda dauden tokian  
daude askoz obetogo.  
Baiña ekarri dizutenakin  
oso kontentu ez nago:  
bost akerrekin etorri naiz ta  
erostunikan eztago.

A zer parre-algarak eragin zituen!

# Xabier Unanue

## Zestoa

**L**ANTXO batean ez da erraza gure herria, Uztapide eta bertsozaritza giroaren erresuma eta analisisa sakona egitea; dana dela, urrats gixan bada ere agertzera noa Uztapideren ohoretan eta –nola ez?– gure herriaren eta bertsozaritza goraipamen bezela.

Bertsozale eta herritar batentzat ez da noski zaila izango Uztapide eta Zestoa, bere jaioterria, elkarrekin lotzea. Entzutea degu Santakruz batzuetan –urte asko nolana ere– Txirrita, Uztapide eta Kortatxo bertsoan aritu omen zirela. Basarri, Uztapide, Lasarte, Lizaso eta abar, nor bertsozale ez ote du kantatu gure herriko eta inguru auzotako plazetan?

Santa Ageda bezperako saioetan ohi-turazkoa omen zen Txapel ezaguna gure herrian izatea. Hogeita hamar urte inguru izango da Uztapideri Zestoan egingdako lehen omenaldian, Zepai zena, Mattin zena eta hainbat bertsozale gure herrian izatea.

Gogoratzekoa da, beste alde, Ama Birjin jaiak urtean ditugunez, Zubeltzu bertsozale jarritako bertso bat:

Andik urrengo Ama Birjinetan  
joan giñaden Zestua,  
kunpriziatik nere nobiya  
eder orren gustua;

egun aretan indako gauza  
oindik ez daukat aztua,  
jarri diteke, egiya da ta,  
gauza ori sifistua:  
orduan ere eragin ziran  
bost bat duroren kastua.

Zenbait pauso eman eta urteak urreraturik, gure herriko bertsozaritza giroa apur bat aztertzean, aipatu gabe ezin utzi San Jose egunez eta San Jose ikastetxean egiten ziren bertso saioak. Lazkano, Agirre, Azpillaga gazte izanik, Uztapide, Basarri eta Lizasoren ondoan gogotsu bertsoan ezagutu ditugu, bazkalondoko saioan, plazaratzen ez ziren bertsozaleak, baina bertsozale prestuak, bertso bat edo beste kantatzera ausartzen ziren.

Azken urteotan urtez urte bertso saioak antolatzen dira; lehengo urtean, Maiazaren 25-ean, omenaldi haundi bat eskeini zion Zestoako herriak Uztapideri, “herriko seme kuttun” izendatuz. Egun berean, herriko plaza bateri “Uztapide bertsozalearen plaza” izendaturik gelditzen. Bertsozalearen nortasuna gogora dezagun.

Honela zion Imanol Lazkanok bi bertsoan gertakizun onetaz:

Urte mordo bat pasa ditugu  
goibelak eta illunak,

bainan badatoz alakon baten  
argi dizdizko egunak;  
Franco xarra eta Mola izena  
zuten kale euskaldunak,  
aiek ainbeste mereziko du  
bertsolari txapeldunak.

Bertsolaritzan aundia zera  
ta gizon bezela berdin,  
orra kale bat zure izenez  
herria aztu ez dedin.  
Zu baiño gizon bizkorragorik  
nor izandu da Euskadin?  
Mendian jaio, mendian bizi  
ta kalean jabe egin.

Azkenik, lantxo hau bukatzeko, Uzta-  
pideren omenaldi egunean azaldutako  
zenbait bertso plazaratuko ditut. Egu-  
nen batean, behar behar bada, lan serio  
bat egiteko premia garbi ikusten dut, he-  
rria eta bertsolaritza obetoago ezagutu  
ahal dezagun.

Xanpun:

Agur, Manuel eta sendia,  
zor zaitugu lehen lehenik;  
agur, Zestua, poztu zaite gaur  
duzun seme hau ukanik;  
eskerrak ere zueri esker  
bestan parte baidaukat nik,  
da gorespenak, lagun maitea,  
ipartar haurriden ganik.

Lazkano:

Gaurko egunez Uztapideren  
omena degula bide,  
giro onean bildu gerade  
orrenbeste adiskide.  
Aita onaren altzo gozoan  
ia lareun bat senide,  
mai zabal onek erakusten du  
zer izan dan Uztapide.

Lopategi:

Zestuarra aurrelari ta  
besteak borondatean,  
denok jo degu zabalik dezun  
biotz ortako atean.  
Olako jaiak zor dizkizugu  
gutxienez bat urtean,  
gure esker ona jaso dezazun  
geurekin zauden artean.

Lazkao-Txiki:

Nik, Uztapide, ezagun zaitut  
nintzadenetik mutiko,  
orregaitikan zure pausorik  
ez det beñere utziko;  
ta Jaungoikoak bi gauza aundi  
emen zizuen betiko;  
zure anima eta izena  
ez dirade beñe ilko.

Loidi-saletxe:

Orlakoxiak merezi ditu  
munduan gizon prestuak,  
zoragarriak dirade orrek  
bota dituen bertsuak.  
Manuelentzat zabalik daude  
biotza eta besuak,  
gaur ikusten da bere seme bat  
zenbat maite dun Zestuak.

Lizaso:

Lagun jator bat agurtutzean  
ain degu une gogorra,  
gu adar batzuk bakarrik gera,  
zu zera gure enborra.  
Danak bilduta eskeini degu  
omenaldi bat jatorra,  
alare ez dakit oraindu degun  
zurekin gendukan zorra.

*El Diario Vasco, 1981-IX-4*

# Beste iru ale

**O**IARTZUNGO Pedro Berrondo jaunak *Uztapide (euskaldun, idazle, fededun)* izeneko idazlana argitaratu zuan *El Diario Vasco* egunkarian, 1974-ko Iraillaren 29-an. Batik-bat, *Lengo egunak gogoan* liburuaren iritzia ematen du, baiña gertaera jakingarri au ere kontatzen du:

“Eta gogora datorkit Uztapideren erantzuna... bere liburuaren aurkezpena izan zaneke gau artan, atarian, elkar agurtu ondorean, galde egin nionean:

–Ta, Uztapide,... gaztetako biurrikeriak ere jarri al dituzu zure liburu ortan?

Bere bekain eder oien azpitik bixi-bixi begiratu zidan ta:

–Oiek... beoiri ixilka esan-ta naikoa izaten da.

“*Digna Joanne sententia*” esan nezaken nik arako artan, Jeronimo jakintsuak bezela. San Joanen erantzuna gorai patu zuanean: “Ara erantzuna, San Joanen diñakoa”. Ara emen Uztapideren diñako erantzun jakintsu zuurra!”.

\* \* \*

Oiartzungo Mariano Ostolaiz zanak, bere *Oroipen-kutxa* liburuan (*Auspoa* 182, 1985):

“Onela bota zion bein Uztapide bertsolaria zenak Robustiano Urkiari, Errenderiko *Bar Remigio*-n, nere ezkongai-despedidako afaria egin genduen egunean, Urkia ori oso toreatzallea baida.

Gorria dagona're  
jartzen dezu berde,  
arria tira dezu  
ta eskua gorde.  
Judas asten danean  
gantxo eta sarde,  
oraindikan gorriak  
ikusteko zaude”.

\* \* \*

1978-ko apirillean, Uztapideri eta Basarri Bergaran omenaldia egindakoan. Uztapidek kantatutako bertsoa:

Juan daneko sei urte ontan  
gaitzaren mendean nago,  
au ikusita nere bertsoen  
itxaropenik ez dago.  
Garai batean sobrean gendun  
umore ura balego!  
Bergara zuri esker beroak,  
nik ezin neike geiago.



# Argazkiak



Bertso-kantari. (Foto Arturo Delgado).



Iru aniak: Manuel, Jose Mari eta Nazario.



Uztapide eta Lasarte. Napparroan, Donezteben, 1971-an. (Foto Arturo Delgado).



Ezkerretik: Jose Luis Gorrotxategi, Imanol Lazkano, Lazkao-Txiki, Uztapide, Mattin.



Zubeltzuren omenaldian, Deban, 1974-I-6. Ezkerretik: Zubeltzu, Uztapide, Arozamena.





Azpeitian, bertako bertsolariei –Jose Lizaso, Jose Agirre eta Imanol Lazkano– egin zitzaien omenaldian, 1974-III-10. Aurrean, ezkerretik: Egileor, Lasarte, Gorrotxategi, Lazkao-Txiki, Larrañaga, Igarzabal, Enbeita anaiak. Atzean, ezkerretik: Basarri, Mitxelena, Mugartegi. Loidisaletxe, Jose Agirre, Jose Lizaso, Uztapide, Imanol Lazkano, Garmendia, Arozamena, Patxi Etxeberria. (Foto Pepe Gil)



Azpeitia, 1974-III-10. (Foto Pepe Gil)



Famili osoa, 1974-V-12. (Foto A. Z.)



Uztapide, jaiotetxearen aurrean, 1974. (Foto A. Z.)






Manuel Olaizola, Uztapide, 1974-V-12. (Foto Boni Otegi)




Uztapide eta Lazkao-Txiki, oni Donostian egin zioten omenaldian, 1976-I-25.




Uztapide eta Lasarte, oni Leitzan egin zioten omenaldian, 1975-III-2.



Oiartzungo Ergoien, *Uztapide Plaza* zabaldu zanean, 1975-VIII-8.  
Ezkerretik: Kosme Lizaso, Sebastian Lizaso, Jon Lopategi, Jose Agirre, Uztapide, Jon  
Azpillaga, Imanol Lazkano, Jose Lizaso.




Oiartzungo Ergoien, *Uztapide Plaza* zabaldu zanean, 1975-VIII-8.



Manuel Olaizola, Uztapide.






Manuel Olaizola, Uztapide.




Manuel Olaizola, Uztapide.



Manuel Olaizola, Uztapide.




Manuel Olaizola, Uztapide.



Uztapide, bertsolari-gaiez inguratua.






Manuel Olaizola, Uztapide.



Ezkerretik: Kontxita, Uztapide, auen semea, Joakin Berasategi eta Antonio Zavala.



Uztapide, Zestoako seme kutun izendatu zutenean, 1978-V-24. Ezkerretik: Uztapide, Xabier Unanue, erriko alkatea, eta Manuel Olaizola Olaizola, Uztapide zaararen illoba eta besoetakoa. (Foto Loubet)



Uztapide, Zestoako seme kutun izendatu zutenean, 1978-V-24. (Foto Loubet).







Laguntzarrene baserria, Ergoin, Oiartzun. (Foto Boni Otegi)



Uztapide-berri eta Laguntzarrene etxeak, Ergoin, Oiartzun. (Foto A. Z.)






Uztapideren orain arteko liburuak.



Donostiako Koldo Mitxelena aretoan, 1999-VII-6, Manuel Lasarteren *Uztapide gogoan* liburuaren aurkezpenean. Ezkerretik: Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Aranalde, Antonio Zavala, Kontxita Uztapiederen alarguna, Manuel Lasarte.



Manuel Lasarteren *Uztapide gogoan* liburuaren azala.

# Aurkibidea

Sasoia joan da gero.....	9
Itzaurrea .....	9
Eskeintza .....	13
Liburuaren lanak .....	15
Aita zanari .....	19
Ama zanari .....	23
Uztapiden nintzan sortu.....	27
Nere jaioterriari.....	31
Guk sasoia bagendun.....	
Zestua .....	37
Artzaia .....	41
Basoko lanak.....	45
Garia Euskalerrian.....	49
Garoa biltzen .....	53
Artoak eta babarrunak.....	57
Elurtea .....	61
Gaztañak biltzea .....	63
Laiariak.....	65
Astoaren lanak .....	67
Garai bateko eztaiak.....	
Orain irurogei urteko apaizak .....	73
Zakurra.....	77
Uztapideko pameliaren kaleratzea .....	79
Gerra .....	83
Zubeltzu bertsolaria .....	85
Perretxikoak.....	89
Lasarte bertsolaria .....	91
San Antonetan Getarian.....	95
Zepai .....	97
Euskalerrria .....	101
Osinbeltzeko ezbearra.....	103
Oiartzun .....	107
Basarri ta ni.....	111
Kontrabandua .....	115
Gizonaren lau aroak .....	117

Gizonaren udaberria .....	119
Gizonaren udara .....	121
Gizonaren udazkena .....	123
Gizonaren negua.....	125
Arakiñak.....	127
Gure ezkontzea .....	131
Nere semiari .....	135
San Juanak .....	137
Jaungoikoaren legeko aginduak.....	141
Arrantzalien bizitza.....	143
<i>Bodegón Alejandro</i> .....	145
Euskaldunak.....	147
Ostalariak.....	149
Tratanteak .....	153
Gaurko mutil gaztiak .....	157
Baserriko bizimodua .....	159
Gure lengo baserria .....	163
Gu orain bizi geran etxea .....	165
Gaurko neskatxak.....	167
Jose Lizasori.....	169
Agorrrillaren amalaua .....	171
Lazkao-Txiki.....	173
Aurtengo loteria.....	177
Xalbador .....	179
Artikutza .....	183
Gure euskera .....	187
Jose Salaberriari .....	191
Eriotza .....	193
Idiazabalko Zepai saria.....	197
Ura .....	199
Ereñozuko omenaldia .....	203
Egunsentia .....	207
Pelota .....	209
Lore-illa .....	213
Martiñ Estanko.....	215
Martiñ Estankoren gizatasuna.....	219
Naparroako mendietan.....	221
“Naparru alde ortan...”	
<b>Osasuna joan da gero.....</b>	<b>227</b>
Bertsolari zarrei omenaldia .....	229



Manuel Lasarteri.....	231
Itzaurrea .....	233
Erriko seme kutun .....	235
Mattin bertsolariari.....	241
Zegamako omenaldirako (1981-XI-15) .....	243
Lexotiren omenaldirako (1982-I-30).....	245
Arrua-goiko omenaldia (1982-VI-6).....	247
Lasturko omenaldirako (1982-IX-19) .....	249
<b>Noizbait</b>	
Itzaurrea .....	253
Basarri ta Uztapide Tolosan .....	255
Bertso Berriak Manuel Olaizola <i>Uztapide</i> jarriak .....	257
San Iñazio Loiolakoari .....	259
Uztapide ta Xalbador, Alduden, 1961-X-29-an.....	261
Uztapide, Basarri, Azpillaga ta Lizaso Tolosan, 1962-III-18-an.....	263
Uztapide, Basarri ta Lopategi Tolosako sakramentinoetan, 1962-XII-9-an .....	271
Uztapide ta Lazkao-Txiki Aizarnan, 1963-VI-23-an .....	277
Uztapide, Basarri, Lazkano ta Lizaso Orion, 1963-VI-an .....	281
Uztapide ta Lizaso Aiako Santiagon, 1963-VII-25-ean.....	285
Uztapide, Lizaso, Agirre ta Basarri Zestoan, 1964-II-19-an.....	293
Uztapide ta Lasarte Abalzisketan, 1964-IV-12-an.....	295
Uztapide ta Lasarte Amasan, 1964-IV-26-an .....	299
Basarriren omenaldia Errezillen, 1964-V-17-an.....	305
<b>Lagunen oroitzapenak</b> .....	307
Manuel Olaizola Olaizola, Uztapide II .....	309
Jose Antonio Soraso Unanue, Zubeltzu, Itziar.....	317
Akilino Izagirre Amenabar, Zepai .....	321
Joxe Lizaso, Azpeitia .....	325
Sebastian Salaberria,.....	333
Bizente Barandiaran .....	335
Uztapide zana oroitzuz, Txomin Garmendia.....	341
Jose Mari Lertxundi, Aia .....	349
Teodoro Mujika, Zizurkil.....	365
Jose Agirre, Azpeitia.....	369
Imanol Lazkano, Azpeitia .....	375
Lexoti bertsolari, Oiartzun .....	381
Jon Azpillaga, Pasai San Pedro, Mutriku.....	385
Roman Maiz Uriguen, Okelar, Mutriku.....	389
Juan Ibarzabal Anitua, <i>Buztari</i> bertsolaria, Markina, .....	395

Jose Insausti, Segura.....	399
Julian Albizu, Arriaran .....	405
Kasiano Iburguren, Lizartzako itxua .....	409
Kosme Lizaso, Oiartzun .....	415
Sabino Auzmendi, Ataun .....	417
Patxi Iraola, Zaldibi.....	419
Rufino Iraola, Zaldibi.....	425
Nikolas Zendoia, Aia, Zarautz .....	431
Juan Maria Narbaitza, Eibar .....	433
Jesus Maria Etxezarreta, Zumarraga, Deba .....	437
Jose Maria Iriondo, Urrestilla, Zarautz .....	439
Uztapideren omenaldia, Donostia, 1968-I-21 .....	453
Apalondo batean jasoak, Etkezuri, Olaberria, 2000-VI-26.....	455
Xabier Unanue, Zestoa.....	463
Beste iru ale .....	465
<b>Argazkiak .....</b>	<b>469</b>



1056654

BO-4180



AUSPOA



SENDOA